MATEOREN EBANJELIOA
12 EUSKALKITAN



Aezkera • Arabaera • Behe-nafarrera • Bizkaiera

Erronkariera • Gipuzkera • Hego goi-nafarrera

Ipar goi-nafarrera • Lapurtera • Zaraitzuera

Zuberera • Euskara batua

Prestatzailea: Aitor Arana

MATEOREN EBANJELIOA

12 EUSKALKITAN

Prestatzailea:

Aitor Arana

MATEOREN EBANJELIOA

12 EUSKALKITAN

Prestatzailea:

Aitor Arana

Edizio laguntzaileak:

Jesusmari Arana

Euskalkien lagunak

Iberba aholkularitza

Azaleko mapa: R. Menéndez Pidal
(Ikus hitzaurreko informazioa)

© Moldaketa lanarena: Aitor Arana

© Erroteta Argitaletxea

ISBN: 978-84-17607-99-9
Lege Gordailua: BI 01021-2025

Diseinatzaile eta argitaratzailea: Joseba Berriotxoa www.erroteta.com

Euskal Herrian inprimatua

ERROTETA

Aurkibidea

Hitzaurrea 7
Aezkera 17
Arabaera 77
Behe-nafarrera 139
Bizkaiera 203
Erronkariera 271
Gipuzkera 339
Hego goi-nafarrera 407
Ipar goi-nafarrera 475
Lapurtera 543
Zaraitzuera 609
Zuberera 677
Euskara batua 741

HITZAURREA

1. Legazpiko gaztea eta Bonaparte hizkuntzalaria

Hemeretzi urteko gazte legazpiar bat Donostiara joan zen trenez, han autobusa hartu eta Hondarribira joateko asmoz. Izan ere, herri hartan Jose idazle bizkaitarra bizi zen, eta gazteak telefonoz adostuta zeukan hitzordua harekin. Donostiako kaleetan zehar autobusera bidean zihoala, gazteak Joxean Ormazabal editore eta idazlea topatu zuen. «Hara! Nolatan hemen, Aitor?», galdetu zion editoreak. «Hondarribira noa; *Nyork* liburua euskalkitan atera nahi nuke, eta Josek bizkaierara itzuliko du». «Liburu bat euskalki desberdinetan, e? Bonaparte bezala zabiltza, orduan». «Bonaparte? Napoleon?», pentsatu zuen Aitor gazteak. Orduantxe izan zuen lehenengoz Luis Luziano Bonaparte printze hizkuntzalariaren berri.

Gaztearen orduko asmoari jarraituz, Josek bizkaierara itzuli zuen *Nyork*, Martin Ugarte legazpiarrak Legazpiko gipuzkerara eta Junes Casenave-Harigilek zuberera *Pottiko beltza* izenburuarekin. Zoritxarrez, editore bati hiru itzulpenok galdu egin zitzaizkion, 2000. urtearen inguruan egindako bere argitaletxearen lekualdatze batean.

Gazteak, ordea, ez zuen inoiz baztertu testu ez erlijioso luze bat «euskalki guztietara» itzultzeko asmoa eta, azken urteetan Oscar Wilderen *Dorian Grayren erretratua* zenbait euskalki eta azpieuskalkitan argitaratu ditu: Gipuzkeraz (Azpeitia, 2016), Zaraitzueraz (2020), Euskara batuan (2020), Gipuzkeraz (Goierri, 2022), Hego nafarreraz (Izarbeibar, 2023), Erronkarieraz (2025), Hego nafarreraz (Lizarra, 2025).

Bonaparteren testu erlijiosoak, berriz, bizitzan zehar irakurgai eta langai izan ditu, esaterako, *Lingua Navarrorum* hiztegi bilduma sortzean.

2. Gure asmoa: Bonaparteren Mateo eguneratzea

Bonaparteren testuak hizkuntz balio handiko altxor erraldoia dira, milaka eta milaka orrialdekoa, eta 1860. urtearen inguruko euskalkien berri zehatza ematen digute. Zorionez, 1990eko hamarkadan Deustuko Unibertsitateko R. M. Pagola,

A. Beola, I. Iribar eta J. J. Iribar irakasleek osatutako taldeak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, 25 liburukiko *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak* bilduma handia argitaratzea lortu zuen. Bildumako testuen artean badago testu luze bat, 50 orrialde ingurukoa: *Jesukristoren ebanjelioa, San Mateoren arabera*, printzeak Euskal Herriko euskalki guztietara ekarri nahi izan zuena. Bederatzi bertsio hauek itzularazi zituen: behe-nafarrera, bizkaiera, erronkariera, gipuzkera, hego goi-nafarrera, ipar goi-nafarrera, lapurtera, zaraitzuera eta zubererazkoa. Azpieuskalki batzuetako bertsioak ere lortu zituen, esaterako, behe-nafarrerazko bi, gipuzkerazko hiru eta abar.

Esku artean daukagun liburu honi izenburua ematen dion *«Mateoren ebanjelioa»*, ordea, itzultzaile profesionalak ez ziren euskaldunek euskaratu zuten (aurrerago banan-banan ikusiko ditugu) eta, gainera, euskaraz idazteko arau ortografikorik gabe, Hegoaldean gehienbat espainolaren grafia erabiliz eta Iparraldean gehienbat frantsesarena. Horren ondorioz, gaur egungo irakurleari zaila eta nekagarria zaio testuak beren hartan irakurtzea. Gainera, ebanjelioaren itzultzaile batzuek estuegi jarraitu zioten, gehienetan, erdarazko testuen egiturari, itzulpen literalegiak eginez, oso arrotzak eta tarteka ulergaitzak.

Edizio honetan hori guztia txukuntzen saiatu gara. Ez dugu dena goitik behera «zuzendu» nahi izan, eta erdarakada gordinenak leuntzeko ahalegina baino ez dugu egin, irakurketa eta ulermena erraztu nahirik. Honela jokatu dugu:

a) Perpausen egitura euskal egitura jatorretara hurbiltzen saiatu gara, horretarako –euskalkiaren ezaugarriak errespetatuz– euskalkiaren nahiz euskara batuaren egituretara jo dugula. Honelako «leku aldatzeak» [ ] parentesien bidez markatu ditugu.

b) Soberakoak izan litezkeen erdal maileguak honako parentesien bidez ordezkatu ditugu, irakurlea jakitun egon dadin:

1) [ ] = testu bereko hitz bat erabili da, erdarazko maileguak ordezkatzeko.

2) ( ) = euskara batuko hitz bat erabili da, erdarazko maileguak ordezkatzeko. Zubererazko ebanjelioan, *Batarzün Berriko* kapitulu buruak hartu direla adierazteko ere erabili dugu.

3) { } parentesiak, berriz, ipar goi-nafarrerazko ebanjelioan bezala, itzultzaileak bere itzulpenean bi forma desberdin eman dituenean erabili ditugu. Adibidez: *zergatik harek* eta *zerengatik hark*. Biak islatu nahi izan ditugu, daukaten hizkuntz interesagatik. Horretarako, honela jokatu dugu: *zergatik harek* {*zerengatik hark*}.

c) Testuen grafia eguneratzeko, honela jokatu dugu: c (a, o, u) > k, c (e, i) > z, qu > k, ch > tx, gu (e, i) > g (e, i), g (e, i) > j (e, i), mb > nb eta mp > np. Iparraldean, berriz, tch > tx, ch (zenbaitetan) > x, ou > u, x > ts eta abar.

d) H hizkiaren erabilerari dagokionez, berriz, euskalkietan idazteko Euskaltzaindiaren gomendioei jarraitu diegu. Salbuespena, noski, euskalkiren batek berez h soinu hasperendua duenean egin dugu: orduan, euskalkiaren hasperentzeak errespetatu ditugu. Ikus honetaz gehiago «Zuberera edo xuberotarra» euskalkiaren informazioan.

3. Gure euskalkiak

AEZKERA

Aezkera Nafarroa Garaiko iparraldeko Aezkoa ibarreko euskara da. Bonaparte printzeak (1863) mendebaldeko behe-nafarrerarekin batera sailkatu zuen. Iñaki Camino irakasleak (2003) *Ekialdeko hego-nafarrera* izena jarri zion. Eta Koldo Zuazo irakasleak (2014) «nafarra (euskalkiaren) eta nafar-lapurtarraren tarteko hizkera» dela diosku. Gure ustez, aezkerak badu aski nortasun euskalki beregaina dela esateko.

Josu Cabodevilla euskara irakaslea zenak 1991. urtean *Aetzen uskara* ikasliburua argitaratu zuen. Hitzaurrean honela dio Mateoren ebanjelioaren bere itzulpenari buruz:

«Aetzen uskaras elekatzeko gai izanas geros, Mateo sainduain ebanjelioko aezkeratzeari ekin nion, hortako Itun Berria *eliza liburua oinarritzat hartzen nuela, Olabideren* Idazteuna *ere lagun izanik. Eta Iñaki Camino filologo jakintsuak zuzendu zidan lan mardul hau, laur urteko saioari amaiera emanes».*

Zoritxarrez, Josuren Mateo inprimategiko bi akatsekin argitaratu zen: Batetik, testuko bersetak zenbakitu gabe zeuden eta, bestetik, maketa egitean maketatzaileak hainbat pasarte «jan» zituen.

Horretaz jabetuta, Josurekin telefonoz hitz egin genuen eta hark, beti adeitsu, baietz esan zigun; alegia, hobe izango zela bersetak zenbakituta atera balira. Urte batzuk geroago, euskalki-liburu hau argitaratzeko prestatzen ari ginenean, berriz ere Josurekin hitz egin genuen, testua argitaratzeko baimena eskatzeko batetik, eta falta ziren pasarteak sartzeko, bestetik. Josuk berehala eman zigun baimena Bonaparteren «Mateo euskalki-bilduma» bere testuarekin osatzeko, eta, prestutasun handiz, dena osatu arte uaxapez bidali zizkigun bere ebanjelioaren lehen edizioan falta diren pasarteak.

ARABAERA

Araba probintziako euskara da. Ia Araba osoan galdu bazen ere, gaur egun ongi dokumentaturik dago, batez ere Gasteizen eta probintziaren iparrean. Bonaparte printzeak (1863) Bizkaiera izeneko euskalki handian sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014) *Mendebalekoa* izeneko euskalkian sailkatu zuen, «sortaldeko

azpieuskalkia» dela zehaztuz. Gure ustez, *Mendebalekoa*ren baitan *bizkaiera* (herriak esaten jarraitzen duen bezala) eta *arabaera* daudela esan daiteke.

Aitor Arana idazle eta hiztegigileak berriki *Arabako euskara. Zigoitiko aldaera* (2025) ikasliburua argitaratu du ARABAERA bilduman. Horixe izan da liburu honetako Mateo arabarra sortzeko bidea. Itzultzaileak, Josu Cabodevillaren bide beretik, bizkaierazko *Euskal Biblia* (1993) hartu du oinarritzat, testua esaldiz esaldi Zigoitiko euskarara itzultzeko.

Begiratu batean, bitxia gerta daiteke ikustea Zigoitiko euskaraz barra-barra erabiltzen direla, *du, dugu, dusu/duzu* adizkiak, euskara batuan bezala. Horiek testuetan txandaka ageri dira *dau, dogu, dosu/dozu* adizkiekin batera. Gure ebanjelio arabarrean Zigoitiko euskararen halako ezaugarriak txandaka azalduta ageri dira, maiztasun handienekoei edo ongien dokumentatutakoei lehentasuna eman zaiela.

BEHE-NAFARRERA

Nafarroa Beherea probintziako euskara da. Bonaparte printzeak (1863) Nafarroa Behereko euskara bi euskalkitan sailkatu zuen: mendebaldeko behe-nafarrera (Lapurdiko ekialdera ere sartzen dena) eta ekialdeko behe-nafarrera. Koldo Zuazo irakasleak (2014) *Nafar-lapurtarra* euskalkian sailkatu zuen, Lapurdiko euskararekin batera.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio behenafarra Iribarnegaraik itzuli zuen eta Baigorriko euskaraz dago. Izenburu hau jarri zion: *Yesu Krixtoin Ebanyeliua San Mathioin arabera*.

Testu hau ez zen bere garaian argitaratu, baina zati bat bai: *Erailearen parabola*, 1857an. Askoz geroago, 1999an, *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak* bilduman argitaratu zen.

Iribarnegarairen datu biografikorik ez dugu aurkitu.

Iribarnegaraik idatzitako *kh, lh, nh, ph, rh* eta *th* kontsonante taldeak *k, l, n, p, r, t* bihurtu ditugu, gaur egungo idazkera arauak erabiliz. Berdin egin dugu *y* > *j* aldaketa eginez ia beti. Kontsonante talde horien eta *y*-aren erabilera jatorrizko testuan kontsulta daiteke.

Irakurleak behe-nafarrerazko testu honi buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, jo beza hona: *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Mendebaldeko behenafarrera*, 20-81 or.

BIZKAIERA

Bizkaiko eta Gipuzkoa mendebaldeko euskara da. Bonaparte printzeak (1863) Bizkaiera izeneko euskalkian sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014)

Mendebalekoa izeneko euskalkian sailkatu zuen. Gure ustez, *Mendebalekoa*ren baitan *bizkaiera* (herriak esaten jarraitzen duen bezala) eta *arabaera* daudela esan daiteke.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio bizkaitarra Jose Antonio Uriartek 1858. urtean itzuli zuen eta Markinako euskaraz dago. Izenburu hau jarri zion: *Jesukristoren Ebanjelijo santuba San Mateoren erara*. Bere garaian, Bonapartek 12 ale argitaratu zituen.

Jose Antonio Uriarte (Arrigorriaga, 1812 - Zarautz, 1869) frantziskotarra idazlea eta itzultzailea izan zen. 1856an Bonaparte printzearekin elkarlanean hasi zen.

Irakurleak bizkaierazko testu honi buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, jo beza hona: *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Bizkaiera 1*, 185-251 or.

ERRONKARIERA

Nafarroa Garaiko ipar-ekialdeko muturrean dagoen Erronkaribarren hitz egiten zen euskara da. Gaur egun oso ongi dokumentaturik dago. Bonaparte printzeak (1863) zubererarekin batera sailkatu zuen. R. M. Azkuek (1910) euskalki beregain moduan sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014), *Ekialdeko nafarra* izeneko euskalkian sailkatu zuen, zaraitzuerarekin batera.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio erronkariarra Prudenzio Uhaldek 1858. urtean itzuli zuen eta Bidankozeko euskaraz dago. Izenburu hau jarri zion: *Jesukristo gore Jeinaren Ebanjelio Saintiua segun San Mateok*. Jose Estornes Lasak 1982an osorik argitaratu zuen.

Pedro Prudenzio Uhalde Mayo (Bidankoze, 1823 - 1879) Bidankozeko erretorea izan zen. Bonaparte printzearen eskaeraz Mateoren ebanjelioa eta Asteteren dotrina euskaratu zituen.

Erronkarierazko eta zaraitzuerazko ebanjelioak, ziur aski, guztietan gaizkien itzulitako ebanjelioak dira. Erdal maileguz, erdal esamoldez eta erdal joskerez gehien beterik daudenak dirudite.

Hainbat pertsona izen eta leku izen *Elizen arteko Biblia* (Bibli Elkarte Batuak, 1994) liburuaren arabera batu ditugu.

Erronkarieraz bokal sudurkariak ahoskatzen ziren. Horiek adierazteko, txapela jarri diegu. Adibidez: *aînguriua* (aingerua).

Jatorrizko testuaren azterketa osoa kontsultatu nahi izanez gero, jo hona: *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Erronkariera* 18-102 or.

GIPUZKERA

Ia Gipuzkoa osoan (mendebalde ia osoa eta ipar-ekialdea kenduta) hitz egiten den bertako euskara da. Bonaparte printzeak (1863) Gipuzkera izeneko euskalkian sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014) *Erdialdekoa* izenarekin sailkatu zuen.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio gipuzkoarra Klaudio Otaegik itzuli zuen eta Zegamako euskaraz dago. Itzulpenak, bi izenburu dauzka. Bat azalean: *Ebanjelio Santu gure Jesukristo Jaunarena, Done Matheoren arauran. 1850 garren urtean biurtua euskerara*. Eta bestea barruan: *Gure Jesukristo Jaunen Ebanjelio Santue San Mateok dionez, Zegamako eskuera itzulie. 1867*.

Klaudio Otaegi (Zegama, 1836 - Hondarribia, 1890) lanbidez irakaslea zen. Bonaparte printzearen laguntzailea izan zen, eta printzeak 1866an Euskal Herrian egindako bidaietan lagundu zion. Gipuzkoako hainbat azpieuskalkitara itzuli zituen Kristau Dotrina eta Bibliaren zati asko.

Irakurleak gipuzkerazko testu honi buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, jo beza hona: *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Gipuzkera 4*, 1969-2110 or.

HEGO GOI-NAFARRERA

Nafarroa Garaiko Izarbeibartik Orreagaraino eta Lizarra aldetik Oibarrerriraino hitz egiten zen euskalkia da. Gaur egun oso ongi dokumentaturik dago, gehienbat Bonaparteri eta Koldo Artolari esker. Bonaparte printzeak (1863) Hego goi-nafarrera euskalkian sailkatu zuen. Iñaki Camino irakasleak (2003) *Hego-nafarrera* izena jarri zion. Koldo Zuazo irakasleak (2014) *Nafarra* izenarekin sailkatu zuen.

Hona ekarri dugun Mateoren hego-nafarrerazko ebanjelio dotore honen egilea ezezaguna da. Itzulpenaren data ere ez dakigu; XIX. mendekoa dela soilik. Eguesibarko Elkanoko euskaraz dago. Izenburua gaztelaniaz jarri zitzaion, erdarazko ohar honekin (itzulpena gurea da): *«Hitzez hitz kopiatua da Felix Torres Amatek gaztelaniara egindako [ebanjelioa]ren itzulpena. Itzulpen hau euskarara aldatu da, Egues-Elkano ibarrean eta bertako herrietan egiten den herri hizkeraren arabera»*.

Jatorrizko testuak azentua tilde bidez emana duela baliatu dugu, hemen ere hala jartzeko. Horrek hego goi-nafarrera hobeto ezagutzen laguntzen duelakoan gaude.

Irakurleak hego goi-nafarrerazko testu honi buruzko eta haren balizko egileari buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, jo beza hona: *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Hegoaldeko goi-nafarrera 4*, 1277-1341 or.

IPAR GOI-NAFARRERA

Nafarroa Garaiko iparrean eta mendebaldean hitz egiten den euskara da. Bonaparte printzeak (1863) Ipar goi-nafarrera euskalkian sailkatu zuen. R. M. Azkuek (1910) hego goi-nafarrerarekin batera sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014), aldiz, *Nafarra* izenarekin.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio baztandarra Bruno Etxenikek 1860. urte inguruan itzuli zuen eta Elizondoko euskaraz dago. Izenburu laburra jarri zion: *San Mateoin Ebanjelioa*.

Bruno Etxenike Garmendia (Urdazubi, 1820 - Iruñea, 1893) idazlea eta itzultzailea izan zen. 1857. urteaz geroztik Bonaparte printzearentzat lan egin zuen eta, hark eskaturik, hainbat testu erlijioso itzuli zituen Baztango euskarara.

Bruno Etxenikek Mateoren ebanjelioaren bi itzulpen egin zituen. Hemen argitaratzeko, guk lehena aukeratu dugu. Mateoren ipar goi-nafarrerazko bi itzulpenetan *'ute/dute* edo *'man/eman* bezalako txandaketak daudenean, guk hemen forma osoa hobetsi dugu: *dute, eman* eta abar. Testuetako *ï* dieresiduna *i* bihurtu dugu, idazkera batu arautuaren mesedetan.

Irakurleak ipar goi-nafarrerazko testu honi buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, jo beza hona: *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko goi-nafarrera 1*, 97-176 or.

LAPURTERA

Lapurdiren erdialde, hegoalde eta mendebaldeko euskara da, tradizioz. Bonaparte printzeak (1863) Lapurtera euskalkian sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014) *Nafar-lapurtarra* izenarekin sailkatu zuen, Nafarroa Behereko euskararekin batera.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio lapurtarra J. P. Duvoisinek 1860 inguruan itzuli zuen. Izenburu hau jarri zion: *Jesukristoren Ebanjelio Saindua Matiuren arabera*.

Joan Piarres Duvoisin (Ainhoa, 1810 - Ziburu, 1891) mugako aduana-kapitaina, idazlea eta itzultzailea izan zen. Bonaparte printzearen laguntzaile emankorrenetakoa izan zen. 1859 eta 1865. urteen artean Biblia osoa lapurterara itzuli zuen.

Duvoisinek idatzitako *kh, lh, nh, ph, rh* eta *th* kontsonante taldeak *k, l, n, p, r, t* bihurtu ditugu, gaur egungo idazkera arauak erabiliz. Berdin egin dugu *y* > *j* aldaketa eginez ia beti. Kontsonante talde horien eta *y*-aren erabilera jatorrizko testuan kontsulta daiteke (Ikus bibliografian).

ZARAITZUERA

Nafarroa Garaiaren iparreko Zaraitzu ibarrean hitz egiten zen euskara da. Gaur egun oso ongi dokumentaturik dago. Bonaparte printzeak (1863) ekialdeko behenafarrerarekin batera sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014), *Ekialdeko nafarra* izeneko euskalkian sailkatu zuen, erronkarierarekin batera.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio zaraitzuarra P. J. Samperrek 1869. urtean itzuli zuen. Jaurrieta edo Eaurtako euskaraz dago. Izenburu hau jarri zion: *Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio Sandua Aita Amaten erdaratik Eaurta bereko uskarala itzulia*.

Pedro Jose Samper Elizari (Eaurta, 1815 - 1870) apaiza eta idazlea izan zen. Apaiz lana bere herrian bertan egin zuen. Bonaparte printzearen laguntzaileetako bat izan zen. Hark eskatutako hainbat testu erlijioso euskaratu zituen.

Zaraitzuerazko eta erronkarierazko ebanjelioak, ziur aski, guztietan gaizkien itzulitako ebanjelioak dira. Erdal maileguz, erdal esamoldez eta erdal joskerez gehien beterik daudenak dirudite.

Irakurleak zaraitzuerazko testu honi buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, jo beza hona: *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Zaraitzera* 18-81 or.

ZUBERERA edo XUBEROTARRA

Zuberoa probintziako eta Biarnoko Eskiula herriko euskara da, nortasun handikoa. Bonaparte printzeak (1863) erronkarierarekin batera sailkatu zuen. Koldo Zuazo irakasleak (2014), *Zuberotarra* izeneko euskalkian sailkatu zuen.

Hona ekarri dugun Mateoren ebanjelio zuberotarra E. Intxuspek 1856. urtean itzuli zuen. Izenburu hau jarri zion: *Jesus-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Matiuren arauera*.

Emmanuel Intxauspe (Zunharreta, 1815 - Oinezegaine, 1902) apeza, idazlea eta itzultzailea izan zen. Bonaparte printzearen laguntzaileetakoa izanik, harentzat itzuli zuen zubererara Mateoren ebanjelioa.

Intxausperen itzulpenak kapitulu-bururik ez daukanez gero, horiek parentesi bidez ezarri ditugu, gainerako euskalkietan jarri ditugun kapitulu-buruak erabiliz.

Era berean, ez zuen ü bokala erabili. Testua, beraz, ü bokala gabe utzi dugu. Baina kapitulu-buruetan ü bokala jarri dugu, horiek *Batarzün Berria* itzulpenetik hartu ditugulako.

Intxauspek idatzitako *kh, lh, nh, ph, rh* eta *th* kontsonante taldeak *k, l, n, p, r, t* bihurtu ditugu, gaur egungo idazkera arauak erabiliz. Kontsonante talde horien erabilera jatorrizko testuan kontsulta daiteke.

Leku izenak eta pertsona izenak batu nahian, zenbaitetan Ipar Euskal Herriko *Elizen arteko Biblia* (Biblia Elkartea, 2007) liburuko leku izenak eta pertsona izenak mailegatu ditugu. Beste zenbaitetan, aldiz, *Batarzün Berria* (Biblia Elkartea, 2002) liburukoak.

Zubererak h-a darabil euskara batuan h-rik ez duten zenbait hitzetan: *huna* (ona), *hura* (ura), *huña* (oina). Eta beste zenbaitetan, alderantziz jokatzen du: *aizia* (haizea), *azia* (hazia), *ore buria* (heure burua), *jaits adi* (jaits hadi). Guk horiek horrela utzi ditugu, gehienak gaur egun ere hatxez eta hatxe gabe idazten direnez.

Interesa duenak *Batarzün Berria* (Biblia Elkartea, 2002) liburuan San Mateoren itzulpen berria aurki dezake, zuberera jasoa gaur egun nola idazten den jakiteko.

EUSKARA BATUA

Euskara batuko Mateoren ebanjelioaren gure bertsioa *Elizen arteko Biblia*ko (1994) testuan oinarrituta dago. Hala ere, irakurlea erraz ohartuko da aldaketa asko egin ditugula, estiloari, hiztegiari eta ortografiari dagokienez. Ez dira-eta alferrik igaro 31 urte aipatutako Biblia argitaratu zenetik.

Bigarren kapituluko 9. eta 10. bersetak euskalkietan dauden ordenan jarri ditugu. Kapituluen egitura ere, Bonapartek eginarazitako ebanjelioetakoen eredura makurtu dugu, haiekiko batasuna areagotzeko.

4. Liburu honen azaleko mapaz

Azalerako aukeratu dugun mapa R. Menéndez Pidalena da. Haren *Orígenes del español* (1956) liburuan ageri den Euskal Herriko mapa ezaguna da. Nafarroako hego-ekialdean, Menéndez Pidalek marra gorriz marraztu zuen euskararen 1200eko muga-arrastoa «zuzendu» egin dugu. Izan ere, hark ez zituen euskal eremuan osorik sartu orduan euskaldunak ziren Eslaba aldea eta Zarrakaztelu aldea. Gaur egun, ordea, informazio gehiago daukagu, Pidalek zeukana baino, eta aspalditxo dokumentatu zen Eslaba aldearen garai hartako euskalduntasuna (P. Salaberri Zaratiegi, *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, 1994) eta berriki argitaratu da gauza bera frogatzen duen Zarrakaztelu aldeko liburua (A. Arana, K. Colomo *Zarrakaztelu aldeko euskara*, 2024).

5. Ohartxo bat Bibliaz

Honezkero irakurlea ondotxo ohartuko zen hau ez dela liburu erlijiosoa, Mateoren ebanjelioak, berez, halakoa izango dela pentsarazten badu ere. Euskalki-liburua da esku artean daukaguna, eta eukalkiak ongi alderatzeko aukera ematen duen testu hautatua, L. L. Bonapartek berak aukeratu zuena da: *Jesukristoren ebanjelioa Mateoren arabera*.

Hala ere, bibliazaleek ongi dakiten kontu bat aipatu nahi dugu: aski onartua da, historian zehar Biblia hizkuntza batetik bestera itzuli zenean, hainbat itzulpenakats egin zirela. Hemen hiru bakarrik aipatuko ditugu: 1) *Birjina* hitza baino, egokiagoa omen da *neskatxa* hitza. 2) Jesusek aberatsei buruzko aipua egitean, ez omen zuen esan «Errazagoa da *ganbelua* jostorratz-zulotik sartzea...», baizik eta «Errazagoa da *soka* jostorratz-zulotik sartzea». Eta 3) Jesus gurutzean josita zegoenean, ez omen zioten *ozpina* eskaini belaki batean bustita, baizik eta garai hartako ardo merke eta ozpin gustuko motaren bat. Guk, hizkuntza aldetik orraztu ditugun Mateoren ebanjelioaren hamabi bertsio hauetan, xehetasunok beren hartan utzi ditugu; hau da, *birjina*, *ganbelua* eta *ozpina* utzi egin ditugu. Salbuespen bakarra arabaerazko bertsioan egin dugu, itzulpen berriena denez. Hala ere, aldaketa bakarra egin dugu: ganbelu zentzugabea kendu, eta jatorrizkoa omen den *soka* jarri dugu.

6. Esker onez

Argitaratu arte hamabost urtez landu dugun liburu honek IBERBA AHOLKULARITZA eta EUSKALKIEN LAGUNAK taldeen laguntza izan du, argitaratu ahal izateko. Jesusmari Arana liburu honen prestatzailearen anaiak ere laguntza bera eman du. Josu Cabodevillak eskuzabal bideratu zuen bere ekarpena, argitalpen honetarako.

Esker mila guztiei, zintzoki.

Aitor Arana

2025eko uztailean

AEZKERA

MATEOREN EBANJELIOA

AEZKERAZ

MATEO SANDUAREN

EBANJELIOA

JOSU CABODEVILLA

1991

LEHEMEXIKO KAPITULUA

[Jesusen genealogia.
Jesusen sortzea.]

1. Abrahanen seme eta Dabiden seme Jesukristoin altzinekoen librua.
2. Abrahanek Isaak sortu zue; Isaakek Jakob; Jakobek Juda eta garen ahaideak.
3. Judak Tamarrenganik Fares eta Zara sortu zitue; Faresek Esrom; Esromek Aram.
4. Aramek Aminabad; Aminabadek Naason; Naasonek Salmon.
5. Salmonek Rahabenganik Booz sortu zue; Boozek Rutenganik Obed; Obedek Jese.
6. Jesek Dabid erregea; Dabidek, Uriasen emazte izanainganik, Salomon sortu zue.
7. Salomonek Roboan; Roboanek Abias; Abiasek Asaf.
8. Asafek Josafat; Josafatek Joram; Joramek Ozias.
9. Oziasek Joatam; Joatamek Akaz; Akazek Ezekias.
10. Ezekiasek Manases; Manasesek Amos; Amosek Josaias.
11. Josaiasek Jekonias eta garen ahaideak sortu zitue, Babiloniako igesian.
12. Eta Babiloniako igesialdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zue. Salatielek Zorobabel.
13. Zorobabelek Abiud; Abiaudek Eliakim; Eliakimek Azor.
14. Azorrek Sadok; Sadokek Akim; Akimek Eliud.
15. Eliudek Eleazar; Eleazarrek Matan; Matanek Jakob.
16. Jakobek, berris, Jose sortu zue, Mariain senarra, eta Mariainganik jaio ze Jesus, Kristo deitua.
17. Gala, hamalaur jendamende izan zire guzira Abrahanenganik Dabidengeneino; hamalaur jendamende Dabidenganik Babiloniako igesialdireino; eta hamalaur jendamende Babiloniako igesialditik Kristoingeneino.
18. Jesukristoin jaiotzea gonela izan ze: Jesusen ama Maria Josereki ezkontzeko hitz emana zeoleik, erkaleki bizi beino lehenao ernari gelditu ze Izpiritu Sanduaen eites.
19. Garen senarra Jose, gisako gizona beize, eta ezpeizue bere emazteaenas iori deus erran nehi, ixilean utzi eta gandik fatea erabaki zue.
20. Baia gogo gorreki zeilela, Jangoikoaen aingirua amesketan agertu zitzeio eta erran zako: «Dabiden seme Jose, etzite izan lotsaik Maria zure emaztea etxean hartzeko, barnean draman haurra Izpiritu Sanduaenganik heldu beita.
21. Semea idukiko du eta zuk Jesus ezarko dakozu izena. Gorrek salbatuko beitu bere herria hobeneteik».
22. Guzi gau pastu ze Xeinak profetaen agos errana bete zein:
23. *Beida, birginak sabelean sortu eta semea idukiko du. Emmanuel ezarriko dakote izena* (gau da, «Jangoikoa gureki»).
24. Jose iratzarri zeleik, Xeinaen aingiruak erran bezala ein zue eta bere etxean hartu zue emaztea.
25. Eta elkarri ukitu gabe, Mariak semea iduki zue. Eta Josek Jesus imini zako izen.

BIGARREN KAPITULUA

[Iduzkialdeko mago batzuek Jesus adoratu.
Egiptora igesi. Belengo haurren hiltzea.
Egiptotik itzuli eta Nazareten bizi.]

1. Jesus Judeako Belenen jaio ze, Herodes erregeaen egunetan. Eta denbra berean zemeit Mago etorri zire iduzkialdetik Jerusalemera.
2. Galdeines:

–Non da jaio berri den judutarren erregea? Garen izarra ikusi'ugu iduzkialdean eta gena heldu gira beraen adoratzera.

3. Gori entzun eta arranguratu ze Herodes eta Jerusalem guzia gareki batio.
4. Eta apez nausiak eta eskribalariak bildu, eta Kristo non jaio zen geldein zaie.
5. Gaek erresponditu zute:

–Judeako Belenen. Gala douka profetak eskribituik:

6. *Eta zu, Belen, Judeako bazter gori, etzira iolas ere Judeako herri nausieteik txikinena, zureganik atrako beita manatari'at eta ene herri Israelen artzea izein da.*
7. Oronean Herodesek, Mago gaei ixilka dei ein zaie izarra noiz agerti zitzeien xakiteko ahal bezin ongi.
8. Eta Belenera igorri zitue erranes: «Zazte eta xakin ongi aski haurraen berri eta, bilatzen duzieleik, erran daztazie eni, nauronek ere fan eta adora zadan».
9. Gaiek, erregeari entzun ondoren, fan zire. Eta iduzkialdean ikusi izarra altzinetik ezarri zitzeie, haurra zeon toki geinean baratu artio.
10. Izarra ikusi zuteleik bozkario haundia hartu zute.
11. Eta etxean sartuik haurra ikusi zute Maria bere amaeki, eta makurtuik adoratu zute. Eta beren kutxak irekias geros erregaliak eman zazkiote[: urrea, intentsua eta mirra].
12. [Gero, amesketan entzunik Herodesengana ez berris fateko, bertze bide batetik itzuli zire beren lurraldera.]
13. [Magoak fan ondoren, Joseri Xeinaen aingirua amesketan agertu zitzeio, erranes: «Xeiki zite, hartu haurra eta ama eta zaza igesi Egiptora. Egon gan nik erran artio, Herodes haurraen bila ibiliko beita, hilarazteko».]
14. [Josek haurra eta ama gabes hartu zitue, eta Egiptora fan ze.]
15. [Gan bizi izan ze, Herodes hil artio. Gala, Xeinak profetaen agos errana bete ze: *Egiptotik etortzeko dei ein nako naure semeari.*]
16. [Herodes erregea, Magoek engañatu zutela goartuik, biziki hasarretu ze, eta Belenen eta inguruetan bi urtes azpiko haur guziak hiltzeko manatu zue, Magoek erran zuten denbra kontuan hartuik.]
17. [Gala bete ze Jeremias profetak errana:]

18. [*Entzun! Aieneak eta nigarrak Raman! Rakel ei da bere haurrengatik nigarres: ez du konsolatu nehi, ezpeitira bizi.*]

19. Herodes hilas geros, Xeinaen aingirua agertu zitzeio amesketan Joseri Egipton, erranes:

20. «Xeiki zite, hartu haurra eta ama eta zaza Israelgo lurraldera, hilak beitira haurrari bizia ekendu nehis zeiltzanak».

21. Xeiki ze Jose eta, haurra eta ama hartus, Israelgo lurraldera itzuli ze.

22. Baia xakin zueleik Judean Herodesen ondoren garen seme Arkelao zegola errege, beldur izan ze gara fateko. Eta amesketan mezua hartu, eta Galileara fan ze.

23. Gara ellegatu zeleik, Nazaret izeneko herrian gelditu ze bizitzen, profetak erran zutena bete zein: *Nazaretarra deituko dakote*.

HIRURGARREN KAPITULUA

[Joan Bateotzeileak Jesusen etortzea oihukatu.
Jesus bateotua.]

1. Egun gaetan Joan Bateotzeilea Judeako basalurrean agertu ze jendeari erranes:

2. «Damu ziezte, hurran baita zeru[ko] erregegoa».

3. [Joan] gorrengatik errana zue Isaias profetak: *Mintzo bat oihuka ei da basalurrean: Antza zazie bidea Xeinaendako, xuxendu garen bidexkak*.

4. Joanek kamello larrua zue arnesa; eta gerrontzean, larruzko igalia; eta basalangosta eta basaeztia zitue xanak.

5. Jerusalemetik, Judea guzitik eta Jordan aldetik garengana faten ze jende guzia.

6. Gaek beren hobenak aitortzen zituzte eta garek bateotzen zitue Jordan ugaldean.

7. Baia Joanek, farisear eta saduzear anitz beren bateoen hartzera heldu zitzeizkiola ikusiir, erran zaie:

–Sugekumeak! Nork erakutsi douzie, geinean duzien haserreari igesi eitera?

8. Eman dazkitazie bihotxaen itzultzeari daozkion fruituak.

9. Eta ez erran zauen beitan «Guk Abrahan dugu aita». Hara zer erraten douziedan: Jangoikoak harri goeteik ere sortzen ahal dazkio semeak Abrahani.

10. Ezarri dakote aizkora onborrari; frutu onik ematen ez dun arbola ebaki eta sura egotziko'ute.

11. Nik ues bateotzen zituztet, bihotxes itzuli ziezten; ene gibeletik heldu dena, berris, ni beino ahalzuao da, ni ezpeiniz ior garen zaten ermateko ere; garek Izpiritu Sanduas eta suas bateotuko zituzte.

12. Eskuan dauka sardea; larreina xahutuko du eta garia xabera ermein du; agotxa, berris, hil ezteiken suan erreko du.

13. Egun gaetan, Jesus Galileatik Jordanera etorri ze eta Joanengana agerrtu, gonek bateo zezan.

14. Joanek etzako utzi nehi eta gola erraten zako:

–Ni niz zuk bateotu biharrekoa, eta zu heldu zira enegana?

15. Jesusek erran zako:

–Utzi oreiko, gala bete biha'ugu Jangoikoak nehi'un guzia.

Oronean Joanek utzi zako.

16. Jesusek bateoa hartus geros, uretik atra ze. Zerua zabaldu ze eta Jangoikoaen Izpiritua ikusi zue uso idurian sausten eta bere geinera etortzen.

17. Eta zerutik, mintzo batek gala erran zue: «Gou da ene Seme Maitea; gonen beitan daukat ene atsina».

LAURGARREN KAPITULUA

[Jesus basalurrean tentatua. Jesus Galileara.
Jesus berri ona zabaltzen hasi.
Jesusek lehemexiko ikastunei dei. Jendetaldea.]

1. Gero, Izpirituak ermanik, Jesus basalurrera fan ze, deabruak aztaldian imini zezan.
2. Bidetan hogei egun eta bidetan hogei gaba[s] barurik egon ondoren, gosetu ze.
3. Etorri zitzeio aztatzeilea eta erran zako:
–Jangoikoaen seme balimazira, errazu harri gebek ogi itzuli ditela.
4. Jesusek erran zako:
–Eskribituik dao: *Gizona ez da ogis solo bizi, Jangoikoaen agotik atratzen den ele guzitik beizik.*
5. Oronean deabruak hiri sandura erman eta jauregiain kaskoan imini zue.
6. Eta erran zako:
–Jangoikoaen seme balimazira, xaurtiki zazu zaure burua goitik beheiti, eskribituik beitao: *Bere aingiruei manatuko daie zure atratzeko. Eta eskupetan ermein zituzte, xangoa mindu ez dekizun harrietan.*
7. [Baia] Jesusek erantzun zako:
–Bertze gou ere eskribituik dao: *Ez aztatu Jauna, zure Jangoikoa.*
8. Deabruak [berris hartu eta] mendi haundi batra erman zue, eta mundu zabaleko erreinu guziak eta gaen edertasuna erakutsis erran zako:
9. –Guzi gori zaurorrendako emein douzut, etzinik adoratzen balimanuzu.
10. Oronean Jesusek erantzun zako:
–Eken hakida gendik, Satanas! Eskribituik beitago: *Jauna zure Jangoiko duzu onetsiko eta bera solo serbituko.*
11. Oronean deabruak utzi zue, eta aingiruak hurrandu zitzeizkio serbitzera.
12. Joan harpatu zutela xakin zueleik, Jesus Galileara baztertu ze.
13. Nazaret utzirik, itsas bazterreko Kafarnaunera fan ze bizitzera, Zabulon eta Neftaliren mugetra.
14. Gala bete ze Isaias profetak errana:
15. *Zabuloren lurraldea, Neftaliren lurraldea, itsasoko bidea, Jordanes bertzaldean, arrotzen Galilea!*
16. *Ilunpean zeilen herriak argi istazu'at ikusi zue; heriotze itzalpeko lurraldean zeudenei argi'at agertu zitzeie.*
17. Oronean hasi ze Jesus oihuka erraten: «Bihotxes itzuli ziezte, hurran beita zeru[ko] erreinua».
18. Jesus Galileako itsas bazterretik zeilela, bi anea ikusi zitue, Pedro izeneko Simon eta garen anea Andres, itsasoan sareak hedatzen, arrantzaleak beizire.

19. Eta erran zaie: «Etorri eneki eta gizonen arrantzale einen zituztet».
20. Gaek zaloiki sareak utzi eta xarreiki zakote.
21. Gandik altzinera ziaela bertze bi anea ikusi zitue, Santiago eta Joan, Zebedeoen semeak, itsasontzian saren antzatzen ei zirela beren aita Zebedeoeki. Eta deitu zaie.
22. Gabek berehala ontzia eta aita utzi eta xarreiki zakote.
23. Jesus Galilea guzian barna zeile, gango sinagogetan irakusten, erreinuaen berri ona zabaltzen eta gaitz eta min guziak sendatzen herrian.
24. Siria guzian zabaldu ze garen izena, eta eriak ekartzen zazkiote, edozein geitzek eta oinazek xoik: deabrudunak, eror minduak eta perlesidunak. Eta sendatzen zitue.
25. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta Jordanes bertze aldetik etorri gizontalde haundiek xarreikitzen zakote.

BOZGARREN KAPITULUA

[Jesusen irakustea mendian. Zoriontarzunak.
Lurraen gatz, munduaen argi. Jesus eta legea.
Bake eitea. Ezkontza nahastea eta arrisguak.
Zin eitea. Mendekua. Maitatu etsaiak.]

1. Jende geitza gura ikusiik, Jesus mendira igan ze eta, xarri zeleik, bere ikasdunak hurrandu zitzaizkio.
2. Berak gou erran zae:
3. –Zorionekoak izpirituaren biharrean dauden guziak, berena beiute zeruko erregegioa.
4. [Zorionekoak nahigabean direnak, Jaungoikoak kontsolatuko beitu].
5. Zorionekoak niar eiten utenak, alegeratuak izein beidira.
6. Zorionekoak zuzentarzunaen gose eta egarri direnak, asetuik izein beidira.
7. Zorionekoak urrikizuak, goek erdietsiko beitute urrikia.
8. Zorionekoak bihotx garbia dutenak, gaek Jaungoikoa ikusiko beitute.
9. Zorionekoak bakezaleak, Jaungoikoaen seme errein beizaie.
10. [Zorionekoak Jaungoikoaen nahia egiteagatik geizki ebiliak, Jaungoikoa errege beiute].
11. Zorionekoak zek, enegatik baratxurika eta geixtoki ibiltzen zituzteteleik, eta gezurres einahalak ziendako erraten tuztelaik.
12. Boztu ziezte eta alegeratu, handia beita zeen saria zeruan; zeen aitzineko profetak ere, gala, geizki ibili beizituzte.
13. Zek zirate munduaen gatza. [Baia] gatza gatziltzen balimada, zereki gazituko da? Gonela landara xuartikitzeko eta zangopean zapaltzeko beizik ez da.
14. Zek zirate munduaen argia. Ez deike altxa mendi geinean dagon hiria.
15. Argia ere, bizten deleik, ezta lurrean ezartzen, argimutilaen geinean beizik, etxeko guziei argi ein dazen.
16. Eon deila biztuik zeen argia ere, gizonen aitzinean, zeen eite onak ikus ditzaten, eta zeruko zeen Aita goren ezarri dezaten.
17. Ez uste legea eta profetak baztertzera etorria nizela; baztertzera ez, beizik betetzera etorria niz.
18. Hara nik egia erran: zeruak eta lurrak iraunen duten artean ez «i»'at ere, ezta legetik galduko guzia bete artio.
19. Beras, aginduik txikinena baztertzen duna eta baztertzen erakustauna, txikinena izein da zeruko erregegioan; betetzalea eta gala erakusten duena handia izein da zeruan.
20. Zeen zuzentarzuna eskribalariena eta farisearreina beino handiagoa ez balimada, ez zirate sartuko zeruko erregegioan.
21. Entzuna duzie nola manatu zitzaien aitzinakoei: *Ez duzu ior hilen*, eta norbait hiltzen duna geizkile izein da auzoen altzinean.
22. Nik, berris, gou errataut: anea geistoki hartzen duena, geizkile izein da auzoen altzinean; bere aneari «eroa» erraten dakona, geizkile izein da batzar [nausian]; eta «sinesgabea» erraten dakona, su lezera egozteko gisara izein da.

23. Beras, yire eskintza aldarera ermatean, oroitzen balima[yiz] yire ahaideak baduela zerbeit yire kontra,
24. Utzi eskintzekoa gan berean, aldare altzinean, eta [yae] lehemixiko yaure ahaideareki bakeaen eitra; etorri oronean eta ein yire eskintza.
25. Ein [zak] bakea lehenbeinolehen yaure etseiareki, bidean gareki gaien artean, etsaiak alkateaen eskuetra erman ez haztan eta gero almiranteek txirolan sar ez haztaten.
26. Hara nik egia erran: Eyiz gandik atrako, azken sosa eman artio.
27. Entzuna duzie nola dagoen manatua: *Ez duzu ezkontz nahasterik einen.*
28. Nik, berris, gau errataut: emazteki [ezkondu]ari gogos miratzen dakon guziak, nahasi du gareki ezkontza beraen bihotxean.
29. Beras, zure eskuieko begiak arrisguan ezartzen balimazitu, atra eta xaurtiki: hobe'uzu gorputz puska'at galdu, gorputz guziaeki su lezean akaatu beino.
30. Eta zure eskuieko eskuak arrisguan iminten balimazitu, ebaki eta egotzi: hobe'uzu gorputzaen zakin'at galdu, gorputz guziaeki su lezean hil beino.
31. Manatua dao gou ere: *Emaztea uzten dunak eman dazo ezkontza hausten duelako agiria.*
32. Nik, berris, gou erraten dauziet: bere emaztea uzren duenak, leges kontrako ezkontza ez balimada, ezkontza nahasteko bidean iminten du; eta utzia izan denaeki ezkontzen denak ezkontz nahastea eiten du.
33. Entzuna duzie nola manatu zitzaien aintzinekoei: *Ez ein zinik gezurres*, eta *bete zkizu Xeinari ein zinak.*
34. Nik, berris, gou erraten dauziet: ez ein iolako zinik, *ez zeruagatik, Jaungoikoaen xarralkia* beita;
35. *Ez lurraengatik, garen zangopea* beita; ez Jerusalemengatik, *errege handiaen hiria* beita.
36. Ez zinaik ein zaure buruaengatik ere, ez beitzakezu zure bilo bakar bat, ez txuri ez beltz bihurritu.
37. Zeen eleketa gola izan deila: bai deleik, «bai»; eta ez deleik, «ez». Bertze guzia Geiztoaenganik heldu da.
38. Entzuna duzie nola daon manatua: *Begiari begi, hortzari hortz.*
39. Nik, berris, gou erraten dauziet: ez zigotu geixtakeriak eiten dauzunari; aldis, iork eskuieko maxelean xoten balimazitu, eskindu dazozu bertzea ere.
40. Auzira erman eta arnesak ekendu nehi dauzunari, eman dazozu longeina ere.
41. Iork mila urrats ibiliazi nehi zitueleik, zazi bi mila beraeki.
42. Eskean heldu zeizunari, eman; eta zuk sosaen aitzinatzea nehi lukenari, ez ukatu.
43. Entzuna duzie nola daon manatuik: *Maitatu zazu zure launa*, eta tirria iduki zure etseiari.
44. Nik, berris, gou erraten douziet: Onartu zkizie zeen etseiak, ein on tirria douzietenei, eta ein otoitz xoten zituztenendako,
45. Zeruan daon zeen Aitaen seme[-alaba] izan ziezten. Garek geixtoendako eta onendako atratzen beitu iduzkia, eta xuxenendako eta makurrendako eitau auria.
46. Izan ere, maite zituztenak maite izaki, zer sari zor zeizie? Zorlariek ere ez dute bertze gonenbertze eiten?
47. [Eta zeen ahaideak bakarrik agurtzen balimatuzie, zer eiten duzie (bereziik)? Jentilek ere ez dute bertze gonenbertze eiten?]
48. Izan ziezte on-onak, zeruko zeen Aita ona den bezala.

SEIGARREN KAPITULUA

[Limosna. Aita Gurea otoitza. Barura.
Ondasunak. Barneko argia.
Edo Jaungoikoa edo sosa. Zerengatik arranguratu.]

1. Beida, gero; zeen eite onak gizonen altzinean [ez] ein, ikusi zkiten. Bertzalas eztuzie zeruan daon Aitain sariik idukiko.

2. Limosnaen ematean, ez ibili altzinetik tutua xoten, itxurazaleak sinagogetan eta karriketan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu zkin. Egia erran, goek hartuik daukate beren saria.

3. Zuk, berris, limosnaen ematean, etzala xakin zure ezkerrak, eskuiak eitauna.

4. Zure limosna gori estalian bara deila, eta estalian ikustaun zure Aitak emein douzu saria.

5. Otoitzaen eitean, ez ein itxurazalek bezala: goiek otoizgioetan eta plaza sahesetan zutituik otoitz einzale agertzen beitira, gizonendako ikusgarri. Egias erraten douziet: Goek hartua dute beren saria.

6. Zu, berris, otoitzaen eitean, sar zite zaure ganbaran, hertsi ataria eta ein dazozu otoitz estalian dagon zure Aitari, eta estalian ikustaun zure Aitak emein douzu saria.

7. Otoitzaen eitean, ez ei ele jarioka, ginestegabeen gisara, hitzaen hitzes entzunen zeiela uste beitute.

8. Ez izan zek gaen antzeko, zeen Aitak beitaki zer biha'uzien, zek eskaka hasi beino lehenao.

9. Beras, zek gonela einen duzie otoitz: «Gure aita zeruan zirana, sandu izan deila zure izena.

10. Etor deila guregana zure erregegoa, ein deila zure nehia, nola zeruan gala lurrean.

11. Eman dazaguzu egunoroxko ogia.

12. Barkatu guri hobenak, guk guri hobentzen daugutenei barkatzen daiegun bezala.

13. Ez gitzazula aztaldian utzi, baia atra gitzazu geixtokeritik».

14. Gala zek gizonei beren hobenak barkatzen balimadaiztezie, zei ere barkatuko douzie zeruko zen Aitak.

15. Baia gizonei ezpalimadaiztezie barkatzen, zei ere ez douzkizie barkatuko zen Aitak zeen hobenak.

16. Barur duzieleik, ez imini orpegi ilunik, itxurazaleek bezala; orpegi[a] txakartzen beitute galakoek, barur doudela ingurukoei erakutsi nehis. Egias errataut: Goek hartu dute beren saria.

17. Zuk, berris, barur duzuleik, ubendustatu zaure burua asmo gozos eta ikuzi orpegia,

18. Ingurukoek ez, baia estalian ikusten dun zure Aitak emein douzu saria.

19. Ez montiotu lurrean ondasunik, pipiak eta herdoilak xaten beituzte, eta ebasleek xiloak ein eta ebasten beituzte.

20. Montiotu zkizie zeruan zeen ondasunak; gan ez pipiak ez herdoilak, ezpeitu igeiten ez eta lapurrak xiloak ein eta ebasten ere.

21. Ondasunak'ituzun tokian, gan bituzu bihotxa ere.

22. Begia da gorputzain argia. Gala, zure begia argi balimadao, zure gorputz guzia argian egoin da.

23. Baia zure begia eri balimadao, zure gorputz guzia ere ilunean egoin da. Eta zure beitan doukazun argi bakar gori itzaliik balimada, ai zer ilunpea!

24. Ez deike ior bi nausien mutil izan. Gala, edo bateri tirria idukiko dako eta bertzea onartuko, edo bati leiala izein zeio eta bertzea ez du onartuko. Ezteike izan Jangoikoain eta Sosain mutil.

25. Gorrengatik erraten douziet: Etziezte arranguratu, bizitzean zer xein edo gorputzean zer xantziko. Bizia ez da ba, xana beino gehiao eta gorputza arnesa beino gehiao?

26. Beida zeruko txoriei: ez dute eriten, ez uzta biltzen, ez eta sabera ermaten ere; eta zeen zeruko Aitak barkatzen tu. Etzirate ba zek, gaek beino gehiao?

27. Eta zeeteik nor da arranguraen arranguras bere bizia pixkat luzatu zakona?

28. Eta arnesas zetako arranguratzen zirate? Hara landako liliak, nola hazitzen diren; ez dira lanean eitzen, ez eta ardatzean ere.

29. Eta egias erraten douziet: Salomon bera ere, bere famaik ederrenean, etze xazten goeteik bat bezein ongi.

30. Bada, egu xutituik daon eta bihar sura botatuko den landako belarra Jangoikoak gala xazten balima'u, zemates gehiao zek gineste gutiko goek?

31. Ez ibili arranguratuik erranes: «Zer xein dugu, zer edein dugu? [Gorputzean zer xantziko dugu?».]

32. Jentilak ibiltzen dira guzi goen bila. Zeruko zen Aitak badaki guzi goiek behar tuziela.

33. Bila zazie, beras, lehemexiko Jangoikoain erregegoa eta garen zuzentasuna, eta bertze goiek gehigarri emein zeizkizie.

34. Etziezte, bada, arranguratu biharko egunas. Biharko egunak ekarko du bere arrangura. Aski du egun bakotxak bere enoia.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

[Ez juzgatu ior. Konfiantza otoitzetan.
Atari meharra. Beren frutuengatik ezonduko tuzie.
Peinaen geineko etxea.]

1. Ez juzgatu eta ez zituzte juzgatuko.

2. Juzgatzen duzien uste beras izein zirate juzgatuik, eta zek ibiltzen duzien neurrias, naurtuik.

3. Zertan zoude aneaen begiko agotxari beida, eta etzira goartzen zaure begian duzun madioas?

4. Edo nola erran dazokezu zure aneari: «Utzi daztazu zure begiaen agotxa atratzen», mandio'at duzuleik zaure begian?

5. Itxurazale zu! Atra zazu lehemixiko zaure begiko mandioa eta oronean ongi ikusko'uzu aneaen begitik agotx txikinaen atratzeko.

6. Ez eman zakurrei [gouza sanduak], zeengana itzuli eta hozkatu ez zitzaten; ez egotzi oihalaik urdei, zangopetan ibili zkiten.

7. Eskatu zazie eta emain zeizie; bilatu zazie eta harpatuko duzie; xo atarian eta idekiko zeizie.

8. Eskatzaunak hartzen du, bilatzen dunak harpatzen du, eta atarian xoten dunari idekitzen zeio.

9. Zeteik norbeitek, semeak ogia eskatu eta harria emein ote dako?

10. Edo arrea eskatu eta sugea emein ote dako?

11. Beras, zek, geixtoak izan arren, zeen semei gouza onak ematen balimadaiztezie, zemates gehiao emein douzkizie zeruko zeen aitak gouza onak, berari eskatzen dazkiotenei?

12. Ein bertzei, gaek zei eitea nehi zinduketen guzia: gori da [eskribituik daon] legea.

13. Sar ziezte atari meharretik; atari haundia beita eta bide xabala heriotzera dramana, eta anitz sartzen dira gandik.

14. Baia bai meharra dela ataria eta bai meharra bidea bizira dramana, eta guti dira gura bilatzen dutenak.

15. Zeiltzate erne sasiprofeteki! Ardi larrus zantziik heldu zeizkizie, eta barnetik otso geixto dira.

16. Beren frutuengatik ezonduko tuzie. Elorritik mahatsik bildu deike edo maldatik bikuik?

17. Gola, arbola onak frutu onak emate tu eta arbola geixtoak frutu geixtoak.

18. Arbola onak eztouke frutu geixtoik eman, ez eta arbola geixtoak ere frutu onik.

19. Frutu onik ematen ez dun arbola oro hondotik ebaki eta sura egotzen da.

20. Beras, beren frutuengatik ezonduko tuzie [sasiprofetak].

21. Eni «Xeina, Xeina!» ei zeizkidanak, ez dira guziak sartuko zeru[ko] erregegoan; zeruan daon ene Aitaen nehia eiteautenak beizik.

22. [Juizioko] egun gartan anitzek errein [dadate]: «Xeina, Xeina! Ez gine zure izenean profeta izan? Ez ginduze zure izenean deabruak oildu eta mirari anitz ein?».

23. [Baia nik erantzunen] daiet garbi: «Etzituztet ioiz ezondu; zazte eneganik, geizkileak!».

24. Gala, ene ele gebek entzun eta betetzen tuna, bere etxea peinaen geinean ein zuen gizon zentzudunain antzeko da.

25. Ein zue auria, etorri zire ur geingiazteak, atra zue haizea eta xo zute etxe gura; baia etze erori, peinaen geinean xariik beizeo.

26. Ene ele gebek entzun eta betetzen eztuna, [berris], bere etxea hareaen geinean ein zuen gizon tentumotzen antzeko da.

27. Ein zue auria, etorri zire ur geingiazteak, atra zue haizea, xo zute etxe gura eta erori ze; eta haundia izan ze garen hondaketa».

28. Jesusek mintzaldi gebek akaatu zituelek, jendeketa gura harrituik zue bere eleki.

29. Xakitun bezala irakusten beizue, eta ez eskribalariek bezala.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Jesusek legenaduna sendatu.
Erromatar ehuntariaen ginestea.
Jesusek Pedroren amagiarreba sendatu.
Eri anitz sendatu.Jesusek erontsia baretu eta
Gadarako deabrudunak sendatu.]

1. Jesus menditik beheiti xautsi zeleik, mintzaldi gebek akaatu zitueleik, jendeketa geitza zue gibeletik xarreikitzen.
2. Eta hara non hurrandu zitzeo legenadun'at, eta beleuniko gala mintzo zitzeo:
–Xeina, zuk nehi balima'uzu, garbi nukezu.
3. Jesusek eskua imini zako eta ukitu zue erranes:
–Nehi'ut, garbi geldi zite.
Berehala garbitu zitzeo legena.
4. Eta Jesusek oronean:
–Beida, ez iori daus erran. Fan eta ager zite apezaengana, eta emaozu Moisesek gaendako agertu bezala manatu eskingeia.
5. Jesus Kafarnaunera sartu zeleik, ehuntari'at etorri zitzeo, otoika erranes:
6. –Xeina, perlesidun doukat mutila etxean, eta oinazetan dago.
7. Jesusek [erran zako]:
–Fein niz eta sendatuko'ut.
8. Ehuntariak [erantzun] zako:
–Xeina, ni ez niz ior, zu ene etxera sartzeko, baia errazu ele'at eta sendatuko da ene mutila.
9. Ni ere, nauron, bertzeren pean egonagatik, batut ene pean gerra-mutilak, eta 'ati «Zaza» erraten dakot eta faten da, eta bertze bati «Zato» eta heldu da, eta ene mutilari «Ein zak gori» eta gori eitau.
10. Gou entzun ondoren, Jesus harritu ze eta gala mintzo zitzeie bere ondotik heldu zirenei: «Egias erraten douziet, Israelen ez dut ioren beitan bilatu gonenbertzeko ginesteik.
11. Eta gou erraten douziet: anitz etorki dira iduzki aldetik eta sahesko aldetik, eta zeru[ko] erregegoaen mahaian xarriko dira, Abrahan, Isaak eta Jakobeki.
12. Erreinuko semeak, berris, landa[ko] ilunetra egotziko tuzte. Gan izein da niarra eta hortzen karraska!»
13. Eta gero ehuntariari [erran zako]:
–Zaza [etxera], eta pastu dekizula ginesten duzun bezala.
Eta oron gartan sendatu ze mutila.
14. Jesus Pedroren etxera fan zeleik, gonen amagiarreba berotasunak goatzetuik harpatu zue.
15. [Jesusek] eskupetik hartu zue eta berotasunak utzi zue, [emaztekia] xeiki ze eta serbitzera hasi zitzeo.

16. Ilunabarrean, deabrudun anitz ekarri zazkiote. Ele bates oildu zitue deabruak eta eri zeuden guziak sendatu zire.
17. [Gala] Isaias profetaen errana bete [ze]: *Garek gure angabeak hartu'itu eta gure oinazeak erman.*
18. Bere inguruan hoinbertze jende ikusi, eta uras bertze aldera fateko manatu zue [Jesusek].
19. Oronean, eskribalari'at ondoratu zitzeo, eta erran zako:
–Irakastun, xarreikiko douzut noranehi zazela.
20. Jesusek erantzun zako:
–Axariek batuzte xiloak eta zeruko txoriek kafiak. Gizonaen Semeak, berris, ez du burua non etzin.
21. Bere ikastuneteik bertze batek erran zako:
–Xeina, utzi daztazu lehemixiko ene aitaen ortzera fan nein.
22. Jesusek erantzun zako:
–Zuk xarreiki eni eta utzi hilei beren hilen ortzen.
23. Jesus txalupan sartu ze eta ikastunak xarreiki zazkote.
24. Eta horra non hasten den erontsi gogor bat itxasoan, ur balastek txalupaen estaltzereino. [Jesus], berris, lo zego.
25. Ikastunak beraengana fan zire eta iratzarri zute erranes:
–Salba gitzazu, Xeina! Galduik gira!
26. Jesusek [erran zeie]:
–Zerengatik zirate goin beldur, gineste gutikoak?
Eta, xutituik, haizeari eta itxasoari manatu zeie, eta berehala barealdi ederra ein ze.
27. [Ikastun] gaek, harrituik, gala erran zute: «Nor ote'ugu [gizon] gou, haizeak eta itxasoak ere obeditzen beitakote?»
28. Jesus bertze itxas bazterrera fan zeleik, gadaratarren lurraldera, bi deabrudun etorri zitzeizkio bidera, hilobitik atra ondoren. Biziki geixtoak zire eta ior etze ausartzen bide gartaik ibiltzera.
29. Oihuka gala erran zakote:
–Zer ikusi dugu guk zureki, Xeinaen Seme? Orona beino lehenao heldu zira, gu oinazetan imintra?
30. Gaenganik ez urrun, txertalde haundi'at zeile sarioan.
31. Eta deabruek [Jesusi] eskatu zakote:
–Oiltzekotan, igorri gitzazu txertalde gortra.
32. Jesusek erran zaie:
–Zazte.
Gaek atra eta txerrietra fan zire, [eta] txertalde guzia ezpondan beheiti itxasora egotzi ze, eta urean ito.
33. Txerrize[e]k igesi egin zute eta hirira etorri zire, eta deabruduneki pastuaen berria zabaldu zute.
34. Oronean herri guzia Jesusen bidera atra ze eta ikusi zutenean, gaen mugeteik lekutu zein eskatu zakote.

BEDRATZIGARREN KAPITULUA

[Jesusek perlesiduna sendatu. Mateori deia.
Odoljarioa zuen emaztekia eta haundikiaen alaba.
Jesusek bi itxu eta mutu debruduna sendatu.
Uzta anitza da, baia langileak guti.]

1. Jesus txalupa batra igan eta itsasoan zihar bere hirira etorri ze.
2. Gan, perlesidun'at ekarri zakote, iletxean etzinik. Jesusek garen fede handia ikusi eta gola erran zako eriari:
–Izan zite ausarta, seme! Zure hobenak barkatzen zeizkizu.
3. Gontan, zemeit eskribalarik gonela erraten zute beren beitan: «Baratxurika ei da gou».
4. Jesusek, berris, gaen pentsamendua ezonduik erran zaie:
–Zetako ibilt[z]en tuzie pentsamentu geixtoak zeen bihotxetan?
5. Zer da aixago erraten: «Barkatzen zeizkizu zure hobenak» edo «Xeiki eta xaxa»?
6. Gala, bada, xakin zazien Gixonain Semeak badula lurrean hobenen barkatzeko eskubidea. Gonela erran zako perlesidunari:
–Xeiki zite, hartzazu esku-goatze gori eta zaza etxera.
7. Gizona xeiki ze eta bere etxera fan ze.
8. Gori ikusi eta lotsatuik gelditu ze lagunketa, eta Jangoikoa adoratzen zute, gizonei galako eskubidea ematen daielako.
9. Jesusek, bides zoala, Mateo izeneko gizon bat ikusi zue, kobratzale mahaian xarria, eta erran zako:
–Xarreiki eni.
Mateok, xutituik, xarreiki zako.
10. [Geroao], Jesus mahaian zeolaik Mateoin etxean, kobrazale eta hobendun anitz etorri ze eta mahaian xarri zire Jesuseki eta garen ikasuneki.
11. Farisearrek, gori ikusi, eta gala erran zaete ikasdunei:
–Zendako xaten du zeen Maistroak zorduneki eta bekatarieki?
12. Jesusek gori entzun eta erran zaie:
–Osasun onekoak ez, beizik eri daudenek beha'ute mediku.
13. Zazte, ba, eta ikasi zer errannahi duen erran zahar garek: *Erregaluak ez, beizik urrikia nahi'ut nik*. Ez beiniz etorri gisakoei deitzera, bekatariei beizik.
14. [Behin batean, Joan Bateotzeileaen] ikastunak Jesusengana hurrandu zire, eta erran zakote:
–Zetako guk eta farisearrak usu barur eitaugu, eta zure ikastunak ez?
15. Jesusek erresponditu zaie:
–Ezkontza lagunek niar ein zakete, senar berria beereki duten artean? Etorko da senar berria ekenduko daieten eguna; oronean bai, einen dute barur.

16. Ez dako iork xosten arnesa zahar bati oihal ederreko petatxoik, petatxoek tiratzen dutelako arnesatik eta haundiao eiten da tarratada.
17. Zahagi zaharrak ere ez dira ardo berris betetzen, bertzalas zahagiak lehertzen dira, ardoa ixuri eta zahagiak galtzen dira. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta gala bidek irauten dute.
18. Jesus elekan zeola, haundiki'at etorri zitzeo eta, altzinean etzinik, gala erran zako: «Alaba hil zeida aixtian! Zato berris, imini eskua geinean eta biziko da».
19. Jesus xeiki eta bere ikasleki gibeletik fan zitzeo.
20. Gontan, emazteki'at gibeletik hurrandu zitzeo, hamabi urte gaetan odol jarioka zeona eta soinekoaen saheskoa ukitu zako.
21. Bere beitan gala erraten beizue: «[Bere] arnesaen ukitze hutses sendatuko niz».
22. Jesus itzuli zitzeo, eta ikusi zuenean gala erran zako: «Izan bihotx, alaba! Zure ginesteak sendatu zitu». Eta oron beretik emaztekia sendatuik gelditu ze.
23. Jesus haundikiain etxera ellegatu ze, eta gango musikariak eta jendeain burrunba ikusi eta gala erran zue:
24. «Fan gendik! Ume gou ez dao hila, lo dao». Gaek, berris, irri eiten zakote.
25. Jendea igorri ondoren, Jesus barnera sartu ze, neskakoa eskutik hartu zue, eta gura xeiki ze.
26. Eta berri gou inguru guzi gartaik hedatu ze.
27. Gandik atra zeleik bi itxuk xarreiki zakote Jesusi, oihuka: «Dabiden Seme, urriki gutas!»
28. Eta etxera ellegatu zeleik, itxuak hurrandu zitzeizkio eta Jesusen [galdein zeie]:
–Ginestatzauzie gori ein zaketala?
–Bai, Xeina –gaek.
29. Oronean, begiak ukitu zazkio, erranes:
–Pastu dekiziela ginestatzauzien bezala.
30. Eta begiak ideki zitzeizkie. Jesusek txorroxki manatu zaie:
–Beida, etzala iork ere xakin!
31. Baia gaiek atratzeki, garen izena herrialde guzi gartan zabaldu zute.
32. Itxuak atra zireleik, gizon deabrudun mutu'at erman zakote Jesusi.
33. Deabrua egotzi zue, eta mutua elekan hasi ze. Jendeak harrituik erraten zue: «Ez da ioiz golakoik ikusi Israelen!»
34. Farisearrek, berris, gala erraten zute: «Deabruen nausiaen indarres botatzen tu gonek deabruak».
35. Jesus herris herri eta auzos auzo zeila, gaen sinagogetan irakusten, erreinuan berri onas elekatzen eta geitz eta min guzien sendatzen.
36. Lagunketa ikusiik urriki zitue, enoiatuik eta angabetuik beizire, artze gabeko ardiak bezala.
37. Eta oronean ikastunei erran zaie: «Uzta anitza da, baia langileak guti.
38. Ein otoitz uztaen xabeari, langileak igorri zkin bere uztaen biltzera».

HAMARGARREN KAPITULUA

[Hamabi apostuluak izendatu eta hamabiak igorri.
(Erasoaldiak) izein dira. Nori izan beldur.
Jesusek kontra iminiko. Ongi etorri egin.]

1. Jesusek bere hamabi apostuluei deitu eta ahalmena eman zaie izpiritu zikinen oiltzeko, eta gaitz eta min guzien sendatzeko.
2. Hamabi ikastunen izenak hebek dira: lehemexiko Simon –Pedro deitua– eta Andres, gonen anea. Santiago Zebedeoina eta Joan gonen anea.
3. Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zorren biltzeilea. Santiago Alfeoina eta Tadeo.
4. Simon kanaundarra eta Judas Iskariote, [Jesus] saldu zuna.
5. Hamabi gebek igorri zitue Jesusek, goar gebek eines:
–Ez fan jentilen lurretra, ez sartu Samariako herrietan;
6. Beizik eta zazte galduik deiltzan Israel [herriko] ardietra.
7. Eta bidetik zatela, erran zazie hurran dela zeru[ko] erregegoa.
8. Sendatu zkizie eriak, biztu hilak, garbitu lege[na]dunak. Kitoik hartu duzie, eman kitoik.
9. Ez [erman] urreik, ez zilarrik, ez sosaik zeen gerrontzekoetan.
10. Ez bideko zakuttoik, ez bigarren arnesaik, ez zataik, ez makilaik, zor beizeio xana langileari.
11. Edozein herri edo auzoan sartzen ziratela, ikas zazie nor den izen oneko gizona, eta egon garen etxean, gandik fan artio.
12. Etxe [batra] sartzean, ein bakesko agurra.
13. Eta etxeak merezi balima'u, etor dekiola zeen bakea; [merezi ezpalima'u, berris, ez egin agurrik].
14. Eta etxean hartzen ezpazituzte eta zeen mintzoa entuten ezpa'ute, etxe edo herri gartaik atratzen zirateleik, ilarrosi zeen zate[tako] hautsa.
15. Egias erraten douziet: Juizio[ko] egunean urriki gehiao izein Sodoma eta Gomorra lurraldendako, herri garendako beino.
16. Horra, ardiak otsoen artera bezala igortzen zituztet. Izan ziezte, beras, subeak bezin zuhur, eta usoak bezin ganoxa.
17. Kontus ibili jendeaeki! Beren auzitegietra ermain zituzte eta zigorkatuko beren sinagogetan.
18. Eta enegatik manatari eta erregengana ermein zituzte gaen eta jentilen altzinean aitormena ein zazien.
19. Ermaten zituztenean, ez egon arranguratuik zer errein eta nola errein: oronean [adiaziko douzie Jangoikoak] zer erran.
20. Zek ez, baia ze[e]n Aitain Izpiritua izein beita zeen beitan mintzatuko dena.
21. Aneak anea ermein du heriotzera, eta aitak semea; eta umeak burasoen kontra xutituko dira, eta hilko tuzte.

22. Ene izenaengatik guziek begitan hartuko zituzte, baia azkenereino irauten duna salbatuko da.
23. Hiri batean xarreikitzen douzieteleik, eskapatu bertze batra. Egias erraten douziet: Gizonaen Semea etorri beino lehenao ez zirate Israeleko herri guzieteik ibiliko.
24. Ikastuna ez da bere irakastuna beino gehiao, ezta mutila ere bere nausia beino gehiao.
25. Aski dauka ikastunak bere irakastunaen adina izatea, eta mutilak bere nausiaen adina. Etxeko xeinari Beeltzebul deitu balimadokote, [zemates gehiao] garen etxekoei?
26. Ez izan [jendeaen] lotsaik! Ezpeita daus estalirik, agertuko ez [denik], ez [daus] estalirik xakinen ez dena.
27. Gabas erraten douzietana errazie egunes; eta ixilka entzuten duziena, oihukatu etxeinetik.
28. Ez iduki lotsa gorputza hiltzen dutenei, baia arima hil eztouketenei; iduki lotsa, gorputza eta arima su ziloan galdu tzazkenari.
29. Ez dira, ba, sosa bates saltzen bi txori? Eta gaeteik batere ez da lurrera erortzen, zeen Aitaen baimenik gabe.
30. Zeen buru[etako] bilo guziak ere [Jangoikoak] zematuik doude.
31. Beras, ez izan beldurrik; txori guziak beino gehiago zirate zek.
32. Gizonen altzinean ene alde atratzen denak, bere alde idukiko nu ni ere zeruan daon ene Aitaen altzinean.
33. Ni ukatzen nuna, berris, ukatuko'ut nik ere zeruan daon ene Aitaen altzinean.
34. Ez ginetsi ni bakeaen ekartzera etorria nizela lurrera; bakea ez, beizik ezpataen ekartzera etorri niz.
35. *Gizona bere aitaen kontra eta alaba amaen kontra eta erreina amagiarrebaen kontra* [imintera etorri beiniz].
36. [Eta] *nork bere etxekoak idukiko tu etsei.*
37. Aita [edo] ama ni beino maiteao tuna ez da enedako gei; semea edo alaba ni beino maiteao duna ez da enedako gei.
38. Eneki [bere gurutzeareki] heldu ez dena, ez da enedako gei.
39. Bere bizia beraendako dunak galduko'u; bere bizia enegatik galtzen dunak, [berris], beraendako idukiko du.
40. Zek hartzen zituztenak ni hartzen nu; eta ni hartzen nunak ni igorri nuna hartzen du.
41. Profeta'at profeta delako hartzen dunak profetaen saria idukiko'u; eta gisako'at gisako delako hartzen dunak gisakoen saria idukiko'u.
42. [Eta] txikin gebetaik bati, ene ikastun delako, baso bat ur hotzaen edateko ematen dakonak, egias erraten douziet, ez du galduko bere saria. Zeruko erregegoaen misterioa.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

[Joan Bateotzeileaen galdea.
Jesusek Galileako herriak madarikatu.
Ebanjelioa jende xeheari agertua.
Aita eta Semea. Etor ziezte enegana.]

1. Jesus, bere hamabi ikastunei irakatsi ondoren, gandik fan ze, [herris herri] irakustra.

2. Joan [Bateotzeileak] txirolan Kristoin eiteak entzun, eta bere bi ikastunak igorri zazkio galdeitra:

3. –Zu zira «Etortzekoa», edo bertze baten zai eon biha'ugu?

4. Jesusek erran zaie:

–Zazte eta erran Joani entzuten eta ikustauziena:

5. Itsuek ikustaute eta mainguak badeiltza, lege[na]dunak garbi gelditzen dira, eta sorrek entzuten dute, hilak bizten dira eta biharzuei berri ona erraten zeie.

6. Eta zorionekoa enegatik bide geixtoa hartzen ez duna!

7. Gaek fan, eta Jesus eleka hasi zitzeo jendeari:

–Zeren ikustra atra zinete basalurrera? Haizeak ilarrosten dun kaña'at?

8. Edo zeren ikustra atra zinete [bertzalas]? Ongi zantziik gizon bat? Ongi zazten direnak, erregen etxetan eoten dira.

9. Zertra atra zinete ba? Profeta baten ikustra? Baietz erraten doutziet, eta profeta beino gehiao den bat.

10. Gorrendako beitao eskribituik: *Beida, horra igortzen dut nik ene mezularia, zure altzinetik, zure bideaen antzatzera.*

11. Egias erraten doutziet: Ez da jaio amain semeik ior, Joan Bateotzailea beino haundiaoik; galere zeruko erregego[ko] txikinena, gura beino haundiao da.

12. Joan Bateotzeileaen eguneteik egundeino, zeruko erregegoa indarres irabazten da eta indar eitauten[e]k erdiesten dute.

13. Profeta guziek ta legeak Joan etorri artio dea eiten zute profeta hitza.

14. Onartu nehi ba'uzie, [Joan] gou da etortzeko zen Elias.

15. Bearri dunak entzun zala.

16. Noin antzeko dela errein nuke jendamende gou? Plazan xarririk douden haurren antzeko da, gala oihukatzen [bei]daiete [erkali]:

17. «Soinua xoten dugu eta etzirate dantzatzen; hilarioak kantatzen tugu eta ez duzie doluik eiten».

18. Etorri ze Joan, eta ezpeitzue ez xaten ez edaten, [eta] gola erraute: «Bereki deabrua douka».

19. Etorri ze Gizonaen Semea, xaten eta edaten duna, eta gola erraute: «Horra piltzezale eta ardo edalea, zordunen eta hobendunen launa!» Baia eitek Jangoikoin xakinduriari arrazioa eman dakote.

20. Eta oronean Jesus gogorki mintzo zitzeie, mirari gehienak ein zituen herriei, bihotxes itzuli ez zirelako, erranes:

21. –Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Zienean ein diren mirariak Tiron eta Sidonen pastu balira, aspaldi bihotxes itzuliak zeizke, zakus eta hautsez zantziik.

22. Egias erraten douziet: Juizio euna ermangarriao izein da Tiro eta Sidonendako, zeendako beino.

23. Eta zu, Kafarnaun,

Zerureino igan biha'uzula? Hilen tokireino erorko zira!

Zurean ein diren mirariak Sodoman pastu balira, egundeino iraunen [zue xutituik].

24. [Gorrengatik] erraten douziet: Juizio euna ermangarriao izein da Sodomako lurraldeaendako, zuredako beino.

25. [Behin] Jesusek gala erran zue:

–Bedeikatua zu, Aita, zeru-lurren Xeina, gouza gebek xakitunei estali eta jende xeheari erakutsi dazkiozulako.

26. Bai, Aita, gala nehi izan duzu.

27. Ene Aitak guzia eman dada. Iork ez du ezontzen Semea, Aitak beizik; ez eta Aita ere, Semeak beizik, eta Semeak agertu nehi izan dakonak beizik.

28. Etor ziezte enegana enoiatuak eta lanpetuak, eta nik atsina emein douziet.

29. Hartzazie ene buztarria eta ikasi eneganik, bihotx-bera niz eta umila, eta atzemanen duzie zeen arimendako atsina.

30. Ene buztarria leguna beita eta ene zama arina.

HAMABIGARREN KAPITULUA

[Eztabada xei egunas.
Perlesiduna launbates sendatua.
Jesus eta Beeltzebul. Arbola eta frutua.
Izpiritu geixtoaren itzultzea.
Jesusen egiasko familia.]

1. Behin baziae Jesus launbates gari alorretan barna. Eta ikastunak, gose beizire, gari buruak moxtu eta xaten hasi zire.

2. Gori ikusi, eta farisearrek erran zakote:

–Hara, zure ikastunak launbates ein bihar ez dena ei dira eiten.

3. Jesusek erantzun zaie:

–Ez duzie leitu Dabidek ein zuena, bera eta bere gizonak gosetu ziren batean?

4. Jangoikoaen etxean sartu ze eta eskintzako ogiak xan zitue, gaeteik xatea debekatuik iduki arren, ez berari, ez bere gizonei, apezei solo beizik.

5. Edo ez duzie leitu Legean, apezek launbates palazioan launbatekoa hausten dutela hobenik gabe?

6. Nik, berris, [erraten douziet]: Gen dagon gou palazioa beino haundiao [da].

7. Bazindakie zer erran nehi'un [Jangoikoak erran zuen gonek]: *Eskingeiak ez, baia urrikia nehi'ut nik*, etzinduzkete opetsiko hobengabeak.

8. Izan ere, Gizonaren Semea launbataen nausia da.

9. Lekutu ze gandik [Jesus] eta gaen sinagogara fan ze.

10. Gan besoa eihartuik zuen gizon bat zego eta, Jesus daustan harpatu nahies, galdein zakote:

–Legesko da launbates sendatzea?

11. Gaek erran zaie:

–Zeteik norbeitek ardi bakarra idukirik, l[a]unbates zilo batra erortzen balimazeio, ez du hartzen eta landara atratzen?

12. Beras, gizonak ardiak beino anitzes gehiao balio idukitze[a]n, legesko da launbates on eitea.

13. Oronean erran zako gizonari:

–Luzatu zazu beso gori.

[Gaek] luzatu zue, eta bere onera etorri zitzeio eta azkarra imini, bertzea bezala.

14. Baia farisearrak sinagogatik atra zireleik, batzarrean bildu zire Jesusen kontra, [g]ura nola galdu erabakitzeko.

15. Xakin zue gori Jesusek eta fan ze gandik. Anitzek xarreiki zakote eta Jesusek sendatu zitue.

16. Eta txorroxki manatu zaie ez errateko bera nor zen.

17. Gala bete ze Isaias profetak erran zuen gou:

18. *Horra ene mutila, ene hautatua, ene maitea, ene bihotxari atsiten zeiona. Gonen beitan ezarko'ut ene izpiritua, herriei zuzenbideaen erakusteko.*

19. *Ez da oihuka eituko, ez oihuka elekatuko, ez du karriketan boza goitituko.*

20. *Kaña pitzatuik ez du hausiko, itzaltzen [ei] den metxa ez du itzaliko, zuzenbidea nausiazi artio.*

21. *Bera izein da arrotzerrien geroa.*

22. Oronean gizon deabrudun, itsu eta mutu'at erman zakote [Jesusi. Gaek] sendatu zue, eta mutuak elekatzen zue eta ikusten.

23. Jende guziak, harrituik, gala erraten zue: «Gou ez ote da Dabiden Semea?»

24. Baia farisearrek gori entzun eta gala erraten zute:

–Deabruen nausi den Beeltzebulen indarres botatzen tu gonek deabruak.

25. Jesusek, gaen pentsamendua ikusiik, erran zaie:

–Hiri bat[eko] auzoak elkarreki mokoka balimadeiltza, herri gura galtzen da, eta etxe batean erkaleki mokoka balimadeiltze, etxe gaek ez du xutituik iraunen.

26. Eta Satanasek Satanas egotzen balima'u, bere buruaeki borrokan ei da; beras, nola iduki zake xutituik bere erregegoa?

27. Geinera, nik Beeltzebulen indarres egotzen balima'itut deabruak, zeen semeek noin indarres egotzen tuzte? Gola, gaek idukiko tuzie zeen juezak.

28. Nik deabruak Jangoikoain izpirituas egotzen batut, ezoun da ellegatu dela Jangoikoain erregegoa zeen artera.

29. Nola sartu deike norbeit gizon azkarraen etxera garen gouzen ebastra, lehemixi gizon azkar gura amarratzen ezpau? Oronean bai, ebatsiko tu etxe [gartako] gouzak.

30. Eneki eztaona, ene kontra dao, [eta] eneki biltzen eztunak barreatu eitau.

31. Gorrengatik erraten douziet: Edozein [bekatu] edo baratxuri barkatuko zeie gizonei, baia izpirituain kontra errain zikina etzeie barkatuko.

32. Gizonaen Semeaen kontra mintzo denari, barkatuko zeio, baia izpiritu sanduain kontra mintzo denari etzeio barkatuko, ez mundu gontan ez gerokoan ere.

33. Arbola ona balimada, ona izein da garen frutua ere, eta arbola geixto balimada, geixtoa izein da garen frutua ere. Frutuengatik ezontzen beita arbola.

34. Sugekumeak! Nola izein dira onak zen hitzak, zauek geixto izaki? Bihotxean anitz daonetik mintzo beita agoa.

35. Gizon onak gouza onak atratzen tu bere barne onetik; gizon geixtoak, berris, gouza geixtoak bere barne geixtotik.

36. Nik erraten douziet: Juizio[ko] egunean ele makur guzien kontu eman bihar dakote gizonek,

37. Gala, zaure eles izain zira onartua, eta zaure eles higuitua».

38. Oronean zemeit eskribalari eta farisear[rek] gala erran zakote Jesusi:

–Irakastun, ezongarri'ar eiten ikusi nehi zitugu.

39. Eta garek erantzun zaie:

–Jendamende geixto gonek ezongarri bat eskatzau. Baia ezongarriik etzeio emein, Jonas profetaena, ez bertzeik.

40. *Jonas ballenain piltzean hirur egun[es] eta hirur gaba[s] eon zen* bezala, gala egoin da Gizonaen Semea lurraen bihotxean.

41. Juizio egunean ninibetarrak jendamende gonen kontra xeikiko dira, eta geitzetsiko'ute, gaek Jonasen erranagatik bihotxes berritu beizire; hona gen, berris, Jonas beino gehiao dena.

42. Juizio egunean hegoaldeko erregina jendamende gonen kontra xeikiko da eta kondenatuko du, lurraen azken mugeteik etorri beize Salomonen xakinduriaen entzutra; hona gen, berris, Salomon beino gehiao dena.

43. Izpiritu higuingarria gizoneinganik atratzen deleik, basalurrean zihar faten da, nora xakin gabe, atsinatokia non bilatuko, eta ez du bilatzen.

44. [Bere buruari erraten dako]: «Itzul nein atra nitzen etxera». Baia etxera faten deleik, hutsik eta guzia ebatsiik harpatzen du.

45. Oronean, berris, fan eta bera beino geixtoao diren zazpi izpiritu hartu bereki eta, etxean sartuik, gan berean baratzen da. Gala gizon garen ondorena hastea beino geixtoao izaten da. [G]ori bera pastuko zeio jendamende geixto goni.

46. Jesus oino jendeketari elekan ei zitzeiola, gonen ama eta ahaideak agertu zire kanpoan, gareki elekatu nehis.

47. Eta batek erran zako:

–Gor tuzu zaure ama eta anea[-arrebak], zureki elekatu nehian.

48. [Jesusek], berris, gori erran zakonari erresponditu zako:

–Nor da ene ama eta nor dira ene anea[-arrebak]?

49. Eta eskua bere ikastun[engana] luzatus, gala erran zue:

–Horra ene ama eta ene anea[-arrebak].

50. Gala, zeruan daon ene Aitaen nehie eitauna, gura da ene anea eta arreba eta ama.

HAMAHIRURGARREN KAPITULUA

[Jesusek paraboletas predikatu. Ereileaen parabola.
Gari arteko lapateain parabola.
Mostaza haziain eta orantzain parabolak.
Tesoroaen eta izararrien parabolak.
Sareaen parabola. Jesus bere hirian higituik.]

1. Egun [batean] Jesus etxetik atra eta itxas bazterrean xarri ze.

2. Jendeketa geitza bildu zitzeo ingurutik eta gorrengatik txalupa batra igan ze, eta gan xarri. Jende guzia itxas bazterrean zego.

3. [Eta] anitz gouza erran zae paraboletas: «Ereilea [behin] ereitra atra ze.

4 Eta ereitean, zemeit hazi bideaen bazterrera erori zire. Txoriak etorri zire eta xan zituzte.

5. Bertze zemeit hazi, lur guti zeon toki harzu batra erori zire. Zaloi jaio zire, lurra ezpeize lodia.

6. Baia iduzkia atra oroneko erre zire eta zeinik ez zutelako eihartu zire.

7. Bertze batzuk elorrien artean erori zire, eta txustoak hazi zireleik ito zituzte.

8. Bertze zemeit lur onean erori zire, eta bikorra eman zute: batzuk batetik egun, bertzek hiruretan hogei, eta bertzek hiruretan hogeita hamar.

9. Bearri dunak entzun zala».

10. Ikastunak hurrandu, eta galdein zakote Jesusi:

–Zerengatik elekatzen daiezu paraboletas?

11. Gaek erresponditu zue:

–Zei [eman zeizie zeruko] erregegoain estalien ezontzea; goei, berris, ez.

12. Gala, doukanari emein zeio, eta geineska idukiko'u; baia ez doukanari, doukan gura ere ekenduko zeio.

13. Gorrengatik elekatzen daiet paraboletas: beidatuik ere ezpeitute ikusten, entzun arren, ezpeitute ez aditzen, ez hartzen.

14. Goetan betetzen da Isaias profetak erran gura:

Zeen bearris entzunen duzie eta ez duzie konprenituko; zeen begis beidatuko'uzie eta ez duzie ikusko.

15. *Gogortu beita herri gonen bihotxa. Entzunes gogorrak dira eta begiak hertsi tuzte: begis ez ikusteko eta bearris ez aditzeko; bihotxes ez konprenitzeko eta ez bihotxes berritzeko. Nik sendatu zkidan.*

16. Zorionekoak, berris, zeen begiak ikusten dutelako eta zeen bearriak entzuten dutelako!

17. Egias erraten douziet: Profeta eta gisako anitz[ek] ikusi nehi [zute], zek orei ikustauziena, [baia] ez zute ikusi; eta entzun, zek entzutauziena, [baia] ez zute entzun.

18. Entzun zazie, ba, zek ereilearen parabola[k zer erran nehi dun]:

19. Erregegoin elea entzun bai eta hartzen ez dunari, geixtoa etorri eta bihotxean ereina ekentzen dako. [Gori da mezua «bide bazterrak» hazia bezala hartzen duna].

20. «Lur harzuan» erina, hitza entzuten duna da, eta momentus gootik hartzen duna.

21. Baia zeinik ez douka, ezta irauteik ere, eta hitzaengatik nehigabe edo enoia sortu orduko, zaloi huts eitau.

22. «Tzuzto artean» ereina hitza entzuten duna da, baia munduaekiko txirrintak eta abrastasunen harridurak hitza itotzen dute, eta uztaik eman gabe gelditzen da.

23. «Lur onean» ereina, berris, hitza entzun eta konprenitzen duna da. Garek bai, ematau bikorra: gonek batetik egun, garek hiruretan hogei, bertzeak hogeita hamar.

24. Jesusek bertze parabola gou erran zae: «Zeru[ko] erregegoa bere alorrean hazi ona erin zuen gizonain antzeko da.

25. Mutilak lo zeudelaik, etseia etorri ze eta gari arte[an] lapatea erin, eta gala fan ze.

26. Garia hazi eta burutu zeneko, gan agertu ze lapatea ere.

27. Etxeko mutilak fan zire nausiaengana eta erran zakote: "Xeina ez zindue hazi ona erein alorrean? Nondik heldu da, ba, lapatea?"

28. Nausiak erran zae: "Etseieteik batek ein du gori". Mutilek oronean: "Nehi duzu biltzera gu fatea?"

29. [Baia] nausiak: "Ez, lapatea biltzen hasteaeki beiliteke lapateaeki batio garia ere atratzea.

30. Utzi bidak erkaleki hazitzen, zoritu artio; eta garilean errein daiet teilariei: "Bildu zkizie lehenik lapatea, eta maskiletan montiotu gero erretzeko; garia, berris, montiotu zazie ene zizkuan"».

31. [Jesusek] bertze parabola gou ere erran zaie: «Zeru[ko] erregegoa gizon batek bere alorrean ereiten dun mostaza haziain antzeko da.

32. Hazi guzieteik txikinena da, [baia] hazitzen deleik, bertze barazki guziak beino landare haundiao izaten da, eta arbola eiten da; txoriak heldu eta garen adarretan kafia eitaute».

33. Bertze parabola gou ere erran zaie: «Zeru[ko] erregegoa orantzaen antzeko da: emazteki'atek hartu eta hirur naurri irinean sartzen du, eta orantzak ore guzia harrotzen du».

34. [Jesusek] guzi gebek paraboletan erraten zako jendeari, eta parabolaik gabe etzae elekatzen.

35. Profetak errana bete zein: *Paraboletan zabalduko dut nik agoa, eta lurra lur denes gerostik altxatuik daudenak agertuko'itut.*

36. Tenore gartan Jesus, jendea utziik, etxera fan ze. Ikastunak hurrandu zitzeizkio erranes:

–Argitu dezaguzu alorreko lapateaen parabola.

37. Jesusek erran zaie:

–Hazi ona ereiten duna Gizonain Semea da.

38. Alorra, mundua; [hazi ona Jangoikoain] erreinu[ko] seme[-alabak] dira; lapatea, berris, geixtoin umeak.

39. [Lapatea] erin dun etseia deabrua da; garila munduaen azkena; eta gari biltzeileak aingiruak.

40. Gala, lapatea bildu eta garretan erretzen den bezala, gola izein da munduaen azkenekoan:

41. Gizonaen Semeak bere aingiruak igorriko tu, eta gebek bilduko tuzte garen erregegotik erorbide izan guziak eta geixto guziak.

42. Eta su labera egotziko tuzte. Gan izein da niarra eta hortzen karraxka!

43. Oronean, [onek] iduzkia[k] bezala istatuko'ute, beren Aitaen erregegoan. Bearri dunak entzun zala.

44. «Zeru[ko] erregegoa alorrean estali tesoroaen antzeko da. Gizon batek harpatzen du eta estaltzen du. Arront gootik badae, douzkin gouza guziak saltzen tu eta alorra erosten du.

45. «Gisa berean, zeru[ko] erregegoa izararri ederren bila deilan mertxanteaen antzeko da.

46. Bat hagitz ederra harpatzen dunean, badae, douzkin gouza guziak saltzen tu eta izararria erosten du.

47. «Gisa berean, zeru[ko] erreinua itxasora botatzen den sareaen antzeko da. Klase guzieteik arreak hartzen tu.

48. Beteik daoleik, itxas bazterrera atratzen dute; eta xarririk, onak saskiko ber[e]xten tuzte eta geixtoak landara xaurtikitzen tuzte.

49. Gala pastuko da gizaldiaen azkenekoan: atrako dira aingiruak, eta gisakoen artetik geixtoak berexi[ko tuzte].

50. Eta sura egotziko tuzte. Gan izein da niarra eta hortzen karraxka!

51. Oronean [Jesusek ikastunei] galdein zaie:

–Hartu duzie?

Gaek baietz erran [zakote].

52. [Jesusek erran zaie]:

–Ba, zeru[ko] erregegoan ikasia den eskribalaria bere kutxatik gouza zaharrak eta berriak atratzen tun etxeko nausiaen antzeko da.

53. Parabola hebek akabatu zitueleik, Jesus fan ze gandik.

54. Bere hirira etorri ze eta irakusten ei zitzeie otoizgioan, guzien harritzereino. Entzuten zutenek gala erraten zute: «Nondik tu gonek golako xakinduria eta ahalmena?

55. Gau ez da, ba, zurginaen semea? Ez da Maria gonen ama, eta gonen aneak ez dira Santiago, Jose, Simon eta Judas?

56. Gonen arrebak ez dira gure artean bizi? Nondik tu, ba, gonek guzi hebek?».

57. [Eta gonengatik, ezin zute garen beitan ginetsi]. Jesusek, berris, gonela erran zue: «Bere herrian eta bere etxean solo higuitzen dute profeta».

58. Eta gaen buruaundikeriengatik ez zue gan mirari anitz ein.

HAMALAURGARREN KAPITULUA

[Herodesek Joan Bateotzeilea hilazi.
Bortz ogien miraria. Jesus ur geinean ibili.
Sendatzeak Genesaret aldean.]

1. Egun gaetan, Herodes manatariak entzuna zue Jesusengatik erraten zena.

2. Eta gala erran zaie jauregiko (zerbitzariei): «Joan Bateotzeilea da gori! Hilen artetik biztua, eta gorrengatik tu galako mirarisko indarrak».

3. [Baia Herodesek Joan harpatu eta, lotuik, preso sartu zue]. Gorren arrazoina ze Herodesen [Felipe aneaen] emazte zen Herodias.

4. Joanek erraten beizako: «Ez zakezu Herodias emaztetako iduki».

5. Gorrengatik [Herodesek] Joan hil nehi zue, baia herriaen beldur ze, profetatako beizute.

6. [Herodesen] urtebetetze egunean, Herodiasen alabak dantzatu zue guzien aitzinean, eta [Herodesi] goinbertze atsein izan beizitzaio,

7. Zin eines, agindu zako eskatzen zuena emoin zakola.

8. Neskakoak, amak aipatua, erran zako: «Ekar daztazu, zaloiki, aspilko batean, Joan Bateotzeleaen burua».

9. Erregea minddu ze, baia zina ein beizue eta lagunengatik ere, emoteko manatu zue;

10. Eta Joani [burua] moztuazi zako.

11. Joanen burua aspilko batean [ekarri zute], neskakoari emon zakote, eta neskakoak amari.

12. Joanen ikasdunak [etorri zire] eta gorputza hartu eta ortzi zute; gero, Jesusi erratra fan zire.

13. Gonen berria xakin zueleik, Jesus itsasontzis toki baztertu batra fan ze. Jendeak xakin zueleik, legorretik oines xarreiki zakote hirieteik.

14. Barkatik xaustean, jendeketa geitza ikusi zue Jesusek, urrikitu ze eta eriak sendatzen hasi ze.

15. Ilunabarrean, ikastunak hurrandu, eta gonela elekatu zakote:

–Leku urruna da gou, eta berant da. Igorri zazu jendea hirietra, eta erosi zatela xana.

16. Jesusek, oronean:

–Ez dute fan behar; emon dazezie zeek xatra.

17. Gaek erresponditu:

–Gen bortz ogi ta bida arre, bertzeik eztugu.

18. Eta Jesusek:

–Ekar daztazie.

19. Jendea belarraen geinean xarrazi eta gero, bortz ogiak eta arre bidak [hartu zitue] eta zerura beidatus bedeikatu zitue, ogiak zakindu zitue eta ikasdunei emon, eta gaek jendeari.

20. Guziek xan zute asetu ziren artio, eta hondar zakineki hamabi saski bete zituzte.

21. Xan zutenak bortz mila inguru lagun zire, emaztekiak eta haurrak zematu gabe.

22. Zaloi, Jesusek ikastunak barkan xarrazi zitue, itsasoaen bertzaldera, bere aitzinetik fan zitezen, berak jendea igorri artean.

23. Jendea igorri zueleik, mendira igan ze, bera bakarrik, otoitzaen eitra; ilundu zueleik, gan zego, bakar-bakarrik.

24. Oronean barkoa legorretik biziki urrun ziae, olatuek ilarrosiik, haizea aurkitik beizute.

25. Goizean, Jesus uraen geinetik oines hurrandu zitzaie [ikasdunei].

26. Ikasdunek, uraen geinean zeilela ikusi zuteleik, izitu zire eta, guzis beldurtuik, oihuka hasi zire.

27. Jesusek zaloi elekatu zaie:

–Aupa! Ni nuzie, ez izan beldur!

28. Oronean, Pedrok erresponditu zue:

–Xeina, zu balimazira, manatu daztazu zuregana fateko uraen geinetik.

29. Jesusek erran zako:

–Zato.

Pedro txalupatik atra eta uraen geinetik zeile eta Jesusengana ziae.

30. Baia haize azkarra zela ikusiik, beldurtu ze, urperatzen hasi ze, eta oihuka erran zue:

–Xeina, salba nitzazu!

31. Berehala Jesusek eskua luzatus hartu zue eta erran zako:

–Gineste gutiko gizona! Zetako hasi zira ezbaian?

32. Txalupara igan zireleik, haizea baratu ze.

33. Eta txalupan zeudenak Jesusen altzinean etzinik ezarri zire, erranes:

–Egias Jangoikoaen semea zira zu!

34. Itsasoa zihartuik, Genesareten ellegatu zire lurrera.

35. Gango[ek] ezondu zuteleik, inguru guzi gartan hedatu zute berria, eta eri guziak erman zazkiote.

36. Arnesaen alorza berere ukitzera uzteko eskatzen zakote, eta ukitu zuten guziak sendatu zire.

HAMABOZGARREN KAPITULUA

[Juduen azturak eta Jangoikoaen nehia.
Emazteki kanaandarraren alaba sendatu.
Gaixo anitz sendatu.
Jesusek jendeketari bigarrenes xatra emon.]

1. Oronean inguratu zitzeizkio Jesusi Jerusalemdik etorria zen farisear eta eskribalari talde bat, eta gola erran zakote:
2. –Zure ikastunak zerengatik zapatzen tuzte zarrenganik tugun azturak, xan beino lehen ezpeituzte eskuak ikuzten?
3. Jesusek erantzun zaie:
–Eta zek zerengatik zapatzen duzie Jangoikoaen manatua, zeen azturengatik?
4. Jangoikoak errana beitu: *Onratu burasoak*, eta: *Aita edo ama madarikatzen dunak heriotzea merezi du.*
5. Zek, berris, gonela erratauzie: Aitari edo amari erraten dakonak «Eneganik zeen laguntzako idukiko zinduzen guzia [Jangoiko]ari eskintzen dakot»,
6. Golakoak ez du bere aita edo ama onratzeko biharrik; eta gala Jangoikoaen hitza ukatu duzie, zeen azturengatik.
7. Itxurazaleak! Ongi aski erran zue Isaias profetak zeetas:
8. *Herri gonek ezpeines onratzen nu, baia bihotxa urrun douka eneganik.*
9. *Hutsik da ematen dadaten onra, gizonen manatu diren irakatsiak irakasten beituzte.*
10. [Jesusek] jendeari beregana deituik gala erran zae: «Entzun zazie gou:
11. Ez [du] gizona agoan sartzen denak zikintzen; agotik atratzen denak, gorrek zikintzen du gizona».
12. Oronean bere ikastunak [hurrandu zitzeizkio], eta erran zakote:
–Xakin'uzu, farisearrek geizki hartu dutela zuk erran gori?
13. Eta Jesusek:
–Zeruko ene Aitak landatu ez duen landakoa, zaineteik atrako dute.
14. Utzi dazezie! Itsutuik daude, eta [itsu-gidariak dira]. Itsu bat iminten balimada bertze baten gidaritako, bidak zilora eroriko dira.
15. Pedrok oronean erran zako:
–Esplikatu parabola gori.
16. [Jesusek] erresponditu:
–Zek ere ezaxolak zirate oreino?
17. Ez duzie entendatzen agotik sartzen den guzia piltzera daela eta gandik zikin zilora botatzen dela?
18. Agotik atratzen direnak, berris, bihotxetik heldu dira, eta goek zikintzen dute gizona.
19. Etorri ere, bihotxetik heldu beitira nahikari geiztoak: gizonaen hilketa, ezkontza nahasteak, zikinkeriak, ebasteak, gezurresko eleak, hobenak.
20. Gouza gebek dira gizona zikintzen dutenak; eskuak ikuzi gabe [xateak], berris, ez du ior zikintzen.

21. Jesus gandik [atra eta] Tiro eta Sidongo aldera fan ze.
22. Kanaandar emazteki'at, inguru gaeteik atra eta oihuka hasi zitzeo:
–Xeina, Dabiden Seme, urriki zite! Deabru izigarri geiztoa dauka ene alabak.
23. Jesusek, berris, etzako elerik erresponditu. Gorrengatik ikastunek, hurrandurik, eskatzen zakote:
–Ein dazozu nehi duna, eta fan deila, gibeletik heldu beizeigu oihuka.
24. [Jesusek] erantzun zae:
–Israelgo ardi galduetra solo igorri [nu Jaungoikoak].
25. Galere, emazteki gura hurrandu ze eta gonela eskatu zako:
–Xeina, lagun daztazu!
26. Jesusek erresponditu:
–Ez da egokia haurrideen ogia hartu eta zakurrei emotea.
27. Eta emaztekiak:
–Egia, Xeina; baia xaku[r]koek ere xaten tuzte gaen nausien mahaitik erori ttapurrak.
28. Oronean Jesusek gola elekatu zako:
–[Emazteki, handia da zure fedea!] Izan deila nahi'uzun gori!
Oronean, gan berean sendatu zitzeio alaba.
29. Gandik atra eta Galileako itsasoaen bazterretik, mendira igan ze Jesus eta gan xarri.
30. Jendeketa geitza hurrandu zitzeio, kojo, itsu, sor, besobakar eta bertze eri anitz ermanes. Altzinean iminten zazkiote eta garek sendatzen zitue.
31. Jendea harrituik zego, mutuak elekatzen ikusirik, besagabeak besodun, hankamotzak ibiltzen, itsuak ikusten. Eta Israelgo Jaungoikoa goretsi eiten zute.
32. [Jesusek] bere ikastunei deitu eta gala erran zaie:
–Urrikitu niz jende gontas: hirur egun beitira eneki deiltzela eta ez dute daus xan. Ez tut [etxera] barurik igorri nehi, bidean akitu ez diten.
33. Ikastunek erran zakote:
–Nondik sortu zakegu guk basalur gontan, gonenbertze jendeain asetzeko bezeinbat ogi?
34. Jesusek [galdein] zaie:
–Zemat ogi duzie?
Eta gaek:
–Zazpi eta arrei batzuk.
35. Jendea lurrean xarrazi zue.
36. [Gero] zazpi ogiak eta arreak hartu zitue eta, esker otoitza ein ondoren, zakindu zitue eta bere ikastunei eman zazkie, eta ikastunek jendeari.
37. Guziek xan zute ase ziren artio, eta hondarreki zazpi otarre bete bildu zituzte.
38. Xaleak laur mila gizon zire, emazteak eta haurrak gabe.
39. [Gero], jendea igorri zueleik, txalupara sartu ze eta Magadango lurrera fan ze.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

[Farisearrak eta saduzearrak nahasiik.
Farisearren eta saduzearren orantza.
Pedrok Jesus Mesias dela erran.
Jesusek bere oinaze-bizteak lehemexiko aldis adiazi.
Jesusi xarreikitzea.]

1. Farisearrak eta saduzearrak [Jesusi] hurrandu zitzeizkio, eta bihurrikeris eskatu zakote: «Erakutsi dazaguzu zeruaen ezongarri bat».

2. Garek, berris, erresponditu zae:

–Arratsaldean erratauzie: «Arrats gorri, bihar goizik eguaro ona».

3. Goizean, berris: «Goiz gorri, arratsean auria». Badakizie zeruak zer erakusten duen, eta ez duzie ezontzen geroan pastuko dena.

4. Jendamende geizto eta faltsu gonek ezongarri bat eskatzau! Baia ezongarriik etzeie emoin, Joanaina bertzeik.

Eta gaek utzirik, fan ze.

5. [Uraen bertzaldera fan zireleik, ikastunek ogia hartzea atzendu zute].

6. Jesusek erran zaie: «Beida, kasu eman farisearren eta saduzearren orantzaeki!»

7. Gaek ezbaian zeude, erkalen artean: «Ogirik ez dugu ekarri, [eta gorrengatik erraten du gori]».

8. Jesusek, gortas goartuik, erran zaie: «Gineste gutikoak! Zer ei zirate zen artean ezbaian, ogirik ez duzielakoan?

9. Oino ez zirate goartzen? Ez zirate oreitzen bortz ogienas, bortzetan mila gaendako, eta zemat otarre bildu zinduzten?

10. Edo zazpi ogienas, lauretan mila gaendako, eta zenbat otarre bildu zinduzten?

11. Nola ez duzie konprenitzen ez nitzeiziela ogias mintzo? Kasu, farisearren eta saduzearren orantzaeki!».

12. Oronean goartu zire ez zitzeiela ogiaen orantzas mintzo, beizik farisearren eta saduzearren irakasteaen kontra.

13. [Feliperen] Zesarea aldera etorri zeleik, [Jesusek] gala galdein zaie bere ikastunei:

–Gizonein Semea nor dela erratau jendeak?

14. Eta gaek [erresponditu zakote]:

–Zemeitek, Joan Bateotzeilea dela; bertze batzuek Elias; bertzek Jeremias edo profeteik bat.

15. Jesusek oronean:

–Eta zek, nor nizela erratauzie?

16. Simon Pedrok erran zako:

–Zu Mesias zira, Jangoiko biziaen Semea.

17. Oronean, Jesusek [erran zako]:

–Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, ez haragiak, ez odolak ezpeitouzu erakutsi gori zuri, zeruan daon ene Aitak beizik.

18. Eta hara nik erratautana: Zu, [Pedro], harri zira, [eta] harri gorren geinean einen dut nik ene eliza; eta heriotzaen indarrak etzeizkio nausituko.

19. Zuri emein douzkizut zeruko erreinu[ko] giltzak; zuk lurrean lotuik, zeruan ere loutik egoin da, eta zuk lurrean lazotuik, zeruan ere lazotuik [egoin da].

20. Oronean, bera Mesias zela iori ez errateko manatu zaie bere ikastunei.

21. Gerostik, Jesus bere ikastunei irakusten hasi zitzeie, biharresko zela bera Jerusalemera fatea, gan zahar, apeznausi eta eskribalarienganik oinaze geitzen pastra, hila izatea eta hirurgarren egunean biztea.

22. Oronean Pedrok, Xeina berex hartuik, gala erran zako samurtuik daonaen gisara:

–Jangoikoaengatik, gori ez Xeina! Etzeizu golakoik pastuko!

23. Jesusek, Pedrori beidatus, erran zako:

–Eken zite ene altzinetik, Satanas! Erorbidea zira enedako, zure gogoa ezbeita Jaungoikoina, gizonaina beizik.

24. Oronean Jesusek gala erran zae bere ikasdunei: «Eneki etorri nehi duena, uka dazo beraen buruari, har zala bere gurutzea, eta xarreiki nazta.

25. Gonela, bere bizitza salbatu nehi duenak galduko du; eta enegatik galtzen duenak, beredako altxatuko du.

26. Zetako nehi du gizonak mundu guziaen irabazi, bere bizia hondatzen balimadu? Eta zer eman zake gizonak bere bizia berris erdiesteko?

27. Gizonain Semea Aitaen glorian, bere aingirueki etorriko beita; eta, oronean, bakotxari bere eiten adinain ordena emain dako.

28. Egias erraten dauziet: gen daudeneteik zemeit ez dira hilen, Gizonain Semea bere erregegioan etortzen ikusi gabe».

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

[Jesusen antzas aldatzea. Erormindunaen sendatzea.
Jesusek oinaze-bizteak bigarrenes adiazi.
Jesusek eta Pedrok tenplurako sosa ordea pagatu].

1. Gandik sei egunetra, Jesusek bereki Pedro, Santiago eta garen anea Joan hartu, eta mendi goi batra igan ze.

2. Hiruren altzinean antzas aldatu ze: orpegia iduzkia bezin istazu zue, eta arnesak argia bezin zuri.

3. Eta Moises eta Elias agertu zitzeizkie, Jesuseki elekan.

4. Oronean Pedro mintzo ze, eta gala erran zako Jesusi: «Xeina, bai ongi goudela gen! Nehi balima'uzu, hirur estalpe einen tut; bat zuredako, bertze'at Moisesendako eta bertzea Eliasendako».

5. Elekan ei zela, llano argizu atek estali zitue, eta llanotik mintzo'at entzun ze: «Gau da ene Semea, ene maitea. Gonen beitan doukat ene atsina. Entzun dazozie!»

6. Gori entzun, eta lurrera erori zire ikastunak, arront oilduik.

7. Jesus hurrandu zitzeie, ukitu zitue eta erran zaie: «Xeiki ziezte, ez izan beldur!»

8. Begiak goititu, eta Jesus bera bertzeik ez zute ikusi.

9. Menditik beheiti xaustean, Jesusek gola manatu zaie: «Ez erran iori ikusi'uzien gou, Gizon[a]en Semea hilen artetik biztu artio».

10. Ikastunek gala galdein zakote Jesusi:

–Nola errataute eskribalariek, lehemexiko Eliasek etorri biha'ula?

11. Jesusek erran zaie:

–Bai, [Eliasek etorri bihar zue, eta guzia Xeinak nehi bezala berrituazi.]

12. Gehiao errataut oino: Elias etorria da eta ez dute ezondu, eta nehi'uten guzia ein dakote. Galere, Gizonaen Semea[k] goenganik oinazeak pastuko tu.

13. Oronean [ikastunak] goatu zire Joan Bateotzeileas elekatu zitzeiela.

14. Berris jendeaen artera itzuli zireleik, gizon bat [Jesusi] hurrandu zitzeo eta belauniko erran zako:

15. –Xeina, urriki dazozu ene semeari; erormina douka eta oinaze geitzak. Noiznehi erortzen da sura edo urera.

16. Zure ikastunei ekarri daiet, eta ez [dute] sendatu.

17. Jesusek erran zako[te]:

–Gou jendamende ginesgogor eta bihurri! Noiz artio eon bihar ote dut zeki? Noiz artio aguantatu bihar zituztet? Ekar daztazie [mutikoa] gena.

18. Jesusek gogorki elekatu zako deabruari, eta [mutikoari] atra zitzeo; oron berean sendatu ze mutikoa.

19. [Oronean], ikastunak Jesusengana fan, eta galdein zakote:

–Zerengatik eztoukegu guk botatu?

20. Eta Jesusek erantzun:

–Zen gineste txikinagatik. Egias erraten douziet: Mostazaen hazia adina fede idukiko bazindute, aski idukiko zindukete mendi gari gena etortzeko erratea, eta etorko litzateke. Ez litzateke zendako ezinik izein.

21. [Gisa gontako deabruak egozteko bide bakarra otoitza eta barura dira.]

22. Erkaleki Galilean zeiltzela, Jesusek gala erran zaie bere ikastunei: «Gizonaen Semea gizonen eskuetan utzia izein da.

23. Eta hilko'ute, baia hirurgarren egunean berris biztuko da». Ikastunak beltzuri gelditu zire.

24. [Jesus eta ikastunak] Kafarnaunera etorri zireleik, bi drakmako sosa ordea biltzen zutenak hurrandu zitzeizkio Pedrori, erranes:

–Zen irakastunak ez du bi drakmakoa pagatzen?

25. Pedrok erantzun [zaie]:

–Bai.

Eta Pedro etxera sartu zeleik, Jesusek altzina hartu [zako], erranes:

–Zer uste'uzu, Simon? Mundu[ko] erregek noinganik hartzen tuzte zorrak eta sosa ordeak, geongoenganik edo arrotzenganik?

26. Pedrok erresponditu [zako]:

–Arrotzenganik.

Oronean Jesusek:

–Beras, gengoek ez dute zor.

27. Baia goei ez izorratzeko, zaza itsasora, botatu zazu amua eta hartu atratzen den lehemexiko arrea; idekiozu agoa eta laur drakmako sosa harpatuko'uzu. Hartu eta emaezu, ene eta zure izenean.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

[Erregegoan haundiena nor.
Ardi galduain parabola. Anearteko zentzubidea.
Barkatu ez zuen mutilain parabola.]

1. Tenore gartan, ikastunak Jesusengana [hurrandu zire] eta galdein zakote:

–Nor da haundiena [zeruko] erregegoan?

2. Jesusek haurtto bati deitu, guzien erdian ezarri,

3. Eta erran zaie:

–Egias erraten dauziet: haurttoak bezala itzultzen ezpalimazirate, etzirate sartuko [zeruko] erregegoan.

4. Gola bere burua haur gou bezin txikin eitauna, gura izein da haundiena zeruaen erregegoan.

5. Gou bezalako ume'at ene izenean hartzen dunak, nauron hartzen nu.

6. Eta ene beitan ginestatzaun txikin goeteik bat makurki bideratzen dunak, berris, hobeki luke errotarri'at lepotik dilindatuko bazakote eta itsaso barnera xaurtikiko balute.

7. Bai zorigeiztoko mundua, ginestea galbidean iminten duna! Naski, gori gertatu beharrekoa da; baia zorigeiztoko izein da [ginestea] galbidean iminten duen gizona!

8. Zaure eskuak edo zangoak arrisguan ezartzen balimazitu, moztu zazu eta egotzi zureganik; hobeki duzu [betiko] bizira besamotz edo maingu sartu, bi eskuak edo bi zangoak tuzula betiko sura amelduik izan beino.

9. Eta zure begiak arrisguan ezartzen balimazitu, atra zazu ta egotzi; hobeki'uzu [betiko] bizira okerra sartu, bi begiak tuzula su leizean akaatu beino.

10. Beida! Txikin goeteik batre ez gutietsi. Nik erraten dauziet: gaen aingiruak zeruko ene Aitein orpegia ikusten daude zeruan beti.

11. [Gizonain Semea galdua zena salbatzera etorri da].

12. Zer iduritzen zeizie? Artze batek egun ardi balimaitu eta gaeteik bat galtzen bau, ez da ba, lauretan hogeitahemeretziak oihanean utzi eta galduaen bila fein?

13. Eta harpatzen balimau, egias erraten dauziet, gehiao alegeratzen dela bakar gorrengatik, galdu zitzeizkion lauretan hogeitahemeretziengatik beino.

14. Horra, bada, zeruko zeen Aitak ez du nehi txikin hebetaik batre galtzeik.

15. Zure aneak huts eiten badouzu, fan eta erranazi dazozu zeen biden artean berex. Entzuten balimadouzu, irabazi duzu zaure anea.

16. Ezpalimadauzu entzuten, hartu zkizu zureki bertze'at edo bida, *bida edo hirur testiguen hitzak erabaki zala gauza*.

17. Eta gaei ezpadaie entzuten, erran auzoei. Eta auzoei ere ezpadaiei entzuten, arrotz edo zordun bezala izan deila zuredako.

18. Egias erraten dauziet: zek lurrean lotua, zeruan'e lotua egoin da; eta zek lurrean lazo [utzia], zeruan ere lazoa.

19. Egias erraten dauziet gou ere: zeteik bik elkar hartzen ba'ute lur gontan zerbeiten eskatzeko, zeruan daon ene Aitak [emein daie].

20. Bai eta bi edo hirur laun ene izenian bilduik dauden batzarrean, gan nago ni gaen erdian.

21. Oronean, Pedro Jesusengana hurranduik, gala erran zako:

–Xeina, ene aneak huts eiten balimadada, zemat aldis barkatu bihar dakot? Zazpi aldis?

22. Jesusek errespondítu zako:

–Zazpi aldis ez, beizik zazpitan zazpi hamar aldis.

23. Gorrengatik [zeruko] erregegoa mutileki bere hartuemanak xahutu nehi izan zituen erregen antzeko da.

24. Hasteko, hamar mila talentu zor zazkion bat ekarri zakote.

25. Eta nondik ordea emateik ezpeizue, naurriak manatu zitue garen emazte, seme-alaba eta zituen guzien saltzeko eta gala ordea emateko.

26. Mutilak, nausiaen zangoetra etzinik, otoixka erraten zako: «Eman daztazu denbra eta guzia pagatuko douzut».

27. Urrikitu zue nausiak mutila, utzi zue eta barkatu zako zorra.

28. Mutil gonek, atra zeleik, gor harpatzen du egun denario zor zazkion bere mutil laun bat; lepotik atxiki eta ito biharres, gonela erran zako: «Pagatu daztazu zor dadazuna!».

29. Lagunak, garen zangoetra etzinik, oihuka erraten zako: «Eman daztazu denbra eta guziaen ordea emein douzut».

30. Baia bertzeak ezetz, eta fan eta giltzatuik sartu zue, zorra pagatu artio.

31. Garen mutil launak, pastu zena ikusi eta guzis arranguratuik zeude; eta nausiaengana fan eta [guzia] erran zakote.

32. Oronean nausiak deitu eta erran zako: «Mutil geixtoa, zor guzia barkatu dauzut, eskatu dadazulako.

33. Etze, bada, bidesko, zu ere zure mutil launas urrikitzea, ni zutas urrikitu nitzen bezala?»

34. Eta nausiak, hasarre, zigorlarien eskutra igorri zue, zor guziaen ordea eman artio.

35. Zei ere berdin einen douzie zeruko zeen Aitak, erkali bihotxes barkatzen ezpadakozie.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

[Bidak haragi'at izein.
Jesus eta haurrak. Gazte abratsai dei.
Abratsa nekez sartuko da zeruan.
Guzia utzi duten ikastunen saria.]

1. Jesus, mintzaldi hebek akaatu ondoren, Galileatik Judea aldera fan ze, Jordanes bertze aldera.

2. Launketa geitzak xarreiki zako, eta sendatzen hasi ze.

3. Farisearrak etorri zire eta, makurkeris, gala galdein zakote:

–Legesko da nork bere emaztea edozergatik uztea?

4. Jesusek erantzun:

–Ez duzie leitu, hastetik Egileak gizon eta emazteki ein zituela?

5. Eta erran zuela: *Gorrengatik gizonak burasoak utziko tu, eta bere emazteaeki elkartuko da, eta bidak haragi'at izein dira.*

6. Ez dira bida; haragi'at beizik. Gala, Jangoikoak batu zuena etzala gizonak berexi.

7. Gaek, berris, galdein zakote:

–Zerengatik manatu zue Moisesek, *ezkontza hausten delako gaztigoaen emateko*, emaztea uzten deleik?

8. Jesusek erantzun zaie:

–Zeen bihotx gogorkeriaengatik eman zitue Moisesek zeen emazten uzteko [baimena], baia hastean ez ze gala.

9. Gou erraten dauziet nik: bere emaztea uzten dunak –leges kontrako ezkontza izan ezik– eta bertze bateki ezkondu, ezkontzaen nahaste egitau.

10. [Oronean] ikastunek erran zakote:

–Golakoa balimadu gizon eta emaztekien arteko gouza, hobeki da ez ezkontzea.

11. [Jesusek] erran zaie:

–Ez dute guziek onartzen lege gou, dohai gori hartu dutenek beizik.

12. Badira zakilatuik amain sabeletik [gala] jaioak, eta badira zakilatuik bertzek zakilatu eta; eta badira zakilatuak [zeruko] erregegoagatik beren buruak zakilatu tuztenak. Hartu zakenak hartu zala.

13. [Oronean] haurrak ekarri zazkiote Jesusi, eskuak geinean imini eta gaendako otoitz ein zezan, baia ikastunek samurtu zaiete.

14. Jesusek [erran zaie]: «Utzi haurrei, ez ukatu enegana etor diten, gorrelakoina beit da [zeruko] erregegoa».

15. Eta gaei eskuak [geinean] imini zazkie eta gandik [fan ze].

16. Gazte'at hurrandu zitzeo Jesusi, eta gala erran zako:

–Ma[i]stro, zer onik ein biha'ut, betiko biziaen erdiesteko?

17. Jesusek errespondítu zako:

–Zetako galdeiten dadazu eni ona zer den? [Jaungoikoa] solo da ona. Bizian sartu nehi balima'uzu, bete zkizu manatuak.

18. Garek berris:

–Zer manatu?

Eta Jesusek:

–*Ez duzu ior hilko, ez duzu ezkontz nahasteik einen, ez duzu ebatsiko, ez duzu gezurresko testigantzaik einen*,

19. *Maitatu burasoak eta onartu zazu launa zaure burua bezala.*

20. Oronean gazte garrek erran zako:

–Guzi goek bete tut; zer bertzeik falta zeida?

21. Eta Jesusek:

–On-ona izan nehi balima'uzu, zaza, saldu zkizu tuzunak eta eman biharzuei, eta [zeruan toki'at idukiko'uzu]; gero zato eta xarreiki eni.

22. Gebek entzun eta gaztea arranguratuik fan ze, azienda anitzen nausia beize.

23. Oronean Jesusek erran zaie bere ikastunei.

–Egias erraten douziet: abratsa nekez sartuko da [zeruko] erregegoan.

24. Bai, aixao da kamello'at orratzaen begitik pastea, abrats bat [zeruko] erregegoan sartzea beino.

25. Gori entzutean, arraso harrituik, gola erraten zute ikastunek:

–Nor salbatu deike, oronean?

26. Jesusek, beidatzen, erran zaie:

–Gizoneindako ezinesko da gori. Jangoikoak, berris, guzia zake.

27. Oronean Pedrok galdein zako:

–Hara, gouza guziak utzi tugu guk zureki fateko. Zer izein da guredako?

28. Jesusek [errespondítu zako]:

–Egias erraten dauziet: gauza guzien berritzea heldu deleik, eta Gizonaen Semea bere loriasko katredan xartzen deleik, zek ere, eneki etorri ziratenak, hamabi katredetan xarriko zirate, Israeleko hamabi tribuen juzgatzeko.

29. Eta enegatik etxea edo anai-arrebak edo burasoak edo haurrak, edo lurrak uzten tunak eun golako hartuko'u eta betiko bizia idukiko.

30. Anitz lehemexiko azkeneko izein dira [oronean], eta anitz azkeneko lehemexiko.

HOGEIGARREN KAPITULUA

[Ardantzeko langilen parabola.
Jesusek bere oinaze-bizteak hirugarren aldis adiazi.
Zebedeoen semen handinehia.
Zerbitzua ikastunen lege. Bi itsu sendatu Jerikon.]

1. [Baia zeruko] erregegoa, goizik bere ardantzeko langilen bila atra zen etxeko xeinaen antzeko da.

2. [Langileki] eguneko denario'ates elekatu ondoren, bere ardantzera igorri zitue.

3. Goizerdian [atra ze berris] eta bertze batzuk ikusi zitue herriko plazan lanik gabe.

4. Eta erran zaie: «Zazte zek ere ene ardantzera, eta bidesko dena [emein dauziet]».

5. Eta gaek ere fan zire.

Atra ze berris eguerdian eta aatsaldean, eta gouza bera ein zue.

6. Hurranen atra zeleik, bertze batzuk ikusi zitue, oino baratuik zeudela, eta erran zaie: «Zertan zoute gen egun guzian baratuik?».

7. Gaek erran zakote: «Ez beit gitu iork hartu lanaen eiteko». Etxeko xeinak oronean: «Zazte zek ere ene ardantzera».

8. Artsean, ardantzeaen nausiak gala erran zako bere mutil buruari: «Deitu langilei eta eman dazozu bakotxari bere saria, azkenekoeteik hasi eta lehemixikoetreino».

9. Etorri zire azkenekoak eta denario bana hartu zute.

10. Lehemixikoak etorri zirenean, gehiao hartuko zutela uste zute, baia gaek ere denario bana hartu zute.

11. Eta marmaroxkan hasi zire etxeko xeinaen kontra erranes:

12. «Azken goek oron baten lan ein dute, eta gureki berdindu tuzu, egun guziko enoia eta beroa eman duguneki!».

13. Baia garek erantzun zako gaeteik bati: «Aixkide, ez douzut bidesko ez dena ein. Ez gine eguneko denario bates elekatu?

14. Hartzazu zaurea duzuna eta zaza. Azkeneko goni ere zuri bezanbat eman nehi dakot.

15. Etzeida eni legesko, nehi dutana eitea ene gouzetan? Edo beltzuri izan biha'uzu zuk, ni eskuzabala nizelako?»

16. Gola balimada, azkenekoak lehemixiko izein dira, eta lehemixikoak azkeneko.

17. Jesusek, Jerusalemera igatean, hamabiak bereki hartu, eta gonela erran zaie bidean:

18. «Hara, Jerusalemera gaza eta Gizonein Semea apez nausien eta eskribalarien eskutan utzia izein da; hebek heriotze juizioa emein dakote.

19. Eta arrotzen eskutan utziko'ute, irri ein dazakoten, eta zigorkatu, eta gurutzean hil zaten; [eta] hirurgarren eunean biztuko da».

20. Oronean [Jesusi Zebedeoren] ama hurrandu zitzeo bere semeki eta altzinean makurtu, eskari baten eiteko.

21. Jesusek galdein zako:

–Zer nehi'uzu?

Eta [garek]:

–Xarrazi zkizula ene bi seme gebek, bata zure eskuieko aldean eta bertzea zure ezkerreko aldean, zure erregegoan.

22. Jesusek [erresponditu zako]:

–Ez dakizie zer eskatzauzien! Gouza zirate zek nik edein dutan kalizaen edateko?

Gaek:

–Bai, gouza gira!

23. [Jesusek] oronean:

–Ene kaliza edan bai, edein duzie; baia ene ezker eskui xartzea, gori ez dago ene esku iori ematea; gori ene Aitak erabakitzen dun gaendako da.

24. Bertze hamarrak, gori entzun eta biziki samurtu zire bi anaieki.

25. Jesusek, berris, bere ondora bildu eta erran zaie: «Badakizie herrien manatariak gogor hartzen dutela menpean herria, eta handikiak azpian hartzen dutela.

26. Ez deila gala izan zen artean, beizik zen artean handi izan nehi'una, dagola zen zerbitzura.

27. Eta zen artean lehemixiko izan nehi'una, dagola zen gibeletik.

28. Gizonein Semea ere ezpeita etorri bertzen zerbitzuen hartzera, bertzen zerbitzera beizik, eta bere bizia anitzen erosi-saritako ematra».

29. Jerikotik atratzean, anitz jendek xarreiki zako.

30. Bide bazterrean xarri eta eskean zeuden bi itsu. Jesus bidetik ziaela entzunik, oihuka hasi zire:

–Urriki gitzazu, Jauna, Dabiden semea!

31. [Jendeak ixiltzeko erraten zaiete, baia gaek oihuka xarreiki zute:

–Urriki gitzazu, Jauna, Dabiden semea!]

32. Jesus baratu, eta deitu zaie erranes:

–Zer nehi'uzie, nik zei eitea?

33. Gaek erresponditu:

–Jauna, ideki ditela gure begiak!

34. Urrikituik, [Jesusek begiak] ukitu zaizte; berehala hasi zire ikusten eta gibeletik ziazekio.

HOGEITABATGARREN KAPITULUA

[Jesus Jerusalemen Mesias bezala sartu.
Ene etxea otoixgio izein da.
Bikuain madarikazioa. Bi semen parabola.
Labrari hiltzeilen parabola.]

1. Jerusalemera hurrandu eta Oliamendi ondoan Betfagera ellegatu zireleik, Jesusek bere bi ikastun igorri zitue.

2. Erranes:

–Zazte aurkian daon barride gortra, eta fite ikusko'uzie asto'at lotuik, bere umeaeki; lazotu eta ekar daztazie.

3. Iork zerbeit erraten badouzie, erantzun: «Xeinak biha'u eta zaloi itzuliko douzkizu».

4. Guzi gou pastu ze profetak errana bete zein:

5. *Erran dazozie Siongo alabari: Horra nondik heldu zeizun zure errege, apal, umil, astoan geinean xarriik, asto zamari baten umeaen geinean.*

6. Fan zire ikastunak eta Jesusek manatu zaiena [ein zute].

7. Astoa eta astakumea [ekarri zituzte] eta, beren estalkis apaindu zituzteleik, geinean imini ze Jesus.

8. Jendeketak bere longeinak bidean zabaltzen zazkio; bertze zemeitek adar txikinak moxtu eta bidera botatzen zituzte.

9. [Jesusen] altzinetik eta gibeletik ziazenak gala erraten zute oihuka:

Hossana Dabiden Semeari! Bedeikatua Jaunaen izenean heldu dena! Hossana goi-goikoari!

10. Jesus Jerusalemera sartu zeleik, herri guziak harrituik galdein zue:

–Nor dugu gou?

11. Beraeki heldu zen jendeak, berris, gola erraten zue:

–Gou Jesus profeta da, Galileako nazaretarra.

12. Jesus otoixgioan sartu eta gan saltzen eta erosten ei zirenak botatzen hasi ze. Xoxa-trukalarien mahaiak eta uso saltzeilen alkiak [uzkaili zitue],

13. Erranes: «Eskribituik dao: *Ene etxea otoizgio izein da*; zek, berris, ebaslen zilo eitauzie.

14. Itsu eta mainguak inguratu zitzeizkio otoizgioan, eta sendatu zitue.

15. [Baia] apez nausiak eta eskribalariak, garek ein mirariak ikusiik, eta haurrak otoizgioan oihuka ei zirela «Hossana Dabiden Semeari!», haserretu zire.

16. Eta erran zakote:

–Entzutauzu zer erratauten goek?

Jesusek erantzun zaie:

–Bai, eta zek ez duzie sekula leitu bertze gura: *Haur eta umeen agotik atra duzu loriapena*?

17. Eta gaek utziik, hiritik atra eta Betaniara fan ze, eta gan pastu zue gaba.

18. Biramunean, goizik hirira ziaeleik, gosetu ze.

19. Biku'at ikusi zue bideaen bazterrean eta ondora fan ze, baia orriak bertzeik ez zue bilatu, eta erran zue: «Ez deila zurean gehiao frutuik sortu!»

Eta bikua berehala [eihartu ze].

20. Gori ikusi, eta ikastunek gala galdein zakote harrituik:

–Zerengatik eihartu da hoin zaloi?

21. Jesusek erresponditu:

–Egias erraten douziet: [ezbairik gabe] ginesten balima'uzie, biku arbolaena ez ezik, oihan goni erraten badakozie: «Eken zite gordik eta zaza itxasora», gori ere pastuko da.

22. Otoitzean, Jangoikoari fedes eskatu guzia erdietsiko'uzie.

23. Jesus elizara etorri eta, irakusten ei zela, apez nausiak eta herriko zaharrak hurrandu zitzeizkio galdeines:

–Zer eskubides eitauzu gori? Nork eman douzu eskubide gori?

24. Jesusek erantzun zaie:

–Nik ere gouza'at galdeinen douziet, eta erresponditzen balimadadazie, nik ere errein douziet zer eskubides eitautan gou.

25. Joanen bateoa nondik heldu ze, Jangoikoaenganik edo gizonenganik?

Gaek beren beitan gola erraten zute: «'Jangoikoaenganik' erraten balimadakogu, oronean [galdeinen dakogu zerengatik ez gindakon ginetsi].

26. Eta 'gizonenganik' erraten balima'ugu, lotsa gira, guziek profetatako baitaukate Joan».

27. Gala erantzun zakote Jesusi:

–Ez dakigu.

Jesusek oronean erran zaie:

–Nik ere ez douziet errein zer eskubides eitautan gouza gebek.

28. Zek zer uste'uzie? [Gizon batek] bi seme zitue, eta zaharrenari erran zako: «Semea, zaza egu ardantzera, lanera».

29. Garek erantzun zako: «Ez dut nehi»; baia sarri, damutu eta fan ze.

30. Bigarrenari ere gouza bera erran zako. Eta gonek «Banae, jauna» erresponditu bai, baia ez ze fan.

31. Bideteik nork ein zue aitaen nehia?

Erresponditu zakote:

–Lehemixikoak.

Oronean Jesusek:

–Egias erraten dauziet: zor biltzeileak eta emazteki galduak zek beino lehenao heldu dira Jangoikoin erregegora.

32. Etorri zen Joan zeen artera zuzenbidea irakatsis, eta etzindakote ginetsi; zor biltzeileak eta emazte galduak, berris, ginetsi zakote. Zek, berris, ikusi eta gero ere ez zinete damutu eta etzindakote ginetsi.

33. Entzun bertze parabola gau: Baze etxeko jaun bat, eta ardantze'at landatu zue, estongos hertsi, berean gare'at ein eta torre'at ezarri zue; eta zemeit labrariari eman zaie errentan, eta bera urruneara fan ze.

34. Mahatsaroa etorri zeleik, bere mutilak igorri zitue labrariengana, zeozkion hartzekoen hartzera.

35. Labrariak, berris, [mutilak] harpatu eta bata xo, bertzea hil ein zute, eta hirurgarrenari harrikaldika eman zakote.

36. Sarri, bertze zemeit mutil igorri zitue, lehen beino gehiao, eta gaeki ere berdin ein zute.

37. Azkenik bere semea igorri zaie, bere baitan erranes: «[Ene semeari] idukiko dakote errespeto».

38. Labrariek, berris, semea ikusi eta gala erraten zakote erkali: «Gori da etxekoa, gazen eta hil zagun eta guredako izein da ondasuna».

39. Hartu zute, ardantzetik landara egotzi eta hil zute.

40. Ardantze xabea heldu zeleik, zer einen daie labrari goiei?

41. Erresponditu zakote:

–Geixto goei heriotze geixtoa emein daie, eta bere tenorean ordeak emein dazkioten bertze zemeit labrariei utziko daie ardantzea.

42. Jesusek [erran zaie]:

–Ez duzie Libru Sanduan sekula leitu?:

Etxegileak baztertu harria, bera izan da ipurtarria, Xeinak ein du gori, gure begien harrigarri.

43. Gorrengatik erraten douziet nik: Jangoikoaen erregegoa zei ekenduko zeizie, eta uzta ekarraziko dakon bertze herri bati emein zeio.

44. Harri gonen geinera erortzen dena xehatuik izein da, [eta] norbeiti geinera erortzen balimazeio, xehatuik utziko du.

45. Apez nausiak eta farisearrak parabola goek entzun, eta berendako ei zela [asmatu zute].

46. Jesus preso hartu nehian zeiltze, baia beldur iduki zakote herriari, profetatako beizute.

HOGEITA BIGARREN KAPITULUA

[Ezkontzain parabola.
Zesarri Zesarrena eta Jangoikoari Jangoikoina.
Hilen biztea. Manatu nausiena.]

1. Jesusek berris ere parabolas gala erran zaie:

2. –Zeruko erreinua, bere semein ezkontza eratzen [zuen] errege'aten antzeko da.

3. Mutilak [igorri zitue] ezkontzako hautatuen gaztigatzera, baia hebek ez zute etorri nehi izan.

4. Berris ere igorri zitue bertze zemeit mutil erranes: «Antzatuik'aukat ene xei otrona, tzekorrak eta haragitako gizenduak hilak tut, eta guzia zai dao; zatozte ezkontzara».

5. Gaek, berris, alegia ez zutela entzuten ein, eta bata bere lurretra fan ze, bertzea bere erosketra.

6. [Eta] bertzeak berris, mutilak harpatu eta geizki ibili ondoren hil zituzte.

7. Hasarretu ze erregea eta bere gerra mutilak igorri zitue hiltzeile gaen galtzera eta gaen herrira suaen ematra.

8. Gero gala mintzo zitzeie bere mutilei: «Ezkontzaena preparatuik dao, baia deituek ez zute merezi.

9. Zazte bidegurutzetra, eta ikustauzien guziei deitu dazezie ezkontzara!».

10. Mutilak bidetra [atra zire] eta ikusi guziak [bildu zituzte], geixto eta on. Eta gala bete ze xales ezkontza tokia.

11. Sartu zen erregea xalen ikustra, eta ezkontza arnesik gabe zeon bat ikusi zue gan.

12. Eta erran zako: «Aixkide, nola sartu zira gona ezkontza arnesik gabe?». Eta garek hitzik ez.

13. Erregeak oronean erran zaie bere zerbitzariei: «Esku eta zangoak lotuik, egotzi zazie landaen ilunetra. Gan izein dira nearrak eta hortz karraska!».

14. Anitz beitira deituak, baia guti hautatuak.

15. [Oronean] farisearrak batzarre ein zute, Jesus eletik nola harpatuko.

16. Eta beren ikastuneteik eta Herodesen aldeko zemeit igorri zazkiote. Gebek galdein zakote:

–Irakastun, badakigu egiazale zirala eta Jangoikoin bidea egias erakusten duzula, iorengatik igesi ein gabe, ezpeituzu nor zein den beidatzen.

17. Erran dazaguzu, ba, zer iduritzen [zeizun]: zilegi [da] Zesarri xoxa ordea ematea edo ez?

18. Jesusek gaen gogo geixtoa ezonduik, erran zaie:

–Zer zeiltzate [ni] zirikatzen? Itxurazale geixtoak!

19. Erakus daztazie xoxa ordeaena.

Gaek denario'at erakutsi zakote.

20. [Jesusek oronean galdein zaie]:

–Noinak dira iduri gou eta eskribu gou?

21. Eta gaek:
–Zesarrenak.
Jesusek oronean:
–Emaozie Zesarri Zesarrena eta Jangoikoari Jangoikoina.
22. Gori entzun, eta harrituik gelditu zire. Eta [Jesus] han utziik, fan zire.
23. Egun berean zemeik saduzear [hurrandu zire] –bizteik ez dela erratauten goeteik– eta gola galdein zakote:
24. –Irakastun, Moisesek errana da: *Norbeit seme-alabaik iduki gabe [biltzen balimada], garen anea alarguntsaeki ezkonduko da, eta gibelekoak sortuko dazkio bere aneari.*
25. Bazire gure artean zazpi anea. Ezkondu ze lehemixikoa eta, seme-alabaik gabe hil beize, bere aneari utzi zako emaztea.
26. Gouza bera pastu zitzeo bigarrenari, eta hirurgarrenari, eta gisa berean zazpietreino.
27. Guzien ondotik, emaztea hil ze.
28. Hilen biztean, zazpieteik noin emazte izein da, guziena izana beize?
29. Jesusek erresponditu zaie:
–Makur zeiltzate, ezpeituzie ezontzen, ez Libru Sandua, ez Jangoikoin ahalmena.
30. Biztean ezpeita ezkontzaik izein; [guziak] aingiruak bezala izein direlako.
31. Eta hilen bizteas ez duzie leitu Jangoikoak zei errana?:
32. *Ni Abrahanen Jangoikoa niz, eta Isaaken Jangoikoa eta Jakoben Jangoikoa*. Ez da hilen Jangoikoa, biziena beizik.
33. Jendeketak gori entzun, eta harrituik gelditu ze garen irakusteaeki.
34. Farisearrek xakin zuteleik [Jesusek saduzearrak ixilazi zituela], erkaleki bildu zire.
35. Eta gaeteik legegizon batek, geixtokeris galdein zako:
36. –Irakastun, zein da [Legeko] manatu nausiena?
37. Gaek erantzun zaie:
–*Maite zazu Xeina, zure Jangoikoa, bihotx-bihotxes, gogo-gogos, buru osoas.*
38. [Gori] da manatueteik nausiena eta lehemixikoa.
39. Eta bigarrena, gorren parekoa da: *Maite zazu launa zaure burua bezala.*
40. Bi manatu goetan daukate ipurtarri Lege osoak eta profetek.
41. Farisearrak oino bilduik zeudela, Jesusek gola galdein zaie:
42. –Zer erratauzie Kristos? Noin seme da?
Gaek erantzun zakote:
–Dabidena.
43. Jesusek [oronean]:
–Nola ba, Dabidek «Xeina» erraten dako Izpirituein argis erratauleik:
44. *Horra Xeinak errana ene Xeinari: Xarri zite ene eskuian, zure etseiak zangopetan ezartzen dazkizudan artean.*
45. Beras, Dabidek Xeina erraten balimadako, nola izan deike garen semea?
46. Iork ez zako ja ere erantzun ahal izan, eta egun gartas gerostik ez ze ior ausartu gari daus ere galdeitra.

HOGEITA HIRUGARREN KAPITULUA

[Herri manatuen kontrako mintzaldia.
Jerusalen, Jerusalen!.]

1. Jesus oronean gonela mintzo ze jendeketa eta bere ikastunen altzinean:
2. –Eskribalariak eta farisearrak Moisesen irakastun katredan xarri dira.
3. Ein zazie, beras, eta bete, gaek erran guzia; baia ez ein gaek eitautena: erran erraten beitute, baia ein ez.
4. Zama pizua eta erman ezina galakoena eitaute, eta bertzeren bizkarrean xarri; berek, berris, eri'ates ere hartu ez.
5. Eitauten guzia, jendeak ikusi zan eitaute; igali zintzil luzeak ibiltzen tuzte eta arnasetan galarzu xabalak.
6. [Otronetan] lehemexiko xarralkiak eta sinagogetan altzineko katedrak nehi tuzte beti.
7. Eta plazetan agurrak, eta jendeak «Irakastun» deitzea.
8. Zek, berris, ez utzi iori «Irakastun» izenik zei ematea; bakarra beita zeen irakastuna, eta zek guziak erkalen ahaideak zirate.
9. Eta ez eman iori «aita» izenik lur geinean; bakarra beita zeen aita, zerukoa.
10. Ez eman zauen buruei [«gidari»] izenik; bakarra beita zeen zuzelaria: Kristo.
11. Zeteik haundiena dena, izan deila zeen zerbitzaria.
12. Bere burua goititzen duna, beheitituik izein da; eta bere burua beheititzen duna goititua.
13. Zorigeixtokoak zek, eskribalari eta farisear itxurazaleak! [Gizonei] hersten daiztezie [zeruko] erregegoa. Zek etzirate sartzen, eta sartu nehi'utenei ez daiezie sartzen uzten.
14. [Zorigeixtokoak zek, eskribalari eta farisear itxurazaleak! Itxuras otoitz luzetan ei ziraten goiek, alarguntsen ondasunak iresten tuzie. Gorrengatik, kondenamentuik txorrotxena idukiko duzie].
15. Zorigeixtokoak zek, eskribalari eta farisear itxurazaleak! Gor zeiltzate itxasoan eta idorrean, judutar berri bakar baten eiteko; eta ein ondoren, zek beino bida aldis gehiao su leizeko gei eitauzie.
16. Zorigeixtokoak zek, bide erakustun itsuak! Gala erraten beituzie: «Iork jauregiaen izenean zin eiten badu, ezta bihartuik; baia jauregiko urreaen izenean eiten ba'u, bihartuik dao».
17. Zoroak eta itsuak zek! Zer da gehiao, urrea edo urrea bera sandu eitaun jauregia?
18. [Eta erraten duzie]: «Iork aldareaen izenean zin eiten ba'u, eztao bihartuik; baia aldareaen geinean dauden eskingeien izenean zin eiten balima'u, bihartuik dao».
19. Itsuak zek! Zer da gehiago, eskingeia edo eskingeia bera sandu eitaun aldarea?
20. Aldareaen izenean [zin] eitaunak, garen izenean eta garen geinean daonaen izenean zin eitau.

21. [Eta jauregiaen izenean zin eitaunak, jauregian eta gan bizi denaen izenean zin eitau].

22. Eta zeruaen izenean zien eitaunak, Jangoikoaen katredaen izenean eta gan xarriik daonaen izenean zin eitau.

23. Zorigeixtokoak zek, eskribalari eta farisear itxurazaleak! Menda eta anisa eta komino belarren hamarrenak eman tuzie; baia bazterrean uzten Legean biharreskoen direnak: zuzentasuna, urrikia eta leialtasuna. Gau ze in bihar zena, bertze gaek bazterrean utzi gabe!

24. Gidari itsuak! [Eltxoa irazten duzie eta kamelloa iresten!]

25. Zorigeixtokoak zek, eskribalari eta farisear itxurazaleak! Edateko eta xateko ontziak kanpotik ikuzten tuzie, baia barnea ebaskeris eta naurrigabekeris beteik douzkizie.

26. Farisear itsua! Ikuzi zazu lehenik edateko ontzien barnekoa, eta azalekoa ere garbi geldituko da.

27. Zorigeixtokoak zek, eskribalari eta farisear itxurazaleak! Hilobri zurituik iduri duzie; [kanpotik itxura ederra dute, baia barnean hil-hezurres eta ustelkeris beteik daude].

28. [Zek berdin]: kanpotik gisakoak agertzen zirate gizonen altzinean, baia barnetik itxurakeris eta geixtokeris beteik zaute.

29. Zorigeixtokoak zek, eskribalari eta farisear itxurazaleak! Hilobriak goititzen daiztezie profetei, eta gizon gisakoei oreitarriak adornatzen.

30. Eta gala erratauzie: «Gure altzinekoen eunetan bizi bagine, ez ginake gaen laun izein profeten odola ixurtzen».

31. Beras, zauek erratauzie profetak hil zituztenen semeak ziratela.

32. Bete zazie zek ere zeen burasoen naurria!

33. Sugeak, sugekumeak! Nola inen dakozie igesi ifernuko zigorrari?

34. Beida, gor igortzen dauzkiziet nik profetak, xakitunak eta eskribalariak. Eta zek goeteik batzuk hilko tuzie eta gurutzean itzetu, bertze zemeit zigorkatuko tuzie zeen sinagogetan eta hiris hiri atakatuko daiezie.

35. Gala zeen geinera etorko da lurrean geinean ixuria izan den gisakoen odol guzia; Abel gisakotik hasi eta zek jauregitik aldarera bidean hil Barakiasen seme Zakariasen odolareino.

36. Hara nik zer erratautan: gebek guziak geinera etorko zeizkio jendamende goni.

37. Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen tuzuna, eta zuregana igorriak harrikatzen! Zemat aldis bildu nehi izan tut zure semeak, oiloak bere xitoak hegalpean bezala, eta zek ez duzie nehi izan.

38. Horra bada, ior gabe baratuko zeizie etxea.

39. Hara nik erran: Ez nuzie gehiao ikusko, zek errein duzien artio: *Bedeikatuik Xeinaen izenean heldu dena!*

HOGEITA LAUGARREN KAPITULUA

[Jauregia hautsituik izein. Azkenaen altzineko ezongarriak.
Hertsialdi geitza. Gizonaen Semeaen etortzea.
Ez dakizie guzi gou noiz izein den. Zerbitzuan leial iraun.]

1. Jesus jauregitik atra ze eta, bidetik ziazela, ikastunak hurrandu zire eta jauregiaen aldeak erakutsi zazkiote.

2. Garek erran zaie: «Ikustauzie guzi gou? Egias erraten douziet: ez da harriik harri geinean baratuko, guzia hautsiko'ute».

3. [Gero], Olibamendian xarriik zeoleik, ikastunak [berex hurrandu zire] eta galdein zakote:

–Erran dazaguzu noiz pastuko den gori, eta zer izein den zure etortzeaen eta munduaen azkenaen ezongarri.

4. Jesusek erran zaie:

–Beida, ez deila ior harritu.

5. Anitz etorko beitira ene izenean «Ni Kristo niz» erraten, eta anitz harrituko tuzte.

6. Borroka eta gerra asantsa anitz entzunen duzie. Ez oildu; hebek pastu biha'ute, baia ez da oino azkena.

7. Herriak herrien kontra xeikiko dira, eta erreinuak erreinuen kontra. Goseteak ere izein dira, eta lurraen ikarak gan eta gen.

8. Goek oinazeaen hasteak dira.

9. Oronean zogorlarietra ermein eta hilko zituzte, eta herri guziek tirria idukiko douziete ene izenagatik.

10. Oronean [anitzek ginesteari uko einen dakote], eta erkal saldu eta tirriatuko'ute.

11. [Profeta faltsu anitz xeikiko dira eta anitz engainatuko tuzte].

12. Eta geixtoke[er]iaen gehiaotzeaeki anitzen maitasuna hoztuko da.

13. [Baia] azkenareino irauten duna salbatuko da.

14. Erreinuaen berri ona mundu guzian oihukatuik izein da, herri guziek entzun zaten. Oronean etorko da azkena.

15. Daniel profetak erran hondatzeile higuingarria toki sanduan ezarriik ikustauzieleik,

16. Oronean, Judean daudenek igesi ein zatela mendietra.

17. Etxeinean daona ez deila xautsi bere etxetik dausen hartzera.

18. Alorrean ei dena, ez deila itzuli bere longeinaen bila.

19. Urrikariak eun gaetan ernari daudenak edo bularreko haurrak tuztenak!

20. Ein zazie otoitz, zeen igesia ez neguan, ez launbatean pastu ez dein.

21. Hertsialdi geitza izein beita oronean, mundua mundu denetik egundeino izan ez den bezalakoa.

22. Eta egun gaek laburtuko ezpalira, ez litzateke ior bizirik geldituko; baia hautatuengatik, laburtuik izein dira egun gaek.

23. Oronean iork errein bazauzie «Hona gen Mesias» edo «Horra gor», ez ginetsi.

24. Gezurresko mesias eta profeta faltsuak [agertuko beitira], ezongarri haundiak eta milagroak eines, eta ahal balitze hautatuak berak izorratuko luzkete.
25. Horra nik aldes altzinetik erran.
26. Beras, erraten balimadauziete: «Hara, basalurrean dao», ez fan gara; edo «Hara, etxe barnean dao», ez ginetsi.
27. Oñazturak iduzki aldetik atra eta sahesko aldereino istatzen duen bezala, gala pastuko da Gizonaen Semeaen etortzean.
28. Gorputz hila non, [arranoak] gara fein dira.
29. Egun gaeteik hertsialdiaen ondoren, berehala iduzkia ilunduko da, ilargiak ez du [argiik einen], izarrak zerutik erorko dira eta zeruaen indarrak ikarika egoin dira.
30. Oronean agertuko da zeruan Gizonaen Semeaen ezongarria, eta lurreko herri guziak bularrean xoka hasiko dira. [Eta] *Gizonaen Semea goibelen artetik etortzen* [ikusko'ute], ahalzu eta loria haundian.
31. Eta bere aingiruak tutu soinu haundis [igorriko tu], eta laur haizeteik bilduko tu bere hautatuak, zeru alde batetik bertzereino.
32. Ikasi zazie biku arbolaen parabolatik: adarrak samurtu eta orriak lehertzen zeizkioleik, badakizie uda zaloi heldu dela.
33. Berdin zek ere, guzi geben ikustean, xakin zazie [Gizonaen Semea] geinean dela, atarian.
34. [Egias erraten douziet]: jendamende gau ez da pastuko, guzi gori gertatu gabe.
35. Zeru-lurrak pastuko dira, ene eleak, berris, ez dira pastuko.
36. Baia egun eta oron gaen berriik ez du iork, ez zeruko aingiruek, ez Semeak, Aitak solo daki.
37. Gizonaen Semeaen etortzea Noeren egunak bezala izein dira.
38. Ur geingiazte altzineko egunetan [jendea] xan-edanetan zeile eta gizon-emazteak [ezkontzen zire], Noe kutxan sartu zen eguna artio.
39. Eta ez zire goartu uraen etortzeak guziak erman zituen artio. Gala izein da Gizonaen Semeaen etortzea ere.
40. Oronean bi laun egoin dira alorrean; bat hartuik izein da eta bertzea utzia.
41. [Bi emazteki errotan egoin dira ihotzen; bat hartuik izein da eta bertzea utzia].
42. Zaute erne, ezpaitakizie zen Xeina zein egunean etorko den.
43. Badakizie: etxeko nausiak baleki gabaen zer oronean etorko den lapurra, erne egoin litzateke eta ez luke bere etxea ebasten utziko.
44. Zek ere preparatuik egon ziezte, uste ez duzien oronean etorko beitzeizie Gizonaen Semea.
45. Nor da mutil gisako eta tentuduna, nausiak bere mutilen buru ezarri duna, bihar den oronean xanaen emateko?
46. Zorionekoa, nausia etortzen deleik, gortan harpatzen dun mutila!
47. Egias erraten dauziet: bere ondasun guzien buru ezarko du [mutila].
48. Baia mutil geixto garek bere beitan erraten balima'u: «Berant heldu da gure nausia»,
49. Eta bere mutil lagun[ak] xoten hasten balimada, eta mozkorreki xaten eta edaten,
50. Uste ez dun eunean eta ez dakin oronean etorko zeio nausia.
51. [Eta] baztertuko du, itxurazaleak merezi'uten bezala. Han izein da niarra eta hortzen karraska!

HOGEITA BOZGARREN KAPITULUA

[Hamar neskakoen parabola.
Talentuen parabola.
Azken juizioa.]

1. Beida zeren antza idukiko [duen zeruko erreinuak]. Hamar neskako, beren kriseiluak eskupetan zituztela, senargeiaen bidera atra zire.
2. Gaetaik bortz tentumotz zire, eta bertze bortzak tentudunak.
3. Tentumotzak kriseluak hartu zituzte, baia olioik ez bereki.
4. Tentudunak, berris, kriseilueki batio olioa ere hartu zute ontzietan.
5. Senargeia berant heldu beize, logeile imini eta lo gelditu zire.
6. Baia gaberdikoan oihu'at entzun ze: «Heldu da senargeia! Atra bidera!».
7. [Oronean] xeiki zire zaloiki neskako guziak eta beren kriseiluak [antzatu zituzte].
8. Tentumotzak gala erran zaiete tentudunei: «Ekarri zeen oliotik, gure kriseiluak itzaltzen ei zeizkigu eta».
9. Tentudunak erantzun zaiete: «Menturas ez daukagu aski guredako eta ziendako; zazte mertxantetra eta erosi».
10. Baia erostra ziazela, senargeia [ellegatu ze], eta prest zeudenak gareki [sartu zire] ezkontzara, eta hertsi ze ataria.
11. Luze gabe etorri zire bertze neskakoak, erranes: «Xeina, xeina! Ideki zazu ataria!».
12. Baia garek erantzun zaie: «Ez zituztet ezontzen».
13. Zaute, beras, erne, ezpeitakizie ez euna, ez orona.
14. [Zeruko erreinua gizon bateki bezala da]: urrunera fatean, bere mutilei dea ein, eta bere ondasunak utzi zaizkie.
15. Bati bortz talentu eman zazkio, bertze bati bi, bertze bati bakarra, bakotxari bere emantzaen naurrian. Eta gero fan ze.
16. Bortz talentu hartu zituena gareki lanean hasi ze berehala, eta bertze bortz irabazi zitue.
17. Bi hartu zituenak ere berdin ein zue eta bertze bi irabazi zitue.
18. Bat hartu zuenak, berris, lurrean xilo'at ein eta gan estali zue bere nausiak utzi xoxa.
19. Gandik luzera, mutil gaen nausia [etorri ze] eta kontuen eskaka hasi zitzeie.
20. Hurrandu ze bortz talentu hartu zituena eta bertze bortz eman zazkio, erranes: «Xeina, bortz talentu utzi zindazkide; beida, bertze bortz irabazi tut».
21. Nausiak erran zako: «Ederki, mutil gisakoa eta leiala! [Gouza] gutitan gisako izan ziralako, anitzen buru einen zitut. Sar zite zure nausiaen bozkariora».
22. Hurrandu ze bi talentu hartu zituena eta erran zako: «Xeina, bi talentu utzi zindazkide; hara, bertze bi irabazi tut».
23. Nausiak erran zako: «Ederki, mutil gisakoa eta leiala! [Gouza] gutitan gisako izan ziralako, anitzen buru einen zitut. Sar zite zure nausiaen bozkariora».
24. Azkenik hurrandu ze talentu bakarra hartu zuena eta erran zako: «Xeina, banakie gizon erne zinela, erein ez duzun alorrean iitatzen duzula, eta hedatu ez duzun tolian biltzen duzula.

25. Gorrengatik, beldurres fan nitze eta lurpean estali nue zure talentua. [Gen] duzu zaurea».
26. Nausiak erantzun zako: «Mutil geixto eta auferra! Bazindakie, beras, nik erein ez dutan tokian iitatzen dudala, eta hedatu ez dudanean biltzen.
27. Gorrengatik ene xoxa xoxalariei utzi behar zindaie; etortzean, irabazia eta guzi hartu nezan.
28. Eken dazozie talentu gori, eta emaozie hamar doukanari.
29. Doukanari emein beizeio eta geineska idukiko du; ez doukanari, berris, doukan gura ere ekenduko zeio.
30. Eta mutil aufer gori egotzi landaen ilunetra. Gan izein da niarra eta hortzen karraska!».
31. Gizonaen Semea, eta aingiru guziak gareki, bere loria haundian etortzen deleik, bere jaun loriasko katredan xarriko da.
32. Herri guziak garen altzinean bilduak izein dira, [eta] garek zemeit bertzeteik berexiko tu, artzeak ardiak ahuntzeteik berexten tun gisara.
33. Ardiak bere eskuieko aldean iminiko tu, ahuntzak, berris, ezkerreko aldean.
34. Oronean erregeak gala errein daie bere eskuikoei: «Zatozte ene Aitaen bedeikatuak; hartu zazie munduaen sortzetik zendako prestatuik dagon erregegoa.
35. Gose beinitze eta zek xatra eman zindadate; egarri nitze eta edatra eman zindadate; arrotz nitze eta etxean hartu ninduzie.
36. Biluxik nindego eta xantzi [ninduzie]; eri nitze eta ene ikustra etorri zinete; kartzelan nengo eta enegana etorri zinete».
37. Oronean gisakoek errespondituko dakote: «Xeina, noiz ikusi zindugu gosetuik eta eman gindakizun xatra, edo egarrituik eta edatra eman?
38. Noiz ikusi zindugu arrotz eta etxean hartu, edo biluxik eta xantzi?
39. Noiz ikusi zindugu [eri edo] kartzelan eta fan gine zuregana?».
40. Eta erregeak erantzunen daie: «Ene aneak diren txikin gebeteik bati eina nauroni ein zindadate».
41. Oronean gala errein daie ezkerrekoei: «Lekutu eneganik, madarikatuak, deabruaendako eta garen aingiruendako eratuik dagon betiko sura.
42. Gose beitnintze eta ez zindadate xatra eman; egarri nintze eta ez zindadate edatra eman.
43. Arrotz nintze eta ez ninduzie etxean hartu; biluxik nindego eta ez ninduzie xantzi; eri eta kartzelan nindego eta ez zinete ene ikustra etorri».
44. Gaek galdeinen dakote: «Xeina, noiz ikusi zindugu gose edo egarri, arrotz, biluxik, eri edo kartzelan eta guk laundu ez?».
45. Oronean erantzunen daie: «Txikin hebetaik bati ein ez zindakotena, nauroni ez zindadate ein».
46. Eta hebek betiko oinazetra fein dira; gisakoak, berris, betiko bizira.

HOGEITA SEIGARREN KAPITULUA

[Jesus nola harpatuko. Emazteki'atek Jesus gantzutu.
Jesus Judasek salduik. Azken afariaen prestatzea.
Judasen saldukeria erran. Hona ene gorputz-odolak.
Pedroen ukoen altzinetik erratea. Getsemaniko otoitza.
Jesus estekatuik erman. Pedrok Jesus ukatu.]

1. Jesusek mintzaldi [gaek] akaatu ondoren, gala erran zaie bere ikastunei:
2. «Dakizienes, etzi Bazkoa dugu, eta Gizonein Semea [apez nagusiei] saldua izein da gurutzean hil zaten».
3. Oronean apez nausiak eta herri zaharrak Kaifas izeneko nausiaen jauregian [bildu zire].
4. Eta Jesus geixtokeris bahitu eta hiltzea [erabaki zute].
5. Baia gala erraten zute: «Ez, gero, xei egunean, herrian nahasteik ez [dein] izan».
6. Jesus Betanian, Simon legenadunein etxean zeola,
7. Emazteki'at [etorri zitzeo], ontzi eder batean ubendu asmo oneko ekartzen zuela, eta Jesusi buruaen geinera ixuri zako, mahaian zeoleik.
8. Gori ikusita samurtu zire ikastunak, erranes:
–Zetako galdu da gori auferrik?
9. Saldu beitzeike gori kario eta beharzuei eman.
10. [Jesus] goartu ze eta erran zaie:
–Zerengatik ez duzie bakean uzten emaztekia? Ongi eina dao eneki ein duna.
11. Beharzuak beti idukiko beituzie zeki; ni, berris, ez nuzie beti idukiko.
12. Ubendu asmo onekoa ene gorputzera ixurtzen zadenean, hilobrira fateko antzatzen nindue.
13. Egias erraten dauziet: berri ona erraten den munduko toki guzietan oreituko'ute gonek ein duna ere, beraen oreigarri.
14. Orenean, hamabieteik bat, Judas Iskariote, apez nausiengana fan ze.
15. Eta erran zaie: «Zer emein dadazie, [Jesus] eskuratzen badouziet?».
Gaek hogeitamar zilarrezko xoxa emein zazkiotela erran [zakote].
16. Orduas geros, [Judas] Jesus gaien eskuetra emateko une egokiaen bila zeile.
17. Meztuen lehemixiko eunean etorri zire ikastunak Jesusengana eta [galdein] zakote:
–Non prestatzea nehi'uzu Bazko afaria?
18. Jesusek errespondituzaie:
–Zazte herrira gorrelakoengana, eta erran dazezie: «Gola erratau Maestroak: Hurran da ene orona; zure etxean einen dut Bazkoa ene ikastuneki».
19. Ikastunek Jesusek erran bezala ein zute eta Bazko afaria [prestatu zute].
20. Artsean, Jesus hamabieki mahaian zego.
21. Eta xaten ei zirela, gala erran zaie:
–Egias erraten douziet: zeteik batek salduko nu.

22. Ikastunak, nehigabes beteik, galdein zakote:
–Ni niz, Xeina?
23. Garek erresponditu:
–Eneki aspil berean ogia busti dunak, gorrek salduko nu.
24. Gizonaen Semea badae, eskribituik dagon bezala; baia zorigeixtokoa Gizonein Semea saltzen duna! Gizon gorrek hobeki zue jaio ezpalitze!
25. Oronean Judasek, salduko zuenak, galdein zako:
–Ni niz, Maestro?
Jesusek [erresponditu zako]:
–Zauro[rr]ek erran duzu.
26. Xaten ei zirela, Jesusek ogia hartu eta bedeikatze otoitza eines, zakindu zue eta ikastunei eman zaie erranes: «Hartu zazie eta xan; gou ene gorputza [beita]».
27. [Gero], katulia hartuik eta esker otoitza eines, eman zaie erranes: «Edan guziak gontatik;
28. Gou ene odola beita. Alianzaen odola, guziendako hobenen barkatzeko ixurtzen dena.
29. Hara nik erratautana: Ez dut gehiao ardoik edein, ardo berria zeki ene Aitaen erregegoan edein dudan euna artio».
30. [Salmoak] kantatu zituzte eta Olibamendira atra zire.
31. Oronean gala mintzo ze Jesus: «Gaur, zek guziak erorbide idukiko nuzie, eskribituik beitago: *Xoko'ute artzea eta barreatuko dira ardiak*.
32. Baia ni biztu ondoren, altzinetik fein nitzaizie Galileara».
33. Pedrok erran zako:
–Bertze guziak ukatzen balimazituzte ere, nik ez zitut ukatuko.
34. Jesusek erantzun zako:
–Egias erraten douzut: gaur berean, oilarrak kantatu baino lehenao, zuk hirur aldis ukatuko nuzu.
35. Pedrok erresponditu zako:
–Zureki hil behar balima'ut ere, ez zitut ukatuko.
Gouza bera erraten zute ikastun guziak.
36. Oronean Jesus bere ikastuneki Getsemani izeneko baratzera [fan ze] eta erran zaie: «Xarri ziezte zek gen, ni gara otoitzaen eitra naen artean».
37. Eta Pedro eta Zebedeoen bi semeak bereki hartus, arranguratzen hasi ze eta hertsitzen.
38. Oronean erran zaie: «Nehigabes hiltzeko zorian nao. Bara ziezte gen eta egon erne eneki batio».
39. Altzinao [fan ze] eta, lurrean eroria, gonela eiten zue otoitz: «Ene Aita, fan deila, ahal balimada, kaliza gou eneganik. Baia ez deila pastu nik nehi'utan bezala, zuk nehi'uzun bezala beizik».
40. Bere ikastunengana [etorri ze] eta lo ikusi zitue. Eta gonela erran zako Pedrori: «Etzeizke egon erne oron bates eneki?

41. Zaute erne eta eizie otoitz, aztaldian erori ez ziezten: gogoa azkarra da; haragia, berris, beratza».
42. Fan ze bigarren aldis, eta berris ere gonela ein zue otoitz: «Ene Aita, kaliza gou ezpadeike pastu nik edan gabe, ein deila zure nehia».
43. Berris [etorri ze] eta lo harpatu zitue; begiak logeile beitzituzte.
44. Gaek utzi eta berris [fan ze], eta hirurgarren aldis lehemixiko ele berak erranes ein zue otoitz.
45. Gero ikastunengana etorri eta erran zaie: «Orei ein zazie lo, eta hartu atsina! Hara, ellegatu da orona eta Gizonaen Semea hobendunen esku utzia izein da.
46. Xeiki ziezte eta gazen! Hurran da ni saltzen nuna!».
47. Jesus oino elekan ei zela, gan agertu ze Judas, hamabieteik bat, eta gareki jendeketa geitza [ezpatak eta makilak eskupetan zituztela], apez nausiak eta herriko zaharrak igorria.
48. Saltzeileak gou errana zaie: «Nik musu ematen dakotana, gura da; lotu zazie».
49. Berehala, Jesusengana hurrandu, eta erran zako: «Agur, Maestro [jauna]!».
Eta musu bat eman zako.
50. Jesusek erran zako: «Launa, zertra heldu zira?».
Oronean Jesusengana [hurrandu zire], eskuak atxiki zazkiote eta lotu zute.
51. Jesuseki zegon batek, eskua luzatus, ezpata atra eta apez nausiaen mutil bat xo zue, eta bearria moztu zako.
52. Jesusek erran zako: «Sartu ezpata bere tokian; ezpatalaria ezpatas hilko da».
53. Zer uste'uzu? Nik eztoukedala ene Aitari laguntza eskatu? Garek hamabi aingeru talde eta gehiao iminiko luzke ene alde.
54. Baia gala ez litzateke beteko Libru Sanduak pastu biharra dela diona».
55. Oronean, Jesus gala mintzo zitzeo jendeari: «Ebasle batengana bezala etorri zirate, ezpata eta makileki, ene harpatzera. Egunoro xartzen nitze jauregian irakusten, eta ez ninduzie harpatu.
56. [Baia] guzi gou profetek errana bete [dein pastu da]».
Oronean, [Jesus] solo utziik, ikastun guziak lekutu zire gandik.
57. Jesus hartu zutenak, Kaifas apez nausiaen etxera erman zute, gan beitzeude batzarrean bilduik eskribalariak eta herriko zaharrak.
58. Pedro, urrundik, apez nausiaen jauregireino xarreiki zako eta, barnera sartuik, mutilen artean xarri ze, guzi gura zertan akaatzen ote zen xakin nehis.
59. Apez nausia eta batzarre osoa Jesusen kontra gezurresko testimonio'aten bila zeiltze, gura heriotzera ermateko.
60. Baia ez zute harpatzen, gezurresko hoinbeste testigo etorrita ere. Azkenik bi testigo [etorri zire].
61. Eta gala [erran zute]: «Gonek erran zue: Jangoikoin jauregia xehatu zaket, eta hirur egunetan berris ein».
62. Oronean apez nausia [xutitu ze], eta erran zako:
–[Zure kontra erraten tuztenei ez daezu dausik erantzuten?]
63. [Baia Jesus ixilik zego. Apez nausiak erran zako]:

–Jangoiko biziaen izenean galdeiten douzut. Erran dazaguzu: zu zira Mesias, Jangoikoin semea?
64. Eta Jesusek:
–Zauro[rr]ek erran duzu. Gehiao erratautt: Orei beretik *Gizonein Semea Ahalguzidunaen eskuieko aldean iminten, eta zeruko goibelaen geinean etortzen* [ikusko'uzie].
65. Oronean apez nausiak arnesak [tarratatu zitue], erranes:
–Bekatu erran du! Ba'ugu bertze testigoen biharrik? Entzun duzie bekatua.
66. Zer iduritzen zaizie?
Eta guziak oronean:
–Heriotzea merezi du!
67. Oronean orpegira lixtua botatzen hasi zitzeizkio, eta xoten; bertze zemeitek, berris, zartakoka,
68. Gala erraten zakote: «Asma zak, Mesias, nork xo gou?».
69. Pedro atarian zego xarriik; nexako'at [etorri ze] eta erran zako:
–Zu ere Galileako gorreki ibiltzen zine.
70. Pedrok guzien altzinean ukatu zue.
–Ez dakit zer erratauzun.
71. Kanpoko atarira ziaiela, bertze nexako'atek [ikusi zue] eta gala erran zaie ingurukoei:
–Gou Nazareteko Jesuseki zeile.
72. [Pedrok], zin eines, berris ere ukatu zue.
–Nik ez dut ezontzen gizon gori.
73. Luze gabe, inguruan zirenak [etorri zitzeizkio], eta erran zakote:
–Iondik ere, zu goeteik bat zira; mintzaireagatik ezondu zitugu.
74. Oronean Pedrok madarikatus eta zin eines, gala erran zue:
–Nik ez dut ezontzen gizon gori.
Eta berehala kantatu zue oilarrak.
75. Pedrori Jesusek errana oreitu zitzeio: «Oilarrak kantatu beino lehenao, zuk hirur aldis ukatuko nuzu». Eta landara atratzeaeki, niar egin zue.

HOGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

[Jesus Pilatogana ermanik. Judasen heriotzea.
Pilatoen altzinean. Heriotzera kondenatuik.
Soldaduen irriak. Jesus gurutzean xosiik.
Jesusen heriotzea. Hilobrian xarriik.
Hilobria sellatuik eta zaituik.]

1. Eguna argitu zueleik, apez nausi guziak eta herriko zaharrak batzarrean bildu zire Jesusen kontra, heriotzera ermateko.
2. [Gero], lotuik, Pilato manatariaengana erman zute eta garen eskuetan utzi.
3. Oronean, Jesus galduik zela ikusiik, damutu ze Judas saltzeilea, eta hogeita hamar xoxak apez nausiei eta herriko zaharrei itzulis,
4. Erran zaie:
–Bekatu ein dut hobengabe gou hiltzeko saldus.
Baia gaek erantzun zakote:
–Eta guri zer? Gor ikusi zuk!
5. Xoxak jauregian xaurtiki zitue eta gandik [fan ze] eta bere burua urkatu zue.
6. Apezek xoxa hartu eta erran zute: «Ez dao ongi gou eskingeien zakura botatzea, odol saria beita».
7. Eta erkali elekatu ondoren, «Geltzegilean alorra» erosi zute, arrotzen hilgiotako.
8. Gorrengatik, egu oino alor gari «Odol-alorra» deitzen zeio.
9. Gola bete ze Jeremias profetak eskribitua: *Hogeita hamar zilarresko xoxa hartu zituzte, Israeleko semeek salgei zegonari ezarri balioa.*
10. *Eta gaeki Geltzegileaen alorra erosi zute, eni Xeinak manatu zaden gisara.*
11. Jesus manatariaengana erman zute, eta manatariak galdein zako:
–Zu judutarren erregea zira?
Jesusek errespondítu:
–Zaurorrek erran duzu.
12. Apez nausiak eta herriko zaharrak salatu eta salatu ei izanik ere, Jesusek ez zue ja ere erantzuten.
13. Oronean Pilatok erran zako:
–Ez duzu entzuten zemat salaketa eitauten zuredako?
14. Jesusek ezpeitzako galdeite bakar bati ere erantzuten, manataria harrituik zego.
15. [Manatariak xei buruan] preso'at lazotzeko aztura zue, herriak berak nehi zuena.
16. Kartzelan bazue tenore gartan fama haundiko preso'at, Barrabas izenekoa.
17. Herria bilgioan zeleik, Pilatok galdein zaie:
–Nor nehi'uzie lazotzea? Barrabas edo Jesus, Mesias erratautena?
18. Berak beitzakie [Jesus] tirrias ekarri zakotela.
19. Eta juezaen katredan xarriik zeola, bere emazteak manatu gou igorri zako: «Etzitela sartu gizon gisako goneki; amesketa ilunak ein beitut bart gortas».

20. Baia apez nausiek eta herriko zaharrek berotu zute herria, Barrabas libratu eta Jesus hil zezala eskatzeko.
21. Manatariak galdein zaie:
–Bi gebeteik nor nehi'uzie lazotzea?
Herriak erantzun:
–Barrabas!
22. [Pilatok erran zaie]:
–Eta zer ein beha'ut Mesias erratauten goneki?
Eta herriak:
–Xosi gurutzean!
23. [Eta garek:
–Zer geizki ein du, ba?
Herriak oronean, oihu handiaos:
–Xosi gurutzean!]
24. Pilatok, guzia auferrik zela eta borroka geinean zuela ikusiik, ura hartu eta herriaen altzinean eskuak ikuzis, erran zaie:
–Hobengabe niz ni odol gontan. Gor ikusi zek!
25. Herri guziak oronean:
–Etorri deila gure geinera eta gure umen geinera gorren odola!
26. Oronean Barrabas lazotu zaie, eta, Jesus zigorkatu ondoren, gaen eskuetra pastu zue, gurutzean xosteko.
27. Manatariaen soldaduek Jesus juiziogiora erman zute eta soldadu talde osoa bildu zute gorren ingurutik.
28. Arnesak [erountzi zazkiote] eta longeina gorria xantzi zakote.
29. Tzustoeki txapela ein zute gero eta buruan ezarri zakote eta kaña makila eskuan. Eta altzinean belaunikatuik, irri eiten zakote, erranes: «Agur, judutarren errege!».
30. Sarri lixtua xaurtikitzen hasi zitzeizkio, eta kaña ekendu eta gareki buruan xoten zute.
31. Irria akaatu, eta longeina ekendu zakote, bere arnesak xantzi, eta gurutzean xostra erman zute.
32. Atratzean, Simon izeneko zirenear gizon bat harpatu zute, eta gurutzeaen ermatera bihartu [zute].
33. Golgota –gou da, «kaldordegia»– deitu tokira ellegatu zireleik,
34. Gibelmines nahasi ardoa eman zakote edatra. Jesusek txastatu zue, baia ez zue edan nehi izan.
35. Gurutzean xosi zuteleik, [soldaduek] garen arnesa [banatu zute], zer noindako.
36. Eta lurrean xarriik gura zaitzen gelditu zire.
37. Buruaen geinean eskribu bat ezarri zakote, hoben agertze gisara: «Gou Jesus da, judutarren erregea».
38. Gareki batio bi geizkile xosi zituzte gurutzean, bata eskuieko aldean eta bertzea ezkerrekoan.
39. Gandik pasten zirenak irri eiten zakote.
40. Erranes: «Jauregia xehatu eta hirur egunetan berris eiten yuen gorrek, salba zak yaure burua!. Jangoikoaen seme balimayiz, sautsi yai gurutzetik!».

41. Gisa berean, apez nausiek, eskribalariek eta herriko zaharrek ere burla eiten zakote, erranes:
42. «Bertzeak bai salbatu gorrek, eta bere burua eztouke salbatu! Israeleko errege, xakina! Sautsi deila orei gurutzetik eta ginetsiko dakogu.
43. Jangoikoin beitan iduki du bere uste ona; Jangoikoak egias onartzen balima'u, lazo zala orei. Ez zue, ba, Jangoikoin seme zela erraten?».
44. Gareki gurutzean xosiik ziren bi geizkileek ere berdin irri eiten zakote.
45. Eguerditik aatsalde erdirartio, lurralde gura guzia ilunduik imini ze.
46. Eta aatsaldeko erdi aldera, Jesusek oihu'at ein zue: «*Eli, Eli, lema sabaktani?*»; gou da, «*Ene Jangoikoa, ene Jangoikoa, zerengatik utzi nuzu eskutik?*».
47. Inguruan ziren zemeitek gori entzun, eta gala erran zute: «Eliasi deika ei da gou».
48. Gaeteik batek, lasterka [fanik], ozpinean bustia zen esponja'at hartu zue eta kanain puntan lotuik edatra eman zako.
49. Bertzeek gala erraten zute: «Utzi dazozu; ikus zagun ia heldu zeion Elias gurutzetik salbatzera!».
50. [Baia] Jesusek bertze intziri azkar bat eines azken hatsa eman zue.
51. Oronean, jauregiko mihisea erditik tarratatu ze, goitik beheitireino; lurra ikarika eon ze, harriak puxkatu.
52. Hilobriak ideki eta hil sanduen gorputz anitz biztu zire.
53. Gebek, Jesus biztu ondoren, beren hobrieteik atra eta hiri sandura etorri zire, eta anitzei agertu zitzeizkie.
54. Lurrikara eta pastu zena ikusi zuteleik, [Jesus zaitzen zegon soldaduen ehuntariak eta bere mutilak] oildu zire eta gala erraten zute: «Gou, egias, Jangoikoin Semea ze».
55. Baze gan, urrundik beidatzen, anitz emazteki, Galileatik Jesusi xarreikis etorriak, gura serbitu nehis.
56. Gaeteik bat [Magdalako] Maria, eta Santiagoen eta Josen ama Maria eta Zebedeoen semeen ama.
57. Ilunabarrean, Arimateako gizon abratsa [Jose izenekoa] etorri ze; bera ere Jesusen ikastuneteik bat.
58. Gura Pilatoengana fan ze eta Jesusen gorputza eskatu zako. Pilatok emateko manatu zaie.
59. Josek Jesusen gorputza [hartu zue] eta, mandre garbi batean bildu ondoren,
60. Beraendako harri bizian zilatu hobri berrian imini zue. [Gero] hobriaen atarian harri biribil haundi'at [ezarri zue] eta fan ze.
61. [Magdalako] Maria eta bertze Maria gan zeude, hobriaren altzinean xarriik.
62. Biramun goizik, ortzilare eguna pastu ondoren, apez nausiak eta farisearrak elkarreki fan zire Pilatoengana.
63. Erranes:
–Xeina, oreitu gira, gezur saltzeile garek, oino bizi zela nola erran zuen: «Hirurgarren egunean biztuko niz».
64. Manatu zazu, beras, hilobriaen zaitzeko hirurgarren eguna artio, garen ikastunak etorri, eta gorputza ebatsi ez zaten, eta herriari erran: «Biztu da hilen artetik». Azkeneko [gezur gori] lehemexikoa beino makurrao izein beit litzateke.
65. Pilatok erantzun zaie:
–Gor tuzie soldaduak. Zazte zauek, eta zaitu dakizien gisara.
66. Fan zire gaek, [harria] sellatu zute, eta zaitzeilen esku utzi zute hilobriaen zaitzea.

HOGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Jesusen bizteaen berria.
Soldaduak erosi.
Ikastunak mundu guzira igorriik.]

1. Launbat biramunean, asteaen lehemexiko egunaen argitzean, [Magdalako] Maria eta bertze Maria hilobriaen ikustra fan zire.
2. Eta oronean, lurraen ikara geitza izan ze; Xeinaen aingiru bat zerutik etorri beize eta, gara hurranduik, harria bere tokitik inbulustatu zue eta geinean xarri ze.
3. Aingiruaen orpegiak iñaztura iduri zue, eta arnesak elur zuria.
4. Zaitzeileak bere altzinean kuzkurturik, ikaraka hasi eta hilik bezala gelditu zire.
5. [Baia] aingirua gala mintzo zitzeie emaztekiei:
–Zek ez beldur izan. Badakit Jesus gurutzean itzetuain bila heldu ziratela.
6. Ez dago gen; biztu da, berak erran zuen bezala. Zatozte, eta ikusi ortzik zeon tokia.
7. [Gero] zazte zaloiki garen ikastunengana, eta erran dazezie: «Biztu da hilen artetik, eta gordik dae zen altzinetik Galileara. Gan ikusiko'uzie». Horra nik errana.
8. Hilobritik zaloiki lekutu eta, bihotx dardaras eta guzis alegeratuik, lasterka fan zire ikastunei berriaen ematra.
9. Eta galako batean bidera atra zitzein Jesus, eta erran zaie: «Alegera zizte!».
Gaek hurrandu zire eta, etzinik, zangoak besarkatu zazkiote.
10. Oronean Jesusek erran zaie: «Ez izan beldur! Zazte eta erran ene ahaidei Galileara fateko; gan ikusko nute».
11. Emaztekiak bidetik ziazela, zaitzeileteik batzuk hirira fan zire eta pastu zanaen berri eman zaiete apez nausiei.
12. Gebek, zaharreki bilgioa einik, xoxa montio bana eman zaiete soldaduei.
13. Eta manatu: «Errazie [gaen] ikastunak gabas etorri, eta gorputza ebatsi dutela, zek lo zindautenean.
14. Gori manatariak xakinen balu, guk goxatuko'ugu, eta ez duzie makurrik idukiko».
15. [Soldaduek] xoxa hartu, eta erakutsi zitzeien bezala ein zute. Eta gau hedatuik dao judutarren artean egundeino.
16. Hameka ikastunak Galileara fan zire, Jesusek altzines manatu oihanera.
17. Gura ikusi zuteleik, gehienek agurtu zakote; zemeit, berris, ezbaian zeude.
18. Jesus hurrandu, eta gala elekatu zaie: «Ahalmen guzia eman zeida eni zeruan eta lurrean.
19. Zazte eta ein ikastunak herri guzieteik; bateotu zkizie Aitaen eta Semeaen eta Izpiritu Sanduaen izenean.
20. Eta irakatsi gaei nik manatu douziedan guzia betetzen. Beida zazie, ni zeki nuzie egunoro, munduaen azken euna artio».

ARABAERA

MATEOREN EBANJELIOA

ARABAERAZ

JESUKRISTOREN EBANJELIOA

MATEOREN ARABERA

AITOR ARANA

2025

LELENGO KAPITULUA

Jesusen yayotza ta umezaroa.
Jesusen sortze garbixa.

1. Abrahanen ta Dabiden seme dan Jesukristoren jatorria.
2. Abrahanek Isaak sortu eben; Isaakek Jakob; Jakobek Juda ta haren anaiak sortu ebesan.
3. Judak, Tamarengandik, Fares ta Zara; Faresek Esrom sortu eben; Esromek Aram.
4. Aramek Aminadab; Aminadabek Naason; Naasonek Salmon.
5. Salmonek, Rahabengandik, Booz; Boozek, Rutengandik, Obed; Obedek Jese.
6. Ta Jesek Dabid erregea.
Dabid erregeak, Uriasen emaztea izan zanagandik, Salomon sortu eben.
7. Salomonek Roboam; Roboamek Abia, Abiak Asaf.
8. Asafek Josafat; Josafatek Joram; Joramek Ozias.
9. Oziasek Joatam; Joatamek Akaz; Akazek Ezekias.
10. Ezekiasek Manases; Manasesek Amon; Amonek Josias.
11. Josiasek Jekonias ta haren anaiak sortu ebesan, Babiloniako erbestaldian.
12. Ta Babiloniako erbestaldi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu eben; Salatielek Zorobabel.
13. Zorobabelek Abiud; Abiudek Eliazim; Eliazimek Azor.
14. Azorrek Sadok; Sadokek Akim; Akimek Eliud.
15. Eliudek Eleazer; Eleazarrek Matan; Matanek Jakob.
16. Jakobek Jose, Mariaren senarra: ta Mariagandik Kristo deiduten dan Jesus yayo zan.
17. Beras, Abrahangandik Dabideganaiño, hamalau belaunaldi dire; Dabidengandik Babiloniako erbestaldi arte hamalau belaunaldi; ta Babiloniako erbestalditik Kristoganaiño, hamalau belaunaldi.
18. Jesukristoren yayotza holantxe izan zan: Jesusen ama Maria Joseri eskonduteko berbea emonda eguan ta, alkalika bizi izan baño lehen, Espiritu Santuaren egiñez sendun eguan.
19. Josek, haren senarrak, zuzena zanez ta salatu gura ez-ta, isilik etsitea erabagi eben.
20. Baia asmo honetan ebillela, amesketan Jaunaren aingerua agertu ddakon, ta esan eutzen: «Jose, Dabiden semea, ez bildurtu Maria emaztetzat hartzen; haregan sortu dana Espiritu Santuagandik da-ta.
21. Seme bat izango du ta izena Jesus ifiniko deutzesu; bere herria pekatuetatik berak atarako du-ta».
22. Hori guzti hori yazo zan, Jaunak profetaren agoz aurretiaz esan eben hau beteteko:
23. *Begira, birjiña batek zilban semea sortu ta izango du, ta izena Emmanuel ifiniko deutzo*. Izen honek «Dxangoikoa gugas» esan gura dau.
24. Josek, amesketatik iratzartu zanean, Jaunaren aingeruak agindu eutzena egin, ta bere emaztea beragas hartu eben.
25. Ta hagas eskontzako hartu-emonik izan barik, Mariak seme bat izan eben, ta harek Jesus izena ifini eutzen.

BIGARREN KAPITULUA

Iguski-sortzaldeko jakintsuen gurtzea.
Egiptora igesi. Ume errubageen heriotzea.
Egiptotik Nazaretera.

1. Herodes erregearen egunetan, Judeako Belenen Jesus yayo zanean, jakintsu batzuk etorri zirien iguski-sortzaldetik Jerusalenera, esanez:
2. –Nun dago juduen errege yayobarria? Iguski-sortzaldean haren izarra ikusi dugu-ta, gurtzen gatoz.
3. Hori entzunda, Herodes erregea larritu egin zan, ta haregas batera Jerusalen guztia.
4. Orduan, herriko abadeburu ta lege-maisu guztiak alkarrazi ebesan, ta Mesias nun yayoko zan galdetu eutzien.
5. Haik esan eutzien:
–Judeako Belenen, holantxe dago-ta profetak eskribiduta:
6. *Ta zu, Judeako Belen, ez zara Judeako herri nausien artean herririk txikerrena: zeugandik urtengo du usabak, ta nire herri Israelen artzai izango da.*
7. Orduan, Herodesek jakintsuai isilka deidu eutzien, ta izarra noiz agertu ddatien jakin eben harekandik.
8. Gero Belenerako bidean ifini eudiesan, esanez. «Yoan saise ta jakin ondo umea nun dagoan, ta topetan dusuenean esan niri, neu be bera gurtzen yoateko».
9. Haik, ba, erregearen berbak entzunda yoan egin zirien. Ta sortzaldean ikusitako izarra aurretik yoakien, umea eguan toki ganera allegatu ta bertan gelditu arte.
10. Izarra ikustean poz haundiz bete zirien.
11. Etxean sartu zirien, sena ikusi eudien bere ama Mariagaz, ta ahuspaztuta gurtu eudien. Gero, euren kutxatillak zabalduta, opariak eskiñi eutziesan: urrea, intzentzua ta mirra.
12. Gero, Herodesegana ez barriro yoateko abisua amesketan hartuta, euren herrialdera beste bide batetik bihurtu zirien.
13. Haik yoan zirienean, Jaunaren aingeruak, Joseri amesketan agertuta, esan eutzen: «Yagi sais, hartu sena ta beronen ama, ta iges egisu Egiptora ta egon han neuk esan arte; umea hilteko Herodes haren billa ibilliko da-ta».
14. Jose yagi ta, sena ta haren ama hartuta, Egiptora bastertu zan.
15. Ta hantxe egon zan, Herodes hil arte. Holan Jaunak profetaren agoz aurretik esandakoa bete zan: *Nire semeari Egiptotik deidu neuntzen*.
16. Orduan Herodes, jakintsuak engañatu eudiela ikusita, asko hasarretu zan, ta Beleneko ta inguruetako urte bitik beherako ume guztiak hilteko agindu eben, jakintsuak esandako denporea kontuan hartuta.
17. Holan bete zan Jeremias profetak aurretik esan ebena:

18. *Gedarra ta negarra entzun dire Raman! Rakel da bere senakaitik negarrez, ta ez du kontsolatu gura, ez dire bizi-ta.*

19. Herodes hil zanean, Jaunaren aingerua agertu ddakon Joseri Egipton.

20. Ta esan eutzen: «Yagi sais, hartu sena ta beronen ama, ta yoan sais Israelgo lurraldera, sena hil gura eudienak il dira-ta».

21. Jose yagi zan ta, umea ta ama hartuta, Israelgo lurraldera yoan zan.

22. Baia jakin eben Herodesen lekuan Arkelao zegoala Judean errege, ta hara yoateko bildur izan zan. Ta amesketan abisua hartuta, Galileako lurraldera bastertu zan.

23. Ta Nazaret izeneko herrian ipiñi zan bizitten, profetak aurretik esandakoa bete zedin: *Izena Nazaretarra emongo ddako.*

HIRUGARREN KAPITULUA

Joan Bateatzalleak Jesusen etortearen
barri emon. Jesusen bateoa.

1. Aldi haretan, Joan Bateatzallea agertu zan Judeako basamortuan, holan esanez:

2. «Garbitu saise, seruko erreiñua hor dago-ta».

3. Isaias profetak Joan honetaz esan eben: *Basamortuan gedarka dagoan berbotsa: Prestatu Jaunaren bidea, zuzendu haren bide-zidorrak.*

4. Joanek ganbelu-ullesko yantzia erabillen, gerrian narrusko gerrikoa, ta haren yana matxinsaltoak ta baso-eztia zirien.

5. Jerusalendik ta Judea guztitik ta Jordan lurraldetik jendea etorten zan.

6. Ta euren pekatuak autortuta, Jordan ibaian bateoa hartzen eudien haregandik.

7. Fariseu ta saduzear asko bere bateoa hartzen etozela ikusita, Joanek holan esan eutzien:

–Subekumeok! Nok esan deutzue ganean dusuen hasarre-zigorrari iges egingo deutzesuela?

8. Agertu zeuen yokabideaz garbitu zariela.

9. Ta ez pentsatu nahikoa dusuenik «Abrahan dugu aitatzat» esatea. Egidxa esan, harri horreitatik Abrahanen semeak atarateko lain bada Dxangoikoa.

10. Prest dago askorea arbolea susterrean yoteko; frutu onik emoten ez duan arbolea ebagi ta sutara botako da.

11. Nik uragas bateatzen saudiedas zuek garbitzeko; baia nire ondoren datorrena ni baño ahaltsuagoa da, ta ni ez naz nor hari oñetakoak eruateko be; berak bateatuko saudies Espiritu Santuaz eta suagaz.

12. Galbahea bere eskuan dauko ta bere larraiña garbituko du; gariya zalgategian batuko du; gari-buyoa, barriz, ezin intzugi leiteken sutan erreko du.

13. Orduan Jesus Galileatik Jordanera yoan zan, Joanegana, honek bateatzeko.

14. Joanek, barriz, galazi egiten eutzen esanez:

–Neu naz zuk bateatu behar nausuna, ta zeu zatoz nigana?

15. Baia Jesusek erantzun eutzen:

–Egiten etsi eidasu orain, holan bete behar dugu-ta Dxangoikoaren nahia.

Orduan Joanek etsi egin eutzen.

16. Jesus bateatu eta gero, berehala uretatik urten eben. Ta serua zabaldu zan, ta Espiritu Santua uso forman bajaitten ta haren ganera etorten ikusi eben.

17. Ta berbots hauxe entzun zan serutik: «Hau da nire semea, nire maitea; bera dut atsegin».

LAUGARREN KAPITULUA

Jesusen tentaldixak basamortuan. Jesus Galileara.
Jesus barri ona zabaltzen hasi.
Lelengo lau ikasleak. Jesusek jendea osatu.

1. Orduan, Espiritu Santuak Jesus basamortura eruan eben, deabruak tentatzeko.
2. Ta berrogei egunez ta berrogei gabaz barau egin ta gero, gose izan zan.
3. Orduan tentatzallea hurreratu ddakon ta esan eutzen:
–Dxangoikoaren semea bazara, esan harri honeek ogi bihurtu daitezala.
4. Jesusek erantzun eutzen:
–Liburu santuetan eskribiduta dago: *Gizona ez da ogi hutsez bizi, Dxangoikoak esaten duanatik bizi da.*
5. Ondoren deabruak huri santura, Jerusalenera, eruan, tenpluaren gallurrean ipiñi, ta esan eutzen:
6. –Dxangoikoaren semea bazara, bota eisu zeure burua gotik behera, eskribiduta dago-ta: *Bere aingeruai zu yagoteko aginduko deutzie. Ta besoetan eruango saudies, harriren batean ez labain egiteko.*
7. Jesusek erantzun eutzen:
–Hau be eskribiduta dago: *Ez tentatu Jauna, zeure Dxangoikoa.*
8. Barriro be, deabruak mendi altu batera eruan eben, ta lurreko erreiñu guztiak ta harein edertasuna erakutsi eutzesan.
9. Ta esan eutzen:
–Guzti hau emongo deutzut, ahuspaz gurtzen banausu.
10. Jesusek orduan:
–Alde hemendik, Satanas! Eskribiduta dago-ta: *Dxangoiko Jauna bakarrik gurtuko dusu.*
11. Orduan deabrua yoan egin san, ta aingeru batzuk etorri ddatiesan kriadu egiten.
12. Joan Bateatzallea kartzelan sartu eudiela jakitean, Jesus Galileara bastertu san.
13. Baia Nazaret etsita, Zabilon ta Neftaliko mugetan ifini san bizitten, itxaso ondoan dagoan Kafarnaun herrian.
14. Holan, Dxangoikoak Isaias profetaren agoz esana bete san:
15. *Zabulon lurraldea ta Neftali lurraldea, itxaso ondoko bidea, Jordan haruzko lurraldea, atzerritarren Galilea!*
16. *Illunbetan eguan herriak argi bizi bat ikusi du. Itzalpean bizi sirenei argi bat sortu ddatie.*
17. Harrezkero, Jesus holan esaten hasi zan: «Garbitu saise, seruko erreiñua hur dago-ta».
18. Jesusek, Galileako itxas basterrean ebillela, anaia bi ikusi ebesan: Simon, Pedro deidua, ta haren anaia Andres sarea itxasora boketan, arrantzaleak siren-ta.

19. Jesusek esan eutzien: «Etorri nigas, ta nik gizon-arrantzale egingo saudiedas».
20. Haik, sareak etsita, yarraitu egin eutzien.
21. Aurrerago, beste anaia bi ikusi ebesan, Santiago ta Joan, Zebedeoren semeak, aitagas txalupan sareak konponketan. Ta deidu eutzien.
22. Haik, txalupa ta aita etsita, yarraitu egin eutzien.
23. Jesus Galilea osoan zehar ebillen, harein sinagogatan irakasten, erreiñuko barri ona zabaltzen, ta herrian edozein geso ta gatx osaketan.
24. Haren izen ona Siria osoan zabaldu zan. Edozein gatx eukaenak eruaten eutziesan, deabrudunak, epileptikoak ta elbarriak, ta osaketan ebesan.
25. Ta jende talde haundiak yarraitu eutzien alde guztietatik: Galilea, Dekapolis, Jerusalen eta Judeatik, ta Jordan haruzkotik.

BOSGARREN KAPITULUA

Jesusen irakastea mendian. Zoriontasunak.
Munduarentzako gatz ta argi. Jesus ta legea.
Senideen arteko hartu-emonak. Adulterioa ta dibortzioa.
Zuzentasun barria antxiñakoa baño gorago.

1. Jende taldea ikusita, Jesus mendira igon zan. Yezarri zanean, ikasleak hurreratu ddakosan.

2. Orduan, honla irakasten hasi ddatien:

3. –Zorionekoak gogoz behartsuak direzenak, seruko erreiñua eurena da-ta.

4. Zorionekoak otzanak, lurraren yabe egingo direz-ta.

5. Zorionekoak negar egiten duenak, poztuak izango direz-ta.

6. Zorionekoak zuzentasunaren gose ta egarri direzenak, aseak izango direz-ta.

7. Zorionekoak errukiorrak, errukia etorriko ddatie-ta.

8. Zorionekoak bihotz-garbiak, Dxangoikoa ikusiko due-ta.

9. Zorionekoak bakezaleak, horrek Dxangoikoak seme-alabatzat hartuko dus-ta.

10. Zorionekoak Dxangoikoaren nahia beteteagaitik yarraituak, seruko erreiñua eurena da-ta.

11. Zorionekoak zuek, niregaitik madarikatuko saudiesenean, erasoka ta irainka erebiliko saudiesenean guzurrez zuen aurka.

12. Poztu ta alaitu saise, zuen saria seruan haundia da-ta: zuen aurreko profetak be holantxe erebili eudiesan aurrean.

13. Lurraren gatza zarie zuek. Gatza gazatzen bada, zelan gazitu barriz? Ezetako be ez da, ez bada boketako ta jendeak zapaltzeko.

14. Munduaren argidxa zarie zuek. Mendi tontorrean dagoan huria ezin gorde leiteke.

15. Argi ixitua be ez da ontzipean ifiniten, argi-ontziaren ganean baño, etxeko guztiai argi egiteko.

16. Zuen argidxak be diztiz egon behar du gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusteko ta seruan dagoan Aita goratzeko.

17. Ez uste izan legea ta profetak kentzen etorri nazanik; ez naz kentzen etorri, beteten baño.

18. Benetan diñotzuet: Legeko i bat edo izpitxo bat galdu baño lehenago ezebeztuko direz seru-lurrak, dana bete arte.

19. Beras, honetariko agindu txikerrena hausi edo hausten irakasten duana, seruko erreiñuan txikerrena izango da; aginduok bete ta beteten irakasten duana, barriz, haundia izango da seruko erreiñuan.

20. Hauxe diñotzuet: Dxangoikoaren nahia lege-maisuak ta fariseuak baño hobeto beteten ez badusue, ez zarie seruko erreiñuan sartuko.

21. Entzun dusue legean antxiñakoai agindutako hau: *Ez duzu iñor hilgo*; ta hiltzallea kondenatua izango da.

22. Nik, barriz, hauxe diñotzuet: Bere senideagas hasarretzen dana kondenatua izango da; bere anaiari «zoroa» esaten deutzona, batzar nausian kondenatua izango da, ta berbaz minten duana inpernuko sutara kondenatua izango da.

23. Beras, zure oparia altaran eskintzean, zure anaiak zure aurka zerbait badaukola gomutatuten bazara,

24. Etsi oparia han, altara aurrean, ta yoan sais lelengo zure senideagas ariskidetzen; gero, barriz etorrita, eskiñi zure oparia.

25. Ariskidetu sais ariñ zure arerioagas, auzitegira haregas zoazan artean, bestela ebazlearen eskuetan ipiñiko saus ta ebazleak artzaien eskuetan, ta kartzelara botako saudies.

26. Benetan diñotzuet: ez dusu handik urtengo azkenengo txanpona ordaindu arte.

27. Entzun dusue legean agindutakoa: *Ez egin adulteriorik*.

28. Nik, barriz, hauxe diñotzuet: Andre eskondu bateri lizunkeriz begiraketan deutzon edonok egin du adulterioa bere bihotzean.

29. Eskumako begiya pekaturako bide baddatzu, atara ta bota eisu zugandik; hobe dusu gorputz atal bat galgetea, zu osoa inpernura boketea baño.

30. Ta eskumako eskua pekaturako bide baddatzu, ebagi ta bota eisu zugandik; hobe dusu gorputz atal bat galgetea, zu osoa inpernura boketea baño.

31. Beste hau be legeak agindua du: *Bere emaztea etsiten duanak eman daiola dibortzio agiria*.

32. Nik, barriz, hauxe diñotzuet: Bere emaztea etsiten duanak –haragikeriagaitik izan ezik– emaztea adulterio arriskuan ifiniten du; ta etsitako emazte horregas eskonketan danak adulterioa egiten du.

33. *Entzun dusue legean aurretikoai agindu ddatien hau be: Ez dusu guzurrez ziñik egingo, ta zure ziñak Jaunari beteko deutzesus*.

34. Nik, barriz, hauxe diñotzuet: Iñola be ez egin ziñik, ez seruagaitik Dxangoikoaren tronua da-ta;

35. Ez lurragaitik, haren oiñazpikoa da-ta; ezta Jerusalengaitik be, errege haundiaren huria da-ta.

36. Zeure buruagaitik be ez egin ziñik, zure ulle bat bera be ezin zuritu edo baltzitu daikezu-ta.

37. Esan eisue «bai» bai danean, ta «ez» ez danean; ganerakoa gaiztakeritik dator.

38. Entzun dusue legean agindua: *Begia begiaren ordain, hagiña hagiñaren ordain*.

39. Nik, barriz, hauxe diñotzuet: Gatx-egilleari ez gatxik egin; ta eskumako matraillan yoten sausanari eskiñi eiosu bestea be.

40. Soñekoa kentzeko auzitegira eruan gura sausanari emon eiosu soinganekoa be.

41. Ta milla oinkadako bidea ibilten behartu sausanagas, egin bi milla oinkada.

42. Eskaketan deutzunari emon, ta dirua etsiteko eskaketan deutzunari ez ukatu.

43. Entzun dusue legean esanda dagoan hau: *Maitatu lagun hurkoa* ta gorrotatu arerioa.

44. Nik, barriz, hauxe diñotzuet: Maitatu zuen arerioak, ta errezatu pertsegitten saudiesen alde.

45. Holan zeuen seruko Aitaren seme-alabak isango sarie, bere iguskia on ta gaiztoen ganera ataratan du-ta, ta auria on ta gaiztoen ganera eginazten.

46. Izan be, maite saudiesenak bakarrik maite badusues, ze sari izango dusue? Zergabatzalleak eurak be ez due, ba, hori egiten?

47. Ta zeuen senideak bakarrik agurtzen badusues, zer egiten dusue gehiegikorik? Jentillak eurak be ez due, ba, hori egiten?

48. Beras, isan saise guztis onak, seruko zuen Aita guztis ona danez.

SEIGARREN KAPITULUA

Limosnea.

Benetako errezua: Gure Aita. Baraua.

Benetako ondasuna. Barruko argidxa.

Dxangoikoa ala dirua. Zertaz arduratu.

1. Ez egin, gero, zeuen egite onak gizonen aurrean, honeek ikusteko; bestela, seruko zuen Aitaren saririk ez dusue izango.

2. Beras, limosna emotean ez atara zure aurretik turuta hotsik, azalutsak sinagogetan ta kaleetan egiten dutenez, gizonak goraketako. Benetan diñotzuet: hartu eudien euren saria.

3. Zuk, barriz, limosna emotean, ez daiala zure eskerrak jakin zure eskumeak egiten duana.

4. Holan, zure limosnea isilean geldituko da, ta isilean ikusten duan zure Aitak ordaiña emongo deutzu.

5. Errezatean ez zaize azalutsak lakoak izan: atsegin due sinagogetan ta plasetan sutunik errezatea, jendeak ikusteko. Benetan diñotzuet: hartu eudien euren saria.

6. Zu, barriz, errezetako sartu sais zure gelan ta, atea zerratu ta gero, errezatu han isilean dagoan zure Aitari; ta isilean dagoan zure Aitak ordaiña emongo deutzu.

7. Ta errezatean ez egin berba ta berba jentillak lez, honeek berba ta berba eginda entzunak izango direzela uste due-ta.

8. Zuek ez saise izan harelakoak, zuen Aitak badaki-ta behar dusuena, zuek hari eskatu baño lehen.

9. Zuek errezatu holantxe: «Gure Aita, seruan sarana, santu isan bedi zure izena;

10. Etor bedi zure erreiñua; egin bedi zure nahia seruan lez lurrean be.

11. Emoiguzu gaur egun honetako ogiya;

12. Parkatu gure zorrak, geuk be gure zordunai parkatzen deutziegun lez;

13. Ta ez gu tentaldira eruan, gatxetik atara baño».

14. Izan be, gizonai euren huts egiteak parkatzen badeutziesues, seruko zuen Aitak be parkatuko deutzues.

15. Baia besteai parkatzen ez badeutziesues, zuen Aitak be ez deutzues parkatuko.

16. Barau egitean, ez ifini arpegi illunik azalutsak lez; haik jendeari barauzale agertzeko, euren arpegia aldatu egiten due-ta. Benetan diñotzuet: hartu eudien euren saria.

17. Zuk, barriz, barau egitean usaingozotu zeure burua ta garbitu arpegia;

18. Barau egiten dusunik jendeak ez ikusteko, isilean dagoan zure Aitak baño. Ta gordeta dagoana be ikusten duan zure Aitak saria emongo deutzu.

19. Ez pillatu ondasunik lurrean, sitsak ta ugarrak hondatu, ta lapurrak zulatu ta lapurtu egiten dues-ta.

20. Pillatu seruan zeuen ondasunak, han ez dago-ta hondatzeko sitsik ez ugarrik, ezta zulatzeko ta lapurtzeko lapurrik be.

21. Izan be, zure ondasuna nun, zure bihotza han.

22. Gorputzaren argidxa begiya da. Zure begiya onik badago, zure gorputz osoa onik egongo da.

23. Zure begiya gesorik badago, barriz, zure gorputz osoa illunetan egongo da. Ta zugan dagoan argidxa illuntasuna bada, zurea bai illuntasuna!

24. Iñor ezin da usaba biren morroi izan; izan be, edo batari gorroto izango deutzo ta bestea maiteko dau, edo-ta batari lotuko ddako ta bestea ez dau ontzat hartuko. Ezin zaitekezie Dxangoikoaren ta diruaren morroi izan.

25. Horregaitik diñotzuet: Ez arduratu bizitteko zer yango dusuen, ezta gorputza zerez yantziko dusuen be. Ez da bizitzea yana baño gehidxago ta gorputza yantzia baño gehidxago?

26. Begira seruko hegaztiai: ez due ereitten, ez batzen, ezta zalgategian gordetzen be; ta seruko zuen Aitak hazi egiten dus. Ez ete dusue zuek haurek baño gehiago balio?

27. Asko arduratu arren, zuetako nok luzatu ete daike bere bizia apurtxo bat?

28. Ta yantziaz zertan arduratu? Begira zelan hazten direzen zelaietako loreak; ez due lanik egiten, ezta goruetan be.

29. Halan be, badiñotzuet: Salomon bera be, bere haunditasunik ospatsuenean be, ez zan horreitako bat lez yantzi.

30. Beras, gaur zelaian bizi ta bihar labera boketan dan bedarra Dxangoikoak holan yazten badu, ez ete du askozaz gehiago egingo zuekaitik, siniste gitxikookaitik?

31. Ez estutu, ba, zer yango, zer edango, zer yantziko dusuen pentsatuz.

32. Guzti horrein billa jentillak ibilten dire-ta. Seruko zuen Aitak badaki guzti horrein beharrean sagosena.

33. Billatu lelenen Dxangoikoaren erreiñua ta haren nahia betetea, ta beste gauza guztiak hak emongo deutzues.

34. Ez estutu, ba, biharkoagaitik, biharkoak be ekarriko du-ta bere ardurea. Egun bakotxari nahikoa ddako bere arazoa.

SAZPIGARREN KAPITULUA

Iñor ez epaitu. Eskatu, billatu, yo atea.
Ate estua. Euren frutuetatik ezautuko dusues.
Hatxaren edo haraiaren ganeko etxea.

1. Ez epaitu, Dxangoikoak epaituak ez izateko.

2. Izan be, zuek besteak zelan epaitu, halan epaituko saudies; ta zuek besteak zelan neurtu, halan neurtuko saudies.

3. Zelan ikusten dusu zure anaiaren begiko buyo-izpia, ta ez dusu ikusten zeure begiko habea?

4. Ta zelan esan ahal deutzesu zure anaiari «Etsi begitik hori lastoa ataratan», habea zeure begian daukozula?

5. Azaluts hori! Atara eisu lelenen habea zeure begitik ta orduantxe ikusiko dusu, buyo-izpia zure anaiaren begitik ataratako.

6. Ez emon txakurrai gauza santuak, zeuen kontra etorrita zatitu ez zaiezen; ez bota zuen pitxiak txarriai, ostikopean erebili ez daiezan.

7. Eskatu, ta Dxangoikoak emongo deutzue; billatu eisue, ta arkituko dusue; atea yo ta zabalduko ddatzue.

8. Eskaketan duan edonok hartzen du-ta; billatzen duanak arkitzen du; ta atea yoten duanari zabalduko ddako.

9. Zuen artean ba ete dago iñor, semeak ogia eskaketan badeutzo harria emongo deutzonik?

10. Edo arraiña eskaketan badeutzo, subea emongo deutzonik?

11. Beras, zuek, gaiztoak izanda, zuen seme-alabai gauza onak emoten badakizue, zenbat gehiago ez ete deutzies seruko zuen Aitak gauza onak emongo eskaketan deutzienai?

12. Holan ba, besteak zuei egitea gura dusuen guztia, zeuek be egin harei: horretantxe dagos-ta legea ta profetak.

13. Sartu saise ate estutik, haundia da-ta hondamendira daruan atea, ta zabala harako bidea; ta sartzen direzenak asko direz.

14. Baia bai estua dala bizitzara daruan atea, baita harako bidea be; ta hori ate hori arkitzen duenak gitxi direz.

15. Yagon zeuen burua sasi-profetakandik! Ardi-narruz yantzita datorkizuez, baia barrutik otso lapurrak direz.

16. Euren egiñetatik ezautuko dusues. Elorritik mahatsak batzen ete dire, edo sasitik ikoak?

17. Edozein arbola onek frutu onak emoten dus; arbola txarrak, ostera, frutu txarrak.

18. Arbola onak ezin emon daike frutu txarrik, ezta arbola txarrak frutu onik be.

19. Frutu onik emoten ez duan arbolea, ebagi ta sutara boketan da.

20. Beras, euren frutuetatik ezautuko dusues sasi-profetak.

21. Ez da seruko erreiñuan sartuko niri «Jauna, Jauna!» esaten dabillen edonor, seruko nire Aitaren nahia egiten duana baño.

22. Epai egunean askok esango deustie: «Jauna, Jauna! Ez ete gemen zure izenean berba egin, ta zure izenean deabruak bota, ta zure izenean mirari asko egin?».

23. Baia nik erantzungo deutziet: «Ez saudiedas iñoiz be ezautu; alde nigandik gaizkilleak!».

24. Beras, nire berbok entzuten ta beteten dusana, bere etxea hatx ganean egin eben gizon zuhurraren antzekoa da:

25. Auria yausi zan, uriolak etorri zirien, haixeak izan zirien ta yo eudien ha etxea; baia ez zan lurrera yausi, hatx ganean eginda eguan-ta.

26. Nire berbok entzunda gero, egiñez beteten ez dusana, barriz, bere etxea harai ganean egin eben gizon tentelaren antzekoa da:

27. Auria yausi zan, uriolak etorri zirien, haixeak izan zirien ta yo eudien ha etxea; ta behera yausi zan, ta haren hondapena haundia izan zan.

28. Jesusek berbaldiok amaitu ebesanean, jende guztia haren irakatsiaz harrituta paratu zan:

29. Nausitasunez irakasten eutzien-ta, ta ez euren arteko lege-maisuak lez.

SORTZIGARREN KAPITULUA

Jesusek legenarduna osatu.
Erromatar ehuntariaren sinismena.
Jesusek Pedroren amagiñarrabea osatu.
Geso asko osatu. Jesusek ekatxa baretu.
Gabarako deabrudunak osatu.

1. Jesus menditik bajatu zanean, jende talde handiak yarraitu eutzen.

2. Orduan legenardun bat hurreratu ta ahuspaz ifini ddakon, ta esan eutzen:

–Jauna, gura badusu osatu ahal nausu.

3. Jesusek, eskua luzatuaz ikutu eben esanez:

–Gura dut; izan zaize garbi.

Berehala, legenarrez garbi gelditu zan.

4. Jesusek agindu eutzen:

–Begira, gero! Ez esan iñori. Baia yoan, azaldu abadeagana ta eskiñi eisu Moisesek agindu eben oparia, zeure garbitasunaren ezaugarri.

5. Jesus Kafarnaun herrian sartzean, ehuntari erromatar bat hurreratu ddakon erreguka:

6. –Jauna, nire morroia etxean elbarrituta dago, oiñaze gorritan.

7. Jesusek esan eutzen:

–Neu yoango naz ta osatuko dut.

8. Ehuntariak erantzun eutzen:

–Jauna, ni ez naz iñor zu nire etxean sartzeko; nahikoa dusu berbaz agindutea, ta nire morroia osatuko da.

9. Neuk be, iñoren menpeko izanarren, badaukodas soldaduak nire agindupean, ta bati «Yoan» aginduten badeutzot, yoaten da; ta beste bati «Etorri», ta etorten da; ta nire morroiari seoser egiteko esan, ta halan egiten du.

10. Hau entzutean, Jesus harrituta paratu zan ta yarraitzen eutzienai esan eutzien: «Benetan diñotzuet: ez dut honenbesteko sinismenik iñogan arkitu Israel osoan.

11. Egidxa esan, asko etorriko direz iguski-sortzaldetik ta sartzaldetik, ta Abrahan, Isaak ta Jakobegas ipiñiko dire mahaidxan seruko erreiñuan.

12. Erreiñuko semeak, barriz, kanpoko illunpeetara botako dus Dxangoikoak. Han izango da negarra ta hagin-karraskada!».

13. Ta Jesusek ehuntariari esan eutzen:

–Zoaz etxera; sinistu dusunez yazo dakizula.

Ta ordu haretantxe osatu zan morroia.

14. Gero, Jesus Pedroren etxera yoan zan, ta haren amagiñarrabea ohian ikusi eben, sukarraz.

15. Jesusek eskuan ikutu, ta sukarrak etsi egin eutzen; orduan andrea yagi zan ta neskame lanetan hasi ddakon.

16. Arrastian, deabrudun asko ekarri eutziesan Jesuseri; ta deabruak berbaz bota, ta geso guztiak osatu ebesan.

17. Halantxe bete zan Isaias profetak esandakoa:

Berak hartu ebesan gure ondoezak bere gain, ta eroan gure gesotasunak.

18. Jesusek bere inguruan jende talde haundia ikusita, beste aldeko itxas basterrera yoateko agindu eben.

19. Orduan lege-maisu bat hurreratu ddakon esanez:

–Jauna, edonora yarraituko deutzut.

20. Jesusek esan eutzen:

–Asagariak euren gordelekuak daukes, ta seruko txoriak asilloak; Gizonaren Semeak, barriz, ez dauko burua nun ifini.

21. Bere ikasleetako batek esan eutzen:

–Jauna, etsi niri lelengo nire aita lurpean sartzen yoaten.

22. Baia Jesusek erantzun eutzen:

–Yarraitu niri, ta etsi hillai euren hildakoak lurpean sartzen.

23. Gero, Jesus txalupa batera igon zan, ta bere ikasleak yarraitu eutzoen.

24. Orduan, itxasoan haixe bolara haundizarra sortu zan, olatuak txalupea estaltzeraiño. Jesus, ostera, lo eguan.

25. Ta ikasleak haregana hurreratuta, iratzartu egin eudien, esanez:

–Jauna, salbatu gaizuz, galduak gara-ta!

26. Jesusek harei:

–Zeren bildur zarie, siniste gitxikook?

Ta, sutunduta, haixeari ta itxasoari agindu egin eutzien, ta barealdi ederra egin zan.

27. Ikasleak, harrituta, hauxe iñoen: «Nor ete dugu hau, haixeak ta itxasoak be esana egiten deutziena?».

28. Jesus beste itxas basterrera, Gadarako lurraldera allegatuta gero, deabrudun bi atara ddakosan bidera, hillobietatik urtenda. Haiñ gaiztoak zirien, iñok ez eukan adorerik bide haretatik iragateko.

29. Ta gedarka hasi ddakosan:

–Zer dusu gugas, Dxangoikoaren seme horrek? Sasoia baño lehen guri oiñazea ekarten etorri zara hona, ala?

30. Handik hurrean, txarri-errekoi haundi bat yaten eguan.

31. Ta deabruak eskatu eutzien Jesuseri:

–Boketan bagausus, bialdu gaisus txarri-errekoi horregana.

32. Jesusek esan eutzien:

–Yoan zaize.

Deabruak urten eudien ta txarriakan sartu zirien, ta txarri-errekoia aldats behera itxasora amildu ta uretan ito zan.

33. Txarrizaiak iges egin eben, ta hurira yoanda, dana kontatu eben; deabrudunena be bai.

34. Orduan, huri guztia Jesusegana atara zan, ta Jesus ikustean, euren mugetatik alde egiteko eskatu eutzien.

BEDRATZIGARREN KAPITULUA

Jesusek elbarria osatu. Mateori deia.

Odoljariodun andrea osatu ta neskatilla bat bizitu.

Jesusek itsu bi eta mutu debruduna osatu.

Solo-aria ugaritsua da, baia bihargilleak gitxi.

1. Txalupa batera igon ta gero, beste itxas basterrera iragan ta bere herrira etorri zan.

2. Elbarri bat ekarri eutzien, ohitxoan etzunda. Jesusek, harein sinismena ikusita, elbarriari esan eutzen:

–Izan bihotz, seme! Parkatzen ddatzus zure pekatuak.

3. Orduan, lege-maisu batzuk eurekautan esaten eudien: «Biraoka dabil hau».

4. Jesusek, harein pentsamentua ezaututa, esan eutzien:

–Zegaitik darabizues pentsamentu okerrok zuen bihotzetan?

5. Zer da errazago, «Pekatuak parkatzen ddatzus» esatea, ala «Yagi ta zoaz» esatea?

6. Orain ikusiko dusue, ba, Gizonaren Semeak baduala lurrean pekatuak parkatzeko eskubidea.

Ta elbarriari esan eutzen:

–Yagi sais, hartu zure ohitxoa ta zoaz etxera.

7. Gizona altxatu ta bere etxera yoan zan.

8. Hori ikustean, jendea bildurtuta gelditu zan, ta Dxangoikoa goratuten eben, gizonai hainbesteko eskubidea emotearren.

9. Jesusek handik urtetean, Mateo izeneko gizon bat ikusi eben zergak batzeko mahaidxan yezarrita, ta esan eutzen:

–Yarraitu niri.

Mateok, sutunduta, yarraitu egin eutzen.

10. Geroago, Jesus Mateoren etxean mahaidxan eguala, zerga-batzalle ta pekatari asko be Jesusegaz ta honen ikasleakaz batera eguasan mahaidxan.

11. Hori ikusita, fariseuak esan eutzien ikasleai:

–Zuen maisuak zegaitik yaten dau zerga-batzalle ta pekatariakas?

12. Jesusek, ha entzunda, esan eutzien:

–Osasundunak ez due osagillerik behar, gesoak baño.

13. Hoba semieke Dxangoikoak esandako hau zer dan jakitea: *Errukia gura dut ta ez sakrifiziorik*. Ez naz zintzoai deiduten etorri, pekatariai baño.

14. Behin batean Joan Bateatzallearen ikasleak Jesuseri hurreratu ddakosan ta esan eutzien:

–Zegaitik egiten dugu fariseuak ta guk hainbeste barau, ta zure ikasleak ez?

15. Jesusek erantzun eutzien:

–Eztegurako deiduak arpegi illunarekiñ egon ete leitekez senar barria eurakas dagoan artean? Etorriko dire, bai, senarra kenduko ddaken egunak; orduan egingo due barau.

16. Iñok ez deutzo soñeko zaharrari oihalgi gogorresko ipinkirik ipiñiten; bestela, ipinkiak soñekoa urratu egiten dau, ta tarratada haundiagoa egiten da.

17. Zaragi zaharretan be ez da ardau barririk sartzen; bestela, zaragiak lehertu, ardaua isuri, ta zaragiak hondatu egiten direz. Ardau barria zaragi barrietan sartzen da ta biak irauten due.

18. Jesusek holan berba egiten eutziela, nausietako bat hurreratu ddakon ta, aurrean makurtuta, esan eutzen: «Oraintxe hil ddat alabea; baia zatoz hari eskua ifiniten, ta biziko da».

19. Jesusek, sutunduta, bere ikasleakiñ batera yarraitu eutzen.

20. Bitartean, hamabi urte hareitan odoljarios gesorik eguan andre batek, Jesusegana atzetik hurreratuta, soñeko-ertza ikutu eutzen;

21. Pentsatuten eben ta: «Soñekoa ikutzen badeutzot, ikutu bakarrik, osatuko naz».

22. Jesusek, atzerutz bihurtuta andrea ikustean, esan eutzen: «Izan uste ona, alaba horrek! Zeure sinismenak osatu saus». Ta harrezkero andrea osatuta paratu zan.

23. Nausiaren etxera allegatu zanean, Jesusek soiñulariak ta hangoen sagata hotsak ikusita, esan eutzien:

24. «Alde hemendik! Neskatillea ez dago hilda, lo baño». Haurek barre egin eutzien.

25. Jendeari alde eraginda, Jesus barruan sartu zan ta neskatilleari eskutik obatuta, ha sutundu egin zan.

26. Basterralde guzti haretan zabaldu zan yazotakoa.

27. Jesusek handik urten ebenean, itsu bik yarraitu eutzien, gedarka esanez: «Dabiden seme hori, erruki zakigus!».

28. Etxeratu zanean, itsuak hurreratu ddakosan, ta Jesusek galdetu eutzien:

–Nik hori egin daikedala sinisketan dusue?

–Bai, Jauna!

29. Orduan begiyak ikutu eutzesan, esanez:

–Yazo bekisue sinisketan dusuenez.

30. Ta harein begiyak zabaldu egin zirien.

Jesusek gogor agindu eutzien:

–Ez daiala, gero, iñok be dxakin!

31. Baia haik, urtenda batera, barria basterralde guzti haretan zabaldu eudien.

32. Haik urten ordukoxe, Jesuseri deabrudun mutu bat ekarri eutzien.

33. Jesusek deabrua bota ta gero, mutuak berba egin eben. Jendeak harrituta esaten eben: «Israelen holangorik ez da iñoiz ikusi!».

34. Fariseuak, barriz, esaten eudien: «Deabruen nausiaren indarrez boketan dus honek deabruak».

35. Jesus herri ta auzuna guztietan ebillen, harein sinagogetan irakasten, erreiñuko barri ona iragarten ta geso ta gatx guztiak osaketan.

36. Jende taldea ikustean, erruki izan ddakon, artzairik bariko ardidxak baizen kantzauta ta yauziak eguasan-ta.

37. Orduan, bere ikasleai esan eutzien: «Solo-aria ugaritsua da, ta bihargilleak gitxi.

38. Errezatu, ba, solo-ariaren yabeari, bere solora bihargilleak bialdu daizan».

HAMARGARREN KAPITULUA

Jesusek hamabi apostoluak izendatu ta bialdu.
Ardidxak otsoen artera. Nori izan bildur.
Jesus dala-ta beresita.

1. Jesusek, bere hamabi ikasleai deiduta, espiritu lohiak boketako ta edozein geso ta gatx osaketako eskubidea omon eutzien.

2. Hamabi apostoluen izenak honeek dire: lelengoa Simon –Pedro deidua– ta haren anaia Andres; Santiago Zebedeorena, ta haren anaia Joan;

3. Felipe ta Bartolome; Tomas ta Mateo zerga-batzallea; Santiago Alfeorena ta Tadeo;

4. Simon Zelote ta Judas Iskariote, Jesus saldu ebena.

5. Jesusek hamabiak bialdu ebesan, harei oharrak emonda gero:

–Ez yoan jentillen lurraldeetara, ta Samarian be ez sartu.

6. Zoaze, batez be, Israel etxeko ardi galduakana.

7. Ta zuen bidean iragarri eisue seruko erreiñua hur dagoala.

8. Osatu eisues gesoak, biztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu semien, hutsean emon eisue.

9. Ez eruan urrerik, ez sidarrik, ez dirurik zuen gerrikoetan.

10. Ezta biderako zorrorik be, ez soñekorik aldatzeko, ez oiñetakorik, ez makillarik: bihargilleari zor ddako-ta behar duen yatekoa.

11. Edozein herri edo auzunatara allegatzen zarienean, galdetu han nor izan leitekean konfiantzaskoa zuek etxean hartzeko, ta egon zaize harenean herri haretatik urten arte.

12. Etxean sartzean agurtu «Bakea zuekiñ» esanez.

13. Etxekoak aukerakoak badire, betor euren ganera zuen bakea; baia, ez badire, zuen bakea zeuekana bihurtu bedi.

14. Ta hartzen ez basaudies, ta zuen berbarik be ez badue hartzen, etxe edo herri haretatik urtetean, astindu zuen oiñetako hautsa.

15. Benetan diñotzuet: Auzi-egunean Sodoma ta Gomorrarentzako sortea herri harentzako baño ariñagoa izango da.

16. Hara, ardidxak otso artera lez bialtzen saudiedas. Izan saise, ba, subeak baizen zuhurrak ta usoak baizen lauak.

17. Argi ibilli jendeagas! Auzitegi ta euren sinagogetara eruango saudies ta han zigortuko.

18. Ta, neu nazala-ta, agintarien ta erregeen aurrera eruango saudies, ta autortzea egingo dusue hareen ta jentillen aurrean.

19. Eruango saudiesenean, barriz, ez arduratu zelan edo zer esango dusuen: Dxangoikoak momentu haretantxe adiaziko deutzue zer esan.

20. Izan be, ez dusue zuek berba egingo: zuen Aitaren espirituak egingo du, zuekan.

21. Anaiak anaia heriotzarako omongo dau, ta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dire ta hil egingo dues.

22. Ta ni nazala-ta, guztiak gorroto izango deutzue; baia azkena arte irauten duana, horixe atarako da onik.

23. Herri batean yarraitzen badeutzie, iges egisue beste batera. Benetan diñotzuet: Gizonaren Semea etorri baño lehen, ez dusues Israelgo herri guztiak amaituko.

24. Ez dago ikaslea bere maisua baño gorago, ezta morroia be usaba baño gorago.

25. Ikasleak nahikoa du bere maisua lakoa izatea, ta morroiak bere usaba lakoa. Etxeko jaunari Beeltzebul esan badeutzie, zer ez ete esango haren etxekoai?

26. Ez izan jendearen bildurrik! Izan be, esebe ez dago estalduta, agertuko ez danik; ezta gordeta be, jakingo ez danik.

27. Nik gau illunetan diñotzuedana, esan eizue zuek egun argitan; ta belarrira entzuten dusuena, esan eizue etxe-ganetatik gedarka.

28. Ez izan bildurrik gorputza bai, baia arimea ezin hil leitekeanai; izan zaize bildurrago arima ta gorputz inpernura bota leitekezanai.

29. Ez ete dire txoritxo bi txanpon batean saltzen? Haitariko bat be ez da, horratiño, lurrera yausiko zuen Aitak gura ez badau.

30. Dxangoikoak zuen buruko ulleak be zenbatuta daukos.

31. Ez izan, ba, bildurrik: txori pilla baño hobeak zarie zuek.

32. Jendearen aurrean autortzen nauana neuk be aitortuko dut seruan dagoan nire Aitaren aurrean.

33. Jendearen aurrean ukatzen nauana, barriz, neuk be ukatuko dut seruko Aitaren aurrean.

34. Ez uste izan lurrera bakea ekartzen etorri nazanik; ez naz bakea ekartzen etorri, banantzen baño.

35. Bai, *semea bere aitagandik, alabea bere amagandik ta errana bere amagiarrabagandik* banantzen etorri naz.

36. Ta *bakotxak bere etxekoak izango dus arerio*.

37. Aita edo ama ni baño maiteago duana, ez da niretzako lain.

38. Bere gurutzea hartuta yarraitzen ez deustana, ez da niretzako lain.

39. Bere biziaren yabe izan nahi duanak galdu egingo du; bere bizia niregaitik galgetan duanak, barriz, eskuratu egingo du.

40. Zuek hartzen saudiesanak neu hartzen nau; ta ni hartzen nauanak ni bialdu nauan ha hartzen dau.

41. Profeta bat profeta dalako hartzen dauanak profetari zor ddakon saria hartuko dau; ta zintzo bat zintzoa dalako hartzen dauanak zintzoari zor ddakon saria hartuko dau.

42. Ta txikitxo honeitako bateri, nire ikaslea dalako, baso bete ur hotz besterik ezean edaten emoten deutzona, benetan diñotzuet ez dala bere saria barik paratuko.

HAMAIKAGARREN KAPITULUA

Joan Bateatzallearen galderea.
Jesusek Galileako herriak madarikatu.
Ebanjelioa jende lauari agertua.
Aita eta Semea. Zatoze niregana.

1. Jesusek bere ikasleai argibideok emonda gero, handik yoan egin zan, herririk herri irakasten ta barri ona zabaltzen.

2. Joan Bateatzalleak Mesiasen egintzen barri izan eben kartzelan, ta bere ikasle batzuk bialdu eutzesan hari galdetzen:

3. –Zeu zara «Etortekoa», ala beste baten zain egon behar dugu?

4. Jesusek erantzun eutzien:

–Zoaze ta esan Joaneri entzuten ta ikusten dusuena:

5. Itsuak ikusi egiten due, herrenak badabis, legenardunak garbi paratzen dire, gorrak entzun egiten due, hillak piztu egiten dire ta behartsuai berri ona emoten ddake.

6. Ta zoriontsua nigan sinisketako trabarik ez duana!

7. Haik alde egitean, Jesus jendeari Jonaetaz berba egiten hasi ddakon:

–Zer ikusten urten semien basamortura? Haixeak kulunka darabillen kaiñaberen bat?

8. Zer ikusten urte semien, bestela? Apain yantzitako gizonen bat? Ez; apain yazten direzanak errege-jauregietan dagos.

9. Zer ikusten urten semien, ba? Profetaren bat? Bai, ta profeta baño haundiagoa be bai.

10. Haren ganean eskribiduta dago liburu santuan: *Neure aingerua biyaltzen dut zure aurrean, aurretiaz bidea prestatuko deutzuna*.

11. Benetan diñotzuet: andregandik yayotakoen artean, ez da Joan Bateatzallea baño haundiagorik sortu; halan be, seruko erreiñuko txikerrena ha baño haundiagoa da.

12. Joan Bateatzallea agertu zanetik gaur arte, seruko erreiñua indarrez hartzen da, ta indartsuak egiten direz haren yabe.

13. Profeta guztien ta Moisesen igarketen egunak Joan Bateatzallea etortean bukatzen direz.

14. Ta onartu gura badusue, bera da Elias, etorteko zana.

15. Entzuteko belarririk daukonak, entzun daiala!

16. Nogas konparatuko dut oraingo gizaldi hau? Plasetan yezarrita dagosan mutikoen antzekoa da, alkarri gedarka esaten deutzienean:

17. «Txistua yo deutzuegu, ta zuek dantzarik ez; guk hilleta yo, ta zuek negarrik ez».

18. Joan etorri zan, yan-edan egiten ez ebela, ta burutik eginda dagoala diñoe.

19. Gizonaren Semea etorri da, yan-edan egiten duala, ta holan diñoe: «Horra gizon yatun ta moskorra, zerga-batzalle ta pekatarien ariskidea!». Baia egiteek autorten due Dxangoikoaren jakintza zuzena dala.

20. Gero, Jesus bere mirari gehienak ikusi eudiesan herriak madarikatzen hasi zan, garbitu ez zirielako.

21. Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan be, Tiro ta Sidon herri jentilletan egin balire zuenean egin direan mirariak, aspaldi garbituta egongo zirien dolu-yantziz ta hautsez estalita.

22. Beras, badiñotzuet: Auzi-egunean Tiro ta Sidonek zigor bigunagoa izango due zuek baño.

23. Ta zu, Kafarnaun, seruraiño altxatuko sara, ala? Lurraren barruraiño yausiko sara! Izan be, zurean egindako mirariak Sodoman egin balire, gaur arte iraungo eben.

24. Beras, badiñotzuet: Auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du zuk baño.

25. Aldi haretan, Jesusek holantxe berba egin eben:

–Beinkatua zu, Aita, seru-lurren jauna, gauzok jakintsuai ta zuhurrai estaldu deutzesu-salako, ta jende txikerrari agertu.

26. Bai, Aita, beinkatua zu, horixe izan dusu-ta atsegin.

27. Nire Aitak dana emon deust. Ta Semea ez du iñok ezauketan, Aita ez bada; ta Aita ez du iñok ezauketan, Semea ez bada, ta Semeak agertu gura deutzona ez bada.

28. Etorri saise nigana, nekatuta ta kargapean sagosen guztiok, ta neuk arinduko saudiedas.

29. Hartu eisue nire buztarria, ta ikasi nigandik otzana ta bihotz-apala naz-ta, ta zuen deskantzua arkituko dusue.

30. Nire buztarria biguna da-ta, ta nire karga ariña.

HAMABIGARREN KAPITULUA

Eztabaida yai egunaren ganean.
Esku igarra zapatuan osatu.
Jesus eta Beeltzebul. Arbolea ta frutua.
Espiritu gaiztoa barriz etorria.
Jesusen benetako familia.

1. Behin batean, zapatuz, Jesus ereindako soloetan zehar yoien. Haren ikasleak gose izan zirien ta galburuak hartu ta yaten hasi zirien.

2. Fariseuak, ha ikusita, Jesuseri esan eutzien:

–Begira, zure ikasleak zapatuz egin ezin dana egiten dabis.

3. Jesusek erantzun eutzien:

–Ez dusue iños leidu Dabidek egin ebena bera ta beragas eguasanak gosetu zirienean?

4. Dxangoikoaren etxean sartu zala ta abadeak bakarrik yan eikesan eskintza-ogiak yan ebesala?

5. Ta ez dusue liburu santuetan leidu, abadeak zapatuz, tenpluan deskantzu-legea hausi egiten duela, pekaturik egin barik?

6. Ba neuk diñotzuet: Badago hemen tenplua baño haundiagoa dan bat.

7. Ta aditu izan basemien zer esan gura duan Dxangoikoak esandako honek: *Nahiago dut errukia sakrifizioak baño*, ez zeukeesan errubageak bastertuko.

8. Gizonaren Semea zapatuaren yabe be bada-ta.

9. Handik alde egin, ta harein sinagogara yoan zan.

10. Han eskua igartuta eukan gizon bat eguan. Fariseuak, zetan salatuko, galdetu eutzien:

–Bideskoa da zapatuz iñor osaketea?

11. Jesusek erantzun eutzien:

–Zuetako batek ardi bakarra euki, ta zapatuan zulo batera yausten baddako, ez ete du hartu ta atarako?

12. Ta ez du balio gizonak ardidxak baño gehidxao? Beras, bideskoa da zapatuz bihar egitea.

13. Orduan, gizonari esan eutzen:

–Zabaldu hori eskua.

Harek zabaldu egin eben, ta osatuta paratu ddakon, bestea baizen ondo.

14. Fariseuak, handik urten eudienean, Jesusen kontra batu zirien, zelan hilko.

15. Hortaz yabetuta, Jesusek handik alde egin eben. Jende askok yarraitu eutzien, ta guztiak osatu ebesan.

16. Ta bera nor zan iñori ez esateko agindu eutzien gogor.

17. Isaias profetak aurretik esandako hau bete zedin:

18. *Hona hemen nire morroia, nik aukeratua, nire maitea, nire atseginа. Nire espiritua haren ganean ifiniko dut, ta herriai justizia iragarriko deutzie.*

19. *Ez dau eztabaidarik sortuko, ez dau gedar egingo, ez da plasetan haren herbotsik entzungo.*

20. *Ez dau hausiko kañabera brintzatua, ta argi-metxa txikia ez dau intzugiko justizia nausi ifini arte.*

21. *Ha izango due itxaropen herriak.*

22. Orduan gizon deabrudun itsu ta mutu bat ekarri eutzien. Harek osatu egin eben, ta gizona berbetan ta ikusten hasi zan.

23. Jende guztiak, harrituta, iñoen: «Ia Dabiden semea dan hau!».

24. Baia fariseuak, hori entzutean, esan eudien:

–Deabruen nausi dan Beeltzebulen laguntzaz boketan dus horrek deabruak.

25. Jesusek, harein bururapenak igarririk, esan eutzien:

–Bere barnean beresita dagoan erreiñua hondatuta dago. Bere barnean beresita dagoan edozein herrik edo etxek ezin iraun ahal izango du.

26. Beras, Satanasek Satanas boketan badu, bere buruaren kontra dago beresita: zelan iraungo du, ba, haren erreiñuak?

27. Ta nik deabruak Beeltzebulen indarrez boketan badudas, zuen ikasleak noin indarrez boketan dues? Horregaitik zeuen ikasleak izango dusues epalle.

28. Baia nik deabruak Dxangoikoaren espirituaren indarrez boketan badudas, argi dago Dxangoikoaren erreiñua etorri ddatzuena.

29. Izan be, zelan sartu leiteke iñor gizon indartsu baten etxera ta haren ondasunak zelan lapurtu leitekez, lelengo indartsua lotzen ez badu? Orduan, bai, lapurtu ahal izango deutzo guztia.

30. Nire alde ez dagoana, nire kontra dago, ta nigas batzen ez duanak, sakabanatu egiten du.

31. Horregaitik diñotzuet: edozein pekatu ta birao parkatuko deutzo Dxangoikoak gizonari, baia Espiritu Santuaren kontrako biraoa ez deutzo parkatuko.

32. Ta norbaitek Gizonaren Semearen kontra seoser esaten badu, parkatu egingo ddako, baia Espiritu Santuaren kontra seoser esaten badu, ez bizitza honetan ez gerokoan ez ddako parkatuko.

33. Egisue arbolea ona dala: frutua be ona izango da. Edo arbolea txarra dala: frutua be txarra izango da. Arbolea bere frututik ezauketan da-ta.

34. Subekumeok! Zeuek gaiztoak izanik, zelan esan daikesue berba onik? Agoak esan, bihotzari ganez dariona diño-ta.

35. Gizon onak bere ondasuntegitik gauza onak ataratan dus; ta gaiztoak ondasuntegi txarretik gauza txarrak ataratan dus.

36. Badiñotzuet: Bakotxak alperrik esandako berba guztien kontua emon beharko du auzi-egunean.

37. Izan be, zuen berbak direla-ta hartuko saudies Dxangoikoak zuzentzat, ta zuen berbak direla-ta galduko zarie.

38. Orduan, lege-maisu ta fariseu batzuk holan hasi ddakosan:

–Maisu, zeuk egindako mirarisko señaleren bat ikusi gura dugu.

39. Jesusek erantzun eutzien:

–Hau bai gizaldi gaizto ta ustela! Señale bat eskaketan dau, ta Jonas profetaren señalea baño ez ddako omongo.

40. Izan be, *Jonas hiru egunez ta hiru gabez arrañaren zilban* egon zanez, Gizonaren Semea be hiru egunez ta hiru gabez egongo da lurraren bihotzean.

41. Ninibetarrak auzi-egunean gizaldi honen kontra altxatuko direz ta kondenatu egingo due, eurak Jonasen predikuz garbitu zirien-ta. Ta badusue hemen Jonas baño zerbait gehiago dana.

42. Hegoaldeko erregiña be auzi-egunean gizaldi honen kontra altxatuko da ta kondenatu egingo du, lurraren basterretik etorri zan-ta Salomonen jakintza entzuten. Ta badusue hemen Salomon baño zerbait gehiago dana.

43. Deabru zikiña norbaitengandik ataratan danean, toki sikuetan zehar hara-honaka ibilten da deskantzu billa, baña ez du arkitzen.

44. Bere buruari esaten deutzo: «Urten nemen neure etxera yoango naz barriro». Ta hara allegatzean, hutsik, garbi ta apain arkitzen du.

45. Orduan yoan, ta beste sazpi deabru beregas hartzen dus, bera baño gaiztoagoak, ta gizonagan sartu ta bertan gelditzen direz bizitten; ta holan, pertsona horren azkenaldia hasierakoa baño txarragoa da. Horixe yazoko ddako gizaldi gaizto honei be.

46. Ondiño jendeari berta egiten ebillela, haren ama ta anai-arrebak kanpoan egusan, Jesusegas berba egin gurata.

47. Norbaitek esan eutzon:

–Zure ama ta anai-arrebak hor kanpoan dagos, zugas berba egin guran.

48. Jesusek, barriz, erantzun eutzen:

–Nor da nire ama ta nortzuk nire anai-arrebak?

49. Ta eskua bere ikasleakana luzatuta, esan eben:

–Honeixek direz nire ama ta anai-arrebak.

50. Izan be, seruko nire Aitaren nahia beteten duan edonor, horixe da nire anaia, arreba ta ama.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

Jesusek parabolen bidez predikatu.
Erallearen parabolea. Galbedarraren parabolea.
Ziape haziaren ta legamiñaren parabolak.
Dirutzaren ta harripitxiaren parabolak.
Sarearen parabolea. Jesus bere yayoterrian bastertua.

1. Egun batean, Jesusek etxetik urten eben ta itxas basterrean yezarri zan.

2. Ta inguruan jendetza haiñ haundia batu ddakonez, txalupa batean sartu ta haretan yezarri behar izan eben. Jendea, barriz, itxas basterrean eguan.

3. Ta luze berba egin eutzien parabolatan: «Behin batean erelle batek ereitten urten eben.

4. Ta ereittean, hazi batzuk bide ondoan yausi zirien; hegaztiak etorri, ta yan egin eudiesan.

5. Beste batzuk lur askorik ez euken harri lekuan yausi zirien, ta berehalaxe erne zirien lurrak sakonik ez eukan-ta.

6. Baia iguskia atara zanean, erre egin zirien ta, susterrik ez eukaenez gero, bertan igartu zirien.

7. Beste batzuk ar artean yausi zirian; arrak hazi, ta ito egin eudiesan.

8. Beste hazi batzuk lur onean yausi zirien ta frutu ona emon eudien: batek ehun, beste batek hirurogei, beste batek hogeta hamar.

9. Adiketako gauza danak aditu daiala».

10. Ikasleak, Jesusegana hurreratuta, esan eutzien:

–Zegaitik berba egiten deutziesu parabola bidez?

11. Jesusek erantzun eutzien:

–Zueiri emon ddatzue seruko erreiñuko misterioak ezauketea, ta hairi ez.

12. Izan be, euki daukonari, emon egingo ddako ta ganezka eukiko du; ez daukonari, ostera, euki daukona be kenduko ddako.

13. Honexegaitik egiten deutziet berba parabolatan: begiratu bai, baia ikusten ez duelako; ta entzun bai, baia adiketan ez duelako.

14. Holantxe Isaias profetak esandakoa beteten da horrekan:

Entzungo dusue, bai, baia aditu ez; begiratuko dusue, baia ez ikusiko.

15. *Izan be, herri honek gogortu egin dus buru-bihotzak, gortu belarriyak, itsutu begiyak. Euren begiz ikusi ez daien, ta euren belarriz entzun ez daien, ta euren bihotzaz aditu ez daien ta niregana bihurtu ez daitezan, ta nik eurak ez osaketako.*

16. Zorionekoak, ba, zuen begiak, ikusi egiten due-ta; ta zuen belarriak, entzuten due-ta!

17. Benetan diñotzuet: Zuek ikusten dusuena, profeta ta zintzo askok gura izan eudien ikusi, baia ez eudien ikusi; ta zuek entzuten dusuena gura izan eudien entzun, baia ez eudien entzun.

18. Entzun eisue, beras, erallearen parabolaren esanahia.

19. Erreiñuko berbea entzun bai ta aditu ez egiten duanari, gaiztoa etorten ddako ta bihotzean ereindakoa kentzen deutzo. Horixe da «bide ondoan» erein zana.

20. «Harri lekuan» erein zana, entzun ta berehala pozik hartzen duana da.

21. Baia beragan susterrik ez dauko, azalekoa da, ta berba hori dala-ta larrialdi edo erasoaldiren bat datorrenean, berehala yausten da.

22. «Ar artean» erein zana, berbea entzun bai, baia munduko kontuak ta aberastasunen zorakeriak berbea ito egiten due, ta frutu barik paratzen dana da.

23. «Lur onean» erein zana, barriz, berbea entzuten ta adiketan duana da; honek frutua emoten dau: batek ehun, harek hirurogei, besteak hogeta hamar.

24. Jesusek beste parabola bat ekarri eutzien: «Seruko erreiñua bere soloan hazi ona erein eben gizonaren antzekoa da.

25. Baia etxeko danak lo eguasala, haren arerioa etorri ta, gari artean galbedarra ereinda, yoan egin zan.

26. Gariya erne ta laster galburua emoten hasi zanean, orduan galbedarra be agertu zan.

27. Morroiak, usabagana yoanda, esan eutzien: "Jauna, ez semen ba zure soloan hazi ona erein?".

28. Harek erantzun eutzien: "Arerioren batek egin dau hori". Ta morroiak hari: "Gura dusu hori galbedarra batzen yoan gaittezan?".

29. Baia usabak: "Ez, galbedarra batzean gariya be batera atara ez daisuen.

30. Etsi biak gari-ebagitea arte batera hazitten; ta gariya ebagitean igitariai esango deutziet: Batu eisue lelenen galbedarra ta lotu eskutadetan erreteko; gariya, barriz, gorde eisue nire zalgategian"».

31. Jesusek beste parabola hau kontatu eutzien: «Seruko erreiñua gizon batek eskuan hartu ta bere soloan erein eben ziape-haziaren antzekoa da.

32. Hazi guztietatik txikerrena da, baia hazitten danean, ortuari guztietatik haundiena da, ta arbola egiten da, seruko txoriak haren adarretan asilloak egiten ibilteraiño».

33. Beste parabola bat ere esan eutzien: «Seruko erreiñua legamiñaren antzekoa da: andre batek hartu ta hiru neurri-urunetan nahasten du, ta ora guztia altzetan da».

34. Irakaspen haik guztiak parabola bidez emon eutzesan Jesusek jendeari; ta paraboletan izan ezik, ez eutzen berbarik egiten.

35. Holan bete zan Dxangoikoak profetaren agoz esandakoa:

Parabola bidez berba egiten dut, lurra lur danetik gordeta eguana azalduko.

36. Orduan, jendea bialduta, Jesus etxera yoan zan. Ta ikasleak hurreratu ddakosan ta eskatu eutzien:

–Azaldu eigusu soloko galbedarraren parabolea.

37. Jesusek esan eutzien:

–Hazi ona ereitten duana Gizonaren Semea da;

38. Soloa mundua; hazi ona erreiñuko seme-alabak dire; galbedarra, barriz, gaiztoaren seme-alabak;

39. Galbedarra erein eben arerioa Deabrua da; gari-ebagitea munduaren amaiera, ta igitariak aingeruak dire.

40. Beras, galbedarra batu ta sutan erreten danez, halantxe izango da munduaren amaieran be.

41. Gizonaren Semeak bere aingeruak bialduko dus, ta bere erreiñuan direzan gaizpide guztiak ta gaizkille guztiak batu.

42. Ta su-labera botako dus. Han izango da negarra ta hagin karraskada!

43. Orduan zintzoak iguskiak lez egingo due argi euren Aitaren erreiñuan. Adiketako gauza danak aditu daiala!

44. Seruko erreiñua landan gordetako dirutza lakoxea da. Arkitzen duan gizonak barriro gordetzen du, ta pozez beteta badoa, daukon guztia saldu, ta landea erosten du.

45. Seruko erreiñua harripitxi ederren billa dabillen merkatari baten antzekoa be bada.

46. Balio haundiko pitxi bat arkitzean badoa, daukon guztia saldu, ta pitxia erosten du.

47. Seruko erreiñua sare baten antzekoa da: itxasora botata danetako arraiñak batzen dus.

48. Ta beteta dagoanean, itxas basterrera ataratan due ta, yesarrita, arrain onak saranean batu ta txarrak boketan dues.

49. Horrelaxe yazoko da munduaren amaieran be: aingeruak urtengo due ta gaiztoak zintzoengandik beresiko dues.

50. Ta su-labera botako. Han izango da negarra ta hagin-karraskada!

51. Jesusek ikasleai galdetu eutzien:

–Aditu dusue hau guzti hau?

–Bai –erantzun eutzien haik.

52. Ta Jesusek hairi:

–Holan, ba, Seruko erreiñuko jakintzaz yantzita dagoan lege-maisua, bere kutxatik gauza barri ta zaharrak ataratan dusan etxeko jaunaren antzekoa da.

53. Honeek parabolak amaitu ebesanean, Jesusek handik alde egin eben.

54. Ta bere lurraldera allegatuta, sinagogan irakasten hasi ddatien. Jendeak, harrituta, hauxe iñoen: «Nundik datorkios honi jakintza hau ta mirari honeik?

55. Hau ez da, ba, arotzaren semea? Bere amari ez ete deutzie deiduten Maria? Ta bere anaiai Santiago, Jose, Simon ta Judas?

56. Ta bere arrebak be ez ete dire bizi gure artean? Nundik datorkio, beras, hori guzti hori?

57. Ta honengaitik ezin eudien sinistu harengan. Jesusek esan eutzien: «Profetea bere herrian ta bere etxean bakarrik paratzen da gorapen barik».

58. Ta ez eben han mirari askorik egin, ez eukaen sinismenik-ta.

HAMALAUGARREN KAPITULUA

Herodesek Joan Bateatzallea hillazi.
Bost ogien miraria.
Jesus ur ganean oñez.
Osatzeak Genesaret aldean.

1. Aldi haretan, Herodes Galileako gobernadoreak Jesusen izena entzun eben.

2. Ta bere kriaduai esan eutzien: «Joan Bateatzallea da hori! Hillen artetik biztu da, ta horregaitik dauko mirariak egiteko eskubide hori».

3. Izan be, Herodesek Joan harrapatu, katez lotu ta kiltzapean sartu eben, bere anaia Feliperen andrea zan Herodias zala-ta.

4. Holan esaten eutzon-ta Joanek Herodeseri: «Ez ddatzu bidesko Herodias zugas eukitea».

5. Herodesek hari bizia kendu gura eutzon arren, jendeari bildur eutzon, profetatzat eukaen-ta.

6. Baia, Herodesen urtebetete egunean, Herodiasen alabeak dantza egin eben guztien aurrean, ta gustatu ddakon Herodeseri.

7. Horregaitik neskatxari agindu eutzon eskatutako guztia emongo eutzola.

8. Neskeak, bere amak eraginda, esan eutzon: «Emon eidasu erratillu honetan Joan Bateatzallearen burua».

9. Erregea tristetu egin zan, baia hitza betetearren ta mahailagunakaitik, eskatu ebena emoteko agindu eben.

10. Ta Joaneri samea ebaki eutzien kartzelan.

11. Haren burua erratillu batean ekarri eudien ta neskeari emon eutzien, ta honek bere amari eruan eutzon.

12. Joanen ikasleak, etorrita, gorpua hartu ta lurpean sartu eudien. Gero, Jesuseri barri emoten yoan zirien.

13. Hura jakinda, Jesus baster batera yoan zan bakarrik, txalupaz. Baia jendeak hori jakin ebenean, herrietatik urtenda, oñez yarraitu eutzien.

14. Txalupatik urten ebenean, jendetza haundia ikusi eben; erruki izan ddaken, ta harein gesoak osatu ebesan.

15. Illuntabarrean ikasleak hurreratu ddakosan, esanez:

–Hau leku hau oso urrin dago ta berandu da. Biyaldu eisu, ba, jendea herrietara yoan, ta yatekoa erosteko.

16. Baia Jesusek erantzun eutzien:

–Ez debe yoan beharrik; emon zeuek yaten.

17. Haik orduan:

–Bost ogi ta arrain bi baño ez daukogus hemen.

18. Ta Jesusek:

–Ekarri eidasues hona.

19. Ta jendeari zelaian yezarteko aginduta gero, bost ogiak ta arrain biak hartu ebesan ta, begiak serura altzatuta, ogiak beinkatu ta zatitu ebesan, ikasleai emon eutziesan, ta haurek jendeari.

20. Guztiak yan eben ase arte, ta gelditutako hondakiñekiñ hamabi saran bete eudiesan.

21. Yan eudienak bost milla gizonesko zirien, andreak ta umeak zenbatu barik.

22. Berehala, Jesusek ikasleak txalupan sarrazi, ta itxasoaren beste basterrera yoateko agindu eutzien, berak jendeari agur egin bitartean.

23. Jendeari agur eginda gero, mendira igon zan, bakarrik errezetan. Gaukeran Jesus bakar-bakarrik eguan han.

24. Txalupea, barriz, olatuak itxas erdian dinbili-danbala erabillen, haixea kontra etorkien-ta.

25. Gabeko hiruretan-edo, Jesus ikasleakanantz etorri zan ur ganean oñez.

26. Ikasleak, Jesus ur ganean ibilten ikustean, ikaratu egin zirien, mamuren bat zala pentsatuta; ta bildurrez beteta, gedarka hasi zirien.

27. Baia Jesusek berehala berba egin eutzien, ta esan:

–Trankil, neu naz-ta. Ez bildurtu!

28. Orduan Pedrok esan eutzen:

–Jauna, zeu bazara, ur ganean zehar zeugana yoateko agindu eidasu.

29. Jesusek erantzun eutzen:

–Etorri sais.

Pedro txalupatik bajatu zan ta ur ganean ibilten hasi zan, Jesuseganutz yoateko.

30. Baia haixearen indarra sentitzean, bildurra sartu ddakon, ta, urperatzen hasi zala, gedar egin eben:

–Jauna, salbatu naizu!

31. Jesusek eskua luzatuta hari obatu ta esan eutzen:

–Siniste gitxiko gizon hori! Zegaitik egon zara ezbaian?

32. Txalupara igo zirienean, haixea gelditu egin zan.

33. Orduan, txalupan eguasanak Jesusen aurrean ahuspaz ifini ddakosan, esanez:

–Benetan Dxangoikoaren semea zara!

34. Itxas-bidea amaituta, Genesaret lurraldera allegatu zirien.

35. Toki haretakoak, Jesus ezaututa batera, barria basterralde guzti haretan zabaldu eudien ta geso guztiak haregana ekarri eudiesan.

36. Besterik ezean, soñeko-ertza ikutzen etsiteko eskaketan eutzien, ta ikutzen eudien guztiak osaketan zirien.

HAMABOSGARREN KAPITULUA

Juduen ekanduak ta Dxangoikoaren nahia.

Garbixa dana ta garbixa ez dana.

Jesusek andre kanaandarraren alabea osatu.

Geso asko osatu.

Jendetzari bigarren aldiz yaten emon.

1. Jerusalendik etorritako fariseu ta lege-maisu batzuk Jesusegana hurreratu zirien, ta galdetu eutzien:

2. –Zure ikasleak zegaitik hausten dues aurretikoen ekanduak? Ogia yaterakoan ez dues-ta eskuak garbitzen.

3. Jesusek erantzun eutzien:

–Ta zuek zegaitik hausten dusue Dxangoikoaren agindua zuen ekanduagaitik?

4. Zueiri Dxangoikoak esan eutzuen: *Goratu aita-amak*, eta: *Aita ta ama madarikatu daisana hil egingo da.*

5. Zuek, ostera, hauxe diñozue: Nobaitek aitari edo amari esaten badeutzo «Zuri emon behar neuntzukena Dxangoikoari eskiñi deutzot»,

6. horrek ez duala aitarekiko hori agindua bete beharrik. Holan, Dxangoikoaren berba ustel egin dusue, zuen ekanduagaitik.

7. Azalutsok! Zuen ganean ederto esan eben Isaias profetak:

8. *Herri honek espanez goratzen nau, baia nigandik urrin dauko bihotza.*

9. *Alperrik gurtzen naudie, gizonen irakaspenak soillik irakasten dues-ta.*

10. Jesusek gero jendeari deidu ta esan eutzen: «Entzun ta aditu ondo!

11. Agotik sartzen danak ez du gizona lohitten; agotik urteten duanak, horrexek lohitten du gizona».

12. Orduan ikasleak hurreratu ddakosan ta esan eutzien:

–Badakizu zure berbok entzunda, fariseuak hasarretu egin direzela?

13. Ta Jesusek hairi:

–Seruko nire Aitak sartu ez duan edozein landara atera egingo due susterretik.

14. Etsi eisues! Itsuak dire ta itsu-mutillak. Ta itsu batek beste itsu bat zuzentzen badu, biak zulora yausten dire.

15. Pedrok eskatu eutzen:

–Azaldu eiguzu zer esan gura duan.

16. Jesusek erantzun eben:

–Zuek ondiño ez duzue adiketan?

17. Ez duzue ikusten agotik sartzen dana zilbara doiala ta gero sastegira boketan dala?

18. Agotik urteten duana, barriz, bihotz barrutik dator, ta horrexek lohitten du gizona!

19. Izan be, bihotz barrutik urteten due asmo txarrak, gizon-hilteak, eskontza-hausteak, haragikeriak, guzurresko agiriak, iraiñak.

20. Horixe da gizona lohitten duana. Eskuak garbitu barik yateak, ostera, ez du gizonik lohitten.
21. Handik urtenda, Jesus Tiro ta Sidongo lurralderutz bastertu zan.
22. Orduan, andre kanaandar bat, leku hareitatik urtenda, gedarka hasi ddakon:
–Erruki izan nitaz, Jauna, Dabiden semea! Deabruak nire alabea oiñaze gorritan dauko.
23. Baia Jesusek ez eutzen berbarik erantzun. Ikasleak, hurreratuta, eskatu eutzien:
–Kasu egiozu, gure atzetik gedarka dator-ta.
24. Jesusek erantzun eben:
–Israel etxeko ardi galduakana baño ez nau ni bialdu Dxangoikoak.
25. Halan be, andrea hurreratuta ahuspaztu ddakon esanez:
–Lagundu niri, Jauna!
26. Ta Jesusek hari:
–Ez dago ondo seme-alaben ogia hartzea ta txakurrai boketea.
27. Andreak erantzun eutzen:
–Bai, Jauna, baia txakurkumak be euren yabeen mahaitik yausten direzen ogi-apurrak yaten dues.
28. Orduan Jesusek esan eutzen:
–Andrea, haundia da zure fedea! Yazo dakizula nahi dusuna.
Ta momentu haretatik alabea osatuta paratu zan.
29. Handik iraganda, Jesus Galileako itxasondora yoan zan. Mendira igon ta bertan yezarri zan.
30. Jendetza haundia hurreratu ddakon, herren, elbarri, itsu, mutu ta beste geso asko ekarrita. Ondoan ifiniten eutziesan, ta harek osaketan eudiesan.
31. Jendea harrituta gelditu zan, mutuak berba egiten, elbarriak osatuta, herrenak ibilten ta itsuak ikusten ikusita. Ta Israelen Dxangoikoa goratzen hasi zirien.
32. Orduan Jesusek bere ikasleai deidu ta esan eutzien:
–Honek jende honek errukia emoten deust: hiru egun badirez nigas dabizala ta ez dauke yatekorik. Ez dudas baraurik bialdu gura, bidean ondoezik ipiñi ez daitezan.
33. Ikasleak esan eutzien:
–Nundik atarako dugu leku baster honetan hau jendetza aseteko beste ogi?
34. Jesusek galdetu eutzien:
–Zemat ogi daukozues?
–Sazpi ta arraintxo batzuk –erantzun eutzien haik.
35. Orduan jendeari lur ganean yezartzeko agindu eutzen.
36. Gero, zazpi ogiak ta arrainak hartu ta, eskerrak emonda, zatitu ta bere ikasleai emon eutzesan, ta ikasleak jendeari.
37. Guztiak yan eudien ta ase zirien, ta hondakiñekiñ sazpi saran bete eudiesan.
38. Yan izan eudienak lau milla gizonesko izan zirien, andreak ta umeak zenbatu barik.
39. Gero, jendeari agur eginda, txalupara igon ta Magadan lurraldera yoan zan.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

Fariseu ta saduzearrak mirari-señale eske.
Fariseuen ta saduzearren legamiña.
Pedrok Jesus Mesiastzat autortu.
Jesusek bere nekaldiak lelengoz iragarri.

1. Fariseuak ta saduzearrak Jesuseri hurreratu ddakosan ta, azpikeriaz, seruko señale bat erakusteko eskatu eutzien, bera zelan harrapatuko.
2. Baia Jesusek erantzun eutzien:
–Illuntabarrean esaten dusue: «Bihar denpora ona, serua gorri dago-ta».
3. Ta goizean: «Gaur ekatxa, serua gorri-illun dago-ta». Badakizue seruaren arpegiari antzemoten, ta aldi honeen señaleak ezin igarri duzues!
4. Señale eske dabill gizaldi gaiztoa ta ustela! Baia Jonas profetaren señalea baño ez ddako omongo».
Ta haik hantxe etsita, alde egin eben.
5. Itxasoaz beste aldera iragatean, Jesusen ikasleai ogiak hartzea ahaztu ddaken.
6. Jesusek esan eutzien: «Zabaldu begiyak! Yagon zeuen burua fariseuen eta saduzearren legamiñetik».
7. Haik, alkalika berbetan, iñoen: «Ogirik hartu ez dugulako diño hori».
8. Jesusek, konturatuta, esan eutzien: «Zetan zabize, fede gitxiko gizonak, ogirik ez daukosuela-ta?
9. Ez dusue ondiño adiketan ta ez dusue gomutetan bost milla gizonen bost ogiena, ta zemat saran bete semiesan?
10. Ta lau milla gizonen sazpi ogiena, ta zemat saran bete semiesan?
11. Zelan ez duzue adiketan ez nabillela ogien ganean berbetan? Gorde eisue zeuen burua fariseuen ta saduzearren legamiñetik.
12. Orduan aditu eudien ez eutziela ogi-lamiñetik alde egiteko esan, fariseuen ta saduzearren irakaspenetik baño.
13. Jesusek, Feliperen Zesarea lurraldera etorrita, bere ikasleai galdetu eutzien:
–Gizonaren Semea nor dela diño jendeak?
14. Haurek erantzun eutzien:
–Batzuk Joan Bateatzallea dala, beste batzuk Elias, besteak Jeremias edo profetaren bat.
15. Jesusek barriz:
–Ta zuek nor nazala diñozue?
16. Simon Pedrok erantzun eutzen:
–Zu Mesias zara, Dxangoiko biziaren semea.

17. Orduan Jesusek hari:

–Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez deutzu-ta hazur-mamisko iñok agertu, seruko neure Aitak baño.

18. Nik, barriz, hauxe diñotzut: Pedro (Harri) zara zu, ta harri horren ganean altzatuko dut nire Eleixea, ta inpernuko ateak ez due menperatuko.

19. Zuri emongo deutzudas Dxangoikoaren erreiñuko kiltzak, ta zuk lurrean lotua seruan be lotua izango da, ta zuk lurrean askatua seruan be askatua izango da.

20. Orduan, bera Mesias zanik iñori be ez esateko agindu eutzien bere ikasleai.

21. Harrezkero, Jesus bere ikasleai argi ta garbi esaten hasi ddaken berak Jerusalenera igon ta zahar, abadeburu ta lege-maisuen aldetik neke asko eruan behar ebesala, baita heriotzea be, ta hirugarren egunean piztu egingo zala.

22. Pedro, Jesus bakarrean hartuta, gogor egiten hasi ddakon:

–Ez horixe, Jauna! Ez ddatzu holakorik yazoko!

23. Baia Jesusek, bihurtuta, Pedrori esan eutzen:

–Alde nire ondotik, Satanas! Niretzako eragozpide zara, zure asmoak ez dire Dxangoikoarenak, gizonenak baño.

24. Orduan Jesusek bere ikasleai esan eutzen: «Nigas etorri gura duanak bere burua ukatu ta bere kurutzea hartu daiala, ta gero niri yarraitu.

25. Izan be, bere bizia gorde gura dauanak galdu egingo du, ta bizia neugatik galgetan duanak, barriz, arkitu egingo dau.

26. Zetako izango ddako gizonari mundu guztia irabaztea, bizia galgetan badu? Ta zer emon daike gizonak barriro bizia bereganatzeko?

27. Izan be, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz inguratuta etorriko da bere aingeruakas; ta orduan bakotxari bere yokabideari dagokiones emongo deutzo ordaiña.

28. Benetan diñotzuet: Hemen dagosanetako batzuk ez dire hilgo, Gizonaren Semea bere erreiñuan etorten ikusi arte».

HAMASAZPIGARREN KAPITULUA

Jesusen antzaldatzea.

Fedearen indarra: deabrudunaren osatzea.

Jesusek bere nekaldia bigarrenez iragarri.

Jesus ta Pedro drakma biko txanpona ordainketan.

1. Sei egun geroago, Jesusek Pedro, Santiago ta honen anaia Joan beragas bakarrik hartu ta mendi goi batera eruan ebesan.

2. Ta harein aurrean antzaldatu egin zan: arpegia iguskia baizen distiratsu egin zan, ta haren yantziak argidxa baizen txuri paratu zirien.

3. Orduan, Moises ta Elias agertu ddatiesan, Jesusegas berbetan.

4. Pedrok Jesuseri esan eutzen: «Jauna, ederto ddaku hemen egotea! Gura badusu, hiru txabolatxo egingo dudas hemen: bat zeuretzako, beste bat Moisesentzako ta bestea Eliasentzako».

5. Berbetan zihariduala, laño argitsu batek estaldu ebesan, ta lañotik berbots batek esan eben: «Hauxe dut seme maitea, hauxe dut atsegin: Entzun berari!».

6. Ha entzutean, ikasleak ahuspaz yausi zirien, bildurrez beteta.

7. Baia Jesusek, harekana hurreratuta, ikutu ta esan eutzien: «Sutundu saise. Ez bildurtu!».

8. Haik, begiak altzatuta, Jesus bakarrik ikusi eudien, beste iñor ez.

9. Menditik bajaittean, Jesusek agindu hau emon eutzien: «Ez esan iñori be ikusi dusuena, Gizonaren Semea hillen artetik biztu arte».

10. Orduan ikasleak galdetu eutzien:

–Zegaitik diñoe, ba, lege-maisuak lelengo Eliasek etorri behar duala?

11. Jesusek erantzun eutzien:

–Izan be, Elias etorriko zan lelengo, guztia barritzen.

12. Halan be, egidxa esan, etorri zan Elias, baia ez eudien ezautu, ta gura izan eudien guztia egin eutzien. Holantxe, Gizonaren Semeari be, sufriaziko deutzie.

13. Orduantxe aditu eudien ikasleak, Joan Bateatzalleaz berba egiten eutziela.

14. Jendeagana bihurtu zirienean, Jesuseri gizon bat hurreratu ddakon ta, Jesusen aurrean belaunikotuta, esan eutzen:

15. –Jauna, errukitu sais nire semeas: epileptikoa da ta txarto dago; askotan sutara yausten da ta uretara be bai.

16. Zure ikasleai ekarri deutziet, baia ezin osatu izan due.

17. Jesusek esan eutzien:

–Hau gizaldi sinisbagea ta dongea! Noiz arte egongo ete naz zuekaz? Noiz arte iruntsi behar ete saudiedas? Ekarri hona mutilla.

18. Jesusek gogor egin eutzen deabruari, ta ha mutillagandik atera zan; ta momentu haretatik osatuta egon zan.

19. Orduan ikasleak, Jesusegana hurreratuta, bakarrean galdetu eutzien:

–Ta guk zegaitik ezin izan dugu deabrua bota?

20. Jesusek erantzun eutzien:

–Zeuen sinismen hotzagaitik. Benetan diñotzuet: ziape-hazia aiñako sinismena basemie, mendi honi «Yoan hemendik hara» esango seuntzieke, ta yoango litzake, ta ez litzake zuentzako eziñeskorik izango.

21. Halango deabruak boketako bide bakarra errezua ta baraua egitea da.

22. Egun batean, Galilean zehar alkalika yoiazala, Jesusek ikasleai esan eutzien: «Gizonaren Semea gizonen eskuetara eruango due.

23. Hil egingo due, baia hirugarren egunean biztuko da».

Ikasleak oso nahibagetuta gelditu zirien.

24. Kafarnaunen sartu zirianean, drakma biko tenplurako zergea batzen eudienak, Pedrogana hurreratu, ta esan eutzien:

–Zuen maisuak ez du tenplurako zergea ordainketan, ala?

25. Hak erantzun eutzien:

–Bai.

Ta Pedro etxera yoan zanean, Jesusek aurrea hartu ta galdetu eutzen:

–Zer uste dusu, Simon? Lurreko erregeak nogandik hartzen dues kontribuziñoak edo zergak, etxekoakandik ala arrotzakandik?

26. Pedrok erantzun eutzen:

–Arrotzakandik.

Jesusek orduan:

–Etxekoak libre dagos, beras.

27. Halan be, iñori zeresanik ez emoteko, zoaz itxasora, bota amoa ta, ataratan dan lelengo arraiña hartuta, zabaldu egiozu agoa ta biren zergea ordainketako dirua arkituko duzu. Hartu ta ordaindu nire ta zure izenean.

HAMASORTZIGARREN KAPITULUA

Nor da Dxangoikoaren erreiñuan haundiena?
Zoritxarrekoak sinismena galbidean ifiniten duenak.
Ardi galduaren parabolea.
Lagun arteko errezua. Iraiñak parkatu.
Morroi bihotz-gogorraren parabolea.

1. Ikasleak Jesusegana hurreratu zirien ta galdetu eutzien:

–Nor da Dxangoikoaren erreiñuan haundiena?

2. Jesusek, ume bateri deiduta, harein erdian ipiñi, ta esan eutzien:

3. –Benetan diñotzuet: Umeak lakoak egiten ez bazarie, ez zarie seruko erreiñuan sartuko.

4. Beras, ume hau baizen txiki egiten dana, haxe da haundiena seruko erreiñuan.

5. Ta honelako umeren bat neure izenean hartzen duanak neu hartzen nau.

6. Neugan sinisketan duan txikitxo honeetako bat galbidean ifiniten duanak hobe luke errotarri bat samari lotuta itxaso barrura botako balue.

7. Zoritxarrekoak munduan sinismena galbidean ifiniten duenak! Bai, gaizpideak izatea nahi ta nahiezkoa da; baia negargarria galbidea dakarren gizona!

8. Zeure eskuak edo oiñak galbidean ifiniten basaus, ebagi ta bota eisu zugandik urrin; hobe dusu eskumotz edo herren sartzea betiko bizitzean, esku biak edo oin biak dususala betiko sutara botea izatea baño.

9. Ta zeure begiyak galbidean ifiniten basaus, atara ta bota eisu zugandik urrin; hobe dusu begibakar sartzea betiko bizitzean, begi biak dususala inpernura botea izatea baño.

10. Ez gitxitzat hartu, gero, txiki honeetako bat bera be! Izan be, nik diñotzuet, honein aingeruak seruko nire Aitaren arpegia beti ikusten dabizala.

11. Gizonaren Semea galduta eguana salbatzen etorri da-ta.

12. Zer uste dusue? Gizon batek ehun ardi badaukos ta hareitako bat galgetan baddako, ez ete dus larogeta hemeretziak mendian etsiko galdutakoaren billa yoateko?

13. Ta arkitzen badu, benetan diñotzuet, galdutako bakar horrek poz haundiagoa omongo deutzo, galdu bariko larogeta hemeretziak baño.

14. Holantxe, seruko zuen Aitak be ez du gura txiki honetariko bat bera be galgetea.

15. Zure anaiak zure aurka pekatu egiten badu, hasarre egin hari bakarrean; kasu egiten badeutzu, irabazi egingo dusu anaia.

16. Kasu egiten ez badeutzu, hartu zeugas lagun bat edo bi, *auzi guztia bi edo hiru lekukoren autorrakiñ erabaki dain*.

17. Horrei be kasurik egiten ez badeutzie, esan eiozu batzarrari, ta batzarrari kasu egiten ez badeutzo, hartu eizu fedebako ta zerga-batzalletzat.

18. Benetan diñotzuet: Zuek munduan lotutakoa, seruan be lotuta geldituko da; ta zuek munduan askatutakoa, seruan be askatuta geldituko da.

19. Beste hau be badiñotzuet: Zuetako bi lurrean Dxangoikoari zerbait eskaketako alkartzen badirez, seruko nire aitak emon egingo deutzie.

20. Izan be, bi edo hiru lagun neure izenean batuta dausan lekuan, han nago ni euren artean.

21. Orduan Pedro Jesuseri hurreratu ddakon ta galdetu eutzen:

–Jauna, anaiaren batek gaiztakeri bat egiten badeust, zenbatetan parkatu behar deutzot? Sazpi bidar bai?

22. Jesusek erantzun eutzen:

–Sazpi bidar bakarrik ez, baita hirurogeta hamar bidar sazpi be.

23. Horregaitik, seruko erreiñua bere morroiakas kontuak garbitu gura izan ebesan errege baten antzekoa da.

24. Kontu-garbitzen hastean, hamar milla diru-talentu zor eutzesan morroi bat ekarri eutzien.

25. Hak ordaindu ezinda, usabak agindu eben haren emaztea ta seme-alabak ta eukan guztia saltzeko ta zorra ordainketako.

26. Orduan, morroiak, haren aurrean ahuspaztuta eskatu eutzen: «Emon denpora ta guztia ordainduko deutzut».

27. Usabak, morroiaz errukituta, yoaten etsi ta zorra parkatu eutzen.

28. Morroi hak handik urtetean, ehun denario zor eutzesan morroi-lagun bat arkitu eben ta, samatik obatuta ta ito beharrean, esan eutzen. «Ordaindu eik zor duana».

29. Lagunak, ahuspaztuta, erreguka esan eutzen: «Emon denpora ta guztia ordainduko deuat».

30. Baia besteak ez eben gura izan, ta yoanda, kiltzapean sarrazi eben, zorra ordaindu arte.

31. Beste morroiak, yazotakoa ikustean, tristuraz bete zirien ta dana euren usabari esaten yoan zirien.

32. Orduan usabak morroiari deidu ta esan eutzen: «Morroi gaizto hori! Zor guztia parkatu deuat nik hiri, hik erreguka eskatu eustalako.

33. Ez ete heuan, ba, bidesko heuk be hire lagunari errukia izatea, neuk hiretzako legez?».

34. Ta usabak, hasarre bizian, zigorpean etsi eben morroia, zor guztia ordaindu arte.

35. Horixe egingo deutzue zeueiri be seruko nire Aitak, bakotxak bere anaiari bihotzez parkatzen ez badeutzo.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

Eskontzea ta dibortzioa. Jesus ta umeak.
Jesusek gazte aberatsari deidu.
Aberastasuna salbatzeko oztopo.
Dana etsi duen ikasleen saria.

1. Hitzaldiok amaitu ebesanean, Jesus Galileatik yoan ta Judeako lurraldera etorri zan, Jordanez beste aldera.

2. Jende talde haundiak yarraitu eutzen, ta bertan osatzeak egin ebesan.

3. Fariseu batzuk hurreratu ddakosan, ta zertan harrapatuko, galdetu eutzien:

–Bidesko ddako senarrari emaztea edozergaitik etsitea?

4. Jesusek erantzun eutzien:

–Ez dusue leidu liburu santuak diñoena? Egilleak hasieratik *gizon ta andre* egin ebesala.

5. Ta esan ebela: *Horregaitik, gizonak aita ta ama etsi egingo daus, ta bere andreari lotuko ddako, ta biok haragi bat bakarra izango dire.*

6. Beras, harrezkero ez dire bi, bat baño. Holan ba, Dxangoikoak buztartu duana ez begi gizonak askatu.

7. Haik galdetu eutzien:

–Zegaitik agindu eben, ba, Moisesek dibortzio-agiria emon ta emaztea biyaltzeko?

8. Jesusek erantzun eutzien:

–Zeuen bihotz gogorragaitik emon eutzuen Moisesek zuen emazteak etsiteko baimena, baia hasieran ez zan holan izan.

9. Nik diñotzuet: Iñok bere emaztea etsi ta beste bategas eskonduten danak –haragikeriagaitik izan ezik– adulterioa egiten du.

10. Orduan ikasleak esan eutzien:

–Senar-emazteen kontua holan bada, eskontzeak ez dakar irabazirik.

11. Jesusek erantzun eutzien:

–Ez dire guztiak hori adiketako gauza, Dxangoikoak gauza egiten dusenak baño.

12. Izan be, badire irenak amaren zilbatik holan yayoak, ta badire irenak gizonak eginda, ta badire irenak seruko erreiñuagatik euren burua holan egin eudienak. Aditu ahal daianak aditu daiala.

13. Orduan Jesuseri ume batzuk ekarri eutziesan, harein ganean eskuak ifini ta errezetako; baia ikasleak hasarre egiten eutzien.

14. Jesusek esan eutzien: «Etsi umeai niregana etorten, ez galazi; holakoxeena da-ta seruko erreiñua».

15. Gero, eskuak ifini eutziesan, ta handik yoan egin zan.

16. Behin batean, gazte batek, hurreratuta, Jesuseri galdetu eutzen:

–Zer onik egin behar dut, betiko bizitzea eskuratzeko?

17. Jesusek erantzun eutzen:

–Zegaitik preguntetan deustasu niri ona zer dan? Dxangoikoa bakarrik da ona. Betiko bizitzean sartu gura badusu, bete eisus aginduak.

18. Harek galdetu eutzen:

–Zein agindu?

Ta Jesusek hari:

–*Ez hil iñor, ez egin adulteriorik, ez lapurretarik egin, ez guzurresko autorrik esan.*

19. *Aintzat hartu zure aita-amak ta maitatu lagun hurkoa zeure burua lez.*

20. Gazteak orduan esan eutzen:

–Bete dut nik hori guzti hori; zer falta ddat ondiño?

21. Jesusek erantzun eutzen:

–Guztiz ona izan gura badusu, yoan ta, daukosun guztia salduta, emon behartsuai, ta aberastasuna seruan eukiko dusu; gero etorri sais ta yarraitu eidasu.

22. Hori entzutean gaztea triste yoan zan, ondasun asko eukosan-ta.

23. Jesusek bere ikasleai esan eutzen:

–Benetan diñotzuet: Nekez sartuko da aberatsa seruko erreiñuan.

24. Barriro diñotzuet: Aberatsa seruko erreiñuan sartzea baño, errazagoa da [sokea] yostorratz-zulotik sartzea.

25. Hori entzutean ikasleak, zeharo nahastu zirien, esaten eudiela:

–Nor salbatu ahal izango da, orduan?

26. Jesusek, harekana begira-begira, esan eutzien:

–Hori gizonentzako eziñeskoa da, baia Dxangoikoak dana egin daike.

27. Orduan Pedrok esan eutzen Jesuseri:

–Hara, guk guztia etsi dugu zuri yarraitzeko. Zer izango da guretzako?

28. Jesusek erantzun eutzen:

–Benetan diñotzuet: Niri yarraitu deustesuenok bizitza barrian Gizonaren Semea bere aintzasko alkian yezarten danean, zuek be hamabi alkitan yezarriko zarie, Israelgo hamabi leiñuak epaitzeko.

29. Ta niregaitik etxea, anai-arrebak, aita, ama, seme-alabak edo etxaldea etsi dusanak, ehun bidar gehidxago hartu ta betiko bizitzea eskuratuko du.

30. Orain lelengo diren asko azkenengo izango dire; ta azken diren asko lelen.

HOGEIGARREN KAPITULUA

Ardantzako langilleen parabolea.

Jesusek nekaldia hirugarrenez iragarri.

Zebedeoren semeen amaren eskaerea.

Buru direnak serbitzari izan.

Jesusek itsu bi osatu Jerikon.

1. Izan be, seruko erreiñua goxean gox bere ardantzarako bihargille billa urtendako nausiaren antzekoa da.

2. Harek, lan-saritzat eguneko sidarresko txanpon bana bihargilleakas berbatuta, bere ardantzara bialdu ebesan.

3. Goizeko bedratzietan-edo barriro urten eben ta, beste batzuk plasan geldi eguasala ikusita, esan eutzien:

4. «Zoaze zuek be nire ardantzara, ta bidesko dana emongo deutzuet».

5. Ta haik be yoan zirien.

Barriro atara zan eguerdian ta baita hiruretan be, ta beste hainbeste egin eben.

6. Arratsaldeko bostetan be atara zan ta, beste batzuk hantxe eguasala ikusita, esan eutzien: «Zegaitik zagoze hemen egun osoan geldi?».

7. Haik erantzun eutzien: «Iñok ez gaus lanerako hartu-ta...». Ta nausiak hairi: «Zoaze zuek be nire ardantzara».

8. Gaukeran ardantza-nausiak bere kontuartzalleari esan eutzen: «Deidu bihargilleai ta emon eiesu lan-saria, azkenengotik hasi ta lelengora».

9. Etorri zirien, ba, arratsaldeko bostetan yoandakoak ta sidarresko txanpon bana hartu eudien.

10. Lelengoak etorri zirienean, gehidxago hartuko eudiela uste izan eudien, baia eurak be txanpon bana hartu eudien.

11. Ta txanpona hartzean, nausiaren kontra mormoxetan ebizen, ta hari esan eutzen:

12. «Azkenengo horreik ordubete baño ez debe lan egin, ta guk egun bateko nekea ta beroa eruan dugusanarren, geuri lez emon deutziesu lan-saria».

13. Baia nausiak hareetako bateri erantzun eutzen: «Ariskide, ez deutzuk bidebagekeririk egiten; ez dugu, ba, tratua sidarresko txanpon batean egin?

14. Hartu eisu ba zurea ta zoaz. Azkenengo horri be zuri aiña emon gura deutzet.

15. Ezin egin ete daiket nire diruaz gura dudana? Ala ni ona nazalako, ezinikusia izango deustesu?».

16. Holan ba, azkenengoak lelengo izango dire, ta lelenak azken. Deiduak asko dire-ta; gitxi, ostera, aukeratuak.

17. Jerusalenera igoten yoiela, Jesusek bidean hamabi ikasleak isilean hartu, ta esan eutzien:

18. «Hara, Jerusalenera igoten goies, ta Gizonaren Semea abadeburu ta lege-maisuen eskuetan etsia izango da; heriotzara kondenatuko due.

19. Ta jentillen eskuetan etsiko due, iraindu, astindu ta kurutzean yosteko; baia hirugarren egunean biztu egingo da».

20. Orduan Zebedeoren semeen ama Jesuseri hurreratu ddakon bere semeakas ta, ahuspeztuta, zerbait eskatu gura eutzen.

21. Jesusek galdetu eutzen:

–Zer gura dusu?

Ta amak Jesuseri:

–Agindu eisu nire seme biok zure erreiñuan bata zeure eskumaldean ta bestea zeure eskerraldean yezarri daitezala.

22. Jesusek erantzun eutzen:

–Ez dakisue zer eskaketan dusuen. Nik edan behar dudan edari samiñetik edan daikesue zuek?

–Bai, edan daikegu –esan eutzien.

23. Jesusek orduan:

–Nire edari samiñetik edango dusue, bai; baia nire eskuma ta eskerraldean ipiñazteko eskubiderik ez dut nik: nire Aitak prestatu deutzientzako da hori.

24. Beste hamarrak, hori entzutean, anaia bien kontra hasarretu zirien.

25. Baia Jesusek deidu ta esan eutzien: «Badakisue herrietako agintariak herria euren menpean daukela, ta haundi-maundiak herria nausikeriz erabilten duela.

26. Zuen artean, barriz, ez da holan izan behar, bestela baño: zuen artean haundi izan gura duana zuen serbitzari izan daitela.

27. Ta zuen artean lelen izan gura duana, zeuen serbitzari izan daitela.

28. Gizonaren Semea lez: ez da etorri morroiak eukiten, serbitzari izaten ta bere bizia askoren alde ordaintzat emoten baño».

29. Haurek Jerikotik urtetean jendetza haundiak yarraitu eutzen Jesuseri.

30. Bide basterrean yezarrita eguasan itsu bi, Jesus iragaten zala entzutean, gedarka hasi zirien:

–Jauna, Dabiden seme hori, erruki izan gutas!

31. Jendeak hasarre egiten eutzien isilazteko, baia haik gedarrak haunditu eudiesan:

–Jauna, Dabiden seme hori, erruki izan gutas!

32. Jesus gelditu egin zan ta, hairi deiduta, esan eutzien:

–Zer gura dusue niregandik?

33. Haik erantzun eutzien:

–Begiyak zabaltzea, Jauna!

34. Jesusek, hairi errukia izanda, begiak ikutu eutziesan, ta orduan ikusmena etorri ddaken barriro. Ta Jesusen atzetik yoan zirien.

HOGETABATGARREN KAPITULUA

Jesus Jerusalenen Mesias lez sartzen.
Tenplua herri guztientzako errezu etxe.
Pikondo igartua: sinismena ta errezua.
Seme bien parabolea. Nekazari hiltzalleen parabolea.

1. Jerusalenera hurreratzean, Oriyomendi barreneko Betfagera allegatu zirienean, Jesusek bere ikasle bi bialdu ebesan, esanez:

2. –Zoaze aurreko herritxo horretara; berehala astoama bat arkituko dusue lotuta ta astakume bat beragas. Askatu ta ekarri eidasues.

3. Ta iñok eser esaten badeutzue, erantzun Jaunak behar dusala ta berehala bihurtuko dusala.

4. Hori yazo zan Dxangoikoak profetaren agoz esana beteteko:

5. *Esan Sion huri ederrari: Horra nun datorkizun zure erregea, otzan ta astotxo baten ganean, astakume baten ganean.*

6. Yoan zirien, ba, ikasleak, ta Jesusek agindu eutzienez egin eudien.

7. Astoama ta astakumea ekarri eudiesan; ta harein ganean euren soinganekoak ifini eudiesan, ta Jesus ganean yezarri zan.

8. Askok ta askok euren yantziak zabaldu eudiesan bidean; beste batzuk arbolen adarrak ebagi ta bidean zehar zabaltzen eudiesan.

9. Ta Jesusen aurretik ta atzetik yoien jendeak gedarka iñoan:

Hosanna Dabiden Semeari! Beinkatua Jaunaren izenean datorrena! Hosanna seru goienean!

10. Jesus Jerusalenen sartu zanean, huri osoak artegatuta preguntetan eben:

–Nor da hau?

11. Jendeak erantzuten eben:

–Jesus profeta da, Galileako Nazaretekoa.

12. Jesus tenpluan sartu zan ta bertan saltzen ta erosten ebizen guztiak kanpora bota ebesan ta diru-trukalarien ta uso-saltzalleen mahaidxak itzuli.

13. Ta esan eutzien: «Liburu santuak diño: *Nire etxea errezu-etxea izango da, baia zuek lapurzulo egiten dusue*».

14. Tenpluan itsuak ta herrenak hurreratu ddakosan ta osatu egin ebesan.

15. Baia abadeburuak ta lege-maisuak hasarre bizian ipiñi zirien Jesusek egiten ebesan gauza ikusgarriengaitik ta umeak tenpluan «Hosanna Dabiden semeari!» gedarka esaten ebelako.

16. Ta esan eutzien:

–Ez dusu entzuten horreik diñoena?

Jesusek erantzun eutzien:

–Bai. Ta zuek ez dusue iñoiz liburu santuan leidu: *Umeen ta bularrekoen agotik atara dusu gorapena*?

17. Ta haik alde batera etsita, huritik atera zan, Betaniara, ta hantxe egin eben gaba.

18. Egunsentian, barriro hurira yoiela, Jesus gose izan zan.

19. Bide basterrean pikondo bat ikusita, bertara hurreratu zan, baia orriak baño ez eutzesan arkitu. Orduan pikondoari esan eutzen: «Ez bedi hiregandik gehidxago fruturik sortu!». Ta bat-batean pikondoa igartu egin zan.

20. Hori ikusita, ikasleak harritu egin zirien ta galdetu eutzien Jesuseri:

–Zelan igartu da bat-batean pikondoa?

21. Ta Jesusek hairi:

–Benetan diñotzuet: Ezbai bariko sinistea badaukosue, pikondo horrena bakarrik ez dusue egingo; baita mendi horri «Kendu hadi hortik ta yausi hadi itxasora» esaten badeutzesue be, holan egingo da.

22. Ta errezuan sinismenez eskaketan dusuen edozer hartu egingo dusue.

23. Jesus tenplura yoan zan ta, irakasten ebillela, abadeburuak ta herriko zaharrak hurreratu ddakosan, esanez:

–Ze eskubidez egiten dusu hori? Nok emon deutzu eskubide hori?

24. Jesusek erantzun eutzien:

–Neuk be gauza bat galdetuko deutzuet; erantzuten badeustesue, neuk be esango deutzuet hau ze eskubidez egiten dudan.

25. Joanek noin aginduz bateatzen eben, Dxangoikoaren aginduz ala gizonaren aginduz?

Haik holan iñoen euren artean: «Dxangoikoaren aginduz egiten ebela esaten badeutzegu, zegaitik ez geuntzen sinistu erantzungo deusku.

26. Gizonaren aginduz egiten ebela esaten badeutzegu, barriz, jendearen beldur izan behar, guztiak profetatzat dauke-ta Joan».

27. Beras, erantzun eutzien:

–Ez dakigu.

Jesusek orduan:

–Ba neuk be ez deutzuet esango ze eskubidez egiten dudan.

28. Ta zer uste dusue hontaz? Gizon batek seme bi eukaesan. Lelengoagana hurreratuta, esan eutzen: «Seme, zoaz gaur nire ardantzara biharrera».

29. Hak erantzun eutzen: «Ez dut gura». Baia berehala damutu ta yoan egin zan.

30. Gero, bigarrenagana hurreratuta, bardin esan eutzen, ta harek erantzun: «Bai, jauna», baia ez zan yoan.

31. Zuen ustez, biotatik nok egin eben aitaren gogoa?

Haik erantzun eutzien:

–Lelengoak.

Jesusek esan eutzien:

–Benetan diñotzuet: zerga-batzalleak ta emagalduak zuek baño lehenau sartuko dire Dxangoikoaren erreiñuan.

32. Izan be, Joan Bateatzallea zuzentasun-bidetik etorri ddatzuen, ta ez seuntzien sinistu; zerga-batzalleak ta emagalduak, barriz, sinistu egin eutzien. Ta zuek, hori ikusita be, ez zarie aldatu: ondiño ez deutzesue sinistu».

33. Entzun beste parabola hau: Nausi batek ardantza bat landu eben, ta inguruan hesi bat egin eutzen; lurrean dolara bat egin ta ardantzazaiaren torrea altzatu eben. Gero nekazari batzueri errentan etsi, ta urrin yoan zan.

34. Mahatsaroa allegatu zanean, nekazariakana bere morroiak bialdu ebesan, mahatsaren irabazia jasoteko.

35. Baia nekazariak, morroiai obatu, ta bata makillaka yurre-yurre egin, bestea hil ta besteari harrika egin eutzien.

36. Barriro be, beste morroi batzuk bialdu eutzesan, lelengoak baño gehiago; baia hairi be bardin egin eutzien.

37. Azkenean, bere semea bialdu eutzien, pentsatuten ebela: «Nire semeari, behintzat, errespetua izango deutzie».

38. Baia nekazariak, semea ikustean, alkarri esan eutzien: «Horixe da oiñordekoa. Goazen, hil daigun, ta geurea izango da horren oiñordetza».

39. Hari obatu, ardantzatik kanpora bota ta hil egin eudien.

40. Jesusek galdetu eutzien:

–Zer egingo deutzie ardantza-yabeak nekazari harei, etortean?

41. Haik erantzun eutzien:

–Gaizto horrei heriotza emongo deutze, ta mahatsaren irabazia bere sasoian ordainduko deutzien beste nekazari batzueri emongo deutze errentan ardantzea.

42. Jesusek esan eutzien:

–Ez dusue leidu liburu santuak diñoana?

Etxegilleak bastertutako harria kiltzarri bihurtu da. Jaunak egin du hori, gure begien ikusgarri.

43. Horrexegaitik diñotzuet: Dxangoikoaren erreiñua zueiri kendu, ta frutua atarako deutzon herriari emongo ddako.

44. Ta harri horren ganera yausten dana zatitu egingo da; ta harri hori ganera yausten ddakona zapalduta geldituko da.

45. Parabola haik entzutean, abadeburuak ta fariseuak Jesusek eurentzako esaten ebesala igarri eutzien.

46. Horregaitik, ha preso hartu gura eudien, baia jendeari bildur eutzien profetatzat eukaen-ta.

HOGETA BIGARREN KAPITULUA

Ezteguen parabolea.
Zesarrena ta Dxangoikoarena.
Hildakoen piztea. Agindu nausiena.
Mesias Dabiden seme ta jaun.

1. Jesusek barriro parabolen bidez berba egin eutzien:
2. –Seruko erreiñua bere semearen eztegua egin eben erregearen antzekoa da.
3. Bere morroiak bialdu ebesan gonbidatuai deiduten. Baia haik ez eudien etorri gura izan.
4. Barriro beste morroi batzuk bialdu ebesan, mandatu honekas: «Esan eiesue gonbidatuai: Begira, baskaria prest dago, sekor ta abere gizenduak hilda daukodas, ta guztia prest dago. Etorri saise eztegura».
5. Baia haik, kasurik egin barik, yoan egin zirien: bata bere solora, bestea bere kontuetara.
6. Ta ganerakoak, haren morroiai obatuta, iraindu ta hil egin ebesan.
7. Orduan erregeak, oso hasarre, soldaduak bialdu, odolzale haik hil, ta harein huriari su eman eutzen.
8. Gero, bere morroiai esan eutzien: «Eztegua prest dago, baia gonbidatuak ez zirien gai.
9. Zoaze, ba, bidegurutzeetara ta deidu eztegura arkitu daisuesan guztiai».
10. Morroiak, bideetara urtenda, arkitutako guztiak batu eudiesan, on ta gaizto. Ta eztegu tokia mahai-lagunez bete zan.
11. Orduan, erregea mahai-lagunak ikusten sartu zan, ta han eztegu-yantzirik ez ekarren bat eguala konturatu zan.
12. Ta esan eutzen: «Ariskide, zelan sartu zara hemen eztegu-yantzi barik?».
Harek berbarik be ez.
13. Orduan erregeak bere mahai-serbitzariai esan eutzien: «Lotu hau hanka ta esku, ta bota eisue kanpoko illunetara. Han izango da negarra ta hagin-karraskada!».
14. Deiduak asko dire-ta; aukeratuak, ostera, gitxi.
15. Orduan, fariseuak yoan ta Jesuseri galderak eginez tranpa bat ifiniteko alkartu zirien.
16. Beras, euren ikasleak biyaldu eutziesan, Herodesen aldekoakas batera, preguntetan:
–Maisu, badakigu egiazale zarana ta Dxangoikoaren bidea zuzen irakasten dusuna, ta iñoren ardurarik ez dusuna, ez dusu-ta nor nor dan begiraketan.
17. Esan eigusu, ba, zure eritxia: Zesarri kontribuziñoa emotea bidesko da, ala ez?
18. Harein asmo txarra igarrita, Jesusek esan eutzien:
–Zegaitik zirikaketan nausue, azalutsok?
19. Erakutsi eidasue zerga-txanpona.
Haik denario bat eskiñi eutzien.
20. Jesusek galdetu eutzien:
–Noinak dire hau irudia ta honeek letrok?
21. Erantzun eutzien:
–Zesarrenak.

Jesusek orduan:
–Emon, ba, Zesarrena Zesarreri ta Dxangoikoarena Dxangoikoari.
22. Hori entzutean, harrituta paratu zirien, ta Jesus etsita, alde egin eudien.
23. Egun haretan, saduzear batzuk hurreratu ddakosan Jesuseri. Honeek ez due sinisketan hildakoak bizten direnik. Ta holan galdetu eutzien:
24. –Maisu, Moisesek esan euskun: *Iñor seme-alaba barik hilten bada, haren anaia eskonduko da alargunagas, anaiari ondorengoa emoteko.*
25. Behin batean, bazirien gure artean sazpi anaia. Zaharrena eskondu ta seme-alaba barik hil zan, ta bere emaztea anaiari etsi eutzen.
26. Bigarrenez be bardin yazo zan, baita hirugarrenez be, sazpigarrena arte.
27. Guztien ondoren andrea hil zan.
28. Beras, barriro bizten direzenean, sazpietako noina izango da emazte, sazpirak izan eudien emaztetzat-ta.
29. Jesusek erantzun eutzien:
–Oker zagoze, liburu santuak ta Dxangoikoaren indarra ez ezauketearren.
30. Izan be, biztutakoan, ez gizonak hartuko due emazterik, ez andreak senarrik: Seruan Dxangoikoaren aingeruak lez izango dire-ta.
31. Hildakoen biztearen ganean, barriz, ez dusue leidu Dxangoikoak esan eutzuena?:
32. *Ni Abrahanen, Isaaken ta Jakoben Dxangoikoa naz.* Ez da hillen Dxangoikoa, biziena baño.
33. Entzuten eguan jendea haren irakaspenaz harrituta eguan.
34. Jesusek saduzearrak isilazi egin eudiesala dxakitean, fariseuak alkalika batu zirien.
35. Ta haitako lege-gizon batek, azpikeriz, Jesuseri galdetu eutzen:
36. –Maisu, zein da legeko agindurik nausiena?
37. Jesusek erantzun eben:
–*Maitatu eisu Jauna, zure Dxangoikoa, bihotz-bihotzez, arima guztiaz ta adimen osoaz.*
38. Hori da agindurik nausiena ta lelena.
39. Bigarrena, horren antzekoa da: *Maitatu lagun hurkoa zeure burua lez.*
40. Agindu bi honeitan batzen direz liburu santu guztiak.
41. Ondiño fariseuak batuta eguasala, Jesusek galdetu eutzien:
42. –Zer diñosue Mesiasen ganean? Noin semea da?
Haik erantzun eutzien:
–Dabidena.
43. Jesusek orduan:
–Ta Dabidek zelan esaten deutzo, ba, «Jauna», Espiritu Santuak eraginda? Hauxe diño-ta Dabidek:
44. *Hona Jaunak nire Jaunari esana: Yezarri nire eskumaldean, zure arerioak oinpean ifiniten deutzadasan bitartean.*
45. Beras, Dabidek Jauna esaten badeutzo, zelan izan leiteke Dabiden seme?
46. Iñor ez zan gauza hari erantzuteko, ta egun haretatik ez eben izan iñok hari esebe preguntetako arpegirik.

HOGETA HIRUGARREN KAPITULUA

Lege-maisuen ta fariseuen azaluskeria.
Jesus Jerusalenengaitik aieneka.

1. Orduan, Jesus jendeari ta ikasleai berba egiten hasi ddaken:

2. –Lege-maisuak ta fariseuak Moisesen irakatsiak adiazteko eginkizuna due.

3. Egisue ta bete eisue, ba, haik esaten deutzuen guztia; baia ez egin eurak egiten duenik: esan bai, ta egin ez, egiten due-ta.

4. Sorta pisutsuak lotu ta jendeari samara boketan deutzies, ta eurak ez due atxamarrik be mogidu gura.

5. Egiten duen guztia jendeak ikustearren egiten due; narru-zerrenda zabalak eukitten dues bekokian ta borlatxo luzeak yantzietan.

6. Baskarietan lelengo tokiak gura dues ta sinagogetan lelengo yarlekuak.

7. Plasetan jendeak eurei agur egitea gustetan ddake ta guztiak «Maisu» deidutea.

8. Zuek, ostera, ez etsi iñori «Maisu» deiduten, zuen maisua bat bakarra da-ta, ta zuek danak senideak zarie-ta.

9. Ta ez deidu lurrean iñori «aita», bat bakarra da-ta zuen aita, serukoa.

10. Ta ez etsi «gidari» deiduten be, bat bakarra da-ta zuen gidaria, Mesias.

11. Zuen arteko nausiena zuen serbitzari izan daitela.

12. Bere burua goraketan duana, Dxangoikoak beheratuko du, ta bere burua beheraitten duana, goratu.

13. Ai zuek, lege-maisu ta fariseu azalutsok, jendeari seruko erreiñua zerratu egiten deutzesue-ta! Zeuek ez zarie sartzen, ta sartu gura duanai ez deutziesue etsiten.

14. Ai zuek, lege-maisu ta fariseu azalutsok! Errezu luzeen atxakiaz, alargunen ondasunak iruntsiten dusues-ta. Horregaitik epai zorrotzena hartuko dusue.

15. Ai zuek, lege-maisu ta fariseu azalutsok! Norbait judubarri egitearren, itxaso ta legor zabize-ta, ta ha irabazitakoan, zeuek baño gauzago egiten dusue inpernurako.

16. Ai zuek, gidari itsuok! Holan diñosue-ta: «Tenpluagaitik egindako ziña esebe ez da, baia tenpluko urreagaitik egindako ziña bete egin behar da».

17. Zoro ta itsuok! Zer da gehiago, urrea ala urrea santu egiten duan tenplua?

18. Beste hau be badiñosue: «Altareagaitik egindako ziña esebe ez da, baia altara ganean dagoan opariagaitik egindako ziña bete egin behar da».

19. Itsuok! Zer da gehiago, oparia ala oparia santu egiten duan altarea?

20. Altareagaitik zin egiten duanak, altareagaitik ta ganean dagoan guztiagaitik egiten du zin.

21. Tenpluagaitik zin egiten duanak, tenpluagaitik ta bertan bizi dan haregaitik egiten du zin.

22. Ta seruagaitik zin egiten duanak, Dxangoikoaren tronuagaitik ta bertan yezarrita dagoan haregaitik egiten du zin.

23. Ai zuek, lege-maisu ta fariseu azalutsok! Ortuari txarrenen hamarrenak ordainketan dusues, ta legeko gauzarik garrantziskoenak, zuzentasuna, errukia ta sinistea, alde batera etsiten dusues. Hauxe da bete behar dana, beste ha ahaztu barik, baia.

24. Gidari itsuok! Eltxoa irazten dusue, ta ganbelua iruntsiten.

25. Ai zuek, lege-maisu ta fariseu azalutsok! Edontzia ta platera kanpotik garbitzen dusues, baia barrukaldetik lapurkeriz ta lizunkeriz beteta zagoze.

26. Fariseu itsu hori! Garbitu eisu lehenik edontzia barrutik, kanpokaldea be garbitzeko.

27. Ai zuek, lege-maisu ta fariseu azalutsok! Hillobi txurituen antzekoak zarie-ta: kanpotik ederrak dirudie, baia barrutik hildakoen hazurrez ta lohikeriz beteta dagos.

28. Holantxe zeuek be azaletik zuzen-itxuraz agerketan zarie jendaurrean; barrutik, barriz, itxura hutsez ta gaiztakeriz beteta zagoze.

29. Ai zuek, lege-maisu ta fariseu azalutsok! Profeten hillobiak egin ta gizon zuzenen hillarriak apainketan dusues-ta, esanez:

30. «Gure asaben aldian bizi izan bagintze, orain ez gemen profeten hilttean haikas parterik izango».

31. Holantxe, profetak hil eudiesanen ondorengoak zariela autorten dusue zeuen kontra.

32. Bete eisue, ba, zuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!

33. Subeok, ar-subekumeok! Zelan egingo deutzesue iges inpernuko epaiari?

34. Hor bialduko deutzuedas profetak, jakintsuak ta lege-maisuak, ta zuek batzuk hil ta kurutzean yosiko dusues, ta beste batzuk zuen sinagogetan yurre-yurre egin, ta huririk huri aurrean erebiliko dusues.

35. Holan, ba, zuen kontu yarriko da lurrean isuri izan dan zintzoen odol guztia, Abel zuzenaren odoletik hasita tenpluaren altarara bitartean zuek hil semien Barakiasen seme zan Zakariasen odoleraiñoko guztia zeuen ganera yausi daiten.

36. Benetan diñotzuet: Gizaldi honexen ganera yausiko da guzti horren zigorra.

37. Jerusalen, Jerusalen, profetak hil ta Dxangoikoak zugana bialdutakoai harrika egiten deutziesun hori! Zenbat bidar batu gura izan dudas zure seme-alabak olloak bere txitak hegapean batzen dusan lez; ta zuek ez dusue gura izan!

38. Horra ba, etxea hutsik paratuko ddatzue.

39. Benetan diñotzuet ez nausuela barriro ikusiko hau esan daisuen arte: *Beinkatua Jaunaren izenean datorrena!*

HOGETA LAUGARREN KAPITULUA

Tenplua txikitua izango.
Miñen hasiera. Jerusalengo larrialdi haundia.
Gizonaren Semearen etortea.
Etorteko momentua. Adi egon beharra.

1. Jesus tenplutik atara ta bayoien. Orduan ikasleak hurreratu ddakosan, tenpluko hargintza erakusten.

2. Baia Jesusek esan eutzien: «Ikusten dusue hori guztia? Benetan diñotzuet: Ez da hor harririk harri ganean geldituko. Dana txikituko due».

3. Gero, Oriyomendin yezarrita eguala, ikasleak isilka hurreratu ddakosan eta esan eutzien:

–Esan eigusu hori noiz yazoko dan, ta zein izango dan zure etortearen ta munduaren azkenaren ezaugarria.

4. Jesusek erantzun eutzien:

–Begira, gero! Ez zaiezala iñok engañatu.

5. Etorri be asko etorriko direz nire izena hartu ta «Ni naz Mesias» esanez, ta asko okerbidera eruango dues.

6. Gerra hotsa ta zurrumurruak entzungo dusues. Begira, ez ikaratu, hori yazo beharra data; baia ondiño ez da azkena.

7. Izan be, herri bat beste baten kontra ta erreiñu bat beste baten kontra altxatuko dire, ta goseteak ta lurrikarak izango dire han ta hemen.

8. Baia hori guzti hori erdimiñen hasiera izango da.

9. Orduan oiñazetara eruango saudies, ta hil, ta nire izenagaitik herri guztien gorrotagarri izango zarie.

10. Orduan askok fedeari uko egingo deutzie, alkar salatu, ta alkarri gorroto izango deutzie.

11. Sasi-profeta asko agertuko direz ta asko engañatuko dues.

12. Ta gaiztakeria ugaltzean, gehienen maitasuna hotzitu egingo da.

13. Baia azkena arte irauten duana, horixe atarako da onik.

14. Erreiñuko barri ona mundu guztian zabalduko da, herri guztiak haren barri izateko. Orduantxe etorriko da azkena.

15. Daniel profetak aitatutako profanatzalle higuingarria toki santuan yarrita ikusten dusuenean –leiduten duanak aditu daiala–,

16. Orduan Judean dagosanak mendietara iges egin daiela.

17. Etxe ganean dagoana, ez daitela bere etxeko gauzak batzen bajatu.

18. Ta soloan dagoana, ez daitela bere soin-ganekoaren billa bihurtu.

19. Egun hareitan umea egiteko ta umea hazten dagosanen zoritxarra!

20. Errezatu eisue zuen igesia neguz edo zapatuz izan ez daiten.

21. Izan be, munduaren hasieratik orain arte izan ez dan ta izango ez dan lako larrialdi haundia izango da.

22. Ta Dxangoikoak egun haik laburtuko ez balus, ez litzake iñor onik atarako; baia, aukeratuak direla-ta, egun haik laburtu egingo dire.

23. Orduan norbaitek «Hona hemen Mesias» edo «Hara han» esaten badeutzue, ez sinistu.

24. Izan be, guzurresko mesiasak ta sasi-profetak agertuko direz, ta ezaugarri ta mirari haundiak egingo dues, ta ahal balitza, aukeratuak eurak engañatzekoak egin be.

25. Horra, jakiñaren ganean ifini saudiedas aurretiaz.

26. Beras, norbaitek «Basamortuan dago» esaten badeutzue, ez urten; edo «Etxe barruan dago», ez sinistu.

27. Izan be, tximistea iguski-sortzaldetik atara ta sartzalderaiño agerketan danez, Gizonaren Semearen etortea be halantxe izango da.

28. Gorpua dagoan tokian, hantxe batuko direz putreak.

29. Egun hareitako larrialdia iragan ta berehala, iguskia illundu egingo da, igitargiak ez du argirik egingo, izarrak serutik yausiko dire, ta seruak dar-dar egingo du.

30. Orduan Gizonaren Semearen señalea agertuko da seruan, ta lurreko herri guztiak negar egingo due, ta *Gizonaren Semea seruko laño artean indar ta aintza haundiz etorten* ikusiko due.

31. Ta bere aingeruak bialduko dus turuta-hotsez, ta haik haren aukeratuak batuko dues lau haixe-basterretatik, seru-muga batetik hasi ta besteraiño.

32. Ikasi eisue pikondoaren irudi hontatik: adarrak ziltzen ddakosanean ta orriak urteten duenean, uda hur dagoana ezauketan dusue.

33. Holaxe ba zuek be, hori guztia yazoten dala ikusten dusuenean, konturatu zaize Gizonaren Semea ataurrean hur dagoala.

34. Benetan diñotzuet: Gizaldi honetakoak hil baño lehen yazoko dire gauza guztiok.

35. Serua ta lurra iragango direz, baia nire berbak ez dire bete barik iragango.

36. Baia egun ta ordu haretzaz iñok esebe ez daki, ez seruko aingeruak, ezta Semeak be, Aitak bakarrik baño.

37. Noeren egunetan lez yazoko da Gizonaren Semearen etortean be.

38. Izan be, uriol aurreko egunetan, guztiak yan-edanean ta emaztea edo senarra hartzen ebizen, Noe ontzian sartu zan eguna arte.

39. Ta, uriolak etorrita, guztiak eruan ebesan arte, ez zirien konturatu: holaxe izango da Gizonaren Semearen etortea be.

40. Orduan, soloan lagun bi egongo dire: bata eruan ta bestea etsi egingo due.

41. Andre bi errotan eidxoten egongo direz: bata hartu ta bestea etsi egingo due.

42. Adi egon, ba, ez dakisue-ta Jauna zein egunetan etorriko dan.

43. Entzun ondo hau: Etxeko jaunak lapurra zein gau-alditan etorriko dan baleki, iratzarrita egongo litzake, ta ez luke bere etxea zulatzen etsiko.

44. Egon, ba, zuek be prest: gitxien uste dusuen orduan etorriko da-ta Gizonaren Semea.

45. Izan zaize morroi zintzo ta zuhurra lakoak; nausiak etxeko morroi-neskameai bere orduan yaten emoteko ifini ebena lakoak.

46. Zorionekoa hori morroia, usabak etortean, agindutakoa egiten topetan badu.

47. Benetan diñotzuet: bere ondasun guztien buru ipiñiko du.

48. Baia morroia gaiztoa bada ta usaba berandu datorrela pentsatuta,

49. Bere morroi-lagunak yoten ta moskorrakas yan-edanean hasten bada,

50. Gitxien uste duan egunean ta ez dakian orduan, morroi haren usaba etorriko da.

51. Ta ha morroia kanpora botako du, ta azalutsari zor ddakon zoria emongo deutzo. Han izango da negarra ta hagin-karraskada!

HOGETA BOSGARREN KAPITULUA

Hamar nesken parabolea.

Talentuen parabolea. Azken auzia.

1. Seruko erreiñua hamar neska harein antzekoa da: argi-ontzi bana eskuetan hartuta, senar eskonbarriaren billa urten eudien.

2. Hareitako bost buruariñak zirien, ta beste bost zuhurrak.

3. Buruariñak, euren argi-ontziak hartzean, ez eudien oriyorik hartu.

4. Zuhurrak, ostera, argi-ontziakas batera, oriyoa be hartu eudien euren ontzietan.

5. Senarrak etortea luzaitten ebela-ta, guztiak logaletu ta lorkatu zirien.

6. Gaberdian gedar bat entzun zan: «Badator senarra! Urten bidera!».

7. Neska guztiak yagi zirien ta argi-ontziak atondu eudiesan.

8. Orduan buruariñak zuhurrai esan eutzien: «Emon zuen oriyotik, gure argi-ontziok intzugi egiten dire-ta».

9. Zuhurrak erantzun eutzien: «Ez horixe, danontzako ez da nahikoa izango-ta; hobe dusue saltzalleakana yoan ta erostea».

10. Baia oriyoa erosten yoan zirien bitartean, senarra etorri zan, ta prest eguasanak haregas eztegura sartu zirien ta atea zerratu egin zan.

11. Geroago beste neskak etorri zirien ta deidu eudien: «Jauna, jauna! Zabaldu atea!».

12. Baia jaunak erantzun eutzien: «Benetan diñotzuet: ez saudiedas ezauketan».

13. Iratzarrik egon ba, ez dakisue-ta ez egunik, ez ordurik.

14. Seruko erreiñua halako gizon baten antzekoa be bada: atzerrira yoaterakoan, bere morroiai deidu, ta bere ondasunak morroien zainpean etsi eutzesan.

15. Bateri bost talentu etsi eutzesan, beste bateri bi, ta beste bateri bat bakarrik, bakotxari bere trebetasunari egokionez. Gero yoan egin zan.

16. Berehala, bost talentu hartu ebesanak, irabazitan yarrita, beste bost irabazi ebesan.

17. Bi hartu ebesanak be, beste bi irabazi ebesan.

18. Talentu bat hartu ebenak, barriz, yoan ta lurrean zulo bat eginda, bere jaunaren dirua gorde egin eben.

19. Handik luzaro, nausia etorri zan ta morroiai kontuak hartzen hasi ddaken.

20. Bost talentu hartu ebesanak, nausiagana etorrita, beste bost talentu ekarri eutzesan, esanez: «Jauna, bost talentu etsi seustesan; hona hemen neuk irabazitako beste bost».

21. Nausiak esan eutzen: «Ederto, morroi on ta zintzoa! Gauza gitxian zuzena izan zara, ta askoren buru ifiniko saudas; sartu sais zeure jaunaren festa ospatzen».

22. Talentu bi hartu ebesanak be, hurreratuta, esan eutzen: «Jauna, talentu bi etsi seustesan; hona hemen neuk irabazitako beste bi».

23. Nausiak esan eutzen: «Ederto, morroi on ta zintzoa! Gauza gitxian zuzena izan zara, ta askoren buru ifiniko saudes; sartu sais zeure jaunaren festa ospatzen».

24. Azkenez, talentu bat hartu ebenak be, hurreratuta, esan eutzen: «Jauna, badakit gizon zorrotza zarana, erein ez dusun tokian be hartu, ta zabaldu ez dusun tokian be batu egiten dusuna.

25. Horregaitik, bildurrak hartu niñaben, ta yoanda, zure talentua lurpean gorde nemen. Begira, hemen dusu zeurea dana».

26. Nausiak erantzun eutzen: «Morroi gaizto ta alperra! Bazenkian erein ez dudan tokian be hartu, ta zabaltzen ez dudan tokian be batu egiten dudana.

27. Beras, nire dirua bankuan ipiñi behar semen, nik, barriro etortean, nirea bere irabaziagas hartzeko.

28. Kendu eiosue, ba, hori talentua, ta eman hamar talentuak daukosan horri.

29. Izan be, badaukonari emon egingo ddako, ta ganezka izango du; ez daukonari, ostera, badaukona be kenduko ddako.

30. Ezetako be ez dan morroi hori, barriz, bota eisue kanpoko illunetara. Han izango da negarra ta hagin-karraskada!».

31. Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dusala, aintzaz beteta etortean, bere errege-yarlekuan yezarriko da.

32. Haren aurrean herri guztiak batuko dues, ta alkarregandik bananduko dus, artzaiak ardiyak banantzen dusanez.

33. Ardiyak bere eskumaldean ipiñiko dus, ta akerrak eskerrean.

34. Orduan erregeak bere eskumaldekoai esango deutzie: «Etorri zaize, nire Aitaren beinkatuok; hartu eizue munduaren hasieratik zuentzako prestatutako erreiñua.

35. Gose izan nintzen, ta yaten emon eustesuen-ta; egarri izan nintzen, ta edaten emon eustesuen; arrotz nintzen ta etxean hartu niñamesuen.

36. Billusik nengoan ta yantzi egin niñamesuen; gesorik, ta bisita egin eustesuen; kiltzapean, ta ni ikusten etorri ziñien».

37. Orduan zintzoak esango deutzie: «Jauna, noiz ikusi siñabegusan goserik, ta yaten emon, edo egarri ta edaten emon?

38. Noiz ikusi siñabegusan arrotz, ta etxean hartu, edo billusik, ta yantzi?

39. Noiz ikusi siñabegusan gesorik, edo kiltzapean, ta zu ikusten yoan giñien?».

40. Ta erregeak erantzungo deutzie: «Benetan diñotzuet: Nire senide honeitako txikiren bateri egin seuntziena neuri egin eustesuen».

41. Gero, bere eskerrekoai be esango deutzie: «Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzako ta haren lagunentzako prestatuta dagoan betiko sutara.

42. Gose izan nintzen ta ez eustesuen yaten emon-ta; egarri nintzen ta ez eustesuen edaten emon.

43. Arrotz nintzen ta ez niñamesuen etxean hartu; billusik nengoan, ta ez niñamesuen yantzi; gesorik ta kiltzapean, ta ez ziñien ikusten etorri».

44. Orduan, eskerraldekoak be esango due: «Jauna, noiz ikusi siñabegusan, ba, goserik edo egarri, edo arrotz, edo billusik, edo gesorik edo kiltzapean, ta ez giñien zugana laguntzen yoan?

45. Ta harek erantzungo deutzie: «Benetan diñotzuet: Honeitako txikiren bateri egin ez seuntziena neuri be ez eustesuen egin».

46. Ta honeek betiko oiñazetara yoango dire; zuzenak, barriz, betiko bizitzara».

HOGETA SEIGARREN KAPITULUA

Azpikeria Jesusen aurka. Betaniako usaingarri-isurtea.
Jesus Judasek saldua. Azken afaritea prestatzen.
Afaritean Judasen saldukeria agertu. Eukaristia.
Afari ondoan Pedroren ukatzeak agertu.
Jesusen larrialdia Getsemanin.
Jesus judu-batzarraren aurrean. Pedroren ukatzeak.

1. Jesusek hitzaldiok amaitu ebesanean, bere ikasleai esan eutzien:

2. «Badakizue etzi Pazkoa dana, ta Gizonaren Semea arerioai saldu ta kurutzean yosiko due».

3. Orduan, abadeburu ta herriko zaharrak Kaifas izeneko abade nausiaren jauregian batu zirien.

4. Ta Jesus azpikeriz preso hartzea ta hilttea erabagi eudien.

5. Baia hau iñoen: «Yai egunean ez, herrian matxinadarik sortu ez daiten».

6. Jesus Betanian Simon legenardunaren etxean eguala,

7. Andre bat hurreratu ddakon, hartzurisko ontzi batean usaingarri oso baliotsua beragas ekarrela. Ta Jesus mahaidxan eguala, burura isuri eutzen.

8. Hori ikustean, ikasleak, hasarretuta, esan eudien:

–Zegaitik alperrik galdu holan?

9. Ederto saldu zeitekien, gero behartsuai emoteko.

10. Jesusek, horretzaz konturatuta, esan eutzien:

–Zegaitik mintzen dusue hau andre hau? Egitada ona egin du nirekiñ.

11. Behartsuak beti daukosues zuekiñ; ni, barriz, ez naukosue beti.

12. Ta honek hau usaingarria nire gorputz ganera isurtean, hillobiratua izateko prestatu nau.

13. Benetan diñotzuet: Mundu zabalean hau barri ona hotsegingo dan edonon, honek andreak egin duana be esango da, beronen gomutagarri.

14. Orduan, hamabietako bat, Judas Iskariote izenekoa, abadeburuakana yoan zan.

15. Ta esan eutzien: «Zemat aginduten deustasue Jesus zuen eskuetara emateagaitik?». Haik sidarresko hogeta hamar txanpon eskiñi eutziesan.

16. Harrezkero, Jesus hairi saltzeko aukera billa ebillen Judas.

17. Legamin bariko ogien yaiko lelengo egunean, ikasleak, Jesusegana hurreratuta, galdetu eutzien:

–Nun egin behar dugus Pazko-afariterako prestatzeak?

18. Jesusek esan eutzien:

–Zoaze hurira, urliaren etxera, ta esan eiosue: «Maisuak diño bere ordua hur dagoala, ta zuen etxean ospatu gura duala Pazkoa bere ikasleakas».

19. Ikasleak Jesusek agindu eutziena egin eudien, baita Pazkoa prestatu be.

20. Illuntabarrean, Jesus hamabiakas mahaidxan yezarri zan.

21. Afaitten eguasala, Jesusek esan eben:

–Benetan diñotzuet: zuetako batek saldu egingo nau.

22. Haik, tristuraz beteta, galdezka hasi ddakosan:

–Neu ete naz, Jauna?

23. Hak erantzun eben:

–Nigas batera platerean eskua sartu duanak, horrexek salduko nau.

24. Gizonaren Semea badoia, bai, liburu santuak hartzaz diñoenez; baia errukarria Gizonaren Semea saltzen duana! Hobe luke yayo ez balitza!

25. Judasek, Jesus salduko ebenak, galdetu eutzen:

–Neu ete naz, ba, maisu?

Jesusek erantzun eutzen:

–Zeuk esan dosu.

26. Afaitten eguasala, Jesusek ogia hartu, beinkatu ta zatitu egin eben ta, bere ikasleai emonda, esan eben: «Hartu eisue ta yan; hau nire gorputza da».

27. Gero, kaliza hartu ta, eskerrak emonda, emon egin eutzien esanez: «Edan eisue guztiok hontatik.

28. Hau neure odola da-ta, pekatuak parkatzeko guztien alde isuriko dana.

29. Egidxa esan, honezkero ez dut gehiago ardaurik edango, nire Aitaren erreiñuan zuekas ardau berria edan arte».

30. Ta, salmuak kantatuta, Oriyomendirutz urten eudien.

31. Jesusek esan eutzien: «Zuek guztiok etsiko nausue gaur gabean, liburu santuetan eskribiduta dago-ta: *Artzaia yoko dut, ta ardiyak sakabanatu egingo dire*.

32. Baia ni barriro biztu naitenean, zeuen aurretik yoango naz Galileara».

33. Pedrok esan eutzen:

–Zureganako besteen sinismenak huts eginda be, nireak iños be ez.

34. Jesusek erantzun eutzen:

–Benetan diñotzut: Gaur gabean ollarrak hirutan kukurruku egin baño lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nausu.

35. Pedrok esan eutzen:

–Zeugas hil behar izanda be, ez saudas ukatuko!

Ta horixe bera esan eudien beste ikasleak be.

36. Orduan, Jesus bere ikasleakas Getsemani izeneko lekura allegatu zan, ta esan eutzien: «Egon zuek hemen, ni hara errezetan noian bitartean».

37. Pedro ta Zebedeoren seme biak beragas hartuta, tristura ta larria sentitten hasi zan.

38. Ta esan eutzien: «Hiltteko zorian nago tristuraz. Gelditu hemen ta iratzarrik egon nigas».

39. Ta aurreraxeago yoanda, ahuspaztu egin zan ta errezetan hasi zan, esanez: «Aita, ahal bada, urrindu niregandik kaliz samin hau. Halan be, egin bedi zuk gura dusunez, ez nik gura dudanez».

40. Orduan ikasleakana yoan, ta lo aurkitu ebesan. Pedrori esan eutzen: «Zer, ordubetez be ezin zarie egon nigas iratzarrik?

41. Egon zaize iratzarrik ta errezatu, tentaldian ez yausteko: espiritua indartsu dago, baia gizona makala da».

42. Ta bigarren aldiz alde eginda, holantxe errezatu eben: «Aita, hau nik edan barik ezin iragan bada, egin bedi zure nahia».

43. Barriro etorri, ta lo arkitu ebesan, logales eguasan-ta.

44. Haik etsita, hirugarren aldiz errezetan yoan zan, barriro lehengo berba berberak esanez.

45. Barriz ikasleakana yoan, ta esan eutzien: «Egin lo ta deskantzatu! Hara, allegatu da ordua, Gizonaren Semea pekatarien eskuetan etsia izateko.

46. Yagi zaize, goazen! Hemen dago salduko nauana.

47. Jesusek berbetan zihartuala, Judas agertu zan, hamabietako bat, gizon talde haundia lagun ebela, espata ta makillakas, abadeburu ta herriko zaharren izenean.

48. Saltzalleak señale bat ipiñia eutzien: «Nik laztanduko dudana, haxe da; lotu eisue».

49. Berehala, Jesusegana hurreratu, ta esan eutzen: «Agur, Maisu!».

Ta laztan bat emon eutzen.

50. Jesusek esan eutzen: «Ariskide, zetan etorri zara?».

Orduan, besteak, Jesusegana hurreratuta, obatu ta lotu egin eudien.

51. Jesusegas eguan batek eskua luzatu, espatea zorrotik atara, ta abadeburuaren morroiari zartada bat emonda belarriya ebagi eutzen.

52. Jesusek esan eutzen: «Sartu hori espatea bere tokian, espatea darabillana espataz hilgo da-ta.

53. Zer uste dusu, ba, ezin deutzedala Aitari deidu? Berehalaxe bialduko leuskidaz hamabi aingeru talde baño gehidxago.

54. Baia zelan bete, orduan, hau holantxe yazo beharra dala diñoan liburu santuetakoa?».

55. Orduan Jesusek jendeari esan eutzen: «Lapur billa lez urten dusue espataz ta makillaz niri obaketan. Egunero yezartzen nintzen tenpluan irakasten, ta ez eustesuen obatu.

56. Baia hau guzti hau profetak eskribidutakoa bete daiten yazo da».

Orduan, ikasle guztiak Jesus han etsi, ta iges egin eudien.

57. Jesus lotu eudienak Kaifas abade nausiaren etxera eruan eudien, lege-maisu ta herriko zaharrak batuta eguasan lekura.

58. Pedrok urrinetik yarraitzen eutzen Jesuseri, abade nausiaren jauregiraiño ta, barrura sartuta, morroiakas yezarri zan, ha zelan bukatzen zan ikusteko.

59. Abadeburuak ta batzar osoak Jesusen kontra guzurresko testigutza billa ebizen, heriotzara kondenaitteko.

60. Baia, guzurresko testigu asko etorriarren, ez eudien ezer arkitzen. Azkenez, bi etorri zirien.

61. Ta esan eudien: «Honek esan eben: Jaunaren etxea lurrera bota daiket nik, ta hiru egunean barriro altxatu».

62. Orduan, abade nausiak, sutunduta, galdetu eutzen:

–Ez deutzesu esebe erantzuten honeek zure aurka diñoenari?

63. Baia Jesus isilik eguan. Abade nausiak esan eutzen:

–Dxangoiko biziaren izenean aginketan deutzut: Esan eigusu zu zaran Mesias, Dxangoikoaren Semea.

64. Jesusek erantzun eutzen:

–Zeuk esan dusu. Ta gehiago diñotzuet: Aurrerantzean *Gizonaren Semea Ahalguztidunaren eskumaldean yezarrita ta seruko laño ganean etorten* ikusiko dusue.

65. Orduan, abade nausiak bere yantziak urratu eudiesan, ta esan:

–Biraoa esan dau! Zetako behar dugu testigurik? Zeuek entzun dusue biraoa.

66. Zer deritxazue?

Haik erantzun eudien:

–Heriotzea merezi du.

67. Orduan arpegira sutsa boketan ta yoten hasi ddakosan, ta beste batzuk matraillakoak emoten eutziesan.

68. Esanez: «Igarri eisu, Mesias, nok yo saus?».

69. Bitartean, Pedro kanpoan eguan, atartean yezarrita, ta neskame batek, haregana hurreratuta, esan eutzen:

–Zeu be bazengosan Jesus galilearragas.

70. Baia hak guztien aurrean ukatu eben:

–Ez dakit zer diñozun.

71. Ta ataurrera yoiela, beste neskame batek ikusi eben, ta han eguasanai esan eutzien:

–Hori be Jesus nazaretarragas eguan.

72. Pedrok barriro ukatu eben, zin eginda:

–Nik ez dut hori gizona ezauketan.

73. Geroxeago, han eguasanak, hurreratuta, Pedrori esan eutzien:

–Bai, zu be haitakoa zara, zeure hizkerak salatzen saus-ta!

74. Orduan, Pedro biraoka ta zin egiten hasi zan:

–Ez dudala hori gizona ezauketan ba!

Berehala ollar batek kukurruku egin eben.

75. Ta Pedro Jesusek esandakoas gomutatu zan: «Ollarrak hiru aldiz kukurruku egin baño lehen ukatuko nausu». Ta, kanpora urtenda, negar batean hasi zan.

HOGETA SAZPIGARREN KAPITULUA

Judasen heriotzea. Jesus Pilatoren aurrean.
Heriotzarako kondenatua.
Jesuseri irainka batean. Jesusen heriotzea.
Jesusen hillobiratzea. Hillobia yagoten.

1. Goixean gox, abadeburu ta herriko zahar guztiak batzarra egin eudien Jesusen kontra, ha heriotzara eruateko.

2. Ta lotuta gero, Pilato gobernadoreagana eruan ta berari emon eutzien.

3. Orduan Judasek, Jesus kondenatuta ikusita, damututa sidarresko hogeta hamar txanponak abadeburu ta herriko zaharrai bihurtu eutziesan.

4. Esanez:

–Oker egin dot, zintzo baten odola salduaz.

Haik erantzun eudien:

–Guri zer? Hor konpon!

5. Orduan, sidarresko txanponak tenpluan botata, alde egin ta bere burua urkatu eben.

6. Abadeburuak dirua batu ta esan eudien: «Ez da bidesko diruok tenpluko kutxan sartzea, odol-sari dira-ta».

7. Ta kontuaz pentsatu ta gero, diru hareekiñ «Buztinlariaren zelaia» erosi eudien, arrotzen hillerria izateko.

8. Horregaitik, zelai horri «Odol-zelai» esaten deutzie gaur arte.

9. Holan bete zan Jeremias profetak esandakoa: *Ta sidarresko hogeta hamar txanponak hartu ebesan; hori izan zan israeldarrek ipiñi eutzien salneurria.*

10. *Ta Buztinlariaren zelaia erosteko erebili eudiesan, Jaunak niri agindu eustanez.*

11. Jesus gobernadorearen aurrera eruan eudien. Gobernadoreak galdetu eutzen:

–Zu zara juduen erregea?

Jesusek erantzun eutzen:

–Zeuk diñozu.

12. Abadeburuak ta zaharrak salatze asko egiten eudiesan haren kontra, baia hak ez eben esebe erantzuten.

13. Pilatok esan eutzen:

–Ez dusu entzuten zemat gauza dakarresan zure kontra?

14. Baia Jesusek ez eutzen ezerreri erantzun, ta gobernadorea guztiz harrituta paratu zan.

15. Gobernadoreak Pazko yai bakotxean preso bat askatu ohi eben, herriak gura ebena.

16. Bazan orduan preso famatu bat, Barrabas izenekoa.

17. Beras, han batu zan jendeari Pilatok galdetu eutzen:

–Zein gura dusue askatzea, Barrabas ala Jesus, Mesias dalakoa?

18. Baekian-ta Jesus ikusieziñagatik saldu eudiena.

19. Pilato auzi-yarlekuan yezarrita eguala, emazteak hau mandatu hau bialdu eutzen: «Ez nahastu errugabe horren gorabeheretan; atzo gabean, amesketan, asko sufritu dut berori dala-ta».

20. Baia abadeburuak ta zaharrak jendea berotu eudien, Barrabasen askatasuna ta Jesusen heriotzea eskatu eiesan.
21. Ta gobernadoreak barriro galdetu eutzien:
–Biotako zein gura dusue askatzea?
–Barrabas! –erantzun eudien.
22. Pilatok esan eutzien:
–Ta ze egingo deutzet, ba, Mesias esaten deutzien Jesuseri?
Guztiak erantzun eudien:
–Kurutzean yosi!
23. Pilatok barriz:
–Ze gaiztakeri egin du ba?
Haik gedar haundiagoz esan eudien:
–Kurutzean yosi!
24. Guztia alperrik zala ta, ganera, nahaste haundiagoa sortuko zala ikusita, Pilatok ura hartu, ta jendearen aurrean eskuak garbitu ebesan, esanez:
–Nik ez dut errurik zintzo honen odolas. Zeuek ikusi!
25. Herri guztiak erantzun eben:
–Geure ganera ta geure seme-alaben ganera horren odola!
26. Orduan, Barrabas askatu eutzien ta Jesus, zigorkazi ostean, eurai emon eutzien, kurutzean yosteko.
27. Gobernadorearen soldaduak Jesus jauregira eruan eudien, ta soldadu talde guztia batu eudien Jesusen inguruan.
28. Soñekoak kendu eutziesan ta purpurasko kapa batez yantzi eudien.
29. Arantzasko koroi bat eginda, buruan ifini eutzien, ta kañabera bat eskuan. Gero, haren aurrean belaunikotuta, barre egin eutzien esanez: «Agur, juduen erregea!».
30. Sutsa boketan eutzien ta, hari kañaberea kenduta, buruan yoten eudien.
31. Nahikoa barre eginda gero, kapea kendu ta bere soñekoak yantzi eutziesan, ta kurutzean yosteko eruan eudien.
32. Kanpora urtetean, Zireneko gizon bat arkitu eudien, Simon izenekoa, ta Jesusen kurutzea eruateko behartu eudien.
33. Golgota edo «Buru-hazur» izeneko lekura allegatu zirienean,
34. Behaztunaz nahastutako ardaua emon eutzien edateko. Jesusek dastatu, baia ez eben edan gura izan.
35. Kurutzean yosi ta gero, soldaduak Jesusen yantziak zotz eginda, alkarren artean banatu eudiesan.
36. Ta hantxe gelditu zirien yezarrita, Jesus yagoten.
37. Haren buru ganean kondenaren arrazoia ifini eudien eskribiduta: «Hau Jesus da, juduen erregea».
38. Jesusegas batera, beste lapur bi yosi eudiesan kurutzean, bata eskumaldean ta bestea eskerraldean.
39. Handik iragaten zirienak Jesuseri irain egiten eutzien, buruari eragiñez
40. Ta esanez: «Tenplua lurrera bota ta hiru egunean barriro altzetan dusun horrek, Dxangoikoaren semea bazara, askatu eisu zeure burua! Bajatu sais kurutzetik!».

41. Abadeburu, lege-maisu ta zaharrak be, barre egiten eutzien esanez:
42. «Beste batzuk salbatu dus, ta bere burua ezin askatu! Israelgo erregea ei da; bajatu daitela orain kurutzetik, ta sinistuko deutzegu.
43. Dxangoikoarengan ifini du uste ona; askatu daiala, ba, orain, benetan maite badu, Dxangoikoaren semea dala esan eben-ta».
44. Jesusegas batera kurutzean yosita eguasan lapurrak be, iraindu egiten eudien.
45. Eguerditik arratsaldeko hirurak arte, lur guztia illunetan ipiñi zan.
46. Hirurak aldean, Jesusek gedar haundia egin eben esanez: «*Eli, Eli, lema sabaktani?*» («*Dxangoikoa, zegaitik etsi nausu?*»).
47. Hori entzutean, han eguasan batzuk esan eudien: «Eliaseri deika dabill hori».
48. Ta berehala hauretako batek, ariñeketan esponja bat hartzen yoanda, ospiñetan busti ta kañabera puntan ipiñita, edaten emon gura eutzen.
49. Besteak, ostera, esan eutzien: «Geldi, ia Elias datorkion salbatzen».
50. Orduan Jesusek, barriro gedar haundi bat eginda, azken arnasea emon eben.
51. Berehala, tenpluko oihalgia zati bitan urratu zan goitik behera; lurra ikaraka hasi zan ta hatxak brintzatu egin zirien.
52. Hillobiak zabaldu, ta zintzoen gorpu asko, lurperatuta eguasanak, biztu egin zirien.
53. Hillobietatik urten ta, Jesus biztu zanean, huri santura yoan ta askori agertu ddakesan.
54. Lurrikarea ta han yazoten zana ikusita, ehuntari erromatarrak ta haregas Jesus yagoten eguasanak, bildurrez beteta esan eudien: «Benetan hau Dxangoikoaren semea zan!».
55. Baeguasan han, urriñetik begira, Galileatik Jesuseri neskame-lanetan lagun egiñez etorritako andre asko be.
56. Hareen artean, Magdalako Maria, Santiagoren ta Joseren ama Maria ta Zebedeoren semeen ama.
57. Gaukeran, Jose izeneko Arimateako gizon aberats bat etorri zan, Jesusen ikaslea izandakoa.
58. Ta Pilatogana yoanda, Jesusen gorpua eskatu eutzen. Pilatok emoteko agindu eben.
59. Josek gorpua hartu, mihesa garbi batean batu,
60. Ta Josek berak harri bizian egindako bere hillobi barrian ifini eben. Gero, hillobiko sarreran harritzar bat txirringolaka ifinita, alde egin eben.
61. Hantxe eguasan Magdalako Maria ta beste Maria, hillobi aurrean yezarrita.
62. Biharamona zapatua zan, ta abadeburuak ta fariseuak Pilatogana batu zirien alkalika.
63. Ta esan eutzien:
–Jauna, gomutatu gara, horrek guzurti horrek, ondiño bizi zala, esan ebela: «Hirugarren egunean biztu egingo naz».
64. Agindu eisu, ba, hillobia ondo yagon daiela, hirugarren eguna arte; haren ikasleak etorrita, gorpua lapurtu ta herriari esan ez daioen «Hillen artetik biztu da»; ta hori azken engañu hori ez daiten izan lelengoa baño okerragoa.
65. Pilatok erantzun eutzien:
–Badusues zeuen yagoleak. Zoaze, ta yagon zeuek dakisuenez.
66. Yoan zirien, ba, ta harriari señaleak ifinita, hillobia yagoleen ardurapean etsi eudien.

HOGETA SORTZIGARREN KAPITULUA

Jesusen biztearen barria.
Andre zintzoai agertu. Soldaduak erosi.
Ikasleen eginkizuna mundu osoan.

1. Zapatua iragan ta asteko lelengo eguna argitzean, Magdalako Maria ta beste Maria hillobia ikusten yoan zirien.

2. Bat-batean, lurrikara haundi bat izan zan: Jaunaren aingerua serutik bajatu zan ta, hillobira hurreratuta, harria txirringolaka kendu, ta haren ganean yezarri zan.

3. Haren arpegia tximistea lakoa zan, ta soñekoa edurra baizen txuria.

4. Yagoleak, haren aurrean ikaratuta, dardaraka hasi ta hilda lez paratu zirien.

5. Aingeruak andreai berba egin ta esan eutzien:

–Zuek ez bildurtu, badakit Jesus kurutzetuaren billa zatozena-ta.

6. Ez dago hemen: biztu egin da, berak esan ebenez. Etorri zaize, ikusi eizue bera eguan tokia.

7. Ta orain, zoaze ariñ ikasleai esaten: «Jesus hillen artetik biztu da, ta zeuen aurretik yoango da Galileara; hantxe ikusiko dusue». Hori da esan behar neuntzuena.

8. Andreak hillobitik berehala urten, ta bildurrez ta pozez beterik, ariñ-ariñ yoan zirien Jesusen ikasleai barria emoten.

9. Orduan Jesus hairi bidera atara ddatien ta agur egin eutzien.

Andreak, hurreratuta, Jesuseri oiñetatik obatu ta gurtu egin eudien.

10. Jesusek esan eutzien: «Ez bildurtu! Zoaze ta esan nire senideai Galileara yoateko; hantxe ikusiko naudie».

11. Andreak bayoiesala, yagoleetako batzuk hurira yoan zirien, yazotako guztia abadeburuari esaten.

12. Abadeburuak zaharrekas batu, ta soldaduai diru pillo ederra emoteko erabagia hartu eudien.

13. Holan aginduaz: «Esan eisue, haren ikasleak gabaz etorri ta, zuek lo egin bitartean, gorpua eruan eudiela.

14. Ta gobernadoreak hori jakiten badu, geuk baretuko dugu ta geuk arriskutik atarako saudiegus».

15. Soldaduak dirua hartu ta esan eutzien lez egin eudien. Ta hori kontua gaur arte be zabalduta dago juduen artean.

16. Hamaika ikasleak Galileara yoan zirien, Jesusek esandako mendira.

17. Ta han Jesus ikustean, gurtu egin eudien; batzuk, ostera, ezbaitan egon zirien.

18. Jesusek, harekana hurreratuta, holantxe esan eutzien: «Dxangoikoak seru-lurretan ahalmen osoa emon deust.

19. Zoaze, ba, ta egizuez herri guztiak nire ikasle, Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean bateatuz.

20. Ta nik agindu deutzuedan guztia beteten irakatsiaz. Ta ni zuekas izango nausue egunero azken aldia arte».

BEHE-NAFARRERA

MATEOREN EBANJELIOA

BEHE-NAFARRERAZ

JESUKRIXTOIN EBANJELIUA

SAN MATIOIN ARABERA

IRIBARNEGARAI

1870?

[LEHEN] KAPITULIA

[Birjina Mariaanik sortzen den
Jesukrixtoin ondoriua.]

1. Jesukrixto Dabiden semiain, Abrahanen semiain etorkiain liburia.

2. Abrahanek ukan ziin seme'at, Isaak. Isaakek Jakob [ukan ziin]. Jakobek Juda eta haren aneak [ukan zitin].

3. Judak Fares eta Zara [ukan zitin] Tamarreaanik. Farezek Esrom [ukan ziin]. Esromek Aram.

4. Aramek Aminadab [ukan ziin]. Aminadabek Naason. Naasonek Salmon.

5. Salmonek Booz [ukan ziin] Rahabeaanik. Boozek Obed Rutheanik. Obedek Jese eta Jesek Dabid erregia.

6. Dabid erregiak Salomon [ukan ziin] Uriasen mazte izan zanaanik.

7. Salomonek Roboam [ukan ziin]. Roboanek Abias. Abiasek Asaf.

8. Asafek Josafat [ukan ziin]. Josafatek Joram eta Joramek Ozias.

9. Oziasek Joatam [ukan ziin]. Joatamek Akaz. Akazek Ezekias.

10. Ezekiasek Manases [ukan ziin]. Manasesek Amos. Amosek Josias.

11. Josiasek Jekonias eta haren aneak [ukan zitiin], judiak Babilonaat gatibo ereman zituzten denboratsian.

12. Eta Babilonat eremanak izanez geroz, Jekoniasek Salatiel [ukan ziin]. Salatielek Zorobabel.

13. Zorobabelek Abiud [ukan ziin]. Abiutek Eliakim. Eliakimek Azor.

14. Azorrek Sadok [ukan ziin]. Sadokek Akim. Akimek Eliud.

15. Eliudek Eleazar [ukan ziin]. Eleazarrek Matan. Matanek Jakob.

16. Jakobek Josef [ukan ziin], Mariain senarra, eta Mariaanik sortu da Jesus Krixto deitzen dena.

17. Badira, beraz, Abrahanik Dabideaano hamalau jeneazione, eta Dabide[an]ik Babiloneaateko pasaiaraano hamalau jeneazione, eta Babiloneaateko pasaiatik Krixtorano hamalau jenerazione.

18. Krixtoin sortzia, beraz, huna nola izan zen: haren Ama Maria ezkondia zelaik Josefekin izorra gertatu zen, elgarreanatu bano lehen, Ispiitu Saindiain bertutez.

19. Josek haren senarra justia baitzen eta ez baitziin desohoratu nahi, nahi ukan ziin xilik urrundu bereaanik.

20. Goota hortan zaulaik, huna Jaunain Ainguria nun aertu zitzakon amentsetan erraiten zakola: «Josef, Dabiden semia, ez zitela lotsa Maria zure maztia hartziaz zureanat, ezen haren baitan sortia dena Ispiitu Saindianik da.

21. Erdiko da baa seme'atez, zeinai izena emain baitakozu Jesus, ezen harek berak salbatuko du bere populia bere bekatutaik».

22. Hok guziak einak izan dira amoreatik eta bete ziten Jaunak profetaz erran ziina, ziolaik:

23. *Huna nun birginaatek konzeituko baitu eta erdi baita seme'atez, zeina deituko baitute Emmanuel*, erran nahi baita «Jinkoa gurekin».

24. Josefek iatzartziaikin ein ziin Jaunain ainguriak manatu zakon bezala eta beekin [hartu ziin] bere maztia.

25. Eta etziin zautia erdi zenian bere lehen haurraz, eta [Josefek] huni eman zakon izena Jesus.

[BIARREN] KAPITULIA

[Magok Jesus adoatzia. Egiptoat ihes eitia.
Haurren hiltzia. Egitotik giileat jitia.]

1. [Jesus Belen Judeako hirian] sortu zenian baa, Herodes erregiain eunetan, huna nun Magoak jin ziren iuzkiko-aldetik Jeusaleneat.

2. Galdeiten zuten:

–Nun da judien errege sortu berria? Ezen haren izarra [kusi duu] iuzkiko-aldetan eta jin gira haren adoatzera.

3. Hori aitziaikin Herodes erregia trublatu {lotsatu} zen eta Jeusalen guzia harekin.

4. Eta aphez nausi guziak eta populuain iskribauak [bilduik], galdein zeen nun sortu beharra zen Krixto.

5. Hek erran zakoten:

–Belen Judeako hirian, ezen hola ixkiatia izan da profetaz.

6. *Eta hi, Belen, Judeako lurra, ehiz ttipiena Judeako hiri haundienen artian, ezen hireanik ateakoo'k Israelgo ene populia manatu behar dien gidaria.*

7. Ordian Herodesek xilik karraazik Magoak, galdein zeen arta handiikin aertu zitzeen izarrain denbora.

8. Eta Beleneat iortzen zitiilaik erran zeen: «Zazte eta galdein zazii artoski berri haurzaz {haur hartaz}, eta atzemaiten duziinian, gastiaezaazii, nik ee jin eta adoa dezaan».

9. Errege aitu onduan juan ziren eta huna nun iuzkiko-aldetan kusi zuten izarra aitzinian juaiten zitzeen, haurra zen lekiain gaineat helduik gelditu artio.

10. Kustiaikin izarra bozkario haundi batez bete ziren.

11. Eta etxian sartziaikin atzeman zuten haurra Maria bere amaikin eta ahuspez jarriik adoatu zuten eta beren tresorrak zaalduik eskaini zazkoten presentak: urrhia, esentsia eta mirra.

12. Eta lotan mezu ukanik etziten itzul Herodeseanat, beren herriat berze bide'atez [itzuli ziren].

13. Hek joan eta huna nun Jaunain ainguria aertu zizakon Josefi amentsetan erraten zakolaik: «Jeiki zite, har zkizu haurra eta haren ama eta ihes eizu Egiptoat eta han zaude nik erran artio; ezen gertatuko da Herodesek xekatuko diila haurra hilaazi naiz».

14. Josefek jeikita haurra eta haren ama gauaz [hartu zitiin] eta Egiptoat [joan zen].

15. Han eon zen Herodesen heriotzeano, amoreatik eta bete zain Jaunak erran ziina profetaz: *Egiptotik karraazi'ut ene semia.*

16. Ordian Herodesek kusiik Magoak hartaz jostatu zirela {Magoz trufatia izan zela} samurtu handizki eta hilaazi zitiin Belenen eta haren inguru guzietan ziren haur bi urtetako eta gutiaoko guziak, Magotaik jakin ziin denborain arabera.

17. Ordian bete zen Jeremias profeta[k] errana izan zena hitz hotaz:

18. *Oihu bat aitia izan da Raman, garrasia eta marraska haundi bat. Rakel niarrez [dao] bere haurren gainian eta ez du nahi kontsolatia izan, zeen eta ez baitira gehiao.*

19. Herodes hil eta, huna nun Jaunain ainguria aertu zitzakon amentsetan Josefi Egiptoan.

20. Eta erran zakon: «Jeiki zite eta har zkizu haurra eta haren ama eta zaaza Israelgo lurreat, ezen hilak tira haurrai biziain kentzia xekatzen zutenak».

21. Jeikita, Josefek haurra eta haren ama [hartu zitiin] eta Israelgo lurreat [jin zen].

22. Bainan aituik [Judean] Arkelausek erreinatzen ziila Herodes bere aitain ondotik {lekian}, beldur zen haat joiteko, eta amentsetan zerutik argituik, Galileako inguutaat [aldatu zen].

23. Eta Nazaret deitzen zen hiri bateat [jin zen eoitea] amoreatik eta betia izan zain profete[k] errana izan zena: *Nazarendarra [deitia izain da].*

[HIRUGARREN] KAPITULIA

Jan {Joanes} Batixta aitzinetik aertzen.
Haren bateiua eta preikiak.
Jesus har[ek] bateatia.

1. Eun hetan jin zen Joanes Batixta preikatzen ziila Judeako bortian, [erraiten ziila]:
2. «Eizii penitentzia, ezen hurbiltzen da [zeruko] erresuma».
3. Hau da Isaias profeta[k] aiphatia izan zena erraiten ziilaik: *Bortian oihuz daonain botza: Aphain zazie Jaunain bidia, xuxen zkzii {zkizie} haren xenderak {bidexkak}.*
4. Joanesek, beraz, bere jaunztura ziin kamelu ilez eta larruzko gerrikoaz bere gerruntziain ingurian, eta haren janaria zen larrautxia eta basaeztia.
5. Ordian hareanat zazin Jerusalen eta Judea guzia eta Jordan inguruko herri guzia´re.
6. Eta [harek] bateatiak ziren, beren bekatiak [aitortzen zuztelaik].
7. Kusiik baa anitz farisau eta saduzear heldu zirela haren bateurat, erran zeen:
–Bipera kasta! Nok eakutsi dauzei mehatxatzen zituzten kolerai ihes eiten?
8. Eizkizii, beraz, urrikizko fruitu behar bezalakoak.
9. Eta beira ziizte ziin baitan erraitetik: «Abrahan duu aita». Nik erraiten dauziit Jinkoa aski ahaltsu dela harri hotaik beretaik soraazteko umiak Abrahani.
10. Jadanik ezin aizkora emana da zuhaitzen erroan. Beraz, fruitu unik kartzen eztiin zuhaitza moxtia izain da eta suat aurtikia.
11. Nik bateatzen ziuztet urian urrikitan saraazi nahiz; bainan ene ondotik jinen dena ni baino boteetsiao da eta eniz [gai] haren zapaten kartzeko. Harek bateatuko ziuzte Ispiitu Saindian eta suian.
12. Bere bahia bere eskietan du eta bere bihilekia ganherreat [garbituko du], bainan lastoak erreko'tu ezin hilezko su batian.
13. Ordian Jesus Galileatik Jordaneat [jin zen] Joaneseanat, hartaz bateatia izaiteko.
14. Bainan Joanesek giilatzen ziin erraiten ziilaik:
–Nik beha'ut zu[k] bateatia izan eta zu heldu zirea eneanat?
15. Jesusek ihardetsi zakon:
–U'nezazu oaikoan {Utz nezazu oraikoan}, ezen hola behar duu bete zuzen den guzia.
Ordian Joanesek utzi ziin nahi ziin bezala eitera.
16. Jesus bateatia izan eta uretik berehala [atea zen]; eta horra nun zaaldu zitzakon zeria eta Jinkoain Ispiitia [kusi ziin] jausten uso'aten idurian eta bere gaineat jiten.
17. Eta denbora berian aitu izan zen botz bat zerutik erraiten ziina: «Hau da ene Seme maitia, zeintan hartu baititut ene atsein guziak».

[LAUGARREN] KAPITULIA

[Jesusen barura eta tentazionia.
Eakasten hasten da. Jesusek lehen ikasler dei.
Eriak sendatzen'tzu.]

1. Ordian Jesus [Izpiitiak] eremana izan zen bortura, han deurria[k] tentatia izaiteko.
2. [Berrooi eunez eta berrooi gauez] barur ein ondoan, gosetu zen.
3. Eta tentatzailiak hurbilduik erran zakon:
–Jinkoain Semia balin bazira, errazu harri hok oi bilaka diten.
4. Jesusek ihardetsi zakon:
–Ixkiriatia'uk: *Gizona ez da bizi oiz xoilki, bainan Jinkoain ahotik ateatzen den hitz guzietaik.*
5. Deurriak ordian hartuik hiri saindurat [ereman ziin] eta tenploain gainian {ttutturrian} [ezarri ziin].
6. Eta erran zakon:
–Jinkoain Semia balin bazira, aurtik zite beheiti. Ezen ixkiatia da: *Bere aingurier manatu du eskietan har zitzaten beldurrez eta treuka {behaztapa} zinetin harri zenbaiten kontra.*
7. Jesusek ihardetsi zakon:
–Ixkiatia da oono: *Eztuzu tentatuko Jinko zure Jauna.*
8. Berriz ee deurriak hartuik, mendi haundi-haundi batetaat [ereman ziin], eta munduko erresuma guziak [eakutsi zazkon] eta heen edertasuna.
9. Eta erran zakon:
–Horiik guziak emain dauzkizut, ahuspez emanik adoatzen banuzu.
10. Ordian Jesusek erran zakon:
–Hail hemendik, Satan; ezen ixkiatia'uk: *Adoatukoo'zu zure Jinko Jauna eta hura bakarrik xerbitxatukoo'zu.*
11. Ordian deurriak utzi ziin, eta huna nun ainguriak hurbildu zizazko[n] eta xerbitxatu zuten.
12. Jesusek aituik Joanes preso hartu zutela, Galileako aldeat joan zen.
13. [Bainan] Nazareteko hiria utziik, eoitera [jin zen] Kafarnaun itsas bazterreko hiri batetaat, Zabuloneko eta Neftaliko mugetan.
14. Amoreatik eta betea izan zain Isaias profeta[k] errana izan zena.
15. *Zabulongo lurra eta Neftaliko lurra, itsasoko bidian Jordaneko berzaldian, nationen Galilea!*
16. *Ilunbetan zaon populiak argi haundi bat kusi du, eta herioain itzaleko herrian zaudenez altxatu zee argia.*
17. Handik haat, Jesus preikatzen [hasi zen] eta erraiten: Eizii penitentzia, ezen hurbil da [zeruko] erresuma.

18. Galileako itsas bazterrian zailaik, Jesusek bi anea [kusi zitiin], Simon –[Petri] deitzen zutena– eta Andres haren anea sare hedatzen ai zirela itsasoan, ezen arraintzariak ziren.

19. Eta erran zeen: Sei nezazii {Jarraik zaizkidaate}, bilakaaziko ziuztet gizon-arraintzari.

20. Hek berehala sariak utziik jarraiki zitzaizkon.

21. Aitzinao joan eta berze bi anea [kusi zitiin], Jakob Zebedein semia eta Joanes haren anea untzi batean, beren aita Zebedeikin saren arranyatzen ai zirela, eta deitu zitiin.

22. Hek ee berehala sariak eta aita utziik jarraiki zitzaizkon.

23. Bazailan Jesus Galilea guzian hango sinagogetan eakusten ziila eta preikatzen ziila Jinkoain erresumako ebanjelioa eta eritasun eta gaitz guziak [sendatzen zitiila] populiain artian.

24. Eta haren fama Siria guzian [hedatu zen] eta eri zirenak oro [karri zazkoten], asko eritasunez eta oinazez hartiak zirenak, gaxtoak ziuztenak, [eroak], perlesiaz joak eta sendatu zitiin.

25. Eta jende multzo haundi bat jarraiki zitzakon Galileatik, Dekapolitik, Jerusalenetik eta Jordaneko berzaldetik.

[BORZGARREN] KAPITULIA

Mendiko predikia. Zortzi urostasunak.
Giixtino perfetzioneko eiteko prinzipalak.

1. Jesusek [jende multzo hori] kusi ziinian baa, irain zen mendi baten gaineat eta jarri zenian, bere dizipuliak [hurbildu zitzaizkon].

2. Eta mintzatzen [hasiik], eakusten zeen hitz hotan:

3. –Uros izpiituz beharrak, zeen eta zeruko erresuma heena baita.

4. Uros eztiak, zeen eta lurreko jabe izain baitira.

5. Uros niar eiten dutenak, zeen eta kontsolatiak izain baitira.

6. Uros justiziaz gose eta earri direnak, zeen eta aseko baitira.

7. Uros urrikalmenditsiak, zeen eta berek urrikalmendu ardietsiko baitute.

8. Uros bihotz garbia'utenak, zeen eta Jinkoa kusiko baitute.

9. Uros jende bakezkoak, zeen eta Jinkoain haurrak deitiak izain baitira.

10. Uros [justiziaingaitik] pairatzen dutenak, zeen eta heena baita [zeruko] erresuma.

11. Urosak izan ziizte gizonek laidoztatuko eta gaizki eiliko ziuztetenian eta gezurrez zernahi gaxtakeria ziin kontra errain dutenian eneatik.

12. Bozkaria eta aleera ziizte ordian, zeen eta ziin saria haundia baita [zerian]; ezen hola gaizki eili tuzte ziin aitzinian izan diren profetak.

13. Ziik lurreko gatza ziizte. Gatzak bere gazidura [galtzen badu], zertaz gazituko da? Ez du gehiao deus balio kanpoat aurtiitzeko bezik eta jenden zangoz ostikatia izaiteko.

14. Ziik ziizte munduko argia. Mendiain gainian finkatia den hiria ez daiteke gorde.

15. Eta ez dute argi bat pizten gaitzuriain azpian emaiteko bainan ba ganderailiain gainian amoreatik eta argi dezan etxian diren guzier.

16. Hola argi dezala ziin argiak gizonen aitzinian kus dezazten ziin obra unak eta lorifika dezaten ziin Aita [zerian] dena.

17. Etzaziila uste ukan jin nizala legiain edo profeten ezeztatzea; eniz jin heen ezeztatzea, bainan heen betetzea.

18. Ezen eiaz erraiten dauziit: Zeria eta lurra ez dira lehenao [pasatuko dira], ezen ez i bat edo pundu bat legian dienetaik utziko baita guziak betiak izan gabe.

19. Nok ee hautsiko baitu manamendu ñimiñon horiitaik bat xoilki eta eakutsiko gizoner, eta hura izain da azkena [zeruko] erresuman; bainan beiratuko baititu eta eakutsiko heen beiratzen eta hura izain da haundi [zeruko] erresuman.

20. Erraiten dauziit baa, ziin zuzentasuna ez bada osoa eskribauena eta farisauena baino, etziizte sartuko zer[uko] erresuman.

21. Aitu'uzii errana izan zela zaharrer: *Eztuzu hilen*; eta nok ee hilen baitu, harek meexituko du jujamendia.

22. Bainan nik erraiten dauziit: Nor ere samurtzen baitzako bere aneai, jujamendia meexi du; nok ee erraiten baitako bere aneai «ergela», kontseilia[k] gastiatzia meexi du; nok ee erraiten baitako «ergela», ifernuko sua meexi du.

23. Beraz, zure emaitza [aldarian ofreitzen balin ba'uzu] eta han ohoitzen bazira zure aneak badiila zeait zure kontra,

24. Utzazu han aldariain aitzinian zure emaitza eta zaza lehenik zure aneaikin baketzera eta gero jin eta zure emaitza [ofrezitukoo'zu].

25. Akomea zite zure aitzinekoaikin, mundu huntako bidian zireno harekin; beldurrez eta zure aitzinekoak libra zitzan jujiai eta jujiak libra zitzan bere xerbitxariai eta presendeirat eremana izan ziten.

26. Eiaz erraiten dauzut, etzira handik ateako azken ardita {kornadoa} paatu artio.

27. Aitu'uzii errana izan dela zaharrer: *Ez duzu einen adulterioik*.

28. Bainan nik erraiten dauziit: Nok ee behatuko baitako mazteati hareanako gutiziaikin, jadanik adulterioa ein du bihotzian.

29. Zure bei eskoinak bekaturaatzen bazitu, atea zazu eta aurtik zureanik urrun; ezen hobe da zure menbrotaik bat gal dain, ezen ez zure gorputz guzia aurtikia izan dain ifernurat.

30. Eta zure eskoineko eskiak bekaturaatzen bazitu, motxazu eta aurtik zureanik urrun; ezen hobe da zure menbrotaik bat gal dain, ezen ez zure gorputz guzia joan dain ifernurat.

31. Errana izan da oono: *Nok ee bere maztia [utziko baitu], eman dezakola uzten diilako ixkirio'at*.

32. Bainan nik erraiten dauziit: Nok ee bere maztia [utziko baitu], adulteriozko kasian salbu, adulterioan eroraazten du; eta nor ee ezkontzen baita senarra[k] utzia den batekin, adulterioa eiten du.

33. Aitu'uzii oono errana izan dela zaharrer: *Eztuzu zinik hautsiko, bainan Jaunai zinaz hitzeman duzuna [bihurtukoo'zu]*.

34. Eta nik erraiten dauziit zinik ez eiteko batee, *ez zeriaz*, zeen eta *Jinkoain tronia* baita.

35. *Ez lurraz*, zeen eta *haren zango peko alkia* baita, ez eta're Jerusalenez, zeen eta *errege haundiain hiria* baita.

36. Eztuzu zinik einen zure buriaz, zeen eta ez baitezakezu zure ile'at xuriaaz edo beltzaaz.

37. Bainan ziin hitza izan daila «ba» hala [denian], edo «ez» hala [eztenian]; ezen gaineateko guzia gaxtotik heldu da.

38. Aitu'uzii errana izan dela: *Beia beiaintzat, horza horzaintzat*.

39. Bainan nik erraiten dauziit gaizkieiliai kontra ez eiteko, bainan noaitek joiten bazitu eskoineko matelan, paa zakozu berzia're.

40. Eta zurekin ausietan ai [i]zan eta zuri soinekoa kendu nahi diinai, utzakozu zure kapa're.

41. Eta nehok [mila urrats] ein aazi nahi badauzu, zaza harekin berze bi miletan.

42. Galdeiten dauzunai emakozu eta maileatu nahi dauzunai ez berze aldeat ein.

43. Aitu'uzii errana izan dela: *Maitatukoo'zu zure laun protximoa eta hastiatuko zure etsaia*.

44. Bainan nik erraiten dauziit: Maitazkizii ziin etsaiak, hastiatzen zituztener ongi eizii eta ziin persekutatzailen eta kalomniatzailentzaz otoitz eizii.

45. Amoreatik eta izan ziizten ziin Aita zer[ian] deinain haurrak; harek bere iuzkia jeikaazten du unen eta gaxton gaineat, eta euria ein aazten justien eta injuston gaineat.

46. Ezen maite balin batuzii ziik maite ziuztenak, ze sari ukain duzii? Ez dutea publikanok ee hori eiten?

47. Eta agur eiten badeezii ziin anaer xoilki, ze eiten duzii berzek baino gehiao? Paanok ee ez dutea hola eiten?

48. Izan ziizte, beraz, perfet ziin Aita zerukoa perfetoa den bezala.

[SEIGARREN] KAPITULIA

Mendiko predikiain segida. [Amoina eta otoitzak.
Barura. Diuriaindako den amodiua.
Geruain arta behar dela sahetseat ezarri.]

1. Beira ziizte ziin obra unen eitiaz gizonen aitzinian [heek ikusiak] izaiteko, berzenaz ez duzii sariik ukain ziin Aita [zerian] danaanik.

2. Amoina eiten duzulaik, beraz, ez tronpetaik jo zure aitzinian [faltsuek] eiten duten bezala sinagogetan eta karriketan gizone[k] ohoratiak izaiteko. Eiaz erraiten dauziit beren saria ukan dutela.

3. Bainan zuk amoina eiten duzulaik, zure esku ezkerrak ez dezala jakin ze eiten [duen] eskoinak.

4. Amoreatik eta zure amoina izan dain gordia eta zure aita ordian {i}kusten diinak saristatuko zitu.

5. Eta otoitz eiten duziinian, etziiztela izan [faltsiak] bezala, zoinek maite baitute otoitz eitia xutik sinagogetan eta karrika ixkinetan gizone[k] kusiak izaiteko. Eiaz erraiten dauziit: ukan dute beren saria.

6. Bainan zu, otoitz eingoo zulaik sar zite zure ganbaran eta, atea hetsiik, otoitz zazu zure Aita xiixila, eta zure Aita gordian kusten diinak saristatuko zitu.

7. Otoitzian zauztelaik etziiztela anitz mintza paanoak bezala; uste'ute anitz erranaan bortxaz aitiak izain direla.

8. Etziiztela, beraz, heen iduriko izan, ezen ziin Aitak badaki zeren beharra uziin ziik hari galdein gabe.

9. Gisa huntan otoitz einen duzii, beraz: «Gure Aita zerietan zirena, erail bedi sainduki zure izena.

10. Jin bedi zure erresuma. Ein bedi zure boondatia zerian bezala lurrian ee.

11. Emauzu eun asteko behar duun oia.

12. Eta barka zkidautzu gure zorrak guk gure zordun direner barkatzen desteun bezala.

13. Eta ez gitzazula utz tentamendian erortzera. Bainan beira gitzazu gaitzetik. Halabiz».

14. Beraz, barkatzen badesteezii gizoner bere hutsak, ziir ee ziin hutsak barkatuko dauzkizii ziin Aita zerukoak.

15. Bainan ez balin badeezii barkatzen gizoner, ziin Aitak ee ez dauzkizii barkatuko ziin hutsak.

16. Barur eiten duziilaik, etziiztela izan triste [faltsiak] bezala, ezen hoibeltzen tuzte beren beitartiak gizoner eakusteko barur eiten dutela. Eiaz erraiten dauziit ukan dutela beren saria.

17. Bainan zuk barur eiten duzunian, gantza zazu zure buria eta garbi zure beitartia.

18. [Gizoner] ez eakusteko barur egiten duzula, bainan ba{i} zure Aita gordian denai, eta zure Aita gordian kusten diinak saristatuko zitu.

19. Etzaziila bil tresorik mundo huntan, nun herdoilak eta zerrenak jaten baitiuzte eta nun ohoinek zilotaik ateatzen eta easten baitiuzte.

20. Bainan untasunak eizkizii zerian, nun herdoilak eta zerrenak ez baitiuzte jain, eta nun ohoinek ez baitiuzte ateako eta eatsiko.

21. Ezen nun ee baita ziin untasuna eta han da ziin bihotza're.

22. Zure gorputzeko argia zure beia da. Zure beia garbi balin bada, zure gorputz guzia argitia izain da.

23. Bainan zure beia gaxtoa balin bada, zure gorputza ilunbetan izain da. Beraz, zure baitan den argia ilunbe balin bada, zein haundi ez dira izain ilunbiak berak?

24. Nehok ez dezazke bi nausi xerbitxa; edo bat hastiatuko du eta berzea maitatuko, edo bati estekatuko da eta berzia mespretxatuko du. Etzazkizii batian xerbitxa Jinkoa eta diuria.

25. Hortakotz erraiten dautziit: Etziiztela kexu izan ziin biziaz nundik ukain duziin zer jan, ez eta ziin gorputzaz nundik ukain duziin haren estaltzekoa. Bizia eztea jatekoa bano gehiao, eta gorputza soinekoa bano?

26. Beha zeezii aireko txorier: ez dute eraiten eta ez dute deus biltzen beren ganerretan, eta ziin Aita zerukoak hazten tu. Etziizte ziik hek bano anitz gehiao?

27. Nor da ziitaik, einahalak einik ee, bere buruai beso baten goratasuna gehiao eman dezakenik?

28. Eta soinekoz zertako arrangura[a]zii? Beha zazii landako lilier, nola haunditzen diren. Ez dira lanian ai, ez dira iruten ai.

29. Bizkitartian erraiten dauziit: Salomon bere loria guzian ez dela izan horitaik bat bezein ederki aphaindia.

30. Beraz, landako belhar bat eun xutik daona eta bihar labeat aurtikia izain dena Jinkoak hola beztitzen badu, zenbat hobeki etziuzte einen ziik, fede gutitako gizonak?

31. Etzaziila geroztik arranguraik ukan erranez: «Zer jain duu, edo zer edain duu, edo zertaz estaliko gira?».

32. Ezen horiin ondotik dailtza paganoak. Bainan ziin Aitak badaki horiin guzien beharretan ziiztela.

33. Bila zazii lehenik Tinkoain erresuma eta haren justizia, eta horiik guziak emanak izain zauzkizii berzalde.

34. Etziiztela, beraz, arranguran izan bihaamunekoaz. Ezen bihaamunak berak arta ukain du beretzat. Eun bakotxai aski zako bere gaitza.

[ZAZPIGARREN] KAPITULIA

Mendiko predikiain segida. [Eztela behar ainki jujatu.
Ate hersia. Frutietaik behar dela jujatu.
Arrokain gainian den etxia.]

1. Etzaziila nehor juja, berze[k] jujatiak ez izaiteko.

2. Nola're jujatuko baitituzii berziak, hala jujatiak izain ziizte, eta zein ee izaritan izartuko baitituzii berzeak, hartan berian izartuko ziuztete.

3. Nola ikusten duzu lasto'at zure anean beian eta ez baituzu kusten ernai bat zure beian?

4. Edo nola erraiten duzu zure aneai: «U'nezak {Utz nezak} hire beian den lastoain kentzera», zure beian ernai bat duzulaik?

5. [Faltsia], kentzazu lehenik zure beiko ernaia eta ordian kusikoo'zu nola ken dezakezun lastoa zure anean beitik.

6. Ez eman gauza sanduik txakurrer eta ez aurtik harri baliosik urden aitzineat, beldurrez ostika ditzaten eta ziinat itzuliik urra zitzazten.

7. Galdein zazii eta emain dauziite; bila zazii eta atzemain duzii; jo zazii atea eta idiiko dauziite.

8. Ezen nornahik galdein dezan, ukaiten du; bilatzen diinak atzemaiten du; eta atia joiten diinai idiitzen dakote.

9. Ezen nor da ziin artian, bere semiak oia galdeiten dakolaik, harri bat emain dakona?

10. Arrain bat galdeiten dakolaik, sube'at emain dakona?

11. Ziik, beraz, gaxtoak izan haatik, balin baakizii gauza unen emaiten ziin haurrer, zenbatenaz hobeki ziin Aita [zerian] denak emain tu eiazko untasunak galdeiten dazkotener

12. Zer ee nahi baituzii gizonek ein dezauziiten, ziik ei zeezii heer. Ezen hortan da legia eta profetak.

13. Sar ziizte borta {ate} hersitik; zeren eta ate zaala eta bide haundia baita galtzeat daramana, eta anitzak dira hartan sartzen direnak.

14. Zein ttipia den atea eta hersia bidia bizirat daramana, eta gutiak dira hura atzemaiten dutenak.

15. Beira zite profeta falsietaik, zeinak heldu baitira ziinganat ardien jaunsturan eta zeinak barnetik otso errabiatu batzu baitira.

16. Beren frutietaik [zautuko tuzie]; bil daitekea mahatsik elorrietaik eta pikoik laparretaik?

17. Hola, arbola un guziek fruitu unak kartzen tuzte eta arbola gaxto guziek fruitu gaxtoak.

18. Arbola un batek etzake kar fruitu gaxtoik eta arbola gaxto batek etzake kar unik.

19. Fruitu unik kartzen eztiin arbola moxtia izain da eta surat aurtikia.

20. Beraz, beren fruitutaik zautuko dituzu.

21. Ez dira «Jauna, Jauna!» erraiten daaten guziak sartuko [zeruko] erresuman; bainan ene Aita [zerian] denain borondatia eiten diina sartuko da [zeruko] erresuman.

22. Anitzek errain daate eun hartan: «Jauna, Jauna! Ez dituuia zure izenian geroko gauzak aertu, deurriak kasatu eta anitz mirakulu ein?».

23. Eta ordian errain deet goraki: «Etziuztet behin ee zautu, urrun ziizte eneanik, gaxtakeria eiliak!».

24. Ene hitz hok aitzen tiina eta beiratzen tiina iduriko zaut gizon zuhur bat bere etxia arrokain gainian finkatu diina.

25. Euria jin da, uhaldiak izan dira, haiziak atera dira eta etxe hari jazarri, eta ez d erori, ezin finkatia zen arrokain gainian.

26. Ene hitz hok aitzen tiina eta ez beiratzen, gizon ero bat [iduriko du] bere etxia hariñain gainian finkatzen diina.

27. Eta euria jin da, uhaldiak izan dira, haiziak atera dira eta etxe hari jazarri, eta erori da eta haren erorikoa haundia [izan da].

28. Hitz hok erran eta [Jesus xildu zenian], populia miretsiik zaun haren eakuspenain gainian.

29. Ezen boteria ukanik bezala [eakusten zeen], eta ez heen eskribauak eta farisauak bezala.

[ZORTZIGARREN] KAPITULIA

[Lepradun baten eta zentenierrain sehi baten sendatzea.
Petriren aminarrebain eta debriek poseitu batzuin sendatzea.
Tenpesta bat apazaatia.
Deurri batzu urde batzuin barnian sartzea.]

1. Menditik jautsi zenian, jende multzo haundi bat jarraiki zitzakon.
2. Berehala lepratsu bat jin zitzakon, [eta] adoratu ziin erraiten zakolaik:
–Jauna, nahi bauzu senda nezakezu.
3. Jesusek, eskia hedatuik, hunkitu ziin eta erran zakon:
–Nahut {Nahi dut}, senda zite.
Eta berehala lepra sendatia izan zen.
4. Jesusek erran zakon:
–Guardimazu nehori erratetik, bainan zaza, eakuts zite apezari eta eizu Moisesek manatzen diin emaitza lekukotasun bat ukan dezaten.
5. [Jesus Kafarnaunen] sartu zelaik, zentenier bat [hurbildu zitzakon], eta otoiztu ziin.
6. Erten {erraiten} zakolaik:
–Jauna, ene sehi bat perlesia[k] joa dao ene etxian eta biziki sofritzen.
7. Jesusek erran zakon:
–Jinen niz eta sendatuko'ut.
8. Zentenierrak ihardetsi zakon:
–Jauna, eniz gai ene etxian sar ziten, bainan errazu xoilki hitz bat eta ene sehia sendatia izain da.
9. Ni ee gizon bat niz berzen eskukoa, soldadoak ene azpiko dituana. Bati erraiten dakot «Hail!» eta badua, berziai «Haugi!» eta heldu da, eta ene mutilai «Eizak hori!» eta eiten du.
10. Jesusek horiik aitziaikin miretsi ziin eta jarraikitzen zitzaizkioner erran zeen: «[Eiaz] erraiten dauziit, ez dut hainberze fede atzeman Israelen.
11. Nik erranik jakin zazii anitz jinen direla iuzkia ateatzen eta etzaten den aldetaik eta jarriko [zeruko] erresuman Abrahanekin, Isaakekin eta Jakobekin.
12. Bainan erresumako umiak aurtikiak izain dira kanpoko ilunbetaat, eta han izain da niar eta horz karraska».
13. Jesusek erran zakon zentenierrai:
–Zaza eta sinetsi duzunain arabera eina izan bekizu.
Eta sehia sendatia [izan zen] oren hartan berian.
14. Jesusek, Petriren etxeat [jin zelaik], haren aminarreba ohian zaola [kusi ziin], sukarraikin.
15. Haren eskia [hunkitu ziin] eta sukarrak utzi ziin, eta jeiki zen eta heen xerbitxatzen abiatu zen.
16. Ilunaarrian aitzineat karri zazkoten anitz gaxtokilako, eta hitz batez gaxtoak kentzen zezteen eta eri guziak [sendatu zitiin].

17. Isaias profeta[k] errana izan zena [bete zain]: *Gure herbailtasunak [hartu tu] eta gure eritasunak [jasan tu]*.
18. Jesusek jende multzo haundi bat bere inguriitan [{i}kustiaikin, dizipulier manatu ziin] ereman zezaten urez berzealdeat.
19. Ordian eskribau bat hurbildu zitzakon eta erran zakon:
–Nausia, jarraikiko nitzauzu, noanahi joan ziten.
20. Jesusek ihardetsi zakon:
–Axeriek batuzte beren xiloak eta txoriek beren kafiak, bainan Gizonain Semiak ez du nun finka bere buria.
21. Bere dizipulietaik berze'atek erran zakon:
–Jauna, u'nezazu lehenik joan nain ene aitain ehorztera.
22. Bainan Jesusek erran zakon:
–Eni jarraiki zite eta utzkizu hilak beren hilen ehorztera.
23. Eta irain zelaik untzirat, bere dizipuliak jarraiki zitzazkon.
24. Eta huna nun itsasoan altxatzen baita tenpesta'at hain haundia, nun untzia estalia baitzen uhinez. Bizkitartian [Jesus] lo zaun.
25. Ordian bere dizipuliak hurbildu zitzazkon eta iatzarraazi zuten erraiten zutela:
–Jauna, beira gitzazu! Galtzera gaza!
26. Jesusek ihardetsi zeen:
–Zertako lotsatzen ziizte, gizon fede ttipidunak?
Jeikita, berehala manatu ziin haizer eta itsasoai, eta sosegu handi bat ein zen.
27. Han zirenak harritiak zauden erten zutelaik: «Zer ote da hau, haizek eta itsasoak obeitzen baitakote?».
28. Itsasoain berzaldeat [heldu zenian], jerasendarren herrirat, aitzineat jin zitzaizkon bi gaxtokilako beren zilitaik ateraik; hain gaxtoak, nun nehor ee ez baitzen ausartzen bide hartaik eiltzera.
29. Oihuka abiatu ziren, erten zutelaik:
–Jesus, Jainkoain Semia, zer da gure eta zure artian? Jin zirea hunat, tenoria baino lehen, gure tormentatzera?
30. Handik hurbil bazen urdalde handi bat alhan zailana.
31. Deurriek otoizten zuten erten zutelaik:
–Hemendik kentzen bagituzu, ior gitzazu urdalde hortaat.
32. Jesusek erran zeen:
–Zazte.
Eta hek ateaik joan ziren urde hetat, eta berehala urdalde guzia lasterka [joan zen] itsasoat eta urian ito zin.
33. [Urde]zainek ihes ein zuten eta hirirat jin eta guziak [kondatu zuzten] eta gaxtokilakor gertatu zitzeena're.
34. Berehala hiri guzia atea zen Jesusen bideat eta, kusi zutelaik, otoiztu zuten heen aldetaik urrun zain.

[BEATZIGARREN] KAPITULIA

[Perlesiatu bat sendatzea. Matiuin deitzea.
Mazteki odol-galtzalea. Nexkato hil baten piztea.
Bi itsuen argitzea. Debru mutu baten mintzatzea.]

1. [Jesus] untzirat irain, eta berriz ura pasatu ziin eta bere herrirat jin.

2. Jin zen bezein laster, aitzineat karri zakoten [perlesiatu]'at ohian etzanik. Jesusek heen fedia [kusiik], erran zakon [perlesiatu]ai:

–Ez lotsa, ene haurra! Zure bekatiak barkatiak tira.

3. Ordian eskribau batzuk bere [b]aitan erten zuten: «Blasfematzen du gizon horrek».

4. Jesusek, heen gogotak [zautuik], erran zeen:

–Zendako dailtzazii gogota gaxtoak ziin bihotzetan?

5. Zer da aisao erraitia «Hire bekatiak barkatiak {di}tuk», ala erraitia «Xuti hadi eta eil hai»?

6. Jakin zaziin Gizonain Semiak badiila ahala lurrian bekatien barkatzeko.

[Ordian] erran ziin [perlesiatu]ai:

–Xuti zite, har zazu zure ohia eta zaza etxeat.

7. Jeiki zen eta joan etxeat.

8. Hori ikusiik, jende multzoa harritu zen eta [goretsi] ziin Jainkoa zeen eta halakok ahala eman ziin gizoner.

9. Handik ateatzen zelaik, Jesusek gizon bat [kusi ziin] zergako mahaian [jarria], Matiu deitzen zena. Erran zakon:

–Jarraik zitzaizkit.

Eta jeikita, berehala jarraiki zitzakon.

10. Gertatu zeen baa, Jesus mahaian zelaik gizon haren etxian, anitz publikano eta gizatzar [jin zirela], Jesusekin eta haren dizipuliekin mahaian jartzera.

11. Farisauek hori kustiaikin, erran zuten haren dizipulier:

–Zendako jaten du ziin nausiak publikanokin eta gizatzarrekin?

12. Jesusek, hori aituta, erran zeen:

–Untsa direnek eztute mediku beharrik, bainan bai eri direnek.

13. Zazte baa eta kasazii zer den *Nahiau dut urrikalmendia sakrifizioa bano*. Eniz jina justien deitze{r}a, bainan ba bekato{r}osen deitze{r}a.

14. Ordian Joanesen dizipuliak [hurbildu zitzazkon], erten zutelaik:

–Zendako farisauek eta guk ardura barur eiten duu, eta zure dizipuliek ez baitute eiten?

15. Jesusek ihardetsi zeen:

–Eskont berriain aixkideak niarretan daitezkea eskont berria heekin deno? Bainan jinen da eun bat kenduko baitute eskont berria eta ordian einen dute barur.

16. Nehok ez du soineko zahar bati oihal berrizko peza'at emaiten, zeen eta berriak eremaiten baitu zaharretik bere betiko puska'at eta urradura haundiaoa {haundiaokoa} izaiten baita.

17. Ez dute're a{r}no berriik zahaki zaharretan, zeen eta zahakiak leher bailaizteke, anoa ixur eta zahakiak gal. Bainan ano berria emaiten dute zahaki berritan, eta hola biak beiratzen dira.

18. Hola mintzo zitzeelaik, aitzindari bat hurbildu zitzakon eta adoatu ziin erten ziilaik: «Jauna, ene alaba doi-doietan hil da. Bainan xauri, eskia heda zazu haren gaineat eta biziko da».

19. Jesus xutituta jarraiki zitzakon bere dizipuliekin.

20. Ordian berian mazteki bat hamabi urte hartan odol-galtze batekin zena, giileti k [hurbildu zitzakon] eta soinekoain heala [hunkitu zakon].

21. Bere [b]aitan zaasan: «Hunkitzen ahal baakot berein soinekoa, sendatia izain niz».

22. Jesus giileat itzuli zen ordian eta mazte hura kusteaikin erran zakon: «Harazu konfiantzia, ene haurra! Zure fediak sendatu zitu». Eta ordu beretik sendatia izan zen mazte hura.

23. Jesus aitzindariain etxeat [heldu zelaik], eta txirulariak eta harrabots handitako jende multzo'at [kusi zitiilaik], erran zeen:

24. «Atea ziizte! Ezen nexkato hori ez da hila, bainan lo dao». Eta irri ein zakoten.

25. Jende guzia [ateazi zutenian], Jesus sartu zen, haren eskia [hartu ziin] eta nexkatua jeiki zen.

26. Hunen berri hedatu zen berehala inguru hartan guzian.

27. Handik bazualaik Jesus, bi itsu [jarraiki zitzazkon] oihuka erranez: «Urrikal zite gutaz, Dabiden semia!».

28. Eta etxeat [heldu zenian], itsu hek [hurbildu zitzaizkon]. Jesusek erran zeen:

–Sinesten duztea hori eiten ahal duala?

–Ba, Jauna –[erran zakoten].

29. Ordian heen beiak [hunkitu zitiin], erranez:

–Eina izan zauziila ziin fediain arabera.

30. Eta heen beiak idiki ziren. Jesusek mehatzuikin erran zeen:

–Guardimaazi nehok ez dezan jakin.

31. Bainan hek joan eta barreatu zuten herri hartan guzian.

32. Hek atea zielaik, gizon mutu bat [karri zakoten], gaixtoak zitiina.

33. Eta gaxtoak kenduta, mintzatu zen mutia eta jende guziak admirazionian jarri ziren eta erten zuten: «Holakoik ez da behin ee aertu Israelen».

34. Farisauek haatik erten zuten: «Deurrien aitzindariain eskuz kentzen tu gaxtuak».

35. Jesus bazailan hiri eta herri guzietan gaindi, [sinagogetan] eakusten ziila eta Jinkoain erresumako ebanjeliua [predikatzen ziila] eta eritasun eta gaitz suerte guziak [sendatzen zitiila].

36. Jende multzo hek kustian, urrikaldu zitzeen, zeen eta akitiak baitzien eta etzanak baitzauden lurrian, arzainik ez duten ardi batzu bezala.

37. Ordian erran zeen dizipulier: «Errekolta handia da, bainan langile guti.

38. Otoitzaazi, beraz, errekoltain nausia[k] ior ditzan langiliak bere errekoltaat».

[HAMARGARREN] KAPITULIA

[Apostolien izenak. Hek igorri zitiin.
Ardi batzu bezala otson erdira. Ez beldur izan.
Jesus beextera jina. Ongi etorri egin.]

1. Jesusek, bere hamabi dizipuliak [deituik, eskia] eman zeen izpiitu lohien gainian, heen ateatzeko eta eritasun eta gaitz suerte guzien sendatzeko.

2. Huna baa hamabi apostolien izenak: lehena, Simon –[Petri] deitzen zena– eta Andres haren anea.

3. Jakes Zebedein semia eta Joanes haren anea. Filipe eta Bartolome. Tomas eta Matiu publikanua. Jakobeu Alfein semia eta Tade.

4. Simon kanaandarra eta Judas Iskariote, hura trahitu ziina.

5. Hamabi horiik iorri zitiin Jesusek, manatu zeelaik hitz hotan:

–Ez juan paganotat eta etsar {ez sar} zamaritanon hiritan.

6. Zazte lehenao Israelgo etxeko ardi erreelatienat {galdietat}.

7. Juan eta predika zazii, erten duziilaik hurbiltzen ai dela zeruko erresuma.

8. Sendazkizii eriak, hilak pitz, lepradunak garbi, deurriak kasa. Kitoik hartia kitoik emazii.

9. Etzaziila atxik ez urreik, ez zilarrik ez eta're diruik ziin gerrikotan.

10. Ez har alpotxaik bideko, ez doblezkako soinekoik, ez zapetaik, ez makilaik; zeen eta langiliak meexi baitu janaria.

11. Zein ee hiritan edo herritan sartuko baitziizte, galdein zazii nor daiteken han digno ziin erreziitzeko eta haren etxian zaute juan artio.

12. Etxian sartzian, agur eizakozii, erranez: «Bakia dela etxe huntan».

13. [Etxe hura] digno balin bada, ziin bakia jinen da haren gaineat; ez balin bada digno, ziin bakia ziaunganat itzuliko da.

14. Norbaitek ez balibaziuzte erreziitu nahi ez eta ziin erranak entzun, etxe hartaik ateatzian edo hiri hartaik, inarrosaazi ziin zangotako errautsa.

15. Eiazki erten dauziit, jujamenduko eunian, eztikiago jujatiak izain dira Sodoma eta Gomorra, hiri hura ba{i}no.

16. Huna nun iortzen ziuztetan ardi batzu bezala otso erdira. Izan ziizte, beraz, zuhur subiak bezala eta xinple usoak bezala.

17. Bainan beira ziizte gizonetaik, zeren eta eremanaaziko ziuztete beren biltzarretaat eta azotaaziko beren sinagogetan.

18. Eta eremanak izain ziizte aitzindaienganat eta erregeenganat eneatik, nitaz lekukotasun bihurtzeko heen aitzinian eta paganon aitzinian.

19. Bainan hetaat eremaiten ziuztenian ez tziiztela kexa nola mintzatuko ziizten eta zer errain duziin, zeren eta emana izain baitzauzii ordian berian ze{r} erran behar duziin.

20. Ezen ez ziizte ziik mintzo ziiztenak halakotan, bainan ziin Aitain izpiitia da ziitan mintzo dena.

21. Aneak eremain du oono bere anea hilaraztera eta semiak bere aita; eta haurrak altxatuko dira beren buroson kontra eta hilaaziko tuzte.

22. Eta guzie[k] hastiatiak izain ziizte ene izenaatik, bainan nok ee iraunen baitu akaantzaano eta hura izain da salbatia.

23. Noiz eta perseituko baitziuztete hiri batian, zazte beze'atera. Eia erten dauziit: ez dituzii Israelgo hiri guziak kurrituko Gizonain Semia jin artian.

24. Dizipulia ezta nausia bano gehiao, ez eta mutila etxeko jauna bano gehiao.

25. Aski da dizipuliantzat nausia bezala [izan dain], eta mutilaantzat etxeko jauna bezala [izan dain]. Etxeko buruzaia [Beeltzebul] deitu balin ba'ute, zenbatenaz gehiao haren sehiak?

26. Etziiztela, beraz, heen beldur izan. Deus'e ez da gordeik aertuko eztenik, ez eta segeetuik zautia izain ez denik.

27. Nik ilunbian erten dauziitana, eakutsazii argian; eta bearriz aitzen duziina predika zazii teilatuetan gaindi.

28. Gorputza hiltzen eta arima ezin hil dezaketenez beldurrik ez ukan; bainan arima ta gorputza ifernian galtzen ahal ditiinaz beldur ziizte.

29. Ez tirea saltzen sos batean bi murrutxori? Eta hetaik [bat] baño're ez da eroriko lurreat ziin Aitain nahia gabe.

30. Ziin buruko ile guziak kondatiak dira.

31. Ez beraz beldur izan, anitz murrutxoriek bano gehiao balioo'zii.

32. Nork ee aitortuko bainu gizonen aitzinian, nik ee hura aitortuko'ut ene Aita [zerian] denain aitzinian.

33. Nok ee ukatu bainu gizonen aitzinian, nik ee hura ukatuko'ut ene Aita [zerian] denain aitzinian.

34. Etzaziila uste ukan bakiain kartzera jin nizala lurreat; eniz jin bakiain kartzera, bainan ba ezpatain.

35. Ezen *gizonain beextea [jin niz] bere aitaanik, alaba bere amaanik, errena bere amaiarreaanik.*

36. [Eta] *gizonain etsaiak bere etxekoak izain dira.*

37. Nok ee maite baitu aita edo ama ni bano gehiao, ezta nitaz digno; eta nok ee maite baitu bere semia edo alaba ni bano gehiao, ezta nitaz digno.

38. Nok ee ez baitu hartzen bere kuutzia eta ezpaita eni jarraikitzen, ezta nitaz digno.

39. Bere bizia beiratzen diinak galduko du eta bere bizia eneatik galtzen diinak, hark beiratuko du.

40. Ziik erreziitzen ziuztenak, ni erreziitzen nu, eta ni erreziitzen niinak ni iorri niina [erreziitzen du].

41. Profeta'at erreziitzen diinak profeta delakotz, profetaren saria [ukain du]; eta justia erreziitzen diinak justia delakotz, justiain saria [ukain du].

42. Eta nok ee edatea emain baitu hotaik ttipienai baso'at ur xoilki ene dizipulietaik delakotz, egiaz derauziit ez diila galduko bere saria.

[HAMEKAGARREN] KAPITULIA

[Jesusek Joanesi errepostu.
Ebanjeliua pobrer aiaazia.
Aita laudatzen du. Jin eneanat.]

1. Jesusek [hamabi dizipulier] manu horiin emaitia [akaatu ziinian, handik juan zen hango hirietan] eakustera eta predikatzera.

2. Joanesek, presundeian zelaik, Krixtoin eintzak [aituik], bere dizipulietaik biga [iorri zazkon],

3. Berai galdeitera:

–Zu zirea «Jin behar zirena», ala berze'at i{g}urikitu behar duu?

4. Jesusek ihardestian erran zeen:

–Zazte, errozii Joanesi ze aitu'uziin eta kusi:

5. Itsiek kusten dute, maingiak xuxen dailtza, lepratsiak garbitiak dira, sorrek aitzen dute, hilak pizten dira, ebanjeliua aiaazia da pobrer.

6. Eta dohantsu ene baitan eskandalisatia izain ez dena!

7. Hek juan zielaik, Jesus Joanesez populiai [hasi zen erraiten]:

–Zeen kustea juan ziizte deserturat? Kanabera'at haizia[k] inarrosia?

8. Bainan zeen kustea juan ziizte? Gizon bat guriki apaindia? Guriki apaindiak erregen etxetan dira.

9. Bainan zeen kustea juan ziizte? Profeta'at? Ba, eta profeta'at bano gehiao [erten dauziit].

10. Hura da zointaz ixkiriatia izan baita: *Huna nun iortzen duan ene ainguria zure aitzinian, zeinek apainduko [dakozun] zuri bidia, zure aitzinian.*

11. Eia erten dauziit, maztetaik sortu direnetan ezta aertu Joanes Batixta bano haundioskoik; bizkitartian zeruko erresuman ttipiena dena hura bano haundiao da.

12. Joanes Batixtain eunetaik oai artio, [zeruko] erresuma bortxatia da eta indar eilek daramate.

13. Joanes jin artian profeta guziek eta legiak ee eakutsi'ute zer gertatuko zen.

14. Eta nahi balin ba'uzii hari kasu ein, hura da Elias jin behar diina.

15. Nok ee baititu bearriak aitzeko, ai dezala.

16. Noen iduriko di{r}ila errain dut eungo gizonak? Haur batzu [iduri'ute], plazan oihuz daudenak beren launer, erten dutelaik:

17. «Kantatu dauziu eta ez ziizte jantzatu, auenetan eman gira eta eztuzii niar ein».

18. Ezen Joanes [jin da] etziila ez jaten ez edaten, eta erten dute: «Gaxtuak baitu».

19. Gizonain Semia [jin da] jaten ziila eta edaten ziila, eta erten dute: «Huna gizon jale eta edale haundi bat, publikanon eta giza tzarren aixkidia». Eta zuhurzia untzat ezautia izan da bere umez.

20. Ordian gaizki erraiten [hasi zen] hainberze mirakulu ein ziin hiri heer, etzutelakotz ein penitentzia:

21. –Zorigaitz hiri, Korozain! Zorigaitz hiri, Betsaida! Zeren eta Tiren eta Sidonen einak izan balin baziren ziin artian einak izan diren mirakuliak, aspaldian penitentzia einen batzuten ziliziuan eta hautsian.

22. Horra zendako erten dauziitan: Jujamenduko eunian ziik bano eztikiao jujatiak izain dira Tir eta Sidon.

23. Eta hi, Kafarnaun,

beti zeriaano altxatuko hiza? Iferni{r}aano jeutsiko hiz!

Zeen eta Sodoman einak izan balira hire [b]aitan einak izan diren mirakuliak, beharbada iraunen baitziin eun artio.

24. Horra zendako erten deatan: Jujamenduko eunian hi bano eztikiao jujatia izain duk Sodomako lurra.

25. Ordian [Jesusek] hitz hok erran zitiin:

–Eskerrak bihurtzen dauzkitzut, ene Aita, zeriain eta lurrain nausia, zeen eta hok gorde baitituzu zuhurrer eta jakintzuner eta eakatsi ttipier.

26. Bai eiki, Aita, zeen eta hola nahi ukan baituzu.

27. Gauza guziak eman dauzkit ene aitak, eta nehok eztu zautzen semia, aitak bezik; eta zehok eztu zautzen aita, semiak bezik eta semiak eakutsi nahi ukan dakonak bezik.

28. Eneanat xaurte akitiak eta kargan zapatiak zauztenak, eta nik soleituko ziuztet.

29. Harrazii ene uztarria ziin soinetaat, eta kasazii eneanik ezti nizala eta bihotzez umil, eta ziin arimen sosegia atzemain duzii.

30. Ezen ene uztarria eztia da eta ene karga arina».

[HAMABIGARREN] KAPITULIA

[Ebiakoitzetan ongi eitia. Esku eihartu bat.
Deurri mutu eta itsu bat.
Farisauer eta eskribauer ihardesten.]

1. Denbora hartan Jesus bazuan oi-alor batian gaindi ebiakoitz batez. Eta haren dizipuliak gosiak baitziren, oi-buru biltzen eta jaten [hasi ziren].

2. Hori kusita, farisauek erran zakoten:

–Horra zure dizipuliak nola ai diren ebiakoitzaikin zilei ez denain eiten.

3. Bainan harek erran zeen:

–Eztuztea irakurtu Dabidek ze ein ziin, hura eta haren launak [gosetu zirelaik]?

4. Nola sartu zen Jinkoain etxian eta proposizioneko oiak jan, heen jatia etzitzakolaik zilei ez hari ez eta haren launer, bainan apezer bakarrik?

5. Edo eztuztea irakurtu legian, apezek *sabattoa* hausten dutela tenploan ebiakoitzetan, eta halaik ee ez dira hobendun?

6. [Nik] erten dauziit ba, tenploa bano haundiaoko'at dela hau.

7. Untsa [bazinakite] ze{r} erranahi diin [Jinkoain] hitz hunek: *Miserikordia nahi dut eta ez sakrifiziua*, etzinuzten behin ee kondenatuko inozentak.

8. Ezen Gizonain Semia ebiakoitzain ee nausi da.

9. Handik juan eta heen sinagogaat jin zen [Jesus].

10. Eta han aurkitu zen gizon bat eskia eihartia ziina. Eta [farisauek] galdeiten zakoten Jesusi:

–Zilei dea ebiakoitzaikin noaiten sendatzia?

Hura hutsean atzeman [n]ahiz.

11. Bainan ihardetsi zeen:

–Nor da ziin artian, ardi bat izanki ta, zilo batea [erortzen bazako] ebiakoitzaikin ez baitu hartuko eta handik aterako?

12. Zenbat ez da gizon bat ardi bat bano gehiaokoa? Beraz, zilei da ebiakoitzetan ongi eitia.

13. Ordian, gizon hari [erran zakon]:

–Heda zazu zure eskia.

Eta hedatu ziin eta berzia bezala sano bilakatu zitzakon.

14. Farisauak joan zirelaik elgarrekin aitu ziren haren kaltetan, nola behar zuten galdu.

15. Jesusek hori zautu baitziin handik urrundu zen, eta anitzak jarraiki zitzazkon eta guziak sendatu zitiin.

16. Eta etzezaten sala [manatu zeen].

17. Amoreatik eta Isaias profeta[k] errana izan zena [bete zain]:

18. *Huna ene xerbitxari hautatu duana, ene maitia zeintan atsein hartzen baitu ene bihotzak. Ene ispiitia haren gainian [zarriko'ut] eta zuzentasuna [e{a}kutsiko dee] nazioner.*

19. *Ezta hiskatuko, ez du oihuik einen eta nehok eztu aituko haren botza plazetan.*

20. *Ez du poroskatuko kanabera hautsia eta kea darion mitxa ez du itzaliko, gaaitaazi artio zuzentasunai.*

21. *Eta haren izenian nazionek esperantza ukain dute.*

22. Ordian, gaxtuak zitiin gizon bat [karri zakoten], itsia eta mutia, eta sendatu ziin hala nun mintzatzen baitzen eta {i}kusten baitziin.

23. Jende guziak harritiak zauden eta erten zuten: «Eztea hau Dabiden semia?».

24. Farisauek hori aitziaikin erran zuten:

–Ez ditu hunek deurriak kasatzen Beeltzebul deurrien aintzindariain indarrez bezik.

25. Bainan Jesusek heen gootak [zautzen baitzitiin], erran zeen:

–Bere [b]aitan nahasia den erresuma'at galduko da, eta bere [b]aitan nahasia den hiriak edo etxiak ez du iraunen ahalko.

26. [Beraz], Satanek Satan kasatzen badu, bere [b]aitan nahasia da; nola haren erresumak iraunen du?

27. Eta nik Beeltzebulen indarrez kasatzen batut deurriak, ziin haurrek noen indarrez kasatzen tuzte? Hek berak izain dira, beraz, ziin jujiak.

28. Bainan nik Jinkoain Ispiitiain indarrez kasatzen batut deurriak, jina da, beraz, ziinat Jinkoain erresuma.

29. Nola, baa, noait sar daiteke gizon azkar baten etxian hari easteko ditiin guziak, ez badu lehenik gizon azkar hura estekatzen, gero haren etxiain arroatzeko?

30. Enekin eztena ene kontra da; eta enekin biltzen ez diinak barreatzen du.

31. Hortakotz erten dauziit bekatu guziak eta blasfemia're barkatiak izain direla, bainan Ispiitu Saindiain kontrako blasfemia ez da barkatia izain.

32. Eta noait Gizonain Semeain kontra [mintzatzen bada], barkatia izain zako; bainan noait Ispiitu Saindiain kontra [mintzatzen bada], etzako barkatia izain ez mundo huntan ez eta berzian.

33. Errazii arbola una dela, haren fruitia una balin bada. Edo errazii arbola gaxtoa dela, haren fruitia gaxtoa balin bada. Zeen eta fruitutik zaun baita arbola.

34. Sube arraza! Nola mintzo ahal ziizte untsa ziauk gaixtuak izan eta? Ezen bihotzak daukanetik mintzo da ahua.

35. Gizon unak bere tresur unetik gauza unak [ateatzen tu], eta gizon gaxtuak tresor gaxtotik gauza gaxtuak [ateatzen tu].

36. [Nik] erten dauziit baa: Gizonek erten [tuzten] hitz afer guziez kondu eman beharko'ute jujamenduko eunian.

37. Zure hitzetaik izain zira [Jinkoak] untzat zautia eta zure hitzetaik izain zira kondenatia.

38. Ordian eskribau eta farisau zenbaitek erran zakoten:

–Nausia, nahi ginuke zerbait mirakulu eiten bazinauku.

39. [Jesusek] ihardetsi zeen:

–Arraza gaxto eta arneatu hunek mirakulu bat [galdeiten du] eta etzako berze mirakuluik emana izain Jonas profetain mirakulia bezik.

40. Nola *Jonas izan baitzen hiru eunez eta hiru gauez arrainain sabelian*, hala-hala Gizonain Semia izain da hiru eunez eta hiru gauez lurrain barnian.

41. Ninibetarrak xutituko dira azken jujiziuan jeneazione horren kontra eta kondenatuko'ute, zeen eta penitentzia ein baitute Jonasek preikatuta, eta huna Jonas bano gehiao dena.

42. Egordiko erreina altxatuko da azken jujiziuan jeneazione hunen kontra eta kondenatuko du, zeen eta jin baita lurrain azken bazterretik Salomonen zuhuziain aitzera, eta huna Salomon bano gehiao dena.

43. Izpiitu lohia gizon batetaik atea delaik badaila leku aorretan gaindi sosegia xekatzen diila, eta eztu atzemaiten.

44. Ordian erten du: «Itzuliko niz atea nizan etxeat». Eta jin eta [hutsa] atzemaiten du, garbitia eta apaindia.

45. Ordian badua eta berze zazpi izpiitu [hartzen tu], bera bano gaxtuauak, eta sartuta han eoiten dira; eta gizon haren azken zortia gaitzaua da lehenbizikua bano. Hori bera gertatuko zako arraza hobendun huni.

46. Oono populiai [mintzo zelaik], haren ama eta aneak kanpuan zauden eta [berarekin] mintzatu nahi zuten.

47. Eta noaitek erran zakon:

–Horra, zure ama eta aneak kanpuan daude zure galdez.

48. Bainan Jesusek ihardetsi zakon hori erran zakonari:

–Nor da ene ama eta nor dire ene aneak?

49. Eta bere eskia hedatuik bere dizipluie[anat] erran ziin:

–Huna ene ama eta ene aneak.

50. Ezen nok ee einen baitu ene Aita [zerian] denain nahia, eta hura da ene anea, arreba eta ama.

[HAMAHIRUGARREN] KAPITULIA

[Erailiain, irakain, iraka haziain,
altxaarriain, tresorrain, perlain
eta sariain parabolak.
Jesus mespretxatia bere herrian.]

1. Eun hartan berian Jesus, etxetik ateata, jarriik zaon itsas bazterrian.

2. Eta haren ingurian jende multzo bat [bildu zen] hain haundia, nun untzi bateat [irainik] han jarri baitzen. Eta populu guzia leihorrian zaun.

3. Eta anitz gauza [erran zeen] paraboletan, erten ziilaik: «Behin eraile'at eraitera [juan zen].

4. Eraiten ai zelaik, hazi puska'at bidiain gaineat [erori zen] eta zeruko txoriak [jin ziren] eta jan zuten.

5. Berze hazi puska'at leku harritsu batetaat [erori zen], nun ezpaitzen lur handiik, eta berehala sortu zen, zeen eta ezpait[zuen] lurra lodi.

6. Bainan iuzkia jeikita, erre zen eta, ez baitziin erroik, eihartu zen.

7. Berze puska'at elorripera [erori zen] eta elorriak haunditu ziren eta ito zuten.

8. Berze puska'at lur uneat [erori zen] eta bihia karri ziin, batek ehun, berziak hiruetanhooi eta berzeak hooita hamar.

9. Bearriak dittinak aitzeko, ai beza».

10. Dizipuliek, hurbilduta, erran zakoten:

–Zendako mintzo zitzee paraboletan?

11. [Jesusek] ihardetsi zeen:

–Zeen eta ziir emana baitzauzii [zeruko] erresumako mixterion zautzia, ez ordia heer {eta heer ez baitzee emana}.

12. Diinari emana izain zako eta gaindika; eztiinai kendia izain zako diin hura bera.

13. Hortakotz mintzo nitzee paraboletan: zeen eta [beiratzen] dutelaik ez baitute kusten, eta [entzuten] dutelaik ez baitute aitzen ez eta konpreintzen.

14. Eta heen baitan [betetzen da] Isaiasen profezia hau:

Ziin bearriez aitukoo'zii eta eztuzii konpreintuko, eta ziin beiez kusikoo'zii eta eztuzii kusiko.

15. *Ezen populu hunen bihotza goortia da, eta heen bearriak sortu dira, eta beiak zerratu tuzte, beldurrez eta beiez kus zezaten eta bearriez ai zezaten eta bihotzaz konprein zezaten eta, huneat itzulita, senda nitzan.*

16. Dohatsiak ziin beiak, zeen eta kusten baitute, eta ziin bearriak, zeen eta aitzen baitute.

17. Eiazki erten dauziit anitz profetek eta justiek nahi ukan dutela kusi ziik kusten duziina, eta ezpaitute ikusi; eta aitu ziik aitzen duziina, eta ezpaitute aitu.

18. Ai zazii, beraz, erailiain parabola[in erranahia].

19. Noaitek erresumako hitza [aitzen badu], eta ez untsa hartzen, ispiitu gaxtua [heldu da] eta haren bihotzean eraina zena [eremaiten du]. Hori da «bidiain gainian» eraina izan zena.

20. «Leku harritsietan» erori zena da, hitza aitzen diina eta berehala bozkarioikin hartzen diina.

21. Bainan nola ez baitu bere [b]aitan erroik, ezta apur batentzat bezik, hartakotz jiten direlaik atsegabiak eta persekutioniak hitzaingatik, berehala [eror]tzen da.

22. «Elorripian» erain izan den hazia da hitza aitzen diina, bainan gero munduko antsiek eta abeastasunen liluramendiek itotzen dute hare[n b]aitan hitza, eta fruituik gabe uzten dute.

23. Eta «lur unian» eraiten diina da hitza aitzen diina eta konpreintzen eta fruitiak karraazten, batian ehun, berzian hiruetanhooi eta berze'atian hooita hamar.

24. Berze parabola'at ee eman zeen hitz hotan: «[Zeruko] erresumak iduri du gizon bat hazi una erain duna bere alorrian.

25. Bainan haren zaintzaliak lo zaudelaik, haren etsaia jin zen eta iraka [erain ziin] oiain erdian eta giileat joan zen.

26. Haunditu zenean baa [oi-]ondoa eta burutu, iraka're [aertu zen].

27. Ordian etxeko jaunai bere sehiak [jin zitzazkon] eta erran zakoten: "Jauna, eztuzia hazi una erain zure alorrian? Nundik heldu da, baa, iraka're badela?".

28. [Harek] ihardetsi zeen: "Ene etsaiak erain du". Sehiek erran zakoten oono: "Nauzia {Nahi duzia} juan giten ateatzea?".

29. [Bainan] erran zeen: "Eztut nahi, beldurrez eta irakaikin atea dezaziin oia're.

30. Utzkizii haunditzea biltzeko tenore artio, eta ordian errain dut pailer: Atea zazii lehenik iraka eta emazii metaka erretzeko, eta gero bil zazii oia ene ganerre{r}at"».

31. Berze parabola'at eman zeen, erten zeelaik: «Zeruko erresuma mustarda bihi baten iduriko da, zeina gizon batek hartuta erain baitziin bere alorrian.

32. Hazi hura da guzietan xehena, bainan sortu denian berze belar guziak baino haundiao da eta arbola bilakatzen da, nun zeruko txoriak jiten baitira haren adarretan kokatzera».

33. Berze parabola'at ee eman zeen: «Zeruko erresumak altxaarria [iduri du], mazte'atek hartuta emaiten diina hiru izari irinetan, oe guzia altxatu artio».

34. Hok guziak paraboletan erran zitiin Jesusek populuai eta etzizakon mintzo paraboletan bezik.

35. Amoreatik [eta] profetain errana [bete zain]: *Idiikoo't ahua paraboletan, mundiain hastapenetik gordiak zauden gauzak [aertuko tut]*.

36. Ordian, populia despeituik, Jesus etxeat [jin zen], eta dizipuliak hurbildu zitzaizkon eta erran zakoten:

–Eakutsauzu {Xehazauzu} alorreko iraken parabola.

37. [Jesusek] ihardetsi zeen erten zeelaik:

–Hazi una eraiten diina Jinkoain Semia da.

38. Alorra mundia da, hazi una erresumako haurrak dira. Iraka, berriz, etsaiain haurrak.

39. Erain diin etsaia deurria da, uzta mundiain akaantza, oi pailiak, berriz, ainguriak tira.

40. Nola irakak biltzen baitira eta erretzen, hala-hala gertatuko da mundiain akaantzan:

41. Gizonain Semiak bere ainguriak [iorriko tu] eta haren erresumatik eskandalu guziak eta zuzenkontra eiten dutenak [eremain tuzte].

42. Eta suzko labeat [aurtiiko tuzte]. Han izain da niar eta horz karraska.

43. Ordian justuk iuzkiak bezala [argituko'ute] beren Aitain erresuman. Bearriak ditiinak aitzeko, ai dezala!

44. Zeruko erresumak iduri du tresor bat landa'atian gordia, zeina [gizon batek] atzeman eta gordetzen baitu, eta bozkariotan juan eta ditiin guziak [saltzen baititu] eta landa hura eosten.

45. Zeruko erresumak iduri du, oono, tratulari bat perla ederren bila dailana.

46. Bat presio haunditakoa atzeman eta, ditiin guziak [saltzen baititu] eta hura eosten.

47. Zeruko erresumak iduri du, oono, sare'at itsasoat aurtikia arrain mota guziak hartzen ditiina.

48. Bete'utenian ateatzen dute arraintzariek ubazterreat eta, han jarriik, una [hautatzen tuzte] zarian emaiteko eta zarrak aurtiitzen.

49. Bardin izain da menden akaantzan: Ainguriak jinen dira eta gaxtuak beexiko tuzte juston artetik.

50. Eta labe gorrirat [aurtiiko tuzte]. Han izain dira niar eta horz karraskak.

51. [Jesusek dizipuliei galdein zeen]:

–Hartu tuztea hok guziak?

[–Bai –ihardetsi zakoten].

52. Ordian [erran zeen]:

–Zeruko erresumain gainian argitia den eskribauak iduri du aita familiako'at bere tresorretik ateatzen ditiina gauza berriak eta zaharrak.

53. Jesus, parabola hek [akaatuta], handik [juan zen].

54. Eta bere herrira jinik, sinagogetan [eakusten ziin] eta, harrituik, jendek erten zuten: «Nundik ote tu zuhuzia hori eta ahal hori?

55. Eztea hau maaxtru baten semia? Horren ama eztea Maria deitzen? Eta haren aneak Jakes, Josef, Simon eta Judas?

56. Eta horren arrebak eztirea guziak gure artian? Nundik heldu zazko, baa, horiik guziak?».

57. Eta eskandalisatzen ziren hartaz. Bainan Jesusek erran zeen: «Profeta'at ez da ohore gabe, bere herrian eta bere etxian bezik».

58. Eta han etziin mirakulu haundiik ein, heen goortasuna zelakotz.

[HAMALAUGARREN] KAPITULIA

[Herodesek Joanes Batixta hilaazi.
Borz oien mirakulia. Jesus ur gainian oinez.
Eriak sendatiak Genesareten.]

1. Denbora hartan, Herodes erregiak Jesusen fama [aitu ziin].

2. Eta bere zerbitzarier [erran zeen]: «Joanes Batixta da hori! Hura bera da hiletaik piztia, eta hortakotz eiten dira hainberze mirakulu haren bidez».

3. Herodesek [Joanes] harraazi zin eta estekatuik ezarri presundeian, Herodiades bere aneain maztia zela kausa.

4. Joanesek erran baitzakon: «Etzauzu zilei mazte horren atxiitzia».

5. [Herodesek] hilaazi nahi baitziin, beldur zen populia[z], profeta'at bezala baitzaukaten.

6. Herodesen sor-eunian Herodiadesen alaba jantzatu zen bazkaltiarren erdian, eta Herodesi gustatu zitzakon.

7. Hainberze, nun juramentuikin hitzeman baitzakon emain zazkola galdeiten zitiin guziak.

8. Eta harek, amak erran zakon bezala, erran zakon: «Emaazu hemen untzi batian Joanes Batixtain buria».

9. Erregiai urrikitu zitzakon; bizkitartian, juramentu ein ziilakotz eta bazkaltiarrengatik, eman zezakoten [manatu ziin].

10. Eta [gizonak] iorri [zitiin], Joanes Batixtai buriain moxte[r]a presundeian.

11. Haren buria karri zakoten untzi batian eta eman nexkato hari, zeinak amai ereman baitzakon.

12. [Joanesen] dizipuliek jin eta haren gorputza ereman zuten eta ehortzi, eta Jesusi erraitera [juan ziren].

13. Jesusek hori jakin ziilaik, [handik] baztertu zen untziño'atian bakarrik leku desertu bateat. Bainan populiak jakin, eta jarraiki zitzaizkon oinez anitz hiritaik.

14. Untzitik ateata, jende multzo hura [kusi ziin] eta urrikaldu zen hetaz, eta heen eriak [sendatu zitiin].

15. Ilunaartu zelaik, [dizipuliak] hurbildu zitzazkon erraitea:

–Leku desertia da hau eta jadanik beranxko da. Despei zazu, beraz, jende multzo hori [herrietaat] juan diten jatekoain eostea.

16. Bainan Jesusek erran zeen:

–Eztute zeen juan; emeezii jatea.

17. Ihardetsi zakoten:

–Eztuu hemen borz oi bezik eta bi arrain.

18. [Jesusek erran zeen]:

–Karzkidaazii hunat.

19. Eta populia soroain gainian [jarraziik], borz oiak eta bi arrainak [hartu zitiin] eta, beiak zerurat [altxatzen zitiilaik], beneikatu zitiin; gero hautsita eman zitiin dizipulier eta dizipuliek populiai.

20. Guziek jan zuten eta hase ziren eta, hondarrak bilduik, hamabi saski [bete ziuzten].

21. Jan zutenak baziren borz mila, maztiak eta haurrak berzalde.

22. Berehala Jesusek irainaazi zitiin dizipuliak untzirat, eta aitzinian urain berzealdeat juanaazi, populia despeituko ziin artian.

23. Eta populia despeituta, mendi batera [irain zen] bakarrik otoitz eiteko. Eta atsa jin zelaik, han bakarrik [eon] zen.

24. Bizkitartian dizipuliak [itsasoain erdian ziren, eta] untzia bortizki zehatia zen uhinez, haizia kontraldekoa zelakotz.

25. Gauazko laugarren orenian, Jesus jin zitzeen, urain gainian xutik zeilala.

26. Eta itsasoain gainian [hola eiltzen kustiaikin] lotsatu ziren, eta elgarri erten zuten: «Mamu bat da!». Eta beldurrez oihu ein zuten.

27. Berehala Jesus mintzatu zitzeen eta erran zeen:

–Ez izi! Ni niz, ez izi.

28. [Petrik] ihardetsi zakon:

–Jauna, zu balin bazira, eremanaaz nezazu zureanat urain gainian.

29. Jesusek erran zakon:

–Xauri.

Eta [Petri] untzitik jeutsi ta bazailan urain gainian, Jesuseanat juaiteko.

30. Bainan haizia bortitza zela [kustiaikin] izitu zen, eta hasi baitzen [ur] barneat sartzen, uihu ein ziin:

–Jauna, atea nezazu! {Beira nezazu!}

31. Berehala Jesusek eskia hedatuik hartu ziin eta erran zakon:

–Fede ttipiko gizona! Zendako durdurikatu zira?

32. [Untzira] irain zirenian, haizia baatu zen.

33. Untzian zirenak jin zitzazkon eta adoatu zuten, erraiten zutelaik:

–Eiazki Jinkoain Semia zira!

34. Urain berzealdeat helduta, Genesareteko herriat [jin ziren].

35. Herri hartako jendek zautu zutenian, inguru hartan guzian [aiaazi zuten] eta eri guziak [karri zazkoten].

36. Eta otoizten zuten utz zezakoten bedein soinekoain heala unkitzen, eta unkitu zuten guziak sendatiak [izan ziren].

[HAMABORZGARREN] KAPITULIA

[Farisauen erranpen faltsiak.
Mazte kanaandarra. Eriak sendatiak.
Jesusek jendeai bigarren aldikotz jatea eman.]

1. Ordian, [Jerusalenetik jin ziren eskribauak eta farisauak Jesuseanat] hurbildu ziren eta erran zakoten:

2. –Zendako zure dizipuliek hausten tuzte gure aitzineko[anik] heldu zaizkiun usaiak? Ez baitiuzte eskiak garbitzen bere otordiak eitian.

3. Jesusek ihardetsi zeen:

–Zendako ziik ee hausten duzii Jinkuain manamendia, ziin usaier jarraikitzeko?

4. [Jinkuak] erran baitu: *Ohorazkitzu aita ta ama*, eta: *Aita edo ama laidostatzen diina, hil bedi.*

5. Ziik, berriz, erten duzii: Nok ee errain baitu aitai edo amai: «Nik Jinkuai eiten dakotan ofrenda baliatuko zauzu».

6. Nahiz gero ez diin ohoratzen bere aita edo ama; hola debalde ein duzii Jinkuain manamendia ziin usaia delakotz.

7. [Faltsiak]! Hala untsa asmatu baitu ziitaz Isaiasek erran [ziilaik]:

8. *Populu hunek mihiz ohoratzen nu, bainan haren bihotza eneanik urrun da.*

9. *Bainan debaldetan ohoratzen nute, gizonen erakaspenak eta maniak [eakusten dituztenaz geroz].*

10. Jesusek jendiak bereanat [deituik], erran zeen: «Ai zazii eta untsa har burian.

11. Ahuan sartzen denak ez du zikintzen gizona, bainan ahotik ateatzen denak zikintzen du gizona».

12. Ordian dizipuliak hurbiltziaikin erran zakoten:

–Baakizia farisauak aituta zuk erran duzuna eskandalisatu direla?

13. Jesusek ihardetsi zeen:

–Ene Aita zerukoak landatu eztiin landaria errotik ateaia izain da.

14. Utzkizii! Itsu dira eta itsien gidari. Eta itsu batek berze'at gidatzen badu, biak putzuat eroriko dira.

15. [Petri mintzatu zitzakon]:

–Xeha zauzu parabola hori.

16. Jesusek ihardets[i zeen]:

–Zer, oono adimenduik gabe ziiztea?

17. Eztuztea aitzen ahotik sartzen dena jeusten dela sabeleat eta gero leku gordetaat aurtikia dela?

18. Bainan ahotik ateatzen direnak bihotzetik heldu dira, eta hek zikintzen dute gizona.

19. Bihotzetik heldu baitira go{g}ota gaxtuak, gizon hiltziak, adulteriuak, lizunkeriak, ohoinguak, lekukotasun gezurrezkuak, blasfemiuak.

20. Hok tira gizona zikintzen dutenak; eskiak garbitu gabe jatiak ez du zikintzen gizona.

21. Handik Jesus Tiroko eta Sidoneko aldeat [jin zen].

22. Eta kanaandar mazte'at, alde hetaik ateaia, uihuka [hasi zitzakon]:

–Jauna, Dabiden Semia, urrikal zite nitaz! Ene alaba [deurriak] bortizki zehatia da.

23. Bainan Jesusek etzakon izpiik ihardetsi. Eta dizipuliek, hurbilduik, otoizten zuten erten zakotelaik:

–Despei zazu, gure ondotik uihuka ai baita.

24. Ihardetsi zeen:

–Eniz iorria Israelgo etxeko ardi galdietat bezik.

25. Bainan mazte hura hurbildu zen, adoatu ziin erten zakolaik:

–Jauna, laun nezazu.

26. Ihardetsi zakon:

–Ezta zuzen haurren oiain hartzia txakurrer emaiteko.

27. Harek, berriz:

–Hala da, Jauna, bainan txakur-umek jaten dute bedein beren nausien mahaitik erortzen diren poroxketaik.

28. Ordian Jesusek erran zakon:

–O, maztekia! Zure fedia haundia da. Eina izan bedi nahi duzun bezala.

Eta haren alaba sendatia izan zen ordian berian.

29. Jesus handik juan eta Galileako itsasoain ondoat [jin zen]. Mendi batea irain eta han jarri zen.

30. Jende multzo haundi[ak] jin zitzazkon, berekin kartzen zuztela mutiak, itsiak, maingiak, ebaindiak eta berze anitz eri. Haren oinetan [eman zuzten] eta sendatu zitiin.

31. Hala jende guziak harritiak [zauden] mutiak mintzatzen [kusiik], maingiak xuxen eiltzen, itsiak ikusten. Eta Israelgo Jinkua laudatzen zuten.

32. Jesusek, bereanat dizipuliak deituik, erran zeen:

–Urrikaldia niz populu huntaz, hiru eun baitute jadanik enekin daudela eta ezpaitute zer jan. Eta ez ditutu barur iorri nahi, ez diten trenpe txar bidian.

33. Dizipuliek [erran zakoten]:

–Nundik atzemain duu mortu huntan aski oi, populu haundi horren asetzeko?

34. Jesusek erran zeen:

–Zenbat oi tuzii?

–Zazpi eta arrain ñimiño zenbait [–ihardetsi zakoten].

35. Ordian populia lurrian [jarraazi ziin].

36. Eta zazpi oiak eta arrainak [hartuik] eta eskerrak bihurtuik, hautsi zitiin eta eman dizipulier, eta dizipuliek populiai [eman zuzten].

37. Guziek jan zuten eta ase ziren. Eta gelditu ziren honyarretaik zazpi saski beteik [ereman ziuzten].

38. Jan zutenak baziren lau mila gizon, haurrak eta maztekiak berzalde.

39. Eta populia despeituta, Jesus untzira [irain zen] eta Magadaneko aldeat [juan zen].

[HAMASEIGARREN] KAPITULIA

[Farisauek eta saduzearrek ikusgarri bat galdein.
Farisauen eta saduzearren altxaarria.
Petriren aitorra. Jesus bere hiltziaz mintzatu.
Bakotxak bere buriai uko ein behar.
Jesusen ondotik jin.]

1. Farisauak eta saduzearrak tentatzera [jin zitzaizkon] eta otoiztu zuten zerutikako zenbait ikusgarri eakuts zezakoten.

2. Bainan Jesusek ihardetsi zeen:

–Atsetan {Atsian} erten duzii: «Denbora ederra ukain duu, zeria gorri baita».

3. Eta goizian: «Eun denbora tzarra einen du, zeria goibel eta gorri baita». Baakizii, beraz, zeriain itxurain zautzen eta ez dakizii denboren seinalen zautzen?

4. Arraza gaxto eta arneatu hunek ikusgarri bat [galdeiten du]! Eta etzako berzeik emana izain, Jonas profetaana bezik.

Eta hek han utziik, juan zen.

5. Urain berzaldeat jin zirelaik, dizipuliek oiain kartzia [ahatzi zuten].

6. Jesusek erran zeen: «Kasu eizii, farisauen eta saduzearren altxaarritik beira ziizte».

7. Hek bere [b]aitan gogorautik erten zuten: «Hola mintzo da oiik eztuulakotz karri».

8. Jesusek hori baitzakiin, erran zeen: «Fede ttipiko gizonak, zendako ziin artian derasazii ez duziila oirik karri?

9. Eztuztea oono konpreintzen eta etziiztea ohoitzen borz oi hetaz borz mila gizonentzat eta zenbat saski goititu zinuzten?

10. Eta zazpi oi hetaz lau mila gizonentzat eta zenbat saski goititu zinuzten?

11. Zendako baa ez duzii konpreintzen ez nintzauziila oiaz mintzo erraitian: 'Beira ziizte farisauen eta saduzearren altxaarritik'?».

12. Ordian konpreintu zuten etzitzeela mintzatu oian emaiten [den] altxaarriaz, bainan ba farisauen eta saduzearren eakuspenaz.

13. Jesus [Filiperen Zesarea aldeat jin zen] eta bere dizipulier [galdein zeen]:

–Nor dela erraten dute Gizonain Semia?

14. Ihardetsi zakoten:

–Batzuk Joanes Batixta dela, berze'atzuk Elias, berzek Jeremias edo profeta zenbait.

15. Jesusek erran zeen:

–[Eta ziik] nor nizala erten duzii?

16. Simon [Petrik] ihardetsi zakon:

–Zu [Krixto] zira, Jinko biziain semia.

17. Jesusek erran zakon:

–Dohatsu zira, Simon Jona[ren semia], zeen eta ez baitauzu hori eakutsi haraiak ez odolak, bainan ba ene Aita [zerian] denak.

18. Eta nik erten dauzut [Petri] zirela eta harri horren gainian finkatuko dutala ene Eliza, eta ifernuko atek ez dutela gaaituko.

19. Zuri emain dauzkizut [zeruko] erresumako gakuak. Eta zer ee estekatuko baituzu lurrain gainian, [zerian ee] izain da estekatia, eta zer ee laxatuko baituzu lurrain gainian, [zerian ee] izain da estekatia.

20. Ordian bere dizipulier [debekatu zeen] nehori erraitia Jesukristo zela.

21. Ordutik haat Jesus hasi zen dizipulier eakusten Jerusaleneat [behar ziila juan], han behar ziila anitz sofritu hango zaharretaik eta eskribauetaik eta apez nausietaik; han hilen zutela eta hirugarren eunian piztuko zela.

22. [Petrik], Jesus beex hartuta, gaizkitu ziin eta erran zakon:

–Balin baa ez, Jauna! Etzauzu holakoik gertatuko.

23. Bainan Jesusek, itzulita, erran zakon:

–Urrunt hadi eneanik, Satan! Eskandalatzen nuk, ezpaitituk untsa hartzen Jinkoain gauzak, bainan ba gizonenak.

24. Ordian Jesusek erran zeen bere dizipulier: «Noait jarraiki nahi balin bazaut, uko ein dezala bere buriai, har dezala soinetan bere kuutzia eta jin daila ene ondotik.

25. Nok ee, baa, nahiko baitu bere buria zaindu eta harek galduko du, bainan nok ee galduko baitu bere buria eneatik eta hak atzemain du.

26. Zer prootxu du, baa, gizon batek mundu guzia idaaziik bere arima galtzen badu? Edo zer emain du gizonak bere arimain ordain?

27. Gizonain Semiak jin behar du bere Aitain lorian bere ainguriekin; eta ordian bihurtuko du bakotxai bere obren arabera.

28. Eiazki erten dauziit: Badire hemen direnetaik batzu hilen eztirenak, Gizonain Semia bere erregetasunian [jiten kusi artio]».

[HAMAZAZPIGARREN] KAPITULIA

[Jesusen gorputzain kanbiamendia. Fediain indarra.
Jesusen heriotzia bigarren aldikotz anontzatia.
Zazpi soseko zerga. Zilar peza bat arrain baten ahuan.]

1. Sei eunen burian, Jesusek [Petri] eta Jakes eta Juanes haren anea [berekin hartu zitiin] eta mendi gora batetat [ereman zitiin] ixilik.

2. Eta itxuraz kanbiatu zen heen aitzinian: haren beitartiak iuzkiak bezala [argitu ziin], eta haren soinekoak elurra bezen xuri ein ziren.

3. Eta Moises eta Elias [aertu zitzezteen], harekin mintzo zirela.

4. Ordian [Petrik] erran zakon Jesusi: «Jauna, untsa gira hemen! Ein ditzaun, otoi, hiru etxola: bat zuretako, bat Moisesen eta bat Eliasen».

5. Oono mintzo zelaik, lano argi batek [estali] zitiin, eta lano hartaik botz batek erran ziin: «Hau ene seme maitia da, zoitan eman baitut ene atsein guzia. Ai zazii [berai]!».

6. Hori aitziaikin, dizipuliak beitartez lurreat [erori ziren] eta anitz izitu ziren.

7. Bainan Jesus hurbildu zitzeen, unkitu zitiin eta erran zeen: «Xuti zizte eta ez izi».

8. Ordian beiak altxatu ta etzuten Jesus bezik kusi.

9. Menditik jeusten zielaik, Jesusek debeku bat eman zeen erten zeelaik: «Ez erran nehori're ze ikusi'uziin, Gizonain Semia hilen artetik piztu artio».

10. Dizipuliek galdein zakoten:

–Zendako, baa, eskribauek erten dute Eliasek jin behar diila lehenik?

11. Jesusek ihardetsi zeen:

–Eia da, Elias jitekoa da, eta gauza guziak untsa ezarriko tu.

12. Bainan erten dauziit Elias jadanik jin izan dela, eta eztute zautu, bainan ein dazkote nahi zuzten guziak. Halaber jasain du hetaik Gizonain Semiak.

13. Ordian ohartu ziren dizpuliak Joanes Batixtaz mintzatu zitzeela.

14. Eta Jesus populiainganat [itzuli zelaik], gizon bat [hurbildu zitzakon] belaunikatuik haren aitzinian.

15. Eta erran zakon:

–Jauna, urrikal zite ene semiaz, zeen eta ilargi-aldiak baititu eta anitz sofritzen baitu, zeen eta suat erortzen baita eta ardura ureat.

16. Zure dizipulier [ereman deet] eta ez dute sendatu ahal izan.

17. Jesusek ihardetsi zakon:

–O arraza sineste gabia eta gaxtoa! Noiz artio izain niz ziikin? Noiz artio jasain ziuztet? Karraazi haur hura.

18. Jesusek deurria [mehatxatu ziin], eta atea zen, eta haurra sendatia izan zen ordu beretik.

19. Ordian dizipuliak Jesusi xil-ixila [hurbildu zitzazkon] eta erran zakoten:

–Zendako eztuu guk ateazi ahal deurru hura?

20. Jesusek ihardetsi zeen:

–Ziin sinets goortasuna delakotz. Eiazki erten dauziit: Mustarda bihi bat bezenbat fede [bazinute], erran zinezakete mendi horri «Hail hemendik haat» eta juan liteke eta ez laiteke deus ein ahal ez dezakeziinik.

21. Deurru mota hori ez da ateazten ahal otoitzaz eta baruraz bezik.

22. Galilean zirelaik, Jesusek erran zeen: «Gizonain Semiak [emana izan] behar du gizonen eskietat.

23. Hilaaziko'ute eta hirugarren eunian [piztuko da]».

Anitz pena hartu zuten hortaz.

24. [Kafarnaunera] jin zielaik, zerga biltzaliak [Petriri] jin zitzazkon erraitera:

–Ziin nausiak eztia zerga paatzen?

25. [Harek baietz] ihardetsi zeen.

Eta [Petri] etxian sartu eta Jesus aitzindu zitzakon erraitera:

–Zer zauzu, Simon? Lurreko erregek noreanik erreziitzen dute zerga, beren haurretaik ala atzetaik?

26. Harek ihardetsi zakon:

–Atzetaik.

Jesusek erran zakon:

–Beraz, haurrek ez dute zor?

27. Bizkitartian, heen ez eskandalisatzeko, zaza itsasoat eta aurtikazu amia, eta uretaik ateakoo'zun arrainai hartuta, idiik zakozu ahua; han zilar peza'at [atzemain duzu], hartukoo'uzuna eta emain deezuna enetzat eta zuretzat.

[HEMEZORTZIGARREN] KAPITULIA

[Nor da haundiena zeruko erresuman?
Zorigaitz sinestea galtzen diinai!
Ardi galdiain parabola.
Anae arteko korrekzionia.
Barkatu etziin zerbitzariain parabola.]

1. Ordutsu hartan berian dizipuliak Jesusi [hurbildu zitzazkon] erten zakotelaik:

–Nor uste'uzu dela haundiena [zeruko] erresuman?

2. Jesusek haurño'at [deituta], heen artian [eman ziin] eta erran zeen:

3. –Eiazki erten dauziit, ez baziizte hobiaotzen eta haurño'atzu bezala bilakatzen, etziizte [zeruko] erresuman sartuko.

4. Nor ee, beraz, apalduko baita haurño hori bezala, hura da haundiena [zeruko] erresuman.

5. Eta nok ee holako haurño bat ene izenian [hartzen baitu], nihau hartzen nu.

6. Nok ee eskandalisatuko baitu ene Aita[a]n sinesten duten haurño hotaik bat, hobe luke hak eihara harri bat lepotik eman eta aurtikia izan itsaso zolaat.

7. Zorigaitz mundiari bere eskandalak direlakotz! Baitezpada eskandalak izain dira; bainan zorigaitz eskandala emaiten diinai!

8. Zure eskiak edo zure zanguak eskandalisatzen bazitu, motxazu eta aurtik zureanik urrun; hobe da zu{r}etzat bizitzian sartzia zango'atekin edo esku'atekin, ez[e]n ez bi eskiak eta bi zanguak dituzulaik aurtikia izaitia betiereko surat.

9. Eta zure beiak eskandalisatzen bazitu, atea zazu eta aurtik zureanik urrun; hobe da zu{r}etzat bei batekin bizian sartzia, ez[e]n ez bi beiekin aurtikia izaitia ifernuko surat.

10. Beira ziizte haurño hotaik baten ee mespretxatzetik! Zeen eta erten baitauziit zerian heen ainguriek kusten dutela beti ene Aita [zerian] denain beiartia.

11. Zeen eta Gizonain Semia jin baita galdia zenian bila.

12. Zer zauzii? Gizon batek ehun ardi [balima'tu] eta bat erreelatzen bazako, ze uste'uzii einen diila, ez ditia utziko lauetan hooita hemeetziak mendian, erreelatu denain bila juaiteko?

13. Eta [atzemaitia] suertatzen balin bazako, eiazki erten dauziit harek berak emaiten dakola bozkario gehiao erreelatu ez diren lauetan hooita hemeetziek bano.

14. Halaber, ziin Aita [zerian] denak eztu nahi haurño horiitaik ba[t]ño're gal dain.

15. Zure anea hobendun balin bada zure aldeat, zaza eta eakutsakozu bere hutsa xii-xila bi bien artean. Aitortzen badauzu, idaazi dukezu zure anea.

16. Ez balin bazitu aitu nahi, harkizu zurekin gizon bat edo biga, amoreatik eta *hango erran guziak izan diten bizpahiru lekukoin aitzinian*.

17. Ez balimatu hek ee aitu nahi, errozu Elizai, eta ez balimadu Eliza're aitu nahi, izan daila zuretzat pagano'at eta publikano'at bezala.

18. Eiazki erten dauziit: Lurrain gainian estekatuko dituziinak, zerian ee [estekatiak izain dira], eta lurrain gainian laxatuko dituziin guziak, zerian ee [laxatiak izain dira].

19. [Hau] ee erten dauziit: Ziitaik biga elgarreanat biltzen badira lurrain gainian, zernahi galdein dezaten ardietsia izain zee ene Aita [zerian] denainganik.

20. Zeen eta nun ee [bildiak] baitira biga edo hiru ene izenian, han niz heen artian.

21. Ordian [Petri] hurbildu zitzakon eta erran zakon:

–Jauna, zenbat aldiz barkatuko dakot ene aneai bidegabe eiten dautanian? Zazpi aldiz?

22. Jesusek erran zakon:

–Ez dauzut erten zazpi alditaano, bainan ba zazpietan hiruetan hoita hamarretaano.

23. Hortakotz zeruko erresumak iduri du erre'at bere zerbitzarier kondiak galdein nahi izan [zezteena].

24. Kondien galdeiten [hasi zelaik], bat [karri zakoten] hamar mila talendu zor zakona.

25. Bainan ez baitziin heen bihurtzeko ahalik, nausiak manatu ziin sal zezaten bere maztiaikin, bere haurrekin eta zitiin guziekin, zor haren paatzeko.

26. Zerbitzari harek, haren oinetat eroriik, otoitzten ziin erranez: «Emaazu epe puxka'at, eta itzuliko dauzut zor duana».

27. Nausia urrikaldu zitzakon sehi hari, juaite{r}a [utzi ziin] eta zorra utzi zakon.

28. Bainan zerbitzari harek, atea zen bezen laster, bere launetarik bat [atzeman ziin], ehun denario zor zakona, eta, lepotik hartuta ito hurran zaukalaik, erran zakon: «Itzulaak zor daakana».

29. Eta launak, haren oinetat eroriik, otoizten ziin erten zakolaik: «Emaazu epe puxka'at eta [guzia] itzuliko dauzut».

30. Bainan berziak etziin aitu nahi izan eta preso emanaazi ziin zor ziina itzuli artio.

31. Haren zerbitzari launek hori kustiaikin, pena haunditan sartu ziren eta gertatu ziren guziak [bere nausiai erraitea juan ziren].

32. Ordian nausiak [zerbitzaria] karraazita erran zakon: «Sehi gaxtua! [Kito] utzi naukan zor guzia, zeen eta otoiztu bainindukan.

33. Ehiina baa hik ee urrikaldu behar hire launaz, ni hitaz urrikaldu nizan bezala?».

34. Eta nausiak koleratuik eman ziin bureuen eskutan, bere zor guzia itzuli artio.

35. Hola-hola einen dauzii ene Aita zerukoak, ez ba'uzii bakotxak barkatzen ziin aneai bihotzain erditik.

[HEMEETZIGARREN] KAPITULIA

[Ezkontza eta diborziua. Birjintasuna.
Jesus eta haurrak. Gazte abeatsai dei.
Abeatsa nekez sartuko da zerian.
Guzia utzi duten dizipulien saria.]

1. Solas horiin onduan, Jesus Galileatik [juan zen] eta Judeako bazterretaat [jin], Jordaneko berze aldeat.

2. Jende multzo haundi batzuk haat jarraiki zitzazkon eta han sendatu zitiin heen eriak.

3. Farisau batzu hurbildu zitzazkon [eta], hutsian atzeman nahiz, erran zakoten:

–Zilei dea gizon bati bere mahastiain uztia, zernahi estakuruz?

4. [Harek] ihardetsi zeen:

–Eztuztea i{r}akurtu hastetik gizona kreatu diinak *gizona ta maztia* ein zitiila,

5. Eta erran ziila: *Hortakotz bere aitatama [utziko tu] eta bere maztiaikin [atxiiko du], eta biek eztute einen harai bat bezik.*

6. Beraz, ez tira biga, bainan ba harai bat. Jinkuak bildu tiinak ez ditzala gizonak beex.

7. [Galdein] zakoten:

–Zendako, be{r}az, Moisesek manatu du emaitia utzia delako argi bat eta gero uztia?

8. Jesusek ihardetsi zeen:

–Zeen eta Moisesek ziin bihotzeko goortasunai behatuz haizu ein baitauzii ziin mazten uztia; bainan hastetik etzen hola.

9. Bainan nik erten dauziit: Nok ee utziko baitu bere maztia, adulterioaz kanpo, eta berze'at hartuko, harek adulteriua eiten du; eta berze'atek utzia hartzen diinak adulteriua eiten du.

10. Dizipuliek [erran zakoten]:

–Gizonak hola ein behar badu bere maztiaikin, ezta un ezkontzia.

11. Ihardetsi zeen:

–Guziak ez tira ahaletan hitz horren hartzeko, bainan hek bakarrik, zeiner emana izan baitzee ahala.

12. Badira enukak beren amain sabeletik hala direnak, eta badira enukak gizonek halakatu dituztenak, eta badira enukak berek bere buria halakatu dutenak [zeruko] erresumain idaazteko. Hau ai dezakenak ai dezala.

13. Gero haur ttipi batzu [karri zazkoten], amoreatik eta eskiak eman zetzeen burien gainian eta otoitz ein zezan heentzat. Eta dizipuliek mehatxuz urruntzen [ziuzten].

14. Jesusek erran zeen: «Utzkizii haur horiik eta etzazkiziila giila eneanat jitetik, zeen eta holakona baita [zeruko] erresuma».

15. Eta eskiak eman zezteelaik burien gainian, handik [juan zen].

16. Ordian gizon [gazte] bat hurbildu zitzakon eta erran zakon:

–Nausi una, zer ongi ein beha'ut betiereko bizitzain ardiesteko?

17. Jesusek ihardetsi zakon:

–Zendako galdeiten daazu ze ongi ein beha'uzun? Bat bakarrik da una, Jinkua. Nahi balin ba'uzu [betiereko] bizitzian sartu, beirazkizu manamendiak.

18. [Harek] erran zakon:

–Zein?

Jesusek ihardetsi zakon:

–Eztuzu nehor hilen. Eztuzu adulterioik einen. Eztuzu ohoingoik einen. Eztuzu lekukotasun faltsuik einen.

19. *Ohorazkizu aitatama, eta zuhaun buria bezala maita zazu laun protximua.*

20. Gizon gaztiak erran zakon:

–Horiik guziak beiratu tut ene haurtasunetik; zer dut oono eskas?

21. Jesusek erran zakon:

–Perfet izan nahi ba'uzu, zaz, salzkizu dituzunak eta eman beharrer, eta tresor bat [ukain duzu] zerian; [gero] xauri eta jarraik zite eni.

22. Hori aitziaikin gizon hura triste-tristia [juan zen], anitz untasun baitziin.

23. Ordian Jesusek erran zeen bere dizipulier:

–Eiazki erten dauziit [abeatsa] nekez sartuko dela [zeruko] erresuman.

24. Berriz ee erten dauziit: Aisau sartuko da kamelu'at orratz xilotik, ezen ez abeatsa [zeruko] erresuman.

25. Hori aituta, dizipuliak anitz estonatu ziren eta erten zuten:

–Nor salbatuko ahal da, beraz?

26. Jesusek behatu zeen eta erran:

–Gizonek etzakete, bainan Jinkoak guziak ein dezazke.

27. Ordian [Petrik] ihardetsi zakon:

–Guk guziak [utzi tuu] eta jarraiki gitzauzkizu. Zer ukain duu baa?

28. Jesusek erran zeen:

–Eiazki erten dauziit: Ziik eni jarraiki ziiztenak, noiz eta're mundiain erreberritzian, Gizonain Semia jarria izain baita bere loriako tronian, ziik ee [jarriko ziizte] hamabi tronuin gainean, eta Israelgo hamabi familiak [jujatuko tuzii].

29. Eta nok ee utziak izain baititu ene izenaatik bere etxia, aneak, arrebak, aita, ama, maztia, haurrak eta alorrak, hak ehun aldiz gehiao [ukain du] eta gozatuko bizitze eternala.

30. Lehen zirenetaik anitzak izain dira azken, eta azkenak lehen.

[HOOIGARREN] KAPITULIA

[Langiliak mahastian.
Bigarren aldikotz Jesusen pasionia aipatia.
Zebedein haurrak. Zerbitzia dizipulien lege.
Jesusek Jerikon bi itsu sendatu.]

1. [Zeruko] erresumak iduri du aita familiako'at, goiz goizetik atea zena bere mahastiko langilen biltze{r}a.

2. [Langilekin] hitz hartuta diru peza'atez euneko, mahastirat [iorri zitiin].

3. Hirugarren orenian bezalatsu [berriz atea zen] eta berze'atzu [kusi zitiin], afer zaudenak plazan.

4. Erran zeen: «Zazte ziik ee ene mahastirat, eta zuzen izain dena emain dauziit».

5. Eta juan ziren.

Berriz ee [atea zen] seigarren eta beatzigarren orenian bezalatsu eta bardin ein ziin.

6. Hamekagarren orenian bezalatsu atea zen oono, eta berze'atzu [atzeman zitiin], han zaudela, eta erran zeen: «Zendako zaute hemen eun guzia afer?».

7. Ihardetsi zakoten: «Nehok ee ez baikitu hartzen». Eta erran zeen: «Zazte ziik ee ene mahastirat».

8. Atsa jin zelaik, mahastiain nausiak mutil nausiai [erran zakon]: «Karrazkitzu langiliak eta paazkitzu azkenetaik hasiik lehenetaano».

9. Hameka oonetako airian jin zienak hurbildu zielaik, bakotxak diru peza'at [ukan zuten].

10. Lehenbizikoak jin zielaik bere aldian, uste ukan zuten gehiao ukain zutela; bainan etzuten hek ee diru peza'at bezik ukan bakotxak.

11. Eta hartzian bazaasaten [gaizki] aita familikuaindako, erten zutelaik:

12. «Azken hok eztira oren bat bezik ai [i]zan eta guri bezenbat eman deezu, guk eun guziko lana eta berua [jasan duulaik]!».

13. Bainan [nausiak] hetaik bati ihardetsi zakon: «Aixkidia, eztauzut bidegabeik eiten; etzirea enekin hitz hartu diru peza'atez?

14. Harrazu zuria dena eta zaza; nik nah'ut eman azken jin huni zuri bezenbat.

15. Etzauta zilei nah'utanain eitia? Eta zure beia gaxtua dea ni una nizalakotz?».

16. Holaxet azkenak izain dira lehen, eta lehenak azken, anitz baitira deitiak eta guti hautatiak.

17. Gero Jesusek, Jerusaleneat zualaik, bere hamabi apostoliak [beex hartu zitiin] eta erran zeen:

18. «Orain baguazi Jerusaleneat, eta Gizonain Semia izain da apez nausien eta eskribauen eskietan emana, eta hiltzera kondenatuko'ute.

19. Eta paganon eskutan [emain dute] eskarniatia izaiteko eta azotatia izaiteko eta kuutzefikatia izaiteko, eta hirugarren eunian piztuko da».

20. Ordian hareanat hurbildu zen Zebedein haurren ama [bere semekin], adoatzen ziila eta zeait galdeiten zakola.

21. Jesusek erran zakon:

–Zer nah'uzu?

Hak ihardetsi zakon:

–Jarraazkitzu ene bi seme hok bat zure eskoinian eta berzia zure exkerrian, zure erresuman.

22. Jesusek erran zeen:

–Eztakizii ze galdeiten duziin. Edan dezakeztea nik edango duan kalitzetik?

–Ba baa [–erran zakoten].

23. [Ordian] Jesusek erran zeen:

–Ene kalitzetik edain duzii, bainan ene eskoinian edo exkerrian jartzia ezta eni ziir emaitia, bainan ene Aitak prepa{r}atu deetenendako da.

24. Berze hamarrek hori aitziaikin, samurtu ziren bi anae heendako.

25. Bainan Jesusek bereanat [deitu zitiin] eta erran zeen: «Baakizii nazionetako printzeak hetaz nausitzen di{r}ela, eta ahal gehiena'utenek goorki erailtzen tuztela.

26. Ezta hola izain ziin artian. Bainan nok ee nahiko baitu haundiena izan ziin artian, ziin mutil [izan daila].

27. Eta ziin artian lehen izan nahi diina, ziin esklabo [izan daila].

28. Hala nola Gizonain Semia ez baita jin xerbitxatia izaiteko, bainan ba xerbitxatzera eta bere biziain emaitera anitzen erospenetan».

29. Jerikotik ateatzen zirelaik, jende multzo haundi bat jarraiki zitzakon.

30. Eta bi itsu bidiain bazterrian [jarriak zaudenak], Jesus han izaiten zela [jakinik], uihuz hasi zitzazkon:

–Jauna, Dabiden Semia, urrikal zite gutaz!

31. Jendek mehatxatzen ziuzten xilaazi nahiz. Bainan goorau uihu eiten zuten:

–Jauna, Dabiden Semia, urrikal zite gutaz!

32. Jesus gelditu zen, deitu zitiin eta erran zeen:

–Ze nah'uzii ein dezauziitan?

33. Ihardetsi zekoten:

–Jauna, idik zauzkiuzun beiak!

34. Jesus urrikaldu zitzeen [eta beiak] hunkitu zezteen. Eta berehala kusi zuten eta jarraiki zitzazkon.

[HOITABATGARREN] KAPITULIA

[Jesus Jerusalenen Mesias bezala sartia.
Saltzaliak tenplotik kasatiak.
Pikondo eihartia: fedia eta otoitza.
Bi semein parabola. Mahastizainen parabola.]

1. [Jerusalenetik] hurbildu zirelaik eta Betfageat [jin] Olibetako mendiain ondoat, Jesusek bi dizipulu [iorri zitin].

2. Eta erran zeen:

–Zazte ziin aitzinian den herri hortara, heltzian asto'at estekatia [atzemain duzii] eta umia harekin; laxa zazii eta karraazi.

3. Eta noaitek deus ee erten badauzii, errakozii nausiak behar tiila, eta berehala utziko dauzkizii.

4. Hau guzia eiina izan zen profetain errain hau betia izaiteko:

5. *Errakozii Sionen alabai: Huna zure erregia heldu zauzu eztitasunekin, asto baten gainian [jarria] eta uztarrian denain umiain gainian.*

6. Dizipuliak juan ziren, beraz, eta Jesusek manatu zeena ein zuten.

7. Astua {Astoa} eta umia karri eta bere soinekoz estali ziuzten eta gaineat irainaazi zuten.

8. Jende multzo haundi batek ee hedatu zitiin bere soinekuak bidiain gainian; berze'atzuk arboletaik adarrak moxten ziuzten eta bidiain gaineat aurtiitzen.

9. Eta guziek batian, aitzinian zetzanek eta ondotik heldu zirenek, uihu eiten zuten:

«Agur Dabiden Semiai! Beneikatia izan daila Jaunain izenian heldu dena! Ohore eta loria zeru gorenetaano!»

10. Jerusalenen sartu zelaik, hiri guzia jeiki zen eta elgarri galdeiten zuten:

–Nor da hau?

11. Eta harekilako jendek erten zuten:

–Hau Jesus profeta [da, Galileako Nazaretekua].

12. Jesus Jinkoain tenpluan [sartu zen] eta handik ateaazi zitiin saltzale eta eosle guziak, eta diru kanbiatzalen mahaiak eta uso saltzalen alkiak aurtiki zitiin.

13. Eta erran zeen: «Ixkiriatia da: *Ene etxia otoitzain etxia deitia izain da*, eta ziik ohoin zilo'at [ein duzie]».

14. Ordian itsiak eta maingiak tenploat jin zitzazkon eta sendatu zitiin.

15. Apez nausiek eta eskribauek kustiaikin eiten zitiin mirakuliak eta haurrak uihuz zaudela tenpluan erranez «Loria Dabiden Semiai!», haundizki samurtu ziren.

16. Eta erran zakoten:

–Aitzen duzia ze erten duten?

Jesusek ihardetsi zeen:

–Ba, aitzen dut. Eztuztea i{r}akurtu: *Haurren eta bularrian diinen ahotik ukan duzu laudorioik osona?*

17. Eta hek utzita, hiritik [atea zen eta Betaniaat juan], nun gaua [paastu baitziin].

18. Bihaamun goizian hiriat itzultzen zelaik, gosetu zen.

19. Eta bidiain bazterrian pikondo'at [ikusiik], hurbildu zen eta etzakon atzeman hostoik bezik, eta erran zakon: «Behin ee eztaila fruituik atea hireanik».

Eta berehala pikondoa eihartu zen.

20. Hori kustiaikin, [dizipuliak] harritu ziren, elgarri erten zutela:

–So izii nola eihartu den berehala.

21. Ordian Jesusek erran zeen:

–Eiazki erten dauziit, fedia balin ba'uzii eta ez balin baziizte durdu{r}ikatzen, ez duzii xoilki pikonduaz einen nik ein duana, bainan oono, erten ba'akozii mendi huni: «Ken hadi hortik eta hail itsasoat», hala gertatuko da.

22. Eta [otoitzetan fediaikin] galdeiten tuziin guziak, ardietsiko tuzii.

23. Tenploat jin zelaik, apez nausiak eta Zaharrak jin zitzazkon eakusten ai zelaik, eta erran zakoten:

–Zer esku'uzu gauza horiin eiteko, eta nok eman dauzu esku hori?

24. Jesusek ihardetsi zeen:

–[Nik ee] einen dauziit galde'at, eta ihardesten badaazii, errain dauziit zer eskuz hok eiten tuan.

25. Nundikakua zen Joanesen bateiua? Zerutikakua ala gizoneanikakua?

Hek gootan zauden zaasat: «Zerutikakua dela [ihardesten badakoo], errain dau "Zendako ez duzii baa sinesten?".

26. Gizoneanikakua dela [ihardesten badakoo], populiain beldur izaiteko duu. Zeen eta Joanes baitzaukaten profeta'at bezala».

27. [Beraz], ihardetsi zakoten:

–Eztakiu.

Eta Jesusek erran zeen:

–Nik ee eztauziit errain zer eskuz eiten tuan gauza hok.

28. Zer zauzii? Gizon batek bazitin bi seme, eta gehienai mintzo zelaik erran zakon: «Semia, hail eun ene mahastirat lanian ar[i]tzera».

29. Harek ihardetsi zakon: «Eztut nahi». Bainan gero urrikituik juan zen.

30. Berziai mintzo zelaik, hala-hala erran zakon. Eta harek ihardetsi zakon: «Banua, Jauna», eta etzen juan.

31. Bietaik zeinek ein [ziin] aitain nahia?

Ihardetsi zakoten:

–Lehenak.

Jesusek erran zeen:

–Eiazki erten dauziit publikanok eta ematzarrek aintzinduko ziuztela zeruko erresumaat.

32. Joanes jin zauzii baa zuzentasuneko bidian eta eztuzii sinetsi, bainan publikanok eta ematzarrek sinetsi'ute. Eta ziik [hori] kusita etziizte urrikitan sartu, eta eztuzii sinetsi nahi [i]zan.

33. Ai zazii berze parabola'at: Bazen etxeko jaun bat mahasti bat landatu ziina; hesiz zerratu ziin eta, zilo'at einik, lako'at ein ziin eta dorre'at altxatu; han eman zitiin mahastizain batzu eta urrun [juan zen].

34. Mahats biltzeko inguru hetan, beraz, bere sehiak mahastizain[enganat] iorri zitiin, mahats biltzera.

35. Bainan mahastizainek, sehi hek hartuta, bat zehatu zuten, berzia hil, berzia berriz harrikatu.

36. Oono berze sehi batzu [iorri zitiin], lehenak bano gehiau, eta bardin ein zeeten.

37. Azkenian bere semia [iorri zeen], bere [b]aitan erten ziilaik: «Ene semiaindako berein beldur izain dira».

38. Bainan mahastizainek haren semia [kusi zutelaik], bere artian [erran zuten]: «Huna premia; xaurte, hil dezaun eta horren primantza [ukain duu].

39. Eta hartuik, mahastitik kanpoat [aurtiki zuten] eta hil zuten.

40. Mahastiain nausia [jiten delaik], zer einen ote dee mahastizain heer?

41. Ihardetsi zakoten:

–Hilaaziko tu gaxtain hek eta bere mahastia [emain du] berze mahastizain batzur, zeinek [tenorian] emain baitazkote mahatsak.

42. Jesusek erran zeen:

–Eztuztea behin ee irakurtu [E]skrituran?

Etxe-eilek bazterreat aurtiki zuten harria bilakatuko [da] etxe ixkinako harria. Jaunak eina da hau eta gure beietan miragarri da.

43. Hartakotz erten dauziit kendia izain zauziila Jinkoain erresuma eta emana izain dela fruitiak karriko tiin populu bati.

44. Eta harri haren gaineat eroriko dena lehertuko da eta noen gaineat ee eroriko baita, hura lehertuko da.

45. Eta apez nausiek eta farisauek Jesusen parabola horiik [aitziaikin], hetaz mintzo zela [zautu zuten].

46. Eta [Jesus] harraazi nahi zutelaik, populiain beldur izan ziren, zeen eta profeta'at bezala baitzaukaten.

[HOITABIARREN] KAPITULIA

[Ezteien parabola.
Zesarrena Zesarri eta Jinkoaina Jinkoai.
Hilen piztia. Legia laburzki.
Mesias Dabiden Seme eta Jaun.]

1. Paraboletan oono mintzo zelaik, Jesusek erran zeen:

2. –Zeruko erresumak iduri du errege'at, bere semiai ezteiak einai zazkona.

3. Bere sehiak ezteilierren deitzera [iorri zitiin], eta etzuten jin nahi izan.

4. Berriz iorri zitiin berze sehi batzu, erranik: «Erreezii ezteilierrer: Ene bazkaria prestatia'ut, idiak eta berze gizentaazi nitiinak hilak tut eta guziak prest'ira; xaurte ezteietat».

5. Bainan hek batee axolaik gabe juan ziren bat bere bordaat eta berzia bere tratietaat.

6. Berzek haren sehiak [hartu zuzten] eta zernahi ein onduan hil ziuzten.

7. Erregiak hori jakin, eta koleran sartu zen eta, bere armadak iorrita, gizon hiltzale hek suntsiaazi zitiin eta heen hiriak erreaazi.

8. Ordian erran tzeen bere sehier: «Ezteiak prest'ira, bainan komitatiak izan zirenak eztira digno izan.

9. Zazte, beaz, bide ixkinetat eta atzemain tuziin guziak karrazkizii ezteietat».

10. Sehiak karriketan gaindi [juan ziren] eta atzeman guziak bildu zuzten, gaxtuak eta unak, eta ezteietako lekia betia izan zen bazkaltierrez.

11. Erregia sartu zen gero bazkaltierren kusteko eta gizon bat [kusi ziin], ezteietako soinekoik gabe zena.

12. Eta erran zakon: «Aixkidia, nola sartu zira hemen ezteietako soinekoik gabe?». Eta gizon hura xii-xila gelditu zen.

13. Ordian erregek bere sehier [erran zeen]: «Esteka zazkozii eskiak eta zanguak eta kanpoko ilunbetat aurtikiaazi. Han izain da niar eta horz karraska».

14. Zeen eta anitz ba[i]tira deitiak eta guti hautatiak.

15. Ordian farisauek juan eta bere artian [ein zuten] bere hitzetan atzeman [behar zutela].

16. Eta bere dizipuliak Herodesenekin batian [iorri zazkoten] erraitera:

–Nausia, baaakiu eiazkua zirela eta Jinkoain bidia eiazki eakusten duzula eta nehoren beldurrik ez duzula, zeen eta ez baituzu gizonetan nor nor den behatzen.

17. Errauzu beraz, zer idu{r}itzen zauzu[n] hontaz: haizu dea Zesarri zergain emaitia al'ez?

18. Bainan Jesusek amarru guzia [zautu baitziin], erran zeen:

–Zendako gaizki bilatzen nauzii, [faltsiak]?

19. Eakutsaazi zergako diria.

Eta hek denario'at [eakutsi zakoten].

20. Jesusek erran zeen:

–Noona da beitarte hau eta izen hau?

21. Erran zakoten:

–Zesarrena.

Ordian Jesusek erran zeen:

–Itzulazii, beaz, Zesarrena Zesarri eta Jinkuaina Jinkuai.

22. Hori aitu zutenian estonatu ziren eta hura han utziik juan ziren.

23. Eun hartan berian saduzearrak [jin zitzazkon], zeinek ez dela hilen pizteik [erten baizuten], eta galde hau ein zakoten:

24. –Nausia, Moisesek manatu du: *Noait [haurrik gabe] hiltzen bada, haren anea ezkont daila haren maztiaikin eta bere aneai haurrak eman dezazkola.*

25. Baziren baa gure artian zazpi anea, eta gehiena ezkonduta hil zen eta, nola ez baitziin haurrik, bere maztia aneai [utzi zakon].

26. Halaber biarrena eta hirugarrena zazpiarrenaano.

27. Guzien ondotik hil zen maztia bera.

28. Hilak piztiaikin, zeinena izain da mazte hura, guziek ukan dutenaz geroztik?

29. Jesusek ihardetsi zeen:

–Makur zailtzate ez jakinez zer diren [E]skriturak eta Jinkuain ahala.

30. Hilak pizten direnian, eztute hartuko ez gizonek mazteik, ez maztek senarrik, bainan zerian Jinkuain ainguriak bezala [izain dira].

31. Hilen piztiaz denaz bezanbatian, eztuztea irakurtu Jinkuak ze erran dauziin hitz hotaz:

32. *Ni niz Abrahanen Jinkua, Isaaken Jinkua eta Jakoben Jinkua*? Jinkua ezta hilen Jinkua, bainan ba biziena.

33. Jendek hori aitziaikin, haren jakintasuna[z harritzen ziren].

34. Bainan farisauak aituta nola xilaazi zitiin saduzearrak, elgarreanat [bildu ziren].

35. Eta hetaik batek, legetan argitia zenak, bere hitzetan [atzeman nahiz galdein zakon]:

36. –Nausia, zein [da] legiain manamendu haundi[en]a?

37. Jesusek erran zakon:

–*Maitatuko'uzu zure Jinko Jauna zure bihotz guziaz, zure arima guziaz eta zure gogo guziaz.*

38. Hori da manamendietan haundiena eta lehena.

39. Biarrena horren idurikua da: *Maitatuko'uzu zure lagun protximua zure buria bezala.*

40. Bi manamendu horiitan sartzen dira lege guzia eta profetak.

41. [Farisauak] bildiak zaudelaik, Jesusek ein zeen galde hau:

42. –Zer zauzii Krixtoz? Noen semia dela?

Ihardetsi zakoten:

–Dabidena.

43. Jesusek erran zeen:

–Nola baa Dabidek, izpiitiaz mintzo delaik, deitzen du bere Jauna erranez:

44. *Jaunak erran dako ene Jaunai: Jar zite ene eskoineko aldean, nik eman artio zure etsaiak zure zangon azpiko alkitzat.*

45. Dabidek, beraz, bere Jauna [deitzen badu], nola daiteke haren semia?

46. Nehok ee etzakon ihardetsi ahal, eta ordutik haat nehor etzitzakon ausartatu deuseen galdeitera.

[HOITAHIRUGARREN] KAPITULIA

[Jesusek eskribauak eta farisauak salatu.
Jesus Jerusaleneatik aieneka.]

1. Ordian Jesus populiai eta bere dizipulier mintzatu [zetzeen].

2. –Moisesen alkian jarriak tira eskribauak eta farisauak.

3. Errain dauziiten guzia beira zaii eta eizii, bainan hek eiten dutena etzaziila ein, zeen eta erten baitute eta ez berek eiten.

4. Zama goorrak eta ezin jasaneskuak [estekatzen tuzte] eta berzer soinen gaineat zartzen, eta berek eztuzte eriaz ee hiitu nahi.

5. Bainan eiten tuzten guziak eiten tuzte gizone[k] kusiak izaiteatik; hortakotz eiltzen tuzte larru xerrendak berzek baino zaalau eta soinetako healak berzek baino luziao.

6. Bazkarietan lehen lekiak [maite tuzte] eta lehen alkiak bilkuretan.

7. Eta agurrak plazetan, eta gizone[k] «nausiak» [deitiak izaitia].

8. Bainan ziik etzaziila bila «nausiak» [deitiak izaitia], ez baituzii nausi bat bezik eta guziak aneak baitziizte.

9. Etzaziila nehor ee deit «aita», ez baituzii aita'at bezik, [zerian] dena.

10. Eta etziiztela «nausiak» [deitiak izan], zeen eta ez baituzii nausi bat bezik, Krixto.

11. Ziin artian haundiena dena izain da berzen xerbitxari.

12. Zeen eta bere buria altxatuko diina izain baita apaldia; eta bere buria apaltzen diina izain baita altxatia.

13. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Zeen eta gizoner [hesten baituzii] zeruko erresuma; etziizte sartzen zihauk ez eta uzten sartzera sartu nahi luketenak.

14. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Zeen eta alargun etxiak [iesten baitituzii] ziin otoitz luzen estakurian. Hortakotz jujamendu garratzaokua ukain duzii.

15. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Zeen eta itsasoa eta leihorra kurritzen baitituzii judu bilakatzera noait bildu nahiz; eta bildu onduan, ifernuko seme [eiten baituzii], ziik baino bietan gehiao.

16. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Erten baituzii: «Noaitek zin eiten badu tenpluaz, ez da deus; zin eiten badu, berriz, tenploko urriaz, zordun da».

17. Eruak eta itsiak! Zein da gehiaokua, urria ala urria bera saindu eiten [diin] tenplua?

18. [Erten baituzii:] «Noaitek zin eiten badu aldariaz, deusik ezta; eta zin eiten badu aldariain gainian den ofrendaz, zordun da».

19. Itsiak! Zein da haundiao, ofrenda ala ofrenda saindutzen diin aldaria?

20. Nok ee zin eiten baitu aldariaz, hartaz eiten du zin eta haren gainian diren gauza guziez.

21. Eta nok ee zin eiten baitu tenpluaz, zin eiten du hartaz beraz eta han daunaz.

22. Eta nok ee zin eiten baitu zeriaz, zin eiten du Jinkuain troniaz eta hartan jarria denaz.

23. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Ahamendian [paatzen baituzii] anitain eta kuminain detxima, eta bate ez beiratzen legeko gauzaik haundienak: zuzentasuna, urrikalmendia eta fedia! Horiik tira beiratu behar ziren gauzak, berziak bazterreat utzi gabe.

24. Aintzindari itsiak! Ziin edatekua irazten duzii uli batengatik, eta kamelu bat iesten duzii.

25. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Zeen eta basoain eta aziitain kanpoa xahutzen baituzii, barnetik betiak ziiztelaik ohoinkeriaz eta lohikeriaz.

26. Farisau itsia! Garbi zak lehenik basuain eta aziitain barnia, kanpua're izan dain garbi.

27. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Hil-zilo xuritu batzu [iduri baituzii], kanpoz eder eiten dutenak jenden beietan, eta barnian hil hezurrez eta ustelduraz [betiak baitira].

28. Hala-hala iduri'uzii kanpoz gizon zuzen batzu jenden beietan, bainan barnez ipokrisiaz eta zuzengabetasunaz [betiak ziizte].

29. Hamatgaxtuao ziintzat, eskribauak eta farisau [faltsiak]! Profetentzat tonba eiten ai ziizte eta justien tonben edertzen ai ziizte.

30. Eta erten duzii: «Gure aiten eunetan [izan bagina], ez ginitiin launduko profeten odolain xurtzen».

31. Hortakotz, zihaun lekuko ziizte, profetak hil tuztenen seme ziiztela.

32. Eta bete zazii ziik ee ziin aiten izaria.

33. Subiak, bipera arraza! Nola eskapatuko ziizte ifernuraateko jujamendutik?

34. Horra zendako iorriko dauzkiziitan profetak, zuhurrak eta eskribauak, eta hetaik batzu hilen tuzii, berziak kuutzefikatuko, beziak azotatuko ziin bilkuretan, eta hiriz hiri [perseituko tuzii].

35. Ziin gaineat xur dain odol garbi guzia, Abel justuain odoletik [hasiik] Zakarias Barakiain semiain odoleraano, zeina hil baituzii tenpluain eta aldariain artian.

36. Eiazki erten dauziit: horiik guziak jinen dira orai bizi den jenerazione hunen gaineat.

37. Jerusalen, Jerusalen, profetak hiltzen ditunana, eta hireanat iorriak zirenak harrikatzen! Zenbat aldiz nahi izan tinat bildu hire haurrak, oilo'atek bere xitak healen pian [biltzen tiin bezala], eta ezpaitun nahi izan.

38. Laster geldituko zauzii ziin etxia hutsa.

39. Erten dauziit, beraz: enuzii gehiau kusiko erran artio: *Beneikatia Jaunain izenian heldu dena*.

[HOITALAUGARREN] KAPITULIA

[Tenplua suntsitia izain da.
Azkenaren aintzineko seinaliak.
Gizonain Semiain jitia. Pikonduain parabola.
Zerbitzari una eta gaxtua.]

1. Jesus tenplotik ateata, bazuan. Eta [dizipuliak] hurbildu zitzazkon eakusteko zein ederki eina zen tenplua.

2. Bainan Jesusek erran zeen: «Kusten tuzii horiik guziak? Eiazki erten dauziit: ez da geldituko hemen harriik harriain gainian, barreatia izain ez denik».

3. Gero jarria zelaik Olibeta mendiain gainian, dizipulu batzu xilik [jin zitzazkon] erraitera:

–Errauzu, noiz gertatuko dira horiik? Eta zer seinaletaik zautuko duu zure jitea eta munduain akaantza?

4. Jesusek ihardetsi zeen:

–Kasu eizii nehok etzitzaten engana.

5. Zeen eta anitz jinen baitira ene izenian erranez: «Ni niz Krixto», eta anitz enganatuko tuzte.

6. Aitukoo'zii oono gerlaz eta gerla famaz [mintzatzen]. Bainan etziiztela kexa, horiik gertatu beharrak tira. Bainan eztiteke oono akaantza.

7. Ezen populiak populien kontra [altxatuko dira], erresumak erresumen kontra, eta izurritiak [izain dira], gosetiak eta lur-ikarak anitz lekutan.

8. Horiik guziak eztira orduko gaitzen hastiak bezik.

9. Ordian emain ziuztete tormentutan, hilaaziko ziuztete eta [natione guziek hastiatiak izain ziizte] ene izena delakotz.

10. Eun hetan anitzak izain dira eskandalisatiak; elgar salduko'ute eta elgar hastiatuko.

11. Eta anitz profeta faltsu [aertuko dira] eta anitz jende enganatuko'ute.

12. Eta gaxtakeriak gaindi einen baitu, anitzen amodiua hoztuko da.

13. Bainan azkeneraano [iraunen diina] salbatia izain da.

14. Eta erresumako ebanjelio hau mundu guzian [hedatia izain da], nazione guzier lekukotasun izaiteko. Ordian jinen da akaantza.

15. Beraz, noiz eta're kusiko baituzii desolazionezko abominazionia leku saindian, Daniel profetak erran diin bezala. Irakurtzen diinak untsa har beza.

16. Ordian Judean direnek ihes ein dezatela mendietat.

17. Teilatiain gainian dena ez daila jeuts etxetik zeaiten eremaiteko.

18. Eta alorrian dena ez daila itzul etxeat bere soinekuain hartzeko.

19. Bainan hamatgaxtuao eun hetan izorrak edo ama[ñ]o izain dire[n] maztekiendako.

20. Otoitz eizii, beraz, ziin ihesa ez dain izan neuian, ez eta ebiakoitziaz.

21. Zeen eta ordian [izain baita] aflikzione bat hain haundia, nun ez baita halakoik izan mundiain hastetik orai artio, ez eta izain ee.

22. Eta eun hek ez balira [Jinkuak] laurtiak izan, nehor ee etzen salbatuko; bainan hautatiengatik izain dira laurtiak.

23. Ordian noaitek erten badauzie «Hemen da Kristo» edo «Han da», etzaziila sinets.

24. Kristo faltsiak eta profeta faltsiak [aertuko dira] eta gauza haundiak [einen tuzte] eta mirakuliak engana artioraano, ahal balitz, hautatiak berak.

25. Huna nun aitzinetik erran dauzkitziitan.

26. Erten badauziite «Hara, mortian da», etziiztela atea; [edo] «Etxe barne-barnian da», etzaziila sinets.

27. Nola xizmixta ateatzen delaik iuzkiko aldetik aertzen baita berze bazterreaano, hala-hala izain da Gizonain Semiain jitia.

28. Nun ee [gorputza] izain baita, han bilduko dira arranuak.

29. Tribulazionezko eun hetaik berehala, iuzkia oibelduko da eta ilargiak ez du gehiau [einen] bere argia, izarrak eroriko dira zerutik eta zeruko boteriak kordokatiak izain dira.

30. Eta ordian Gizonain Semiain [seinalea zerian aertuko da]. Lurreko nazione guziak niarretan emain dira, eta *Gizonain Semia zeruko lanotan [jiten* kusiko'ute] botere eta argitasun haundi batekin.

31. Eta bere ainguriak [iorriko tu] bere tronpeta ozenekin bere hautatiak mundiain lau izkinetaik [biltzera], zeruko bazter batetik berzera.

32. Pikondotik harrazii parabola'at: Haren adarrak oono gazte direlaik eta hostuak sortzen ai direlaik, baakizii uda hurbil dela.

33. Hala-hala gauza hok guziak kusten tzuziilaik, jakin zazii jadanik atian dela.

34. Eiazki erten dauziit ez dela pasatu[ko] jeneazione hau gauza horiik gertatu gabe.

35. Zeria ta lurra paastuko dira, bainan ene hitzak ez tira paastuko.

36. Eun hura eta oren hura nehok eztazki, ez eta're zeruko ainguriek, ene Aitak bezik.

37. Noein eunetan gertatu izan zena gertatuko da Gizonain Semeain jitian.

38. Zeen eta uhaldiain aitzineko eunetan gizonak jaten eta edaten [ai baitziren], ezkontzen eta bere haurren ezkontaazten, Noe arkan sartzeko euneraano.

39. Eta [ez] baitziren bate'e ohartu uhaldia jin artio, oro suntsitu batzitiin; hala-hala izain da Jinkuain Semia jiten denian.

40. Ordian bi gizon izain dira alorrian: bat hartia [izain da] eta berzia utzia.

41. Bi mazte izain dira eihara'atian ehotzen aiko direnak: bat hartia [izain da] eta berzia utzia.

42. Iatzarriak zaute, beraz, zeen eta ez baitakizii zer tenorez jinen den ziin Jauna.

43. Jakin zazii hau: etxeko jaun batek balaki zer tenorez jinen den ohoina, iatzariik eon laiteke eta ez lezake bere [e]txia arroatzea utz.

44. Hala-hala zaute ziik ee beha, zeen eta uste ez duziinian jinen baita Gizonain Semia.

45. Zein uste'uzu dela sehi artos eta zuhurra, bere nausiak sehi guzien gaineko [zarri diina], hek tenore denian jatera emaiteko?

46. Dohatsia da sehi hura, zeina nausiak, jiten delaik, hola ai dela atzemain baitu.

47. Eiaz erten dauziit, bere untasun guzien gaineko zarriko diila.

48. Sehi gaxto harek erten badu bere bihotzian «Berantzen [du] ene nausiak jitea».

49. Eta bere sehi launen joiten [hasten bada] eta jaten eta edaten mozkorrekin,

50. Uste eztiin eunian eta eztakiin orenian [jinen da haren nausia].

51. Eta beexiko du eta gaxtainekin batian [zarriko], eta han izain dira niarrak eta horz karraskak.

[HOITABORZGARREN] KAPITULIA

[Hamar neskatoen parabola.
Talentien parabola.
Azken euneko jujamendia.]

1. Ordian zeruko erresumak iduri izain du hamar birgina, zeinak bere lanpak hartuik [senarren bideat juan baitziren].
2. Hetaik borz eruak ziren eta berze borz zuhurrak.
3. Borz ero hek bere lanpak hartzian etzuten olioik hartu berekin.
4. Bainan zuhurrek hartu zuten oliua bere untzietan lanpekin.
5. Eta nola berantzen baitzuten [senarrek] jitia, loaletu ziren oro eta lokartu.
6. Bainan gauerditan uihu haundi bat [aitu zuten]: «Huna [senarra] nun heldu den, zazte haren bideat!».
7. Ordian birgina hek guziak [jeiki ziren] eta bere lanpak prepaatu zuzten.
8. Eta erok erran zuten zuhurrer: «Emauzii ziin oliotik, zeen eta lanpak hiltzen baitzauzkiu».
9. Zuhurrek ihardetsi zeeten: «Ez, beldurrez eta ez dezaun aski ukan ziintzat eta guretzat, bainan zazte saltzale[nganat] eta beha'uziina eosaazii».
10. Eta eostera zazalaik, [senarra] jin zen; eta lanpak prest zauzkatenak sartu ziren harekin ezteietaat, eta atia hetsia izan zen.
11. Noizbait gero berze birginak [jin ziren, erten zutela]. «Jauna, Jauna! Idik zauzu!».
12. Bainan hak ihardetsi zeen: «Eiaz erten dauziit: etziuztet zautzen».
13. Zaute, beraz, iatzarriik, zeen eta ez baitakizii euna, ez eta tenoria.
14. Hala nola gizon batek, herritik urrun zualaik, deitu baitzitiin bere zerbitzariak eta bere untasunak eskietara [eman baitzeezten].
15. Eta bati borz talentu [eman zazkon], berze'ati biga eta berze'ati bat, bakotxak bere ahalain arabera, eta berehala juan zen.
16. Borz talentu ukan zitiina juan zen, beraz, eta tratian aizan heekin eta berze borz [idaazi zitiin].
17. Halaber, biga ukan zitiinak berze biga idaazi zitiin.
18. Bainan bat bezin ukan etziina lurrian zilo'aten eitera [juan zen] eta han gorde ziin nausiain diria.
19. Denbora puska'aten burian jin zen zerbitzari heen nausia eta kondutan [sartu zen] heekin.
20. Borz talentu ukan zitiina [hurbilduik], berze borz ee [eskaini zazkon], erten zakolaik: «Jauna, borz talentu [eman zinauzkitan], huna berze borz idaazi tuanak».
21. Bere nausiak [erran zakon]: «Untsa da, zerbitzari una eta artosa, zeen eta gauza gutian leial izan baitzira, anitzen gainian [zarriko zitut]; sar zite zure Jaunain bozkariuan».
22. Hurbildu zen, gero, bi talentu ukan zitiina eta erran ziin: «Jauna, bi talentu [eman zinauzkitan], huna berze biga idaazi tuanak».
23. Bere nausiak [erran zakon]: «Untsa da, zerbitzari una eta artosa, zeen eta gauza gutian leial izan baitzira, anitzen gainian [zarriko zitut]; sar zite zure Jaunain bozkariuan».

24. Ondoan jin zen talentu bat ukan ziina're, eta erran ziin: «Jauna, baakit gizon zorrotz bat zirela eta biltzen duzula erain eztuzun lekian eta hartzen eman eztuzun lekian.
25. Beldurtu niz eta juan niz eta zure talentia lurrian [gorde'ut]. Huna nun duzun zuria».
26. Bainan bere nausiak [ihardetsi zakon]: «Zerbitzari gaxtua eta aferra! Bazinakiin biltzen niila erain ez niin lekian eta hartzen eman ez niin lekian».
27. Behar ziniin, beraz, eman ene diria idaazian, jin eta hartuko bainiin enia, gaineako idaaziaikin.
28. Ken zakozii, beraz, bere talentia eta emozii hamar talentu tiinai.
29. Zeen eta diinai emana izain zako eta gaindizka [izain du]; bainan eztiinai, diila iduri diina're kendia izain zako.
30. Eta zerbitzari afer hori aurtikiaazi kanpoko ilunbetaat. Han izain da niar eta horz karraska.
31. Noiz eta're jinen baita Gizonain Semia bere maiestatian, ainguru guziak berekin ditiila jarriko da bere loriazko alkian.
32. Eta populu guziak [bilduko dira] haren aitzineat, eta batzu berzetaik [beexiko tu], hala nola arzain batek ardiak akerretaik beexten baititu.
33. Eta ardiak bere eskoinekaldian [zarriko tu] eta akerrak bere ezkerreko aldean.
34. Ordian erregek bere eskoinekor [errain du]: «Xaurte, ene Aitain beneikatiak; gauza zazii mendeen hastetik prepaatia izan zauziin erresuma.
35. Gose izan bainiz eta jatera [eman baitaazii], earri iza[n] niz eta edatera [eman daazii]; arrotz iza[n] niz eta hartu nauzii etxeat.
36. Buluzia izan niz eta aldatu nuzii; eri iza[n] niz eta kustera jin ziizte; preso nitzan eta eneanat [jin ziizte]».
37. Ordian ihardetsiko dakote justiek: «Jauna, noiz kusi zituu gosia eta eman baitauzuu jatera, earria eta eman baitauzuu eatera?
38. Noiz kusi zituu arrotz eta etxiat hartu baitzituu, edo buluzia eta estali baitzituu?
39. Eta noiz kusi zituu eri edo preso eta jin baikara zureanat?».
40. Eta erregiak [ihardetsiz errain dee]: «Eiaz erten dauziit: noiz eta're ein baitakozii ene anea ttipien hotaik bati, nihauri ein daazii».
41. Ordian errain dee ezkerrekoer ee: «Zazte eneanik urrun, madarikatiak, betiereko surat, zeina piztia izan baita Deurriaantzat eta haren aingurientzat.
42. Gose izan niz eta eztaazii eman jatea; earri izan niz eta eztaazii eman eatea.
43. Arrotz nintzan eta ez nuzii etxeat bildu; buluzia eta ez nuzii estali; eri eta preso eta etzazkiaate kustea jin».
44. Ordian ihardetsiko deete hek ee: «Jauna, noiz kusi zituu gose edo earri, edo arrotz edo buluzia, edo eri edo preso eta etzituu laundu?».
45. Hak ihardetsiko dee: «Eiaz erten dauziit, noiz ee ez baituzii ein ttipi hotaik bati, eztaazii eni're ein».
46. Eta juain dira, hok betiereko suplizio{r}at; justuak, aldiz, betiereko bizitzeat.

[HOITASEIGARREN] KAPITULIA

[Jesus nola atzemain. Mazteki batek Jesus usainez iurtzi.
Judasek Jesus saldu. Azken aufaria.
Huna ene gorputz-odolak. Petriren ukoen berri.
Jesusen pasioniain ixtoria. Petrik Jesus ukatu.]

1. Jesusek solas horiik [akaatu zitiilaik], bere dizipulier [erran zeen]:

2. «Baakizii bi eunen burian pazko einen dela eta Gizonain Semia saldia izain dela kuutzefikatia izaiteko».

3. Bizkitartian apez nausiak eta populukko zaharrak [bildu ziren] Kaifas deitzen zen apez haundiain salaat.

4. Eta elgarrekin biltzan eiten zuten Jesus amarruz atzemaiteko eta hilaazteko.

5. [Bainan] erten zuten: «Ez dezaun ein besta eunaz, beldurrez populiain artian eztain izain zerbait nahasdura».

6. Jesus [Simon lepratsiain etxian] Betanian zelaik,

7. Mazteki bat [hurbildu zitzakon] alabastrazko untzi bat eskian, olio prezio haunditako'atez betia, eta mahaian jarriik zaulaik, burutik behera [xuri zakon].

8. Hori kustiaikin, dizipuliak kexatu ziren eta erran zuten:

–Zendako hori gal?

9. Kario [sal zaiteken] eta diria beharrer [eman zaiteken].

10. Jesusek, zer zaasaten [baitzakiin], erran zeen:

–Zendako kexaazten duzii mazte hori? Hunek eni ein dautana untsa da.

11. Beharrak [beti baituzii] ziikin, bainan ni ez nuzii beti ukain.

12. Eta usain gozo hau gainera xuri dautanian, ene ehorzteko ein du.

13. Eiaz erten dauzii: nun ee barreatia izain baita ebanjelio hau mundu guzian, hunek ein diina're errana izain da hunen oroitzapenetan.

14. Ordian, Hamabietaik pat, Judas Iskariote deitzen zena, apez nausie[nganat juan zen].

15. Eta erran zeen: «Ze nahi daazii eman eta [Jesus] eskietat emain dauziit?».

Eta hek hoita hamar zilar peza [hitzeman zakoten].

16. Ordutik haat, okasione'aten bila zailan haren emaiteko heen eskutaat.

17. Altxaarri gabeko Oien lehen eunian, Jesusi [dizipuliak] hurbildu zitzazkon eta erran [zakoten]:

–Nun nah'uzu prepara dezaun bazkuain jateko behar dena?

18. Jesusek ihardetsi zeen:

–Zazte hiririat holakuainat eta errakozii: «Nausiak iortzen gitu erraitera: Ene tenoria hurbil da, zure etxeat heldu [nah'ut] bazkuain eitera ene dizipuliekin».

19. Dizipuliek Jesusek manatu zeen bezala [ein] eta bazkua [prepaatu zuten].

20. Atsa jin zelaik, mahaian jarri zen bere dizipuliekin.

21. Eta jaten ai zielaik, erran zeen:

–Eiaz erten dauziit: ziitaik batek salduko nu.

22. Haundizki [trixtatu ziren] eta hasi zitzazkon bederazka erraiten:

–Ni ote niz, Jauna?

23. Ihardetsi zeen:

–Eskia enekin batian platian emaiten diinak salduko nu.

24. Gizonain Semia badua hartaz ixkiriatia izan den bezala; bainan hamatgaxtuao Gizonain Semia saldu diinantzat! Hobe zukeen ez balitz behin ee sortu.

25. Judasek, saldu ziinak, [erran zakon baa]:

–Ni ote niz, nausia?

Jesusek ihardetsi zakon:

–Zuhauk erran duzu.

26. Afaiten ai zirelaik, Jesusek oia [hartu] eta beneikatu ziin, eta hautsi ziin eta bere dizipulier eman zeen, erten zeelaik: «Har zazii eta jan zazii; hau ene gorputza [da]».

27. [Gero], kalitza hartuta, eskerrak bihurtu zitiin eta eman zeen, erten zeelaik: «Edan zazii huntaik guziek».

28. Zeen eta hau ene odola baita, testament berrikua, [anitzentzat] xuria izain dena bekatien barkamendutan.

29. Erten dauziit, beraz, eztuala hemendik haat edain mahas ano huntaik, ene Aitain erresuman ziikin berriz edanen duan euneraano.

30. Eskerrak erran [onduan], Olibeta mendirat [juan ziren].

31. Ordian Jesusek erran zeen: «Ziik guziak gau huntan eskandalisaitiak izain ziizte eneatik. Zeen eta ixkiatia baita: *Jokoo't arzaina eta barreatuko dira ardiak*.

32. Bainan hilen artetik pizten naizelaik, ziik bano lehen juain niz Galileat.

33. [Petrik] ihardetsi zakon:

–Berze guziak eskandalisatzen badira're zureatik, ni eniz sekulan eskandalisatuko.

34. Jesusek erran zakon:

–Eiaz erten dauzut: gau huntan berian oilarrak kantatuko diin bano lehen, hiru aldiz ukatuko nuzu.

35. [Petrik] ihardetsi zakon:

–[Zurekin] hil behar banu're, etzinezazket uka.

Hala-hala erran zakoten berze dizipuliek ee.

36. Ordian Jesus heekin [jin zen] Getsemani deitzen zen herrixka'atetara, eta erran zeen dizipulier: «Zaute hemen, haaxera otoitz eitera juaiten nizan denboran».

37. Eta [Petri] eta Zebedein bi semiak [berekin hartuik, trixtatzen] hasi zen eta bihotz hersturan jartzen.

38. Ordian erran zeen: «Ene bihotza trixte da hil artio, zaute hemen iatzarriak enekin».

39. Eta aitzinaxau juanik, ahuspez lurreat [eman zen] otoitz eiten ziila hitz hotan: «Ene Aita, ahal bada, urrun daila kalitz hau eneanik. Halaikan ee, izan daila ez nik nahi bezala, bainan zuk nahi bezala».

40. Dizipuli[enganat jin zen] eta lo zaudela [atzeman zitiin, eta Petriri] erran zakon: «Ze baa, etziztea eon ahal izan iatzarriak oren bat enekin?

41. Zauzte iatzarriik eta eizii otoitz tentazionetan ez erortzeko, zeen eta izpiitia erne baita eta haraia ahul».

42. Bigarren aldikotz juan zen eta otoitz ein ziin, erten ziilaik: «Ene Aita, kalitz hau ezpadaiteke urrun nik edan gabe, ein bedi zure boondatia».

43. Itzuli zen berriz ee eta lo zaudela [atzeman zitiin], zeen eta beiak pizutiak baitziuzten.

44. Eta hek utziik, berriz juan zen otoitz eitera, hirugarren aldikotz, hitz berak erten zitiila.

45. Gero bere dizipuli[enganat jin zen] eta erran zeen: «Lo eizii orai, eta pausa ziizte. Tenoria hurbildia da, eta Gizonain Semia emana izaitea dua gaxton eskutaat.

46. Xuti ziizte, guazen, saldu behar niina hurbil da!».

47. Oono mintzo zelaik, Judas, Hamabietaik bat, jin zen, eta harekin jende multzo haundi bat ezpatekin eta makilekin apez aintzindariek eta populuko zaharrek iorriik.

48. Saltzen ziinak seinale'at eman zeen erranez: «Zeini're pot emain baitakot, hura da, har zazii».

49. Eta berehala hurbilduik Jesusi, erran zakon: «Agur, nausia!».

Eta pot eman zakon.

50. Jesusek ihardetsi zakon: «Aixkidia, zertara jin zira?».

Ordian hurbilduik, eskiak gaineat eman zazkoten eta hartu zuten.

51. Eta Jesusekin zen batek eskutan hartuik ezpata, apez nausiain zerbitzari bat [jo ziin] eta bearria moxtu zakon.

52. Ordian Jesusek erran zakon: «Emazu ezpata bere lekian, zeen eta ezpata hartzen [duten] guziak ezpataz hilen baitira.

53. Uste'uzia etzaketala otoitz ene Aita eta eztautala iorriko berehala hamabi ainguru tropa bano gehiao?

54. Bainan nola beteko da Eskritura, hola gertatu behar baita?».

55. Ordian berian Jesusek erran zakon jende multzo hari: «Ohoin bateanat bezala jin ziizte ene hartzera ezpatekin eta makilekin! Eun guziez bizkitartian ziin artian nindaun tenpluan eakusten niila, eta ez nuzii hartu.

56. Bainan hau guzia gertatu da profetek ixkiriatia betia izaiteko».

Ordian dizipulu guziek utzi zuten eta [ihes{i}] juan ziren.

57. Jesus hartu zutenek Kaifas apez nausiaanat [ereman zuten], zeinain baitan eskribauak eta zaharrak bildiak baitziren.

58. [Petri] urrundanik jarraiki zitzakon apez nausiain korleraano eta, barneat sartuik, sehiekin batian [jarri zen], gauzak zertaako ziren [kusteko].

59. Apez nausiak eta biltzar guzia lekukotasun faltsu baten bila zailtzan Jesus hilaazteko.

60. Eta etzuten atzeman, nahiz anitz lekuko faltsu aertu ziren. Azkenian bi lekuko faltsu [jin ziren].

61. Eta erten zuten: «Hunek erran du: Jinkuain tenplua [aurtik dezaket] eta hirur eunen burian berriz altxa».

62. Ordian apez haundiak erran zakon, jeikiik:

–Eztuzia deus ihardesten, hok zutaz erten dutenaz?

63. Bainan Jesus xilik zaun. Eta apez haundiak erran zakon:

–Jinko bizi denain izenian manatzen dauzut erraitiaz ea zu ziren Krixto Jinkuain Semia.

64. Jesusek ihardetsi zakon:

–[Zuk] erran duzu. Bizkitartian erten dauzut eun batez *Gizonain Semia Jinkuain maiestatiain eskoinian ſjarria eta zeruko lanon gainian jiten dela* kusiko'uzula].

65. Apez nausiak ordian bere soinekuak [urratu zitiin], erten ziilaik:

–Blasfematu du. Baduuia oono lekuko beharrik? Horra nun zihauk aitu'uziin blasfemioa.

66. Zer zauzii?

Ihardetsi zuten:

–[Heriotzia] meexi du!

67. Ordian tu ein zakoten beitarteat eta jo zuten ukumilo ukaldiz, eta berze'atzuk bearondokuak emaiten zazkoten.

68. Erten zutelaik: «Krixto, asmazak ea nok jo hiin».

69. Bizkitartian [Petri] korlian jarririk zaun eta neskato bat [hurbildu zitzakon], erten zakola:

–Zu ere Jesus Galileakuaikin zinen.

70. Bainan guzien aitzinian [ukatu ziin], erten ziilaik:

–Eztut zautzen gizon hori.

71. Nola korletik jalitzen baitzen, berze neskato'atek kusi ziin eta han zirener erran ziin:

–Hau ee Jesus nazare[t]arraikin zen.

72. Harek berriz ukatu ziin, zin einez erten ziilaik:

–Eztut zautzen gizon hori.

73. Apur baten burian han zirenak hurbildu zitzazkon eta erran zakoten:

–Eiazki zu ere hetaik zira, zure mintzuak berak salatzen zitu.

74. Ordian [Petri] arneuz eta juramentuz erten [hasi zen]:

–[Eztut zautzen gizon hori.]

Eta berehala oilarrak kantatu ziin.

75. Eta [Petri] Jesusek erran zakon hitzaz [ooitu zen]: «Oilarrak kantatu bano lehen, hiruetan ukatuko nuzu». Eta kanpoat joan eta niar ein ziin minki.

[HOITAZAZPIGARREN] KAPITULIA

[Jesus Pilatoganat eremana. Judasen heriotzia.
Jesus hiltzera kondenatia. Soldaduen trufak.
Jesus kuutzian itzatia. Jesusen heriotzia.
Jesus tonban zarria. Tonba beiratia eta ziilatia.]

1. Goiza jin zelaik, apez nausiek eta populiain arteko zaharrek [biltzar eiten zuten] Jesus hilaazteko.

2. [Gero] estekatuta ereman zuten eta eman Pontzio Pilato goornadoriain eskietan.

3. Judas, hura saldu ziina, hiltzera kondenatia zela [kustiaikin], urrikitan eman zen eta apez nausier eta zaharrer hoita hamar diru pezak [itzuli zozkaten].

4. [Eta] erran zeen:

–Bekatu ein dut, hobenik gabekuain odola [salduz].

[Bainan] ihardetsi zakoten:

–Guri zer doaku? Kusak hiauk!

5. Ordian, diria tenploan [aurtikita], giileat itzuli zen eta bere buria urkatu ziin.

6. Bainan apez nausiek, diru hura [hartuta], erran zuten: «Ezta zilei hoon emaitia tresorrian, odolain preziua baita».

7. Eta elgar aituik, eltze-eile'aten alorra [eosi zuten] arrotzen ehorzteko.

8. Hortakotz alor hura oono're *Hazeldama* [deitia da], «Odolain alorra» [erran nahi baitu].

9. Ordian izan zen betia Jeremias profetain hitz hau: *Hartu tuzte hoita hamar diru pezak, zeinak saldia izan zeniain saria [baitira] eta zeina Israelgo haurrer [eosi baitzuten].*

10. *Eta untzi-eile'aten alorraintzat [eman tuzte], Jaunak manatu zautan bezala.*

11. Jesus goornadorian aitzinian [aertu zen] eta hunek galdein zakon:

–Judien erregia zirea?

Jesusek erran zakon:

–Hala erten duzu.

12. Eta apez nausie[k] eta zaharre[k] akusatia baitzen, deus ee etziin ihardetsi.

13. Ordian Pilatok erran zakon:

–Eztuzia aitzen zenbat lekukotasun emaiten duten zure gain?

14. Bainan etzakon hitz baten gainean ee ihardetsi, hala nun goornadoria estonatia baitzaun.

15. Goornadoriak baziin usaia besta eunian populiai presunerretaik nahi ziina emaiteko.

16. Baziin ordian presuner bat aipatia, Barrabas deitzen zena.

17. Guziak bildiak zirelaik, beraz, Pilatok erran zeen:

–Zein nah'uzii eman dezauziitan, Barrabas ala Jesus Krixto deitia dena?

18. Zeen eta [bai] baitzakiin bekaizkuaz eman zutela [Jesus bere] eskutan.

19. Bere alkian [jarriik zaulaik], maztiak [jakinaazi zakon]: «Eztaila deus ee izan zure eta gizon [zuzen] horren artian, zeen eta anitz tormenta jasan baitut gaur amentsetan, hori dela kausa».

20. Apez nausiek eta zaharrek burian eman zakoten populiai Barrabasen galdeitia eta Jesusen galaaztia.

21. Goornadoriak erran zeen ordian:

–Bietaik zein nah'uzii eman dezauziitan?

–Barrabas! –[ihardetsi zakoten].

22. Pilatok erran zeen:

–Ze einen dut, beraz, Jesusez Krixto deitia denaz?

23. Guziek ihardetsi zakoten:

–Izan deila kuutzefikatia!

Goornadoriak [erran zeen]:

–Bainan ze gaizki ein du?

Eta hek uihuka zauden goorau erranez:

–Izan daila itzatia kuutzian!

24. Pilatok etziila deus idaazten [kusiik] bainan aarrotsa haunditu zela, [hura] karraazi ziin eta, [guzien aitzinian] eskiak garbitzen zitiila, erran zeen:

–Ni xahu niz [gizon zuzen] horren odoletik, ziitaz denaz kusazii.

25. Populu guziak ihardetsi ziin:

–Horren odola eror daila gure gaineat eta gure haurren gaineat!

26. Ordian [Barrabas] eman zeen. Eta Jesus azotaazita [eman zeen kuutzian itzatia] izaiteko.

27. Berehala goornadoriain soldadok [Jesus] pretorioat ereman eta, bere [soldado] laun guziak bilaazi zuzten haren ingurutat.

28. Soinekuak kenduta, kapa gorri batez estali zuten.

29. Gero arantzezko koro'at ein eta burian [zarri zakoten] eta kanabera'at eskoinian. Eta haren aitzinian [belaunikatuz], trufatzen zuten erranez: «Agur, judien erregia!»

30. Eta tu eiten zakotelaik, kanabera [hartzen zuten] eta buria joiten zakoten.

31. Hartaz jostatu onduan, kapa gorria [kendu zakoten], eta bere soinekuak eman eta, kuutzefikatzera ereman zuten.

32. Hiritik ateata, gizon bat zirendarra [atzeman zuten], Simeon deitzen zena, eta Jesusen kuutziain karreatzera [bortxatu zuten].

33. Golgota deitzen zen leku batera [heldu ziren], Kalbarioko lekura.

34. Eta [anoa] eman zakoten eatera, kirastuik. Jastatuta, etziin edan nahi izan.

35. Kuutzefikatu zuten onduan, haren soinekuak zatitu ziuzten elgarren artian xortia tiratuik, betia izan zain profetain hitz hau: *Beren artian [zatitu tuzte] ene soinekuak eta ene arropa xortian tiratu'ute*.

36. Eta jarriik beiratzen zuten.

37. Haren buriain gainian ixkirioz [eman zuten] zendako hil zuten: «Hau [Jesus] da, judien erregia».

38. Ordian harekin bi ohoin [kuutzefikatu ziuzten]: bat eskoinian eta berzia exkerrian.

39. Eta handik iraitian blasfematzen zuten, buriak eiliz.

40. Erten zutela: «Ea baa, hi Jinkuain tenplua barreatzen dukana eta berriz hirur eunez altxatzen, beira zak hire buria. Jinkuain Semia balin bahiz, jeuts hadi kuutzetik».

41. Halaber trufatzen ziren apez nausiak eskribauekin eta zaharrekin, erten zutela:

42. «Berziak beiratu tu eta bere buria etzake beira! Israelgo erregia balin bada, jeuts daila berehala kuutzetik eta sinetsiko duu hare[n b]aitan.

43. Jinkuain baitan du bere konfientzia. Jinkuak maite badu, libra dezala orai; erran du bardin: Jinkuain semia [niz]».

44. Harekin kuutzefikatiak ziren ohoinek gaizki berak erten zazkoten.

45. Euneko seigarren orenetik eta beatzigarreneaano lurra ilunbetan [izan zen].

46. Beatzigarren orenian, Jesusek uihu haundi bat ein ziin erranez: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»*. Erran nahi baita: *«Ene Jinkua, ene Jinkua, zendako utzi nuzu?»*.

47. Han zirenetaik zenbaitek hori aitziaikin erten zuten: «Elias deitzen du».

48. Eta berehala, hetaik batek laster einik, esponja'at ozpinez betia [hartu ziin] eta kanabera'aten puntan eman eta eatera emaiten zakon.

49. Berzek erten zuten: «Zaute, kus dezaun ea Elias jinen den horren libratzera!».

50. Bainan Jesusek berriz ee uihu haundi ein eta, azken hatsa eman ziin.

51. Ordian berian tenploko belua bi zatitan [urratu zen] gainetik beheraano, lurra ikaratu zen eta arrokak arraildu ziren.

52. Tonbak idiki ziren eta anitz saindien gorputzak, lo zaudenak, piztu ziren.

53. Beren tonbetaik ateraik, haren piztiain ondotik, hiri saindura [jin ziren] eta anitzek kusi ziuzten.

54. Zentenierra eta harekin zirenak Jesusen beiratzeko, lur-ikara eta gertatu ziren guziak [kusita], anitz beldurtu ziren erten zutelaik: «Gizon hau eiazki Jinkuain Semia zen!».

55. Baziren han anitz mazteki, Jesusi urrundik [Galileatik] jarraiki zitzazkonak, zerbitzatzen zutelaik.

56. Heen artian ziren Maria Madalena, eta Maria Jakobein eta Josefen ama eta Zebedein semen ama.

57. Atsa jin zelaik, Arimateako gizon abrats bat, Josef deitzen zena eta Jesusen dizipulu zena,

58. Pilatoanat [juan zen] eta Jesusen gorputza [galdein zakon]. Pilatok manatu ziin eman zezakoten.

59. Josefek, beraz, [gorputza] hartu onduan oihal xuri batez [ingurinatu ziin].

60. Eta tonba berri batian [eman ziin], arroka bizian einaazi ziina; eta [tonbaiin atera] harri haundi bat lerraazi onduan juan zen.

61. Maria Madalena eta berze Maria han ziren, jarriik zaudela tonbain onduan.

62. Bihaamunian, ebiakoitzain prepaazioniain ondokua[n], apez nausiak eta farisauak elgarrekin Pilatoana [jin ziren].

63. Eta erran zakoten:

–Jauna, ooitu gira enganatzaile horrek erran [z]iila bizi zelaik: «Hiru eunen burian piztuko niz».

64. Mana zazu, beraz, tonba beiratia izan dain hirugarren eguneaano, beldurrez eta haren dizipuliak jin diten gauaz haren eastera eta populiai erran dezaten: «Hilen artetik piztu da». Eta hola azken enganiona laiteke lehena bano haundiaokua.

65. Pilatok erran zeen:

–Bauzii guardia, zazte, beira zazii dakiziin bezala.

66. Juan ziren eta, tonbain beiratzeko, harria ziilatu zuten eta guardia eman zuten.

[HOITAZORZIGARREN] KAPITULIA

[Jesusen piztiain berri.
Soldaduak eosi.
Dizipuliak munduat iorriak.]

1. Aste hori pasatuta, ondokuain lehenbiziko euna doi-doia argitzen ai zelaik, Maria Madalena eta berze Maria tonbain kustera [jin ziren].

2. Lur-ikara haundi[a] ein zen. Jaunain ainguria jeutsi zen zerutik eta, hurbilduta, harria aldaatu ziin eta gainian jarri zen.

3. Haren itxura argi zen xixmixta bezala, eta haren jaunztura elurra bezala.

4. Izialdurak harritu zitiin zaintzailiak eta hilak bezalakatu ziren.

5. Ainguriak maztekier [erran zeen]:

–Etzaziila beldurrik ukan, zeen eta Jesus kuutzefikatia izan denain bila zailtzatela [baitakit].

6. Ezta hemen. Piztu da, erran ziin bezala. Xaurte eta kusazii nun emana izan zen Jauna.

7. Eta laster einik erreezii dizipulier: «Piztu da. Ziik bano lehen izain da Galilean, han kusikoo'zii». Aitzinetik erten dauziit.

8. Berehala tonbatik [atea ziren] beldurrekin eta bozkario haundi batekin; eta laster ein zuten berri horren dizipulier emaiteko.

9. Ordian berian Jesus aitzineat jin zitzeen eta erran zeen: «Agur!».

Hurbildu ziren, haren zanguak besarkatu ziuzten eta adoratu zuten.

10. Ordian Jesusek erran zeen: «Etziiztela izi. Zazte, erreezii ene aneer juan ditela Galileat; han kusiko nute».

11. Juan zirelaik, zaintzaletaik zenbait [hirira] jin ziren eta apez nausier [erran zeeten] zer gertatu zen.

12. Hok zaharrekin [bildu ziren] eta, elgar aituik, dirutze haundi bat [eman zeeten] soldadoer.

13. Eta erran zeeten: «Errazii haren dizipuliak jin direla gauaz eta lo zinautelaik ereman dutela.

14. Goornadoriak jakiten badu hori, apazeatuko duu eta beiratuko ziuzteu».

15. Soldadok [diria] hartuta, erran zeetena [ein zuten] eta hek barreatu zuten solas hori badau orai artio judien artian.

16. Hameka dizipuliak Galileat [juan ziren], Jesusek erran zeen mendira.

17. Eta hura kustiaikin adoratu zuten. Zenbait, bizkitartian, durdurikatu ziren.

18. Jesus, hurbilduik, hitz hootan [mintzatu zitzeen]: «Ahal guzia eman izan zaut zerian eta lurrian.

19. Juan eta, beraz, argizkizii populu guziak, bateatzen tuziilaik Aitain eta Semiain eta Ispiitu Saindiain izenian.

20. Eakusten deeziilaik nik manatu dauzkiziitan guzien beiratzen. Eta ni ziikin izain niz eun guziez, mundiain akaantzaraano».

BIZKAIERA

MATEOREN EBANJELIOA

BIZKAIERAZ

EBANJELIO SANTUBA

SAN MATEOREN ERARA

JOSE ANTONIO URIARTE

1870?

LELENGO KAPITULUBA

Jesukriston jatorrija.
Jesus zelan izan zan sortuba.
Jesusen jaijotzia.

1. Jesukristoren Dabiden semiaren, Abrahanen semiaren jatorrijaren liburuba.

2. Abrahangandik [Isaak] izan zan sortuba. Isaakgandik Jakob. Jakobgandik Judas ta bere anaijaak [izan ziran sortubak].

3. Judasgandik Fares eta Zara [izan ziran sortubak], Tamargan. Faresgandik [Esron] izan zan sortua. Erongandik Aram.

4. Aramgandik Aminabad. Aminabadgandik Naason. Naasongandik Salmon.

5. Salmongandik [Booz] izan zan sortuba, Bahabgan. Boozgandik Obed, Ruthgan. Obedgandik Jese. Eta Jesengandik Dabid erregia.

6. Dabid erregiagandik izan zen sortuba Salomon, Uriasen [emazte] izan zanagan.

7. Salomongandik Roboam. Roboamgandik Abias. Abiasgandik Asa.

8. Asagandik Josafat. Josafatgandik Joram. Joramgandik Ozias.

9. Oziasgandik Joatam. Joatamgandik Akaz. Akazgandik Ezekias.

10. Ezekiasgandik [Manases] izan zan sortuba. Manasesgandik Amon. Amongandik Josias.

11. Josiasgandik Jekonias ta bere anaijaak [izan ziran sortubak], Babilonijara judatarrak eruanak izan ziran denboran.

12. Eta Babilonijara eruanak izan ziran ezkero, Jekoniasgandik [Salatiel] izan zan sortuba. Eta Salatielgandik Zorobabel.

13. Zorobabelgandik Abiud. Abiudgandik Eliazim. Eliazimgandik Azor.

14. Azorgandik Sadok. Sadokgandik Akim. Akimgandik Eliud.

15. Eliudgandik Eleazar. Eleazargandik Matan. Matangandik Jakob.

16. Eta Jakobgandik [Jose] izan zan sortuba, Marijaren senarra, zeñegandik -Marijagandik- jaijo zan Jesus, Kristo deritxana.

17. Halan, Abrahangandik Dabidrañoko gizaldi guztijak, hamalau gizaldi; eta Dabidgandik judatarrak Babilonijara eruanak izan ziran denporaraño, hamalau gizaldi; eta Babilonijara eruanak izan ziranetik Kristoraño hamalau gizaldi.

18. Kristoren sorreria honelan izan zan: Ezkontzako berbia emonda [eguala] bere ama Marija Josegaz, alkarganatu baño lehenago, aurkitu zan sabelian ebala Espiritu Santubagandik.

19. Eta Jose bere senarrak, [justuba] zan legez, ta ez [ebanez desondrau nahi, ixillik itxi] gura izan eban.

20. Bera gogoraziño honeetan [eguala], horra nun Jaunaren aingeruba agertu jakon berari amesetan, zirautzala: «Jose Dabiden semia, ez zaite bildur izan hartuten Marija zeure emaztia; zerren beragan jaijo dana Espiritu Santubarena da.

21. [Semia] egingo dau, eta bere izena Jesus [deituko deutsazu]; zerren berak salbatuko dau bere herrija euren pekatubetatik».

22. Hau guztijau izan zan egiña betia izan zedin Jaunak bere igarliaz esan izan ebana, ziñuala:

23. *Horra donzelliak sabelian eukiko dau, eta semia [egingo dau] eta bere izena Emmanuel [deituko deutse]*, zeñek esan gura daben «Gugaz Jaungoikua».

24. Jose lotatik [jagirik], Jaunaren aingerubak [agindu eutsan legez egin eban], eta bere emaztia [hartu eban].

25. Eta ez eban [Marija] bera ezagututen bere seme lelen sortuba [egin eban artian], eta bere izena Jesus [deitu eutsan].

BIGARREN KAPITULUBA

[Maguak Jauna adoretan. Ejiptora igestia.
Belengo ume guztijak ill eragitia.
Jesusen bihurreria Israelgo herrira.]

1. [Herodes erregiaren egunetan Jesus Belen Judakuan jaio zanian, bada], horra nun Maguak eguzkijaren urteeratik etorri ziran Jerusalena.

2. Ziñuela:

–Nun da judeuben errege jaijo dana? Zerren bere izarra eguzkijaren urteeran [ikusi dogu], eta bera adoretara [gatoz].

3. Herodes erregiak [hori] entzunik, ikaratu zan eta Jerusalen guztija beragaz.

4. Eta [abade] nagusi guztijak eta herriko eskribaak [baturik, Kristo nun jaijoko ete zan itanduten eutsen].

5. Eurak esan eutsen:

–Belen Judakuan, zerren honelan dago eskribidurik igarliaren bitartez:

6. *Eta zu, Belen Judako herrija, ezelan bere ez zara txikijena Judako nagusijen artian: zerren zugandik urtengo dau Israelgo neure herrija zuzenduko daben gijarijak.*

7. Orduban Herodesek, [Maguai] ixillik deiturik, arduraz jakin eban eurakgandik ze denporatan agertu jaken izarra.

8. Eta eurak Belena [bialdurik] esan eutsen: «Zuaze, eta itaundu egizube arduraz señagaitik; eta aurkitu dagizubenian, adierazo egidazube, neuk bere etorrita adorau dagidan».

9. Eurak, erregeri [entzunik], juan ziran. Eta horra nun eguzkijaren urteeran ikusi eben izarra joian euren aurretik, harik eta seña eguan lekubaren ganera [heldurik] gelditu zan artian.

10. [Izarra] ekusi ebenian, poz guztiz handi bategaz [poztu ziran].

11. Etxian [sarturik], seña bere ama Marijagaz [aurkitu eben], eta ahuzpazturik adorau eben. [Gero] euren utxaak [idigirik, oparijak] eskiñi eutsezan: urria, intzentzua ta mirra.

12. Eta [Herodesgana ez bihurtuteko erantzueria lotan] harturik, beste bide batetik bihurtu ziran euren herrira.

13. Eurak juan ezkero, horra nun Jaunaren aingeruba agertu jakon lotan Joseri, ta esan eutsan: «Jagi zaite, eta hartu egizu umia eta bere ama, eta iges egizu Ejiptora, eta egon zaite han neuk esan dagizudan artian. Zerren jazoko da Herodesek billatutia umia bera galduteko».

14. [Bera jagirik, umia] hartu eban ta bere ama gabaz, eta aldendu zan Ejiptora.

15. Eta han egon zan Herodes ill zan artian, Jaunak igarliaren bitartez [esan ebana bete zedin], zeñek diñuan: *Ejiptotik deitu neutsan neure semeari.*

16. Orduban Herodesek, Maguak burlauba izan zala [ikusirik, haserre handi bat] hartu eban, eta bialdurik ill eragin zituzan Belenen ta bere alberri guztijetan egozan ume guztijak urte bitik beherakuak, Maguakgandik jakin eban denporiaren erara.

17. Orduban bete zan Jeremias igarliaren bitartez [esan zana], zeñek diñuan:

18. *Boza izan zan entzuna Raman, negarra ta ulu handijak: Rakel negarrez bere semiakgaitik, eta ez eban izan nahi gozatuba, zerren ez diran.*

19. [Herodes] ill ezkero, horra nun Jaunaren aingeruba agertu jakon lotan Joseri Ejipton,

20. Zirautsala: «Jagi zaite, eta hartu egizu umia ta bere ama, eta zuaz Israelgo herrira, zerren illak dira umiaren arimia [billatuten ebenak]».

21. Bera jagirik, umia [hartu eban] ta bere ama, eta Israelgo herrira [etorri zan].

22. [Baña Arkelaok Judean Herodes bere aitaren lekuan agintetan ebala entzunik], bildur izan zan hara juaten; eta [lotan adierazua izanik, Galileako herrijetara aldendu zan].

23. Eta etorririk, Nazaret deritxan huri baten [bizi izan zan]; betia izan zedin igarlen bitartez esan izan zana: *Nazareua izango dala deituba.*

HIRUGARREN KAPITULUBA

[Juan Batiatzallak Jesusen bideaurrekuak predikatu.
Agiraka fariseuai ta saduzeuai.
Jesus batiatuba.]

1. Egun hareetan [Juan Batiatzalla etorri zan, Judeako eremuban prediketan ebala].
2. Eta ziñuala: «Penitenzija egizube, zerren hurreratu da [zeruko] erreinuba».
3. Bada hau da [esana] izan zana Isaias igarliaren bitartez: *Eremuban diadar egiten dabenaren boza: Prestau egizube Jaunaren bidia, zuzenak egizubez bere bide-ziorrak.*
4. Juanek berak eukan ganbeluben ulezko soñekua, eta narruzko ugala bere gerrijan; eta bere janarija langostaak [ziran] eta basaeztija.
5. Orduban urteten eban beragana Jerusalenek eta Judea guztijak, eta Jordan inguruko herri guztijak.
6. Eta batiatubak ziran haren eskuz Jordanen konfesaurik euren pekatubak.
7. [Bere bautismura] fariseo eta saduzeo asko etozala [ikusirik], esan eutsen:
–Ziraunen kastia! Nok erakutsi deutsube iges egiten etorriko dan haserretik?
8. Egizube bada penitenzijaren diñako frutuba.
9. Eta ez egizube nahi esan zeuben barruban: «Abrahan aita daukagu». Zerren dirautsubet ahaltsua dala Jaungoikua harri honeetatik jasoteko semiak Abrahani.
10. Zerren honezkero imiñirik dago azkoria zugatzen sustraijan. Frutu ona egiten ez daben zugatz guztija, ebagija ta sutara botia [izango da].
11. Nik egijaz batiatuten zaitubedaz urian penitenzijarako; baña nire ondorik etorriko dana, ni baño senduagoa da, zeñen oñetakuak eruateko diña ez naz ni; berak batiatuko zaitube Espiritu Santuban ta suban.
12. Eskuban dauka bere sardia, eta [bere larriñia ondo] garbituko dau, eta bere garija garitegijan [batuko dau], eta lastuak erreko ditu amatau ezingo dan [suban].
13. Orduban Jesus Galileatik Jordana [etorri zan] Juangana, honek batiatuba izateko.
14. Baña Juanek eragozten eutsan, esanez:
–Nik izan bihar dot zuk batiatuba, eta zu zatoz nigana?
15. Erantzunik Jesusek esan eutsan:
–Itxi egizu orain, zerren honelan jaoku guri betetia zuzentasun guztija.
Orduban itxi eutsan.
16. [Jesus] batiatuba izanik, berihala igon eban uretik. Eta horra non idigi [jakon zeruba], eta Jaungoikuaren espirituba usua legez [jatzitzen zala ikusi eban], eta bere ganera [etorrela].
17. Eta horra hemen boza zeru[tik] ziñuana: «Hau nire seme maitia [da], zeñegan daukadan neure atsegin guztija».

LAUGARREN KAPITULUBA

[Jesusen barua eta tentaziñoa. Jesus Kafarnauna.
Jesusek hasieria emon predikaziñoiari.
Jesusek ikaslei deitu. Jesus geixoak osatuten.]

1. Orduban Jesus [Espiritubak] eruana izan zan eremura, diabruak tentauba izan zedin.
2. Eta berrogei egunetan eta berrogei gautan [baru eginik], gero gose izan zan.
3. Eta beragana tentalarija [heldurik], esan eutsan:
–Jaungoikuaren semia [baldin bazara], esan egizu harri honeek ogi bihurtu ditezela.
4. Berak erantzun ta esan eutsan:
–Eskribidurik dago: *Ez da bizi gizona [ogiaz bakarrik], ezpada Jaungoikuaren ahotik urteten daben berba guztijaz.*
5. Orduban diabruak [hartu ta huri santura] eruan eban eta elexako galjurrian [imiñi eban].
6. Eta esan eutsan:
–Jaungoikuaren semia [baldin bazara], bota zaite behera. Zerren eskribidurik dago: *Bere aingerubai zugaitik [agindu eutsela], eta eskubetan hartuko zaitube estropezu egin ez dagizun harrijan zeure oñagaz.*
7. Jesusek esan eutsan:
–Baita bere eskribidurik dago: *Ez dozu tentauko zeure Jaun Jaungoikua.*
8. Barriro hartu eban diabruak eta mendi guztiz altu batera [eruan eban]; eta munduko erreñu guztijak [erakutsi eutsazan] eta euren gloria.
9. Eta esan eutsan:
–Honeek guztijok zeuri emongo deutsudaz, baldin ahuzpazturik adoretan banozu.
10. Orduban Jesusek esan eutsan:
–Jua[n] hadi, Satanas! Zerren eskribidurik jagok: *Zeure Jaun Jaungoikua adorauko dozu, eta bera bakarrik serbiuko dozu.*
11. Orduban [diabruak] itxi eutsan, eta horra nun aingerubak heldu ziran, ta serbietan eben.
12. Juan [presondegijan eguala entzunik, Jesus Galileara] aldendu zan.
13. Eta Nazaretko hurija [itxirik] etorri zan, ta Kafarnaun itxasbazterrekuan [bizi izan zan], Zabulon ta Naptaliren mugetan.
14. Betia izan zedin Isaias igarliak esan ebana:
15. *Zabulongo herrija ta Neptaliko herrija, itxasorako bidia Jordango beste aldian Galilea jentillena.*
16. *Illuntasunetan jarririk eguan herrijak argi handi bat [ikusi eban], eta herijotziaren kerizako lurrian [jarririk egozanai], argija jaijo jaken.*
17. Ordutik prediketan [hasi zan] Jesus ta esaten: «Penitenzija egizube, zerren [zeruko erreñuba hurreratu da]».

18. Galileako itxasu[tik hurrian ebillela], anaija bi [ikusi zituzan]: Simon, Pedro deritxana, eta Andres bere anaijia, saria itxasuan [botaten -zeren arrantzallaak ziran-].

19. Eta esan eutsen: «Erdube neure ondorik, eta egingo dot zeubek izan zaitezela gizonen arraintzallaak».

20. Eta eurak, berihala itxirik sariak, jarraitu eutsen.

21. [Handik aurrerago juanik], beste anaija bi [ikusi zituzan], Santiago Zebedeorena eta Juan bere anaijia txalupan Zebedeo euren aitagaz, euren sariak [adabetan ziardubela], eta deitu eutsen.

22. Eta eurak, bertatik itxirik sariak eta aita, jarraitu eutsen.

23. Jesusek Galilea guztija [inguratuten eban], euren sinagogetan [erakusten ebala, eta erreiñuko ebanjelijua [prediketan ebala], eta gatx guztija [osatuten ebala] ta geixo guztija herrijan.

24. Bere entzutia Siria guztitik [zabaldu zan], eta txarto egozan guztijak [ekarri eutsezan]: gatx ta oñazen batzubekaz hartubak, demonioak eukezanak, alditsubak eta perlesijadunak eta osatu zituzan.

25. Eta Galileatik, Dekapolistik, Jerusalendik, Judeatik eta Jordanez beste aldetik [jente aldra askok jarraitu eutsen].

BOSTGARREN KAPITULUBA

[Jesusen berbaldia mendian. Zorijontasunak.
Munduantzat gatza ta argija.
Jesus eta legia. Haragizko pekatuba.
Maitatu etsaiak.]

1. Jesusek jente aldrak [ikusirik, mendira] igon eban eta, jarri ezkero, [bere ikaslaak beragana hurreratu ziran].

2. Eta bere ahua [idigirik], irakasten eutsan, ziñuala:

3. –Zorijonekuak espirituz pobriak, zerren eurena da [zeruko] erreiñuba.

4. Zorijonekuak otsanak, zerren eurak menpetuko dabe lurra.

5. Zorijonekuak negar egiten dabenak, zerren eurak izango dira poztubak.

6. Zorijonekuak zuzentasunaren gosia ta egarrija daukenak, zerren eurak izango dira asiak.

7. Zorijonekuak errukiorrak, zerren eurak jaritxiko dabe errukija.

8. Zorijonekuak bijotz garbikuak, zerren eurak ikusiko dabe Jaungoikua.

9. Zorijonekuak baketsubak, zerren Jaungoikoaren semiak [izango dira deituak].

10. Zorijonekuak [zuzentasunagaitik esetsija igaroten dabenak], zerren eurena da [zeruko] erreinuba.

11. Zorijonekuak zare madarikatuten zaitubezanian, eta esetsiten deutsubenian, eta [zubekgaitik txar guztija esaten dabenian], guzurraz, nigaitik.

12. Poztu eta gozatu zaiteze, zerren zuben sarija ugarija da [zeruban. Igarlai be] honelan esetsi eutsen, zubek baño lehenago izan ziranai.

13. Zubek zare lurreko gatza. Eta baldin gatza gezatuten bada, zegaz izango da gazituba? Ez dau balijo ezetarako gehijago, ezpada [kanpora botia izateko] eta gizonak ostikopetuteko.

14. Zubek zare munduko argija. Ezin izan leiteke ezkutauba mendijaren ganian imiñirik daguan hurija.

15. Ez dabe bere ixiotuten argija, imillaunaren azpijan [iminteko], ezpada kandeleruaren ganian, argi egin dagijuen etxian dagozan guztijai.

16. Honelan argi egin begi zuben argijak gizonen aurrian, zuben egite onak [ikusi dagijezan] eta zuben Aita [zeruban daguana alabau dagijen].

17. Ez egizube uste izan [legia indargatutera etorri nazala], edo igarlaak: ez naz etorri indargatutera, ezpada betetara.

18. Zerren egijaz dirautsubet, zeruba eta lurra [igaro artian], jota bat ez izpi bat ez dala igaroko legetik, guztija egin artian.

19. Horregaitik, agindu guztiz txiki honeetatik bat [hausiten dabena eta gizonai halan erakusten deutsena], guztiz txikija izango da deituba [zeruko] erreinuban; baña egiten dabena ta erakusten dabena, hau handija izango da deituba [zeruko] erreinuban.

20. Zerren [nik] dirautsubet: ez bada ugarijagua zuben zuzentasuna eskribaena eta faresijuena baño, ez zare sartuko [zeruko] erreinuban.

21. Entzun zenduben [antxiñakuai] esan jakela: *Ez dozu ilgo*, eta hilten dabena auziepalliaren erabagijaren errudun [izango da].

22. Baña nik dirautsubet bere anaijiagaz haserratuten dan guztija auziepalliaren erabagijaren errudun [izango da]. Eta bere anaijiari *[«erua»* esaten deutsana, batzarraren errudun izango da]. Eta *«erua»* esaten deutsana, suzko lekubaren errudun [izango da].

23. Baldin [badiarduzu, bada, zeure oparija altaran eskintzen], eta han gomutauko balitxazu zeure anaijiak zerbait [daukala] zeure gatxian,

24. Itxi egizu han zeure oparija altariaren aurrean, eta zuaz lehenago baketutera zeure anaijiagaz; eta orduban etorririk eskiñiko dozu zeure oparija.

25. Oben egijozu zeure arerijuari laster zagozanian bidian beragaz: imiñi ez zagizan arerijuak auziepalliaren mendian, eta auziepalliak imiñi ez zagizan borrerubaren mendian, eta presondegian sartuba [izan ez zaitian].

26. Egijaz dirautsut, ez dozula urtengo handik, azkenengo zurikua [bihurtu dagizun artian].

27. Entzun zenduben [antxiñakuai] esan jakela: *Ez dozu haragizko pekaturik egingo besteren emaztiagaz.*

28. Bada nik dirautsubet: [emakumiari] begiratuten deutsan guztijak, bere gurari txarragaz, haragizko pekatuba egin dau beragaz bere bijotzian.

29. Eta baldin zeure eskumako begijak pekatuban jausi eragin nahi badeutsu, atera egizu eta bota egizu zeugandik: zerren hoba dozu galdu dedilla zeure zentzunetatik bat, zeure gorputz guztija [infernura] botia izan baño.

30. Eta baldin zeure eskumako eskubak pekatuban jausi eragin nahi badeutsu, ebagi egizu eta bota egizu zeugandik; zerren hoba dozu galdu dedilla zeure zetzunetatik bat, zeure gorputz guztija [infernura] botia izan baño.

31. Baita bere esan zan: *Bere emaztia itxiten daben edozeñek, emon begijo itxijaren agirija.*

32. Baña nik dirautsubet: Bere emaztia itxiten daben guztijak, haragizko pekatubagaitik [ez izanik, haragizko pekatuba eragiten deutsa; eta itxija hartuten dabenak haragizko pekatuba egiten dau].

33. Honezaz ganera entzun zenduben [antxiñakuai] esan jakela: *Ez dozu guzurragaz juramenturik egingo, eta beteko deutsazuz Jaunari zeure juramentubak.*

34. Baña nik dirautsubet ezelan bere ez egiteko juramenturik, *ez zerubagaitik, Jaungoikuaren jarlekuba dalako.*

35. Ez lurragaitik, bere oñen aulkija [dalako]; *ez Jerusalengaitik, errege handijaren hurija [dalako].*

36. Ez egizu bere juramenturik egin zeure burubagaitik, zerren ezin ziñaike egin [zeure] ule bat zurija edo baltza.

37. Izan bedi, bada, zuen berbetia «bai», bai [bada]; «ez», ez [bada]; zerren honeek baño ugarijago dana, Txarretik datorrena da.

38. Entzun zenduben esan zala: *Begija begijagaitik, ta agiña agiñagaitik.*

39. Baña nik dirautsubet ez jarkiteko txarrari; ezpada baldin iñok joten bazaitu zeure eskumako matrallan, emon egijozu bestia bere.

40. Auzitan imiñi gura zaituzanari, eta zeure tunikia hartu, itxi egijozu kapia bere.

41. Eta iñok [kargaurik] bazaruaz milla pausutan, zuaz beragaz beste millatan.

42. Emon egijozu eskatuten deutsunari, eta [epian eskatu] gura deutsunari, atzia emon.

43. Entzun dozube esan zala: *Maitetuko dozu zeure lagun hurkua, eta gorroto eukiko deutsazu zeure arerijuari.*

44. Baña nik dirautsubet: Maitetu egizubez zeuben arerijuak, egijezube on gorroto deutsubenai: erregutu egizube esesten deutsubenakgaitik, eta guzur handijak asmetan deutsubezanak gaitik:

45. Izan zaitezen zeuben Aita [zeruban] daguanaren semiak, zeñek bere eguzkijari jaijo eragiten deutsan onen ta txarren ganera, eta eurija egiten dau onen eta txarren ganera.

46. Zerren baldin maitetuten badituzube maite zaitubenak, ze sari eukiko dozube? Ez al dabe [hori] egiten publikanuak bere?

47. Eta agur egiten badeutsazube zeuben anaijai bakarrik, zer gehijago egiten dozube? Ez al dabe [hori] egiten jentillak bere?

48. Izan zaiteze, bada, zeubek guztiz onak, hala zelan zeuben Aita zerukua bere dan guztiz ona.

SEIGARREN KAPITULUBA

[Limosnia. Aita Guria erreguba.
Ondasunak zeruban batu.
Jaungoikua ala dirua.
Ez gaitezala larritu jatekuagaitik.]

1. Begiratu egizube ez dagizubela egin zeuben zuzentasuna gizonen aurrian, eurak ikusi zagijezan; bestelan saririk ez dozube eukiko zeuben Aita [zeruban] daguanagan.

2. [Limosnia] egiten dozunian, bada, ez egizu tronpetia jo eragin zeure aurrian hipokritaak [sinagogetan eta auzotegijetan] egiten daben legez, gizonak ondrau dagijezan. Egijaz dirautsubet: hartu eben euren sarija.

3. Baña zuk [limosna] egiten dozunean, ez begi jakin zure ezkerrak zer egiten daben zure eskumiak:

4. Zure limosnia ezkutuban [izan dedin], eta zure Aita [ezkutuban] dakusanak bihurtuko deutsu.

5. Eta erregu egiten dozubenian, ez zare izango hipokritaak legez, zeintzubek nahi ohi daben erregu egitia zutunik sinagogetan, ta kaleetako kantoietan, gizonak ikusi dagijezan. Egijaz dirautsubet: hartu eben euren sarija.

6. Baña zuk erregu egiten dozunian, sartu zaite zeure gelaan, eta itxirik atia, erregutu egijozu zeure Aitari ezkutuban, eta zure Aita [ezkutuban] dakusanak dihurtuko deutsu.

7. Eta erregubak egiten diarduzubenian, ez eikezube berba asko egin, jentillak legez. Zerren uste dabe berba asko egiñaz entzunak izango dirala.

8. Ez zaitekeze, bada, eurai iruditu. Zerren zuen Aitak [badaki] zeren premiñia daukazuben, [berari] eskatu baño lehenago.

9. Zubek, [bada, honelan] erregutuko dozube: «Aita guria, zerubetan zagozana, santifikadu bedi zure izena.

10. Betor gugana zure erreiñuba. Egin bedi zure borondatia, zelan zeruban, halan lurrian.

11. Geure ogi izatez ganetikua emon egiguzu gaur.

12. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez.

13. Eta ez egiguzu itxi jausten tentaziñoian, baña libradu gagizuz gatxetik. Halan izan dedilla».

14. Zerren [gizonai euren pekatubak] parkatuten badeutsezubez, zeubei bere [parkatuko deutsezubez] zeuben Aita zerukuak zeuben pekatubak.

15. Baña baldin ez badeutsezubez [gizonai] parkatuten, zeuben Aitak bere ez deutsezubez parkatuko zeuben pekatubak.

16. Eta baru egiten dozubenian, ez zaiteze egon triste hipokritaak legez. Zerren euren arpegijak [itxusitute ditube, baru egiten debela gizonai] ikusi eragiteko. Egijaz dirautsubet hartu ebela euren sarija.

17. Zuk, [barriz], baru egiten dozunian, untau egizu zeure buruba eta zeure arpegija garbitu egizu.

18. Baru egiten dozula [gizonai ez agertuteko, ez bada zeure Aita ezkutuban] daguanari; eta zeure Aita [ezkutuban] ikusten dabenak bihurtuko deutsu.

19. Ez egizubez batu ondasunak zeubentzat lurrian, nun ugarrak eta sitsak desegiten ditubezan, eta nun lapurrak [lurpetik] ateraten ditubezan eta ostuten.

20. Ezpada batu egizubez zeubentzat ondasunak zeruban, nun ez ugarrak ez sitsak desegiten ditubezan, eta nun lapurrak ez ditubezan ateraten lurpetik, ez ostuten.

21. Zerren [zure tesorua] nun daguan, han dago bere zure bijotza.

22. Zure gorputzaren argija da zure begija. Zure begija tolesbagia [baldin bada], zure gorputz guztija argitsua [izango da].

23. Baña baldin zure begia dongia [bada], zure gorputz guztija illuna izango da. [Eta] baldin zugan daguan argija illuntasuna [bada, illuntasuna bera zein handija izango da]?

24. Iñok ezin leikez serbiu Jaun bi; zerren edo batari gorroto izango deutsa eta bestia maitatuko dau, edo bata sufriuko dau ta bestia desprezijau. Ezin ziñaijez serbiu Jaungoikua ta aberastasunak.

25. Horregaitik dirautsubet: Ez zaitezela izan arazutsubak zeuben arimiarentzat zer jango dozuben, ez zeuben gorputzarentzat, zer jantziko dozuben. Ez al da arimia janarija baño gehijago, eta gorputza soñekua baño gehijago?

26. Begiratu egijezube zeruko hegaztijai, zelan ez daben ereiten, ez ebagiten, ez galtegijetan pillatuten, eta zuben Aita zerukuak emoten deutse janarija. Ez al zare zubek hareek baño askozaz gehijago?

27. Zubetariko zeñek asmaziñoiakaz iraatzi leikijo bere luzetasunari beso bat?

28. Eta jantzijagaitik zergaitik zagoze arazuz? Gogoratu egizubez kanpoko lirijuak zelan haziten diran: ez dabe biharrik egiten, ez iruten.

29. [Halan bere] nik dirautsubet: Ez da Salomon bere, bere glorija guztijan izan zala estalduba honeetariko bat legez.

30. [Beraz], baldin kanpoko bedarra, gaur [zelaijan] dana ta bijar labara botia [dana], Jaungoikuak halan jantziten badau, zenbat gehijago zubeek, fede gitxikuak?

31. Ez zaiteze, bada, estuturik egon, diñozubela: «Zer jango dogu, edo zer edango dogu, edo zegaz estalduko gara?».

32. Zerren honeek guztijok jentillak billatuten ditube. Zerren badaki zuben Aitak honeen guztijoen premiñia daukazubela.

33. Billatu lelengo Jaungoikuaren erreiñuba, eta bere zuzentasuna, eta honeek guztijok iratzijak [izango jatsubez].

34. Ez zaiteze, bada, egon bijarko kezkaz. Zerren bijarko egunak izango dau bere beretzat arduria. Asko da egunarentzat bere arazuba.

ZAZPIGARREN KAPITULUBA

[Eragotzi juzgu ariñak.
Erreguaren indarra. Ate estuba.
Euren frutubetatik ezagutuko.
Hatxaren edo hondarraren ganeko etxia.]

1. Ez egizube iñor juzgau, [juzgaubak] izan ez zaitezen.
2. [Zerren] zeubek juzgetan dozuben juzgubagaz izango zare juzgaubak, eta zeubek neurtuten dozuben neurrijagaz izango zare ostera neurtubak.
3. Zergaitik ikusten dozu samarra zeure anaijiaren begijan, eta habia zeure begijan ez dozu ikusten?
4. Edo zelan esaten deutsazu zeure anaijiari: «Itxi, samarra [aterako dot] zeure begitik», eta horra nun habe bat daguan zeure begijan?
5. [Azal-hutsa!] Bota egizu lelengo habia zeure begitik, eta orduban zeure anaijiaren begitik botateko samarra [ikusiko dozu].
6. Ez egijozube emon santuba [danik] txakurrai, eta ez egizubez bota zeuben perlaak txarrijen aurrian, zapaldu ez dagijezan euren oñakaz, eta zeubekgana [bihurturik] zatitu ez zagijezan.
7. Eskatu egizube ta emongo jatsube; billatu egizube ta aurkituko dozube; jo egizube ta idigiko jatsube.
8. Zerren eskatuten daben guztijak hartuten dau; eta billatuten dabenak aurkituten dau; eta joten dabenari idigiko jako.
9. Edo zubetatik zein da gizona, zeñi baldin bere semiak ogija [eskatuten badeutsa, harrija] emongo deutsana?
10. Edo baldin arraina [eskatuten badeutsa], emongo al deutsa sierpia?
11. Bada baldin zuen, gaistuak [izanik, zeuben semiai emokai onak emoten badakizube], zenbat gehijago zuen Aita [zeruban] daguanak emongo deutsez gauza onak eskatuten deutsezanai?
12. Eta halan, gizonak zeubei egitia nahi dozuben guztija, zeubek bere egijezube eurai. Zerren hau da legia ta igarlaak.
13. Sartu zaiteze ate estutik, zerren zabala da atia ta nahasija bidia galdumendira [daruana], eta asko dira beratatik [sartuten diranak].
14. Ze estuba da atia eta ze bedarra bidia, bizitzara [daruana]! Eta gitxi dira aurkituten dabenak.
15. Gorde zaiteze igarla paltsuetatik, [zubekgana ardijen jantzijakaz datozanetatik], eta barruban otso lapurretagillaak [dira].
16. Euren frutubetatik ezagutuko dituzube. Arantzetatik hartuten al ditube mahatsak, edo sasijetatik pikuak?

17. Halan arbola on guztijak frutu onak [egiten ditu], eta arbola txarrak frutu txarrak.
18. Ezin leikez arbola onak frutu txarrak egin, ez arbola txarrak frutu onak egin.
19. Frutu ona egiten ez daben arbola guztija ebagija [izango da] eta sutara botia.
20. Halan, bada, euren frutubetatik ezagutuko dituzube.
21. Ez da sartuko [zeruko erreinuban niri] «Jauna! Jauna!» esaten deustan guztija, ezpada nire Aita [zeruban daguanaren borondatia egiten dabena], bera sartuko da [zeruko] erreinuban.
22. [Egun hatan] askok esango deuste: «Jauna, Jauna!. Ez al genduban zure izenian profetizau, eta zure izenian demonioak bota genduzan, eta zure izenian mirari asko egin genduban?».
23. Eta orduban autortuko deutset: «Ez zendubedazan iñoz ezagutu; alde egizu nigandik, gaistakerija egiten dobuzenak!».
24. Bada, nire berba honeek entzuten dituzan guztija, ta egiten dituzana, [gizon jakintsu bati irudituba] izango da, bere etxia hatxaren ganian [egin ebanari].
25. Eta jatzi zan eurija eta etorri ziran ibaijak, eta putz egin eben haxiak, eta [sendo] esetsi eutsen etxe hari, eta ez zan jausi: zerren hatxaren ganian [eginik eguan].
26. Nire berba honeek entzuten dituzan guztija, eta egiten ez dituzana, gizon ero baten irudikua [izango da, zeñek bere etxia hondarraren ganian egin eban].
27. Eta jatzi zan eurija eta etorri ziran ibaijak, eta putz egin eben haxiak, eta [sendo] esetsi eutsen etxe hari, eta jausi zan, eta bere hondamendija handija [izan zan].
28. Jesusek berba honeek [amaitu ezkero], jente aldrak bere irakatsijaren ganian [miraritu ziran].
29. Zerren eskubidia eukanak legez [erakusten eutsen], eta ez euren eskriba eta farisejuak legez.

ZORTZIGARREN KAPITULUBA

[Jesusek legenduna osatu. Zenturionen otseiña.

Jesusek Pedroren amagiñarreba osatu.

Geixo asko osatu. Ekatx bat baretu.

Jesusek Gadarako bi gaizkindun osatu.]

1. [Jesus menditik jatzi ezkero, jente aldra askok jarraitu eutsen].
2. Eta horra nun legendun bat etorririk, adoretan eban ziñuala:
–Jauna, baldin gura badozu, garbitu naikezu.
3. [Jesusek eskuba] luzaturik ukutu eutsan, esanaz:
–Gura dot. Garbiturik gelditu zaite.
Eta berihala izan zan garbituba bere legena.
4. Jesusek esan eutsan:
–Begira ez dagijozula esan inori; ezpada zuaz, erakutsi zakijoz [abadiari] eta eskiñi egizu Moisesek agindu eban oparija, ezagungarritzat eurai.
5. Kafarnaunen [sarturik, zenturion bat beragana] heldu zan, erregututen eutsala.
6. Zirautsala:
–Jauna, nire otsein bat datza etxian perlesijagaz eta txarto penaturik.
7. Jesusek esan eutsan:
–Neu etorriko naz, ta osatuko dot.
8. Erantzunaz zenturionak esan eutsan:
–Jauna, ez naz ni diña nire tellatuaren azpijan [sartu zaitian], baña esan egizu bakarrik berba bat, eta nire otseiña [osatuba izango da].
9. [Zerren] neu bere gizon bat [naz] besteren mendian naguana, neure agindura soldaubak [daukadazana, eta honi] dirautsat «Zuaz», eta badua; eta bestiari «Erdu», eta badator, eta neure otseiñari «Egizu hau», eta egiten dau.
10. [Jesusek hori entzunik], miraritu zan, eta jarraituten eutsanai esan eutsen: «Egijaz dirautsubet, ez dot aurkitu fede hain handirik Israelen.
11. Eta dirautsubet: [Eguzkijaren urteeratik eta sarreratik asko etorriko dira, eta Abrahangaz eta Isaakgaz eta Jakobgaz] jarriko dira zeruko erreinuban.
12. Erreinuko semiak, [ostera], kanpoko illuntasunetara [jaurtigiak izango dira]. Han izango da negarra ta hagin karraskotsa!».
13. Jesusek zenturioni [esan eutsan]:
–Zuaz, eta sinistu dozun legez jazo dagizula.
Eta [ordu hartan otseiña osatu zan].
14. Jesus Pedroren etxera [heldurik], bere amagiñarreba etzunik eguala [ikusi eban], eta kalenturiagaz.
15. [Bere eskubari] ukutu eutsan eta [kalenturiak] itxi eutsan, eta jagi zan, eta serbietan zituzan.
16. Arratsaldia [heldurik], demonioak eukezanak [imiñi eutsezan aurrian, asko, eta espiritubak botaten zituzan berbiaga], eta geixorik egozan guztijak osatu zituzan.

17. Isaias igarliak [esan ebana bete zedin], esan ebanian: *Berak hartu zituzan gure gatxak, eta eruan bere ganian gure miñak.*
18. Baña Jesusek gente aldra asko bere inguruban [ikusirik], itxasuaren beste aldera [juateko agindu eban].
19. Eta beragana eskriba bat [heldurik], esan eutsan:
–Irakaslia, jarraituko deutsut noranahi juan zaitiala.
20. [Jesusek esan eutsan]:
–Azerijak kobauak daukez, eta zeruko hegaztijak habijaak, baña Gizonaren Semiak ez dauka nun buruba etzin.
21. Bere ikasleetatik beste batek esan eutsan:
–Jauna, itxi egidazu lelengo juaten eta neure aita [hobituten].
22. Baña Jesusek [esan eutsan]:
–Jarraitu egidazu, eta itxi egijezu hillai euren hillak [hobituten].
23. Bera ontzitxu baten [sarturik], bere ikaslaak [jarraitu eutsen].
24. Eta horra nun, ekatx handi bat jagi zan itxasuan, allagiña ze ontzitxuba estalduten eben olatubak, eta [Jesus lotan eguan].
25. Bere ikaslaak [beragana heldu ziran] eta iratzartu eben, ziñuela:
–Jauna, salbau gaizuz! Galdubak gara!
26. [Jesusek esan eutsan]:
–Zeren bildur zare, fede gitxikuak?
Orduban jagirik, haxiai eta itxasuari [agindu eutsen] eta bare-bare [gelditu zan].
27. Gizonak miraritu ziran, ziñuela: «Zelakua da hau, haxiak eta itxasuak obeiduten deutsen hau?».
28. Itxasuaren beste aldetik [Gadarako herrira etorririk], urten eutsen bidera bik eukezanak demonioak urteten ebela hobijetatik, arrabijaturik guztiz, [halango moduban], ze iñor ezin igaro zatekian bide hatatik.
29. Eta horra nun diadar egin eben, ziñuela:
–Zer daukagu guk zugaz, Jesus Jangoikuaren semia? Etorria zara hona denporia baño lehenago gu penetara?
30. Euretatik urrin baga, txarri askoren aldra bat [eguan], jaten ziardubala.
31. Demonioak [Jesusi] erregututen eutsen, esaten ebela:
–Baldin botaten bagaituzu hemendik, bialdu gagizuz txarrijen aldrara.
32. Eta esan eutsen:
–Zuaze.
Eta eurak urtenik txarrijetara [juan ziran], eta horra nun arin juan zan aldra guztija amillategi batetik itxasora, eta [uretan] hill ziran.
33. Txarrizañak iges egin eben eta, hurira [etorririk, guztija esan eben]; baita bere demonioak euki zitubezanen jazoeria.
34. Eta horra nun huri guztijak urten eutsan bidera Jesusi eta, bera [ikusirik, euren mugarrijetatik urten egijala erregututen eutsen].

BEDERATZIGARREN KAPITULUBA

[Jesusek perlesijaduna osatu.
Mateori deija. Fariseoai guzurrak erantzun.
Andra bat odol erijotik osatu. Neskatilla bat biztu.
Itxu bi argitu. Gaizkindun mutua osatu.
Lanaren ta langillen irudija.]

1. Ontzitxura [igonik, itxasuaren bestaldera igaro eta bere hurira etorri zan].

2. Eta horra nun perlesijadun bat [imiñi eutsen aurrian, ohian etzunik]. Jesusek, euren fedia [ikusirik, perlesijadunari] esan eutsan:

–Itxaron egizu, ene semia! Parkatuten jatzuz zeure pekatubak.

3. [Orduban] eskribaetatik batzuk esan eben euren artian: «Honek gaizki esaten dau Jaungoikuagaitik».

4. [Baña] Jesusek euren gogoraziñoiak [ikusirik], esan eban:

–Zergaitik gogoratuten dituzube gauza txarrak zeuben bijotzetan?

5. Zer da errazago esaten «Parkatuten jatzuz zeure pekatubak», ala esatia «Jagi zaite ta ibilli zaite»?

6. Jakin dagizuben, bada, Gizonaren Semiak eskubidia [daukala lurrian pekatubak parkatuteko].

Orduan esan eutsan perlesijadunari:

–Jagi zaite, hartu egizu zeure ohia, eta zuaz zeure etxera.

7. Eta jagi zan ta bere etxera [juan zan].

8. [Jentiak hori] ikusirik, bildurtu ziran eta Jaungoikua [alabau eben, gizonai halako eskubidia] emon eutsena.

9. [Jesus handik] igaroten zala, gizon bat [ikusi eban, mahaian alkabalean jarririk eguala], Mateo eritxana. Eta esan eutsan:

–Jarraitu egidazu.

Eta, jagirik, jarraitu eutsan.

10. Eta [Jesus Mateoren etxian mahaian jarririk egonik], horra nun publikanu ta pekatari asko etorririk, Jesusegaz ta bere jarraitzallakaz [jarririk egozan].

11. [Hori] ikusirik, fariseuak bere [ikaslai esaten eutsen]:

–Zergaitik zuben irakasliak jaten dau publikanuakaz eta pekatarijakaz?

12. Jeususek erantzunik, esan eban:

–Ez dauke osagilliaren premiñarik osuak, ezpada geixuak.

13. Juanik, bada, ikasi egizube zer dan: *Errukija gura dot, eta ez oparija*. Zerren ez naz etorri [justubai] deitutera, ezpada pekatarijai.

14. Orduban beragana Juanen [ikaslaak heldu ziran], eta esan eutsen:

–Zergaitik guk eta fariseoak baru egiten dogu sarritan, eta zure [ikaslaak] ez dabe barurik egiten?

15. Jesusek esan eutsen:

–Ezkonbarrijaren semiak negar egin al baleije, ezkonbarrija eurakaz daguan artian? Baña etorriko dira egunak kenduba izango jakena ezkonbarrija, eta orduban baru egingo dabe.

16. [Iñok] ez deutsa iminten adobazain oijal lodizkua soñeko zarrari, zerren soñekotik bere betetasuna [kenduten dau], eta txarrago egiten da urratua.

17. Ez dabe bere botaten ardao barrija zaragi zaharretan. Bestelan zaragijak [urratuten dira] eta ardaua jausten da eta zaragijak galduten dira. Ezpada, ardao barrija zaragi barrijetara botaten dabe, eta bitzubek diraube.

18. Berak gauza honeek zirautsezan artian, horra nun prinzipe bat etorri zan, eta adoretan eban esanaz: «Jauna, nire alabia oraintxe hill da; baña erdu, imiñi egizu zeure eskuba bere ganian, eta biziko da».

19. Eta Jesus jagirik, jarraituten eutsan, baita bere bere ikaslaak.

20. [Orduban] andra bat, hamabi urtian geixorik eguana odol erijuagaz, atzetik [eldu jakon] eta bere soñekuaren ertzari [ukutu eutsan].

21. Zerren bere artian [ziñuan: «Baldin bere soñekuari bakarrik ukututen badeutsat], osatuba izango naz».

22. Jesus bihurturik, eta [andria] ikusirik, esan eban: «Itxaron egizu, ene alabia! Zeure fediak osatu zaitu». Eta [ordu hatatik andria] osatuba izan zan.

23. Jesus prinzipiaren etxera [etorri zanian], eta txilibiterubak eta jendedija hotska [ikusi zituzanian, esan eban]:

24. «Alde egizube! Zerren [neskatilla] ez dago hillik, ezpada lotan». Eta burla egiten eutsen.

25. Eta [jendedija] botia izan zanian, sartu zan, eta bere eskutik [heldu eutsan. Eta neskatilla jagi zan].

26. Eta honen entzutia inguru guzti hatatik [zabaldu zan].

27. Jesusek handik [urten ebanian], itxu bik [jarraitu eutsen], diadarrez ta ziñuela: «Errukitu zaite, arren, gugaz, Dabiden semia».

28. Eta etxera [heldurik, itxubak beragana etorri ziran]. Eta Jesusek [esan eutsen]:

–Sinistuten dozube hau egin neikezubela?

–Bai, Jauna. –[esan eutsen].

29. Orduban euren begijetan [ukutu eutsen], esanaz:

–Zeuben fediaren erara izan dakizubela egiña.

30. Eta euren begijak [idigijak izan ziran] eta Jesusek zematu zituzan esanaz:

–Begiratu egizube, ez dagijala iñok jakin!

31. [Baña hareek urtenik, inguru guzti hatan zabaldu eben].

32. Hareek [urten ebenian], horra nun ekarri eutsen gizon bat mutuba, demonioa eukana.

33. Eta demonioa [bota ebanian, mutubak] berba egin eban, eta jente aldraak [miraritu ziran], ziñuela: «Ez da iñoz ikusi honelako gauzarik Israelen!».

34. Faresijuak, barriz, ziñuen: «Demonioen agintarijaren eskubidiagaz botaten ditu demonioak».

35. Eta Jesusek huri ta herri guztijak [inguratuten zituzan, euren sinagogetan erakusten ebala] eta erreinuko ebanjelijua [prediketan ebala], eta min guztija eta geixo guztija [osatuten ebala].

36. Eta jente aldrak [ikusirik, eurakaz] errukitu zan, zerren kantzaurik eta etzunik [egozan], artzaiñik ez daukeen ardijak legez.

37. Orduban bere [ikaslai esan eutsen]: «Egijaz lan asko dago, eta langilla gitxi.

38. Erregutu egijozube, bada, lanaren Jaunari, bialdu dagizala langillaak bere lanera».

HAMARGARREN KAPITULUBA

[Jesusek hamabi apostolubai deitu.
Jesusek hamabijak bialdu.
Ardijak otsuen erdijan. Nori izan bildur.
Jesus dala-ta banakuntza.]

1. Jesusek bere hamabi [ikaslaak baturik, eskubidia] emon eutsen espiritu lohijen ganian, eurak botateko, eta min guztija eta geixo guztija [osatuteko].

2. Hamabi apostoluben izenak honeek [dira]: lelengua Simon –Pedro deritxana– eta Andres bere anaijia.

3. Santiago Zebedeorena eta Juan bere anaijia, Felipe ta Bartolome, Tomas, eta Mateo publikanua, Santiago Alfeorena eta Tadeo.

4. Simon kanaantarra eta Judas Iskariotkua, zeñek [Jesus] saldu eban.

5. Hamabi honeek bialdu zituzan Jesusek, aginduten eutsela esanez:

–Jentillen bidera ez zaiteze juan, eta samarijatarren hurijetan ez zaitekeze sartu.

6. Zuaze, lehenago, Israelgo etxeko ardi galdu direnetara.

7. Eta juaten zarenian, predikau egizube diñozubela: Hurreratu [da zeruko] erreinuba.

8. Osatu egizubez geixuak, biztu hillak, garbitu legendunak, bota demonioak: duarik hartu dituzube, duarik emon egizubez.

9. Ez egizube euki urrerik, ez zidarrik, ez dirurik zeuben gerrijetako ugaletan.

10. Ez zakutorik bidian, ez alkondara bi, ez oñetakuak, ez makillia, zerren langillia bere janarijaren diña bada.

11. Sartuten zareen edozein huri edo herritan, itaundu egizube zein dan bertan diña, eta egon zaiteze han urten dagizuben artian.

12. [Etxian] sartuten zareenian, agur egijozube, diñozubela: «Bakia etxe honetan».

13. Baldin etxe ha diña balitz, zuben bakia bere [etorriko da] ganera: baña diña ez baldin ba[da] zeuen bakia bihurtuko da zeubekgana.

14. Eta [edozeñek] hartuko ez bazindubez, eta entzungo ez balitu zuen berbaak, [etxetik kanpora] urtenik, edo huritik, astindu egizube zeuben oñetako hautsa.

15. Egijaz dirautsubet: [Juizijoko egunian] igarokarrijago izango jako sodomatarren eta gomorratarren herrijari, huri hari baño.

16. Horra nun nik bialduten zaitubedazan ardijak otsuen erdijan legez. Izan zaiteze, bada, zuhurrak sierpiak legez, eta tolesgabeak usuak legez.

17. Gorde zaiteze gizonetatik. Zerren batzarretara [eruango zaitube] eta euren sinagogetan azotauko.

18. Eta, [nigaitik, agintarijak eta erregiakgana eruanak izango zare], ezagungarritzat eurai eta jentillai.

19. Eta zaruezanian, ez eikezube gogoratu zelan, edo zer berba egingo dozuben. Zerren [ordu hatan emongo jatsube] zer berba egin.

20. Zerren ez zare zubek berba egiten dozubenak, ezpada zeuben Aitaren espirituba, zubekgan berba egiten dabena.

21. Anaijiak [bere anaijia hiltera eruango dau], eta aitak semia; semiak gurasuen kontra [jagiko dira] eta hill eragingo ditube.

22. Guztijak gorroto izango deutsube nire izenagaitik; baña [azkeneraño irauten dabena, hau izango da salbauba.

23. Huri [batian] esesten deutsubenian, iges egizube beste batera. Egijaz dirautsubet, ez dituzubela amaituko Israelgo hurijak, Gizonaren Semia [etorri artian].

24. Ez da ikaslia irakaslia baño gehijago, ez menpekua bere jauna baño gehijago.

25. Asko da ikasliarentzat bere irakaslia legez [izatia], eta menpekuarentzat, bere jauna legez. Baldin etxekojaunari Beeltzebul deitu beutsen, zenbat gehijago bere etxekuai?

26. Ez zaiteze, bada, euren bildur izan, zerren ez dago gauza estaldurik, agertuko ez danik, eta ezkuturik, jakingo ez danik.

27. Illuntasunetan [esaten deutsubedana], esan egizube argitan; eta belarrijan entzuten dozubena, predikau egizube tellatuben ganian.

28. Ez eukijezube bildurrik euki gorputza hiltzen dabenai eta arima ezin hill dabenai; ezpada, [baña] bildur izan zakijuez [infernuban] arimia ta gorputza galdu leikezanari.

29. Ez al dira salduten txoritxu bi laumariko baten? Eta euretatik bat ez da jausiko lurraren ganera zuben Aita bagarik.

30. Zuben buruko uliak [bere], guztijak dagoz zenbaturik.

31. Ez zaiteze, bada, bildur izan: txori asko baño hobaak zare zubek.

32. Gizonen aurrian, bada, ni autortuten naben guztija, neuk bere bera [autortuko dut] neure Aita [zeruban] daguanaren aurrian.

33. Eta gizonen aurrian [ukatuten nabena], neuk ere bera [ukatuko dut neure Aita zeruban] daguanaren aurrian.

34. Ez egizube uste izan [lurrera bakia ekartera etorri nintzala]; ez nintzan etorri bakia ekartera, ezpada ezpatia.

35. Zerren [*gizona bere aitagandik, eta alabia bere amagandik, eta erreña bere amagiñarrebagandik* aldendutera etorri nintzan].

36. Eta *gizonaren arerijuak, bere etxekuak*.

37. Aita edo ama ni baño gehijago [maite dabena] ez da nire diña; semia edo alabia ni baño gehijago [maite dabena] ez da nire diña.

38. Bere kurutzia [hartuten ez dabena] eta jarraituten ez deustana, ez da nire diña.

39. Bere arimia [aurkituten dabenak] galduko dau; eta bere arimia nigaitik [galduten dabenak] aurkituko dau.

40. Zubek hartuten zaitubezanak neu hartuten nau; eta ni hartuten nabenak, ni bialdu nindubana [hartuten dau].

41. Igarlia igarliaren izenian [hartuten dabenak, igarliaren sarija] hartuko dau; eta justuba justubaren izenian [hartuten dabenak, justubaren sarija hartuko dau].

42. Eta txikitxu honeetatik bati, [nire ikaslia dalako], baso bete ur hotz bakarrik [emoten dautsan edozeñek], egijaz dirautsubet: ez dau galduko bere sarija.

HAMAIKAGARREN KAPITULUBA

[Juan Batiatzalla itanduten Jaunari.
Jesus sinisgogorrak madarikatzen.
Ebanjelijua jendedijai agertuta.
Aita eta Semia. Zatoze niregana.]

1. Jesusek bere hamabi ikasleaai [irakatsi honeek emotia amaitu ezkero, handik igaro zan, euren hurijetan] erakusteko eta prediketako.

2. Juanek Kristoren egitadaak [lokarrijetan entzunik], bere ikasleetaik bi bialdurik,

3. Esan eutsan:

–Zu zara «Etorriko dana», ala besterik itxaroten dogu?

4. Erantzunik, Jesusek esan eutsan:

–Zuaze ta adierazo egijozubez Juani entzun ta ikusi dituzubenak.

5. Itxubak ikusten dabe, hillak piztuten dira, eta pobriai [ebanjelijua] adierazoten jake.

6. Eta zorijonekua da gatxerako bidia hartuten ez dabena nigaz!

7. Eurak juan ta laster, Jesus jendedijaj Juangaitik [esaten hasi zan]:

–Zer ikustera urten dozube eremura? Haxiak darabillan kañaberaren bat?

8. Baña zer ikustera urten dozube? Soñeko bigun ta ederrakaz jantziriko gizonen bat? Egijaz soñeko bigun ta ederrakaz jantzijak erregeen etxeetan dagoz.

9. Baña zer ikustera urten dozube? Igarlia? Baita dirautsubet, igarlia baño gehijago bere.

10. Zerren hau da, zeñegaitik eskribidurik daguan: *Horra hemen, neuk bialduten dot neure aingeruba zeure aurrian, zeñek zeure bidia zeure aurretik [prestauko daben]*.

11. Egijaz dirautsubet: Ez da jagi andretatik jaijotako gizakumeen artian Juan [Batiatzalla] baño handijagorik; baña [zeruko erreinuban] txikijena dana, bera baño handijago da.

12. Juan [Batiatzallaren] egunetatik orain artian, [zeruko] erreinubari indar egin bihar jako, eta gogoz jarkijak atrapetan dabe.

13. Zerren igarle guztijak eta legiak [Juanen egunak artian] adierazo zitubezan etorkizunak.

14. [On]artu gura badozube, [Juan] bera da Elias, etorriko dana.

15. Belarrijak daukazanak entzuteko, entzun dagijala.

16. [Baña] zeñi dirudijala usteko dot gizadi honek? Plazan jarrita dagozen mutillen antzekua [da], ezintzubek diadarrez euren idekuai

17. Dirautsen: «Kantau deutsugube, eta ez dozube dantzan egin; zizpuruz egon gara, ta ez dozube negar egin».

18. Zerren [Juan] etorri zan ez ebala jaten ez edaten, eta diñue: «Demonioa dauka».

19. [Gizonaren Semia etorri da] jaten dabela ta edaten dabela, eta diñue: «Horra gizon tripontzi ta ardao edale bat, publikanuen ta pekatarijen adiskidia!». Baña jakiturija garbituba [izan da] bere semeen aldetik.

20. Orduban aurpegijan emoten [hasi zan], bere mirari guztiz asko egiñak izan ziran hurijai, ez ebelako egin penitenzija.

21. –Ai zure errukarrija, Korazin! Ai zure errukarrija Betsaida! Zerren baldin Tiron eta Sidonen egiñak izan balira zubetan egiñak izan diran mirarijak, antxiña egingo eben penitencija zilizijuan eta hautsian.

22. Horregaitik dirautsubet: [juizijoko egunian], Tiro eta Sidon bigunago hartubak izango [dira], zubek baño.

23. Eta zu, Kafarnaun,

zeruraño jasua [izango al zara]? Infernuraño jatziko zara!

Zerren baldin Sodoman egin izan balira zugan egiñak izan diran mirarijak, menturaz iraungo eben egun honetaraño.

24. Horregaitik dirautsubet: [juizijoko egunian], Sodomako herrija bigunago izango [da] hartuba, zu baño.

25. Denpora hatan erantzunik, Jesusek esan eban:

–Eskerrak emoten deutsudaz, Aita, zeruko eta lurreko Jauna, zerren [honeek] ezkutau zenduzan jakitunetatik eta aditubetatik, eta txikijai [agertu deutsazuz].

26. Halan Aita, zerren honelan izan zan zure nahija.

27. Nire aitak emon eustazan niri gauza guztijak. Eta iñok ez dau [semia] ezagututen, ezpada aitak; eta ez dau bere iñok [aita] ezagututen, ezpada semiak eta semiak agertu gura deutsanak.

28. Erdube nigana, nekaturik eta kargaurik zagozen guztijok, eta neuk arinduko zaitubedaz.

29. Hartu egizube neure buztarrija zeuben ganian, eta ikasi egizube nigandik, bada otsana naz, ta bijotzez umilla; eta zeuben arimentzat [atsedena aurkituko dozube].

30. Zerren nire buztarrija biguna da, eta nire kargia ariña.

HAMABIGARREN KAPITULUBA

[Galburuak, zapatuban hartubak.
Zapatuban osatu esku bat sikaturik eukana.
Jesus Jaungoikuaren serbitzarija.
Jesusen egijazko familia.]

1. Denpora hartan Jesus garitzetatik [juan zan] zapatuban. Bere [ikasleak] gose izanik, galburuak ebagiten [hasi ziran], eta jaten.

2. Fariseoak [hori] ikusirik, esan eutsen:

–Horra nun zure [ikasleak] egiten daben [zapatubetan egitia] ondo ez dana.

3. Baña berak esan eutsen:

–Ez dozube irakurri zer egin eban Dabidek, gose izan zanian bera eta beragaz egozanak?

4. Zelan sartu zan Jaungoikuaren etxian, eta jan zituzan [eskintzarija]ko ogijak, zeintzubek ezin jan eukezan berak, ez beste beragaz egozanak, ezpada bakarrik [abadiak]?

5. Edo ez dozube irakurri legian, zapatubetan [abadiak] elexan zapatuba hausiten dabela, eta pekatu bagarik dirala?

6. [Nik] dirautsubet tenplua baño handijagua daguala hemen.

7. Baldin bazenkije zer dan: *Errukija gura dot eta ez eskintzarija*, iñoz ez zendubezan kondenauko errubagaak.

8. Zerren Gizonaren Semia da zapatubaren Jauna bere.

9. Eta handik aldendu ezkero, euren sinagogara [etorri zan].

10. [Bazan han] gizon bat eskuba sikaturik [eukana. Eta Jesusi] itanduten eutsen:

–Zapatubetan osatutia ondo al da? –[bera] salatutiarren.

11. Jesusek esan eutsen:

–Ze gizon izango da zubetatik ardi bat [daukana], eta baldin [hau zapatuban lezara] jausiko balitz, ez leuskijona eskubagaz helduko eta aterako?

12. Zenbat hobiago ez da gizona ardija baño? Hala bada, ondo da zapatubetan mesede egitia.

13. Orduban esan eutsan gizonari:

–Luzatu egizu zeure eskuba.

Eta luzatu eban, eta [bestia legez osatuta] bihurtuba izan jakon.

14. Fariseoak [urtenik], [Jesusen kontra batzaarra egiten eben], zelan galduko eben.

15. Jesusek [hori] jakiñik, [handik] aldendu zan. Eta askok [jarraitu eutsen], eta eurak guztijak [osatu zituzan].

16. Eta agindu eutsan ez egijela [esan bera nor zan].

17. Betia izan zedin Isaias igarliaren bitartez [esana izan zana, ziñuala]:

18. *Horra hemen neure serbitzarija, hautu nebana, neure maitia, zeñegan ondo gozatu dan nire arimia. Neure espirituba bere ganian [imiñiko dot, eta jentillai zuzentasuna adierazoko deutse].*

19. *Ez dau eukiko ezbairik eta ez dau egingo diadarrik, eta ez dau iñok entzungo plazetan bere berbia.*

20. *Kañabera zartatua ez dau hausiko, eta keia darijon metxia ez dau amatauko, [garaitzara zuzentasuna] jaurtigi dagijan artian.*

21. *Eta bere izenean erreinubak itxarongo dabe.*

22. Orduban, demonioa eukan bat [ekarri eutsen], itxuba ta mutuba, eta hain [ondo osatu eban], ze berba egiten eban ta ikusten eban.

23. Jendedi guztijak [mirarituten ziran], eta esaten eben: «Dabiden semia bai al da?».

24. Fariseoak entzunik, [barriz], esan eben:

–Honek ez ditu botaten demonioak, ezpada Beeltzebul demonioen agintarijagan.

25. Jesusek, euren gogoraziñoiak [jakiñik], esan eutsen:

–Bere kontra zatituriko erreiñu guztija izango da hondatuba, eta bere kontra zatituriko huri edo etxe guztijak ez dau iraungo.

26. Eta baldin Satanasek Satanas botaten badau, bera beragan dago zatiturik, zelan bada iraungo dau bere erreinubak?

27. Eta baldin nik Beeltzebulgan botaten baditut demonioak, zuben semiak nogan botaten ditube? Horregaitik eurak izango dira zuben guzurtatzallaak.

28. Baldin nik, [barriz], Jaungoikuaren espiritubaz botaten baditut demonioak, beraz heldu da [zubekgana] Jaungoikuaren erreinuba.

29. Edo zelan sartu leiteke norbait senduaren etxian, eta daukana [ostu], ezpadau lehenago lotuten sendua? Orduban ostu leike bere etxian daguana.

30. Nigaz ez dana nire kontra da, eta nigaz batuten ez dabenak zabalduten dihardu.

31. Horregaitik dirautsubet: pekatu eta ernegu guztija izango jake parkatuba gizonai, baña espiritubaren erneguba ez da izango parkatuba.

32. Gizonaren Semiaren kontra [berbia esaten daben edozeñi] parkatuba izango jako; baña Espiritu Santubaren kontra [esaten dabenari] ez jako parkatuko, ez mundu honetan ez gerokuan.

33. Edo egizube zugatz ona ta bere frutuba ona. Edo egizube zugatz txarra ta bere frutuba txarra. Zerren frututik zugatza da ezagutuba.

34. Ziraunen kastia! Zelan esan zinaijez berba onak, zeubek gaistuak [izanik]? Zerren ahuak berba egiten dau bijotzaren ugaritasunetik.

35. Gizon onak gordeleku onetik ateraten ditu gauza onak; eta gizon gaistuak gordeleku gaistotik ateraten ditu gauza gaistuak.

36. [Nik] dirautsubet: gizonak esaten daben berba alper guztijaren kontuba emongo dabe juizijoko egunian.

37. Zerren zeure berbetatik izango zara ontzat ezagutuba, eta zeure berbetatik izango zara dongatzat ezagutuba.

38. Orduban, eskribaetatik eta fariseoetatik batzubek [erantzun eutsen], ziñuela:

–Irakaslia, zugandik ezagungarrija [gura dogu ikusi].

39. Berak erantzunik esan eutsen:

–Kasta gaisto eta siniste txarreko honek ezagungarrija billatuten dau, eta ezagungarririk emongo ez jako, ezpada Jonas igarliaren ezagungarrija.

40. Zerren *zelan egon zan Jonas baleiaren sabelian hiru egunian eta hiru gautan*, halan egongo da Gizonaren Semia lurraren bijotzian hiru egunian eta hiru gautan.

41. Ninibeko gizonak [juizijuan gizaldi honen kontra] jagiko dira, eta kondenauko dabe, zerren penitenzija egin eben Jonasen predikaziñoiagaz. Eta horra Jonas baño gehijago leku honetan.

42. Hegoeko erregiña [juizijuan gizaldi honen kontra] jagiko da, eta kondenauko dau, zerren lurraren azkenetatik [etorri zan] Salomonen jakiturija [entzutera], eta horra Salomon baño gehijago leku honetan.

43. Espiritu lohijak gizonagandik [urten dabenian], leku lihorretatik [dabil atsegiña billatuten] eta ez dau aurkituten.

44. Orduban diño: «Neure etxera [bihurtuko naz], nundik urten neban». Eta datorrenian [hutsa] aurkituten dau, giñarrakaz garbituba eta apainduba.

45. Orduban badua eta beste zazpi espiritu [hartuten ditu beragaz] bera baño dongaguak eta, barruban [sarturik, han] bizi dira. Eta gizon haren azkenak lehenagokuak baño dongaguak [egiten dira]. Halan jazoko jako gizaldi guztiz donga honi bere».

46. Oraindik [Jesusek jendedijari] berbetan zihardubela, horra nun bere ama eta anaijak egozan kanpuan, [berari] berba egin nahirik.

47. Eta batek [esan eutsan]:

–Horra nun zure ama eta zure anaijaak kanpuan dagozan, billatuten zaitubela.

48. [Jesusek] erantzunik, berba egiten eutsanari esan eutsan:

–Zein da nire ama, eta zeintzuk dira nire anaijaak?

49. Eta, eskuba bere [ikaslaakgana luzaturik], esan eban:

–Horra hemen nire ama ta nire anaijaak.

50. Zerren nire Aita [zeruban] daguanaren borondatia egiten daben edozein da nire anaijia, eta arrebia eta ama.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUBA

[Ereinliaren, oluaren, mostaza garauaren,
labaduriaren, dirutegi ezkutubaren,
perla balijo handikuaren
eta sariaren irudijak.
Jesus hoztasunez begiratuba bere herrijan.]

1. Egun hartan Jesusek etxetik [urtenik], itxaso onduan [jarrita eguan].

2. Eta beragana jendedi asko [batu zan ezkero], ontzitxu batera igonik eguan, jarrita; eta jendedi guztija itxas bazterrian [zutunik eguan].

3. Eta gauza asko [esan eutsezan irudijetan], ziñuala: «[Ereinleak ereitera urten eban].

4. Ereiten [z]iharduala, hazi batzuk bidiaren onduan [jausi ziran], eta zeruko hegaztijak [etorri ziran] eta jan zitubezan.

5. Beste batzuk, barriz, harritzetan [jausi ziran], nun ez eukien lur asko, eta laster erne ziran, ez eukelako lur lodija.

6. [Baña] eguzkijak urtenik, erre ziran eta, ez eukelako sustrairik, sikatu ziran.

7. Beste batzuk, barriz, arantzetan [jausi ziran], eta arantzaak [hazi ziran] eta ito zitubezan.

8. Beste batzuk, barriz, lur onian [jausi ziran, eta frutuba emoten eben], batek ehunka, bestiak hirurogeika, betiak hogeta hamarka.

9. Belarrijak [daukazanak] entzuteko, entzun dagijala».

10. [Ikaslaak Jesusgana heldurik], esan eutsen:

–Zergaitik irudijetan berba egiten deutsezu?

11. Berak erantzunik esan eutsen:

–Zerren zubei emona jatzube [zeruko] erreinuko ezkutapenak [ezagututia]; hareei, barriz, ez jake emon.

12. Zerren daukanari emongo jako, eta [ugarijago] izango dau; eta ez daukanari daukana bere kenduko jako.

13. Horregaitik irudijetan berba egiten deutset: zerren ikusten dabela ez dabe ikusten, eta entzuten dabela ez dabe entzuten, ez adituten.

14. Eurakgan [betetan da] Isaias igarliaren esana, diñuanarena:

Belarrijagaz entzungo dozube, eta ez dozube adituko; eta ikusten dozubela ikusiko dozube, eta ez dozube ikusiko.

15. *Zerren loditu da herri honen bijotza, eta belarrijakaz astun entzun eben, eta euren begijak itxi zitubezan. Ikusi ez dagijen begijakaz, eta belarrijakaz entzun ez dagijen, eta bijotzagaz aditu ez dagijen, eta [niregana] bihurtu ez ditezen, eta osatu ez dagidazan.*

16. Zorijonekuak, barriz, zuben begijak zerren dakusen, eta zuben belarrijak zerren dantzuben!

17. Zerren egijaz dirautsubet: igarla ta on asko gura izan [eben] ikustia dakutzubezanak, eta ez zitubezan ikusi; eta entzutia dantzuzubezanak, eta ez zitubezan entzun.

18. Zubek, bada, entzun egizube ereilliaren irudija.

19. Erreinuko berbia entzun, eta adituten ez daben guztija, badator Gaistua, eta bere bijotzian erein zana [atrapetan dau]. Hau da «bide onduan» erein zana.

20. «Harritzen ganian» erein zana, barriz, [berbia entzuten dabena da], eta berihala pozagaz hartuten dabena.

21. Baña ez dauka beragan sustrairik [eta iraupen gitxikua da]. Eta nahibagia ta etsetsija berbiagaitik [datorrenian], laster hartuten dau gatxerako bidia.

22. «Arantzadijan» [erein zana berbia entzuten dabena da]; baña mundu honetako arduriak eta aberastasunen engañubak itoten dau berbia, eta frutu baga geldituten da.

23. «Lur onian» [erein zana, barriz, berbia entzuten dabena da] eta adituten dabena eta frutuba daroiana; eta batek ehunka [egiten dau], bestiak barriz hirurogeika, eta bestiak hogeta hamarka.

24. Beste irudi bat imiñi eutsen, zirautsela: «[Zeruko] erreinuba gizon baten irudikua [da, zeñek bere soluan hazi ona erein eban].

25. [Gizonak] lotan egozala, bere arerijua [etorri zan, eta garijaren erdian olua erein eban] eta juan zan.

26. [Garija] hazi zanian eta frutuba egin ebanian, orduban agertu zan olua bere.

27. Etxekojaunaren otseiñak [esatera heldu ziran]: "Jauna, ez al zenduban erein hazi ona zeure soluan? Nundi bada dauka olua?".

28. [Berak] esan eutsen: "Gizon arerijuak egin dau hau". Eta otseiñak esan eutsen: "Gura dozu juan gaitian eta batu daiguzan?".

29. Esan eutsen: "Ez, [olua] batuten dozubela [eurakaz batera] atera ez dagizuben garija bere.

30. Itxi egizube bitzubek hazi ditezela garija ebagiteko denporaraño, eta garija ebagiteko denporan esango deutset galepallai: Batu egizube lelengo olua, eta lotu egizube eskutadetan erretako; garija, barriz, pillatu egizube neure galtokirako"».

31. Beste irudi bat imiñi eutsen, ziñuala: «[Zeruko] erreinuba moztaza garaubaren antzekua [da, zein gizonak harturik bere soluan erein eban].

32. Zein egijaz da hazi guztijetatik txikijena, baña haziten danian, handijagua da bedar guztijak baño, eta zugatz egiten da, allagiña ze, zeruko hegaztijak etorri ohi dira, ta bizi bere errametan».

33. Beste irudi bat esan eutsen: «[Zeruko] erreinuba labaduriaren antzekua [da, zein andra batek harturik hiru neurri urunetan ezkutetan daben], harik eta [guztija] jagi artian».

34. Honeek guztijok esan eutsezan Jesusek irudijetan jendedijai, eta irudijakaz baga ez eutsen berba egiten.

35. [Halan] bete zedin igarliak esan ebana ziñuanian:

Idigiko dot irudijetan neure ahua, agertuko ditut munduba egin zanetik [ezkutaturik egozanak].

36. Orduban, jendedijak [itxirik, etxera] etorri zan. Bere [ikaslaak beragana hurreratu ziran], ziñuela:

–Azaldu egiguzu soloko oluen irudija.

37. Berak esan eutsen:

–Hazi ona ereiten dabena Gizonaren Semia [da].

38. Solua, barriz, munduba [da]. Hazi ona, barriz, honeek erreiñuko semiak [dira]. Eta olua, seme dongaak dira.

39. Erein zituzan arerijua diabrua [da]. Garija ebagiteko denporia, barriz, mundubaren azkena da. Galepallak, barriz, aingerubak dira.

40. Zelan, bada, batuten dan olua eta sutan erretan dan, halan izango da mundubaren amaijan.

41. Gizonaren Semiak bere aingerubak [bialduko ditu], eta bere erreiñutik eskandalu guztijak [batuko ditube] eta gaistakerija egiten dabenak.

42. Eta suzko labara [botako ditube]. Han izango da negarra ta hagin karraskadia.

43. Orduban justubak argi egingo dabe eguzkijak legez euren Aitaren erreinuban. Belarrijak [daukazanak] entzuteko, entzun dagijala!

44. [Zeruko] erreinuba kanpo baten ezkutauriko tesoruaren irudikua [da], zein aurkituten daben gizonak estalduten dau, eta haren pozagaz dua eta daukazan guztijak [salduten ditu eta kanpoa erosten dau].

45. Ostera [zeruko] erreinuba da gizon merkatari, perla oneen billa dabillenaren irudikua.

46. Balijo handiko perla bat [aurkiturik], juan zan eta eukazan guztijak [saldu zituzan], eta erosi eban.

47. Barriro [zeruko] erreinuba, itxasora botariko sare arrain mueta guztijak batuten dituzanaren irudikua [da].

48. Zein, bete danian, aterarik eta itxasonduan jarririk, onak ontzijetarako [hautu zitubezan]; txarrak, barriz, kanpora bota zitubezan.

49. Halan izango da gizaldijaren amaijan: aingerubak [urtengo dabe], eta dongaaak justuben erditik [aldenduko ditube].

50. Eta suzko laban [sartuko ditube]. Han izango da negarra eta hagin karraskadia.

51. Aditu dituzube honeek guztijok?

–Bai –[erantzun eutsen].

52. [Berak] esan eutsen:

–Horregaitik eskriba jakitun guztija [zeruko] erreinuban gizon etxekojaun baten irudikua [da], zeñek bere gordelekutik [ateraten dituzan] barrijak eta zaharrak.

53. Jesusek irudi honeek [amaitu zituzanian, handik juan zan].

54. Bere herrira [etorririk, euren sinagogetan irakatsijak] emoten eutsezan. [Miraririk] esaten eben: «Nundik honi jakiturija hau, eta miraarijak?

55. Ez al da hau arotzaren semia? Ez al da, ba, bere ama Marija deritxana, eta bere anaijaak Santiago eta Jose, eta Simon eta Judas?

56. Eta bere arrebak ez al dagoz guztijak geure artian? Nundik, bada, honi honeek guztijok?».

57. [Horregaitik], gatx bidia hartuten eben beragan.

Jesusek, barriz, esan eutsen: «Ez dago igarlerik ondra baga, ezpada bere herrijan eta bere etxian».

58. Eta ez zituzan egin han mirari asko, euren sinisgatxtasunagaitik.

HAMALAUGARREN KAPITULUBA

[Juan Batiatzallaren herijotzia.
Bost ogien miraria. Jesus uren ganetik.
Genesaret aldian jendedia osatu.]

1. Denpora hatan Herodes [erregiak Jesusen ospia entzun eban].

2. Eta bere otseiñai [esan eutsen: «Hau Juan Batiatzalla da!]. Bera hillen artetik [piztu zan], eta horregaitik mirarijak egiten dira beragan».

3. Zerren Herodesek Juan [atrapau eban] eta lotu eban, eta presondegijan [imiñi eban, Filipe bere anaijaren Herodias emaztiagaitik].

4. Zerren [Juanek] esaten eutsan: «Ezin euki ziñaike [Herodias]».

5. Eta bera [hill gurarik], herrijaren bildur izan zan, zerren igarlia legez [euken].

6. [Baña] Herodesen jaijotzako egunian dantzan egin eban Herodiadesen alabiak erdijan, eta gustau jakon Herodesi.

7. Horregaitik, juramentubagaz eskiñi eutsan emotia eskatuten eutsan edozein gauza.

8. Eta harek, bere amak aurrez adierazorik, [esan eban]: «Emon egidazu hemen platerian Juan [Batiatzallaren] buruba».

9. Tristetu zan errege, baña juramentubagaitik, eta beragaz batera mahaian jarririk egozanakgaitik, emoteko [agindu eban].

10. [Norbait] bialdu egan eta buruba [ebagi eutsan] Juani presondegijan.

11. Bere buruba platerian [ekarri eben] eta neskatilliari [emon eutsen], eta honek bere amari [eruan eutsan].

12. [Juanen ikaslaak etorririk, bere gorputza hartu eben] eta hobitu eben. Eta Jesusi adierazotera [juan ziran].

13. [Hura] entzun ebanian, Jesus [handik] aldendu zan ontzitxu baten, leku bakar urrin batera. Eta jendedijak [entzunik, oñaz] jarraitu eutsen hurijetatik.

14. [Ontzitxutik] urtenik, jentedi asko [ikusi eban] eta errukitu zan eurakaz eta euren geixuak [osatu zituzan].

15. Arratsaldia [heldurik, bere ikaslaak beragana etorri ziran], ziñuela:

–Bakarra da leku hau, eta ordua honezkero igaro da. Itxi egijezu jendedijai, herrijetara [juanik], erosi dagijezan eurentzat janarijak.

16. Jesusek esan eutsen:

–Ez dauke juanaren biharrik; emon egijezube zeubek jaten.

17. Erantzun eutsen:

–Ez daukaguz hemen ezpada bost ogi eta arrain bi.

18. Berak esan eutsen:

–Ekarri egidazubez neuri hona.

19. Eta jendedijari bedarraren ganian [jarteko agindurik], bost ogijak eta arrain biak [harturik, zerura begiraturik] bedeinkatu ta txikitu zituzan eta [ikasleaai emon eutsezan eta ikasleaak] jentedijai.

20. [Guztijak] jan eben eta ase ziran. Eta enparaubak [ekarri zitubezan]: hamabi zara zatiz beterik.

21. Jan ebenak [bost milla gizon] ziran, andraak eta umiak baga.

22. Berihala Jesusek [ikasleai ontzitxura igon eragin eutsen], eta juan zeitezela bere aurretik itxas beste aldera, harik eta [jendedijak] bialduten zituzan artian.

23. Jendedija [bialdurik, mendira igon eban] bakarrik erregututera. Eta gaba etorrita, bakarrik [eguan] han.

24. Ontzitxuba, barriz, itxasuaren erdijan erabillen olatubak, zerren haxia aurretikua [zan].

25. Gox aldian, eurakganuntz [etorri zan, itxasuaren ganian ebillela].

26. [Ikaslaak Jesus] itxasuaren ganian ebillela [ikusirik], ikaratu ziran, ziñuela: Mamua da. Eta bildurraz hasi ziran diadarrez.

27. [Baña Jesusek] berihala berba egin eutsen, zirautsela:

–Itxaron egizube! Neu naz, ez zaiteze bildurtu.

28. Erantzunik, Pedrok esan eutsan:

–Jauna, baldin zu bazara, agindu egizu etorri nadilla zugana uren gainetik.

29. Berak esan eutsan:

–Erdu.

Eta Pedro ontzitxutik [jatzirik, uraren ganian ebillen Jesusgana etorteko].

30. [Baña] haxe sendua [ikusirik] bildurtu zan eta, hondatuten [hasirik], diadar egin eban ziñuala:

–Jauna, balija zakidaz.

31. Berihala, eskuba [luzaturik], Jesusek heldu eutsan ta esan eutsan:

–Fede gitxikua! Zergaitik bildur izan zara?

32. [Ontzitxuban] sartu ziranian, gelditu zan haxia.

33. Eta ontzitxuban egozanak etorri ziran eta adorau eben, ziñuela:

–Egijaz Jaungoikuaren semia zara!

34. Itxasuaren beste aldera [igarorik, Genesaretko herrira etorri ziran].

35. [Jesus] ezagutu ebenian leku hatako gizonak, inguru guzti hatakuai [adierazo eutsen], eta geixorik egozan guztijak [ekarri eutsezan].

36. Edolabere bere soñekuaren hegalari [ukututen itxi egijuela eskatuten eutsen]. Eta ukutu eutsen guztijak osatu ziran.

HAMABOSTGARREN KAPITULUBA

[Fariseoakaz ezbaian.

Garbija dana eta garbija ez dana.

Kanaandar alabia osatu. Geixo asko osatu.

Jesusek jendedijari ostera jaten emon.]

1. Orduban heldu ziran beragana Jerusalendik eskriba ta fariseoak, ziñuela:

2. –Zergaitik zure ikaslaak hausten dabe zaharren irakatsija? Zerren ez ditube garbituten euren eskubak ogija jaten dabenian.

3. [Jesusek erantzun eutsen]:

–Eta zergaitik zubek hausten dozube Jaungoikuaren aginduba zeuben irakatsijagaitik?

4. Bada Jaungoikuak esan eban: *Honrau egizu aita eta ama*, eta: *[Aita] madarikatuten dabena, edo ama, hilla izan bedi.*

5. Zubek barriz diñozube: Aitari edo amari esaten deutsan edozeñek: «Nik egiten dodan edozein eskintzari, zure onerako [izango da]».

6. Eta ez dau ondrauko bere aita edo bere ama. [Halan] alperra egin dozube Jaungoikuaren aginduba zeuben irakatsijagaitik.

7. Irudiz bakarrik onak! Ondo adierazo eban aurrez zubekgaitik Isaiasek, ziñuala:

8. *Herri honek ezpanakaz ondretan nau, baña euren bijotza urrin dago nigandik.*

9. *Alperrik ondraten nabe, adierazoten ditubezala gizonen irakatsi ta agindubak.*

10. Jendedijai [beragana deiturik], esan eutsen: «Entzun, ta aditu egizube!

11. Ez dau lohituten gizona ahuan sartuten danak; ezpada ahotik urteten dabenak, honek lohituten dau gizona».

12. Orduban bere ikaslaak [heldurik], esan eutsen:

–Badakizu fariseoak berba hau entzunda eskandalizau dirala?

13. Berak erantzunik esan eban:

–Nire Aita zerukuak iminten ez daben landara guztija sustraitik ateria [izango da].

14. Itxi egijezube! Itxubak dira, ta itxuben zuzentzallaak. Eta baldin [itxubaren zuzentzallia] itxuba bada, bijak jausiko dira lezara.

15. [Pedrok] erantzunik esan eutsan:

–Azaldu egiguzu irudi [hori].

16. Berak esan eutsen:

–Oraindik zubek bere adin baga zagoze?

17. Ez dozube adituten, ahuan sartuten dan guztija sabelera doiala, eta leku ezkutura botaten dala?

18. Baña ahotik urteten dabenak bijotzetik datoz, eta honeek lohitute dabe gizona.

19. Zerren bijotzetik datoz gogoraziño txarrak, gizon hiltiak, haragizko pekatubak besteren emaztiakaz, ezkontzakaz, lapurretaak, asmaziño guzurrezkuak, blasfemijak.

20. Honeek dira gizona lohituten dabenak. Eskubak garbitu baga jatiak, [barriz], ez dau lohituten gizona.

21. Jesusek [handik urtenik], Tiro ta Sidongo aldeetaruntz [aldendu zan].
22. Eta horra hemen andra batek, kanaantarrak, muga hareetatik urtenak, diadar egin eban, zirautsala:
–Errukitu zaite, arren, nigaz Jauna, Dabiden Semia! Nire alabia txarto penetan dau demonioak.
23. Berak ez eutsan erantzun berbarik. Bere [ikaslaak heldurik], erregututen eutsen zirautsela:
–Bialdu eginzu nahi dabena [emonik], zerren diadarrez dator geure ondorik.
24. Berak barriz erantzunik esan eutsen:
–Ez naz bialduba ezpada Israelgo etxeko ardi galdu zirenetara.
25. Barriz bera etorri zan, eta adorau eban, zirautsala:
–Jauna, lagundu egidazu.
26. Jesusek [erantzun] eutsan:
–Ez da ondo semeen ogija [hartutia] eta txakurrai [botatia].
27. [Andraak] esan eutsan:
–Baita hori bere, Jauna; zerren txakurtxubak bere jan ohi ditube euren jaunen mahaitik jausten diran apurrak.
28. Orduban Jesusek esan eutsan:
–Andria, handija da zure fedia! Egin dakizula gura dozun legez.
Eta ordu hatatik [osatu zan] bere alabia.
29. [Handik urten eta] Galileako itxasuaren ondora [etorri zan Jesus. Mendira [igonik, han jarririk eguan].
30. Jendedi asko [beragana heldu ziran], eurakaz mutubak, itxubak, herrenak, mantxuak eta beste asko [eukezanak]. Bere oñetara [bota zitubezan], eta osatu zituzan.
31. Jendedijak miratuten ziren mutubak berbetan [ikusten], herrenak ebiltzala, itxubak eskusala. Eta Israelgo Jaungoikua [alabetan eben].
32. Jesusek barriz deiturik bere [ikaslaai], esan eutsen:
–Erruki ditut jendedijak, zerren hiru egun dira honezkero neugaz [dagozala], eta ez dauke zer janik. Ez ditut gura bialdu barurik, gosiak hill ez dagizan bidian.
33. [Ikaslaak esan eutsen]:
–Nundik, bada, izan ginaikez eremuban hainbeste ogi, jendedi hain handija [asetako]?
34. Jesusek esan eutsen:
–Zenbat ogi daukazubez?
–Zazpi –[esan eutsen eurak]– eta arraintxu gitxi batzubek.
35. [Orduban jendedijari agindu eutsan] jarri zedilla lurraren ganian.
36. Zazpi ogijak eta arraiñak [harturik] eta eskerrak emonik, txikitu zituzan eta bere [ikaslaai emon eutsezan, eta ikaslaak errijari] emon eutsezan.
37. Guztijak [jan eben] eta ase ziran; eta gelditu ziran zatijetatik, zazpi otzara betiak [eruan zitubezan].
38. [Lau milla gizon ziran] barriz jan ebenak, ume ta andra baga.
39. [Gero jendedija bialdurik, ontzitxura] igon eban, eta Magadan ingurubetara [etorri zan].

HAMASEIGARREN KAPITULUBA

[Fariseoak Jesusi mirari bat eskatu.
Fariseoen eta saduzeoen labadura.
Pedrok Jesusen Jaungoikotasunaren autorrera egin.
Jesusek bere herijotzia adierazo.
Jesusi jarraitutia.]

1. Fariseoak eta saduzeoak [Jesusgana heldu ziran esetsitera; zeruko ezagungarriren bat erakutsi egijuela erregutu eutsen].
2. [Baña Jesusek] erantzunik esan eutsen:
–Illuntzija [heldu danian] diñozube: «Aterri egingo dau, zerren gorrija dago zeruba».
3. Eta goxian: «Gaur ekatxa, zerren gorri ta illun dago zeruba». Badakizube, beraz, zerubaren itxuratik [ezagututen] ze denpora egingo daben, eta ezin dozubez jakin nire etorreriaren denporen ezagungarri argijak?
4. Kasta gaisto ta siniste okerrekuak ezagungarrija billatuten dau! Eta ezagungarririk ez jako emongo, ezpada Jonas igarliaren ezagungarrija.
Eta [hareek han] itxirik, juan zan.
5. Bere [ikaslaak] itxasuaren beste aldera [etorririk, ogijak hartutia] ahaztu jaken.
6. Jesusek esan eutsen: «Begiratu egizube, ta gorde zaiteze fariseoen eta saduzeoen labaduratik!».
7. Eurak gogoratuten eben, euren artian ziñuela: «Ogirik ez dogu[lako hartu diño hori]».
8. Jakinik, Jesusek esan eutsen: «[Fede gitxikuak], zergaitik gogoratuten dozube zeuben artian, ogirik ez daukazubela?
9. Ez dozube aituten, eta ez zare gogoratuten bost ogijakaz bost milla gizonentzat, eta zenbat zarakada batu zendubezan?
10. Ez zazpi ogijakaz lau milla gizonentzat, eta zenbat otzarakada batu zendubezan?
11. Zelan ez dozube adituten ez neutsubela berba egin ogijagaitik, esan neutsubenian: Gorde zaiteze fariseoen eta saduzeoen labaduratik?».
12. Orduban aditu eben ez ebala esan gordetako ogijen labaduratik, ezpada fariseoen ta saduzeoen irakatsitik.
13. [Jesus, barriz, Feliperen Zesareako aldeetara etorri zan, eta itandu eutsen bere ikaslaai, zirautsela:
–Gizonaren Semia] nor dala diñue gizonaak?
14. Eurak esan eben:
–Batzuk Juan [Batiatzalla], batzuk barriz Elias eta bestiak Jeremias, edo igarletatik bat.
15. Jesusek [esna eutsen]:
–Zubek, barriz, nor nazala ni diñozube?

16. Erantzunik, Simon Pedrok esan eutsan:

–Zu Kristo [zara], Jaungoiko bizijaren semia.

17. [Orduban] Jesusek esan eutsan:

–Zorijonekua zara Simon, Juanen semia, zerren haragijak eta odolak ez deutsu zuri erakutsi, ezpada nire Aita [zeruban] daguanak.

18. Eta nik dirautsut zuri zu zariala Pedro, eta harri honen ganian egingo dot neure Elexia, eta infernuko atiak ez dabe gehijago egingo bere kontra.

19. [Zeruko] erreinuko giltzak [zuri emongo deutsudaz]. Eta lurraren ganian lotuten dozun guztija, [zeruban] bere izango da lotuba; eta lurraren ganian askatuten dozun guztija, [zeruban] bere izango da askatuba.

20. Orduban agindu eutsen bere [ikaslaai] ez egijuela esan iñori bera zala Jesus Kristua.

21. Ordutik hasi zan Jesus bere [ikaslaai agertuten, berak Jerusalena] juan bihar ebala, eta asko igaro zaharren, eskribaen eta [abadien] agintarijen aldetik, eta [hilla] izan bihar ebala eta hirugarren egunian [biztu bihar ebala].

22. [Pedrok Jesus bakarrik harturik, agiraka egiten hasi jakon], zirautsala:

–Urrin zugandik, Jauna! Ez jatsu zuri [hori] gertauko.

23. [Baña Jesus] Pedroganuntz bihurturik, esan eutson:

–Kendu hakit aurretik, Satanas! Eskandaluba emoten deustak, zerren ez dazauzak Jaungoikuarenak dituan gauzak, ezpada gizonenak dituanak.

24. Orduban Jesusek esan eutsen bere [ikaslaai]: «Baldin iñok gura badau nire ondorik etorri, ukatu begi bere buruba, eta hartu begi bere kurutzia, eta jarraitu begit.

25. Zerren [bere arimia salbau] gura dabenak, galduko dau. Eta [bere arimia nigaitik galduten dabenak], aurkituko dau.

26. Zerren, zer balijo deutsa gizonari mundu guztija [irabaztiak, bere arimia] galduten badau? Edo zer emon leike gizonak bere arimiaren ordian?

27. Zerren Gizonaren Semia etorriko da bere Aitaren glorijan, bere aingerubakaz; eta orduban bakotxari bere egitadaen sarija [emongo deutsa].

28. Egijaz dirautsubet, badirala hemen dagozanetatik batzuk hilgo ez diranak, Gizonaren Semia bere erreinuban [datorrela ikusi artian]».

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUBA

[Jesusek beste irudi bat hartu.
Fedia. Jesusek mutil alditsu bat osatu.
Jesusek bere heriotzija ostera adierazo.
Lau drakmako bat emon.]

1. [Sei egun] igaro ezkero, Jesusek Pedro, Santiago eta Juan bere anaijia [beragaz hartu] eta mendi altu bakar batera [eruan zituzan].

2. Eta beste irudi bat hartu eban euren aurrian: argi egin eban bere aurpegijak eguzkijak legez, eta bere soñekuak zurijak [gelditu ziran] edurra legez.

3. [Orduban Moises eta Elias agertu jakezan], beragaz berbetan zihardubela.

4. [Pedro] berbetan hasirik, Jesusi esan eutsan: «Jauna, ondo da gu hemen egotia! Baldin gura badozu, egin daiguzan hemen hiru bizileku: zuretzat bat, Moisesentzat bat eta Eliasentzat bat».

5. Oraindik berak berbetan zihardubela, horra nun hodei argitsu batek estaldu zituzan, eta horra boz bat, hodeitik ziñuana: «Hau da nire seme maitia, zeñegan ni asko gozatu nazan. Berari entzun egijozube!».

6. [Ikaslaak hori] entzunik, ahuzpaz [jausi ziran eta bildur handija euki eben].

7. [Jesus] hurreratu zan eta ukutu eutsen, ta esan eutsen: «Jaigi zaiteze, eta ez zaiteze bildur izan!».

8. Eta euren begijak [jasorik], ez eben iñor ikusi, ezpada Jesus [bakarrik].

9. [Menditik] jatziten zirala, agindu eutsen Jesusek, zirautsela: «Ez eigijozube esan iñori ikuskizuna, Gizonaren Semia hillen artetik biztu dedin artian».

10. [Ikaslaak] itandu eutsen, ziñuela:

–Zergaitik, bada, eskribak diñue Eliasek [lenago] etorri bihar dabela?

11. Berak erantzunik esan eutsan:

–Elias egijaz etorriko da, eta gauza guztijak [jaoken lekubetan imiñiko ditu].

12. [Barriz] dirautsubet Elias honezkero etorri dala, eta ez eben ezagutu, ezpada [beragaz] egin zitubezan gura zitubezan gauza guztijak. Halan eurak padeziu eragingo deutse Gizonaren Semiari bere.

13. Orduban [ikaslaak] aditu eben Juan [Batiatzallagaitik] berba egin eutsela.

14. Jendedira [heldu zanian, gizon bat Jesusgana etorri zan eta bere aurrian] belauniko jarririk, zirautsan:

15. –Jauna, errukitu zaite nire semiagaz, zerren alditsuba da eta asko igaroten dau: sarri jausten da sutara, eta askotan uretara.

16. Zure [ikaslaai] eruan deutset, eta ezin izan dabe osatu.

17. Jesusek [erantzun] eutsen:

–O kasta sinisgatx ta gaistua! Noiz artian egongo naz zubekaz? Noiz artian sufrituko zaitubet? Ekarri egidazube hona.

18. Eta agiraka egin eutsan Jesusek, eta [mutillagandik] urten eban demonioak, eta osatu zan mutilla ordu hatatik.

19. Orduban ikaslaak Jesusgana ixillian [hurreratu ziran] eta esan eutsen:

–Zergaitik guk ezin izan dugu bota?

20. Jesusek esan eutsen:

–Zeuben fede laburragaitik. Zerren, egijaz dirautsubet, baldin bazeunke fedia moztaza garau bat lakua, mendi honi [esango deutsazube]: «Igaro zaite hemendik hara», eta igaroko da. Ez da izango zubentzat ezinik.

21. Kasta hau barriz ez da botaten, ezpada erregubaren ta barubaren bitartez.

22. Eurak Galilean [egozala, Jesusek] esan eutsen: «Gizonaren Semia gizonen eskubetan [iminija izango da];

23. Eta hillgo dabe eta hirugarren egunian biztuko da».

Eta atsakabe guztiz handi bat hartu eben.

24. Kafarnauna [etorririk], draka bijak batuten zitubezanak Pedrogana [heldu ziran], eta esan eutsen:

–Zuben irakasliak ez ditu pagetan drakma bijak?

25. Esan eutsen: Bai.

[Pedro etxian sarturik, Jesus] aurreratu jakon, zirautsala:

–Zer deritxazu zuri, Simon? Lurreko erregiak notzukgandik hartuten dabe tributuba edo zentzua? Euren semiakgandik ala arrotzakgandik?

26. [Pedrok] esan eutsan:

–Arrotzakgandik.

[Orduban] Jesusek:

–Beraz, ez dabe zor semiak.

27. Baña gatxbiderik emon ez dagijeguben, zuaz itxasora eta bota egizu amuba, eta hartu egizu lelengo atrapetan dozun arraiña; eta, bere ahua [idigirik, lau drakmako bat] aurkituko dozu. Harturik, emon egijezu zeugaitik eta neugaitik.

HAMAZORTZIGARREN KAPITULUBA

[Zein da handijena zeruko erreinuban?
Zorigaistokua gizona eskandaluban.
Ardi galduaren irudija.
Lagun arteko erreguba. Irañak parkatu.]

1. Ordu hatan ikaslaak Jesusgana [heldu ziran], ziñuela:

–Zein deritxazu handijagua dala [zeruko] erreinuban?

2. Jesusek, ume bati [deiturik, euren erdijan] imiñi eban.

3. Eta esan eutsen:

–Egijaz dirautsubet, ez bazare bihurtuten eta egiten umiak lakuak, ez zare sartuko [zeruko] erreinuban.

4. Ume hau legez, bada, umilduten dan edozein, [hori] da handijagua [zeruko] erreinuban.

5. Eta honelako ume bat neure izenian [hartuten dabenak], neu hartuten nau.

6. Nigan sinistuten daben txikitxu honeetatik bat [eskandalizetan dabenari], hoba litzakijo bere idunetik asto errota harri bat [dingilizka imintia, eta itxasuaren hondora] botako balebe.

7. Ai mundubaren zorigaistokua eskandalubakgaitik! Zerren premiñazkua da eskandalubak etortia; baña zorigaistokua harako gizona, zeinen bitartez datorren eskandaluba.

8. Horregaitik baldin zeure eskubak edo zeure oñak pekatu eragin gura badeutsu, ebagi egizu, eta bota zeugandik; zerren hoba duzu [betiko] bizitzan mantxu [sartu] edo herren, esku bi edo oin bi dituzula [betiko sutara] botia izan baño.

9. Eta baldin zeure begijak pekatu eragin gura badeutsu, atera egizu eta bota zeugandik, zerren hoba jatsu begi bakar bategaz [betiko] bizitzan sartutia, begi bi daukazazula [suzko lekura jaurtigija izan baño].

10. Begiratu egizube [gitxitan euki dagizubela txikitxu honeetatik bat]. Zerren, dirautsubet, euren aingerubak [zeruban] beti ikusten dabela neure Aita [zeruban] daguanaren arpegija.

11. Zerren Gizonaren Semia [galdu zana salbetara etorri zan].

12. Zer deritxazube? Baldin norbaitek ehun ardi [baleukaz, eta euretatik bat] galduko balitz, ez al ditu itxiten larogeta hemeretzijak mendijetan, eta ez al dua galdu zana [billatutera]?

13. Eta baldin aurkitutia [jazoten bada], egijaz dirautsubet, gehijago poztuten [da] beragaz, beste larogeta hemeretzi galdu ez ziranakaz baño.

14. Halan ez da zuben Aita [zeruban] daguanaren borondatia txikitxu honeetatik bat [galdutia].

15. Baldin zure anaijiak [zure kontra pekatu egiten badau], zuaz eta agiraka egijozu zeure eta bere artian bakarrik. Baldin entzuten badeutsu, irabazi izango dozu zeure anaijia.

16. Baldin entzuten ez badeutsu, hartu egizuz zeugaz oraindik bat edo bi, *testigu biren edo hiruen ahoz agertu dedin berba guztija.*

17. Baldin ez badeutse [eurai] entzuten, esan egijozu Elexiari. Eta baldin Elexiari entzuten ez badeutsa, izan bedi zuretzat jentilla eta publikanua legez.

18. Egijaz dirautsubet: lurraren ganian lotuten dozuben guztija, [zeruban bere lotua] izango da; eta lurraren ganian askatuten dozuben guztija, [zeruban bere askatuba] izango da.

19. Barriro dirautsubet: baldin zubetariko bi alkartuten badira lurraren ganian, eskatuten daben gauza guztija egingo deutse nire Aita [zeruban] daguanak.

20. Zerren nun dagozan bi edo hiru [nire izenean baturik], han nago euren erdijan.

21. Orduban beragana [heldurik, Pedrok] esan eutsan:

–Jauna, zenbat bidar parkatuko deutsat neure anaijiari, bidebagatasunen bat egiten badeust? Zazpi [bidar]?

22. Jesusek esan eutsan:

–Ez dirautsut zazpi [bidar], ezpada hirurogeta hamar bidar [zazpi].

23. Horregaitik [zeruko] erreinuba gizon errege bati [irudituba da, bere otseiñakaz kontubetan sartu gura ebanari].

24. Kontubak hartuten [hasirik, otsein bat ekarri eutsen, hamar milla talentu zor eutsazana].

25. [Zegaz pagau] ez eukirik, bere jaunak [agindu eban] izan zedilla salduba bera ta bere emaztia eta semiak eta eukan guztija, eta pagau ekijola.

26. [Otseiña] ahuzpazturik, erregututen eutsan: «Itxaron egidazu, eta guztija [pagauko deutsut]».

27. Jauna otsein haregaz [errukiturik], itxi eutsan eta zorra parkatu eutsan.

28. [Baña otsein harek urtenik], bere otsein lagunetatik bat [aurkitu eban, zeñek ehun diru zor eutsan]. Eta, heldurik, ito gura eban, ziarutsala: «Pagau egidak zor deustana».

29. Bere otsein laguna [ahuzpazturik], erregututen eutsan: «Itxaron egidazu, eta guztija [pagauko deutsut]».

30. Berak, barriz, ez eban gura: juan zan, eta [presondegijan] imiñi eragin eban, zorra [pagau artian].

31. Bere otsein lagunak igaroten ziranak [ikusirik, asko] nahibagetu ziran, eta etorri ziran eta euren jaunari [jazo] ziran gauza guztijak [adierazo eutsezan].

32. Orduban bere jaunak [deitu eta esan eutsan]: «Otsein dongia! Zor guztija parkatu neuan erregutu eustalako.

33. Ez al henduban, bada, heuk bere errukitu bihar heure otsein lagunagaz, neu bere heugaz errukitu noan legez?».

34. Eta, haserraturik, bere jauna[k borreruben eskubetan imiñi eban, zor guztija pagau artian].

35. Halan egingo deutsube nire Aita [zerukoak] bere, baldin ez badeutsazube parkatuten bakotxak bere anaijiari zeuben bijotzetatik.

HEMERETZIGARREN KAPITULUBA

[Ezkontzako lokarrija.
Jesusek ostera umiak iruditzat imiñi.
Aberastasunak eragozpen zerurako.
Gauza guztijak itxi ditubezanen saria.]

1. Jesusek berbaldi honeek [amaitu ezkero, Galileatik aldendu eta Judeako mugetara etorri zan], Jordanen beste aldetik.

2. Jendedi askok [jarraitu eutsen, eta han] osatu zituzan.

3. Fariseoak [beragana heldu ziran] esesten berari eta zirautsela:

–Itxi ete leike gizonak bere emaztia, edozein gauzagaitik?

4. Berak erantzunik esan eutsen:

–Ez dozube irakurri, gizona hasieratik [egin ebanak] aarra ta emia egin zituzala?

5. Eta esan ebala: *Honegaitik itxiko ditu gizonak aita eta ama, eta bere emaztiagaz [batzanduko da] eta bi haragi batian [izango dira]*.

6. Halan, bada, honezkero ez dira bi, ezpada haragi bat. Jaungoikuak batu dabena, gizonak ez begi aldendu.

7. Eurak [esan eben]:

–Zergaitik Moisesek agindu eban *aldendubaren agirija [emoteko], eta itxiteko*?

8. Jesusek esan eutsen:

–Zerren Moisesek zeuben bijotzeko gogortasunagaitik itxi eutsuben botaten zeuben emaztiak; hasieratik, barriz, ez zan halan.

9. [Nik] dirautsubet: bere emaztia itxiten daben edozeñek, ez izanik haragizko pekatubagaitik, eta beste bategaz ezkonduten danak haragizko pekatuba egiten dau. Eta itxijagaz ezkonduten danak haragizko pekatuba egiten dau.

10. [Ikaslaak esan eutsen]:

–Baldin horrelan bada gizonak emaztiagaz egin bihar dabena, ezin ezkondu leiteke.

11. [Jesusek] esan eutsen:

–Guzijak ezin daikee gauza hau, ezpada emon jakenak.

12. Zerren badira irendubak, amaren sabeletik halan jaijo ziranak, eta badira irendubak, gizonak egiñak, eta badira irendubak eurak euren burubai ebagijak [zeruko] erreinubagaitik. Egin daikianak daijala.

13. Orduban, aurrian ume batzuk [imiñi eutsezan Jesusi], eskubak imiñi egijuezan eta erregutu egijan. [Ikaslaak], barriz, agiraka egiten eutsen.

14. Jesusek esan eutsen: «Itxi egijezube umiai, eta ez egijezube eragotzi nigana etortia, zerren halakuena da [zeruko] erreiñuba».

15. Eta [eskubak euren ganian imiñi ezkero, handik] juan zan.

16. Horra nun [zaldun] bat heldurik, esan eutsan:

–Irakasla ona, zer on egingo dot betiko bizitzia [jaritxiteko]?

17. [Jesusek] esan eutsan:

–Zergaitik itanduten deustazu onaren ganian? Bat da ona, Jaungoikua. Baldin [betiko bizitzara sartu] gura badozu, gorde egizuz agindubak.

18. [Harek] esan eutsan:

–Zeintzuk?

Jesusek barriz esan eutsan:

–*Ez dozu iñor hillgo, ez dozu haragizko pekaturik egingo, ez dozu lapurretarik egingo, ez deutsazu iñori guzurrik asmauko.*

19. *Onrau egizu zeure aita eta zeure ama, eta maitetuko dozu zeure lagun hurkua zeure buruba legez.*

20. Zaldunak [esan eutsan]:

–[Horreek guztijok neure gazte denporatik gorde ditut]. Zer palta jat oraindik?

21. Jesusek esan eutsan: Baldin [osaro ona izan] gura badozu, zuaz, saldu egizu daukazuna, eta emon egijozu eskekuai, eta ondasuntegija zeruban [eukiko dozu. Gero] erdu, jarraitu egidazu.

22. Zaldunak berba [hura entzunik, motz] juan zan, zerren ondasun handijen jaubia [zan].

23. Jesusek bere [ikaslaai] esan eutsen:

–Egijaz esaten deutsubet aberatsa nekez sartuko dala [zeruko] erreinuban.

24. Gehijago dirautsubet: Errazago da ganbelu bat jostorratzaren zulotik igarotia, aberats bat [zeruko erreinuban] sartutia baño.

25. Honeek [entzunik, ikaslaak asko] mirarituten ziran, ziñuela:

–Nor, bada, salbau liteke?

26. Begiraturik, Jesusek esan eutsen:

–Gizonak hau ezin egin leije, baña Jaungoikuak guztijak egin leikez.

27. Orduban [Pedrok Jesusi] esan eutsan:

–Horra, guk gauza guztijak [itxi ditugu] eta jarraitu deutsugu. Ze sari izango dogu?

28. Jesusek esan eutsen:

–Egijaz dirautsubet, zubek, jarraitu deustazubenok, gizaldi barrijan Gizonaren Semia bere handitasuneko alkijan [jarten danian], zubek bere hamabi jarlekuren ganian [jarriko zarela], Israelgo hamabi etxadijak [juzgetako].

29. Eta edozeñek, [nire izenagaitik] itxiten dabenak etxia, edo anaijaak, edo arrebaak, edo aita, edo ama, edo emaztia, edo semiak, edo lurrak, bakotxagaitik ehun hartuko dau eta betiko bizitziaren jaube izango da.

30. Lelenguak [diran asko azkenak izango dira], ta azkenak lelenguak.

HOGEIGARREN KAPITULUBA

[Mahastiko langillen irudija.

Jesusek aurrez berba egin bere pasiñoiaren ganian.

Ikaslaak serbitzari izan bihar.

Zebedeoren semien amaren eskarija.

Jesusek itxu bi sendatu Jerikon.]

1. [Zeruko] erreinuba gizon etxekojaun baten irudikua [da, zeñek goxian gox bere mahastirako langillaak hartutera] urten eban.

2. [Eguneko diruba alogerekuakaz emoteko gelditurik, bere mahastira] bialdu zituzan.

3. [Bederatzijetan urtenik, beste batzuk plazan alperrik egozala ikusi zituzan].

4. Eta esan eutsen: «Zuaze zubek bere nire mahastira, eta jaotsubena emongo deutsubet».

5. Eurak juan ziran.

Ostera bere urten eban [mahastijaren jaubiak eguerdi inguruban], eta hirureta[n], eta bardin egin eban.

6. Arratsaldeko bosteta[n urten eban eta beste batzuk aurkitu zituzan han egozala], ta esan eutsen: «Zergaitik zagoze hemen egun guztijan alperrik?».

7. [Esan eutsen]: «Iñok ez gaituzalako eruan alogerian». [Harek orduban]: «Zuaze zubek bere neure mahastira».

8. Gaba egin zanian, mahastijaren jaubiak bere otsein nagusijari [esan eutsan]: «Deitu egijezu langillai, eta emon egijezu alogera, azkenenguetatik [hasirik] lelenguetaragiño».

9. Arratsaldeko bosteta[n] etorri ziranak etorri ziranian, bakotxak diru bana hartu zitubezan.

10. Lelenguak bere [etorririk], uste izan eben gehijago hartuko ebela: eurak bere diru batna [hartu eben].

11. Eta hartuten ebela, txarto esaten eben etxekojaunagaitik.

12. Ziñuela: «Honeek azkenenguok ordu batian egin eben, eta eurakaz bardin egin gaituzu, egunaren eta beruaren pisuba [eruan dogunok]».

13. Baña [etxekojaunak euretariko bati erantzunez], esan eutsan: «Adiskidia, ez deutsut bidebagatasunik [egiten]: ez al ziñan gelditu neugaz diru batian?

14. Hartu egizu zeuria dana, ta zuaz: gura dot honi azkenengo honi bere emon zuri beste.

15. Edo ez al daiket nik gura dodana egin? Zure begija gaistua al da, ni ona nazalako?».

16. Halan izango dira azkenenguak lelengo, eta lelenguak azkenengo. Zerren asko dira deitubak, hautubak [barriz], gitxi.

17. Jesusek Jerusalena [igoten ebala, hamabi ikaslaak] ixillian hartu zituzan, ta esan eutsen:

18. «Horra nun igoten dogun Jerusalena, eta Gizonaren Semia [abade nagusijai ta eskribai saldua izango jake, eta hilteko epaija emongo deutse].

19. Eta jentillai [emongo deutse, destañak] egin dagijuezan, eta azotau, eta kurutzian josi, eta hirugarren egunian biztuko da».

20. Orduban Zebedeoren semeen ama [Jesusengana heldu zan] bere semiakaz, adoretan ebala eta [berari zerbait] eskatuten eutsala.

21. Jesusek esan eutsan:

–Zer gura dozu?

[Harek] esan eutsan:

–Esan egizu neure seme bi honeek jarri ditezela, bata zeure eskumako aldian ta bestia ezkerreko aldian zeure erreinuban.

22. Jesusek [erantzun] eban:

–Ez dakizube zer eskatuten dozuben. Edan bai al ziñaije, neuk edango dodan kalizia?

–Bagiñaike –[esan eutsen].

23. [Orduban Jesusek]:

–Edango dozube egijaz nire kalizia; baña nire eskumako aldian edo ezkerrekuan [jartia] ez jaot niri zubei emotia, ezpada nire Aitak prestau deutsenai.

24. [Beste hamarrak hori entzunik, anaija bijakaz haserratu ziran].

25. Jesusek [beragana] deitu eutsen eta esan eutsen: «Badakizube erreinubetako agintarijak menpian eukiten ditubezala eurak, eta nagusijaguak diranak, eskubidiagaz aginduten deutsala eurai.

26. Ez da izango halan zuben artian. Zuben artian handijago izatia gura daben edozein, izan bedi zuben otseiña.

27. Eta zuben artian lelengua izan [gura dabena], zuben serbitzarija [izango da].

28. Gizonaren Semia ez zan legez etorri otseiñak eukitera, ezpada otsein izatera, eta bere bizitzia [emotera] askoren arimen erospenerako».

29. Eurak Jerikotik [urteten ebela], jendedi askok [jarraitu eutsan].

30. Eta horra nun itxu bik, bidiaren onduan [jarririk egozanak], Jesus igaroten zala [entzun eben]. Eta diadar egin eben, ziñuela:

–Jauna, Dabiden Semia, errukitu zaite gugaz!

31. Jendedijak, barriz, agiraka egiten eutsen ixildu zitezen. Baña eurak diadar andijaguak egiten zitubezan, ziñuela:

–Jauna, Dabiden Semia, errukitu zaite gugaz!

32. [Jesus] gelditu zan, deitu eta esan eutsen:

–Zer gura dozube egin dagizubedan?

33. Eurak [esan eutsen]:

–Jauna, idigijak izan ditezela gure begijak.

34. [Eurakaz errukiturik, Jesusek euren begijak ukutu zituzan]. Eta berihala ikusi eben, eta berari [jarraitu eutsen].

HOGETABATGARREN KAPITULUBA

[Jesusen sarreria Jerusalemen.
Jesusek saltzallaak elexatik bota.
Jesusek pikoondoa igartu. Seme biren,
mahastizañen ta etxeburuko harrijaren irudijak.]

1. Jerusalena hurreratu eta Betfagera Olibetako mendira [heldu ziranian, Jesusek ikasla bi bialdu zituzan],

2. Esaten eutsela:

–Zuaze zeuben aurrian daguan herrira, eta berihala aurkituko dozube astaeme bat loturik, eta umia beragaz: askatu egizube eta ekarri egidazube neuri.

3. Eta baldin iñok ezer esaten badeutsube, esan egijozube: «Jaunak euren premiñia dauka, eta berihala itxiko ditu».

4. Hau guztijau egin zan, igarliak esan ebana bete zedin, ziñuanian:

5. *Esan egijezube Siongo alabiari: Horra nun zure erregia jatorzun otsana, jarririk astaemiaren ganian, eta ume bat buztarripian daguanaren semia.*

6. Ikaslaak [juanik], Jesusek eurai agindu eutsen legez [egin eben].

7. Astaemia ta umia [ekarri zitubezan], eta honeen gamian euren soñekuak [imiñi zitubezan], eta berari ganian jarri eragin eutsen.

8. Jendedi handi batek bere soñekuak [zabalduten zituzan] bidian, eta beste batzuk haretxen arramaak [ebagi eta bidian zabalduten zitubezan].

9. [Jesusen] aurretik juazan ta ostetik jarraituten eutsen jente aldraak diadar egiten eben:

Hosanna Dabiden semeari! Bedeinkatuba Jaunaren izenian [datorrena]! Hosanna goi-goijetan!

10. [Jesus] Jerusalena sartu zanian, huri guztija jarri zan itantzen, ziñuela:

–Zein da hau?

11. Herrijak, barriz, ziñuen:

–Hau Jesus igarlia [da], Nazaret Galileakua.

12. Jesus Jaungoikuaren elexan sartu zan, eta elexan salduten eta erosten egozan guztijak [botaten zituzan], eta diru trukalarijen mahaijak eta saltzallen jarlekubak [jaurtigi zituzan].

13. Eta erran eutsen: «Eskribidurik dago: *Nire etxia erreguko etxia izango da*; zubek, barriz, lapurren kobaua [egin dozube]».

14. Itxubak eta herrenak [etorri ziran beragana] elexan, eta osatu zituzan.

15. [Abadien] nagusijak eta eskribak [Jesusek] egin zituzan mirarijak [ikusirik], eta umiak diadarrez [ziardubela] elexan eta ziñuela «Hosanna Dabiden semiari!», haserre handi bat hartu eben.

16. Eta esan eutsen:

–Entzuten dozu zer esaten daben honeek?

Jesusek esan eutsen:

–Bai. Ez dozube iñoz irakurri: *Umeen eta ugatzetakuen ahotik atera zenduba[n] alabantza osua?*

17. Eta hareek [itxirik, kanpora] juan zan huritik Betanijara, eta han egon zan [gabaz].

18. Goixian, hurira [bihurturik], gose izan zan.

19. Pikoondo bat bidiaren albuan [ikusirik, beragana] hurreratu zan. Eta ez eban ezer aurkitu beragan ezpada orrijak bakarrik, eta esan eutsan: «Ez dok sekula gehijago pikorik izango».

Eta berihala [igartu zan] pikoondua.

20. Ikaslaak, [hori] ikusirik, miraritu ziran, ziñuela:

–Zelan berihala sikatu da?

21. Erantzunik Jesusek esan eutsen:

–Egijaz esaten deutsubet, baldin bazenduke fedia, eta eukiko ez bazendube ezbairik, ez bakarrik egingo [zenduben] pikuarena, baita bere esango bazeunskijue mendi honi «Alde egin eta bota hadi itxasora», egiña izango [zan].

22. [Erreguban] eskatuten dozuben edozein gauza, sinistuten dozubela, hartuko dozube.

23. [Jesus elexara etorririk, erakusten eguala, beragana] abadien nagusijak eta herriko zaharrak [heldu ziran], ziñuela:

–Ze eskubidegaz egiten dituzu honeek? Nok emon deutsu zuri eskubide hau?

24. Erantzunik Jesusek esan eutsen:

–Neuk bere itanduko deutsubet berba bat: baldin hau esaten badeustazube, neuk bere esango deutsubet ze eskubidegaz egiten ditudazan honeek.

25. Juanen bautismua nundikua zan, zerutikua ala gizonetatikua?

Eta eurak [euren artian] gogoratuten eben, ziñuela: «Baldin 'zerutikua' [esango bagendu, esango euskun]: Zergatik bada ez zeuntzen sinistu berari?

26. Baldin, barriz, 'gizonetikakua' [esango bagendu], jendedijaren bildur gara, zerren guztijak euken Juan igarlia legez».

27. Jesusi [erantzunik], esan eben:

–Ez dakigu.

Berak bere [esan eutsen]:

–Neuk bere ez deutsubet esaten ze eskubidegaz egiten ditudazan honeek.

28. Zer deritxazube? Gizon batek seme bi [eukazan], eta heldurik lelenguagana, esan eutsan: «Semia, zuaz gaur, bihar egizu neure mahastijan».

29. Berak erantzunik, esan eutsan: «Ez dot nahi». Gero, damuturik, juan zan.

30. Bestiagana [heldurik], bardin esan eutsan. Eta berak erantzunik, esan eutsan: «Banua, jauna». Eta ez zan juan.

31. Bijetatik zeñek egin eban aitaren borondatia?

Eurak [esan eutsen]:

–Lelenguak.

Jesusek [esan eutsen]:

–Egijaz esaten deutsubet: Publikanuak eta emakume galdubak zuben aurretik [juango dira] Jaungoikuaren erreinura.

32. Zerren Juan zuzentasuneko bidian [zubekgana etorri zan] eta ez zeuntzen sinistu. Publikanuak eta emakume galdubak, barriz, sinistu eutsen. Zubek, barriz, bera [ikusirik], ez zenduben egin penitenzijarik bere gero, [berari] sinistuteko.

33. Beste irudi bat entzun egizube: Bazan gizon etxekojaun bat, zeñek mahastija [imiñi eban] eta hesi batez inguratu eban eta atxurturik [dolara bat] egin eban bertan eta dorre bat [jaso eban], eta [nekazarijai errentan] emon eutsen eta urrin juan zan.

34. [Mahatsen denporia] hurreratu zanian, bere otseiñak nekazarijakgana [bialdu zituzan], haren mahatsak [hartu egijezan].

35. [Baña] nekazarijak bere otseiñak [atrapaurik], bata zauritu eben, bata hill eben, batari, barriz, harrika egin eutsen.

36. Barriro bialdu zituzan beste otsein batzuk, lelenguak baño gehijago, eta bardin egin eutsen.

37. Azkenian bere semia [bialdu eban] eurakgana, ziñuala: «Lotsia gordeko deutse nire semiari».

38. Nekazarijak, barriz, semia [ikusirik, euren artian] esan eben: «Hau da jaubegeija. Erdube! Hill daigun, eta bere seniparia [eukiko dogu].

39. Eta berari [heldurik], mahastitik kanpora [bota eben] eta hill eben.

40. Mahastijaren jauna [datorrenian], zer egingo dau nekazari hareekaz?

41. Eurak [erantzun eutsen]:

–Dongaak dongaro galduko ditu, eta bere mahastija beste nekazari batzubei [emongo deutse errentan], frutuba euren denporetan [pagauko deutsenai].

42. Jesusek [esan eutsen]:

–Ez dozube irakurri iñoz Eskrituretan:

Etxegillaak bazterrera bota eben harrija, hau izan da iminija kantoiaren buruban. Jaunak egin eban hau, eta miragarrija [da] gure begijetan.

43. Horregatik esaten deutsubet kenduba izango jatzubela Jaungoikuaren erreinuba, eta emona izango jakola bere frutubak egiten dituzan erreinubari.

44. Harri honen ganera [jausten dana, zatituba] izango da, eta berau ganera jausten jakona, puskatuba [izango da].

45. [Abadien] nagusiaj eta fariseoak [haren irudijak entzunik], eurakgaitik berba egiten ebala [ezagutu eben].

46. Eta zelan helduko eutsen [billaturik], jendedijen bildur izan ziran, zerren bera igarlia legez [euken].

HOGETABIGARREN KAPITULUBA

[Ezteguen irudipena, eztegubetako soñekua.
Jaungoikua ta Zesar. Hillen biztueria.
Agindu nagusijena ta lelengua.
Kristo Dabiden Seme ta Jauna.]

1. Jesusek [erantzunik], barriro berba egin eutsen irudijetan, ziñuala:

2. –[Zeruko] erreinuba gizon errege baten antzekua [da, bere semiari eztegubak egin eutsazanarena].

3. Bere otseiñak [bialdu zituzan konbidaubai eztegubetara deitutera], eta ez eben etorri gura izan.

4. Barriro bialdu zituzan bere otsein batzuk, esanaz: «Esan egijezube konbidaubai: Horra hemen, neure bazkarija prestaurik daukat, neure zezenak eta abere gizendubak hillik dagoz, guztija dago prestaurik; erdube eztegubetara».

5. Eurak, barriz, ez eutsan jaramonik egin eta juan ziran, bata bere solora, bestia bere hartuemonetara.

6. Enparaubak, barriz, bere serbitzarijai [heldu eutsen], eta destañaz bete ezkero hill zitubezan.

7. [Entzun ebanian], erregeri haserratu jakon eta, bere soldautegijak bialdurik, eralla hareek [galdu zituzan], eta euren hurijari su emon eutsan.

8. Orduban bere otseñai [esan eutsen]: «Eztegubak egijaz prestaurik dagoz, baña konbidaurik egozanak ez ziran duiñak.

9. Zuaze, bada, bideen urteeretara, eta aurkituten dituzuben guztiaj dei egijezube eztegubetara».

10. Bere otseñak bideetara [urtenik], aurkitu zitubezan guztijak [batu zitubezan], dongaak eta onak. Eta eztegubetako saletako mahaijak konbidatuz [bete ziran].

11. Errege mahaijan jarririk egozanak [ikustera sartu zan], eta han gizon bat [ikusi eban] ezteguko jantzijaz jantzi baga.

12. Eta esan eutsan: «Adiskidia, zelan hona sartu zara ezteguko jantzija [euki bagarik]?». Bera, barriz, mututu zan.

13. Orduban erregek serbitzarijai [esan eutsen]: «Eskubak eta oñak [loturik], bota egizube kanpoko illuntasunetara. Han izango da negarra ta hagin karraskadia».

14. Zerren asko dira deitubak, eta gitxi hautubak.

15. Orduban fariseoak [batzar egitera] juanik, euren artean [aditu ziran, Jesus] atrapetako berban.

16. Eta euren ikaslaak [bialdu eutsezan] Herodestarrakin, ziñuela:

–Irakaslia, badakigu egijatija zariala, eta Jaungoikuaren bidia erakusten dozula egijan, eta ez deutsula iñoren ardurarik, zerren ez dozu begiratuten gizonetan nornor dan.

17. Esan egiguzu, bada, zer deritxazu[n]: Ondo da zentsua emotia Zesarri, ala ez?

18. Jesusek euren gaistakerija [ezaguturik], esan eutsen:

–Zergaitik esesten deuztazube irudi hutsez onak?

19. Erakutsi egidazube zentzoko diruba. Eurak zidarrezko diru bat [eskiñi eutsen].

20. Jesusek [itandu] eutsen:

–Norena da irudi hau, eta ganian eskribidurik daguana?

21. [Eurak erantzun]:

–Zesarrena.

[Jesusek] orduban:

–Emon egijezube, bada, Zesarri Zesarrena, eta Jaungoikuari Jaungoikuarena.

22. [Hori] entzunik, miraritu ziran eta, [bera] itxirik, juan ziran.

23. Egun hatan heldu ziran beragana saduzeuak, zeintzubek diñuen ez daguala biztuera barririk, eta itandu eutsen:

24. –Irakaslia, Moisesek esan eban: *Baldin iñor [semerik euki baga] hilgo balitz, ezkondu dedilla bere anaijia haren emaztiagaz, eta biztu begijo jatorrija bere anaijiari.*

25. Baziran [behin] gure artian zazpi anaija. Lelengua ezkondu ezkero hill zan; eta ez eukirik jatorririk, bere emaztia bere anaijiari [itxi eutsan].

26. Bardin bigarrena, eta hirugarrena zazpigarreneragiño.

27. Eta guztijen azkenian andria bere hill zan.

28. Biztuera barrijan, bada, zazpiretarik zeñena izango da emaztia? Zerren guztijak euki eben bera.

29. Jesusek [erantzunik] esan eutsen:

–Huts egiten dozube ez jakinik Eskriturak, ez Jaungoikuaren indarra.

30. Zerren biztuera barrijan ez dira ezkonduko, ez ezkontzeko emonak izango: Jaungoikuaren aingerubak zeruban legez [izango dira].

31. Hillen biztueriaren ganian, barriz, ez dozube irakurri Jaungoikuak esan ebana, esaten deutsubela:

32. *Ni naz Abrahanen Jaungoikua, eta Isaaken Jaungoikua, eta Jakoben Jaungoikua?* Ez da hillen Jaungoikua, ezpada bizijena.

33. Jendedijak [hori] entzunik, mirarituten ziran bere irakatsijan.

34. Fariseuak, barriz, [Jesusek saduzeuai ixildu eragin eutsela entzunik, batzaarra egin eben].

35. Eta euritariko batek, [legetsubak], itandu eutsan, zirikatuten ebala:

36. –Irakaslia, zein da agindu handija legian?

37. Jesusek esan eutsan:

–Maitetuko dozu zeure Jaun Jaungoikua zeure bijotz guztitik eta zeure arima guztijagaz, eta zeure gogo guztijagaz.

38. Hau da agindubetan nagusijena ta lelengua.

39. Bigarrena, barriz, honen antzekua [da]: *Maitetuko dozu zeure lagun hurua, zeu zeurori legez.*

40. Agindu bi honeetan dago sarturik Lege guztija ta igarlaak.

41. Eta fariseoak [baturik egozala], itandu eutsen Jesusek:

42. –Zer deritxazube Kristogaitik? Zeñen semia da?

[Esan eutsen]:

–Dabidena.

43. [Jesusek orduban]:

–Zelan, bada, Dabidek espirituban deituten deutsa «Jauna», diñuala:

44. *Jaunak nire Jaunari [esan eutsan]: jarri zaite nire eskumatatik, imiñi dagidazan artian zeure arerijuak zeure oñen aulkitzat.*

45. [Beraz], baldin Dabidek Jauna [deituten badeutsa], zelan da bere semia?

46. Iñok ezin eutsan erantzun berbarik, eta [egun hatatik] ez zan azartu iñor berari gehijago itandutera.

HOGETAHIRUGARREN KAPITULUBA

[Jesus eskriba ta fariseuai jarkirik.
Igarlen herijotzia.
Jesus Jerusalenen hondamendijaz.]

1. Orduban Jesusek jente aldraai ta bere jarraitzallai [berba egin eutsen]:

2. –[Eskribaak ta fariseoak] Moisesen irakastokijaren ganian jarri ziran.

3. Esaten deutsuben guztija, [beraz], gorde egizube ta egin; baña ez egizube egin euren egitadeen erara, zerren esaten dabe, ta ez egin.

4. Zerren karga astunak ta eruan eziñak [lotuten ditube] ta gizonen bizkarretan [iminten ditube], baña ez deutse nahi zirkinik bere eragin euren atzamarragaz.

5. Euren egitada guztijak egiten ditube gizonak ikusi dagijezan, zerren nire legeko agindubak [narruzko ugal zabaletan darabillez, eta hegalak] edertuten ditube.

6. Aparijetan, [barriz, lelengo lekubak maite ditube], eta lelengo jartokijak sinagogetan.

7. Eta agurrak egin dagijuezala plazan, eta «irakasle» izenagaz deitu dagijuela gizonak.

8. Zubek, barriz, ez egizube nahi izan [«irakaslaak»] deitubak izatia, zerren bat bakarra da zuben Irakaslia; zubek guztijok, barriz, anaijaak zare.

9. Eta ez egijozube deitu iñori zeuben «aita» lurraren ganian, zerren bat da zuben Aita, [zeruban] daguana.

10. Ez egijozube alkarri deitu «irakaslaak», zerren bat da zuben Irakaslia, Kristo.

11. Zuben artian handijena dana, zuben serbitzarija [izango da].

12. Zerren goratuten dana, beheratuba [izango da], eta beheratuten dana, goratuba [izango da].

13. Baña ai errukarrijak, eskriba ta fariseuak, irudiz bakarrik onak, zerren [zeruko erreinuba itxiten dozube] gizonen aurrian! Zerren zeubek ez zare sartuten, eta sartutera duazanai ez deutsazube itxiten sartuten.

14. Ai errukarrijak, eskriba ta fariseo irudiz bakarrik onak! Zerren alargunen [ondasunak jaten dituzube] errezu luziak errezaurik. Haugaitik hartuko jatzubez kontu estubaguak!

15. Ai errukarrijak, eskriba ta fariseo irudiz bakarrik onak! Zerren itxasua [inguratuten dozube], ta lurra, zeuben legera norbait ekarteko eta, ekarri dagizubenian, infernuaren seme [egiten dozube] zeubek baño birritan gehijago!

16. Ai errukarrijak, zuzentzalla itxubak, esaten dozubenak: «[Tenplubagaitik] juramentu egiten daben guztijak, ez da ezer; baña tenpluko urriagaitik [juramentu egiten dabenak] zor dau».

17. Eruak ta itxubak! Zerren zer da handijago, urria ala tenpluba, urria santututen dabena?

18. [Esaten dozube: «Edozeñek] altariagaitik juramentu egingo baleu, ez da ezer; baña [edozeñek] altariaren ganian daguan eskintsarijagaitik juramentu egingo baleu, zor dau.

19. Itxubak! Zer da handijago, eskintsarija ala altaria, [eskintsarija] santututen dabena?

20. [Altariagaitik] juramentu egiten dabenak, beragaitik [egiten dau juramentu] eta bere ganian daguan guztijagaitik.

21. Eta [elexiagaitik] juramentu egiten daben edozeñek, beragaitik [egiten dau juramentu] eta bertan bizi danagaitik;

22. Eta [zerubagaitik] juramentu egiten dabenak, Jaungoikuaren jartokijagaitik [egiten dau juramentu] eta bere ganian jarten danagaitik.

23. Ai errukarrijak, eskriba ta fariseo irudiz bakarrik onak! Hamarrenak [pagatzen dituzubenak] mendatik, millutik eta kominotik, eta legiaren gauza astunaguak diranak [itxi dituzube]: zuzentasuna, errukija eta fedia. Honeek bihar ziran egin, eta hareek ez itxi egin baga!

24. Zuzentzalla itxubak! Eltxua [iraziten dozubenak]; ganbeluba, barriz, iruntzi.

25. Ai errukarrijak, eskriba ta fariseo irudiz bakarrik onak! Ontzijak ta platerak kanpotik [garbituten dituzubenak]; barruban, barriz, lapurretaz ta lohikerijaz beterik [zagoze].

26. Fariseo itxuba! Garbitu egik lelengo ontzijaren ta plateraren barruba, garbitua izan jadin kanpotik daguana.

27. Ai errukarrijak, eskriba ta fariseo irudiz bakarrik onak! Zerren hobi zurituben antzekuak [zare], zeintzubek kanpotik gizonai ederrak [begitanduten jakez, baña] barrutik hillen hazurrez ta zikinkerija guztijaz beterik [dagoz].

28. Halan zubek bere kanpotik egijaz agertuten zatxakez gizonai onak, [baña] barruban guzurrez ta gaistakerijaz beterik [zagoze].

29. Ai errukarrijak, eskriba ta fariseo irudiz bakarrik onak! Igarlen hobijak [egiten dituzube], eta oneen egitaden gomutagarrijak [apainduten dituzube].

30. Eta diñozube: «Baldin geure gurasuen egunetan [izan bagiña], ez giñan izango euren lagunak igarleen odolian».

31. [Beraz], halan emoten dozube agirija zeuben zeuroen gatxian, igarlaak hill zitubezanen semiak [zareela].

32. Zubek bete egizube, [bada], zeuben gurasoen neurrija!

33. Sierpiak, ziraun kastaak! Zelan iges egingo deutsazube infernurako epaijari?

34. Horregaitik, horra nun nik bialduten ditudazan zubekgana igarlaak, eta jakitunak, eta irakaslaak, eta euretatik hilgo dituzube eta kurutzian josiko dituzube, eta euretatik azotauko dituzube zeuben sinagogetan, eta huritik huri [persegiduko dituzube];

35. Zuben ganera odol errubagako guztija [etorri dedin], lurraren ganian [isurija izan zana] Abel errubagiaren odoletik, Zakarias Barakiasen semiaren odoleragiño, zein elexiaren eta altariaren artian [hill zenduben].

36. Egijaz dirautsubet honek guztijok [etorriko dirala] gizaldi honen ganera.

37. Jerusalen, Jerusalen, [igarlaak] hilten dituzuna eta harrika egiten deutsezuna zeugana bialdubak diranai, zenbat bidar gura izan neban batu zure semiak, olluak [bere txitak hegoen azpijan] batuten dituzan legez, eta ez zenduban gura izan?

38. Horra nun, zeuben etxia iñor baga [geldituko jatsube].

39. Zerren esaten deutsubet ez nozubela ikusiko oraindixek, esan dagizuben artian: *Bedeinkatuba Jaunaren izenian [datorrena]!*

HOGETALAUGARREN KAPITULUBA

[Jerusalen desegiña izango da.
Amaijaren aurreko señaliak.
Gizonaren Semiaren etorreria.
Ez dakizube hau guztija noiz izango dan.]

1. Jesusek elexatik urtenik, bajoian. Eta bere [ikaslaak hurreratu jakozan, berari erakusteko] ze handi ta ederra zan elexia.

2. Berak erantzunik esan eutsen: «Badakutsubez honeek guztijok? Egijaz esaten deutsubet ez dala geldituko hemen harririk harrijaren ganian, botia izango ez denik».

3. [Gero] bera Olibetako mendijaren ganian [jarririk eguala, ikaslaak ixillian beragana heldu ziran], ziñuela:

–Esan egiguzu, noiz izango dira [horreek]? Eta zer izango da zure etorreriaren ta mundubaren amaijaren ezagungarrija?

4. Jesusek [erantzun] eutsen:

–Begira ez zagijezala iñok engañau!

5. Zerren asko etorriko dira nire izenian diñuela: «Ni naz Kristo». Eta asko engañauko ditube.

6. Zerren gerraak eta gerren hotsak [entzungo dituzube]. Begira ez zaitezela ikaratu. Zerren honeek egiñak izan bihar dabe, baña oraindik ez da azkena.

7. Zerren jentia jentiaren kontra jagiko da, eta erreinuba erreinubaren kontra, eta izurrijak [izango dira], eta gosiak, eta luikaraak lekubetatik.

8. Honeek guztijok, barriz, miñen hasierak dira.

9. Orduban emongo zaitube nahibagetuak izateko, eta hillgo zaitube; eta jente guztijak gorroto izango deutsube nire izenagaitik.

10. Orduban gatxerako bidia hartuko dau askok, alkar salduko dabe eta alkarri gorroto izango deutse.

11. Guzurrezko igarla asko jagiko dira, eta asko [engañauko ditube].

12. [Gaistakerija] ugarituko dalako, askoren karidadia [hotzituko da].

13. [Baña azkeneragiño] irauten dabena [salbaua] izango da.

14. Erreinuko ebanjelijo hau mundu guzijan [predikaduba izango da], jente guztijen ezagungarritzat, eta orduban amaija [etorriko da].

15. Hondamendijaren higuina, Daniel igarliak esana, leku santuban [daguala ikusten dozubenian –irakurten dabenak aditu dagijala–;

16. Orduban Judean dagozanak iges egin dagijela mendijetara;

17. Tellatuan daguana ez bedi jatzi [zerbait] hartutera bere etxetik,

18. Eta kanpuan daguana ez bedi bihurtu bere tunikia hartutera.

19. Baña ai seindun dagozanen ta seña haziten daukenen errukarrijak egun hareetan!

20. Erregutu egizube, bada, zuben igesa neguban edo zapatuban [jaso ez dedin].

21. Zerren orduban nahibage handija [izango da], mundubaren hasieratik orain artian [izan ez dan bezelakua], ta izango bere ez dan [bezelakua].

22. Eta egun hareek [Jaungoikuak laburtubak izango ez balira], ez litzateke iñor salbauko; baña hautubakgaitik laburtubak izango dira egun hareek.

23. Orduban baldin iñok esango baleutsube: «Begira, hemen dago Kristo», edo «Han», ez egijozube sinistu.

24. Zerren gezurrezko kristuak eta guzurrezko igarlaak [jagiko dira], eta ezagungarri handijak eta mirarijak [egingo ditube], allagiña ze siniste txarrera ekarriko litukez baldin ahal balitz hautubak bere.

25. Begira aurrez esan dautsubedala.

26. [Beraz], baldin esango baleutsube: «Horra nun, eremuban dago», ez egizube urten; «Horra nun, etxeko lekurik ezkutubenetan», ez egijezube sinistu.

27. Zerren oñaztubak [eguzkijaren urteeratik] urteten daben legez, eta [sarrerarаño ikusten dan], halan izango da Gizonaren Semiaren etorreria bere.

28. Nunnahi daguala gorputza, han batuko dira arranuak bere.

29. Egun hareetako nahibagiaren ondorik, [berihala], eguzkija illunduko da, eta illargijak ez dau [egingo] bere argija, eta izarrak jausiko dira zerutik, eta [zeruko] birtutiak zirkin egingo dabe.

30. Orduban, Gizonaren Semiaren ezagungarrija [agertuko da] zeruban, eta orduban negar egingo dabe lurreko etxadi guztijak, eta *Gizonaren Semia zeruko hodeijetan [datorrela* ikusiko dabe], eskubide askogaz ta handitasunagaz.

31. Eta bere aingerubak tronpetiagaz ta boz handijagaz [bialduko ditu], eta bere hautubak lau haxeetatik batuko ditube, zerub[a]n guenetatik euren barrenengo amaijetaraño.

32. Piko haretxetik, berriz, ikasi egizube bardinkuntzia: bere erramia ija samurra daguanian, eta orrijak urtenak, badakizube hurrian dala udia.

33. Halan, zubek bere honeek guztijok [ikusten dituzubenian], jakin egizube [Gizonaren Semia] hurrian dala atetan.

34. Egijaz dirautsubet ez dala igaroko giza aldi hau, honeek guztijok jazo ditezen artian.

35. Zeruba ta lurra igaroko dira; nire berbaak, barriz, ez dira igaroko.

36. Egun eta ordu haren barririk, barriz, iñok ez daki, [ezta zeruko] aingerubak ere, ezpada Aitak [bakarrik].

37. Noeren egunetan legez, halan izango da Gizonaren Semiaren etorreria bere.

38. Zerren ujolia baño lehenagoko egunetan egozan legez, jaten ta edaten, ezkonduten ta ezkontzarako emoten, Noe utxan sartu zan egun hataragiño.

39. Eta ez eben [ezer] ezagutu [ujolia] etorri zan artian, ta eruan guztijak; halan izango da Gizonaren Semiaren etorreria bere.

40. Orduban bi egongo dira kanpuan: bata hartuba [izango da] eta bestia itxija.

41. Emakume bik errotan [eijoten jardungo dabe]: bata hartuba [izango da] eta bestia itxija.

42. Zagoze, bada, iratzarririk, zerren ez dakizube ze ordutan [etorriko dan] zeuben Jauna.

43. Jakin egizube: etxekojaunak baldin baleki ze ordutan [etorriko dan] lapurra, iratzarririk egongo litzateke egijaz, eta ez luke itxiko zulatuten bere etxia.

44. Horregaitik zubek bere egon zaiteze prestaturik, zerren ez dakizuben orduban [etorriko da] Gizonaren Semia.

45. Zein uste dozu dala, otsein leijal ta zuhurra, bere jaunak bere familijaren ganian imiñi ebana, eurai jaten [emoteko] denporaz?

46. Zorijonekua otsein ha, bere jaunak, datorrenian, aurkituten dabena halan egiten dabela!

47. Egijaz dirautsubet, bere onera guztijen ganetik [imiñiko dabela].

48. [Baña] baldin otsein gaisto harek bere bijotzian [esango baleu]: «Nire jaunari belututen jako etortia»,

49. Eta bere otsein lagunak [joten hasiko balitz], jaten ta edaten [hordijakaz],

50. Itxaroten ez daben egunian eta ez dakien orduban [etorriko da otsein haren jauna].

51. Eta kenduko dau, eta imiñiko dau partill eginik otsein gaistuakaz. Han izango da negarra ta hagin karraskadia.

HOGETABOSTGARREN KAPITULUBA

[Hamar birjiñen irudipena.
Diruen irudipena.
Azkenengo juizijua.]

1. Orduban [zeruko] erreinuba hamar birjiñen antzekua [izango da], zeintzubek euren argiontzijak [harturik, ezkonbarrijai bidera urten eutseen].
2. Euretatik bost eruak [ziran], eta bost zuhurrak.
3. Baña bost eruak, argiontzijak [harturik], ez eben eruan orijorik eurakaz.
4. Zuhurrak, barriz, orijua euren ontzijetan [hartu eben] argiontzijakaz.
5. Ezkonbarrijaren etorreria [luzaturik, guztijak] loguratu ziran eta luak hartu zituzan.
6. Gabaren erdijan diadar bat [entzun zan]: «Horra nun ezkonberrija datorren! Urten egijezube bidera!».
7. Orduban birjiña guzti hareek [jagi ziran] eta euren lanparak [prestau zitubezan].
8. Eruak zuhurrai esan eutsen: «Emon egiguzube zeuben orijotik, zerren gure lanparak amatetan dira».
9. [Zuhurrak] erantzun eben: «Badaezpadan asko izan ez dedin guretzat ta zubentzat, hoba da juan zaitezela saltzallaakgana, ta zeubentzat [erostia]».
10. [Erostera juan] ziran artian, barriz, ezkonbarrija [etorri zan], eta prestauta egozanak beragaz [sartu ziran] eztegubetara, eta itxi zan atia.
11. Azkenik beste neskatillak bere [etorri ziran], ziñuela: «Jauna, jauna! Idigi egiguzu!».
12. [Baña berak erantzun eutsen]: «Egijaz dirautsubet, ez zaitubedaz ezagututen».
13. Iratzarrik egon, [beraz], zerren ez dakizube eguna, ez orduba.
14. [Urriñera zoian gizonagaz bezala da: bere serbitzarijai deitu eutsen eta bere ondasunak emon eutsezen].
15. Batari bost talentu [emon eutsazan], bestiari berriz bi, eta bestiari bat, bakotxari bere indarraren erara, eta berihala [juan zan].
16. Bost talentu hartu zituzana [juan zan, bada, eta eurakaz hartuemonian jardun eban, eta beste bost irabazi zituzan].
17. Bardin bi hartu zituzanak bere, beste bi [irabazi zituzan].
18. Bat hartu ebanak, barriz, juanik lurrian [zulo bat egin eban] eta bere jaunaren diruba [ezkutatu eban].
19. Denbora asko [igarorik], otsein hareen jauna [etorri zan, eta kontubak hartu eutsezan].
20. Bost talentu hartu zituzana [etorririk, beste bost talentu eskiñi eutsazan], ziñuala: «Jauna, bost talentu emon zeustazan; horra hemen beste bost irabazi dituzanak harez ganetik».

21. Bere jaunak [esan eutsan]: «Ederto, otsein on ta leijala! Gitxijan leijala izan zarialako, askoren ganian [imiñiko zaitut]; sartu zaite zeure jaunaren atsegiñian».
22. Talentu bi hartu zituzana bere [heldu zan] eta esan eban: «Jauna, talentu bi emon zeustazan niri; horra hemen beste bi irabazi ditudazanak».
23. Bere jaunak [esan eutsan]: «Ondo dago, otsein on ta leijala! Gitxijan leijala izan zarialako, askoren ganina [imiñiko zaitudaz]; sartu zaite zeure jaunaren atsegiñian».
24. Talentu bat hartu ebana bere [heldurik], esan eban: «Jauna, badakit gizon gogorra zariala, ebagiten dozu[la] erein ez zenduban lekuban, eta batuten dozula zabaldu ez zenduban lekuban;
25. Bildur izanik juan nintzan, eta talentuba lurrian [ezkutau neban]. Horra hemen nun daukazun zeuria dana».
26. Bere jaunak [erantzun eutsan]: «Otsein gaistua ta nagija! Bahenkijan ebagiten juadala ereiten ez juadan lekuban, eta batuten juadala zabalduten ez juadan lekuban.
27. [Beraz], nire diruba irabazijan [imiñi bihar heuan] eta, ni [etorririk], egijaz neuria duana gehituta [hartuko najuan].
28. Kendu egijezube, bada, berari talentuba, eta emon egijezube hamar talentu daukazanari.
29. Zerren daukan guztijari emongo jako, eta ugarijago [eukiko dau]: ez daukanari, [barriz], daukala dirudijana bere kenduko jako.
30. Eta otsein alperra bota egizube kanpoko illuntasunetara. Han izango da negarra ta haginen karraskadia».
31. Gizonaren Semia bere handitasunian [datorrenian], eta aingeru guztijak beragaz, orduban bere handitasunaren jarlekuban [jarriko da].
32. Jente guztijak bere aurrian [batubak izango dira, eta alkargandik] aldenduko ditu, artzañak ardijak aumeetatik [aldenduten dituzan legez].
33. Eta ardijak bere eskumatatik [imiñiko ditu, eta] aumiak ezkerretatik.
34. Orduban erregek bere eskumatatik egongo diranai [esango deutse]: «Erdube neure Aitaren bedeinkatubok, gozau egizube mundubaren hasieratik zubentzat prestaturik daguan erreinuba.
35. Zerren gose izan nintzan, ta [jaten] emon zeusten; egarri izan nintzan, ta [edaten] emon zeusten; bidastija nintzan, ta [ostatuz] hartu ninduzuben;
36. Billosik, ta estaldu ninduzuben; geixorik, ta bisitatu ninduzuben; presondegijan nenguan, ta [nigana] etorri ziñen».
37. Orduban [justubak] erantzungo deutse: «Jauna, noiz ikusi zinduguzan gosez, ta jaten emon geuntzun; egarriz, ta [edarija] emon geuntzun?
38. Noiz ikusi zinduguzan arrotz, ta [ostatuz] hartu zinduguzan; edo billosik, eta estaldu zinduguzan?
39. Edo noiz ikusi zinduguzan geixorik, edo presondegijan, eta [zugana] etorri giñan?».
40. Erantzunik, erregek esango deutse: «Egijaz esaten deutsubet: neure anaija txiki honeetatik bati [egin zeuntzenian], neuri egin zeusten».

41. Orduban, ezkerretatik egongo diranai bere [esango deutse]: «Alde egizube nigandik, madarikatubok, betiko sutara, [diabruarentzat ta bere aingerubentzat] prestaturik daguaera.

42. Zerren gose izan nintzan, eta ez zeusten emon jaten; egarri izan nintzan, ta ez zeusten emon edaten.

43. Bidastija nintzan, ta ez zeusten emon ostatuba; billosik nenguan, ta ez ninduzuben estaldu; geixorik, ta presondegijan, ta ez ninduzuben bisitatu».

44. Orduban eurak bere [erantzungo deutse]: «Jauna, noiz ikusi zinduguzan gosez, edo egarriz, edo bidastiz, edo billosik, edo presendegijan, eta ez geuntzun lagundu?».

45. Orduban erantzungo deutse: «Egijaz esaten deutsubet: ez zeuntzenian egin txikitxu honeetatik bati, niri bere ez zeusten egin».

46. Eta honeek betiko peneetara [juango dira]; justubak, barriz, betiko bizitzara.

HOGETASEIGARREN KAPITULUBA

[Batzaarra Jesus hilteko. Jesusi ugentua isuri.
Azkenengo aparija. Judasek Jesus saldu.
Getsemaniko erreguba Aitari.
Jesus atrapatuba eta Kaifasen aurrean.
Pedrok Jesus ukatu.]

1. Jesusek berbaldi guzti honeek [amaitu ezkero, bere ikaslaai esan eutsen]:

2. «Badakitzube egun bi barru Paskua [izango dala]; eta Gizonaren Semia salduba [izango da], kurutzian josija izateko».

3. Orduban [abadeen] nagusijak eta herriko zaharrak [batu ziran abade] nagusijaren, Kaifas eritxanaren, ataijan.

4. Eta batzaarra egin eben Jesus marroz [atrapetako] eta hill eragiteko.

5. [Baña eurak] ziñuen: «Jai egunian ez, jagi ez dedin matxinadaren bat herrijan».

6. Jesus Betanijan Simon legentijaren etxian [eguala],

7. Beragana emakume bat [heldu zan], alabastrozko ontzi bat ugentu balijozkoz betia [eukala, eta Jesusen burubaren gainian isuri eban, mahaijan jarririk egoala].

8. [Hori ikusirik, ikaslaak] haserratu jaken, ziñuela:
–Zetarako alperrik galdu hau?

9. Zerren hau karu [saldu zatekian], eta emon eskekuai.

10. [Hori] jakinik, Jesusek esan eutsen:
–Zergaitik zare gogaikarrijak emakume honentzat? Zerren egite ona egin dau nigan.

11. Zerren beti daukazubez eskekuak zeubekaz, [baña] ni ez naukazube beti.

12. Zerren honek ugentu hau nire gorputzian [isuririk], ni hobituteko egin dau.

13. Egijaz esaten deutsubet: edonun ebanjelijo hau predikatuba dan mundu guztijan, honek egin dabena [bere esango da], bere gomutarako.

14. Orduban, hamabijetatik bat, Judas Iskariote eritxana, [abade nagusijakgana juan zan].

15. Eta esan eutsen: «Zer gura deustazube [niri] emon, eta neuk iminiko dot zuben eskubetan?».
Eta eurak hogeta hamar diru zidarrezko [eskiñi eutsezan].

16. Ordutik, [Judasek eria billatuten eban Jesus hareen eskubetan iminteko].

17. Azimoen lelengo egunian, barriz, [ikaslaak Jesusgana heldu ziran], ziñuela:
–Nun gura dozu prestau daizugun Paskua[ko aparija]?

18. Jesusek esan eutsen:
–Zuaze hurira urlijagana eta esan egijozube: «Irakasliak diño: Nire denporia hurrian da, zeure etxian [egingo] dot Paskua neure ikaslakaz».

19. Jesusek agindu eutsen legez [egin eben ikaslaak, eta Paskuako aparija] prestau eben.

20. Arratsia etorririk, mahaijan jarririk [eguan] bere hamabi ikaslakaz.

21. [Eurak] jaten zihardubela, esan eban:

–Egijaz dirautsubet zubetatik batek salduko nabela.

22. Eurak nahibage handi batez beterik, bakotxa esaten [hasi zan]:

–Ni ete naz, Jauna?

23. Berak [erantzun eban]:

–Nigaz eskuba platerian [sartuten dabena], honek salduko nau.

24. Gizonaren Semia badua egijaz, beragatik eskribiduta daguan legez: Baña errukarrija [gizon hura], zeñen bidez salduba izango dan Gizonaren Semia! Hoba zan beretzat, baldin jaijo ez balitz gizon ha!

25. Judasek, saldu ebanak, esan eban:

–Ni al naz, Irakaslia?

Jesusek erantzun eutsan:

–Zeuk esan dozu.

26. [Eurak] apaltzen zihardubela, Jesusek ogija [hartu] eta bedeinkatu eban, eta ebagi, eta bere jarraitzallai [emon eutsen] eta esan: «Hartu egizube eta jan egizube; hau nire gorputza [da]».

27. [Gero], kaliza harturik, eskerrak emon zituzan, eta emon eutsen esanaz: «Edan egizube honetatik guztijok.

28. Zerren hau nire odola [da], testamentu barrikua, askogaitik isurija izango dana pekatuben parkaziñorako.

29. Esaten deutsubet: Ez [dot] edango gaurtik gehijago mahatsaren frutu honetatik harako egun hatara artian, zubekaz barrija [edan dagidanian] Aitaren erreinuban».

30. Eta eskerrak emonik, Olibetako mendiruntz [urten eben].

31. Orduban, Jesusek esan eutsen: «Zubek guztijok gatxerako bidia hartuko dozube nigan, gau honetan. Zerren eskribidurik dago: *[Artzaña] zaurituko dot, eta artaldiko ardijak [egabanatuko dira]*.

32. [Baña] barriro biztu ezkero, zuben aurretik Galileara [juango naz]».

33. Pedrok esan eutsan:

–Baldin guztijak gatxerako bidia hartuten badabe bere zugan, nik ez dot iñoz gatxerako biderik hartuko.

34. Jesusek esan eutsan:

–Egijaz esaten deutsut, gau honetan ollarrak jo baño lehenago, hiru bidar ukatuko nozula.

35. Pedrok esan eutsan:

–Zugaz hill bihar ba[dot] bere, ez zaitut ukatuko.

Bardin esan eben beste ikasla guztijak bere.

36. Orduban Jesus Getsemani deritxan barruti batera [etorri zan eurakaz], eta esan eutsen bere ikaslaai: «Jarri zaiteze hemen [hara] juan naitian artian ta erregu egin dagidan arte».

37. Eta Pedro ta Zebedeoren seme bijak [harturik], atsakabetu eta larrituten [hasi zan].

38. Orduban esan eutsen: «Estu dago nire arimia hill arteraño. Itxaron egizube hemen, eta egizube gaubela neugaz».

39. Eta aurreratxuago [juanik], ahuzpaztu zan, erregututen ebala, ta ziñuala: «Aita neuria, baldin ahal bada, igaro bedi nigandik kaliza hau. Baña ez nik gura dodan legez, ezpada zuk legez».

40. Bere ikaslaakgana [etorri zan] eta lotan egozala [aurkitu zituzan. Pedrori erran eutsan]: «Beraz ezin egon izan zare ordu batian gaubelan neugaz?

41. Zagoze iratzarririk, eta erregu egizube sartu ez zaitezen tentazinoian. Espirituba egijaz prest dago, haragija, barriz, argal».

42. Barriro, bigarrenez juan zan eta erregu egin eban, ziñuala: «Aita neuria, baldin ezin bada kaliz hau igaro nik edan baga, egin bedi zure borondatia».

43. Eta ostera [etorri zan] eta lotan egozala [aurkitu zituzan], zerren euren begiak astunak [egozan].

44. Eurak itxirik, barriro juan zan, eta erregu egin eban hirugarrenez, lehengo berbaak eurak esaten zituzala.

45. Orduban bere [ikaslakgana etorri zan], eta esan eutsen: «Lo egizube honezkero, eta atseden egizube! Horra nun hurreratu dan orduba, eta Gizonaren Semia pekatarijen eskubetan [imiñija izango da].

46. Jagi zaiteze, guazan; horra hurreratu da salduko nabena!».

47. Oraindik berak berbetan zihardubala, horra nun Judas hamabijetatik bat etorri zan, eta beragaz jendedi handija ezpatakaz ta makillakaz, [abadeen] nagusijak eta herriko zaharrak bialdubak.

48. Saldu ebanak, barriz, ezagungarrija [emon eutsen], ziñuala: «Nik mosu emoten deutsadana, bera da. Heldu egijozube».

49. Berihala Jesusgana [heldurik], esan eutsan: «Agur, Irakaslia!».

Eta mosu emon eutsan.

50. Jesusek esan eutsan: «Adiskidia, zetara etorri zara?».

Orduban heldu ziran, eta eskubak Jesusi [ezarri eutsezan] eta atrapatu eben.

51. Jesusgaz egozanetatik batek, eskuba [luzaturik, bere ezpatia atera eban eta, abadeen nagusijaren otseiña jorik, bere belarrija ebagi eutsan].

52. Orduban Jesusek esan eutsan: «Bihurtu egizu zeure ezpatia bere lekura, zerren ezpatia hartuten daben guztijak ezpataz hillgo dira.

53. Uste al dozu ezin neikijola erregutu neure Aitari, eta emongo leuskedazala niri orain hamabi aingeru aldra baño gehijago?

54. Zelan, bada, beteko dira Eskrituraak, gauzaak honelan egiñak izan bihar dabela?».

55. Ordu hatan Jesusek jendedijai [esan eutsen]: «Lapurragana legez urten dozube ezpatakaz ta makillakaz ni atrapetara! Egunoro zubekaz nenguan elexan [irakasten jarririk], eta ez ninduzuben atrapau.

56. Hau guztijau egin zan, Igarlaak eskribidu zitubezanak [bete zeitezan]».

Orduban ikasla guztijak, bera [itxirik], iges egin eben.

57. Eta hareek Jesusi [heldurik, Kaifas abadeen nagusijagana eruan eben], nun eskriba ta fariseoak batu ziran.

58. Pedrok urriñetik jarraituten eutsan abadeen nagusijaren atairaño eta, barrura [sarturik, otseñakaz jarrita eguan, azkena ikusteko].

59. Abadeen nagusijak eta batzaar guztijak guzurrezko asmazinoia [billatuten eben] Jesusen kontra, bera herijotzarako emoteko.

60. [Baña] ez eben aurkitu, testigu gezurrezko asko ekarri arren. Azkenik guzurrezko testigu bi [etorri ziran].

61. Ta esan eben: «Honek esan dau: Jaungoikuaren elexia [bota neike], eta hiru egun barru barriro egin».

62. [Abadeen nagusija jagirik], esan eutsan:

–Ez dozu ezer erantzuten, honeek zugaitik esaten ditubezan gauza [txarrei]?

63. [Baña] Jesus ixillik eguan. [Abadeen] nagusijak esan eutsan:

–Jaungoiko biziaren izenian itanduten deutsut, esan dagiguzula zu bazara Kristo, Jaungoikuaren semia.

64. Jesusek [esan eutsan]:

–Zeuk esan dozu. Halan bere esaten deutsubet, oraindik ikusiko dozube *Gizonaren Semia Jaungoiko indartsubaren eskumatatik, eta zeruko hodeijetan [datorrela]*.

65. Orduban [abadeen] nagusijak bere soñekuak [urratu zituzan], ziñuala:

–Blasfemau dau. Zetarako ditugu honezkero salatzallaak? Horra hemen, orain entzun deutsazube blasfemija.

66. Zer deritxazube?

Eurak [erantzun] eben:

–Herijotziaren errudun da.

67. Orduban txistu urtika jardun eutsen bere arpegira, eta ukabilka ezarri eben; beste batzuk, barriz, esku zabalakaz arpegijan [emon eutsezan].

68. Ziñuela: «Igarri egiguk, Kristo. Nor dok zauritu habena?».

69. Pedro kanpuan ataijan [eguan jarrita], eta beragana otsein neskatilla bat [heldu zan], zirautsala:

–Zu bere Jesus Galileakuagaz zengozan.

70. Baña berak guztijen aurrean [ukatu eban]:

–Ez jakiñat zer diñonan.

71. Berak atera [urtenik, beste otsein neskatilla batek ikusi eban eta han egozanai esan eutsan]:

–Hau bere Jesus nazarenuagaz [eguan].

72. [Pedrok] barriro ukatu eban juramentubagaz: Ez ebala ezagututen halako gizonik.

73. Gerotxuago han egozanak [heldu ziran] eta esan eutsen Pedrori:

–Egijaz zu bere euretarikua zara, zerren zure berbetiak bere agertuten zaitu.

74. Orduban biraoka ta juramentuka [hasi zan] ez ebala ezagututen halako gizonik.

Eta berihala ollarrak jo eban.

75. Eta gomutatu zan Pedro Jesusen berba, esan eutsanagaz: «Ollarrak jo baño lehenago, hiru bidar ukatuko nozu». Eta kanpora [urtenik, negar mingotxak egin zituzan].

HOGETAZAZPIGARREN KAPITULUBA

[Judeguben batzaarra Jesus galduteko.
Judasen herijotzia. Jesus Pilatoren aurrian.
Jesusi destañaak egin. Jesus kurutzian josita.
Jesusen herijotzia. Jesus hobituta. Jaolaak hobijan.]

1. Goxa [heldurik, abadeen nagusi guztijak eta herriko zaharrak batzaarra egin eben] Jesusen kontra, bera hill eragiteko.

2. [Gero] loturik eruan eben, ta Ponzio Pilato gobernarijari [emon eutsen].

3. Orduban Judasek, bera saldu ebanak, hilteko epaija emon eutsela [ikusirik], damuturik, hogeta hamar diru zidarrezkuak [bihurtu eutsezan abadeen] nagusijai ta zaharrai.

4. Zirautsela:

–Pekatu egin dot odol errugabia [saldurik].

Eurak esan eutsen:

–Zer jeuskuk guri? Heuk begiratu bihar heban.

5. [Orduban], zidarrezko dirubak elexan [jaurtigirik], aldendu zan eta, juanik, urkatu zan.

6. [Abadeen] nagusijak, zidarrezko dirubak [harturik], esan eben: «Ez dira bota bihar atabakara, odolaren sarija dalako».

7. [Horren ganian euren eretxijak emonik, hareekaz arrotzak hobituteko lapikogin baten landia erosi eben].

8. Haugaitik landa ha *Hazeldama* [deituba izan zan], hau da «Odol-landia», gaurko eguneragiño.

9. Orduban bete zan Jeremias igarliak esan ebana: *Eta hartu zitubezan hogeta hamar zidarrezko diru, zeintzubek salduba izan danaren sarija [diran], zeñetan Israelgo semiai [erosi jaken]*.

10. *Eta ontzigin baten landiagaitik emon zitubezan, Jaunak agindu eutsen legez.*

11. Jesus gobernarijaren aurrera [eruan eben]. Gobernarijak [itandu eutsan]:

–Zu zara judeguben erregia?

Jesusek [erantzun eutsan]:

–Zeuk diñozu.

12. Eta [abadeen] nagusijak eta zaharrak [salatuten baeben bere], ez eben ezer erantzun.

13. Orduban [Pilatok esan eutsan]:

–Ez dantzuzu zenbat gauza diñuezan honeek zure gatxian?

14. Ez eutsan erantzun berba [bat] bere, allegiña ze gobernarija miraritu zan guztiz asko.

15. Paskuako egun handijan, gobernarijak emon ohi eutsan herrijari askatuta, eurak nahi eben katigu bat.

16. Orduban loturik [eukan] Barrabas eritxan entzute handiko bat.

17. [Jentia] baturik, bada, Pilatok esan eutsen:

–Zein gura dozube emon dagizubedan, Barrabas ala Jesus, Kristo deritxona?

18. Zerren bekijan ondamuz ekarri eutsela.

19. Bere epai aulkijan [jarririk eguala, beragana bialdu eban] bere emaztiak, esatera: «Ez zaite sartu errubagako horren gauzetan. Zerren asko igaro dot gaur amesetan beragaitik».

20. [Baña abadeen] nagusijak eta zaharrak burutan imiñi eutsen herrijai, eskatu egijela Barrabas [eta] Jesus galdu eragijela.

21. Gobernarijak [itandu eutsen]:

–Bijetatik zein gura dozube askaturik emon dagizubedan?

–Barrabas –[esan eben eurak].

22. [Pilatok esan eutsen]:

–Zer, bada, egingo dot Jesus, Kristo deritxanagaz?

Guztijak [esan eutsen]:

–Izan bedi kurutzian josija!

23. Gobernarijak [esan eutsen]:

–Zer gauza txaar egin dau, [bada]?

Eurak gehijago diadar egiten eben, ziñuela:

–Izan bedi kurutzian josija!

24. Pilatok ez ebala ezer aurreratuten [ikusirik], ezpada gehitubaz joiala matxiñadia, ura [harturik, eskubak] garbitu zituzan herrijaren aurrian, ziñuala:

–Errubagarik nago ni justu horren odoletik! Begira zeubek!

25. Herri guztijak [erantzun] eban:

–Bere odola gure ganera, ta gure semeen ganera!

26. Orduban [Barrabas] itxi eutsen. Jesus, barriz, azotaurik emon eutsen, kurutzian josija izan zedin.

27. Orduban, gobernarijaren soldadubak Jesus jauregirako [harturik, aldra guztija beragana batu eben].

28. Eta billosturik bera, granazko mantu bat imiñi eutsen.

29. Koroia arantzakaz [ijorik, burubaren ganian] imiñi eutsen, eta kañaberia bere eskuman. Eta bere aurrian [belaunikoturik], destañaak egiten eutsezan, ziñuela: «Agur, judeguben erregia!».

30. Txistuka jardunik berari, kañaberia [hartu eben eta haren buruba] zaurituten eutsen.

31. Eta destañak egin ezkero berari, mantua [erantzi eutsen eta bere soñekuak jantzi eutsezan, eta kurutzian jositera eruan eben].

32. Urtenik, [Zireneko gizon bat aurkitu eben], Simon izena ebana, [eta honi Jesusen kurutzia] hartu eragin eutsen.

33. Golgota deritxan leku batera [etorri ziran], hau da, «Kalbarijoko lekura».

34. Eta ardaua behaztunagaz nahasturik [emon eutsen edaten]. Probaurik, ez eban gura izan edan.

35. Kurutzian josi ezkero, barriz, bere soñekuak [partiu zitubezan suertia botarik], igarliak esan ebana bete zedin, ziñuanian: *Nire soñekuak [partiu zitubezan, eta suertia bota eben nire soñekuaz]*.

36. Eta jarririk zainduten eben.

37. [Haren burubaren ganian haren kausia eskribidurik imiñi eben]: «Hau Jesus [da], judeguben erregia».

38. Orduban lapur bi [beragaz kurutzian josijak] izan ziran, bata eskumatatik ta bestia ezkerretatik.

39. Handik igaroten ziranak gaiski esaka zihartuben beragaitik, eraginik euren burubai.

40. Ziñuela: «Ia hi, Jaungoikuaren elexia [botaten duana] ta hiru egun barru barriro egiten duana, salba hadi, Jaungoikuaren semia bahaz, [eta] jatsi hadi kurutzetik».

41. Bardin, [abadeen] nagusijak bere destañaak egiñik eskribaakaz eta zaharrakaz, ziñuen:

42. «Beste batzuk salbau jituk, [eta] bera ezin dok salbau! Israelgo errege badok, jatsi jadilla orain kurutzetik, eta sinistu[ko] jeutsagu.

43. Jaungoikuarengan [itxaron juan]; librau jaijala orain, baldin gura bajok, zerren esan juan: Jaungoikuaren semia [naz]».

44. Gaiski honeek eurok esaten eutsezan beragaz kurutzian josirik egozan lapurrak bere.

45. Eguberditik hiruretaraño mundu guztija [illundu zan].

46. Hirurak hurrian ziranian, diadar egin eban Jesusek boz handi bategaz, ziñuala: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»* Hau da: *«Neure Jaungoikua, neure Jaungoikua, zergaitik itxi nozu?»*.

47. Han egozan batzuk, honeek [entzunik], ziñuen: «Eliasi deituten jeutsak honek».

48. Eta berihala, euretatik bat [arin juanik, esponja bat harturik, binagrez bete eban, eta kañabera baten imiñi eban, ta edaten] emoten eutsan.

49. Bestiak, barriz, ziñuen: «Itxi, dakuskun [Elias] ete datorren berau libretera».

50. Jesusek, bigarrenez diadar handi bat eginik, azkenengo arnasia [emon eban].

51. [Orduban] elexako estalkija zati bitan [urratu zan] goitik beheragiño. Eta lurra ikaratu zan eta harrijak zatitu ziran.

52. Hillen hobijak idigi ziran, eta hill ziran santuben gorputz asko biztu ziran.

53. Hobijetatik [urtenik], bere biztuera barrijaren ondoren, huri santura [etorri ziran eta askori] agertu jakezan.

54. Zenturionek, barriz, eta beragaz [Jesus zainduten egozanak, luikaria eta jazoten ziran gauzaak ikusirik], bildur handi bat hartu eben, ziñuela: «Egijaz Jaungoikuaren semia zan hau!».

55. Han emakume asko [egozan, urriñetik begira], Jesusi Galileatik [jarraitu eutsenak] serbietan ebela.

56. [Euren artian Magdalako Maria eguan], eta Maria Santiagoren ta Joseren ama, eta Zebedeoren semeen ama.

57. Arratsaldia [heldurik, Arimateako] gizon aberats bat [etorri zan], Jose eritxana, [hura] bere Jesusen jarraitzallia.

58. [Pilatogana heldu zan eta Jesusen gorputza eskatu eutsan]. Orduban Pilatok [gorputza emon ekijola agindu eban].

59. Gorputza harturik, Josek izari garbi baten batu eban.

60. Eta bere[tzat hobi barri bat imiñi eban], hatxian idigi ebanian. [Gero hobijaren sarreria] harri handi bategaz [itxi eban], eta juan zan.

61. Han [Magdalako] Maria eguan, eta beste Marija, hobiaren aurrian [jarririk].

62. [Hurrengo egunian, zein paraskebe egunari darraikiona dan, abadeen] nagusijak ta fariseoak Pilatoren aurrian [batu ziran].

63. Ziñuela:

–Jauna, gomuta gara guzurti harek esan ebala oraindik bizirik eguala: «Hiru egun igarorik, berriro biztuko naz».

64. Agindu egizu, bada, zaindu dedilla hobija hirugarren eguneragiño; etorri ez ditezen bere jarraizallaak eta ostu ez dagijen, eta esan herrijari: «Biztu zan hillen artetik». Azkenengo errakuntzia lelengua baño dongagua [izango da].

65. [Pilatok esan eutsen]:

–Badaukazubez jaolaak. Zuaze, zaindu egizube dakizuben legez.

66. Eurak juanik, [hobija] inguratu eben, [harrija] silluturik jaolaakaz.

HOGETAZORTZIGARREN KAPITULUBA

[Jesusen biztueraren barrija.
Emakume onai agerturik. Soldaubak erosi.
Ikaslaak mundu guztira bialdubak.]

1. Zapatuba [igarorik], astiaren lelengo egunaren egunsentijan, [Magdalako Maria eta beste Marija hobija ikustera etorri ziran].

2. Horra nun, luikara handi bat [izan zan]. Zerren Jaunaren aingeruba [zerutik] jatsi zan eta, hurreraturik, harrija [kendu eban, eta bere ganian jarririk eguan].

3. [Haren] itxuria oñaztuba lakua [zan, eta haren] soñekua edurra lakua.

4. Bere bildurrez, jaolaak [ikaratu ziran] eta hillik legez [gelditu ziran].

5. [Aingeruba berbetan hasirik, emakumiai esan eutsen]:

–Ez egizube bildurrik euki zubek, zerren badakit [Jesus] billatuten dozubela, kurutzian josija izan zana.

6. Ez dago hemen, zerren biztu zan, esan eban legez. Erdube, ta ikusi egizube Jauna imiñirik eguan lekuba.

7. [Gero], laster juanik, esan egijezube bere jarraitzallai: «[Hillen artetik biztu da]. Zuben aurretik Galileara [juango da]. Han ikusiko dozube». Horra nun aurrez adierazo deutsubedan.

8. Berihala hobitik [urten eben] bildur ta poz handijagaz arin ibillirik, [haren ikaslaai adierazoteko].

9. Eta horra nun Jesusek bidera [urten eutsen, zirautsela]: «Agur guztijoi!».

Eurak beragana [hurreratu ziran, bere oñetatik heldu eutsen] eta adorau eben.

10. Orduban Jesusek esan eutsen: «Ez zaiteze bildur izan! Zuaze, adierazo egijezube nire anaijai [Galileara] juan ditezela; han ikusiko nabe».

11. Eurak juanik, horra nun jaola batzuk hurira [etorri ziran eta abadeen nagusijai jazo zan guztija] adierazo eutsen.

12. Eta zaharrakaz [baturik], alkar harturik, diruba ugari emon eutsen soldadubai.

13. Zirautsela: «Esan egizube: Bere jarraitzallaak etorri ziran gabaz, eta ostu eben gu lotan gengozala.

14. Baldin hau gobernarijaren belarrijetara [heltzen bada], geuk sinistu eragingo deutsagu, eta ez dozube buruko miñik izango».

15. Eurak, diruba [harturik, erakutsi eutsen legez egin eben]. Eta berba hau judeguben artian [zabaldu zan] eta gaurko eguñeraño [dirau].

16. Hamaika [ikaslaak, barriz, Galileara juan ziran], Jesusek agindu eutsen mendira.

17. Bera [ikusirik], adorau eben; batzuk, barriz, ezbaijak [euki zitubezan].

18. Jesus heldurik, berba egin eutsen: «Eskubide guztija [emon jat niri] zeruban ta lurrian.

19. Juanik, bada, irakatsi egijezube jente guztijai, batiatuten dituzubela Aitaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian.

20. [Gordetan] erakusten deutsezubela, zubei agindu deutsubedazan gauza guztijak. Eta ni zubekaz [izango naz] egun guztijetan mundubaren amairagiño».

ERRONKARIERA

MATEOREN EBANJELIOA

ERRONKARIERAZ

JESUKRISTO GORE JEINAREN

EBANJELIO SAINTIUA

SAN MATEO[REN ARAUZ]

PRUDENZIO UHALDE

1869

LEHIN KAPITULUA

[Jesus Maria berjinaganik sortruk.
Jesusen jenealojia. Jesusen sortarzuna.].

1. Jesukristoren jenealojia, Dabiden seme, Abrahamen seme.

2. Abrahamek Isaak [sortu zion], Isaakek Jakob.

3. Judasek Tamarrenganik Fares eta Zara [sortu ztion]. Faresek Esron [sortu zion]. Esronek Aram.

4. Aramek Aminadab [sortu zion]. Aminadabek Nason. Nasonek Salmon.

5. Salmonek Rahabenganik Booz [sortu zion]. Boozek Rutenganik Obed. Obedek Jese. Jesek errege Dabid [sortu zion].

6. Dabid erregek Salomon [sortu zion], Uriasen emazte izan zenaganik.

7. Salomonek Roboan [sortu zion]. Roboanek Abias. Abiasek Asaf.

8. Asafek Josafat [sortu zion]. Josafatek Joram. Joramek Ozias.

9. Oziasek Joatam [sortu zion]. Joatamek Akaz. Akazek Ezekias.

10. Ezekiasek Manases [sortu zion]. Manasesek Amos. Amosek Josias.

11. Josiasek Jekonias [sortu zion], eta bere anax[ak] judiuak Babiloniara eraman izan zren tenprari abantxu.

12. Eta judiuak Babiloniara eraman izan zren geroztik, Jekoniasek Salatiel [sortu zion]. Salatielek Zorobabel.

13. Zorobabelek Abiud [sortu zion]. Abiudek Eliakim. Eliakimek Azor.

14. Azorrek Sadok [sortu zion]. Sadokek Akim. Akimek Eliud.

15. Eliudek Eleazar [sortu zion]. Eleazarrek Matan. Matanek Jakob.

16. Jakobek Jose, Mariaren [senarra], nor[ganik] Jesus sortu zen, izen[gatx]ez Kristo.

17. Kola dra hamalaur [belainaldi] guziuak Abrahamen[ganik] Dabid [bitartio], eta Dabidenak judiuak Babiloniara eraman izan zren bitartio, hamalaur [belainaldi]; hamalaur dra, baitare, [belainaldiak] judiuak Babiloniara eraman izanik geroz Kristo bitartio.

18. Baia Kristoren sortiua gisa kontan izan zen: Maria bere ama Joserekin bordaltruk zegolarik, bere [erraietan] Espiritu Saintiuaren [egitez] konzebitu ziola erden zen, lehin xunto egon bagetarik.

19. Baia Jose bere senarra, zena gisa [xuxen] izaitian, eta infamatu nahi ezaularik, ixilki eiztia pensatu zion.

20. Hura pensamentu kontan zagolarik, nonta Jeinaren aînguru bat [agertu] zitzaun ametstan erraiten: «Jose, Dabiden semia, etzazu errezelorik ekun Maria zore emaztia zore etsen [har]tako, zeren bere [errai]etan [sor]truk izan dena Espiritu Saintiuaren [egitea] tzu.

21. Eta kola seme bat erdiren dizu, zoini izenez Jesus izaren baitzu; bada hura da bere hiria bere bekatiuetarik salbatu bihar diona».

22. [Kori] guziua egin zen, Jeinak antzinetik profetaren medioz erran ziona [betetruk] izan ledin, zoinek erraiten baitu:

23. *Xakin zazei berjin batek seme bat konzebiten eta erdiren diola, zoini izenez Emanuel izaren dabei*, zoinek [utzultruk] «Jangeikua goreki» erran nahi du.

24. Konekin Josek, [iratzartian], Jeinaren aînguriuak manatu zauna egin zion, eta bere emaztia errezibitu zion.

25. Eta izaguntu edo (onkitu) bage, bere [lensemia erdi] zion, eta Jesus izena izari zaun.

BIGARNEN KAPITULUA

[Iguzki-erkinguko bizpur xakintsuk Jesus adoratu.
Ejiptora îhesitia. Belengo haurren hiltea.
Ejiptotik utzuli eta Nazareten bizi.]

1. Jesus, bada, Judeako Belenen sortruk izan baikoz, Herodes [errege zelarik], nonta mago banak iguzki-erkingutik Jerusalenera xin zren.

2. Galtegiten:

–Non dago judiuen erregia, [sortu berri] dena? Zeren guk iguzkiaren erkingiuan bere izarra ekusi baitugu, eta [haren] adoratiagatik xin gitra.

3. Errege Herodesek kaur entzun zionian, [ikaratu] zen eta harekin Jerusalen guziua.

4. Eta [apezburu] guziuak eta hiriko erakuszale edo eskribaîak xuntatan z[t]iolarik, Kristo edo Mesias non sortu bihar zion galtegiten zabein.

5. Zoini hek errespondítu zein:

–Judako Belenen, zeren kola eskribitu baizion profetak:

6. *Eta zu, Belen, Judako lurra, ezra Judako ziudade [gehienen artean egiazki txipiena], zerengatik zutarik tzu nontik erkin bihar baitu [burzegi] Israeleko ene hiria gobernatu bihar diona.*

7. Gunian Herodesek lagunguarik bage maguak deitan ztiolarik, bere[ganik azola]rekin xakin zion tenpra, zointan izarra [agertu] zabein.

8. Eta Belenera [zuzen]tan ztiolarik, erran zabein: «Fan eta informa ztei haur konen gainian agitan denaz; eta erdenez geroz, abiso emon aztazeid, ni ere fan nein eta adoratzadadan».

9. Erregiari kaur entzun baikoz, partitu zren. Eta nonta izar iguzkiaren erkingiuan ekusi zeina, beren antzinian faiten zen, haurra zagon lekiuaren aurkiara [heltian] baratu zen artio.

10. Izarraren [ekustian], anixki [boztu] zren.

11. Eta etsian sartian, haurra Maria bere amarekin erden zein eta, [gurtan] zrelarik, adoratu zabein; eta bere [kutxak] irikirik, urre, intzensu eta mirrazko [sariak eskeintu] zabein.

12. Eta lotan zeuritik abiso bat errezibitu baikoz Herodesengana ez ledilein {edo ezitian} utzul, bere herriara berze bide batarik [utzuli] zren.

13. Hurak partituz geroz, Joseri ametstan Jeinaren aînguru bat [agertu] zitzaun, erraitan zaularik: «Xagi zte, har zazu haurra, eta bere ama, eta îhes ezkapa zte Ejiptora, eta egon zte kan nik abisa ztudan artio, zeren Herodesek haurra txerkaten baitu hilaraztako».

14. Jose gaiaz xagitan zelarik haurra hartu zion eta bere ama, eta Ejiptora erretiratu zen.

15. Non Herodes hil zen bitartio egon baizen; zointaz gisaz Jeinak profetaren mintzoz erran ziona [bete] zen: *Nik deiut nion Ejiptotik ene semia.*

16. Bitartio Herodesek, [bere buriua maguek burlatruk ekustan ziolarik, sobranio [akartu] zen, eta Belenen eta unguru guziuan haur zauden guziuak, bi urtetatik apal, hiltako

[manatu] zion, tenpra maguenganik xakin [zionaren arabera, zointan izarra agertu] zitzabein.

17. Gunian [betetruk] ekusi zen antzinetik profeta Jeremiasek erran ziona:

18. *Ramaradraino ere entzun zren mintzuak, anitx nexar eta irago: Rakel da, bere semengatik nexar egiten baitu, konsolatruk nahi izan bage, zeren ezbaidra bizi.*

19. Herodesen [heriotzea] agituz bertan, Ejipton Jeinaren aînguru bat lotan [agertu zitzaun] Joseri.

20. Erraiten zaularik: «Xagi zte eta har zazu haurra, eta bere ama, eta fan zte Israeleko lurriara, zeren xa hil baitra haurraren biziaren kontra [ixilkean lan egitan] zeinak».

21. Jose xagitian, haurra eta bere ama hartu z[t]ion eta Israeleko lurriara xin zen.

22. Baia Judean Arkelaok manatan ziola entzutian, kara faitra lotsatu zen; eta ametstan abisatruk, Galileako lurriara erretiratu zen.

23. Eta ziudade batian bizi izaitra xin zen, Nazaret deitan baizen; gisa kontan profeten errana [bete]tan zelarik: *Nazareno izena ekunen du* {edo *Nazareno deitruk izanen da*}.

HIRURGARNEN KAPITULUA

Juan [Batixazalia] predikatan eta batixatan.
Jesus batixatruk.

1. Tenbra kartan Juan [Batixazalia] Judeako desiertuan predikatan [zabilen]. Eta erraiten:
2. «Egin zazei penitenzia, zeren abaño baitago zeuriko [erreinua]».
3. Kaur da [kura], zointaz profeta Isaiasen medioz erran baizen:

Desiertuan [irago egi]tan dionaren mintzua da, erraiten: Prepara zazei Jeinaren bidia, egin dizazei xuxen bere sendak.

4. Juanek beztido bat eragutan zion kamellozko biloz, eta larruzko korrea bat [gerruntzian], eta bere bazkaria [zauzkari] zen, eta mendiko ezti.
5. Haren erdeitra zuatzan, bada, gentiak Jerusalen eta Judea guzutik, eta Jordaneko erribra guzutik.
6. Eta Jordanian harenganik batixua errezibitan zein, beren bekatiuak konfesatan zteilarik.
7. Baia nola haren batixuara fariseo eta saduzeuetarik anitx xitan ekusten baizion, erran zabein:

–O [sugetzarr] kasta, nork erakutsi daizei ez baizik [itxurekin] ezkapa zaiztekeila [zeiña]tan daizein [bulurgotik]?

8. Egin zazei, bada, penitenziazko frutu dinoak.
9. Eta eiz ztei xen baitan erraitiaz «Abraham aitatako dakagu», zeren nik erraiten daizeid Jangeikua [ahaldun] dela harri kuek beretik Abrahami seme sor tian egiteko.
10. Beira zazei aixkora xa arbolien [izorroan] izaririk dagola; eta frutu on eragutan eztion arbole oro, ebakirik izanen da eta suara egotxirik.
11. Nik egiaz urekin batixatan [zteid] penitenziara mobiaraztako, baia ene atzian xin bihar diona ni bino [ahaldun]ago da, eta ez naz ni dino eztare hari sandaliak eramaiteko. Hura da batixatu bihar [zteina] Espiritu Saintiua[ren baitan] eta suan.
12. Hark daka bere eskiuetan sardia, eta ezin hobeki xahinten du bere llarnia; eta bere garia [bikortegi]an sarten du, baia autzak erreren tu hil ez deiteken su batian.
13. Tenpra kuetan Jesus Galileatik Jordaniara xin zen Juanen txerka, hare[k] batixatruk izaiteko.
14. Baia [Juanek ez zion nahi], erraiten ziolarik:

–Nik bihar diez [zuk] batixatruk izan, eta zu xitan zra enegana?

15. Zoini Jesusek erresponditu zion erraiten:

–Eitz nazazu orai egitra, zeren kola konbeni baita guk justizia guziua [bete] zagun.

Gunian Juanek (etsi) zion harekin.

16. Batixatu baikoz, bada, Jesus uretik erkin zen istantian, zeuriak iriki zitzazkan eta Jangeikuaren Espiritiua ursuaren figuran xaisten ekusi zion eta haren gainian (bara)tan.
17. Eta zeuritik mintzo bat senditu zen, erraiten: «Kaur da ene Seme maitia, zoin[en baitan] baitakad isaririk ene (atsegin) guziua».

LAURGARNEN KAPITULUA

[Jesusen barurua eta tentazionia.
Jesus Galileara. Bere predikazionia hastan du.
Dizipulo biltra hastan da. Eriak sentotan dutu.]

1. [Gunian Jesus Espiritu Saintiuak] desiertuara eramanik izan zen, kan diabiu[ak] tentatruk izan ledin.
2. Eta berrogei egun berrogei gaiekin barurtuz geroz, gose ekun zion.
3. Gunian tentazalia abañatan zelarik, erran zaun:

–Jangeikuaren Seme bazra, erran zazu harri korik [utzul] tiala ogi.

4. Baia Jesusek erresponditu zaun:

–Eskribitruk diok: *Ez solo ogiz bizi da gizona, beizik ele Jangeikuaren agotik erkitan den oroz.*

5. Kontaz geroz, diabiuak Jerusaleneko ziudade saintiuara eraman zitzaun eta tenploaren goienian isari zitzaun.
6. Eta erran zaun:

–Jangeikuaren Semia bazra, egox zte kementik apal; bada, eskribitruk diozu *bere aînguriер [manatu daizula, zeinek bere eskiuietan] harten daizei, zore zankua eztein tropeza harri zomaiten kontra.*

7. Jesusek [erresponditu] zion:

Baitare eskribitruk diok: *Etzu tentaten zore Jangeiko Jeina.*

8. Oraino're diabiuak mendi gora batra igan zitzaun eta mundiuaren [erreinu guziuak erakutsi zazkan], eta beren gloria eta handigua.
9. Eta erran zaun:

–Gaiza kuek guziuak emonen daizud, ene antzinian [gurtan] zrelarik adoratan bainuzu.

10. Gunian Jesusek erresponditu zaun:

–[Alka] hadi kortik Satanas! Zeren eskribitruk baitago: *Zore Jangeiko Jeina adoraten tzu, eta hari solo zerbutxaten tzu.*

11. Korrekin eitzu zitaun diabiuak, eta nonta aînguriuak abañatu zren eta zerbutxatan zabein.
12. Gero Jesusek Juan [karzelean sartruk] izan zela entzutian, Galileara erretiratu zen.
13. Eta Nazareteko ziudadia eitztan ziolarik, Kafarnaunera egoitiaz fan zen, itxasoko ziudade Zabulonen eta Neftaliren mugante edo altakan [dagona].
14. Kola heltu zen Isaiasek erran ziona kunplitra:
15. *[Zabuloneko herria eta Neftaliko] herria, nontik Tiberiadeseko itxasuara baiten baita, Jordanen berze altiara, jentilen Galilea.*
16. *Ulunguan eroririk zagon hiri konek argi handi bat ekusi du, argi [heriotzearen] itzaletako herrian zaudener argitra xin dena.*

17. Guniaz geroz Jesus predikatan eta erraiten hasi zen: «Egin zazei penitenzia, zeren abaño baitago [zeuriko erreinua]».

18. Jesus egun batez Galileako itxasuaren erribran [e]biltan zelarik, bi anaxe ekusi z[t]ion, Simon, gero Pedro deitu zena, eta Andres bere anaxa itxason erredia egoixtan, bada arrantzari zren.

19. Eta erran zitzabein: «Xarreki ztei niri, eta nik eginen diez gizonen arrantzari izaitra hel ztein».

20. [Berberian] biak, errediak eitzirik, xarrekitu zitzazkan.

21. Antzinarago igartan zelarik, berze bi anaxe ekusi z[t]ion, Santiago Zebedeoren seme eta Juan bere anaxa, bere erredien konpoîntan barka batian bere aita Zebedeorekin, eta deitu ztion.

22. Hurak gisa berian errediak eitzirik, xarrekitu zizazkan.

23. Eta Jesus Galilea guzutik buelta emoitan faiten zen, beren sinagogetan Ebanjeliua edo zeuriko [erreinuko] berri ona erakustan eta predikatan, eta hirikuer zoin nahiden erigua sontotan.

24. Korrekin haren famak Siria guzutik laster egin zion, eta eriguarekin zauden guziuak presentatan zabein, eta gatx difrente eta [min biziz kexu zrenak, diabiudunak, eroak], perletikatiuak... eta sontotan ztion.

25. Eta gente[-saldo] handi bat segitan zizazkan Galilea eta Dekapoliko, eta Jerusalen eta Judeako, eta Jordanaren berze alteko.

BORZGARNEN KAPITULUA

[Sargua. Zortzi egoaltarzunak.
Lurreko gatza eta argia. Jesus eta legia.
Adulterioa eta bereztia. Zina.
Mendekiua. Etsaien moitegua.]

1. Baia Jesusek gente[-saldo] kaur guziua ekustian, mendi batra igan zen, non xaseririk bere [ikasliak] abañatu zitzazkan.

2. Eta bere ahu dibinua irikitan, adotrinatan ztion erraiten:

3. –[Egoaleko] espirituzko pobriak, zeren hentako baita zeuriko [erreinua].

4. [Egoaleko] (uzterrak) eta [apalak], zeren hek gozaten baitei lurra.

5. [Egoaleko nexar egiten deinak], zeren hek konsolatruk izanen baitra.

6. [Egoaleko gose eta egarri deinak justiziaz, edo xuxen] eta saintu izaitiaz, zeren hek aserik izanen baitra.

7. [Egoaleko bihozbeillak], zeren hek [eskuraten baitei bihozbeillatarzuna].

8. [Egoaleko bihotza argi deinak], zeren hek Jangeikua ekusen baitei.

9. [Egoaleko bakegiliak], zeren hek Jangeikuaren Seme deitruk izanen baitra.

10. [Egoaleko xuxen izaitiagatik xarrekipen sufritan deinak], zeren hentako baita [zeuriko erreinua].

11. [Egoaleko] izanen zrei gizonek ene kausaz maledika eta [xarreki] zaizintzeinian, eta gisa guzuz gaxki erran dazazeinian xen kontra.

12. [Boz] ztei gunian, eta [goza zazei], zeren anitx handi baita zeurian [orkitan] daizein [saria]. Gisa berian persegitu zitzabein profeta xen antzinetik izan zrener.

13. Xek zrei lurreko gatza. Eta gatza geza egitan bada, zerekin [utzulen] zitzaud saboria? Ez du deustako zerbutxatan, baizik [egoxtruk] izaiteko eta gente zanko petan erabiltako.

14. Xek zrei mundiuaren argia. Ez deiteke ziudade bat altxa mendi baten gainian [eginik].

15. Argia ez deiteke ixiki ere almute baten pean izartako, kandelero baten gainian baizik, etseko guziuer argi tzan.

16. Kola [argi egin] zala xen argiak gizonen antzinian, xen [egitiak] ekus dokien gisa eta xen Aita zeurian dagona [gorazka] tzein.

17. Etzazie pentsa ni legiaren dotrina desegitra xin nazala, ez profetena ere; ez naz xin haren [desegi]tra, bere kunplimentuarn emoitra baizik.

18. Zeren egia guziuarekin erraiten daizeid zeuria eta lurra lehin faltaten d[r]ela, ezik legian [dagon guziua xainki bete] bage bara dein, haiketa jota bat kain bakotx edo haren puntu bat ere.

19. Eta kola norbiatek mandamentu kuetarik bat hauts baleza –txikerrago urdu izanik ere–, eta gizoner gaiza bera egitra erakuts baleza, [zeuriko erreinuan] txikerrena edo

ezdeustako ekunik izanen da; baia [beigratan] eta erakustan tiona, kori handitako ekunik izanen da [zeuriko erreinuan].

20. Zeren nik erraiten daizeid, xen justizia ez bada eskribaûena eta fariseuena beino osoago eta [beteago, ezrei sarten zeuriko erreinuan].

21. Entzunik zaudei xen [antzinekoer] erran zela: *Etzei hilen*; eta hil lezana juiziuan kondenatruk izanen dela hilik izaitra.

22. Nik hobro erraiten daizeid: Nornahidenek bere anaxari [borontate gaxto] har tzan, juezak kondena zan merexiten du. Eta [«buruments»] dei lazanak konziliuak kondena zan merexiten du. Baia [«buruments»] dei lezana iburniko suaren merexidun izanen da.

23. Korrengatik, zore oberta altarian presentatan tzun tenpran, kan guartan bazra zore anaxak zore kontra zomait kexu diola,

24. Eitzazu kan berian zore oberta altariaren antzinian, eta fan zte lehinik zore anaxarekin [areskidetzra], eta gero zore oberta presentatra utzulen zra.

25. Konpoîn zte bertan zore [etsai]arekin, oraino harekin bidian zaudelarik bitartio; ez deila izan juezaren eskiuetan izar [zitzala] eta juezak karzelian sar [zitzala].

26. [Egiazki segur erraten daizeid], kantik ezrela erkinen azken marabidia paka tzazun bitartio.

27. Entzun tzei xen [antzineko]er erran zela: *Etzu adulteriorik eginen*.

28. Nik hobro erraiten daizeid: zoin nahidenek emazte bat deseo gaxtorekin beira lezan, adulteriotan erori zen bere bihotzian.

29. Eta zore eskoîeko begia zoretako bekatiuan erortako [bide] bat bada, erkin zazu eta [egotx zazu zuganik] kanpo; bada, hobe dazaizu [zore zatietarik] bat galtia, ezik ez zore korpitz guziua iburniara fan dein.

30. Eta zore eskoîeko eskiua eskandalo emoitan daizuna edo bekatiuan erortra [bulkatan ztuena] balimada, ebaki zazu eta egotx zazu zu[ganik] urrin; bada, hobe dazaizu [zore zati]etarik bat gal dein, ezik ez zore korpitz guziua iburniara fan dein.

31. [Legean] erran zen: *Nornahidenek [egotx] lezan bere emaztia, emon dazaula berextarzunaren kartilla*.

32. Baia nik erraiten daizeid: nornahidenek egotx lezan bere emaztia, adulterioaren kausaz ez izaitian, adultera izaiteko (perilean) izartan diola, eta emazte egotxirik izan denarekin bordal zedina, adultero dela gisa berian.

33. Entzunik zaudei, [gisa berian, xen antzinekoer] erran zela: *Etzu (zin) faltsurik eginen, lehinaz hobe kunpliten dutzu (zin) Jeinari eginak*.

34. Nik hobro erraiten daizeid: ñola're etzazeila (zin)ik egin [zer xuxenik] bage, *ez zeuriaz ere, zeren Jangeikuaren tronua baita*.

35. *Ez ere lurraz, bada, bere zankopetako asientua* da; ez Jerusalenez ere, zeren *Errege handiaren ziudadia edo kortia baita*.

36. Eztare etzei (zinik) eginen xaurien buriuaz, bada, eztago xaurien eskiuan bilo bakotx bat xuri edo beltx egitia.

37. Izan deila, bada, xen mintzomoldia: «bai», bai [denian], edo «ez», ez [denian]; zeren kontarik igartan dena izorro Gaxtotarik xiten da.

38. Entzun tzei erran zela: *Begiz begi, hortzez hortz*.

39. Baia nik erraiten daizeid etzazeila egin [hogenaren kontra]; lehinaz norbaitek eratxikitan badaizu eskoîeko maxelan, berzia ere utzul dazazula.

40. Eta tunika gen dazaizun pleitu isari nahi daizunari, kapa ere emon dazazu.

41. Eta milla urratsez kargatruk bortxa eramanaraztan daizunari, fan zte harekin berze bi millaz.

42. Eskatan daizunari emon dazazu, eta ez dazazu begitartia uka [zuganik] zomait prestamu [nahi] dionari.

43. Entzun tzei erranik izan zela: *Zore projimua [maitaten tzu* eta zore etsaiari hugun] ekunen tzu.

44. Nik hobro erraiten daizeid: maita ditzazei xen [etsaiak], egin zazei onki aburritan daizeiner, eta orazione egin zazei xer [xarrekitan eta tonatan] daizeiner.

45. Izan ztein seme xen Aita zeurian dagonaren imitazaleak, nork bere iguzkia onen eta gaxtuen gainian sor dein egitan baitu, eta euri egin tzan [xuxen] eta bekatarien aurkian.

46. Zeren ezbatzei amorio ekutan beizik [maite zteiner, zer sari] ekin bihar tzei? Ezdeia kola egiten publikanuek ere?

47. Eta ezbatzei salutatan berzeri, baizik xaurien anaxer, zer ekustia du korrek? Ezdeia ote kaur egitan paganuek ere?

48. Izan ztei, bada, xek [ezin hobe, zeuriko] xen Aita [ezin hobe] den bikala, ahal tzein guziua imitatan dauzeilarik.

SEIGARNEN KAPITULUA

Limosna. Gore Aita orazioniaz. Baruraz.
Ontarzunak zeuriko. [Barneko argia.
Jangeikua ala ontarzunak. Izan bihar duguna.]

1. Guarda ztei onki xen [egite] onak gizonen antzinian egitiaz, [berzek] ekus dazaizein; berze gisaz etzei errezibiten xen Aita zeurian dagonarenganik bere premiua.

2. Eta kola, limosna emoitan tzunian, etzazula tronpeta sonuz publika nahi, [itxurazali]ek sinagogetan, karriketan edo plaztetan egiten dein bikala, gizon[ek ohora]truk izan tian. Egiaz erraiten daizeid xa errezibitu zeila bere pakiua.

3. Baia zuk limosna emoiten tziuanian, egin zazu zore ezkerreko eskiuak etzan guart emon zore eskoîak egiten diona.

4. Zore limosna altxatruk bara dein; eta zore Aitak altxatrukago dagona ekustan baitu, [gente antzinian pakaten] daizu.

5. Gisa berian, errezatan tzeinian, etzei izan bihar [itxurazalien gisa, zeinek kala nahirik] txutirik izartan baidra sinagogetan eta karriken eskinetan orazione egitra, [gizonek] ekusirik izan tian. Egiaz erraiten daizeid xa errezibitu zeila beren pakiua.

6. Zuk, [aitzitik], errezatu bihar zinokenian, sar zte zihauren [egonguan], eta borta zerratruk orazione egin zazu sekretuan zore Aitari, eta zore Aitak sekretuena izanik ere ekustan baitu, guziuen antzinian [sariten] daizu.

7. Orazionian etzazei gogo ekun anitx xardokitako, jentilek egiten dein bikala, zoiner urdutan baizabei entzunik izan bihar deila ele anitxen indarrez.

8. Ez ditzazie nahi, bada, imita, zeren xen Aitak onki baitaki zer bihar tzein, lehin ezik eska dazauzein.

9. Txezei, bada, nola bihar tzein errezatu: «Aita goria zeurian zaudena, santifikatruk izan deila zore izena.

10. Xin deila zore [erreinua], egin deila zore borontatia, nola zeurian, kala ere lurrian.

11. Gore egunorozko ogia emon dazaiguzu egun.

12. Eta parka daizkiguzu gore zorrak, guk parkatan digun bikala guri zor daikuner.

13. Eta ez gitzazu eitz tentazionian erortra, baizik libra gitzazu gatxetik. Amen».

14. Zeren gizoner parkatan batzei ofensak xen kontra egiten teinak, baitare xen Aitak zeurian dagonak parkaten daizei xahurien bekatiuak.

15. Baia xek ezbatzei parkatan gizoner, eztare xen Aitak ezdaizei parkaten bekatiuak.

16. Barurtan tzeinian, ezitei isar beltzuri, [itxurazalien] bikala, zeinek beren begitartia [uluntan] baitei gizoner izaguntra emoiteko barurtan deila. Egiaz erraiten daizeid beren [pakiua] errezibitu zeila.

17. Zuk, [aitzitik], barurtan tziuanian, konpoîn zazu zore buriua eta ekuz onki zore begitartia.

18. Etzein gizonek izagun barurtan tziuala, baizik kain solo zore Aitak, gaiza [guziuetan], oraino're altxatrukago [daudenetan], eta zore Aitak sekretuan igartan dena ekustan baitu, korrengatik [saria] emonen daizu.

19. Nahi etzazei bil ontarzun xentako lurrian, non [herdoiak eta korkoilek xatan] baidutu, non eta [ebaszaliek erdeitan] eta ebastan baiditei.

20. Xanta zazei lehinaz bai xentako ontarzun zeurian, non ezbaita [herdoia ez eta korkoila xan] dozkeinik, eztare [ebaszale erden] eta ebats dozkeinik.

21. Zeren zore [ontarzuna] dagon lekiuan, kan diozu zore bihotza ere.

22. Zore korpitzaren argia zore begiak dutzu; zore begia xahî egon baledi, zore korpitz guziua argitruk egonen tzu.

23. Baia zore begia gaxki balimadakazu, zore korpitz guziua uluntruk egonen tzu. Zeren [zure baitan] argi izan bihar diona ulungua balimada, ulungua berak zer handi izanen dra!

24. Ñork ere ezdoke zerbutxa bi nausiri, zeren edo batari aburrimentu ekunen du eta berzeari amorio, edo lehinari [xuntatan] bada, zeñurekin [beiraten] du bigarnari. Ez dokezei zerbutxa Jangeikuari eta ontarzuner.

25. Konen arrazoînan erraiten daizeid ezizteila [asbagetu zer xan erdeiteko azolaz] xen bizia mantenatako, edo nontik erkinen tzein beztido xen korpitzaren estaltako. Zer, ez dia biziak edo arimak hobro balio ezik [xanariak], eta korpitzak hobro ezik beztiduak?

26. Txezei zeuriko txoriek nola ez dein eritan, ez egitatan ere, ez [bikortegi] ere ekuten, eta nola mantenatan tion xen Aitak zeurian dagonak. Etzeia, bada, xek hen beino anitx hobro balio konparazionerik bage?

27. Eta nork xetarik anitx [pentsamenturen indarrez atxeki doke txunku] bat bere luzeguari?

28. Eta beztiduari dela kasoz, [zertako xen arrankuratzia]? Txezei alurreko liliak nola handitan dren eta loratan. Ez dezei hek lanatan, ez urutan ere.

29. Kalarik ere nik erraiten daizeid ez Salomon ere bere handigua guziaren erdian beztitu zela kaiñ [eder]ki, nola lili kuetarik bat.

30. Bada, Jangeikuak kola beztitan badu egun alurrian loratan eta bihar labiara egoxtan den belar bat, zomat hobro xe[k], fede txikitako gizonak?

31. Kola, bada, eztei fan erranez [asbagetruk]: «Non erdenen digu zer xan eta edan? Non zerekin bezti erdenen digu?».

32. Paganuek egitan dein gisa, [txirrintarekin] erabilten baitra gaiza kuen guziuen atzian; bada, onki daki xen Aitak hetaz nestate tzeina.

33. Azkenik, lehinik txerka zazei Jangeikuaren [erreinua] eta bere justizia, eta berze gaiza guziuak [atxekirik] emonen dazkizei.

34. Eziztei, bada, erabil [asbagetruk] biharko egunaz, zeren biharko egunak aski [azola] eraguen du berarekin; aski izan dakiola egun bapanari bere [lana].

ZAZPIGARNEN KAPITULUA

[Ez gaitzetsi ñor. Konfiantza orazionian.
Borta hersia. Beren fruitiuetaz izagun dozkezei.
Etse peñaren gainian, edo
hâriaren gainian eginik izan denaz.]

1. Nahi etzazie juzga, nahi ez batzei juzgatruk izan.

2. Zeren juzga zinezein juizio berarekin juzgatruk izan bihar tzei, eta neurri zinezein neurri berarekin izanen zrei xek neurtruk.

3. Baia zu zer begitartereki izartan zra beiratra nata zore anaxaren begian, eta etzu guart emoitan [ernai] zihaurnaren barnian dagonari?

4. Edo nola erraiten [dauzu] zore anaxari «Eitzazu nik erkin tzadan ahutzxko kori zore begitik», zihaurek [ernai] bat tzularik zihauren begian?

5. [Itxurazale]! Erkin zazu lehinik [ernaia] zihauren begitik, eta gunian ekusen tzu nola bihar tziuan erkin nata zore anaxaren begitik.

6. Etzazei emon txakurrer gaiza saintiuak, ez xaurien perlak egotx ere txerrier; ez deila izan beren zankuez txiska ditzein, eta xaurien kontra buelta ditian, eta zatizka ztein.

7. Eska zazei, eta emonen daizei; txerka zazei, eta erdenen tzei; bortan dei zazei, eta irikiren daizei.

8. Zeren eskatan den orok errezibitan du, eta txerkatan dionak erdeiten du, eta deitan dionari irikiren zau.

9. Badagua ote xen artian norbait, zoini bere seme batek ogi eskatan zaularik, harri bat emon dazan?

10. Edo arraî bat eskatan bazau, suge bat emon dazan?

11. Bada, xek gaxto izaitian, edo inklinazione gaxtotako, xaurien semer gaiza on [emoitan] balimadakizei, zomat hobro [zeuriko xen Aitak emonen dazka] gaiza onak eskatan dazkionari?

12. Eta kola, egin zazei xek berze gizonekin hek xekin egin tzein deseatan tzein guziua; zeren kaur baita legiak eta profetek erran dein llaburtiua.

13. Sar ztei borta hersitik, zeren borta eta bide zabalak dra [galbideara] eramaiten deinak, eta anitx dra bide kontarik sartan drenak.

14. O, zer hersi da borta eta zer mehar bidia akaba ez deiteken biziara eramaitan diona! Eta zer txiki dra harekin kausitan deinak.

15. Guarda ztei profeta falsuetaz! Xengana ardi larruz beztitruk xiten [dra], baia barnetik otso [gosailu] banak dra.

16. Bere frutu edo [lanetaz] izagunten ditzei. Biltan dreia ote mahats arbole ñardunetarik, edo figo xargatzetarik?

17. Kola da nola arbole on orok frutu onak eraguten dion, eta arbole gaxto guziuak frutu gaxtuak.

18. Arbole on batek ez doke frutu gaxtorik emon, eztare arbole gaxto batek frutu onik.

19. Arbole oro frutu on eragutan ez diona ebakirik izanen da, eta suara egotxirik.

20. Beren fruitiuetaz, bada, izagun dozkezei.

21. Ez niri «Jeina, Jeina!» erraiten [daitadan] oro sarten da korrengatik zeuriko [erreinuan], beizik ene Aita zeurian dagonaren borontatia egiten diona, kori da [zeuriko erreinuan] sarten dena.

22. Anitxek erranen daitei juizioko egun kartan: «Jeina, Jeina! Ez digua, bada, guk zore izenian profetizatu, eta [diabiuak] egotxi zore izenian, eta anitx milagro egin zore izenian?».

23. Baia gunian nik erranen dabeid: «Sekula ere ez daizeid izaguntu enetako edo ñaurnak. [Fan ztei niganik], gaxtotarzunaren [egili]ak!».

24. Korrengatik, nornahidenek ene dotrina kuek entzuten dion eta [bete]tan, iduri izanen da gizon [burudun] bati, zoinek bere etsia harrizko [zimentu] gainian egin baizion.

25. Eta euriak erori zren, eta ugaltiak [bazterretarik erkin zren, eta haiziak] erabili zren, eta indarrekin emon zein kalako etsiaren kontra; baia ez zen deseginik izan, zeren harrizko zimentu gainian eginik baizagon.

26. Baia nornahidenek entzuten dion eta ez obraz izartan dotrina emoiten tuan kuek, iduri izanen da gizon ero bere etsia hâria gainian [egin] zion bati.

27. Eta euriak erori zren eta ugaltetako [ualdeak] xin zren, eta [haize]k butz egin zein eta indarrekin emon zein etse karen kontra, zoin erori zen eta haren desegingua handi izan zen.

28. Azkenik, Jesusek [elealdi] kaur akabatu baikoz, entzutan zabein hiriek {edo hiri entzutan zabeinek} ez zein akabatan haren dotrina (mires)tiaz.

29. Zeren haren her erakustako moldia autoritate [handi] batekin zen, eta ez beren eskribaî eta fariseuek erakustan zein gisa.

ZORTZIGARNEN KAPITULUA

[Jesusek legenduna sontotu. Ehintari baten mitila eta
Pedroren amagiarreba sontotu. Eri anitx sontotu.
Jesusek itxaso akartua paketu.
Jesusek diabiuz beteak sontotu.]

1. Jesus menditik xatxiz baikoz, gente[-saldo] handi bat xarrekituz fan zitzaun.
2. Kontan, harengana [legendun] bat heltian, adoratan zaun erraiten:
–Jeina, zuk nahi batzu, xahî nindokezu.
3. Eta Jesusek eskiua hedatan ziolarik, (onkitu) zaun, erraiten:
–Nahi diez; bara zte xahî.
Eta istantian bere [legen]etik sontotruk baratu zen.
4. Jesusek erran zaun:
–Txezu etzazula erran ñori're, baia fan zte, presenta zte apezarengana eta [eskein] zazu emontarzun Moisesek manatu ziona, zerbutxa edo [borogutan] izan dazaun.
5. [Jesus Kafarnaunen sartan zelarik, bidiara] erkin zitzaun ehinturiako ofiziale bat, eta otoi egitan zaun.
6. Erraieten:
–Jeina, ene mitil zerbutxari bat etzinik dago etsen, perletikatruk, eta anixko [sufritan] du.
7. Jesusek [erran zaun]:
–Ni fanen nuzu eta sontoten dauz.
8. Ehinturiako ofizialeak [errespondítu] zion:
–Jina, ni enaz merexizale hori ene etsen sar dein, baia mana beza horren hitzaz eta ene zerbuzari mitila sontotruk baraten da.
9. Bada, oraino ñaurek, berzen meniara izaririk [dagon] gizon bat beizik ez bainaz, nola soldado ene ordeniuara baitur, bati erraiten dur: «Fan hadi», eta hura faiten da; eta berziari: «Onai» edo «Xin hadi», eta xiten da; eta ene mitil zerbutxariari: «Egin zak kaur», eta egiten du.
10. Jesusek kaur entzutian, (mireste) [handia erakutsi] zion, eta xarrekitan zitzauner erran [zabein]: «Egiaz erraiten daizeid, eztare Israelen erdian ere erden duala fede bat kain handi.
11. Kola nik [erraiten] daizeid jentiletarik anitx xinen drela iguzkiaren erkingutik eta sargutik, eta mahaian egonen drela Abraham, Isaak eta Jakobekin [zeuriko erreinuan],
12. [Erreinuko] semiak –judiuak– kanpo ulunguetra egotxirik izanen dren tenpra berian. Kan izanen da nexarra eta hortzez garraska egitia».
13. Gero Jesusek [ehintariari erran zaun]:
–Ortzu {edo Fan zte}, eta agi dakizula xinetsi tziuan bikala.
Eta ordu kartan berian mitil zerbutxaria sontotruk baratu zen.
14. Gero Jesus Pedroren etsera fan izan zelarik, konen amagiarreba ohian kalenturarekin ekusi zion.
15. Eta eskiua (onki)tan zaularik, kalentura gentu zitzaun. Korrekin, bertan ohitik xagi zen eta her zerbutxatra isari zen.

16. Arrastria heltu izan baikoz, espirituekin zaudenik anitx eragu zitzabein, eta bere elia edo hitzarekin espiritu gaxtuak egoxtan ztion, eta kexatan zren guziuak sontotu ztion.
17. Korrekin [betetan] zelarik profeta Isaiasek antzinetik erran ziona:
Bera gure eriguetaz kargatu da, eta beraren gain gore eriguak hartu [dutu].
18. [Jesusek egun batez bere buriua gente anitxek unguratruk ekustan ziolarik], Jenezareteko laguaren berze alteko erribrara igartia [pentsatu] zion.
19. Eta eskribaî edo erakuszale bat abañatan zitzaularik, erran zaun:
–Maistrua, ni xarrekiten naizu noranahiden fan zitian.
20. Jesusek errespondítu zaun:
–Axariek kamia dei, eta zeuriko txoriek habia, baia Gizonaren Semiak ez du zeren gainian [isar] buriua.
21. Bere dizipuluetarik berze batek erran zaun:
–Jina, [eitz] naztazu lehin ezik xarreki daizaizun, fan nein ñore aitaren ôrztra.
22. Baia Jesusek errespondítu zaun:
–Xarreki naizte zu eta eitzazu hilek, edo gente ez deinek fediaren bizia, ôrtzein beren hillak.
23. Barka batian sartu zen, bada, bere [ikasliek laguntruk].
24. Eta nonta itxasuan azkatu zen [ekaitz] bat kain handi, oladek barka estaltan baizein. Baia Jesus lo egiten zagon.
25. Bere [ikasliak] harengana abañatan zrelarik, i[r]atzarri zabein, erraiten:
–Jina, salba gitzazu, galtruk baigra!
26. Jesusek [erran zabein]:
–Zertaz lotsatan zrei, o fede txikitako gizonak?
Gunian txuti izaririk, [haizer eta itxasoari antzaka] litiala manatu zion, eta [ontson] handi bat segitu zen.
27. Zointaz kan zauden guziuak [harritruk], alkar erraiten zein: «Nor da kaur, zoini [haize]k eta itxasuak obedezitan baitabei?».
28. Laguaren berze erribran barkotik erkinez geroz, jerasenuen herrian, bi [diabiudun] xuxen harengana fan zren, [hilobi] zaudenetarik erkitian. Kain [akartruk zauden], ez baizen ñor ere [usartan] bide kartarik igartra.
29. Eta bertan irago egiten hasi zren, erranez:
–Zer ekusteko digu guk zorekin, o Jesus, Jangeikuaren Semia? Kona gu [mintiagatik] xin zreia, tenpra bage?
30. Kantik ez urrin txerri saldo handi bat zagon, alatan.
31. Eta [diabiuek] gisa kontan otoi egiten zabein:
–Kementik egoxtan bagutzu, oil gizazu txerri saldo kortra.
32. Hark erran zabein:
–Ortzei.
Hurak erkin zrelarik, txerrietan sartu zren; eta nonta saldo guziuak (oildra) handirekin laster egin zion turrunpero batarik itxasuara zauzi egitra, eta uretan itotruk baratu zren.
33. Txerrizaîak îhesitu zren eta, ziudadiara heltu baikoz, agitan zen guziua kontatu zein, eta partikularki [diabiudunekin] agitiua.
34. [Bertan] ziudade guziua Jesusen txerka erkin zen, eta [hura] ekustian, otoi egin zabein beren herritik erretira ledin.

BEDRATZUGARNEN KAPITULUA

[Jesusek perletikatu bat sontotu. Mateoren bokazionia.
Jesus bekatariekin bazkaltan. Jesusek emazte bat
odol-usurtiua batarik sontotu eta Jairoren alaba biztu.
Bi utsi eta diabiudun mutu bat sontotu.
Lantarearen eta langilearen parabola.]

1. Eta barkuara igaitian, laguaren berze altiara igari zen eta bere egoitiazko ziudadiara edo Kafarnaunera xin zen.
2. Noizta perletikatu bat presentatu zabein ohi batian etzinik. Eta Jesusek ha[i]en fedia ekustian, [perletikatiuari] erran zaun:
–Ekun zazu konfiantza, eme semia! Zeren parkatruk zaitzu zore bakatiuak.
3. Zoini eskribaî edo erakuszale banek erran zein bertan berentako: «Konek blasfemiatan du».
4. Jesusek, beren pensamentiuak ekustian, erran zion:
–Zeren pensatan tzei gaxki xahurien bihotzetan?
5. Zar gaiza da [aisa]go, «Zihauren bekatiuak parkatan zaitzu» erraitia, edo «Xagi eta erabil zte» erraitia?
6. Bada, xakin zazei Gizonaren Semiak lurrian bekatu parkatako potestade diola.
[Eta] tenpra berian erran zion perletikatiuari:
Azka zte {edo Xagi zte}, har zazu zihauren ohia eta fan zte zore etsera.
7. Eta xagi zen eta fan bere etsera.
8. Zoin gentek ekustian, lotsa saintuz beterik baratu zren, eta Jangeikuari gloria emon zein, gizoner kolako potestade emon [zabeilakoz].
9. Jesus kementik partitu zelarik, gizon bat ekusi zion alkabalen banko edo mahai batian xaseririk, izenez Mateo ziona, eta erran zaun:
–Xarreki naztazu.
Hura bertan xagitan zelarik, segitu zitzaun.
10. Eta agitu zen Jesus Mateoren etseko mahaian zagolarik, anitx publikano xin zrela eta bizi gaxtotako gente, mahaian izari baizren harekin eta bere dizipuluekin bazkal[tzra].
11. Eta fariseuek [korren] ekustian, bere dizipuluer erraiten zein:
–Nola da xen Maistruak xaten baitu publikano eta bekatariekin?
12. Baia Jesusek kaur entzutian, erran zabein:
–Ez dutzu sanuak, beizik eri daudenak dotoriaz nestate deinak.
13. Fan ztei, bada, zer [erran nahi] dion ikastra: *Hobro estimatan dur [bihozbeillatarzuna], ezik sakrifiziua*, zeren bekatariak baidra, eta ez [xuxenak], zoiner ni xin bainaz penitenzia egitra deitra.
14. Gunian Juanen dizipuluak Jesusengana presentatu zren, eta erran zabein:
–Zoin da motibua, zeren guk eta fariseuek naroki barurtan digunian, ez baitei barurtan zore dizipuluek?
15. Jesusek erresponditu zabein:
–[Senarraren adexkidiak erabil deitekia ote betulun edo nexargarri, senarra] hekin dagon bitartio? Helten da, bai, tempra zointan [senarra] gentruk izanen baizabei, eta gunian barurten dei.

16. Ñork ere ez du [izartan] tapallu bat oxal lodiz beztido xahar bati; berze gisaz, berriguak xahardunaren parte urratan du, eta handiago egiten da urratiua edo hautsduna.
17. Eztare ez dei egoxtan ardaû berria zahagi xaharretan, zeren kaur egiten bada, zahagia lehertan da eta ardaûa usurtan da, eta zahagiak eta larriuak galtan dra. Baia ardû berria zahagi berrietan egoxtan dei eta kola konserbatan da bata eta berzia.
18. [Jesus elesta kontan zagon, burzegi] edo sinagogako nausi bat heltu zenian, eta adoratan zaularik erran zaun: «Jina, ene alaba hil [berri] da, baia xin zte, izar zazu zore eskiua haren gainian eta biziren tzu».
19. Jesus xagitian, bere dizipuluekin xarrekituz faiten zitzaun.
20. Noizta emazte bat, hamabi urte odol isurtiua bat [sufri]tan ziola baizion, atziritik xin zen eta haren beztiduraren atzekua (onkitu) zion.
21. Zeren harek berartan erraiten zion: «(Onki) ahal dokedan beraren beztidua, sontotruk ekusen naz».
22. Baia Jesus bueltatian eta mira egiten zaularik, erran zaun: «Alaba, ekun zazu konfianza! Zore fediak sontotu [ztu]».
Egiaz, istante kartaz geroztik emaztia sontotruk baratu zen.
23. Jesus gizon [nausi] karen etsiara xin zelarik, eta flauta sonazaliak ekustian –edo lutozko musika– eta gentiaren arroitiua,
24. [Erran zion: «Fan] ztei, bada ez dago hilik haurra {edo nexkaxia}, loakartruk beizik». Eta hartaz burla egiten zein.
25. Baia gentia kanpo egotxirik, sartu zen, eskutik hartu zaun eta nexkaxia azkatu {edo txutitu} zen.
26. Eta agitiua herri [kartan guziuan] afamatu zen.
27. Jesus leku kartarik [partitzian] bi utsi segitu zizazkan irago egiten eta erraiten: «Dabiden Semia, ekun zazu konpasione gutaz!».
28. Etsera heltu zen bertan {edo baikoz}, utsiak [xin] zizazkan eta Jesusek erran zabein:
–Xinetstan tzeia nik egin dokedala eskatan tzein kori?
–Bai, Jina –[erran zabein].
29. Gunian begiak (onkitu) zazkabein erraiten:
–Nola xen fedia, kola eginik izan dakizeila.
30. Eta begiak irikirik izan zitzabein. Baia Jesusek (mehatxatu) ztion erraiten:
–Txezei ñork ere etzala xakin!
31. Hek, kalarik ere, kantik erkitian unguru guzutik [zabaldu] zein.
32. Kuek erkinik, [diabiudun] mutu bat presentatu zabein.
33. Eta [diabiua] egotxirik izanez geroz, mutiua mintzatu zen, eta gentiak (harrizioz) bete zren eta erraiten zein: «Sekula ez da ekusi izan kalako gaiza Israelen».
34. Fariseuek, [berriz], erraiten zein: «[Diabiuen nausiaren] artez egoxtan tu [diabiuak]».
35. Eta Jesus ziudade eta hiri guziuak lasterkatan faiten zen, beren sinagogetan Jangeikuaren [erreinuaren] Ebanjeliua erakustan eta predikatan, eta [min] eta erigua oro sontotan.
36. Eta gente kurak ekustian, hetaz (urrikal)tan zen, zeren gaizki paratruk baizauden eta kemen eta kan barriatruk, ardiak artzaî bage bikala.
37. Zointaz gainian bere dizipuluer erran [zabein]: «Egiazki anitx egitako da, baia egitariak txiki.
38. Otoi zkaztei nausiari oil tzala egitarako egitari {edo egitazale} bere alurriara».

HAMARGARNEN KAPITULUA

Hamabi apostolen misionia. [Ardiak otsuen artian.
Nori ekun lotsa. Jesus berextra xinik].
Instruzione Jesusek emon zabeinak.

1. Kontaz gero, [Jesusek] bere hamabi dizipuluak deitu ztiolarik, potestade emon zabein espiritu zikinak egoxteko eta zernahiden gisatako min eta gatxak edo eriguak sontotako.

2. Hamabien izenak kuek dra: Lehina Simon –izengainez Pedro– eta Andres bere anaxa.

3. Santiago Zebedeoren seme eta Juan bere anaxa.

4. Felipe eta Bartolome. Tomas eta Mateo publikanua edo arrendazalia. Santiago Alfeoren seme eta Tadeo. Simon [Kanaanekoa] eta Judas Iskariote, [Jesus saltu zion] bera.

5. Jesusek hamabi kuek oiltu ztion, segitan dren instruzioniak {edo ikastiak} emoitan zabeilarik:

–Ez ziztei fan orai jentilen lurriara, eztare ez ziztei sar samaritanuen hirietan.

6. Baia fan ztei lehinik txerka Israeleko etseko ardi galtiuak.

7. Fan eta predika zazei erraiten zeuriko [erreinua] abañatan dela.

8. Eta, xen droktrina izaguntra emoiteko, sonto zazei eriak, [biz] zazei hilak, xahin zazei [legendun]ak, egotx zazei [diabiuak]. Emon zazei graziaz, graziaz [hartu] tzeina.

9. Etzazei urrerik eraman, ez zidarrik eta ez deus deuririk xahurien bolsetan {edo folletan}.

10. Ez alforjarik biajeko, ez hobro ezik tunika bat eta kalzero eli bat, eztare makila edo berze armarik xahurien defensatako, zeren [lan egitan] dionak merexi du mantena dazabein.

11. Zointan nahiden ziudade edo [hirixkotan] sar zindein, informa ztei nor den hartan gizon prestu edo dino ostatuz errezibi dazaizein, eta egon ztei bere etsen xen faitia [artio].

12. Etsian [sartzian], salutazionia[k] izan behar du: «Bakia izan deila etse kontan».

13. Zeren etsiak merexitan badu, xen bakia xinen da harengana; baia ez balimadu merexitan, xen bakia utzulen da xahuriekin.

14. [Hartu] nahi ez [zteinian], ez ere behatu edo xen eliak edo erranak entzun, kolako etse edo ziudadetik erkiten zreilarik, idarraus zazei xahurien zankuetako errautsa.

15. Egiaz erraiten daizeid Sodoma eta Gomorra juizioko egunean [gogortarzun] txikiagorekin tratatruk izanen drela, ezik kalako ziudadia.

16. Bea ztei nik oiltan [zteidala] ardi bikala otsuen artian. Korrengatik [burudun] izan bihar tzei sugien gisa, eta [apal] ursuen bikala.

17. Baia konturekin bizi ztei kolako gizonekin, bada, tribunaletan akusaten ztei eta [xo]ten ztei bere sinagogetan.

18. Eta [enegatik] gobernazalien eta erregen antziniara eramanik izanen zrei, nitaz testimonio emoiteko {edo emon zazein} her eta nazioner.

19. [Agerraraz] zintzeinian ere, ez daizaizeila [kontu izan] nola edo zer erran bihar tzein, zeren ordu kartan berian erran bihar tzeina [Jainkoak] emonik izanen baizaizei.

20. Xek ez baizrei gunian mintzatan dena, xen Aitaren Espiritiua beizik, zoin xengatik edo xen lekiuan mintzatan baita.

21. Gunian anaxe batek bere anaxa hilik izaitra [emanen] du, eta aitak semia; eta sem[e-alab]ak [aitatamen] kontra azkaten dra, eta hilarazen tei.

22. Eta xek guziue[k] hunguntruk izaitra heltren zrei ene [izenagatik], baia azken ordiuara artio [egotan] dena, kaur salbaten da.

23. Guniara bitartio, ziudade batian persegitan daizeinian, ezkapa ztei berziara. Egiaz erraiten daizeid etzeila konbertitiaz [bukaten] Israeleko ziudadiak lehin ezik Gizonaren Semia xin dein.

24. Ez da dizipulua hobro ezik bere maistrua, ez ere zerbutxaria hobrotako ezik bere nausia.

25. Dizipuluari aski dakiola bere maistruaren gisa tratatruk izaitia, eta zerbutxariari bere nausiaren bikala. Etseko aitari izenez Belzebu deitu balimadei, zomat hobro bere menorer?

26. Baia korrengatik ez dazauzei ekun lotsa, zeren deus ere ez baitago estaltruk, agertruk ez bihar dionik izan, ez ere altxatruk xakinik izan ez bihar dionik.

27. Gaiaz erraiten daidzeidana, erran zazei egunaren argia[n]; eta biarriara erraiten daidzeidana, predika zazei [etsegainetik] {edo lurrezko sabaietarik}.

28. Deus lotsarik etzazei ekun korpitzaren itzaler eta arima hil ezdokeiner, lehinaz onki lotsa ekun zazei arima eta korpitza iburniara egotx dokenari.

29. Ez dia kola bi txori saltan drela bi marabiditan? Eta kalarik ere, hetarik bakotxa ez da lurriara eroren xen Aitak [nahi] eztion bitartio.

30. Xahurien buruko biluak ere guziuak kontatruk daude.

31. Etzei, bada, zertaz lotsa ekun; xek balio tzei txori anitxek beino hobro.

32. [Azkenian], gizonen antzinian Mesiastako [izaguntan eta aitortan] nein oro, nik ere izagunten daud eta izaguntra emonen naz haren alte ene Aita zeurian dagonaren antzinian.

33. Baia gizonen antzinian ukatan nindionari nik ere ukaten daud ene Aita zeurian dagonaren antzinian.

34. Etzei zer pensa ni lurriara xin nintzala bakiaren eragutra. Ez naz xin bakiaren eragutra, gerra beizik.

35. Bada, *semia bere aitarenganik, eta alaba bere amarenganik, eta errena bere amagiarrebaganik* [berextra xin naz].

36. Eta *gizonaren [etsaiak] bere etse berbereko personak izan[en] dra.*

37. Aita edo ama ni beino hobro [maita]tan dionak, ez du merexi enia iza[tia]; eta semia edo alaba ni beino hobro [maitatan] dionak, eztare ez du merexi enia iza[tia].

38. Eta ez dena kargatan bere krutxiarekin eta niri xarrekitan, ez da dino nitaz.

39. Bere arimaren kostuz bere bizia konserbatan dionak, [kaur] galten du; eta ene amorioz bere bizia gal lezana, erdeitra bueltaten da.

40. [Xek hartan zteinak ni hartan nu; eta ni hartan nuenak] ni oiltu nindion bera [hartan] du.

41. Profeta bat profeta delako ostatuz [hartan dionak, profetaren saria harten] du. Eta [gizon xuxen bat xuxen] delakoz ostatuz hartan dionak, [xuxenaren] saria ekunen du.

42. Eta nornahidenek txikerxko kuetarik bati ez beizik baso bat ur hotz edatra emon lezan, ene dizipulo delako arrazoîan, ñore hitza emoiten daidzeid ez diola galten bere pakiua.

HAMEKAGARNEN KAPITULUA

[Juan Batixazaliaren galtegitia. Jesusek Galileako
hiriak maradikatu. Ebanjeliua jendeari agertua.
Aita eta Semia. Xin ztei enegana.]

1. Nola Jesusek erakustia kuek bere hamabi dizipuluer emoitiaz akabatu baizion, kantik [fan] zen beren ziudadetan erakuts eta predikatako.

2. Baia nola Juanek prisionian Kristoren [egintza miragarriak entzun baiztion], bere dizipuluetarik bi hari oiltu z[t]ion,

3. [Galtegitra]:

–Zu zreia Mesias «Xin behar diona», edo berze bat [orkitu] bihar digu?

4. Zoini Jesusek erresponditu zabein:

–Fan eta konta zazei Juani entzun tzeina eta ekusi tzeina.

5. Utsiek ekustan dei, mainkiuak erabiltan dra, [legendunak] xahî baratan dra, sordunek entzuten dei, hilak [biztan dra, beharduner] Ebanjeliuaren berri ona emoiten [dabei].

6. Eta [egoaleko], eneganik eskandalozko okasionerik harten ez diona.

7. Kuek fan baikoz, Jesus Juantaz mintzatan hasi zen, eta hiriari erran [zaun]:

–Zer desiertuan ekustra erkin zrei? Kaña [haize] guziuetra mobitan den zomait?

8. Erran daztazeid berzala zer ekustra erkin zintzein? Gizon bat arropa delikatu banekin beztitruk? Badakizei kola beztitan drenak erregen [xauregi]etan daudela.

9. Azkenian, zer ekustra erkin zrei? Zomait profeta? Kori bai, nik [segurtatan] daizeid, eta oraino're anitx hobro ezik profeta.

10. Bada, hura da nortaz eskribitruk baitago: *Beira zazu nik oiltan duala ene Aînguriua zore antziniara, zoin zure antzinetik bidia [drezatan] daizularik fanen baita.*

11. Egiaz erraiten daizeid emazten semen artean ez dela sortu bakotxik Juan [Batixazalia] beino handiago; [kalarik ere, zeuriko erreinuan txikerren dena ere, hura beino handiago da].

12. Eta Juan [Batixazaliaren tenpratik egun artio, zeruko erreinua indar biziz eskuratan] da, eta indar bizi kaur egiten deinek berarekin harrapatan deinak dra.

13. Zeren profeta guziuek eta legiak [haiketa Juan bitartio], antzinetik erran zein gero agitu bihar ziona.

14. Eta entelegatu nahi batzei, hura bera da Elias, xin bihar zion kura.

15. Biarri dionak entelegatako, entelega tzala!

16. Baia nori konparaten dur nik gizaki kasta kaur? Morroîn plaztan xaseririk daudener [urdutruk] da, zeinek, beren lagunetarik berze zomaiti, irago [egitian], erraiten dabei:

17. «Kantxoîn [boztari] kantatu daiguzei, eta ez zrei lantzatu; kantxoîn triste, eta etzei nexar egin».

18. Kala Juan xin zen, kasik ez baitu xaten ez ere edaten, eta erraiten dei: [Diabiuak hartruk] dago.

19. Gizonaren Semea xin da, xaten eta edaten baitu, eta erraiten dei: «Hona kemen (goxozale) eta [ardozale] bat, publikanuen eta bizi gaixtotako genten adexkide!». Baia bere sementako [jainkozko xakitia] justifikatruk baratan da.

20. Gunian [Jesus ziudadiak maradikatan hasi zen, zoinetan haren] (mirakullu)etarik anitx egin baizren, zeren ezbaizein penitenzia egin.

21. –Ai zutaz, Korozain! Ai zutaz, Betzaida! Zeren Tiron eta Sidonen egin balidra (mirakulliuak) [xen baitan] egin drenak, aspaldian penitenzia eginik ekunen zeila hautsez eta zilizioz estaltruk.

22. Korrengatik erraiten daizeid Tiro eta Sidon juizioko egunian [gogortarzun] txikiagorekin tratatruk izanen drela ezik xek.

23. Eta zu, Kafarnaun,

naskiro zeuri[araino] igar bihar tzinala? Izanen zra, bai, iburniaraino [egoxtruk]!

Zeren Sodoman egin balidra (mirakullu) [zure baitan egin drenak, Sodoma txutik] iraîn zaitekian oraino're egunko egunian.

24. Korrengatik erraiten daizud Sodomako herria juizioko egunian zu beino [gogortarzun] txikiagorekin gaztigatruk izanen dela.

25. Kalako tenpran, Jesusek [goiti erran] zion:

–Nik [gorazkatzen ztud], ene Aita, zeuri eta lurreko Jeina, zeren estaltruk {edo altxatruk} ekun baidutzu gaiza kuek [mendeko xakintsuer eta buruduner, eta txikerkuer erran baidazkauzei].

26. Bai, ene Aita, [gorazkatruk] izan ztiala, zore (atseginez) izan delakoz kola izan ledin.

27. Ene Aitak gaiza guziuak ñore eskuietan izari dutu. Baia ñork ere ez du Semia izaguntan Aitak beizik, eta ñork ere ez du Aita izaguntan, Semiak baizik, eta kark zoini Semiak [erran] nahi ekuntu dion.

28. Xin ztei [lanekin eta zamekin lehertruk] erabiltan zrein guziuak, zeren nik [arinten] baizteid.

29. Har zazei ene [uztarria] xahurien gainian, eta ikas zazei eneganik [apal] nazala bihotzez, eta xahurien arimentako [baraldia] erdenen tzei.

30. Zeren ene [uztarria] suabe baita, eta arin ene peziua.

HAMABIGARNEN KAPITULUA

[Neskaneguna begiratzearen motiboz.
Eskiua exartruk zakan bat sontotruk.
Jesus Jangeikuaren zerbutxaria.
Jesusen egiazko familia.]

1. Tenpra kontan berian, Jesus neskanegun batez alor erin altaka banetarik igartan zelarik, bere dizipuluak, gose zeilarik, buruka biltan hasi zren eta [bikorren] xaten.

2. Eta fariseuek kaur ekustian, erran zabein [Jesusi]:

–Beira zazu zore dizipuluek egitan deila neskanegunian egitia [lege] ez dena {edo eztena}.

3. Baia hark {edo harek} erresponditu zabein:

–Etzeia leitu Dabidek egin ziona, bera eta laguntan zabeinak gosiaz [araztruk] ekusi zrenian?

4. Nola Jangeikuaren etsian sartu zen eta proposizionezko ogiak xan [ztion, xatia lege] ez zena ez hari eztare haren laguner, beizik kain solo sazerdoter?

5. Edo etzei leitu Legian nola [apezek neskanegunian elizan lan egitan] dein, eta kalarik ere ez bekaturik egiten?

6. Bada, nik erraiten daizeid kemen bat dagola, eliza beno handiago baita.

7. Zeren xek onki xakin bazinezei zer erran nahi dion *Nahiago dur [bihozbeillatarzuna] sakrifiziua bino*, sekula ez zinein [hogenbageak] kondenaten.

8. Zeren Gizonaren Semia [xabe] baita neskanegunaz ere.

9. [Jesus kantik fan zelarik], hen Sinagogan sartu zen.

10. Zointan gizon bat zegon, esku bat exartruk baizakan. Eta Jesusi galtegin zabein, [arrazoîn] bat erdeiteko [hura sala]tako:

–[Lege dia] neskanegunian sontotia?

11. Baia hark erran zabein:

–Zer gizon izanen da xen artian, zoinek ardi bat ekutian eta kaur neskanegunian zilo batian erortan bada, etzan azka eta erkin kanpo?

12. Bada, zomat hobro balio du gizon batek ezik ardi batek? Kola, bada, [legezko] da onki egitia xei egunian.

13. Gunian gizonari erran zaun:

–Luza zazu esku kori.

[Luzatu] zizun eta kain [onki] baratu zen nola berzia.

14. Baia fariseuak erkitian, haren kontra makinatako eta galaraztako xuntatu zren.

15. Jesus, kaur [entelegatzian], erretiratu zen eta eri anitx xarrekitu zizazkaun eta [hek] oro sontotu ztion.

16. [Gotorki manatan] zabeilarik ez lezabeila [erran bera nor zen].

17. Konekin Isaiasen profezia [bete] zen, zoinek erraten baitu:

18. *Txezei kor ene zerbutxaria, zoin nik [hautatruk] baitakad, ene maitia, [zoinen baitan laket baitu osoki ene arimak].*

19. *Ez da ñorekin ere [ankarten], ez du iragorik eginen; ñork ere ez du entzunen haren mintzua edo irago egitia plaztetan.*

20. *Ez du zatikaten kaña hautserik dagona, eztare hiltiaz akabaten argi oraino keitan dagona, beraren kausaren justizia [irabaz]araztan dion bitartio.*

21. *Eta nazionek bere izenian izaren dei beren esperanza.*

22. Tenpra berian [Jesusi gizon diabiudun] bat eraugirik izan zaun, utsi eta mutu. Eta kalako gisan sontotu zion, gunian bertan hasi baizen ele erraiten eta ekustan.

23. Zoinekin hiri guziua harritruk baratu zen, eta erraiten zion: «Kaur dia ote Dabiden Semia, Mesias?»

24. Baia fariseuek kaur entzutian, erraiten zein:

–Konek ez tu [deabiuak] egoixtan baizik Belzeburen [egitez, zoin deabiuen nausia] baita.

25. Gunian Jesusek, hen pensamentiuak izaguntan ziolarik, erran zabein:

–[Erreinu zatitan berexirik dauden oro erraustruk] izanen dra; eta zoin nahiden [ziudadek edo etsek] pensamoldetan berexirik ez du irainen.

26. Eta Satanasek Satanas kanpo egoixtan badu, berarekin [etsai] da; nola, bada, irain bihar du bere [erreinuak]?

27. Zeren nik [deabiuak] Belzeburen izenian egoxtan batud, xen semek zer izentan egotxen tei? Korrengatik koriek berak izanen dra xen juzgazaliak.

28. Zeren nik [deabiuak] Jangeikuaren Espiritiuaren birtutez egoixtan batud, [egiazki] segitan da Jangeikuaren [erreinua] edo Mesias xengana heltu dela.

29. Berzala erran daztazeid: Nola da posible norbait gizon [usardi] handitako [baten] etsian sar dein eta bere ontarzunak ebats dazan, ez badu lehinik [usarta] onki lotan? Gunian etsia[n ebatsi] ahal ekunen dau.

30. Ene fabore ez dagona, ene kontra dago; eta enekin biltan ez dionak, barriatan du.

31. Korrengatik [erraiten] daizeid zernahiden bekatu eta zernahiden (maradikazio) parkaten zabeila gizoner, Jangeikuaren Espiritiuaren [kontrako] (maradikazioa) ez dela parkaten kain [aisa].

32. Gisa berian, nornahideni Gizonaren Semiaren kontra mintza ledinari parkaten zau; baia Espiritu Saintiuaren kontra mintza ledinari, haren grazia [malmetitan], ez dazau parkaten ez bizi kontan et[a] ez berzian.

33. Edo, bada, erran zazei arbolia on dela, eta on haren frutiua. Edo arbolia gaixtotako balimadakazei, haren frutiua ere ekun zazei gaixtotako, frutiuaz izaguntan baita arboliaren kalidadia.

34. [Suge]zko kasta! Nola da posible xek gaiza onik aipa zazein, gaxto izaitian [xek] zren gisa? Ahua bihotzaren [aniz]tarzunetik mintzatan baita.

35. Gizon prestiuak bere bihotzaren hondo onetik gaiza onak erkitan tu, eta gizon gaxtuak bere [hondo] gaxtotik gaiza gaxtuak erkitan tu.

36. Nik erraiten daizeid, oraino're gizonek zernahiden ele aurer erran lezeinetaz, juizioko egunian kontu emon bihar deila.

37. Zeren zore elengatik bihar ekunen zu izan justifikatruk, eta zore elengatik kondenatruk.

38. Gunian eskribaî eta fariseuetarik zomait mintzatu zitzazkabein erraiten:

–Maistrua, zomait (mirakullu) egin zinezan ekusi nahi ginokezu.

39. Baia hark errespondítu zabein:

–[Arraza gaixto eta ustel] konek (mirakullu) bat eskatan du! Baia ez zau eskatan dena emonen, baizik Jonas profetaren (mirakulliua).

40. Zeren *Jonas ballenaren [erraian hirur egunez eta hirur gaiez] egon zen* bikala, kola Gizonaren Semia hirur [egunez eta hirur gaiez] egonen da lurraren [erraian].

41. Ninibeko [herrikoak] juizioko egunean gizaki kasta konen kontra azkaten dra, eta kondenaten [tei], zeren hek penitenzia egin baizein Jonasen predikazionia entzutian. Eta konen guziuareki, kemen dagona Jonasen beino hobro da {edo hobrotako}.

42. Eguerdialteko Erreina [sala]zalia eginen da juizioko egunian gizontarzun kasta konen kontra, eta kondenaten [du], zerengatik lurraren bazterretarik xin baizen Salomonen [xakitia] entzutako. Eta konen guziuaz kemen tzei Salomon beino hobro dena {edo hobrotako dena}.

43. Espiritu zikina zomait [gizonganik] erkin denian, leku idorretaz [gaindi] kan-kemenka erabilten da, non [hatsartu] txerkatan, (xerdietsi) bagetarik.

44. Gunian erraiten du: «Ñore etse erkin nazaniara [utzulen] naz». Eta hartra [utzultzian], desokupatruk erdeiten du, onki egortruk eta [apaintruk].

45. Konekin faiten da eta berarekin berze zazpi espiritu hartan [tu], beraren beino gaxtuago, eta sartian, kan [bizitan dra]. Zoinekin gizon karen azken izan moldia [gaxtoago] da ezik lehina. Kola agitu bihar [zau] gente kasta kain gaxto koni.

46. Oraino're hura hiriari platikatan zagon, nonta kanpo zauden bere ama eta bere anaxak, ele erran nahi zabeilarik.

47. Zoinengatik batek erran zaun:

–Txezu, zore ama eta zore anaxak kor kanpo daudezu, zutaz galtegiten.

48. Baia hark, erraiten zaunari errespondítian, [erran] zaun:

–Nor da ene ama, eta zoin dra ene anaxak?

49. Eta eskiuaz bere dizipuluak señalatan ztiolarik, erran zion:

–Kuek dra ene ama eta ene anaxak.

50. Zeren nornahidenek ene zeurian dagon Aitaren borontatia egin lezan, kaur da ene anaxa, eta ene arreba, eta ene ama.

HAMAHIRORGARNEN KAPITULUA

[Jesusparabolatan mintzo. Erinzaliaren parabola.
Gariaren erdian erin (olabeorraren) parabola.
Parabola mostaza-bikorrarna eta orantzarna.
Parabola tesoro altxatiuarna, perla preziosuarna,
eta erredearna. Jesus bere sortuerrian gaitzestruk.]

1. Egun kartan, Jesus etsetik erkitian, itxaso bazterrian xaseririk zagon.

2. Eta haren unguriuan gente-[saldo] bat xuntatu zen kain handi, [beharrezko] izan baizitzaun barka batian sartia eta hartan [xasertzia]; eta hiri guziua erribran zagon.

3. Zoini parabolen medioz anitx gaizataz mintzatu zen, erraiten: «Behin kalako erinzale bat eritra erkin zen.

4. Eta [bikorren] barriatian, zomait bidiari abaño erori zren {edo bidiaren altakara}; eta zeuriko txoriak xin zren eta xan ztein.

5. Berze banak harridoietan erori zren, nonta lur txiki baizegon, eta bertan bunatu zren lurra arin zegolakoz.

6. Baia iguzkia erkiti[an], erre eta exartu zren, zeren kasi ez baizein izorrorik.

7. Berze [bikor] banak xats artetan erori zren, eta xatsak handitu zren eta [itotu] ztein.

8. Berze banak, azkenik, lur onian erori zren, eta frutu emon zein, non batarik ehin, non hirorogei eta non hogeita hamar.

9. Biarri dionak entelegatako, entelega tzala».

10. Gero bere dizipuluak abañatan zrelarik, galtegin zabein:

–Zerengatik [xardokitan] dauzei parabolatan?

11. Zoinek errespondatu zabein:

–Zeren xer emon baizaizei [eskugoa zeuriko erreinuaren] misteriuak izaguntako, baia her ez zitzabei emon.

12. [Egia] izaitian, dionari bihar dion guziua emonen zaula [eta] oraino're hobro, eta sobratruk egonen dela; baia ekun bihar diona ez dionari, diona ere genten zaula.

13. Korrengatik[xardokitzen dabeid] parabolarekin, zeren hek ekustan deilarik ez baitei beiratan; eta entzutian ez baitei behatan, eztare entelegatan.

14. Zoinekin [hen baitan Isaiasen profezia betetzen] da, erraiten baitu:

Xahurien biarrekin entzunen tzei, eta etzei entelegaten; eta hobroago, xahurien begiekin ekusirik ere, etzei beiraten.

15. *Zeren hiri konek bere bihotza gogortu baitu, eta bere biarriak zerratu, eta bere begiak estali etzan ekus berekin, ez entzun biarrekin, ez ere entelega bihotzarekin, lotsaz, konbertitian nik osagarria emon daudazan*!

16. [Egoaltsu] xen begiak, ekusten baitei, eta [egoaltsu] xen bearriak, entzuten baitei.

17. Bada, egiaz erraiten daizeid profeta eta [xuxen anitxek kirrika] ekun zeila xek ekustan tzeina ekustako, eta ez zein ekusi; eta xek entzutan tzeina entzutako, eta ez zein entzun.

18. Entzun zazei orai erinzaliaren [parabolak zer erran nahi dion].

19. Nornahidenek Jangeikuaren [erreinuko] edo Ebanjeliuaren elia entzun tzan, eta hartan bere atenzionia ez izartan, Espiritu Gaxtua xiten da eta bere bihotzian erinik izan zen kura harrapatan dau. Kaur bidiari xunto erinik izana da.

20. «Lur harridoian» erinik izan zena, Jangeikuaren mintzua entzuten dion kura da eta [gunian] gozorekin [hartan].

21. Baia ez du barnetik izorrorik, [eta] txiki iraintan du; eta hitzaren edo Ebanjeliuaren kausaz [bihozmina] eta persekuzionia xarrekitian, konek bertan zerbutxatan dau eskandaloz.

22. Erintziua «xats artetan», Jangeikuaren elia entzuten diona da, baia [mundu] kontako abratstarzunen engañuak [itotan] dei eta fruturik emon bage baratan da.

23. Alrebeski, erintziua «lur onian», Jangeikuaren mintzua entzuten diona da eta [pensatan diona, eta frutu emoitan], parte batarik ehin, [edo] hirorogei, [edo] hogeita hamar.

24. Berze parabola bat izari zabein, erraiten: «[Zeuriko erreinua], bere alurrian hazi ona erin zion gizon bati urdutruk da.

25. Baia gizonak lo zaudelarik, haren [etsai] bat xin zen eta gariaren erdian [olabeor] erin zion, eta fan zen.

26. Garia xa lastotan eta buruka erkin puntiuan zagolarik, gisa berian agerriara erkin zen xatsa [ekusi] zen.

27. Gunian etseko nausiaren mitilak edo zerbutxariak harengana xin zren eta erran zabein: "Jeina, etzuniona hazi ona erin zore alurrian? Nola du, bada, xats?".

28. Erresponditu zabein: "[Zomaitek] gaxki nahi nionek erin ahal du". Zerbutxariek [erran] zein: "Nahi tziua xorratra fan gitian, edo haren biltra?".

29. Zoini erresponditu zion: "Ez, agi ez dein xatsa [txurrustakatzian], harrekin xunto garia [txurrustaka] zazein.

30. Eitz zazei bata eta berzia handi tiala egitara bitartio, zeren egitatako tenpran nik erranen [dabeid] egitarier: Bil zazei lehinik xatsa, eta hartaz egin zazei espal suarentako, eta sar zazei gero garia ene [bikortegian]"».

31. Berze parabola bat [izari] zabein, erraiten: «[Zeuriko erreinua mostazazko bikor bati urdutruk] da, zointa gizon batek bere eskiuan hartu baizion eta bere alurrian erin zion.

32. Zoin hazi guziuen artian [ekustian] anixko xê da; baia handitian handiago izaitra xiten da ezik eltzari guziuak, eta arbole egiten da kolako gisaz, zeuriko txoriak xaxtan baitra eta erreposatan bere adarretan».

33. Eta berze parabola kaur [ere erran] zion: «[Zeuriko erreinua] orantz emazte batek hartu zionari [urdutruk] da, eta nahastekatu hiror almute irinekin, nahasia orantzatruk {edo etsitruk} baratu zen bitartio».

34. Gaiza kuek guziuak erran ztion Jesusek hiriari parabolatan, zoinak bage ez zabein predikatan.

35. Profetak erran ziona [betetan] zelarik:

Ñore ahua iriken dur parabolekin mintzatako; gaiza [misteriotsu mundiua sortruk] izanez geroz altxatruk egon drenak publikaten dur.

36. Gunian Jesus, entzuten zaudenak despedituz geroz, etsera utzuli zen, eta bere dizipuluak haren unguriuan isaririk, erran zabein:

–Esplika dazaguzu [olabeor] alurrian erinik izan denaren parabola.

37. Zoinek erresponditu zabein:

–Hazi ona erinten diona Gizonaren Semia da.

38. Alurra mundiua da, hazi ona [erreinuko] semeak dra, [olabeorra espiritu gaxtuaren] semiak dra.

39. [Etsai] eregin zuena Diabiua da, egita mundiuaren akabantxa da; egitariak {edo egitazaliak} aînguriuak dra.

40. Eta [olabeorra] biltan den gisa eta suan erretan, kola agiten da mundiuaren akabantxan.

41. Gizonaren Semiak bere aînguriuak oilten tu eta bere [erreinutik] eskandaloso guziuak genten dei eta bekatiuaren [eginkari] den oro.

42. Eta suaren labiara egotxen tei; kan izanen da nexar eta hortzez garraxka egitia.

43. Tenpra berian [xuxenek] iguzkiaren gisa [argi]ten dei beren Aitaren [erreinuan]. Entelegatako biarri dionak entelega tzala!

44. [Zeuriko erreinua] alurrian altxatruk dagon tesoro bati ere [urdu]truk da, zoin gizon batek erdeiten badu, berriz estaltan du, eta erden dionaz gogo edo gozoz beterik, faiten da eta dakan guziua saltan du eta alur kura erostan du.

45. [Zeuriko erreinua], gisa berian, merkatari perla fintan tratatan dion bati [urdutruk] da.

46. Eta eskiuetra anitx baliotako bat heltan zaularik, faiten da eta dion guziua saltan du, eta perla erostan du.

47. [Zeuriko erreinua], baitare, errede egorzale bati [urdutruk] da, zoin itxasoan egotzirik, kasta guzutako arrantziuak biltan tu.

48. Zoin beterik egoitian, arrantzariek erkitan dei eta, itxaso basterrian xaseririk, on drenak berexiz faiten dra eta bere zaretan sartan tei, eta kalidade gaxtotakuak egotxtan tei.

49. Kola agiten da [mundu]aren akabantxan, aîngiriuak erkinen dra eta gaxtuak [xuxenen] artetik berexen tei.

50. Eta sutan dagon labiara [egoxten] tei. Kan izanen da nexarra eta hortzen garraska.

51. Entelegatu tzeia onki gaiza kuek oro?

–Bai, Jina –erresponditu zabein.

52. Eta harek [erran] zion:

–Korrengatik eskribaî edo erakuszale oro [erreinuko] gaizetan instruitruk, urdu du familiako aita faiten den bati erkinez bere probisionetik gaiza berriak eta zaharrak edo aspaldikuak, konbeni den gisa.

53. Jesusek parabola edo konparazione kuek [azkentu ztion] baikoz, kantik partitu zen.

54. Eta bere herriara igartian, bere sortuerriko sinagogetan erakustra izari zen; kalako gisan, ez baizein [azkentan] (mires)tiaz, eta erraiten zein alkar: «Nontik xin zau koni kalako [xakitea] eta (mirakullu) kalakuak?

55. Ez dia, naskiro, zurginaren semia? Bere ama ez dia Maria izena diona? Ez dreia bere kosinoak Santiago, Jose, Simon eta Judas?

56. Eta bere kuxanlak ez dreia bizi guziuak gihauren artian? Bada, nontik xinen [zazka] koni gaiza kuek oro?».

57. Eta hartaz eskandalizatruk gisa zauden.

Baia Jesusek erran zabein: «Ez dago profetarik ohôrerik bage, ez bada bere herrian eta bere etsean».

58. [Korrengatik], kemen (mirakullu) txiki egin zion, beren ez xinestiagatik.

HAMALAURGARNEN KAPITULUA

[Juan Batixazaliaren hiltia. Borz ogien (mirakulliua).
Jesus itxasoko ur oladen gainian erabiltan da.
Sontotzeak Genesaret altian.]

1. Tenpra kartan Herodes [Galileako gobernadoreak] Jesusez publikoki erraitan zena entzun zion.

2. Eta bere kortesanuer erran [zabein]: «Kaur Juan [Batixazalia] deitan deina da, hilen artetik erresuzitatu dena! Eta korrengatik [dirdilkatan du haren baitan] kainbat (mirakullu) egiteko birtutiak».

3. Xakitia da Herodesek Juan preso hartu ziola, eta [kate]kin lotruk karzelian sartu ziola, Herodias bere anaxaren emaztiaren[gatik].

4. Zeren Juanekerraiten baizaun: «Ez zaizu [legezko Herodias] emaztetako erokitia».

5. Herodesek onki nahi zion [kura] hilarazi, baia ez zen [usar]tan hiriaren lotsaz, zeren guziuek Juan profetatako baizakein.

6. Baia Herodesen urtebetiaren [xeian], Herodiasen alaba kortesanuen erdian lantzatra erkin zen.

7. Eta Herodesi kainbat gustatu zizaun {edo kain onki urdutu zizaun}, zernahiden gaiza eska likion emonen zaula prometitu baizaun, juramentorekin.

8. Konekin hark, bere [amak antzinetik aitzra emonik], erran zion: «Emon daiztazud kemen, plater batian, Juan [Batixaliaren] buriua».

9. Erregia tristuriaz bete zen. Kalarik ere, juramentuaren eta konbitatiuen atenzionez, emon lezabeila manatu zion.

10. Eta kala Juan[engana] oiltu zion, karzelian [buria moz] lezein.

11. Deus berantu bage haren buriua [plater] batian eragurik izan zen eta nexkaxiari emonik, zoinek bere amari [eratsuki baizaun].

12. Gero bere dizipuluak korpitzaren biltra heltu zren, eta ôrtzi zein, eta Jesusi [berriaren] emoitra fan zren.

13. Jesus, bada, nola entzun baizion Herodesek hartaz erraitan zion kura, kantik leku [bazter] hiriz kanpo batra erretiratu zen. Baia gentek kaur ekustian, beren ziudadetarik erkin zren, oinez lurraz xarrekitan zazkaularik.

14. Eta Jesus barkotik erkitian, kainbat gente ekustian, lastimaz mobitu zen eta beren eriak sontotu ztion.

15. Arrastriaren [azkentzian], bere dizipuluak heltu zizauzkan erraiten:

–Lekiua [bazter] da eta ordiua xa igaririk; bil ditzazu gente koriek hirietra fan ditian, zer xan erostra.

16. Baia Jesusek erran zabein:

–Ez dezei faiteko nestaterik, emon dazauzei xek xatra {edo zer xan}.

17. Zoini hek erresponditu zein:

–Ez diguzu kemen beizik borz ogi eta bi arraî {edo arrantzu}.

18. Hark erran zabein:

–Eragu daztazeid kona.

19. Eta guziuak belarraren gainian xaser litian manatu baikoz, borz ogiak eta bi arraîak hartu ztion, eta begiak zeuriara azkatan ztiolarik, benedikatu eta partitu ztion, eta ogiak dizipuluer emon [zazkabein], eta dizipuluek gentiari.

20. Eta guziuek xan zein eta ase zren {edo aspertu zren}, eta sobratu zenetik hamabi zare biltu z[t]ein puskaz beterik.

21. Xan zeinen doitarzuna borz milla gizonezko izan zen, emazteak eta haurrak kontatu bage.

22. Jesusek gero dizipuluak bertan [barkuara igaitra behartu] ztion eta laguaren berze altian haren [orkitra] faitra, hiriak despeditan ztion bitartio.

23. Eta kuek despeditruk izanik, hura bera mendi batian orazione egitra igan zen. Eta gaitruk izanik, kan bera baratu zen.

24. Bitartio {edo Arte kartan}, barkua itxasoaren erdian zagon, [oladek gogorki xorik, haizia kontrako] ziolakoz.

25. Gaiazko laurgarnen bijilia izaitian, Jesus hengana {edo hen begitarte} xin zen, itxasuaren gainetik erabiliz.

26. Eta dizipuluek itxasuaren gain erabiltan {edo egartan} zela ekustian, [harritu] zren eta erran zein: [Mamuka] bat da. Eta, lotsaz beterik, irago egiten hasi zren.

27. Istantian Jesus mintzatu [zitzabein], erraiten:

–Har zazei animo! Ni naz, etzazei lotsarik ekun!

28. Eta Pedrok erresponditu zion:

–Jeina, zu bazra, mana daztazu fan nein zoregana [uraren] gainetik.

29. Hark erran zaun:

–Xin zte.

Pedro barkotik xaistian, uraren gaiñ erabiltan faiten zen Jesusengana heltako.

30. Baia [haiziaren] indarra ekustian, lotsatu zen; eta bertan [urpeara faiten] hasten zelarik, irago egin zion erraiten:

–Jeina, salba nazazu.

31. [Berberian] Jesusek, eskiua luzatian, besotik hartu zion eta erran zaun:

–Fede txikitako gizona! Zerengatik [turrunpatu] zra?

32. Eta barkuara igan izan zren sarri, [haizia baketu] zen.

33. Baia barnian zaudenak harengana abañatu zren eta adoratu zabein, erraiten:

–Egiazki zu zra Jangeikuaren Semia!

34. Bertan lagua igari zeilarik, Genesareteko lurriara heltu zren.

35. Eta nola kan bizi zrenek izaguntu baizein, bertan abiso oiltu zein herri [kartatik] guzutik, eta eri zauden guziuak eragu zabein.

36. [Mertxedetako], bere beztiduaren atzekua kain solo (onki)tia eskatan zabein. Eta (onkitu) zein orok sontotruk baratu zren.

HAMABORZGARNEN KAPITULUA

[Judiuen ekuteak eta Jangeikuaren nahia.
Zerk zikintan dion gentia.
Jesusek kananearen alaba sontotu. Eri anitx sontotu.
Jesusek bigarnen aldiz gente anitxi xatra emon.]

1. [Tenpra] kontan zomait eskribaî eta fariseok, Jerusalenetik heltu izan baizren, [Jesusi] erran zabein:

2. –Zore dizipuluek [zerengatik haustan tei zaharren ekuteak], xaten deinian {edo bazkaltan deinian} eskiuak ez ekuztian?

3. [Jesusek] erresponditu zabein:

–Eta [zerengatik] xahuriek desobeditan tzei Jangeikuaren mandamentiua, xen [ekuteak] xarrekitiagatik?

4. Bada, Jangeikuak erranik daka: *[Ohora ditzazu] aita eta ama. Eta baitare: Aita edo ama maradika lezana hiltra kondenatruk izan deila.*

5. Baia xek erraiten tzei: Nornahidenek aitari edo amari erran lezan: «Oberta nik ñore partez [eskein] nezana, zore probetxutan izanen da»,

6. Xa ez du obligazionerik bere aita edo ama [ohoratako edo laguntako]. Zoinekin lurretik egotxi tzei Jangeikuaren mandamentiua xahurien [ekuteagatik].

7. [Itxurazaliak]! Isaiasek arrazoînekin profetizatu zion xetaz, erraiten:

8. *Hiri konek ezpainekin [ohoratan] nu, baia bere bihotza eneganik {edo nitarik} urrin dago.*

9. *Aurerki [ohoratan] nei, dotrina eta mandamentu gizonenak erakustan.*

10. Eta hiria harengana deitu ziolarik, erran zabein: «Entzun nazazei eta entelega zazei onki kaur:

11. Ez ahutik sartan dena da gizona zikintan diona; beizik ahutik erkitan dena da zikintan [diona]».

12. Gunian, bere dizipuluak hobro [abaña]tan zrelarik, erran zabein:

–Ez dakiziua fariseuak eskandalizatu drela [zuk erran kontaz entzutian]?

13. Baia Jesusek erresponditu zion:

–[Lantare] ene Aita [zeurikoak lantatu] ez dion oro, [txurrustakatruk] izanen da izorrotik.

14. Eitz ditzazei! Hurak utsi banak dra berze utsi [banak] giatan baitei, eta utsi bat berze utsi bat [giatan hastan] bada, biak ziluara erorten dra.

15. Kemen Pedrok elia hartan ziolarik, erran zaun:

–Esplika dazaguzu parabola kori.

16. Zoini Jesusek errespondatu [zaun]:

–Nola? Baita xek ere izagumentu kain txikirekin zaudei?

17. Etzeia, bada, izaguntan ahuan sartan den guziua kantik tripa barniara igartan dela eta leku sekretuetan egoxtan dela?

18. Baia ahutik erkiten dena bihotzetik erkiten [d]a, eta kori da gizona zikintan diona.

19. Zeren bihotza da nontik erkiten baitra pensamentu gaxtuak, gizonen hiltiak, adulteriuak, [teixutziak], ebasgiuak, [aumenta] falsiuak, (maradikazio)ak.

20. Gaiza kuek bai zikintan baitei gizona; baia eskiuak ekuzi bage xatiak, korrek ez dau zikintan.

21. Jesus kementik partitruk, Tiro eta Sidoneko herri altiara erretiratu zen.

22. Noizta Kananeako emazte bat herri kartarik xinik, mintzo emoiten hasi zen erranez:

–Jeina, Dabiden Seme, ekun zazu [bihozbeillatarzun] nitaz! Ene alaba anitx gaxki dago [diabiuak atsibagetruk].

23. Jesusek ele bakotx bat ez zaun erresponditu, eta bere dizipuluak abañatan zrelarik, [otoi egitan zein] harengatik, erraiten:

–[Emon] dazazu eskatan dena fan dein ber, zeren gore atzian irago eginez xiten baita.

24. Zoini Jesusek erresponditian, erran zion:

–Ni enaz izan oiltruk beizik Israelen etseko ardi galtruk dren[engana].

25. Kalarik ere hura heltu zen eta adoratu [zion] erraiten:

–Jeina, [lagun] nazazu.

26. Zoinek emon zaun errespuesta:

–Ez da [xuxen] semien ogia hartia eta txakurrer egoxtia.

27. Baia hark erran zaun:

–Egia da, Jina; baia txakurxkuek beren nausien mahaitik erortan dren apurretarik berere xaten dei.

28. Gunian Jesusek, erresponditan, [erran zaun]:

–O emaztia, handi tzu zore fedia! Egin deila zuk [nahi] tzun bikala.

Eta ordu berartan bere alaba sontotruk baratu zen.

29. Jesus kantik Galileako itxasuaren erribrara igari zen, eta mendi batra igaitian, kan xaseri zen.

30. Eta harengana gente anitx heltu zren berekin eragutan zeilarik mutu, utsu, maînku, baldatu eta berze anitx doloratruk {edo doloraturik}. Eta bere zankuetra edo oinetra izari ztein eta sontotu ztion.

31. Kalako gisatan, gentiak harritruk baizauden [mutiuak ele erraitan ekustian, maînkiak erabiltan eta utsiak] ekusten. Eta Israeleko Jangeikua [gorazkatan] zein.

32. Baia Jesusek, bere dizipuluak xuntatu ztiolarik, erran zion:

–Hiri kuek (urriki), zeren xa hiror egun baitu [enekin] daudela, eta ez dei xatekorik. Eta ez dutur barurik despeitu nahi, ez dein agi [ahul] tian bidian.

33. Bere dizipuluek erresponditu zabein:

–Nola ahal ekunen digu erden leku [bazter] kontan ogi aski, kaînbat genteri bihar dein guziua xatra emoitako?

34. Jesusek erran zabein:

–Zomat ogi tzei?

–Zazpi –erresponditu zein– zomait arraîxkorekin {edo arrantzuxkorekin}.

35. Gunian gentiari lurrian xaser litian manatu [zaun].

36. Eta hark, zazpi ogiak eta arraîak {edo arrantziuak} hartan ztiolarik, [eskerrak] emonez geroz, edo orazione egin garaian, [zatitu] ztion eta bere dizipuluer emon [zazkabein], eta dizipuluek hiriari errepartitu [zazkabein].

37. Guziuek xan zein, eta aserik {edo aspertruk} baratu zren. [Eta] zati sobratu zrenetatik zazpi zare bete z[t]ein.

38. Xan zeinak laur milla gizon zren, haurrak kontatu bage, ez emaztekiak ere.

39. Korrekin, [hek kan eitzirik], barkan sartu zen eta Magadan[eko] herriara igari zen.

HAMASEIGARNEN KAPITULUA

[Fariseuek eta saduzeuek (mirakulliuak) eskatu.
Kaien orantza. Pedrok Jesus Mesiastako aitortu.
Jesusek bere hiltia eta biztia lehinik antzinetik erran.
Jesus xarrekitia.]

1. Fariseo eta saduzeuak kona xin zren [karekin xuntatra], eta [kura] tentatako, zeuriko zomait (mirakullu) ekustra emon lezabeila eskatu zabein.

2. Baia hark erresponditu zabein:

–Gaia heltuz faiten denian, erraiten tzei aldizka: «Tenpra on eginen du, zeren zeuria argi baitago».

3. Eta goxetik: «Egun [nekatx] {edo [ekaitz]} izanen da, zeren zeuria hodeiztatruk {edo ixikirik} baitago». Karekin badakizei [asmatan] zeuriko señaletaz, eta ez dokezei izagun Mesias xin behar dion tenpra kuetako señale argiak?

4. [Arraza edo belainaldi gaxto eta ustel] konek (mirakullu) bat eskatan du! Baia ez zau emonen eskatan den kori, beizik profeta Jonasen (mirakulliua).

Eta, eiztan ztiolarik, fan zen.

5. Bere dizipuluak laguaren berze altetik xin zrelarik, ogi hartiaz antze zren.

6. Jesusek erran zabein:

–Egon ztei [azolarekin] eta guarda ztei fariseuen eta saduzeuen orantzetik!

7. Baia hurak [pensatan] zein, bapanak bere buriuarekin: «Kaur erraiten du ogirik eragu ez digulakoz».

8. Zoin Jesusek izaguntian, erran zion: «Fede txikitako gizonak, zer erabiltan zrei xahurien baitan [pensatan], ogirik etzeilakoz?

9. Oraino’re izagumenturik bage zaudeia? Ez zreia guartan borz ogi repartitruk izan zrenetaz borz milla gizonen artian, eta zomat zareta puska baratu zitzaizein?

10. Eztare zazpi ogietaz laur milla gizonentako, eta zomat zareta biltu zinein sobratu zenetik?

11. Nola etzei izaguntan ez ogiagatik erran daizeidala: guarda ztei [fariseuen eta saduzeuen orantzetik]?».

12. Gunian entelegatu zein ez ziola erran nahi ekuntu guarda litiala orantz ogian izartan denaz, beizik fariseuen eta saduzeuen dotrinaz.

13. Jesus gero [Filiporen] Zesareako herriara xitian, bere dizipuluer galtegin [zabein]:

–Nor erraiten dei gizonek Gizonaren Semia dela?

14. Hek erresponditu zein:

–Banek Juan [Batixazalia] dela, berze banek Elias dela, berze banek, [azkenik], Jeremias edo profetarik zomait dela.

15. Jesusek [galtegin zabein]:

–Eta xek nor erraiten tzei nazala ni?

16. Simon Pedrok elia hartan ziolarik, erran zion:

–Zu Krist[o] zra edo Mesias, Jangeiko biziaren Semia.

17. Eta Jesusek, erresponditan ziolarik, erran zaun:

–[Egoaltsu] zra Simon, Juanen semia, zeren ezbaidaizu kori haragiak eta odolak [erran], edo gizon zomaitek, beizik {edo ez bada} ene Aita zeurian dagonak.

18. Eta nik erraiten daizud zu Pedro zrela eta harri konen gainian [eginen] duala ene Eliza, eta iburniko [bortak edo indarrak ez drela nausiten] haren kontra.

19. Eta zuri emonen [daitzud zeuriko erreinuko] giltzak, eta zuk lurraren gainian lot zinezan guziua, zeurian ere lotruk izanen tzu: eta lurraren gainian [laxa] zinezan guziua, zeurian ere [laxatruk] izanen tzu.

20. Gunian bere dizipuluer [manatu zabein] ñori're ez lezeila erran hura Jesus zela, Krist[o] edo Mesias.

21. Eta [ber]berian bere dizipuluer [erratra] hasi zen hura Jerusalenera fan zedin konbeni zela, eta kan anitx [sufri lezan [zaharren eta eskribaîen apezburiuen] partez, eta hilik izan ledin eta hirorgarnen egunian [bitz] zedin.

22. Pedro [berezkatruk] hartan ziolarik, (eginahal) kuetarik [altarazi] nahi zaun, erraiten:

–A, Jeina! Ñolaz ere ez dizu kori agitu bihar [zure baitan].

23. Baia Jesusek, harengana utzulirik, erran zaun:

–Gen hakida antzinetik, Satanas! Eskandalizatan bainuk; zeren ez baituk izagumentu eta ez gustorik ere Jangeikuaren gaiza drenetaz, gizonenetaz beizik.

24. Gunian Jesusek bere dizipuluer erran [zabein]: «Norbaitek ene atzian xin nahi badu, uka [tzala bere buriua], eta karga deila bere krutxiareki eta xarreki nazala.

25. Bada, ene kontra [eginez] bere bizia salbatu nahi lezanak galten du; baia ene amorioz bere bizia gal lezanak erdenen du.

26. Zeren, zer zerbutxatan [dau] gizonari mundu guziuaren irabaztia[k], bere arima galtan badu? Edo, zer bueltarekin ahal ekunen du gizonak [salbatu, behin galtuz geroz]?

27. Kala da Gizonaren Semia[k] bere Aitaren gloriaz beztitruk xin bihar diola, bere [aînguriuek laguntruk], gizonen juzgatra; eta gunian bapanari pakiua emonen [dau, bere egintzen tenorian].

28. Egiaz erraiten daizeid kemen zomait daudela ez baitei hil bihar lehin ezik Gizonaren Semia bere [erreinuaren dirditarzunean agertan] ekus tzein».

HAMAZAZPIGARNEN KAPITULUA

[Jesusen itxuraltatia: nekaldi ondokoa antzinetik erran.
Fediaren indarra: diabiudun ero baten sontotia.
Jesusek bere hiltia eta biztia bigarnez antzinetik erran.
Jesus tributua pakatan beraren eta Pedrorengatik.]

1. Sei egunez gero, Jesusek Pedro eta Santiago eta Juan bere anaxa berarekin hartu z[t]ion, eta mendi gora batra berekin solo igaitian,

2. Hen [antzinean itxuraltatu] zen; kalako gisan, bere begitartia iguzkia gisa [argitruk] izari baizen, eta bere beztiduak xuri elurra bikala.

3. Eta tenpra berian Moises eta Elias [agertu] zitzabein, harekin fabrikatan Jerusalenen [sufritu] bihar zionaz.

4. Gunian Pedrok elia hartan ziolarik, erran zaun Jesusi: «Jeina, gaiza ona da kemen egon gitian! Urdu bazaizu, [egin tzagun kemen hiror ola]; bat zuretako, berze bat Moisesentako eta berzia Eliasentako».

5. Oraino Pedro [elestan] zegon, hodei argi bat hen estaltra xin zenean. Eta istante berian hitz batek [sonu egin] zion, zoinek erraiten baizion: «Kaur da ene Seme maitia, [noren baitan] ene (atsegin) guziuak baitud. Hari bihar tzei behatu!».

6. Kalako mintzua [entzutian], dizipuluak begitartez lurrian erori zren, eta ikareria handi batekin baratu zren.

7. Baia Jesus hengana heltu zen, (onkitu) ztion eta erran zabein: «Xagi ztei eta etzazei lotsarik ekun».

8. Eta begiak azkatan, ñor ere ez zein ekusi, beizik solo Jesus {edo Jesus bera}.

9. Eta menditik xaixtian Jesusek [manatua] emon zabein, erraiten: «Etzazei ñori're ekusi tzeina erran, Gizonaren Semia hilen artetik [biztu] den bitartio».

10. Dizipuluek galtegin zabein:

–Nola, bada, erraiten dei eskribaîek lehinik [Eliasek] xin bihar diola?

11. Koni Jesusek erresponditu zabein:

–Egiazki Eliasek lehin xin bihar du ezik ene bigarnen xitia, eta gunian berritan isaren tu gaiza guziuak.

12. Baia nik [erraiten] daizeid Elias xa xin zela, eta ez zabein izaguntu, beizik harekin nahi ekun zein guziua egin zein. Gisa berian hek eginen dei Gizonaren Semiak ere [sufri] tzan.

13. Gunian dizipuluek entelegatu zein Juan [Batixazaliaz] mintzatu zaizkiola.

14. Gentek orkitan zabein lekiuara heltruk, gizon bat heltu zen eta, haren antzinian belauriko izaririk, erran zaun:

15. –Jeina, ekun zazu [dolu] ene semiaz, zeren [ero baita eta anitx sufritan] baitu; bada anitx narotan erortan tzu suara eta aldi anitxez uriara.

16. Eta zore dizipuluer presentatu diez, eta ez dezei poderik ekun sontotako {edo sonto dazein}.

17. Jesusek errespuestatan erran zion:

–[Arraza] xinestako gogor eta [gaizkina]! Noiz bitartio bihar dur xekin bizi izan! Noiz bitartio bihar ekunen [zteid] sufritu! Eragu daztazeid kona...

18. Jesusek [diabiua zeiñatu zion eta morroînenganik] erkin zen, zoin momento kartaz danik sontotruk baratu zen.

19. Gunian dizipuluak [berezkatruk] mintzatu zren Jesus[ekin], eta erran zabein:

–Nolaz edo zerengatik ez digu guk poderik ekun haren egoxtako?

20. Jesusek erresponditu zabein:

–Zeren fede txiki baitzei. Bada, [egiazki] aseguratan daizeid, fede kain handi nola mostazazko [bikorxko] bat ekun bazinezei, mendi korri erran dokezei: «Lekuz [alta] zte kemendik kara», eta lekuz [altaten] da. Eta deus ez zaizei [ezinezkorik] izanen.

21. Ez baita xa [diabiuen] kasta kaur egoxtan, ez bada orazioniaren eta baruraren medioz.

22. Hurak Galilean zauden [bitartio], Jesusek berriz erran zabein: «Gizonaren Semia[k] gizonen eskiuetan [emonik] izan bihar du.

23. Eta hilen dei eta hirorgarnen egunian [bizten] da».

Zoinekin dizipuluak [atsibagetu] zren manera handitan.

24. Kafarnaunera heltu garaian, Pedrori bi adarme[ta]ko tributuaren bilzaliak abañatu zizazkan eta erran zabein:

–Zer, ez dia pakatan xen Maixtruak bi adarmiak?

25. «Bai, [egiaz]ki», erresponditu zion.

Eta [Pedroren] etsen sartu zrelarik, Jesus antzinatu zitzaun erraiten:

–Zer urdu zaizu Simon? Lurreko erregek norengaik kupratan tei kontribuzioniak edo sentzak? Bere semenganik, edo [bertzeren]ganik?

26. Harek erran zion:

–[Bertzeren]ganik.

Jesusek [erresponditu] zion:

–Kola, bada, semiak eskusatruk daudezu.

27. Kalarik ere, ez ditian eskandaliza, fan zte itxasuara eta egotx zazu [amua] eta harrapa zazu lehin arrantzu erkin ledina; eta ahua irikitan tzaularik, laur adarmetako zidarrezko puska bat erdenen tzu. Har zazu eta emon dazazu ni eta zoregatik.

HEMEZORTZIGARNEN KAPITULUA

[Nor da Jangeikuaren erreinuan handiena?
Egoalbageak fedia galbidian izartan deinak.
Artzaîn onaren parabola. Haurride artian:
bekatiua, parkamentiua, orazionia.
Parkatu ez zion zerbutxariaren parabola.]

1. [Tenore] kontan berian dizipuluak Jesusengana abañatu zren eta galtegingu kaur egin zabein:

–Nor[k] izan bihar du handiena [zeuriko erreinuan]?

2. Eta Jesusek, haur bat berarengana deitan ziolarik, hen erdian izari zion.

3. Eta erran zion:

–Egiaz erraiten daizeid: ez bazrei egitan [apalgoan eta hogenbagetarzunean] haurrer [uduri], ez zrei sarten [zeuriko erreinuan].

4. Nornahiden, bada, haur konen gisa [apal] dadien, kori izanen da handiena [zeuriko erreinuan].

5. Eta ene izenian kalako [erran berri] duan gisako haur bat [har] lezanak, ñaur [har]tan nu.

6. Baia [ene baitan] xinetstan dein haurxko kuetarik bat eskandaliza [lezanari], hobe izanen zaun [lepotik tilinka] lezaben errotako harri asto batek erabiltan dion korietarik bat, eta kola [egotxirik] izan ledin itxasuaren honduan.

7. Ai mundiuataz, eskandaluak drela kasoz! Zeren nestatez izanik ere, gizonen [gaiztogo]aren agerrian eskandaluak agi tian; kalarik ere, ai eskandalua emoitan dion gizon kartaz!

8. Zeren zore eskiua edo zore zankua eskandalo emoiteko edo bekatu egiteko [bide] bazaizu, ebaki ditzazu eta egotx ditzazu zu[reganik] urrin; bada, sekulako bizian [eskumotz] edo maîngu sartia hobe daidaizu, ezik ez bi eskurekin edo bi zankorekin sekulako suara egotxirik izan ztian.

9. Eta zore begia zoretako eskandalotako [bide] balimada, erkin zazu eta egox zazu [zureganik] urrin; sekulako bizian begi bakotx batekin sartu hobe zaizu, ezik bi begi ekun zazun eta iburniko suara egotxirik izan ztian.

10. [Beira] zazei etzazeila txikerxko kuetarik zomait [malmeti]. Zeren xakitra emoitan daizeid beren guardazko aînguriuak zeurian daudela beti ekustan ene Aita [zeurikoaren] begitartia.

11. Eta [berze alte], Gizonaren Semia galtu zenaren salbatra xin da.

12. Gizon batek ehin ardi balimadu, eta hetarik bat gal baledi, zer urdu zaizeid eginen diola gunian? Ez dia eitzien laurogeita hemeretzi[u]ak mendietan eta fanen galtu denaren txerka?

13. Eta erdeiten badu, egiaz erraiten daizeid, hark solo (atsegin) handiago emoiten dau, ezik galtu ez zitzaun laurogeita hemeretziuek.

14. Kola, bada, ez da zeurian dagon xen Aitaren borontatia gal dein txikerxko kuetarik bakotxik ere.

15. Zore anaxak zore kontra bekatu egin baleza, edo zomait kulpatan eror baledi, fan zte eta [xuxen] dazazu, harekin lagunguarik bage zaudelarik. Beatan badaizu, zore anaxa irabazi zunion.

16. Zutaz kasorik egin ez baleza, oraino're balia zte bat edo bi personataz, *guziua konfirmatruk izan dein bi edo hiror (lekuko)ren autoritatiarekin.*

17. Eta kasorik ez balezabei egin, erran dazauzu Elizari. Baia Eliza berari ere ez baledi bea, ekun dazazu jentil edo publikano bikala.

18. Ene hitza [emoitan] daizeid, lurriaren gainian lot zinezein guziua kori bera zeurian lotruk izanen dela, eta lurraren gainian [laxa] zinezein guziua kori berbera zeurian [laxa]truk izanen dela.

19. Hobro erraiten daizied, xetarik bi lur gainian alkar {edo beren artian} xunta baliten zerbait eskatako, izan dein izan ledina, ene Aita zeurian [dagonak emonik] izanen zabei.

20. Zeren bi edo hiror ene izenian xuntatruk dauden lekiuan, kan nago ni hen erdian.

21. Aldi kontan, Pedro [abañatan] zitzaularik, erran zaun:

–Jeina, zomat aldiz parkatu bihar ekunen dur ene anaxa, ene kontra bekatu egin lezanian? Zazpi aldi bitartio?

22. Jesusek errespondítu zaun:

–Ez daizud erraiten nik zazpi aldi bitartio, beizik hirorogeita hamar aldiz zazpi bitartio, edo zomat aldiz [gatxitan] daizun.

23. Konengatik [zeuriko erreinua errege bati urdutruk] da, zoinek bere zerbutxari mitiler kontiuak hartu nahi ekun baizion.

24. Eta kontiuen [hartra] hasi zelarik, bat presentatruk izan zitzaun, zoinek hamar milla talento zor baizaun.

25. Eta nola konek ezbaizakan zerekin paka, bere nausiak manatu zion saltruk izan litian hura eta bere emaztia eta bere semiak bere azienda guziuarekin, eta kala paka zedin zorra.

26. Gunian mitil zerbutxaria haren zankuetra egoxtan zelarik, otoi egitan zaun erraiten: «Ekun zazu pazienzia amîntto bat, zeren nik pakaten baidaizud guziua».

27. Nausia zerbutxari kartaz konpasionez mobitruk, libre eitzi [zion] eta oraino'ere zorra parkatu zaun.

28. Baia zerbutxari kaur haren [antzinetik erki zenian], bere lagunetarik bat [topatu] zion, zoinek zidarrezko ehin deuri zor baizaun, eta lepotik harrapatan [ziolarik, itotan zion] erraten zaularik: «Paka daztadak zor daitadayana».

29. Laguna haren zankuetra egoxtan zelarik, otoiez eskatan zaun erranez: «Ekun zak pazienzia amîntto bat enekin, zeren nik guziua pakaten baitadak».

30. Baia harek ez zaun beatu nahi ekun, beizik fan zen eta karzelian sartuarazi zion, zor zauna paka lezaun bitartio.

31. Berze zerbutxari haren lagunek igartan zena ekustian, tristuriaz bete zren ezin hobro eta beren nausiari agitu guziua kontatra fan zren.

32. Gunian bere nausiak deitu zaun eta erran zaun: «O zerbutxari [gaiztua]! Nik zor guziua parkatu deitadak, zeren otoika eskatu baininyon.

33. Ez zena bada [xuxen, yik ere dolu] ekun yezan yore lagunaz, nik yitaz ekun nion bikala?».

34. Eta nausia [akar]truk, berduguen eskiuetan [emon zion, gastigatruk] izan zedin, zor guziua osoki paka lezan bitartio.

35. Kala, gisa kontan portaten da ene Aita [zeurikoa] xekin, bapanak parka ez baleza bihotzez bere anaxa.

HEMERETZUGARNEN KAPITULUA

[Bordalgua eta diborziua.

Bordalgua eta bordalbagetarzuna.

Jesus eta haurrak. Jesusek gazte abratsari dei.

Abrastarzuna salbatako neke.

Gaiza guziuak euztan teinen premiuaz.]

1. Jesusek [elesta] kuek [azken]tu ztiolarik, Galileatik erkin zen, eta Judeako lur Jordanaren berze altian daudenetra xin zen.

2. Nora gente[-saldo] handi bat xarrekitu zi[t]zaun, eta kan beren eriak sontotu ztion.

3. Eta fariseuak harengana heltu zren tentaraztako, eta erran zabein:

–[Legezko zaua] gizon bati bere emaztia despeditia, zernahiden motiboz?

4. Jesusek errespuestatan erran zabein:

–Etzeia leitu [hastean gizakigentea sortu] zion karek, *gizon [bakotx bat sortu] ziola eta emazte bakotx bat*, eta erran [zabeila]:

5. *Korrengatik gizonak bere aita eta bere ama eitzen [tu], eta bere emaztiarekin xuntaten da, eta bi haragi bakotx batian izanen dra?*

6. Kola, bada, xa ez dra bi, beizik haragi bakotx bat. Jangeikuak, bada, xuntatu diona etzala berex gizonak.

7. Hek [erran] zein:

–Baia zerengatik manatu zion Moisesek *[berextiaren] libroxkua emoitia eta emaztiaren despeditia?*

8. Jesusek erran zabein:

–Xen bihotzaren gogortarzunaren kausaz [eitzi] zaizein Moisesek xahurien emaztiak [berextia, baia hasteadanik] ez zen kola izan.

9. Kola, bada, [erraiten] daizeid: nornahidenek bere emaztia [oil lezan, adulteriuagatik] ez izaitian, eta oraino kaso kontan bordal baledi berze emazte batekin, kolakuak adulterio [egitan] du; eta diborziatiuarekin bordal ledina ere, adulteriotan erortan da.

10. Bere dizipuluek [erran zabein]:

–Kola bada gizonaren kondizionia bere emaztiaren kasoz, ez du [merexitan] bordaltia.

11. Jesusek errespondítu zabein:

–Ez dra guziuak kapaz [erabaki] kontako, beizik kurak zoiner goraki [emon] baizabei.

12. Zeren eunuko banak baitaude, beren amen [erraietatik] kala sortu baizren; eta eunuko daude gizone[k] osatruk izan baizren; eta eunuko berak zomait gisatan osatu baizren, [zeuriko erreinuaren] amorioz, kastidadeko botoarekin. Kontako kapaz izan deitekena izan deila.

13. Sazoin kontan haur banak [eragu zazkabein] eskiuak beren gainian isar lezan eta orazione egin lezan. Baia dizipuluek, ustez [molestatan zeila, akar egiten zabein].

14. Jesusek, [aitzitik], erran zabein: «Eitz ditzazie haurrak bakian, eta ez ditzazei [gaitxi] enegana xitian, zeren hen gisa drenentako baita [zeuriko erreinua]».

15. Eta eskiuak beren gainian izari ztiolarik, edo [benedikatzia] egotxi zabeilarik, kantik [fan] zen.

16. Gunian gizon gazte bat abañatu zitzaun, zoinek erran baizaun:

–Maistro ona, zer obra on bihar dur egin sekulako bizia [eskurateko]?

17. Zoinek erresponditu zaun:

–Zerengatik deitan nuzu «ona»? Jangeikua solo tzu ona. Berze gainaran, sekulako bizian sartu nahi batzu, [beira] tzazu {edo [beira] ditzazu} mandamentiuak.

18. Hark erran zaun:

–Zoin mandamentu?

Jesusek erresponditu zion:

–*Ñor [ere] etzu hilen. Adulteriorik etzu eginen. Etzu ebatsen. [Aitorgo] falsurik etzu azkaten.*

19. *[Ohora ditzazu] zore aita eta zore ama, eta maite ekun zazu zore [lagun hullankua] zihaur bikala.*

20. Gaztiak [erran zaun]:

–Korik guziuak [beatu] tur ñore gaztezutudanik. Zer hobro falta zaitad?

21. Jesusek erresponditu zaun:

–Perfekto izan nahi batzu, fan zte eta sal zazu tziuan guziua eta emon dazauzei [bihardun]er, eta zeurian tesoro bat ekunen tzu; xin zte gero eta xarreki naztazud.

22. Gaztiak ele kuek entzun ztiolarik, tristuriaz beterik erretiratu zen, eta [kori] zen [abrastarzun] anitx ziolakoz.

23. Jesusek gunian bere dizipuluer erran [zabein]:

–Egiaz erraiten daizeid nekez sarten dela abrats bat [zeuriko erreinuan].

24. Eta oraino're hobro erraten daizeid: aisago da kamello bat orratz baten begitik igartia, ezik abrats bat sar dein [zeuriko erreinuan].

25. Proposizione kuek entzun geroz, dizipuluak anixko [harri]truk zauden, alkar erraiten:

–Nor salba deiteke, [bada]?

26. Jesusek bellaki beiratan ztiolarik, erran zabein:

–Gizonentako kaur [ezinezko] da, baia Jangeikuarentako gaiza guziuak dra posible.

27. Gunian Pedrok elia hartan ziolarik, erran zaun:

–Onki ekustan tzu guk gaiza guziuak eitzi tugula eta xarrekitu daizugula. Zoin izanen da, bada, gore pakiua?

28. Jesusek erresponditu zaun:

–Egiaz erraiten daizeid: xek xarrekitu zaizteidanak, [bizte] unibersalaren egunian, Gizonaren Semia bere Majestadiaren soliuan xaseren denian, xek ere xaseren zrei hamabi [katredaren] gainian, eta Israeleko hamabi tribuak juzgaten ditzei.

29. Eta nornahiden ene [izenarengatik] etsia eitzi ahal dionak, edo anaxak, edo arrebak, edo aita, edo emaztia, edo semiak edo [alorrak], ehin aldiz hobro [harten] du ontarzun hobrotako drenetan; eta gero sekulako bizia ekunen du.

30. Eta mundu kontan anitx lehinak zrenak, azkenak izanen dra; eta anitx azkenak zrenak, lehinak izanen dra.

HOGEIGARNEN KAPITULUA

[Ardauntzuko lan eginzalien parabola. Jesusek bere iltia eta biztia hirorgarnez antzinetik erran. Zebedeoren semien handinahia. Jesusek bi utsi sontotu Jerikon.]

1. Zeren [zeuriko erreinua] familiako aita bati urdu baita, zoin [arginabarrian langile] txerka erkin baizen bere ardauntzuko.

2. Eta hekin, egun bapanaren, zidarrezko deuri batian ajustatan zelarik, bere ardauntziara oiltu ztion.

3. Gero bedratziuen ordiuari abantxu erkitian, berze [banak topatu ztion], zoin eskiuak krutxatruk baizauden plaztan.

4. Eta erran zabein: «Fan ztei xek ere ene ardauntziara, eta [xuxen] izanen dena emonen daizeid».

5. Eta hurak fan zren.

Berze bi aldiz erkin zen eguerdiko eta arrastriko hiruretako ordu ketan, eta gisa berian egin zion.

6. Azkenik arrastri[ko] azken ordiuari abantxu erkin zen eta berze banak ekusi ztion, oraino deus egin bage baizauden, eta erran zabein: «Nola zaudei kemen aurer egun guziuan?».

7. Erresponditu zabein: «Ñork ere ez baigutu [hartu]». Erran zabein: «Fan ztei, bada, xek ere ene ardauntziuara».

8. Iguzkia sartruk, ardauntziuaren nausiak bere [zerbutxariari erran zaun]: «Dei tzazu [langili]ak eta paka dazauzei [saria, azkenekin hastan zrelarik eta lehinekin azkentan]».

9. Xin baikoz, bada, arrastriko azken ordiuari abantxu fan zrenak, bapanak zidarrezko deuri bat [hartu] zein.

10. Azkenik lehinak heltu zrenian, hobro emonen zitzaibeila urdutu zabein. Baia, kalarik ere, kuek gisa berian [hartu] zein, bapanak bere deuria.

11. Eta [har]tian, [ahomixtatan] zein familiako aitaren kontra:

12. «Azken kuek ez dei [lan egin] ez beizik oren bat, eta gorekin [berdintu] dutuk, egunaren eta beruaren pekiua [erman] baitigu».

13. Baia hark errespuestatan erran [zaun] hetarik bati: «Adexkidia, ez daizud nik [xuxenbagekeria]rik egiten. Ez zintzena ajustatu enekin deuri batian?

14. Har zazu, bada, zoria dena eta fan zte; nik nahi diez koni eman, azkena izanik ere, kainbat nola zuri.

15. Ez dokeda ote nik egin ñoriataz nahi duana? Edo zore begia[k] gaixto edo [bekaizti] izan bihar du, ni on nazalakoz?».

16. Gisa kontan, mundu kontan azken drenak [zeuriko erreinuan] lehinak izanen dra, eta lehinak azkenak. Anitx dra, bada, deitiuak; txiki baia [hautatiuak].

17. Jesus Jerusalenerako bidian isartan zelarik, bere hamabi dizipuluak aparte hartu ztion eta erran zabein:

18. «Ekus zazei Jerusalenera faten grela, zointan Gizonaren Semia [apezburiuer eta eskribaîer emanik] izanen baita, eta hiltra kondenaten [dei].

19. Eta jentiler [emanen dabei gaizkibelatruk eta zehatruk] eta kruzifikatruk izan dein; baia hura hirorgarnen egunian [bizten] da, bere glorian sartako».

20. Gunian Zebedeoren semen ama bere bi semiekin [abañatu zan, eta adoratu zion] zomait grazia eskatu nahi [zaula] entelegrata emoiten.

21. Jesusek erran zaun:

–Zer nahi tzu?

Eta harek erresponditu zaun:

–[Mana] zazu ene bi seme kuek beren xaser-lekiua {edo xaseririk egoitia} ekun tzein zore [erreinuan, batak zore eskoînara eta berziak] zore ezkerriara.

22. Jesusek errespuestatako eman zaun:

–Ez dakizei zer eskatan [ari] zrein. Edan dokezeia [samin]aren kaliza nik edan bihar duana?

–[Bai,] onki dokegu –[erran zabein].

23. [Jesusek] erresponditu zabein:

–Ene kaliza bai edanen tzei, baia ene eskoînara edo ezkerriara ez zaita tokatan [emoitia] xer, beizik ene Aitak [drezatu] dion kentako izanen baita.

24. Berze hamar apostoloek kaur entzutian {edo entelegatian}, bi anaxen kontra [akartu] zren.

25. Baia Jesusek berarengana deitu ztion eta erran zabein: «[Badakizei] nazionetako prinzipek beren hiriak [manukortan] teila, eta beren handienek [manatan teila ketan usardiarekin].

26. Xen artian ez da kola izan bihar, beizik xen artian handiena izaitia [nahi ekun] lezanak xen zerbutxaria izan bihar du.

27. Eta xen artian lehina izan nahi dionak, xen esklabua izan bihar du.

28. Kala nola Gizonaren Semia ez baita zerbutxatruk izaitra xin, zerbutxatra beizik, eta bere biziaren emoitra anitxen [erre]denzioniarentako».

29. Jerikotik [erkitian, gente-saldo] handi bat xarrekituz fan zitzaun.

30. Eta nonta bi utsi bidiaren altakan xaseririk baizauden, Jesus igartan zela erraiten entzutian, iragoka hasi zren, erraiten:

–Jeina, Dabiden Semia, [dolu] ekun zazu gutaz!

31. Baia gentek ankar egiten zabein ixilik egon litian. Hek, kalarik ere, iragua hobro azkantan zein, erraiten:

–Jeina, Dabiden Semia! [Dolu] zte gutaz.

32. Kontan Jesus baratu zen eta, deitan ztiolarik, [erran] zabein:

–Zer nahi tzei egin dazaizei[da]n?

33. Hek erresponditu zabein:

–Jeina, irikirik izan tian gore begiak.

34. Jesus konpasionez mobitruk, beren begiak (onkitu) ztion, eta istante berian ekusi zein. Eta haren atzian fan zren.

HOGEITA BATGARNEN KAPITULUA

[Jesus Jerusalenen Mesiastaz hartruk sartu.
Tenplua hiri guziuentako otoi etse.
Figoarbolearen maradikatzia: fedia eta otoi egitia.
Nontik Jesusen potestadia? Bi semien parabola.
Labrari hilzalen parabola.]

1. Jerusalenera abañatan zrelarik, Betfageren agerriara heltu zren baikoz, olibuen mendi honduara, Jesusek bi dizipulo oiltu ztion.

2. Erraiten zabeilarik:

–Ortzei [hirixko] xahurien aurkian agiri den kortra, eta [berberean] astaña bat lotruk erdenen tzei eta bere asto umia harekin. [Laxa] ditzazei eta eragu daztazeid.

3. Eta norbaitek zerbait erran balaizei, errespondi zazei Jeinak bihar ditiola, eta berian eramaitra eitzen daizei.

4. Kaur guziua agitu zen profetak erran zionaren kunplimentutan:

5. *Erran zazei Sionen alabari: [Beira] zazu zore Erregia [apalgoz] beterik xiten dela zoregana, astaña baten gainian xaseririk, eta bere astumiarenian, uztarriara emonik dagonaren seme.*

6. Dizipuluak fan garaian, Jesusek manatu zabeina egin zein.

7. Eta astaña eta astumia eraugi zein, eta beren beztiduekin [xuntatu] ztein, eta gainian xaserarazi zein.

8. Eta gente[-saldo] handi batek bere beztiduak {edo trastiak} hedatan ztein bidian, berze banek arboletarik erramu edo hosto ebakitan zein eta leku igari bihar zionetik isartan ztein.

9. Eta antzinetik faitan zren kainbat gentek nola atzintik xitan zrenek, [irago egitan] zein erranez:

Hosana, osagarri eta gloria Deabiden Semeari! Benedikatruk izan deila Jeinaren izenian xiten dena. Hosana zeuri[ko] goraguan!

10. Jerusalenen kola sartu zen baikoz, ziudade guziua [ikaratu] zen, anitxek erraiten zeilarik:

–Nor da kaur?

11. Zoini gentek erresponditu zein:

–Kaur Jesus da, profeta Nazaretekua.

12. Jesus Jangeikuaren tenpluan sartu zelarik, kantik kanpo egotxi ztion kan saltan zein eta erostan zein guziu[ak], eta bankeruen edo xêazalen mahaiak egotxi ztion, eta sakrifiziuetako urxoak saltan zeinen [katredak].

13. Eta erran zabein: «Eskribitruk dago: *Ene etsia 'orazionezko etsia' deitruk izanen da*, baia xek [ebaszalien harpe] bat eginik dakazei».

14. Tenpra berian, tenpluan harengana anitx utsi eta maînku heltu zren, eta sontotu ztion.

15. Baia [apezburiuek] eta erakuszalek egitan ztion (mirakulliuak) ekustian, eta haur tenpluan [irago egitan] zabeinak erraiten «Hosana Dabiden Semiari!», [akartu] zren.

16. Eta erran zabein:

–Entzutan tzia zuk zer erraiten dein kuek?

Jesusek erresponditu zabein:

–Bai, [egiaz]ki. Bada, etzeia sekula're leitu profezia: *[Ume] eta titiko haurren ahutik nontik erkin baizunien alabanza [xuxenena]*?

17. Eta eiztan ztiolarik, ziudadetik kanpo erkin zen Betaniara, eta kan baratu zen.

18. Biramen goxan, ziudadiara [utzultan] zelarik, gose ekun zion.

19. Eta figoarbole bat bidiari xunto, harengana abañatu zen, [baia kartan] ez erdeitian ez beizik hosto solo, erran zaun: «Ñoiz ez deila frutu sor yi[ganik]!».

Eta figoarbolia bertan exartruk baratu zen.

20. Dizipuluek [kura ekustian, harritruk] baratu zren, eta erraiten zein:

–Nola exartu da istante batian?

21. Eta Jesusek erresponditan erran zabein:

–Egiaz erraiten daizeid, federik balima tzei eta ez bazrei [ezbaian] erabiltan, ez solo eginen tzeila figoarbolian ekustan tzein kori, baitare mendi korri erran zazeinian ere: «[Txurrustaka] zte eta egotx zte itxasuara», kala eginen diola.

22. Orazionian eska zinezein guziua, fede ekun zazein ber [eskuraten] tzei.

23. Tenpluara heltuz gero, xa erakustan zagolarik, [apezburiuak] eta hiriko zaharrak edo senadorak harengana abañatu zren, eta galtegin zabein:

–Zer autoridaderekin egiten dutzu gaiza kuek? Eta nork emon daizu kalako potestadia?

24. Jesusek erresponditu zabein:

–Nik ere [galtegingu] bat nahi daizeid egin, eta hari erresponditan badaitazeid, bertan erranen daizeid zer autoridaderekin egiten tuan gaiza kuek.

25. Juanen batixua nontik zen, zeuritik edo gizon[enganik]?

Hek beren baitako [pensatan] zein, erraiten: «'Zeuritik' erresponditan badigu, erranen daikugu: Zeren, bada, etzei [harengan] xinetsi?

26. [Baia] 'gizonenganik' zela erresponditan badigu, hiriari lotsa ekun bihar digu. Zeren guziuek miratan baizein Juan profeta bat bikala».

27. Korrengatik Jesusi erresponditu [zabein] erraiten:

–Ez dakigu.

Hark bertan [erran] ziabezun:

–Bada, nik ere ez daizeid xer erranen zer autoridaderekin egiten tuan gaiza kuek.

28. Eta zer urdutan zaizei erraitra nuanaz? Gizon batek bi seme ztion, eta lehina deitan ziolarik, erran zaun: «Semia, fan hadi egun ene ardauntziuan lan egitra».

29. Hark erresponditu [zaun]: «Ez dur nahi». Baia gero [damu]truk fan zen.

30. Bigarna deitan ziolarik, gaiza bera erran zaun. Eta hark «Faiten naz, jeina» erresponditu ziolarik ere, ez zen fan.

31. Bietarik zoin[ek] egin zion aitaren borontatia?

Hek erran zein:

–Lehinak.

Eta Jesus segitu zen:

–Egiaz erraiten daizied publikanuak eta emazte galtiuak xen antzinetik fanen drela eta Jangeikuaren [erreinuan] sarten drela.

32. Zeren Juan xengana justiziazko bidetarik xin baizen, eta ez zinabein xinetsi, publikanuek eta [emazte galtiuek] xinetsi zabein tenpra berian. Baia xek, kaur ekustian ere, ez zintzein mobitu gero penitenzia egitra, [harengan] xinetsteko.

33. Entzun zazei berze parabola bat: Familiako aita bat zen, zoinek arduntze bat [lantatu] baizion, eta unguriuan zerratu eta, atxurtuz, hartan lago bat egin zion, eta torre bat [egin] zion. Gero labrari zomaiti arrendatu zion eta herri urrin batra [fan] zen.

34. Frutiuen sazoîna heltu baikoz, zerbutxariak arrendazaliengana oiltu ztion haren frutiua [kobra] lezein.

35. Baia arrendazali[a]k {edo arrendatari[a]k} zerbutxarien kontra [hastan] zrelarik, bata makilastatu zein, berzia hil zein, eta berzia harrikaldikatu zein.

36. Bigarnen [aldian] zerbutxari berri oiltu zion, numero handiagotan ezik lehinagokuak, eta gisa berian tratatu ztein.

37. Azkenik bere semia oiltu zabein, bere baitan erraiten:

«Ene semia berere errespetaten dei».

38. Baia arrendatariek semia ikustian, beren baitan erran zein: «Kaur herederua da! Xin ztei, hil dazagun eta [egin giten ardauntziuaren xabe]».

39. Eta harrapatan zeilarik, ardauntzutik kanpo egotxi zein eta hil zabein.

40. Orai, bada, ardauntziuaren nausia utzultian, zer eginen [dabei] labrari ker?

41. Hek erran zein:

–Eginen du gente kain gaixto kaur [gaiz]ki akaba deila, eta bere ardauntziua berze labrari baner arrendaten [dabei], frutiuak bere tenpretan paka dazabein.

42. Jesusek [erran] zabein:

–Etzeia, bada, Eskrituretan ñoiz ere leitu:

Harri [etse-egínkariek] errebusatu zeina, kori bera [izan] zen anguluaren giltza. Jeina da kaur giha[u]ren egunetan egin diona, eta gaiza (miresgarria) da gore [begietan]!?

43. Zoinengatik erraiten daizeid, xer gentruk izanen zaizeila Jangeikuaren erreinua, eta obra hontako frutiuak emoiten dein genter emonik.

44. Kala da nola harri konen gainian eror ledina zatikat[r]uk izanen baita, eta harri berak porrokaten du [kura], zoinen gainian eror ledin juizioko egunian.

45. Jesusen parabola kuek entzunik, [apezburiuek] eta fariseuek hengatik mintzatan zela entelegatu zein.

46. Eta preso egin nahi zielarik, hiriari lotsa ekun [zabein], zeren profeta bat bikala ekusirik baizen.

HOGEITA BIGARNEN KAPITULUA

[Ezteien parabola.
Zesarari Zesararna eta Jangeikuari Jangeikuarna.
Hilen biztiaren gainian. Manurik nausiena.
Kristo Dabiden Semia eta Jeina.].

1. Bitartio Jesusek, platikatan segitan zelarik, berriz parabolatan mintzatu zabein, erraiten:

2. –[Zeuriko erreinuan] agitan da errege bere semiaren ezteiak zelebratu z[t]ion bati agitu zauna.

3. Eta bere zerbutxariak konbidatiuen ezteietra deitra oiltu ztion, baia kuek ez zein nahi ekuntu xin.

4. Bigarnen aldiz zerbutxari berri oiltu zion, haren partez konbidatiuer erraiteko [manu]rekin: «Bazkaria [drezatruk] dakad. Ene xanlak eta berze animale gizentiuak hilarazi dutur, eta guziua [drezatruk] dago. Xin ztei, bara, ezteietra».

5. Baia hek ez zein kasorik egin. Lehinaz bai, nor bere bordara fan zren eta nor bere [egun]orozko negozioara.

6. Berze gainarakuek mitilak {edo zerbutxariak} harrapatu ztein eta [ahalkeriaz] betez gero hil ztein.

7. Zoin erregia[k] entzunik izan baikoz, [akartu] zen eta bere tropak oiltian, gente hilzale [kura hil] zion, eta beren ziudadia [erre] zion.

8. Gunian bere zerbutxarier erran [zabein: «Ezteietako drezatziak] eginik daude, baia konbidatiuak ez zren dino hetra [fan] litian.

9. Fan ztei, bada, bidien erkingiuetra, eta erdeiten tzein guziuak konbida ditzazei ezteietra».

10. Istantian zerbutxariek, bidetra erkitan zrelarik, erden ztein guziuak biltu z[t]ein, onak eta gaixtuak; kalako maneran, ezteietako sala bete baizen [mahaian] izari zrenen gentez.

11. Gero errege konbidatiuen ekustra sartian, erreparatu zion gizon bat ez zela faiten eztei[etako] beztidorekin.

12. Eta erran zaun: «Adexkidia, nola sartu zra zu kemen [ezteietako] beztidorik bage?». Baia hura mututu zen.

13. Gunian erregek bere [mahai-zerbutxarier erran zabein]: «Zankuetarik eta eskiuetarik lotruk egotx zazei kanpo ulungiuetra, non ez baita izanen beizik marraka eta hortzen garraska».

14. [Zeren deitiuak anitx baidra eta txiki hautatiuak].

15. Gunian fariseuak beren artian tratatra erretiratu zren, nola [ustebagean harrapa zokin Jesus] mintzo zomaitan.

16. Eta kontako beren dizipuluak oiltu zabein zomait herodianorekin, zeinek erran baizabein:

–Maixtrua, badakizugu egi-errailia zrela eta Jangeikuaren bidia edo legia erakutstan tziuala egi xahîari konforme, ñori're [errespetorik] bage, zeren ezbaitzu beira egitan personen kalidadiari.

17. [Kaur xakinik], erran daizguzu zer urdu zaizun kontaz: [Legezko] dia Zesarari tributua pakatia, edo ez?

18. Zoini Jesusek, beren [gaiztogua] izaguntan, erresponditu [zaun]:

–Zerengatik tentatan naizei, gizon [itxurazaliak]?

19. Erakus daztazeid deuria, zointaz tributiua pakatan den.

Eta hek deuri bat [erakutsi] zabein.

20. Eta Jesusek erran zabein:

–Norna da imajen kaur edo letrero kaur?

21. Errespondi[tu zabein]:

–Zesararna.

Gunian [erran] zabein:

–Emon zazei, bada, Zesarari Zesararna dena, eta Jangeikuari Jangeikuarna dena.

22. Kalako errespuestarekin [harritruk] baratu zren eta, [Jesus] eitztan zeilarik, fan zren.

23. Egun kartan berian, saduzeuak xin zren –[zoinek] erresurrekzionia ukatan deinak baidra– [eta hari kaur galtegin zabein]:

24. –Maixtrua, Moisesek [manatu] zion: *Norbait semerik bage hiltan bada, anaxa bordal deila bere emaztiarekin, bere anaxari [ondokoak] emon tzan.*

25. Kasua da gore artian zazpi anaxe zrela. Lehina bordaltruk, hil zen. Eta [umerik] ez ekutian, bere emaztia bere anaxari eitzi zion.

26. Gaiza bera agitu zitzaun bigarnari eta hirorgarnari, zazpigarniara [bitartio]

27. Eta hurak guziuak hilez geroz, emaztia hil zen.

28. Orai, bada, [biztia] hel dein baikoz, zazpietarik zoinena izan bihar du emazte, guziuena izan baizen?

29. Jesusek erresponditu zabein:

–Huts handirekin zabiltzei, etzeilakoz Eskriturak entelegatan, ez Jangeikuaren podera ere.

30. Zeren [biztiaz] geroz, gizonek ez baitei emazterik harten, eztare emaztek senarrik harten, beizik Jangeikuaren aînguriuen bikala izanen baitra zeurian.

31. Baia hilen [biztiaren] gainian, etzeia leitu Jangeikuak erranik dazkazein eliak?

32. *Ni Abrahamen Jangeikua naz, Isaaken Jangeikua eta Jakoben Jaingeikua.* Orai, bada, Jangeikua ez da hilen Jangeikua, biziena beizik.

33. Zoin hiriak entzunez geroz, haren doktrinaz harritruk zegon.

34. Baia [fariseuak, Jesusek] saduzeuer ahua [estali zabeila xakitian], xuntatu zren.

35. Eta hetarik batek, legiaren [erakutszaleak], tentatiagatik galtegin zaun:

36. –Miaxtrua, zoin da legiaren [manurik nausiena]?

37. Jesusek erresponditu zaun:

–*Maitaten tzu zore Jangeiko Jeina zihauren bihotz guziuaz eta zihauren arima guziuaz* eta zihauren entelegu guziuaz.

38. Kaur da [manu] handiena eta lehina.

39. Bigarna koni urdu da, eta [kaur] da: *Maite ekun zazu zihauren [lagun hullankua] zihauren buriua bikala*.

40. Bi [manamentu kuetan biltruk] dago lege guziua, eta profetak.

41. Fariseuak kemen xunto zaudelarik, Jesusek [galtegingu] kaur egin zabein:

42. –Zer urdutan zaizei xer Kristoz edo Mesiasez? Noren Seme da?

[Erran zabein]:

–Dabidena.

43. [Gunian Jesusek erran] zabein:

–Nola, bada, Dabidek profeziazko espiritiuan deitan dau bere «Jeina», erraiten dionian:

44. *Jeinak ene Jeinari erran [zaun]: Xaser zte ene eskoînara, nik zore [etsaiak zore zankuen peko] izartan dituan artian*.

45. Bada, Dabidek bere Jeina deitan ba[dio], nola izan deiteke Semia?

46. Zoini ñork ere ez zabein errespondítu ahal ekuntu ele bat ere, [eta] egun kartarik landa ez zen xa izan nor [usar lekion galtegingu] hobro egitra.

HOGEITA HIRORGARNEN KAPITULUA

Jesusek legiaren erakuszaliak eta fariseuak [gaitzetsi].

Jesus Jerusalenen desegingiuaz mintzatan.

1. Gunian Jesusek bere elia {edo mintzua} hiriari eta bere dizipuluer [xuxenduz], erran zabein:

2. –Eskribaîak edo legiaren erakuszaliak eta fariseuak Moisesen katedran {edo xaserlekiuan} xaseririk daude.

3. Egin zazei, bada, erran lezaizein guziua; baia ez zazei neur xen bizimoldia henarnaz, zeren hek egin bihar dena erraiten baitei eta ez dei egiten.

4. Agitan dena da, biltan {edo mokorkatan} faiten drela karga (pizu)ak eta [erman] ez deiztekenak, eta beren soinetan izartan tei, berek [abañatu ere] nahi ez deinian eri punta mobiaraztako.

5. Beren [egintza] guziuak [gizonek] ekusirik izan tian egitan tei; beragatik eramaiten tei legiaren eliak estanpa zabalaguetan, eta luziago beren beztiduen atzekuak.

6. Konbitetan lehin xaserlekiuak ere maitatan tei, eta lehin [katredak] sinagogetan.

7. Eta plaztan salutatruk izaitia [maitatan tei], eta gizonek emon dazabein «Maistro edo Dotore» tratamentiua.

8. Xek, [aitzitik], etzei nahi ekun bihar «Maistrotako» tratatruk izan; zerengatik bat solo baita xen maistrua, eta xek guziuak zrei anaxe.

9. Eztare etzei ñor [ere] lurraren gainian xen «aita» dei[tu] bihar; bada, bat solo da xen egiazko Aita, zeurian dagona.

10. Eta etzei zer [burgoikeriaz nahi ekuntu «giazale»] deitruk izaitia, zeren Kristo baita xen [giazale] bakotxa.

11. Azkenik, xen artian handienak xentako zerbutxari izan bihar du.

12. Zeren [gorazka] ledina umildiatruk izanen da, eta umildi ledina [gorazka]truk izanen da.

13. Baia, a xetaz, eskribaî eta fariseo [itxurazaliak], gizoner [zeuriko erreinua] zerratan baitzei! Zeren ez xek ez zrei sartan, eztare etzei sartra eiztan sar ahal zaiztekener, ez dauzeilarik ni[re baitan] xinets tzein eiztan.

14. Ai xetaz, eskribaî eta fariseo [itxurazaliak, alargunen etsiak irestan] baitzei, orazione luze egiteko [atxekuriuarekin]. Korrengati anitx hobro [gogorrago den erabagia harten] tzei.

15. Ai xetaz, eskribaî eta fariseo [itxurazalekeriaz] betiak! Zeren itxasoz eta lurrez erabiltan baizrei konberti tzazein ber jentil bat, eta xahurien ejenplo eta dotrinarekin konbertituz geroz, iburniaz dino egiten dauzie xen baino hobro!

16. Ai xetaz, giazale utsiak, erraiten tzeinak: «Batek tenpluaz juramentu egitia deus ez da, ez du [araz]tan; baia tenpluko urriaz juramentu egiten diona [araztruk] dago».

17. Talentu bage eta utsiak! Zoinek balio du hobro, urriak, edo tenpluak urria santifikatan dionak?

18. Eta [erraitan tzei]: «Norbaitek altariaz juramentu egiten badu, ez du [baliorik]; baia oberta haren gainian isariaz juramentu egin lezana zordun egiten da».

19. Utsiak! Zerek balio du hobro, obertak ala altariak, [kura] baita oberta santifikatan diona?

20. Nornahidenek, bada, altariaz jurament[u] egin tzan, berartaz juramentu egiten du, eta haren gainian gaiza isartan dren guziuetaz.

21. Eta tenpluataz juramentu egiten dionak berartaz juramentu egiten du eta Jein hartan egoitia dion kartaz.

22. Eta zeuriaz {edo zeuriataz} juramentu egiten dionak Jangeikuaren tronuaz juramentu egiten du, eta hartan xaseririk dagon kartaz.

23. Ai xetaz, eskribaî eta fariseo [itxurazaliak]! Dekumak parkatan tzeinak haiketa belar onarnak eta sonto-belararnak, eta kominuarnak, eta legiaren gaiza [hoberenak eitzi] ditzei: justizia, [konpasionia] eta fede ona. Kuek [egin] bihar zinein, kurak eitzi bage {edo eitzi bagetarik}!.

24. [Giazale] utsiak! Edaten tzein guziua iraztan baitzei zomait muxkito badagonez ote, eta kamello bat [irestan] tzei.

25. Ai xetaz, legiaren erakuszale ta fariseo [itxurazaliak]! Basua eta platera kanp[o]ko altetik xahîtan tzeinak, eta barneko altetik, bihotzian, [ebasgoz] eta zikinguz beterik zaudei!

26. Fariseo utsia! Xahî ditzazu lehin barnetik basua eta platera, kanpokua xahî izan dein nahi batzu.

27. Ai xetaz, eskribaî eta fariseo [itxurazaliak]! Zeren [hilobi xuritruk daudener urdu] baizrei, zoinek kanpoko altetik gizoner pollit urdu baitei, baia barnekotik hil drenen hezurrez eta [ustelkeria] guzuz beterik daude.

28. Gisa berian, xek ere gizoner kanpotik [xuxen zreila erakustan dauzei], baia barnetik [itxurazalekeriaz eta gaxtotarzunez] beterik zaudei.

29. Ai xetaz, eskribaî eta fariseo [itxurazaliak]! Profeten [hilobiak egitan baitzei, eta xuxenen molumentiuak apaintan].

30. Eta erraiten baitzei: «Gihauren aita [eta amen] tenpran bizi izan bagintz, ez gintzan beren gaxtakidiak izanen profeten hilguiuan».

31. Zoinekin xahur berien kontra [aitorgo] emoitan tzei, profeten hilzaleen seme zrela edo profeten hilzale izan zrenen seme.

32. [Azken] zazei, bada, xen aiten neurria betetiaz, Mesiasa hilarazten tzeilarik.

33. Suge kasta, [sugien] erraza! Nola izanen da posible [iburniko suara kondenatruk izaitia (sahis) ztein]?

34. Zeren txezei ni faiten nazala xer profeta eta [xakintsu] eta legiaren erakutsdun oiltra, eta hetarik baner [lepoa ebaki zabein, berze banak] kruzifikaten tzei, berze [banak] xahurien sinagogetan [zehaten] tzei eta segituz erabilen ditzei ziudade batarik berziara.

35. Xahurien gain eror dein lurraren gainian usuri den odol [hogenbage] guziua, Abel [xuxen]aren odoletik hastian haiketa Zakarias, Barakiasen semiaren odola bitartio, zointa tenpluaren eta altariaren artian hil baizinein.

36. Egiaz erraiten daizeid, gaiza kuek guziuak erortra xinen drela [egungo belainaldia]ren gain.

37. Jerusalen, Jerusalen, profetak hiltan baidutzu eta zoregana oiltruk dren[ak] harr[i]kaldukatan! Zomat aldiz biltu {edo mokorkatu} nahi ekuntu ni[ti]on zore semiak, olluak bere txitxaxkuak magaalen pean mokorkatan tion bikala, eta zuk etzu nahi ekuntu?

38. Hona, bada, xen etsia hutsirik bara[ten dela].

39. Eta kola erraiten daizeid: Xa sarri {edo bertan} ez naizei [berriz] ekusen, haiketa Mesiastako [aitortan] nizeilarik, [kaur] erran zazein bitartio: *Benedikatruk izan deila Jeinaren izenian xiten dena!*

HOGEITA LAURGARNEN KAPITULUA

[Tenpluaren desegingua. Akabantxaren antzineko señaliak.
Aurkintze izigarria. Gizonaren Semiaren xitia.
Eztakizei kaur guziua noiz izanen den: egon drezurik!
Zerbutxiuan irain leial.]

1. Jesus tenplotik erkinik, xa erabiliz faiten zen, bere dizipuluak heltu zaizkionian [tenpluko etsiak erakustako].

2. Baia hark erran zabein:

–Ekustan tzeia [etse-mukullu] handi kaur guziua? Bada nik [egiazki] erraiten daizeid, ez dela hartarik harririk baraten bata berziaren gainian.

3. Eta gero, Olibareko mendian xaseririk zegolarik, dizipuluetarik zomait heltu zren eta sekretoki galtegin zabein:

–Erran dazaiguzu, noiz agiten da kori? Eta zoin izanen da zore xitiaren señalia eta mundiuaren akabantxarna?

4. Zoini Jesusek errespondítu zabein:

–Mira zazei ñork ere ez dazaizeila engaña!

5. Zeren anitxek xin bihar baitei ene izenian, erraiten: «Ni nuzu Kristo edo Mesias», eta gente anitx [engañaten] dei.

6. Gisa berian entzunen tzei batallen eta [gerren berriak]. Eziztei [lotsa] korrengatik, zeren gaiza kuek antzinetik xin bihar ekunik ere, kaur ez da oraino're akabantxa.

7. Egia da nazionia nazioniaren kontra armaten dela eta [erreinu bat berze erreinu] baten kontra, eta [izurrite eta gose eta lur ikareriak] agiten drela anitx lekutan.

8. Baia kaur guziua oraino're ez da beizik gatxen [hastia].

9. Tenpra kartan majistratiuer [emonik] izanen zrei tormentiuetan isaririk izaiteko, eta [hiltzia] emonen dauzei, eta gente [guziuek baztertruk] izanen zrei ene izenaren kasoz, ene dizipuluak zreilakoz.

10. Zoinekin anitxek gunian eskandalo [sufriten dei, eta batak] berzer traizione eginen [dabei], eta alkar hugunten [dei].

11. Profeta falsu [anitx] agerten dra, gente anitx (gaxtarazien) baitei.

12. Biziuen [aniztarzunarengatik], anitxen karitatia hotzten da.

13. Baia azken ordiuarartio [irain] ledina, kori salbaten da.

14. Bitartio Jangeikuaren [erreinuko] ebanjelio kaur mundu guziuan predikaten da, testimoniotan nazione guziuen, eta gunian akabantxa xinen da.

15. Daniel profetak antzinetik erran zion [profanazale hugungarria] leku saintiuan dagola ekusen tzeinian –kaur lei tzanak [entelega] tzala onki–,

16. [Gunian] Judean daudenak ezkapa tiala mendietra.

17. Eta [teilatuan] dagona ez deila xatx edo sar, bere etsetik gaiza erkitra.

18. Eta alorrian [dagona] ez deila utzul bere arroparen hartra.

19. Baia ai [izor edo haurrak] haztan daudenetaz, eta egun ketan arin ihêsi ez deiztekenian!

20. Otoi eska [dazazei] Jangeikuari, bada, xen ihêtstia ez deila izan negiuan edo neskanegunian, noizta txiki erabil baidaiteke.

21. Zeren gunian [bihozmina kaîn ikaragarri] izanen da, nola ez baizen kalakorik izan mundiuaren [hastetik orai artio], ez sekula're ez izanen.

22. Eta egun kurak llabur ez balite, ñor ere ez zeitekian salba; baia [egun kurak llaburtruk izan bihar dei hautatiuen] amorioz.

23. Kalako tenpran, norbaitek erraiten badaizei: «Kristo edo Mesias kemen dago» edo «Kan», ez dazazei xinets.

24. Zeren Kristo falsiuak eta profeta falsiuak [agerten] baidra, eta (mirakullu) [handiak eta egintza harrigarriak eginen tei; kalako maneran, ezik posible izaitian baita hautatiuak] ere eroren baizren hutsian edo gezurrian.

25. Eta ekusten tzei antzinetik abisatu daizeidala {edo erran daizeidala}.

26. Kola erran dazaizeinian ere: «Txezei kemen Mesias, desiertuan dagola», ez ztei fan kara; edo berzala: «Mira zazei etsearen [barnenean] dagola», etzazei xinets.

27. Zeren iñaztura iguzkiaren erkingutik [erkin] eta istante batez sargiuara bitartio ekus[tan den] gisa, kola izanen da Gizonaren Semiaren abentiua edo xitia.

28. Korpitza nonnahiden egon ledin {edo egon zedin}, kan xuntaten dra [arranuak].

29. Baia egun ketako [bihozmina] igari bertan geroz, iguzkia ulunten da, goikuak ez du argiten, eta izarrak zeuritik eroren dra, eta [zeuriko] birtutiak edo aînguriak ikarez izaren dra.

30. Gunian zeurian Gizonaren Semiaren señalia [agerten] da, zoinen ekusti[an] lurreko hiri guziuek nexar eginen dei marrakaz, eta *Gizonaren Semia hodoi [argien] gainian*, [xitan ekusien dei ahal] eta majestade handirekin.

31. [Gunian] bere aînguriuak oilten tu, zeinek tronpeta [oxen] baten soinuara haren [hautatiuak] bilten tei, mundiuaren lau [altetakuak, zeuriko muga batarik berziaraino].

32. Har zazei konparazione kaur, figoarboletik erkinik: bere adarrak [mardo] daudenian eta hostuak erkiten drenian, uda abaño dagola izaguntan tzei.

33. Bada, kala xek ere gaiza kuek guziuak ekus zinezeinian, ekun zazei [egia]tako Gizonaren Semia xa heltako abantxu dagola, xa bortan dagola.

34. [Egiaz erraiten daizeidana da belainaldi kaur eztela azkenten], haiketa kaur guziua [bete] dein bitartio.

35. Zeuria eta lurra igaren dra, baia ene eliak {edo hitzak} eztra faltaten.

36. Baia egunaren eta ordiuaren gain {edo ordiuan dela kasoz} ñork ere ez daki, ez zeuriko aînguriek ere, baizik ene Aitak solo.

37. Noeren egunetan agitu zena, kori bera agiten da Gizonaren Semiaren xitian.

38. Zeren kain nola [ualdiaren] antzineko egunetan gizonek xaten eta edaten [xarrekitan] baizren, berak bordaltuz eta beren [semiak] bordalarazten, haiketa Noe arkara sartu zen egun beria [artio].

39. Eta ñoiz ere ez zein pensatu [ualdian] hasirik ekusi zein bitartio, eta [guziuak] harrapatu ztiola. Kala agiten da Gizonaren Semiaren xitian.

40. Gunian, bi gizon alurrian xunto egonen drenetarik, bata hartruk izanen da {edo libertatruk} eta berzia eitzruk {edo abandonatruk}.

41. Bi emazte errota batian eyotan egonen dra, eta bata hartruk izanen da {edo salbaten da} eta berzia eitzruk {edo galten da}.

42. [Beira] zazei bada xek, ez baidakizei zer orduz xinen den xen Jeina.

43. Egon ztei xakinik, aita familiadun batek balaki [ebaszaliak] zer ordutan bihar zaun [ebatsi], seguroki [beiratan] egonen zen eta ez zion eitzen bere etsia [zilatra].

44. Kala, bada, xek egon ztei gisa berian [drezatruk], zeren ordu txikien pensatan tzeinian, Gizonaren Semia xinen baita.

45. Nor pensatan tzei dela zerbutxaria [leial eta buruduna, bere jeinak bere familiaren zerbutxaritako izaririk, bapanari xanaria eman] tzan bere tenpran?

46. [Egoaleko] kalako zerbutxaria, zoin, bere jeina xiten denian, kola bere [eginbiharra egitan erden lezan]!.

47. Egiaz erraiten daizeid bere azienda guziuaren goberniua bere gain eitzen daula.

48. Baia [zerbutxari] kaur gaxto izan baledi, edo bere bihotzian erran baleza: «Ene nausia ez da {edo ezta} kain fite xiten»,

49. Eta bere zerbutxari [lagunak] gaxki tratatra has baledi, eta hordiekin xatra eta edatra,

50. Kalako zerbutxariaren nausia orkitan eztion egunian xinen da, eta ordu txikien pensatan dionian.

51. Eta ordu gaxtotan egotxen dau, eta gaztigu emonen dau [itxurazalier] eta zerbutxari gaxtuer emoiten dena. Kan izanen da nexar eta hortzez garraska egitia.

HOGEITA BORZGARNEN KAPITULUA

[Hamar berjinen parabola.
Talentuen parabola. Azken auzia.]

1. Gunian [zeuriko erreinua hamar berjini urdu] izanen da, zeinek beren lanparak hartan zteilarik, [senarra eta emaztiaren] errezibitra erkin zren.

2. Zeinetarik borz [zentzubage zren eta borz burudun].

3. Baia borz [zentzubagiek], beren lanparak hartian, ez zein orio [hartu].

4. [Burudunek, aldiz], lanparekin batian beren ontzietan orio eraman zein.

5. Nola [senarrak] xitia berantan baizion, guziuak loakartu zren eta azkenian lo baratu zren.

6. Baia gaierdia heltruk, mintzo bat entzun izan zen, irago egiten baizion: «Txezei [senarra] xiten dela! Erkin zaizkei errezibitra!».

7. Istantian, berjin kurak guziuak x[a]gi zren eta beren lanparak adrezatu ztein.

8. Gunian [zentzubagiek buruduner] erran zein: «Emon dazaiguzei xahurien oriotik, zeren gore lanparak hiltan baitra».

9. [Burudunek] erresponditu zein erraiten: «Ez deila agi guk digun kau[r] ez deila aski izan goretako eta xentako; hobe da saltan deinengana fan ztein eta falta zaizeina eros zazein».

10. Kuek oriuaren erostra faiten zren arte kartan, [senarra] xin zen, eta [adreza]truk zaudenak harekin sartu zren ezteietra. Eta borta zerratruk izan zen.

11. Geruago berze berjinak ere xin zren, erranez: «Jeina, Jeina! Iriki dazaguzu!».

12. Baia hark erresponditu zion eta erran: «Egiaz erraiten daizeid nik ez [zteidala] izaguntan».

13. Kola, bada, [beira] zazei xek, ez baidakizei ez eguna eta ez ordiua.

14. Zeren Jeinak gizon batek bikala [egiten] baitu, zoinek, herri urrintra faiten zelarik, bere zerbutxariak xuntatu baiztion eta bere ontarzunak [emon] zabein.

15. Bati borz talento {edo deuri} emoiten, berze bati bi, eta berze bati bat solo, bapanari bere [induriaren arabera], eta jesusian fan zen.

16. Borz deuri [hartu] ziona fan zen eta, berekin negoziatan ziolarik, [irabazitan] berze borz erkin ztion.

17. Gisa berian, bi [hartu] ztion kark berze bi irabazi [ztion].

18. Baia bat [hartu] zionak, fan zen eta lurrian zilo bat egin zion, eta bere nausiaren deuria altxatu zion.

19. Tenpra anitxen buriuan, zerbutxari [ken] nausia utzuli zen eta kontiuen emoitra deitu ztion.

20. Borz deuri [hartu] ziona heltan zelarik, berze borz [erakutsi zazkan], erraiten: «Jeina, borz deuri [emon] zinaitadan, hona kemen berze borz hobro hekin {edo kekin} irabazi baidutur».

21. Bere nausiak erresponditu zaun: «Anitx onki, zerbutxari ona, zerbutxari [axoladun eta leiala]! Gaiza txikian [leial] izan baizra, nik [zure menean eitzien dut] anitxtako den gaiza; xin zte parte ekutra zore jeinaren gozuan».

22. Gero bi deuri [hartu] ziona heltu zen, eta erran zion: «Jeina, borz deuri emon zinaitadan; kemen eragutan daizud berze bi, kekin irabazi baidutur».

23. Bere nausiak erran zaun: «Anitx onki, zerbutxari [axoladun eta leiala]!. Gaiza txikitan, bada, [leial izan zra, nik zure menean anitx hobro eitzien dut]; xin zte [parte eku]tra zore jeinaren gozuan».

24. Azkenik, deuri bakotx bat [hartu] ziona heltian, erran zion: «Jeina, nik kondizione gogortako gizon bat zrela daki[r], erin etzun lekiuan egitatan baitzu, eta barriatu etzun lekiuan biltan baitzu.

25. Eta kala, galten niola lotsaz, fan nuntzun eta zore deuria lurrian altxatu nizun. Kemen tzu zoria dena».

26. Baia bere nausia[k], elia biltan zaularik, [erresponditu] zaun eta erran: «Zerbutxari gaixtua eta [eskuxuria]! Yik yakion nik egitatan duala eriten ez duan lekiuan, eta biltan duala non deus ez duan [barriatu]!

27. Bada, korrengatik ber ene deuria bankeruer bihar emon ekuntu yon, nik, bueltatian, ñore interesa kupra nezan [irabaziekin].

28. Ea bada, gen dazazei deuri kura, eta emon dauzazei hamar deuri dionari.

29. Zeren dionari emonen zau eta sobratruk egonen da; baia ez dionari oraino're urdu dion dakan kura gentu bihar zau.

30. Orai, bada, zerbutxari [ezdeus kori] egotx zazei kanpoko ulunguetra. Kor izanen da nexar eta hortzez garraska egitia».

31. Gizonaren Semia xiten denian, bada, bere majestade guziuarekin eta bere aînguru [guziuek laguntruk], gunian bere gloriaren tronuan xaseren da.

32. Eta haren antzinian nazione guziuak [ager] tian eginen du, eta banak berzetarik berexen tu, artzaînak ardiak añetarik berextan tion gisa.

33. Ardiak bere eskoînara izartan tiolarik eta añiak ezkerriara.

34. Gunian erregek erranen [dabei] haren eskoîn[ian] egonen drener: «Xin ztei, ene Aitaren benedikatiuak, [zeuriko erreinuaz xabetra], mundiuaren [hastiadanik adrezatruk] dakauzeina.

35. Zeren nik gose ekun bainion eta xatra emon zinaitein; egarri ekun nion eta edatra emon zinaitein; [bidari] nintzen eta ostatu emon zinaitein.

36. Bilainzruk nintzelarik, estaltu nindaizein; [eri nintzelarik bisitatu nindaizein]; [karzelian sar]truk, eta ekustra xin zinaikein eta konsolatra».

37. Zoini [xuxenek] erresponditen dabei erranez: «Jeina, noiz ekusi [zuntugun] gosez eta xatra emon ginaizun, egarriz eta edatra emon ginaizun?

38. Noiz erden [zuntugun bidari] eta ostatu emon ginaizun, bilainzruk eta beztitu [zuntugun]?

39. Edo noiz ekusi [zuntugun] eri edo karzelian eta bisitatra edo ekustra fan ginaitzun?».

40. Eta erregek {edo erregiak} errespuestatan erranen dabei: «Egiaz erraiten daizeid, kaur ene anaxe kuen txikerrenen zomaitekin egin zinein aldi oroz, enekin egin zinein».

41. Tenpra berian, ezkerri[an] egonen drener erranen [dabei: «Gen ztei nireganik] {edo [gen] zteikida} maradikatiuak; ortzei sekulako suara, zoin diabiuaren[tako] izan baizen, eta bere aîngurien edo zerbutxarien[tako].

42. Zeren gose ekun bainion eta ez zinaitein emon xatra; egarri, eta ez zinaitein emon edatra.

43. [Bidari] nintzen eta ez nindizein biltu; bilainzruk, eta ez nindizein beztitu; eri eta [karzelian sar]truk, eta ez [zintzein] xin ekustra».

44. Zoini gaxtuek ere [erresponditen dei: «Jeina, noiz ekusi zuntugun] gosez, edo egarriz, edo [bidari], edo bilaînzruk, edo eri, edo [karzelian sartruk, eta laguntu bage eitzi zuntugun]?».

45. Gunian erresponditen dabei: «Egiaz erraiten daizeid, ene anaxe kuen txikerrenen zomaitekin [egitan ez zinein aldi oroz, ez zinein egin] enekin».

46. Eta konengatik, kuek sekulako supliziuara fanen dra, eta [xuxenak] sekulako biziara.

HOGEITA SEIGARNEN KAPITULUA

[Jesus nola harrapaten. Emazte batek haren gainian balsamu usuri.
Jesus Judasek saltruk. Azken aigariaren drezatan.
Aigarian Judasen traizioniaz mintzatu. Azken aigaria:
hona kemen ene korpitz-odolak! Abari atzekuan:
Pedroren ukamentiua antzinetik erran. Getsemaniko otoia.
Jesus lotruk erman. Jesus judiu-bilgiuaren antzinian.
Pedrok Jesus ukatu.]

1. Jesusek [elesta] kuek oro akabatuz geroz, bere dizipuluer erran [zabein]:
2. «Onki dakizei kementik bi egunen buriuan Bazkua zelebratu bihar dela, eta Gizonaren Semia krutxian hiltra [kondenatruk] izanen dela».
3. Tenpra berian [apezburiuak] eta hiri[ko] majistratiuak Pontifize Handienaren, Kaifas deitan zenaren, [xauregian] xuntatu zren.
4. Eta [bilgu] ekun zein, Jesus [gaiztogoz nola harrapatu erdeiteko, eta hilarazteko].
5. Eta, lotsaz hiria [zalapartaka hasen] zela, erraiten zein: «Ez da konbeni kaur xei egunian egin dein».
6. Jesus Betanian zegolarik, Simon [legendunaren] etsean,
7. Harengana emazte bat heltu zen, alabastrozko baso batekin, prezio handitako perfumez edo [gantzuz] beterik, eta Jesusen buriuaren gainian usuri zion, zointa mahaian baizagon.
8. Dizipuluetarik zomaitek kaur ekustian, anitx gaxkitako hartu zein, erraiten:
–Zertra galtakeria kaur,
9. Kaur prezio handitan saltu ahal ekuntu zenian, eta [beharduner] eman?
10. Zoin entelegatian, Jesusek erran zabein:
–Zeren molestatan tzei emazte kaur, eta egiten diona gaxtra hartan tzei, on izaitian, dena gisa, enekin egin diona?
11. Bada, [behardun]ak betik eskiuara dazkazei, baia ni ez nakazei betik.
12. Eta hark balsamu kaur ene korpitz gainian usurtian, antzinetik ene [hilobia drezatako] gisa egin du.
13. Egiaz erraiten daizeid, nonnahiden Ebanjelio kaur predika dein, mundu guzutik izanen baita, [egin berri diona ere zelebraten dela haren goargarriki].
14. Gunian Judas Iskariote, hamabietarik bat, [apezburiuekin] egoitra fan zen eta erran zabein:
15. «Zer nahi daitazeid emon, eta nik izaren daidazeid [Jesus] xen eskiuetan?».
16. Eta guniaz geroz [Judas okasione on] txerkatan erabiltan zen traizionia egiteko {edo traizioniaren egiteko}.
17. Orantz [bageko xeiko] lehin eguna gainian zagolarik, [dizipuluak Jesusengana fan zren] eta galtegin zabein:
–Non nahi tzu [dreza] dazaiguzun Bazkuako aigaria?
18. Jesusek erresponditu zabein:
–Fan ztei ziudadiara, kalako personaren etsiara, eta emon dazazei arrakaitu kaur: «Maistruak erraiten du: Ene tenpra abañatan da; zore etsen Bazkua zelebratra nua, ene dizipuluekin».

19. Dizipuluek egin zein, bada, Jesusek manatu zabeina, eta Bazkuarako {edo Bazkuako} bihar zena drezatu zein.
20. Iguzkia xa sartruk, [mahaian] izari zen bere hamabi dizipuluekin.
21. Eta xaten [zaudelarik] erran zion:
–Egiaz erraiten daizeid xetarik batek traizione eginen daitadala.
22. Eta hek, sobranio {edo manera handitan} [bihozmintruk], bapanak beraren partez galtegitra hasi zren:
–Jeina, ni naza ote?
23. Eta hark errespuestatan erran zion:
–Ogia bustitako bere eskiua platerian enekin sartan dionak, [kori] da traidora {edo traizione [egi]lia}.
24. Gizonaren Semiari dena kasoz, hura faiten da hartaz eskribitruk dagon bikala; baia, ai gizon kartaz, zoine[k] Gizonaren Semia [salten baitu]! Kalakuari hobe izan lekion ez balitz sekula're sortu!
25. Eta Judasek elia hartan ziolarik, [salten zuena baizen, erran zaun]:
–Ni naza akaso, Maistrua?
Jesusek erresponditu zaun:
–Zuk erran tzu, zu zra.
26. Aigaltan zauden artian, Jesusek ogia hartu zion, eta benedikatu zion eta [zatitu], eta bere dizipuluer eman zabein erranez: «Oriei eta xan zazei, kaur ene korpitza da».
27. Eta kaliza hartan ziolarik, [eskerrak emon ztion], benedikatu zion eta emon zabein, erranez: «Edan zazei guziuek hartarik.
28. Zeren kaur ene odola baita, zoin testamentu berriaren sellua izanen baita, zointa anitxengatik usuririk izanen baita bekatiuen parkamentiutako.
29. Eta [nik erraiten] dauzied ez duala {edo eztuala} xa hobro edanen oraidanik mahats fruitu kontarik, haiketa egun zointan xekin edan tzadan bitartio deliziazko kaliz berritik ene Aitaren [erreinuan]».
30. Eta [eskerr]en emoitako himnua erranik, Olibuen mendi altiara erkin zren.
31. Gunian Jesusek [erran zabein]: «Xek guziuek gaur [enegatik eskandalo sufriten tzei eta eitzen] naizei. Zeren eskribitruk baitago: *Artzaîna [zaurten] dur eta saldoko ardiak îhestren dra.*
32. Baia [biztian], ni xen antzinetik fanen naz Galilean, nonta [xen xuntatra utzulen bainaz]».
33. Pedrok erresponditan zaularik, erran zaun:
–Oraino guziuak [zoregatik] eskandaliza litian, ñoiz sekula're ez nuzu eskandalizaten ni, ez [ztud ere eutzien].
34. Jesusek [erran] zaun:
–Bada nik [egiaz erraiten] daizud, gai kontan berian, lehin ezik ollarrak kanta tzan, ni hiror aldiz [ukaten nuzula].
35. Pedrok erran zion:
–Zorekin hiltia [biharrezko balimazaitad ere, nik ez ztud] ukaten.
Kori bera [erran] zein dizipulo guziuek.
36. Arte kartan Jesus baratze batra heltu zen berekin, izen[a] baizion Getsemani, eta erran zabein: «Xaser ztei kemen, ni karatago faiten nazan arte kontan, eta orazione egiten duan bitartio».

37. Eta berarekin Pedro eta Zebedeoren bi semiak, Santiago eta Juan, eramaiten ztiolarik, tristuria eta [bihozmin] ekutra hasi zen.
38. Eta gunian erran zabein: «Ene arimak [hiltiaren bihozminak] senditan tu. Orki zazei kemen eta [beha] zazei enekin».
39. Eta zomait urratsez antzinatan zelarik, lurrian ahuz barna eroririk [etzin] zen, orazione egiten eta erraiten: «Ene Aita, posible bada ez daztazud edanaraz kaliz kaur; baia kalarik ere ez deila egin nik nahi duana, zuk nahi tziuana beizik».
40. Gero bere dizipuluengana utzuli zen eta loakartruk erden ztion, eta Pedrori erran [zaun]: «Posible dia etzeila [beha ahal ekuntu oren batez] enekin?
41. [Beha] eta orazione egin zazei, ez ziztiain tentazionian eror. Bada, espiritiua alert egonik ere, haragia [ahul] dago».
42. Berriz bigarnen aldiz utzuli zen eta orazione egin zion erranez: «Ene Aita, ez badaiteke igar kaliz kaur nik edan tzadan bage, egin deila zore borontatia».
43. Gero berze buelta bat [egin] zion eta loakartruk erden ztion, zeren beren begiak loz beterik baizauden.
44. Eta eiztan ztiolarik, oraino're hirorgarnen aldiz erretiratu zen orazione egitra, ele berak [berriz erraten] ztiolarik.
45. [Ondorian, bere dizipuluengana utzuli] zen eta erran zabein: «Lo egin zazei orai eta [hatsar] zazei. Txezei xa ordiua heltu dela, eta Gizonaren Semia bertan entregatruk izaitra duala bekatarien eskiuetan.
46. Os, bada, azka ztei {edo xagi ztei}, fan gitian kementik; xa heltan da ni entregaten nainion kura!».
47. Oraino ez zion kaur erraitiaz akabatu, Judas heltu zenian, hamabietarik bat, [gente-saldo handi batek] xarrekitruk, ezpata eta makilarekin armatruk, [apezburiuek eta hiriko zaharrek] {edo senadore[k]} oiltruk xiten baizren.
48. Traidorak señale kaur emon zabein: «Zointa nik bixiko emoitan duanari, kori da; [harrapa] zazei».
49. Bertan Jesusengana [abaña]tan zelarik, bada, erran zion: «Maixtrua, Jangeikuak salba zitzala».
Eta bixiko emon zaun.
50. Jesusek erran zaun: «Adexkidia, zertra xin zra kona?».
Gunian berziak heltu zren, eta Jesusi eskiua [izari] zein eta preso egin zein.
51. Eta nonta Jesusekin zaudenetarik batek, ezpata erkiten ziolarik, [apezburiuaren zerbutxari mitil bat zaurtu] zion, biarri bat ebakitan zaularik.
52. Gunian Jesusek erran zaun: «[Utzul] zazu zore ezpata bainara, zeren beren autoritate[z] ezpataz zerbutxa ledin guziuak, ezpataz hilen dra.
53. Pensatan tziua [eztrokeala xo] ñore Aitarengana, eta istantian ez diola izaren ene [eskiuetan hamabi beino hobro lejione aînguriuenak]?
54. Baia nola kunpliten dra Eskriturak, zeinen erraitia kala agi dein konbeni baita?».
55. Ordu kartan Jesusek [gente-saldo kari erran zaun]: «[Ebaszale edo hilzale] baten kontra bikala erkin zrei ezpata eta makilekin ni preso egitra. Egunoro nintzen {edo nintzagon} tenpluan xen artian xaseririk erakustan, eta ñoiz ere enintzizein preso egin.
56. Egia da kaur guziua profeten eskriturak [bete] tian agitu dela».
Gunian dizipulo guziuek [eiztan zeilarik], ezkapatu zren.
57. Eta Jesus preso egin zeinek Kaifasen etsiara eraman [zein], zointa urte kartan [apez handiena] baizen, nonta eskribaîak eta zaharrak xuntatruk baizauden.

58. Eta Pedro urrinki xarrekituz faiten zitzaun [apez handienaren xauregiara] heltu zen artio. Eta sartu zelarik, zerbutxariekin xaseririk zegon, kaur guziua zertan baratan zen ekusteko.
59. Bada, [apezburiuak eta bilgu] guziua Jesusen kontra zomait [aitorgo] falsu txerkatan erabiltan z[r]en, hiltra kondena [zizein].
60. Eta kontako ez zabein erdeiten [aski aitorgo, nolanahiden aitorle falsu anitx eraugirik] izan zrelarik. Azkenik {edo ondorian} bi [aitorle falsu agertu] zren.
61. Eta erran zein: «Konek erran zion: Nik Jangeikuaren tenplua desegin doked eta [berriz egin] hiror egunez».
62. Gunian [apezburiua] txutirik izartan zelarik, erran zaun:
–Etziua deus errespondítan kuek zure kontra erraiten deinari?
63. Baia Jesus ixilik [zegon. Eta apezburiuak] erran zaun:
–Nik Jangeiko biziaren [izenian galditin daizud] erran dazaiguzula zu zrenez Kristo edo Mesias, Jangeikuaren Semia.
64. Jesusek errespondítu zaun:
–Zuk erran tzu, ni naz. Eta oraino're [erraiten] daizeid gero *Gizonaren Seme [kaur]*, antzinian tzeina, *Jangeikuaren majestadiaren eskoînara xaseririk, zeuriko hodeien gainian xiten* [ekusen tzeila].
65. Kalako errespuesta entzutian, [apezburiuak] bere beztidurak urratu ztion, erraiten:
–Blasfematu du. Zer nestate digu xa [aitorletaz]? Xahuriek blasfemia [entzun berri] tzei, zoinekin bera Jangeikuaren Seme egiten den.
66. Zer urdu zaizei?
Hek errespondítu zein erranez:
–Hilik [izaitia merexitan du].
67. Bertan hasi zren hari begitartian txu[tx] egoxtra eta puñutikaldika gaixki tratatra; eta berze banek, begiak bendatu zabeilarik geroz, maxelakaldikatan zein.
68. Erraiten: «Kristo, [erran zaiguzu, usma zazu; nor da zaurtu ztuena]?
69. Arte kartan Pedro kanpo atriuan xaseririk zagon, eta hari neska bat abañatan [zitzau]larik, erran zaun:
–Zu ere Jesus galileoarekin zinabiltzan.
70. Baia hark guziuen antzinian ukatu zion erranez:
–Nik ez dakiez zertaz mintzatan zren.
71. Eta hura portikuara {edo bortaz kanpo} erkiten zelarik, berze neska batek beira egin zaun eta kan zaudener erran zabein:
–Bai, kaur ere Jesus Nazarenuarekin zegon.
72. Eta [Pedrok] bigarnen aldiz ukatu zion [zin eginez]:
–Ez dur izaguntan kalako gizona.
73. Baia bertan abañatu zren ungurian zaudenak eta Pedrori erran zabein:
–Seguroki zu ere hetarik zra, zeren Galileako zore mintza molde berak deskubritan baiztu.
74. Gunian [Pedro] bere gain maldizione egoxten hasi zen eta [zin eginez] erraiten ez ziola kalako gizona izaguntu.
Eta istantian ollarrak kantatu zion.
75. Konekin Pedro Jesusek erran zaun [hitzaz] guartu zen: «Ollarrak kanta zan beino lehin, ni hiror aldiz [ukaten nuzu]». Eta kanpo erkiten zelarik, [minki] nexar egin zion.

HOGEITA ZAZPIGARNEN KAPITULUA

[Jesus Pilatogana eramanik. Judas urkatruk. Jesus heriotzeara kondenatruk, (zeha)truk, (gaizkibela)truk, kruzifikatruk eta maradikatruk. Jesusen hiltia. Jesus hilobian ôrtzirik, eta bere hobia zerratruk eta beiratruk.]

1. Goxa heltu baikoz, [apezburu] guziuak eta hiriko zaharrek [bilgu] ekun zein Jesusen kontra, hilaraztako.
2. Eta hilik izaiteko [hogendun zela erraiten] zabeilarik, lotruk eraman [zein] eta gobernazaliari eman, Ponzio Pilato baizen.
3. Gunian [Judasek, saldu zionak, Jesus heriotzeara kondenatruk] ekustian, egin zionaz [damu]truk, hogeita hamar zidarrezko deiruak [apezburiuer eta zaharrer utzuli ztion].
4. Erraiten:
–Nik bekatu egin dur, bada, odol [hogenbagea] saldu dur.
[Baia] hek erran zein:
–Guri zer [axola] zaigu? Kan konpon zte!
5. Baia hura, deuria {edo deirua} [egoxtan] ziolarik, fan zen; eta bere buriuari [soka] bat egoxtan ziolarik, urkatu zen.
6. [Apezburiuek], deuriak biltu baikoz, erran zein: «Ezta [lege tenpluko] tesoruan sar ditzagun, odolaren saria izaitian drena gisa».
7. Eta [bilgiuan] tratatuz geroz, hekin ontziegile baten alorra erosi zein estranjeruen [hilobi]tako.
8. [Korrengatik] deitu zen alor *Hazeldama* erran dena, «Odolaren alorra» erran nahi baitu, eta kala deitan da egunko egunian.
9. Zoinekin Jeremias profetak antzinetik erran ziona [bete] zen, erraiten baitu: *Zidarrezko hogeita hamar deiriuak [hartu dei; kori izan baizen baluratruk Israeleko semiek] saltako izari zenaren saria.*
10. *Eta ontziegile baten alorraren [erosteko egari ztein, Jeinak manatu zaitan] bikala.*
11. Jesus, bada, presidentiaren [antziniara eramanik izan zen, eta harek] galtegin zaun erranez:
–Zu zreia judiuen erregia?
Jesusek errespondítu zaun:
–Zuk erraiten tzu, ni nuzu.
12. Eta [apezburiuek] eta zaharrek hobruago [salatan zeilarik], deus ez zion errespondítu.
13. Zoinengatik Pilatok erran zaun:
–Etziua entzuten zomat gaizataz [salatan ztein]?

14. Baia harek ez deusi ez [zaun] erresponditu erran zaun {edo erran zazkan} guziutaz, manera kalakuan presidentia ezin hobro [harritruk] baratu baizen.

15. Presidentiak, Bazko xeiaren kausaz, [preso bati libertadia emoiteko ekutia zion, hiriak hautatu] nahi zionari.

16. Eta nola okasione kartan karzelian gama handitako bat baizakan, izena Barrabas ziona,

17. Pilatok xuntatu zrener galtegin [zabein]:

–Nor nahi tzei solta dazaizein, Barrabas edo Jesus, zoini deitan baitabei Kristo edo Mesias?

18. Zeren onki baizakion [apezburiuek inbidiagatik emon zabeila Jesus].

19. Eta hura bere tribunalian xaseririk zagolarik, bere emaztiak oiltu zaun erraitra: «Ezizte sar [xuxen] konen gaizetan, zeren anitx [erstura baitra sufritu] tuanak egun ametstan haren[gatik]».

20. Bitartio [apezburiuek eta zaharrek hiria zirikatu] zein, Barrabasen libertadia eta Jesusen hiltia eska zedin.

21. Kala da nola, presidentiak berriz galtegiten zabeilarik eta erraiten:

Zoin bietarik nahi tzei solta dazazein?

–Barrabas –[erresponditu zabein hek].

22. Pilatok [erran] zabein:

–Zer egin bihar dur, bada, Jesustaz, Kristo deitua[z]?

23. Guziuek [erran zein]:

–Izan deila kruzifikatruk!

Eta presidentiak:

–Zer gaixki egin du, [bada]?

Baia hurak irago handiago egitra hasi zren, erraiten:

–Izan deila kruzifikatruk!

24. [Eta] Pilatok deus ez ziola antzinatan ekustian, lehinaz bai aldi bapanian [zalaparta] handitan zela, ur eragu lezeila manatan ziolarik, hiriaren agerrian eskiuak ekuzi ztion, erraiten:

–[Hogenbage naz ni xuxen] konen odolaz! Kor {edo Kan} konpon ztei xek!

25. Zoini hiri guziuak errespondituz erran zion:

–Eror deila haren odola gihauren semen gain!

26. Gunian Barrabas soltatu zabein. Eta Jesus, [xoaraz] geroz, beren eskiuetan [emon] zion, kruzifikatruk izan zedein.

27. [Ondorian] presidentiaren soldaduek, Jesus hartan zeilarik eta Pilatoren [xauregiko] portikuan izarten zeilarik, haren unguriuan kohorte edo konpañia guziua osorik xuntatu zein.

28. Eta belainzruk izartan zeilarik, gran[a]zko mantu batez estaltu zein.

29. Eta ñardun korona bat irazkitan zeilarik, buriuaren gainian izari zabein, eta kaña bat zetrotako bere eskoîneko eskiuan. Eta belauriko izarten zrelarik, [alkeizun egitan] zabein, erranez: «Jangeikuak salba zitzala, judiuen erregia!».

30. Eta txutx egoxten zabeilarik, kaña hartan zein eta buriuan [zaurten zein].

31. Eta kola, hartaz burlatu zrenaz geroz, mantua gentu zabein; eta berriz bere [beztiduak izari zazkabeilarik], kruzifikatruk izaitra erkin zabein.

32. [Ziudadetik erkitian, gizon bat erden zein, Zireneko seme], izenez Simon ziona, zoin Jesusen krutxiarekin karga zedin [araztu baizein].

33. Eta leku Golgota deiten dein batra heltu zrelarik, «Kalbariuaren edo kalaberen lekiua» nahi baitu erran.

34. Kan edatra emon zabein ardaû gibel minekin nahastekatruk. Baia hark, testatu ziolarik, ez zion edan nahi ekuntu.

35. Kruzifikatu zeilarik geroz, beren artian haren beztiduak [bapanatu ztein, zozkatan] zteilarik. Konekin [bete] zen profezia, erraiten baitu: *Beren artian ene beztiduak [bapanatu zein eta ene tunika zozkatu] zein*.

36. Eta hari xunto {edo haren altakan} xasertan zrelarik, [begiratan zein].

37. Buriuaren gainian ele kuek izari za[zka]bein, haren kondenazioniaren (arraziua) entelegatra emoiten baizein: «Kaur Jesus da, judiuen erregia».

38. Tenpra berian, harekin bi [ebaszale] kruzifikatruk izan zren, bata [eskoînian eta berzia ezkerrian].

39. Kantik igartan zrenek blasfemiatan zabein buriuaz [zeiñu] egiten zabeilarik.

40. Eta erraiten: «Ola, zuk, Jangeikuaren tenplua desegiten tzuna eta hiror egunez berritan tzuna, salba [zihauren buriua]. Jangeikuaren Semia balimazra, xaix [z]te krutxetik!».

41. Gisa berian, baitare [apezburiuek], eskribaî eta zaharrekin batian [gatxiaraztan zeilarik], erraiten zein:

42. «Berze banak salbatu tu eta bera ez deiteke salba! Israeleko erregia balimada, xatx deila orai krutxetik eta xinetsen digu [haren baitan].

43. Harek {edo Hark} konfianza Jangeikua [baitan] izartan du; bada, Jangeikuak kaînbat maitatan badau, libra dazaula orai, berark erraiten baizion: Ni Jangeikuaren Semia naz».

44. Kori bera egotxtan zabein begitartiara baita [ebaszale] haren altaketan kruzifikatruk zaudenek ere.

45. Baia eguerditik haiketa arrastriko hiroretrak artio, lur guziua ulunguetaz estaltruk {edo estalirik} baratu zen.

46. Hiroren ordiuari abantxu, Jesusek [irago egin] zion mintzo handi batekin, erraiten: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»*. Erran nahi baitu: *«Ene Jangeikua, ene Jangeikua, zeren [eitzi] naizu?»*.

47. Unguriuan zaudenetarik zomaitek [kura] entzutian, erraiten zein: «Eliasi deitan du konek».

48. Eta bertan hetarik batek laster egiten, esponja bat hartu zion, ozpinian busti zion eta, kaña baten puntan izaririk, txupa lezan emoiten zaun.

49. Berzek erraiten zein: «Bego {edo Eitz zazei}, ekus zagun Elias libratra xiten zaunez!».

50. Gunian Jesusek, berriz mintzo handi eta oxen batekin [irago egitan], bere espiritiua [emon] zion.

51. Istantian tenpluaren belua bi puska {edo zatitan} urratu zen gainbehera, eta lurra ikaratu zen, eta harriak [zatikatu] zren;

52. [Hilobiak] iriki zren eta anitx sainturen korpitz, hil baizrenak, [biztu] zren.

53. [Hilobietarik] erkiten zrelarik, Jesusen erresurrekzioniaz geroz, ziudade saintiuara xin zren eta anitxer {edo anitxi} [agertu zitzazkabein].

54. Bitartio, ehinturiako ofiziala eta harekin Jesusen [begira]tan zaudenak, lurraren ikareria eta agitan zren gaizak ekustian, lotsa handitaz bete zren eta erraiten zein: «Egiazki gizon kaur Jangeikuaren [Semia zen]!».

55. Kan [urrinian] anitx emazte ere [ba]zauden, Galileatik Jesusi segitu bai[zabein, karen zerbutxatako].

56. Zeinetarik Maria Madalena, eta Maria Santiagoren eta Joseren ama, eta Zebedeoren semien ama.

57. Xa berant izaitian, gizon abrats bat [agertu] zen, Arimateako seme, izena Jose baizion, zoin Jesusen dizipulo baizen.

58. Kaur Pilatorengana [fan] zen eta Jesusen korpitza eskatu zaun, zoin Pilatok [emon] lezabeila manatu zion.

59. Josek, bada, Jesusen korpitza hartan ziolarik, mantre xahî batian ungrukatu zion.

60. Eta beraren [hilobi] batian izari zion, zoin peña batian irikiarazi baizion eta ez baizion zerbutxatu oraino're. Eta harri handi bat [abañatan ziolarik, hilobiaren] ahua {edo sartia} zerratu zion eta fan zen.

61. Kan Maria Madalena eta berze Maria zauden, [hilobiaren] aurkian xaseririk.

62. Biramenian, neskanegunaren [drezatziari] segitan zena edo neskanegun bera baizen, Pilaorengana xunto [fan zren apezburiuak] eta fariseuak.

63. Erraiten:

–Jeina, guartu gitra [gezurti] karek, oraino bizi zelarik, erran ziola: «Hiror egunez geroz, [bizten] naz».

64. Mana zazu, bada, [begira] deila [hilobia] hirorgarnen egunia artio; gaiaz fan ez zitian, berere, bere dizipuluak eta ebats tzein, eta hiriari erran tzein: «Hilen artetik [biztu] da», eta azken engañua {edo hutsa} gaixtuago izan dein ezik lehina.

65. Pilatok erresponditu zabein:

–Kor dakazei guardia. Ortzei eta izar zazei urdu zaizein gisa.

66. Korrekin, kara faitian, [hilobia] onki aseguratu zein, harria señalatan eta bixtazko [behazaliak] izarten {edo isarten}.

HOGEITA ZORTZIGARNEN KAPITULUA

[Jesusen erresurrekzionia. Bere agertzia
emazte saintiuer. Behazaliak erosi.
Dizipuluak mundu guziuara oiltruk.]

1. Neskanegun gaia antzinatruk, astiaren lehin eguna {edo ingantia} argiti[an], Maria Madalena berze Mariarekin [hilobiaren] ekustra {edo bisitatra} xin zen.

2. Tenpra kontan lurraren ikareria handi bat senditu zen, zeren zeuritik Jeinaren aînguru bat xatxi baizen, eta [hilobiara heltian] harria azkatu zion eta gainian xaseri zen.

3. Haren begitartiak iñazturak gisa argitan zion, eta bere beztidura xuri zen elurra {edo elurraren} gisa.

4. Zointaz [behazaliak] kain harritruk baratu zren, hilik bikala baizauden.

5. Baia aînguriuak, emazter [mintzatan] zelarik, erran zabein:

–Xek etzei zer lotsarik ekun! Zeren onki baitakid Jesus kruzifikatruk izan zenaren txerka xiten zreila.

6. Baia ez dago kemen, zeren [biztu] baizen, antzinetik erran zion bikala. Xin ztei eta ekus zazei lekiua, zointan Jeina [ôrtzirik] baizagon.

7. Eta orai fan ztei, baratu bage, bere dizipuluer [erraitra: «Biztu da eta] xen antzinetik fanen [da Galileara; kan ekusen tzei». Antzinetik erraiten] daizeid.

8. Hurak istantian {edo jesusian} [hilobitik] erkin zren lotsa eta gozo handirekin, eta lasterka fan zren dizipuluer berriaren emoitra.

9. Noizta Jesus [bidiara erkin zitzabein], erraiten: «Jangoikoak guarda zaizteila!».

Eta hurak abañatan zrelarik, lurrian [etzinik, haren zankuak besarkatu ztein eta adoratu zein].

10. Gunian Jesusek [erran zabein]: «Etzazei lotsarik ekun! Fan ztei, abiso emon zazei ene anaxer Galileara fan tian, zeren kan ekusen bainei».

11. Hurak faiten zren tenpra berian, [behazaletarik] zomait ziudadiara xin zren eta [apezburiuer] agitu zen guziua kontatu [zabein].

12. Eta kuek zaharrekin xuntatruk, beren [bilgiua] ekutian, soldaduer deuri kantidade handi bat emon [zabein].

13. [Manatu] konekin: «Erran bihar tzei: Gu lo gitzaudelarik, gaiaz bere dizipuluak xin zren eta ebatsi zein.

14. Zeren kaur presidentiaren biarrietra hel baledi, guk [antzakaten dugu], eta bakian eta libre bara ztein eginen daiguzei».

15. Hek, deuria [hartu] baikoz, enkargatruk zauden bikala egin zein; eta kaur judiuen artian erabili da egunko eguniarartio.

16. Bitartio hameka dizipuluak Galilearako partitu zren, mendi Jesusek [erran] zabeiniara.

17. Eta kan [hura] ekustian adoratu [zein; baia] zomaitek beren dudak ekun zei[n] korpitzaren egiatarzunaren gainian.

18. Gunian Jesusek, abañatan zelarik, gisa kontan erran zabein: «Niri potestade guziua emon zaitad zeurian eta lurrian.

19. Fan ztei, bada, eta erakuts zazei gente guziuer osagarriaren bidia, batixatan ditzeilarik Aitaren eta Semiaren eta Espiritu Saintiuaren izenian.

20. [Eta] nik manatu daidzein gaiza guziuak kunplitra erakustan ditzeilarik. Eta egon ztei [segur] ñaur beti xekin egonen nazala haiketa [mundiua azken dein] bitartio».

GIPUZKERA

MATEOREN EBANJELIOA

GIPUZKERAZ

GURE JESUKRISTO JAUNEN EBANJELIOA

SAN MATEOK DIONEZ

KLAUDIO OTAEGI

1866

LENENGO KAPITULUE

Jesukriston sortzea.
Haen konzebitzea Espiritu Santun obraz.
[Jesusen] jaiotzea.

1. Jesukristo, Dabiden semen, Abrahanen semen sortzea.

2. Abrahan Isaaken aite zan. Isaak Jakoben aite zan. Jakob Judasen eta haen anaien aite zan.

3. Judasek Tamarreandi izan zon Phares ta Zara. Phares Esronen aite zan. Esron Aranen aite zan.

4. Aran Aminadaben aite zan. Aminadab Naassonen aite zan. Naason Salmonen aite zan.

5. Salmonek Rahabendik izan zon Booz. Boozek Rutheandik izan zon Obed. Obed Jessen aite zan. Jesse Dabid erregen aite zan.

6. Dabid erregek izan zon Salomon Uriasen andrea izan zanandi.

7. Salomon Roboanen aite zan. Roboan Abiasen aite zan. Abias Asan aite zan.

8. Asa Josaphaten aite zan. Josaphat Joramen aite zan. Joram Uriasen aite zan.

9. Urias Joathanen aite zan. Joathan Achazen aite zan. Achaz Ezekiasen aite zan.

10. Ezekias Manasesen aite zan. Manases Amonen aite zan. Amon Josiasen aite zan.

11. Josias Jekoniasen ta honen anaien aite zan, judiok Babilonira eaman zituen denbora ingurun.

12. Eta Babilonira eamanak izanda gero, Jekonias Salathielen aite izan zan. Salathiel Zorobabelen aite izan zan.

13. Zorobabel Abiuden aite izan zan. Abiud Eliazinen aite izan zan. Eliazin Azorren aite izan zan.

14. Azor Sadoken aite izan zan. Sadok Achinen aite izan zan. Achin Eliuden aite izan zan.

15. Eliud Eleazarren aite izan zan. Eleazar Mathanen aite izan zan. Mathan Jakoben aite izan zan.

16. Eta Jakob, Jose, Marian gizonan aite izan zan, zein Mariandik jaio zan Jesus, lonbretzat {izentzat} Kristo.

17. Ala amalau kasta die guzik Abrahandi Dabideaño; eta Dabideandi judiok Babilonira eaman zien arteaño amalau kasta; eta amalau kasta Babilonira eamanak izan zieneti Kristoaiño're.

18. Baño Kriston jaiotzea modu hontan izan zan: Maria haen ama Josei eskontzeko hitzemana zeola, arkitu zan konzebitue zola bere sabelen Espiritu Santun obraz, iñoiz'e lenao alkarregin eon bae.

19. Baño Jose haen gizonak, zan bezela, [zuzena] zalako, eta hura desonrau nahi etzolako, erabai zon ixiltxoik uztea.

20. Pentsamentu ontan zeola, hona nun agertzen zakon amesetan Jaunen aingeru bat, esanez: «Jose, Dabiden semea, ezazu izan errezeloik Maria zeure andratzat errezibitzeko zure etxen; zeati haen sabelen konbezitu dana, Espiritu Santun obrea da.

21. Eta hala eingo do seme bat, zeñi Jesus ipinko diozun izentzat; ba hura da bere herrie salbau behar dona ero librau behar dona pekatutati».

22. [Hori] guzie ein zan Jaunek Profeteandik esan zona kunplitzeko:

23. *Jaki zazue birjiña batek konzebitu ta eingo dola seme bat; zeñi Emmanuel ipinko dioen izentzat* (zeñek bestea itzulie esan nahi don «Jainkoa gukin»).

24. Horrekin Josek, esnau zanen, ein zon Jaunen aingeruk aindu ziona, eta errezibitu zon bere andrea.

25. Eta ezautu bae ta ikutu bae egin zon bere seme bakarra; eta izena Jesus [ipin zion].

BIGARREN KAPITULUE

Magoan adorazioa. Jesusen iges eitea Ejitora.
Inozentean heriotza gogorra.
Jesus, Maria ta Jose itzultzen die Ejitoti.

1. Jaioi'pa Jesus Judako Belenen Herodesek erreinatzen zola, hona nun etorri zien Mago batzuk euzkie jaiotzen dan aldeti Jerusalena.

2. Galdetuz:

–Nun dao judion errege jaioa? Ba guk ikus gendun eguzkie jaiotzen dan alden haen izarra, eta adoratzeko asmokin etor gea.

3. Herodes erregea, hau aituta, izutu zan, eta haekin Jerusalen guzie.

4. Eta abadean [nausi] guzik, eta herriko erakustzallek ingurauta, galdetzen zien nun jaio behar zon Kristok ero Mesiasek.

5. Zeñi hak erantzun zioen:

–Judako Belenen. Honla dagola [Profetak] eskribitue:

6. *Eta zu Belen Judako lurre, etzea iñolaz'e Judako herri haundinetati txikina; ba zuandi da nundi [etaa] behar don Israelgo nere herrie gobernau behar don burue[k].*

7. Orduan Herodesek Magoai ixilik ero bakarrik hotseinda jakin zon hatati kontuz izarra agertu zitzaien denborea.

8. Eta Beleneko biden ipinik, esan zien: «Zoazte eta jaki'zazue puntual zer dan ume hortaz, eta arkitze'zuenean abisa iezue ni're adoratzea juteko».

9. Erregei hau aitu bezin laister, jun zien eta hona nun, euzkie jaiotzen dan alden ikusi zoen izarra zijon euren aurreti, zein alleatuik ume zeon lekun pareraño, geatu zan.

10. Izarran bistan oso poztu zien.

11. Eta etxen sartuta, [umea] arkitu zoen bere ama Marikin, eta belauniko jarrita adorau zoen, eta euren kofrek zabalduik, eskeñi zioen urrezko, intzentsozko ta mirrasko presentek.

12. Eta zeruti errezibituik amesetan abiso bat Herodeseana itzuli etzitezen, [beste bide bateti] jun zien euren etxea.

13. Han handi jun ondon, Jaunen aingeru bat agertu zitzekon Josei amesetan, esanez: «Jaiki zaite, artu zazu umea, eta haren ama, eta iges ei'zazu Ejitora, eta han eon zaiz nik abisau arten. Zeati Herodes ibilko da ume billa hiltzeko».

14. Jaikita hartu zon Josek umea ta haren ama gauez, eta [Ejitora] erretiratu zan.

15. Nun eon zan Herodes ill arte. Eta honla kunplitu zan Jaunek esan zona Profeten ahuti: *Nik otsei'nion Ejitoti nere semeri.*

16. Bian bitarten, Herodesek [bere burue Magoak burlatue] ikusik, hasarrau zan oso, eta aindu zon hiltzeko Belenen ta bere ingurumari guzin zien bi urtez behetiko ume guzik, izarra agertu zan konformidaden, zein [Magoandi] jakin zon.

17. Ordun ikusi zan kunplitue Jeremias profetak lendik esan zona esanez:

18. *Raman'e aitu zien deadarrak, near asko ta oihuk; Rakel da bere umez near eiten dona, konsolau nahi ezik, zeati ez dien gehiao.*

19. Gero, Herodes hill ondon, Jaunen aingeru bat agertu zitzekon Josei amesetan Ejiton,

20. Esanez: «Jaiki zaite, eta har zazu umea, eta haen ama, eta zoaz Israelgo lurrea, zeati hil die umeri bizie kendu nai zioenak».

21. Jaikita hartu zon Josek umea, eta haen ama, eta etor zan Israelgo lurrea.

22. Baño aituik Arkelaok aintzen zola Judean Herodes bere aiten ordez, ikatu zan harutza jutea, eta abisatuik amesetan, Galileako lurrea erretirau zan.

23. Eta Nazaret izena don herri batea [bizitzea etor zan]; modu hontan kunplituz Profetan esana: *Nazareno deitue [izango da].*

HIRUGARREN KAPITULUE

Joan aurrea bialduk predikatzen do eta (bataia)tzen do.
Jesusek nahi izan zon (Joanek bataia)tue izan.
Aitzea eman zon Jainkon seme bakarra zala.

1. Denboraldi hartan ikusten zan Joan Batista Judeako basamortun predikatzen.
2. Eta esanez: «Ei'zazue penitenzie, zeati gertu dao zerutako erreinue».
3. Hau da hura zeñeaz esan zan Isaias Profeteandi:

Basamortun deadar eiten donan boza [da] esanez: presta zazue Jaunen bidea, ei'tzezue zuzen haren bidetxiorrak.

4. Joan kamelu illesko soin batekin zebillen, eta narruzko ugal bat bizkarrean, eta haren janarie zan matxinsaltokarie ta basaeztie.
5. Jerusalengo jendea eta Judea guztiti eta Jordango erribera guztiti zijotzen ba haen billaka.
6. Eta hareandi errezibitzen zoen (bataioa) Jordanen, euren pekatuk konfesauta.
7. Baño nola fariseotar ta saduzeotar asko ikusten zitun be (bataio)ra etortzen, esan zien:

–Ziraun arrazak! Zeñek erakuts'izue ikusten zatzuen aziokin bakarrik iges ein dezaiokezuela datorkitsuen [hasarreri]?

8. Ei'tzezue ba penitenziri digno zakon frutuk.
9. Eta ezazue esan zuen usten «Abrahan daukeu aitetzat». Zeati nik esate'izuet zein aldona dan Jainkoa harri hotati bertati jaio eraiteko semek Abrahani.
10. Beira zazue gero aizkora haundie arrimatue daola arbolan zuztarrea. Eta frutu ona ematen ez don arbola guzie ebaie izango da, eta surta botea.
11. Nik, egie da, (bataia)tzen zaituet urekin penitenzie eraiteko; baño ne ondoti etorri behar dona ni'paño gehiao dezakena da, eta enaiz digno sikira hari zapatak eramateko're; hura da (bataia)tu behar zaituena Espiritu Santun eta sun.
12. Hark bere eskutan dauke arrastelue; eta [ederki] garbituko do larrañe, eta bere garie (aletegi)n sartuko do, baño lastok erreko'itu itzali ezin daiteken su baten».
13. Denbora hontan Jesus [Galileati Jordana] etor zan Joanen billa, honeandi (bataia)tue izateko.
14. Baño Joanek etzon nahi esanez:

–Ni zuandi (bataia)tue izan behar det, eta zu niana zatoz?

15. [Jesusek] erantzun zion esanez:

–Utzi ezu oain eiten, zeati hala komeni da kunpli dezaula justizi guzik. Ordun Joanek ein zon hark nahi zona.

16. Ba Jesus (bataia)tuta ureti eta[a] bezin laister, zeru[e] ireki zitzekon, eta Jainkon Espiritue [ikusi zon uson antzea jatxitzen], eta bere gañen atxeten.
17. Eta zeruko boz bat [aitu zon] ziona: «Hau da ne seme maitea, zeñean daukean ipinie nere poz guzie».

LAUGARREN KAPITULUE

[Jesusen balurre ta tentazioa. Galilea itzultzen da.
Kafarnaunen bere bizitokie. Predikatzen hasi.
Ikastzallek inguratu eta jende askok segitzen dioe..

1. Denbora hartan Jesus Jainkon Espiritu[ek] eamana izan zan basamortura, han [deabruk] tentatue izan zediñ.
2. Eta berrogei eun ta berrogei gauen balur ein ondoan, gosea izan zon.
3. Ordun arrimatuik, tentatzallek esan zion:

–Jankon semea baza, ezazu harri horik ogi bihurtu ditezela.

4. Baño Jesusek erantzun zion:

–Eskribitue dao: *Ezta gizona ogikin bakarrik bizi, baizik Jainkon ahuti etatzen dan eozeiñ hitz ero buruzbidekin.*

5. Honen ondoen deabruk Jerusalengo herri santura [eaman zon] eta elizek don alturaik haundinen [ipin zon].
6. Eta esan zion:

–Jainkon semea baza, bota zazu zere burue emendi behera. Ba eskribitue dao: *Be aingeruai (gomendatu) zaitula, zeintzuk hartuko zaituen euren esku zabaletan, harrin baten estraputzen ein ez dezazun.*

7. Jesusek erantzun zion:

–Eskribitue're dao: *Ez dezu tentatuko zure Jainko Jaune.*

8. Deabruk eaman zon oaindik'e mendi punta altu batea, eta munduko erreino guzik [eakutsi zion] eta han glorie.
9. Eta esan zion:

–Gauza hok [g]uzik emango'izut ahuzpez jarrita adoratzen banazu.

10. Ordun Jesusek erantzun zion:

–Alde'izu horti, Satanas! Zeati eskribitue dao: *Adorauko'ezu zure Jainko Jaune, eta hura bakarrik serbituko'ezu.*

11. Horrekin utzi zion deabruk, eta hona nun [alderau] zitzekon aingeruk eta serbitzen zoen.
12. Gero Jesusek aitu zonen Joan preso sartue izan zala, [Galilera] erretirau zan.
13. Eta Nazareteko herrie utzita, Kafarnaura bizitzea [jun zan], itxaserrie, Zabulonen ta Neftalinen mugan.
14. Zekin kunplitu zan Isaias profet[a]k esan zona:
15. *Zabulongo ta Neftalingo lurre, nundi Tiberiasko itxasora [juten dan] Jordanen beste aldera, jentilen Galilea.*

16. *Herri honek, zegin illunpetan [zegon] argi haundi bat ikusi do, zein etorri dan heriotzen itzalpetako herrin bizi zienai argi eitea.*

17. Ordutik hasi zan Jesus predikatzen eta esaten: «Ei'zue penitenzie, zeati [zeruko] erreinue gertu dao».

18. Eun baten Galileako itxasertzen zebillela, Jesusek bi anai [ikusi zitun], Simon, Pedro zeitzona, eta Andres bere anaie, itxason sarea botatzen, ba arrantzalek zien.

19. Eta esan zien: «Segi'ezue niri, eta nik gizonan arrantzale eraingo zaituet».

20. Behalaxe bik sarek utzita seitu zioen.

21. Aurreago junda, beste bi anai ikusi zitun, Santiago Zebedeon semea, eta Joan bere anaie, eurek sarek konkpontzen ai ziela txalupan, euren aite Zedebeokin. Eta hots ein zien.

22. Hak'e euren sarek eta aite behala utzita, seitu zioen.

23. Eta Jesus Galilea guzie korritzen zebillen, sinagogatan eakusten., eta ebanjelioa ta zeruko erreinuko berri ona predikatzen, eta min jenero guzik eta gaixotasun guzik sendatzen herriko jendetan.

24. Zekin banau zan Siria guztin haen famea, eta gaixo zeren guztik [presentatzen zioen] eta gaitz jenero gogor askokin larrituk, deabruz betek, tanteltsuk, perlesik jok; eta sendatzen zitun.

25. Eta Galileako, Dekapoliko, Jerusalengo, Judeako ta Jordanen beste aldeko jende pilla haundi batek [seitzen zion].

BOSGARREN KAPITULUE

[Jesusen sermoie mendin. Zortzi zorionekoak.
Apostolok lurreko gatza ta argie. Jesus eta legea.
Hitz bidebaeko, aiskidetzen, biotzezko adulterion,
etsaianako amorion eta kristauen perfezion gañen.]

1. Baño Jesusek jende pilla hura guzie ikusita, mendi batea [igo zon, nun jarrik, be ikastzallek alderau zitzekon].

2. Eta bere jainkozko ahua zabalduta, dotriñea [erakusten zien] esanez:

3. –Zorionekok espirituz pobrek, zeati hana dan [zeruko] erreinue.

4. Zorionekok mansok eta umillek, zeati hak mendeauko doe lurre.

5. Zorionekok near eiten doenak, zeati hak izango die poztuk.

6. Zorionekok justizin gose ta egarri dienak, zeati hak izango die asek.

7. Zorionekok errukizkok, zeati hak ítxiko doe errukie.

8. Zorionekok euren biotza garbie doenak, zeati hak ikusko doe Jainkoa.

9. Zorionekok bakezalek, zeati hak izango die deituk Jainkon semek.

10. Zorionekok justiziegaiti persekuzioa doenak, zeati hana da [zeruko] erreinue.

11. Zorionekok izango zate ni naizela mendiante gizonak maldezitu ta persegitzen zaituenen, eta gaitz jenero guzik gezurrekin zuen kontra esaten dituenen.

12. Poztu zaitezte ordun, zeati guztiz haundie da [zerun] itxoten dizuen sarie; modu hortan bertan persegitu zituen zue'paño lenao izan dien profetak.

13. Zuek zate lurreko gatza. Eta gatza lelatzen ba, zekin itzuliko zako saborea? Ezertako ezta gauza, ezpada botatzeko ta jendek zapaltzeko.

14. Zuek zate munduko argie. Ezin estali liteke mendi baten gañen eindako erri bat.

15. Etzaio're irazeiten argiri imillaunpe baten ipintzeko, ezpada kandelero baten, etxeko guziai argi ein deien.

16. Drist ein beza horla zuen argik gizonan aurren, zuen obra onak ikusteko modun, eta glorifika dezen [zerun] dagon zuen aite.

17. Ezazue uste ni etor naizela legeko dotrinean arrasatzea, ezta profetana're; enaiz etorri arrasatzea, baizik kunplimentu ematea.

18. Ba egi-egie esate'izuet, zeruk eta lurrek lenao faltauko doela, legek dauken guzie ondo kunplitu bae utzi baño, haen aizkeneko izpi bateaño.

19. Eta [hala] mandamentu hotakon bat hausitzen dona izan diteken txikinak iritzigaiti, ero gizonai eakusten diena hala eiten, danetan txikintzat eukiko da, hau da ezereztzat [zeruko] erreinun; baño gordetzen dituna ta erakusten dituna haunditzat eukie izango da [zeruko] erreinun.

20. Zeati nik esate'izuet, balin zuen justizie ezpada fariseon ta Erakustzellena baño osogoa ta haundigoa, etzatela sartuko [zeruko] erreinun.

21. Aitu'ezue zuen aurrekoai esan zitzaiela: *Ez dezu hilko*, eta iñor hiltzen dona, juizion hiltzea kondenatue izango dala.

22. Nik gehiao esate'izuet: bere anaiei [gorrotoa hartzen dion] erozeiñek, juezak kondena dezala [meziko do]. Eta «txoroa» esaten dionak mereziko do konziliok kondena dezala. Baño «txoroa» esaten dionak infernuko surtara botatzeko kulpea izango do.

23. Horreati balin zure ofrendea aldaren presentatzeko garaien, han akordatzen baza zure anaiek badola kejan bat zure kontra,

24. Aldare aurren hantxe bertan utzi zazu zure ofrendea, eta aiskidetu zaite lenengo zure anaiekin, eta gero itzulko za zure ofrendea presentatzea.

25. Konpon zaite gero zure kontrariokin harekin biden zan bitarten, juezan eskutan etzaitzen ipini, eta juezak meñonetan entregau eta etzaitzen kartzelan sartu.

26. Aseguratze'izuet etzala handik irtengo aizkeno marabirie pagau arte.

27. Aitu'ezue zuen aurrekoai esan zitzaiela: *Ez dezu adulteriok eingo*.

28. Nik gehiao esate'izuet: andra bati hareanako deseo txarrakin [beiratzen dion erozeiñek] adulterau zola bere bihotzen.

29. Balin zure eskubiko begie bada zutzat pekatu eiteko okasio bat, etaa zazu eta zuandi kanpoa bota; ba hobe zaitzu zure mienbrotako bat galtzea, zure gorputz guzie infernura botea izatea baño.

30. Eta baldin zure eskubiko eskuk eskandalorako ero pekatu eraiteko serbitzen baizu, ebai zazu eta bota zazu zuandi urrutia; ba hobe zaitzu zure mienbro bat galtzea, zure gorputz guztie infernua jutea baño.

31. Esan da: *Bere andrea [utzitzen don erozeiñek] eman beio deseskondun agirie*.

32. Baño nik esate'izuet: bere andrea [usten don erozeiñek], adulterioa dala mediante ezpada, adultera izateko peligron jartzen dola; eta beste utzitako andrekin eskontzen dana're adulteroa dala.

33. Aitu're dezue zuen aurrekoai esan zitzaiela: *Ez dezu juramentu falsoik eingo, baizik Jaunei ein ziondun juramentuk [kunplituko'ituzu]*.

34. Nik gehiao esate'izuet: ez dezazuela iñola're juramentuik ein motibo justue bae *zerugaitik'e, ba Jainkon tronoa da*.

35. *Ez lurregaitik'e, ba haren oñetako aulkie da*; ezta Jerusalenatik'e, *zeati errege haundin herrie ero kortea [dan]*;

36. Ez dezue juramentuik eingo zuen buruegaitik'e, ba ez dezue ille bat bakarrik zuritzeko ero bestutzeko eskubideik.

37. Zuen hitz eiteko modue izan bedi ba «bai», bai [danen] ero «ez», ez [danen]; ba horti gañerakoa hasiera txarreti dator.

38. Aitu'ezue esan zala: *Begie begintzat, eta hortza hortzantzat*.

39. Baño nik esate'izuet ezaiozuela indarrik ein injuriri, baizik balin norbaitek eritzen bazaitue eskubiko matraillan, itzul iozue bestea're.

40. Eta tunikea kentzeko auzie eman nahi dizunai, [emaiozu] kapea're;

41. Eta bi milla pauson kargatue jutea behartzen zaitunakin, zoaz beste bi millan.

42. Eskatzen dizunai emaiozu, eta ez iozu ipini arpegi txarrik zerbait diru eskatzen dizunai.

43. Aitu'ezue esana izan zala: *Maiteuko'ezu zure laun projimoa eta -gaizki anaditu doe- zure etsaiei gorrotoa izango diozu*.

44. Nik gehiao esate'izuet: Maite itzetzue zuen etsaiek; gorrotoa dizuenai ondo egiezue eta erregu zazu persegitu ta kalumniatzen zaituenakaiti;

45. Zuen zeruko aiten antzeko semek izan zaitezten; zeñek onan ta gaizton gañea etaa eraiten don euzkie, eta [zuzenen] ta pekatarin gañea eurie ein.

46. Maite zaituenak bakarrik maitetzen baituzue, zer sari izan behar dezue? Arrendatzallek'e ez doe horla eiten?

47. Eta zuen anaiei bestei diosalik ezpadiozue eiten, zer gehiao eite'zue beste'paño? Benturez ez doe hau eiten paganok'e?

48. Izan zaitezte ba zuek zuzenak, zuen zeruko aite dan bezela ahalein guztie eiñez haren antza izateko.

SEIGARREN KAPITULUE

Limosnen, orazion eta balurren gañen.
[Ondasunek] mundu hontaako ez, ezpada zerurako.
Ona izan behar. Jainkoa ta mundue.
Jainkoanako izan behar deun konfiantzea.

1. Ez itzuela ein zuen obra onak gizonen aurren, hok ikusteagaiti, bestela ez dezue errezibituko han sarie zuen aiteandik, zein [zeruan daon].

2. Eta hala limosnea ematen dezuenen, ezdezazuela aitzea eman tronpeta soñun hipokritak eiten doen bezela sinagogatan, kalean ta plazatan, gizon[ak] onratue izateagaiti. Egiz esate'izuet sarie errezibitu zoela.

3. Baño zuk limosnea ematen dezunen, ei zazu eskubiko eskuk eiten dona eskerrekok ez ikusteko modue;

4. Zure limosnea geatu dein gordea, eta zure aitek, zeñek ikusten don danik ezkutatuna, mundu guzin aurren [emango'izu sarie].

5. Hainbat [orazio] eiten dezuenen, ez dezue hipokrita'pezela izan behar, zeintzuk berariz jartzen dien zuti sinagogatan ta kale-eskiñatan orazioa eiten, [gizonak ikusik izateko. Egiz esate'izuet euren sarie] errezibitu zoela.

6. Zuk, alrebes, orazioa ein behar dezunen, sartu zaite zure aposentun, eta atea itxita eiozu ixillik orazio zure aitei, eta zure aitek, zeñek danik ezkutatuna [ikusten don], mundu guzin aurren [emango'izu sarie].

7. Orazioa eite[a]n ezazue gehiei aitu erain nahi, fedebaek eiten doen bezela, zeintzuk uste doen aitu behar zaiela itz eiñen poderioz.

8. Ezazue ba han antzik izan nahi, ba ondo daki zuen aitek ba'ezuela premie, eskau baño lenao.

9. Horra ba nola orazioa ein behar dezuen: «Aite gurea, [zerun] zarena; santifikatue izan bedi zure izena.

10. Betor zure erreinue. Ein bedi zure borondatea zerun bezela lurren'e.

11. Emaiuzu euneoko gure ogie.

12. Eta barka iuzu gure zorrak, guk gure zordunei barkatzen dieun bezela.

13. Eta ez gaitzetzu utzi tentazioan erortzen. Baizik libra gitzetzu gaitzeti. Amen».

14. Zeati balin gizonai barkatzen badiezue zuen kontra ein dituen ofensak, zuen zeruko aitek'e barkauko'izue zuen pekatuk.

15. Baño ezpadiozue zuek barkatzen gizonai, zuen aitek'e ez dizue barkauko pekatuk.

16. Balur eite'zuenen, ezaitezte jarri arpegi tristekin hipokrita'pezela, zeintzuk itsusitzen dituen euren arpegik, balur eiten doela gizonai ikusi eraiteko. Egiz esate'izuet [euren sarie] errezibitu zoela.

17. Zuk, alrebes, balur eiten dezunen, lurrindu zazu zure burue, eta garbi zazu ondo zure musue.

18. Gizonak ezautu ez dezaten balur eiten dezula, baizik zure aitek bakarrik, zein daon gauza guztitan, danik ezkutunen'e; eta zure aitek, zeñek ezkutun pasatzen dana [ikusten don], emango dizu hareati sarie.

19. Ez itzazue ondasunek pillatu nahi izan zuentzat munduan; nun hordoiek eta sitsek deseiten ditun, eta nun lapurrek lurreti etaa ta ostutze'ituen.

20. Baizik bildu itzezue ondasunek zuentzat zerun, nun eztagon hordoirik eta sitsik deseingo ditunik, eta ez lapurrik'e lurreti etaa ta ostuko dituenik.

21. Zeati zure ondasune daon lekun, han dao bihotza're.

22. Zure begik die zure gorputzen argi zuzie. Zure begie sinplea balin balitz, ero garbie baleo, gorputz guzie argitue eongo da.

23. Baño gaiztoa baezu zure begie, zure gorputz guzie illundue eongo da. Ba balin zuan argik izan beharrean illunpek badie, illunpe hak eurek zeñen haundik izango ez die?

24. Iñork ezin serbitu daizke bi nausi, zeati ero batai bekaitza izango dio eta besteari amorioa, ero lenengon menden jartzen bada, despreziokin beiratuko dio bigarrenai. Ezin serbitu daizketzue Jainkoa ta ondasunek.

25. Honi daokionez esate'izuet, etzaitezte larritu zuen bizie mantentzeko behar dezuen jana arkitzeko kuidadoegaiti, ero nundi etako'ituzuen zuen gorputze estaltzeko arropak. Zer, ez do alimentu'paño gehiao balio bizik ero animek, eta jantzi'paño gorputze[k]?

26. Beira iezue zeruko hegaztiai, nola ereiten ez doen, ebaitzen ez doen, eta (aletegi)k ez dituen; eta zeruko zuen aitek alimentatze'itu. Ez dezue ba zuek konparazioik bae ha'paño askos'e gehiao balio?

27. Eta zeiñ zuetakok denboren poderioz erantzi dezaioke beso bat bere luzetasunei?

28. Eta jantzin gañen, zertako kejatu? Beira iezue kanpoko lirioai nola hazi ta loratzen dien; hak ez doe lurrik landutzen, ez hazik iruñ'e.

29. Eta hala're nik esate'izuet, Salomon'e be glori guztin haundinen etzala jantzi lirio hotako bat bezin ederki.

30. Ba balin kanpoko belar bat, zein gaur bada[n] eta loratzen da[n] eta bihar labera botatzen da[n], Jainkoak hala jantzitzen bado, zenbait hobetoago jantziko zaitue zuek fede gutxiko gizonak?

31. Hala ba etzaiteztela aitu esaten larrituik: «Nun arkituko deu zer jan ta zer eran? Nun arkituko deu zekin jantzi?

32. Paganok eiten doen bezela, zeintzuk arrabikin dabiltzen gauza hok'uzin ondoren; ba zuen aitek ondo daki zer gauza horin beharra daukezuen.

33. Eta [hala], billa zazue lenengo Jainkon erreinue eta [haren] justizie, eta beste gauza guztik osagarritzat emango zatzue.

34. Etzaitezte ba ibilli larrituik biharko euneati, ba biharko eunek berez ekarko do kuidaduik asko; eun bakoitzei asko zako ba ber-bere nekea ero lana.

ZAZPIGARREN KAPITULUE

Jesusek esaten do eztala laun[e] gaizki juzgau behar.
Orazion gañen [hitz eiten do]; zeñen estue dan zeruko bidea,
frututati ezautzen dala arbolea, eta haitz gañen
ero haree gañen eindako etxen gañen [hitz eiten do].

1. Ez itzetzue bestek juzgau, ezpa'ezue nahi juzgatuk izatea.

2. Zeati zuek juzgatze'ituzuen juizio harekin berakin juzgatuk izan behar dezue, eta neurtzen dituzuen neurri harekin berakin neurtuk izango zate.

3. Baño zuk, ze aurpegikin beiratzen diozu zure anaien begiko moteri, zuren barrun daon haberi erreparau bae?

4. Ero nola zure anaiei esaten diozu «Utzi ezu zure begiti lasto ispi hori etaa dezan», zuk zeorrek habe bat zeure begin daukezun bitarten?

5. Hipokritea! Etaa zazu lenengo zure begiko habea, eta ordun ikusko'ezu nola etaa behar dezun zure anaien begiko motea.

6. Ez iezu gauza santuk txakurrai eman, ez'e zuen perlak txerriai bota, euren hankakin kalkau ez ditzeten eta zuen kontra itzuli ta zatitu ezaitzen.

7. Eska zazue eta emango zaitzue, billa zazue eta arkituko [dezue], hotsei'zazue ta irikiko zatzue.

8. Zeati eskatzen don guzik errezibitzen do, eta billa ibiltzen danak arkitzen do, eta hotseiten donai irikiko zako.

9. Benturez, badao zuen arten norbait, be semek ogie eskatu ezkero harri bat emango liokenik?

10. Ero arrai bat eskatzen badio, suga bat emango dionik?

11. Ba balin zuek, gaiztok ero kasta gaiztokok [izanik], zuen semeai [gauza onak ematen badakizue], zenbait gauza on gehiao zuen Aite zerukok emango ez die eskatzen dioenai?

12. Eta [hala] ei'zazue beste gizon guzikin hak zuekin eitea [nahi] dezuen guzie. Zeati hau da Legen izatea eta Profetana.

13. Sartu zaitezte ate melarreti, zeati ate zabala eta bide zabalak die galdu eraiten dituenak, eta asko die handi sartzen dienak.

14. O zeñen melarra dan atea, eta zeñen estue betiko bizitza eaman eraiten don bidetxiorra, eta zeñen gutxi dien handi sartzen dienak!

15. Aparta zaitezte profeta falsotati, zeintzuk etortzen zaitzuen arkuma-narrukin mozorro jantzik, baño barruti otso jale haundik die.

16. Euren frutu ero obratati ezautuko dituzue. Benturez elorritati bildutzen die mahatsak ero sasiti pikuk?

17. Eta [hala] arbola on guzik frutu onak emate'itue, eta arbola txar guzik frutu txarrak emate'itue.

18. Arbola on batek ezin eman daizke frutu txarrak, eta arbola txar batek'e ez onak.

19. Frutu ona ematen ez don arbola guztie ebaie ta surta botea izango da.

20. Ba euren frututati ezautu daizketzue.

21. Ezta, «Jaune, Jaune!» esaten dien hura dana [zeruko] erreinun sartuko, baizik ne zeruko Aiten borondatea eiten dona, hori da [zeruko] erreinun sartuko dana.

22. Askok esango diate juizioko eun hartan «Jaune, Jaune! Ez deu ba guk asmatu zure izenen, eta (mirari) asko ein zure izenen?».

23. Baño nik ordun esango diet: «Sekula etzaituet ezautu netzat; aparta zaitezte niandi gaiztotasunen behargillek!».

24. Horreati en konseju hok aitu ta eiten ditun erozeiñek bere etxea harrin gañen ein zon gizon zuzen baten antza izango do.

25. Eta euri asko [ein zon] eta errekak gañez ein zoen eta haize gogorra [etaa zon], eta bultzada haundie [eman zion] etxe hari, baño etzan erori, harrin gañen eiñe zeolako.

26. Baño nik emate'ituan konseju hok aitu ta eiten ez ditunak bere etxea harean gañen ein zon gizon ero baten antzekoa izango da.

27. Euri asko [ein zon] eta errekak gañez ein zoen eta haize gogorra etaa zon, eta eman zion halako bultzadea etxe hari, nun eroi zan eta haundie izan zan haren ruina.

28. Azkenen, Jesusek akabau zonen hitzaldi hau, aitzen zioen herrik harrituk geatu zien haen dotrinekin.

29. Ba holako nausitasun soberano batekin eakusten zien, eta ez euren Erakustzalle ta fariseok bezela.

ZORTZIGARREN KAPITULUE

[Jesusek legentsu bat sendatzen do,
zenturionen morroi bat eta San Pedron amaiarreba.
Itxaso hasarratue ontzen do. Deabruz betek sendatze'itu.]

1. Jesus menditi jatxi zanen, jende pilla haundi batek seitzen zion.
2. Hontan, legentsu batek hura ikusi zonen, adoratzen zon esanez:
–Jaune, zuk nahi baezu, garbi naikezuke.
3. Eta Jesusek eskue luzatuta ikutu zion esanez:
–Nahi det. Geldi zaiz garbitue.
Eta behalaxe sendatue geatu zan bere legeneti.
4. Jesusek esan zion:
–Beira, gero! Ez iozu iñoi esan, baño zoaz abadena eta eskeñiozu Moisesek aindu zon doie, testimoniotzat izan dezen.
5. Eta Kafarnaunen sartzekin baten zenturion bat etaa zitzekon bidea, eta erreutzen zion,
6. Esanez:
–Jaune, ne morroi bat perlesik joa dao ne etxen oso erorie, eta guztiz asko padezitzen do.
7. Jesusek [esan zion]:
–Ni jungo naiz eta sendauko'et.
8. Zenturionek erantzun zion:
–Jaune, enaiz ni digno zu ne etxen sartzeko, baño aindu zazu zure hitzekin eta ne morroie sendatue geatuko da.
9. Ba nik'e, bestean menden naon gizon bat besteik ez izanagaiti, bati esaten diot «Zoaz» eta juten da, eta besteri «Atoz» eta etortzen da, eta ne morroiai «Hau ei'zazu» eta eiten do.
10. Hau aitu zonen Jesusek harritzen zalako aitzea eman zon, eta segitzen zioenai esan zien: «Egiz esate'izuet Israelen erdin'e eztiala arkitu horren fede haundik.
11. Hala nik aitortze'izuet etorko diela fedebaeko asko, euzkie jaiotzen dan ta sartzen dan aldeti, eta Abrahanekin, Isaakekin eta Jakobekin eongo diela mahaien [zeruko] erreinun.
12. Erreinuko semek -judiok- kanpoa illunpeta botak izango dien bitarten, han izango da nearra eta hortzan karrask eitea».
13. Gero Jesusek esan zion zenturioni:
–Zoaz eta gerta zaitzula sinistu dezun bezela.
Eta ordu hartan bertan sendatue geatu zan morroie.
14. Jesus gero Pedron etxea junik, ohian [ikusi zon] honen amaiarreba, kalenturekin.
15. Eta honen eskuri ikututa, [kalenturea] kendu zitzekon; horrekin behala jaiki zan ohiti, eta hak serbitzen hasi zan.
16. Artsaldea etor zanen, deabruz bete asko ekar zioen, eta be hitzekin espiritu gaiztok botatzen zitun, eta gaixo zeren danak sendau zitun.

17. Horrekin egitzen zala Isaias profetek antsinen esan zona esanez:
Berak be bizkar hartu'itu gure gaixotasunek eta be gaiñ hartu'itu gure gaitzek.
18. Eun baten Jesusek be burue ikusik jende askoz inguratuik, Jenezaretko [itxasoko] beste urertzera pasatzea pensau zon.
19. Eta [lege] erakustzalle batek, aldeatuik, esan zion:
–Maisue, erozeñ lekuta juten zala nik seituko'izut.
20. Jesusek erantzun zion:
–Axarik ba'itue zulopek, eta zeruko hegaztik hapik, baño Gizonan Semek ez dauke burue nun eatzik.
21. Be [ikastzalletako] beste batek esan zion:
–Jaune, utziezu zuri seitu baño lenao ne aite [hobiratzen].
22. Baño Jesusek erantzun zion:
–Segiezu zuk, eta utziezu hillai ero fedeko bizie ez doen jendeai [hobira] ditzela euren hillek.
23. Sartu zan ba txalupa baten be [ikastzallekin] baten.
24. Eta hona nun itxasoa haunditu zan hainbeste, nun olatuk [txalupea] estaltzen zoen, baño Jesus lo zegon.
25. Eta be [ikastzallek bereana alderauta] esnatu zoen, esanez:
–Jaune, salba gaitzetzu! Galtzea goaz!
26. Jesusek [esan zien]:
–Zen bildurre zue, fede gutxiko gizonak?
Ordun jaikik, haizeai ta itxasori gelditu ziteztela [aindu zien], eta onantz haundi bat [izan zan].
27. Zeñez harrituik han zeren danak, alkarri esaten zioen: «Nor da haizek eta itxasok obeditzen dioen hau?».
28. [Gadaratarren] herrin lehorreatu zanen lagon beste urertzen, haen billa [jun zien hobiratuik] zeren lekuti etaa ta, deabruz betetako bi hain koleratsuk, nun iñor etzan atrebitzen bide hartan pasatzen.
29. Eta behala hasi zien deadarka, esanez:
–Ze eiteko deu guk zuekin, Jesus Jainkon Semea? Gu'pehar baño lenao oñazetzeko asmokin honaa etor za?
30. Handi gertu txerritalde bat [zeon] larrea jaten.
31. Deabruk [Jesusi] erreutzen zioen modu hontan:
–Baldin hemendi botatzen bagaituzu, bialdu gaitzetzu txerritalde horta.
32. Eta hark esan zien:
–Zoazte.
Eurek irtenik, sartu zien txerritan; eta hona nun txerritalde guzik korritu zon laisterka burkaitz bateti amiltzea Jenezaretko itxasora, eta uretan itok geratu zien.
33. Txerrizaiek iges ein zoen, eta herrira alleau zienen, dana kontau zoen, eta batez'e deabruz betena.
34. Behala herri guzik irten zon Jesusen billa; eta ikusi zonen, erreutu zioen zijola han herriti.

BEATZIGARREN KAPITULUE

[Jesusek perlesik jotako bat sendatzen do. Mateon bokazioa.
Andra bat odol-ustzea. Jairon alaba piztu erain.
Bi itxu ta deabruz betetako mutu bat sendatze'itu.
Uzten ta langillen parabolea.]

1. Eta txalupaa sartuik, [itxason] ibilli zan eta bera bizi zan herrira [etor zan], Kalafarnauna.

2. Eta hona nun presentau zioen ohian etzine zeon perlesik jotako bat. Eta Jesusek haen fedea [ikusik], elbarrituri esan zion:

–Ne semea, izazu konfiantzea! Barkau zatzu zere pekatuk.

3. Zeñeati halako Erakustzalle batzuk zioen gero euren aren: «Blasfematzen do honek».

4. Baño Jesusek, han pensamentuk asmatuik, esan zon:

–Zeati horren gaizki pensatze'ezue zuen bihotzetan?

5. Zer da gauza errexagoa, «[Pekatuk] barkatze zatzu» esatea, ero «Jaiki zaite ta zoaz» esatea?

6. Ba jaki zazuen Gizonan Semek badola pekatuk barkatzeko eskubidea mundun.

Orduntxe bertan perlesik jota zegonai [esan zion]:

–Jaiki zaite, har zazu zure ohie, ta zoaz zure etxea.

7. Eta jaiki zan eta etxea jun zan.

8. Hau jendek ikusi zonen, bildur santu bat eureanatu zoen eta Jainkori [glorie] eman zioen, halako eskubidea gizonai eman zielako.

9. Hemendi abiauta, Jesusek gizon bat [ikusi zon] aulki ero alkabalan mahai baten jarrita, Mateo zeitzona. Eta esan zion:

–Segiezu.

Eta behala jaikita, seitu zion.

10. Eta gertau zan Jesus [Mateon etxen] mahaien zeola, arrendatzalle ta bizimodu txarreko jende asko hareana jutea, eta haekin ta bere [ikastzallekin] baten mahaien jarri zien.

11. [Fariseok ikusi zoenen, haen ikastzalleai] esaten zioen:

–Nola da ba zuen Maixuk jaten dola arrendatzalle ta pekatarikin?

12. Baño Jesusek aitu zonen, ean zien:

–Ez doe sano darenak meiku beharrik, baizik gaixo darenak.

13. Zoazte ba honako honek ze'san nahi don ikastea: *Gehiao estimatze't miserikordie sakrifizioa baño*. Zeati enaiz ni justoai penitenzira hotseitea etorri, baizik pekatariai.

14. Ordun Joanen [ikastzallek] Jesuseana presentau zien eta esan zioen:

–Ze motibo da zure [ikastzallek] balur ez eiteko, fariseok eta guk askotan eiten deun bezela?

15. [Jesusek] erantzun zien:

–Benturez gizonan aiskidek ibilli ditezke estutuik ero nearrez gizona eurekin daon bitarten? Etorko da senarra kenduko zaien garaie, eta ordun balur eingo doe.

16. Iñork ez dio oihal berrizko arabakie [eiten] soin berri bati; bestela berriz urratzen do zaharran parte bat, eta arrakara haundigoa eiten da.

17. Ez doe ardo berrie're zahagi zaharretan sartzen; zeati hau eiten balin bada, zahagie lehertzen da eta isurtzen da ardoa eta galtzen die zahagik. Baño ardo berrie zahagi berritan sartuta, bata ta bestea konserbatzen die.

18. [Konbersazio] hontan zeon, gizon jauntxo bat ero Sinagogako aintarie alleau zanen eta, adoratuik, esan zion: «Jaune, ne alaba bat ya illen dao, baño atoz, haen gañen eskue ipin zazu eta biziko da».

19. Jesus jaikita segitzen zijoakion be [ikastzallekin].

20. Eta hona jun zitzekon atzeti andra bat, zeñek padezitzen zon odol-ustze bat hamabi urte hartan, eta ikutu zon haen soñen ertza.

21. Zeati hark bere arten esaten zon: «Haen soñe ikutu bakarrik ahal badezat, sendaue arkituko naiz».

22. Jesusek itzulik eta beiratzen ziola, esan zion: «Alaba, izazu konfiantzea! Zure fedek salbau zaitu». Eta [hala], orduntxe bertati andra hura [sendaue] geau zan.

23. Jesus gizon jauntxo haen etxea etorta, flauta jotzallek ero musika negargarrie ta jenden bullea [ikusik], esaten zon:

24. «Erretirau zaitezte! Eztao umea ille, ezpada lo». Eta burla ein zoen hartaz.

25. Jendea kanpoa botata, sartu zan eta [eskuti] hartu zon. Eta umea jaiki zan.

26. Gertaera hori banau zan herri hartan guzin.

27. Jesus leku hartati irtenda, bi itxuk [segitu zioen] deadarka esanez: «Dabiden Semea, erruki zaite guzaz!».

28. Etxea alleau zanen, bi itxu presentau zitzekon. Eta Jesusek esan zien:

–Uste zue nik ein daikeala eskatze'zuen hori?

–Bai, Jaune –[esan zioen].

29. Ordun [begitan] ikutu zien, esanez:

–Zuen feden gixa eiñe izan zaikitsuela.

30. Eta [begik] iriki zitzaien, baño Jesusek debekau zien esanez:

–Beira, gero, ez dezala iñork jakin!

31. Baño hak handi irten zoenean, ingurumari hartan guztin kontau zoen.

32. Hok irten zoenen, deabruz betetako mutu bat presentau zioen.

33. Eta deabrue botata, hitz ein zon mutuk, eta oso harrituta geatu zien jendek, eta esaten zoen: «Ezta iñoiz'e halako gauzaik ikusi Israelen».

34. Fariseok esaten zoen: «Deabru prinzipen artekin botatze'itu honek deabruk».

35. Jesus herri haundi ta txiki guztitan [zebillen] sinagogatan eakusten, eta Jainkon erreinuko ebanjelioa eakusten eta gaixotasun ta gaitz guztik sendatzen.

36. Jende han ikusi zitunen, asko errukitzen zan hataz, zeati etzoen fin onik, hemen ta han etzinek dabiltzen artzai baeko ardi'pezela.

37. Horren gañen esan zien [ikastzalleai]: «Egiz, asko da uztea, baño langille gutxi.

38. Erreutu iozue ba uztan bateri, bialdu'itzela langillek be uztaa».

HAMARGARREN KAPITULUE

Hamabi Apostolon einbidea.
(Mirari)k eiteko eskubidea.
Jesusek eman zien istruziok.

1. Honen ondoren, be hamabi apostoloai hotseinta, espiritu gaiztok botatzeko eta gaixotasun ta gaitz jenero guzik sendatzeko eskubidea eman zien.

2. Hamabi Apostolon izenak die hok: Lenengoa Simon –lonbretzat {izentzat} Pedro– eta Andres bere anaie.

3. Santiago, Zebedeon semea, eta Joan bere anaie, Pilipe ta Bartolo, Tomas ta Mateo arrendatzallea, Santiago Alfeon semea, eta Tadeo.

4. Simon Kananeoa eta Judas Iskariote, saldu zona bera.

5. Hamabi hok Jesusek bialdu zitun, ondorengo istruzio hok emanda:

–Etzaitezte jun oaiñ fedebaen lurrea, ez samaritanoan herritan'e sartu.

6. Baño zoazte lenao Israelgo etxeti galdutako ardin billa.

7. Zoazte ta predika zazue, [zeruko] erreinue gertu daola [esanez].

8. Eta, zuen dotriñen prueban, senda itzetzue gaixok, piztu erai'tzetzue hillek, garbi'tzetzue legentsuk, bota itzetzue deabruk: ema'zazue doiez doiekin errezibitu dezuena.

9. Ezazue eaman urreik, [z]illarrik ero bat'e diruik zuen poltxikotan.

10. Ezta bideako alporjaik'e, ezta tunika bat eta pare bat zapata besteik'e, eta ezta zuen burue defenditzeko makilla ero beste armaik'e; zeati lan eiten donak defenditzea mezi do.

11. Erozeiñ herri ero aldean sartzen zatela, informa zaitezte zein dan gizon prestue ero zuek haen etxean alojatzeko onrea izan dezkena; eta eon haen etxen zuek handi abiau arten.

12. Etxen sartzen, zuen diosala iza behar da: «Bakea izan bedi etxe hontan».

13. Ba etxek mezi balin bado, etorko zako pakea; baño ezpado mezi, zuen bakea zuekin itzulko da.

14. Ezpazaitue errezibitu nahi, eta ez zuen hitzek'e aitu, halako etxeti {etxetik} ero herriti irtetzen astindu itzetzue zuen oñetako hautsek.

15. Egiz esate'izuet Sodoma ta Gomorra baño gogorrao tratatue izango dala halako herrie juizioko eunen.

16. Beira gero nik bialtzen zaituela ardik otso tarten bezela. Horreati sugarrasak bezin prudentek eta usoa bezin senzillok izan behar dezue.

17. Baño zabizte kontuz halako gizonakin! Ba tribunaleta salauko zaituzte, eta sinagogatan azotek emango'izue;

18. Nere kausen mediante gobernadore ta erregean aurrea eamanak izango zate, hai eta nazioai ne testimonioa emateko.

19. Baño han aurrea agertu eraite'izuenen, ez dezazuela izan kuidadoik nola ero ze'san behar dezuen; ordu hartan bertan emana izango zatzue esan behar dezuena;

20. Zuek etzeaten kason ordun hitz eiten dona, ezpada zuen Aiten Espiritue, zeñek hitz eiten don zuekaiti.

21. Ordun anaie batek bestea entreauko do heriotza, eta aitek semea, eta semek [gurasoen] kontra jeikiko die, eta hill eaingo'itue.

22. Eta zuek [guziek] gorrotatuk izango zate ne izena dela mediante; baño aizken arte irauten dona salbatuko da.

23. Bienbitarten, herri baten persegitzen zaituenen, iges ei'zazue bestera. Egiz esate'izuet ez dituzuela Israelgo herrik konbertituko, Gizonan Semea etorri baño lenago.

24. Ezta [ikastzallea] bere maisue baño lenao, ezta morroie're bere nausie baño.

25. Asko zako [ikastzalleri] bere nausie bezela tratatue izatea; eta morroiei bere nausie bezela. Balin familitako bururi Beelzebub deitzen badioe, zenbaitez gehiao haen etxekoai?

26. Baño ez dezaiozuela horreati bildurrik izan! Zeati ezer'e eztao estalik, agertu behar ez donik; ezta ezkutatutik'e, jakingo eztanik.

27. Gauez esaten dizuteana, eun argiz esa'zazue; eta belarrira esaten dizuteana, etxe gañetati predika zazue.

28. Ez iezue bate bildurrik izan gorputze hiltzen doenai eta animea ezin hil donai; izaiozue bildur gehiao gorputze ta animea infernua bota daizkenai.

29. Ezta [hala] bi txori saltzen diela koarto batean? Eta [hala]'re ez bat eta ez beste eztiela eroiko lurrea zuen Aitek aindu bae?

30. Zuen buruko ille guztitaño dare kontatuk.

31. Ez dezue ba bildurrik izan behar: txori asko'paño gehiao zuek balio dezue.

32. Aizkenen, gizonan aurren Mesiastzat ezautu ta aitortzen nauen hura guztie nik'e ezautuko'et eta haen alde izango naiz ne Aiten aurren, zein [zeruan] daon;

33. Baño gizonan aurren [ukatze dienai], nik'e ukauko diot ne Aiten aurren, zein [zeruan] daon;

34. Ez dezue pensatu behar ni etor naizela lurrea bakea ekartzea, baizik gerrea.

35. *Semea be aiteandi, eta erreñe be amaiarrebandi* [apartatzea etor naiz].

36. Eta *gizonan kontrariok ber-bere etxeko personak die.*

37. Ama ero aite ni baño gehiao maite donak ez do nerea izatea mezi; eta semea ero alaba ni baño gehiao maite donak'e ez do mezi nerea izatea.

38. Be kurutzekin kargau ta seitzen ez diena ezta ne gogokoa.

39. Animen kostura be bizie galtzen donak arkituko do berriz bizie.

40. Zuek errezibitzen zaituenak ni errezibitzen nau, eta ni errezibitzen nauenak ni bialdu nauen hura errezibitzen do.

41. Profeta bati ostatue ematen dionak profetea dalako, profeten saria errezibituko do; eta [zuzen bati ostatue ematen dionak zuzena dalako, zuzenen] eskerra izango do.

42. Eta erozeiñek ematen diola eraten baso bat ur fresko txikitxo hotako bati ne [ikastzallea] dalako bakarrik, emate'itzuet hitze ez dola galduko haren sarie.

HAMAIKAGARREN KAPITULUE

[Joan Batistak Jesusi be ikastzalletako bi bialdu.
Jesusek be aitzailleai Joanen gañen esan ziena.
Herri sinisgorrak. Jaunen uztarrie suabea da.]

1. Jesusek istruzio hok be hamabi [ikastzalleai ematez akabau zonen, handi] jun zan euren herritan eakutsi ta predikatzeko.

2. Baño Joanek kartzelan Kriston obra harrigarrik [aitu zitunen], bere [ikastzalletako] bi bialdu zitun galdetzea:

3. –Zu za etorri behar don Mesias, ero beste bati itxon behar diou?

4. Jesusek erantzun zion:

–Zoazte ta kontaiozue Joani aitu ta ikusi'ezuena.

5. Itxuk ikusten doe, herrenak badabiltz, legentsuk garbituk geatzen die, gorrak aitzen doe, hillek pizten die, ebanjelion berrie ematen zaie pobreai.

6. Eta zorionekoa niaz eskandaloako okasioa hartzen ez don hura.

7. Hok jun zien ordun, Jesus Joanen gañen hitz eiten [hasi zan] eta esan zion herriri:

–Ze ikustea irten zenduen basamortura? Erozeiñ haizek mogitzen don kañaberan bat ikustea?

8. Bestela e[s]a'iezue, zer ikustea irten zenduen? Gizon bat lujoz ero ergelkeriz jantzie? Badakizue horla jazten dienak erregen palaziotan darela.

9. Baño, ze ikustea irten zenduen? Profetan bat? Hori bai, nik aseguratze'izuet, eta profetea baño askos'e haundigoa.

10. Hura da zeñeati eskribitue daon: *Beira gero nik bialtzen diala aingeru bat zure aurrea, zein jungo dan zure aurreti bidea maneatzen dizulaik.*

11. Egiz esate'izuet, andratati jaio dien semetan iñor'e eztala izan Joan Batista baño haundigoik, nahiz [zeruko] erreinun daon txikina hura baño haundigo izan.

12. Joan Batistan denboratik oaiñ arteaño, indarran medioz iritxitzen da [zeruko] erreinue, eta ber-beretzat eiten doenak die irabazten doenak.

13. Zeati profeta danak, eta legek Joaneaiño, ai erain {aitu erain} zoen etorkizune.

14. Entenditu nahi ba'ezue, hura bera da etor behar zon Elias hura.

15. Belarrik entenditzeko dauzkenak ai dezala.

16. Baño gizon kasta hok nokin konparau'itut nik? Plazan jarrita daren mutillan antza [dirudi], zeintzuk euren launetako batzuai hotseinta,

17. Esaten die: «Kanta alegrek entonau dizueu, eta ez dezue dantzarik egin; kanta tristek'e bai, eta ez dezue nearrik ein».

18. Joan [etor zan], zeñek ez jan ta ez eran eiten zon, eta esaten doe: «Deabruk hartue dao».

19. Gizonan Semea [etor da], zeñek jan ta eran eiten don, eta esaten doe: «Hona'men tripontzi bat eta ardo erale bat; arrendatzallen ta bizimodu txarreko jenden aiskidea!». Baño jainkozko jakindurie justifikatue dao bere semekiko.

20. Ordun hasi zan lotsaien ematen (mirari) asko ta asko ein izan zitun herriai, zeati etzoen ein penitenzie.

21. –A zorigaiztoko Korozain! O zorigaiztoko Betsaida! Balin zuetan ein dien (mirari)k Tiron ta Sidonen ein bazien, aspaldi eingo zoen penitenzie, hautsez ta zilizioz estalik.

22. Horreati esate'izuet Tiro ta Sidon eztiela zue'peziñ gogor tratatuk izango juizioko eunen.

23. Eta zuk, Kafarnaun,

pensatze'zu benturez zeruraño jaikitzea? Izango za, bai, infernutaño beheratue!

Zuan ein dien (mirari)k Sodoman ein bazien, Sodomak apike gaur dan eunen iraungo zon.

24. Horreati esate'izut Sodomako herrie eztala izango zu bezin gogor kastigaue juizioko eunen.

25. Denbora hartan deadar ein zon Jesusek esanez:

–Nik glorifikatzen zaitut nere Aite, zeruko ta lurreko Jaune, gauza hok ixilik euki diezulako oaingo gizonan denborako jakintsu ta prudentai, eta erakutsi diezu txikitxoai.

26. Bai, nere Aite, alabatue izan zaite, zuk onitzi diozulako hala izan deilla.

27. Ne Aitek gauza guzik ne eskutan ipini'tu. Baño iñork ez do ezautzen Semea, ezpada Aitek, eta ez do Aite're iñork ezautzen baizik Semek, eta Semek ezautu erain izan dion hark.

28. Atozte nereana lanakin ta kargakin makurtuik zabizten guziok, ba nik arinduko zaituet.

29. Har zazue nere uztarrie zuen gañen, eta ikasi zazue niandi, ba mantsoa ta bihotzez umille naiz; eta zuen animantzat arkituko'ezue atxena.

30. Zeati nere uztarrie suabea da, eta nere kargea ariñe.

HAMABIGARREN KAPITULUE

[Jesus, ikastzallek eta zapatue.
Eskue igartue zeuken bat sendatzen do.
Espiritu Santun kontrako pekatun gañen.
Jonasen (miraria). Hegoialdeko Erreiñea.]

1. Denbora hartan, zapatuko eunen Jesus ereñ batzun ondoti [zijoala, bere ikastzallek] gosea izanta hasi zien gari buruk hartu ta bikorrak jaten.

2. Eta fariseok ikusi zituenen, esan zioen:

–Beira zure [ikastzallek] eiten doela zapatun libre eztana.

3. Baño hark erantzun zien:

–Ez dezue leitu Dabidek ein zona, bera ta bekin zijotzen lagunek gosek larrituik euren buruk ikusi zituenen?

4. Nola sartu zan Jainkon etxen eta jan zitun proposizioko ogik, zeintzuk ezin jan zeizketen ez hark eta ez haenak, ezpada abadek bakarrik?

5. Ero ez dezue legen leitu abadek elizan lan eiten [doela zapatun, eta hala] guziz'e ez doe pekatuik eiten?

6. Ba nik esate'izuet hemen daola elizea baño haundigoa dan bat.

7. Ba zuek balin bazekizue ondo ze'san nahi don *Nahigo'et miserikordie sakrifizioa baño*, beñ'e etzituzuen inozentek kondenauko.

8. Zeati Gizonan Semea zapatun jabea're da.

9. Handik irtenda, euren sinagogan sartu zan.

10. [Han] esku bat igartue zeuken gizon bat [zeon, eta fariseok] Jesusi galdetu zioen, salatzeko motiboa arkitzeagaiti:

–Libre [da] zapatuko eunen sendatzea?

11. Baño hark esan zien:

–Zein gizon izango da zuetan, ardi bat izan eta balin hau errteen batea eroitzen bada zapatuko eunen, jaso ero kanpora etako ez dona?

12. Ba zenbait gehiao balio do gizon batek ardi bate'paño? Beraz libre da ondo eitea zapatuko eunen.

13. Ordun [gizonai] esan zion:

–Luza zazu esku hori.

Luzau zon, eta beste eskue bezin sendaue geau zitzekon.

14. Baño fariseok irtenta, [haen kontra] juntau zien sesiok billatu, eta hura galtzeko.

15. Baño Jesusek igarri zionen erretirau zan, eta gaixo askok seitu zioen, eta danak sendau zitun.

16. Hainbeste bider esanez etzezela agertu [bea nor zan].

17. Zekin kunplitu zan Isaiasen profezie, zeñek dion:

18. *Ikusi zazue hor ne mendekoa, zein daukean nik hautue, ne maitea, zeñean pozez bete dan nere animea. Honen gañen ipinko'et ne espiritue, eta nazioai aitu eraingo die justizie.*

19. *Ez da iñokin porfiauko, ez do ogik eingo, eta ez do iñork aituko haren bozik ero deadarrik plazatan.*

20. *Ezta zatituko kañabera hausie, ezta itzal[duko]'e oaindi kea botatzen don metxea, bere kausen justiziri triunfau erain arte.*

21. *Eta haren izenen Naziok ipinko doe euren esperantzea.*

22. Denbora hartan izan zitzekon eamana deabruz bete bat, itxue eta gorra, eta ber-bertati hitz ein ta ikusteko modun sendau zon.

23. Herri guztie harritue geatu zan eta esaten zon: «Hau izango ote da Mesias Dabiden semea?».

24. Baño fariseok aituik, esaten zoen:

–Honek ez ditu deabruk botatzen, Beelzebub deabruan prizipen bitartez ezpada.

25. Ordun Jesusek igarrik zer zeuken gogon, esan zien:

–Euren kontrako puskatan partitzen dan erreinu guztie, galdue izango da; eta erozeiñ herri ero etxe bandotan partituk'e, ez do iraungo.

26. Eta Satanasek kanpoa botatzen bado Satanas, bere burun kontrakoa da; nola ba iraun daike haen erreinuk?

27. Nik botatzen ba'itut deabruk Beelzebuben izenen, zuen semek zeñen izenen botatze'itue? Horreati horik eurek izango die zuen juezak.

28. Baño nik deabruk botatzen ba'itut Jainkon espiritun birtutez, hemendi dator iñolaz'e Jainkon erreinue ero Mesias zueta alleau dala.

29. Ero bestela, esaiezue: nola da posible sartu deilla bat gizon azkar baten etxen eta ostu deiola bere ondasunek, ezpada lenengo azkarra ondo lotzen? Ordun sakeau dezaioke etxea.

30. Ne alde eztaona ne kontra dao, eta nekin bitzen {biltzen} ez donak zabaltzen do.

31. Horreati aitortze'izuet: Erozeiñ pekatu ta erozeiñ blasfemi barkauko zaie gizonai, baño Jainkon espiritun kontrako blasfemie ezta haiñ errez barkauko.

32. Eta igoal Gizonan Semen kontra hitz eiten don erozeiñi barkauko zako; baño Espiritu Santun kontra honen grazie despreziatuz hitz eiten donai, etzako barkauko ez bizitza hontan ta ez besten.

33. Ero bestela ezazue arbolea onda dala, eta ona haen frutue, ero arbolea txar[tz]at badaukezue euki zazue haen frutue're txar[tz]at; frututi ezautzen dan kason nolako arbolea dan.

34. O ziraun kastak! Nola da posible zuek gauza onik esatea, izanik, zaten bezela, gaiztok? Bihotzeko ugaritasuneti ahuak hitz eiten don ezkero.

35. Gizon onak be bihotzeko fondo oneti gauza onak etaatze'itu, eta gizon gaiztok be fondo txarreti gauza gaiztok etaatze'itu.

36. Nik esate'izuet gizonak esate'ituen erozeiñ hitz alperren kontue're eman beharko doela juizioko eunen.

37. Zure hitzetati justifikatue izan beharko'ezu, eta zure hitzetati kondenatue.

38. Ordun Erakustzalle ta fariseotako batzuk hitz ein zioen, esanez:

–Maixue, (mirari)n bat eiten ikusi nahi zindukeu.

39. Hark erantzun zien:

–Jende txar ta adultera honek (mirari) bat eskatzen do, baño etzako emango eskatzen dona, baizik Jonas profeten (miraria).

40. Zeati *Jonas balen sabelen hiru eun ta hiru gauen eon zan* bezela, Gizonan Semea're eongo da hiru eun ta hiru gauen lurren barrun.

41. Ninibetarrak jaikiko die juizioko eunen gizon kasta honen kontra, eta kondenauko doe, Jonasen predikazioz eurek penitenzie ein zoelako. Eta [hala]'re hemen daona Jonas baño gehiao da.

42. Hegoialdeko Erreiñea {Erregiñea} izango da gizon kasta gaiztoko honen kontrako salatzalle juizioko eunen, eta kondenau do, lurren azkeneko ertzetati etor zan ezkero Salomonen jakinduri aitzea, eta [hala]'re hemen daukezue Salomon baño haundigoa dana.

43. Gizonen bateti irten donen espiritu gaiztok, bateti bestea dabil leku lehorretan, be jarlekue nun eingo don billaka, iritxi bae.

44. Ordun esaten do: «Ne etxea [itzuliko naiz] etor naizen bideti». Eta harutza itzulik [hutsik] billatzen du, ondo garbitue ta apaindue.

45. Horrekin juten da, ta [bekin] hartze'itu beste zazpi espiritu bera baño gaiztogok, eta han sartuta bizitzen die, eta [hala] gizon honen aizkeneko estadue lenengona baño errukigarrigoa izatea dator. Hala gertatu behar zako gizon kasta guztiz bihurri honi.

46. Oaindik'e Jesus hizketan ai zan herrikokin, eta hona nun be ama ta anaiek zeren kanpon bekin hitz ein nahien.

47. Eta [hala] batek esaten zion:

–Beira zure ama ta zure anaiek han kanpon darela zure galdez.

48. Baño hark esaten zionai erantzunez esan zion:

–Zein da ene ama, eta zeintzuk die ne anaiek?

49. Eta bere [ikastzallek] eskukin eakutsiz [esan zon]:

–Hok die ne ama eta ne anaiek.

50. Zeati ne Aite zerutan daonan borondatea eiten don erozeiñ, ne anaie, ne arreba, eta ne ama da.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUE

Jesusek parabolatan [predikatzen do].
Mostaza bikorren, beantzagin eta ondasunen parabolak.
Perla ederran eta arraiez betetako saren parabolak.
Profetea onoreik bae bere jaioterrin.

1. Eun hartan, Jesus be etxeti irtenda jun zan eta itxas ertzen [jarri zan].

2. Eta [halako] jende pillea juntau zan haen ingurumarin, nun [txalupa baten] sartu behar izan zon eta han jarri. Eta herri guztie urertzen zeon.

3. Zeñi gauza askon gañen hitz ein zion parabolan bitartez, esanez: «Behin baten ereiñtzalle batek ereitea [irten zon].

4. Eta bikorrak banatzen, batzuk biden ondon eroi zien, eta zeruko hegaztik etorrita jan zituen.

5. Beste batzuk harri artetan eroi zien, nun lur gutxi [zeon], eta behala irten zoen, txit lur gañen zerelako.

6. Baño euzkie jaio zanen erre zien, eta igartu zien bate zuztarrik kasi etzoelako.

7. Beste bikor batzuk antza tarten eroi zien, eta hazi zien antzak, eta ito zituen.

8. Beste batzuk, aizkenen, lur onen [eroi zien] eta frutue [eman zoen], buru batek eun, beste batek hirurogei, beste batek oetamar eta [hala].

9. Belarrik dauzkenak entenditzeko, ai dezala».

10. Gero arrimatuik bere [ikastzallek] galdetzen zioen:

–Zeati hitz ein diezu parabolaz?

11. [Jesusek] erantzun zien:

–Zeati zuei eman zaitzuen [zeruko] erreinuko misteriok ezautzeko pribilejioa, eta etzaie eman hai.

12. Egie dalaik behar dona daukenai oaindik gehiao eman behar zakola, eta sobratue izango do, baño behar dona ez daukenai, kenduko dioe daukena're.

13. Horreati parabolakin hitz eiten diet, zeati eurek ikusita ez doe beiratzen ez doe konsideratzen, eta aituta ez doe kasoik eiten eta ez entenditzen.

14. Zekin datorren hotan Isaiasen profezie [kunplitzea], zeñek dion:

Aituko'ezue zuen belarrikin, eta ez dezue entendituko; eta zuen begikin beiratu ala guzigaiti, ez dezue ikusko.

15. *Zeati herri honek gogortu do bere bihotza, eta itxi'tu bere belarrik, eta estali be begik hakin ikusi ez dezaten, eta belarrikin aitu ez dezen, eta bihotzakin ez etenditzeagaiti, konbertituta, nik osasune emateko bildurrez.*

16. Zorionekok zuen begik ikusten doelako, eta zorionekok zuen belarrik aitzen doelako!

17. Egiz esate'izuet profeta ta [zuzen] askok izan zoela ikusnahi haundie zuek ikusten [ai] zatena ikusteko, eta etzoen ikusi; eta aitze'zuena aitzeo, eta etzoen aitu.

18. Ai zazue oaiñ ereintzallen parabolea.

19. Erozeiñek aitzen bado Jainkon erreinuko ero ebanjelioko hitze, eta ezpado hartan atentzio ipintzen, espiritu gaiztoa [etortzen da] ta be bihotzen ereñe izan zan hura [kentzen dio]; hau da bide ondon ereñe.

20. «Lur harritsun» ereiñe da Jainkon hitze aitu, eta ordun behintzet pozez errezibitzen don hura.

21. Baño ez do bere barrun zaiñik, ezpada gutxi irauten do; eta tristurea ta presekuzioa etorri ezkero hitzen ero ebanjelion medioz, behala honek serbitzen dio eskandalotzat.

22. «Antza tarten» ereiñe da Jainkon hitze aitzen dona, baño mundu hontako kuidaduk eta aberastasunen engañuk itotzen doe, eta [hitze frutu bae geatzen da].

23. Alrebes, «lur onen» ereiñe da Jainkon hitze aitu eta meditatzen dona, eta frutue ematen dona, batek eun, bestek hirurogei eta bestek oetamar.

24. Beste parabola bat proponitu zien esanez: «[Zeruko erreinuek] bere barrutin hazi ona ereiñ zon gizon baten antza do.

25. Baño gizonak lo eiteko garaien, halako etsai bat [etor zitzekon] eta garin erdin zalkea ereiñ, ta jun zan.

26. Garie belartue zeola, eta ia burue irtenen, zalkea're [agertu zan].

27. Ordun familitako aiten morroiek etor zitzekon eta esan zioen: "Jaune, etzendun hazi ona ereiñ zure barrutin? Ba nola dauke zalkea?".

28. [Hark] erantzun zien: "Ne etsaien batek ereingo zon". Morroiek berriz erantzun zioen: "Nahi'zu bitzea {biltzea} jun gaitezen?".

29. Zeri erantzun zion: "Ez, zalkekin baten garie're kentzea gertau ez deiñ.

30. Utz itzetzue hazitzen bat eta beste itako denbora arte; eta itako garaien ni[k] esango diet itariai: Bitu zazue zalkea lenengo, eta ei'tzetzue harekin azaok suntzat, eta gero sartu zazue garie ne (aletegin)"».

31. Beste parabola bat proponitu zien esanez: «[Zeruko] erreinue mostaza bikor baten antzekoa da, zeiñ gizon batek be eskun [hartu zon] ta be barrutin ereiñ zon.

32. Zein txikina [dan] beste hazi guztin tarten, baño hazi ezkero, beste belar guzi'paño haundigoa eiten da eta arbola eiten da, eta zeruko hegaztik jatxi ta haen adarretan atxeten doe».

33. Eta gañea parabola hau esan zon: «[Zeruko] erreinue beantzagin antzekoa da, zein hartu zon andra batek eta nahastu zon hiru zakutxo ero imillaun iriñekin, ore guztie jaikie geatu arte».

34. Gauza hok guzik esan zion Jesusek herriri parabolatan, ba ho'pae etzon predikau ohi.

35. Profetek esan zona kunplituz:

Ne ahue irikiko'et parabolakin hitz eiteko; mundue ein zaneti ixilik eon dien gauza misteriosok ai eraingo'itut.

36. Ordun Jesus, aitzallek despeituta, etxea itzuli zan, eta be [ikastzallek] erdin hartuik, esan zioen:

–Esplikaiuzu barrutin ereindako zalken parabolea.

37. Jesusek erantzun zien:

–Hazi ona ereiten dona Gizonan Semea da.

38. Barrutie mundua da. Hazi ona errei[nu]ko semek die. Zalkea espiritu gaizton semek.

39. Ereiñ zon etsaie deabrue da. Itea mundun aizkena da. Itarik aingeruek die.

40. Zalkea bitu ta surtan erretzen dan bezela, mundun aizkenen gertauko da.

41. Gizonan Semek bialduko'itu aingeruk, eta eskandaloso guztik [kenduko'itue], eta gaizki eiten doen guztik haen erreinuti.

42. Eta suko laben [botako'itue]. Han izango da nearra ta hortzan karrask eitea.

43. Denbora hartan bertan [zuzenek] drist eingo doe euzki'pezela euren Aiten erreinun. Entenditzeko belarrik dauzkenak ai dezala.

44. [Zeruko] erreinuk barrutin ezkutatue daon ondasunen antza're do, zein gizon batek arkitzen bado, berriti estaltzen do, eta pozez beteik arkitu donez, juten da eta [dauken guzie saltzen do eta barruti hura] erosten do.

45. [Zeruko] erreinue perla fiñekin tratatzen don merkatarin antzekoa['re bada].

46. Eskuta etorrik balio haundiko bat, juten da eta dauken guztie [saltzen do eta balio haundikoa erosten do].

47. [Zeruko] erreinuk bado txinga baten antza're, zeñek itxason botata bitzen ditun arrai jenero guzik.

48. Zein, beteik badao, [arrantzalek etzaten doe eta, urertzen jarrita, onanak] haututze'itue eta euren saskitan [sartze'itue], eta botatze' itue kalidade txarrekok.

49. Hala gertauko da mundun aizkenen; [aingeruk] irtengo doe eta [zuzenen] arteti apartauko'itue gaiztok.

50. Eta suko laben [botako'itue]. Han izango da nearra eta hortzan karrask eitea.

51. Ondo entenditu'ituzue gauza hok'uzik?

–Bai, jaune –erantzun zioen.

52. Eta hark gañea esan zon:

–Horreati erozeiñ jakintsu ondo ikasik, [zeruko] erreinuri daokionez komeni dan bezela gauza berrik eta zaharrak be repuestoti etatzea dijon familitako aite baten antza do.

53. Jesusek parabola hok akabau zitunen, handi [jun zan].

54. Eta be herrira junta, bere herritarren sinagogatan eakusten [jarri zan], halako modun, nun etzien geatzen harritzez, eta euren arten esaten zoen: «Nundi etor zako honi horlako jakindurie, eta holako (mirari)k?

55. Benturez, ezta hau arotzan semea? Maria deitzona ezta honen ama? Honen anaiek ez die Santiago, Jose, Simon ta Judas?

56. Eta bere arreba danak ez die gure arten bizi? Ba nundi etorko zako gauza hok'uzik honi?».

57. Eta eskandalizatuk bezela zeren hartaz.

Baño Jesusek esan zien: «Ezta profetaik onra bae, ezpada be herrin eta be etxen».

58. Eta [hala] (mirari) gutxi ein zitun, euren sinistezan medioz.

HAMALAUGARREN KAPITULUE

[Joan Batistan heriotzea. Bost ogin (miraria).
Jesusek Pedroi ibili erain itxasoko olatun gañen.
Bere soñei ikutzen dioen gaixo guzik sendatuta.]

1. Denbora hartan Herodes tetrarkak aitu zon famek zabaltzen zona Jesusen gañen.

2. Eta be gizon kortesai [esan zien]: «Hau Joan Batista [da], zein berriz piztu dan hillen arteti, eta horreati do hark (mirari)k eiteko birtute hain haundie».

3. Jakin behar dezu Herodesek preso hartu zola Joan, eta katekin lotue kartzelan sartu zon Herodesen koñata (Herodias) zala mediante.

4. Zeati Joanek esaten zion: «Etzaitzu libre (Herodias) andratzat izatea».

5. Herodesek hill erain nahi zon, baño etzan atrebitzen herrin bildurrez. Zeati danak profetatzat zeuken Joan.

6. Baño Herodesen urtebetetzen Herodiasen alabak irten zon korten erdira dantza eitea, eta hainbeste gustau zitzekon Herodesi,

7. Nun juramentu azpin [aindu zion] eskatu zeikion erozeiñ gauza ematea.

8. Horrekin hark, be ama[k] lenao {lenago} prebenitue, esan zion: «Ekatzu plater hontan Joan Batistan burue».

9. Tristetu zan errege, baña [hala]'re, ein zon juramenturi eta konbidauai beiratuz, emateko [aindu zon].

10. Eta [hala] aindu zon Joani kartzelan lepoa ebaitzeko.

11. Behalaxe izan zan [plater] baten ekarrie haen burue, eta neskei emanda, honek be amai [presentatu zion].

12. Be [ikastzallek gero gorputzen billa jun zien eta hobiratu zoen, eta Jesusi esatea jun zien].

13. Jesusek aituik Herodesek hareati esan zona, handi leku huts batea [erretirau zan] itxasoz, herriti kanpora. Baño [jendek igarrik, euren herritati irten zoen], lurrez oñez seituz.

14. Jesusek txalupati irten zonen hainbeste jende ikusita, [errukitu] zan eta bere gaixok sendau zitun.

15. Illuntzen, be [ikastzallek] alleau zien, esanez:

–Leku hutse da, eta beandu. Bialdu itze[tzu] jende horik herrita dijoatzela zer jan erostea.

16. Baño Jesusek esan zien:

–Ez doe jun beharrik, emaiezue zuek jaten.

17. Zeri erantzun zioen:

–Hemen ez deu bost ogi ta bi arrai besteik.

18. [Hark] esan zien:

–Ekatzue honutza.

19. Eta danak belarran gañen jarri eraiñik, hartu zitun bost ogi ta bi arraiek eta, zerura begik jasota, beinkau zitun eta partitu zitun, eta ogik [ikastzalleai eman zien eta ikastzallek] jenderi.

20. Danak jan zoen eta ase zien, eta sobrau zaneti bitu zituen hamabi saski pu[s]kaz betek.

21. Bos milla gizon zien jan zoenak, emakumak eta umeik kontau bae.

22. Behalaxe Jesusek bere [ikastzallek obligau zitun enbarkatu eta itxason] beste aldera jun ta han itxotea, herrik despeitzen zitun bitarten.

23. Eta hok despeitu zitunen, bakarrik [igo zan] mendi baten punta orazioa eitea, eta illundu zonen han eon zan bakarrik.

24. Bian bitarten olatu gogorrak jotzen zoen itxaserdin zeon txalupea, kontrako haizea zeolako.

25. Gaueko laugarren bela alleau zanen, Jesus eureta [ikastzallena] etor zan itxas gañen.

26. Eta [ikastzallek] ikusi zoenen itxas gañen zebillela, nahastu zien, eta esan zioen: «Izugarri bat'a». Eta bildurrez beteik deadarka [hasi zien].

27. Behala Jesusek hitz ein zien, esanez:

–Anima zaitezte! Ni naiz; ezazue bildurrik izan!

28. Pedrok [erantzun zon]:

–Jaune, zu baza, aindu iezu zureana uran gañen juteko.

29. Hark esan zion:

–Atoz.

Eta Pedro, txalupati jatxita, ur gañen zijon Jesuseana alleatzeko.

30. Baño haizen indarra [ikusik], bildurtu zan, eta gero, hondatzen hasi zanen, deadarrak ein zitun, esanez:

–Jaune, salba nazu!

31. Puntuko Jesusek, eskue luzatuik, hartu zon besoti, eta esan zion:

–Fede gutxiko gizona! zeati ikatu za?

32. Eta txalupa igo bezin laister, geatu zan haizea.

33. Barrun zerenak [alderau] zitzekon eta adoratu zoen, esanez:

–Zu za egiz Jainkon Semea!

34. Gero [itxasoa] (igaro)ta Jenesaretko lurreko urertzen jatxi zien.

35. Han bizi zienak hura ezutu bezin laister banau zoen notizie inguru hartako herri guztitan, eta gaixo guztik ekarri zioen.

36. Eta be soñei ikutzea beste grazik etzioen eskatzen. Eta ikutu zioen guztik sendauta geatu zien.

HAMABOSGARREN KAPITULUE

[Jesusek Jainkozko agintzakin kondenatu
zarretati datozten ohiturak. Kananean alaba sendatu.
Jende pilla haundi bati basamortun jaten eman.]

1. Denbora hontan Jerusalendi jun zien halako Erakustzalle ta fariseo batzuk esan zioen:

2. –Zer dalako zure [ikastzallek] hautsitze'itue zaharran ohituerak, jaten doenek eskuk garbitu ezta?

3. Hark esan zien:

–Eta zeati zuek eurok hautsitze'zue Jainkon mandamentue zuen ohituerea seitzeagaiti?

4. Ba Jainkok esana dauke: *Onra itzetzue aite ta'ma*, eta baita're, *Gurasoai maldezitzen diona heriotza kondenaue izan bedi.*

5. Baño zuek diozue: Erozeiñek esaten diola aitei ero amai «Nik ne parteti eskeiñtzen dian ofrenda zure onen izango da»,

6. Ez dezue gehiao aite ta'ma onratzeko ero hai launtzeko obligazioik, zekin hausi dezuen Jainkon mandamentue zuen ohituerekin.

7. Hipokritak! Arrazoiakin asmau zon Isaiasek zuetaz, esanez:

8. *Herri honek españekin onratzen [nau], baño be bihotza niandi urruti dao.*

9. *Alperrik onratzen naue, gizonan dotriñea ta mandamentuk erakutsiz.*

10. Eta bereana hotseinta herriai esan zien: «Aitu iezue, eta ondo atenditu honi,

11. Ez do ahuti sartzen denak zikintzen gizona, baizik ahuti etatzen denak».

12. Ordun, gehiao arrimatuik bere [ikastzallek], esan zioen:

–Ez dakizu fariseok eskandalizau diela oaiñ akabau dezuna aituta?

13. Baño Jesusek erantzun zon:

–Ne zeruko Aitek aldau ez don planta guzie zuztarreti etarea izango da.

14. Utziozue! Eurek die itxun itxuaurreko batzuk, eta itxu bat beste itxu baten giari jartzen bada, bik erretenen eroitzen die.

15. Hemen Pedrok hitze hartuta erran zion:

–Esplikaiuzu parabola hori.

16. Jesusek erantzun zion:

–Ze! Zuek'e horren ezauera gutxikin zate oaindik?

17. Ez dezue ba ezautzen ahuan sartzen dan guztie sabelea dijola eta leku ezkututan botatzen dala?

18. Baño ahutik irtetzen dona bihotzeti dator, eta hori da gizona zikintzen dona.

19. Zeati bihotzeti datoz pensamentu txarrak, gizon-hiltzek, adulteriok, neskaketak, ostutzek, testimonio falsok, blasfemik.

20. Gauza ho'pai zikintzen doela gizona. Baño eskuk garbitu bage jatek ez do zikintzen.

21. Jesus [han]di abiatuta, Tiro ta Sidongo lurraldea [erretirau zan].

22. Eta hona nun Kananeko andra bat handi etorrik deadarka hasi zan, esanez:

–Jaune, Dabiden Semea, erruki zaite nizaz! Ne alaba demonioz guztiz gogor oñazetue dao.

23. Jesusek etzion hitzik erantzun. Eta be [ikastzallek] aldeatuta erreutzen zioen esanez:

–Emaiozu eskatzen dizuna, hemendi dijoan; zeati gure atzeti deadarka dator.

24. Jesusek erantzunez esan zion:

–Ni enaiz bialdue Israelko etxeko ardita baizik.

25. Eta [hala]'re andra hura alleau zan ta adorau zon, esanez:

–Jaune, sokorri nazu.

26. Zeñek erantzun zion:

Ezta [zuzena] semean ogie hartuta txakurrai botatzea.

27. Andrek esan zion:

–Egie da, Jaune, baño txakur txikik behintzet euren nausian mahaiti eroitzen dien ogi apurretati jaten doe.

28. Jesusek ordun erantzunez [esan zion]:

–Andrea, haundie da zure fedea! Ein bedi zuk nahi dezun bezela.

Eta ordun, hartan bertan be alaba sendaue geau zan.

29. Jesus handi Galileako itxason urertzea [pasau zan, eta mendi batea igoik, han] jarri zan.

30. Bereana jende asko [alleau zien], eurekin zeramaztela mutu, itxu, herren, elbarri ta beste gaixo asko, ta be oñetan [ipin zituen], eta sendau zitun.

31. Hala ba jendek harrituik zeren, mutuk hizketan, herrenak ibiltzen, eta itxuk [bistekin] ikusita, eta glorifikatzen zoen Israelgo Jainkoa.

32. Baño Jesusek, be [ikastzalleai] hotseinda, esan zon:

–Errukitze'naue herri hok, zeati hiru eun hontan nekin dare, eta ez doe zer janik, eta ez ditut despeitu nahi balurrik, biden gosek hil ez ditzen.

33. Baño be [ikastzallek] erantzun zioen:

–Nola arkitu daizkeu leku huts hontan hainbeste jende asetzeko ogik asko?

34. Jesusek esan zien:

–Zenbait ogi dauzketzue?

–Zazpi, arraitxo batzukin –[erantzun zoen].

35. Ordun jenderi [aindu zion] jarri zeilla lurren.

36. Berak zazpi ogi ta arraiek hartu, eskerrak eman ero orazioa eginda partitu zitun eta eman zien be [ikastzalleai, eta ikastzallek] herriri.

37. Eta danak jan zoen eta ase zien. Eta sobrau zien puskakin, zazpi saski bete zituen.

38. Lau milla zien jan zoenak, umek eta emakumak kontau bae.

39. Horrekin, hatati despeituik, txalupan [sartu zan eta Magadango lurrea jun zan].

HAMASEIGARREN KAPITULUE

Fariseok eta saduzeok euren dotriñen galtzea.
Fariseon ta saduzeon beantzagie.
Pedron konfesioa.
Jesusen aindue. Jesusi seitzea.

1. Hemen etorri zien Jesus billatzea fariseok eta saduzeok eta, zirikatzeati, eskau zioen ikusi erain zeiela zeruko (mirari)n bat.

2. Baño hark erantzun zien:

–Gaue alleatzen dijonen batzutan esate'zue «Denbora ona eingo do, zerue gorritue daolako».

3. Eta goizeti: «Gaur ekaiztea izango da, zerue estalie ta gorrie daolako». Beraz, bakizue asmatzen zeruko itxurati eta ezin ezautu'ituzue Mesiasen etorrerako denbora hotako señale klaroak?

4. Erraza gaiztoa ta adultera honek (mirari) bat eskatzen do! Baño etzako emango eskatzen don hori, baizik Jonas profeten (miraria).

Eta hok utzita jun zan.

5. Bere [ikastzallek itxason] beste aldeti etor zienen, ahastu zien ogie hartzez.

6. Jesusek esan zien: «Zate kontuz ta beira zazue, gero, fariseon ta saduzeon beantzagie jan [bae]!»

7. Baño hak euren arten pensatzen zoen: «Ogik ekarri ez deulako esaten do [hori]».

8. Eta Jesusek [hura] ezautuik, esan zon: «Fede gutxiko gizonak, zertan zabizte zuen arten diskurritzen, ogik ez dezuelako?

9. Oaindik ez dezue ezagueraik, eta etzate akordatzen bost ogi nola bost milla gizoni partitu, eta zenbait saski puska geatu zitzaizuen?

10. Eta ezta're zazpi ogikin lau milla gizoni jaten eman, eta sobrau zaneti zenbait sa[s]ki bitu zien?

11. Nola ez dezue ezautzen ez dizueala esan ogigaiti "Beira zazue, gero, fariseon ta saduzeon beantzagie jan [bae]"?».

12. Ordun igarri zioen etzola esan ogin ipintzen dan beantzagin gañen, baizik fariseon ta saduzeon dotrinen gañen.

13. Gero Jesus Pilipo Zeseren lurrea etorta, galdeu zien be [ikastzalleai]:

–Zein dala dioe gizonak Gizonen Semea?

14. Eta hak erantzun zioen:

–Batzuk Joan Batista dala dioe, bestek Elias, beste batzuk, aizkenean, Jeremias ero profetatakon bat.

15. Jesusek [esan zien]:

–Eta zuek nor naizela ni esate'zue?

16. Simon Pedrok hitze hartuik esan zon:

–Zu za Kristo ero Mesias, Jainko bizin semea.

17. Eta Jesusek erantzunez, esan zion:

–Zorionekoa za Simon Jonanen semea, zeati hori ez dizu haragi ta odol ero beste gizonen batek ezautu erain, baizik ne Aitek, nor [zeruan] daon.

18. Eta nik esate'izut zu zala Pedro, eta harri honen gañen eingo diala ne elizea, eta [infernuko] atek ero eskubidek ez diela baliauko haen kontra.

19. Zuri emango'izut [zeruko] erreinuko giltzak. Eta zuk lurren lotze'zun guztie [zerun]'e lotue izango da, eta lurren askatze'zun guztie [zerun]'e askatue izango da».

20. Ordun [be ikastzalleai] aindu zien iñoi etzazaioela esan bera zala Jesus, Kristo ero Mesias.

21. Eta behalaxe hasi zan be [ikastzalleai] aitzea ematen komeni zala bera [Jerusalena] jun zeiñ, eta han padezitu zezala asko zaharran, Erakustzallen eta abadean [nausin parteti, eta hille] izan zeilla eta piztu zeilla berriz hirugarren eunen.

22. Pedrok bastarrea hotseinda, hai erain nahi zion esanez:

–A, Jaune! Iñola're ez; ez, etzaitzu hori gertau behar.

23. Baño Jesusek, hareana itzulik, esan zion:

–Kendu zakizkit aurreti, Satanas! Eskandalizatzen nazu, zeati zuk ez dezu ezauera ta gustoik Jainkon gauzatan, baizik gizonetan».

24. Ordun Jesusek esan zien be [ikastzalleai]: «Balin norbaitek etor nahi bado ne ondoren, uko ein beio be bururi, eta kargau bedi be kurutzekin eta seitu beit.

25. Bere bizie salbau nahi donak ne kontra obrauta, galduko do, baño niri dien amorioagaiti bere bizie galtzen donak billauko do.

26. Zeati, zer zako gizonai mundu guztie irabaztea balin galtzen bado bere animea? Ero, ze man lezake gizonak be animen truk behin galdu ezkero?

27. Dana dala Gizonan Semek etor behar do bere Aiten gloriz jantzie be aingerukin baten gizonak juzgatzea, eta ordun emango dio bakoitzei be pague euren obraz konforme.

28. Egie esate'izuet, hemen darela Gizonan Semea be erreinun argieran agertzen ikusi arten hill behar ez doen batzuk».

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUE

Jesusen trasfigurazioa. Deabruz betetako tatanteltsu baten sendatzea. Jesusek bere ta Pedron tributoa [pagatu] (mirariz) arkitutako moneda batekin.

1. Handi sei eunen burun, Jesusek bekin hartu zitun Pedro, Santiago, Joan ta be anaie, eta hakin bakarrik igo [zan] mendi altu batea.

2. Euren aurren [trasfiguratu zan], halako moduan, nun bere arpegie jarri zon drist eiten zola euzki'pezela, eta bere arropak zurituik elurre bezela.

3. Ordun bertan agertu zitzaien Moises ta Elias [Jesus] berakin hizketan Jerusalenen padezitu behar zonan gañen.

4. Ordun Pedrok hitze hartuta, esan zion Jesusi: «Jaune, ondo da gu hemen egotea; balin badeitzozu, forma'itzekun hemen hiru kanpamentu, bat zutzat, bestea Moisesentzat eta beste bat Eliasentzat».

5. Oaindi hizketan zeon Pedro, drist ein zon laño batek etorri ta estaldu zitun. Eta orduntxe bertan laño tarten aitu zan hots bat ziona: «Hau da ne Seme maitea, zeñean dauzkean ne poz guztik; honi aitu behar diozue».

6. Eta [haren bozea ikastzallek] eroi zien ahuzpez lurrea, eta bildur haundi batekin beteik [geau zien].

7. Baño Jesus eureta alleau zanen, ikutu zien eta esan zien: «Jaiki zaitezte, eta ezazue bildurrik izan».

8. Eta begik itzulik, etzoen Jesus beste iñor ikusi.

9. Menditi jatxi zienen, Jesusek aindu zien, esanez: «Ez iozue iñoi esan ze ikusi dezuen, hillen arteti Gizonan Semea berriz piztu arte».

10. Zeñen gañen [ikastzallek] galdetu zioen:

–Nola ba eskriturak esaten doe Eliasek lenengo etorri behar dola?

11. Eta Jesusek erantzun zien:

–Egiz, Eliasek etorri behar do ne bigarren etorrerea baño lenao, eta ordun be lekun ipinko'itu gauza guztik.

12. Baño nik aitortze'izuet Elias etor zala, eta etzoen ezautu, baizik ein zoen harekin nahi zoen guztie. Hala Gizonan Semeri're padezitu eraingo dioe hak.

13. Ordun [ikastzallek] igarri zioen Joan Batistatik hitz ein ziela.

14. Jendek itxoten zioen lekura elleauta, gizon bat [etor zan eta haren] aurren belauniko jarrita, esan zion:

15. –Jaune, izazu nere semen errukie, zeati tarantelosoa da, eta asko padezitzen do; askotan eroitzen da surtaa eta sarritan urtaa.

16. Eta presentau diet zure [ikastzalleai] eta ez doe sendatu ahal izan.

17. Jesusek errespuestatzat esan zon:

–Kasta eziñiskorra ta bihurrie! Noiz arte bizi behar det zuekin? Noiz arte sufritu beharko ote dizuet? Ekarriezue honutza.

18. Jesusek amenazau zon deabrue, eta [hark] irten zon mutilleandi, zein geatu zan sendaue orduntxe bertati.

19. Ordun [ikastzallek] aparte hitz ein zioen Jesusi, eta esan zioen:

–Zer dalako ezin bota izan deu guk?

20. [Jesusek] erantzun zien:

–Fede gutxi dezuelako. Egiz aseguratze'izuet mostaza bikor bat bezin haundie balitz zuen fedea, esan lezaiokezula mendi horri «Zoaz hemendi harutza» eta jungo litzeke, eta elitzekezue ezer'e eziñ ahal izango.

21. Eta gañea deabru jenero hok ez [die] botatzen orazion ta balurren bitartez ezpada.

22. Eurek Galilean zeren bitarten, [Jesusek berriz] esan zien: «Gizonan Semek gizonan eskutan entregaue izan behar do.

23. Hilko doe, eta hirugarren eunen berriz piztuko da».

Zekin [ikastzallek] oso tristetu zien.

24. Kafarnaura alleatuik, Pedroana [alderau zien] bi adarmen kontribuzion biltzallek, eta esan zioen:

–Ze, zuen Maixuk ez ditu pagatzen bi adarmek?

25. «Bai» erantzun zon.

Eta [Pedro] etxen sartuta, [Jesus] aurrerau zitzekon esanez:

–Zer deitzozu, Simon? Lurreko erregek noreandi kobratzen ditue tributok ero zensok, euren [semeandi ero erbestekotandi]?

26. [Hark esan zon]:

–Erbestekota[ndi].

[Jesusek] erantzun zion:

–Beraz, libre die semek.

27. Hala guziz'e, ez eskandalizatzeati, zoaz itxasoa ta bota zazu garrangea, eta lenengo etatzen dezun arraie har zazu eta, ahua irikita, lau adarme balio ditun zillarresko pieza bat arkituko dezu; har zazu eta emaiozu nere [t]a zure parteti.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUE

Jesusen dotriñe umildaden, eskandalozko pekatun,
eta lotsaiezko zuzentzen gañen.
Artzai onen parabolea. Pekatuk barkatzeko eskubiden,
pekatarin errukitasunen ta etsaien barkazion gañen.
Hamar milla talenton parabolea.

1. Okasio hontan bertan Jesusi [ikastzallek alderau] zitzekon, eta galdera hau ein zioen:

–Zein izango da haundina [zeruko] erreinun?

2. Jesusek, ume bati bereana hotseinda, euren erdin [ipini zon].

3. Eta esan zon:

–Egiz esate'izuet, balin ezpazeate bihurtzen ta eiten umen antzekok senzillidaden ta inozenzin, etzatela sartuko [zeruko] erreinun.

4. Ume hau bezela umillatzen dan erozeiñ izango da, ba, haundina [zeruko] erreinun.

5. Eta nik oain esan dian bezela, ne izenen ume bat ondon hartzen donak ni neoni hartze'nau.

6. Baño nian sinisten doen umetxo hotakon bat eskandalizatzen donai, hobe litzaioke asto batek mogitzen don errotarri horitako bat lepoti txintxilik ipini, eta [hala] itxason hondora murgildue izango balitz.

7. Zorigaiztoko mundue eskandalok diela mediante! Zeati eskandalok beharrekok izanagaiti, hala're zorigaiztokoa izango da eskandaloa ematen don gizon hura!

8. Eskandaloako ero pekaturako bidea ematen baizu zure eskuk ero zure oñek, ebai itzetzu eta bota itzetzu zuandik urruti; hobe'zu esku mantxu ero herren sartu betiko bizitzan, bi eskukin ero bi oñekin infernura amildue baño.

9. Eta zure begik eskandaloako bidea ematen ba'izu, etaa zazu eta bota zazu zuandik urruti; hobe'zu bi begikin infernuko surtaa amildue izan baño, batekin bakarrik betiko bizitzan sartu.

10. Beira zazue, gero, umetxo hotakon bat despreziatu [bae]. Zeati esate'izuet euren aingeru goardakok beti zerun darela ne zeruko Aiten arpegie ikusten.

11. Eta gañea Gizonan Semea galdu zana salbatzea etorri da.

12. Balin gizon batek eun ardi [balitu], eta hatako bat galduko balitzeko, ze uste'zue ordun eingo dola? Ez ditu laroeta hemeretzi menditan [utziko], eta galdu zakon hura billatzea jungo?

13. Eta balin fortunaz billatzen bado, egiz esate'izuet hark bakarrik poz gehiao ematen diola galdu ez ditun laroeta hemeretzi'paño.

14. Eta [hala, ezta zerun] daon ne Aiten borondatea umetxo hotakon bat galdu deilla.

15. Zure anaiek pekatu ein bado zure kontra, ero erotzen ba'a kulpan baten, zoaz ta zuzendu zazu bakarrik zarela; aitzen ba'izu, irabaziko zendun zure anaie.

16. Ezpa'izu kasoik eiten, balia zaite oaindi persona bat ero biz, *bi ero hiru testigok ontzat eman dezen dana.*

17. Eta ezpadie aitzen, esaiozu elizeri; eta elizeri berai'e ezpadio aitzen, fedebaetzat ero arrendalletzat euki zazu.

18. Emate'izuet ne hitze: Lurren lotzen dezuen guztie, zerun'e lotue izango dala; eta lurren askatzen dezuen guztie, zerun'e askatue izango da.

19. Gehiao esate'izuet: Balin zuetako bi lurren juntauko balieke zerbait eskatzeko, erozeiñ gauza izan deilla, emana izango zaie [zerun] daon ne Aiteandi.

20. Zeati bi ero hiru ne izenen juntatuk daren lekun, ni're han arkitzen naiz han erdin».

21. Garai ho[r]tan arrimatuta, Pedrok esan zion:

–Jaune, zenbait aldiz barkau beharko diot ne anaiei ne kontra pekatu eiten donen? Zazpi alditaño?

22. [Jesusek] erantzun zion:

–Ez dizut nik esaten zazpi aldiz, baizik zazpi bidez hiruroeta hamazazpitaño, ero ofenditzen zaitun hainbeste aldiz.

23. Honeati [zeruko] erreinuk be morroiei kontuk hartu nahi izan zien Erregen antza izatea dator.

24. Eta kontuk hartzen hasita, hamar milla talento zor zion bat presentaue izan zitzekon.

25. Eta nola honek etzeuken zekin pagau, be nausik aindu zon [salduk] izan zitezela bera eta be andrea eta bere semek bere azienda guztikin, eta [hala] pagau zeilla zorra.

26. Ordun morroiek, haen oñetaa ahuspeztuta, erregutzen zion esanez: «Izazu nekin pazienzi piska bat, [ta] nik pagauko'izut dana».

27. Nausiri errukituik morroi hura, utzi zion juten eta zorra're [barkau zion].

28. Baño morroi honek irten bezin laister, be laun bat [billau zon], zeñek zor zion eun diru zillarresko, eta estarriti helduta ia iton zeuken, esanez: «Pagaiezu zor nazuna».

29. Launek, be oñetaa ahuzpetuik, erregutzen zion esanez: «Izazu nekin pazienzi piska bat, [ta] nik dana pagauko'izut».

30. Baño hark etzion aitu nahi izan, [eta] jun zan eta sartu erain zon kartzelan zor ziona pagau arte.

31. Beste morroiek, be launek, oso tristetu zien ze pasatzen zan ikusita, eta jun zien gertatzen zan guztie euren nausiri kontatzea.

32. Ordun be nausik hotsein zion eta esan zion: «Morroi gaiztoa! Nik barkau nizun zor guzie, erregutu zindielako.

33. Eta justo etzan zuk'e euki zezazula zure launen errukie nik zurea iza'non bezela?».

34. Eta nausie hasarrauta, entregau zon borreron eskutan, zorra dana oso pagau arte oñazetue izan zein.

35. Modu hontan portauko da ne Aite zerukoa zuekin, balin bakoitzek be anaiei bihotzeti ezpadio barkatzen.

HEMERETZIGARREN KAPITULUE

[Jesusek matrimonioa ezin utzi litekela eakusten do,
birjinidadea konsejatzen do.
Abratsak salbatzeko gaitzen gañen hitz eiten do
eta gauza guztik uzten ditunak izango don sarin gañen.]

1. Jesusek hitzaldi hok akabau zitunen, Galileati [jun zan] eta Jordanen beste aldera [etor zan], Judeako lurrea.

2. Jende pilla haundi batek [seitu zion], eta han sendau zitun bere gaixok.

3. Fariseok hareana [alleau zien], zirikatzeko asmokin, eta esan zioen:

–Gizon batek libre do erozeiñ pretestogaiti be andrea uztea?

4. Jesus[ek] errespuestatzat esan zien:

–Ez dezue leitu gizajende guzik hasieran kriatu zon hark kriatu zola *gizon bat bakarra ta andra bat bakarra*?

5. Eta esan zala: *Horreati utziko do gizonak be aite ta bere ama, eta bere andrakin [alkartuko da, eta bi haragi izango die] baten bakarrik.*

6. Eta [hala] ez die gehiao bi izango, baizik haragi bat bakarra. Jainkoak alkartu dona ez beza gizonak banatu.

7. Baño hak erantzun zioen:

–Zeati Moisesek aindu zon desezkondun agirie man ta despeitzeko?

8. Jesusek esan zien:

–Zuen bihotz gogorran medioz Moisesek eman zizuen zuen andrak uzteko libertadea; baño hasierati etzan hala izan.

9. Hala ba aitortze'izuet be andrea uzten don erozeiñek, ezpada adulterioz, eta honla izanda're beste batekin ezkontzen bada, adulterioa eiten dola; eta utzie izaten danaki eskontzen danak'e adulterioa eiten dola».

10. Be [ikastzallek esan zioen]:

–Gizonan kondizioa holakoa bada bere andrekiko, ez dakar kontuik eskontzek.

11. Jesusek erantzun zien:

–Ez die danak hau eiteko kapaz, baizik goiti emana zaien hak die kapaz.

12. Zeati badie txikilau batzuk hala jaio zienak euren aman sabeleti, badie txikilatuk gizonakandik, eta badie nolabait'e euren buruk txikilau zituenak boto kastidadekokin [zeruko] erreinuri dioen amorioagaiti. Hortaako kapaz izan daikena, izan bedi».

13. Garai ho[r]tan presentau zioen ume batzuk, hon gañen eskuk ipini eta orazioa ein zezan. Baño [ikastzallek] inkomodatzen zuelako uzten, lotsaien eman zien ekartzalleai.

14. Baño Jesusek esan zien: «Utziezue baken umeai, eta ez iezue erautzi nereana etortzea, zeati horin antzekontzat [dan zeruko] erreinue».

15. Eta han gañen eskuk ipinta ero bendizioa emanda, jun zan handi.

16. [Ordun] aldeatu zitzekon gizon gazte bat [eta] esan zion:

–Maixu ona, ze obra on ein behar ditut betiko bizitza iisteko?

17. Hark erantzun zion:

–Zeati 'ona' esaten diezu? Jainkoa bakarrik da ona. Gaiñeakon, betiko bizitzan sartu nahi ba'ezu, gorde itzetzu mandamentuk.

18. Berak esan zion:

–Ze mandamentu?

Jesusek erantzun zion:

–*Ez dezu hilko. Ez dezu adulterioik eingo. Ez dezu ostuko. Ez dezu testimonio falsoik jaikiko.*

19. *Onra itzetzu aite t'ama, eta maite zazu laun projimoa zure burue bezela.*

20. Gaztek [esan zion]:

–Horik danak gorde'itut ne gaztetati, zer falta zat gehiao?

21. [Jesusek] erantzun zion:

–Konpletoa izan nahi ba'ezu, zabiltz eta saldu zazu dezun guztie, eta emaiezu pobreai, eta sari bat zerun izango'ezu; atoz gero, eta segiezu.

22. Gaztek hitz hok aitu zitunen, [triste] erretirau zan, eta ondasun haundik zitulako [zan].

23. Jesusek ordun be [ikastzalleai esan zien]:

–Egiz esate'izuet, nekez aberats bat sartuko dala [zeruko] erreinun.

24. Eta oaindi gehiao esate'izuet: errezago dala jostorratzan zuloti kamelu bat pasatzen, [zeruko] erreinun aberats bat sartzea baño».

25. Esaera hok aitu zituenen, txit harrituk zeren [ikastzallek], euren arten esanez:

–Hori danez, nork salbau dezake?

26. Baño Jesusek, beratxo beiratuik, esan zien:

–Gizonantzat hau ezta posible, baño Jainkontzat gauza guzik die posible.

27. Pedrok ordun hitze hartuik esan zion:

–Ondo ikuste'zu guk utzi dituula gauza guztik, eta seitu dizuula; ze izango da, ba, gure sarie?

28. Baño Jesusek erantzun zion:

–Egiz esate'izut, zuek seituko dizuenok, guztin berriz piztutzeko eunen, Gizonen Semea jarrio danen bere Majestaden Tronon, zuek'e jarriko zate hamabi sillan gañen, eta juzgauko'ituzue Israelgo hamabi tribuk.

29. Eta bere etxea, ero anaiek, ero arrebak, ero aite, ero ama, ero andrea, semek, ero sorok ne izena dala mediante utzitze'itun erozeiñek, eun bidez gehiao [errezibituko'itu] ondasun sendotan, eta mendeatuko doe gero betiko bizitza.

30. Eta mundu hontan lenengo zien asko aizkenekok [izango die], eta aizkeneko zien asko aurrenekok [izango die].

HOEIGARREN KAPITULUE

Mahastin behar eiteko hotseindako langillean parabolea.
Jesusek aitzea ematen do be heriotzea ta be piztutzea.
Zebedeon semen aman (nahia)ri [erantzuten dio].
Bi itxui [bistea ematen die].

1. [Zeruko erreinuk, ba], familitako aite baten antza [do], zein eunsentin irten zan bere mahastirako langillek ajustatzea.

2. Hakin konponduta euneko denario baten, be mahastira [bialdu zitun].

3. Gero, hirurek ingurun irtenda, plazan [arkitu zan] alperkerin zeren beste batzukin.

4. Eta esan zien: «Zoazte zuek'e ne mahastira, eta emango'izuet [zuzen] dana».

5. Eta hak jun zien. Beste bi bider irten zon seirek eta beatzik ingurun, eta igoal [ein zon].

6. Azkenen hamaikak aldea [irten zon], eta beste batzuk [ikusi zitun] lanik eiten etzoela, eta esan zien: «Nola zate hemen eun guzin ezer ein bae?».

7. Erantzun zioen: «Iñork ajustau ez gaitulako». Esan zien: «Zoazte ba zuek'e ne mahastira».

8. Euzkie sartu zanen, jabek esan zion be [morroi nausiai]: «Hotseiezu langilleai, eta pagaiezu jornala, azkenekotati hasi ta lenengotaiño».

9. Hamaikak ingurun jun zienak [etorrik, denario bana errezibitu zoen].

10. Eta aizkenen lenengoak alleau zienen, uste zoen gehiao emango zitzaiela, baño hok'e ha'pezela bakoitzek denario bat errezibitu zoen.

11. Eta errezibitzen, mur-mur egiten zoen familitako aiten kontra.

12. Esanez: «Aizkeneko hok ordu baten bakarrik lan ein doe, eta guk egun guziko pisue ta beroa sufritu, eta hala're gurekin igualau ditu».

13. Baño hark hotako bati erantzunez esan zion: «Aizkidea, nik ez dizut ofensaik eiten; etzinden nekin denario baten ajustatu?

14. Otori ba zurea dana, eta zoaz. Nik honi aizkenekoa izanagaiti zuri hainbeste eman nahi diot.

15. Benturaz ez dezaket nik nahi diana ein ne gauzekin? Ero zure begik gaiztoa ero kutiziosoa [izan behar do], ni ona naizelako?».

16. Modu hontan mundu hontan aizkeneko dienak [zeruko] erreinun lenengo izango die, eta aurrenekok aizkeneko. Asko die hotseiñek, baño gutxi hautatuk.

17. Jesus Jerusaleneko biden jarrita, be hamabi [ikastzallek] bazter batea [hartu zitun] eta esan zien:

18. «Beira, Jerusalena goaz, nun Gizonan Semek izan behar don abadean [nausin] ta Erakustzallen eskutan entregaue, eta heriotza kondenauko doe.

19. Eta fedebagei entregauko die [burlatue] izan deiñ, eta azotatue eta kurutzen josie. Baño bera berriz piztuko da hirugarren eunen».

20. Ordun Zebedeon semen ama [arrimau zitzakon be seme bikin, eta adorau zon], grazin bat eskau nahi liokela aitzea emanez.

21. Jesusek esan zion:

–Zer nahi'zu?

Eta hark erantzun zion:

–Disponi zazu ne seme hok bik izan dezela euren jarlekue zure erreinun, batek zure eskubiko alden eta bestek zure eskerreko alden.

22. Baño Jesusek esan zion errespuestatzat:

–Ez dakizu ze eskatzen'zun. Ean dezakezue nik ean behar dian pasioko kalizeti?».

–Badaikeu –[esan zioen].

23. [Jesusek] erantzun zien:

–Nere kalize ba[i] eango dezuela, baño jarlekue ne eskubiko ero ezkerreko alden zuei aintzea etzat tokatzen; ne Aitek destinau dien hantzat izango da.

24. [Beste hamar apostolok] hau entenditu zoenen, anaie bin kontra [hasarratu zien].

25. Baño Jesusek [bereana] hotsein zien eta esan zien: «Bakizue naziotako prinzipek aintzen diela euren herriai, eta euren haundikik mendeatzen dituela nausitasunekin.

26. Zuen arten ez do hala izan behar, zuen arten haundina izan nahi donak zuen morroie izan behar do.

27. Eta zuen arten lenengo izan nahi dona[k] zuen serbitzallea izan behar do.

28. Gizonan Semea serbitue izatea etorri ez dan bezela, baizik serbitzea eta askon erredenziorako be bizia ematea».

29. Jerikoti irten zonen, jende pilla haundi batek seitu zion.

30. Eta hona nun zeren bi itxu bide ertzen jarrita, eta aitu zoenen esaten Jesus pasatzen zala, deadarka [hasi zien] esanez:

–Jaune! Dabiden Semea! [Erruki] zaite guzaz!

31. Baño jendek demandan ematen zien isildu zitezen. Hala're eurek deadar haundigoa eiten zoen, esanez:

–Jaune! Dabiden Semea! Izazu piedadea guzaz»!

32. Hontan geatu zan Jesus, eta hotseinda esan zien:

–Ze nahi dezue eitea?

33. Eurek erantzun zioen:

–Jaune, iriki ditezela gure begik!

34. Kupidatuik Jesus, euren begik [ikutu zitun]. Eta orduntxe bertan ikusi zoen, eta be atzeti [jun zien].

HOETABATGARREN KAPITULUE

[Jesus Mesiastzat deadarka sartzen da Jerusalenen.
Tenploti botatze'itu han saltzen zerenak.
(Madarikazioa) piku bati. Bere etsaiek nahaste'itu
parabola ta arrazoiakin.]

1. Jerusalena alderatuta Betfagen bistaa alleau zienen, Olibetako Mendin ondora, Jesusek bi [ikastzalle bialdu zitun].

2. Esanez:

–Zoazte zuen paren ikusten dan herri txiki hortaa, eta beste eiteko bae billauko'ezue astaeme bat lotue eta be umea beakin; aska itzetzue eta ekarriezue.

3. Eta norbaitek erantzuten ba'izue zerbait, erantzuiozue: «Jaunek behar [ditu], eta behala utziko'izue eamaten».

4. Profetak esan zonan kunplimentun gertatu zan hau guzie:

5. *Esaiozue Siongo alabai: Beira, zure errege zatorkitzula biguntasunez betea, astaeme baten gañen honen umekin, uztarrira ohitue dagonan umea.*

6. Jesusek [ikastzalleai juteko aindu zien, eta hala] ein zoen.

7. Astaeme ta umea [ekarri zituen, eta bere txalmak ezarri zioen], eta igo erain zioen Jesusi.

8. Jende asko ta askok [euren soñek] zabaltzen zituen biden; beste batzuk erramuk ero arbolan hostok [ebaitzen zituen] eta pasau behar zon lekun ipintzen zituen.

9. Eta [hala] aurreti zijoatzen jendek, nola atzeti zijoatzenak deiadar eiten zoen, esanez:

Hosana, osasune ta glorie Dabiden Semeri! Beinkatue izan bedi Jaunen izenen datorrena! Hosana zeruk doen altunen!

10. Jerusalenen hala sartu zanen, herri guztie errukitu zan, askok esanez:

–Nor da hau?

11. Jendek [erantzuten zioen]:

–Hau Jesus da, Galileako Nazareteko profetea.

12. Jesusek, Jainkon tenplon sartu zanen, salerostzalle guztik [bota zitun handi; eta bota zitun diru-kanbiatzallen] mahaiek eta sakrifiziotako usok saltzen zituenan sillak.

13. Eta esan zien: «Eskribitue dao *Ne etxek izena izango do oraziorako etxea*; baño zuek lapurren kueba bat eiñe daukezue».

14. Ordun bertan tenplon alleau zien bereana itxu ta herren asko, eta sendau zitun.

15. Baño abadean [nausi ta Erakustzallek hasarrau zien, Jesusek] eiten zitun (mirarik) eta tenplon pozez deadar eiten zoen umek [ikusik], esanez: «Hosana Dabiden Semeri!».

16. Eta esan zioen:

–Hok esaten doena aitze'zu?

Jesusek erantzun zien:

–Bai. Zer ba, beñ'ee ez dezu[e] profezie leitu *Umean ahuti eta bularreko umetati etaa [zendun] alabantzaik haundina*?

17. Eta hak utzita, erriti kanpora [irten zon] Betanira, eta han geau zan.

18. Biramon goizen, herrira itzulita, gosea [izan zon].

19. Eta bidertzen piku bat ikusita, hareana [arrimatu zan], zeñetan hostok besteik arkitu ezta, esan zion: «Ez al dezu ba beñ'e izango frutuik!».

Eta pikue [igartue] gelditu zan.

20. [Hura ikusik, ikastzallek] harritu zien, eta esaten zoen:

–Nola igartu da behala?

21. Jesusek erantzunez esan zien:

–Egiz esate'izuet, fedeik balin ba'ezue, eta dudaik ezpa'ezue, ez dezue pikun hau bakarrik eingo, baizik mendi horri esaten badiozue're «Kendu zaite zaren lekuti eta etzin zaite itxasora», hala eingo do.

22. Eta orazion eskatze'zuen guzie, fedea izaten ba'ezue, iritxiko dezue.

23. Tenplora alleau zanen, [alderau] zitzekon, eakusten ai zala, abadean [nausik] eta agure zaharrak ero herriko senadorek, eta galdetu zioen:

–Ze eskubidekin eite'ituzu gauza hok? Eta nork eman dizu holako eskubidea?

24. Jesusek erantzun zien:

–Nik'e ein nahi dizuet galdera bat, eta honi erantzuten badiozue, behalaxe esango'izuet ze eskubidekin eiten dituan gauza hok.

25. Joanen bautismoa nundi zetorren, zeruti ero gizonetati?

Hak euren arten pensatzen zoen, esanez: 'Zeruti' erantzuten badeu, esango digu: «Ba zeati ez dezue sinistu huragan?».

26. 'Gizonetati' erantzuten badeu, herri bildurre izan behar deu berriz, ba danak ezautzen zoen Joan profetatzat.

27. Horreati erantzun zioen Jesusi esanez:

–Ez dakigu.

Berak berriz esan zien behala:

–Niauk ba ez dizuet esango ze eskubidekin eiten'ituan gauza hok.

28. Eta zer iruritzen zaitzue esatea noan hontaz? Gizon batek bi seme zeuzken eta lenengori hotseinda esan zion: «Semea, zoaz gaur ne mahastin lan eitea».

29. Eta semek erantzun zion: «Ez det nahi». Baño gero, damutuik, jun zan.

30. Bigarrenai hotseinda, igoal [esan zion], eta hark erantzunatik «Banoa, Jaune», etzan jun.

31. Seme hok bitan zeñek ein zon aiten borondatea?

[Hak esan zoen]:

–Lenengok.

Jesusek seitu zon:

–Egiz esate'izuet arrendatzallek eta bizimodu txarreko emakumak zue'paño lenao sartuko diela Jainkon erreinun.

32. Zeati Joan etorri zan zueta justizizko bidetxiorrez, eta etzionduen sinistu; eta arrendatzallek eta bizimodu txarreko emakumak sinistu zioen, baño zuek, hau ikusita're etzindeten gero mugitu penitenzie eitea huragan sinisteko.

33. Aitu zazue beste parabola bat: Familitako aite bat zan, mahasti bat landau ta hesi batekin alde guzitati itxi zona, eta atxurtuta ein zon {egin zon} han tolare bat, torre bat ein zon, gero nekazari batzuai errentan eman zien, eta urrutiko beste herri batea [jun zan].

34. Frutuk heldutzeko garaie etorri zanen, be morroiek errentaritaa [bialdu zitun], hango frutue errezibitu zezen.

35. Baño errentarik morroiei [erasoik], makillakin jo zoen bat, hil zoen bestea, eta harrika eman zioen besteri.

36. Bigarren aldin bialdu zitun beste morroi batzuk lenengon baño gehiao, eta igoal tratatu zituen.

37. Azkenen be semea bialdu zien, bere arten esanez: «Errespetauko doe behintzet ne semea».

38. Baño errenterok [semea] ikusi zoenen, euren arten esan zoen: «Hau da jabea aiten faltan, atozte, hil dezaun eta hartuko deu be azindea».

39. Eta hartuta bota zoen mahastiti kanpoa, eta hil zoen.

40. [Jesusek galdeu zien]:

–Gero mahastin jabek, itzultzen danen, ze eingo die nekazari hai?

41. Hak [erantzun] zoen:

–Jende hau hain gaiztoa hill erain zorigaiztoz, eta bere garayen frutuk ondo pagauko dioen beste nekazari batzuai eman errentan be mahastie.

42. Jesusek esan zien:

–Ez dezue ba eskrituratan leitu?:

Etxegillek nahi ezta utzi zoen harri hura bera izan za[n] kantoi-harrik hobena. Jaune da gure denboran hau ein dona, eta gure begitan gauza harrigarrie da!

43. Horreati esate'izuet, Jainkon erreinue zuei kendu, eta obra onen frutuk eiten dituen jendeai emana izango dala.

44. Eta [hala] eskandalizatzen dana ero harri honen gañea etortzen dana txetue izango da, eta harri honek juizioko eunen azpin hartzen don erozein zati-zati eingo do».

45. Jesusen parabola hok aituta, abadean [nausi] ta fariseok ezautu zoen euren gañen hitz eiten zola.

46. Eta preso hartu nahirik, herrin bildurre izan zoen, profetatzat [zeukelako].

HOETA BIGARREN KAPITULUE

Bere semen ezteietaa konbidau zon erregen parabolea.
Zesarri tributoik pagau behar zakon.
Jainkonako ta laun projimonako amorioa.
Kristo Dabiden Semea ta Jaune.

1. Jesusek bian bitarten sermoia seituz, [berriz parabolaz hitz ein zien], esanez:

2. –[Zeruko] erreinun gertatzen da halako errege bati pasau zitzekona, zeñek be semen ezteiek [zelebrau zitun].

3. Be morroiek [bialdu zitun] konbidatuai ezteietaa hotseitea, baño hok etzoen etor nahi izan.

4. Bigarren aldin bialdu zitun beste morroi batzuk haen parteti konbidatuai esateko ordenekin: «Maneatue dauket bazkarie, hil erain ditut ne txalak eta beste gañeako animali gizenak, eta dana pronto dao; atozte, ba, ezteietaa».

5. Baño [konbidatuk etzoen kasoik ein, eta] jun zien bat be baserria, eta bestea be ohi zon tratura.

6. Eta gañeakok harrapau zituen morroiek eta, burla asko ein ondon, hil zituen.

7. Hau erregek aituta, oso hasarrau zan, eta be tropak bialduta, gizon-hiltzalle hak [hil zitun] eta erre zon han herrie.

8. Ordun esan zien be morroiei: «Ezteietako preparatibok eiñek dare, baño konbidatuk etzien digno hataa [etortzeko].

9. Zoazte, ba, bidekuutzetaa, eta billatze'ituzuen guztik konbida itzetzue ezteietaa».

10. Behala morroiak bidetaa irtenik juntau zituen arkitutako guztik, gaiztok ta onak, halako modun, nun ezteietako salea dana bete zan mahaien jarr zien jendekin.

11. Gero errege sartu zanen konbidatuk ikustea, han gizon bati [erreparau zion] etzemarrela ezteietako soñe.

12. Eta esan zion: «Aizkidea, nola sartu za hemen ezteietaako soiñe bae?». Baño hura mututu zan.

13. Ordun erregek be [serbitzariai] esan zien: «Oñek eta eskuk lotuta, bota zazue illunpetaa, nun eztan eongo nearra eta hortzen karrask eitea besteik».

14. Haiñ egie da asko diela hotseiñek, eta gutxi hautatuk.

15. Ordun fariseok [handi] jun zien euren arte tratatzea nola harrapau ote zezateken [Jesus] bat-baten, esaten zonan gañen.

16. Eta hontaako bialdu zioen be [ikastzalle] Herodiano batzukin, zeintzuk esan zioen:

–Maixue, ba'kiu egitie zala eta Jainkon bidea ero legea eakuste'zula egi garbiri doakion bezela, iñoi beira bae, zeati ez diozu[n] personan itxurei beiratzen.

17. Hau hala dan ezkero, esaiuzu zer deitzozun esatea noan hontaz: judioai, Jainkon herriri, libre zako ero ez Zesarri [tributoa] paatzea?».

18. Zeri Jesusek, han malizie haundie [ezautuik], erantzun zion:

–Zeati zirikatzen nazue, hipokritak?

19. Erakutsiezue [tributoa] paatzen dan monedea.

Hak denario bat [erakutsi zioen].

20. Jesusek esan zien:

–Zeñena da imajiña hau, eta letrero hau?

21. [Erantzun zioen]:

–Zesarrena.

Ordun esan zien:

–Emaiozue, ba, Zesarri Zesarrena dana eta Jainkori Jainkona.

22. Eta errespuesta honekin harrituik geau zien, eta hari utzita jun zien.

23. Eun hartan bertan saduzeok [etor zien, zeintzuk berrizko piztea ukatzen doen], kaso hau galdetzea:

24. –Maixue, Moisesek aindu zon *umei'pae norbait hiltzen bazan, anaie eskondu zeilla haen andrekin, be anaiei umek izan eraiteko*.

25. Ba gu ginden zazpi anai. Lenengoa eskonduta, hil zan eta, umeik izan bae, be andrea be anaiei [utzi zion].

26. Igoal gertau zitzekon bigarrenai, eta hirugarrenai, eta [hala] zazpigarreneaño.

27. Eta hak [g]uzin ondoren hil zan andrea.

28. Oain ba, berrizko piztea alleatzen danen, zein zazpi hatakon andrea izango da hura, danana izan zan ezkero?.

29. Zeñi Jesusek erantzun zion:

–Txit erratuk zabizte, Eskriturak entenditzen ez dituzuela, eta Jainkon eskubidea're ezautzen ez dezuelako.

30. Zeati berriz piztu ezkero ez gizonak hartuko doe andraik, eta ez andrak gizonik, baizik Jainkon aingeru'pezela [izango die zerun].

31. Baño hillen berrizko piztutzeari daokionan gañen, ez dituzue leitu Jainkon esanak daozkitzuen hitzek:

32. *Ni naiz Abrahanen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa*? Oain ba, Jainkoa ezta hillen Jainkoa, ezpada bizina.

33. [Herrie hura] aituik harritue zeon haen dotriñekin.

34. Baño fariseok, saduzeoai ahua itxi ziela [aitu zoenen, hokin] alkartu zien.

35. Eta hotako batek, zein legea zekina [zan], galdtu zion zirikatzeko:

36. –Maisue, zein da legeko mandamentuik haundine?

37. Jesusek erantzun zion:

–*Maiteko'ezu zure Jainko Jaune zure bihotz guztiti eta zure anima guztikin eta zure sentidu guztikin*.

38. [Hori] da haundina ta lenengo mandamentue.

39. Bigarrenak [horren] antza do: *Maiteko'ezu zure lagun projimoa zere burue bezela*.

40. Mandamentu hotan bitan dao lege guzie ta profetak».

41. Hemen alkarrekin zerela fariseok, [Jesusek galdera hau ein zien]:

42. –Ze iruritzen zatzue zuei Kristoz ero Mesiasez? Noon semea da?

[Esan zioen]:

–Dabidena.

43. Berriz esan zien:

–Ba nola Dabidek profetan espirituz deitzen dio be «Jaune»? Esaten donen:

44: *Jaunek esan zion ne Jaunei: Jarri zaite ne eskubiko alden, zure oinpeko aulkitzat zure etsaiek nik ipintze'ituan bitarten*.

45. Ba Dabidek deitzen badio be 'Jaune', nola izan diteke Dabiden Semea?

46. Eta honi iñork etzion erantzun ahal izan hitz bat, eta eun hartati aurrea iñor etzan atrebitu gehiao galderaik eitea.

HOETA HIRUGARREN KAPITULUE

[Jesusek fariseon gogortasun haundie kondenatzen do.
Legean esplikazio falson gañen,
profetan heriotzan gañen eta
Jerusalenen deseiten gañen hitz eiten do.]

1. Ordun Jesusek be hitze herriri ta [ikastzalleai zuzenduz], esan zien:

2. –Erakustzallek ero legea zekienak eta fariseok jarrita dare Moisesen katedran.

3. Praktika zazue, ba, eta ein esate'izuen guztie, baño ezazue ein hak eiten doena, zeati hak esaten doe ein behar dana, ta ez doe eiten.

4. Hak eiten doena da karga pisuk [lotu], eta ezineramalakok, eta besten bizkarretan [ipintzen'itue]; baño eurek ez doe [alderau] nahi behatz puntea're hak mogitzeko.

5. Euren obra guztik eite'itue [gizonak] ikusik izateagaiti; horreati eamate'itue ausarkigi Legeko hitzek banda [zabaletan], eta euren soñen ertzak luzegok.

6. Maite'itue lenengo jarlekuk'e bazkaritan eta lenengo sillak sinagogatan.

7. Eta diosalak einek plazan, eta gizonak eman dezaiela «Maixu» ero Jakintsun tituluk.

8. Zuek, alrebes, ez dezue nahi izan behar «Maixue» hotseitea, zeati bat bakarra da zuen Maixue, eta Anaiek zate zuek danak.

9. Eta ez dezue ohitu behar'e iñoi lurren zuen «aite» deitzen; [zeati] bat bakarra da zuen Aite egiazkoa, zein [zeruan daon].

10. Eta ez diozue estimazioik'e ekarri behar zeuon buruai [«Giari»] hotseiten dizuelako, zeati zuen [Giari] bakarra Kristo da.

11. Aizkenen, zuen arteko haundinak zuen morroi izan behar do.

12. [Zeati] goitzen dana umillatue izango da, eta umillatzen dana goititue izango da.

13. Zorigaiztoko Erakustzalle ta fariseo hipokritak, gizonai [zeruko erreinue] itxitzen diozuenak! Zeati ez zuek sartzen zate eta ez utzi eiten diozue sartuko liekenai, nian sinisten utzi ezta.

14. Zorigaiztoko Erakustzalle ta fariseok! Alargunan etxek iresten dituzuenak, orazio luzek eiteko aitzakikin. Horreati errezibituko'ezue askos'e sentenzi gogorragoa.

15. Zorigaiztoko Erakustzalle ta fariseo hipokritak! Itxasoz ta lurrez bueltaka zabiztenak fedebae bat konbertitzeagaiti, eta konbertitu ta gero zuen ejenplo ta dotriñekin zeuo'paño bi bider infernue mezi dunao eite'ituzue!

16. Zorigaiztoko zuek giari ero eramantzalle itxuk! Esate'zuenak: «Tenploati batek juramentu eitea ezer ezta; baño tenploko urrati juramentu eitea obligatue dao».

17. Neziok eta itxuk! Zer gehiao balio do, urrek ero urrea santifikatzen don tenplok?

18. Eta [esate'zue]: «Balin norbaitek juramentu eiten bado aldareati, ezta ezer; baño juramentu eiten bado aldaren gañen imintzen dan ofrendeati, zordun eiten da».

19. Itxuk! Zerk gehiao balio do, ofrendak ero ofrendea santifikatzen dan aldarek?

20. Aldareati juramentu eiten donak, haen eta haen gañen ipintzen dien gauza guztin gañen juramentu eiten do.

21. Eta tenploati juramentu eiten donak, haen ta han bizi dan Jaun haen gañen eiten do.

22. Eta zerungaiti juramentu eiten donak, Jainkon tronon ta han jarrita daon haen gañen juramentu eiten do.

23. Zorigaiztoko Erakustzalle ta fariseo hipokritak! Millun antzeko plantan, eta kominon, eta menden hamarrenak'e pagatze'ituzuenak, eta utzi'tuzue Legeko gauza beharrenak, justizie, miserikordie ta fede ona. Hok gorde beha'ituzue hak utzi bae.

24. Giari itxuk! [Erate'zuen guztie] irazte'zuenak eltxon bat ote daon, eta kamelu bat [ireste'zue].

25. Zorigaiztoko Erakustzalle ta fariseo hiprokritak! Kopea ta platera kanpoti garbitze'ituzuenak, eta barruti bihotzen ostu nahiekin ta likitxkeriz betek zatenak.

26. Fariseo itxue! Garbi zazu aurreneko barruti kopea ta platera, nahi ba'ezu kanpokoa garbie izan deiñ.

27. Zorigaiztoko Erakustzalle ta fariseo hiprokritak! [Hobi] zuritun antzekok zatelako, zeintzuk ederrak dirurien kanpoti gizonai, baño barruti hillen hezurrez ta usteltasun jenero guztikin betek daren.

28. Hala zuek'e kanpoti justok arkitzen zaizkitzue gizonai, baño barrun hipokresiz ta gaiztakeriz betek zate.

29. Zorigaiztoko Erakustzalle ta fariseok! Profetan [hobik] ein ta juston monumentuk apaintze'ituzuenak.

30. Eta esate'zue: «Gure gurason denboran bizi baginden, ez ginden han launek izango profetan heriotzan».

31. Zekin emate'zuen, zuen buruen kontrako, profetak hil zituen han semek zatelako agirie.

32. Akaba zazue ba zuen gurasoan neurrie betetzez Mesias hill eraiñez.

33. Sugazarrak, ziraun kastak! Nola da posible iges eitea infernuko suuri?

34. Zeati hona nun bialtzea nijoakizuen profetak, eta jakintsuk, eta erakustzallek, eta hatati batzuai lepo kenduko diozue, bestek kurutzetan josiko'ituzue, eta beste batzuk azotauko'ituzue zuen sinagogatan eta herriz herri [persegituko'ituzue].

35. Zuen gañea etor deiñ lurren isuri dan odol inozente guztie, Abel [zuzenen] odoleti Zakarias, Bakariasen semen odoleaiño, zein hil zenduen tenplon ta aldare tarten.

36. Egiz esate'izuet gauza hok [g]uzik etorko diela oaingo jenerazion gañea.

37. Jerusalen, Jerusalen, profetak hiltze'ituzuna eta bialtzen zaitunai harrika ematen diozuna! Zenbat aldiz nahi izan nitun bitu zure semek, ollalokek be txitak hegopen bitze'itun bezela, eta zuk ez dezu nahi izan.

38. Hona nun gelditzen dijoan hutsik zuen etxea.

39. Eta [hala] esate'izuet laister enazuela gehiao ikusiko, Mesiastzat ezautu ta esan arte: *Beinkatue izan bedi Jaunen izenen datorrena!*

HOETA LAUGARREN KAPITULUE

Jerusalenen ta tenplon deseitea.
Jesusen bigarren etorreren gertauko zana.
Zintzo eoteko [beharra], bigarren etorrer[a]k
preparau bae ez harrapa[tzeko].

1. Jesus tenploti irtenda bazijon, haen [ikastzallek] hareana alleau zienen; tenploa nola eiñe zeon erreparau eraiteagaiti.

2. Baño hark esan zien: «Ikusten'zue fabrika haundi hori? Ba nik [egiz] esate'izuet horti ez dala geatuko harrie harrin gañen».

3. Gero Olibarko Mendin jarrita zeola alleau zitzekon [ikastzalletako batzuk, eta isillik] galdetu zioen:

–Esaiuzu, noiz [hori] gertatuko da? Eta ze izango da zure etorreren eta mundun aizkenan señalea?

4. Zei {Zeri} Jesusek erantzun zien:

–Beira, gero, etzaitezela iñork engañau!

5. Zeati askok etorri behar doe ne izenen, esanez: «Ni naiz Kristo ero Mesias»; eta jende asko engañauko doe.

6. Gerran [mur-mur]ek'e aituko'ituzue. Ez dezue horreati ikaatu behar; gauza hok lenengo gertau behar badoe're, ezta hau oaindik akaberea.

7. Egie da jaikiko dala nazioa nazion kontra, eta erreinu bat besten kontra, eta izango die gaitzek, eta gosetek, eta lurrikarak leku askotan.

8. Baño [hori] guztie gaitzan hasierea besteik ezta.

9. Ordun izango zate majistradutaa entregatuk oñazatuk izateko, eta hilko zaitue; eta gizon [guztiak] gorrotatuk izango zate ne [ikastzallek] zatelako.

10. Zekin askok izango doen eskandaloa; eta batzuk besteai [tranpie] eingo die, eta gorrotoa ez da faltako alkarren arten.

11. Jende asko galduko doen profeta falso asko [agertuko die].

12. Eta bizioz bete ta hoztuko da askon karidadea.

13. Baño aizken arte irauten don hura salbauko da.

14. [Bian bitarten mundu guztin predikauko da] Jainkon erreinuko Ebanjelio hau, nazio guztintzat testimoniotzat; eta ordun etorko da akaberea.

15. Eta [hala leku santun jarrie ikuste'zuenen] Daniel profetak lendik esan zon nakatx galgarrie -hau leitzen donak ondo beira beza-.

16. [Ordun] Judean bizi dienak iges ein beze menditaa;

17. Etxe gañen daona ez bedi jatxi ero sartu be etxen gauzak etaatzea,

18. Eta kanpon [daona] ez bedi itzuli be tunikea ero soñe hartzea.

19. Zorigaiztokoak [eun hatan haur-egiteko] ta ume-hazitzen darenak ezin auburo iges eiñik.

20. Erregutu iozue, ba, Jainkoari zuen iges eitea ez deilla izan negun ero zapatun, zeñetan gutxi ibilli liteken.

21. Zeati ez mundu hasierati oaindaño izan da, eta ez iñoiz izango da ordun izan zan bezin nahibae izugarrie.

22. Eta eun hak ezpalieke laburtuko, iñor elitzeke salbauko; baño moztuko die hautatun amorioagaiti.

23. Ordun, norbaitek esaten ba'izue: «Kristo ero Mesias halako ero honlako lekutan dao», ez iozue sinistu.

24. Zeati Kristo falsok eta profeta falsok agertuko die, eta (mirari) askon banidadea izango doe; halako modun, eze hautatuk'e, posible balitz, engañauko lieke.

25. Ikuste'zue aurretik esan dizueala.

26. Eta [hala] esaten badizue're «Hona'men nun daon basamortun Mesias», etzaizte jun harutza; ero igoal «Beira nun daon etxek donik barrunen», ezazue sinistu.

27. Zeati euzkie jaiotzen dan aldeti tximitea irten da euzkie sartzen dan lekuraño istante baten ikusten dan bezela izango da Gizonan Semen etorrerea're.

28. Nunahi daola gorputze, harutza ingurauko die arranok.

29. Eun hatako nahibaen, euzkie illunduko da, illargik ez do argik eingo, eta izarrak eroiko die zeruti, eta aingeruk ikaatuko die [zerun].

30. Ordun zerun agertuko da Gizonan Semen señalea, zeñen bistan lurreko herri guztik hasiko dien nearrez; eta *zeruti Gizonan Semea drist eiten doen lañon gañen* [etortzen ikusko doe] eskubide ta majestade handikin.

31. Hark be aingeruk [bialduko'itu], zeintzuk tronpeta soñu haundikin bituko'ituen haen hautatuk mundun lau iskiñatati, zeruko baztar bateti besteaño.

32. Har zazue piku-arbolati etaatako konparazio hau: haen adarrak samurrek darenen eta hostoa etatzen hasitzen danen, udea gertu dala [ezautze'zue].

33. Ba hala zuek'e gauza hok ikuste'ituzuenen, euki [egizkotzat] Gizonan Semea gertu daola, aten daola.

34. Aseguratze'izueana da eztala akabauko jenerazio hau, hori guzie kunplitu baño lenao.

35. Zerue ta lurre pasauko die, baño ez doe faltauko ne hitze.

36. Baño zein eun ta ordutan izango dan iñork eztaki, ezta zeruko aingeruk'e, ezbada ne Aite'pakarrik.

37. Noen eunetan gertatu zan hori bera gertauko da Gizonan Semen etorreran.

38. Zeati dilubion aurreko eunetan gizonak jaten ta eraten, eta eurek eta euren semek eskontzen seitu zoen bezela, Noe kutxan sartu zan eune bereaño.

39. Eta beñ'e sinistu etzoen bezela dilubioa zetorrenik hasitzen ikusi ta danak eaman arte; hala gertauko da Gizonan Semen etorreran.

40. Ordun barrutin alkarrekin [eongo] dien bi gizonetati, bat hartue ta libratue izango da, eta bestea utzie.

41. Bi emakuma eongo die ehotzen errota baten, eta bat hartue izango da ero salbauko da eta bestea utzie eta galduko da.

42. Zintzo zate ba zuek, zuen Jaunek ze ordutan etor behar don eztakizuen kason.

43. Eon zaite zierto, familitako aite batek baleki ze ordutan sartu behar doen lapurrek haen etxen, ez litzekela {elitzekela} iñola're lo eongo, eta eluke utziko sakeatzen be etxea.

44. Ba zate zuek'e igoal preparatuk, zeati gutxina uste'ezuenen etor behar do Gizonan Semek.

45. Nor dala uste'zue serbitzari fiela eta prudentea, be Nausiandi be familin maiordomo ipinie, bakoitzei be garaien jana partitzeko?

46. Zorionekoa, be Nausie etortzen danen, be einbidekin hala kunplitzen arkitzen don halako serbitzarie.

47. Egiz esate'izuet, be azienda guztie haen eskun utziko dola.

48. Baño serbitzari hau gaiztoa balitz eta be arten esango balu: «Ne nausie beandutzen do».

49. Eta honekin, hasten ba'a be serbitzari launek gaizki tratatzen eta moskorrakin jaten ta eraten,

50. Halako serbitzarin nausie [etorko da] hark uste ez don eunen, eta usteik gutxina don ordun,

51. Eta esango dio «Zoaz ordu gaizton», eta serbitzari fedebaekok mezi don kastigue [emango dio]. Han izango die nearrak eta hortzan karrask eitek.

HOETA BO[S]GARREN KAPITULUE

Hamar birjiñan ta talentoan parabolak:
Jesusek zintzo eoteko ta obra onak eiteko [aintzen die]
be bigarren etorreren aizkeneko juizion
kondenatuek izan ez gaitezen.

1. Ordun [zeruko erreinuk hamar birjiñan antza izango do], zeintzuk euren lanparak hartuta, gizona ta andrea errezibitzea [irten zoen].

2. Zeintzutati bost neziok zien, eta bost prudentek.

3. Bost neziok euren lanparak hartu zituenen, etzoen oligoik hartu.

4. Baño prudentek lanparakin baten eaman zoen oligoa euren ontzitan.

5. Nola gizonak beandutzen zon etortzea, loguretu zien danak eta aizkenen lok hartu zitun.

6. Eta gauerdie alleau zanen boz bat [aitu zan], deadar eiten zona: «Beirazue, gizona badator! Irte'zazue haen bidea!».

7. Behala birjiña hak [g]uzik jaiki zien, eta euren lanparak [preparau zituen].

8. Ordun neziok prudenteai esan zien: «Emaiuzue zuen oligoti, zeati gure lanparak itzaltzen die[n]».

9. Prudentek erantzun zoen esanez: «Apike guk daukeun hau ezta askoko gutzat eta zuentzat, eta hobe da zoazten saltzen dan lekura, eta erosi falta zatzuena».

10. Hok erostea jun zien bitarten, gizona etor zan, eta preparauta zerenak harekin [sartu zien] ezteietaa, eta atea itxi zon.

11. Noizbait etorri zien beste birjiñak'e, esanez: «Jaune, Jaune! Irikiuzu!».

12. Baño hark erantzun zon: «Egiz esate'izuet nik etzaituzteala ezautzen».

13. [Hala] zintzo zate zuek, ez eune ta ez ordue ez dakitzuen kason.

14. «Zeati Jaunek obrau do, urrutira jun [eta] be morroiei hotsein ta be ondasun guztik entreau zien gizon bate'pezela.

15. Bati bos'talentu, beste bati bi, eta beste bati bat bakarra emanez, bakoitzei be zintzotasunen konforme, eta behalaxe [jun zan].

16. Bos'talentu hartu zituna jun zan, eta hakin trafikauta beste bost [iraazi zitun].

17. Modu hartan bertan, bi errezibitu zitunak beste bi [iraazi zitun].

18. Baño bat hartu zonak jun ta lurren zulo bat [ein zon] eta gorde zon be nausien dirue.

19. Denbora askon burun itzuli zan morroian nausie, eta kontuk eitea [hotsein zien].

20. Bos'talentu errezibitu zitunak alleauta presentau zion beste bost esanez: «Jaune, bos'talentu entregau ziendun, hona'men beste bost gehiao, hakin iraazi dituanak».

21. Be nausik erantzun zion: «Ondo da, mirabe ona, serbitzari egillea eta leiala. Gauza gutxin fiela izan zan kason, asko [konfiauko dizut]. Atoz zure nausin pozen parte hartutzea».

22. [Gero] alleau zan bi talento hartu zituna, eta esan zion: «Jaune, bi talentu eman ziendun, hemen dakarkitzut beste bi, hakin iraazi dituanak».

23. Nausik esan zion: «Ondo da, mirabe ona ta leiala. Gauza gutxin izan za leila [ta] nik askoz gehiao [konfiauko'izut]. Atoz zure nausin pozen parte hartutzea».

24. Aizkenen talentu bat hartu zonak alleauta esan zion: «Jaune, nik ba'kit kondizio gogorreko bizon bat zala, ebaitzen dezula ereiñ ez dezun lekun, eta bitzen dezula banau ez dezen lekun;

25. Eta [hala], galtzeko bildurrez, ju'nitzen ta zure talentue lurpen gorde non; hona nun dezun zurea dana».

26. Baño be [nausik], hitze hartuta, erantzun eta esan zion: «Serbitzari gaiztoa ta pardela! Zuk zekizun nik ebaitzen diala ereiten ez dian lekun, eta biltzen diala ezer banau ez dian lekun.

27. Ba horreati berati ne diruk eman behar zindien bankeroai, nik itzultzen kobra nezan ne kaudala iraazikin.

28. Tira ba, kenduiozue talentu hura eta emaiozue hamar talentu dauzkenai.

29. Ba donai eman behar zako, eta asko ta sobratue izango do, baño ez donai kenduko zako daukela dirurin hura're.

30. Eta ezertaako gauza eztan mirabe hori bota zazue kanpoko illunpetaa. Han izango da near eitea ta hortzan karrask eitea.

31. Gizonan Semea etortzen danen be majestade guztikin, eta be aingeru guztik launtzen dioela, ordun jarriko dabe glorin tronon.

32. Eta be aurrea {aurrera} agertu eraingo'itu nazio guztik, eta batzuk apartauko'itu bestetati, artzaiek ardik apartatze'itun bezela antxumatati.

33. Ardik be eskubin ta antxumak be ezkerren ipinta.

34. Ordun erregek be eskubin darenai [esango die]: «Atozte ne Aite[k] beinkatuk, zeruko erreinun posesioa hartzea, zein preparaue daon zuentzat mundun hasierati.

35. Zeati ni gose eon nitzen, eta eman zienduen jaten; egarrik eon nitzen, eta eman zienduen eraten; pelegrinoa nitzen ta ostatue man zienduen;

36. Narrugorrin neola, jantzi ninduzuen; gaixo eon nitzen eta bisitau ninduzuen; preso eon nitzen, eta etorri zindeten ni ikustea ta konsolatzea».

37. Zeñi [zintzok] erantzungo dioen esanez: «Jaune, noiz ikusi zindugun guk gosek, eta eman ginduzuun jaten; egarrik, eta eman ginduzu[u]n eraten?

38. Noiz arkitu zindugun pelegrino, et ostatue eman ginduzuun; narrugorrin eta jantzi ginduzuun?

39. Ero noiz ikusi zindugun gaixo ero kartzelan, eta jun ginden bisitatzea?».

40. Eta erregek errespuestaz esango die: «Egiz esate'izuet, ne anaietan danik txikin hotakon batekin ein zenduen guzitan nekin ein zenduela».

41. Ordun bertan be eskerreko alden darenai esango die: «Aparta zaizte niandi, madarikatuok, zoazte betiko surtaa, zein izan zan destinaue deabru ta be aingeru ero ministroantzat.

42. Zeati gosek eon nitzen, eta etzienduen jaten eman; egarrik, eta etzienduen eman eraten;

43. Pelegrino nitzen, eta eninduzuen errezibitu; narrugorrin, eta eninduzuen jantzi; gaixo ta preso, eta eninduzuen bisitatu».

44. Zeñi're erantzungo dioen gaiztok: «Jaune, noiz ikusi zindugun gosek, ero egarrik, ero pelegrino, ero narrugorrin, ero gaixo, ero preso, eta ez ginduzuun bisitatu?».

45. Ordun erantzungo die: «Egiz esate'izuet ne anai txiki hotakon batekin ein bae utzi zenduen guztitan, nekin ein bae utzi zenduela».

46. Eta horreati hok betiko infernua jungo die, eta [zintzok] betiko bizitzaa.

HOETA SEIGARREN KAPITULUE

[Jesus nola harrapauko. Andra baten ugentue.
Judasen tranpin gañen. Eukaristin istituzioa.
Jesusen preso hartzea. Pedron ukatzek.]

1. Jesusek hitzaldi [hak guzik akabau zitunen, be ikastzalleai esan zien]:

2. «Ondo dakizue hemendi bi eunera zelebrau behar dala Paskoa, eta Gizonan Semek entregaue izan behar dola kurutzen hiltzea».

3. Ordun abadean [nausik eta herriko majistraduk juntau zien] Kaifas deitzen zitzekon abade nausin etxen.

4. Eta [juntea] izan zoen tratatzeko nola eskuratu behar zoen Jesus mañaz.

5. [Baño] herrie alborotatzeko bildurrez, esaten zoen: «Ezta komeni hau pestako denboran ein deilla».

6. Jesus Betanin Simon legentsun etxen zeola,

7. Andra bat [alleau zitzekon] alabastro batekin, prezio haundiko usain on ero ugentuz beteta, eta Jesusen burun gañea [isuri zon, zein mahaien zeon].

8. [Ikastzalletako] batzuk hau ikusi zoenen, txit gaizki hartu zoen esanez:

–Zertako hori galdu?

9. Diru askon [saldu zeiken] eta pobreai eman.

10. Jesusek entendituta esan zien:

–Zeati inkomodatzen'zue andra hau, eta ez dezue ondo hartzen, [ona] izanik, den bezela, nekin ein don obrea?

11. Pobrek beti gertu dauzketzue, baño ni ez beti.

12. Eta hark [ugentu] hau ne gorputzen gañea isurita, ne sepulturea aurreti preparatzeko bezela ein do.

13. Egiz esate'izuet, erozeiñ lekutan predikatzen dala Ebanjelio hau, zein predikauko dan mundu guztin, andra honek oain ein dona're haen memorin zelebrauko dala.

14. Ordun Judas Iskariote, hamabitako bat, abadean [nausikin] eotea jun zan.

15. Eta esan zien: «Ze eman nahi diezue, eta nik ipinko'et [Jesus] zuen eskutan?».

Eta konpondu zien harekin hoetamar zillarrezko dirutan.

16. Ordutik [Judas] okasio onan billa zebillen tranpie eiteko.

17. Beantzagi Baeko Ogin lenengo eunen Jesusek hai erainta [ikastzallek] etor zitzekon, eta galdetu zioen:

–Nu[n] nahi dezu preparau daitzugun Paskoako aparie?

18. Jesusek erantzun zien:

–Zoazte herrira halako personen etxera, eta emaiozue mandatu hau: «Maixuk esan do Ne denborea gertu dao, Pazkoako aparie zelebratzea noa zure etxen ne [ikastzallekin]».

19. Jesusek aindu ziena ein zoen [ikastzallek], eta behar zana maneau zoen Paskoaako.

20. Illuntzen, mahaien [jarri zan be hamabi ikastzellekin].

21. Eta jaten zerela, esan zon:

–Egiz esate'izuet zuetako batek tranpie eingo diela.

22. [Ikastzallek], oso tristetuik, bapanaka galdetzen [hasi zien]:

–Jauna, ni naiz benturez?

23. Hark errespuestatzat esan zon:

–Nekin batea be eskue plateren sartzen dona ogie buztitzeko, hura da tranposoa.

24. Gizonan Semeari daokionez, badijoa, eskribitue daon bezela: baño zorigaiztokoa Gizonan Semea entregau behar don gizon hura! Halako gizonak hobe zon beñ'e jaio ezpalitz!

25. Judasek, zein entregau behar zona [zan], hitze hartuta esan zon:

–Maixue, ni naiz benturez?

Jesusek erantzun zion:

–Zuk esan dezu, zu za.

26. Apaiten zeren bitarten, Jesusek ogie [hartu zon], beinkau zon eta ebai zon, eta be [ikastzalleai eman zien], esanez: «Har zazue eta ja'zazue, hau ne gorputze [da]».

27. Kalize hartuta, eskerrak [eman zitun], beinkau zon eta eman zien, esanez: «Era'zazue danok orti.

28. Zeati hau ne odola [da], zein testamentu berriko sellue [izango dan, eta askoaiti isurie izango da] pekatun barkaziorako.

29. Eta aitortze'izuet gaurti ez diala erango gehiao mahasti honen frututi, ne Aiten erreinun pozezko kaliz berriti zuekin eango dian eun hartaiño».

30. Eskerrak emateko inoa esanda, Olibosko Mendi aldea [irten zoen].

31. Ordun Jesusek [esan zien]: «Danok padezituko'ezue eskandaloa gaur gauen ni naizela mediante, eta bakarrik utziko nazue. Eskribitue daolako: *Erituko'et artzaiei, eta artaldeko ardik banauko die*.

32. Baño ni berriz piztutzen naizenen, zuen aurreti Galileara jungo naiz, nun berriz ingurauko zaituztean».

33. Pedrok erantzunez esan zion:

–Nahiz beste guztik eskandalizau zu zala mediante, ni beñ'ee enaiz eskandalizauko ta etzaitu[t] bakarrik utziko.

34. Berriz esan zion Jesusek:

–Ba nik aseguratze'izut egi guzikin, gaurko gauen bertan ollarrak kukurruku eiñ baño len, hiru bider ukauko diezula.

35. Pedrok esan zion:

–Nahiz zurekin hill nazatela, nik ez dizut ukauko.

Hori bera beste [ikastzallek]'e esan zoen.

36. Bian bitarten Jesus Gesemani izena don etxalde batea [alleau zan], eta esan zien: «Jarri zaizte [hemen], ni harutza jun, ta orazioa eiten dian bitarten».

37. Beekin Pedro ta Zebedeon seme bik Santiago ta Joan hartuta, tristetzen ta estutzen [hasi zan].

38. Orduan esan zien: «Ne animek estutasun kruelak sentitze'itu, itxo'zazue [he]men, eta zintzo zate nekin».

39. Eta pauson batzuk aurreatuik, belauniko jarri zan be arpegie makurtuik, orazioa eiñez eta esanez: «Ne Aite, posible ba'a, eziezu kaliz hau eran erain, baño hala're ez bedi eiñ nik nahi diana, ezpada zuk nahi'zuna».

40. Gero be [ikastzalleana] itzuli zan eta lo arkitu zitun, eta [Pedroi] esan zion: «Posible da [zuek ordu beten'e] esna ez eotea nekin?

41. Zintzo zate, eta orazioa ei'zazue tentazion ez eroitzeko: espiritue zintzo eonagaitik, haragie argala dao».

42. Bigarren aldin [itzuli zan], eta orazioa ein zon esanez: «Ne aite, ezpadezake pasau kaliz honek nik ean bae, ein bedi zure borondatea».

43. Gero beste buelta bat [ein zon], eta lo billau zitun, zeati han begik logurez betek zeren.

44. [Hak] utzik, oaindik'e hirugarren aldin [erretirau zan] orazioa eitea, lengo hitzek eurek esaten zitulaik.

45. Behala itzuli zan be [ikastzalleana], eta esan zien: «Lo ei'zazue oaiñ, eta atxe'zazue. Hona nun ordue alleau [d]an, eta Gizonan Semea laister entregaue izatea dijoa pekatarin eskutan.

46. Tira, jaiki zaitezte, goazen hemendi; badator entregau behar nauen hura!».

47. Oaindi etzon hau ondo esan, Judas, hamabitako, bat alleau zanen, jende pilla haundi batekin, ezpatakin ta makillakin armatuik, zeintzuk abadean [nausi] eta herriko zahar ero senadoren parteti [zetozen].

48. Tranposok señale hau eman zien: «Nik musu ematen dioan hura da, [harrapau] zazue».

49. Behala, Jesuseana [alderauta], «Jainkok goarda zaitzela, Maixue!» [esan], eta musu eman zion.

50. Jesusek esan zion: «Aizkidea! Zertaa etor za honutza?».

Beste gañeakok alleau zien ordun, eta eskue bota zioen Jesusi eta preso hartu zoen.

51. Eta hona nun Jesusekin zerenetako batek, ezpatekin tirauta [eritu zon abadean nausietako baten morroie], belarri bat ebakiz.

52. Ordun Jesusek esan zion: «Sartu zazu zorron zure ezpatea, zeati ber bere nausitasunez ezpataz serbitzen dien guztik ezpataz hilko die.

53. Uste'zu ez dezakeala nee Aiteanau, nork behalaxe ipinko'itun ne menden hamabi aingeruzko legio baño gehiao?

54. Baño, nola kunplituko die Eskriturak, balin hak dioenez hala gertatzea konbeni bada?».

55. Ordu hartan Jesusek jende pilla hari esan zien: «Lapur ero gizoniltzalle baten kontra bezela irten dezue ezpatakin ta makillakin ni preso hartzea; eunero zuen arten jarrita tenplon eakusten aitze nitzen, eta beñ'e eninduzuen preso hartu.

56. Egia da hau guzie gertatu dala profetan Eskriturak kunpli ditezen».

Ordun [ikastzalle] guzik, Jesus utzita, iges ein zoen.

57. Jesus preso hartu zoenak Kaifasen etxea eaman zoen, zein [urte hartan] abade nausie [zan], eta harutza inguratuik zeren Erakustzalle ta zaharrak.

58. Pedrok urrutitik seitzen zion, abade nausin etxea alleau arte. Eta sartuik, miraben baten jarrita zeon, [hura] guztie zetan akabatzen zan ikusteko.

59. Abadean [nausik] eta konzilio guztik Jesusen kontrako testimonio falson baten billaka zebiltzen, heriotzaa kondenatzeko.

60. [Baño] etzoen nahikoa billatzen hontako, testigo falso asko presentau izanagaiti. Aizkenen bi testigo falso [agertu zien].

61. Eta esan zoen: «Honek esan zon: Nik arrasau daiket Jainkon tenploa, eta berriz eiñ hiru eunen».

62. Ordun, zutik jarrita abade nausik esan zion:

–Ez dezu ezer erantzuten zure kontra hok esaten doenan gañen?

63. Baño Jesus ixilik zeon. Eta abade nausik esan zion:

–Nik enpeñu haundikin erregutze'izut Jainko bizin parteti esan deiuzula zu zan Kristo ero Mesias Jainkon Semea.

64. Jesusek erantzun zion:

–Zuk esan dezu, ni naiz. Eta itortzen' e dizuet gero ikusko'ezuela aurreti daukezuen *Gizonan Seme hau Jainkon majestaden eskubiko alden jarrita etortzen zeruko lañoan gañen.*

65. Halako errespuesta zala mediante, abade nausik be arropak [urratu zion], esanez:

–Blasfemau do, ze testigon behar daukeu honuzkero? Jainkon Semetzat eiten dalako blasfemie aitzeti zatozte.

66. Zer deitzozue?

Hak erantzun zioen esanez:

–Heriotzea mezi do.

67. Behala hasi zien txistu botaka arpegira eta ukabilkazoka maltratatzen, eta beste batzuk begik tapauta gero belarrondokok ematen zioen,

68. Esanez: «Kristo, asmaizu: nor da eritu zaituna?».

69. Bian bitarten, Pedro atari kanpon jarrita zeon, eta neskame batek, [alderauta], esan zion:

–Jesus Galileakokin zebiltzen zu're.

70. Baño hark ukau zion danan aurren, esanez:

–Nik eztakit zer diozun.

71. Eta hark portikupea irten zonen, beste neskame batek [beirau zion], eta han zerenai esan zien:

–Hau'e Jesus Nazarenokin [zeon].

72. [Pedrok] ukau zon bigarren aldin juramentu eiñez:

–Ez det horlako gizonik ezautzen.

73. Handi piska batea alderau zien han zienak, eta Pedroi esan zioen:

–Iñolaz'e zure galileozko hitz eiteko moduk hala diruri.

74. Ordun hasi zan be burun kontra maldezioka eta juramentu eiten etzola halako gizonik ezautu. Eta behalaxe ollarrak [k]antau zon.

75. Ordun akordau zan Pedro Jesusek esan zion hitz hartaz: «Ollarrak [k]antau baño lenao, iru aldiz [ukauko diezu]». Eta kanpora irtenda, near {negar} ein zon garraxika.

HOETA ZAZPIGARREN KAPITULUE

[Judasen urkatzea. Jesus kurutzen josie ta blasfemaue.
Jesusen heriotzan gertatu zien (mirarik).
Hobiratuik, be hobie sellatue ta zaitue.]

1. Goize etor zanen, abadean [nausi ta herriko zahar guztik juntea] izan zoen Jesusen kontra, hil eraiteko.

2. Eta hiltzea mezi zola esanda, lotue eaman zoen, eta Ponzio Pilatos gobernadoren eskutan [ipin zoen].

3. Ordun [Judasek, saldu zon hark, Jesus sentenziaue ikusik], ein zonez damutuik, hoetamar zillarrezko diruk abadean [nausi ta zaharrai itzuli zien],

4. Esanez:

–Nik pekatu ein det, kulpaik baeko odola saldu'et.

Hak erantzun zioen:

–Guri zer diu? Hor konpon!

5. [Ordun] Judasek tenplon diruk botata, jun zan eta, soka bati kibistea einda, bere burue [urkau zon].

6. Abadetako [nausik] diruk bituta, esan zoen: «Ezta libre tenplon ondasunetan diru hok gordetzea, odolan prezioa dalako».

7. Eta, juntan tratau ta gero, diru hakin ontzigille baten barrutie erosi zoen, erbestekoan sepulturaako.

8. Horreati barruti hari *Hazeldama* deitu zitzekon, hau da, «Odolan [soroa», eta hala] do izena gaur dan eunen.

9. [Ordun] kunplitu zan Jeremias profetek lendik esan zona: *Errezibitu'itue hoetamar zillarrezko diruk, leku harek balio zon bezela, Israelgo semek estimatzen zoenez.*

10. *Eta ontzigille baten barrutie erosten gaztau zien, Jaunek aindu zien bezela.*

11. Jesus izan zan, ba, [gobernadore aurrea presentatue], eta galdetu zion:

–Zu za judion erregea?

Jesusek erantzun zion:

–Zuk diozu, banaiz.

12. Eta abadean [nausik] eta zaharrak akusau ala guztiatik'e, etzon ezer erantzun.

13. Horreati Pilatosek esan zion:

–Ez dezu aitzen zenbait gauza zure kontra esate'ituen?

14. Baño hark esan zion guztiri etzion ezer erantzun, eta [hala] guztiz harritue geau zan [gobernadorea].

15. [Gobernadorek] ohitzen zon pazkoako pesta mediante, herrik nahi zon preso bati libertadea ematea.

16. Eta nola ordun kartzelan [zeon] Barrabas deitzen zitzekon fama haundiko gaizto bat,

17. Pilatosek ingurun zienai [galdetu zien]:

–Zeiñ nahi dezue libra dezan, Barrabas ero Jesus, Kristo ero Mesias deitzona?

18. Zeati ondo zekin, abadean [nausik] inbidiz entregau zioela.

19. Be tribunalen jarrita zeola, be andrea etor zitzekon esatea {esatera}: «Etzaitez nahastu [zintzo] horren gauzatan, zeati asko die nik gaur pasau dituan estuasunek amesetan, horren kausagaiti».

20. Bian bitarten abadean [nausik] eta zaharrak sinistu erain zioen herriri eska zezala Barrabasen libertadea eta Jesusen heriotzea.

21. [Hala, gobernadorek] berriz galdetu zienen eta esan:

–Zein bitako nahi dezue libra dezan?

–Barrabas –[erantzun zoen hak].

22. Pilatosek esan zien berriz:

–[Eta] ze eiñ behar diot Jesus, Kristo deitzonai?

Danak [esan zoen]:

–Kurutzen josie izan bedi!

23. Eta [gobernadorek]:

–Baño zer oker ein do?

Eta hak hasi zien deadar gehiao eiten, esanez:

–Kurutzen josie izan bedi!

24. Zekin Pilatosek ikusiik etzola ezer aurreatzen, baizik gero ta gehiaora zijola alborotoa, ure ekartzeko ainduta, herri aurren [eskuk garbitu zitun, esanez]:

–[Zintzo] honen odolan kulpaik eztet nik! Hor konpon zaitezte!

25. Zeñi herri guztik erantzunez esan zon:

–Gure eta gure semen gañea eroi deilla horren odola!

26. Ordun Barrabas [librau zien]; eta Jesus, azotau erainda gero, be eskutan [entregau zion] kurutzen josie izan zedin.

27. Behalaxe [gobernadoren] soldaduk Jesus hartu ta Pilatosen palazioko portikupen ipiñita, be ingurumarin konpañi bat oso-osoa [juntau zan].

28. Eta erantziik, granazko mantu batekin [eztali zoen].

29. Arantzazko koroi bat ehota, burun gañen [ipin zioten] eta kañabera bat urrezigortzat be eskubiko eskun. Eta, [aurren] belauniko jarrita, burla eiten zioen, esanez: «Jainkok salba zaitzela, judion errege!».

30. Txistua botaka, kañaberea [hartzen zoen] eta burun eritzen zoen.

31. Eta horla parre einda gero, mantue [kendu zioen] eta, berriz be arropak jantzita, kurutzen jasotzea [etaa zoen].

32. Herriti irt[e]tzen zireneko, Simon zeitzon gizon bat topau zoen, [zein kurutzea eamatea obligau zoen].

33. Golgota izena don leku batea alleauta, hau da, Kalbarioko lekura,

34. Han [ardoa] eman zioen eaten {eraten} behazunekin nahastuta. Baño hark, progau zonen, etzon ean [n]ahi izan.

35. Kurutzen josi ondon, euren arten partitu zituen haen arropak, suerte botata. Honekin kunplitu zan profezie, zeñek dion: *Euren arten ne arropak [partitu zituen], eta suertek bota zituen zeñentzat izan ne tunikea.*

36. Eta [haren] ondon jarrita zaitzen zoen.

37. Burun gañen'e ipini zioen be kondenazioa [zeati] zan ai eraiteko hitz hok: «Hau Jesus [da], judion erregea».

38. Harekin baten kurutzen josik izan zien bi lapur; bat eskubiko alden eta bestea ezkerreko alden.

39. Eta handi pasatzen zienak blasfemau ta burla eiten zioen bururi eraiñez, eta esanez:

40. «Hola, Jainkon tenploa arrasau eta hiru eunen berriz eiten dezun horrek, salba zazu zere burue: Jainkon Semea baza, jatxi zaite kurutzeti».

41. Igoal abadean [nausik]'e, Erakustzalle ta zaharrakin baten, insultatuz esaten zoen:

42. «Bestek salbau ditu, eta ezin salbau do bere burue. Israelgo errege bada, jatxi bedi oain kurutzeti, eta sinistuko deu beragan.

43. Berak Jainkon ipintzen do be konfiantzea; ba, balin Jainkok hain maite bazon, libra beza oain, berak esaten don kason: Ni naiz Jainkon Semea».

44. Hori bera musura ematen zioen bekin batea kurutzen josik zeren lapurrek'e.

45. Seigarren orduti beatzigarrenea lur guztie illunez estalie geau zan.

46. Beatzigarren ordun Jesusek deadar ein zon oihu haundi batekin, esanez: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»*. Hau da: *«Ne Jainkoa, ne Jainkoa, zeati desanparau nazu?»*.

47. Hau aituta, beira zeren hatako batzuk esaten zoen: «Eliasi hotseiten dio honek».

48. Eta behala, hatako batek korrika esponja bat [hartu, ozpinetan buzti] eta, kañabera baten puntan jarrita, txupatzeko [ematen zion].

49. Bestek esaten zoen: «Utziozu, ikusi'zagun Elias libratzea etortzen zakon».

50. Ordun Jesusek berriz deadar eiñez oihu haundi batekin, be espiritue [entregau zon].

51. Eta behalaxe tenploko beloa bi puxka ein zan goiti beheraño, eta lurrek ikara ein zon eta harrik [puskau zien].

52. [Hobik] iriki zien, eta hil zien santu askon gorputzek berriz piztu zien:

53. [Hobietati] irtenda, Jesus piztu ta gero, herri santura [etor zien] eta askoi agertu zitzaien.

54. Bian bitarten, zenturiona ta haekin {harekin} Jesus zaitzen zerenak, lurrikarea eta gertazen zien gauzak [ikusiik], bildur haundiz bete zien, eta esaten zoen: «Egiz gizon hau zan Jainkon Semea!».

55. Andra asko're bazeren han urrutin, Jesusi Galileati seitu zioenak hura serbitzeko.

56. Hatakok zien Maria Madalena, eta Maria Santiagon ta Josen ama eta Zebedoen semen ama.

57. Illuntzea etor zanen, Arimateko gizon aberats bat [agertu zan, Jose zeitzona, Jesusen ikastzallea].

58. Hau Pilatosi presentau zitzekon, eta Jesusen gorputze [eskau zion, zeiñ Pilatosek aindu zon eman] zezaioela.

59. Josek, [ba], Jesusen gorputze hartuta izara garbi baten [bitu zon].

60. Eta be [hobi baten ipin zon], zeiñ iriki erain zon haitz baten, eta etzon oaindi iñork estreñau. [Gero, harri haundi bat alderauta, hobin atea itxi zon] eta jun zan.

61. Han zeren Maria Madalena eta beste Maria, [hobin] aurren jarrita.

62. Biramonen, zein zapatuko preparazion ondorengo eune zan, ero zapatue bera, Pilatoseana jun zien abadean [nausik] eta fariseok alkarrekin.

63. Esanez:

–Jaune, akordau gea engañatzalle hark, oaindi bizik zeola, esan zola: «Hirugarren eunen berriz piztuko naiz».

64. Aindu zazu, ba, [hobie] zaitu dezela hirugarren euneaño; be [ikastzallek] gauez jun ta ostu ez dezen, eta jende komunei esan ez deioen: «Piztu da hillen arteti», eta izan deiñ aizkeneko engañue lenengoa baño kaltetsugoa.

65. Pilatosek erantzun zien:

–Horra hor nun daukezuen [zaitzallea]. Zoazte, eta ipin zazue deitzozuen bezela.

66. Horrekin harutza junda, [hobie ondo segurau zuen harrie sellauta eta zaitzallek] bistan ipinita.

HOETA ZORTZIGARREN KAPITULUE

Jesusen berrizko piztea.

Haen agertzea andra santuai eta apostoloai.

Be laguntzea [aintzen die].

1. Zapatuko gaue aurrea ezkero, hasten lenengo eunen ero domeika eunsentin, Maria Madalena beste Mariakin etor zan [hobie] bisitatzea.

2. Garai hontan lur-ikara haundi bat sentitu zan, zeati zeruti Aingeru bat [jatxi zan] eta, [hobira] alleauta, harrie mogitu zon, eta honen gañen jarri zan.

3. Haen arpegik tximiste'pezela argi eiten zon, eta haren jantzie elurre bezin zurie zan.

4. Zeñeaz hain bildurtuik geau zien zaitzallek, nun hillek zirurien.

5. Baño Aingeruk, andrai beiratuz, esan zien:

–Zuek ez dezue zeen bildurrik izan. Ondo dakit Jesus kurutzen josie izan zanan billa zatoztela.

6. Hemen eztago ya, zeati berriz piztu da, lendik esan zon bezela. Atozte eta beira'zue Jaune [hobiratue] zeon lekue.

7. Eta oaiñ zoazte geau bae be [ikastzalleai esatea: «Berriz piztu da], eta hona nun dijoan zuen aurreti Galileara; han ikusiko'ezue». Esate'izuet aurreti.

8. Hak [hobiti] irten zoen behalaxe bildurrez eta poz haundikin, eta laisterka [jun zien ikastzalleai] berri ematea.

9. Eta hona nun Jesusek bidera [irten zien], esanez: «Jainkok goarda zaitzetela».

Hak, [alderauta], lurra ahuspeztuik, besotan hartu zituen haen oñek eta adoratu zoen.

10. Ordun Jesusek [esan zien]: «Ezazue bildurrik izan! Zoazte, abisaiezue ne anaiei dijoatzela Galilea, han ikusko nauela».

11. Han zijotzen bitarten, zaitzalletako batzuk herria [etor zien eta abadean nausiei] kontau zioen pasau zan guztie.

12. Hok zaharrakin inguratuik euren juntea izanda, diru kantidade haundie eman zien [zaitzalleai],

13. Honako istruzio hokin: «Esan behar dezue: Gu lo geundela, be [ikastzallek] etor zien gauez, eta ostu zoen.

14. Eta hori balin [gobernadoren] belarrita alleatzen bada, guk gozatuko deu, eta ondo etaako zaitueu».

15. Hak, dirue hartu zoenen, aindu zioena [ein zoen]; eta hots honek korritu do judion arten, gaur dan euneaiño.

16. Hamaika [ikastzallek Galileaa abiau zien, Jesusek esan] zien mendira.

17. Eta ikusi zoenen adorau zoen, nahiz izan batzuk euren dudak.

18. Ordun Jesusek alderau ta hitz ein zien modu hontan: «Eskubide guztie emana zat zerun eta lurren.

19. Zoazte, ba, eta erakutsiezue nazio guztiai [o]sasuneako bidea, Aiten eta Semen eta Espiritu Santun izenen (bataia)tuz.

20. [Eta] nik aindu dizuean gauza guztik godetzen erakutsiz. Eta zaate seguro ni neoni eongo naizela zuen arten beti [mundun] aizkeneaiño».

HEGO GOI-NAFARRERA

MATEOREN EBANJELIOA

HEGO GOI-NAFARRERAZ

JESUKRISTO GURE JAUNAREN

EBANJELIO SANDUA

SAN MATEOREN ARABERERA

ITZULTZAILE EZEZAGUNA

18??

1. KAPITULOA

[Jesus birjinaganik emartua.
Jesusen sorterroa. Jesusen emartzea.]

1. Jesukristoren idalgia, Dabiden seme, Abrahanen seme.

2. Abrahanek Isaak [emartu zué]. Isaakek Jakob. Jakobek Judas [emartu zué] eta bere anaiak.

3. Judasek Fares eta Zara emartu z[it]ué Tamarrenganik. Faresek Esrom emartu zué. Esromek Aram.

4. Aramek Aminadab emartu zué. Aminadabek Naason. Naasonek Salmon.

5. Salmonek Booz emartu zué Rahabenganik. Boozek Obed, Rutenganik. Obedek Jese, Jesek Dabid erregea.

6. Dabid erregek Salomon emartu zué Uriasen emaztea izanaganik.

7. Salomonek Roboan emartu zué. Roboanek Abias. Abiasek Asaf.

8. Asafek Josafat emartu zué. Josafatek Joram. Joramek Ozias.

9. Oziasek Joatam emartu zué. Joatamek Akaz. Akazek Ezekias.

10. Ezekiasek Manases emartu zué. Manasesek Amos. Amosek Josias.

11. Josiasek Jekonias emartu zué eta bere anaiak, judioen Babiloniarako alda denboran hurbil.

12. Eta Babiloniara aldatu ziren ondoan, Jekoniasek Salatiel emartu zué. Salatielek Zorobabel.

13. Zorobabelek Abiud emartu zué. Abiudek Eliakim. Eliakimek Azor.

14. Azorrek Sadok emartu zué. Sadokek Akim. Akimek Eliud.

15. Eliudek Eleazar emartu zué. Eleazarrek Matan. Matanek Jakob.

16. Eta Jakobek Jose emartu zué, Mariaren [senarra], norganik Jesus jaio zé, [izengoitis] Kristo.

17. Hala deré hamalaur sorterro guziak: [hamalaur] Abrahanganik Dabid [izan] artio; eta Dabidenak judioen aldaraño Babiloniará hamalaur sorterro; eta baitare hamalaur sorterro Babiloniará aldatik Kristo [izan artio].

18. Baña Kristoren jaiotzea gisa hontan izan zé: Harren ama Maria Josereki esposatuik zegolaik, bere sabelean haurdun aurkitu zé Espiritu Sanduein obras, lehenago elkarreki egon gabe.

19. Baña Jose bere [senarrak], zen bezain justoa zelaik, eta ez nahies hura infamatu, ixilkiró utzi nahi izan zue.

20. Hura pensamendu hontan zegolaik, hona hemen Jaunaren aingiru bat agertu zekió lootan, erranes: «Jose, Dabiden semea, ez errezelatu haure [emaztea] Maria haure etxean errezibitzeko, zeren haren sabelean jaio déna Espiritu Sanduain obra [den].

21. Hala dá ezi argiratuko dú seme bat, zeñi paratuko diozu izenes Jesus, bada hura dá bere [herria] beren bekatuetaik salbatu edo libratu behar duena».

22. Hau guzia ein zé Jaunak profetain medios ailtzinetik erran zuena kunpli zain, diolaik:

23. *Xakin zazie ezi birjina batek konzebituko duela eta erdiko seme bat, nori paratuko diote izenes Emmanuel* («Jangoikoa gureki» erran nahi baitu).

24. Honeki Josek, idatzartzean, Jaunaren aingiruak erran ziona in zué, eta bere [emaztea] errezibitu zué.

25. [Eta] ezautu gabe edo ukitu gabe, bere seme [lehena] argitu zué eta Jesus izena paratu zió.

2. KAPITULOA

[Iduzki-atra-aldeko mago batzuek Jesus adoratu.
Egiptora igesi. Belengo haurren hiltzea.
Egiptotik bihurtu eta Nazareten bizi.]

1. Jesus Belen Judeakoan jaio zenean, bada, Herodes errege zén denboran, hona mago batzuk etorri zire iduzki-atra-aldetik Jerusalena, galde egines:

–Non dago judioen errege jaio dená?

2. Zeren gúk ikusi dugú haren izarra iduzki-atra-aldean, eta etor gará haren adoratzera.

3. Hau eitzean errege Herodes turbatu zé, eta harekin Jerusalen guzia.

4. Eta [apezburu guziak eta herriko] eskribak deitus, galdeiten ziote non jaio behar zuen Kristok edo Mesias[ek].

5. Hontará haiek errespondatu zute:

–Judeáko Belenen, bada halá dago eskribituik profetain baitan:

6. *Eta zú, Belen, Judeáko lurra, etzara egiaski txikiena Judeako prinzipalenetan, zeren zúganik atrako dá kapitana, zeñek nere Israelgo herria gobernatuko duen.*

7. Orduan Herodes, magoak sekretuan edo bakarrik deitus, [haienganik jakin] zué noiz eta nola agertu zekioten izarrá.

8. Eta Belená bide-emanes, erran ziote: «Zoaste, eta informa zaiste puntus puntu haur gorren dén guzias, eta arkitu duzienean, abisu eman dezadazie, ni ere noaien eta adora dezadan».

9. Erregeri hau eitu zuteneko, joan zeré. Eta hóna hemen nóla ikusi zuten izarrá iduzki-atra-aldean; haien ailtzinean zoaie, haliketa haurra zegon leku gañeraño ellegatus gelditu zé.

10. Izarrá ikustean, ezin yagotan gozatu zeré.

11. Eta etxean sartus haurrá bere ama Mariarekin arkitu zuté eta, belaurikaturik, adoratu zuté. Eta beren kofreak idekirik, present-donak [eman] zioté: urrea, insensua eta mirra.

12. Eta zerutik abisu bat lootan errezibiturik Herodesengana etziten itzul, bertze bides bihurtu zeré beren lekuetara.

13. Haiek partitu zeren ondoan, Jaunaren aingiru bat agertu zekió Joseri lootan, erraten ziola: «Xaiki zaite, har zazu haurra eta bere ama, eta iges zaite Egiptorá, eta zaude hán nik abisu ematen dizudan artio, zeren Herodesek haurra bilatu behar dú heriotzerako».

14. Xaikis José, gabas haurra hartu zué eta bere ama, eta Egiptorá lekutu zé.

15. Non Herodes hil artio egon zé. [Hala bete] zé Jaunaren errana profetain agos: *Nik deitu nué Egiptotik nere semeá.*

16. Bitartean Herodes, magoek burlatu zutela ikusis, ezin-yagoró [hasarres] beteik, haur ttipitto Belenen eta haren [inguruan] zeren guziak, bi urtetaik behera, il zitzaten manatu zué, izarrain [agertzean magoenganik jakin] zuen denborain arabererá.

17. Orduan kunplitua ikusi zé Isaias profetak ailtzinetik erran zuena, ziola:

18. *Ramáraño eitu zeré bozak, anitz negar eta marraska. Rakel negarres da bere umen, eta etzué konsoluik errezibitu nahi, zeren eztiren bizi ya.*

19. Herodes hil ondoan, berla Jaunaren aingiru bat Joseri [agertu] zekió Egipton, erraten ziola:

20: «Xaiki zaite eta har zazu haurra eta bere ama, eta zoaz Israelgo lurrerá, zeren ya hilak deré haurrak hil nahi zu[z]tenak».

21. Xaikis José, haurra hartu zué eta bere ama, eta Israelgo lurrerá etor zé.

22. Judeán, ordea, Arkelao errege zela eitus, Herodes bere aitain lekuan, beldurtu zé harara joateas; eta lootan abisatuik, Galileako lurrerá erretiratu zé.

23. Eta ziudade batera etor zé bizitzes, Nazaret deitua, modu hontan profeten errana kunplitzen zela: *Nazare[tarra] deitua izain da.*

3. KAPITULOA

[Joan Bataiatzaleak Jesusen etortzea oihukatu.
Jesus bataiatua.]

1. Denborada hartan Joan [Bataiatzallea] predikatzen agertu zé, Judeako desertuan.
2. Eta erantzunes: «Izié penitenzia, zeren hurbil dago [zeruko] erreinua».
3. Hau da bada hura, nortas Isaias profeta mintzatu zen:

Desertuan klamatzen duenain boza da, erranes: Prepara zazie Jaunaren bidea; in izkizié xuxenak haren xendak.

4. Joanek beztimenta bat zué [gameluen] bilos einikakoa, eta gerrontzetan larrusko paxa bat, eta haren xanaria langostak eta larre-eztia zeré.
5. Jende guziak haren enkontrú zoazi, bada, Jerusalendik eta Judea guzitik eta Jordango zelai guzitik.
6. Eta harenganik bataioa errezibitzen zute Jordanean, beren bekatuak konfesatus.
7. Baña nola ikusten baizué haren bataiora fariseo eta saduzeoetaik anitz zatozela, erantzun ziote [Joanek]:

–O sugeak! Nork erakutsi dizie ezi kanporako señale batzueiki solo dezakeziela iges in eldu zaizien [hasarretik]?

8. Eizie bada penitenziaren fruitu dignoak.
9. Eta eztuzie zuen barrendegian erran nahi izan behar «Aitatzat Abrahan dúgu», zeren nik erraten diziet Jangoikoa poderoso dela harri hebetaik beretaik umeak Abrahani.
10. Beira zazié ezi aizkora arboleen hondoari mehatxatzen dagola; eta edozein arbole fruitu-on-gabea ebakia izain dá eta surá botatua.
11. Nik, halaber, urean bataiatzen zaistet penitenziara mogi zaisten; baña nere atzetik etorri behar duna, ni baño fuerteagokoa dá, zeñen oñetakoak ez naiz ni digno ermaterá; harek bataiatuko zaiste Espiritu Sanduan eta suan.
12. Harek bere eskuan dauka sardea, eta bere larraña ongi garbituko dú, eta bere garia graneroan bilduko dú, baña agotzak erreko tú sekula ezin itzal deiteken suan».
13. Orduan Galileatik Jordanerá etor zé Joanenganat, Joan[ek] bataiatua izateko.
14. Joan, ordea, erresistitzen zé hortará, erranes:

–Nik [zuk] bataiatua izan beha'ut, eta zú heldu zará nereganá!

15. Hontará, errespondatu zué Jesusek, erranes:

–Utz nezak itera orai, zeren halá konbeni xaiguk justizia guzias kunpli dezagun.

Joanek orduan utzi zió.

16. Bataiatua bada Jesus, instantean uretik atratzen, zeruak ideki zekitzkio, eta Jangoikoaren Espiritua uso baten forman txauxten zela ikus zué, eta haren gañean gelditzen.
17. Eta zerutik boza bat eitu izan zé ziona: «Hau da nere seme maitatua, nor baitan baitaukat paratuik nere konplazenzia».

4. KAPITULOA

[Jesusen barura eta tentazioa. Jesus Galileara.
Jesus berri ona zabaltzen hasi.
Jesusek bere ikaszaleei dei. Eriak sendatzen.]

1. Orduan Jesus Espiritu Sandua[k] desertурá ermaná izan zé, diabrua[k] tentatua izateko.
2. Eta berrogei gau-egunes barurtu ondo[a]n, gero gosetu zé.
3. Orduan tentazalea arrimatus, erran zió:

–Baldin Jangoikoin Seme zaren, errazú harri hebek in diten ogiak.

4. Baña Jesusek errespondatu zió:

–Eskribiturik dágo: *Ez ogiaiki solo bizi dá gizona, baita-ere Jaingoikoin agotik atratzen den itz guziaikin.*

5. Ondoan diabruak Jesus hartu zué eta Jerusalengo ziudade sandura erman zué, eta tenploko goren-gorenean paratu zué.
6. Eta erran zió:

–Jangoikoin Semea balimazara, bota zaite burus behera, zeren eskribituik dago: *Enkomendatu zaituela bere aingiruei, zeñek beren esku zabaletan hartu zaituzte, zure zangoak eztezan jo {xó} harrian.*

7. Jesusek [errespondatu] zio: Eskribiturik dago, baitare: *Eztuzu tentatuko Jauna zure Jangoikoa.*
8. Berri-berritan, diabruak Jesus mendi anitz gora baterá goratu zué, eta munduko erreinu guziak erakutsi zizkió, eta haien edertasuna.
9. Eta erran zió:

–Hau guzia emain dizut, belauriko eroris adoratzen banáuzu.

10. Orduan Jesusek errespondatu zio:

–Guaie hordik, Satanás! Zeren eskribituik dágo: *Jauna zure Jangoikoa aduratuko duzu, eta harri solo zerbitzatuko diozú.*

11. Orduan diabruak utzi zué, eta hóna hemen aingiruak arrimatu zekitzkió eta zerbitzatzen ziote.
12. Gero Jesusek eitu zuenean ezi Joan preso zegola, Galiléará erretiratu zé.
13. Eta Nazareteko ziudadea utzis, Kafarnaurá joan ze bizitzes, itxas-hiria, Zabulongo eta Neftaliko hurbiletan.
14. Eta hontan, profeta Isaiasen errana kunplitzera etor zé:
15. *Zabulongo lurra eta Neftaliko lekua, nondik bidea dén Tiberiadesgo itxasora Jordanen bertze aldetik, jentilen Galileá.*
16. *[Herri] honek, ilunbetan xarririk zegona[k], argi handi bat ikusi zué, argitasun argitzera etor dena herioko ilunbe-lekuetan zaudenén.*

17. Ordutik hasi zé Jesus predikatzen eta erraten: «Eizié penitenzia, zeren hurbil dago [zeruko] erreinua».

18. Jesus egun bates Galileako itxaso bazterras zoaielaik, bi anaia ikus zitué, Simon, gero izenes Pedro, eta Andres bere anaia, sarea itxasoan botatzen. Arranzariak zere, bada.

19. Eta erran ziote: «Atozte nere atze, eta nik ineunt izan zaistén zuek gizonen arranzariak».

20. Berla haiek biek, sareak utzirik, segitu ziote.

21. Handik altzinago pasatzean, bertze bi anaia ikus zitué, Santiago, Zebedeoein semea, eta bere anaia Joan, barkan sareen erremendatzen ai zirela beren aita Zebedeoeikin, eta deitu zitue.

22. Haiek ere orbat berla, sareak eta beren aita utzirik, segitu ziote.

23. Eta bazabila Jesus Galileá guziain inguratzen, haien sinagogetan [zeruko] erreinuko Ebanjelioa edo berri óna erakutsis, eta herriko jendetan oñaze eta eritasun guzia [sendatus].

24. Horgatik haren fama Siria guzitik [zabaldu] ze, eta eri zauden guziak presentatzen zizkiote, eta larrituik asko gaitzés eta oñazés, [diabrudunak], lunatikoak, perlatikoak, eta sendatzen zitué.

25. Eta jende-alde handiak zoazi harren segimenduan Galiléatik, Dekapolistik eta Jerusalendik eta Judeatik eta Jordanen bertze aldetik.

5. KAPITULOA

[Jesusen erakustea mendian. Zoriontasunak.
Munduaindako gatz eta argi. Jesus eta legea.
Anaien arteko baketzea. Adulterioa eta dibortzioa.
Juramentuak. (Mendekua.) Maitatu etsaiak.]

1. Jesusek jende-alde hau guzia ikustean, ordea, mendi batera igan zé eta, hán xartzen zelá, bere [ikaszaleak] arrimatu zekitzkió.

2. Eta bere ago dibinoa idekis, erakusten ziote erranes:

3. –Zorionekoak izpiritu pobrekoak, zeren haiena dén [zeruko] erreinua.

4. Zorionekoak mantxo eta umilak, zeren haiek menpetuko'uten lurra.

5. Zorionekoak negargileak, zeren haiek konsolatuak izain diren.

6. Zorionekoak justiziain, edo justu eta sandu izateko gose eta egarridunak, zeren haiek izain deren aspertuak.

7. Zorionekoak [urrikari]osoak, zeren haiek [erdetsi]ko'uten [kupida].

8. Zorionekoak bihotz garbidunak, zeren haiek ikusiko'ute[n] Jangoikoa.

9. Zorionekoak bakeskoak, zeren "Jangoikoin umeak" deituak izain deren.

10. Zorionekoak justizi[ain] persekuzioa [du]tenak, edo zeren justoak déren, bada haiena dá [zeruko] erreinua.

11. Zorionekoak izain zarate, gizonek nere kausas gaizki erraten diziet[e]laik, eta persegitzen diziet[e]laik, eta gezurrean gaizki guzia zuen kontra diotelaik.

12. Alegra zaiste orduan eta goza zaiste, zeren anitz handia dén zuen premioa zeruan.

13. Zuek zárate lurreko gatza. Eta gatzak gazitasuna galtzen balimadú, zéreki itzuliko dá gazi? Yá eztú deustako balio, baixik kanpora botatzeko, eta jenden oinpetatzeko.

14. Zuek zarate munduko argitasuna. Ez daiteke estali ziudade bat, mendi baten gañean inik dagona.

15. Ez-eta etxekitzen ere dúte tortxa bat almute baten pean paratzeko, baixik kandelero gañean, etxean dauden guziei argi dezan.

16. Gisa hontará [argitu] behar dú zuen argiak gizonen ailtzinean, zuen obronak ikus ditzaten, eta gloria eman dezaten zuen Aita zeruan dagonari.

17. Eztuzie zér pensatú legeko eta profeten doktrinain desiterá etor naizalá; ez naiz etorri haien ekentzerá, baixik haiei kunplimendu ematerá.

18. Ezi osoki egian dioziet, lehenago faltako derelá zerua eta lurrá, ezi éz útzi perfetki kunplitu gabe legeak duen guzia, ez jota bat ere, ez puntu bat ere harenik.

19. Horgatik nornahiek hauxten luken mandamentu hebetaik dénik ere txikien-txikiená idurian, eta gizonei hála erakusten lukenak, anitz ttipia, hau dá, deustakoa, [zeruko]

erreinuan deitua izain dá; baña guardatzen luzkená, eta erakusten luzkena, hori hándia deitua izain dá [zeruko] erreinuan.

20. Nik, bada, erraten diziet, zuen justizia baldin ez balitz beteagokoa eta perfetagokoa nola eskriben ta fariseoená, etzarate sartuko [zeruko] erreinuan.

21. Aintiguaskoei erran zekiotena eitu duzié: *Eztuzú hilen*, eta hiltzen lukená juizioan heriotzerá kondenatua izain dá.

22. Nik gehiago dioziet: Nornahi dén bere anaiá begietan hartzen duena, juezak kondena dezan merejituko dú. Eta [«ero»] deitzen dionak, konziliok kondena dezan merejiko dú. Baña [«ero»] deitzen liokena infernuko suein reo izain da.

23. Horgatik, badá, zure ofrendá aldarean [eskaintzerá] balimazoaz, eta hán zure anaiak zure kontra zerbait duela oroitzen zaren,

24. Útzazú hán berean aldare ailtzinean zure ofrendá, eta zoaz lehenik zure anaiaiki baketzerá; eta orduan záto zure ofrendá [eskaintzerá].

25. Konpon zaite berla zure kontrarioeiki, bidean zauden bitartio oraño beraiki, eztain izan ezi zure kontrarioak juezari [eman] zitzan eta juezak ministroin eskuetan, eta kartzelean sartzitzaten.

26. Egiaski [erraten] dizut etzarela handik atrakó azken marabidia pagatu duzun artio.

27. Eitu duzie zuen ailtzinekoei erran zekiotela: *Eztuzú adulteratukó.*

28. Nik yago erraten diziet: nornahiek emazteiki bati beira dezon, deseo gaistoreki harrenganát, ya in dú adulterio bere bihotzean.

29. Eta baldin zure eskuieko begia zuretako bekatu iteko okasio dén, atra zazú eta bota zúganik kanpó; bada, hobe'uzú zure mienbroteik bat galdu, ezi ez zure gorputz guzia ifernuko suan botatuá izan dain.

30. Eta baldin zure eskuieko eskua eskandalotako dúzun edo bekaturá [eramaten] zaituen, ebákazu eta bota zúganik urrún, zeren hobe'uzú zure mienbroteik bat [gal] dain, ezi ez zure gorputz guzia ifernurá joan dain.

31. Baitare erran izan dá: *Nornahiek bere emazteá despei dezan, emán zola karta librea.*

32. Baña nik erraten diziet: nornahiek bere emazte[á] útz dezan, non eztén adulterio kausas, adúltera izain dain peligroan paratzen dú; eta utziareki ezkontzen dená, halaber dá adúltero.

33. Antiguaskoei erraná baitare eitu duzié: *Eztuzú inen juramentú falsukí, eta Jaunari juramentu in tiozunak kunplituko tiozú.*

34. Nik yago erraten diziet: etzaziela in juramentu niolako moduan, [arrazio xuxena] gabe, *ez zeruas, zeren Jaingoikoin tronoa* dén.

35. *Ez lurrás ere, zeren harren oñen-pea* dén; ez Jerusalenes ere, zeren *Errege handiaren ziudade edo kortea* dén.

36. Ez eta zuen buruas ere juramentatú, zergatik éz-tago zuen eskuan bilo bat solo itea xuria edo beltxa.

37. [Izan dadiela], bada, zuen mintzatzeko modua, «bai» bai [denean] eta «ez» ez [denean], zeren hontaik yago déna, gaitzetik heldu dá.

38. Eitu duzie erran izan delá: *Begia begias, eta hortza hortzas.*

39. Nik ordea erraten diziet etzaziela gaizkiari kontra in, baixik ere norbaitek jotzen baditzú eskuieko matelean, itzul zozú baita bertzea ere.

40. Eta zuri pleitu paratu nahi duenari, zure tunika kentzeagatik, émozú baitare kapa.

42. Eskatzen dizunari emózu, eta éz itzul zure aurpegia [dirua eskatzen dizunari geroago itzultzeko].

43. Eitu duzie erran izan déla: *Zure proximo laguna [maitatuko'uzu*, eta] -gaizkiró añaditu dúte- odio idukiko diozu zure etsaiari.

44. Nik yago dioziet: maita izkizie zuen etsaiak. Izie ongi aborretzitzen zaistenei, eta otoitz [z]azie persegitzen eta kalumniatzen zaistenen ónetan.

45. Zuen Aita zerukoin ume imitazaleak izan zaisten, nork agerrarazten duen bere iduzkia onen eta gaistoen gañerat, eta euri [iten] justoen eta bekatarien gañerat.

46. Ezi maitatzen zaistenak baixik ezpa'uzie [maitatzen], zér premio izan dezakezie? Ez dute gisa berean iten oraño publikanoek ere?

47. Eta ezpa'uzie salutatzen bertzerik baixik zuen anaiak, zer dá hontan partikulare? Benturas, eztute iten hori berá publikanoek ere?

48. Izan zaiste, bada, zuek perfektoak, hala nola perfektoa dén zuen Aita zerukoa, berá imitatus dezakezien guzian.

6. KAPITULOA

[Limosna. Aita Gurea otoitza. Barura.
Zeruan abrats. Barren argitsua.
Jangoikoa edo dirua. Zertas (arduratu).]

1. Ongi beira zaiste ezkizien zuen obronak gizonen altzinean in, ikusiak izateagatik; bertze gisas eztuzie haien premioik errezibitukó zuen Aita zeruan dagonaganik.

2. Eta hála, limosna ematen duzulaik etzazulá publikatu tronpeta soñuan, [itxurazale]ek sinagogetan eta karriketan edo plazetan itenunten bekala, gizonek honra ditzaten. Egian dioziet, beren pagua ya errezibitu zutela.

3. Zúk, ordea, limosna ematen duzulaik, esku ezkerrak eskuiak iten duena ez dezan hauteman prokuratú behauzú.

4. Zure limosna dágon [estalian], eta zure Aitak estaliagokoa ikusten baitú, errekonpensatuko dizú públikoan.

5. Halaber oraziotzen duzienean, etzaiztela izan [ezirudien] gisa, zeñak adrede paratzen deré otoitz iten txutirik sinagogetan eta karrika eskinetan gizone[k] ikusiak izateagatik. Egian dioziet, errezibitu [dute]la ya beren errekonpensa.

6. Zú, [ordea], orazio in behar dukezunean, sar zaite zure koartoan, eta ataria zerratuik, ottoitz [z]azú sekretuan zure Aitari, eta zure Aitak, ikusten baitú sekretuagokoa, premiatuko zaitú publikoan.

7. Orazioan etzazielá guziruditú anitz mintzatzea, jentilek itenunten bekala; uste'ute ezi anitz xardukis eituak izain derelá.

8. Ez, bada, nahi izan haiek imitatú, ezi badaki ongi zuen Aitak zer behar duzien, eskatu baño lehen.

9. Ikus [z]azie, bada, nóla ottoitz in beha'uzien: «Aita gurea zeru[an] zaudena, santifika bedi zure izena,

10. Etor bedi zure erreinua, in bedi zure borondatea, zeruan bekala lurrean ere.

11. Eman dezaguzu gure egunorosko ogia.

12. Eta barka dazkiguzu guri gauren zorrák, hála nola gúk barkatzen baitzitztegú gú zor gaituztenei.

13. Eta ez gaitzazulá útzi tentazioan erortzerá, [baña] libra gaitzazú gaitzetik. Amen».

14. Baldin, bada, gizonei zuen kontra iten tuzten ofensak barkatzen badituzié, baitare zuen Aita zerukoak barkatuko dizkitzié zuen bekatuak.

15. Baña zuek ezpa'uzie barkatzen gizonei, éz eta zuen aitak barkatuko ere zuen bekatuak.

16. Barurtzen zaratenean, etzaitztela paratú aurpegi-triste, [ezirudiak] bekalá, zeñek beren aurpegiak itsusten tuzten, gizonei [erakusteko] barur deréla. Egian erraten diziet beren pagua errezibitu zutelá ya.

17. Zúk ordea, barurtzen zarelaik, únta zazú zure burua eta garbitú ongi zure aurpegia.

18. Gizonek nabarmen ez dezaten barur zarela, baixik zure Aitak solo, presente dágona guzietará, sekretuagoko denera ere; eta zure Aitak, sekretuan zer pasatzen dén ikusten baitú, onen errekonpensa emain dizú.

19. Eztuzié zuendako montiotú nahi izan behar ontasun-tesoroak lurrean, non herdoiak eta pipiak [xaten tuzten, eta non ebaszaleek] lúpetik atratzen eta ebasten tuzten.

20. Bil'tzkitze zuendako tesoroak zeruan, non eztén herdoik ez pipirik [xaten] tuenik, ez eta're [ebaszaleik] lúpetik atratzen eta ebastenuntenik.

21. [Zeren] zure tesoroa non dágon, han [bait]ágo baitare zure bihotza.

22. Zure begia zure gorputzain argizuzia da; zure begia garbia balagoke, zure gorputz guzia leráke argitsua.

23. Zure begia gaistoa balima'uzú, ordea, zure gorputz guzia ilunás egoin da. Zú baitan, bada, izan behar duen argitasuna íluna balimadá, ilunbeak berak zoin handiak ote deré!

24. Niork etzake zerbitza bi jaunei; zeren edo bati odio idukiko dio eta bertzeari amorio, edo baldin sujetatzen den lehemixikoari, bigarrenari gaizki beiratuko dio. Ez dezakezié zerbitza Jangoikoari eta ontasunei.

25. Horgatik erraten diziet: Etzaistela [beldurres] bete zuen bizia sustentatzeko zér xan aurkitzeko, edo nondik atrako'uzien zuen gorputzá beztitzeko. Zér eztú yago balio biziak edo arimak alimentuak baño, eta gorputzak soñetakoak baño!

26. Beira zozié górako [txori]jendei, zeñek eztuté ereikitzen ez egitatzen, ézeta graneroik dúte, eta zuen Aita zerukoak alimentatzen tú. Eztuzié, bada, zuek anitz yago balio konparazio gabe haiek baño?

27. Eta nork zuetaik, [anitz arduratus ere], bere estaturari beso bat añaditu dézake?

28. Eta beztimentain kasorat, zérgatik sofokatzen zaiste? Pensa zazie kanpoko lilietan, nóla házten deren eta lilitzen. Ezteré trabajatzen, ez iruten ere dute.

29. Bagetarik nik dioziet ezi éz Salomon ere bere gloria guzian ain galantki beztitu zé, nola lili ebeteik bakotxá.

30. Bada kanpoko beluze belar bat, egu dená, edo loretzen dena, eta bihar labean botatua déna, Jangoikoak hála beztitzen balimadú, zénbat yago zuek, gizon fede gutikoak?

31. Halá ezi etzaistelá ansiatu erranes: «Zér xain dugu? Edo zér edain dugu? Edo zéreki beztituko gará?»

32. Paganoek itenunten gisará, zeiñak afanatuik dabiltza gauza heben guzien átzean; ezi bádaki ongi zuen Aitak nezesidade duziela hebetás.

33. Bila zazie, bada, lehenik Jangoikoin erreinua eta haren justizia, eta emain zeitzkizé gauza hebek guziak yagotan.

34. Etzaistela, bada, afanatú biharko egunas, ezi biharko egunak aski kuidado ekarko dú berés. Aski du egunak bere afera edo tarea.

7. KAPITULOA

[Ez juzgatu nior. Konfiantza otoitzetan.
Atari meharra. Beren fruitutaik ezautuko tuzie.
Harriain edo hareain gañeko etxea.]

1. Eztuzié juzgatu nahi izan behar, juzgatuak izan nahi ezpa'uzie.

2. Zeren juzgatzenunzien juizio berás izain zaraté juzgatuak; eta neurritzenunzien neurri berás izain zaraté neurrituak zuek.

3. Baña zú, zér aurpegirekí paratzen zará zure anaiain begian illaunttoa ikusterá, eta eztuzú hága ikusten zure begian?

4. Edo nóla diozú zure anaiai «Útzak atra dezadan nik agotztto hori hire begitik» dauka[zu]laik [z]aurorrek hága bat [z]aurean?

5. [Ezirudia], átra zazú léhenik hága zure begitik, eta orduan ikusiko'uzú nóla atra dezakezun illauná zure anaiain begitik.

6. Eztuzié zér emán gauza sanduak txakurrei, éz bota ere zuen perlak txerrien alzinerat, ez ditzaten baldin oinpetatú, eta zuen kontrá irabiatus etzaisten zatikatú.

7. Eska zazie, eta emain zaizié; bila zazié eta aurkituko'uzié; dei zazié eta idekiko zaizié.

8. Zeren eskale guziak errezibitzen dú, eta bilatzen duenak arkitzen dú, eta deitzen due[na]ri idekitzen zaio.

9. Báda norbait zuen artean, nori bere seme batek ógi eskatzean, harri bat emain dion[a]?

10. Edo arrai bat eskatzen badio, súge bat emain dion[a]?

11. Bada zuek gaistoak izanik, zuen úmei gauzonak emáten balimadákizie, zénbat yago hobeki emain tú zuen Aita zerukoak gauzonak eskatzen dizkiotenei?

12. Eta hala ízie zuek bertze gizonekí, haiek zuekí in dezaten deseatzen duzien guzia; zeren haú dá Legeain eta Profeten súma.

13. Sar zaiste atari meharrás, zeren atari zabalá ta bide [zabalá] galbideak dére, eta anitz dére sartzen derenák bide hontas.

14. O, zoin ertxia dén ataria eta zoin meharrá xenda, bizi eternorat doaiená! Eta zóin guti derén bide húra asmatzenuntenak!

15. Beira zaiste profeta falsuetaik! Ardien larrueki zuenganát beztituik datozenak, baña barrenoró otso gorbantak derenak.

16. Beren frutu edo obreteik ezautuko tuzie. Akaso mahatsak elorrieteik hartzen deré, edo bikuak maldeteik?

17. Hala dá ezi edozein arbole onek dákarren fruitu onak, eta arbole gaisto guziak fruitu gaistoak.

18. Arbole ón batek eztezake fruitu gaistoak emán, ez etare arbole gaisto batek fruitu ónak ekár.

19. Edozein arbole fruitu óna emáten eztuena, ebakia izain dá, eta botatuá surá.

20. Beren fruitueteik, bada, ezaunt ditzatzkezié.

21. Ez «Jauna, Jauna!» erraten didan guzia sartuko da horgatik [zeruko] erreinuan, baixik nere Aita zerukoin borondatea iten duena, haú dá [zeruko] erreinuan sartuko déna.

22. Anitzek errain didate juizioko egun hartan: «Jauna, Jauna! Ezkindué, bada, zure izenean asmegitatú, eta zure izenean demonioak aurtiki, zure izenean milagro anitz ín?».

23. Baña nik orduan gogarpetuko diotet: «Nior ere etzaiztet nereak ezaundu; aparta zaizte niganik, maldadegileak!»

24. Horgatikan, nornahiek nere erakutsmen hebek entzun ditzan eta praktika ditzan, [húra] gizon xakintsu bati iduria izain dá, zeñek bere etxea arri gañean zimentatú zuen.

25. Eta euriak eror zeré, eta ugaldeak ámeteik atra zeré, eta haizeek fuerteki xo zioté, eta etxe haren kontrá bortizkí emán zute; baña etzé erori, zeren harri gañean zimentatuik zegon.

26. Baña nornahiek nik ematen tudan instrukzio hebek entzun ditzan, eta éz paratzen obras, [húra] gizon ero bati iduria izain dá, zeñek bere etxea hareain gañean zimentatú zuen.

27. Eta éuria etor zé, eta ugaldeak ámeteik atreik étor zeré, eta hura erori zé eta haren destrukzioa handia izan zé.

28. Azkenes, Jesusek hitzaldi hebek akabatu zituenean, eitzen zioten jendek etzuketé akabatú haren doktrina admiratus.

29. Zeren haren erakusteko modua autoridade soberano bateki bezala ze[n], eta éz haien eskriba eta fariseoen ariorá.

8. KAPITULOA

[Jesusek lepraduna sendatu. Erromatar zenturionain fedea.
Jesusek Pedroin amaiarreba sendatu. Eri anitz sendatu.
Jesusek tenpestadea (baretu) eta Jenerazetgo demoniodunak sendatu.]

1. Jesus menditik xautxi zenean, jendalde handi batek segitu zió.
2. Hontan, harenganat lepradun bat adoratzera etorris, erran [zió]:
–Jauna, horrek nahi badú, garbi nazdáke.
3. Eta Jesusek eskua hedatus ukitu zué erranes:
–Nahi dút. Garbi zaite.
Eta berla sandaturik gelditu zé.
4. Eta Jesusek erran zio:
Beirá étzazún erran niori'ré; zóaz, órdea, presenta zaité sazerdoteari, eta ofrezi zazú Moisesek manatu zuen ofrendá, testimoniotan izan zeióten.
5. Eta Kafarnaun sartzean, zenturion bat [etorri] zekio, eta ottoitzten zió erranes:
6. –Nere mutil bat goatzean dágo nere etxean, paralitiko, oñaze anitz handieki.
7. Jesusek [erran zió]:
–Ni joain naiz eta sendatuko'ut.
8. Eta zenturionak [errespondatu] zué:
–Jauna, ez naiz ni digno beroi sar dain nere etxean; aski dá, ordea, itzés mana dezan, eta nere mutilá sendatuko dá.
9. Bada oraño nik, ezpainaiz yago ezi gizon bat bertzen sujeto nágona, nola soldadoak nere manukó baititut, bati diot: «Zóaz», eta badoaié; eta bertzeari: «Átoz», eta heldu da; eta nere mutilari: «Eizu haú», eta iten dú.
10. Jesusek haú eitu zuelaik, admirazio handia [erakutsi] zué, eta segitzen ziotenei erran ziote: «Egian dioziet, ezi ez Israel berean ere aurkitú dudan fede bat hain hándia.
11. Eta hála, nik dekláratzen diziet jentil anitz etorko deréla sortaldetik eta sartaldetik, eta mahaian xarriko derelá Abrahan, Isaak eta Jakobeki [zeruko] erreinuan.
12. Denbora berean erreinuko úmeak -judioak- kanpoko ilunbetará botatuak dereleik, hán izain dá negarrá, eta hortzen karratskotsa».
13. Gero Jesusek zenturionari erran zió: Zóaz eta gerta dakizulá sinetsi'uzun arabererá.
Eta ordu berean, haren mutilá sano gelditu zé.
14. Gero Jesus Pedroin etxerá joan zelaik, haren amaiarreba goatzean zegola ikusi zué, sukarraiki.
15. Eta, eskuá ukitzen ziola, sukarrá kendu zekio; hontan, berla xaiki zé goatzetik, eta zerbitzatzen zitué.
16. Arratsaldea zelaik, gaizkindun anitz ekar zizkioté, eta bere hitzaiki espiritu [gaistoak] botatzen zitué, eta oñazedún guziak sendatu zitué.
17. Horreki [betes] Isaias profetak altzinetik erraná, ziolaik:

Berak soñean hartu zitué gure oñazeak, eta bere gain erman gure eritasunak.
18. Egun bates Jesusek, jende anitzek inguratzen [zu]telá ikustean, Jenerazetgo itxas lepos bertze aldeko zelaierat pasatzea manatu zué.
19. Eta hálako eskriba bat arrimatzen zekiola, erran zió:
–Maistrua, noranahi zoazin segitukó dizút.
20. Eta Jesusek [erantzun zió]:
–Azariek baituzte lurruspeak, [eta gorako txori-jendek] kafiak; Gizonein Semeak, órdea, eztú non etzin buruá.
21. Bere [ikaszaleteik] bertze batek erran zió:
–Jauna, [utz] bezadá, hórri segitú baño lehén, nere aitain ortzitzerá noaien.
22. Jesusek, órdea, erantzun zió:
–Segi nezak hik, eta uzkik hilek, edo jende eztutenek fedeain bizia, ortzi ditzaten beren hilak.
23. Barko batean sartu zé, bada, bere [ikaszale]en konpañan.
24. Eta hóna hémen ezi itxasoan gain torri zé tenpestade bat hain handia, ezi urmendiek barkoa estaltzen zuté. Jesus, órdea, lóó zego.
25. Eta harenganat hurbildus idatzarri zuté, ziotela:
–Jauna, salba gitzá! Zeren gáltzen garen.
26. Jesusek [erran ziote]:
–Zéren beldur duzié, gizon fede gutikoak?
Orduan txutitus haizeei eta itxasoari [sosega zaitela manatu ziote], eta sosegu handi bat segitu zé.
27. Hán zauden guziak gauza hebetas ikaratuik, batak bertzeari ziote: «Nór dá haú, ezi haizeek eta itxasoak obeditzen baitiote?».
28. [Jesus] bertze alderá itsasgetuik je[ne]rasenoen lurrean, bi demoniodun txuxen joan zeré Jesusganát, ehorzuloetaik atras, non egotea zuten, hain [hasarreak] ezi nior etzé atrebitzen bide hartás pasatzerá.
29. Eta berla oihuka hasi zeré erranes:
–Zér ikusteko dugú gúk zureki, Jesus Jangoikoain semea? Honát etor zará, benturas, gú denbora baño lehen atormentatzeagatik?
30. Handik ez úrrun txerri saldo handi bat zégo, xaten.
31. Eta demonioek otoitzten ziote gisa gontan:
–Hemendik botatzen bagaitú, bial gitza txerri saldo hortará.
32. Eta Jesusek erran ziote:
–Zoáste.
Haiek atra zereleik, txerrietan sartu zeré; eta hóna nola txerri saldo guzia memento berean joan zé, eia eta eia, [ezponda batean] behera itxasoan burkaitzterá, eta denak uretan ito zére.
33. Txerrizeiek iges in zuté eta, ziudadera ellegatuik, pasaje guzia kontatu zuté, eta [demoniodunena] partikularki.
34. Berla ziudade guzia atra zé Jesusen bila eta, enkontrú itean, haien lurretik [joan] zain otoitztu ziote.

9. KAPITULOA

[Jesusek perlesiaduna sendatu. Mateori deia.
Odoljarioa zuen emazteikia eta nausiaren alaba.
Jesusek bi itsu eta mutu demonioduna sendatu.
Laborea anitz da, trabajariak ordea guti.]

1. Eta barkará iganes, itxas-lepoa pasatu zué berris, eta bere egoteain ziudadera edo Kafarnaurá etor zé.

2. Eta hóna hemen non presentatzen dioten perlesiadun bat, goatze batean zégona. Jesusek haien fedea ikusis, bada, [perlesiadun]ari erran zio:

–Idukazú konfiantza, nere úmea! Bada zure bekatuak barkatzen zaizkizú.

3. Hontará, eskribetaik batzuek beren barrendegian ziote: «Honek arnegatzen dú».

4. Baña nola Jesusek haien pensamenduak ikusten baizitué, erran zué:

–Zergatik pensatzenunzié gaizki zuen bihotzetan?

5. Zér gauza da erretxagó, «Barkatzen zaizkizú zure bekatuak» erratea, edo «Xaiki zaite eta zoaz» erratea?

6. Bada, xakin zazien, Gizonein Semeak lurrean bekatuak barkatzeko potestade duela.

Eta denbora berean [perlesiadun] hari erran zió:

–Xaiki hadi eta hárzak haure guatze hóri eta goáie haúre etxerá.

7. Eta xaiki zé eta bere etxerá joan zé.

8. Jendék haú ikustean, beldur sandu bates beteik gelditu zeré, eta Jangoikoa glorifikatu zuté, zéren gizonei hálako poderea eman [dioten].

9. Jesus handik pasatuik, gizon bat ikusi zué, izenes Mateo, alkian edo kontribuzioen mahaian xarririk, eta erran zio:

–Segi nezazu.

Eta húra berla xaikis, segitu zió.

10. [Gero] Jesus Mateoein etxean mahaian zégolaik, publikano eta bizi gaistoko jende anitz etor zeré, mahaian xarris hareki eta haren [ikaszale]eki xatera.

11. Eta fariseoek [hura] ikustean, haren [ikaszale]ei ziote:

–Nóla dá ezi zuen maistruak publikano eta bekatarieki xaten duen?

12. Jesusek, órdea, eitu zuenean erran ziote:

–Ezteré sano daudenak, baixik eriak medikua behar dutenak.

13. Zóaste, bada, zér [erran nahi] duen ikasterá: *Nahiago dút [kupida, sakrifizioa baño]*. Zeren bekatariak deré, eta éz justoak, zeñen deitzerá etor naizan ni penitenziarakó.

14. Órduan Jesusi Joanen [ikaszaleak etorri zezkio], eta errán ziote:

–Zoin dá motiboa zérgatik, gúk eta fariseoek maiz barurtzean, zure [ikaszaleek] éztuten barurtzén?

15. Jesusek errespondatu ziote:

–Negartsu egon ote deitzke [senarrain aiskideak, senarra] haieki dagón bitartio? Dénborá etorko dá [senarra] kénduko baizaiote, eta orduan barurtuko deré.

16. Niork eztú paratzen petxatua beztimenta zaharrean oihal bortiztik, zeren beztimentatik harrepatú guzia bereki deráma, eta urratua larriago iten dá.

17. Ez eta're dúte paratzen ardo berria zahagi zaharretan. Halá itera, zahagiak lehertzen deré, eta ardoa ixurtzen dá, eta zahagiak galtzen deré. Baixikan ere ardo berria zahagi berrietan paratzenunte, eta gisa hóntan bata eta bertzea konserbatzen deré.

18. Komesazio hóntan zegó sinagogako nausia ellegatu zelaik, eta Jesus adoratzen zuelá, erran zió: «Jauna, nere alaba orai berean hil dá; baña betor, para bezó bere eskua gañean, eta biziko dá».

19. Jesus xaikis, haren segimenduan joan zé bere [ikaszaleeki].

20. Eta hóna hemén emazteiki bat, odoljarios eri ya hamabi urte zuela, atzetik etor zekió, eta soñekoen ertza ukitu zió.

21. Zeren bere baitan zió: «Harren soñekoa solo uki banazake, sendatua nintzateke».

22. Eta Jesus itzulis, eta emazteikiari beiratzen ziola, erran zué: «Idukazú konfiantza, úmea! Zure fedeak sendatu zaitú». Emakumea memento beretik sendatuik gelditu zé.

23. Jesus gizon [nausi] harren etxerá etorririk, eta soñulariak edo hilariko musika ikustean, eta jende tropa bat hasoska, [erran] zué:

24. «Erretira zaiste! Zéren nesakoa eztá hilá, baixik lóó dágo». Eta irri eiten zioté.

25. Jende montio hurá kanpora botaik, bada, [Jesus] sartu zé, eskutik hartu zué, eta nesakoa xaiki zé.

26. Gauza honen fama lur hartan hedatu zé, guzitik.

27. Jesus handik [atratzean], bi itsuk óihuka segitu ziote, erranes: «Dabiden semea, idúkazú [kupida] gútas!».

28. Etxerá ellegatu zenekó, itsuak presentatu zekizko, eta Jesusek [galde in] zioté:

–Sinestenunzié nik in dezakedalá neri eskatzenunzien gauza hori?

–Bai, Jauna –[erantzun zioté].

29. Orduan haren begiak ukitu zitué erranes:

–Zuen fedeain ariorá in dakiziela.

30. Eta begiak ideki zekitzkiote. Jesusek, órdea, mehatxatu ziote erranes:

–Beira éz dezan xakin niork.

31. Haiek, órdea, handik atratzean ingurune hartan guzian [zabaldu] zuté.

32. [Itsuak] joan ondoan, gizon muttu bat presentatu zioté, demonioduná.

33. [Jesusek] demonioa botaik, mutua mintzatu zé, eta jendeak marabillatuik ziote: «Sékula eztá ikusi halako gauzaik Israelen!».

34. Baña fariseoek, [órdea], ziote: «Prinzipe demonioain artes -edo indarres- botatzen tú demonioak».

35. Eta Jesus ziudade eta herri guziak korritus zoaié, haien sinagogetan erakusten zuela, eta Jangoikoin erreinuein Ebanjelioa predikatzen, eta oñaze guzia[k] eta eritasun guzia[k] sendatus.

36. Eta jende haiek ikustean, [kupida] zué haietas, zeren [gaizki] tratauak zauden, eta hán eta hémen eroriak, ardi artzai-gabekoak [bekala].

37. Gauza honen kasorá, bere [ikaszale]ei erran zioté: «Laborea egiaski anitz dá, trabajariak órdea gutí.

38. Otoitz [z]azie, bada, laboreain nausiari, trabajariak bial ditzán bere laborerá».

10. KAPITULOA

[Hamabi apostoloak bilazi eta (mirariak) iteko potestadea eman.
Ardiak otsoen artera bekala. Nori izan beldur.
Jesus separatzera etorria. Ongi etorri in.]

1. Hontas ondorean, bere hamabi [ikaszaleak] bilazirik, potestade eman zioté espiritu zikinak botatzekó, eta edozein oñaze eta eritasunén sendatzekó.

2. Hamabien izenak hebek dere: Lehemixikoa Simon –izengoitis Pedro– eta Andres bere anaia.

3. Santiago Zebedeoin semea, eta Joan bere anaia.

4. Felipe eta Bartolome; Tomas eta Mateo publikanoa; Santiago Alfeoein semea, eta Tadeo; Simon [Zelote] eta Judas Iskariote, saldu zuen berá.

5. Hamabi hebek biali zitué Jesusek, instrukzio hebek emanik:

–Étzaistela joan orai jentilen lurretarat, éz eta'ré sartuko zaraté samaritanoen herrietan.

6. Baña zoaste lehenik Israelgo etxeko ardi galduen bilá.

7. Zóaste eta predika zazié, [zeruko] erreinua hurbiltzen delá erranes.

8. Eta, zuen doktrinain progutan, senda izkizié eriak, bizi hilak, garbi leprosoak, bóta demonioak. Emázié doharik errezibitu duziená doharik.

9. Étzazielá menpetú urrea, éz zilarra, éz diru zerbait zuen paxetan.

10. Éz alportxaik bidekó, éz bi tunika, éz oñetakoak baixik, éz eta're eskumakila edo bertze armaik zuek defendatzeko; zeren trabajariak bere xanaria mereji dú.

11. Edozein ziudade edo herritan sartzen zaraten, informa zaiste nor dén hán gizon prestú edo digno dénik zuen ostatatzekó, eta zaúste hán biaje hartzen duzien [artio].

12. Etxean sartzean, salutazioa izain dá: «Bakea déla etxe hóntan».

13. Etxeak mereji balimadú, bada, etxe hartará zuen bakea etorko dá; ezinberé, zuen bakea zuekin itzuliko dá.

14. Baldin eztuten nahi zuek errezibitú, éz eta're zuen hitzak aditú nahi, etxe hartaik edo ziudade hartaik atratzean, ilarros zázié zuen oñetako errautsá.

15. Egian dioziet ezi juizioko egunean Sodoma eta Gomorra rigore gutiagoreki tratauak izain derelá, ezi éz hálako ziudadea.

16. Hóna nik bialtzen zaistet ardiak otsoen artean bekalá; horgatik, badá, izan zaisté [zuhur] sugeak bezalá, eta [apalak] usoak bekalá.

17. Beira zaisté, órdea, hálako gizonetaik! Bada zuetas parte emain dute tribunaletan, eta azotatuko zaisté beren sinagogan.

18. Eta nere kausas eremanak izain zaraté gobernarien eta erregeen ailtzinerá, nitas testimonio emateko haiei eta nazionei.

19. Eta presentaraziak zaratelaik, bada, éztuzie zér kuidado izán zér edo nóla mintzatu behar duzien, zeren ordu hartan berean emaná izain zaizié mintzatu behar duziená.

20. [Zeren] etzaraten zuek órduan mintzatzen déna, baixik zuen Aitain Espiritua, zoin zuen medios mintzo [dén].

21. Orduan anaiak bere anaia heriotzerá entregatuko du, eta aitak semea; eta úmeak [gurasoen] kontra goratuko deré, eta hilaraziko tuzté.

22. Eta zuek nere izenain kausas [guziek] gorrotatuak izain zaraté; baña azkeneraño irauten duena, [hori] salbatua izain dá.

23. Bitartean, ziudade batean persegitzen zastelaik, zoaste iges bertze baterát. Egian erraten diziet eztuziela Israelgo ziudadeak konbertitus akabatukó, Gizonein Semea etortzen den baño lehen.

24. Eztá [ikaszalea] yago bere maistrua baño, éz eta're [mutila] yago bere nausia baño.

25. [Ikaszaleak] aski du bere maistrua bekalá tratatua izatea, eta mutilak bere nausia bezalá. Aita-etxekoari Beltzebul deitu balima[diote], zenbat yagotan bere etxekoei?

26. Etzaziela horgatik haien beldurrik izán, zeren eztá gauza estalirik agertuko eztenik, éz okultoik xakinen éztenik.

27. Nik gabas erraten diziedaná publika zazié egunein argian, eta bearrirá dioziedaná predika zazie tellatuen gañetik.

28. Eztuzie beldur izan behar gorputza hil dezaketenei, baña ez dezaketenei hil arimá; beldur izan zazié, órdea, arima eta gorputzá infernu[rá] bota ditzakenari.

29. Eztá egia ezi bi txori saltzen derela bi marabiditan, eta ez horgatik haietaik bat ere erorko dá lurrean, non eztuen [nahi] zuen Aitak?

30. Zuen búruko biloetarañoko guziak kontatuik dáude.

31. Éz izan, bada, beldurrik; zuek yago bali'uzie ezi txori anitzek.

32. Hitz batean: Nornahi dén [ezautzen] nauená eta gizonen ailtzinean Mesiastako konfesatzen nauená, nik [ere] ezautuko'ut eta haren aldé deklatukó naiz, nere Aita zeru[an] dagonain ailtzinean.

33. Baña gizonen ailtzinean úkatzen nauenari, nik ere úkatuko diot, nere Aita zeru[an] dagonain ailtzinean.

34. Eztuzie zér pensatú ni etorri ahal naizalá lurrerá bakea ekartzerá; ez naiz etorri bakea ekartzerá, baixik gerlá.

35. Bada *semea bere aitaganik, eta alaba bere amaganik, eta erreña bere amagiarrebaganik* [separatzerá etor naiz].

36. Eta *gizonain etsaiak bere etxean berean dáuden presunak* izain deré.

37. Aita edo ama [ni] baño yágo maite duenak, eztú mereji nerea izatea; eta semea edo alaba [ni] baño yágo maite dúenak, ez eta're dú mereji nerea iza[tea].

38. Eta bere gurutzea soñean hartzen eztuenak eta neri segitzén, eztá nere dignó.

39. Bere bizia bere arimein kostus konserbatzen duenak, galduko dú; eta nork bere bizia nere amorios galtzen lúken, berris aurkituko dú berá.

40. Zuek [hartzen zaistenak ni hartzen nau; eta ni hartzen] nauenak, ni biali nauen húra errezibitzen du.

41. Profeta bat ostatatzen duenak profeta délako atenzios, profetain premioa errezibituko dú; eta [gizon xuxena] ostatatzen duenak [xuxena délakó atenzios, xuxenain] errekonpesa izain dú.

42. Eta nornahiek baso bat úr hótz txoilik eman dezon edaterá ttipitto hebetaik bati, nere [ikaszalea] délakó arrazios, hitz ematen diziet éztuela galdukó bere errekonpensá.

11. KAPITULOA

[Joan Bataiatzaleain galde itea.
Jesusek Galileako herriak madarikatu.
Ebanjelioa txipittoei agertua.
Aita eta Semea. Atozte nereganat.]

1. Jesusek bere [ikaszaleei] doktrina hebek emanes akabatu zuenean, bada, handik joan zé haien ziudadetan erakusterá eta predikatzerá.

2. Joanek ordea, presondegian Kristoren obra [miragarriak eituik, bere[ikaszaleeteik] bida biali zitué, galde in zezoten:

3. –Zú zará Mesias etorri behar duená, edo bertze batí [etxeden] behar diogú?

4. Hóntara Jesusek errespondatu ziote:

–Zoáste, eta konta zozié Joaní eitú eta ikusi'uziená.

5. Itsuek ikustenunté, maiguak badabiltzá, lepradunak garbituak deré, sorrek eitzenunté, hilak bitzten deré, Ebanjelioa pobrei emana dá.

6. Eta zorionekoa nere baitan gaitzbidatua ez izateko okasio hartukó eztuená!

7. [Haiek] joan zerenekó, Jesus Joanés mintzatzen hasi zé, eta [herriari erran zió]:

–Zér ikusterá atra zaraté [deserturá? Kañabera bat haizeek] alde guzietarat ilarrosia?

8. Ezperen erran dezadazie, zér ikusterá atra zaraté? Gizon bat soñeko fineki beztitua? Badakizie ezi finés beztitzen derenak, erregeen palazioetan dáudenak dérelá?

9. Zér ikusterá atra zaraté, [bada]? Profetaren bat? Hori bai, nik segurutzat erraten diziet, eta óraño profeta baño anitz yágo.

10. Zeren haú dá nortás eskribiturik dágon: *Hóna nik nere aingiruá bialtzen [diat] hire aurpegi ailtzinerat, zoin hire ailtzinean bidea prestatzen dikalá juain [dén].*

11. Egian dioziet éztelá argirá atrá norbait emakumen semeetan goragokoik Joan [Bataiatzalea baño; halarik ere, zeruko erreinuko txikiená yágo da] húra baño.

12. Eta Joan [Bataiatzaleain] denboratik orai artio, [zeruko] erreinua bortxaró indarká harrapatzen dá, eta beren buruei indar bortxaká itenuntenek, zeruá harrapatzenunte.

13. Zeren profeta guziek eta legeak Joan artio asmegitú zuté gauza etortzeko zegoná.

14. Eta entendatú nahi ba'uzié, húra bera dá Elias, húra zeñek etorri behar zuen.

15. Bearriak dituenak entendatzekó, enténda dezalá.

16. Baña nóri konparatuko'ut nik gizonen arraza haú? Iduria dá mútiko plazan xarrik daudenei, zeñek óihuka bertze beren lagun batzuei, [erantzun zioté]:

17. «Kantu alegreak kantatú diziegú eta etzaraté dantzatú; kantu tristeak eta eztuzié negar in».

18. Halá dá ezi etor zé Joan, zeñek kasik eztú xaten ez edaten, eta diote: «Demonioin menpean dágo».

19. Etor dá Gizonein Semeá, zeñek xaten eta edaten dú, eta diote: «Hóna hemén gizon bat tripontzia eta hordia, publikanoen eta bekatarien aixkidea». Baña [Jangoikoain xakinduria] justifikatua izan dá bere umetarakó.

20. Orduan erantzukitzen hasi zé ziudade haiei, zeñetan haren milagroeteik anitz eta anitz ín zeren, zéren etzuten in penitenzia.

21. –Ai hiri, Korozain! Ai hiri, Betsaida! Tiron eta Sidonen milagroak in izan balirá, zuen baitan obratu derenák, dénbora dú in ote zuten penitenzia hautsean eta zilizioan umillaturik.

22. Hargatik erraten diziet Tiro eta Sidon rigore gutiagoreki tratatuá izan delá juizioko egunean, zuek [baño].

23. Eta zú, Kafarnaun, baldin bederé

goratuko ahal zará zeruraño? Izain zará, bai, [bota]tua infernuraño!

[Zeren] Sodoman in izan balirá milagro zu baitan in direnák, Sodoma izain zé egungo egunean.

24. Horgatik diozút, juizioko egunean Sodomako lurrá beratxkiagó kastigatua izain delá, zú [baño].

25. Denbora hartan Jesusek deadartu zué erranes:

–Nik gloria ematen diot, nere Aita, zeruko eta lurreko Jauna, zeren mundu hóntan estalirik iduki tuen gauza hebek xakintsu eta prudentei, eta agertu tuen txipittoei.

26. Bai, nere Aita, alabatua déla, zeren horren plázera dén alá izateá.

27. Nere Aitak gauza guziak nere eskuetán paratu ditú. Baña eztú niork Semea ezautzen, Aitak baixik; éz eta're niork Aita ezautzen, Semeak baixik, eta nori Semeak [agertu nahi izan dion].

28. Atózte nereganat nekes eta karges gubiatuik zabiltzatenák, nik arinduko diziet nekea.

29. Har zazié nere uztarria zuen gañean, eta ikas [z]azié niganik, mantxoa eta umila [bai]naiz bihotzés; eta zuen arimendako deskansuá arkituko'uzié.

30. Zeren nere uztarria suabea dén eta ariná nere kargá.

12. KAPITULOA

[Larunbatean zilegi eztena.
Esku-eiharra larunbatean sendatua.
Jesus eta Beltzebul. Arbolea eta fruitua.
Espiritu gaistoa berris etorria.
Eguerdiko erreina.]

1. Denbora hontan berean, Jesus larunbat egunean ereiki batzuen bazterrás zoaielá, bere [ikaszaleak], gosés, gari burú biltzén hasi zeré eta granoak xatén.

2. Eta fariseoek [hura] ikustean, erran ziote:

–Ikus [z]azú nola zure [ikaszaleek] itenunten larunbatean iterá zilegi éztena.

3. Baña harék erantzun zioté:

–Eztuzié leitú izán Dabidek in zuená, húra eta haren konpañan zoazenak [goses egon] zerelaik?

4. Nóla sartu zen Jangoikoin etxean eta [nóla] xan zituen proposizioneko ogiak, zeñen xatea étzute zilei éz harek, éz hareki zoazenek, baixik [apezek] solo?

5. Edo éztuzie leitú legean, nóla larunbatean trabajatzenunten [apezek tenpluan], eta éz horgatik iten dute bekatú?

6. Bada nik dioziet hemén dagóla tenpl[u]a baño yágoko déna.

7. Zuek ongi baziniekite zer erran nahi duen *Nahiago dút [kupida], ezi éz sakrifizioá*, etzindukete nioiz ere kondenatukó inozenteak.

8. Zeren Gizonein Semea jaun eta jabe [den] oraño larunbatain[a] ere.

9. Handik [joan] ondoan, haien sinagogan sartu zé.

10. Nón gizon bat zegon, esku bat eiharturik záukaná. Eta Jesusi galdein ziote:

–Zilei [da] larunbat egunean sendatzea?

[Berain akusatzekó modo bilatzeagatik galdein ziote].

11. Jesusek, ordea, erantzun ziote:

–Zer gizon da zuen artean ardi bat duena, eta baldin haú larunbat egunean zulo batean erortzen dén, éztion eskua hedatukó eta zulotik kanporát atrakó?

12. Zeinbat yágo bada eztú balio gizon batek, ardi batek baño? Gerós zilegi dá óngi itea larunbat egunean.

13. Orduan gizon hari erran zió:

–Heda zazú esku hori.

Hedatu zué eta hain sano gelditu zé nola bertzea.

14. Eta fariseoak atratzean, [Jesusen] kontra nóla inen zuten irazkaiá [pensatzerá bildu zeré, eta nóla hilen] zutén.

15. Baña Jesus, gauza haú entendatus, erretiratu zé eta eri anitzek segitu zioté, eta guziak sendatu zitué.

16. [Jesusek haiei manatzen ziotela etzezaten bera nor zen] agertú.

17. Profeta Isaiasek erraná [bete] zain, baitió:

18. *Hóna hemén nere esklaboa, nik hautatuá, nere [maitea], nor baitan nere arima osokí gozatu dén. Haren gañean nere Espiritua paratuko'ut, eta jendei justizia adiaraziko dú.*

19. *[Eztá hasarratuko] nioreki, eztú oihu inen, éz niork eituko haren bozá edo deadarrá plazetan.*

20. *Eztú hautxiko zartatuik dagon kañaberá, éz itzalis akabatukó metxa kééduna, haren kausain justiziá triunfarazi dezan [artio].*

21. *Eta jendek haren izenean paratuko'uté beren esperanzá.*

22. Orduan demoniodun bat ekar zioté itsua eta mutua, eta sendatu zué [eta hura] berladanik mintzatzen eta ikusten hasi zé.

23. Milagro hóntan herri guzia harrituik zegó, eta zió: «Haú bedere Dabiden Semea da, Mesias?».

24. Baña fariseoek [hori] eitzean, ziote:

–Honek eztú botatzen demonioak baixik Beltzebul demonioen printzipeain birtutés.

25. Orduan Jesusek, haien pensamenduak xakines, erran zioté:

–Edozein erreinú berezki kontrarioetan [zatituik] dágoná, galdua izain da. Eta edozein ziudade edo etxe berezkia eroriko dá.

26. Eta Satanasek Satanas kanporat botatzen balimadú, berain kontrario dá; nóla, bada, iraun dezaké haren erreinuak?

27. Nik, bada, demonioak Beltzebulen izenean botatzen balimaitut, zuen úmeek zéren izenean botatzen tuzté? Gerós hoiek berak izain deré zuen juezak.

28. Nik, ordea, demonioak Jangoikoain Espirituain birtutean botatzen balimaitut, egiaski [argi] dágo ezi Jangoikoin erreinua edo Mesias ellegatú déla zuenganá.

29. Edo bertzeñas, erran dezadazie: Nóla dá posible bat sar dain gizon baliente baten etxean eta haren ontasunak ebatsi, ezpalimadú lótzen lehenik fuerteki gizon baliente húra? Orduan badezóke [ebatsi etxean].

30. Nere alde eztagoná, nere kontrá dágo, eta nereki biltzen eztuenák, barreatzen dú.

31. Horgatik erraten diziet: Edozein bekatu eta edozein blasfemia barkatuko zeizkiote gizonei; baña Jangoikoin Espirituain [kontrako] blasfemia eztá barkatuko hain erratxki.

32. Gisa berean, Gizonain Semeain kontrá mintzatzen den [nornahiri] barkatukó zeió; baña Espiritu Sanduain kontrá mintzatzen denai -haren grazia despreziatus-, étzaio barkatukó éz bizi hontan éz bertzean.

33. Edo bertzeñas, errazié arbolea óna dela eta óna bere fruitua; edo arbolea gaistotako balima dáukazié, idukazie baitare gaistotako bere fruitua, [zeren] fruitutik den ezaun arbolea.

34. Suge arrazá! Nóla dá posible zuek mintza dezazien gauza ónik, gaistoak zarateleik, zaraten bezala? Bihotz hain sobrañatutik, bada, mintzo dá ágoa.

35. Gizon prestuak bere bihotzeko [barrendegi] ónetik atratzen tú gauza ónak, eta gaistoak bere [barrendegi] gaistotik atratzen tú gauza gaistoak.

36. Nik dioziet, gizonék edozein hitz aufer denik ere xarduki dezaten, kontú eman beha'utela juizioko egunean.

37. Zeren zure hitzés beharko'uzu justifikatuá izán, eta zure hitzés kondenatua.

38. Orduan eskriba eta fariseoetaik batzuek mintzatu zioté, erranes:

–Maistrua, hori ikusi nahi ginduke zenbait milagro iten.

39. Baña Jesusek errespondatu zioté:

–Arraza gaisto eta adúltero hónek milagro bat eskatzen dú. Baña etzaio emain eskatzen duená, baixik Jonás profetain milagroá.

40. Zeren, hala nóla *Jonas hirur gau-egunes egon zen baleain sabelean*, gisa berean Gizonain Semea hirur gau-egunes egoin dá lurrain sabelean.

41. Ninibetarrak juizioko egunean jende arraza honen kontrá goratuko deré eta kondenatuko'ute, zeren haiek penitenzia in zuten Jonasén [predikatzeas]. Eta hontan guzian, hemen dagoná yago dá Jonas baño.

42. Eguerdiko erreinak [ere] juizioko egunean akusatuko dú gizon arraza honen kontrá eta kondenatuko dú; [zeren] húra lurrain azken finetaik etor [zen] Salomonen xakinduria entzuterá. Eta guziaiki, hóna hemén duzié Salomon baño yágo déna.

43. Espiritu zikina zenbeit gizonganik atra delaik, horron dábila leku idorres nón bila ahal duen egotea, eta eztú aurkitzen ahal.

44. Orduan dió: «Itzuliko naiz nere atra ninzan etxerat». Eta itzulirik, hútsik aurkitu zué, óngi eskobatuik eta [apainduik].

45. Hontan, badoaie eta bertze zazpi espiritú hartzen tú bereki, bera baño gaistoagokoak, eta [sartuik], hán bizitzes edo egotes dáude. Gizon haren estado haú orai dá lastimagarriagokoa ezi éz lehendabixikoa. Halá gertatu behar zaió gizon arraza madarikatú hóni.

46. Jesus oraño platikan zégo [herriari], eta hóna hemén ezi bere ama eta bere anaiak záude kanpó, hari mintzatú nahiés.

47. Horgatik batek erran zió:

–Beirá, zure ama eta zure anaiak hán kanpó dáude, zútás galdeiten'utelá.

48. Baña Jesusek, erraten zionari errespondatus, [erantzun] zué:

–Nór dá nere ama eta nór dére nere anaiak?

49. Eta eskuas bere [ikaszaleak] erakutsis, erran zué:

–Hebek dére nere ama eta nere anaiak.

50. Zeren, nere Aita [zeruan dagonain borondateá bete dezán nornahi], haú dá nere anaia, nere arreba eta nere áma.

13. KAPITULOA

[Jesusek paraboles predikatu. Ereikizaleain parabola.
Gari arteko zizañain parabola.
Ziapeain granoain eta orantzain parabolak.
Tesoroain eta perla finen parabolak.
Sareain parabola. Jesus bere herrian (gaitzetsia).]

1. Egun [batean] Jesus etxetik atrás, itxas bazterrean xarri zé.

2. Eta haren inguruan hainbertze jende bildu zé, ezi barko batean [sartu behar] izan zué eta hán xarri. Eta jende guzia urbazterrean zégo txutirik.

3. [Haiei] anitz gauzas mintzatu [zeioté] parabólatan, erranes: «Atra zé behin ereikizale bat ereikitzerá.

4. Eta granoak barraiatzean, batzuk bide ondoan eror zeré; eta gorako txoriak etor zeré eta xan zusté.

5. Bertze batzuk harduietan eror zeré, non lur gúti zén, eta berla jaio zeré, zeren lurrá axalkiró zégon.

6. Baña iduzkia atra zelaik erre zeré eta eihartu, zeren kuasik etzuté zainik.

7. Bertze grano batzuk laharretan eror zeré, eta laharrak handitu zeré et[a] ito zuzté.

8. Bertze batzuk lur onean eror zeré, eta fruitú eman zuté, nón egunka baten, nón hirutan hogei eta nón hogeita hamar.

9. Bearriak dituenak entendatzekó, entenda biz».

10. Gero bere [ikaszaleak] hurbildus, galdeiten ziote:

–[Zérgatik] mintzatzen zeioté paraboletán?

11. Harek [errespondatu] ziote:

–Zeren zuei pribilegioa eman zeizien [zeruko] erreinuain misterioak ezauntzekó, baña haiei órdea étzeiote emán.

12. [Egia] delaik ezi ízan behar duena duenari oraño yágo emain zaió, eta abráts egoin dá; izan behar duená éztuenari, órdea, oraño dúena ére kenduko dioté.

13. Horgatik mintzatzen nitzeioté paraboles, zeren héék ikustean eztute beiratzen, eta eitzean, éztute entendatzén.

14. Eta haien baitan [bete]tzerá heldu dá Isaiasen profezia, baitió:

Eituko'uzié zuen bearriekí eta éztuzié entendatukó, eta zuen begís ikusi ahal dukeziená ikusirik, éztuzié beiratukó.

15. *Zeren [herri] honék bere bihotzá gogortu dú, eta bere bearriák zerratu ditú, eta bere begiák tapatú, haieki éz ikusteagatik, éz eta éitú bearrieki, éz ére konprenditú bihotzeiki, beldurrés ezi konbertitzean nik osasuná eman dezodan!*

16. Zorionekoak zuen begiak zeren ikusteuntén, eta zorionekoak zuen bearriak zeren eitzenuntén!

17. Bada egian dioziet profeta eta [gizon xuxen] anitzék eresia izan zuté zuek ikustenunziena ikusteko, eta étzuté ikusi; eta eitú zuek eitzen duziená, eta étzuté éitú.

18. Atendi zozie orai ereikizaleain [parabolak zer erran nahi duen].

19. Nornahi dén Jangoikoin edo Ebanjelioin hitzá eitzen duená eta éz gelditzen hitz hónen konsideratzerá, espiritu gaixtoa dátor eta bere bihotzean ereiki zená harrapatzen dió; haú dá [bide] ondoan ereikia.

20. «Lur hárduian» ereikia, Jangoikoin hitzá eitzen duen húra dá, eta berladanik gustorá eta gozoró errezibitzen duená.

21. Eztú ordea barrenoró zainik eta, hala, gúti irauten dú eta hitzain edo Ebanjelioain kausas derrepente tribulazio eta persekuzioa datorlaik, berla dú haú eskandalotako.

22. «Lahar artean» ereikia, Jangoikoin hitzá entzuten duena dá; mundu hontako kuidadoek, ordea, eta ontasunen ilusioak itotzenunté, eta fruitu gabekoá gelditzen dá.

23. «Lur onean» ereikia, [órdea], Jangoikoain hitzá eitzen eta [pensatzen] duená dá, eta fruitú deramaná, batek egunká, bertzeak hirurogeika eta bertzeak hogeitamarká.

24. Bertze parabola bat aipatu zioté, erranés: «[Zeruko] erreinua iduria dá gizon batí, zeñek bere alorrean hazi oná ereiki zuen.

25. Baña gizonak lóó zauden denboran, haien hálakó etsai bat etor zé, eta gariain erdian zizaña ereiki zué eta joan zé.

26. Garia belarrean eta zorroan burua atratzeráko puntuan zégolaik, zizaña [ére] agertu zé.

27. Orduan aita-etxekoain mutilak joan zekizkió, erranes: "Jauna, étzindué hazí oná ereiki zure alorrean? Nola dú bada zizañá?"

28. [Errespondatu] zioté: "Etsai zenbaitek ereiki bide dú".

29. Mutilék [berris]: "Nahi du [zizaña] biltzerá guazin?" [Aita-etxekoak] errespondatu zué: "Ez, zeren éztaila izan ezi, zizaña atratzean, harekin batió garia ére atra dezazien.

30. Utzazié luzatzerá batá eta bertzea [egitatu artio], eta egita denboran nik egitariei errein diotet: "Bil zazié lehenik zizaña eta lót zazié eskumenka surako, gero sár zazié garia nere graneroan"».

31. Bertze parabola bat aipatu ziote, erranes: «[Zeruko] erreinua iduria dá ziapeain granoarí, zoin gizon batek bere eskuan hartus, bere alorrean ereiki zué.

32. Haú dá bistará hazi guzietan dén haundiená, eta arbolé iten dá; eta [hala], goorako txoriak xauxten deré eta beren kafiak iten tuzté haren abarretan».

33. Bertze parabola hau [ére erran zioté: «Zeruko] erreinua iduria dá oranzarí, zoin emazte batek hartus, hirur neurri edo almute irineki nahasi zué, haliketa óre guzia orántz gelditu zen [artio]».

34. Gauza hebek guziak adiarazi zitué Jesusek jendei paraboletan, eta etziote mintzatzen parabolés baixik.

35. Profetain erraná [betetzen] zelá:

Idekiko'ut nere ágoa parabolés mintzatzekó; gauza misteriosoak publikatuko ditút, mundua kreatu zenetik hónat estalian egon derenak.

36. Orduan Jesus, adizaleak despeituik, etxerát itzuli zé, eta bere [ikaszaleek] inguratzen zutelá erra[n] zioté:

–Esplika dezaguzú parabola, zizaña alorrean eraiki zená.

37. Harék [errespondatu] ziote:

–Hazi óna ereikitzen duena Gizonain Sémea dá.

38. Alorra mundua dá; hazi óna erreinuko úmeak dére; zizaña Espiritu [Gaistoain] úmeak deré.

39. Etsaia, ereiki zuena, diabruá dá; egita, munduain akabanza dá; egitariak aingiruak deré.

40. Eta hála nóla zizaña biltzen baita eta suan erretzen, halá gertatuko dá munduain finean.

41. Gizonain Semeak bere aingiruak bialiko'itú, eta eskandaloso guziak eta gaizki obratzen dutenak kenduko'tuzte.

42. Eta sutako labean botako'tuzte; hán izain dá marraská eta hortzén karraskotsá.

43. Denbora berean [gizon xuxenek] iduzkiak bezalá argituko'uté bere Aitain erreinuan. Bearriak dítuenak entendatzekó, entendá dezalá.

44. [Zeruko] erreinua iduria da, baitare, tesoro alorrean estalirik dágon batí, zoin gizon baték aurkitzen balimadú, berris altxatzen dú, eta bozkarios hálako arkideas, doaie eta duen guzia saltzen dú eta alor húra erosten dú.

45. Gisa berean, [zeruko] erreinua iduria dá merkatari batí, perla [finen sal-erosian dabilanari].

46. Eta bat balore handikoa eskuetaratus, doaie eta duen guzia saltzen dú eta perla [húra] erosten dú.

47. [Zeruko] erreinua iduria dá, baitare, sare txinga bati, zoin itxasoan hedatua edo egótzia, arrai kasta guzietaik biltzen dú.

48. Txínga edo trasmalla arraies beteik délaik, arranzariek atratzenunte, eta ur bazterrean xarris, ón derenak hautatús doazi eta beren saskietan sartús, eta kalidade gaistokoak kanpora botas.

49. Halá gertatuko dá munduain finean: Aingiruak atrako deré eta gaixtoak [xuxenen] artetik berexiko'tuzté.

50. Eta suusko labean botako'tuste. Han izain dá negar marraská eta hortzen karraská!

51. Entendatu'ituzié gauza hebek guziak?

–Bai, Jauna –errespondatu ziote.

52. Harék [erran] zué:

–Horgatikán edozein eskriba edo doktore xakintsú [zeruko] erreinuari dagokion gauzetan, iduria dá aita-etxeko batí, bere tesorotik atrás doaiena gauza berriak eta gauza antiguaskoak, konbeni dén [bekala].

53. Jesusek parabola hebek akabatú zituenean, hándik joan zé.

54. Eta bere lurrerát pasatús, lekutarren sinagogetan erakusten zué, hálako moduan, ezi harritzen zeré eta beren artean ziote: «Nondik etorzegó hóni hálako [xakinduria] eta hálako milagroak?

55. Eztá haú zuginain semea? Bere áma eztá Maria deitzen dená? Ezteré hónen lehengusú-anaiak Santiago, Jose, Simon eta Judas?

56. Eta haren lehengusia-arrebak ezteré guziak gure artean bizi? Bada, nondik ahal tú honék gauza hebek guziak?».

57. Eta hartás eskandalizatuik bekala záude.

Jesusek, ordea, erantzun ziote: «Eztá profetaik honragabedunik, baixik bere herrian eta etxe berean».

58. Horgatik milagro anitz gúti in zitué hemén, haien fede gabetasuna zéla káso.

14. KAPITULOA

[Herodesek Joan Bataiatzalea hilarazi.
Bortz ogien milagroa. Jesus ur gañean oñes.
Sendatzeak Genesaret aldean.]

1. Denbora [hartan] Herodes Tetrarkák Jesusés famák zióna eitu zué, eta bere kortekoei erran ziote:

2. «Haú Joan [Bataizalea] dá, hilen artetik bitztu déna, eta horgatik ezaun dá hainbertze haren baitan dagon birtutea milagro iteko».

3. Xakin behar da ezi Herodesék preso in zuelá Joan, eta kateatuik kartzelean sártu zuelá, Herodias bere anaiain emazteain kausas.

4. Zeren Joanek erantzuten zió: «Eztuzu zilei haú emaztetako idukitzea».

5. Eta Herodesek hilarazi nahi zué, bai, baña étze atrebitzén [herriain] beldurrés, zeren guziék zaukaté Joan profetatáko.

6. Herodesen sorteguneko urtabetetzeain banketean, ordea, Herodiasén álaba dantzará atra zé kortesanoen erdian edo presenzian.

7. Eta hainbertzetaraño kuadratu zekió Herodesí, ezi juramentús [eskaini] baizio eska zezon edozein gauza emain ziola.

8. Eta harék, bere amá[k] altzinetik abisatua, erran zió: «Eman dezadazú azafate edo plater batean Joan [Bataiazaleain] burua».

9. Errege ordea juramentuein atenzios tristatu zé, eta konbidatuen respetos eman zezotelá manatu zué.

10. Eta halá kartzelean Joanen degollatzerá biali zué.

11. Eta berla burua plater handi batean ekar zuté eta nesakoari [eman zioté, eta honék bere amarí erakutsi] zió.

12. Berla, haren [ikaszaleak gorputzain goratzerá joan zeré], eta ortzi zuté eta Jesusí notiziain ematerá joan zeré.

13. Jesusek Herodesek [hartás] ziona eitu zuenean, handik leku desertu baterá erretiratu zé, herrieteik apárt. Baña [hura xakinés, jendeak] beren ziudadeteik atra zeré, oñés legorretik segitzen ziotela.

14. Jesus barkotik atratzean, hain jendalde handia ikus zuelaik, kupidatu zé eta haien eriak sendatu zitué.

15. Arratsalde apala zelaik, [ikaszaleak] erantzunés heldu zekizkió:

–Leku haú desertua dá eta órdú pasatua. Despei bitzá jende hoiek, herrietará doázin zér xan eros dezaten.

16. Jesusek, ordea, errespondatu zioté:

–Eztute joatekó nezesidadeik; emoiozié zuék xaterá.

17. [Haiek errespondatu] zuté:

–Ez dugú hemén yágo ezi bórtz ogi eta bi arrai.

18. Jesusek erran zioté:

–Ekar ditzadazie hónat.

19. Eta guziei soro-belar gañean xar zitelá manatú óndoan, bórtz ógiak eta bi arraiak hartu zitué, eta begiak zerurá goratus bedeikatu zitué eta partitú; eta ogiak [ikaszaleei] eman zitué eta [ikaszaleek] jendei.

20. Eta guziek xan zuté eta aspertu zeré, eta sobrakineteik pusketan hamabi esporta beteak bildu zuste.

21. Eta xan zutenen zenbatea bortz mila gizon zé, emakumeak eta haurrák konta gabe.

22. Gero berladanik Jesusek bere [ikaszaleak] barkoan iganarazi zitué, eta bertze alderá bera baño lehen pasa zaiten hán [etxeden] zezaten, jendeak despeitzen z[it]uen bitartio.

23. Eta hebek despedituik, mendi baterá igan zé bakarrik otoitzterá; eta arratsá ellegatu zelaik, hán bakarrik zégo.

24. Bitartean barkoa itxaso barnean zego bortizki bagaritua ur zafales, zeren haizea kontrarió zén.

25. Baña gauain laugarren bijilia zelaik, Jesus haienganát etor zé itxasoan gañean erabilis.

26. Eta [ikaszaleek] itxasoin gañean zabilalá ikustean, [izutu] zeré eta erran zuté: Fantasma bat dá. Eta lotsatuik óihus hasi zeré.

27. Instante berean Jesus mintzatu zekioté, erranes:

–Har zazie ánimú! Ni náiz, étzaziela beldur izan!

28. Pedrok errespondatu zué:

–Jauna, hóri balimadá, mána bezada horrenganát noaien uren gañean.

29. Jesusek erran zio:

–Hator.

Pedro barkotik beheititus, urain gañean zabila Jesusganát.

30. Baña haize fuerteá zabilalá ikustean, beldurtu zé; eta berla unditzen hasis, óihu in zué erranes:

–Jauna, sálba nezadá.

31. Jesusek berla eskua hedatús, besotik harrepatu zué eta erran zió:

–Gizon fede ttipikoa! Zérgatik dudatú duzú?

32. Barkorá goratu zerenekó, haizea serenatu zé.

33. Eta barkoan zaudenak arrimatu zekizkió, eta adoratu zuté, erranes:

–Egiaski zú zará Jangoikoain Sémea!

34. Berla umantzia bertze alderát pasaturik, Genesaret lurrerát joan zeré.

35. Eta nola hango lekutarrék Jesus ezaundú baizuté, berla abisua biali zuté herri guzi haietará, eta eri guziak ekar zizkioté.

36. Faborés eskatzen ziote haren soñekoen hegalá [solo] ukitzeá. Eta ukitu zioten guziak sendatuak gelditu zeré.

15. KAPITULOA

[Judioen tradizioneak eta Jangoikoain nahia.

Zerk zikintzen duen jendea.

Jesusek emazteiki kananeatarrain alaba sendatu.

Eri anitz sendatu. Jesusek jendaldeari bigarrenes xatera eman.]

1. Orduan Jerusalendik eskriba eta fariseo batzuk ellegatu zekizkió, ziotelá:

2. –[Zergatik hauxten dute zure ikaszaleek] lehenagoko zahárren tradizionea? Eztute, bada, eskuak garbitzen xateratakoan.

3. Jesusek errespondatu zioté:

–Eta zérgatik zuek berék hauxtenuzié Jangoikoin mandamentuá zuen tradizionea segitus?

4. Bada Jangoikoak erranik dauka *Honra zazú aita eta áma*, eta baitare, *Aitari edo amari gaizki erraten lukená, heriotzera kondenatuá [izan daila]*.

5. Baña zuek ordea diozie: Nornahiek aitari edo amari erran dezon «Nik nere partés [eskaintzen] núken emaitzá guzia, zure onetán izain dá».

6. [Harék] eztú obligazioik bere aita edo bere áma honratzekó edo [laguntzekó]. Eta gisa hontan Jangoikoin mandamentua ezdausten duzié, zuen tradizioneagatik.

7. [Ezirudiak zuek]! Isaiasek arrazioiki profetatu zindusté [zuek], erranés:

8. *[Herri] honek ezpeñeki honratzen naú, baña horren bihotza niganik úrrun dágo.*

9. *Auferrik honratzen nauté gizonen doktrinak eta mandamentuak erakutsis.*

10. Bereganat jendeak deituik, erran ziote: «Adi nezazié eta ongi [eitu haú].

11. Ez agotik sartzen den gauzá dá gizoná zikintzen duená, baixik zér atratzen dén, hóri dá zikintzen dióna».

12. Orduan bere [ikaszaleak] harenganát yágo arrimatús, erantzun ziote:

–Eztaki ezi fariseoak eskandalizatú derelá orai eitu duten gauza hontás?

13. Baña Jesusek errespondatu zué:

–Edozein planta nere Aita zerukoak plantatú eztuena, errotik arrankatua izain dá.

14. Utz [z]kizé! Hoiek itsú batzuk deré, bertze itsuen gidariak; eta itsú bat bertze itsú bat gidatzerá entremetitzen baláke, biak erortzen dére zuloan.

15. Hemen Pedrok hitzá hartús erran zió:

–Esplika dezagú parábola hóri.

16. Jesusek [erantzun] zué:

–Nola? Zuek ere oraño zauste hain ezaunmentura gabeak?

17. Eztuzié [ikusten], bada, agoan sartzen den guzia, handik tripará pasatzen déla eta lekú sekretuetan botatzen déla?

18. Baña agotik atratzen déna, bihotzetik atratzen dá, eta hóri dá gizoná zikintzen duená.

19. Zeren bihotzá dá nondik pensamendu gaixtoak atratzen déren, heriotzeak, adulterioak, desoneskeriak edo pillardizak, [ebaszale]keriak, falsu testimonioak, blasfemiak.

20. Gauza hebek bai zikintzenunte gizoná, baña eskuak garbitu gabé xatea, honék eztú zikintzen.

21. Jesus [han]dik atraik, Tiro eta Sidon lurretarát lekutu zé.

22. Eta hóna hemén kananeatar emazteiki bat, leku haietaik etorria, óihu-dearka hasi zé, erranes:

–Jauna, Dabiden Semea, [kupida] bedi nitás! Nere alaba demonioak dauka txoil kruelki atormentatuik.

23. Jesusék etzió errespondatú hitzik eré; eta haren [ikaszaleak] hurbildús, otoitzten ziote erranés:

–Emán bezó eskatzen duená joan dain, zeren gure átzetik óihuká dator[ren].

24. Jesusék errespondatús erran zué:

–Ez naiz ni bialia baixik Israelgo etxeko ardi galduetará.

25. Horgatik ere hurbildu zekió eta adoratu zué erranés:

–Jauna [lagun] bezadá.

26. Nork [errespondatus] erran zió:

–Eztá [xuxena] umien ógia hártzea eta txakurrei [áurtikitzea].

27. Harék, ordea, [erantzun] zió:

–Egia da, Jauna, baña baita txakurkoek ére, beren nausien mahaietaik erortzen deren ttapurretaik xatenunté.

28. Orduan Jesusék [erran zió]:

–Emakumea, handia dá zure fedea! Ein dáila zurekin nahi duzun bezalá.

Eta ordu beretik, harren álaba sendatuik gelditu zé.

29. Jesus handik Galileako itxas ondorát pasatu zé, eta mendi baterá iganés, hán xarri zé.

30. Eta jende anitz ellegatu zekitzkio, bereki mutuak, itsuak, mainguak [eta] baldatuak zeramazkiotelá, eta bertze oñaztú anitz, eta haren oñetan paratu zuste eta sendatu zitué.

31. Jendeak [harri]tzen zeré mutuak mintzatzen ikustean, mainguak erabiltzen eta itsuak ikusten; eta ezin ygótan alabatzen zute Israelgo Jangoikoa.

32. Jesusék, órdea, bere [ikaszaleak] bilduik, erran zué:

–[Kupida] didate gende hebék, zeren badú hirur egun nere konpañan dáudelá eta éztute zér xan, eta eztitut barurik despeitú nahi, baldin éztiten bidean desmaiatu.

33. [Ikaszaleek] ordea errespondatu zioté:

–Nola bila dezakegú desertu hontan hainbertze ógi, hainbertze jende asetzeko?

34. Jesusek erran zioté:

–Zénbat ógi tuzié?

–Zazpi, arraitto batzueki –[errespondatu zuté].

35. Orduan jendeari lurrean xar zaila manatu [zió].

36. Eta Jesusek, zazpi ogiak eta arraiak hartús, eta [eskerrak] emanés edo otoitz einik, partitu zitué eta bere [ikaszaleei eman zizkiote, eta ikaszaleek jendeari errepartitu zizkiote].

37. Eta guziek xan zuté eta aspertu zeré; eta sobrakin puskekí zazpi esporta bete zúste.

38. Laur mila gizon zeré xan ztuenak, haurrak kontatu gabe éz eta're emakumeak.

39. Hontan, jende haietaik despeitzen zelá, barka batean sartu zé, eta Magadango hurbiletará [joan] zé.

16. KAPITULOA

[Fariseo eta saduzeoak nahasirik.

Fariseoen eta saduzeoen orantza.

Pedrok Jesus Mesiastako eitortu.

Jesusek bere hiltze-piztea lehemixikos ailtzinetik erran.

Jesusi segitzea.]

1. Fariseo eta saduzeoak [Jesusi] etor zekitzkió eta, haren tentatzeagatik, zeruko milagro zenbait ikusáz zezotelá eskatu ziote.

2. Harék, ordea, errespondatu ziote:

–Gaua arrimatus doaielaik eta goibelak gorri daudelá, alditan diozié «Arrats gorri, bihar eguraldi».

3. Eta goizetan: «Goiz górri, arráts-éuri». Badakizé zeruain koloretik asmatzen eta etzakezié asmatu Mesiasen etortzeain denbora heben señale [argiak]?

4. Arraza gaixto eta adúltero hónek milagro bat eskatzen dú; baña etzeio eskatzen duen hori emein, baixik Jonás profetain milagroa.

Eta haiek uzten zituelá, joan zé.

5. Haren [ikaszaleak] urbazterreko erribera bertze alderát pasatús, ógia hártzea atzendu zekiote.

6. Jesusek erran ziote: «Záuste alért eta guarda zaiste fariseo eta saduzeoen orantzetik!».

7. Baña haiek beren baitan ziote: «Haú dió zeren éztugun ekarri ógi».

8. Jesusek [hura] zakiela, erantzun zioté: «Gizon fede gutikoak, nóla zabiltzate zuen barrenean pensatzen, zeren éztuzien ógi?

9. Eztuzié oraño konprenditzen? Éz oroitzen ere bortz ógies -bortz mila gizonei errepartituak-, eta zénbat zumaská edo esporta puskes beteak gelditú zekizien?

10. Ez eta're laur mila gizonen ogies, eta zénbat zumaská bildu zindusten sobrakineteik?

11. Nola eztuzie ezautzen éz nizielá erantzún ógias: Guarda zaiste fariseo eta [saduzeoen orantzetik]?».

12. Orduan [entendatu zute] ezi etzuela erran nahi guarda zaitela ogian orantzetik, baixik fariseo eta saduzéoen doktrinatik.

13. Jesus ondoren [Feliperen] Zesarea lurrerát etorris, bere [ikaszaleei] galdein zioté:

–Nór diote gizonék delá Gizonein Semea?

14. [Haiék] errespondatu zúte:

–Batzúk diote ezi Joan [Bataiazalea], bertze batzúk Elias, bertze batzúk Jeremias edo profeteik bat.

15. Jesusek [erran ziote]:

–Eta zuek nor diozié naizela ni?

16. Simon Pedrok hitza hartús, erran zué:

–Zú Kristo zará edo Mesias, Jangoiko biziain Sémea.

17. Eta errespondatus, Jesusek erran zió:

–Zorionekoa zará, Simon Joanen séme, zeren éz haragia éz odola edo gizon[en bat] dá argitu dizuná, baixik nere Aita zeru[an] dagoná.

18. Eta nik diozút zú Pedro (Harri) zárela, eta harri honen gañean ekidatuko dút nere Eliza, eta infernuko atariek edo podereek éztute garaitukó harren kontrá.

19. Eta zuri [zeruko] erreinuko giltzak emain [dizkizút], eta lurrain gainean lótzen dukezún guzia, zeru[an ere] lótua izain dá; eta lurrain gainean deslótzen dukezún guzia, zeru[an ere] deslótua izain dá.

20. Orduan [Jesusék] bere [ikaszaleei] manatu zioté étzez[o]telá niori errán [bera] Kristoa edo Mesias zéla.

21. Eta Jesus berladanik hasi zé bere [ikaszaleei erraten] ezi hurá Jerusalena joan zain konbeni zelá, eta hán anitz [sufri] zezán Zaharren partetik eta eskribeteik eta [apezburu]eteik, eta hila izan zain eta [erresuzita] zain hirurgarren egunean.

22. Eta Pedrok Jesus [berex] hartús, haserratzen hasi zekió, eta burutik kendu nahiés, erraten ziola:

–A, Jauna! Urrun hálako gauzá berorrenganik; éz, eztá halakoik izan behar berorren baitán.

23. Jesusek, ordea, Pedroganat itzulirik, erran zió:

–Ken hakidá altzinetik, Satanás! Estorbatzen didak, zeren eztúk ezaunmenduraik éz gustoik Jangoikoain gauza dérenes, baixik gizonenak dérenes.

24. Orduan Jesusek bere [ikaszaleei erran ziote]: «Norbaitek nere óndoren etorri nahi badú, úka zola bere buruari, hár zala soñean bere gurutzea eta ségi nezalá.

25. Bada, nere kontrá [egines] bere bizia edo arimá salbatú nahi lúkenak, bizia galduko dú; baña nere amoriós bere bizia galtzen lúkenák, berá arkituko dú.

26. Bada, zértako dú gizonak baluke ére mundu guzia, bere arima galtzen balimadú? Edo zér eman dezaké gizonak arimain órdetan, behin galtzen bádu?

27. [Egia] dá, bada, ezi Gizonain Semeak bere Aitain glorias beztituá etorri behar du[ela], gizonen juzgátzerá; eta órduan bakotxari págua emain [dió] bere obren arabererá.

28. Egian dioziet báderelá hemen zenbait eztutenak heriotzea txastatuko Gizonain Semea ikusi gabe, bere erreinuko argitasunean agertuá».

17. KAPITULOA

[Jesusen bertziruditzea. Alditsuain sendatzea.
Jesusek bere hiltzea eta piztea bigarrenes ailtzinetik erran.
Jesusek eta Pedrok tenplurako kontribuzioa pagatu.]

1. Sei egun geró[ago], Jesusek bereki hartu zitué Pedro eta Santiago eta Joan honen anaiá; eta hebeki bakarrik mendi góra baterá igan zé.

2. Eta haien altzinean bertziruditu zé, halako moduan, ezi haren aurpegiak iduzkiak bekala argitzen zué, eta haren soñekoak elurra bezalá [txuritu zeré].

3. Eta denbora berean Elias eta Moises [agertu] zekizkiote, hareki -[Jesuseki]- konbersazioan, Jerusalenen [sufritu] behar zuenás.

4. Orduan Pedrok, hitzá hartús, Jesusi erran zió: «Jauna, gauza óna dá gú hemén egon giten! Plazer badú, in ditzagún hemén hirur etxola, batá berorrén, bertzeá Moisesí eta bertzeá Eliasí».

5. Pedro oraño mintzo zé, eta hóna goibel argi bat etor zé haien estaltzerá, eta memento berean hedoietik boz bat ozendu zé, ziolá: «Haú dá nere Seme [maitea], nor baitan ditután nere pozkida guziak. Entzun dézozié berari!».

6. [Hura entzutean, ikaszaleak] aurpegis lurrerá eror zeré, eta txoil lótsatuak záude.

7. Baña Jesus [hurbildu] zekioté, ukitu zitué eta erran ziote: «Txuti zaisté eta éz beldurrik izán».

8. Eta begiak goratús, étzute nior ikusi, baixik Jesus bakarrik.

9. Menditik xauxterakoan Jesusék manatu zioté, erranés: «Eztuzié zér errán ikuskerá, Gizonein Semea hilen artetik erresuzitatú [artio]».

10. Honen gainean [ikaszaleek] galdein ziote:

–Nóla diote, bada, eskribek ezi lehenik Eliasek etorri behar duela?

11. Jesusek errespondatu zioté:

–Egia dá, Eliasék etorri behar dú, nere bigarren etortzea baño lehen, eta orduan gauza guziak itzuliko tú.

12. Nik ordea [erraten] diziet, ezi ya etor zelá Elias eta etzute ezaundú, baixikan ere harekin nahi zutená in zute. Halá ere, haiék ineunté Gizonain Semeak [sufri] dezan.

13. Orduan entendatu zute [ikaszaleek ezi Joan Bataiazaleas] mintzatú zekiotelá.

14. Jendeek [etxedeten] zioten lekurá ellegatuik, gizon bat etor zekió, eta haren altzinean belaurikatús, erran zió:

15. –Jauna, iduk béz [kupida] nere semeas, zeren alditsua [den, eta anitz sufritzen] dú; bada txoil anitzetan suan erortzen dá eta maiz úrean.

16. Berorren [ikaszaleei] presentatú diotet, eta ezin dúte sendatú.

17. Jesusek erantzukís erran zué:

–O jenerazio fede gabea eta bihurria! Nóiz artio egoin naiz zuen artean? Nóiz artio sufritu behar óte zaiztet? Ekár dezadazié hónará.

18. Eta Jesusek demonioari mehatxatu zió eta mutiko[aganik] atra zé, nór memento beretik sendatuá gelditu zé.

19. Orduan [ikaszaleak] sekretuan ellegatu zekizkió Jesusi, eta erran zioté:

–Nóla gúk ezin-éztugu bóta demonioa?

20. Jesusek errespondatu zioté:

–Zeren fede gúti duzien. Bada [egias]ki aseguratzen diziet, ezi fede hain handía balimazindukete, nóla bostonazá granottoá adiná, mendi hóni erran dezokezie «Pása hadi hemendik harará» eta pasatuko dá, eta eztá deus inposibleik izain zuendako.

21. Eta yágo, ezi demonioen kasta haú eztá botatzén orazioain eta barurain medios baixik.

22. Haiék Galilean zauden bitartio, Jesusek berri-berritan erran ziote: «Gizonain Semeak gizonen eskuetán entregatua izan behar dú.

23. Eta hilenunté eta hirugarren egunean biztuko dá».

Hitz hebeki [ikaszaleak] tristatu zeré ezin yágotan.

24. [Jesus eta ikaszaleak Kafarnaura ellegatu zerelaik], bi drakma kontribuzioin kobrazaleak Pedroganát etor zeré, eta [galdein] ziote:

–Zér, zuen Maistruak eztú pagatzen bi drakmak?

25. «Bai», errespondatu zué.

Eta etxean sartús, Jesus ailtzindu zekió, erranes:

–Zér iduri zaie, Simon? Lurreko erregék nórganik kobratzenunte [kontribuzioa? Beren ume bereganik edo kanpokoenganik]?

26. Pedrok erran zué:

–[Kanpokoenganik].

Jesusék [erantzun] zué:

–Gerós úmeak libre deré.

27. [Halarik ere], eskandalizatú éztiten, goaie itxasorá eta bota zak amua, eta hár zak lehemixiko arraia atratzen dená; [haren] ágoa idekis zilar pieza bat aurkituko'úk laur drakmakoa. Hár zak eta emoiók neretako eta hiretako.

18. KAPITULOA

[Nor izain da gehien zeruko erreinuan?
Ai gizon eskandaloa iten duenain!
Ardi errebelatuain parabola.
Senide artean: bekatua, barkatzea, otoitza.
Barkatu etzuen mutilain parabola.]

1. [Ikaszaleak Jesusganát] hurbildu zeré, eta galde háu in ziote:

–Nór izain da gehién [zeruko] erreinuan?

2. Jesusek, bereganát haur bat deitús, haien erdian paratu zué.

3. Eta erran zué:

–Egia dioziet ezi ezpalimazarate bihurtzen eta iten haurrei iduriak, étzarate sartukó [zeruko] erreinuan.

4. Nornahi, bada, haur haú bekalá umillatu dain, hóri izain dá gehien [zeruko] erreinuan.

5. Eta nere izenean haur bat errezibitzen lukenak, nolakoa erran dudan, [ni erre]zibitzen naú.

6. Baña nere baitan sinesten duten haur ttipitto hebeteik bat ere eskandalizatzen lukenak, hobeki laokioke leporá lót dezoten asto batek mogitzen duen errotarri hoietaik bat, eta halá úndi dain itxaso-zolan.

7. Ai munduari eskándaloen kasos! Zeren [beharresko] dénik ere, gizonen [gaistakeria] ikustean, eskandaloak izan diten. Horreki guziaiki, ai gizon eskandaloa [iten] duenain!

8. Baldin zure eskua edo zangoa eskandaloein edo bekatuein okasio bada, ebák ditzazú edo bóta ditzazú urrún zúganik; hobe'úzu, bada, bizitze eternoan maingú sartú, ezi ez botatuá izan sú eternorá bi eskuekí edo bi zangoeki.

9. Eta zure begia zuretako eskándaloein okasio balimadá, átra zazú eta bóta urrún zúganik; hobe'uzú bizi eternoan begi bakarreiki sartú, ezi éz bi begi izan eta ifernuko surá joan.

10. Beirá éz dezazien mezprezia ttipitto hebeteik bat! Zeren heben aingiru guardiakoak [zeruan] dáudela adiarázten dizie[n], beti nere Aita zerukoain aurpegia beira.

11. Eta bertze alde, Gizonein Semea galdua salbatzerá etor dá.

12. Gizon batek egun ardi balimaditú eta haieteik bat errebelatú baledi, zé iduri zaizié inen duela orduan? Eztú lauetanogei eta hemeretziak mendietan útzikó eta errebelatu denain bilá joain dá?

13. Eta fortunás aurkitzen balimadú, egian dioziet, ezi honék berak bozkario yágo ematen diolá, galdú étzeren lauetanogei eta hemeretziek baño.

14. Halá dá ezi, eztá zuen Aita [zeruan] dagonain borondatea txipitto hebetaik bat bederé gal dain.

15. Zure anaiak, bada, zure kontrá bekatu iten baluke edo zenbait kulpatan erortzen balake, zoáz eta beraiki bakarrean egonés [xuxen] zozú. Atenditzen badizú, zure anaia irabazi ahal duzú {bide'uzú}.

16. Ezpadizu kasorik iten, oraño balia zaite presuna batés edo biés, *guzia konfirma dain bida edo hirur testigoen autoridadeaikin*.

17. Eta hebei ezpaluke atenditzen, érrozú Elizari. Baña ezpadú eitzen éz Elizari berari ére, idukazú jentil bat eta publikano bat bezalá.

18. [Egian dioziet] ezi lurrain gainean lótzen lukezien guzia, hóri bera lótua izain delá zeruan; eta lurrain gainean laxatzen lukezien guzia, hóri bera laxatua izain dá zeruan.

19. Yago dioziet, ezi zuetaik bida lurrain gainean elkarreki [batzen] balirake zerbait gauza eskatzeko, déna dén, ordagatua izain zeiote nere Aita zeru[an] dagonás.

20. Non, bada, nire izenean bida edo hirur batzarrean bilduik dáuden, hán nágo ní haien erdian.

21. [Orduan] Pedro [hurbil]tzen zekiola, erran zió:

–Jauna, zénbat aldis barkatú behar izain [diot] nere anaiai bekatu iten lukenean nere kontra? Zazpi [aldis]?

22. Jesusek [errespondatu] zió:

–Ez dizut nik erraten zazpi [aldis], baixik haliketa hiruretanogei eta hamar aldiz zazpi, edo ofenditzen zaituen aldioró.

23. Horgatik zeruko erreinua errege batí iduria izaterá heldu dá, zeñek bere mutilei kontu hartú nahi izan [ziote].

24. Eta kontuen hartzen hasis, bat presentatua izan zekió, hamar mila talento zór zioná.

25. Eta honék nóla ézpaizué zéreki pagatú, haren Jaunak manatu zué ezi saldua izan zailá hurá eta haren emaztea eta haren úmeak, haien ondasun eta lur guzieki, eta gisa hóntan paga zailá zorrá.

26. Orduan [mutil] harék, haren oñetará belaurikatuik, otoizten zió erranes: «Idukazú pazienzia pixka bat, nik bada, dén guzia pagatuko dizút».

27. Jauna [mutil] hartas [kupida]tuik, bada, libre útzi zué eta oraño barkatu ere zió zórra.

28. Baña mutil haú haren ailtzinetik atra zen bezein laster, bere laguneteik bat topatu zué, egun denario zór ziona, eta tzinzurretik harrepatús, itotzerá paratzen zué, erranés: «Pága zak zór didakaná».

29. Laguna haren ailtzinean belaurikatus, otoizten zió erranés: «Idukadák pazienzia gutti bat, nik guzia pagatuko ditat».

30. Harék, ordea, étzio atenditú nahi izán, baixik ere joan zé eta kárzelean preso sarrarazi zué zór zioná paga zezon artio.

31. Bertze bere mutil lagunek pasatzen zená ikustean, bada, ezin yágotan tristakidatu zére, eta beren Jaunari pasaje guzias kontu ematerá joan zeré.

32. Orduan bere nausiak deitu zué eta erran zió: «Mutil [xuxengabea]! Nik zor guzia barkatu dizút, zeren otoitztu didazún.

33. Etzé, bada, [xuxen zuk ére kupida] iduk zindezan zure lagunás, hala nola nik iduki dudán zutás?».

34. Eta haren nausia hasarratuik, borreroen eskuetan entregatu zué, zorrá dená paga zezan artio tormenta zezaten.

35. Halaber, nere Aita [zerukoa] gisa berean portatuko dá zuekí, baldinetan éz duzien bihotzés barkatzen bakotxak bere anaiai.

19. KAPITULOA

[Ezkontza eta karta aldekigoa. Birjintasuna.
Jesus eta haurrak. Jesusek gazte abratsari dei.
Abrastasuna salbaziorako (oztopo).
Guzia utzi duten ikaszaleen errekonpensa.]

1. Jesusek diskurso hebék akabatu zituenean, Galileatik [joan] zé eta Judeáko dermioetarát etor zé, Jordandik bertze aldean.

2. Jendalde handiak segitu zioté eta hán haien eriak sendatu zitué.

3. Eta fariseoak tentatzerá etorri zekizkió, eta erran zioté:

–Zilegi [zekio] gizon batí bere emaztea edozein motibogatik úztea?

4. Jesusék erantzun zioté:

–Eztuzie leitu ezi lehendabixiko [denboran giza] arraza kreatu zuen harék, *gizon bat bakarrá eta emazteiki bat bakarrá* [kreatu zuelá, eta erran zuelá]:

5. *Horgatik utziko [t]ú gizonak bere aita eta bere amá, eta bere emazteari [hurbilduko zekio], eta bida haragi batean txoil izain dira.*

6. Halá, ezi ezteré bida, baixik haragi bat txoil. Jangoikoak juntatu zuená, bada, ez dezala separatú gizonak.

7. Haiek galdein zuté:

–Zérgatik manatu zué Moisesek, órdea, *karta aldekigoa ematea eta emazteá [despeitzea]*?

8. Jesusék erran zioté:

–Zuen bihotz gogortasuna déla kaso permititú'eizié Moisesek zuen emazteak despeitzea, baña lehendabixiko [denboratik] étzé halá izán.

9. Halá badá, erantzuten diziet ezi nornahi dén bere emaztea despeditzen dukena, non éztén andreketa kasos, eta oraño kaso hontan, bertze batekin ezkontzen dén, halako honék adulterio iten dú.

10. Bere [ikaszaleek erran zioté]:

–Gizonain kondizioa bere emaztaikilakó halakoa balimada, eztá konbeni ezkontzea.

11. Jesusék errespondatu zioté:

–Ez guziak deré kapaz resoluzio honén, baixik presuna haiék, zeñei góratik emaná izan dén.

12. Zeren baderé osatú batzuk beren amen sabeletik halá jaio derenak, eta osatuak deré gizonek halá in tuztenak; eta osatuak dére errate batera berak osatu derenák [zeruko] erreinuain amorios kastidadeain botoaikí. Hóntarakó kapáz dena, izán dailá.

13. Orduan haur batzúk presentatú zizkiote, eskuak haien gañean para zitzan eta otoitz [z]ezan. [Ikaszaleek], órdea, eragokitzen ziotén ustés, haserratzen zúzte.

14. Jesusek erran zioté: «Utz kitzié bakean haurrak, eta étzoziela debekatú nereganát etor diten, zeren haiek bezalakoak [dérenena dá zeruko] erreinua».

15. Eta [haurrei] eskuak gain-paratú zizkiotenean eta bedeizioa emán, handik joan zé.

16. Orduan gizon gazte bat hurbildú zekió, erraten ziolá:

–Maistrú óná, zér óbra onák in behar izain tút bizi eternoa erdiesteko?

17. [Jesusek] errespondatu zió:

–Zérgatik deitzen nauzú óná? Jangoikoa bakarrik dá óná. Geñarakoan, bizitzá eternoan sartú nahi ba'uzú, guarda izkizú mandamentuak.

18. Harék erran zió:

–Zér mandamendú?

Jesusék errepondatu zió:

–*Hilen éz duzú, adulterio inen éz duzú, ebatsiko éz duzú, testimonio falsua goratuko éz duzú.*

19. *Honra zazú zure aita eta zure áma, eta maita zazú zure proximo-laguna zahuroi bekalá.*

20. Gazteak [erran zió]:

–Hoiék guziok guardatu ditút nere gaztetasunetik. Zér yágo falta zaidá?

21. Jesusék errespondatu zió:

–[Ezin yagotan ona] izán nahi ba'uzu, zoaz eta sal zazú duzun guzia eta émozute pobreei, eta tesoro bat izain duzú zeruan; átoz geró eta segi nezadazú.

22. Gazteak hitz [haiek] eitu zituenean, tristatuá erretiratu zé, zeren ondasun ánitz baizitué menpean.

23. Jesusék órduan bere [ikaszaleei] erran zioté:

–Egian dioziet ezi abratsá nekeró sartuko déla [zeruko] erreinuan.

24. Eta oraño yágo ére dioziet: Erratxago dá gamelu bat orratz baten [zulotik] pasa dain, ezi éz abrats bat [zeruko] erreinuan sar dain.

25. Eipamendu hebék aditzean, bada, [ikaszaleak nahasirik] záude, beren artean ziotelá:

–Nór salba deiteke, [orduan]?

26. Jesusék, amoróski beiratzen ziotela, erran zioté:

–Haú inposible dá gizonendáko, baña Jangoikoindáko gauza guziak dére posible.

27. Orduan Pedrok hitz hártús, erran zió:

–Óngi ikusten dú nóla gúk abandonatú tugún gauza guziak eta nóla segitu diogún berorri. Nólakoa izain dá, bada, gure errekonpensa?

28. Jesusék erantzun ziote:

–Egian dioziet, ezi zuék segitú nauzienak, erresurrezio jeneralain egunean, noiz Gizonein Semea bere majestadeain tronoan xarri [dein, zuék ére] xarriko zaratelá hamabi katedren gañean, eta Israelgo hamabi tribuak juzgatuko tuzielá.

29. Eta nornahiek útzi ahal duen etxea edo anaiák edo arrebák edo aita edo [emaztea] edo úmeak edo lúrrák nere izenagatik, egun aldis yágo errezibituko dú ontasun sendoagokotan, eta ondorean bizi sekulakoa menpetuko dú.

30. Anitz, órdea, mundu hontan lehendabixikoak zerenák, azkenák izain deré, eta anitz azkenák zérenák, lehendabixikoak izain deré.

20. KAPITULOA

[Ardantzeko langileen parabola.
Jesusek bere hiltzea eta piztea hirugarrenes ailtzinetik erran.
Zebedeoin semeen (handinahia). Zerbitzua ikaszaleen lege.
Jesusek bi itsu sendatu Jerikon.]

1. Zeren [zeruko] erreinua aita-etxeko batí iduria dá, nór argi-hastean langileak alokatzerá atra zé bere ardantzerakó.

2. Eta langileki egunekó denario batean (hitzar)tús, bere ardantzerá biali zitué.

3. Geró, ordu terziará húrbil atratzen zelá, bertze batzueki topatu zé, plazan aufer záudenak ezin dénbora pása.

4. Eta erran ziote: «Zoáste zuék ére nere ardantzerá eta emain diziet [xuxen] lakená».

5. Eta haiék joan zeré.

Bertze bi aldis atra zé sesta eta nonaráko órduetan, eta gisa berean in zué.

6. Azkenik, bezperen ordurá húrbil atra zé eta bertze batzúk ikus zitué, oraño deús in gabe hán zaudelá, eta erran zioté: «Nóla zauzte hemén egun guzian aufer?».

7. [Errespondatu] ziote: «Zeren niork éz digun aloka-bideik emán». Erran ziote: «Zoáste, bada, zuék ére nere ardántzerá».

8. Iduzkia sartú óndoan, ardantzeain nausiak bere ogindariari erran zió: «Déizkizú langileak eta pága zózuté jornaleá, azkeneteik hasten zarelá eta lehendabixikoetán akabatús».

9. Bezperen ordurát húrbil joan zerenak etor zereleik, bada, bakotxak denari bána errezibitu zúte.

10. Geró, lehendabixikoak azkenean ellegatu zereleik, úste zuté ezi yágo emain zekiotelá. Baña horgatik, hebek igualki errezibitu zuté bakotxak bere denarioa.

11. Eta errezibitzean, marmarká záude aita-etxekoin kontrá.

12. Ziotelá: «Azken hebék ezteré trabajatu ordu bat baixik, eta gúri [adiná] pagatú diozuté, egunein eta beroein pizú guzia sufritú dugunei [adiná]!».

13. Baña harék haieteik batí erran zió: «Aixkidea, éztizút [bidegabekeriaik] iten; etziná ajustatú nerekin denario batean?

14. Har zazú, bada, zurea déna eta zoáz; nik hóni emán nahi diot, azkená delaik ere, zuri adina.

15. Etzaket nik benturás in nere gauzás nahi dudaná? Edo zure begiak gaistoa edo enbidiosoa behar dú izan, zeren ni oná naizen?».

16. Modu hóntan mundu hontan azkén dérenak, [zeruko] erreinuan lehendabixikoak izain dirá, eta lehenak azkén. Bada deituak anitz dére, guti órdea háutatuak.

17. Jesus Jerusalenát iganés zoaielaik, bere hamabi [ikaszaleak] berex hartu zitué eta [erran] zioté [bidean]:

18. «Ikustenunzie nóla goazen Jerusalená, non Gizonain Semeak [apezburuei] eta eskribei entregatuá izán behar dú[en], eta heriotzerá kondenatuko'uté.

19. Eta jentilei entregatuko [diote] burla dezaten eta azota dezaten eta itzazta dezaten; baña hurá hirugarren egunean bitztuko dá bere glorian sártzeko».

20. Orduan Zebedeoein semeén ama bere bi semeéki Jesusí húrbil[du zekio] eta adoratu [zué], zerbait gauza eskatú nahi ziola agertús.

21. Jesusék [galdein] zió:

–Zér nahi duzú?

Eta harék errespondatu zió:

–Mána bez nere bi seme hebék beren xarralkia izan dezaten horren erreinuan, batak berorren eskuián eta bertzeak berorren ezkerréan.

22. Jesusék [erantzun zió]:

–Eztakizié zér eskatzen duzien. Badezakezié edán pasionees kalizá, nik edán behar dudaná?

–Badezakegú –[erran ziote].

23. [Jesusek] erantzun ziote:

–Nere kalizá bai edain baituzié, bañan étzaut tokatzen neri zuei xarralkia ematea eskuián edo ezkerreán, baixikan ére nere Aitak señelpetú dituenén[a] izain dá.

24. Bertze hamar apostoloék haú konprenditu zutenean, bi anaien kóntra hasarratú zeré.

25. Jesusék, órdea, bereganát deitu zitué eta erran zioté: «Badakizié ezi nazionein prinzipek beren [herriak] menpetzen tustelá eta haien jaun handiek menpetiró hezitzen tuztelá.

26. Eztá hála izain zuen artean, baixikan ere nórk nahi luken gehién izán zuen artean, zuen zerbitzári izan behar dú.

27. Eta zuen artean lehendabixikoá izan nahi lukena, mutil izan dailá.

28. Halá nolá Gizonein Semea: eztá zerbitzatua izaterá etorri, baixik zerbitzatzerá eta bere bizia emateá anitzén (ordainsari)tako».

29. [Haiek Jerikotik atratzean, Jesusi] jendalde handi bat segitús zoakió.

30. Eta hóna hemén bi itsú bide bazterrean xarririk záudenak, eitú zutenean zíotela ezi Jesus pasatzen zelá, óihuka hasi zeré, erranés:

–Jauna, Dabiden Semea, [kúpida] bei gútás!

31. Jendeék, órdea, [haiei gogor iten zioté] ixil ziten. Baña haiék yágo goratzen zuté óihua, erranes:

–Jauna, Dabiden Semea, [kúpida] bei gútás!

32. Jesus gelditu zé eta, bereganát deitús, erran zioté:

–Zér nah'uzié in dezaziedán?

33. Haiék [errespondatu] zioté:

–Jauna, idek ditén gure begiak!

34. Kupidatuik Jesus, haien begiak ukitú zitué, eta memento berean ikus zuté eta segitú zioté.

21. KAPITULOA

[Jesus Jerusalenen Mesias bezala sartu.
Tenplotik bota han salerosten zaudenak.
Pikondoaren madarikazioa: fedea eta otoitza.
Bi semen parabola. Langile hilzalen parabola.]

1. Jerusalená hurbildu zerelaik, Oliben mendiain azpian Betfageko bistará ellegatú zereneko, bere bi [ikaszale] biali zitué.

2. Erraten ziotelá:

–Zoáste [ailtzineko bistan dágon herritto] hortará, eta yágoko aferaik gabe berla topatuko'uzié astáeme bat lotuik, bere astakumeaikin; sólta zkizie eta ékar ditzadazié.

3. Eta norbaiték baldin zerbait erraten dizien, erresponda zozié: «Jaunak behar [ditu], eta berla útziko [ditu] ekartzerá».

4. Haú guzia halá ina izan zé, profetak errana [bete] zain:

5. *Erran zozié Siongo alabarí: Hóna hemen héldu dá zúganá zure Erregea, malsotasunés betea, astaeme baten gañean xarririk eta bere astakumea, buztarria ina denain úmea.*

6. Eta [ikaszaleak joan zeré, eta] Jesusék manatú bekalá in zuté.

7. Eta astemea ekar zuté eta astakumea, eta beren soñetakoeki prestatú zúste, eta gañean xarriarazi zúte.

8. [Herriko] jendalde handi baték beren beztimentak [bidean] hedatzen zituste; bertze batzuék árboleteik erramú-abarrák edo hóstoak ebakitzen zúzte, eta pasatú behar zuen bidean hedatzen zúste.

9. Halá altzinean zoaien jendaldeak nóla gibeletik zoazenék, óihu iten zúte, erranés:

Hosánna, agúr eta gloria, Dabidén Semearí! Zorionekoa [izan deila] Jaunaren izenean heldu déna! Hosánna zeruen goren-gorenean!

10. Jerusalenén gisa hóntan sartu zenean, ziudade guzia zoratuik mogitu zé, anitzék ziotelá:

–Nór da haú?

11. Herritarrék [errespondatzen] zute:

–Haú Jesus dá, Galilea Nazaretgo profeta.

12. Jesus Jangoikoin tenploan sartu zelaik, handik kanporát bóta zitué hán salerosten zauden guziak, eta dirudunen edo ganbiazalen mahaiák egótzi zitué, eta sakrifizioetako uso-salzaleen sillak.

13. Eta erantzun zioté: «Eskribituik dágo: *Nere etxea orazioain etxea deitua izain dá*; zuék, órdea, [ebaszale]tegia ina dáukazié».

14. Denbora berean, tenploan asko itsú eta maingu ellegatú zekizkió, eta sendatu zitué.

15. Baña [apezburuék] eta eskribék [harék] iten zituen [gauza miragarriak ikustean], eta mutikottoak tenploan óihus era erranés «Hosánna Dabidén Semearí», bekaiztú zére.

16. Eta erran zioté:

–Zúk éz duzú aditzen óte hebék diotená?

Jesusék errespondatu zioté:

–Bai. [Eta zuék] éztuzié sekula leitu profezia: *Mutikottoen eta haur bularrekoen ágotik dá nóndik laudorioik perfetena atratzen duen*?

17. Eta úzten zituelá, ziudadetik kanporá átra zé, Betaniará, eta hán gelditu zé [gabás].

18. Hurbilen goizean ziudaderá itzultzean, gosetu zé.

19. Eta bide bazterrean biku-arbole bat ikustean, hartará [hurbildu] zé, eta éz aurkitús hartán hóstoak baixik, erran zió: «Nioiz sekula eztaila jáio fruituik híganik!».

Eta bikua berla eihártu zé.

20. [Ikaszaleék hura] ikustean, marabillatu zeré eta zióte:

–Nóla eihártu dá memento batean?

21. Jesusék errespondatús erantzun ziote:

–Egian dioziet ezi féde balima'uzie eta éz zalantzán erabili, ineunzié éz bikuein haú bakarrik, baixikan ere óraño mendi goni «Atéra zaite eta bóta zaite itxasorá» erraten badiozie, hála inen dú.

22. Orazioan eskatzen ahal dukezien guzia, nón-eta féde dúzien, izain duzie {erdietziko'uzie}.

23. Tenplorá ellegatu zenean, yá erakustén zégoleik, [apezburuak] eta herriko [zahar] edo senadoreak hurbildú zekizkió eta galdetu ziote:

–Zer autoridadereki iten tuzú gauza hebék? Nórk eman dizú halako potestadea?

24. Jesusék [errespondatu] ziote:

–Nik ere gauza bat galdetú nahi diziet, eta hórri [errespondatzen balima'iozie], nik berla eitortuko diziet zér autoridadereki iten tudan gauza hebék.

25. Joanen bataioa, nóndik zé? Zerutik edo gizoneteik?

Haiék, órdea, beren baitakó pensatzén záude, erranes: «Baldin [errespondatzen] dugún 'zerutik', errain digú: Zérgatik, bada, ez duzié sinetsi haren baitán?.

26. [Eta 'gizoneteik' errespondatzen badugú, beldúr izan dezokegú herriari]. Zeren guziék [d]aukate Joan profeta bat bezala».

27. Horgatik errespondatu ziote Jesusí erranes:

–Eztakigú.

Berla Jesusék [erran] ziote:

–Ez nik eré errein diziet zuei zér autoridadereki iten tudán gauza hebék.

28. Zér iduri zaizie erraterá noaien[á]? Gizon batek bi séme zitué, eta lehendabixikoa deitús, erran zió: «Séme, zoáz egú nere ardantzean trabajatzerá».

29. Eta harék errespondatu zué: «Eztut nahi». Geró urrikituik, órdea, joan zé.

30. Bigarrená deitús, gisa berean erran zió, eta [harék errespondatu zió]: «Banoaie, Jauna»; étze órdea joan.

31. Bietaik zóinek in zué aitain borondatea?

[Haiek erran zute]:

–Lehendabixikoak.

Segidan Jesusék:

–Egian dioziet: publikanoak eta amatoroak ailtzinduko zeizkizié eta [zeruko] erreinuan sartuko dére.

32. Zeren, bada, Joan justiziain xendés etor zé zuenganát, eta etzindiote sinetsi; publikano eta emakume gaistoék sinetsi zioten denbora berean. Zuék, órdea, éz haú ikustean ere zinate mogitú ondorean penitenziará harren baitan sinestekó.

33. Entzun zazié bertze parabola bat. Aita-etxeko nausi bat zé, zeñék ardantze bat plantatu zué eta hesitu zué eta, ailtzurtús, berean lako bat in zué eta dorre bat goratu zué; eta gero errentan eman ziote labrari batzui, eta herri urrúti baterá urrundu zé.

34. Eta mendima denbora hurbildu zelaik, bere mutilak errentari[enganát] biali zitué, ardantzeain frútua gorátzerá.

35. Errentariék, órdea, mutilen kontrá akometazio inés, bata makilkatú zuté, hil zuté bertzea eta harrikatu zuté bertzéa.

36. Bigarrenik biali zitué mutil berriak número yágotan lehendabixiko aldian baño; eta gisa berean tratatu zúste.

37. Azkenik bere sémea biali ziote, bere baitarakó erranés: «Sikiera nere semea [er]respetatuko ahal [dute]».

38. Errentariék, ordea, semea ikustean, beren artean errán zute: «Haú da primua; atózte! Hil zagún eta gúréa izain dá honen primiezá.

39. Eta harrepatzen zutelá, ardantzetik kanpó bóta zuté eta hil zuté.

40. Orai, bada, itzultzean, ardantzeain nausiak zér ínen diote labrari haiei?

41. Haiék erran zute:

–Inen dú ezi jende haú hain gaistoa dohakaberó izakal dein, eta bere ardantzea bertze labrari batzui arrendatuko [diote], zeñek frutuak beren denboretán pagatuko dioten.

42. Jesusék [erran] ziote:

–Iñoiz éztuzie leitu Eskrituretan:

Arginek errepustú zuten harria, hóri bera [izan] zé eskinako giltzarria. Jauna dá gure egunetan gauza haú in duená, eta gauza miragarria dá gure begietará?

43. Horgatik dioziet Jangoikoin erreinua kendúa izain zeiziela zuei, eta obronen frutuak iten tuzten jendei emaná izain delá.

44. Hala dá, ezi eskandalizatzen laitekená edo harri hónen gañera erortzen laitekená puskatuko dá; eta juizioko egunean noren gañerát erortzen ahal den harri haú, milaká zatikatuko dú.

45. Jesusen parábola hebék entzutean, [apezburuek] eta fariseoék haiétás ziola entendatú zuté.

46. [Horgatik hura preso hartu] nahiés [zebiltza, baña herriain] beldur zeré, zeren ongi ikusia zé[n] profeta bekala.

22. KAPITULOA

[Ezkontzain parabola.
Zesarrena Zesarri eta Jangoikoina Jangoikoari.
Hilen erresurrezioas. Lehendabixiko mandamentua.
Mesias, Dabiden Seme eta Jaun.]

1. Bitartean Jesus berritan mintzatú zekioté parabolés, erraten zuelá:

2. –[Zeruko] erreinuan, errege batí gertatu zekion [bekala] gertatzen dá, zeñek bere semeain bodak zelebratu zituen.

3. Bere mutilak biali zitué konbidatuen deitzerá, baña hebék etzuté etorri nahi izán.

4. Bigarren aldian igorri zitué mutilák berriró, haren partetik konbidatuei [haú] errateko ordeneiki: «Prestatuik daukat xatekia; hil arazi ditút nere aretxeak eta bertze geñarako animale gizenak, eta guzia prest dágo; atózte, bada, bodetará».

5. Haiék, órdea, étzuté kasoik in; [eta] nór bere bordará joan zeré eta nór bere egunoroko tráfikorá.

6. Geñarakoék mutilak harrepatu zúzte eta, desprezios bete ondoan, hil zúste.

7. Erregék gauza haú eitu zuenean, anitz [haserratu] zé eta, bere tropak igorris, gizon hilzale haiék [hil] zitué eta haien ziudadea erre zué.

8. Orduan mutilei erran ziote: «Bodetarako prestamenduak inák dére, baña konbidatuak étzeré digno haietará [joateko].

9. Zoáste, bada, bide atzetará eta topatzen ahal tuzien guziak konbida izkizié bodetará».

10. Berladanik mutilák bidetará atrás, topatú guziak bildu zúste, ónak eta gaistoak; [eta] boden sala jendés bete zé, mahaian xarris.

11. Geró, errege konbidatuen ikusterá sartzean, hán gizon bati erreparatu zio étzegola bodetako beztimentaiki.

12. Eta erran zio: «Aiskidea, nóla sártu zará zú hemén bodako beztimenta gabe?» Baña húra mututú zé, étzakiela zér errán.

13. Orduan erregék bere justiziako ministroei erran zioté: «Oñ-eskuetan lótuik aurtiki zazié kanpó ilunbetará, nón eztén izain baixik marraská eta hórtzén karráskotsá».

14. [Egia] dá, bada, deituak anitz derela eta gúti háutatuak.

15. Orduan fariseoak erretiratu zeré, beren artean tratatzerá nóla lúketen húra harrepatú bere hitzétan.

16. Eta hontarakó beren [ikaszaleak] igorri zizkiote herodiano zenbaitekin, eta erran zioté:

–Maistrua, badakigú egiatia zaréla eta Jangoikoin bidea edo legea egia garbi[ás] erakusten duzulá, niori [kasu in gábe, zeren éz duzún beirátzen presunein itxurari].

17. Haú halá delaik, errán dezaguzú zér iduri zaizún hóntas: Zilegi dá edo eztá Zésari tributo pagátzea?

18. Jesusék, haien malizia errefinatua ezaundús, hóntarát errespondatu zué:

–O, ez iduriak! Zérgatik tentatzen nauzié?

19. [Erakuts] dezazié moneda, zeñeki tributoa pagátzen dén.

Haiek denario bat [erakutsi] zioté.

20. Jesusék erantzun zioté:

–Nórena da figura haú eta letrero haú?

21. [Erran zioté]:

–Zésarréna.

Orduan [Jesusék]:

–Emózie bada Zésarri Zésarréna déna, eta Jangoikoarí Jangoikoina déna.

22. Errespuesta honeki [harrituik] gelditu zeré eta, húra útzirik, joan zeré.

23. Egun hartan berean saduzéoak etor zeré –zeñek diótenés éztá erresurrezioik– Jesusi kaso haú aipatzerá:

24. –Maistrua, Moisesék manatu zué: *Norbait seme gabe hil baledí, anaia haren emazteaikin ezkon dain, bere anaiari haur-linaje beretik suzesio eman dezón*.

25. Gu tartean bazeré zazpi anaiá. Lehendabixikoa ezkonduik, hiltzera ellegatu zé, eta nola ezpaizué umeik izán, bere emaztea útzi zió bere anaiari.

26. Gisa berean gertatu [zekiote] bigarrenari eta hirugarrenari, zazpigarreneraño.

27. Eta haien guzien óndorean hil izán ze emakumea.

28. Orai, bada, erresurrezioko eguna ellegatzen denean, zazpietatik nórena izan dá emazté?

29. Jesusék errespondatu zioté:

–Txoil húts inák zabiltzate, Eskriturak éz entendatús, éz eta're Jangoikoin poderea.

30. [Zeren] erresurrezio óndoan éz gizonek hartuko dute emazteik, éz emakumék ére senarrik, baixikan ere Jangoikoin aingiruen gisará izain deré zeruan.

31. Eta hilen erresurrekzioneain kaso[an], éztuzié leitú Jangoikoak zuei erranik dauzkien hitzák:

32. *Ni Abrahanén, Isaakén eta Jakobén Jangoiko naiz*? Orain, bada, Jangoikoa eztá hilen Jangoiko, baixik bizien[a].

33. [Herria, gauza haú aditzean, harrituik] zégo haren doktrinás.

34. Fariseóak, órdea, saduzeoak ixilarázi zituelá informatu zereleik, batzarrean juntatú zeré.

35. Eta haiétaik baték, Legekó doktorea[k], tentatús galdetu zió:

36. –Maistrua, zóin dá Legeko mandamentú [lehendabixikoá]?

37. Jesusék [errespondatu] zió:

–*[Maitatuko]'uzú Jauna Jangoiko zurea zure bihotz guziaikin eta zure arima guziaikin* eta zure entendimentu guziaikin.

38. Haú dá gehienená eta lehendabixiko mandamentua.

39. Bigarrena hóni iduria dá: *[Maitatuko]'uzú zure proximo-laguna [zure burua] bekalá.*

40. Bi mandamendu hebetan Lege guzia zistaltzen dá, eta profetak.

41. Hemén fariseoak junto záudelaik, Jesusék galde haú in zioté:

42. –Zér iduri zaizie Kristos edo Mesiasés? Nóren seme dá?

[Erran zioté]:

–Dabidéna.

43. [Jesusék, orduan]:

–Nóla bada Dabidék espiritú asmegitarrean deitzen dú «Jauna», diolaik:

44. *Jaunak nere Jaunari erran [zió]: Xar zaite nere eskui[an], nik zure etsaiák zure oñen xarralkitzat parátzen tudan bitartean.*

45. Bada Dabidek Jauna deitzen balimadú, nóla deiteké haren séme izán?

46. Niork ezin [erantzun] zió hitz bat ere, éz eta're izan zé norbait, egun hartaik ailtziná, Jesusí yágoko galdeiteik iterá atrebitu zenik.

23. KAPITULOA

[Jesusek eskribak eta fariseoak (salatu).

Jesus Jerusalenengatik hasoska.]

1. Orduan, Jesus jendei eta bere [ikaszaleei] mintzatús, erran ziote:

2. –Eskribak edo legeko doktoreak eta fariséoak Moisesén xarlekuain gañean xarririk daude.

3. Izié, bada, erraten dizien gúzia; baña zuen bizimodua ézta izan behar haienén arabererá, zeren haiék zér behar den in errateunte, eta éztute iten erratenuntená.

4. Ikusten dená dá ezi haiék karga pizuak eta ezin sufriahalekoak lotús doazila, eta bertzén soñen gañean paratzen tustelá, eta berék éztute nahi éz arrimatú ére eri punta mogiaráztekó.

5. Beren obra guziak gizonek edo jendeek ikus ditzaten iten tusté; horgatik beragatik Legeko hitzák philakteria zabalagokoetan deramatzate, eta luzeago franjak edo beren soñekoen borlak.

6. Afarietan lehemixiko xarlekuak maite tuzte, eta lehendabixiko sillák sinagogetán.

7. Eta plazetan saluta ditzaten eta gizonék tratamendú eman dezoten «Maistru» bekalá.

8. Zuék, [órdea], éztuzié salutatuak nahi izan behar «Maistruak», zeren bat bakarrá dá zuen maistrua, et[a] zuék guziok anaiák zárate.

9. Ez eta're beha'uzié laket izán lurrain gainean niori'ré «aita» deitzea, zeren bat bakarra dá zuen egiasko aita, [zeruan] dágona.

10. Ez eta're beha'uzié osarratú [«Gidariak»] deituak izateá, zeren Kristo dá zuen [gidari] bakarrá.

11. Zuen artean gehién dená zuen zerbitzariá edo mutilá behar dú izán.

12. Goitaltzatzen lakená, bada, umiliatuá izain dá, eta umiliatzen lakená goitaltzatuá izain dá.

13. Ai órdea zuen, eskriba edo fariseo [ezirudiak! Zeruko] erreinua gizonei zerrátzen duzienak, zergatik éz zuék sartzen zaraté, éz eta'ré úztenunzie sartzerá sartuko zerenák, ni baitan sinets dezaten inpeditús!

14. Ai zuen, eskriba eta fariseo ezirudiak! Alargunen etxeak iresten tuzienák, orazio lúzeak errezatzeko pretestoarekin; horgatik sentenzia anitz bortitzagokoa izain duzié.

15. Ai zuen, eskriba eta fariséo [ezirudiak]! Itxasós eta lurrés zabiltzatenák jentil bat konbertitzeagatik, eta zuengatu duzien óndoan, zuen ejenplo eta erakusmenekin hurá infernurako digno itenunzié, bi aldis yágo zuék baño!

16. Ai zuen, gidari edo eremanzale itsuák! [Honla] diozienák: «Baték tenploagatik juramentú itea éztá deus, éztú obligatzén; baña tenploko urreagatik juramentú iten lukenák, zór dú».

17. Tontoak eta itsuak! Zóin da baliozago, urrea edo tenploa, zeñék santifikatzen duen urrea?

18. [Hau ere ba]diozie: «Norbaitek iten duen juramentú aldareagátik, éztá inport; baña aldare gañean dágon ofrendagatik juramenta lakená, zordún dá».

19. Itsuak! Zoin da balioságo: ofrendá edo aldareá, zeñék santifikatzen duen ofrendá?

20. Nornahiek, bada, aldareagátik juramenta dezán, aldareagátik juramentatzen dú eta haren gañean paratzen déren gauza guziés.

21. Eta tenploagátik juramentú iten duenak, harengátik iten dú eta hartan bizi dén Jaunagátik.

22. Eta zeruagátik juramentatzen dena, Jangoikoin tronoagátik juramentatzen dá eta trono hartan xarririk dágonagátik.

23. Ai zuen, eskriba eta fariseo [ezirudiak]! Hamarrentzen duzienak mendáreñokoan, eta ezamillua eta kominoa, eta Legeko gauzaik prinzipalenak [ùtzi tuzié: justizia, kupida] eta fede óna. Gauza hebék guardatú behar zindusté, bertzeak útzi gabe.

24. Gidari itsuak! Edatenunzien guzia irazkitzen [duzie, úlitto bat óte dén, eta gamelu] bat iréstenunzié.

25. Ai zuen, eskriba eta fariseo ezirudiak! Kanpotik kopa eta platerá garbitzenunziená, eta barnetik, bihotzean, harrapakeria eta zikinkerias beteik zauste.

26. Fariséo itsuá! Garbi zazú lehenik basoa eta platerá barnetik, nahi balima'uzú dágon garbi kanporakoá.

27. Ai zuen, eskriba eta fariseo ezirudiak! Zeren iduriak zaraten hobia xuritu batzuei, zeñak kanpotik gizonen bistará ederrák deré[n]; barnetik, órdea, hilen hezurrés eta ustelkeria guzis beteik dáude.

28. Halá, zuék [ére, hálaber, kanpotik xuxenak agertzen zaraté gizonen ailtzinean]; baña barrenoró [ezirudikerias eta gaistakerias beteak záuste].

29. Ai zuen, eskriba eta fariseo [ezirudiak]! Profeten hobiak fabrikatzen tuzienák, eta [xuxenen] oróitkariak edertzen!

30. Eta diozie: «Gure aiten denborán bizi izán baginá, éz giná izain haien parzuerrák profeten herioan».

31. Gisa hortan testimonio zaraté zue[k] berén profeta-hilzalen úmeak zaratelá.

32. Akaba zazie, bada, zuen aiten neurria betés, Mesias hilarazis.

33. Sugarratsák, zirauá kastak! Nóla dáteke posible infernuko surá kondenatuak izatetik eskapa zaistén?

34. Hóna hemén, ni zuei profetak bialtzera noaié, eta xakintsuak eta doktoreak, eta hebetaik batzuk hilen tuzié, kruzifikatuko tuzie bertze batzúk, eta bertze batzúk zuen sinagogetan azotatuko tuzié, eta ziudadés ziudade persegituik erabiliko tuzié.

35. Zuen gañerá etor dain odol inozente guzia, lurrain gañera ixuri izan dená, Abel [xuxenain] odoletik hasi eta Zakarias Barakiasen semea, zoin tenplo eta aldareain ártean hil zindutén.

36. Egian dioziet, ezi gauza hebék guziak jendamende presente honén gañerát etorko derelá.

37. Jerusalen, Jerusalen! Profetak hiltzen tuzuná eta zúganát igorriak harrikatzen tuzuna! Zónbat aldis bildú nahi izan [t]út zure úmeak, halá nolá olloak bere txitattoak hegalen pean biltzen tuen, eta zúk éztuzú nahi izán.

38. Hóna hemén, ezi zuen etxea bagetuá gelditzerá doaié.

39. Eta halá dioziet, fite éz nauzié yágo ikusikó, haliketa Mesiastako ezagutzen nuzielá erran dezazien: *Zorionekoá Jaunaren izenean heldu dená.*

24. KAPITULOA

[Tenploa desina izain da. Azkenain ailtzineko señaleak.
Larrialdi ikaragarria. Gizonain Semeain etortzea.
Ez dakizie hau guzia noiz izain den: zauste bijilan!]

1. Jesus tenplotik atratzean, bazoaié eta bere [ikaszaleak] ellegatú zekizkio, tenploain ekidamenduan errepara zezán nahiés.

2. Baña Jesusék erantzun ziote: «Ikustenunzié tenplo ekidatú handi hóri? Nik órdea egian erraten diziet éztelá gelditukó hemén harria harriein gainean desin gabe».

3. Geró, Oliben mendian xarririk zégolaik, [ikaszale]eteik batzúk allegatu zekizkió eta sekretuan galdein ziote:

–Errán dezaguzú. Nóiz gertatuko dá gauza hóri? Eta zér señale izan dá zure etortzeain eta denboren finén[a]?

4. Jesusék errespondatu zué:

–Beirá etzazten engaña niork!

5. Zeren anitz etorko deré[n] nere izenean, erranés: «Ni naiz Kristo edo Mesias», eta jende ánitz engañatuko'ute.

6. Notiziak eituko tuzié, halaber, batallenak eta gerlen hótsak. Baña hórgatik etzáiztela turbatú; ailtzinetik gauza hebék izain [badere ere], éztá oraño akabantzá.

7. Egia dá nazione bat armetan goratuko dela bertzeain kontrá, eta erreinu bat bertze erreinuain kontra, eta (izurriak) eta goseak eta (lurrikarak) izain deré anitz lekután.

8. Baña haú gúzia oraño eztá baixik gaitzén hasmená.

9. Denbora hártan justiziako gizonei [emanak] izain zaraté tormentatuak izan zaistén, eta bizia kenduko dizié, eta jende guziek [gorrotatuko] zaiste nere izenagátik, zeren nere [ikaszaleak] zaráten.

10. Anitzék, beraz, eskándalo izain duté órduan, eta elkár traiziatuko'uté eta bata bertzeari gaitzetsiko deré.

11. Eta profeta falsuak montioká agertuko deré, zeñek jende ánitz engañatuko edo galduko baituté.

12. Eta nolá bizioak ugainduko baiteré[n], anitzén karidadea hóztuko dá.

13. [Azkena artio] irauten lukena, ordea, hóri salbatuko dá.

14. Bitartean Jangoikoin erreinuen ebanjelio haú mundu guzian predikatuko dá, nazione guzien testimoniotán, eta órduan azken[á] etorko dá.

15. Haú halá, leku santuan galmendeko nazká asentús dágola ikusten duzienean, Daniel profetak altzinetik erraná -leitzen duenak [entenda] dezá óngi-.

16. Orduan Judéan bizi derenak igés ditelá mendietará.

17. Eta tellatuan dágona éztaila xautxi edo sartú bere etxeko gauzeteik hartzerá zerbait.

18. Eta kanpoan [dágona] eztaila itzuli bere túnika edo soñetakoá hártzerá.

19. Ai, órdea, enbarazatuik edo hazitzén dáudenén, eta ézin dezaketenák prisaká iges ín egun haietan!

20. Otoitz [z]azie Jangoikoari, bada, zuen igesá éztain neguan edo larunbatean izán, zointán guti bidetú daiteké[n].

21. Zeren órduan nahigabea hain [ikaragarria] izain dá, halakoik izán éztena munduain hástetik orai artio, éz izain eré sekulá.

22. Eta egun haiék ez balitzazke laburtuak izan, nior ez laiteke salbatu; baña háutatuen amoriogátik laburtuko deré.

23. Denbora haietan, norbaitek erraten dizien «Kristo edo Mesias hemén dágo», edo «Hán», étzoziela sinéts.

24. [Zeren] Kristo falsuak eta profeta falsuak agertuko deré, eta marabilla handiak eta geitalák itenuntela bezala andiakatuko'uté; [eta] oraño hautatuak ére, posible balitz, hútsean erór laizteké.

25. Ikustenunzié nóla erran diziedán ailtzinetik.

26. Horgatikan, bada, «Hóna hémen Mesías, desertuan dagóna» erraten badizie ére, étzaiztela joan harará; edo bertzeñas «Beira zazié etxe zokoan dagóla», étzoziela sinéts.

27. Zeren hála nóla oñaztura iduzkialdetik atratzen den eta instante batean sartalderaño ikusten den, gisa berean izain dá Gizonain Semeain etorrerá.

28. Nonahi aurkitzen ahal dén gorputzá, harará bilduko ere deré arranoak.

29. Baña geró berla egun haietako nahigaben óndoan iduzkia ilunduko dá, ilargiak eztú emain bere argitasuná eta izarrák zerutik erorko deré eta zeruko birtuteak edo aingiruak ikaratukó.

30. Eta órduan zeruan Gizonain Semeain señaleá agertuko dá, eta [hóri ikustean lurreko herri guziek negarrari emain diote], eta *Gizonein Semea zeruko goibel argien gañean* [etortzen ikusiko'uté] potestade eta majestade handian.

31. Nórk berák bere aingiruak igorriko'tú, eta tronpeta hósdunen bozará bilduko tú bere háutatuak munduain laur partetaik, górako marboilla batetik bertzeraño.

32. Ikas [z]azié konparazio haú bikú arboletik: Bikú-abarrák [beratx] dáudelaik, eta hóstoniniká erné, úda húrbil déla ezautzenunzié

33. Gisa berean, bada, zuék ikuste[n] dituzienean gauza hebek guziak, záuste [seguru] ezi Gizonein Semea ellatzeko puntuan delá, atarian delá yá.

34. Segurki erraten diziedana dá ezi éztela finitukó jenerazio haú, hóri gúzia [bete den artio].

35. Zeruá eta lurrá pasatuko deré; baña nere hitzék eztuté fallatukó.

36. Baña egunain eta orduain gañean niork éztaki, éz oraño aingirú zerukoék ére, baixikan nere Aitak solo.

37. Noen egunetan gertatú zena, hóri bera gertatuko dá Gizonein Semeain etórtzean.

38. [Zeren] hála nóla dilubioein ailtzineko egunetan segitzen baizute gizonek xaten eta edaten, ezkontzen eta ezkontzás bere úmeak emáten, haliketa Noe arkán sartu zen egun[a artio].

39. Eta étzute dilubioan sekula pensatú, hasten zélá ikus zuten [artio, eta derén] guziak harrapatu zitué; gisa berean gertatuko dá Gizonain Semeain etortzean.

40. Orduan bi gizon alorrean junto [egoin] dereneteik, batá hartua edo libratuá izain dá, eta bertzeá utzia edo abandonátua.

41. Bi emazteiki errota batean ehótzen [egoin dereneteik], batá hautatuá izain dá edo salbatuko dá, eta bertzea útzia izain dá edo galduko dá.

42. Záuste, bada, zuek bijilant, éz [dakitzienes geros] zér ordús etorri behar duen zuen Jaunak.

43. Xakinik záuste, ezi etxe-nausi baték balakí zér órdutan akopilatu behar liokén [ebaszaleak], segurki bijilánt egon leiteke eta éz lezake útzi bere etxea zulatzerá.

44. Gisa berean, bada, zuék ere záuste igualkí [prestatuik, zeren] gutien uste'uzien órduan etorri behar du[en] Gizonein Semeak.

45. Nor uste'uzié [mutil fiel eta zentzuduna] déla, zóin bere Jaunak bere familian búru paratu zuen, bakotxari bere tenoretan xanaria errepartitzeko?

46. Zorionekoa hálako morroia, nór bere Jauna etortzen denean, gisa hóntan bere [obligazioak egiten] aurki lezaken.

47. Egian dioziet, ezi bere ondasun guzien [búru paratuko duela].

48. Mutil hau, órdea, gaistoa balitz, eta bere bihotzean balioke «Nere nausia eztá heldu hain fite»,

49. Eta gisa hóntan hás baledi bere lagunen maltratatzen, eta hórdiekin xaten eta edaten,

50. [Morroi] halakoin nausia etorko dá esperatzen etzuen egunean eta gutien uste duen orduan.

51. Eta kastigua emain dió, [ezirudiei] edo [morroi] infielei ematen zeiotena; hán órduan izain dá negar-itea eta hortzén karraská.

25. KAPITULOA

[Hamar birjinen parabola.
Talentoen parabola. Azken afera.]

1. Orduan [zeruko] erreinua hamar birjinei iduria izain dá, zeñek beren lánparak hartús, [senar-emaztein] errezibitzerá atra zeré.

2. [Haieteik] bortz éroak zere eta bortz [zentzudunak].

3. Baña bortz éroék, beren argiontziak hartzerákoan, ézuté [olioik hartu].

4. [Zentzudunek órdea] argiontziekin batio, beren oliontzietan olioa ereman zuté.

5. Nola berantzen baitzué [senarrak] etortzerá, guziak logaletzén hasi zeré eta lokartu zeré.

6. Gauerdia ellegatzean, ordea, boz bat óihuka eitu izan ze: «Beirauzie, [senarra] heldu dá! Atra zaiste harren errezibitzerá!».

7. Berla xaiki zeré birjina haiék guziak eta beren argiontziak prestatú zúste.

8. Orduan éroék [zentzudunei] errán ziote: «Díguzié zuen oliotik, zeren gure lánparak itzaltzen deren».

9. [Zentzudunek errespondatu] zute erranés: «Dugun haú baldin eztá askitukó guretako eta zuendako; horgátik, badá, hobena izain dá salzalenganát zoasten eta falta'uzien olioa eros [z]azien».

10. Eta hebék erosterá zoazin bitartean, [senarra etor zé; eta prést záudenak harekin sartu zeré ezkontzara], eta ataria zerratu zé.

11. [Geró] bertze birjinak etor zeré, ziotela: «Jauna, Jauna! Ideki bezagú».

12. Baña [harrek] errespondatús erran zué: «Egian dioziet, nik étzaustet ezautzén».

13. Horgátikan, bada, záuste zuék apért, ez[paitakizie] éz eguná éz órdua.

14. [Zeren Jauna gizon haú bekala] portatuko dá: lekú urrúnetara joaterakoan, bere mutilak deitu zituen eta bere ontasunák entregatu zizkioten.

15. Batari bortz talento emanés, bertzeari bida, eta bat solo bertzeari, bakotxari bere kapazidadeain arabererá, eta berehala joan zé.

16. Bortz talento errezibitu zituena[k], haiekin trafikatus, bertze bórtz irabazi zitué.

17. Gisa berean bida [errezibitu] zituen harék bertze bida irabazi zitué.

18. Bat errezibitu zuena, órdea, joan zé eta lurrean zulo bat in zué, eta bere nausiain dirua gorde zue.

19. Denbora anitzen buruan mutil erranderen nausia itzuli zé, eta kontuetará deitu zitué.

20. Bortz talento [hartu] zituena hurbildús, bada, bertze bortz presentatu zizkió, erranes: «Jauna, bortz talento entregatu zizkidá; hóna hemén bertze bórtz, haiekin irabazi ditudanak».

21. Nausiak [errespondatu] zió: «Txoil ongi, [zerbitzari] óna, mutil lealá. Gauza gutian fiela izan [zarenes geros], nik anitzá konfiatuko dizút; átoz parté hartzerá zure Jaunaren gozoan».

22. Geró bi talento errezibitu zituena ellegatu zé, eta erran zué: «Jauna, bi talento eman zizkidá; hóna hemén bertze bida ekartzen dizkiot, haieki irabazi ditudanak».

23. Nausiak erran zió: «Txoil ongi, mutil óna eta fielá. Bada, gauza gutietan fielá izan zará, [eta] nik anitz yágo konfiatuko dizkizút; átoz parte izaterá zure Jaunain gozoan».

24. Azkenik, talento bát errezibitu zuena ellegatus, erran zué: «Jauna, nik badakit ezi hóri gizon gogorrá déla, eraiki eztuen lekuan egitatzen duela, barraiatú éz duená biltzen duela.

25. Eta halá, gal nezán beldurrés, joan [n]inzá eta zure talentoá lurrean gorde nué; hóna zure gauza déna».

26. Haren nausiak, órdea, hitzetik harrepatús, erantzun zió eta errán: «[Mutil gaistoa eta auferra]! Zuk bazindákie ezi nik egitatzen dutalá ereikitzen éztudan lekuan, eta nion barraiatú éztudaná biltzen dutalá!

27. Horregatik berágatik, bada, zuk nere dirua alkidunei emán behar [zindiote], nik bueltatzean nere ontasuna [irabaziekin] birkobra nezan.

28. Ea badá, kén [de]zozié talento húra eta eman dezozié hamar talento dituenari.

29. [Zeren] duenari emain zeió, eta frankotsuá edo sobratuá izain da; éztuenari, órdea, oraño dúela iduri dén húra ére kénduko zeió.

30. Orain, bada, [mutil aufer] hóri bóta zazié kanpoko ilunbetará; hán izain dá negar-itea eta hortzén karraskotsá».

31. Gizonein Semea bere majestade guziaikin eta aingiru guzien konpañan etortzen denean, bada, orduan bere gloriain tronoan xarriko dá.

32. Eta haren altzinerá jendamende guziak agerkidarakó ditú, eta elkarrenganik berexiko tú, nóla artzaiák berexten tuen ardiak antxumetaik.

33. Ardiak bere eskuierá paratús eta antxumeak ezkerrerá.

34. Orduan Erregeak bere eskuierat egoin derenei errain diote: «Atózte, nere Aitain bedeikatuak, menpé zazie zeruko erreinua, munduain egoitzatik zuendako prestatuá.

35. Zeren gosetú ninzá eta xatera eman zindidate; egarri nué eta edatera eman zindidate; arrotza ninza eta ostatatu ninduzie.

36. Buluxirik nindegolaik beztitu ninduzié; eri ninzá eta bixitatu ninduzié; preso gartzelean, eta nere ikusterá eta konsolatzerá etór zinate».

37. [Orduan xuxenek] errespondatuko'ute erranés: «Jauna, nóiz ikusi dugú gúk beroi góseak eta eman gindió xaterá, egarriak eta eman gindió edatera?

38. Nóiz aurkitu dugú beroi uéspede eta eman diogú ostatú, edo buluxirik eta eman diogú beztimenta?

39. Edo, nóiz ikusi dugú eri edo gartzelean eta joan giná berorrén bixitatzerá?».

40. Eta Erregék errein dioté: «Egian dioziet, haú nere anaia ttipittoen hebeteik norbaitekin in zinduten aldioró, nerekin in zinduté».

41. Denbora berean errein dioté ezkerrean egoin derenei: «Apárta záiste niganik, zorigaistokoak; zoáste su eternorá, zeña señalpenetua izan zé[n diabruaindako eta bere aingiruendako].

42. Zeren goseak egon ninzá eta etzindidate xaterá emán; egarriak eta etzindidáte edaterá emán.

43. Peregrinó ninza eta etzindidate emán aterbé; buluxia eta éznduzié beztitú; eri eta presondegian eta éznduzié bixitatú».

44. [Orduan gaistoék baitare errain dioté]: «Jauna! Noiz ikus gindue beroi góseak edo egarriak edo buluxirik edo eri edo kartzelatuik, eta útzi gindió sokorrú gabe?».

45. Jesusék [errespondatu]ko diote: «Haú nere anaia ttipittoen hebeteik norbaití in gabe utzi zinduten aldioró, nerekin in gabe útzi zinduten».

46. Eta horgátik, berás, hebék gaitzondo eternorát joain deré eta [xuxenak] bizi sekulakorá.

26. KAPITULOA

[Jesus hilarazi nahi. Emakume batek Jesusi ubendua ixuri.
Afarian: Judasen saldukeria ailtzinetik errana.
Azken afaria: hona nere gorputz-odolak!
Pedroren ukoak ailtzinetik erranak. Getsemaniko otoitz larria.
Jesus judu-batzarrain ailtzinean. Pedrok Jesus ukatu.]

1. Jesusék hitzaldi hebék guziok akabatu zituenean, bere [ikaszaleei erran zioté]:

2. «Badakizié ongi aski hemendik bi egunen buruan Bazkoa zelebratú behar dela, eta Gizonain Sémea gurutzeko heriorá [emana] izain dela».

3. Denbora berean, [apezburuak eta herriko goiaraukiñak apez] gorenain jauregian [batzartu] zeré, zein Kaifas deitzen baizé.

4. Eta Jesus preso iteko eta hilaráztekó zer engañús baliatuko zerén tratatu zuté.

5. [Baña] herria nahas zain beldurrés, ziote: «Eztá konbeni haú in dain xai dén bitartió».

6. Jesus Betanian Simon lepradunain etxean zégolaik,

7. Emakume bat harengánat ellegatu zé baso bat zeramalá, ubendú anitz balios batés beteik, eta Jesusen burú gañean ixuri zué, mahaian zégolaik.

8. [Ikaszaleeteik batzuk hori] ikustean, anitzoro bekaiztu zeré, erranés:

–[Zérgatik] gáltze haú?

9. [Bazeiteken] haú prezio yágotan saldú eta pobrei emán izán.

10. Jesusék konprenditu eta erantzun ziote:

–Zérgatik zárate nahigabeak emakume hóni, eta iten duená gaitzatzenuzié, nerekin in duená obroná délaikan, dén bekalá?

11. Zeren, badá, pobreak beti dauzkizie eskuár, baña ní éznaukazié beti.

12. Harék [ubendú] haú nere gorputzain gañean ixurtzean, ailtzinetik hobiaráko [prestatzeko] bekala in dú.

13. Egian dioziet, ezi nonahi Ebanjelio haú predika dain, mundu guzian izain baita, bere oróipenean zelebratuá izain dá honék orai in duená.

14. Orduan hamabieteik bat, izenés Judas Iskariote deitua, [apezburuekin] egoterá joan zé, eta errán ziote:

15. «Zér nahi didazie emán eta nik [Jesus] zuen eskuetán paratuko diziet?».

Eta hogeita hamar zilar monedetan konformatu zeré.

16. Eta ordudanik bazabila okasio ón baten bila traiziatzeko.

17. Legámi bageko [Ogi]en lehendabixiko eguná húrbil zelaik, [ikaszaleak Jesusganá joan zeré], eta galdetu ziote:

–Non nahi dú presta dezogún Bazko afaria?

18. Jesusék [errespondatu] zioté:

–Zoáste ziu[da]derá hálako úrleain etxean, eta emózie mandatu haú: «Maistruak dió: Nere denbora hurbildús doaié, Bazkoa hire etxean zelebratzerá noaié nere [ikaszaleekin]».

19. [Ikaszaleék] in zute, bada, Jesusék manatu ziotena, eta Bazkorako behar zená prestatu zuté.

20. Iduzkia sartuik, mahaián xarri zé bere hamabí [ikaszaleekin].

21. Xaten ei zireleik, errán zué:

–Egian dioziet ezi zuetaik baték traiziatuko nauelá.

22. Haiék, ansiatuak ézin yágotan, bakotxa berás galdeiten hasi zeré:

–Jauna! Ni ote naiz?

23. Jesusék erran zué:

–Ogiain bustitzeko, platereán bere eskua nereki sartzen duená, hóri dá traiziazaleá.

24. Gizonain Semeari dagokionás, hura badoaié, hartás eskribituik dagon arabererá; baia, ai órdea gizon garén, [nork Gizonain Semea traiziatuko duen]; halakoari hobe lakikió ezpaliz sekula jaio!

25. Judas mintzatús, [hura] baizé traiziatzen [zuena], errán zué:

–[Ni] naiz baldin, Maistrua?

Eta Jesusék errespondatu zió:

–Hik erran dúk, hi haiz.

26. Afaitan zauden bitartio, Jesusék ógia hartu zué, eta bedeikatu eta partitu zué, eta bere [ikaszaleei] emán zioté, erranés: «Har zazié eta xan zazié; haú nere gorputzá [baitá]».

27. Eta kalizá hartús, eskerrák emán zitué, bedeikatu zué eta emán ziote, erranés: «Edan zazié guziek hontaik.

28. Zeren haú nere odolá [den], testamentú berriko selloa izain dená, zoin ixuria izain dén anitzéngátik bekatuen barkaziokó.

29. [Erraten] diziet, oraidanik éztudalá edein aihanain frutu hóntaik, nere Aitain erreinuan gozandeén kaliz berriá edein dutan egun [hura artio]».

30. Eskerren kantoná erranik, oliben mendirát atra zeré.

31. Orduan Jesusék [erran zioté]: «Zuék guziék gaur eskándalo izain duzié [neregatik] eta útziko nauzié. [Zeren eskribituik dagon]: *Artzaiá erituko'ut eta ardi saldokoak errebelatuko dére*.

32. Baña erresuzitatzen ahal naizán ondoreán, ni zuen ailtzinean joain naiz Galilean, nón berritán bilduko zaistét».

33. Pedrok, errespondatús, errán zió:

–Bertze guziak horren[gatik] eskandaliza balitezke ére, ni, órdea, nioz sekula éz naiz eskandalizatukó, ézta ére útziko diot.

34. Jesusék [errespondatu] zió:

–Nik, órdea, baieztatzén dizút, ezi gaur berean, ollarrák kantatú baño lehen, nitás úkatú beha'uzú hirur aldis.

35. Pedrok erran zué:

–Zureki hil behar banuke ére, étzaitút nik úkatukó.

Hori bera gogarpetu zuté [ikaszale] guziék.

36. Bitartean, Jesus etxalde batera ellegatu zé haiekin, Getsemaní izenés, eta erran ziote: «Xar zaisté hemén, ni haratagó noaien bitartió otoitz dezadán».

37. Eta, Pedro eta Zebedoin bi semeak -Santiago eta Joan- berekí ermanés, tristatzén eta [larri]tzén hasi zé.

38. Orduan erran zioté: «Nere arimák angustia mortalák sentitzen tú; [etxeden] zazié hemén eta beilla zazié nereki».

39. Eta zenbait pausutan ailtzindús, aurpegis lurreratu zé, otoitztús eta erranés: «Nere Aita, posible dénean, éz bezadá edanarazi kaliz haú; baña [halarik ere], éztailá ín nik nahi dutaná, baixik berorrená».

40. Geró bere [ikaszalengánat] itzuli zé, eta lóó arkitu zitué. Eta Pedrori erantzun zió: «Posible dá ezi éztuzien beillatú ordu bat nereki?

41. Záuste bijilánt eta ízie otoitz tentazioan éz erortzekó. Izpiritua prést egonik ere, haragia, órdea, flakó dá».

42. Berritan bigarrenik itzuli zé, eta orazio in zué erranés: «Nere Aita, ézpadeike pasa kaliz haú nik edan gabé, in daila horren borondateá».

43. Berris bertze buelta bat [in] zué eta haiék lóó aurkitu zitué, bada, haien begiak pizú zaude lóós.

44. Eta úzten zituela, oraño hirugarren aldian otoitzterá erretiratu zé, hitz berák errepetitús.

45. Segidan bere [ikaszalengánat] itzuli zé eta errán ziote: «Izie lóó orai eta deskansa zaisté! Hóna hemén, ellegatu dá órdua, eta Gizonain Sémea berla doaie entregatua izaterá bekatarien eskuetán.

46. Ea, xaiki zaisté, guazin hemendik; héldu dá yá entregatu behar nauén húra!».

47. Oraño etzué hitz hebék erranés akabatú, hóna hemén Judas, hamabieteik bát, ellegatuik, jendalde handi baték segitzen ziola ezpata eta makilekin armatuik, [apezburuek] eta herriko zaharrék igorririk heldu zirenak.

48. Traizeazale[ek] señá emán ziote: «Nik ápa ematen diodana, hóri da; [harrepa] zazié».

49. Berla arrimatús, bada, Jesusganá, errán zué: «Jangoikoak démola egun ón, Maistrua».

Eta ápa emán zió.

50. Jesusék errán zió: «Aixkidea, zértará etor zará honará?».

Orduan geñarakoak ellegatu zeré eta Jesus preso in zuté.

51. Eta hóna hemén ezi Jesuseki zaudeneteik baték, ezpata atrás, [apezburuen] mutil bát zauritu zué, bearri bát ebakitzen ziola.

52. Orduan Jesusék errán zió: «Itzul [z]ák hire ezpata magiará, zeren beren autoridade propios ezpatás zerbitzatzen ahal derén guziak, ezpatán hilen deré.

53. Uste'úk ezi étzakedalá nere Aitaganá (jo) eta mementoan nere disposiziorá hamabi dúkta baño yágo paratuko tú aingiruetaik?

54. Nóla, órdea, kunplituko deré Eskriturak, zeñen arabererá konbeni dá halá gerta dain?».

55. Ordu hartan Jesusék jendalde tropelari erantzun zió: «Hala nola [ebaszale] baten edo jende-hilzale baten kontrá atra zaraté ezpata eta makileki ní preso ítera; egunoró néngo zuen artean xarririk tenploan erakusten, eta éz ninduzié presotú.

56. Egia dá ezi haú guzia profeten Eskriturák amorios kunpli diten gertatu zelá».

Orduan, [ikaszale guziék, Jesus uzten] zutelá, igés in zuté.

57. Eta Jesus presotu zutenék Kaifasén etxerá ermán zute, nór urte hartán [apez] goren baizé. [Han] eskriba[k] eta zaharrák bilduik zaudé.

58. Eta Pedro úrrundanik segitús zoagokió, [apez] gorenain xauregirá ellegatu artio. Eta hán sartu ondoan, mutilekin xarririk zégo [hura] gúzia zértan gelditzen zén ikustekó.

59. [Apezburuak], bada, eta konzilio guzi biak bila zabilza zenbait falsú testimonio[in] Jesusén kontrá, heriotzerá kondenatzeagatik.

60. Eta étzute aurkitzén hontarako [aski arrazio], anitz testigo falsú presentatú bazére ére.

61. Eta erran zute: «Honék errán zué: Nik tenplo Jangoikoná desin dézaket eta berris in dezakét hirur egunés».

62. Orduan, [apez] gorena txutitús, erran zió:

–Ezt[io]zú deus eré errespondatzén hebék zure kontra dakirasten dutenari?

63. Jesús, ordea, ixil zégo. Eta [apezburuak] erran zio:

–Otoitzmentzen zaitút Jangoiko bizias, erran dezaguzún zú zaren Mesias, Jangoikoin Sémea.

64. Jesusék [errespondatu] zió:

–Zúk errán duzú, ni naiz. Eta oraño deklaratzen diziet, geró ikusiko'uziela *Gizonein Seme haú, presént daukaziena, Jangoikoain majestadeain eskuián xarririk dagona, górako goibelen gainean etortzen*.

65. Halako [erantzuna] eitzean, [apez] gorenak bere beztimentak urratú zitué, ziolá:

–Arnegatu dú. Zértako túgu ya testigoak? Hóna hemén, zuék berék eitu duzie arneguá, zeren berá Jangoikoin Séme iten dén.

66. Zér iduri zeizié?

Haiék [errespondatu] zuté, erranés:

–Heriotzeain hobendún dá.

67. Berla hasi zekiote aurpegirá listu botatzén eta gaitz tratatzén eskubeteká; eta bertze batzuk begiak bendatú ondorean, bearkondoak ematen zi[zki]oté aurpegian,

68. Ziotela: «Kristo, ásma dezaguzú, aztia zazú: Nór dá muxikón eman dizuná?».

69. Bitartean Pedro kanporó zégo atarian xarririk, eta neskato baték arrimatús errán zio:

–Zú ére Jesus galiléoin konpañan zindabilá.

70. Baña harék guzien altzinean úkatu zué erranés:

–Nik éztakit zértas dardukazún.

71. Eta húra atarirá atrás, bertze neskato baték beiratze bat in zió, eta hán zaudenei errán zioté:

–Haú ére Jesus Nazarenoeikin zégo.

72. Bigarrenik úkatu zué, juramentueiki baieztús:

–Eztút ezautzén hálako gizoná.

73. Handik gutti baten buruan, hán inguruan zaudenák húrbildu zeré eta Pedrori errán zioté:

–Sineski zára zú eré haietaik, bada, zure galileo-mintzo berák agertzen zaitú.

74. Orduan zinák bótatzen hasi zé bere buruain gain, eta juramentatzén:

–[Eztút ezautzén gizon hori].

Eta mementoan ollarrák kantatu zué.

75. Hontan, Jesusék erran zion eipamenás oróitu zé Pedro: «Ollarrák kantatu baño léhén nitás bertukatukó duzú hirur aldis». Eta kanporát atraik, negar in zué saminkiró.

27. KAPITULOA

[Judasen heriotzea. Jesus Pilatoren ailtzinean.
Jesus heriotzera kondenatua. Soldadoen burlak.
Jesusen heriotzea. Jesus hobian xarria.
Hobia sellatua eta guardatua.]

1. Goiza ellegatu zenean, [apezburu guziek eta herriko zaharrek Jesusen kontra batzarrea] izan zuté, bizia kenarázteko.

2. Eta herioein hobendun deklaratzen zutelá, lotuik erman zute eta Ponzio Pilato gobernadoreai [eman zekiote].

3. Orduan Judas traizeazaleak, Jesús [epaitua] zéla ikustean, urrikituik inás, hogeita hamar zilar monedak itzuli zizkiote [apezburuei] eta zaharrei,

4. Erranes:

–Nik bekatu in dút, bada, odol inozentea saldu dút. Haiék [errespondatu] zuté: Guri zér inporta zaigú? Hór konpón zú.

5. Harék órdea dirua tenploan aurtikis, joan zé eta, lakio bat leporá bótas, desesperatuik urkatu zé.

6. [Apezburuek], órdea, monedák goratús, errán zute: «Eztá zilegi tenploko tesoroan sar ditzagún, zeren odolain prezioa déren».

7. Eta [hori elkarreki] tratatuik, moneda haieki ontzigille baten alorrá erosi zuté, kanpotarrén hobiatakó.

8. Horregátik, alor hari *Hazéldama* izena emán zekió, haú da, «Odol-alorrá», eta halá deitua dá egungo egunean.

9. Hontan Jeremias profetak asmatuik zaukaná kunplitzerá etor zé, ziolaik: *Zilarresko hogeita hamár monedák hartu zitusté, salmentarakoin prezioa, Israelgo umeék tasatu zuten erará.*

10. *Eta ontzigille baten alorrain erosketan enpleatu zuste, Jaunak manatu zidan bekalá.*

11. Jesus, bada, [gobernariain altzinerá presentatua izan zé, eta gobernariak] galdein zio erranés:

–Zú zará judioen erregea?

Jesusék [errespondatu] zio:

–Zúk diozú, ni naiz.

12. Eta [apezburuek] eta adintsutuék yágo eta yágo akusatzen zutenik ére, étzué deus errespondatú.

13. Horgatik Pilatók erran zió:

–Eztuzú eitzén zénbat gauzatan akusatzen zaitustén?

14. Jesusék, órdea, erran zionetaik deusi étzió kontestatú. [Gobernaria anitzxkó harritu] zé.

15. [Gobernariak Bazkoa xaian] hobendún baten libertadea útzkidatzéa [iten zué, herriain] haútará.

16. Eta [orduan] gartzelean bat anitz-txoil famosoa zuelaik, izenés Barrabas,

17. Pilatok galdein ziote [harara] (jo) zutenei:

–Nór nahi duzié solta dezadiezadán, Barrabas edo benturás Jesus, deitua izenés Kristo edo Mesias?

18. [Zeren] bazakié óngi aski, inbidias entregatu [zutelá apezburuék].

19. Eta húra bere tribunalean xarririk zegolaik, bere emazteak mezutu zió: «Ez háilá náhasi [xuxen horren gauzetán, zeren ántsia anitz izan ditúdan] egú lóótan, haren kausás».

20. Bitartean [apezburuek eta adintsuék herriari ganarázi ziote] Barrabasén libertadea eska zezan, eta Jesusén heriotzá.

21. Hala dá ezi [gobernariak] berris galdeinés eta erranés:

–Bieteik zóin nahi duzié solta dezodazien?

–Barrabas –[errespondatu zuté haiék].

22. Pilatok [galdein] ziote:

–Zér in beha'ut, badá, Jesusés, Kristo deitua?

Guziek [erran zute]:

–[Izan] déla {daila} kruzifikatuá!

23. Eta [gobernariak]:

–Zér gaizki in dú, ordea?

Haiék, órdea, yágo óihuka hasi zeré, ziotelá:

–[Izan] déla {daila} kruzifikatuá.

24. Pilatok deus etzuela altzintzén ikustean, bada, ezpederen arroitua yágo goratús zoaiela berritán, úr ekar zezoten manatu zué; [herriain] bistan eskuak garbitu zitué, erranés:

–Inozént naiz ní [xuxen] honen odolean! Hór ikús zuék!

25. [Herri] guziak errespondatús errán zué:

–Gure gain eta gure úmen gáin haren odolá.

26. Orduan Barrabas soltatu ziote, eta Jesus azotarazi ondoan, haién eskuetán entregatu zuté, gurutzifikatua izan zain.

27. Segidan [gobernariain] soldadoék, Jesus hartzen zutela eta Pilatoren [xauregiko] atari-estalpean paratzen zutela, haren ingurunean konpaña guzia óso juntatu zute.

28. Eta bulutxten zutelá, granasko mantu bat bezti ziote.

29. Arantzesko korona bat lotús buruan paratu ziote, eta zetrotako kañabera bát eskuieko eskuan; eta belaun bat lurrean paratuik, eskarnio iten zioté erranés: «Jangoikoak salba zaizala, judioen erregé!».

30. Eta listu botatzen ziotelá, kañabera hartzen zute eta buruan yótzen ziote.

31. Gisa hóntan burlatú zutenean, mantua kendu ziote, eta bere soñeko propioés berritán beztitu óndoan, gurutzifikatzerá atra zuté.

32. Ziudadetik atratzean gizon bat zirenetarrá topatu zuté, izenés Simon, [eta] Jesusén gurutzea soñean hártzerá obligatu [zuté].

33. Eta leku baterá ellegatu zerenean, Golgota deitua, haú dá, kalbario-lekuá edo kalaberená.

34. Hán ardoa eman ziote edatera behazunaiki nahasia. Harék, ordea, progatú zuenean, étzué edán nahi izan.

35. Gurutzifikatu zutenean, [soldadoek] haren soñekoak beren artean errepartitu zúste suerteak bótas. Honeki profezia [bete] zé, zeñek dion: *Nere beztimentàk beren artean errepartitu zúste, eta suertea bóta zute nere tunikain*.

36. Eta [harenganik] húrbil xarris, guardia iten zioté.

37. Buru gainean hitz hebék paratu zizkiote, haren herioain [arrazioa] adiarazten dutenák: «Haú Jesus dá, judioen erregea».

38. Denbora berean hareki bi [ebaszale] gurutzefikatu zúste, bata eskuie[an] eta bertzea ezkerre[an].

39. Eta handik pasatzen zerenék blasfematzen ziote eta burla iten ziote buruak keñumeñuká mogitús eta erranés:

40. «Holá, zú, Jangoikoin tenploa desiten duzuná eta hirur egunés [berritan iten], salba zazú zaure buruá; Jangoikoin Séme balimazará, xautx zaite gurutzetik!».

41. Gisa berean, [apezburuek] ere eskriba eta zaharreki batio, ziote:

42. «Bertzeak salbatu zitué eta étzake salba bere buruá; Israelgo errege balimadá, xautx daila orai gurutzetik eta haren baitan sinetsiko dugú.

43. Jangoikoa baitan konfiatu zué; Jangoikoak, bada, hainbertze maite balimadú, libra zalá orai, berák [baizio]: Ni Jangoikoin Séme naiz».

44. Eta hori berá aurpegirátzen ziote oraño haren konpañan gurutzifikatuik zauden [ebaszaleek] ére.

45. Seigarren ordutik zortzigarren ordura, lur-gain guzia ilunbetu zé.

46. Eta zortzigarren ordurat húrbil, Jesusék bozá handi batekin deadartu zué, erranés: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»* Haú dá, *«Nere Jangoikoa, nere Jangoikoa, zérgatik desanparatú naú?»*.

47. Han zauden batzúk, haú eitzerakoan, zióte: «Eliasi deitzen dió honék».

48. Eta berla, lasterká, haieteik baték arrokia bát hartu zué, ozpinean ugartu zué eta, kañabera baten puntán paratús, txupatzera ematen zió.

49. Bertzék, ordea, zioté: «Utzazié, ikus [z]agún Elias heldu dén honén libratzerá».

50. Orduan Jesusék, berritan deadartús bozá handi eta hosdun batekin, bere espirituá entregatu zué.

51. Eta hóna hemén, memento berean tenploko beloa urratu zé gora-behera bi zatitán, eta lurra ikaratu zé eta harriak arrallatu zeré.

52. Hóbiak idiki zeré eta sandú anitzen goputz hil zirenák biztu zeré.

53. Hobieteik atrás, Jesusen erresurrezio ondoan, ziudade sandurá etór zeré eta anitzí [agertu] zeré.

54. Bitartean zenturiona eta Jesusí guardia iten hareki zaudenák, [lurrikara] eta gertatzen zerén gauzák ikusirik, ánitz beldurtú zeré eta erraten zuté: «Egiaskí gizon haú Jangoikoin Séme zé!».

55. Hán urrutiró emakume ánitz záude baitare, Jesusí Galileatik segitu ziotenák haren [zerbitzari izateko].

56. Haietaik Maria Magdalena, Santiagoren eta Joseren áma Maria, eta Zebedeoin semen áma zeré.

57. Beránt zelaik, gizon abrats bát agertu zé, arimateatarrá, izenés Jose, nór baitare Jesusén [ikaszale zén].

58. Haú Pilatori [joan zekio] eta Jesusén gorputzá eskatu zió. Pilatok gorputzá [emán] zezoiela manatu zué.

59. Josek, bada, Jesusén gorputzá hartús, mandre garbi batean inguratu zué.

60. Eta bere hóbia batean [xarri] zué, peña batean idikiarazi zuena, oraño lengusatu gabea, eta harri-lauza handi bat arrimatús, hóbia sarreran goberatu zué eta joan zé.

61. Hán Maria Magdalena eta bertze Maria záuden, hóbiain altzinean xarririk.

62. Hurbilean egunean, larunbata baitzé, [apezburuak] eta fariseo[ak] batean [joan zeré] Pilatoganát.

63. Ziotela:

–Jauna, oroitu gará ezi dagokari harék, oraño bizi zelaik, errán zuelá: «Hirur egunen buruan biztuko naiz».

64. Mána bez, bada, guarda dain hobia hirugarren eguna [artio, haren ikaszaleak] etor éz diten baldin gabás, eta ebats éz dezatén eta jende xeheari erran dez[o]ten: «Bitztú dá hilen artetik». Azken hútsá lehendabixikoa baño gaistoagokoa izain dá.

65. Pilatok errespondatu ziote:

–Hór dáukazié guardia, zoáste eta para zazié guardia zuen notiziain arabererá.

66. Harará joan zeré eta hóbia ongi aseguratu zuté, harria sellatus eta guardiak bistán paratús.

28. KAPITULOA

[Jesusen pitzteain berria. Soldadoak erosi.
Ikaszaleak mundu guzira bialiak.]

1. Larunbat gaba akabantzan zelaik, asteain lehendabixiko eguna edo igandea argi astean, Maria Magdalena bertze Mariaikin etor zé hóbia ikusterá.
2. Eta tenore hóntan [lurrikara] handi bat izan zé; bada, Jaunaren aingirua zerutik xautxi zé eta, hobiará arrimatús, harria bueltatu zué eta gañean xarri zé.
3. Haren aurpegiak oñazturak [bekalá] argitzen zué, eta haren beztimenta xuri zé, elurrá [bekalá].
4. Guardek haú ikustean hain ikará gelditu zeré, ezi hilák bekalá baizaude.
5. Aingiruak, órdea, emakumei mintzatús, errán ziote:

–Etzaiztela zuék beldurtú! Bada óngi dákit Jesus guruzifikatú [izanáren] bila heldu zaratela.

6. Eztago hemén, órdea, erresuzitatu [baitá], ailtzinetik erran zuen ariorá. Atózte eta ikus [z]azié lekua, nón Jauna ortzirik zégon.
7. Orai zoáste zuék [ikaszaleei] erraterá: «Erresuzitatu [dá], eta hóna beirá, zuen ailtzinean joain dá Galilean; hán ikusiko'uzié». Ailtzinetik abisatzen diziet.
8. Haiék hóbiatik istantean atrá zeré beldúr eta gozo handiakin, eta laisterka joan zeré [ikaszaleei berri] emateŕa.
9. Eta [orduan Jesus bidera atra zekiote], erranés: «Jangoikoak guarda zaistela!».

Eta haiék hurbildús, belaurikatuik, haren oñak besarkatu zúste eta adoratu zuté.

10. Jesusék [errán zioté]: «Ez beldurtú! Zoáste eta abisa zkizé nere anaiák, Galilearat doazén; [hán] ikusiko naute».
11. Emakumeak zoazin bitartio, guardiakoetaik batzúk ziudaderá etor zeré, eta [gertatu] zén guzia kontatu ziote [apezburuei].
12. [Haiek zaharreki batzarrea] izanik, soldadoei dirú kantidade handi eman ziote.
13. Erakusmen hóneki: «Errán beha'uzié: Gú lóó gindauden denboran, gabás Jesusen [ikaszaleak] etor zeré eta haren gorputzá ebatsi zuté.
14. Eta baldin haú [gobernariain] bearrietará ellega dain, gúk sinetsaraziko diogú eta beiratuko dugú zuen seguridadeás».
15. Soldadoék, dirua [hartuik], erakutsi zioten arabererá in zuté. Eta haú [zabaldu dá judioen artean egungo eguna artio].
16. Bitartean hameka [ikaszaleak] Galilearat joan zeré, Jesusék señalatu zioten mendirá.
17. Hán ikus zuteleik, adoratu zuté; batzúk, órdea, beren dudattoak izan zuzte gorputzain izateás.
18. Orduan, Jesus húrbildús, [honla] mintzatu zekiote: «Neri potestade guzia eman izan zaidá zeruan eta lurrean».
19. Zoáste, bada, eta erakuts [z]azie nazione guziei salbazioko bidean, bataiatzen tuziela Aitaren izenean eta Semearenean eta Espiritu Sanduarenean.
20. Nik manatu dizkiezudan gauza gúziak [betetzen] ikasarázten tuziela. Eta záuste segúr ezi ni beraú beti zuekin egoin naiz ehunki guzien finera [artio]».

IPAR GOI-NAFARRERA

MATEOREN EBANJELIOA

IPAR GOI-NAFARRERAZ

JESUKRISTO GURE JAUNAIN

EBANJELIO SAINDUA

SAN MATEOIN ARABERA

BRUNO ETXENIKE

1860-70

1. KAPITULUA

[Jesus birjinaganik sortua.
Jesusen sorterroa. Jesusen sortzea.]

1. Jesukristo Dabiden semeain, Abrahanen semeain jenerazioko liburua.

2. Abrahanek Isaak [sortu] zué. Isaakek Jakob. Jakobek Judas eta haren anaiak [sortu] zituen.

3. Judasek Tamarrenganik Fares eta Zara [sortu] zituen. Faresek Esrom [sortu] zuen. Eta Esromek Aram.

4. Aramek Aminadab [sortu] zué. Aminadabek Naason. Naasonek Salmon.

5. Salmonek Rahabenganik Booz [sortu] zuen. Boozek Rutenganik Obed. Obedek Jese. Eta Jesek Dabid erregea.

6. Dabid erregeak Salomon [sortu] zuen Uriasen andre izanainganik.

7. Salomonek Roboan [sortu] zuen. Roboanek Abias. Abiasek Asaf.

8. Asafek Josafat [sortu] zuen. Josafatek Joram. Joramek Ozias.

9. Oziasek Joatam [sortu] zuen. Joatamek Akaz. Akazek Ezekias.

10. Ezekiasek Manases [sortu] zuen. Manasesek Amos. Amosek Josias.

11. Josiasek Jekonias eta haren anaiak [sortu] zituen, Babiloniara pasatzeko denboran.

12. Eta Babiloniara pasatuak izan ziren ondoan, Jekoniasek Salatiel [sortu] zuen. Eta Salatielek Zorobabel.

13. Zorobabelek Abiud [sortu] zuen. Abiudek Eliakim. Eliakimek Azor.

14. Azorrek Sadok [sortu] zuen. Sadokek Akim. Akimek Eliud.

15. Eliudek Eleazar [sortu] zuen. Eleazarrek Matan. Matanek Jakob.

16. Eta Jakobek Jose [sortu] zuen, Mariain senarra, zeña[ren]ganik Jesus sortu zen, Kristo deitua dena.

17. Gisa hortan jenerazio guziak, Abrahanez geroztik Dabid [izan arteraño], hamalau jenerazio; eta Dabidez geroztik Babiloniara pasatuak izan ziren arteraño, hamalau jenerazio.

18. Beraz, Jesukristoin sortzea modu huntan gertatu zen: Maria haren ama, Joseri ezkontzeko hitza [e]man ondoan, Izpiritu Sainduain birtutez enbraza gertatu zen, elkarrekin bizi baño lehenago.

19. Jose haren senarrak, nola yustua baitzen, eta ez baitzuen hura desohoratu nahi, sekretuki nahi izan zuen utzi.

20. Gauza hok pentsatzen zagon denboran, hor agertzen zaio ametsetan Yaunain aingirua erten diolaik: «Jose Dabiden semea, ez beldurrik izan Maria zure andreain errezibitzeko, zeren hartan kontzebitua dena Izpiritu Sainduainganik da.

21. Eta seme batez erdiko da, eta izena Jesus emain diozu zergatik harek {zerengatik hark} bere [herria] salbatuko du bere bekatuetaik».

22. Hok guziak gertatu ziren Yaunak profetain medioz erran zuena [bete] zaien, zeñak baitio:

23. *Huna, Birjinak kontzebituko du eta seme batez erdiko da, eta Emmanuel deituko dute,* «Yangoikoa gurekin» erran nahi baitu.

24. Lotaik iratzarriik, Josek Yaunain Aingiruak manatu zion bezala in zuen, eta bere andrea errezibitu zuen.

25. Eta ez zuen ezagutu bere seme lehenbizikoaz erdi artaño, eta Jesus izena [e]man zion.

2. KAPITULUA

[Iruzki-atra-aldeko mago batzuek Jesus adoratu.
Egiptora igesi. Belengo haurren hiltzea.
Egiptotik itzuli eta Nazareten bizi.]

1. Jesus Judeako Belenen sortu zelaik, Herodes erregeain denboran, iruzkia atratzen den aldetik etorri ziren magoak Jerusalenera,

2. Erten zutelaik:

–Non da sortu den yuduen erregea? Zeren haren izarra iruzkia atratzen den aldean ikusi ginuen, eta haren adoratzera heldu gara.

3. Herodes erregeak hoi aitu zuelaik, beldurtua izan zen, eta haikin batean Jerusalen guzia.

4. Eta [apezburu guziak eta herriain] eskribak bilduik, galdetu zaben {galde egin zioten} non sortu behar zen Kristo.

5. Hok erran zioten:

–Judeako Belenen, zeren hala baita profetak eskribitua:

6. *Eta zu, Belen Judeako lurra, etzara ttipiena Judeako lehenbizikoen artean, zeren zureganik atrako da nere Israelgo [herria] gobernatuko duen aitzindaria.*

7. Orduan Herodesek, magoak sekretuki deituik, hekenganik yakin zuen kuidadoaikin zein denboraz agertu zitzaien izarra.

8. [Gero] hek Belenera igortzen {bidaltzen} zituelaik, erran zaben: «Zoazte, eta informa zaizte ongi haur hartaz, eta harpatze'izuen {aurkitzen duzuen} ondoan, yakinaz datazue, ni ere noaien haren adoratzera».

9. Hek, bada, erregeinganik hoi aitu zuten bezen laixter, goan {gan} ziren. Eta iruzkia atratzen den alderdian ikusi zuten izarra heken aitzinean zoaiela, gelditu zen arte, haurra zen lekuain gañeraño allegatuik.

10. Eta izarra kusi zutelaik, gogorki alegratu ziren {Eta izarra ikusi zutenean, atsegin handi bat hartu zuten}.

11. Etxean sartu eta haurra bere ama Mariaikin harpatu {kausi} zuten, eta ahuspeska adoratu zuten; eta beren tesoroak edekiik, erregaloak eskeñi zitiozten, urre, intsentsu ta mirra.

12. [Gero] ametsetan errespuesta izanik ez Herodesengana itzultzeko, bertze bide batetik itzuli ziren beren [lekuetara].

13. Hek goan ondoan, hor Joseri Yaunain aingiru bat agertzen zaio ametsetan, erten diolaik: «Yeiki zaite eta har zitzu haurra ta bere ama, eta iges izu Egiptora, eta zaude han {eta han egon zaite} nik erran artañokoan, zeren Herodesek haurra bilatuko duela gertatuko da, hilazteko».

14. Yeikita {Yeikirik}, Josek gauaz haurra ta bere ama hartu zituen, eta Egiptora goan zen.

15. Eta han egon zen Herodes hil zen artañokoan; [betea] izan zaien {zadien} Yaunak profeta baten medioz mintzatu zuena, ziolaik: *Egiptotik deitu nuen nere semea.*

16. Orduan Herodesek [magoek] burlatua izan zela ikusi zuelaik {zuenean}, gogorki koleratu zen, eta Belenen eta bere dermio {eremu} guzian ziren haur guzien hilaztera igorri zuen, bi urtetakoak eta beherago, [magoenganik informatua] izan zen denborain arabera.

17. Orduan [betea izan zen Jeremias profetak] errana izan zena, erten duena:

18. *Nigarrezko ta marraska aunitzko boz bat aitua izan zen Ramanen; Rakel bere haurrez nigarrez; eta etzuen kontsolatua nahi izan, zergatik eztire {zeren ez diren} gehiago.*

19. Herodes hil ondoan, hor Joseri Yaunain aingirua ametsetan [agertu zitzaion] Egipton.

20. Erten diolaik: «Yeiki zaite, eta har zitzu haurra ta bere ama eta itzul zaite Israelgo lurrera, zergatik {zeren} hilak dire haurra hil nahi zutenak».

21. Yeikita, Josek haurra ta bere ama hartu zituen eta Israelgo lurrera etorri zen.

22. Bañan Judeak Arkelaok bere aita Herodesen lekuan erreinatzen zuela aituik, beldur izan zuen harat goateko, eta amets batean abisatua izanik, Galileako lurretara erretiratu zen.

23. Eta Nazaret deitzen den ziudade batean egotera goan zen, [betea] izan zaien profetek erran zutena: *Nazarendarra deitua izain da.*

3. KAPITULUA

[Joan Bataiazalea Jesusen etortzeaz mintzatu.
Jesus bataiatua.]

1. Denbora hartan Joan [Bataiazalea] etorri zen, Judeako desertuan predikatzen zuela erten zuelaik:

2. «In zazue urrikimendua, zeren hurbildua da [zeruko] erreinua».

3. Bada hau da, zeintaz Isaias profeta mintzatu baitzen, erten zuelaik:

Desertuan oihu iten duenain boza: Apain zazue Yaunain bidea, zuzen {xuxen} in zitzue haren bidexkak.

4. Joan hunek berak ere beztidoa kamello ilezkoa zuen, eta larruzko faxa bat bere errañen inguruan, eta haren yatekoa otea eta basaeztia [ziren].

5. Orduan Jerusalengo, Judea guziko eta Jordanen inguruko herri guzietakoak atratzen ziren harengana.

6. Eta Jordanen [harek] bataiatuak ziren, beren bekatuak konfesatzen zituztela.

7. Baño fariseotaik eta saduzeotaik aunitz haren bataiora heldu zirela ikusiik, erran zaben:

–[Sube] kasta! Nork erakutsi datzue kolera etortzekoai iges iten?

8. In zazue beraz urrikimenduai dagokion fruitua.

9. Eta etzazuela uste izan zuen baitan ertea «Abrahan daukagu aitatako». Zergatik erten datzuet, Yangoikoak harri hotaik beretaik sorraz detzakela umeak Abrahani.

10. Zeren paratua da aizkora arbolen zañean {erroan}. Bada fruitu ona ematen eztuen arbola guzia moztua izain da, eta sura botatua.

11. Nik egiazki bataiatzen zaiztet urean urrikimenduko, bañan nere ondotik etorriko dena, ni baño azkarragoa {bortitzagoa} da, zeñen oiñetakoak ez baitut yauntztea merexi; harek bataiatuko zaizte Izpiritu Sainduan eta suan.

12. Bere bagea eskuan dauka, eta bere larraña ongi garbituko du, eta bere ogia {ogi bihia} granerora bilduko du, baño lastoa behiñere itzaltzen ezten suan erreko du.

13. Orduan Jesus Galileatik Jordanera etorri zen Joanengana, hare[k] bataiatua izateko.

14. Baño Joanek trabatzen zuen, erten ziolaik:

–Nik izan beha'ut zu[k] bataiatua, eta zu heldu zara neregana?

15. Jesusek erresponditzen {iñardesten} ziolaik, erran zion:

–Utz'azu orai, zergatik hola {hula} zaiku konbeni yustizia guzia [betetzea].

Orduan [Joanek] utzi zuen.

16. Jesus bataiatua izan ondoan, bela {berehala} uretik atra zen. Eta ordu berean zerua edeki [zitzaion], eta Yinkoain Izpiritua usoa bezala yausten ikusi zuen, eta haren gañera etortzen.

17. Eta huna boz bat {Eta denbora berean boz bat}, erten zuena: «Hau da nere seme maitatua, zeintan hartu baitut atsegina {nere atsegina}».

4. KAPITULUA

[Jesusen barura eta tentazioa. Jesus Galileara.
Jesus berri ona zabaltzen hasi.
Jesusek bere ikastaleei dei. Eriak sendatzen.]

1. Orduan Jesus Izpiritua[k] desertura eramana izan zen, han deabru[ak] tentatua izan zaien.

2. Eta berrogei egunez eta berrogei gauez barutu ondoan, azkenekotz {azkenean} gosetu zen.

3. Eta tentazalea harengana hurbilduik, erran zion:

–Baldin Yinkoain Semea bazara, errazu harri hek ogi bigurtu daitzila {bilaka ditela}.

4. [Jesusek] erresponditu zion: Eskribitua da: *Ez ogiaz bakarrik bizi da gizona, bañan Yangoikoain agotik atratzen diren hitz guzietaz.*

5. Orduan debruak hartu zuen eta ziudade saindura ereman zuen, eta tenpluain gañean paratu zuen.

6. Eta erran zion:

–Yangoikoain Semea balin bazara, bota zaite hemendik beheiti, zeren eskribitua da: *Bere aingiruak zure hurbilera igorri zitu[en], eta beren eskuetan hartuko zaituzte, harri zenbaiten kontra muturka etzaitezin {muturkatu etzaitzin}.*

7. Jesusek erran zion:

–[Hau] ere eskribitua da: *Eztuzu tentatuko zure Yinko Yauna.*

8. Berriz igan zuen debruak soil gora zen mendi batera {arras gorako mendi batera}, eta munduko erreinu guziak erakutsi zition eta heken loria {gloria}.

9. Eta erran zion:

–Hok guziak emain dazkitzut, ahuspeskatuik adoratzen balin banaizu.

10. Orduan Jesusek erran zion:

–Goaie, Satanas! Zeren eskribitua da: *Zure Yangoiko Yauna adoratuko'izu, eta hura bakarrik zerbitzatuko'izu.*

11. Orduan debruak utzi zuen, eta bela aingiruak etorri ziren eta zerbitzatu zuten.

12. Jesusek Joan preso zela aitu zuelaik, Galileara erretiratu zen.

13. Eta Nazaret utziik, Kafarnaunen egotera goan zen, Zabulongo eta Neftalingo mugarrietan.

14. Isaias profetak erran zuena [betea] izan zaien:

15. *Zabulongo lurra eta Neftalingo lurra, itsasoko bidea, Jordanez {Yordanez} bertze aldean, Jentilen Galilea.*

16. *Ilunbetan yarria zagon [herriak] argi haundi bat ikusi zuen, eta argia sortu zen heriotzeain {sortu izan zen herioain} itzaleko lurrean zaudenen gañera.*

17. Ordutik Jesus predikatzen hasi zen, eta erten: «Damu zaizte, hurbildua delakotz [zeruko er]reinua {Egin zazue urrikimendua, zeren hurbildua baita [zeruko] erreinua}».

18. Jesusek, Galileako itsas bazterrean zabilalaik, bi anaia ikusi zituen, Simon -Pedro deitzen dena- eta Andres haren anaia, sareak itsasora botatzen zituztela, bada arrantzariak ziren.

19. Eta erran zaben: «Segi zazue nere gibeletik eta gizon arrantzari inen zaiztet».

20. Hek bela sareak utzita {utzirik} segitu zioten.

21. Handik aldatuta {aldaratuta}, bertze bi anaia ikusi zituen, Santiago, Zebedeoin anaia, eta haren anaia Joan, barko batean beren aita Zebedeoikin sareen konpontzen ai zirela, eta deitu zituen.

22. Hek, bela, beren sareak eta beren aita utziik, segitu zioten.

23. Bazabilan Jesus Galilea guzian barna, heken sinagogetan erakusten zuelaik, eta erreinuko ebanjelioa predikatuz, eta eritasun eta oñaze guziak sendatuz.

24. Eta haren fama Siria guzian hedatu zen, eta gaizki pasatzen zuten guziak ekarri zitiozten, asko errezeluz ta dolorez hartuak zirenak eta debrutuak eta [eroak] eta perlesiak hartuak, eta sendatu zituen.

25. Eta yendetze haundi {handi} batek Galileatik segitu zion, Dekapolistik eta Jerusalendik, Judeatik eta Jordanez bertze aldetik.

5. KAPITULUA

[Jesusen erakustea mendian. Zoriontasunak.
Munduaindako gatz eta argi. Jesus eta legea.
Anaien arteko baketzea. Adulterioa eta dibortzioa.
Yuramentuak. (Mendekua.) Maitatu etsaiak.]

1. Jesusek yende hek guziak ikusiik, mendi baten gañera igan zen eta, yarri ondoan, bere [ikastaleak] hurbildu zitzaizkon.

2. Eta mintzatuz {mintzatzen hasirik} erakusten zituen, ziolaik:

3. –Zorionekoak bihotzez pobre direnak, [zeren] hekena da zeruko erreinua.

4. Zorionekoak bihotz mantsodunak, [zeren] lurrain yabeak izain dire.

5. Zorionekoak nigar ite'utenak, [zeren] kontsolatuak izain dire.

6. Zorionekoak yustiziain edo gauza sainduen gosea eta egarria dutenak, [zeren] heken deseiuak guziz beteak izain dire.

7. Zorionekoak [urrikeltsuak, zeren urrikalmendua erdetsiko'ute].

8. Zorionekoak bihotz garbidunak, [zeren] Yangoikoa ikusiko'ute.

9. Zorionekoak bakezkoak, [zeren] Yangoikoain umeak deituak izain dire.

10. Zorionekoak yustizia edo gauza onagatik pertsegituak direnak, [zeren] hekena da zeruko erreinua.

11. Zorionekoak izain zate madarikatuak eta pertsegituak izaten zatenean, eta edozein gaizki zuen kontra gezurrez erte'utenean neregatik.

12. Alegra zaizte ta bete bozkarioz, [zeren] zuen sari haundia [zeruan] izain da. Zeren modu berean pertsegitu zituzten zuen aitzineko profetak.

13. Zuek zate lurreko gatza. Baño gatzak bere gazitasuna galtzen balin badu, zertaz gazituko da? Eztu gehiago deustako balio, baizik kanpora botatzeko, eta gizon[ek] ostikatua izateko.

14. Zuek zate munduko argia. Mendi baten gañean paratua den ziudade bat eztaiteke gordetua izan.

15. Eztute ere pizten tortxa bat gaitzurupean paratzeko, baño kandeleroain gañean, etxean diren guziak argituak izateko {izan daitezin}.

16. Gisa berean zuen argiak gizonen aitzinean argitu behar du, zuen obra onak ikus detzaten, eta loria [e]man dezaten zuen aita [zeruan] denai.

17. Etzazuela uste, legeain edo profeten desitera etorri naizela; e'naiz etorri heken desitera, baño bai kunplimentu ematera.

18. Zeren egiazki erten datzuet, zeruak eta lurrak iraune'uten bitartean, eztela pasatuko legean, ez puntu bat, ez tilde bat, dena {guzia} [betea] izan gabe.

19. Horrengatik, nork ere manamendu hotaik ttipiena hausten baitu {manamendu ttipi hotarik bat hausten badu}, eta hola gizonei erakusten duena, soil ttarra {arras ttikia} deitua izain da [zeruko] erreinuan; bañan nork ere iten baitu eta erakusten, hura haundia deitua izain da [zeruko] erreinuan.

20. [Nik] erten datzuet, zuen yustizia ez balin bada eskribena ta fariseoena baño haundiagoa izaten, etzatela sartuko [zeruko] erreinuan.

21. Aitu'izue {Aditu duzue} zaharrei errana izan zela: *Eztuzu hilen*, eta hiltzen duena juiziora obligatua geldituko da.

22. Bañan nik erten datzuet: bere anaiaikin arrazoñik gabe hasertzen dena juiziora obligatua izain da. Eta bere anaia «ergela» erten diona, kontziliora obligatua izain da. Eta «ergela» erten diona suain gehenara obligatua geldituko da.

23. Bada, zure ofrenda aldarera eskeintzera baldin bazoazi, eta han oroitzen bazara zure anaiak zerbait baduela zure kontra,

24. Utz'azu han zure ofrenda aldareain aitzinean, eta zoazi lehenik zure anaiaikin baketzera, eta gero zato zure ofrenda eskeintzera.

25. Konpon zaite bela zure kontrarioaikin, haikin bidean zaude[n]año, eztaien gerta zure kontrarioak zu entregatzea juezai, eta juezak alguazilai, eta gartzelan sartua izan zaitezin {zaiten}.

26. Egiazki erten datzut, etzarela handik atrako {ateratuko} azken korradua pagatu artañokoan.

27. Zaharrei errana izan zela aitu'izue: *Eztuzu adulteratuko*.

28. Bada nik erten datzuet: hura gutiagotzeko emazteki {emakume} bati begiratzen duenak, haikin yadaneko adulterioa iten du {egiten du yadanik} bere bihotzean.

29. Baldin zure eskuñeko begiak eskandalotako zerbitzatzen bazaitu, atra zazu eta bota zureganik aparte, zeren hobe da zuretako zure alderdietaik bat galtzea, ezen ez zure gorputz guzia izan daien infernuko sura botatua.

30. Zure eskuñeko eskuak eskandalotako zerbitzatzen bazaitu, motz'azu eta bota zazu zureganik aparte, zeren hobe da zuretako zure alderdietaik bat galtzea, ezen ez zure gorputz guzia izan daien infernuko sura botatua.

31. Errana izan da oño {oraño} ere: *Baldin norbaitek bere andrea uzten badu, [e]man diozola {diozala} dibortzioko karta*.

32. Bañan nik erten datzuet: fornikazioa [arrazoña] izan gabe bere andrea uzten duenak, adultera bihurtazten {bilakarazten} du; eta utzia den andrea hartzen duenak adulterioa iten du.

33. Zagarrei [hau ere] errana izan zela aitu'izue: *Eztuzu zure yuramentua hautsiko, baño zure yuramentuak Yaunaikin [beteko] tutzu*.

34. Baño nik erten datzuet ez batere yuramentuik iteaz, *ez ta zeruaz ere, [zeren] Yangoikoain tronua [baita]*;

35. *Ez ta lurraz ere, [zeren haren oiñetako sostengua baita]*; ez ta Jerusalenez ere, *[zeren] errege haundiain ziudadea baita*.

36. Ez ta zure buruaz ere ez in yuramentuik, [zeren] eztezakezu ile bat bigurtazi {bilakarazi} ez zuri {txuri} ta ez beltz.

37. Baño zuen mintzatzea izan bedi «bai», bai [delaik]; «ez», ez [delaik]; zeren hotaz gehiagokoan Gaitzetik atratzen da.

38. Errana izan zela aitu'izue: *Begia begiaindako, eta hortza hortzaindako*.

39. Bañan nik erten datzuet ez kontraik iteko gaizki iten datzuenei; baizik baldin norbaitek yotzen bazaitu eskuñeko mazelean {matelean}, eskeñi diozozu bertzea're.

40. Norbaitek pleitua paratu nahi badatzu, soñekoa kendu nahizik, utz diozozu kapa're {utz diozazu zure kapa ere}.

41. Baldin norbaitek haikin mila pausu {urrats} kargatuik goatera bortxatu nahi bazaitu, zoazi bertze bi mila gehiago.

42. Eskatzen {Galde egiten} datzunai, emaiozu; eta prestamuz eskatu nahi duenai, ez gibeleko aldea itzul.

43. Errana izan zela aitu'izue: *Maitatuko'izu zure lagun projimoa* eta gaitsetsiko'izu zure etsaia.

44. Bañan nik erten datzuet: Maita zitzue zuen etsaiak; ongia in zazue gaitsesten zaiztenei, eta otoitz in zazue kalumniatzen eta pertsegitzen zaiztenendako.

45. Zuen Aita [zeruan] denain semeak zaiztengatik, zeñek onen eta gaixtoen gañera sorrazten {sortarazten} baitu iruzkia, eta yustuen eta bekatarien gañera erorrazten bere uria.

46. Zeren baldin ez baitutzue maite zuek maite zaiztenak baizik, zer sari izain duzue? Eztute publikanoek ere berdin {bardin} iten?

47. Eta baldin ez baizue besarkatzen zuen anaiak baizik, zer ite'izue bertzek baño gehiago? Eztute gauz[a] hoi bera iten jentilek?

48. Izan zaitezte, bada, perfektoak {perfetak}, zuen Aita [zeruan] dena perfektoa den bezala.

6. KAPITULUA

[Limosna. Aita Gurea otoitza. Baru itea. Zeruan aberats.
Barren argitsua. Yangoikoa edo dirua. Zertaz (arduratu).]

1. Kontu [e]man zazue ez iteaz zuen limosna gizonen aitzinean, [hek] ikusiak izateagatik; bertzenaz eztuzue sariik izain zuen Aita [zeruan] denainganik.

2. Bada limosna ite'izulaik, etzazula tronpeta yoazi zure aitzinean, [itxurazaleek] sinagogetan ta karriketan ite'uten bezala, gizon[ek] ohoratuak izateko. Egiazki erten datzuet, errezibitu'utela beren saria.

3. Baño zuk zere limosna ite'izulaik, eztezala zure ezkerreko eskuak yakin zer iten duen eskuñekoak.

4. Zure limosna izan daien gerizean ina, eta zure Aita gerizean ikusten duenak [emain datzu zure saria].

5. Eta otoitz ite'izuelaik, etzaiztela [itxurazaleak] bezala izan, zeñek sinagogetan ta karrika eskinetan otoitza txutik itea maite'ute, [gizonek] ikusiak izateagatik. Egiazki erten datzuet: errezibitu'ute beren saria.

6. Bañan zuk otoitz ite'izulaik, sar zaite zure kuartoan, eta atea hetsi ondoan, otoitz izu zure Aitai sekretuan; eta zure Aita sekretuan ere ikusten duenak emain datzu zure saria.

7. Eta otoitz ite'izuelaik, etzazuela solas alferrik in, jentilek bezala, zeren uste'ute aunitz mintzatuz hobeki aituak izain direla.

8. Bada etzaiztela hek iduriak nahi izan; [zeren] zuen Aitak badaki zer beha'izuen, zuek eskatu baño lehenago.

9. Zuek bada hula in bea'izue otoitz: «Aita gurea, zeruetan zaudena; [saindu izan] bedi zure izena.

10. Betor guregana zure erreinua. In bedi zure borondatea, zeruan bezala lurrean ere.

11. [E]man diezaguzu egun geren eguneroko ogia.

12. Barka dietzagutzu guri geren zorrak, guk zor gaituztenei barkatzen dieztegun bezala.

13. Eta ez gaitzazula utzi tentazioan erortzera. Baizik libra gaitzazu gaitzetik. Amen».

14. Zeren baldin gizonei beren bekatuak barkatzen bazinukete, zuen Aita [zeruan] denak ere barkatuko dazkitzue zuenak.

15. Bañan baldin ez bazinukete gizonei barkatzen, zuen Aitak ere eztazkitzue barkatuko zuen bekatuak.

16. Eta barutzen zatelaik {zatenean}, etzaiztela triste yarri [itxurazaleak] bezala. Bada beren aurpegiak desfiguratzen tuzte, baru direla erakustera emateko gizonei. Egiazki erten datzuet, errezibitu'utela beren saria.

17. Baño zuk baru ite'itzulaik, gantzu zazu zure burua eta garbi zazu zure aurpegia.

18. Gizonei ez erakustera emateko baru zarela, baizik solo {baño bakarrik} zure Aita gerizean dagonai; eta zure Aita gerizean ikusten duenak saria emain datzu.

19. Etzazuela lurrean zuendako tesoroik nahi izan bildu, non herdollak eta pipiek kontsumitzen baitituzte, eta non [ebastaleek] lurpetik atratzen eta ebasten baitituzte.

20. Bañan bil zitzue zuendako tesoroak zeruan, non ez baitituzte {ezpaitituzte} kontsumitzen ez herdollak, ez pipiek, eta non [ebastaleek] ez baitituzte lurpetik atratzen, ez ebasten ere.

21. Zeren non ere baita zure tesoroa, an izain da zure bihotza.

22. Zure gorputzeko tortxa da zure begia. Zure begia argia balin bada, zure gorputz guzia argitua izain da.

23. Baño baldin zure begia gaixtoa bada, zure gorputz guzia ilunbetsu izain da. Bada, zure baitan den argia ilunbea balin bada, zein haundiak eztire izain ilunbeak berak?

24. Niork eztetzake zerbitzatu bi nausi, zeren edo bat gaitsetsiko du eta bertzea maitatuko, edo bati aguantatuko dio eta bertzea [gaitsetsiko] du. Eztezakezue zerbitzatu Yangoikoa ta aberastasuna.

25. Hortako erten datzuet, etzaiztela zuen biziaz afanatuak ibili, zer yain duzuen, ez eta zuen gorputzaz, zertaz beztituko zaten. Ezta bizia yatekoa baño gehiago, eta gorputza beztidoa baño gehiago?

26. [I]kus zitzue {zatzue} zeruko hegaztinak, ez baitute ereiten ez biltzen, ez graneroetan pilatzen ere, eta zuen Aitak [zeruan] denak mantenitzen {mantenatzen} tu. Eztuzue zuek, bada, hek baño aunitz gehiago balio?

27. Eta nor da zuen artean, bere inahal guziak inik ere, bere talla beso bat gehiago gora dezakenik?

28. Eta zergatik zabiltzate apuratuak beztidoaingatik? [I]kus'azue nola haunditzen diren kanpoko loreak, eztire lanean aitzen, eztute iruten.

29. Segurki erte'ut, Salomon bera ere, bere loria guziain erdian, etzela hotaik bat bezala estalia izan.

30. Bada, Yangoikoak kanpoko belarra -gaur badena eta bihar labera botatua izain dena- hola beztitzen balin badu, zenbat hobekiago beztituko zaizte zuek, fede gutiko gizonak!

31. Etzaiztela bada apuratu, diozuelaik: «Zer yain dugu, edo zer edain dugu, edo zerekin beztituko gara?».

32. Zeren jentilak dire gauz[a] hoken ondotik ibiltzen direnak. Eta zuen Aitak badaki, heken guzien beharra baizuela.

33. Bila zazue bada lehenik Yinkoain {Yaungoikoain} erreinua, eta haren yustizia, eta gauz[a] hok guziak emanak izan zaizkitzue ausarki.

34. Eta modu huntan, etzazuela biharko egunaz kuidadoik iduki. [Zeren] biharko egunak berak ekarriko du bere kuidadoa. Egun bakotxak aski du bere nekea.

7. KAPITULUA

[Ez yuzkatu nior. Konfiantza otoitzetan.
Ate estua. Beren fruitutaik ezautuko tutzue.
Peñain edo legarrain gañeko etxea.]

1. Etzazuela {Ez dezazuela} yuzkatu, etzaizten yuzkatuak izan.

2. Bada, yuzkatuko'izuen juizioaz izain zate yuzkatuak; eta negurtuko'izuen negurri beraikin, negurtuak izain zate.

3. Zertako, bada, [i]kuste'izu lasto pizarra zure anaian begian, eta eztuzu [i]kusten zur petrala zere begian?

4. Edo nola erte'izu zure anaiai «Utz nazazu, lasto pizarra zure begitik atrako'uᵵ», zurean zur petral bat ageri delaik?

5. [Itxurazale]! Atra zazu lehenik zure begiko zur petrala, eta orduan ikusiko'izu lastoain atratzeko anaiain begitik.

6. Etzazuela [e]man txakurrei gauza sainduik, eztare bota zuen perlak txerrien aitzinera, beldurrez ostika detzaten beren oiñen azpian, eta zuen kontra itzuliik, puska zaizten.

7. Eska zazue eta [e]main zaitzue; bila zazue eta harpatuko'izue; yo zazue eta edekiko zaitzue.

8. Zeren eskatzen duen guziak errezibitzen du; eta bilatzen duenak harpatzen du: eta yotzen duenai, edekiko zaio.

9. Edo nor izain da zuen artean gizona, ogia eskatzen dion denboran, bere semeai harri bat [e]main diona?

10. Edo arrain bat eskatzen balin badio, suge bat emain ote dio?

11. Bada zuek, gaixtoak zatelaik, zuen semei gauz[a] onak ematen balin badakizue, zenbatez gehiago zuen Aita [zeruan] denak emain dazte ondasunak eskatzen tioztenei!

12. Eta gisa berean, gizonek zuekin itea zuek nahi'zuen guzia, in zazue zuek ere hekin. [Zeren hau baita] legea ta profetak.

13. Sar zai[z]te ate estutik, zeren zabala [baita] atea eta zabala bidea, fin gaixtora erematen duena, eta aunitz dire hartaik sartzen direnak.

14. Zein estua den atea, eta zein meharra bizira erematen duen bidea, eta guti dire hura [aurkitze]'utenak!

15. Guarda zaizte profeta faltsoetaik, zuengana ardien arropekin etorriko direnak, eta barnean otso [ebastaleak] direnak.

16. Beren fruituetaik [e]zautuko tutzue. Biltzen ote da, benturaz, mahatsik elorrietarik, edo pikoik kardoetaik?

17. Arbola onak fruitu ona ekartzen du, eta arbola gaixtoak fruitu gaixtoa ekartzen du.

18. Arbola onak eztezake fruitu gaixtoik ekarri; eztare arbola gaixtoak fruitu onik.

19. Fruitu ona [e]kartzen eztuen arbola guzia moztua izain da, eta suan sartua.

20. Hola bada, beren fruituetaik [e]zautuko tutzue.

21. «Yauna, Yauna!» erten datan guzia ezta sartuko [zeruko] erreinuan, baizik nere Aita [zeruan] denain borondatea iten duena sartuko da.

22. [Juizioko] egun hartan aunitzek errain datate: «Yauna, Yauna! Eztugu bada zure izenean profetizatu, eta zure izenean botatu gintuen [debruak], eta zure izenean aunitz milagro in gintuen?»

23. Orduan klaroki errain dabet: «Etzaiztet behiñere [e]zautu; aparta zaizte nereganik gaixtakeriai [e]maten zatenak!

24. Bada nere hitz hok aitu ta [betetzen] tuen hura, konparatua izain da bere etxea peñain gañean in zuen gizon yakintsun bati.

25. Uria erori zen eta uharrak [e]torri ziren, eta haize haundiak izan ziren, eta etxe haren kontra bortizki yo zuten, eta etzen erori, peñain gañean zimentatua zelakotz.

26. Eta nere hitz hok aitu ta [betetzen] eztituena, bere etxea legarrain gañean in zuen gizon ero bat iduria izain da.

27. Uria erori zen, eta uharrak [e]torri ziren, eta haize haundiak izan ziren, eta etxe haren kontra bortizki yo zuten, eta erori zen, eta haren erortzea izigarria izan zen.

28. Eta Jesusek diskurtso hok {hek} akitu zituelaik, yendeak haren doktrinaz [harritu] ziren.

29. [Zeren] autoridadea duenak bezala erakusten baitzaben, eta ez heken eskribek eta fariseoek bezala.

8. KAPITULUA

[Jesusek leprosoa sendatu. Erromatar zenturionain fedea.
Jesusek Pedroin amiarreba sendatu. Eri anitz sendatu.
Jesusek tenpestadea (baretu) eta Jenerazetgo debrudunak sendatu.]

1. Jesus menditik nola yautsi baitzen, yende aunitzek segitu zioten.
2. Leproso bat [e]torri zitzaion, eta adoratu zuen erten ziolaik:
–Yauna, zuk nahi balin baizu, garbituko naizu {garbi nezakezu}.
3. [Orduan] Jesusek eskua hedatuik, ukitu zuen erten ziolaik:
–Nahi dut. Izan zaite garbitua.
Eta bela haren lepra garbitua izan zen.
4. Jesusek erran zion:
–Kontu [e]mazu nioi ertetik; baño zoazi, ager zaite [apezari] eta eskein zazu Moisesek manatu zuen ofrenda, testimoniotako {lekukotasunaindako} zerbitza dakioten.
5. Jesus Kafarnaunen sartuik, zenturion bat etorri zitzaion, otoizten zuelaik,
6. Eta ziolaik:
–Yauna, nere mutila {zerbitzaria} goatzean dago etxean perlesiak hartua, eta gogorki {bortizki} sufritzen du.
7. Jesusek erran zion:
–Goain naiz eta sendatuko'ut.
8. Zenturionak errespondituik, erran zion:
–Yauna, eztut merexi nere etxean sar zaitezin, bañan mana zazu zure hitzaikin, eta nere mutila sendatua izain da.
9. Bada ni ere gizon bat naiz bertze baten menekoa, nere manamenduain azpian soldaduak [d]itudana, eta bati «Zoazi» erten diot eta goaten da; eta bertzeai «Zato» ta [e]tortzen da; eta nere mutilai «In zazu hau», ta iten du.
10. Jesusek hau aitu zuelaik {aditu zuenean}, [harritu] zen, eta segitzen ziotenei erran zaben: «Egiazki erten datzuet eztutela nik harpatu {harrapatu, aurkitu} Israelen horren fede haundiik.
11. Eta erten datzuet aunitz etorriko direla iruzkia atratzen eta sartzen den alderdietaik, eta Abrahan, Isaak eta Jakobekin [zeruko] erreinuan yarriko direla.
12. Bañan erreinuko umeak kanpoko ilunbetara botatuak izain dire; han izain dire nigarrak eta hortz karraskak».
13. Jesusek zenturionai erran zion:
–Zoazi eta in dakizula sinetsi {siñetsi}'izun bezala.
Eta ordu berean mutila sendatua izan zen.
14. [Gero], Jesus Pedroin etxera allegatuik, haren amiarreba {amaiarreba} goatzean zagola [ikusi zuen, sukarraikin].
15. [Jesusek] eskua ukitu zion eta [sukarrak] utzi zuen, eta yeiki zen eta zerbitzatu zituen.
16. Ilunaarrean [e]torri ondoan, debrutu aunitz ekarri zitiozten, eta bere hitzaikin izpiritu gaixtoak {gaistoak} kendu zazten, eta eri guziak sendatu zituen.
17. [Betea] izan zaien Isaias [profetain medioz] errana izan zena, zeñek baitzion:

Berak gure eritasunak hartu zituen, eta gure oñazekin kargatu zen.
18. Bada, nola Jesusek bere inguruan yende aunitz ikusten baitzuen, urez bertze aldera pasatzea manatu zuen.
19. [Orduan] eskriba batek, harengana hurbilduik, erran zion:
–Nausia, segituko datzut {zaitut} noranahi goan zaitezin.
20. Jesusek [erran zion]:
–Axeriek ba'ituzte ziloak {zuloak}, eta zeruko hegaztinek kafiak, baño Gizonain Semeak eztu non pausatu burua.
21. Bere [ikastaleetaik] batek erran zion:
–Yauna, utz nazazu lehenik goan naien {nadien} nere aitain enterratzera.
22. Baño Jesusek [erran zion]:
–Segi nazazu, eta utz'azu hilek enterra detzatela beren hilak.
23. [Jesus] bera barko batean sartuik, bere [ikastaleek] segitu zioten.
24. Eta bela tenpestade haundi bat goratu zen itsasoan, hainbertzetañokoan {hainbertzetaraño}, non oladek barkoa estaltzen baitzuten; baño hura lo zagon.
25. [Ikastaleak] harengana hurbildu ziren, eta iratzarri zuten erten ziotelaik:
–Yauna, salba gaitzazu! Galtzera goazi.
26. Jesusek [erran zaben]:
–Zeren beldurra [d]izue, fede gutiko gizonak?
Eta bapataen goitituik {bertan yeikirik}, haizei ta itsasoai manatu zuen, eta eztitasun haundi batek segitu zuen.
27. Gizon hek harritu ziren, eta erten zuten: «Nor da haizeek eta itsasoak obeditze'uten hau?».
28. Jesus urez bertze aldera jerasenoen lurrera pasatu zelaik, bi debrutu sepulturetaik atrata {aterarik}, aitzinera [e]torri zitzaizkon, halako fiertasunean, non ez baitzen nior atrebitzen bide hartaik pasatzera.
29. Bela oihuka erten hasi ziren:
–Zer iteko dugu guk zurekin, Jesus Yangoikoain Semea? Denbora baño lehenago gure mortifikatzera [e]torri zara hunat {hunara}?
30. Hetaik aski hurbil bazen txerri sail bat, bazkan zabilana.
31. [Debruek Jesusi otoiztu zioten]:
–Baldin hemendik botatzen {kasatzen} bagaitutzu, igor gaitzazu txerri sail hortara.
32. [Jesusek] erran zaben:
–Zoazte.
Hek ateratu ziren eta txerrietara goan ziren, eta momentu {ordu} berean txerri sail harek laixterrai [e]man zion eta erroitz batetik itsasora botatu zen, eta uretan hil ziren.
33. Txerrizañek iges in zuten eta, ziudadera [e]torri zirelaik, guzia kontatu zuten, eta debrutuei gertatu zitzaiena.
34. [Orduan] ziudade guzia Jesusen bila atra zen eta, [i]kusi zutelaik, heken dermiotik atra zaiela {ateratzeko} otoiztu [zioten].

9. KAPITULUA

[Jesusek perlesiaduna sendatu. Mateori deia.
(Odoljarioa) zuen emaztekia eta nausiaren alaba.
Jesusek bi itsu eta muttu debruduna sendatu.
Zitua haundia da, baño langileak guti.]

1. Eta barko batean sartuik, berriz urez bertze aldera pasatu zen eta bere ziudadera goan zen.

2. Han [perlesiadun] bat presentatu zioten, goatze batean etzana. Eta Jesusek, heken fedea ikusiik, [perlesiadunai] erran zion:

–Nere semea, izan zazu konfiantza! Zure bekatuak barkatuak zaizkitzu.

3. Bela eskribetaik zenbaitek beren baitan erran zuten: «Gizon hunek arnegatzen du».

4. Jesusek heken gogoko berria ikusten baitzuen, erran zuen:

–Zertako gaizki pentsatze'izue zuen bihotzetan?

5. Zer da errexago {arrexago} ertea «Zure bekatuak barkatu zaizkitzu» edo «Yeiki zaite ta ibili»?

6. Bada yakin dezazuen Gizonain Semeak baduela podorea lurrain gañean bekatuen barkatzeko.

Orduan erran zion [perlesiadun]ai:

–Yeiki zaite, har zazu zure goatzea, eta zoazi zure etxera.

7. [Hura] yeiki eta bere etxera goan zen.

8. Yendek hoi [i]kusi zutelaik, beldurtu ziren eta Yinkoa laudatu zuten, zeren halako podorea eman [zaben] gizonei.

9. Handik abiatuta, Jesusek gizon bat ikusi zuen Mateo deitzen zena, kobrantzako alkian yarria, eta erran zion:

–Segi nazazu.

Goititu ta segitu zion.

10. [Gero] gertatu zen, Jesus haren etxean mahaian yarria zagolaik, publikano ta bekatari aunitz etortzea, eta haikin eta haren [ikastaleekin] bazkaltzen yarri ziren.

11. Fariseoek, hoi [i]kusiik, haren [ikastaleei] erten zaben:

–Zuen nausiak zertako yaten du publikano eta bekatariekin?

12. Jesusek hoi aituik, erran zuen:

–Osasunekoek eztute mediku beharrik {medikurik behar}, eriek baizik.

13. Zoazte, bada, eta yakin zazue zer erran nahi duen gauz[a] hunek: *Miserikordia nahi dut, eta ez sakrifizioa.* [Zeren] e'naiz yustuen deitzera etorri, baizik bekatarien.

14. Orduan Joan [Bataizalearen ikastaleak] harengana etorri ziren eta erran zioten:

–Zergatik guk eta fariseoek barutzen dugu aunitz aldiz, eta zure [ikastaleek] eztute barutzen?

15. Jesusek erran zaben:

–Egon daizke benturaz triste senarrain umeak, hura hoken konpañian dagon bitartean {daueraño}? Baño egunak [e]torriko dire kendua izain zaiena, eta orduan barutuko'ute.

16. Niork eztu [e]maten oihal lodiaz petatxoa beztido zagarrean, zeren beztidoai eremain lioke hartzen duen guzia, eta urradura haundiago inen litzeke.

17. Ardo berria ere eztute [e]maten zahagi zagarretan. Bertzenaz, zahagiak lehertuko dire, eta ardoa ixuriko, eta zahagiak galduko. Baño berria zahagi berrietan [e]mate'ute, eta hola bat eta bertzea kontserbatzen dire.

18. Gauz[a] honek erten ai zitzaielaik {zitzaiotelaik}, [nausi] bat etorri zitzaion eta adoratu zuen, ziolaik: «Yauna, nere alaba orai berean hil da, baño zato, pausa zazu eskua haren gañean, eta biziko da».

19. Jesusek, handik goitituik, segitu zion bere [ikastaleekin].

20. [Orduan], hamabi urte hartan (odoljario)aikin eri zagon [e]mazteki bat[ek], gibeletik hurbilduik, haren beztidoain bazterra ukitu zuen.

21. [Zeren] bere barnean erten zuen: «Solo {Bakarrik} haren beztidoa ukitzen balin banu, sendatuko nitzeke».

22. Jesusek, itzuliik eta begiratuik {behatuik}, erran zion: «Izan zazu konfiantza, nere alaba! Zure fedeak sendatu zaitu». Eta ordu beretik emazteki hura sendatua gelditu zen.

23. Jesus [nausi] haren etxera [e]torri zelaik eta flauta yotzaleak [i]kusi zituelaik eta yende multzu bat, hasotsa iten zutela, erran zuen:

24. «Erretira zaizte! Bada neskatxa ezta hila, baizik lo dago».

Eta hartaz burlatzen ziren.

25. Yendea kanpora [e]mana izan zelaik, sartu zen eta [neskatxa] eskutik hartu zuen. Eta goititu zen neskatxa {Eta neskatokoa yeiki zen}.

26. Eta berri hura bazter guzietan [zabaldu] zen.

27. Jesus leku hartaik aldatuik {aldaraturik}, bi itsuek oihuka segitu zioten erten zutelaik: «Dabiden semea, urrikal zaite gutaz!».

28. Etxera allegatu zelaik, itsu hek harengana etorri ziren. Jesusek [erran zaben]:

–Uste'izue nik in dezaketela hau zuei?

–Bai, Yauna –[erran zuten hek].

29. Orduan heken begiak ukitu zituen, erten zuelaik:

–Zuen fedeain arabera ina izan dakizuela.

30. Eta heken begiak edekiak izan ziren, eta Jesusek mehatxua in zaben, erten zabelaik:

–Guardia [e]man zazue niork [yakin ez dezan].

31. Bañan hek, handik atra ziren bezen laixter, bazterretan guzietan publikatu zuten.

32. [Itsuak] ateratu ta ondoan bela, gizon muttu {mutu} bat presentatu zioten, debruak hartua.

33. [Jesusek] debrua botatu ondoan, muttua mintzatu zen, eta yendeek, harrituak, erten zuten: «Ezta egundaño holakoik ikusi Israelen».

34. Baño fariseoek erten zuten: «[Debruak kentzen tu, debruen] printzipeain birtutez.

35. Jesus bazabilan ziudade eta herri guzietan barna, heken sinagogetan erakusten zuelaik eta erreinuko Ebanjelioa predikatzen zuelaik, eta oñaze eta eritasun guziak sendatuz.

36. Yende hek [i]kusi zituelaik, hetaz urrikaldu zen, [zeren] nekatuak eta errebelatuak zauden {ziren}, ardi artzain gabeak bezala.

37. Orduan bere [ikastaleei erran zaben]: «Zitua egiazki haundia da, baño langile guti.

38. Otoiztu zazue, beraz, zituain nausia, igor detzala langileak bere zitura».

10. KAPITULUA

[Hamabi apostoluak bilazi eta (mirariak) iteko podorea eman.
Ardiak otsoen erdira bezala. Nori izan beldur.
Jesus hek makurtzera etorria. Ongi etorri in.]

1. [Jesusek bere hamabi ikastaleak] bilaziik, podorea eman zaben izpiritu gaixtoak kentzeko, eta oñaze ta eritasun guzien sendatzeko.

2. Hamabi apostoluen izenak hok dire: lehentabizikoa {lehenbizikoa} Simon –Pedro deitua dena– eta Andres bere anaia, Santiago Zebedoin semea eta Joan haren anaia.

3. Felipe ta Bartolome, Tomas eta Mateo publikanoa, Santiago Alfeoin semea eta Tadeo.

4. Simon Kananeo eta Judas Iskariote, [Jesus saldu] zuen hura.

5. Hok hamabiak igorri zituen Jesusek, manatzen zabelaik eta erten zuelaik:

–Etzaiztela goan jentilen alderdietara {aldetara}, ez ere sartu samaritanoen ziudadetan.

6. Baño lehenago zoazte Israelgo etxeko ardi galdu ziren hetara.

7. Zoazte eta predika zazue, erte'izuelaik [zeruko] erreinua hurbildua dela.

8. Senda zitzue eriak, pitzaz zitzue {pitzaraz zatzue} hilak, garbi zitzue lepradunak, ken zitzue [debruak]. Graziaz errezibitu zinuten, eman zazue graziaz.

9. Etzazuela izan ez urreik ez zilarrik, ez diruik zuen faxetan.

10. Ez alforjaik bideko, ez bi soñeko, ez oiñetakoik, ez makilik; bada {zeren} langileak merexi du bere yatekoa.

11. Eta edozein ziudade edo herrietan sar zaitezten, galde in zazue nor den han merexi duena, eta egon zaizte [haren etxean], handik atra artaño.

12. Etxe batean sartzen zatelaik, saluta zazue erranez: «Izan bedi bakea etxe huntan».

13. Eta baldin etxe hark merexi badu, zuen bakea haren gañera [e]torriko da; baño baldin ez badu merexi, zuen bakea zuengana itzuliko da.

14. Norbaitek noiz ere ez bazaizte errezibitzen, ez zuen hitzak aitzen, etxe edo ziudade hartaik atratzean iñarros {inarrots} zazue zuen oiñetako errautsa.

15. Egiazki erten datzuet, Sodomako ta Gomorrako lurra, ziudade hura baño hobeki tratatua izain dela juizi[o]ko egunean.

16. [I]kus'azue ardiak otsoen erdira bezala igortzen zaiztedala. Izan zaizte, bada {beraz}, [zugur, zuhur] sugeak bezala, eta sinple usoak bezala.

17. Eta guarda zaizte gizon[enganik, zeren] beren audientzietara eremanaziko zaizte eta beren sinagogetan azotatuko zaizte;

18. Gobernadoreen eta erregeen aitzinera eremanak izain zate neregatik, heken eta jentilen aitzinean atestiguatzeko.

19. Eta eremanak izaten zatelaik, etzaiztela pentsatzen yarri nola edo zer beha'itzuen mintzatu, zeren ordu berean emana izain zaitzue zer beha'izuen erran.

20. [Zeren] etzate zuek mintzatzen zatenak, baño zuen Aitain Izpiritua zuen baitan mintzo dena.

21. Eta anaiak heriotzera entregatuko du bere anaia, eta aitak bere semea; eta umeak guratsoen {gurasoen} kontra goratuko dire, eta hilaziko tuzte.

22. [Denek] gaitzetsiak izain zate nere izenaingatik {izenagatik}; baño azkeneraño irauten duena, hura salbatua izain da.

23. [Herri] batean pertsegitzen zaiztelaik, iges in zazue bertze batera. Egiazki erten datzuet, ez tutzuela akituko Israelgo ziudade guziak, Gizonain Semea [e]torri artañokoan.

24. [Ikastalea] ezta bere maixtrua {maistrua} baño gehiago, ezta mutila're bere nausia baño gehiago.

25. [Ikastaleak] aski du bere maixtrua bezala izatea, eta mutilak bere nausia bezala. Baldin aita familiakoa Beeltzebul deitu bazuten, zenbatez gehiago haren etxeko mutilak?

26. Etzazuela, [beraz], heken beldurrik izan! [Zeren ez baita] deus gordeik agertuko eztenik, ezta're sekretuik yakitera allegatuko eztenik.

27. Ilunbetan erten datzuetena {datzuedana} errazue argitan, eta begarrira aitze'uziena predika zazue tellatuen gañean.

28. Ez beldurrik izan gorputza hiltze'utenendako eta arima hilazi eztezaketenendako; lehenago beldur izan beha'izue arima ta gorputza infernura {ifernura} bota de[t]zakenaindako.

29. Ez ote dire benturaz saltzen bi txori ttipi {ttiki} bi marabeditan? Eta bizkitartean ezta hetaik bat lurrera eroriko zuen aitak nahi gabe {gabetanik}.

30. Oño zuen buruko ileak ere, denak kontatuak dire.

31. Ez, bada, izan beldurrik, [zeren] asko txori baño hobeak zate zuek.

32. Nork ere gizonen aitzinean salatzen banau, nik ere salatuko'ut nere Aita [zeruan] denain aitzinean.

33. Eta nork ere gizonen aitzinean ukatzen banau, nik ere ukatuko'ut nere Aita [zeruan] denain aitzinean.

34. Etzazuela uste lurrera bakeain ekartzera [e]torri nitzela; e'nitzen bakeain ekartzera [e]torri, baño bai ezpata.

35. [Zeren] *gizona bere aitaikin, eta alaba bere amaikin, eta erreiña bere amiarrebaikin* {*amaiarrebaikin*} *[makurtzera* etorri nitzen].

36. Eta *gizonain etsaiak bere etxekoak [izain dire]*.

37. Nork ere maite baitu bere aita edo bere ama ni baño gehiago, e'nau ni merexi; eta nork ere maite baitu bere semea edo bere alaba ni baño gehiago, e'nau ni merexi.

38. Nork ere ezbaitu bere gurutzea hartzen eta neri segitzen, e'nau ni merexi.

39. Nork ere kontsegitzen {kausten} baitu bere bizia, galduko du; eta nork ere galtzen baitu bere bizia neregatik, kontsegituko du.

40. Zuek errezibitzen zaiztenak, ni errezibitzen nau; eta ni errezibitzen nauenak, ni igorri nauena errezibitzen du.

41. Profeta bat profeta izenean errezibitzen duenak, profeta saria errezibituko du; eta yustu bat yustu izenean errezibitzen duenak, yustu saria errezibituko du.

42. Eta nork ere [e]maten baitu baso bat ur hotz solo edatera ttipi hotaik bati nere [ikastale] izenean, egiazki erten datzuet, eztuela galduko bere saria.

11. KAPITULUA

[Joan Bataiazaleain galde itea.
Jesus Galileako hiriei erreportxu iten.
Ebanjelioa ttipiei agertua.
Aita eta Semea. Zatozte neregana.]

1. Jesusek bere hamabi [ikastaleei instrukzio hok ematen akitu zuelaik, handik goan] zen, heken ziudadetan erakustera ta predikatzera.

2. Eta nola Joanek, gartzelan zagolaik, Kristoin obrak aitu baitzituen, bere [ikastale]etaik bida igorri zituen,

3. [Galde itera]:

–Zu zara «[E]torri behar duena», edo bertze bat esperatu behar dugu?

4. Jesusek errespondituik, erran zaben:

–Zoazte, eta konda diozozue Joani [i]kusi eta aitu'izuena.

5. Itsuek ikuste'ute, manguak {mainguak} badabiltza, lepradunak garbituak dire, soorrek aitze'ute, hilak piztuak dire, eta Ebanjelioa yakitera [e]mana da pobrei.

6. Eta zorionekoa da nitaz eskandalizatuko eztena!

7. Hek goan ziren bezen laixter {Hek gan zirenean berehala}, Jesus Joanez mintzatzen hasi zen yendei:

–Zeren ikustera atra zate desertura? Kana bat haizea[k] higitua?

8. Baño zeren ikustera atra zate? Gizon bat arropa delikatuz beztitua? Segurki, arropa delikatuz beztitzen direnak {Zinez, arropa delikatuak beztitzen dituztenak}erregeen etxetan dire.

9. Baño zren ikustera atra zate? Profeta baten? Segurki {Zinezki} erten datzuet, eta oñik {oraño} profeta bat baño gehiago dena.

10. [Zeren] hau da, zeintaz eskribitua baita: *Huna, nere aingirua zure aitzinera igortze'ut, zeñek {zeñak} zure bidea apainduko baitu zure aitzinean.*

11. Egiazki erten datzuet, [e]maztekietaik sortu direnen artean eztela atra Joan [Bataiazalea] baño haundiagoik; bizkitartean, [zeruko] erreinuan den ttarrena {ttikiena} hura baño haundiago {handiago} da.

12. Joan [Bataiazaleain denboratik orai artaño, zeruko] erreinua bortxatua da, eta indar iten duenak erematen du.

13. [Zeren] profeta guziek eta legeak Joanen denbora artaño profetizatu zuten.

14. Errezibitu nahi balin ba'izue, [Joan hoi bera da etorri] beharra den Elias hura.

15. Aitzeko begarriak [d]ituenak ai beza.

16. Bañan noin itea duela errain {erranen} dut jenerazio hunek? Iduri du plazan yarriak dauden mutikoei, beren iduriei oihuka.

17. Erte'ute: «Kantatu dugu eta etzate dantzatu; aire tristeak kantatu tugu eta eztuzue nigar in».

18. Joan etorri zen ez yaten, ez edaten etzuela, eta «[Debrua] du» erte'ute.

19. Gizonain Semea [e]torri zen, yaten eta edaten duena, eta erte'ute: «Huna gizon bat gormanta eta ardo edalea, publikanoen eta bekatarien aixkidea!». Bañan yakinduria haren [umeek] ezautua izan da.

20. Orduan [Jesus] aunitz milagro [i]kusi zituzten ziudadeen mehatxatzen hasi zen, etzirela damutu {Orduan [Jesus] anitz milagro egin zuen hiriei erreportzu/erreportxu egiten hasi zen ez zirela urrikitu}.

21. –Zorigaitz zuri, Korozain! Zorigaitz zuri, Betsaida! [Zeren] zuen artean inak izan diren milagroak Tiron edo Sidonen inak izan balire, aspaldion penitentzia ina izain zuten {aspaldi du urrikituko zirela} zilizioan eta hautsean.

22. Horrengatik erten datzuet, zuendako baño tratu eztiagoa izain dela Tiro eta Sidonendako juizioko egunean {oraño}.

23. Eta zu, Kafarnaun,

goratuko ote zara benturaz zeruraño? Infernuraño yautsiko zara.

Zeren zure artean inak izan diren milagroak Sodoman inak izan balire, benturaz iraunen zuten gaurko egunean {oraño}.

24. Horrengatik erten datzuet sodomarrek zuk baño tratu eztiagoa izain dutela juizioko egunean.

25. Denbora hartan hitza harturik, Jesusek erran zuen:

–Laudatzen zaitut, Aita, zeruko ta lurreko Yauna, gauz[a] hok gorde zintuelakotz yakintsunei eta entendituei, eta agertu haur ttarrei.

26. Hala da, Aita: hala izan delakotz zure nahikeria.

27. Nere Aitak [gauza guziak nere eskuetan utzi zituen]. Eta niork eztu [e]zautzen Semea, Aitak baizik; niork ere eztu [e]zautzen Aita, Semeak baizik, eta harek, zeñi Semeak ezautazi nahiko baitio.

28. Zatozte neregana nekatuak eta kargatuk zaretenak, eta nik lagunduko zaiztet {zauztet}.

29. Ereman zazue zuen gañean nere uztarria, eta ikas'azue nereganik zein mantso ta umila naizen bihotzez, eta harpatuko' {kaustuko}'uzie deskantsua zuen arimendako.

30. Zeren nere uztarria eztia da eta nere karga arina.

12. KAPITULUA

[Larunbatean zile eztena.
Esku-iñarra larunbatean sendatua.
Jesus eta Beeltzebul. Arbola eta fruitua.
Izpiritu gaixtoa berriz etorria.
Austroko erregina.]

1. Denbora hartan bazabilan Jesus larunbat batez ogi batzuetan, eta haren [ikastaleak], gose izanez, ogi buru ebakitzen hasi ziren eta hetaik yaten.

2. Fariseoek, hoi [i]kusi zutelaik, erran zioten [Jesusi]:

–Horra non zure [ikastaleek] ite'uten, larunbatean itea zile eztena {zilegi ez dena egitea}.

3. Hark erran zaben:

–Eztuzue leitu zer in zuen Dabidek, hark eta haikin zirenak gosetu ziren aldi batez?

4. Nola sartu zen Yangoikoain etxean eta proposizioneko ogiak yan zituen, heken yatea zile etzitzaion denboran, ez hari eta [ez] haikin zirenei, baño [apezei] bakarrik?

5. Edo eztuzue leitu Legean [apezek] larunbatean hauste'utela tenpluan larunbata, eta bekatuik gabetanik {gabe} gelditzen direla?

6. Bada erten datzuet, hemen dela tenplua baño haundiago dena.

7. Eta bazinakizue zer [erran nahi duen honek]: *Miserikordia nahi dut, eta ez sakrifizioa*, behiñere etzintuzkete inozenteak kondenatuko.

8. Zeren Gizonain Semea larunbatain Yauna're da.

9. [Jesus] handik aldatu ondoan, heken sinagogara etorri zen.

10. Han gizon bat [harpatu zuen], esku bat iñartua zuena, eta kargu iteagatik, galdetu zioten, erten zutelaik:

–Zile ote [da] larunbatean sendatzea?

11. Harek erran zaben:

–Nor izain da zuen artean ardi bat duena eta, hura larunbatean zilo batera erortzen bada, hartu ta atrako eztuena?

12. Bada, zenbat ez tu gizon batek ardi batek baño gehiago balio? [Beraz], zile da larunbatean ongi itea.

13. Orduan gizonai erran zion:

–Heda zazu zure eskua.

Hark hedatu zuen, eta bertzea bezen ongi gelditu zitzaion.

14. Bañan halere {hala ere}, fariseoek, handik atrata, beren artean [konsultatu zuten nola hilaziko zuten Jesus].

15. Jesusek [hura] ezautuik, leku hartaik erretiratu zen. Aunitz yende goan zen haren gibeletik, eta denak sendatu zituen.

16. Eta manatu zaben etzezatela [bera] deskubritu {agertu}.

17. Isaias profetak erran [zuena betea] izan zaien, zeñek baitio:

18. *Huna nere [zerbitzari hautatu dudana], nere ongi maitatua, zeñen baitan nere arimak atsegina hartu zuen. Hunen gañean paratuko'ut nere izpiritua, eta yustizia adiaziko du yendei.*

19. *Eztu okasioik piztuko {iñardetsiko}, eztu oihuik inen, ez ere aituko haren boza niork plazetan.*

20. *Eztu kraskatua {hautsia} den kana xehatuko, ezta're ekea botatzen duen mitxa itzaliko, ahalik eta yustizia nausitu artaño.*

21. *Yendeek haren izenean esperatuko'ute.*

22. Orduan debruztatu bat ekarri zioten, itsua eta muttua, eta sendatu zuen, halako moduan, non mintzatu ta [i]kusi baitzuen.

23. Yende guziak harrituak gelditzen ziren, eta erten zuten: «Hau ote da, benturaz, Dabiden Semea?».

24. Baño fariseoek, hoi aituta, erten zuten:

–Hunek [debruak] eztitu kentzen Beeltzebul [debruen] printzipeain birtutez baizik.

25. Jesusek, heken pentsamentuak yakinik, erran zaben:

–Bere kontra makurtu den erreinua destruitua izain da, eta bere kontra makurtua izan den [hiri] edo etxeak eztu iraunen.

26. Eta baldin Satanasek Satanas kanpora ematen badu, bere kontra makurtua da, [beraz], nola iraunen du haren erreinuak?

27. Eta [nik debruak] Beeltzebulen birtutez kentzen ba'itut, noin birtutez kentzen tuzte zuen umeek? Horrengatik izain dire berak zuen juezak.

28. Bañan baldin nik [debruak] Yangoikoain izpirituaz kentzen ba'itut, segurki zuengana allegatuko da Yinkoain erreinua.

29. Edo nola sar daike norbait gizon azkar baten etxean, eta haren edergalluak ebatsi {arrobatu}, ez balin badu lehenik gizon azkar hura lotzen? Orduan ebatsiko du haren etxea.

30. Nerekin eztena nere kontra da, eta nerekin biltzen eztuenak, barraiatzen {barratzen} du.

31. Hortakotz erten datzuet: Bekatu ta arnegu guziak gizonei barkatuak izain dire, baño izpirituko arnegua ezta barkatua izain.

32. Norbait Gizonain Semeain kontra mintzatzen bada, barkatua izain zaio; baño Izpiritu Sainduain kontra mintzatzen denak eztu barkamenduik izain, ez mende huntan, ez datorrenean.

33. Edo in zazue arbola ona eta haren fruitua ona, edo in zazue arbola gaixtoa eta haren fruitua gaixtoa, [zeren] arbola fruitutik ezagutua [baita].

34. [Sube] kasta! Nola erran detzakezue gauz[a] onak, zerok gaixtoak zaten denboran {gaistoak zaretenean}? Bada, bihotzeko abundantziatik mintzo da agoa.

35. Gizon onak tesoro onetik atratzen tu gauz[a] onak; baño gizon gaixtoak tesoro gaixtotik atratzen tu gauza gaixtoak.

36. Eta erten datzuet, gizonek erran detzaketen {dituzketen} solas alfer guziez emain dutela kontu juizioko egunean.

37. Bada, zure hitzez izain zara garbitua eta zure hitzez izain zara kondenatua.

38. Orduan eskriba ta fariseoetaik zenbaitek erresponditu zioten, erten zutelaik:

–Nausia, zutazko señalea [i]kusi nahi dugu.

39. [Jesusek] erresponditu zaben ziolaik:

–Jenerazio gaixto ta adulteratzaleak señalea eskatzen {galdetzen} du! Baño etzaio [e]mana izain señaleik, Jonas profetainaz landa bertzeik {profetaina bertzeik}.

40. Bada, nola *Jonas hiru egun ta hiru gauez baleain sabelean egon baitzen*, gisa berean Gizonain Semea hiru egun ta hiru gauez egoin da lurrain barnean.

41. Ninibarrak juizioko egunean jenerazio hunen kontra goratuko dire, eta kondenatuko'ute urrikimendua in zutelakotz Jonasen predikazioaz. Eta huna leku huntan Jonas baño gehiago.

42. Austroko erregina {erregiña} juizioko egunean jenerazio hunen kontra goratuko da eta kondenatuko du, lurrain azken finetik etorri zelakotz Salomonen yakinduriain aitzera. Eta huna leku huntan Salomon baño gehiago.

43. Izpiritu gaixtoa gizon batenganik atra delaik, badabila leku idorretan deskantsu bila, eta eztu harpatzen.

44. Orduan erten du: «Nere etxera itzuliko naiz, zeintaik atra bainitzen {atera bai naiz}». Eta itzuli ondoan, [etxea hutsa harpatzen du, garbitua eta apaindua].

45. Orduan badoaie, eta bertze zazpi izpiritu hartzen tu, bera baño gaixtoagoak, eta barnera sartzen dire eta han egoten dire; eta gizon haren azkeneko kondizioa lehenbizikoa {lehentabizikoa} baño gaixtoagoa da. Gauza bera gertatuko zaio jenerazio gaixto huni.

46. Oñik [Jesus] yendei mintzo zen denboran, bere ama ta anaiak kanpoko aldean zauden {ziren}, hura mintzatzea galdetzen zutelaik.

47. Batek erran zion:

–Horra zure ama, ta zure anaiak kanpoko aldean daude, eta zure bila dabiltza.

48. [Jesusek] errespondituik, erran zion:

–Nor da nere ama eta nor dire nere anaiak?

49. Eta eskua [ikastaleen] aldera hedatuik, erran zuen:

–Huna nere ama ta nere anaiak.

50. Bada, nere Aita [zeruan] denain borondatea iten duena, hura da nere anaia, nere arreba eta nere ama.

13. KAPITULUA

[Jesusek parabolaz predikatu. Ereileain parabola.
Ogi arteko irakain parabola.
Mostaza haziain eta orantzain parabolak.
Tesoroain eta perla ederren parabolak.
Sareain parabola. Jesus bere herrian gaitsetsia.]

1. Egun hartan berean, Jesus etxetik atrata, itsasoain bazterrean yarri zen.

2. Eta harengana {haingana} yendetza haundi bat hurbildu zen, halako maneran, non, barko batean sartuik, han yarri zen. Eta yende guzia itsas bazterrean zutik zagon.

3. Eta aunitz gauza {gauza anitz} erran zaben parabolaz, ziolaik: «Huna aldi batez {behin batean}, hazi-ereile bat ereitera atra zen.

4. Ereiten ai zelaik, zenbait hazi bideain ondoan erori ziren, eta aireko hegaztinak [e]torri ziren eta denak yan zituzten.

5. Bertze zenbait kaskallu lekura erori ziren, non ez baitzen lur guti baizik, eta bela sortu ziren, etzutelakotz lur gizena.

6. Bañan iruzkia atra zelaik, erre ziren eta iñartu ziren, etzutelakotz zañik.

7. Bertze zenbait elorrien artera erori ziren, eta elorriak haunditu {goratu} ziren eta ito zituzten.

8. Eta bertze zenbait lur onera erori ziren, eta fruitu [e]kartzen zuten, batek ehun {egun}, bertzeak hiruetan hogei, eta bertzeak hogeita hamar.

9. Aitzeko begarriak [d]ituenak ai beza».

10. [Ikastaleak] hurbilduik, erran zioten:

–Zergatik mintzatzen [zaizkote] parabolaz?

11. [Jesusek] erresponditu zaben:

–[Zeren zuei emana baitzaitzue zeruko] erreinuko misterioak yakitea, baño hoiei etzaie [e]mana.

12. [Zeren duenai emana] izain da eta gehiago izain du, baño eztuenai duena're kendua izain zaio.

13. Hortako {Hortarakotz} mintzatzen natzaie parabolaz: zeren ikustean eztute [i]kusten eta aitzean eztute aitzen, ez ere entenditzen.

14. Hetan Isaiasen profezia [betetzen] da, zeñek baitio:

Aituko'izue zuen begarriez eta eztuzue entendituko, eta begiratuz {behatuz} ikusiko'izue, eta eztuzue [i]kusiko.

15. *Zeren [herri] hunen bihotza loditu da, eta beren begarriez aitu'ute pisuki, eta begiak hetsi tuzte, eztezaten begiez ikusi eta eztezaten begarriez aitu, eta eztezaten bihotzez entenditu, eta ez daitzin {daiten} konberti, eta eztetzaten senda.*

16. Bañan zorionekoak zuen begiak, ikuste'utelakotz, eta zuen begarriak, aitze'utelakotz!

17. Egiazki erten datzuet, aunitz profeta ta yustuek deseatu zuten zuek ikuste'izuena ikustea eta etzuten ikusi, eta zuek aitze'izuena aitzea eta etzuten aitu.

18. Zuek, bada, ai zazue hazi-ereile haren parabola[k zer erran nahi duen].

19. Erreinuko hitza aitzen duenai eta entenditzen eztuenai, Gaixtoa etortzen zaio eta haren bihotzean erein zena hartzen du; hau da hazia, «bideain ondoan» ereina izan zena.

20. «Kaskallu lekuan» ereina izan zen hazia, hau da hitza aitzen duena eta ordu berean bozkarioz {bozkarioaikin} errezibitzen duena.

21. Baño eztu bere baitan zañik, horrengatik iraupen gutikoa da. Eta hitzaingatik nahigabea eta pertsekuzioa allegatzen zaiolaik, bela itzultzen da.

22. «Elorrien artean» ereina izan zen hazia, hau hitza aitzen duena da, bañan mundu huntako kuidadoek eta ondasunen engañoak itotze'ute hitza, eta fruitu gabe gelditzen da.

23. «Lur onean» ereina izan zen hazia, hau hitza aitzen duena da eta entendatzen duena, eta fruitua [e]maten duena; eta batek ehun ematen du, eta bertzeak hiruetan hogei, eta bertzeak hogeita hamar.

24. [Jesusek] bertze parabola bat [proposatu] zaben, erten zuelaik: «[Zeruko] erreinuak iduri du bere landan hazi ona erein zuen gizona.

25. Eta gizonak lo zauden denboran, haren etsaia etorri zen, eta ogiaren erdian iraka erein zuen eta goan zen.

26. Hazia sortu ondoan, haunditu zelaik eta fruitua [e]karri, orduan iraka're agertu zen.

27. [Orduan], aita familiakoain mutilak etorriik, erran zioten: "Yauna, etzinuen benturaz hazi ona erein zure landan? Bada, nondik heldu da iraka?".

28. Erresponditu zaben: "Gizon etsai batek in du hoi". Eta mutilek erran zioten: "Nahi'zu goazin eta bil zagun?".

29. Erresponditu zaben: "Ez, eztaien gerta, iraka atratzean, ogia're haikin batean atratzea.

30. Utz'azue bat eta bertzera haunditzera igitatzeko denbora [arte], eta igitatzekko denboran igitariei {pikatzalei} errain dabet: Bil zazue lehenik iraka eta lot zazue matxoka {multzuka} erretzeko, baño ogia bil zazue nere granerora"».

31. Bertze parabola bat [proposatu] zaben, ziolaik: «[Zeruko] erreinuak mostaza hazia iduri du, gizon batek hartuta, bere landan erein zuena.

32. Hau egiazki da hazietan den ttarrena; baño haunditu ondoan, baratze landare guziak baño haundiago da, eta arbola bat iten da, gisa batean, non haren adarretan aireko hegaztinek beren kafiak iten baitituzte».

33. Bertze parabola bat erran zaben: «[Zeruko erreinuak orantza] iduri du; [e]mazteki batek hartuta, hiru irin negurritan, dena hartzitu artaño gordetzen duen orantza».

34. Gauz[a] hok guziak erran zituen Jesusek [herriai] parabolaz, eta etzitzaion mintzatzen parabolaik gabetanik.

35. [Yaunak profetain medioz erran zuena betea] izan zaien, zeñek baitio:

Edekiko'ut nere agoa paraboletan; adiaziko tut munduain hastetik gordeak dauden {diren} gauzak.

36. Orduan, yendeak despeituik, etxera etorri zen. Bere [ikastaleak] harengana hurbilduik, erran zioten:

–Esplika dakuzu landako irakain parabola.

37. [Jesusek erran zaben]:

–Hazi ona ereiten duena, Gizonain Semea da.

38. Landa mundua da. Hazi ona erreinuko umeak dire. Eta iraka, Gaixtakeriain umeak dire.

39. Erein zuen etsaia debrua da. Igitatzea munduain akabantza da. Eta igitariak aingiruak dire.

40. Hala nola iraka biltzen baita, [beraz], eta suan erretzen, gisa berean izain da munduain akabantza.

41. Gizonain Semeak bere aingiruak igorriko tu, zeñek haren dermiotik eskandalo guziak eta gaixtakeriai [e]maten direnak bilduko tuzte;

42. Eta labe suzkora botatuko tuzte. Han izain da marraska eta hortz karraska.

43. Orduan yustuek dirdiratuko'ute iruzkiak bere Aitain erreinuan bezala. Aitzeko begarriak'ituenak, ai beza.

44. [Zeruko] erreinuak iduri du landa batean gordea dagon tesoro bat, gizon batek harpatu ondoan gorde duena; eta, bozkarioz betea, badoaie eta duen guzia saltzen du eta landa hura erosten du.

45. Modu berean, [zeruko] erreinuak iduri du perla ederrak bilatzen tuen gizon komertziante bat.

46. Bat prezio haundikoa harpatu ondoan, goan dena eta, dituen guziak salduik, hura erosi duena.

47. [Zeruko] erreinuak oño sare bat iduri du, itsasora botatu ta arrain jenero guziak biltzen tuena.

48. Bete delaik itsas bazterrera atratze'ute, eta han yarri ondoan, hoberenak hautatzen tuzte eta beren untzietan sartzen, eta gaixtoenak kanpora botatzen.

49. Berdin {Bardin} izain da munduain akabantzan; aingiruak atrako dire eta gaixtoak yustuetaik berexiko tuzte.

50. Eta suain labean sartuko tuzte; han izain da marraska eta hortz karraska.

51. Entenditu tutzue gauz[a] hok guziak?

–Bai –[erresponditu zioten hek].

52. [Harek] erran zaben:

–Horrengatik zeruetako erreinuain gañean ikasia den eskriba [bakotxak] iduri du bere tesorotik gauza berriak eta zagarrak atratzen tuen aita familiako bat.

53. Jesusek parabola hok akitu zituelaik, handik goan zen.

54. Bere herrira [e]torri zen, eta beren sinagogetan erakusten zaben, halako moduan, non [harritzen] ziren eta erten zuten: «Nondik heldu zaizko huni yakinduri ta milagro hok?

55. Ezta benturaz hau zurginain semea? Ezta hunen ama Maria deitzen, eta hunen anaiak Santiago, Jose, Simon eta Judas?

56. Eta hunen arrebak eztire denak gure artean? Nondik, bada, heldu zaizko huni gauz[a] hok guziak?».

57. Eta haren haunditasunaz eskandalizatzen ziren.

Baño Jesusek erran zaben: «Ezta profeta ohore gabeik, non ezten bere herrian eta bere etxean».

58. Eta etzuen han milagro aunitz in, heken sineste falta zela medio {sinets gabetasuna zelakotz}.

14. KAPITULUA

[Herodesek Joan Bataiazalea hilazi.
Bortz ogien milagroa. Jesus ur gañean oiñez.
Sendatzeak Genesaret aldean.]

1. Denbora hartan, Herodes Tetrarkak Jesusen fama aitu zuen.

2. Eta bere mutilei erran [zaben]: «Hau Joan [Bataiazalea da], hiletaik piztu zena, eta horrengatik birtuteak badire horren baitan».

3. Zeren Herodesek preso harrazi {harrarazi} zuen Joan, eta lotuik gratzelan sarrazi {pararazi}, Herodias bere anaiain andrea zela medio {andreaingatik}.

4. [Zeren Joanek erten zion Herodesi]: «Etzaizu zile haren izatea».

5. [Herodesek] hilazi nahiko zuen, bañan yendeaindako beldur zen, zinezko profetatzat idukia zelakotz.

6. Baño Herodesen sortegunean, Herodiasen alaba denen {guzien} aitzinean dantzatu zen, eta Herodes hartaz gustatu zen.

7. [Horrengatik], yuramentuain azpian agindu [zion], eskatzen zion guzia emain ziola.

8. Eta hark, ama[k] prebenitua izanik, erran zion: «[E]kar'tzu hunat plater batean Joan [Bataiazaleain] burua».

9. Errege tristatu zen, baño in zuen yuramentuaz, eta haikin {harekin} mahaian zirenengatik, eman ziozotela manatu zuen.

10. Eta Joani gartzelan lepoa moztera igorri zuen.

11. Haren burua plater batean [e]karria izan zen eta neskatxai [e]mana, eta harek bere amai ereman [zion].

12. [Joanen ikastaleak] etorri ziren, eta haren gorputza hartu zuten eta enterratu zuten; eta Jesusi berria erematera goan ziren.

13. Jesusek aitu zuelaik, handik erretiratu zen barko batean, leku [bazter] batera. Yendeak hoi yakinik, ziudadetaik atrata, oiñez segitu zioten.

14. [Barkotik] atra zelaik, yendetza haundi bat ikusi zuen, eta hetaz urrikalmendua izan zuen, eta heken eriak sendatu zituen.

15. Atsaldea {Arratsa} allegatuik, bere [ikastaleak] harengana hurbildu ziren eta erran zioten:

–Leku hau desertua da eta ordua yadeneko {ya} pasatua da. Igor zitzu yende hok, herrietara doazin {gan diten} eta yatekoak eros detzaten.

16. Jesusek erran zaben:

–Eztute goan beharrik; [e]mayozue zuek yatera.

17. Erresponditu zioten:

–Eztugu hemen bortz ogi ta bi arrain baizik.

18. Jesusek erran zaben:

–[E]kar zitzue hunat.

19. Eta yendeai belarrain gañean etzan zeitezila {zitezela} manatuik, bortz ogiak eta bi arraiñak hartu zituen, eta begiak zerura goitutuik {goititurik}, eskerrak eman zituen eta ogiak hautsi zituen, eta [ikastaleei e]man zazten, eta [ikastaleek] yendei.

20. Denek yan zuten eta ase ziren. Eta soberatuak goratu zituzten, hamabi zare {saski} puskez beteak.

21. Yan zutenak bos {bortz} mila gizon ziren, emaztekiak {emakumeak} eta haurrak kontatu gabe.

22. Handik bela Jesusek bere [ikastaleak] barkora iganazi zituen, eta bera baño lehenago pasazi urez bertze aldera, yendeak despeditu bitartean.

23. Eta despeitu ondoan, mendi batera igan zen, bakarrik, otoitz itera. Ilundu zuelaik {Arratsa etorri zenean}, han zen bera bakarrik.

24. Eta barkoa itsasoain erdian olade[k] asaltatua zen, haize kontrarioa zuelakotz {zeren haizea kontra zen}.

25. Baño gauain laugarren bellan, Jesus hekengana goan zen itsasoain gañean {ganean} ibiliz.

26. {Hain} [ikastaleek] itsasoain gañean zabilala [i]kusi zutelaik, harritu ziren eta erten zuten: «Mamu bat da!» Eta beldurrez oihuka hasi ziren.

27. Bañan Jesus denbora berean mintzatu zitzaien {zitzaioten}:

–Izan zazue animu ona! Ni naiz, ez beldurrik izan!

28. Pedrok erresponditu zuen eta erran:

–Yauna, zu balin bazara, mana datazu zuregana urain gañean goateko.

29. Jesusek erran zion:

–Zato.

Pedro barkotik yautsiik, urain gañean ibili zen Jesusengana goateko.

30. Bañan haizea bortitz zagola [i]kusiik, beldur izan zuen; eta nola [ur] barnera {barna} sartzen hasi baitzen, oihu in zuen, ziolaik:

–Yauna, salba nazazu!

31. Bela Jesusek eskua hedatuik hartu zuen, ziolaik:

–Gizon fede gutikoa! Zertako dudatu'izu?

32. Barkoan sartu ziren bezen laixter, haizea eztitu zen.

33. Eta barkoan zirenak etorri ziren, eta adoratu zuten erten zutelaik:

–Egiazki Yinkoain Semea zara!

34. Bertze aldera pasatuik, Genesareteko lurrera goan ziren.

35. Toki hartako gizonek ezautu zuten ondoan, inguru hetara denetara igorri zuten eta zerbait gaitz sufritzen zuten guziak presentatu zitiozten.

36. Arropain bazterra bederen ukitzera uzteaz otoizten [zioten]. Eta ukitu zuten guziak sendatu ziren.

15. KAPITULUA

[Judioen tradizioak eta Yangoikoain nahia.

Zerk zikintzen duen yendea.

Jesusek emazteki kananearrain alaba sendatu.

Eri aunitz sendatu. Jesusek yendetzeai bigarrenez yatera eman.]

1. Orduan Jerusalengo eskriba ta fariseo batzuek {zenbait} harengana etorri ziren, erten zutelaik:

2. –Zure [ikastaleek] zertako hauste'ute zaharren tradizioa? Bada, ez tuzte eskuak garbitzen ogia yaterakoan.

3. [Jesusek] errespondituik erran zaben:

–Eta zuek zertako hauste'izue Yainkoain manamendua zuen tradizioaz?

4. Bada Yaungoikoak erran zuen: *Ohora zitzu aita ta ama*, eta: *Nork ere madarikatzen baitu bere aita edo bere ama, [hura] hil daiela heriotzeaz.*

5. Baño zuek erte'izue: Nork ere erten baitu bere aita edo bere amai «Nik eskeñi dezaketen {dezakedan} dohaya zure probetxutan izain da»,

6. [Harek] eztu bere aita edo bere ama ohoratuko. Eta bano inazi'izue Yinkoain manamendua zuen tradizioaz.

7. [Itxurazaleak]! Ongi profetizatu zuen Isaiasek zuetaz, erten zuelaik:

8. *[Herri] hunek ezpañez ohoratzen nau, baño heken bihotza urrun da nereganik.*

9. *Alferretan ohoratzen naute, gizonen doktrinak eta manamenduak erakutsiz.*

10. [Jesusek] yendeak beregana deituik, erran zaben: «Ai zazue eta entenditu!

11. Eztu agoan sartzen denak zikintzen gizona, baño agotik atratzen denak, hark zikintzen du gizona».

12. Orduan, haren [ikastaleak] hurbilduik, erran zioten:

–Badakizu fariseoak eskandalizatu direla, solas hoi aitu'utelaik?

13. Harek errespondituik erran zuen:

–Nere Aita [zeruan] denak landatu etzuen landarea, zañetik atraia {ateratua} izain da.

14. Utz'itzue! Itsuak dire eta itsu gidariak. Eta itsu batek bertze itsu bat gidatzen balin badu, biak eroriko dire zilora.

15. Pedrok erran zion:

–Esplika dakuzu parabola hoi.

16. Jesusek erran zuen:

–Oñik zuek ere entendimentuik gabe zate?

17. Eztuzue oño entenditzen, agoan sartzen diren guziak sabelera doazila eta leku sekretu batera botatuak direla?

18. Bañan agotik atratzen dena bihotzetik atratzen da, eta hau da gizona zikintzen duena.

19. Zeren bihotzetik pentsamentu gaixtoak atratzen dire, heriotzeak, adulterioak, fornikazioak, [ebastalekeriak], falso testimonioak, arneguak.

20. Gauz[a] hok dire gizona zikintze'utena. Baño eskuak garbitu gabe yateak eztu gizona zikintzen.

21. Eta Jesus handik atrata, Tiroko eta Sidoneko partera goan zen.

22. Dermio hetaik atratzen zen kananear emazteki batek {Kananear emakume parrapio hetarik atratzen zen batek} oihu in zuen ziolaik:

–Yauna, Dabiden semea, urrikal zaite nitaz! Nere alaba [debruak] gogorki {gaitzki} toreatua da.

23. [Baño Jesusek] etzion hitzik erresponditu. Eta [ikastaleak] hurbilduik, otoizten zioten eta erten:

–Igor zazu, zeren gure gibeletik oihuka heldu da.

24. [Jesusek erran zaben]:

–E'naiz [Yaungoikoak igorria, Israelgo] etxeko ardi galdu zirenetara baizik.

25. Baño [emaztekia] etorri zen eta adoratu zuen, ziolaik:

–Yauna, lagun nazazu.

26. [Jesusek] erresponditu zion:

–Ezta ongi ina umeen ogia hartu ta txakurrei botatzea.

27. Harek erran zuen:

–Hala da, Yauna, baño txakur ttarrek {ttipiek} beren nausien mahaitik erortzen diren papurrak yaten tuzte.

28. Orduan Jesusek erran zion:

–[E]maztekia, zure fedea haundia da! In daiela {egin bedi} zurekin zuk nahi'zun bezala. Eta ordu berean sendatua izan zen haren alaba.

29. Jesus handik atra ondoan {handik ganik}, Galileako itsaso ondora etorri zen. Eta mendi batera iganta, han yarri zen.

30. Yendetze haundi bat etorri zen harengana, berekin muttuak zakarzkatela {zekartzatela}, itsuak, mainguak, beso motzak {mantxotak} eta bertze aunitz. Haren oiñetan paratu zituzten, eta sendatu zituen.

31. Yendeak harritzen ziren muttuak mintzatzen ikusteaz, mainguak ibiltzen, itsuak ikusten. Eta Israelgo Yaungoikoa aunitzki laudatzen zuten.

32. Orduan Jesusek, bere [ikastaleak] deituik, erran zuen:

–Urrikaldua naiz yende hotaz, zeren badu yadeneko {yadanik} hiru egun nerekin daudela, eta eztute yatekoik. Eta eztitut baruik igorri nahi, bidean flakiak har detzan {indarrak gal detzaten} beldurrez.

33. [Ikastaleek] erran zioten:

–Nondik izan ahal dezakegu desertu huntan ogiik aski hainbertze yende asetzeko?

34. Jesusek erran zaben:

–Zenbat ogi tutzue?

–Zazpi –[erran zuten hek] eta arrain ttar bakar batzuek {Zazpi eta zenbait arrain ttiki}.

35. [Orduan] yendeai lurrean etzan zaiela manatu [zion].

36. Eta zazpi ogiak eta arraiñak hartuik, eta eskerrak eman ondoan, hautsi zituen eta bere [ikastaleei eman, eta ikastaleek herriari].

37. Denek yan zuten eta ase ziren. Eta soberatu ziren puskez {pusketaz}, zazpi zare beteak goratu zituzten.

38. Yan zutenak lau mila gizon ziren, haurrez ta [e]maztekiez landa {haurrik eta emakumerik kontatu gabe}.

39. [Gero], yendea igorri ondoan, barko batean sartu zen eta Magadango dermiora pasatu zen.

16. KAPITULUA

[Fariseo eta saduzeoak nahasiik.
Fariseoen eta saduzeoen orantza.
Pedrok Jesus Mesias dela erran.
Jesusek bere hiltze-piztea lehenbizikoz aitzinetik erran.
Jesusi segitzea.]

1. Orduan fariseoak eta saduzeoak harengana etorri ziren, haren zirikatzeko intentzioz, eta otoiztu [zioten], zerbait milagro-señale erakusteko zeruan.

2. [Bañan] Jesusek erresponditu zaben:

–Ilunaarrean erte'izue: «Denbora ona inen du, zeren zerua gorri da».

3. Eta goizean: «Denbora txarra inen du gaur, zeren zerua ubel {uel} ta gorri da». Badakizue zeruko itxura [e]zautzen, eta ezin ezautu tutzue denboren señaleak?

4. Jenerazio gaixto ta adulterazaleak señalea eskatzen du! [Bañan señaleik etzaio emain], baizik Jonas profetain señalea.

Eta hek utzita, goan zen.

5. Haren [ikastaleak] urez bertze aldera pasatuik, ogiak hartzea atzendu {ahantzi} zitzaien.

6. Jesusek erran zaben: «Begira zazue, eta guarda zaizte fariseoen eta saduzeoen orantzatik!».

7. Baño {Hortarakotz} pentsatzen zuten eta beren baitan erten: «Hoi dio zeren eztugun ogiik hartu.

8. Jesusek hoi [e]zautuik, erran zaben: «Fede gutiko gizonak, zertako pentsatze'izue zuen baitan, eztuzuela ogiik?

9. Eztuzue oñik konprenitzen {entenditzen}, etzate're oroitzen bos mila gizonendako bortz ogietaz {ogiez}, eta zenbat zare puska goratu zinuten?

10. Ezta're lau mila gizonen zazpi ogietaz, eta zenbat zare puska bildu zinuten?

11. Nola eztuzue konprenitzen, e'natzuela ogiaz erran: Guarda zaizte fariseoen eta saduzeoen orantzatik?».

12. Orduan entenditu zuten guardatzeko erran zuela, ez ogiain orantzatik, baizik fariseoen ta saduzeoen doktrinatik {dotrinatik}.

13. Jesus [Feliperen Zesareara etorri zen, eta bere ikastaleei galdetu zaben]:

–Nor diote gizonek dela Gizonain Semea?

14. Erresponditu zioten:

–Batzuek diote Joan [Bataiazalea], bertzeek Elias eta bertze batzuek Jeremias edo profetaik bat.

15. Jesusek erran zaben:

–Eta zuek nor diozue naizela?

16. Simon Pedrok erresponditu zuen:

–Zu Kristo zara, Yangoiko biziain Semea.

17. [Orduan] Jesusek erran zion:

–Zorionekoa zara Simon, Joanen semea, zeren eztatzu hoi [e]zautazi ez haragiak ez odolak, baño nere Aitak [zeruan] denak.

18. Eta nik erten datzut Pedro (Harri) zarela {zaila}, eta harri hunen gañean goratuko'ut nere Eliza, eta infernuko ateak eztire baliatuko haren kontra.

19. Zuri [emain dauzkitzut zeruko] erreinuko giltzak. Eta zuk lurrean lotuko tutzun guziak, [zeruan] lotuak izain dire; eta lurrean laxatuko tutzun guziak, [zeruan] laxatuak izain dire.

20. Orduan bere [ikastaleei] manatu zaben ez erteko [bera Mesias] zela.

21. Ordutik hasi zen Jesus bere [ikastaleei erten] konbeni zela hura Jerusalenera goatea, eta aunitz [sufritzea] zagarren eta eskriben eta [apezburuen] partetik, eta hila izatea eta hirugarren egunean piztea.

22. Pedrok [Jesus] bazterrera deituik, mehatxatzen hasi zitzaion, ziolaik:

–Holako gauzak urrun, Yauna, zureganik. Etzaizu hoi gertatuko.

23. [Bañan Jesusek], Pedroin aldera itzuliik, erran zion:

–Ken zaite nere aitzinetik, Satanas! Trabu iten datazu, zeren eztituzue entenditzen {konprenitzen} Yaungoikoain gauzak, baño bai gizonenak.

24. Orduan Jesusek erran [zaben] bere [ikastaleei]: «Nere ondotik etorri nahi duenak [gaitsets] dezala bere burua, eta har dezala bere gurutzea eta segi diezatela {eta segi nezala}.

25. Zeren bere bizia salbatu nahi duenak galduko du. Baño bere bizia neregatik galtzen duenak kaustuko du.

26. Zer probetxu atra lezake gizon batek mundu guzia irabaziik ere, baldin bere arima galtzen badu? Edo zer eman lezake gizonak bere arimain trukadan?

27. [Zeren] Gizonain Semeak bere Aitain lorian etorri behar du bere aingiruekin, eta orduan emain [dio] bakotxai bere obren arabera.

28. Egiazki erten datzuet, hemen direnen artean badirela zenbait hilen eztirenak, Gizonain Semea bere erreinuan [e]tortzen ikusi gabe».

17. KAPITULUA

[Jesusen bertze-figura-bat hartzea. Eroain sendatzea.
Jesusek bere hiltzea eta piztea bigarrenez aitzinetik erran.
Jesusek eta Pedrok tenplurako kontribuzioa pagatu.]

1. Handik sei egunen buruan, Jesusek Pedro eta Santiago eta Joan haren anaia berekin hartu zituen, eta mendi gora batera apartago eraman.

2. Eta bertze figura bat hartu zuen heken aitzinean. Haren aurpegiak iruzkiak bezala dirdiratu zuen, eta haren beztidoa elurra bezen txuri {txuria} yarri zen.

3. Eta huna non agertzen diren Moises eta Elias haikin solasean.

4. Orduan Pedrok, hitza hartuik, Jesusi erran zion: «Yauna, on izain da hemen egon gaitzin! Nahi balin ba'izu {Baldin nahi baduzu}, in tzagun hemen hiru etxola, bat zuretako, bertzea Moisesendako, eta bertzea Eliasendako».

5. Oño mintzo zelaik, goibel argi bat etorriik, estali zituen. Eta huna goibeletik boz bat, erten zuela: «Hau da nere seme maitatua, zeintan nere atsegin guzia eman baitut. Ai zazue {Entzun zazue}!».

6. Hoi aitu zutelaik, [ikastaleak] aurpegiz lurrera erori ziren eta beldur haundia izan zuten.

7. Bañan Jesusek, hurbilduik, ukitu zituen eta erran zaben: «Goiti zaizte eta ez izan beldurrik!».

8. Begiak goituta, etzuten nior ikusi, baizik Jesus bakarrik.

9. Hek menditik yausterakoan {yaustean}, Jesusek manatu zaben: «Etzazuela nioi erran zer ikusi [d]izuen, Gizonain Semea hilen artetik piztu artañokoan {arteraño}».

10. Bere [ikastaleek] galdetu zioten:

–Zergatik erte'ute eskribek Eliasek etorri behar duela lehenik?

11. Jesusek erresponditu zaben:

–Elias zinezki {egiazki} [e]torri beharra da, eta gauza guziak konponduko tu.

12. Bañan erten dautzuet Elias etorri zela, eta etzuten ezautu, bañan haikin in zuten nahi zuten guzia. Gisa berean [sufriaziko] diote Gizonain Semeai.

13. Orduan [ikastaleek entenditu zuten Joan Bataiazaleaz] mintzatzen zitzaiela {zitzaiztela}.

14. Yendea zagon lekura allegatu zelaik, gizon bat [e]torri zitzaion eta, haren aitzinean belaunikatuik {belauriko yarririk}, erran zion:

15. –Yauna, urrikal zaite nere semeaz, zeren [eroa da eta aunitz sufritzen] du; bada, maiz erortzen da sura eta maiz urera.

16. Zure [ikastaleei] presentatu'ut, baño ezin sendatu izan dute.

17. Jesusek errespondituik, erran zuen:

–O jenerazio sineste gabea ta gaixtoa! Noiz artaño egon beha'ut zuekin? Noiz artaño aguntatuko datzuet? [Ekar zazue hunat mutikoa].

18. Jesusek mehatxatu zuen, eta [debrua mutikoarenganik] atra zen, eta ordu beretik sendatua izan zen mutikoa.

19. Orduan [ikastaleak] Jesus bakarrik harpatzera {aparte Jesusengana} etorri ziren, eta erran zioten:

–Zergatik ezin kendu izan dugu guk [debru] hoi?

20. Jesusek erran zaben:

–Zuen fede eskasaz {gutiaz}. Zeren egiazki erten datzuet, baldin fedea bazinukete mostaza hazi pikor bat bezen lodi, mendi horri errain zinukete «Pasa zaite hemendik harat» eta pasa laike. Deus ere e'litzake inposible zuendako.

21. Baño kasta hau ezta botatzen otoitzaz eta baruaz baizik.

22. Galilean zirelaik, Jesusek erran zaben: «Gizonain Semea gizonen eskuetara entregatua izain da.

23. Hilaziko'ute, eta hirugarren egunean piztuko da».

[Ikastaleak] tristatu ziren ezin gehiago.

24. Kafarnaunera allegatu zirelaik, didrakma kobratzaleak Pedroingana etorri ziren eta erran zioten:

–Zuen nausiak eztitu didrakmak pagatzen?

25. Erran [zaben]: «Bai».

[Gero, Pedro] etxean sartuta, Jesus mintzatu [zen] lehenik, eta erran zion:

–Zer iduritzen zaitzu, Simon? Lurreko erregeek noinganik kobratzen tuzte tributoak edo nahiz tasak? Beren [umenganik edo harrotzenganik]?

26. Pedrok erresponditu zuen:

–Harrotz[enganik].

Jesusek erran zion:

–[Beraz], umeak libre dire.

27. Hala're eztezaten gaizki hartu, zoazi itsasora eta bota zazu amua, eta lehenbiziko heldu den arraiña, har zazu; eta agoa edekiik, han estatera bat [dirua] harpatuko'izu; har zazu eta [e]main diozu nere ta zure partez {neretako eta zuretako}.

18. KAPITULUA

[Nor izain da haundiena zeruko erreinuan?
Zorigaitz gizonai eskandaloengatik!
Ardi errebelatuain parabola.
Senide artean: bekatua, barkatzea, otoitza.
Barkatu etzuen zerbitzariain parabola.]

1. Ordu hartan [ikaszaleak] Jesusengana etorri ziren eta erran zioten:

–Nor uste'izu dela handiena [zeruko] erreinuan?

2. Jesusek, haur bat deituik, heken erdian paratu zuen.

3. Eta erran [zaben]:

–Egiazki erten datzuet, baldin ez bazate mudatzen eta haur bigurtzen {kanbiatzen eta haurrak bezala egiten}, etzatela sartuko [zeruko] erreinuan.

4. Nor ere, bada, umil yartzen baita haur hau bezala, hura haundiena izain da [zeruko] erreinuan.

5. Eta nork ere holako haur bat nere izenean errezibitzen baitu, ni neroi errezibitzen nau.

6. Nork ere nitan sineste'uten haur ttar hotaik bat galazten baitu, hobe luke lepotik errotarri bat lotzen baliote eta itsasoko zolara botatzen balute.

7. Zorigaitz munduaindako eskandaloengatik! Zeren ezin faltatua da eskandaloak izain direla; baño zorigaitz gizonai, zeñengatik eskandaloa gertatuko baita.

8. Horrengatik, baldin zure eskuak edo zure zangoak galazten bazaitu, motz'azu eta bota zureganik urrun; zeren hobeago da zuretako [betiko] bizian maingu edo besamotz sar zaitezin {zaiten}, ezen ez bi zango edo bi esku izanik, su eternalera botatua izan zaitezin.

9. Eta baldin zure begiak galazten bazaitu, atra zazu eta bota zureganik urrun; zeren hobeago da zuretako [betiko] bizian begi bakarraikin sar zaitezin, ezen ez bi begi izanik gehenako sura botatua izan zaitezin.

10. Guarda zaizte ttar hotaik bat ere gauza gutitako idukitzetik. [Zeren] erten datzuet, heken aingiruek [zeruan beti ikuste'utela nere Aita zeruan] denain aurpegia.

11. Zeren Gizonain Semea galduak zirenen salbatzera [e]torri da.

12. Zer iduritzen zaizue? Gizon batek ehun ardi balin ba'itu, eta hetaik bat errebelatzen bada, eztitu benturaz lauetan hogeita hemeretziak mendietan uzten, eta badoaie errebelatu denain eske?

13. Eta haren harpatzera gertatzen balin bada, egiazki erten datzuet, atsegin {bozkario} gehiago duela hartaz, ezen ez errebelatu eztiren lauetan hogeita hemeretziez.

14. Gisa berean zuen Aita [zeruan] denak ez du nahi ttar hoietaik bat ere gal daien.

15. Horrengatik baldin zure anaiak zure kontra bekatu iten badu, zoazi, eta mehatxa zazu buruz buru. Baldin aitu nahi bazaitu, zure anaia irabaziko'izu.

16. Eta baldin ez bazaitu nahi aitu, oñik har zitzu zurekin gizon bat edo bida, *solas guziak aseguratuak izan daitzin bi edo hiru [lekukoen] aitzinean.*

17. Eta baldin ez ba'itu hek ere aitu nahi, erran diozozu {errozu} Elizai. Eta baldin ez badu Eliza aitu nahi, iduki zazu jentil eta publikanotako.

18. Egiazki erten datzuet, lurrean lotuko tutzuen guziak, zeruan ere lotuak izain dire; eta lurrean laxatuko tutzuen guziak, zeruan ere laxatuak izain dire.

19. Oñik erten datzuet, baldin zuetaik bida lurrain gañean elkarrenganatzen badire, eskatuko'uten guzia izain zaie nere Aita [zeruan denak] emana.

20. Zeren non ere baitire bida edo hiru nere izenean bilduak, han naiz heken artean {erdian}.

21. Orduan Pedrok, hurbilduik, erran zion:

–Yauna, zenbat aldiz barkatuko diot nere anaiai, nere kontra bekatu iten duelaik? Zazpi alditañokoan {alditaraño}?

22. Jesusek [iñardetsi zion]:

–Eztatzut {Ez datzuet} erten zazpi alditañokoan, baño hiruetan hogeita hamar aldiz zazpietañokoan.

23. Horrengatik [zeruko] erreinuak gizon errege bat iduri du, bere [zerbitzariekin] kontua garbitu nahi izan zuena.

24. Kontuen hartzen hasi zelaik, bat presentatu zioten, hamar mila talentu zor ziona.

25. Eta nola ez baitzuen zerekin pagatu, haren nausiak manatu zuen saldua izan zaiela hura, haren andrea, haren umeak eta zituen guziak, eta izan zaiela zorra pagatua.

26. Orduan [zerbitzari] harek, haren oiñetan ahuspeska yarriik, otoizten zuen, ziolaik: «Yauna, har zazu pazientiza eta dena pagatuko datzut».

27. [Zerbitzari] haren nausiak, urrikalduik, libre utzi zuen eta guzia barkatu zion.

28. Bañan [zerbitzari] harek, atra zen bezen laixter, bere mutil lagun bat harpatu zuen, ehun denario zor ziona eta, zintzurretik hartuik, ito nahi zuen, ziolaik: «Paga datak zor naukena {datakena}».

29. Haren lagunak, haren oiñetan ahuspeska yarririk, otoizten zuen, ziolaik: «Har zazu pazientzia pixka bat, eta guzia pagatuko datzut».

30. Bañan hark etzuen aitu nahi izan, eta goan zen eta gartzelan sarrarazi zuen, zorra pagatu artañokoan.

31. Haren bertze mutil lagunak, zer pasatu zen ikusiik, aunitz tristatu ziren, eta pasatu zen guzia nausiai kontatzera goan ziren.

32. Orduan haren nausiak ekarrazi zuen eta erran zion: «[Zerbitzari] gaixtoa! Zor guzia barkatu naken, zeren otoiztu ninduken.

33. Bada, etzuken berdin {ez huen orobat} urrikaldu behar hire mutil lagunaz ni hitaz in nitzen bezala?».

34. Eta haren nausiak, [koleran sarturik], tormentatzalei entregazi zuen, zor zuen guzia pagatu artañokoan.

35. Gisa berean inen du zuekin nere Aita [zeruan] denak, ez balin ba'izue barkatzen zuen bihotzez bakotxak bere anaiai.

19. KAPITULUA

[Ezkontza eta dibortzioko karta. Birjintasuna.
Jesus eta haurrak. Jesusek gazte aberatsari dei.
Aberastasuna salbaziorako (oztopo).
Guzia utzi duten ikastalein saria.]

1. Jesusek solas hok ertetik akitu zuelaik, Galileatik atra zen {gan zen} eta Judeako mugara pasatu zen, Jordanez bertze aldera.

2. Yende aunitzek segitu zioten, eta han heken eriak sendatu zituen.

3. Fariseoak harengana [e]torri ziren haren zirikatzera, eta erran zioten:

–Zile da gizon bati bere andrea edozein motiboz {motibuz} uztea?

4. Erresponditu zuen eta erran:

–Eztuzue leitu gizona hastetik in zuenak, *arra ta emea in zituela*?

5. Eta erran zuen: *Hunengatik gizonak aita ta ama utziko tu, eta bere andreai yuntatuko [zaio], eta bida haragi batean izain dire.*

6. Modu hortan {Hortarakotz} eztire gehiago bida, haragi bakar bat [baizik. Beraz], Yangoikoak yuntatu duena eztezala gizonak berexi {ez beza gizonak berex}.

7. [Erran zioten]:

–Zertako, bada, manatu zuen Moisesek *dibortzioko karta [e]mateko eta andrea uzteko* {*ematea eta andrea uztea*}?

8. [Jesusek] erran zaben:

–Zuen bihotzen gogortasuna dela medio Moisesek permititu datzue zuen andreak uztea, baño hastean etzen hola.

9. Eta erten datzuet, nork ere bere andrea utzi ondoan non ezten fornikazioaz, bertze bat hartzen balin badu, adulterioa [egiten] duela; eta bertze batek, utzia denaikin ezkontzen balin bada, adulterioa [egiten] duela.

10. Bere [ikastaleek] erran zioten:

–Baldin holakoa bada gizonain kondizioa bere andreaikin, ezta konbeni ezkontzea.

11. Jesusek erran zaben:

–Denak eztire hartako {hortarako} kapazidadekoak, baizik solo {xoilki} hala [e]mana izan zaienak {zaiotena[k]}.

12. Zeren badire txikiratuak, beren amain sabeletik hala sortu zirenak; eta badire txikiratuak, beren buruak in tuztenak [zeruko] erreinuain amorioagatik. Dezakenak konprendi beza {Adi dezakenak, adi beza}.

13. Orduan zenbait haur presentatu zitiozten, eskuak heken gañean paratzeko {pausatzeko} eta otoitz iteko, baño [ikastaleek] mehatxatzen zituzten.

14. Jesusek erran zaben: «Utz'itzue haurrak neregana [e]tortzera, etzitzuela debeka, zeren holakoena {horiek bezalakoena} da [zeruko] erreinua».

15. Eta eskuak heken gañean pausatu ondoan, handik goan zen.

16. [Behin, gizon gazte bat etorri] zen eta erran zion:

–Nausi ona, zer ongi in beha'ut sekulako biziain [erdiesteko]?

17. Jesusek erran zion:

–Zertako galdetzen datazu ongi? Bat bakarra da ona, zein Yangoikoa baita. Bañan nahi ba'izu [betiko] bizian sartu, guarda zitzu manamenduak.

18. Harek erran zion:

–Zein?

Eta Jesusek erresponditu zion:

–*Eztuzu hilen; eztuzu adulteratuko; eztuzu ebatsiko; eztuzu [lekukotasun falsorik] errain*;

19. *Ohora zitzu zure aita ta ama; eta zure lagun projimoa maitatuko'izu zere burua bezala.*

20. [Gizon gazteak] erran zion:

–Horiek guziak guardatu tut nere haur denboratik hunat, zer dut eskas oño?

21. Jesusek erran zion:

–Nahi balin ba'izu perfektoa izan, zoazi, sal zitzu zuk tutzun guziak eta [e]man pobrei, eta zeruan tesoro bat izain duzu; gero zato, ta segi nazazu.

22. [Gizon gazteak] solas hok aitu zituelaik, tristatua goan zen, [zeren] bazuen ondasun aunitz {zeren ontasun anitz bazuen}.

23. Jesusek bere [ikastaleei erran zaben]:

–Egiazki erten datzuet, aberats bat nekez sartuko dela [zeruko] erreinuan.

24. Eta erten datzuet oño: Errexago dela [kamelu] bat orratz baten xilotik {zulotik} pasa daien, ezen ez aberats bat [zeruko] erreinuan sartzea.

25. [Ikastaleek] hitz hok aitu zituztelaik, aunitz harritu ziren, eta erran zuten:

–Geroztik nor salba daiteke?

26. Jesusek, heki begira yarriik, erran zaben:

–Gizonendako hoi inposible {inposiblea} da, baño Yinkoaindako denak posible dire.

27. Orduan Pedrok, hitza hartuik, erran zion:

–Huna gu, denak utzi tugunak eta segitu zaitugunak. Zer da, bada, guk izain duguna?

28. Jesusek erran zaben:

–Egiazki erten datzuet, zuek, segitu naizuenak, gauza guziak erreberritzean Gizonain Semea bere majestadeain tronuan yartzen delaik, zuek ere yarriko zatela hamabi kataderen gañean, Israelgo hamabi tribuen yuzkatzeko {yuyatzeko}.

29. Eta nork ere nere izenagatik utziko baititu etxea edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo andrea {emaztea}, edo haurrak, batendako ehun errezibituko du, eta bizi eternala izain du {eta bizi eternalaz gozatuko du}.

30. Bañan aunitz lehenbizko {lehentabiziko} zirenak, azkeneko izain dire, eta azkeneko zirenak, lehenbiziko.

20. KAPITULUA

[Mahastiko langileen parabola.
Jesusek bere hiltzea eta piztea hirugarrenez aitzinetik erran.
Zebedeoin semeen (handinahia). Zerbitzua ikastaleen lege.
Jesusek bi itsu sendatu Jerikon.]

1. [Zeruko] erreinuak gizon aita familiako bat iduri du, argi hastean bere mahastiko langile eske atra zena.

2. Langilekin egunean denario bana emateko konpondu ondoan, bere mahastira igorri zituen.

3. Egunain hirugarren orduan atrata {Oraño bederatziak pontuan aterarik}, bertze zenbait [i]kusi zituen plazan, alfer zeudenak.

4. Eta erran zaben: «Zoazte zuek ere nere mahastira, eta zuzen dena [e]main datzuet».

5. Eta goan ziren.

Oñik egunain seigarren eta bederatzigarren ordua punttuan {Oraño eguerdi hurbilean eta hiruak pontuan} atra zen, eta gauza bera in zuen.

6. Azkenekoz atsalde apalean, eta bertze zenbait harpatu zituen, han zaudenak, eta erran zaben: «Zer ai zate hemen egun guzian alfer?»

7. Hek erresponditu zioten: «Ez gaituelakotz niork lanera deitu yornalean». [Erran zaben]: «Zoazte zuek ere nere mahastira».

8. Ilundu zelaik {Arratsa etorri zenean}, mahastiko nausiak bere maiordomoai erran zion: «Deit zitzu langileak eta paga diotzotzute {paga dietzezu} beren yornalak, azkenekoetaik hasi eta lehenbizikoetaraño».

9. Atsalde apalean goan zirenak [e]torri zirelaik, bakotxak denario bat errezibitu zuen.

10. Lehenbizikoak [e]torri zirelaik, uste zuten heki gehiago [e]main zabela, baño etzuen bakotxak errezibitu denario bat baizik.

11. Eta errezibitzeko denboran aita familiakoain kontra arrenkuratzen ziren, ziotelaik:

12. «Azkeneko hok eztire lanean ordu bat baizik aitu eta gurekin igualatu tutzu, egun osoain ta beroain karga ereman dugunekin!».

13. Bañan hetaik bati erresponditu zion: «Aixkidea, eztatzut bidegabeik iten; etzara konpondu nerekin denario batean {batendako}?

14. Har zazu zurea dena eta zoazi, bada nik azken horri zuri adina [e]man nahi diot.

15. E'naiz benturaz zile nah'utena {nahi dudana} itea? Zure begia gaixtoa ote da, ni ona naizelakotz {zeren ni ona naizen}?».

16. Gisa berean azkenekoak lehenbizikoak izain dire, eta lehenbizikoak azkenekoak. Zeren [aunitz] dire deituak, bañan [guti] hautatuak.

17. Jerusalenera goaterakoan {igatean}, Jesusek bere hamabi [ikastaleak] aparte hartu zituen eta erran zaben:

18. «[I]kuste'izue Jerusalenera goazila, eta Gizonain Semea [apezburuei] eta eskribei entregatua izain da, eta hiltzera kondenatuko'ute.

19. Eta jentilei [emain diote] burlatua, azotatua eta gurutzifikatua izateko; baño hirugarren egunean berriz piztuko da».

20. Orduan Zebedeoin semeen ama harengana hurbildu zen bere semeekin, eta adoratu zuen, zerbait gauza eskatzen ziolaik.

21. Jesusek [galde egin] zion:

–Zer nahi'zu?

Harek erresponditu zion:

–Mana zazu nere bi seme hok zure erreinuan yarriak izan daitzila, bat zure eskuñean ta bertzea zure ezkerrean.

22. Jesusek [ñardetsi] zuen:

–Eztakizue zer eskatze'izuen. Edan ote dezakezue nik edan beha'uten kaliza {kalitza}?

–Badezakegu –[erran zioten].

23. Erran zaben:

–Egia da, nere kaliza edain duzie, baño nere eskuñean edo nere ezkerrean yarriak izatea, etzait tokatzen zuei ematea, baizik nere Aitak destinatua daukan heki.

24. Bertze hamarrek hoi aitu zutelaik, bi anaien kontra bekaiztu ziren.

25. Baño Jesusek beregana deitu zituen eta erran zuen: «Badakizue yendeen aitzindariek beren [herriak] eskuperatzen tuztela? Eta haundienak direnek beren indarra heken gañean enpleatze'utela.

26. [Bañan] zuen artean ezta hala izain, bada, zuen artean haundia izan nahi duena, izan bedi zuen [zerbitzaria].

27. Eta zuen artean lehenbizikoa izan nahi duena, izan bedi zuen [zerbitzaria].

28. Gizonain Semea [e]torri den bezala, ez zerbitzatua izateko, baño zerbitzatzeko, eta bere bizia aunitzen erreskateaindako [e]mateko».

29. Jerikotik atra zirelaik, yendetze haundi batek segitu [zuen Jesus].

30. Eta bi itsu bide bazterrean yarriak, Jesus pasatzen zela aitu zutelaik, oihuka hasi ziren, ziotelaik:

–Yauna, Dabiden Semea, urrikal zaite gutaz!

31. Yendeak mehatxatzen zituen, ixilazteko. Bañan hek oihua gorago iten zuten, ziotelaik:

–Yauna, Dabiden Semea, urrikal zaite gutaz!

32. Orduan Jesus gelditu zen eta, deitu ondoan, erran zaben:

–Zer nahi'zue in dezazueten?

33. Erresponditu zioten:

–Yauna, edekiak izan daitezila gure begiak.

34. Jesusek, hetaz urrikalduik, begiak ukitu zazten {ziozten}. Eta momentu berean ikusi zuten, eta segitu zioten.

21. KAPITULUA

[Jesus Jerusalenen Mesias bezala sartu.
Tenplutik eman han salerosten zaudenak.
Pikoondoaren madarikazioa: fedea eta otoitza.
Bi semeen parabola. Nekazari hiltzaleen parabola.]

1. Jerusalenera hurbildu zirelaik, eta Betfagera allegatu, [Olibetako menditik hurbil, Jesusek bi ikastale] igorri zituen.

2. Erten zabelaik:

–Zoazte zuen parean den herri hortara, eta han asto bat lotua harpatuko'izue {kaustu[ko]'izue} eta haikin bere umea; laxa zazue eta [e]kar daztatzue {dazkidatzue}.

3. Eta baldin norbaitek zerbait erten badatzue, errozue: «Yauna heken beharretan [da], eta bela utziko tu».

4. Bada, hau guzia ina izan zen profetak erran zuena [betea] izan zaien, zeñek baitio:

5. *Errozue Sionen alabai: Huna zure erregea non heldu den eztitasunez betea zuregana, asto baten gañean yarria, eta astokume batekin, kargain azpian dagonain umea.*

6. [Ikastaleak] goan ziren, eta Jesusek manatu zaben bezala in zuten.

7. Astoa ta umea [e]karri zituzten, eta beren arropak gañean paratuik, han yarrazi zuten.

8. Orduan yende multzu haundi batek ere bere arropak bidean hedatu zituen, eta bertze batzuek arbol adarrak ebakitzen zituzten eta bidean hedatzen zituzten.

9. Aitzinean zoazinek eta gibeletik heldu zirenek, oihu iten zuten, ziotelaik:

Hosanna Dabiden Semeai! Bedeikatua {Benedikatua} izan bedi Yaunain izenean heldu dena! Hosanna leku goretan!

10. [Jesus] Jerusalenen sartu zelaik, ziudade guzia mobimentuan yarri zen, eta denek galdetzen zuten:

–Nor da hau?

11. [Yendeak erten zuen]:

–Hau Jesus profeta da, Galileako nazaretarra.

12. Jesus Yangoikoain tenpluan sartu zen, eta kanpora [eman] zituen tenpluan erosten ta saltzen ai ziren guziak, eta kanbiatzalen mahaiak nahasi zituen eta uso saltzen ai zirenen kataderak.

13. Eta [erran zaben]: «Eskribitua da: *Nere etxea otoitzeko etxea deitua izain da*, baño zuek hartaz [ebastaleen] lezea in duzue».

14. Tenplura itsuak eta mainguak harengana [e]torri ziren, eta sendatu zituen.

15. [Bañan apezburuek] eta eskribek hark in zituen milagroak ikusi zituztelaik, eta haurrek tenpluan oihuka erten zutela «Hosanna Dabiden Semeai!», bekaiztu ziren.

16. Eta erran zioten:

–Aitze'izu hok zer dioten?

Jesusek erran zaben:

–Bai. [Eta zuek] eztuzue egundaño leitu: *Haurren eta bularra hartze'utenen agotik laudorio perfektoa atra zinuen*?

17. Eta hek utzita, ziudadez kanpora goan zen, Betaniara; eta han gaua pasatu zuen.

18. Goizean, ziudadera itzultzean, gosetu zen.

19. Pikoondo bat bideain ondoan [i]kusiik, hartara hurbildu zen, baño ez baitzuen harpatu {kaustu} hostoik baizik, erran zion: «Eztaiela hireganik behiñere fruituik sortu!».

Eta bela pikoondoa iñartu zen.

20. Hoi ikusita, [ikastaleak] harritu ziren, eta erten zuten:

–Nola iñartu da ixtan'patez {instant batez}?

21. Jesusek erresponditu zaben:

–Egiazki erten datzuet, izaten balin ba'izue fedea, eta ez balin ba'izue fedea, eta ez balin ba'izue dudatzen, ine'izuela ez hoi bakarrik pikoondoaikin, baño oñik erten bazinute mendi horri «Ken hadi hortik eta bota hadi itsasora», inen litzekela.

22. Otoiztuz eskatuko {galdetzen} tutzuen gauza guziak, fedeaikin iten balin ba'izue, izain tutzue.

23. Jesus tenplura goan zelaik, [apezburuak] eta herriko zagarrak harengana etorri ziren erakusten ai zen denboran, eta erran zioten:

–Zer autoridadez iten tutzu gauz[a] horiek? Eta nork eman datzu autoridade hoi?

24. Jesusek [ñardetsi] zaben:

–Nik ere nahi datzuet hitz bat galdetu, eta baldin erten badatazue, nik ere errain datzuet zer autoridadez iten tuten gauz[a] horiek.

25. Joanen bataioa nondik heldu zen? Zerutik edo gizon[enganik]?

Hek beren baitan pentsatzen yarri ziren, ziotelaik:

26. «Baldin 'zerutik' erten badugu, errain daku: Zertako, bada, eztuzue sinetsi?. Eta baldin 'gizon[enganik]' erten badugu, yendeaindako {yendeain} beldur gara, zeren denek zaukaten Joan profetatzat.

27. [Beraz], Jesusi erresponditu [zioten]:

–Eztakigu.

Berak erran zaben:

–Bada nik ere eztatzuet errain zer autoridadez iten tuten gauz[a] hok.

28. Bañan zer iduritzen zaizue hontaz? Gizon batek bazituen bi seme, eta lehenbizikoai hurbilduik, erran zion: «Nere semea, zoazi [eta] ai zaite gaur lanean nere mahastian».

29. Hark errespondituik, erran zion: «Eztut nahi». Bañan gero, urrikituik, goan zen.

30. [Aita] bertzeaingana hurbilduik, modu berean erran zion, eta hark errespondituik erran zuen: «Banoaie, yauna». Baño etzen goan.

31. Bietaik zeñek in zuen aitain borondatea?

Hek erran zioten:

–Lehenbizikoak.

Jesusek erran zaben:

–Egiazki erten datzuet, publikanoek eta [e]mazteki galduek aitzin aldea hartuko datzuela Yangoikoain erreinurakoan.

32. [Zeren] Joan yustiziako bidez zuengana etorri zen, eta etzinuten sinetsi. Eta publikanoek eta [e]mazteki galduek sinetsi zuten; eta zuek, ikusi ondoan ere, eztuzue in urrikimendua {etzate urrikitu}, sinesteko.

33. Ai zazue bertze parabola bat: Bazen aita familiako bat, mahasti bat landatu zuena, [eta] hesi batez inguratu zuen, han dolareak in zituen eta dorre bat goratu zuen. [Gero], nekazari {laborari} batzuei errentan [e]manik, urrun goan zen.

34. Fruitu-sasoiña hurbildu zelaik, bere mutilak nekazari hekengana igorri zituen, hango fruituen errezibitzera.

35. Bañan nekazariak mutilen gañera goanik, bat kolpatu zuten, bertze [bat] hil eta bertze bat harrikatu.

36. Berriz bertze mutil [batzuek] igorri zituen, lehenago baño gehiago; eta modu berean tratatu zituzten.

37. Azkenean bere semea igorri zuen hekengana, erten zuelaik: «Nere semea errespetatuko'ute».

38. Bañan nekazariek, semea ikusi zutelaik, beren artean erran zuten: «Hau herederoa da. Zatozte, hil zagun, eta hunen etorkia {herenzioa} izain dugu».

39. Eta hartuta, mahastiz kanpora botatu zuten eta hil zuten.

40. [Beraz], mahastiko nausia [e]tortzen delaik, zer inen [dabe] nekari heki?

41. Hek erran zuten:

–Gaixtoak gaixtoki akituko tu, eta errentan emain du bere mahastia, bere sasoiñean fruituak pagatuko tuzten nekazariei.

42. Jesusek [erran zaben]:

–Eztuzue behiñere eskrituretan leitu: *Etxea ite'utenek botatu'uten harria, harritako kantoiñ paratua izan da. Hoi Yauna[k] ina izan da, eta gauza [miragarria] da gure begiendako*?

43. Hortako erten datzuet Yinkoain erreinua kendua izain zaitzuela, eta fruituak pagatuko tuen [herri bati emana] izain da.

44. Eta harri hunen gañera erortzen dena, xehatua izain da; eta zeñen gañera [harri hau] erortzen baita, hura lehertua izain da.

45. Apezburuek eta fariseoek haren parabolak aitu zituztelaik, hetaz mintzo zela ezautu zuten.

46. Eta [harpatu nahi izan zuten], baño beldur izan ziren yendeaindako, profetatzat idukia zelakotz.

22. KAPITULUA

[Ezteien parabola.
Zesari Zesarena eta Yangoikoai Yangoikoaina.
Hilen pizteaz. Lehenbiziko manamendua.
Mesias, Dabiden Seme eta Yaun.]

1. Jesusek, berriz parabolaz mintzatuz, erran zaben:

2. –[Zeruko] erreinuak bere semeain eztaiak in zituen errege bat iduri du.

3. Bere [zerbitzariak] konbidatuen deitzera igorri zituen, baño etzuten etorri nahi izan.

4. Berriz bertze [zerbitzariak] igorri zituen, ziolaik: «Huna, bada, bazkaria prestatu'ut; nere zezenak eta nere animale gizenduak hilak dire yadeneko, dena prest dago. Zatozte eztaietara».

5. Baña hek kasuik in gabe goan ziren, bat bere bazter etxera ta bertzea bere tratura,

6. Eta bertze gañerakoek haren [zerbitzariak] hartu zituzten eta, tratu txarra [e]man ondoan, hil zituzten.

7. Errege, hoi aitu zuelaik {aditu zuenean}, koleratu zen, eta bere tropak igorriik, hiltzaleak hil zituen, eta su [e]man heken [hiriari].

8. Orduan bere [zerbitzariei] erran [zaben]: «Eztaiak segurki prestatuak dire, bañan konbidatuak zirenek etzuten merexi.

9. [Beraz], zoazte bide gurutzetara, eta harpatzen {kaustuko} tutzuen guziak, deit zitzue eztaietara».

10. Eta haren [zerbitzariak bidetara goanik, kaustu zituzten guziak] bildu zituzten, onak eta gaixtoak; eta eztaietako tokia bete zen konbidatuz.

11. Errege mahaian zirenen ikustera sartu zen, eta han gizon bat ikusi zuen, eztaietako arropaz beztitua etzena.

12. Eta erran zion: «Aixkidea, nola sartu zara hemen eztaietako arropa izan gabe?» Eta hura ixil egon zen.

13. Orduan erregek bere [mahai-zerbitzariei erran zaben]: «Zangoak eta eskuak lotu ondoan, bota zazue kanpoko ilunbetara. Han izain da marraska eta hortz karraska».

14. Zeren aunitz dire deituak eta guti hautatuak.

15. Orduan [fariseoek elkar hartu zuten] eta elkarren {elgarren} artean tratatu zuten nola harpatuko zuten bere solasetan.

16. [Beraz, ikastale batzuek] igorri zitiozten Herodianoekin batean, zeñek erran zioten:

–Nausia, badakigu egiazkoa zarela {zaila} eta Yangoikoain bidea egiain puntutik erakuste'izula, deustaz kasuik in gabe, eztuzulakotz gizonain itxurai begiratzen.

17. Erran diezaguzu, bada: zer iduritzen zaizu? Zile da Zesari tributoa [e]matea, edo ez?

18. Bañan Jesusek, heken malizia ezautuik, erran zuen:

–[Itxurazaleak], zertako zirikatzen naizie {tentatzen nauzue}?

19. Erakuts datazue tribuko dirua.

[Hek denario bat erakutsi] zioten.

20. Jesusek erran zaben:

–Noina da aurpegi hau ta [inskripzione] hau?

21. Erran zioten:

–Zesarena[k].

[Jesusek] orduan:

–Bada, paga diozozue Zesari Zesarena, eta Yangoikoai Yangoikoaina.

22. Hoi aitu zutelaik [harrituik] gelditu ziren, eta hura utzita, handik goan ziren.

23. Egun hartan harengana saduzeoak etorri ziren, zeñek berriz pizteik eztela izain baitiote, eta galdetu zioten:

24. –Nausia, Moisesek erran zuen: *Baldin norbait haurrik izan gabe hiltzen bada, haren anaia ezkon daiela haren andreaikin, eta forma dezala ondorioa bere anaiai.*

25. Baziren gure artean zazpi anaia, eta zagarrena ezkondu ondoan hil zen eta, [ez baitzuen haurrik izan], bere andrea bere anaiai utzi [zion].

26. Eta orobat bigarrenak eta hirugarrenak, zazpigarren[gan]año.

27. [Heken guzion] ondotik, andrea're hil zen.

28. [Beraz], berriz piztean, zazpietaik zeñena izain da andrea? Zeren denek izan zuten.

29. Jesusek errespondituik, erran zaben:

–Ekibokatzen zate, ez yakinez Eskriturak, ez ere Yangoikoain podorea.

30. Zeren berriz piztean eztire ezkonduko, ez ere ezkontzaz emanak izain; bañan Yangoikoain aingiruak zeruan bezala izain dire.

31. Eta hilen pizteain gañean {pizteaz} eztu[t]zue leitu Yangoikoak erran dazkitzuen hitzak:

32. *Ni Abrahanen, Isaaken eta Jakoben Yinkoa naiz*? Ezta hilen Yinkoa, biziena baizik.

33. Yende guzia, hoi aitzean, [harrituik] gelditzen zen haren doktrinaz.

34. Baño fariseoek, saduzeoak ixilazi zituela aitu zutelaik, bilgura {bilkura} in zuten.

35. Eta hetaik batek, legeain doktorea izanez, galdetu zion, probatzeko:

36. –Nausia, zein da legeko manamenduik haundiena?

37. Jesusek erran zion:

–*Zure Yangoiko Yauna maitatuko'izu zure bihotz guziaz, zure arima guziaz* eta zure gogo guziaz.

38. [Hoi] da lehenbizikoa {lehena} eta manamenduik haundiena.

39. Eta bigarrena hau iduria da: *Maitatuko'izu zure lagun projimoa zere burua bezala.*

40. Bi manamendu [hotan oiñarritzen] dire lege guzia eta profetak.

41. Fariseoak [oño] elkarrekin zirelaik, Jesusek galdetu zaben:

42. –Zer iduritzen zaitzue Kristoz? Noin semea da?

[Erran zioten]:

–Dabidena.

43. [Jesusek erran zaben]:

–Nola, bada, Dabidek izpirituz deitzen du «Yauna», diolaik:

44. Yaunak nere Yaunai erran [zion]:

Yar zaite nere eskuñeko aldean, zure etsaiak zure oiñazpitako paratuko tuten bitartean {paratuko ditudan arteraño}.

45. [Beraz], Dabidek «Yauna» deitzen balin badu, nola da haren semea?

46. Niork ezin erresponditu zion hitz bat, eta egun hartaz geroztik, nior etzitzaion atrebitu gehiago deusere galdetzera {galderik egitera}.

23. KAPITULUA

[Jesusek eskribak eta fariseoak (salatu).
Jesus Jerusalenengatik hasoska.]

1. Orduan, Jesus yendeai eta bere [ikastaleei] mintzatu zen, erten zuelaik:

2. –Eskribak eta fariseoak Moisesen kataderan yarriak daude.

3. [Begira zazue beraz], eta in hek erten datzuen guzia; baño etzazuela in heken obren arabera, [zeren] erte'ute, ta ez iten.

4. Bada karga pisuak eta ezin yasan ahalak lotzen tuzte, eta izonen bizkarrean paratzen tuzte, baño behatz bakar batez ere ez tuzte nahi higitu.

5. Beren obra guziak iten tuzte gizone[k] ikusiak izateko. Beren bandak zabaltzen tuzte eta beren arropetan hedatzen beren franjak.

6. Afarietan lehenbiziko tokiak maite tuzte, eta lehenbiziko [kataderak] sinagogetan.

7. Plazetan salutatuak izatea [maite'ute], eta gizonek «Nausia» deitzea.

8. Bañan zuek etzazuela nahi [«Maixtruak»] deituak izatea, zeren bat bakarra da zuen [Maixtrua], eta zuek guziak anaiak zate.

9. Eta etzazuela lurrean nior deitu «aita», zeren bat da zuen aita, [zeruan] dena.

10. Etzaiztela izan [«gidaria»] deituak, zeren bat da zuen [gidaria], zein Kristo baita.

11. Zuen artean haundiena dena zuen [zerbitzaria] izain da.

12. Zeren goititzen {goratzen} dena apaldua izain da, eta apaltzen dena goititua izain da.

13. Bañan zorigaitz zuei, eskriba ta fariseo [itxurazaleak, zeruko] erreinua gizonen aitzinean heste'izuenak! Bada etzate zerok sartzen, ez ere sartzera uzten sartuko lirazkenak {sar litzezkenak}.

14. Zorigaitz zuei, eskriba ta fariseo [itxurazaleak]! Otoitz luzeak iteko aitzakian {estakuluan} emazteki alargunen etxeak iresten tutzuenak. Horrengatik juizio bortitzagoa eremain duzue.

15. Zorigaitz zuei, eskriba ta fariseo [itxurazaleak]! Itsasoa ta lurra kurritze'tzuelakotz bat bakarra zuen federa [e]karrazteagatik; eta [e]karrazi ondoan, zerok baño bi aldiz infernuaz merexidunago ite'izue.

16. Zorigaitz zuei, gidari itsuak! Erte'izuenak: «Tenpluaz yuramentu itea deus ezta, baño tenpluko urreaz yuramentu iten duena zorretan {zordun} gelditzen da».

17. Burugogorrak eta itsuak! Zein da haundiena, urrea, edo urrea santifikatzen duen tenplua?

18. [Erte'izue]: «Aldareaz yuramentu itea deus ezta; bañan haren gañean den ofrendaz yuramentu iten duena zorretan gelditzen da».

19. Itsuak! Zeind a haundiago, ofrenda, edo ofrenda santifikatzen duen aldarea?

20. Bada aldareaz yuramentu iten duenak, yuramentu iten du aldareaz eta haren gañean dauden guziez {guziaz}.

21. Tenpluaz yuramentu iten duenak, yuramentu iten du tenpluaz eta han egoten denaz.

22. Zeruaz yuramentu iten duenak, yuramentu iten du Yangoikoain tronuaz eta hartan yarria denaz.

23. Zorigaitz zuei, eskriba ta fariseo [itxurazaleak]! Belar onain, anetain eta kominain hamarrena pagatze'izuenak, gauzik {gauzarik} beharrenak uzten tutzuen denboran; yustizia, [urrikimendua] eta fedea! Hau zen, bertzea utzi gabetanik, in behar zena.

24. Gidari itsuak! Eltxoa irazi {Ulitxa iraazi} ta kamelloa ireste'izuenak!

25. Zorigaitz zuei, eskriba ta fariseo [itxurazaleak]! Basoain eta platerain kanpoko aldea garbitze'ituzuenak, barnetik [ebastale]keriaz eta zikinkeriaz beteak zaten denboran.

26. Fariseo itsua, garbi zazu lehenik basoain eta platerain barnea, kanpoan dena're garbi izan daien.

27. Zorigaitz zuei, eskriba ta fariseo [itxurazaleak! Hilobi] txurituak iduri'izuenak: kanpotik gizonen begietako ederrak direlaik, barnean hil hezurrez eta zikinkeriaz beteak direnak.

28. Gisa berean zuek ere kanpotik yustu agertzen zate gizonei, baño barnean [itxurazale]keriaz eta gaixtakeriaz beteak zate.

29. Zorigaitz zuei, eskriba ta fariseo [itxurazaleak]! Profeten [hilobiak] ite'ituzuenak eta yustuen monumentuak apaintzen.

30. Eta erte'izue: «Gure aiten denboran bizi izan bagine, ez ginen heken lagun izain profeten odola ixurtzeko».

31. Gisa hortan [lekuko] zate zeren buruain kontra, profetak hil zituztenen heken semeak zatela.

32. Bete zazue, [bada], zuen aiten negurria.

33. Suge kasta, nola eskapatuko zate infernuko sententziatik? {nola eginen duzue iges gehenako juiziotik?}

34. Hortakotz igortzen dazkitzuet profetak, yakintsunak eta doktoreak, eta hetaik batzuek hil eta gurutzifikatuko tutzue [hiriz hiri].

35. Zuen gañera [e]tor daien lurrean ixuria izan den odol yustu guzia, Abel yustuain odoletik hasita, Zakarias Barakiasen semeain odolerañokoan, zein tenpluain eta aldareain artean hil baitzinuten.

36. Egiazki erten datzuet, gauz[a] hok guziak etorriko direla jenerazio hunen gañera.

37. Jerusalen, Jerusalen, profetak hiltzen tutzuna eta zuregana igorriak direnak harrikatzen, zenbat aldiz bildu nahi izan tut zure umeak, olloak bere txitoak bere hegalpera biltzen tuen bezala, eta etzinuen nahi izan?

38. Huna {Hona}, bada, zuen etxea desertu geldituko da.

39. Zeren erten datzuet hemendik aitzina e'naizuela [i]kusiko zuek erran artaño: *Bedeikatua izan bedi Yaunain izenean heldu dena.*

24. KAPITULUA

[Tenplua desegina izain da. Akabantzain aitzineko señaleak.
Nahigabe ikaragarria. Gizonain Semeain etortzea.
Ez dakizie hau guzia noiz izain den: zauzte erne!]

1. Jesus tenplutik atra ondoan, erretiratzera zoaien. [Orduan, ikastaleak harengana etorri] ziren, tenpluko etxea erakusteagatik.

2. Bañan Jesusek errespondituzaben: «[I]kuste'uzie hau guzia? Egiazki erten datzuet, eztela hemen gelditukoharria harrian gañean, barraiatua izan gabe».

3. [Gero, Olibetako] mendian yarria zagolaik, bere [ikastaleak] harengana ixilik etorri ziren, eta erran zioten:

–Erran diezaguzu {dakuzu}: Noiz gertatuko dire gauz[a] horiek? Eta zer señale izain da zure [e]tortzeaz eta munduain akabantzaz?

4. Jesusek errespondituik, erran zaben:

–Guarda zaizte niork enganatzetik.

5. [Zeren] aunitz etorriko dire nere izenean, eta errain dute: «Ni naiz Kristo», eta yende aunitz enganatuko'ute.

6. Oñik gerraz {gerlaz} mintzatzen aituko'uzie, eta gerrako hasotsaz. Guarda zaizte harritzetik, zeren gauz[a] hok gertatzea komeni da, baño ezta oñik akabantza izain.

7. Zeren yendeak yendeen kontra goratuko dire, eta erreinuak erreinuen kontra, eta (izurriteak) izain dire, goseteak eta lurrikarak aunitz tokitan.

8. [Bañan] gauz[a] hok guziak eztire oñik izain oñazeen hasmenta {hastapena} baizik.

9. Orduan entregatuko zaizte nahigabetara, eta hilaziko zaizte, eta mundu guzia[k] gaitsetsiak izain zate nere izena dela medio.

10. Eta orduan asko ikaratuak izain dire, eta batek bertzea salduko'ute {traituko dute, eta elkar gaitsetsiko'ute {higuinduko [dute]}.

11. Aunitz profeta faltso atrako da, eta asko yende enganatuko'ute.

12. Eta gaixtakeria berratuko baita, aunitzen karidadea hoztuko da.

13. Baño azkeneraño irauten duena, hura salbatua izain da.

14. Eta [zeruko] erreinuko ebanjelio hau mundu guzian predikatua izain da, [lekukotasunaindako] yende guziei; eta orduan akabantza etorriko da {allagatuko da}.

15. [Beraz, nahigabeain higuina ikuste'izuelaik. Daniel profetak] errana izan zena, leku sainduan dela -leitzen duenak entendi beza-.

16. Orduan Judean izaten direnek iges in bezate mendietara.

17. Tellatuan dena eztaiela yautsi zerbaiten eske bere etxera {ez bedi yauts zerbait gauza hartzera bere etxetik}.

18. Eta landan dena eztaiela {ez bedi} gibelat itzul bere soñekoain hartzera.

19. Zorigaitz emazteki enbraza direnei, eta egun hetan haur hazten ai direnei!

20. Otoitz'izue, bada, zuen eskabapada gerta eztaien, ez neguan, ez larunbatean ere.

21. Zeren orduan nahigabe haundia izain da, mundain hastetik hunat izan eztena, eta sekulan izain ezten bezalakoa.

22. Eta egun hek ez balire lagurtuak {laburtuak} izan, e'litzeke nior salbatuko {iñor ez litzeke salba}; baño hautatuengatik egun hek lagurtuak izain dire.

23. Orduan norbaitek «Begira, Kristo han da» erten balin badatzue, edo «Hemen da», etzazuela sinetsi.

24. Zeren Kristo faltsoak atrako dire, eta profeta faltsoak, eta señale ta milagro haundiak [e]main tuzte, hautatuak ere, posible balitz, enganatuak izain diren maneran.

25. [I]kus'azue aitzinetik erran datzuetela.

26. Horrengatik, [norbaitek] «Huna, desertuan da» erten badatzue, etzaiztela atra; edo «Begira, etxeak duen lekurik erretiratuenean da» [erten badatzue], etzazuela sinetsi.

27. Zeren nola oñaztura atratzen baita iruzkia atratzen den lekutik, eta iruzkia sartzen den lekuraño ageri baita, gisa berean izain da Gizonain Semeain etortzea.

28. Non ere gorputza izaten baita, han bilduko dire arranoak.

29. Egun hetako nahigabeen ondotik bela iruzkia ilunduko da, eta ilargiak eztu bere argia [inen], eta izarrak zerutik eroriko dire, eta zeruko birtuteak ikaratuak {mubituak} izain dire.

30. Orduan, Gizonain Semeain señalea agertuko da zeruan, eta lurreko tribu guziak nigarretan yarriko dire, eta *Gizonain Semea zeruko goibelen artean [etortzen* ikusiko'ute], podore ta majestade haundi batekin.

31. Eta bere aingiruak igorriko tu tronpeta soñu haundi batekin; eta haren hautatuak munduain lau eskinetaik {lau haizetarik} bilduko tuzte, zeruain mutur batetik bertze muturreraño.

32. Ikas'azue pikoondotik konparazio bat. Haren adarrak gurituak direlaik, eta haren hostoak sortuak, badakizue uda hurbil dela.

33. Gisa berean, gauz[a] hok guziak ikusten tutzuelaik, yakin zazue hurbil dela eta atarian {atean} dela.

34. Egiazki erten datzuet, eztela jenerazio hau pasatuko, gauz[a] hok guziak gertatu gabe {gabetanikan}.

35. Zerua ta lurra pasatuko dire, baño nere hitzak eztire pasatuko.

36. [Bañan] egun hartaz eta ordu hartaz niork eztaki, ezta zeruko aingiruek ere, baña nere Aitak [xoilki].

37. Noein egunetan gertatu zena gertatuko da Gizonain Semea [e]tortzean.

38. Zeren hala nola dilubioain aitzineko egunetan yaten ta edaten baitzuten, ezkontzen ta ezkontzaz ematen, Noe [untzian] sartu zen artañokoan; gisa berean izain da Gizonain Semeain etortzea.

39. Eta etzuten entenditu, dilubioa [e]torriik, denak ereman zituen artañokoan.

40. Orduan landan izain [diren bi gizonetaik], bat hartua izain da eta bertzea utzia.

41. Errota batean elkarrekin egoko'ute[n bi emaztekietaik], bar hartua izain da eta bertzea utzia.

42. Zaute [Zauzte], bada, iratzarriak, zeren eztakizue zein orduz etorri behar den zuen Yauna.

43. Bañan yakin zazue, aita familiako batek balaki zein orduz etorri behar duen [ebastaleak], iratzarria egoin litzekela eta e'lukela zilatzera utziko bere etxea.

44. Hortakotz egon zaizte erne zuek ere, zeren gutienik uste'izuen orduan etorriko da Gizonain Semea.

45. Zein dela uste'izue mutil {zerbitzari} fidela eta [zugurra], nausiak bere familiain aitzinean paratu duena, behar den denboran yatera emateko?

46. Zorionekoa bere nausiak, etortzen delaik, hola iten ai dela harpatzen duen nerabea {hola iten harrapatuko duen zerbitzaria}.

47. Egiazki erten datzuet, bere ondasun guzien aitzinean paratuko duela.

48. Baño baldin mutil gaixto batek bere bihotean erten badu «Nere nausiak berantzen du [e]tortzera».

49. Eta bere mutil lagunen yotzen hasten balin bada, eta mozkorrekin yaten eta edaten,

50. [Espero] eztuen egunean [e]torriko da mutil haren nausia, eta eztakien orduan;

51. Eta berexiko du eta [itxurazaleekin] paratuko du. Han izain dire marraskak eta hortz karraskak.

25. KAPITULUA

[Hamar birjinen parabola.
Talentuen parabola. Azken afera.]

1. Orduan [zeruko] erreinuak iduriko du hamar birjina, beren lanparak hartuik, [senar-emazteen] errezibitzera atra zirenak.

2. Bada hetaik bortz ergelak ziren, eta bertze bortzak [zugurrak].

3. Bortz ergelek, beren lanparak hartzean, etzuten olioik ereman berekin.

4. Baño [zugurrek] olioa hartu zuten beren untzietan, lanparekin batean.

5. Eta nola [senarrak] berantzen baitzuen, kuluskan hasi ziren eta denak loarkatu {lokartu} ziren.

6. Gauerdi airean oihuak aitu zirelaik: «Huna [senarra] heldu da! atra zaizte errezibitzera!».

7. Orduan birjina hek guziak goititu ziren eta beren lanparak prestatu zituzten.

8. Eta ergelek erran zuten [zugurrei: «Ekartzue] {Iguzue} zuen oliotik, zeren gure lanparak itzaltzen dire.

9. [Zugurrek] erresponditu zuten: «Benturaz eztugu aski izain guretako ta zuendako; zoazte lehenago saltze'utenetara, eta eros'azue zuendako beha'izuena».

10. Erostera goan ziren bitartean {bizkitartean}, [senarra] etorri zen, eta prest zirenak haikin sartu ziren eztaietara, eta atea hetsia izan zen.

11. Azkenekotz etorri ziren bertze birjinak ere, ziotelaik: «Yauna, Yauna! Edeki dakuzu!»

12. Bañan harek erespondatu zaben: «Egiazki erten datzuet, etzaiztetela {ez zaituztedala} [e]zautzen».

13. Zaute bada {Egon zaizte beraz} iratzarriak, zeren eztakizue ez eguna, ez ordua.

14. Zeren hura da nola gizon bat, zeñek urrun partitzerakoan, bere nerabeak ditu zituen eta bere ondasunak [eman] zazten.

15. Bati bos [bortz talentu eman] zition, bertze bati bida eta bertze bati bat, bakotxai bere kapazidadeain arabera, eta bela goan zen.

16. Bos talentu errezibitu zituena hekin tratuan aitzera goan zen eta bertze bortz irabazi zituen.

17. Gisa berean, bida errezibitu zituenak bertze bida irabazi zituen.

18. Baño bat baizik errezibitu etzuena, goan zen, lurrean zilo bat in zuen, eta han gorde zuen bere nausiain dirua.

19. Handik denbora haundiain buruan, mutil heken nausia etorri zen, eta kontuen ematera {kontu ematera} deitu zituen.

20. Bos talentu errezibitu zituena [e]torri zen, eta bertze bos talentu presentatu zition, erten zuelaik: «Yauna, bos talentu [eman] zinaztatzun, huna bertze bos gehiago irabazi tutenak {ditudanak}».

21. Bere nausiak erran zion: «Arras ongi, nerabe on eta fidela! Gauza gutian fidela izan zarelakotz, aunitzen gañean paratuko zaitut; sar zaite zure yaunain bozkarioan».

22. Bi talentu errezibitu zituena're [e]torri zen, eta erran zuen: «Yauna, bi talentu [eman] zinaztatzun, huna non tutzun bertze bida irabazi tutenak».

23. Nausiak erran zion: «Ongi da, nerabe ona eta fidela! Gutian gañean fidela izan zarelakotz, aunitzen gañean paratuko zaitut; sar zaite zure yaunain bozkarioan».

24. Hondarrean, talentu bat baizik errezibitu etzuena [e]torri zen, ziolaik: «Yauna, badakit gizon gogorra zarela, erein eztuzun tokian igitatze'izula, eta hedatu eztuzun tokian biltzen.

25. Zure beldurrez goan nitzen [eta] zure talentua lurrean gorde nuen. Huna non duzun zurea dena».

26. Nausiak errespondituik, erran zion: «Nerabe gaixtoa ta alferra! Bazinakien nik ereiten eztuten tokian igitatze'utela, eta hedatu eztuten tokian biltze'utela.

27. Bada, nere dirua bankeroei [e]man behar zinuen, eta itzuli ondoan, kurrituaikin nerea zena [hartuko] nuen.

28. Ken diozozue, [beraz], talentua eta [e]maiozue hamar talentu tuenai {dituanari}.

29. Zeren duenai [e]mana izain zaio, eta gehiago izain du; bañan eztuenai baduela iduri duen hura're kendua izain zaio.

30. Eta [deustako balio ez duen] nerabe hoi, bota zazue kanpoko ilunbetara. Han izain dire marraskak eta hortz karraskak».

31. Gizonain Semea aingiru guzi[ek] lagundua bere [haunditasunean etortzen] delaik, orduan bere majestadeain tronuan yarriko da.

32. Yende guziak haren aitzinean bilduak izain dire, eta batzuek bertzetik berexiko tu, artzañak ardiak antxumetaik berexten tuen bezala.

33. Eta ardiak bere eskuñeko aldean paratuko tu, eta antxumeak bere ezkerreko aldean.

34. Orduan erregek bere eskuñeko aldean direnei errain [dabe]: «Zatozte, nere Aita[k] bedeikatuak, goza zazue munduain hastetik zuendako prestatua dagon erreinuaz.

35. Zeren gosetu nitzen, eta yatera [e]man zinatazuen; egarritu nitzen, eta edatera [e]man zinatazuen; arrotza nitzen, eta errezibitu ninduzuen;

36. Biluxia {Biluzia} nitzen, eta estali ninduzuen; eri nitzen, eta bisitatu ninduzuen; gartzelan nintzen, eta nere [i]kustera [e]torri zineten».

37. Orduan yustuek errain diote: «Yauna, noiz ikusi zaitugu gosetua, eta yatera [e]man datzugu; edo egarritua, eta edatera [e]man datzugu?

38. Noiz ikusi zaitugu arrotza, eta errezibitu zaitugu; edo biluxia, eta beztitu zaitugu?

39. Edo noiz ikusi zaitugu eri edo gartzelan, eta goan gara zure [i]kustera?».

40. Eta erregek errain dabe: «Egiazki erten datzuet, gauz[a] horiek nere anaia ttarren hotaik bati in tutzuen kasuan, neoni in daztatzuela».

41. Orduan, ezkerreko aldean direnei ere errain dabe: «Aparta zaizte neregani, madarikatuak, eta zoazte deabruaindako ta haren aingiruendako prestatua dagon sekulako sura.

42. Zeren gosetu nitzen, eta etzinatazuen yatera eman; egarritu nitzen eta etzinatazuen edatera eman;

43. Arrotza nitzen, eta e'ninduzuen erreibitu; biluxia, eta e'ninduzuen estali; eri eta gartzelan, eta e'ninduzuen bisitatu».

44. Orduan hek ere errespondituko diote: «Yauna, noiz ikusi zaitugu gosetua, edo egarritua, edo arrotza, edo biluxia, edo eri, edo gartzelan, eta etzaitugu lagundu?»

45. [Harek] errespondituko dabe: «Egiazki erten datzuet, ttarren hotaik bati in eztuzuen kasuan, eztatazuela in neri {niri} ere.

46. Eta hok sekulako tormentura goain dire, eta yustuak sekulako bizira».

26. KAPITULOA

[Jesus hilarazi nahi. Emazteki batek Jesusi ugendua ixuri.
Afaitan: Judasen saldukeria aitzinetik errana.
Azken afaia: huna nere gorputz-odolak!
Pedroin ukoak aitzinetik erranak. Getsemaniko otoitz larria.
Jesus judu-batzarrain aitzinean. Pedrok Jesus ukatu.]

1. Jesusek arrozoñamendu {arrozañamendu} hok guziak akitu zituelaik, bere [ikastaleei] erran zaben:

2. «Badakizue hemendik bi egunen buruan Bazkoa inen dela, eta Gizonain Semea entregatua izain dela gurutzifikatua izateko».

3. Orduan, [apezburuak eta herriko zaharrak bildu ziren apez nausi] Kaifas deitua zenain larrañean.

4. Eta batzarrean tratatu zuten Jesus engañuz hartzeko eta haren hilazteko moduaz.

5. Bañan erten zuten «Ez besta egunean», [herrian] zenbait nahastura gerta zaien beldurrez.

6. Jesus Betanian Simon leprosoain etxean zelaik,

7. [E]mazteki bat harengana [e]torri zen, alabastrozko baso bat ugendu onaikin, eta haren buruain gañera ixuri zuen, mahaian zegolaik.

8. Hoi [ikusi zutelaik, ikastaleak] bekaiztu {nabarbendu} ziren, ziotelaik:

–Zertako galtze hori?

9. Bada prezio haundi batean sal zaiteken, eta pobrei [e]man horren balioa.

10. Jesusek, hoi entendituik, erran zaben:

–Zertako penatze'izue [e]maztekii hori? Nerekin obra on bat in du.

11. Zeren beti baitutzue pobreak zuekin, baño ni e'naizue betiko.

12. Zeren ugendu hoi nere gorputzain gañera ixuri balin badu, nere enterratzeko in du.

13. Egiazki erten datzuet, mundu guzian Ebanjelio hau predikatua izain den toki guzietan, horrek in duena kontatua izain dela horren oroitzapenaz.

14. Orduan hamabietaik bat, Judas Iskariote deitua, [apezburuengana] goan zen.

15. Eta erran zaben: «Zer nahi datazue [eman, eta nik Jesus] entregatuko datzuet?».

Eta hek hogeita hamar zilar moneda eskeñi zioten.

16. Ordutik okasio on baten bila hasi zen, haren entregatzeko.

17. Orantzaik gabeko Ogien lehenbiziko egunean, [ikastaleak] Jesusengana etorri ziren, eta erran zioten:

–Non nahi'zu presta dezagun Bazkoain yateko?

18. Jesusek erran [zaben]:

–Zoazte [hirira] holakoain etxera, eta errozue: «Nausiak dio: Nere denbora hurbildua da; zure etxean ine'ut Bazkoa nere [ikastaleekin]».

19. [Ikastaleek] Jesusek manatu zaben bezala in zuten, eta Bazkoa prestatu zuten.

20. Atsa {Arratsa} [e]torri zelaik, mahaian yarri zen bere hamabi [ikastaleekin].

21. Yaten ai zirelaik, erran zuen:

–Egiazki erten datzuet, zuetaik batek entregatuko nauela.

22. Hek soil tristatuak, bakotxa erten hasi zen:

–Ni ote naiz, benturaz, Yauna?

23. [Harek] erresponditu zuen:

–Nerekin platerean eskua sartzen duena, hoi izain da ni entregatuko nauena.

24. Gizonain Semea badoaie segurki hartaz eskribitua den bezala; bañan zorigaitz gizon hari, zeina[k] Gizonain Semea entregatu [baitu]; hobe izain zuen sortu ez balitz.

25. Judasek errespondituik, zeñek entregatu baitzuen, erran zuen:

–Nausia, ni ote naiz benturaz?

[Jesusek ñardetsi zion]:

–Zegorrek erran duzu.

26. Afaitan ai zielaik, Jesusek ogia hartu zuen, bedeikatu [eta] hautsi zuen, eta bere [ikastaleei eman zaben], erten zuelaik: «Har zazue eta yan zazue; hau nere gorputza da».

27. [Gero] kaliza hartuik, eskerrak eman ondoan, eman zaben, erten zuelaik: «Edan zazue denek huntaik.

28. Zeren hau nere odola da, Testamenta berrikoa, aunitzengatik ixuria izain dena bekatuen barkamendurako.

29. Eta erten datzuet eztutela nik gehiago edain mahatsain fruitu huntaik, nere Aitain erreinuan zuekin berria edain dutan egun artañokoan».

30. Himnoa erran ondoan, [Olibetako] mendira atra ziren.

31. Orduan Jesusek erran zaben: «Zuek guziek gau hontan tentazio bat [izain dizue] neregatik. Zeren eskribitua da: *Yoko'ut artzaña, eta ardi-multzuko {artaldeko} ardiak barraiatuko dire*.

32. Baño berriz pizten naizelaik, zuen aitzinean goain naiz Galileara».

33. Pedrok erresponditu zuen:

–Bertze guziak zugatik eskandalizatuik ere, ni e'naiz behiñere eskandalizatuko.

34. Jesusek erran zion:

–Egiazki erten datzut, gau huntan, ollarrak kantatu baño lehenago, hiru aldiz ukatuko naizula.

35. Pedrok erran zion:

–Zurekin hil behar banu ere, etzaitut ukatuko.

Eta bertze [ikastale] guziek ere gauza bera erran zuten.

36. Orduan Jesus Getsemani deitzen zen bazter etxe batera goan zen, eta bere [ikastaleei] erran [zaben]: «Yar zaizte hemen, ni harat {harara} otoitz itera noaien denboran».

37. Eta berekin Pedro eta Zebedeoin bi semeak hartuik, tristatzen ta kexatzen {arrenkuratzen} hasi zen.

38. Orduan erran zaben: «Triste da nere arima heriotzerañokoan. Egon zaizte hemen eta bella zazue {bela zazue} nerekin».

39. Eta zenbait pausu [e]man ondoan, aurpegiz lurrera ahuspeskatuik, otoitz in zuen, ziolaik: «Nere Aita, posible bada, urrun zazu nereganik kaliz hau; bañan ez nik nah'uten bezala, zuk nahi'zun bezala baizik».

40. Bere [ikastaleengana e]torri zen, eta lo zaudela harpatu zituen. Pedroi erran zion: «[Beraz], ezin bellatu izan duzu ordu batez nerekin?

41. Bella zazu ta in otoitz tentazioan ez erortzeko. Izpiritua zinezki erne dago, baño haragia flako».

42. Bigarren aldian gan zen eta otoitz in zuen, erten zuelaik: «Nere Aita, ez bada posible kaliz hau nik edan gabe urruntzea, in bedi zure borondatea».

43. Eta berriz itzuli zen, eta oñik lo zaudela harpatu zituen, heken begiak kargatuak zirelakotz {zeren heken begiak kargatuak baitziren}.

44. Utzi zituen, eta hirugarren aldian otoitz itera goan zen berriz, hitz berak erten zituelaik.

45. Orduan bere [ikastaleengana] etorri zen eta erran zaben: «Lo izue gargoitik {gargero} eta pausa zaizte. Huna, allegatu[a] da ordua, eta Gizonain Semea entregatua izain da bekatarien eskuetan.

46. Goiti zaizte {Yeiki zaizte}, goazen; entregatuko nauena hurbil da».

47. [Jesus] oñik mintzo zelaik, huna non Judas, hamabietaik bat, agertzen den, eta haikin batean yende tropa haundi bat ezpatekin eta makilekin, [apezburuek] eta herriko zagarrek igorriak {bidali zituztenak}.

48. Entregatu zuenak señalea eman zuen, ziolaik: «Nik musu [e]main diotena, hura bera da, har zazue».

49. Eta bela Jesusengana hurbilduik, erran zion: «Yangoikoak [zain] zaitzala, nausi!».

Eta musu [e]man zion.

50. Jesusek erran zion: «Aixkidea, zertara [e]torri zara?»

Denbora berean [bertzeak] hurbildu ziren eta, Jesusi eskuak hedatuik, preso hartu zuten.

51. Jesusekin zirenetaik batek, eskua hedatuik, bere ezpata atra zuen, eta [apez nausiaren] mutil bati ukaldia [e]manik, begarri bat ebaki zion.

52. Orduan Jesusek erran zion: «Itzul zazu zure ezpata bere tokira, zeren ezpata hartuko duen guzia, ezpatak hilen du.

53. Uste'izu, benturaz, eztezaketela nik otoiztu nere Aita, eta orai berean [e]main lazkitela {emain dazkit} hamabi aingiru lejione baño gehiago?

54. Nola bada [beteko] dire Eskriturak, hola diotenak gerta daien konbeni dela?».

55. Ordu hartan berean Jesusek yende tropa hari erran [zion: «Ebastale] bati bezala atra zate ezpatekin ta makilekin nere hartzera! Egun guziz zuen artean [yarria] nindagon tenpluan erakusten nuela, eta e'ninduzuen hartu.

56. Baño hau guzia ina izan da profeten Eskriturak [beteak] izateko».

Orduan [ikastale guziek utzi] zuten eta igesi goan ziren.

57. Bañan Jesus preso zaukatenek, Kaifas [apez nausiain] etxera ereman zuten, non eskribak eta zagarrak bilduak baitziren.

58. Pedrok [Jesusi] urrundik segitzen zion [apez nausiain jauregi]raño. Eta barnera sartuik, hango nerabekin batean yarri zen, akabantza [i]kusteko pentsamentuz.

59. Bizkitartean, [apezburuak] eta batzarre guziak zerbait [lekukotasun faltso bilatzen zuten] Jesusen kontra, heriotzera entregatzeko.

60. [Bañan] ez zioten harpatu, nahiz [lekukotasun] faltso aunitz presentatua izan zen. Baño azkenekotz bi [lekuko] faltso etorri ziren.

61. Eta erran zuten: «Hunek erran zuen: Yangoikoain tenplua urra dezaket eta hiru egunez goratu».

62. [Orduan, apez nausiak], txutituta, erran zion:

–Eztuzu deus ere erresponditzen hok zure kontra ite'uten deklarazioai?

63. Jesus ixilik zagon. [Apez nausiak] erran zion:

–Yangoiko biziaz manatzen datzut erran diezaguzun zu zaren Kristo Yinkoain Semea.

64. Jesusek [ñardetsi zion]:

–Zuk erran duzu. Eta oñik erten datzuet, denbora lagurrik barnean *Gizonain Semea Yangoikoain birtuteain eskuñeko aldean [yarria], eta zeruko goibeletan etortzen* [ikusiko'izuela].

65. Orduan [apez nausiak] bere arropak urratu zituen eta erran zuen:

–Arnegatu du. Zer behar dugu testigoik gehiago? Huna, orai berean aitu'izue arnegua.

66. Zer iduritzen zaitzue?

Hek errespondituik, erran zuten:

–Heriotzea merexi du.

67. Orduan aurpegira tu in zioten eta ukumil ukaldika [yo zuten], eta bertze batzuek aurpegian begarriondokoak [eman zitiozten].

68. Erten zutelaik: «Pentsa zazu, Kristo, nor den yo zaituena».

69. Pedro, bizkitartean, kanpoko aldean larrañean yarria zagon, eta neskato bat harengana hurbildu zen, ziolaik:

–Jesus Galilekoaikin zinen zu ere.

70. Bañan harek denen aitzinean ukatu zuen, erten zuelaik:

–Eztakit zer diozun.

71. Eta nola atarira atra baitzen, beste neskato batek ikusi zuen, eta han zirenei erran [zaben]:

–Hau ere Jesus nazaretarraikin zen.

72. [Pedrok] berriz ukatu zuen yuramentuaikin, erten zuelaik:

–Eztut holako gizonik [e]zautzen.

73. Geroxeago, han zirenak hurbildu ziren eta Pedroi erran zioten:

–Segurki zu ere hetaik zara, zeren zure mintzairak ere ongi [e]zautzera [e]maten du.

74. Orduan arnegu ta yuramentu iten hasi zen:

–[Eztut holako {halako} gizonik ezautzen].

Eta bela ollarrak kantatu zuen.

75. Pedro oroitu zen Jesusek erran zion hitzaz: «Ollarrak kantatu baño lehenago, hiru aldiz ukatuko naizu». Eta kanpora atrata, nigar in zuen kireski {garratzki}.

27. KAPITULUA

[Judasen heriotzea. Jesus Pilatoren aitzinean.
Jesus heriotzera kondenatua. Soldaduen burlak.
Jesusen heriotzea. Jesus (hilobian) yarria.
(Hilobia) sellatua eta zaindua.]

1. Goiza [etorri zelaik, apezburu guziek eta herriko zagarrek] Jesusen kontra batzarrea in zuten, heriotzera {heriotzerat} entregatzeko.

2. [Gero] lotua ereman zuten, eta Pontzio Pilato (gobernari)ai [eman zioten].

3. Orduan Judas[ek] –hura entregatu zuenak– kondenatua izan zela ikusi zuelaik, urrikiaz ukitua, hogeita hamar zilar monedak itzuli zituen [apezburuei] eta zagarrei.

4. Ziolaik:

–Bekatu in dut, odol inozentea entregatuik.

Bañan hek erran zioten:

–Zer zaiku guri? Zure itekoa zen! {Zuk ikusi beharra zen!}

5. Eta zilarrezko monedak tenpluan botatuik, erretiratu zen eta goan zen, eta bere burua urkatu zuen laixter xirixtiloan {soka lasterrean}.

6. [Apezburuek], zilar monedak hartuik, erran zuten: «Ezta zile hok tesoroan sartzea, odolain prezioa delakotz».

7. Horren gañean tratatu ondoan, hekin eltzile baten bazterra erosi zuten, arrotzen enterratzeko.

8. Horrengatik bazter hura *Hazeldama* [deitua izan da], «Odolain bazterra» erran nahi da, gaur artaño {egun artaño}.

9. Orduan [bete] zen Jeremias profeta[k] errana izan zena: *Hogeita hamar zilar moneda hartu zituzten, estimatuain prezioa, Israelgo umeekin inik tratua.*

10. *Eta eltzile baten bazterrean truk [e]man zituzten, Yaunak manatu zatan {zaudan, zadan} bezala.*

11. Jesus (gobernari)ain aitzinera presentatua izan zen. (Gobernariak) galdetu zion:

–Zu zara yuduen erregea?

Jesusek [ñardetsi zion]:

–Zuk diozu.

12. Eta nola [apezburuek eta zagarrek] akusatua baitzen, etzuen deus ere erresponditu.

13. Orduan Pilatok erran zion:

–Eztuzu aitzen zenbat gauzez akusatua zaren?

14. [Etzaben] haren hitzei batere erresponditu, hala, non (gobernaria) soil harritua gelditu baitzen [osoki].

15. Bazko egunean (gobernariak) bazuen usantza [herriari preso bat libre emateko]; yendeak nahi zuena.

16. Orduan bazuen preso famatu bat, Barrabas deitzen zena.

17. [Beraz, yendea] bildu ondoan, Pilatok erran zaben:

–Zein nahi zue [eman] dezazueten {dezazuedan}? Barrabas, edo Jesus, Kristo deitua dena?

18. Bada bazekien [Jesus enbidiaz eman] zutela.

19. Tribunalean yarria zagolaik, bere andreak gaztigatu zion, ziolaik: «Ez izan deus ere itekoik yustu horrekin. Zeren hoi dela kausa, aunitz sufritu'ut gaur ametsetan».

20. Baño [apezburuek eta zagarrek herriai gogoan sarrarazi zioten] Barrabas eskatzeko eta Jesus hilazteko.

21. (Gobernariak) erran zuen:

–Bietaik zein nahi'zue [eman] dezazuedan libre?

–Barrabas –[erran zuten hek].

22. Pilatok [erran zaben]:

–Zer ine'ut Jesus, Kristo deitua denaz?

Denek [erran zuten]:

–Izan daiela gurutzifikatua!

23. (Gobernariak) erran zaben:

–Bañan zer gaizki in du?

Hek oihua gehiago goratzen zuten, ziotelaik:

–Izan daiela gurutzifikatua!

24. Pilatok deus ere etzuela aitzinatzen ikusiik, baño hango nahastura gehiago berratzen zela, ura hartuik [herriain] aitzinean eskuak garbitu zituen, erten zuelaik:

–Yustu hunen odolaz inozente naiz. Hor ikus'azue zerok!

25. [Herri] guziak errespondituik, erran zuen:

–Horren odola izan daiela {izan bedi} gure gañean!

26. Orduan Barrabas laxatu zaben, eta Jesus azotazi ondoan, gurutzifikatua izateko [eman] zaben.

27. (Gobernari)ain soldaduek Jesus hartuik [yauregira] erematekо, haren inguruan tropa guzia formazi zuten.

28. Biluxi ondoan, kapa bat yauntzi zioten granazkoa.

29. Elorrizko korona bat inik, buruain gañean paratu zioten, eta kana bat eskuñeko eskuan. Eta haren aitzinean belaunikatuik, burla iten zioten, erten ziotelaik: «Yangoikoak salba zaitzala, yuduen erregea!».

30. Eta tu inez, kana {kanabera} bat hartu zuten, eta haikin yotzen zuten buruan.

31. Hola hartaz burlatu ondoan, kapa kendu zioten eta bere arropak paratuik, gurutzifikatzera ereman zuten.

32. Kanpora atratzean, Zireneko gizon bat harpatu zuten, Simon deitzen zena, eta Jesusen gurutzeaikin kargatzera bortxatu zuten.

33. Toki batera [e]torri ziren, Golgota deitua, hau da, «Kalabera tokia».

34. Ardoa [e]man zioten edatera, minaikin {kedarraikin} nahasia. [Jesusek] probatu ondoan, etzuen edan nahi izan.

35. Gurutzifikatu zuten ondoan, haren arropak partitu zituzten, txortean botatuik, [profetak errana betea] izan zaien: *Nere arropak partitu zituzten eta nere soñekoa txortean botatu zuten*.

36. Eta yarriik, guardia iten zioten.

37. Haren buruain gañeko aldean bere kausa eskribitua paratu zuten: «Hau Jesus da, yuduen erregea».

38. Orduan bi [ebastale] gurutzifikatu zituzten haikin batean; bat haren eskuñeko aldean eta bertzea ezkerrekoan.

39. Handik pasatzen zirenek arnegatzen zuten beren buruak higituz.

40. Ziotelaik: «A, Yangoikoain {Yaungoikoain} tenplua urratzen {desegiten} [huena] eta berriz hiru egunez goratzen, salba hadi heroi; Yinkoain Semea balin bahaiz, yauts hadi gurutzetik!».

41. Gisa berean [apezburuek], eskribekin eta zagarrekin batean, burla iten zioten erranez:

42. «Bertzeak salbatu zituen, eta eztezake bere burua salbatu. Baldin Israelgo erregea bada, yauts daiela orai gurutzetik eta sinetsiko dugu.

43. Yangoikoain baitan fiatu zen {fidatu zen}, libra dezala orai, maite balin badu, erran zuenez gero: Yinkoain Semea naiz».

44. Haikin gurutzifikatuak [ebastaleek] ere mehatxatzen zuten.

45. Eguerditik hasi ta hiru orduak bitartean, lur guzia ilundu zen.

46. Hiru orduak punttuan {Bederatzi orduak puntuan} zirelaik, Jesusek oihu haundi bat in zuen, ziolaik: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»* Erran nahi [du]: *«Nere Yangoikoa, nere Yangoikoa, zertako abandonatu naizu?»*.

47. Han ziren zenbaitek, hoi aitu zutelaik, [erran zuten]: «Elias deitzen du».

48. Eta bela, hetaik batek, laixterka goanik, esponja bat hartu zuen, ozpinean trenpatu zuen eta, kana baten puntan paratuik, edatera ematen zion.

49. [Bañan] bertzeek [erran] zuten: «Utz'azue, [i]kus zagun Elias etortzen ote den horren libratzera».

50. Baño Jesusek, bigarren aldian oihu haundi bat in ondoan, arima [eman] zuen.

51. [Eta huna], tenpluko beloa bi aldetara gainbeheiti urratu zen, eta lurra ikaratu zen, eta harriak arraildu ziren.

52. (Hilobiak) edeki ziren, eta hilak ziren sainduen aunitz gorputz berriz piztu ziren.

53. Beren (hilobi)etaik atraik, hura piztu ondoan, [hiri] saindura etorri ziren eta aunitzei agertu ziren.

54. Zenturionak eta haikin Jesusen guardatzen zaudenek lurrikara ikusi zutelaik, eta han pasatzen ziren gauzak, beldur haundia hartu zuten eta erten zuten: «Segurki Yinkoain Semea zen gizon hau!».

55. Han bazen asko [e]mazteki, urrundanik begira zaudenak {behatzen zutenak} eta Galileatik Jesus segitu zutenak, hura zerbitzatuz;

56. Zeñen artean [Magdalako] Maria eta Maria Santiagoin ta Joseren ama, eta Zebedoin semeen ama.

57. Ilunaarrean, Arimateako gizon aberats bat etorri zen, Jose deitua, hura're Jesusen [ikastalea].

58. Hau Pilatorengana hurbildu zen, eta Jesusen gorputza eskatu {galdetu} zion. Pilatok orduan gorputza eman ziozotela manatu zuen.

59. Josek, gorputza hartuik, maindire txuri batean inguratu zuen.

60. Eta beretako peña batean edekazi zuen (hilobi) berri batean paratu zuen. Eta (hilobi)ain gañera lauza {harlauza} haundi bat irauli zuen, eta goan zen.

61. [Magdalako] Maria eta bertze Maria han ziren, (hilobi)ain parean yarriak.

62. Biharamunean, zein Paraszebeko egunain ondokoa baita, [apezburuak] eta fariseoak elkarrekin goan ziren Pilatoingana,

63. Erten ziotelaik:

–Yauna, oroitzen gara enganatzale horrek, bizi zelaik, erran zuela: «Hiru egunen buruan berriz piztuko naiz».

64. Mana zazu, bada, (hilobia) hirugarren eguna [artio] zaindua izan daiela, haren [ikastaleak] etor daitzin beldurrez, eta ebats dezaten eta yendeaia erran dezaten «Hilen artetik piztu da». Azken engañoa gaixtoagoa litzeke lehenbizikoa baño.

65. Pilatok erran zaben:

–(Zaindariak) baitutzue. Zoazte eta zain zazue dakizuen bezala.

66. Goan ziren, bada, eta (hilobia) aseguratzeko, harria sellatu zuten eta (zaindariak) paratu zituzten.

28. KAPITULUA

[Jesusen pizteain berria. Soldaduak erosi.
Ikastaleak mundu guzira igorriak.]

1. Larunbateko eguna pasatu zelaik, asteain lehenbiziko egunean argi hastean, [Magadalako] Maria eta bertze Maria (hilobi)ain ikustera etorri ziren.
2. Eta lurrikara haundi bat izan zen. Zeren Yaunain aingiru bat zerutik yautsi zen; eta hurbildu eta harria irauli zuen, eta haren gañean yarri zen.
3. Haren aurpegia oñaztura bezalakoa zen, eta haren beztidoa elurra bezen txuria.
4. Haren beldurrez (zaindariak) ikaratu ziren, eta hilak bezala gelditu ziren.
5. Bañan aingiruak, hitza hartuik, emaztekiei erran zaben:
–Zuek etzazuela beldurrik izan. [Zeren] badakit Jesus gurutzifikatua izan dena bilatze'uziela.
6. Ezta hemen, [zeren] berriz piztu da, erran zuen bezala. Zatozte, eta [i]kus'azue Yauna paratua izan zen tokia.
7. Eta zoazte bela, errozue {errazue} haren [ikastaleei]: «Berriz piztu [da], eta horra non doaien zuen aitzinean Galileara; han ikusiko'izue». Horra, bada, abisatu zaiztet aitzinetik.
8. (Hilobitik) bela atra ziren, beldurraikin eta bozkario haundi batekin, eta laixterka goan ziren [ikastaleei] berriak ematera {eramatera}.
9. Denbora berean, Jesus bidera atra zitzaien, erten zuelaik: «Yaungoikoak [zain] zaitzatela!».
Hek harengana hurbildu ziren, eta haren zangoak besarkatu zituzten, eta adoratu zuten.
10. Orduan Jesusek erran zaben: «Etzazuela izan beldurrik! Zoazte, ereman zitzue berriak nere anaiei Galileara goan daitzin; han ikusiko naute».
11. [Emaztekiak] partitu zirelaik, (zaindari)etaik zenbait [hirira goan ziren, eta apezburuei abisua eman] zuten pasatzen zen guziaz.
12. [Apezburuak] zagarrekin bildu ondoan eta batzarrean tratatu ondoan, soldaduei dirutze haundi bat eman [zaben].
13. Erten zabelaik: «Errazue haren [ikastaleak] gauaz etorri zirela, eta "ebatsi zuten gu lo gindauden denboran".
14. Hau (gobernari)ain begarrietara {bearritara} allegatzen balitz, guk sinetsaziko diogu, eta zuen seguridadeaz [zainduko] dugu».
15. [Soldaduek] dirua hartuik, erakutsi zaben bezala in zuten. Eta fama hunek, yuduen artean hedatu zena[k], gaurko egunerañokoan {egun arteraño} irauten du.
16. Hameka [ikastaleak] Galileara goan ziren, Jesusek manatu zaben mendiain gañera.
17. Eta [i]kusi zutelaik, adoratu zuten; baño zenbaitek dudatu zuten.
18. Jesus, hurbilduik, mintzatu zitzaien, erten zuelaik: «Podore guzia [e]man zait zeruan ta lurrean.
19. Zoazte, bada, eta erakuts'azue yende guziei, Aitain eta Semeain eta Izpiritu Sainduain izenean bataiatzen tutzuelaik,
20. [Nik] manatu dazkitzueten gauza guziak [betetzen] erakusten dabezuelaik. Eta yakin zazue ni zuekin naizela egun guziz munduain akabantza [arteraño]».

LAPURTERA

MATEOREN EBANJELIOA

LAPURTERAZ

JESUKRISTOREN EBANJELIO SAINDUA

MATIUREN ARABERA

JOAN PIARRES DUVOISIN

1865

[LEHENBIZIKO KAPITULUA]

[Jesus birjinaganik sortua.
Jesusen etorkia. Jesusen sortzea.]

1. Jesukristo Dabiden semearen, Abrahamen semearen etorkiaren liburua.
2. Abrahamek Isaak izan zuen seme; Isaakek berriz Jakob; Jakobek Juda eta haren anaiak;
3. Judak Tamarrenganik Fares eta Sara [izan zituen]; Faresek Esrom; Esromek Aram;
4. Aramek Aminadab [izan zuen]; Aminadabek Naason; Naasonek Salmon;
5. Salmonek Errahabenganik Booz [izan zuen]; Boozek Obed Erruthenganik; Obedek Jese.
6. Eta Jesek Dabid erregea.
Dabid erregeak Salomon, Uliasen emazte izatu zenarenganik;
7. Salomonek Erroboam [izatu zuen]; Erroboamek Abia; Abiak Asa;
8. Asak Josafat [izan zuen]; Josafatek Joram; Joramek Ozias;
9. Oziasek Joatam [izan zuen]; Joatamek Akaz; Akazek Ezekias;
10. Ezekiasek Manases [izan zuen]; Manasesek Amon; Amonek Josias.
11. Josiasek, berriz, Jekonias eta haren anaiak [izan zituen] Babiloniarako deserripen irian.
12. Babiloniarako deserripenaren ondoan, Jekoniasek Salatiel [izan zuen]; Salatielek Zorobabel;
13. Zorobabelek Abiud [izan zuen]; Abiudek Eliakim; Eliakimek Azor;
14. Azorrek Sadok [izan zuen]; Sadokek Akim; Akimek Eliud;
15. Eliudek Eleazar [izan zuen]; Eleazarrek Matan; Matanek Jakob;
16. Jakobek, berriz, Josep [izan zuen], Mariaren senarra, Mariaganik sortu baitzen Jesus, Kristo deitzen dena.
17. Gizaldi guziak, beraz, Abrahamenganik Dabidganaraino hamalau gizaldi [dire], Dabidenganik Babiloniarako deserrirapeneraino hamalau gizaldi, eta Babiloniarako deserripenetik Kristoganaraino hamalau gizaldi.
18. Kristoren sortzea, berriz, hunela izan zen: Maria, haren ama, Josepekin hitzemana zelarik, elkarganatu ziren aitzinetik aurkitu zen Izpiritu Sainduaganik sabelean haurdun.
19. Bada, nola Josep haren senarra gizon prestua baitzen, eta ez baitzioen laidorik eman nahi, ixilik igorri nahi izan zuen.
20. Bainan holako gogoetak zerabilzkilarik, hara Jaunaren aingerua agertu zitzaioela ametsetan, erraten zioelarik: «Josep, Dabiden semea, ez lotsa zure emaztetzat hartzera Maria, ezen hunen baitan sortua dena Izpiritu Sainduaganikakoa da.
21. Aldiz, erdiko da seme batez eta zuk izenez Jesus [deituko duzu], hura da ezen bere populua bere bekatuetarik [ateratuko duena].
22. Hau guzia egin izan da bete zadien Jaunaz errana izan zena profetaren ahoz:

23. *Huna birjina batek sabelean seme bat [izanen duela], eta erdiko dela, eta haurrari [Emmanuel eman diotela izena]*, hori erran nahi baita «Jainkoa gurekin».
24. Josepek, aldiz, lotarik atzarri ondoan, Jaunaren aingeruak manatu zioen bezala [egin zuen]: bereganat hartu zuen bere emaztea.
25. Eta etzuen ezagutua bere seme lehensortuaz [erdi zenean, zeinari Josepek Jesus] eman baitzioen izentzat.

[BIGARREN KAPITULUA]

[Iguzkialdeko Magoek Jesus adoratu.
Egiptora ihesi. Belengo haurren hiltzea.
Egiptotik itzuli eta Nazareten bizi.]

1. Nola beraz Jesus Betleem Judeakoan [sortua baitzen] Herodes erregearen egunetan, hara Mago batzu etorri zirela iguzkialdetik Jerusalemera.

2. Ziotelarik:

–Non da juduen errege sortu dena? Ezen iguzkialdean haren izarra [ikusi izan dugu], eta haren adoratzera gatortzi.

3. Hori aditzearekin, asaldutan sartu zen Herodes erregea, eta Jerusalem guzia harekin batean.

4. Eta apezen buruzagiak eta populuaren iskribauak [bilarazirik], galdeka zagokioten ea non sortzekoa zen Kristo.

5. Hekiek erran zioten:

–Betleem Judeakoan, halabainan hau da profetak iskribatua:

6. *Eta hi, Betleem, Judeako lurra, ez haiz segur xumeena Judeako lehenbizikoen artean, ezen hire baitarik duk ilkiren Israelgo ene populuari hotsemanen dioena.*

7. Orduan Magoak ixilik deiturik, Herodes ardurarekin argitu zen hekien baitan zer mugaz agertu zitzaioten izarra.

8. [Gero], Betleemera igortzen zituelarik, erran zioten: «Zoazte eta ardurarekin galda zazue haurraz, eta aurkitu dukezuenean, gaztia dizadazuet natorren ni ere haren adoratzera».

9. [Errege] entzun ondoan, bideari lotu ziren. Eta iguzkialdean izara [ikusi izan zuten], aitzinean zihoakiotela, heldurik bara zadien arteo haurra zagoen tokiaren gainean.

10. Izarra [ikusi zutenean], bozkario handiz ziren boztu.

11. Etxean sarturik, haurra bere ama Mariarekin [aurkitu zuten], eta lurrerat eroriz adoratu izan zuten; eta beren kutxak idekirik, emaitzetan eskaini ziozkaten urrea, intsentsua eta mirra.

12. [Gero] lotan izanik Herodesengana ez bihurtzeko mezua, bertze bide batetarik itzuli ziren [beren herrialdera].

13. Gibelerat itzuli zirenean, hara Jaunaren aingeru bat Josepi lotan agertu zitzaioela, erraten zioelarik: «Jaiki zaite, har zatzu haurra eta bere ama, ihes egizu Egiptora. Eta zaude han nik erran arteo, ezen gertatzera doa Herodes haurraren ondoan [ibiliko dela], hura galdu beharrez».

14. Jaikirik, Josepek gabaz hartu zituen haurra eta bere ama, eta Egiptorat aldaratu zen.

15. Herodes hil arteo han egotu zen, bete zadien Jaunak profetaren ahoz erran zuena: *Egiptotik deitu izan dut ene semea.*

16. Orduan Herodesek ikustenez jokatua zela Magoez, hasarre gaitzean sartu zen, eta Betleemen eta hango inguru guzietan ziren bi urtetarik beheitirako haur guzien hiltzera [igorri zuen], Magoenganik argitu zen mugaren arabera.

17. Orduan bete zen Jeremias profetaren arartekoz errana izan zena:

18. *Deiadar bat entzuna izan da Erraman, marraska eta orrobia ainitz. Errakel marraskaz bere umeen gainean, eta gozakaririk ez du nahi izan, zeren ez diren [bizi].*

19. Herodes hil ondoan, hara Jaunaren aingerua Josepi agertu zitzaioela Egipton, lo zegolarik.

20. Eta erran zioen: «Jaiki zaite, har zatzu haurra eta bere ama, eta bihur zaite Israelgo lurrera, hilak dire ezen haurraren biziaren ondoan zabiltzanak».

21. Jaiki zen Josep, haurra eta ama [hartu zituen eta Israelgo lurrera etorri zen].

22. Arkelao [Judean bere aita Herodesen orde errege zela aditurik, ordean], beldur izan zen harat goateko. Eta lotan mezu izanik, Galileako aurkintzetara bildu zen.

23. Eta goanik, Nazaret deitzen den hiri batean egin zuen bere egoitza, bete zadien profeten arartekoz errana izan zena: *Nazaretarra [deituko dute].*

[HIRUGARREN KAPITULUA]

[Joanes Bataiatzaileak Jesusen etortzea oihukatu.
Jesus bataiatua.]

1. Orduko egunetan Joanes Bataiatzailea etorri zen Judeako mortuan erantzunez eta erranez:
2. «Egizkitzue urrikizko eginkariak, hurbildua da ezen [zeruko] erresuma».
3. Hura [Isaias profetak aipatua zen] erraten zuenean:
Mortuan oihuz dagoenaren mintzoa: Apain zazue Jaunaren bidea, xuxen zatzue haren bidexkak.
4. Bada, Joanesek soinekoa kamelu ilez [zuen], eta larruzko uhal bat gerrian; aldiz, haren janaria txarlataz [zen] eta oihanetako eztiz.
5. Orduan harenganat ilkitzen ziren Jerusalem guzia, Judea eta Jordan inguruak oro.
6. Eta beren bekatuen aitorra egiten zutelarik, haren eskutik bataiatuak ziren Jordanen.
7. Bainan farisauetarik eta saduzearretarik ainitz bataiora etortzen [ikusirik], erran zioten:
–Suge arraza! Nork erakutsi darotzuete jaustera dihoan hasarreari ihes egiten?
8. Atera zatzue, beraz, urrikizko eginkari behar bezalakoak.
9. Eta berauzue zuen baitan [errate]tik «Abraham dugu aita». Ezen nik derratzuet, gai dela Jainkoa harri horietarik beretarik ere umeak Abrahami sorrarazteeko.
10. Jadanik aizkora arbolaren erroan ezarria da. Bada, edozein arbola fruitu onik ez dakarrena ebakia eta surat artikia izanen da.
11. Nik uraz bataiatzen zaituztet, urrikitan [sar zaitezten]; bainan ene ondotik etortzekoa dena, ni baino ahaldunago da, eta ni ez naiz [on] haren oinetakoen erabiltzeko ere; harek Izpiritu Sainduaz eta suaz [bataiaturen zaituztete].
12. Eskuan daduka bere bahea eta bere larraina [xahuturen du], selarura bilduren du bere bihia; lastoak, aldiz, ezin iraungizko suan erreren ditu.
13. Orduan Jesus Galileatik Jordanera etorri zen Joanesengana, haren eskutik bataiatua izatera.
14. Joanesek ordean gibelatzen zuen, zioelarik:
–Ni behar naiz [zuk] bataiatua izan, eta zu zare eneganat etortzen?
15. Jesusek, aldiz, ihardestean erran zaroen:
–Zaude oraiko huntan, ezen egoki da guk zuzen den guzia hunela bete dezagun.
Orduan Joanesek etzioen gehiago jarduki.
16. Bataiatu-eta, Jesus berehala ilki zen uretik. Eta hara [zerua zabaldu zitzaioela], eta Jainkoaren Izpiritua usoaren itxuran jausten ikusi zuen, eta bere gainera etortzen.
17. Eta hara zerutikako mintzo bat, zerrana: «Hau da ene seme maitea, zeinaren baitan ni bainaiz laket».

[LAUGARREN KAPITULUA]

[Jesusen baraua eta tentazioa.
Jesus Galileara. Berri ona zabaltzen hasi.
Lehenbiziko dizipuluei dei. Eriak sendatzen.]

1. Orduan Izpirituak mortura eraman zuen Jesus, debrua[k] tentatua izateko.
2. Berrogei gau-egunez barur egin zuenean, gosetu zen gero.
3. Eta tentatzaileak, hurbildurik, erran zioen:
–Zu Jainkoaren semea [balinbazare], errazu ogi bilaka ditezen harri horiek.
4. Jesusek ihardestean erran zioen:
–Iskribatua duk: *Gizona ez da ogiz [bakarrik] bizi, bainan Jainkoaren ahotikako hitz guziz.*
5. Orduan debruak hiri saindura [eraman zuen], tenploaren kaskoan ezarri zuen,
6. Eta erran zion: Jainkoaren semea balinbazare, beheiti artikazu zure burua. Iskribatua da ezen, *bere aingeruei eman zaituela gomendioz, eta beren eskuetan ekarriren zaituztela, oinaz jo ez dezazun harria.*
7. Jesusek ihardetsi zioen:
–Hau ere iskribatua duk: *Zure Jainko Jauna ez duzu frogapenez behartuko.*
8. Debruak berriz [eraman zuen] mendi guziz gora batera, eta lurreko erresuma guziak [erakutsi ziozkan] eta hekien ospea.
9. Eta erran zioen:
–Horiek oro [emanen darozkitzut], baldin lurrerat eroriz adoratzen banauzu.
10. Orduan Jesusek erran zioen:
–Hoakit, Satan! Iskribatua duk ezen: *Zure Jainko Jauna [adoraturen duzu], bai-eta hura bakarrik duzu zerbitzaturen.*
11. Orduan debruak [utzi zuen], eta hara aingeruak hurbildu zitzaizkoela eta zerbitzatzen zutela.
12. Jesusek aditurik Joanes [preso hartu zutela, Galileara baztertu zen].
13. Eta Nazareteko hiria utzirik goan zen eta Kafarnaum itsas bazterrekoan egin zuen bere egoitza, Zabulongo eta Neftaliko mugan.
14. Isaias profetaren ahoz erran izan zena [bete zadientzat]:
15. *Zabulonen lurra eta Neftaliren lurra, itsasorako bidea, Jordanez haindian, jendaien Galilea!*
16. *Ilunbeetan zatzan populuak argi handi bat [ikusi du], eta herioaren itzaleko epaitzetan jarriak zaudezenei ilki zaiote argia.*
17. Ordutik Jesus abiatu zen erantzuten eta erraten: «Egizkitzue urrikizko eginkariak, hurbil da ezen zeruko erresuma».
18. Galileako itsas bazterraz zihoalarik, Jesusek bi haurride [ikusi zituen,Simon, Petri deitua] eta Andres haren anaia, itsasora sare artikitzen ari zirela, ezen arrantzariak ziren.

19. Erran zaroeten: «Zatozte ene ondotik, eta nik eginen dut gizon arrantzari bilakaturen zaretela».

20. Hekiek berehala, sareak utzirik, jarraiki zitzaizkon.

21. Handik aitzinago goanik, bertze bi haurride [ikusi zituen], Jakobe Zebedeorena eta Joanes haren anaia, untzi batean beren aita Zebedeorekin sare antolatzen ari zirela. Eta deitu zituen.

22. Hekiek ere ordu berean, sareak eta aita [utzirik], ondotik jarraiki zitzaizkon.

23. Jesusek Galilea guzia [inguratzen zuen], hango sinagogetan irakatsiz, zeruko erresumaren ebanjelioa [erantzunez] eta populuan gaitz eta eritasun guziak sendatuz.

24. Siria guzira goan zen haren omena. Zerbait eritasun zutenak oro [ekarri ziozkaten], edozein gaitz eta oinazez hartuak zirenak, debrudunak, ilargi-joak eta alderdikatuak, eta sendatu zituen.

25. Oste handiak jarraiki zitzaizkon Galileatik, Dekapolisetik, Jerusalemetik, Judeatik eta Jordanez hainditik.

[BORZGARREN KAPITULUA]

[Jesusen hitzaldia mendian. Dohatsutasunak.
Lurreko gatz eta argi. Jesus eta legea.
Haurriden arteko harremanak. Adulterioa eta dibortzioa.
Zinak. Mendekua. Maita etsaiak.]

1. Jesusek ikustenez halako osteak, mendira igan zen. Jarri zenean, bere dizipuluak hurbildu zitzaizkon.

2. Ahoa [ideki zuen] eta irakasten zituen, zioelarik:

3. –Dohatsu izpirituz direnak behar, zeren hekiena baita [zeruko] erresuma.

4. Dohatsu emeak, zeren lurraz baitire gozaturen.

5. Dohatsu nigar egiten dutenak, gozakari [emanen baitzaiote].

6. Dohatsu zuzenbidearen gosez eta egarriz daudezenak, aseak izanen baitire.

7. Dohatsu urrikalkor direnak, zeren berek ere ardietsiren baitute urrikalmendu.

8. Dohatsu bihotzez [garbi] direnak, hekiek ikusiren baitute Jainkoa.

9. Dohatsu baketiarrak, zeren Jainkoaren ume izanen baitire deituak.

10. Dohatsu jazarpenak zuzenarengatik egartzen dituztenak, zeren hekiena baita [zeruko] erresuma.

11. Dohatsu zarete izanen, ahapaldika ariko zarozkitzuetenean eta jazarrika erabiliren zaituztenean, eta enegatik zernahi gaizki gezurrez erauntsiko dutenean zuen kontra.

12. Boz zaitezte eta jauz zaitezte, zeren nasaia baitago zuen saria [zeruan]; alabainan holakoak jasan dituzte aitzinean izatu diren profetek.

13. Zuek zarete lurreko gatza. Baldin gezatzera heldu balitz gatza, zertaz hura gazi? Deusetako ez laite gehiago, baizik ere kanporat artikia eta gizone[k] oinkatua izateko.

14. Zuek zarete munduko argia. Ezin itzal daiteke mendi gainean jarria den hiria.

15. Kriselu bat ere ez da bizten eta gaitzeruaren azpian ematen, bainan bai gainderailuaren gainean, etxean diren guziei egin diozoten argi.

16. Horrela argi beza zuen argiak gizonen aitzinean, zuen eginkari onak [ikus detzazten] eta ospe diozoten bihur zuen Aita [zeruan] denari.

17. Ez uste izan legearen eta profeten ezeztatzera naizela etorri; ez naiz etorri ezeztatzera, bai ordean betetzera.

18. Ezen nik derratzuet egiaz, zeru-lurrak iragan arteraino, iota bakar bat edo tilet bat ez dela legetik aldaturen, [gauza] guziak bete ditezen arteo.

19. Nork ere, beraz, manamendu horietarik xumeena baitu hautsiren eta halako irakaspena gizonei baitiote emanen, haina [zeruko] erresuman xumeena deituren da; aldiz, nork ere eginen eta irakatsiren baititu, haina izanen da [zeruko] erresuman handi deitua.

20. Ezen nik derratzuet, etzaretela [zeruko] erresuman sartuko, baldinetaria zuen zuzentasunak iskribau eta farisauena gainditzen ez badu.

21. Entzun duzue lehengo zaharrei errana: *Ez duzu hilen*; eta hiltzailea jujamenduaren jasankizun izanen dela.

22. Nik derratzuet, ordean, bere anaiari sumintzen zaion edozein, jujamenduaren jasankizun dela; nork ere, berriz, anaiari [«eroa»] erranen baitio, haina biltzarraren meneko izanen dela; zeinak, aldiz, «eroa» [erranen baitu], haina ifernuko suaren jasankizun dela.

23. Baldin, beraz, eskaintza bat aldarera ekartzen baduzu, eta han oroitu bazare zure anaiak baduela zerbait zure kontra,

24. Han utzazu zure eskaintza aldarearen aitzinean, eta zure anaiari lehenik zoazkio baketzera, eta orduan etorririk zure eskaintza [eginen duzu].

25. Laster antola zaite zure partidarekin, harekin bidean zareno, beldurrez-eta jujearen eskuetara eman zaitzan partidak, eta jujeak bere zerbitzariari, eta [preso] sar zetzazten.

26. Egiaz derratzut handik etzarela ilkiren, non ez duzun azken erditeraino bihurtzen.

27. Entzun duzue zaharrei erran izan ziotela: *Bertzeren emaztearekin ez kutsa*.

28. Nik derratzuet, berriz: nork ere emaztekia baituke haren irritsarekin ikusi, ordukoz harekin kutsatua dela bihotzez.

29. Baldinetaria zure begi eskuinekoa zure behaztopagarri bada, iragaz eta zureganik urrun artikazu: hobe da alabainan zure menbroetarik bat dadien gal, ezenez-eta gorputza oro dadien ifernuetarat artik.

30. Baldin zure esku eskuina zure behaztoparazteko [bada], ebak eta artikazu zureganik, hobe da ezen zure menbroetarik bat dadien gal, ezenez gorputza oro ifernura dadien goan.

31. Hau ere errana izan da: *Edozeinek utz dezan bere emaztea, eman biozo uzten duelako ageria*.

32. Nik derratzuet, bada, edozeinek utz dezan bere emaztea, lekat bertzeekin kutsatu delakoz, berak kutsarazten duela, eta utzia hartzen duenak, bere burua kutsatzen duela.

33. Entzun duzue oraino zaharrei errana izan dela: *Zure zinik hautsiren ez duzu*, bainan *Jaunari zure zinak bihurturen diozkatzu*.

34. Bada nik derratzuet: zinik ez egin batere, *ez zeruaz hura Jainkoaren jarlekua* [baita];

35. *Ez lurraz, hura haren oinpetako alkia* [baita]; ez Jerusalemez, *hura errege handiaren hiria* [baita].

36. Zure buruaz ere ez duzu zin eginen, zeren ez baitzare ile bakar baten txuri edo beltx eragiteko.

37. Bainan hau izan bedi zure hizkuntza: [«bai», bai denean]; «ez», ez [denean]; horietaz gainerakorik dena, ordean, Gaizkitikakoa da.

38. Entzun duzue errana izan dela: *Begia begiaren, hortza hortzaren*.

39. Nik derratzuet, aldiz, ez bihurtzeko gaizkiari, bainan norbaitek eskuineko matelan [jotzen bazaitu], itzul biozozu bertzea ere.

40. Eta zurekin auzitan ari, eta soina eraman nahi darotzunari, utz biozozu kapa ere.

41. Eskatzen darozunari emozu, eta ez gibelerat igor zureganik mailegatu nahiz heldu dena.

42. Eskatzen darotzunari emozu, eta ez gibelerat igor zureganik mailegatu nahiz heldu dena.

43. Entzun duzu errana izan dela: *Onetsazu zure laguna* eta gaitzets zure etsaia.

44. Nik derratzuet, berriz: onirizkotan iduk zatzue zuen etsaiak, ongi egiozuete gaitzirizkotan zaduzkatenei, eta otoitz egizue zuei jazartzen darotzuetenentzat eta zuen beltzatzen ari direnentzat;

45. Zuen Aita [zeruan] denaren, prestuen eta gaixtoen gainera bere iguzkia ateratzen, eta uria zuzenen eta makurren gainera egiten duenaren ume izan ziteztentzat.

46. Alabainan, maite zaituztetenak badituzue maite, zer sari izanen duzue? Zerga biltzaileek ere ez ote dute hori egiten?

47. Eta zuen anaiei baizik ez badiozuete agur egiten, zer egiten duzue nornahik baino gehiago? Paganoek ere ez ote dute horrenbat egiten?

48. Izan zaitezte beraz perfet, zuen Aita zerukoa ere perfet den bezala.

[SEIGARREN KAPITULUA]

[Amoina. Gure Aita otoitza. Barura.
Zeruan aberats. Barneko argia.
Jainkoa edo dirua. Zertaz arduratu.]

1. Berautzue gizonen aitzinean egitetik zuen eginkari onak, hekie[k] ikusiak izateagatik; haletan saririk ez dukezue zuen Aita [zeruan] denaren baitan.

2. Amoina egiten duzunean, beraz, ez jo turuta zure aitzinean, itxura edertzaleek sinagogetan eta karriketan bezala, gizone[k] ohoratuak izateagatik. Egiaz derratzuet: izana dute hekiek beren saria.

3. Zuk, ordean, amoina egiten duzunean, zure esku ezkerrak ez beza jakin zer egiten duen eskuinak,

4. Itzalekoa izan dadientzat zure amoina; eta zure Aita itzalean dakusanak bihurturen darotzu.

5. Eta otoitzean zaudeztenean, ez izan itxura eder egileak bezala, zeinek laket baitute sinagogetan eta karrika buruetan gelditurik otoitz egitea, [gizonek ikusiak] izan ditezen. Egiaz derrautzuet nik: izana dute beren saria.

6. Zuk, ordean, otoitz eginen duzunean, zure gelan sar zaite eta, atea hertsirik, gordean egiozu zure Aitari otoitz, eta zure Aita gordean dakusanak bihurturen darotzu.

7. Aldiz, otoitz egiten duzuenean, ez ainitz eras, paganoek bezala, ezen hekiek uste dute erasia luzearen bidez direla entzuten.

8. Ez bezaitezte, beraz, jar hekien kideko; alabainan, zuen Aitak zuek galdetu baino lehen badaki zeren beharra duzuen.

9. Zuek, beraz, huneletan eginen duzue otoitz: «Gure Aita [zeruan] zarena, sainduki erabilia izan bedi zure izena.

10. Betor zure erresuma. Egin bedi zure nahia, zeruan bezala, lurrean ere.

11. Iguzu egun hazteko behar dugun ogia.

12. Barka guri gure zorrak, guk ere gure zorduruei barkatzen daroeztegun bezala.

13. Ez begaitzazu tentazioneari utz, aitzitik gaizkiari itzur gaitzatzu. Halabiz».

14. Alabainan gizonei bere hobenak [barkatzen badaroztetzue], zuei ere zuen Aita zerukoak barkaturen darozkitzuete zuen bekatuak.

15. Aitzitik, gizonei ez badiozuete barkatzen, zuen Aitak ere zuen bekatuak ez darozkitzuete barkaturen.

16. Barur egiten duzuenean, berriz, ez jar, itxuratiak bezala, begitartez ilun; ezen beren begitarteak gaizten dituzte, barur jasaiten agertzeagatik gizonen aitzinean. Egiaz derratzuet nik, berekin dutela beren saria.

17. Zuk, ordean, barura daramazunean, gantzu zazu zure burua eta garbi begitartea.

18. Etzaitezen gizonei ager barurik zarela, bainan bai zure Aita toki gordean ere denari; eta zure Aita gordean dakusanak bihurturen darotzu.

19. Ontasun moltzatzen ere eraunts lurrean, hemen herdoila eta bipia jaten ari baitire, eta ohoinak zilatzen eta ebasten.

20. Bainan zeruan egizkitzue zuen ontasun murruak, han ez baitute herdoilak ez bipiak jaten, ez eta ohoinek zilatzen eta ebasten.

21. Ezen non ere baita zure ontasuntzea, han da zure bihotza ere.

22. Zure begia da zure gorputzaren argia. Zure begia [lainoa badaite], argia daite zure gorputz guzia.

23. Aitzitik, zure begia gaitza badaite, beltza daite zure gorputz guzia. Baldin, beraz, zure baitan den argia ilunbea daite, ilunbeak berak zenbatekoak ez daizte!

24. Nihork ezin detzazke bi nausi zerbitza; edo bat higuin [izanen du] eta bertzea maite, edo bat [jasanen du] eta bertzea arbuiatuko. Ezin zerbitza detzazkezue Jainkoa eta dirua.

25. Hargatik nik derratzuet: bizitzeko zer janen, ez-eta larrua zertaz estaliko duzuen ez izan grinatsu. Ez ote da bizia jana baino gehiago, eta gorputz jauntzia baino?

26. Ikusatzue zeruko hegastinak, ez baitute eraiten, ez uztatzen, ez-etare selaruetara biltzen; eta zuen Aita zerukoak hazten ditu. Zuek ez ote zarete ainitzez hekiek baino gehiago?

27. Zuetarik, berriz, zein da bere asmu guziekin bere irazkiari beso bat iratxik diozokeenik?

28. Eta zuen jauntziaz, zeren zarete grinati? Bazterreko liliei zaudezkiote begira, nola diren handitzen; ez dire, bada, ez lanean ez iruten ari.

29. [Bainan] nik derrautzuet, Salomon ere etzela bere ospe guziaren erdian horietarik bat bezala jauntzia.

30. Baldin Jainkoak horrela jaunzten badu bazterreko belar bat, zenbatenaz hobeki eginen zaituztete zuek, oi sineste apurreko umeak!

31. Ez, beraz, grinarik har, derrazuelarik: «Zer janen dugu? Edo zer edanen? Edo zer jauntziko?».

32. Paganoak dire ezen horien ondoan dabiltzanak. Alabainan zuen Aitak badaki horien ororen beharretan zaretela.

33. Bila zazue lehenbizikorik Jainkoaren erresuma eta haren alderako zintasuna, eta bertze horiek oro iratxikiren zarozkitzuete populu.

34. Ez izan, beraz, biharkoaz kexu, ezen biharko egunak izanen du bere grina, eta egun bakotxak aski du bere gaitza.

[ZAZPIGARREN KAPITULUA]

[Ez gaitzets nihor. Konfiantza otoitzetan.
Ate hertsia. Beren fruituetarik ezaguturen.
Harriaren edo legarraren gaineko etxea.]

1. Ez juja, etzaitezten izan jujatuak.

2. Ezen ekarri duzuen jujamendu beraz izanen zarete [Jainkoak] jujatuak, eta zer neurriz ere neurtu baitukezue, hartaz neurtuak zareteke.

3. Noletan, berriz, zure anaiaren begian ohartzen zare pitsari, eta zurean ikusten ez duzu laza?

4. Edo nolaz diozu zure anaiari: «Utz nezazu ken dizazudan begitik pits bat», eta hara laz bat dagoela zurean?

5. Axalez ederra! Ken zazu lehenik zure begitik laza, eta orduan abiatuko zare zure anaiaren begitik pitsaren kentzen.

6. Saindu den gauza ez eman zakurrei, eta urdeei zuen perlak aitzinera ez aurtik, beldurrez-eta ostika detzazten eta, bihurturik, zeronek porroka.

7. Galda zazue eta emanen zaitzue; bila zazue eta arkituren duzue; jo zazue eta idekiren zaitzue.

8. Alabainan edozeinek galda dezan, izaten du, eta bilatzen duenak aurkitzen; eta joileari idekiren zaio.

9. Zein da zuetan gizona, bere semeak ogia [galda balioza], harria eskain liozokeena?

10. Edo arraina galda baliozo, [sugea] eskain ote liozoke?

11. Zuek, beraz, gaixtoak izan-eta, balinbadakizue [zuen haurrei] gauza onen ematen, zenbatenaz ere hobeki zuen Aita [zeruan] denak onak emanen daroezte galdez dagozkiotenei!

12. Zer ere, beraz, nahi baituzue zeronei egin dezazueten gizonek, hura egiozuete zeronek hekiei: ezen hortan dauntza legea eta profetak.

13. Ate hertsitik sar zaitezte; zabala da ezen atea eta nasaia bidea galpenerat daramana, eta ainitzak dire hartarik sartzen.

14. hertxia baita atea [eta] meharra bidea bizitzera daramana, eta gutiak hura aurkitzen dutenak.

15. Begira zaitezte gezurrezko profetetarik! Ardi-larruz jauntzirik [heldu zaizkitzuete, bainan] barnean otso harrapariak dire.

16. Beren fruituetarik ditutzue ezaguturen. Elorrietarik biltzen ote dire mahatsak, edo laparretarik pikoak?

17. Horreletan, arbole onak fruitu ona dakar; aldiz, arbola tzarrak tzarra dakar.

18. Arbola onak ez dakarke fruitu gaixtorik, ez-eta arbola tzarrak ere fruitu onik.

19. Edozein arbola fruitu ona ematen ez duena, ebakia eta surat artikia izanen da.

20. Beren fruituetarik ezaguturen ditutzue, beraz.

21. Niri «Jauna, Jauna!» erraten darotan edozein ez da [zeruko] erresuman sarturen; bainan ene Aita [zeruan] denaren nahia egiten duena [sarturen da].

22. Askok erranen darotade [jujamendu egunean]: «Jauna, Jauna! Guk ez ote dugu zure izenean profetisatu, eta zure izenean debruak iraizi, eta zure izenean asko sendagaila egin?».

23. Nik orduan erranen daroet goraki: «Egundaino etzaituztet ezagutu zuek; urrun zaitezte niganik, tzarkeria oratzaileak!».

24. Edozeinek, beraz, adi eta bete detzan ene hitz haukiek, haina, harriaren gainean bere etxea jarri duen gizon gurbilaren kide eginen dute.

25. Uria [jautsi da eta uharrak etorri dire, haizeak jauzi dire eta etxe hura jo dute], eta ez da erori, zeren harriaren gainean baitzen asentatua.

26. Eta edozeinek adi detzan ene solas haukiek eta bete ez, haina izanen da, gizon zoro [etxea] legarraren gainean egiten duenaren iduriko.

27. Uria [jautsi da eta uharrak etorri dire, haizeak jauzi dire eta etxe hura jo dute, eta lurrera goan da], eta gaitza izan da haren leherpena.

28. Jesusek solas horiek [akabatu zituenean, osteak espantatuak zaudezen] haren irakasmenaren gainean.

29. [Ezen] esku duena bezala [irakasten ari zitzaien], eta ez hekien iskribau eta farisauen erara.

[ZORTZIGARREN KAPITULUA]

[Jesusek legentsua sendatu.
Erromatar ehuntariaren sinestea.
Jesusek Petriren amaginarreba sendatu.
Ekaitza jabaldu eta Gadarako debrudunak sendatu.]

1. Gero, menditik jautsi zenean, oste handiak jarraiki zitzaizkon ondotik.
2. Eta hara legentsu bat etorri zela, eta [Jesus] adoratzen zuen, zerralarik:
–Jauna, zuk nahi baduzu, garbi nezakezu.
3. Eskua hedatuz, Jesusek ukitu zuen, zioelarik:
–Nahi dut, xahu bezedi.
Eta han berean garbitu zen haren legena.
4. [Jesusek erran zaroen hari]:
–Berautzu, nihori ez derrozun; bainan zoaz, ager zaite apezari eta eskaintazu Moisesek manatu eskaintza, lekukotasunetan dakion izan.
5. Jesus Kafarnaumen [sartu zenean, berriz], ehuntari bat hurbildu zitzaioen otoizka,
6. Erranez:
–Jauna, ene mutila etxean da ohatua paralitiko, eta oinazeak gogorki [ematen dio].
7. Jesusek erran zioen:
–Etorriren naiz ni eta sendaturen dut.
8. Ehuntariak ihardetsi zuen:
–Jauna, zu ene etxera sartzeko ez nais din, bainan bakarrik hitz bat errazu eta ene sehia sendatua daite.
9. Ezen ni ere gizon bat naiz bertzeen manukoa, soldadoak ene azpiko ditudana; eta [bati] erraten diot: «Habil» eta badoa, eta bertze bati: «Haugi», eta heldu da, eta ene mutilari: «Egizak hori», eta egiten du.
10. Jesusek aditzean ederresten zuen, eta ondotik zituenei erran zaroten: «Egiaz derratzuet: hunenbateko sinesterik ez dut Israelen aurkitu.
11. Nik derratzuet oraino ainitzak direla iguzki haizetik eta mendebaletik etorriko, eta Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin jarriko direla [zeruko] erresuman.
12. Aldiz, erresumako umeak kanpoko ilunbeetara izanen dire artikiak. Han izanen [dire] marraskak eta hortz karraskak.
13. Orduan Jesusek erran zioen ehuntariari:
–Zoaz, eta sinetsi bezala egin bekizu.
Eta ordu berean sendatua zen mutila.

14. Petriren etxera goan, eta Jesusek haren amaginarreba etzana [ikusi zuen] eta sukarrez erretzen.
15. Eskua [ukitu zioen], eta sukarrak utzi zuen eta, jaikirik, hekien zerbitzatzen [abiatu zen].
16. Arratsa egin zenean, berriz, Jesusi debrudun asko [erakarri ziozkaten], eta hitzaz kentzen zituen gaixtoak, eta gaizdun guziak [sendatu zituen].
17. Isaias profetaren ahoz errana [bete zadientzat]:
Berak hartu ditu gure gaitzak, eta gure eritasunak [jasan].
18. Jesusek oste handiak ikustenez bere inguruan, uraz haindira [eraman zezaten manatu zuen].
19. Hurbildurik, iskribau batek erran zaroen:
–Nausia, noranahi goan zadien, jarraikiren natzaitzu.
20. Jesusek ihardetsi zioen:
–Azeriek badituzte ziloak, eta zeruko hegastinek ohantzeak; Gizonaren Semeak ez du, ordean, non etzan burua.
21. Bere dizipuluetarik bertze batek erran zioen:
–Jauna, utz nezazu noan lehenik eta ehortz dezadan ene aita.
22. Bainan Jesusek ihardetsi zioen:
–Jarraik zakizkit niri, eta hilak uzkitzu beren hilen ehorztera.
23. Untzixkan sartu zenean, bere dizipuluak [jarraiki zitzaizkon].
24. Eta hara itsasoa hasarre handitan jauzi zela, haletan non uhinez estalia baitzen untzixka. [Jesus], berriz, lo zagoen.
25. Bere dizipuluak [hurbildu zitzaizkon] eta iratzarri zuten, ziotelarik:
–Begira gaitzazu, Jauna! Galtzen ari gare!
26. Jesusek ihardetsi zioten:
–Zertako zarete beldurti, sineste apurrekoak?
Orduan, jaikirik, haizeei eta itsasoari [manatu zioten], eta jabaldura handi bat egin zen.
27. [Orok] ederresten zuten, zerratelarik: «Nor da hau, haizeek eta itsasoak entzuten baitute?».
28. Uraz haindira, [Gadaratarren aurkintzara] heldu izan zenean, aitzinera goan zitzaizkon, hobietarik ilkirik, bi debrudun hain gaitzak, non ez baitzaitekeen nihor bide hartaz iragan.
29. Eta hara oihu egin zutela, erranez:
–Jainkoaren semea, zer da zure eta gure arteko? Hunat heldu ote zare ordua baino lehen guri oinaze ematera?
30. Hekietarik ez urrun, bazen urdalde handi bat alhan.
31. Debruek Jesus otoizten zuten, erranez:
–Baldin hemendik iraizten bagaitutzu, urdalde hortara igor gaitzazu.

32. [Jesusek] ihardetsi zioten:

–Zoazte.

Hekiek ilkirik, urdeen barnera [goan ziren], eta hara urdalde guzia tarrapataka oldarrean goan zela itsasora, eta urean ito ziren guziak.

33. Urdezainek ihes egin zuten eta, hirira goanik, berri horiek [heldu zituzten] eta debrudunei gertatu zitzaiotena.

34. [Orduan hiri guzia Jesusi bidera atera zitzaioen] eta, ikusi zutenean, [hekien eremuetarik goan zadien otoizten zuten].

[BEDERATZIGARREN KAPITULUA]

[Jesusek paralitikoa sendatu. Mateori deia.
Bekatariekin bazkaltzen. Odolgaltzedun emaztekia eta
aitzindariaren alaba. Bi itsu eta debrudun mutua sendatu.
Uzta handia da, bainan langileak guti.]

1. [Jesus] untzixkara iganik, itsasoa [iragan zuen eta bere hirira etorri zen].

2. Eta hara aitzinera ematen ziotela paralitiko bat ohean etzana. Jesusek, [hekien sinestea ikusirik], eriari erran zioen:

–Ene haurra, egiozu bihotzari! Ezen barkatuak zaizkizu zure bekatuak.

3. Eta hara iskribauetarik zenbaitek beren baitan erraten zutela: «Buroa dio horrek».

4. Bainan Jesusek, hekien gogoetak [ezagutu baitzituen], erran zuen:

–Zergatik asmatzen duzue gaizkia zuen bihotzetan?

5. Zer da errexago, ala erratea «Barkatuak zaizkitzu zure bekatuak», ala erratea «Jaiki eta ibil zaite»?.

6. Bada, jakin dezazuen, Gizonaren Semeak baduela lurraren gainean bekatuen bihurtzeko ahala.

Orduan erran zioen paralitikoari:

–Jaiki zaite, har zazu zure ohea, eta zoaz etxerat.

7. [Hura] jaiki zen eta bere etxerat [goan zen].

8. Hori ikusirik, osteak beldurtasunean sartu ziren eta ospe bihurtzen zioten Jainkoari, holako indarra gizonei eman ziotenari.

9. Handik goatean, Jesusek gizon bat [ikusi zuen] zerga bildegian jarria, Matiu deitzen zena. Eta erran zaroen:

–Jarraik zakizkit.

Jaiki zen eta jarraiki zitzaioen.

10. Jesus [Matiuren etxean] mahainean jarria zagoelarik, gertatu zen asko zergari edo lelo tzarreko gizon etorririk jarri zirela Jesusekin eta haren dizipuluekin.

11. Farisauek [hori] ikusirik, dizipuluei erraten zioten:

–Zergatik jaten du zuen nausiak zergariekin eta aipu tzarreko gizonekin?

12. Bainan Jesusek aditurik erran zuen:

–Sendoek ez dute sendakin beharrik, bai ordean eri direnek.

13. Zoazte, beraz, eta ikasazue zer derraken hitz hunek: *Urrikalpena nahi dut eta ez sakrifizioa*. Ez naiz ezen prestuen deitzera etorri, bainan bai bekatoreen.

14. Orduan Joanesen dizipuluak hurbildu zitzaizkon, zerratelarik:

–Nolaz gu eta farisauak barurtzen gare maiz, eta zure dizipuluek, aldiz, ez dute barurik egiten?

15. Jesusek ihardetsi zioten:

–Nigarrez ote dagozke espos lagunak, esposa berekin duteno? Bainan etorriko dire egunak, esposa [kenduko baitzaiote], eta orduan eginen dute barur.

16. Aldagarri zaharrari nihork ez ahal dio oihal berrizko pedatxurik ematen, ezen aldagarriari ken liozoke bere beteko zatia, eta ziloa areago egin laite.

17. Arno berria ere ez da zahagi zaharretan ematen; bertzela, zahagiak [lehertzen dire], arnoa ixurtzen eta zahagiak galtzen. Bainan arno berria zahagi berrietan ezartzen da, eta biak begiratzen dire.

18. [Jesusek] horiek erraten ziozkatenean, aitzindari bat [hurbildu zen] eta adoratzen zuen, zioelarik: «Jauna, ene alaba oraixetan hil da; bainan zato, gainean ezarrozu eskua, eta biziko da».

19. [Jesus] xutiturik, jarraiki zitzaioen, eta dizipuluak ere batean.

20. Eta hara emazteki bat, hamabi urte hartan odolgaltze batek estutzen zuena, gibeletik [hurbildu zitzaion eta soinekoaren litsa ukitu zioen].

21. Ezen bere baitan egiten zuen: «Uki badezaket hunen soinekoa bedere, sendatua naiteke».

22. Itzulirik, Jesusek ikusi eta erran zioen: «Haurra, bihotzari egiozu! Zure sinesteak sendatu zaitu». Eta ordu beretik emaztekia sendatua gelditu zen.

23. Jesus aitzindariaren etxera [heldu zenean], eta xirolariak eta oste bat harramantz handitan [ikusi zituenean], erran zuen:

24. «Zoazte gibelerat, ezen neskatxa ez da hila, bainan lo dago». [Hekiek] irri egiten zioten.

25. Jendea [ilkiarazi zutenean], sartu zen, neskatxaren eskua [hartu zuen, eta haurra jaiki zen].

26. Eta horren haroak herrialde guzia [jo zuen].

27. Jesus handik [bazihoalarik, bi itsu jarraiki zitzaizkion] oihuka eta erranez: «Dabiden semea, urrikal guri!».

28. Etxera heldu izan zenean, berriz, itsuak hurbildu zitzaizkon. Eta Jesusek [erran zaroten]:

–Sinesten duzue badudala zuen sendatzeko indarra?

–Zinki, Jauna –[ihardetsi zuten].

29. Orduan begiak [ukitu ziozkaten], zerralarik:

–Zuen sinestearen arabera egin bekizue.

30. Eta hekien begiak [idekiak izan ziren]. Jesusek larderiarekin erran zaroten:

–Begira nihork jakin ez dezan!

31. Hekiek ordean, ilkirik, bazter hekietan orotan barraiatu zuten haren omena.

32. Hekiek ateratu-eta, berriz, gizon mutu bat [erakarri zioten], debruduna.

33. [Jesusek debrua kendu zioenean], mutua mintzatu zen. Eta orok ederresten zuten erranez: «Egundaino holakorik ez da Israelen ikusi».

34. Aldiz, farisauek erraten zuten: «Debruen buruzagiaren bidez iraizten ditu debruak».

35. Jesusek hiri eta herri guziak [inguratzen zituen], hango sinagogetan irakatsiz, zeruko erresumaren ebanjelioa erantzunez, gaitz eta eritasun guziak sendatuz.

36. Oste hekiek ikustean, Jesus [urrikaldu zen] ehoak zirelakoz eta bazterretan etzanak, artzainik ez duten ardiak iduri.

37. Orduan erran zioten bere dizipuluei: «Egiazki handia da uzta, aldiz langileak guti.

38. Otoitzazue, beraz, uztaren nausia, bere uztara igor dezan langile».

[HAMARGARREN KAPITULUA]

[Hamabi apostoluen izenak. Jesusek hamabiak igorri.
Hala nola ardiak otsoen erdira. Nori izan beldur.
Jesus bereztera etorria. Ongi etorri egin.]

1. [Jesusek bere hamabi dizipuluak deiturik], esku eman zioten izpiritu lohien gainean, hekien iraizteko, eta edozein gaitz eta edozein eritasunen sendatzeko.

2. Hamabi apostoluen izenak, berriz, haukiek dire: Lehenbizikoa Simon –Petri deitzen dena– eta Andres haren anaia; Jakobe Zebedeorena, eta Joanes haren anaia;

3. Filipe eta Bartolome; Tomas eta Matiu zerga biltzailea; Jakobe Alfeorena, eta Tadeo;

4. Simon kanaandarra eta Judas Iskariot, zeinak [Jauna] saldu baitzuen.

5. Jesusek horiek hamabiak [igorri zituen], mezutzen zituelarik, erranez:

–Jendaien bidera ez goan, eta ez sar samariarren hirietara.

6. Aitzitik, zoazte Israelgo etxeko ardi galduetara.

7. Zoaztelarik, berriz, erantzun zazue erranez hurbildua [dela zeruko] erresuma.

8. Senda zatzue eriak, hilak bitz, legentsuak garbi, debruak iraiz. Urrurik izana, urrurik emazue.

9. Ez izan zuen gerrikoetan ez urre, ez zilar, ez diru.

10. Ez bidean murtxilarik, ez-eta bi soineko, ez-eta oinetakorik, ez-etare makilarik, ezen langileak hazkurria [merezi du].

11. Edozein hiri edo herritara sar zaitezten, galda zazue nor den han merezdunik, eta haren baitan zaudezte, goateko eguna arteo.

12. Etxe batean sartzean, agur egiozue, erranez: «Bakea etxe huni».

13. Etxe hura [merezdun balinbada], zuenganikako bakea haren gainera da jautsiren; ez balitz, ordean, merezdun, zuenganikako bakea zuenganat bihurturen da.

14. Edozeinek etzaitzazten ostata eta ez detzan entzun zuen solasak, etxetik edo hiritik kanporakoan iharrosazue zuen oinetako errautsa.

15. Nik derratzuet egiaz, jujamenduko eguna Sodomarentzat eta Gomorrarentzat jasan-errexagoa izanen dela hiri harentzat baino.

16. Huna non igortzen zaituztedan hala nola ardiak otsoen erdira. Izan zaitezte, beraz, zuhur sugea bezala, eta laino usoa [bezala].

17. Bainan zaudezte erne gizonen kontra! Ezen beren biltzarren aitzinera [eramanen zaituztete, eta beren sinagogetan] azotaturen zaituztete.

18. Buruzagien eta erregeen aitzinera eramanak izanen zarete enegatik, hekiei eta jendaiei egiteko nitaz lekukotasun.

19. Hekien eskuetara ezarriak izanen zaretenean, ez abia burutan erabiltzen nola edo zer erranen duzuen, ezen ordu berean emanen zaitzue zer erran.

20. Alabainan etzarete zuek mintzo zaretenak, bainan zuen Aitaren Izpiritua da zuen baitan mintzo dena.

21. Anaiak bere anaia [hiltzera igorriko du], aitak bere semea, eta haurrak jauziko zatzaizkote burasoei eta heriotzez joko dituzte.

22. Eta ene izenagatik [orok gaitzetsiak izanen zarete]; bainan zeinek ere bururaino [jardukiren baitu], haina izanen da salbatua.

23. Noiz ere, bada, gaizki erabiliak izanen baitzarete hiri huntan, ihes egizue bertzera. Egiaz derratzuet: ez duzue Israelgo hirietako ingurua akabaturen, Gizonaren Semea etorri baino lehen.

24. Dizipulua ez da nausiaren gaineko, ez-eta sehia jaunaren.

25. Dizipuluari aski behar zaio bere nausia bezala izatea, sehiari bere jauna bezala. Baldin etxeko buruzagia [Beeltzebul] deitu badute, zenbatenaz hobeki haren etxekoak?

26. Ez izan, beraz, hekien beldur! Ezen itzalean ez da deus agertuko ez denik, ez-eta gordean jakinen ez denik.

27. Nik ilunbean derrazuedana, errazue argitara; eta bearri xokoan etzuna, etxe kaskotarik erantzun zazue.

28. Gorputza hiltzen dutenen eta arima ezin hil dezaketenen beldur ez izan; bainan lehenago, gorputz arimak ifernuan gal detzazketenentzat izan zaitezte beldurti.

29. Bi etxe-xori ez ote dire bi arditetan saltzen? Eta hekietarik bat ez da lurrerat eroriko zuen Aitaren nahia gabe.

30. Zuen buruko ileak ere, [Jainkoak] oro kondatuak dire.

31. Ez, beraz, izan beldurrik: ainitz etxe-xorik baino gehiago duzue balio.

32. Nork ere aitor bihurturen baitarot gizonen aitzinean, nik ere aitorturen dut hura ene Aita [zeruan] denaren aitzinean.

33. Aldiz, nork ere ni ukaturen bainau gizonen aitzinean, nik ere ukaturen dut hura ene Aita [zeruan] denaren aitzinean.

34. Ez uste izan lurrera bakearen ekartzera naizela etorri; ez bakearen, bainan ezpataren ekartzera naiz etorria.

35. Ezen *gizona bere aitarenganik, alaba bere amaganik, erreina bere amaginarrebarenganik* bereztera etorria naiz.

36. Eta *gizonak etsai bere etxekoak izanen ditu.*

37. Nork ere bere aita edo ama ni baino maiteago baitu, hura ez da enetzat egoki; eta nork ere nitaz gainetik maite baitu bere semea edo alaba, haina ez da enetzat egoki.

38. Bere gurutzea harturik ondotik ez darraitana, ez da enetzat egoki.

39. Bere biziaren zaintzera ari denak galduren du, eta bizia enegatik galduko duenak, harek aurkituren du.

40. Zuek hartzen zaituztenek, ni naute hartzen, eta ni hartzen nautenek, ni bidali nauena du hartzen.

41. Zeinak profeta bat, profeta delakoz baitu hartzen, hainak profeta saria izanen du; eta nork ere prestu bat, prestu delakoz hartzen baitu, harek prestu saria du izanen.

42. Eta edozeinek xumetto haukietarik bati ur hotz xorta bat bakarrik eman diozon ene dizipulu bati bezala, egiaz derratzuet nik: ez du galduko bere saria.

[HAMEKAGARREN KAPITULUA]

[Joanes Bataiatzailearen galdatzea.
Jesus Galileako hiriei erantzukika.
Ebanjelioa beharrei erantzuten.
Aita eta Semea. Zatozte enegana.]

1. Bere hamabi dizipuluak osoki argitu zituenean, Jesus goan zen handik, inguruetako hirietan irakastera eta predikatzera.

2. Joanesek presondegian Kristoren egintzak [aditurik], bere bi dizipulu igorririk,

3. Galdatu zioen:

–Zu zare «Etortzekoa dena», ala bertzerik da igurikitzen duguna?

4. Jesusek [hunela] ihardetsi zioten:

–Zoazte, errozue Joanesi zer aditu duzuen eta zer ikusi:

5. Itsuek ikusten dute, mainguak badabiltza, legentsuak garbitzen dire, gorrek aditzen dute, hilak bizten dire, beharrei ebanjelioa erantzuten zaiote.

6. Eta dohatsu ene ariaz gaizbiderik hartzen ez duena!

7. Hekiek goan ondoan, Jesus abiatu zen populuari Joanesez mintzatzen:

–Zeren ikustera ilki zarete mortura? Haizeak derabilan kanabera baten?

8. Bainan zeren ikustera ilki zarete? Guriki jauntzia den gizon baten? Errege etxetan daude guriki jaunzten direnak.

9. Bainan zeren ikusten izatu zarete, bada? Profeta baten? Bai, erraten darotzuet: profeta ere baino gehiago den baten.

10. Hura da ezen haina, zeintaz iskribatua izan baita: *Huna non zure aitzinean igortzen dudan nik ene aingerua, zure bidea lehenik apainduren duena.*

11. [Egia] erraten darotzuet: emaztekiaren umeen artean ez da jaiki Joanes [Bataiatzailea] baino handiagorik, eta halere [zeruko] erresuman den xumeena hura baino handiago da.

12. Joanes [Bataiatzailearen] egunetarik hunat, [zeruko] erresumak bortxatua nahi du izan, eta borrokatzen direnek [daramate].

13. Ezen Joanes agertu arteo, profeta guziek eta legeak ezagutarazi dute etorkizuna.

14. Eta ongi hartu nahi baduzue, hori da Elias etortzekoa dena.

15. Bearri entzuteko [duenak] entzun beza.

16. Bainan noren iduriko iduk detzazket oraiko gizonak? Plazan dauden haur batzu [iduri dute], beren lagunei oihu egiten diotenak, derratelarik:

17. «Xirola jo darotzuegu eta etzarete dantzatu; deitore egin darotzuegu eta etzarete nigarrez egotu».

18. Alabainan, etorri da Joanes, etzuelarik ez jaten ez edaten, eta [debrua duela] derrate.

19. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duelarik, eta derrate: «Horra jale eta ardo edale bat, zergari eta gizatzarren adiskidea!». Bainan zuhurtziari bere umeek ateratu izan diote bere aitorra.

20. Orduan hiriei, zeinen erdian egin izan baitzuen hanbat sendagaila, erantzukika [abiatu zitzaioten], etzirelakoz urrikitan sartu.

21. Zorigaitz hiri, Korozain! Zorigaitz hiri, Betsaida! Zeren Tirren eta Sidonen gertatu izan balire zuen erdian egin diren sendagailak, aspaldi huntan zurdatzekin eta hauspean egin baitzituzketen urrikizko eginkariak.

22. Hargatik derratzuet nik: Tirri eta Sidoni zuei baino eztikiago eginen zaiotela jujamenduko egunean.

23. Eta hi, Kafarnaum,

zeruraino iganen ote haiz? Ifernuraino jautsiko haiz!

Zeren sodomarren artean gertatu izan balire hire erdian egin diren sendagailak, egungo [eguna arteo] iraunen baitzuen menturaz.

24. Hargatik derratzuet: jujamenduko egunean hiri baino sodomarren lurrari eztikiago eginen zaio.

25. Orduan Jesusek erran zuen:

–Ene Aita, zeru-lurren Nausia, ospe darotzut bihurtzen, zeren gauza horiek diozkatzuten gorde zuhur eta gurbil direlakoei, eta agertu xumeei.

26. Bai, Aita, ospe darotzut bihurtzen, zure aitzinean hori izan delakoz zure gogarako.

27. Ene Aitak gauza guziak ene eskuko [ezarri ditu], eta Aitak baizik nihork ez du Semea [ezagutzen], eta nihork ez du Aita [ezagutzen] Semeak baizik eta hainak, zeinari Semeak nahi izan baitio ezagutarazi.

28. Zatozte enegana, nekatuak eta sortatuak zareten guziak, eta nik arinduren zaituztet.

29. Soinera har zazue ene uztarria, eta eneganik ikasazue eme naizela eta apalgura bihotzez, eta zuen arimaren jabaldura [aurkituren duzue].

30. Alabainan eztia da ene uztarria, eta arina ene sorta.

[HAMABIGARREN KAPITULUA]

[Larunbatez egitea haizu dena.
Esku-iharduna larunbatez sendatua.
Jesus, Jainkoaren zerbitzaria. Itzulera.
Jesusen egiazko familia.]

1. [Egun] hekietan, larunbat egun batez Jesus ogi landa batzuetarik [iragan zen]. Haren dizipuluak, gose izanez, ogi-buru biltzen eta jaten [hasi ziren].

2. Farisauek [hori] ikusirik, Jesusi erran zioten:

–Horra zure dizipuluek egiten dutela, larunbatez egitea haizu ez dena.

3. Jesusek ihardetsi zioten:

–Ez ote duzue irakurtu zer egin zuen Dabidek bere lagunekin gose ziren batez?

4. Nola sartu izan zen Jainkoaren etxean, eta eskaintzako ogiak [jan zituen], zeinetarik jatea ez baitzitzaioten haizu ez hari ez-eta harekilakoei, bainan apezei [bakarrik]?

5. Ala ez duzue [Moisesen] legean irakurtu, larunbat egunetan apezek larunbata [hausten dutela] eta hoben gabe direla?

6. Bada, nik derratzuet hemen badela tenploa baino handiagoa dena.

7. Hitz hau [zer den bazinakite]: *Urrikalpena nahi dut eta ez sakrifizioa*, etzindukete nihoiz hobengaberik kondenatu.

8. Ezen Gizonaren Semea larunbataren ere nausi da.

9. Handik goan zenean, hekien sinagogan [sartu zen].

10. Han bazen gizon esku-ihardun bat eta, Jesusen kontra zerbait lopide nahiz, [galdatu] zioten ean larunbat egunean sendatzea haizu zen.

11. Jesusek ihardetsi zioten:

–Nor da zuetan gizona, zeinak ardi bat izan eta, larunbat egunean zilo batera eror balakio, atzemanen eta ateratuko ez lukeena?

12. Zenbatez ez da gizona ardiaz gehiago? Hargatik da larunbat egunez ongiaren egitea zilegi.

13. Orduan [gizonari] erran zaroen:

–Heda zazu besoa.

Hedatu zuen, eta bertzea bezain sasual egin zitzaioen.

14. Farisauek [hori] ikusirik, aldiz, beren artean bilku egiten [abiatu ziren], Jesusen kontra, ean nola gal ote zezaketen.

15. Ordean, Jesusek baitzakien hori, handik [aldaratu zen]. Ainitzak jarraiki zitzaizkon, eta guziak sendatu zituen.

16. Eta manatu zioten bera etzezaten sala.

17. Isaias profetaren ahoko hitza [bete zadien], erran zuenean:

18. *Huna ene zerbitzari, nik hautatu dudana, ene maitea, zeinaren baitan gozo hartu baitu ene arimak. Hunen gainera jautsaraziren dut ene izpiritua, eta jendaiei erantzunen diote zeuzenbidea.*

19. *Ez du aharrarik, ez oihurik erabiliren, eta karriketan nihork ez du hunen mintzoa adituren.*

20. *Kanabera kraskatua ez du hautsiren, eta kea duen mitxa ez du iraungiren zuzenari garaizia eman diozon arteo.*

21. *Eta jendaiek haren izenean izanen dute beren igurikimena.*

22. Orduan debrudun bat [ekarri zioten], itsu eta mutua. Eta sendatu zuen, haletan non mintzatzen eta ikusten baitzuen.

23. Guziak harritzen ziren eta zioten: «Ez ote da hau Dabiden Semea?».

24. Farisauek, berriz, hori aditurik, erraten zuten:

–Horrek debruen buruzagiaren bidez, [Beeltzebulez], baizik ez ditu debruak iraizten.

25. Jesusek, hekien gogoetak jakinez, erran zaroeten:

–Bere baitan bi aldetara dagoen erresuma xahutua izanen da, eta bi aldetara egiten duen hiriak edo etxeak lurra joko du.

26. Baldin Satanek Satan iraiz baleza, bere baitan bi aldetara legoke; nolatan, bada, iraun lezake haren erresumak?

27. Eta nik [debruak] Beelzebulez iraizten baditut, nortaz iraizten dituzte zuen [dizipuluek]? Horrengatik berak izanen dire zuen juje.

28. Aldiz, nik Jainkoaren izpirituaz kentzen baditut debruak, [zuenganat] etorria da beraz Jainkoaren erresuma.

29. [Edo oraino] nola gizon azkarraren etxean sar ditake norbait, eta ebats detzazke haren puskak, lehenik bera estekatzen ez badu, gero biluz baitiro etxea?

30. Ene alde ez dena ene kontra da, eta enekin biltzen ez duenak barraiatzen du.

31. Hargatik derratzuet nik: Edozein bekatu eta buro barkaturen zaitzue, bainan Izpiritu Sainduaren alderako buroa etzaitzue barkaturen.

32. Eta nornahi mintza dadien Gizonaren Semearen kontra, barkakizun da; bainan Izpiritu Sainduaren kontra mintzatu daitenari etzaio ez mende huntan ez etorkizunekoan barkaturen.

33. Egizue, edo ona dela arbola eta haren fruitua ere bai, edo tzarra [dela] eta fruitua ere bai. Ezen fruitutik da arbola ezagun.

34. Sugekumeak! Zerorrek tzarrak izan eta, nondik derrazketzue gauza onak? Ezen bihotzeko gaindiduratik ahoa da mintzo.

35. Gizon prestuak gauza onak dakarzka bildegi onetik, eta gaixtaginak gaixtotik gaixtoak dakarzka.

36. Nik derratzuet, edozein ele alfer ateratu dukeen gizonak, hartaz beharko duela ihardetsi jujamenduko egunean.

37. Ezen zure ahotik izanen zare ateratua garbi, eta zure ahotik hobendun.

38. Orduan iskribauetarik eta farisauetarik zenbaitek erran zioten:

–Nausia, zureganik sendagaila zerbait ikusi nahi ginduke.

39. Jesusek ihardetsi zioten:

–Gaixtakeriako eta lohikeriako umeak sendagaila eskez daude! Bainan Jonas profetarenaz bertzerik emanen etzaiote.

40. Ezen *nola balearen sabelean hirur gau-egunez izatu [baizen] Jonas*, hala lurraren bihotzean hirur gau-egunez egonen da Gizonaren Semea.

41. Jujamenduko egunean Ninibetarrak haukien kontra [ateraturen dire] eta kondenaturen dituzte, zeren berak urrikitan sartu izan baitire Jonasek azurriatu ondoan. Bizkitartean hemen dena Jonas baino gehiagokoa da.

42. Hegoako erregina ere jujamenduko egunean haukien kontra ilkiren da, eta kondenaturen ditu, zeren bera lurraren bertze burutik etorri izan baita Salomonen zuhurtziaren entzutera, eta bizkitartean hemen dena Salomonez bertzerik da.

43. Aldiz, Izpiritu lohia, gizon batenganik ilki denean, epaitza agorrak behera pausuketa dabila, eta ez du aurkitzen.

44. «Ene etxe ilki naizenerat bihurturen naiz» dio orduan. Eta etorri denean, hutsa [aurkitzen du], erraztatua eta apaindua.

45. Orduan badoa eta bertze zazpi izpiritu [hartzen ditu], bera baino gaixtoagoak; eta sarturik, han egiten dute beren egoitza: gizon haren azken zoria lehena baino gaitzagoa da. [Hori bera gertatuko zaio oraiko jende gaixto huni ere.]

46. [Jesus] osteei mintzo zelarik oraino, haren ama eta anaiak kanpoan zauden, hari mintzatu beharrez.

47. Norbaitek [erran zioen]:

–Zure ama eta anaiak kanpoan daude zure galdez.

48. [Jesusek] hori erran zioenari ihardetsi zioen:

–Nor da ene ama eta zein dire ene anaiak?

49. Eta, [eskua] bere dizipuluen alderat hedatuz, erran zuen:

–Huna ene ama eta anaiak.

50. Ezen nork ere ene Aita [zeruan denaren nahia egiten baitu], haina da ene anaia, eta arreba, eta ama.

[HAMAHIRUGARREN KAPITULUA]

[Jesus paraboletan mintzo. Erailearen parabola.
Ogi erdiko irakaren parabola.
Mustarda bihiaren, altxagarriaren, perlaren eta
sarearen parabolak. Jesus bere herrian gaitzetsia.]

1. Egun hartan berean, Jesus, etxetik ilkirik, itsas bazterrean zagoen jarria.

2. Eta haren ingurura oste handi batzu bildu ziren, haletan non, untzi batera iganik hartan jarri baitzen, eta ur hegitik zagoen populu guzia.

3. Eta paraboletan ateratu zioten asko solas, zioelarik: «Adizue: eraitera ilki zen erailea.

4. Eraiten ari zelarik, hazi lipar bat bide bazterrera [erori zen], eta zeruko xoriak [etorri ziren] eta jan zuten.

5. Bertze bat toki harritsuetara [erori zen], zeinetan ez baitzuen lurrik aski, eta berehala sortu zen, lurra etzelakoz lodi;

6. Bainan iguzkia ilkitzearekin, xipildu zen eta errorik etzuelakoz ihartu.

7. Bertze bat, berriz, laparren artera [erori zen], eta laparrak handitu ziren eta ito zuten.

8. Bertze bat, aldiz, lur onera erori zen eta eman zuen bihi, hemen ondoko ehun, hor hirurogoi, han hogoieta hamar.

9. Entzuteko bearririk baduenak, entzun beza».

10. Hurbildurik, dizipuluek erran zioten:

–Zergatik mintzo zitzaizkiote hitz estalitan?

11. Jesusek ihardetsi zioten:

–Zuei emana zaitzuelakoz [zeruko] erresumako gauza gordeen ezagutzea; [horiei], ordean, etzaiote eman.

12. Ezen duenari emanen zaio, eta nasai [izanen du]; ez duenari, berriz, dukeen hura ere kenduko zaio.

13. Aria hortaz paraboletan mintzo natzaiote horiei: zeren dakusatelarik ez baitute ikusten, eta entzuten dutelarik ez baitute en entzuten, ez aditzen.

14. Hola betetzen da horien baitan Isaiasen profezia hau:

Bearriz entzunen duzue eta ez adituko, begiz ikusiko duzue eta etzarete ohartuko.

15. *Alabainan toildu da populu hunen bihotza, eta gorrarena egin dute, eta [begiak] hertsi dituzte, beldurrez begiz ikus, bearriz entzun eta bihotzez adi dezaten, eta enegana bihur ditezen, eta senda detzadan.*

16. Dohatsu dire, ordean, zuen begiak, zeren duten ikusten, eta zuen bearriak, zeren duten entzuten.

17. Ezen nik derratzuet egiaz, ainitz profeta eta gizon zuzen egotu direla zuek dakusazuenaren ikusteko lehian, eta ez baitute ikusi; [eta] zuek aditzen duzuenaren entzuteko lehian, eta entzun ez baitute.

18. Zuek adi zazue, beraz, erailearen parabola.

19. Nork ere erresumako hitza [entzuten baitu] eta izpirituz ez ardiesten, etsai gaixtoa heldu zaio eta badarama hainaren bihotzean eraina zena: hura da «bide bazterrean» eraina dena.

20. Aldiz, «toki harritsuan» eraina dena, hura da hitza aditzen eta berehalakoan bozkarioz onesten duena.

21. Ez du, ordean, bere baitan errorik eta hein bat iraunen du; hitzaren ariaz etorri direbai hestura jazargoak, [berehala] behaztopatzen da.

22. «Laparraren artean» eraina dena, hura da hitza aditzen duena, bainan mende huntako ardurek eta aberastasunen liluramenduek ito dute hitza, eta fruiturik gabe alfer bilakatzen da.

23. Bainan «lur onean» eraina izan dena, hura da hitza entzuten eta aditzen duena, eta fruitu dakarrena; zeinek batentzat ehun, zeinek hirurogoi, zeinek hogoieta hamar.

24. Bertze parabola bat ateratu zaroeten, zioelarik: «[Zeruko erresuma gizon baten iduriko ezarria da], zeinak bere landan hazi ona [erain baitzuen].

25. Bainan etxekoak lo zaudelarik, haren etsaia [etorri zen] eta, ogiaren erdian, gainetik iraka [erain zioen] eta goan zen gero.

26. [Ogia] handitu eta burutu zenean, orduan agertu zen iraka ere.

27. Eta etxeko nausiari bere sehiak [etorri zitzaizkon] eta erran zioten: “Jauna, ez ote zinduen hazi ona zure landan erain? Nondik du beraz iraka?”.

28. [Harek] ihardetsi zioten: “Etsai baten lana da hori”. Sehiek erran zioten berriz: “Nahi duzu goazen eta bil detzagun irakak?”.

29. Ihardetsi zuen: “Ez, beldurrez-eta iraken biltzean, hekiekin errotik atera dezazuen ogia.

30. Utzatzue guziak egitera [uzta arteo], eta uztaroan erranen diotet epaileei: Bil zazue lehenik iraka, erretzeko lot zazue espalka; ogia, berriz, ene selarura bi zazue”».

31. Bertze parabola bat ere [ateratu zaroeten], zioelarik: «[Zeruko erresumak mustarda bihia] iduri du, gizonak hartzen eta bere landan eraiten duena.

32. Hazi guzietarik hura da xeheena, bainan handitu denean, belar guziak baino larriago da, eta arbola bilakatzen da, haletan non zeruko xoriak etortzen eta haren adarretan egoten baitire».

33. Oraino bertze parabola bat [erran zioten: «Zeruko erresumak altxagarria iduri du], emazteki batek hartu eta hirur sato irinetan nahastekatzen duena, ore guzia haz dadien arteo».

34. Jesusek horiek oro paraboletan erran ziozka populuari, eta hitz estalitan baizik etzitzaioen mintzatzen.

35. Profetaren erran hau [bete zadientzat]:

Paraboletan idekiren dut ene ahoa, eta agerturen ditut munduaren hastapenetik hunat gordeak zaudezen gauzak.

36. Orduan populua [utzirik, Jesus etxerat etorri zen, eta bere dizipuluak hurbildu zitzaizkon], zerratelarik:

–Xeha dizaguzu landako irakaren parabola.

37. Ihardestean, Jesusek erran zioten:

–Hazi onaren erailea Gizonaren Semea da.

38. Landa, berriz, mundua da; hazi ona, [aldiz], erresumako umeak dire, eta irakak tzarkeriako umeak.

39. Etsai iraka erailea, berriz, debrua da; uztaroa, berriz, mende hunen akabantza, eta uztatzaileak aingeruak dire.

40. Nola beraz biltzen baitire irakak eta suan erretzen, halaber da gertaturen mendeen akabantzan.

41. Gizonaren Semeak bere aingeruak [igorriko ditu], eta haren erresumatik bilduko dituzte behaztopagailu diren guziak eta gaizki egileak.

42. Eta labe kaldatura artikiren dituzte. Han izanen dire nigarrak eta hortz karraskak.

43. Orduan prestuek iguzkiak [bezala argituren dute] beren Aitaren erresuman. Bearririk duenak aditzeko, adi beza.

44. [Zeruko] erresumak landa batean gordea den dirutze bat [iduri du]. Hura atzematen duenak estaltzen du, eta bozkarioak badarama, eta bere izate guziak [saltzen ditu eta landa hura erosten du].

45. [Zeruko] erresumak, oraino, perla onketa dabilan tratularia [iduri du].

46. Zeinak perla balio handitako bat [aurkitu duenean], laster egiten baitu dituen guzien saltzera, eta gero hura [erosten du].

47. [Zeruko] erresumak, oraino, sare bat itsasora artikia [iduri du], eta arrain mota orotarik biltzen duena.

48. Betea denean ateratzen dute eta, itsas hegian jarririk, onak borboiletara berezten dituzte, eta tzarrak kanporat artikitzen.

49. Halaber da gertaturen mendeen akabantzan: aingeruak [ilkiko dire] eta gaixtoak prestuen artetik [bereziko dituzte].

50. Eta labe kaldatura artikiren dituzte. Han izanen [dire] nigarrak eta hortz karraskak.

51. Ardietsi ditutzue horiek oro?

–Bai, Jauna –[ihardetsi zuten].

52. [Harek] erran zioten oraino:

–[Zeruko] erresumaz argitua den iskribau batek, aria hortaz etxeko jaun bat [iduri du], bere kutxetarik zahar eta berri ateratzen duena.

53. Parabola horiek akabatzearekin, Jesus handik [goan zen].

54. Bere sorterrira etorririk, beren sinagogetan jendeei ari zitzaioten irakasten, haletan non miretsirik erraten baitzuten: «Hunek nondik ditu zuhurtzia hori eta indar horiek?

55. Ez ote da hau zurginaren semea? Hunen ama ez ote da deitzen Maria, eta anaiak Jakobe, Josep, Simon eta Juda?

56. Eta hunen arrebak ez ote dire gu tartean guziak? Nondik hunek dituzke, beraz, horiek oro?».

57. Eta gaizbide hartzen zuten Jesusen baitan. Aldiz, Jesusek erran zioten: «Profeta ez da ohorerik gabe, bere herrian eta etxean baizik».

58. Eta etzuen egin han ikusgarri ainitzik, hekien sinesgaiztasuna zelakoz.

[HAMALAUGARREN KAPITULUA]

[Herodesek Joanes Bataiatzailea hilarazi.
Bortz ogien (miraria). Jesus ur gainean oinez.
Sendatzeak Genesaret aldean.]

1. Ordu hekietan Herodes [erregeak Jesusen omena] aditu zuen.

2. Eta bere gizonei erran zioten: «Joanes [Bataiatzailea] da hori. Hura [hilen artetik] biztu da, eta aria hortaz sendagailak egiten dire horren bidez».

3. Herodesek Joanes [harrarazi zuen], estekatu eta presondegi batera artiki, bere anaiaren emazte Herodiasengatik.

4. Joanesek erraten ziolakoz: «Etzaizu zilegi emazte horren izatea».

5. Herodesek, hilarazi nahi zuelarik, populuaren beldurra zuen, zeren profetatzat baitzadukaten.

6. [Bainan] Herodesen sorteguneko festan, Herodiasen alaba guzien erdian dantzatu zen, eta Herodesi aurkitu zioen.

7. Aria hortaz, zin eginez Herodesek agindu zioen zernahi galda ziozon emanen zioela.

8. [Neskatxa aitzinetik bere amak] irakatsia baitzen, ihardetsi zuen: «Emadazu hunaxe Joanes [Bataiatzailearen] burua azpil batean».

9. Ilundu zen errege, bainan bere zinaren ariaz eta berekin mahainean jarriak zituenengatik, eman zakioen [manatu zuen].

10. Eta [norbait] igorri zuen presondegian Joanesi lepoaren moztera.

11. Haren burua [azpil batean ekarri zuten eta neskatxari eman zaroten], eta hunek bere amari [eraman zioen].

12. Gero Joanesen dizipuluak etorririk, [haren gorputza] hartu eta ehortzi zuten eta, goanik, Jesusi eraman zioten berria.

13. Hori aditu-eta, Jesus untzixka batean urrundu zen handik mortu baztertu batera. [Bainan populuak hori] aditu zuenean, hirietarik oinez jarraiki zitzaioen.

14. Untzitik ilkitzean, Jesusek oste handi bat [ikusi zuen] eta urrikaldu zitzaioen, eta haren arteko eriak [sendatu zituen].

15. Arratsa etorri zenean, berriz, bere dizipuluak [hurbildu zitzaizkon], ziotelarik:

–Toki basa da hau, eta ja beranta da. Bidalatzu oste haukiek, eta herrietara goanik eros bezate behar duten jatekoa.

16. Jesusek, ordean, erran zioten:

–Ez dute goateko premiarik; zeronek emozuete jatera.

17. Ihardetsi zuten:

–Ez dugu hemen bortz ogi eta bi arrain baizik.

18. [Jesusek] erran zaroeten:

–Ekar dizadatzue niri hunat.

19. Eta ostea [soropilean jar zadien manaturik, bortz ogiak eta bi arrainak hartu zituen eta, [begiak] zerurat goitituz, benedikatu zituen, eta hautsi eta dizipuluei eman; haukiek, berriz, populuari.

20. Guziek jan zuten eta ase ziren, eta hondarretarik hamabi saski [bildu zituzten], puskaz beteak.

21. Jan zutenak, berriz, bortz mila gizon [izatu ziren], haur eta emaztekiak bertzalde.

22. Berehala, Jesusek dizipuluak untzira igaitera [hertsatu zituen], uraz haindira aintzin zezaten bera, jendea gibelerat igorriko zuen artean.

23. Eta ostea igorririk, mendira bakarrik igan zen otoitz egitera. Arratsa zenean, ber-bera zen han.

24. Untzixka, berriz, uhinez zehatua zerabilkaten itsasoaren erdian, ezen haizea bihurrira zagoen.

25. Gauazko laugarren beilan, Jesus goan zitzaioten, itsasoaren gainean oinez ibiliz.

26. [Dizipuluek] itsasoaren gainean ibiltzen ikusi zutenean, asaldatu ziren, zerratelarik: «Mamua da!», eta izialdurak heiagoraka abiarazi zituen.

27. [Bainan Jesus berehala] mintzatu zitzaioten, erraten zaroetelarik:

–Zaudezte gogoa onik! Ni naiz; ez izi!

28. Ihardestean orduan erran zuen Petrik:

–Jauna, zu balimazare, mana zazu uraren gainaz natorkizun.

29. Jesusek erran zioen:

–Zato.

Untzitik jautsirik, Petri uraren gainean abiatu zen Jesusengana goateko.

30. Bainan haizea azkarra ikusirik, beldurtu zen eta, hondorat abiatzen baitzen, oihu egin zuen, zioelarik:

–Jauna, salba nezazu.

31. Berehala Jesusek, eskua hedatuz, hartu zuen eta erran zion:

–Zaren sineste apurrekoa! Zergatik zare kordokatu?

32. Untzirat igan zirenean, haizea [gelditu zen].

33. Untzian zirenak [Jesusi] hurbildu zitzaizkon, erranez:

–Bai, egiazki Jainkoaren Semea zare zu!

34. Itsasoa iragan ondoan, Genesareteko lurrera [goan ziren].

35. Toki hartako jendeek [Jesus] ezagutu zutenean, mezua igorri zuten inguru hekietara orotara, eta zerbait gaitzez joak ziren guziak [ekarri ziozkaten].

36. [Bere soinekoaren litsa bedere ukitzera utz ziozoten otoizten zuten], eta hura ukitu zuten guziak sendatuak izan ziren.

[HAMABORZGARREN KAPITULUA]

[Juduen ohitzak eta Jainkoaren nahia.
Zerk lohitzen duen jendea.
Emazteki kanaandarraren alaba sendatu.
Osteari bigarrenez jatera eman.]

1. Orduan, Jerusalemetik heldu ziren iskribau eta farisau batzu [Jesusengana] hurbildu ziren, ziotelarik:
2. –Nolaz hausten dute zure dizipuluek zaharrenganikako ohitza? Ezen jaterakoan ez dituzte eskuak garbitzen.
3. Jesusek ihardestean erran zioten:
–Eta zuek zertako hausten duzue Jainkoaren manamendua zuen ohitzaren ariaz?
4. Ezen Jainkoak erran nahi izan du: *Ohora zatzu aita eta ama*, eta: *Ahapaldia aitari edo amari artiki duena, heriotzez hila izan bedi.*
5. Zuek diozue, ordean: nork ere erranen baitio aitari edo amari: «Nik Jainkoari egin eskaintza guziak baliatuko zaizkitzu»;
6. Hainak ez du ohoratu beharko bere aita edo ama. Horreletan Jainkoaren manamendua [hutsaltzen duzue], zuen ohitzaren arietan.
7. Itxura eder egileak! Ongi profetizatu baitu zuetaz Isaiasek, erran duenean:
8. *Populu horrek ezpainez nau ohoratzen; horien bihotza, ordean, urrun dago niganik.*
9. *Bainan alferretan bihurtzen darotade ohore, gizonen araberako irakaspen eta manamenduak irakasten ariz.*
10. Ostea [bereganat deiturik], erran zaroeten: «Entzun zazue eta adi!
11. Ez du ahotik sartzen denak lohitzen gizona; bainan ahotik ilkitzen denak du lohitzen».
12. Orduan hurbildurik, bere dizipuluek erran zioten:
–Badakizu farisauek hitz hori aditzearekin gaizbiderat hartu dutela?
13. Jesusek ihardetsi zioten:
–Ene Aita zerukoak landatu ez duen edozein landare, errotik izanen da ateratua.
14. Utzatzue! Itsuak dire eta itsu bidari. [Eta] itsuak itsua badu aitzineko, biak dihoaz errekara.
15. Horren gainean, Petrik erran zioen:
–Xeha dizaguzu parabola hori.
16. [Jesusek] ihardetsi zuen:
–Zuek ere adigarririk gabe zarete oraino?
17. Ez ote duzue ardiesten, ahoan sartzen den guzia sabelera dihoala, eta gero zoko batean uzten dela?
18. Aldiz, ahotik datorrena bihotzetik ilkitzen [da] eta harek [du] gizona lohitzen.
19. Alabainan, bihotzetik datortzi asmu gaixto, gizon hiltze, bertzeen emazteekin eta neskatxekin kutsatze, ohorgo, gezurrezko lekukotasun eta buroak.
20. Horiek dire gizonaren lohigarri; bainan eskuak garbitu gabe jateak ez du gizona lohitzen.
21. Handik ilkirik, Jesus Tirreko eta Sidongo aurkintzetara [aldaratu zen].
22. Eta hara kanaandar emazteki bat, alde hekietarik ilkia, oihuz abiatu zitzaioela, erranez:

–Urrikal zakizkit, Jauna, Dabiden Semea! Debruak gaixtoki jasanarazten dio ene alabari.
23. Jesusek etzioen hitz bat ihardetsi. Hurbildurik, dizipuluak otoizka ari zitzaizkon, zerratelarik:
–Igorrazu, ezen ondotik oihuz darraikigu.
24. Jesusek, berriz, ihardetsi zioten:
–Ez naiz bidalia Israelgo etxetik galdu ardietara baizik.
25. Bainan hura hurbildu zen eta adoratu zuen, zioelarik:
–Jauna, hel zakizkit.
26. Jesusek ihardetsi zioen:
–Ez da ongi haurren ogia hartu eta zakurrei ematea.
27. [Emaztekiak] erran zuen, berriz:
–Hala da, Jauna; bainan potxo xumeek ere jaten dute beren nausien mahainetik erori paporretarik.
28. Orduan Jesusek ihardetsi zioen:
–Emaztekia, handia da zure sinestea! Egin bekizu nahi duzunaren arabera.
Eta haren alaba ordu beretik sendatua gelditu zen.
29. Jesus handik [goan zenean, Galileako itsas bazterraz etorri zen]. Mendi batera iganik, han [jarri zen].
30. Oste handi batzu hurbildu zitzaizkon, berekin zerakarzkatelarik mutu, itsu, maingu, hebain eta bertze asko. Oinetara eman ziozkaten, eta sendatu zituen.
31. Haletan non miresten baitzuten, mutuak mintzatzen [ikusiz], mainguak ibiltzen, itsuak argi. Eta ospe bihurtzen zioten Israelgo Jainkoari.
32. Jesusek bere dizipuluak deiturik, erran zaroeten:
–Urrikaltzen natzaio populu huni, zeren hiru egun huntan ja ez bainau uzten, eta ez du zer jan. Ez ditut barurik igorri nahi, bidean ahuldurak artik detzan beldurrez.
33. Dizipuluek ihardetsi zioten:
–Mortu huntan nondik dukegu, bada, ogirik aski hunenbateko ostearen asetzeko?
34. Jesusek erran zioten:
–Zenbat ogi dituzue?
–Zazpi –[ihardetsi zuten hekiek]– eta arrainxkila bakar batzu.
35. [Orduan] osteari manatu zioen jar zadien lurraren gainean.
36. Zazpi ogiak eta arrainak [harturik], eta eskerrak bihurtuz, hautsi zituen eta dizipuluei eman, eta haukiek populuari.
37. Guziek [jan zuten] eta ase ziren. Eta gelditu ziren pusketarik zazpi saskitara [bildu zituzten].
38. Baziren lau mila gizon [jan izan zutenak], haur xeheak eta emaztekiak bertzalde.
39. [Gero], populua igorririk, Jesus untzixka batera [igan zen] eta Magadango aurkintzetara egin zuen.

[HAMASEIGARREN KAPITULUA]

[Farisau eta saduzearrak sendagaila galdez.
Farisau eta saduzearren altxagarria.
Petrik Jesus Mesiastako aitortu.
Jesusek bere neke eta biztea lehenbizikoz agertu.
Jesusi jarraikitzea.]

1. Farisauak eta saduzearrak [Jesusi] etorri zitzaizkon, hura frogatu beharrez, eta zerutikako zenbait sendagaila [erakuts ziozoten otoiztu zuten].

2. Bainan Jesusek ihardetsi zaroeten:

–Arrasten denean, erraten duzue: «Bihar egun ederra dukegu, ezer uhartzea gorrikara da».

3. Eta goizean: «Egun aro gaitz izanen da, ezen gobel artetik zerua gorri dago». Badakizue, beraz, zeruaren itxuratik jotzen, [bainan] mugen ezagutkarien ardiesten ez dakizue?

4. Gaixtakeriako eta galdukeriako umeak sendagaila galdez dagotzi! [Bainan etzaiote bertze sendagailarik emanen], Joanes profetarena baizik.

5. Haren dizipuluek, ura iragan zutenean, ogiaren hartzea [ahantzi zuten].

6. Jesusek erran zioten: «Zaudezte ernerik! Zuen buruak farisauen eta saduzearren altxagarritik begira zatzue».

7. Hekiek beren artean jardukitzen zuten erranez: «Mintzo da, zeren ez dugun ogirik hartu».

8. Bainan Jesusek ezagutzen baitzuen hekien arteko solasa, erran zuen: «Sineste apurreko gizonak, zer darabilkazue zuen artean, ez duzuelakoz ogirik hartu?.

9. Ez duzue [oraino] aditzen? Etzarete oroit bortz mila gizonentzateko bortz ogiez, eta zenbat saskitara zinduzten goititu?

10. Etzarete oroit lau mila gizonentzateko zazpi ogiez, eta zenbat saskitara goititu zinduzten?

11. Nolaz ez duzue ardiesten, ez darotzuedala ogiaz erran: begira zaitezte farisauen eta saduzearren altxagarritik!».

12. Orduan ezagutu zuten etziotela erran ogi altxagarritik begiratzeko zela, bainan bai farisauen eta saduzearren irakasmenetik.

13. Gero Jesus Filiperen Zesareako aurkintzetara etorri zen, eta bere dizipuluei [galdetu zaroeten]:

–Jendeek nor dela diote Gizonaren Semea?

14. Hekiek ihardetsi zuten:

–Batzuek Joanes [Bataiatzailea], bertzeek Elias, bertze batzuek, berriz, Jeremias, edo profetetarik zenbait.

15. Jesusek erran zioten:

–Zuek, berriz, nor naizela diozue?

16. Simon Petrik ihardetsiz erran zuen:

–Zu Kristo [zare], Jainko biziaren Semea.

17. Jesusek erran zioen:

–Dohatsu zare, Simon, Joanesen semea, zeren hori ez baitarozute haragiak eta odolak irakatsi, bainan bai ene Aita [zeruan] denak.

18. Eta zuri nik darotzut erraten zu Petri (Harri) zarela, eta harri horren gainean jarriren dudala ene Eliza, eta ifernuko indarrak etzaizkoela garaituren.

19. Zuri emanen darozkitzut [zeruko] erresumako gakoak; eta zernahi lurraren gainean esteka dezazun, hura zeruan ere estekatua egonen da, eta zernahi urra dezazun lurraren gainean, hura zeruan ere urratua egonen da.

20. [Orduan] bere dizipuluei manatu zioten nihori etziozoten erran hura Kristo zelakorik.

21. Ordutik abiatu zen Jesus bere dizipuluei agertzen premia zela Jerusalemera goan zadien, eta ainitz jasan zezan zaharren eta iskribauen eta apezen buruzagienganik, hil zadien eta berriz pitz hirugarren egunean.

22. [Jesus] bazterrerat harturik, Petri [erantzunka] abiatu zitzaioen, zioelarik:

–Balinba ez, Jauna! Ez ahal da zuretzat holakorik izanen.

23. Itzulirik, Jesusek Petriri erran zioen:

–Zoazkit, Satan! Eragozgailu zaizkit, zeren Jainkoaren gauzei ez baitiozute gozorik hartzen, bainan gizonenei [bakarrik].

24. Orduan Jesusek bere dizipuluei [erran zioten]: «Baldin norbaitek ene ondotik [etorri nahi badu], uko egin biozo bere buruari, eta soinera har beza bere gurutzea, eta jarraik bekit.

25. Ezen nork ere bere bizia begiratu [nahiko baitu], harek galduko du; aldiz, nork ere ene ariaz [bizia] galduko baitu, hainak aurkituren du.

26. Alabainan, zer balia lakioke gizonari, mundu guzia irabaz baleza ere, bainan bere arimaren galtzera heldu balitz? Edo zer eman dezake gizonak bere arimaren ordain?

27. Ezen Gizonaren Semea etortzekoa da bere Aitaren ospearen erdian, bere aingeruez inguratua, eta orduan bihurturen du zeini bere eginen arabera.

28. Nik derratzuet egiaz, hemen daudezenetarik badirela zenbait, heriotzea jasanen ez dutenak, Gizonaren Semea bere erregetasunean heldu dela [ikus dezaten arteo].

[HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA]

[Itxuraldatzea dizipuluen aitzinean.
Sinestearen indarra: epileptikoaren sendatzea.
Jesusek bere neke eta biztea bigarrenez agertu.
Jesusek eta Petrik tenpluko zerga pagatu.]

1. Sei egunen buruan, Jesusek Petri, Jakobe eta Joanes hunen anaia [hartu zituen] eta bazterrerat eraman zituen mendi gora batetara.

2. Eta itxuraldatua izan zen hekien aitzinean. Haren begitarteak iguzkiak [bezala argitzen zuen], eta haren soinekoak txuri [egin ziren] elurra bezala.

3. [Orduan] dizipuluen begietara Moises eta Elias [agertu ziren], Jesusekin solasean.

4. [Petrik Jesusi, orduan mintzatuz, erran zaroen]: «Jauna, ongi gare hemen. Nahi baduzu, hementxe detzagun egin hirur etxola, bata zure, bertzea Moisesen eta bertzea Eliasen».

5. Mintzo zelarik oraino, hara hedoi argi batek itzali zituela. Eta hara hedoietik mintzo bat, zerrana: «Hau da ene Seme maitea, zeinaren baitan ene gogo guzia [ezarri baitut]».

6. [Hori] aditzearekin, dizipuluak ahuspezka [erori ziren] eta izialdura handia lotu zitzaioten.

7. Jesus [hurbildu zitzaioten] eta ukitu zituen eta erran zaroeten: «Xuti zaitezte, eta ez izan beldurrik».

8. Orduan, begiak goititzean, etzuten nihor [ikusi], Jesus bera bakarra baizik.

9. Menditik jaustean, Jesusek manatuz erran zioten: «Nihori ezterrozuela zer ikusi duzuen, [Gizonaren Semea hilen artetik] pitz dadien arteo».

10. Dizipuluak galdeka hasi zitzaizkon, erranez:

–Zer derasate, bada, iskribauek Elias behar dela lehenik etorri?

11. Ihardestean, Jesusek erran zioten:

–Egia da Elias etortzekoa dela, eta gauza guziak ongituko dituela.

12. Nik derratzuet, ordean, Elias etorri dela jadanik, eta ez dute ezagutu; aitzitik, nahi zuten guzia egin izan diote. Gizonaren Semea ere orobat egartzekotan dago horien aldetik.

13. Orduan ezagutu zuten dizipuluek, Joanes [Bataiatzaileaz] zela mintzo.

14. [Jesus] populuarengana etorri zenean, gizon bat hurbildu zitzaioen eta, haren aitzinean belauniko, erran zioen:

15. –Jauna, urrikal zakizko ene semeari, ilargi-joa baita eta oinaze handitan, ezen [maiz] erortzen da surat, eta maiz urerat.

16. Zure dizipuluei [erakarri izan diotet], eta ezin sendatu dute.

17. Jesusek ihardestean erran zuen:

–Oi ume sinesgaitz eta makurrak! Noiz arteo izanen naiz zuekin? Noiz arteo jasanen ote zaituztet? Erakar dizadazuet hunat mutikoa.

18. Jesusek [debrua larderiatu zuen, eta hura haurraren baitarik ilki zen]. Eta ordu beretik sendatua izan zen mutikoa.

19. Orduan dizipuluak [ixilik] hurbildu ziren Jesusenganat, eta erran zioten:

–Zergatik ezin iraizi dugu guk debru hori?

20. Jesusek ihardetsi zaroeten:

–Zuen sinesgaiztasunaren ariaz. Ezen [egia] erraten darotzuet: mustarda pikorra bezenbat sineste bazindute, mendi horri erran zinarokete: «Egizak hortik harat» eta goan laite, eta zuentzat deus ere ez laite ezinik.

21. Bainan debru mota hori ez da otoitzaz eta baruraz baizik iraizten.

22. [Galilean] elkarrekin zirelarik, Jesusek erran zioten: «Gizonaren Semea artikia izan beharra da gizonen eskuetara.

23. Hilen dute eta hirugarren egunean piztuko da».

Eta atsekabetu ziren minki.

24. Kafarnaumera etorri zirenean, Petriri bidrakmako biltzaileak [hurbildu zitzaizkon] eta erran zioten:

–Zure nausiak ez du bi drakmakoa pagatzen?

25. Baietz [ihardetsi zuen].

[Petri] etxean sartu zenean, Jesus aitzindu zitzaioen, erraten zioelarik:

–Zer zaitzu, Simon? Lurreko erregeek norenganik izaten ohi dute zerga edo legarra, beren [umenganik ala arrotzenganik]?

26. [Petrik] ihardetsi zuen:

–[Arrotzenganik].

Jesusek erran zuen:

–Ez dute, beraz, zor umeek.

27. Ez gatzaizkioten ordean gaizbide izan, zoaz itsasora, eta ateratuko duzun lehenbiziko arraina har zazu eta, hari ahoa idekirik, estater bat atzemanen diozu. Hura hartuz, emanen daroezu enetzat eta zuretzat.

[HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA]

[Nor da zeruko erresuman handiena?
Zorigaitz munduari gaizbideen ariaz.
Ardi errebelatuaren parabola.
Haurride artean: bekatua, barkamena, otoitza.
Barkatu ez zuen sehiaren parabola.]

1. Orduan Jesusi [dizipuluak] hurbildu zitzaizkon, zerratelarik:

–Zure ustez, nor da [zeruko] erresuman handiena?

2. Jesusek, haurtto bat deiturik, hekien erdian [ezarri zuen].

3. Eta erran zioten:

–Nik [egiaz] derratzuet: ez bazarete nehortzen eta haur xumeen iduriko egiten, [zeruko] erresuman sarturen etzarete.

4. Nork ere, beraz, bere burua haurtto hunen heinera baitu apalduren, haina [zeruko] erresuman daite handienik.

5. Eta nork ere ene izenean hulaxeko haurtto bat [harturen baitu], hainak neroni nau hartzen.

6. Aldiz, nork ere ene baitan sinesten duten xume haukietarik bati gaizbiderik emanen baitio, hainak hobe luke ihara harri bat lepotik ezar baliozote, eta itsasoaren zolan ito balezate.

7. Zorigaitz munduari gaizbideen ariaz! Ezen premia da gaizbideak [gerta ditezen]; halere zorigaitz gizonari, zeinarenganik gaizbidea [heldu baita]!

8. Zure eskua edo zure oina zure behaztopagarri balire, ebak eta artikatzu urrun zuganik; hobe dukezu eskumotz edo zangomotz bizitzan sartzea, ezenez bi eskuak edo bi zangoak ditutzularik betirainoko surat artikia izatea.

9. Eta zure begia zure behaztopagarri [balinbaduzu], iragaz eta artikazu zuganik; hobe dukezu begi bakar batekin bizitzean sartzea, ezenez bi begiekin su osinera aurtikia izatea.

10. Berautzue xumetto haukietarik batez ere axolarik ez idukitzetik! Ezen nik derratzuet, [zeruan] horien aingeruek dakusatela beti ene Aita [zeruan] denaren begitartea.

11. Gizonaren Semea galdua zenaren biltzera da etorria.

12. Zer zaitzue? Norbaitek ehun ardi [balinbaditu], eta hekietarik bat errebelatu bada, ez ote ditu laurogoieta hemeretziak mendietan uzten, eta errebelatu denaren ondoan ez ote da goaten?

13. Eta aurki dezan [gerta badadi], egiaz derratzuet, harengatik gehiago dela bozten, ezen ez laurogoieta hemeretzi errebelatu ez direnez.

14. Halaber, ez da zuen Aita [zeruan] denaren gogarako, xumetto haukietarik bakar bat ere [gal dadien].

15. Zure anaiak [hoben egin badarotzu], zoazkio eta buruz burutan egiozkitzu zure arrangurak. Entzuten bazaitu, irabazi dukezu zure anaia.

16. Ez bazaitu, ordean, entzuten, har zatzu oraino zurekin lagun bat edo bia, *bi edo hirur lekukoren erranetik dihoan egiteko guzia.*

17. Hekiek ere ez baditu entzuten, elizari errozu. Bainan ez badu eliza ere entzuten, zuretzat geldi bedi pagano bat eta zerga biltzaile bat [bezala].

18. Egiaz derratzuet nik, lurraren gainean loturik utziko duzuen guzia, lotua geldituko dela zeruan ere; eta lurraren gainean urraturen duzuena, zeruan ere urratua dela geldituren.

19. Nik [berriz] derratzuet: zuetarik biek [lurraren gainean] elkar aditzen badute, edozein gauza galda dezaten, [ene Aita zeruan denak] onetsia izanen zaiote.

20. Ezen non ere bia edo hirur baitire ene izenean bilduak, ni han naiz hekien erdian.

21. Orduan Jesusengana hurbildurik, Petrik erran zuen:

–Jauna, zenbatetan ene anaiak niri bidegabe egin eta nik barkatu behar diot? Zazpi alditaraino?

22. Jesusek [erran zioen]:

–Nik ez derratzut zazpitaraino, bainan bai zazpitan hirurogoieta hamarretaraino.

23. Aria hortaz [zeruko] erresuma errege baten pare [hartua izan da], zeinak nahi izan baitzuen bere sehiekin ikustekoak xuritu.

24. Egitekoen garbitzen hasi zenean, sehi bat [erakarri zioten], hamar mila talendu zor ziozkana.

25. Ez baitzuen, ordean, nondik bihur, nausiak [manatu zuen] sal zetzazten hura eta haren emazte, haur eta zituenak oro, eta hala garbi zezan zorra.

26. Sehi harek, berriz, ahuspeka eroririk, otoizten zuen erranez: «Igurik nezazu, eta bihurturen darozkitzut oro».

27. Sehi haren nausia urrikaldu zen; utzi zuen eta zorra [barkatu zioen].

28. Sehi harek, berriz, ilkitzean bere sehi lagunetarik bat [atzeman zuen], ehun denario zor ziozkana. Eta lepotik loturik itotzen zuen, erraten zioelarik: «Bihur zak zor dukana».

29. Aldiz, lurrerat eroririk, sehi lagunak otoizten zuen erranez: «Igurik nezazu, eta bihurturen darozkitzut oro».

30. Bainan harek etzuen nahikatu. Aitzitik, goan zen eta preso altxarazi zuen, zorra bihur zezan arteo.

31. Bertze sehi lagunek, berriz, zer zen gertatzen [ikusirik], damu min hartu zuten, eta etorri ziren eta beren nausiari erran ziozkaten iragan zirenak oro.

32. Orduan nausiak [hura] deitu zuen eta erran zioen: «Sehi tzarra! Hire zor guzia barkatu daroat, zeren nauan otoiztu.

33. Ez ote hintzen, beraz, hi ere urrikaldu behar hire sehi lagunaren alderat, ni hire alderat naizen bezala urrikaldu?».

34. Eta bere hasarrean nausiak estiratzaileen eskuetarat [eman zuen, zor zuen guzia bihur zezan arteo].

35. Ene Aita zerukoak ere halaber darotzuete eginen, baldin batbederak zuen anaiari ez badiozue bihotz oroz barkatzen.

[HEMERETZIGARREN KAPITULUA]

[Ezkontza eta dibortzioa. Emazteen uzteko eskua.
Jesus eta haurrak. Jesusek gazte aberatsari dei.
Aberatsa nekez sarturen da zeruko erresuman.
Guzia utzi duten dizipuluen saria.]

1. Jesusek solas horiek [akabatu zituenean, Galileatik ilki zela gertatu zen] eta Judeako aurkintza Jordanez haindikoetara etorri zela.

2. Oste handiak jarraiki zitzaizkon, eta han sendatu ziozkaten eriak.

3. Farisauak hurbildu zitzaizkon, zertan froga, erranez:

–Gizonari haizu ote zaio bere emaztea nolanahiko ariaz uztea?

4. Jesusek [ihardetsi] zioten:

–Ez dukezue irakurtu, hastetik gizona egin duenak, *gizonki eta emazteki egin izan zituela*?

5. Eta erran zaroetela: *Aria hortaz gizonak bere aita-amak [utziko ditu eta bere emazteari iratxikiko da], eta bia izanen dire haragi batean.*

6. Hargatik geroz-goiti ez dire bia, bainan bai haragi bat. Beraz, Jainkoak batua gizonak ez beza berez.

7. Hekiek [galdetu] zuten:

–Zer manatu izan du, beraz, Moisesek *uzpeneko ageria ematea*, eta uztea gero?

8. Jesusek erran zioten:

–Moisesek, zuen bihotz gogortasunaren ariaz, zuen emazteen uzteko eskua [eman izan darotzuete], bainan hastetik holakorik etzen.

9. Nik derratzuet, bada, edozeinek utz dezan bere emaztea, non ez bertzerekin kutsatua delakoz, eta bertze batekin ezkontzen dadien, haina linburtzen dela; eta utziarekin ezkontzen dena, hura ere linburtzen dela.

10. Bere dizipuluek erran zioten:

–Horrelakoak badire senar-emazteen arteko ariak, ezkontzea ez da on.

11. [Jesusek] ihardetsi zaroeten:

–Solas hori ez dute guziek ardiesten, bainan bai emana zaiotenak.

12. Alabainan, badire ebakiak amaren sabeletik hala sortuak; eta ebakiak badire gizonek halakatuak; eta badire beren buruak ebaki egin dituztenak [zeruko] erresumaren ariaz. Adi dironak adi beza.

13. Orduan haurtto batzu [erakarri ziozkaten], eskuak hekien gainean ezar eta otoitz egin zezan. Dizipuluak, berriz, gaizkika ari zitzaizkoten.

14. Jesusek, ordean, erran zaroeten: «Uzkitzue haurttoak, eta ez debeka eneganatzetik; holakoena da ezen zeruko erresuma».

15. Eta eskuak [haurttoen] gainean ezarri ondoan, handik [goan zen].

16. [Behin gizon gazte batek Jesusi erran zioen], hurbildurik:

–Nausi ona, ongirik zer eginen dut, betiereko bizitzearen ardiestekotzat?

17. Jesusek ihardetsi zioen:

–Zergatik ari zaizkit galdeka, ona deituz? Ona bat da bakarra, Jainkoa. Baina bizitzean sartu nahi bazare, begira zatzu manamenduak.

18. Harek erran zuen:

–Zein?

Jesusek ihardetsi zuen:

–Ez duzu nihor hilen, bertzeren emaztearekin etzare kutsatuko, ez duzu ebatsiko, lekukotasun gezurrezkorik ez duzu eginen.

19. *Aita-amak ohora zatzu eta maita zazu zure laguna zure burua bezala.*

20. Gizon gazteak [erran zioen]:

–Horiek oro gaztedanik begiratu izan ditut. Zer duket eskas oraino?

21. Jesusek [erran zioen]:

–Itzalgabea izan nahi baduzu, zoaz, ditutzunak sal eta beharrei eman zatzu, eta zeruan ontasuntze bat dukezu; zato gero eta jarraik zakizkit.

22. Bainan gizon gazteak solasa [aditu zuenean, ilunik goan zen], ezen ontasun handien jabe zen.

23. Orduan Jesusek bere dizipuluei [erran zioten]:

–Egiaz derratzuet: aberatsa nekez [da sarturen zeruko] erresuman.

24. Berriz [derratzuet]: Kameluari orratz baten xilotik iragaitea errexago dakioke, ezenez aberatsari [zeruko] erresuman sartzea.

25. Dizipuluak, hitz horiek aditurik, [handizki] balditzen ziren, zerratelarik:

–Nor da, beraz, salbatuko ahal denik?

26. Jesusek begiratzen ziotelarik, erran zuen:

–Gizonentzat ezina da hori; Jainkoarentzat, ordean, eginkizun dire guziak.

27. [Orduan Petrik erran zioen Jesusi]:

–Huna guk utzi ditugula guziak eta jarraiki gatzaizkizu. Zer dago, beraz, guretzat?

28. Jesusek erran zioten:

–Egiaz derratzuet: zuek niri jarraiki zaiteztenak, erreberritzapeneko egunean, Gizonaren Semea bere ospezko alkian [jarriko denean, zuek ere jarriko zarete] hamabi alkitan, Israelgo hamabi leinuak [jujatzen ditutzuelarik].

29. Eta nork ere ene izenaren ariaz utziko baititu etxea, edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo haurrak, edo lurrak, hainak ehunkun izanen, eta betiereko bizitzea ardietsiren [du].

30. Asko izanen dire, berriz, lehen zirenak azken, eta azkenak lehen.

[HOGOIGARREN KAPITULUA]

[Mahasti-langileen parabola.
Jesusek bere neke eta biztea hirugarrenez agertu.
Zebedeoren semeen handinahia.
Zerbitzua dizipuluen lege. Jesusek bi itsu sendatu.]

1. [Zeruko erresuma etxeko jaun bat iduri da], zeina goiz lehenetik ilki baitzen, bere mahastikotzat langile hartzera.

2. Langileekin eguneko denario banaz hitzarturik, bere mahastira [bidali zituen].

3. Hirugarren oreneko irian ateraturik, bertze batzu plazan alfer [ikusi zituen].

4. Eta erran zioten: «Zuek ere zoazte ene mahastira, eta zuzen ditakena [emanen darotzuet]».

5. Eta goan ziren.

Berriz ere ilki zen seigarren eta bederatzigarren orenetako ingurutsuan, eta orobat egin zuen.

6. Azkenekoz, hamekagarren [oren ingurutsuan] ilki zen, eta bertze batzu aurkitu zituen han zaudela, eta [erran zioten]: «Zertan zaudezte hor, egun guzia alferrik]?».

7. [Ihardetsi zuten]: «Nihork ez gaitu hartu». [Harek orduan]: «Zoazte zuek ere ene mahastira».

8. Arratsa etorri [zenean], mahastiaren jabeak bere etxeko gizonari [erran zioen]: «Deit zatzu langileak, eta emozute beren saria, azkenekoetatik hasirik lehenbizikoetaraino».

9. Hurbildu zirenean, beraz, hamekagarren [oren ingurutsuan] etorri zirenak, denario bana [izatu zuten].

10. Lehenbizikoak [etorri zirenean], uste izan zuten gehiago izanen zutela, bainan hekiek ere denario bana izatu zuten.

11. Eta hartzean, erasiaka hasi ziren etxeko jaunaren kontra:

12. «Azken horiek oren bat[ez] aritu dire lanean, eta gurekin, egun osoko beroa eta nekea jasan dugunekin, berdin egin ditutzu».

13. Bainan harek hekietarik bati ihardestean, erran zuen: «Adiskidea, bidegaberik ez darotzut egiten; etzare denario batez enekin hitz egina?

14. Har zazu zurea dena, eta zoaz. Azken huni ere nahi diot zuri bezanbat eman.

15. Ala nahi dudanaren egitera ez ote naiz haizu? Ala zure begia gaixto da, ni [ona] naizelakoz?».

16. Horrela izanen dire azkenak lehen eta lehenak azken. Ezen ainitzak dire deituak, guti ordean hautatuak.

17. [Jesus] Jerusalemera igaiten zelarik, [hamabi dizipuluak] bazterrerat hartu zituen, eta erran zaroeten:

18. «Huna non goazen Jerusalemera, eta Gizonaren Semea emana izanen da apezen buruzagien eta iskribauen eskuetara, eta hiltzera kondenaturen dute.

19. Eta paganoei emanen diote trufatzera, azotatzera eta gurutzefikatzera, eta [hilen artetik] hirugarren egunean bizturen da.

20. Orduan Zebedeoren semeen ama hurbildu zitzaioen bere semeekin, adoratzen zuelarik eta harenganik zerbait galdatuz.

21. Jesusek erran zioen:

–Zer nahi duzu?

Eta harek:

–Mana zazu ene seme haukiek biak zure erresuman jar ditezen, bata zure eskuinetik eta bertzea zure ezkerretik.

22. Jesusek ihardestean erran zuen:

–Ez dakizue zer duzuen galdatzen. Edan ahal ote dezakezue nik edan behar dudan untzian?

–Edan dezakegu –[erran zioten hekiek].

23. [Jesusek orduan]:

–Bai, edanen duzue ene untzitik; jartzea, ordean, ene eskuinetarik eta ezkerretarik etzait niri ematea zuei, bainan hainei zeinentzat bereizi baitu ene Aitak.

24. Bertze hamarrek [hori] aditurik, bi anaien ariaz [gaitzitu ziren].

25. Jesusek bereganat [deitu zituen] eta erran zioten: «Badakizue jendaietan buruzagiak [nausi] dabiltzala, eta handienek manatzen diotela bertzeei.

26. Ez da horrela izanen zuen artean; bainan zuen artean handien egin nahiko dena, zuen zerbitzari jar bedi.

27. Eta zuen artean lehenbiziko izan nahiko dena, zuen sehi beharko da izan.

28. Gizonaren Semea etorri den bezala, ez zerbitzatua izatera, bainan zerbitzatzera eta bere bizia ainitzen erospenetan ematera.

29. Jerikotik ilkitzen zirelarik, oste handi bat jarraiki zitzaioen Jesusi.

30. Bide bazterrean jarriak ziren bi itsuk aditurik Jesus iragaiten zela, oihu egin zuten erranez:

–Jauna, Dabiden Semea, urrikal zakizkigu!

31. Jendea gaizkika ari zitzaioten, ixilarazi beharrez, bainan hekiek gehiago egiten zuten oihu, zerratelarik:

–Jauna, Dabiden Semea, urrikal guri!

32. Orduan gelditurik, Jesusek deitu zituen eta erran zaroeten:

–Zer nahi duzue egin dezazuedan?

33. Ihardetsi zuten:

–Jauna, gure begiak ditezen idek.

34. Hekiez urrikaldurik, Jesusek begiak [ukitu ziozkaten], eta ordu beretik ikusten hasi ziren eta jarraiki zitzaizkon.

[HOGOIETA BATGARREN KAPITULUA]

[Jesus Jerusalemen Mesias bezala sartu.
Tenploa herri guzientzat otoitzeko etxe.
Pikondoaren (madarikazioa): sinestea eta otoitza.
Nondik Jesusen ahala? Bi semeen parabola.
Mahastizain hiltzaileen parabola.]

1. [Jerusalemera hurbildu eta Betfagera etorri zirenean], Olibadietako mendi aldera, Jesusek bi dizipulu [igorri zituen].

2. Erraten ziotelarik:

–Zoazte zuen aitzinean den herrira, eta berehala atzemanen duzie asto urrixa bat bere umearekin; eta laxaturik, erakar daroztatzue niri.

3. Eta nihork zerbait [erraten badarozue], errozue: «Jaunak behar [ditu] eta utziko darozkitzuete berehala ».

4. Hori guzia [gertatu zen] profetaren ahoz errana izan zena [bete zadien]:

5. *Siongo alabari errozue: Huna non zure erregea emerik heldu zaitzun, asto urrixaren gainean, eta uztarria erabiltzen duenaren umearen gainean [jarria].*

6. Goan ziren, beraz, dizipuluak, eta Jesusek manatu zaroeten bezala [egin zuten].

7. Astoa eta bere umea [erakarri zituzten], bizkarrean beren soinekoa [ezarri ziozkaten] eta gainean jarrarazi zuten.

8. Jendetza handi batek bere soinekoak hedatu zituen bidean; bertze batzuek, aldiz, arboletarik adarrak hausten eta bidera artikitzen zituzten.

9. [Jesusen aitzinean mulkoka] zihoazenak eta ondotik heldu zirenak oihuka ari ziren, erranez:

Hosanna Dabiden Semeari! Ongi etorri Jaunaren izenean heldu denari! Hosanna zeru gorenetaraino!

10. [Jesus] Jerusalemera sartu zenean, hiri guzia kantitu zen, erraten zutelarik:

–Zein da hau?

11. Populuek zerraten:

–Jesus da hau, profeta, Galilea Nazaretekoa.

12. Jesus Jainkoaren tenploan [sartu zen], eta tenploan sal-erosten ari ziren guziak [iraizi zituen], eta aldatzaileen mahainak eta uso-saltzaileen jarlekuak [eragotzi zituen].

13. Eta erran zaroeten: «Iskribatua da: *Ene etxea otoitzeko etxea deituren da*; zuek, ordean, ohoin zilo bat egin duzue huntarik».

14. Tenploan itsu eta maingu [batzu hurbildu zitzaioen], eta sendatu zituen.

15. [Bainan] apezen buruzagiek eta Iskribauek Jesusek egin zituen sendagailak [ikusirik], eta haurrak nola ari ziren tenploan oihuka, ziotelarik: «Hosanna Dabiden Semeari!», gaitziturik jarri ziren.

16. Eta erran zioten:

–Aditzen duzu zer dioten?

Jesusek, berriz, ihardetsi zioten:

–Segurki. Ez duzue noizbait irakurtu: *Haurttoen eta bularrekoen ahotik ateratu duzu laudoriorik garbiena?*

17. Eta hekiek utzirik, hiritik goan zen Betaniara, eta han gelditu zen [gauez].

18. Goizean, berriz, nola hirira bihurtzen baitzen, gosetu zen.

19. Pikondo bat bide bazterrean ikusirik, goan zitzaion eta etzuen hartan deus ere aurkitu hostorik baizik, eta erran zioen: «Hitarik ez bedi nioiz fruiturik sor!».

Eta han berean ihartu zen pikoa.

20. [Hori] ikusirik, dizipuluak harrituak zeuden, zerratelarik:

–Nola ihartu da bat-batean?

21. Ihardestean, Jesusek erran zioten:

–Egiaz derratzuet nik: Sinestea bazindute eta kordokarik ez, egin zinezakete, ez-ezik pikoaz, bainan oraino mendi horri erran bazinezote: «Egik hortik eta itsasora jauz hadi», egin lezake.

22. Otoitzean zernahi galda dezazuen sinesterekin, ardietsiren duzue.

23. [Jesus tenplora sartu] ondoan, irakasten ari zelarik, apezen buruzagiak eta populuko zaharrak [hurbildu zitzaizkon], ziotelarik:

–Zer eskuz egiten ditutzu horiek, eta nork eman darotzu ahal hori?

24. Ihardestean, Jesusek erran zioten:

–Nik ere galde bat eginen darotzuet; harren gainean ihardesten badarotazuet, nik halaber erranen darotzuet zer eskuz haukiek egiten ditudan.

25. Nondikakoa zen Joanesen bataioa? Zerutikakoa ala gizonenganikakoa?

Hekiek beren baitan jardukitzen zuten, zerratelarik: «Ihardesten badugu 'Zerutikakoa', erranen daroku: Zergatik, beraz, hari ez diozue eman sineste?

26. Aldiz, erraten badugu 'Gizonenganikakoa', populuaren gare beldur; alabainan Joanes profetatzat zadukaten guziek».

27. Jesusi ihardestean, erran zuten:

–Ez dakigu.

Jesusek halaber erran zioten:

–Ez darotzuet nik ere erraten zer eskuz egiten ditudan haukiek.

28. Bainan zuei zer zaizue huntaz? Gizon batek bazituen bi seme, eta zaharrenari buruz erran zuen: «Semea, lanera zoaz egun gure mahastira».

29. Hunek, ordean, ihardetsi zioen: «Ez dut nahi». Bainan gero, urrikiak harturik, goan zen.

30. Bertzeari buruz, gauza bera [erran zioen]. Eta harek erran zuen: «Banoa, Jauna». Eta etzen goan.

31. Bietarik zeinek egin ote zuen aitaren oldera?

Ihardetsi zuten:

–Lehenbizikoak.

Jesusek erran zioten:

–Egiaz derratzuet nik, zerga biltzaile eta lilitxoak aitzinduren zaizkitzuela Jainkoaren erresumara.

32. Ezen [Joanes zuzentasunaren bideaz] etorri izan zaizue, eta hura ez duzue sinetsi; zerga biltzaile eta lilitxoek, ordean, sineste eman diote. Zuek, aldiz, ikusten zinduten arren, etzarete hargatik urrikitan sartu, haren sinestekotzat.

33. Adi zazue bertze parabola bat: Bazen etxeko jaun bat, zeinak mahasti bat [landatu baitzuen], berroz inguratu, lako bat ere hartan egin, dorre bat altxatu; eta mahastizain batzuei etxetiargoan hura emanik, atzerritara bidaietan goan zen.

34. Mahats aroa hurbildu zenean, bere sehiak mahastizainengana igorri zituen, bere mahatsaren altxatzera.

35. [Bainan] haren sehiei loturik, mahastizainek bat [jo zuten], hil bertze bat, bertzea berriz harrikatu.

36. Berritan bertze sehi batzu [igorri zituen], aitzinean baino gehiago, eta mahastizainek heieki ere lan bera egin zaroeten.

37. Azkenean, berriz, bere semea igorri zuen hekiengana, zerralarik: «Ene semeak ahalkaturen ditu».

38. Bainan semea ikustearekin, mahastizainek beren artean erran zuten: «Hau da premua; zatozte! Hil dezagun, eta gurea ditake horren primantza».

39. Eta harturik, mahastitik ateratu zuten eta hil.

40. Mahastiaren jabea [etorriko denean], zer eginen diote mahastizain horiei?

41. Ihardetsi zuten:

–Heriotze gogorraz galduko ditu gaixtaginak, eta bere mahastia emanen diote bertze mahastizain batzuei, zeinek aro bakotxean fruitua [bihurtuko baitute].

42. Jesusek erran zioten:

–Iskrituretan ez ote duzue egundaino irakurtu:

Harginek tzartzat utzi harria, hura bilakatu da etxeburuko izkina-harri. Jaunak egin izan du hori, eta zuen begietan [da] ederresgarri.

43. Hargatik derratzuet nik, Jainkoaren erresuma kenduko zaitzuela, eta populu bati [emanen zaioela], zeinak behar diren ondoreak ateratuko baititu.

44. Harri haren gainera eroriko dena zatikaturen da; aldiz, noren gainerat ere eroriko baita harri hura, haina [leherturen du].

45. Apez nausiek eta farisauek Jesusen parabolak [aditu zituztenean, hekiez zela mintzo ezagutu zuten].

46. Eta haren atzematea bilatzen zuten arren, populuaren beldurrak jo zituen, zeren [profetatzat] baitzadukaten.

[HOGOIETA BIGARREN KAPITULUA]

[Ezteien parabola.
Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari.
Hilen bizteaz. Manamendu handiena.
Kristo, Dabiden Seme eta Jaun.]

1. Oraino ere paraboletan mintzatuz, Jesusek hau erran zaroeten:

2. –[Zeruko erresumak errege bat iduri du], zeinek bere semearen ezteiak [egin baitzituen].

3. Bere mutilak igorri zituen ezteiliarren deitzera, eta etziren nahi etorri.

4. Berriz igorri zituen bertze sehi batzu, zerralarik: «Ezteiliarrei errozuete: Huna non apaindu dudan ene barazkaria; ene idi eta azienda gizenduak hilak ditut, gauza guziak xuxenduak daude; zatozte ezteietara».

5. Hekiek, ordean, etzuten ardurarik iduki, eta goan ziren, hau bere bazterretxera, hura bere tratuetara.

6. Bertzeek, berriz, erregeren mutilak [hartu zituzten] eta zernahi hidoi jasanarazirik, hil izan zituzten.

7. Erregek aditu zuenean, hasarreak hartu zuen eta, bere armadak igorririk, gizon hiltzaile hekiek [xahutu zituen eta hekien hiria erre zuen].

8. Orduan bere mutilei [erran zioten]: «Ezteiak apainduak daude, bainan otoiztuak zirenak etziren egoki.

9. Zoazte, beraz, bideburuetara, eta ezteietara deit zatzue atzemanen ditutzuen guziak».

10. Sehiak bideetara ilki ziren, eta atzemanak oro, on eta gaixto, bildu zituzten guziak. Eta barazkaltiarrez bete zen ezteietako mahaina.

11. Gero errege mahainean zirenen ikustera [sartu zen], eta han ohartu zen batek etzuela ezteietako aldagarria jauntzi.

12. Eta erran zioen: «Adiskidea, nola sartu zare hunat ezteietako soinik gabe?». Hura hitzik gabe gelditu zen.

13. Orduan erregek bere gizonei [erran zioten]: «Zango-besoak estekaturik, artikazue kanpoko ilunbeetara. Han izanen [da] marraska eta hortz karraska».

14. Ezen ainitzak dire dietuak, gutiak ordean hautatuak.

15. Orduan farisauak goanik, batzarre egin zuten, Jesus bere ahotik atzeman behar zutela.

16. Eta beren dizipuluak Herodestarrekin [igorri ziozkaten] erratera:

–Nausia, badakigu zina zarela eta zintasunean irakasten duzula Jainkoaren bidea, eta nihortaz ez dadukazula ardurarik, etzarelakoz nor-nor-den begiratzen.

17. Erraguzu, beraz, zer zaitzun: Zesarri zergaren ematea haizu da, ala ez?

18. Jesusek, hekien maltzurkeria [ezagutzen baitzuen], erran zioten:

–Itxura eder egileak, zergatik nauzue bilatzen?

19. Erakuts dizadazuet zergako dirua.

Hekiek denario bat [erakutsi zioten].

20. Jesusek erran zioten:

–Norenak dire gaineko itxura eta iskribu hau?

21. [Hekiek ihardetsi zuten]:

–Zesarrenak.

Orduan Jesusek erran zaroeten:

–Bihurrotzue, beraz, Zesarri Zesarren direnak, eta Jainkoari Jainkoaren direnak.

22. [Hori] aditu zutenean, baldituak gelditu ziren eta, hura utzirik, [handik] goan ziren.

23. Egun hartan berean, saduzearrak [hurbildu zitzaizkon], zeinek hilen bizterik ez dela [baitiote], eta galdeka aritu zitzaizkon:

24. –Nausia, Moisesek erran izan du: *Norbait haurrik gabe hiltzera heldu bada, haren anaia ezkont bedi haren emaztearekin, eta ondore eman biozo bere anaiari.*

25. Bada gutartean baziren zazpi anaia. Lehenbizikoa ezkondu ondoan hil [zen] eta, haurrik ez baitzuen, bere anaiari utzi [zioen] bere emaztea.

26. Halaber, bigarrenak eta hirugarrenak, zazpigarreneraino.

27. Guzien ondotik, berriz, emaztekia ere hil [zen].

28. Beraz, hilen bizteko egunean, zazpietarik zeinen emazte izanen da, [orok emaztetzat izan baitzuten]?

29. Ihardestean, Jesusek erran zioten:

–Makur zabiltzate, iskriturak eta Jainkoaren ahala [ardietsi gabez].

30. Ezen hilak biztuko direnean, ez dute hartuko ez gizonek emazterik, ez eta emaztekiek senarrik; bainan Jainkoaren aingeruak bezala izanen dire zeruan.

31. Bada, hilen biztearen gainean ez duzue irakurtu, zuei mintzatuz Jainkoak erran izan duena:

32. *Ni naiz Abrahamen Jainkoa, eta Isaaken Jainkoa, eta Jakoben Jainkoa*? Ez da hilen Jainkoa, bainan bai bizidunena.

33. [Osteak hori] aditzearekin, ederresten ziren haren irakasmenari.

34. Bainan farisauek aditurik nola ixilarazi zituen saduzearrak, elkargana bildu ziren.

35. Eta hekietarik legearen irakasle zen batek, makurrean atzeman beharrez, galde hau [egin zioen]:

36. –Nausia, legean manamendu handia zein da?

37. Jesusek erran zioen:

–*Zure Jainko Jauna duzu maitaturen zure bihotz oroz*, eta arima guziaz eta gogo osoaz.

38. Hori da manamenduetan handiena eta lehena.

39. Bigarrena, berriz, horren idurikoa da: *Zure laguna duzu maitaturen zure burua bezala*.

40. Lege guzia eta profetak, bi manamendu horietan dauntza.

41. Farisauak bilduak zaudelarik, Jesusek egin zaroeten galde bat:

42. –Zer zaitzue Kristoz? Noren semea dela?

[Hekiek erran zioten]:

–Dabidena.

43. Jesusek erran zioten:

–Nola, beraz, Dabidek, izpirituak zerabilkalarik, deitzen du bere «Jauna», erraten duenean:

44. Jaunak dio ene Jaunari: *Ene eskuinean jar zaite, zure etsaiak zure oin alki ezar detzadan arteo.*

45. [Beraz], baldin Dabidek Jaunetan deitzen badu, nolaz da haren seme?

46. Nihork ezin ihardets ziozokeen hitz bat, eta egun hartaz geroz, etzen izan hari galdeka aritzera ausartatu zenik.

[HOGOIETA HIRUGARREN KAPITULUA]

[Jesusek lege-maisuak eta farisauak salatu.
Jesus Jerusalemengatik aieneka.]

1. Orduan Jesus osteei eta bere dizipuluei mintzatu [zitzaioten]:

2. –Moisesen alkian jarriak daude iskribauak eta farisauak.

3. Idukatzue, beraz, erranen darozkitzueten guziak, eta egizkitzue: zuek, ordean, ez egin horien egitateen arabera, ezen baderrate, eta egiten ez.

4. Zama gaitzak eta ezin jasanezkoak dituzte tinkatzen, eta gizonen bizkarrerat ematen; berek, ordean, eriaz ere ez dituzte nahi higitu.

5. Beren eginkariak [guziak daramazkite, berriz, gizonek] ikusiak izateagatik; ezik beren larruzko xerrendak zabaltzen dituzte, eta litsak luzatzen.

6. Afarietan, aldiz, mahain buruak dituzte laket, sinagogetan alki gorenak.

7. Plazetan agurrak eta [«Nausia»] deituak izatea.

8. Zuek, ordean, ez lehia [«Nausia»] deituak izatera, ezen bat da bakarrik zuen Nausia, zeina [zeruan] baita.

9. Lurraren gainean «aita» ez deit nihor, ezen bat bakarra da zuen Aita, zeina [zeruan] baita.

10. Ez ekar [«gidari»] izenik, ezen bat da bakarrik zuen Gidaria, Kristo.

11. Zuen arten handien dena, zuen zerbitzari [izanen da].

12. Goratuko dena apaldua izanen da, eta apalduko dena goratua [izanen da].

13. Zorigaitz, ordean, zuei, iskribau eta farisau itxura edertzaleak! Zeren gizonen aitzinean hersten [duzuen zeruko] erresuma. Zeronek etzarete sartzen, eta sartzera dihoazenak ez ditutzue barnerat uzten.

14. Zorigaitz zuei, iskribau eta farisau itxura eder egileak! Zeren otoitz luzeak egiten ditutzuelakoan, alargunen etxeak ditutzuen iresten. Hargatik jujamendu zorrotzagoa [izanen duzue].

15. Zorigaitz zuei, iskribau eta farisau itxura gezurtiak! Zeren proselit baten egiteko itsasleihorrak itzulikatzen [ditutzuen], eta egin dukezuenean, ifernukoseme [bilakarazten baituzue], zeronek baino areago bietan.

16. Zorigaitz zuei, buruzagi itsuak, zeinek baiterrazue: Edozeinek tenploaz zin egin dezan, deus ez da; ordean, tenploko urreaz eginen duena, zorretan sartu da.

17. Zoroak eta itsuak! Zein da gehiago, urrea ala urrea sainduesten duen tenploa?

18. Oraino [diozue]: Edozeinek aldareaz zin egin dezan, deusik ez da; bainan aldare gainean den emaitzaz egin duena, zorretan sartu da.

19. Itsuak! Zein da gehiago, emaitza ala hura sainduesten duen aldarea?

20. Beraz, [aldareaz] zin egiten duenak, hartaz eta haren gainean diren guziez egiten du zin.

21. Eta nork ere tenploaz zin egiten baitu, hartaz egiten du zin eta hartan dagoenaz.

22. Eta zeruaz zin egiten duenak, Jainkoaren tronuaz eta haren gainean jarria denaz egiten du zin.

23. Zorigaitz zuei, iskribau eta farisau alegia ederretakoak! Mendako, anetako eta kumineko hamarrenak ematen ditutzuenak, eta bazterrerat uzten legeko minenak, zuzenbidea eta urrikalmendua eta sinestea. Horiek ziren egin beharrak, eta bertzeak ez utzi.

24. Buruzagi itsuak! Eltzoa iragazten eta kamelua iresten duzuenak.

25. Zorigaitz zuei, iskribau eta farisau, alegiakari ederrak! Zeren edateko untzia eta azpila kanpotik ditutzuen garbitzen, barneak aldiz harrapakeriaz eta likiskeriaz ditutzuelarik beteak.

26. Farisau itsua, lehenik barnea xahu zotek edateko untziari eta azpilari, kanpoa ere garbi [izan dadien].

27. Zorigaitz zuei, iskribau eta farisau alegia egileak! Zeren iduri baituzue hobi xurituak, kanpoz begietara eder, eta barnean hil hezur eta ustelkeriaz beteak daudenak.

28. Hala-hala zuek ere kanpoz prestu agertzen zarete gizonei, gezurrezko itxurapenik eta tzarkeriarik baizen ez duzuelarik barnean.

29. Zorigaitz zuei, iskribau eta farisau itxuraz ederrak! Profetei hobiak altxatzen eta prestuen oroitgailuak edertzen [ditutzue],

30. Eta diozue: «Gure arbasoen egunetan bizi izan baginade, profeten odolean partedun ez ginen izanen».

31. Horreletan, zuen buruei lekukotasun [ateratzen diozuete], profeta hiltzaileen ume zaretela.

32. Zuek ere bete zazue zuen aiten neurria.

33. Suge, bipera odolekoak! Nola itzuriren zarete ifernurako jujamenduari?

34. Hargatik huna non bidaltzen darozkitzuedan profetak, eta zuhurrak, eta iskribauak, eta hekietarik zuek hilen eta gurutzefikaturen ditutzue batzu, eta zuen sinagogetan azotaturen bertze batzu, eta hiritik hirira jazarriren diozuete.

35. Gainera datortzuen lurrean ixuria izan den odol garbi guzia: Abel prestuaren odoletik, Barakiasen seme Zakarias, tenploaren eta aldarearen artean hil duzuen odoleraino.

36. Egiaz derratzuet nik, horiek oro orai bizi direnen gainera direla etorriko.

37. Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta hiregana bidaliak direnak harrikatzen ditunana! Zenbatetan nahi izan ditinat hire umeak bildu, oiloak hegalpera txitoak biltzen dituen bezala, eta hik ez baitun nahi izatu.

38. Huna non hutsik uztera dihoakizuen zuen etxera.

39. Ezen nik derratzuet: Ez nauzue gehiago ikusiren, erran dezazuen arteo: *Ongi etorri, Jaunaren izenean datorrenari.*

[HOGOIETA LAUGARREN KAPITULUA]

[Tenploa urratua izanen.
Mendeen akabantzaren ezagutkaria.
Hestura handia. Gizonaren Semearen etortzea.
Zaudezte erne, Jauna noiz etorriko den.
Zerbitzuan leial iraun.]

1. Tenplotik ilkirik, bazihoan Jesus, eta bere dizipuluak [hurbildu zitzaizkon] tenploko leihor ederren erakusteko.

2. Ihardestean, Jesusek [erran zioten]: «Ikusten ditutzue horiek oro? Egiaz derratzuet, bada, harria harriaren gainean, urratu gabe, hor ez dela geldituren».

3. Gero, Olibadietako mendian jarria zagoelarik, [dizipuluak] ixilka hurbildu zitzaizkon, ziotelarik:

–Erraguzu noiz izanen diren horiek, eta zer izanen den zure etorpenaren eta mendeen akabantzaren ezagutkaria.

4. Jesusek [ihardetsi] zioten:

–Berautzue nihork atzeman zetzazten.

5. Ezen asko ene izenean etorriko dire, diotelarik: «Ni naiz Kristo», eta ainitzak dituzte eskurraturen.

6. Adituren ere duzue gudu eta gudu haroz. Berautzue asalda, ezen gertatu beharra dire horiek, bainan ez daite akabantza oraino.

7. Ezen jendaia jendaiari [jaikiko zaio], erresuma erresumari, eta ainitz tokitan izanen da izurrite, gosete, lur ikaratze.

8. Horiek oro minen hasteak izanen dire.

9. Orduan hesturetan ezarriko eta hilen zaituztete; eta jendaia guziei ene izenaren ariaz gaitzirizkotan izanen zarete.

10. Orduan asko behaztopaka, eta elkar salduz eta elkar gaitzetsiz ibiliko dire.

11. Asko profeta-aizun jaikiko dire, eta ainitzak enganatuko dituzte.

12. Eta nola gaindi izanen baita tzarkeria, askoren amodioa hoztuko da.

13. Bainan nork ere azkeneraino jardukiren baitu, haina izanen da salbatua.

14. Erresumako ebanjelio hau lurraren hedadura guzian [erantzunen da], jendaki guziei lekukotasunetan. Orduan etorriko da ahipena.

15. [Daniel profetak aipatu] Desmasiako hasgarrikeria [leku sainduan jarria ikusiko duzuenean, beraz], irakurtzen duenak ardiets beza,

16. Orduan Judean direnak [bihoaz] ihes mendietara.

17. Hegaztegian dena ez bedi jauts, etxetik zerbaiten hartzeko.

18. Eta landan dena ez bedi bihur soinekoaren bila.

19. Zorigaitz, aldiz, egun hekietan izorra eta unide direnei!

20. Otoitz egizue, bada, zuen ihesa neguan edo larunbat egunean ez dadien gerta.

21. Hestura handia [izanen da], munduaren hastapenetik orai arteo izan ez [dena], ez-etare izanen.

22. Eta baldin egun hekiek [Jainkoak] laburtuak izan ez balire, gizonik etzen salbaturen; hautetsiengatik, ordean, laburtuak izanen dire egun hekiek.

23. Orduan norbaitek erran balezazue: «Huna, hemen da Kristo» edo «Hantxe da», ez sinets.

24. Ezen kristo-aizunak eta profeta-aizunak [jaikiko dire], eta sendagaila handiak eta harritzeko gauzak [eginen dituzte], heletan non hautetsiak ere, ahal balitz, enganiotara erorraraz bailetzazkete.

25. Horra, [aitzinetik] erran darotzuedala.

26. [Beraz], erran balezazuete «Hara non den mortuan», ez ilki; «Huna, etxe zokoetan [da]», ez sinets.

27. Ezen, nola ximista iguzkialdetik ilkitzen eta mendebaleraino agertzen baita, hala izanen da Gizonaren Semearen etortzea ere.

28. Non hilikia [baititake], harako dire arranoak ere.

29. Egun hekietako hesturaren ondotik berehala, iguzkia [ilunduren da] eta ilargiak bere argia ez du [eginen], eta izarrak zerutik [eroriko dire, eta zeruko] ahalak kordokaturen dire.

30. Orduan zeru gainetik Gizonaren Semearen ezagutkaria [agerturen da], eta orduan marrasketan dire egonen lurreko jendaki guziak, eta Gizonaren Semea *zeruko hedoien gainean datorla* [ikusiren dute], indar eta maiestate handirekin.

31. Bere aingeruak turutarekin eta harrabots handitan [igorriko ditu], eta haren hautetsiak lau haizeetarik [bilduko dituzte, zeruko] bazter batzuetarik bertze buruetaraino.

32. Bada, piko-ondotik har zazue irudipen bat: haren adarra guritu eta hostoak sortu direneko, badakizue uda hurbil dela.

33. Hala, zuek ere horiek oro [ikusiko ditutzuenean], jakizue Gizonaren Semea hurbil dela atean.

34. Egiaz derratzuet gizate hau ez dela goanen, non horiek oro ez diren gertatzen.

35. Zeru-lurrak [iraganen dire], bainan ene hitzak ez dire iraganen.

36. Egun hura eta orena, ordean, nihork ez dakizki, ez-eta [zeruko] aingeruek ere, Aitak bakarrik baizen.

37. Noeren egunetan nola gertatu baitzen, Gizonaren Semearen etortzea ere hala izanen da.

38. Ezen nola uholdearen aitzineko egunetan jaten eta edaten, ezkontzen eta ezkontarazten [ari baitziren], Noe arkan sartu izan zen egun hartaraino.

39. Eta uholdea etorri arteo ezbaitzuten ezagutu, eta guziak eraman baitzituen, hala izanen da Gizonaren Semearen etortzea ere.

40. Orduan bi gizon izanen dire landan; bat hartua izanen da, eta bertzea utzia.

41. Iharan bi emazteki ariko dire ehaiten; bat hartua [izanen da] eta bertzea utzia.

42. Atzarririk zaudezte, beraz, ez dakizuelakoz zer orduz etortzekoa den zuen Jauna.

43. Hau jakizue, bada: etxeko jauna jakintsun [balitz] zer mugaz etortzekoa den ohoina, erne legoke eiki, eta ez ahal lezake utz etxearen zilatzera.

44. Hargatik zuek ere zaudezte goait, zeren ez dakizuen zer orduz etorriko den Gizonaren Semea.

45. Zein da, zure ustez, zerbitzari zin eta gurbila, nagusiak bere etxekoen gainean ezarria, hekiei mugetan janariaren emateko?

46. Dohatsu zerbitzari hura, zeina nausiak, etxeratzean, atzeman baituke horrela ari!

47. Egiaz derratzuet, bere ontasun guzien buruan ezarriren duela.

48. Bainan zerbitzari gaixtoak bere baitan egiten badu: «Astiz dago ene nausia etortzeko»,

49. Eta bere sehi lagunen jotzen [abiatzen bada], hordizaleekin jaten eta edaten,

50. Nausia [etorriko zaio] igurikitzen ez duen egunean eta ez dakien orduan,

51. Eta bereziko du, eta haren zatia gezur egiten dutenekilako [ezarriko du]. Han izanen da marraska eta hortz karraska.

[HOGOIETA BORZGARREN KAPITULUA]

[Hamar neskatxen parabola.
Talenduen parabola. Azken auzia.]

1. Zeruko erresuma hamar neskatxen iduriko [izanen da], zeinak, beren argiak harturik, ezkonberrien bidera [ilki baitziren].

2. Hekietarik, eroak ziren bortz, eta bortz zuhurrak.

3. Bortz eroek, argiak hartzean, etzuten oliorik berekin eraman.

4. Zuhurrek, aldiz, kriseluekin olioa hartu zuten beren untzietan.

5. Bada, nola ezkonberriak luzatzen baitzuen, guziak [logaletu ziren] eta lo egin zuten.

6. Bainan gauerditan oihu bat egin zen: «Huna ezkonberria datorla! Zoazkiote aitzinera!».

7. Orduan neskatxa hekiek jaiki ziren guziakm eta beren kriseluak [apaindu zituzten].

8. Zoroek, berriz, zuhurrei erran zaroeten: «Iguzue zuen oliotik, hiltzen baitzaizkigu argiak».

9. Zuhurrek ihardetsi zioten: «Beldurrez-eta ez dadien izan zuen eta gure dina, hobekiago egiteko, zoazte saltzaileetara, eta erosazue zuentzat».

10. Bainan erostera zihoazen artean, ezkonberria [etorri izan zen], eta goaitean zaudezenak harekin [sartu ziren ezteietara, eta atea hertsi zen].

11. Aldiz, bertzeak azkenean [heldu ziren, ziotelarik]: «Jauna, Jauna! Idek dizaguzu!».

12. Harek, ordean, ihardestean erran zioten: «Egiaz derratzuet, etzaituztet ezagutzen».

13. Zaudezte, beraz, atzarririk, zeren ez baitakizue ez eguna, ez orena.

14. Halaber, bidaietara zihoan gizon [batekin bezala da: bere sehiak deitu izan zitzuen], eta eskuetara eman ziozkaten bere ontasunak.

15. Bati bortz talendu [eman ziozkan], bertzeari berriz bia, bertzeari aldiz bat, bakotxari bere eginahalaren arabera; eta ordu berean lotu zen bideari.

16. Bortz talendu izan zituena goan zen, bermatu zen hekiekin eta bertze bortz [irabazi zituen].

17. Halaber, bia izatu zituenak ere irabazi zituen bertze bia.

18. Aldiz, bakar bat izan zuena goan zen, zilo bat lurrean egin eta hartan gorde zuen bere nausiaren dirua.

19. Handik arte luze baten buruan, sehi hekien nausia [etorri zen], eta hekiekin xuritu zuen bere ikustekoa.

20. Bortz talendu izan zituenak, hurbildurik, bertze bortz [ateratu ziozkan], zioelarik: «Jauna, bortz talendu [eman izan daroztadatzu]; huna, gainetik bertze bortz [irabazi ditut].

21. Nausiak ihardetsi zioen: «Ederki, zerbitzari on eta zina! Zeren gutian zirritu [izan zaren], ainitzen buruan [ezarriko zaitut]; sar zaite zure nausiaren bozkarioan».

22. Aldiz, bi talendu izan zituena ere hurbildu zen, eta erran zuen: «Jauna, bi talendu [eman izan daroztadatzu]; huna, bertze bia [irabazi ditut]».

23. Nausiak ihardetsi zioen: «Ederki, zerbitzari on eta zina! Zeren gauza xumean zirritu [izan zaren], handien buruan zaitut ezarriren; sar zaite zure nausiaren bozkarioan».

24. Gero hurbildurik, talendu bakarra izatu zuenak [erran zuen]: «Jauna, badakit gizon garratza zarela, uztatzen duzula erain ez duzun tokian, eta biltzen non ere ez baituzu barraiatu.

25. Eta ene beldurrarekin goan naiz, eta zure talendua [lupean gorde dut]; huna non duzun zurea dena.

26. Bainan nausiak [erran zioen]: «Zerbitzari gaixto eta alferra! Bahakien uztatzen dudala erain ez dudan tokian, eta biltzen non ere ez baitut barraiatu.

27. [Beraz, ene dirua irabazira eman behar huen; eta nik, etortzen nintzenean, enea populurekin altxatuko nian.

28. Talendu hori ken diozozue, beraz, eta eman hamar talendu dituenari.

29. Ezen dunari emanen zaio eta gaindi [izanen du]; eta gabeari, duela dirurien hura ere kenduko zaio.

30. Eta deusetako ez den [zerbitzari hau artikazue kanpoko ilunbeetara. Han izanen da] marraska eta hortz karraska».

31. Gizonaren Semea etorriren denean bere maiestatean eta aingeru guziak harekin, bere ospezko tronuan [jarriren da].

32. Jendaki guziak haren aitzinera bilduren dire, eta batzu bertzeenganik bereziren ditu, hala nola artzainak berezten baititu ardiak akerretarik:

33. Ardiak bere eskuinean ezarriren ditu, akerrak berriz ezkerretik.

34. Orduan erregek erranen diote haren eskuinean izanen direnei: «Zatozte, ene Aitaren benedikatuak; goza zazue munduaren hastapenetik apaindua izan zaitzuen erresuma.

35. [Ezen] gose izatu naiz, eta jatera eman darotazue; egarri izatu naiz eta [edatera] eman darotazue; arrotz nindabilan, eta bildu izan nauzue;

36. Biluz nintzen, eta estali nauzue; eri, eta ikustera etorri zarozkidate; preso eta enegana etorri zarete».

37. Orduan prestuek ihardetsiko darote: «Jauna, noiz ikusi zaitugu goserik, eta [jatera] eman izan darotzugu; egarririk, eta [edatera] eman darotzugu?

38. Noiz ikusi zaitugu arrotz, eta [aterbea] eman darotzugu; biluz, eta estali zaitugu?

39. Edo noiz ikusi zaitugu eri, edo preso, eta [zuregana] etorri gara?».

40. Ihardestean, erregek erranen diote: «Egiaz derratzuet, ene anaia xumeen haukietarik bati egin diozuen aldi guziz, neri egin dautazue».

41. Orduan haren ezkerretarik izanen direnei [erranen diote]: «Zoazkitet urrun, madarikatuak, debruaren eta harekilako aingeruentzat biztua izan den betirainoko surat.

42. Ezen gose izatu naiz, eta ez darotazue eman jatera; egarri [izatu naiz], eta ez darotazue edaterat eman;

43. Arrotz nindabilan, eta ez nauzue bildu; biluz izatu naiz, eta ez nauzue estali; eri eta preso izatu naiz, eta ikustera etzarozkidate etorri».

44. Orduan hekiek ere ihardetsiko dute erranez: «Jauna, noiz ikusi zaitugu gose, edo egarri, edo arrotz, edo biluz, edo eri, edo preso, eta etzaitugu lagundu?».

45. Orduan [ihardetsiren diote]: «Egiaz derratzuet nik, noiz ere ez baitiozue xumeen horietarik bati egin, ez darotazue egin niri ere».

46. Eta haukiek betirainoko estiretara goanen dire, eta prestuak betiereko bizitzera.

[HOGOIETA SEIGARREN KAPITULUA]

[Jesus nola atzemanen. Emaztekiak Jesusi gantzugailua ixuri.
Jesus Judasek saldua. Azken afarirako apaintzeak.
Judasen saldukeria aitzinetik erran. Huna ene gorputz-odolak.
Petriren ukoak aitzinetik erran. Getsemaniko otoitza.
Jesus estekaturik eraman. Judu biltzarraren aitzinean.
Petrik Jesus ukatu.]

1. Solas horiek oro akabatu ondoan, Jesusek bere dizipuluei erran zioten:

2. «Badakizue bi egunen buruan Bazkoa [eginen dela], eta Gizonaren Semea saldua izanen dela gurutzefikatua izateko».

3. Orduan [apezen] aitzindariak eta populuko zaharrak bildu ziren apez handi, Kaifas deitzen zenaren salara.

4. Eta batzarre egin zuten Jesusen atzemateko amarruz eta haren hilarazteko.

5. Bainan erraten zuten: «Ez besta egunean, populua builetan sar dadien beldurrez».

6. Bada nola [Jesus] Betanian baitzen, Simon legentsuaren etxean,

7. Emazteki bat hurbildu zitzaioen, albatrazko untzi bat eskuan, balio handitako gantzugailu batez betea, eta buruaren gainera ixuri zioen mahainean zelarik.

8. Dizipuluek ikusi zutenean, gaizki hartu zuten, zerratelarik:

–Zertako galtze hori?

9. Ezen garasti sal eta beharrei eman zitakeen.

10. Jesusek ordean, zer zerasaten [baitzakien], erran zaroeten:

–Zergatik egiten diozue damurik emazteki huni? Ezen hunek niri egin darotana, ongi da.

11. Ezen beharrak baditutzue beti zuekin, bainan ni ez nauzue izanen beti.

12. [Gantzugailu hau] ene gainera ixuri duenean, ene ehorzpenaren ariaz egin du.

13. Egiaz derratzuet, edozein tokitan ebanjelio hau erantzun dadien mundu guzian, hunek egin duena ere hunen oroitapenetan izanen dela aipatua.

14. Orduan hamabietarik bat, Judas Iskariote deitzen zena, apezen [buruzagienganat goan zen].

15. Eta erran zaroeten: «Zer nahi darotazue eman, eta nik eskuetaraturen darotzuet?».

Hekiek hogoieta hamar zilarrezko [agindu ziozkaten].

16. Geroztik [Judas] paradaketa zebilan, hekiei eskuetara emateko Jesus.

17. Bada, airisetako lehenbiziko egunean, dizipuluak etorri zitzaizkon Jesusi, ziotelarik:

–Non nahi duzu apain dezazugun, Bazkoa jateko?

18. Jesusek ihardetsi zioten:

–Hirira zoazte hulakoarengana, eta errozue: «Nausiak dio: Hurbil da ene eguna; zure etxean [eginen dut] Bazkoa ene dizipuluekin».

19. Dizipuluek Jesusek manatu bezala [egin zuten eta Bazkoa apaindu zuten].

20. Arratsa etorri zenean, beraz, mahainean jarri zen hamabi dizipuluekin.

21. Eta jaten ari zirelarik, erran zaroeten:

–Egiaz derratzuet, zuetarik batek salduko nauela.

22. Atsekabe handitan, zein bere aldetik galdeka [abiatu zitzaizkon]:

–Jauna, ni ote naiz hura?

23. Jesusek ihardetsi zuen:

–Jatekoan enekin eskua bustitzen duenak, hainak nau salduko.

24. Gizonaren Semea badihoa, hartaz iskribatua izan denaren arabera; bainan zorigaitz Gizonaren Semea salduko duenari; hainak hobe zukeen egundaino sortu ez balitz.

25. Judasek, saldu zuenak, erran zioen:

–Nausia, ni ote naiz?

[Jesusek] ihardetsi zuen:

–[Zuk] erran duzu.

26. Afariten ari zirelarik, Jesusek ogia [hartu zuen], benedikatu zuen eta hautsi, eta bere dizipuluei [eman zioten], zioelarik: «Har zazue eta jan, hau ene gorputza da».

27. Eta edateko untzia harturik, eskerrak bihurtu zituen, eta eman zaroeten, zioelarik: «Huntarik edan zazue guziek.

28. Hau da ezen ene odola, batasun berrikoa, ainitzentzat ixuriko dena, bekatuen barkamendutan.

29. Erraten darotzuet, bada, aihenaren gozo huntarik ez dudala gaurgeroz edanen egun [hura arteo], zeintan zuekin berria edanen baitut ene Aitaren erresuman».

30. Eskerrak [erran ondoan, Olibadietako mendira ilki ziren].

31. [Orduan] Jesusek erran zioten: «Gau huntan jasanen duzue gaizbide guziek ene ariaz. [Ezen] iskribatua da: *Artzaina [joko dut, eta artaldeko ardiak] barraiatuko dire*.

32. Bainan [hilen artetik] biztuko naizenean, Galileara [aitzinduko zaituztet].

33. Petrik erran zioen:

–Bertze guziak gure ariaz behaztopaturik ere, ni behinere ez naiz behaztopaturen.

34. Jesusek erran zioen:

–Egiaz derratzut nik: gau huntan, oilarrak jo baino lehen, hiruretan nauzu ukaturen.

35. Petrik ihardetsi zion:

–Zurekin hil behar banintz ere, etzintzazket uka.

Eta gauza bera erran zioten bertze dizipulu guziek ere.

36. Orduan Jesus hekiekin etorri zen Getsemani deitzen zen bazter batera, eta bere dizipuluei [erran zioten]: «Zaudezte hemen, haraxe otoitz egitera noan artean».

37. Petri eta Zebedeoren bi semeak [harturik], iluntzen eta atsekabetan sartzen [hasi zen].

38. [Orduan] erran zioten: «Beltz da ene arima hiltzeko heineraino. Igurikazue hemen, eta zaudezte atzarriak enekin».

39. Eta aitzinaxago goanik, begitartez lurrera [erori zen], otoitz egiten zuelarik eta erraten: «Ene Aita, ahal badaite, kalitza hau urrun bedi niganik. [Halere, egin bedi] ez nik nahi bezala, bainan zuk [nahi] bezala».

40. [Dizipuluengana] etorri zen eta lo atzeman zituen. [Petriri] erran zioen: «Zer bada! Oren bat[ez] ezin egon zarete enekin atzarririk?

41. Zaudezte erne eta egizue otoitz, tentazionetara sar etzaitezten; ezik ernea da izpiritua, bainan haragia fluxa.

42. Berriz goan zen bigarren aldian, eta otoitz egin zuen, zioelarik: «Ene Aita, kalitza hau ez badaite urrun, non ez dudan edaten, egin bedi zure nahia».

43. Eta berriz etorri zen, eta lo [atzeman zituen], ezen nagituak ziren hekien begiak.

44. Hekiek utzirik, berriz ere [goan zen] eta hirugarren aldian otoitz egin zuen hitz berak erranez.

45. Orduan bere [dizipuluengana heldu zen eta erran zioten]: «Orai egizue lo eta pausa zaitezte! Huna hurbildua dela orena, eta Gizonaren Semea, gaixtaginen eskuetara ematera dihoa.

46. Jaiki zaitezte, goazen; huna non hurbildua den ni saldu behar nauena!».

47. Oraino mintzo zelarik, Judas [etorri zen], hamabietarik bat, eta harekin gizon moltzo handi bat ezpatekin eta makilekin, apez buruzagiek eta populuko zaharrek igorriak.

48. Jesus saltzen zuenak ezagutkari bat [eman zaroeten], erranez: «Zeini ere musu emanen baitiot, hura izanen da; lot zakizkiote».

49. Berehala hurbildurik Jesusi, erran zioen: «Agur, Nausia!».

Eta musu eman zioen.

50. Jesusek erran zaroen: «Adiskidea, zertara etorri zare?».

Orduan hurbildu ziren, eskuak eman zituzten Jesusen gainean, eta hartu zuten.

51. Jesusekin zirenetarik batek, eskua hedaturik, bere ezpata [ateratu zuen] eta, apez handiaren sehi bat jorik, bearria [moztu zioen].

52. Orduan Jesusek erran zioen: «Bihur zazu ezpata bere tokira, ezen ezpata hartuko duten guziak, ezpatatik goanen dire.

53. Ez duzu uste otoitz dezakedala ene Aita, eta igor letzakedala hamabi aingeru aralde baino gehiago?

54. Nola beteko dira, beraz, iskribuak, haukiek hola gertatu behar direla diotenak?».

55. Ordu berean, Jesusek erran zioten oste hekiei: «Ohoin baten ondoan bezala, ezpatekin eta makilekin ilki zarete ene hartzera! Egun oroz zuen erdian jarria nindagoen, tenploan irakasten nuelarik, eta ez nauzue hartu.

56. Bada, hori oro gertatu izan da, profetek iskribatu dutena [bete zadientzat]».

Orduan dizipulu guziek, Jesus utzirik, ihes egin zuten.

57. Jesus hartua zadukatenek, [Kaifasengana, apezen buruzagiarengana, eraman zuten], zeinaren etxean bildu baitziren iskribauak eta zaharrak.

58. Petri urrundik jarraikitzen zitzaioen Jesusi, apezen buruzagiaren ezkaratzeraino. Eta barnera sarturik, sehiekin jarria zagoen akabantzaren ikusteagatik.

59. [Apezen] buruzagiak eta biltzarra guzia gezurrezko lekukotasun baten bila zebiltzan, Jesusen hilarazteko.

60. [Bainan] etzuten aurkitu, asko lekuko gezurti agertu ziren arren. Azkenean bia [etorri ziren],

61. Eta erran zuten: «Horrek erran izan du: Jainkoaren tenploa urra dezaket, eta hirur egunen buruan [xuti].

62. Apezen buruzagiak, jaikirik, erran zioen:

–Ez duzu deus ihardesten gizon haukiek zure kontra lekukotasun egiten duten gauzei?

63. Bainan Jesus ixilik zagoen. Apez handiak erran zioen:

–Jainko biziaz errekeitzen zaitut erraguzun ean zu zaren Kristo, Jainkoaren semea.

64. Jesusek [ihardetsi zioen]:

–[Zuk] erran duzu. Nik derratzuet, hargatik, egun batez Gizonaren Semea Jainkoa guzizkoaren eskuinean jarria [ikusiren duzuela, zeruko hedoien gianean datorla].

65. Orduan apez handiak bere soinekoak [urratu zituen], zioelarik:

–Buroa artiki du. Zer behar dugu oraino lekukorik? Horra non aditu duzuen buroa.

66. Zer zaizue?

[Hekiek] ihardetsi zuten:

–Hiltzea du merezi!

67. Orduan begitartera tuka [abiatu zitzaizkon, ukabil ukabilka etendu zuten]; bertze batzuek, berriz, begitartean jo zuten zaflakoka.

68. Ziotelarik: «Profetisa guk, Kristo; nor da jo hauena?».

69. Petri kanpoko aldean zagoen, ezkaratzean jarria, eta neskatxa bat hurbildu zitzaioen, zerralarik:

–Jesus galilearrarekin hintzen hi ere.

70. Bainan harek guzien aitzinean [ukatu zuen]:

–Ez dakit zer derrazun.

71. Atetik ilkitzen [zelarik], bertze neskatxa batek ikusi zuen, eta han zirenei erran zioten:

–Jesus nazaretarrarekin zen hori ere.

72. Zin eginez, Petrik berriz ukatu zuen:

–Ez dut ezagutzen gizon hori.

73. Apur baten buruan, han zaudenak hurbildu ziren, eta Petriri [erran zioten]:

–Egiazki hi ere horietarik haiz, ezen hire hizkuntzak salatzen hau.

74. Orduan zinka eta arneguka [hasi zen]:

–[Ez dut ezagutzen gizon hori].

Eta berehala oilarrak jo zuen.

75. Eta Jesusek erran hitzaz [oroitu zen Petri]: «Oilarrak jo dezan baino lehen, hiruretan nauzu ukaturen». Kanporat ilkirik, nigar minak [ixuri zituen].

[HOGOIETA ZAZPIGARREN KAPITULUA]

[Jesus Pilatogana eramana. Judasen heriotzea.
Jesus heriotzera kondenatua. Soldadoek burlatu.
Jesus gurutzefikatua. Gurutzean iraindua.
Jesusen heriotzea. Hobian ezarria.
Hobia zigilatua eta zaindua.]

1. Goiza [etorri zenean, apezen] aitzindariek eta populuko zaharrek Jesusen kontra biltzar egin zuten, haren hilaraztekotzat.

2. [Gero] estekatua eraman zuten, eta Ponzio Pilato gobernadorearen eskuetara eman zuten.

3. Orduan Jesusenaz [egina zela ikusirik], Judasek, haren salatzaileak, urrikiak eramanik, apez aitzindariei eta zaharrei gibelerat ekarri ziozkaten hogoieta hamar zilarrezkoak.

4. Zerralarik:

–Bekatu egin dut hobengabeko odola salduz.

Bainan hekiek ihardetsi zioten:

–Guri zer dihoakigu? Hire ikustekoa duk!

5. [Orduan, dirua] tenploan artikirik, goan zen eta bere burua [urkatu zuen].

6. Apez aitzindariek, ordean, diruak bildurik, erran zuten: «Tenploko kutxan haukien ezartzea ez da zilegi, zeren odolaren saria [diren]».

7. Bada, beren artean egon ondoan, diru hartaz baxeregile baten landa [erosi zuten], arrotzen ehortz-lekutzat.

8. Hargatik landa hura egungo eguna arteo *Hazeldama* [deitzen da], erran nahi baita «Odol landa».

9. Orduan bete zen Jeremias profetaren ahoko hitza, erran zuenean: *Eta hogoieta hamar zilarrezko [hartu dituzte], merkatiatua izan denaren eta Israelgo umeek erosi dutenaren saria.*

10. *Eta baxeragile baten landaren truk [eman dituzte], Jaunak niri manatu bezala.*

11. Jesus gobernadorearen aitzinera [agertu zen]. Harek bilatu zuen, zerralarik:

–Zu zare juduen errege?

Jesusek ihardetsi zaroen:

–[Zuk] diozu.

12. Eta nola asko gauzaz jazartzen baitzuten apez aitzindariek eta zaharrek, etzuen deus ere ihardetsi.

13. Pilatok [erran zioen]:

–Ez duzu aditzen zenbat lekukotasun ekartzen duten zure kontra?

14. Eta etzioen hitz bat ihardetsi, halatan non Pilato handizki harritzen baitzen.

15. Besta-buru egunean, gobernadoreak populuari [presoner bat uztea ohi zuen], nahi zutena.

16. Orduan burdinetan gaixtagin bat [zadukan], aipatua, Barrabas deitzen zena.

17. [Bildua zen jendeari], beraz, Pilatok erran zioten:

–Zein nahi duzue utz diezazuedan, Barrabas ala Jesus, Kristo deitzen dena?

18. Bazakien, alabainan, bekaizgoz eman ziotela eskuetara.

19. Juje alkian jarria zagoelarik, bere emazteak [jakinarazi zioen]: «Ez bedi deus ere izan zure eta gizon prestu horren artean, ezik egun ametsetan ainitz jasana nago horren ariaz».

20. Bizkitartean, apez aitzindariek eta zaharrek populua [bildu zuten] Barrabasen galdatzera eta Jesusen galaraztera.
21. Pilatok, hekieki mintzatuz, erran zuen:
–Bietarik, zein nahi duzue utz dezazuedan?
–Barrabas –[ihardetsi zuten].
22. Pilatok [erran zioten]:
–Zer eginen dut, bada, Jesusez, Kristo deitzen denaz?
Orok [ihardetsi zuten]:
–Bedi gurutzefika!
23. Pilatok [orduan]:
–Bainan zer gaizki egin du?
Hekiek, ordean, oihu gehiago zaramaten erranez:
–Gurutzefikatua izan bedi!
24. Pilatok etzuela deus ere ateratzen [ikusirik], aitzitik tarrapata geroago eta gaitzago zihoala, [ura] harturik, populuaren aitzinean eskuak [garbitu zituen], erraten zuelarik:
–Ni behintzat prestu hunen odoletik garbi naiz! Zuen ikustekoa da!
25. Populu guziak [ihardetsi zuen]:
–Gure gain horren odola, eta gure umeen gain!
26. Orduan Barrabas [utzi zioten, eta Jesus azotarazirik], eskuetara eman zaroeten, gurutzean izan zadientzat ezarria.
27. Gobernadorearen soldadoek [Jesus] pretoriora harturik, haren ingurura bildu zuten andana guzia.
28. [Hekiek Jesus] bilusirik, kapa gorri bat eman zioten soinera.
29. Elorriz bihurturik koro bat, buruan [ezarri zioten], eta kanabera bat eskuineko eskuan. [Haren aitzinean] belaunaz lurra joz, eskarniatzen zuten, zerratelarik: «Agur, juduen errege!».
30. Gainera tu eginez, kanabera [hartzen zioten] eta hartaz jotzen burua.
31. Burlatu zuten ondoan, kapa kendu-eta, bere soinekoak [jauntzi ziozkaten, eta gurutzefikatzera eraman zuten].
32. Ilkitzen zirelarik, zirenear gizon bat [atzeman zuten], Simon deitua, eta Jesusen gurutzearen eramatera [bortxatu zuten].
33. Golgota deitzen den lekura [goan ziren], erran nahi baita «Kalbarioko tokia».
34. Arnoa minarekin nahasirik [edatera eman zioten]. Eta dastatu zuenean, etzuen edan nahi izan.
35. Gurutzefikatu zuten ondoan, berriz, beren artean zortera berezi zituzten harn soinekoak, betea izan zadien profetaren erran hau: *Ene soinekoak berezi dituzte beren artean, eta zortea artiki dute ene soingainekoaz.*
36. Eta [han] jarririk, haren zain zeudezen.
37. Haren buruaren gaineko aldean iskribuz ezarri zuten haren heriotzeko aria: «Hau Jesus [da], juduen errege».
38. [Bi ohoin] harekin gurutzefikatuak izan ziren, bata eskuinetarik eta bertzea ezkerretarik.
39. Eta han iragaiten zirenak, buruak dardaratuz ahapaldika hari zitzaizkon,
40. Ziotelarik: «Ean! Jainkoaren tenploa urratzen eta gero hirur egunen buruan berritzen dukana, atera zak hire burua; Jainkoaren Semea balinbahaiz, jauts hadi gurutzetik».
41. Halaber, apez aitzindariek ere, iskribauekin eta zaharrekin trufatuz, erraten zuten:

42. «Bertzeak ateratu ditu, eta bere burua ezin atera dezake! Israelgo errege bada, orai jauts bedi gurutzetik, eta horren baitan [sinetsiko dugu].
43. Jainkoaren gainean da fida, harek orai atera beza, gogarako balinbadu, [ezen] erran du: Ni naiz Jainkoaren Semea».
44. Harekin gurutzefikatuak ziren ohoinek ere iroi egiten zioten.
45. Seigarren oronetik bederatzigarren[a arteo], ilunbeak hartu zuen lur osoa.
46. Bederatzigarren orenaren inguruan, Jesusek azkarki oihu egin zuen, erranez: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»*, erran nahi baita: *«Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu?»*.
47. Hori aditurik, begira zeuden batzuek erraten zuten: «Eliasi egiten dio dei».
48. Eta berehala, hekietarik batek laster eginik, esponja bat [hartu zuen], minagrez bete eta, kanabera baten muturrean ezarririk, edatera ematen zioten.
49. Bertzeek, berriz, erraten zuten: «Bego, dugun ikus ean etorriko zaioen Elias libratzera».
50. Bainan Jesusek, berriz ere oihu handi bat eginik, [azken hatsa artiki zuen].
51. Ordu berean tenploko bela gainetik beherera bi erdi egin zen, lurra [ikaratu zen], harriak arraildu ziren.
52. Hobiak zabaldu ziren, eta hilak ziren sainduen gorputz ainitz biztu ziren.
53. Beren hobietarik ilkirik, Jesus biztu ondoan, hiri saindura etorri ziren eta askori agertu zitzaizkoten.
54. Ehuntariak eta harekin Jesusen zain zaudezenek lurrikara eta bertze gertatzen ziren guziak [ikusi zituztenean, bortizki izitu ziren eta erran zuten]: «Hau egiazki Jainkoaren Semea zen!».
55. Urrundik, berriz, bazagoen han emazteki moltxo bat, Jesusi Galileatik jarraikia, hura zerbitzatuz.
56. Hekien artean, [Magdalako] Maria, Maria Jakoberen ama eta Josepena, eta Zebedeoren semeen ama.
57. Arratsa egin zenean, arimatiar gizon aberats bat [etorri zen], Josep deitzen zena, zeina hura ere Jesusen dizipulua [baitzen].
58. [Hura] Pilatori goan zitzaioen eta Jesusen gorputza [galdatu zioen]. Orduan Pilatok eman zakioen [manatu zuen].
59. [Josepek] gorputza harturik, mihise xuri batean inguratu zuen.
60. Eta bere hobi berri, harkadian egina zuen batean [ezarri zuen. Gero] harri handi bat anbildu zuen hobiaren ahora, eta goan zen.
61. [Magdalako Maria eta bertze Maria], berriz, han zauden, hobiaren aldean jarriak.
62. Biharamunean larunbat eguna [zen]. Aitzindariak eta farisauak batean goan ziren Pilatorengana.
63. [Eta erran zioten]:
–Jauna, oroitu gare enganatzaile horrek, oraino bizi zelarik, erran izan duela: «Hirur egunen buruan [bizturen naiz]».
64. Mana zazu, beraz, hobia hirurgarren egun[a arteo] izan dadien zaindua, beldurrez-eta horren dizipuluak [etor'tezen] eta ebat dezaten, eta populuari derroten: «[Hilen artetik] biztu da». Eta hala azken enganio [hau] lehenetik areagoa lizate.
65. Pilatok ihardetsi zioten:
–Baditutzue zaintzaileak. Zoazte, zain zazue zuen gogara.
66. Goan ziren, beraz, eta hobia [segurtatu zuten] harria zigilatuz eta zainak ezarriz.

[HOGOIETA ZORTZIGARREN KAPITULUA]

[Jesusen biztearen berria.
Soldaduak erosi.
Dizipuluak mundu osora igorriak.]

1. Larunbat gauean, asteko lehenbiziko egunaren argitzean, [Magdalako] Maria eta bertze Maria hobiaren ikustera [etorri ziren].

2. Eta hara lurrikara gaitz bat egin zela. Ezen Jaunaren aingeru bat jaitsi zen zerutik eta, hurbildurik, harria [itzuli zuen], eta haren gainean jarria zagoen.

3. Haren begitartea ximista iduri [zen] eta jaunzkura elurraren pare.

4. Haren beldurrak zaintzaileak [laztu zituen eta hilak bezala egin ziren].

5. Bainan aingeruak, emaztekiei mintzatuz, erran zaroeten:

–Zuek ez izan beldurrik. Badakit ezen Jesus gurutzefikatua izan denaren bila zabiltzatela.

6. Ez da hemen, [ezen] piztu da, erran zuen bezala. Zatozte, ikusazue tokia, zeintan Jauna [ezarri baitzuten].

7. Berehala goanez, haren dizipuluei errozuete: «[Hilen artetik biztu da, eta Galileara aitzinduko zaitzue]; han ikusiren duzue». Aitzinetik dematzuet berria.

8. Berehala ilki ziren hobitik ikara eta bozkario handirekin, laster eginez dizipuluei berriaren heltzera.

9. Eta hara Jesus aitzinera etorri zitzaiotela, [erranez]: «Agur zuei!».

Hekiek hurbildu zitzaizkon, [oinak] besarkatu ziozkaten, eta adoratu zuten.

10. Orduan Jesusek erran zioten: «Ez izi! Zoazte, errozuete ene anaiei Galileara dihoazela; han ikusiren naute».

11. Emaztekiak goan ondoan, zainetarik zenbait hirira etorri ziren, eta gertatu ziren guzien berria eman zaroeten [apezen] aitzindariei.

12. Haukiek zaharrekin bildurik, eta biltzar eginik, dirutze handi bat eman zaroten soldadoei,

13. [Manatuz]: «Erran haren dizipuluak etorri direla gabaz, eta ebatsi dutela, zuek lo zinauztenean.

14. Gobernadoreak [zerbait nabari baleza], eskuraturen dugu eta gerizaturen zaituztegu».

15. Hekiek dirua harturik, irakatsiak ziren bezala egin zuten. Eta orduan barraiatu zen solas horrek, juduen artean egungo eguna arteo badirau.

16. Hameka dizipuluak Galileara goan ziren, Jesusek erran izan zioten mendira.

17. [Jauna] ikusi zutenean, adoratu zuten; bainan baziren dudatu zirenak.

18. Hurbildurik, Jesus mintzatu zitzaioten, erranez: «Edozein ahal zeru-lurretan niri zait emana.

19. Zoazte, beraz, irakats zatzue jendaki guziak, Aitaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean [bataiatzen ditutzuelarik].

20. Nik zuei manatu gauza guzien begiratzen irakatsiz. Eta huna ni zuekin izanen naizela egun oroz, mendeen azken[a arteo]».

ZARAITZUERA

MATEOREN EBANJELIOA

ZARAITZUERAZ

JESUKRISTO GURE JAUNAREN

EBANJELIO SANDUA

SAN MATEOREN ARAUZ

PEDRO JOSE SANPER

1869

LEHENBIZIKO KAPITULOA

[Jesus Maria birjenaganik sortua.
Jenealojia Jesukristorna. Jesusen sortzea.]

1. Jenealojia Jesukristorna. Dabiden seme, Abrahamen seme.

2. Abrahamek Isaak [izan] zizun. Isaakek Jakob. Jakobek Judas eta bere aneak [izan ztizun].

3. Judasek Tamarenganik Fares eta Zara [izan] zizun. Faresek Esron. Esronek Aram.

4. Aramek Aminadab [izan] zizun. Aminadabek Naason. Naasonek Salmon.

5. Salmonek Raabenganik Booz [izan] zizun. Boozek Ruthenganik Obed. Obedek Jese. Jesek Dabid erregea [izan] zizun.

6. Dabid erregeak Salomon [izan] zizun, Uriasen emazte izan zenarenganik.

7. Salomonek Roboam [izan] zizun. Roboamek Abias. Abiasek Asa.

8. Asak Josafat [izan] zizun. Josafatek Joram. Joramek Ozias.

9. Oziasek Joatam [izan] zizun. Joatamek Akaz. Akazek Ezekias.

10. Ezekiasek Manases [izan] zizun. Manasesek Amon. Amonek Josias.

11. Josiasek Jekonias eta bere aneak [izan ztizun], hurran tenbra judioen Babiloniara aldatzearneala.

12. Eta Babiloniara aldatrik izan ondorean, Jekoniasek Salatiel [izan] zizun. Salatielek Zorobabel.

13. Zorobabelek Abiud [izan] zizun. Abiudek Eliazim. Eliazimek Azor.

14. Azorrek Sadok [izan] zizun. Sadokek Akim. Akimek Eliud.

15. Eliudek Eleazar [izan] zizun. Eleazarrek Matan. Matanek Jakob.

16. Eta Jakobek Jose [izan] zizun, senar Mariarna, zoinenganik Jesus sortu zinuen, berze [izen] batez Kristo.

17. Kala ditzu hamalaur [belaunaldi] guziak Abrahamenganik Dabid bitartio; eta Dabidenak judioen Babiloniara aldatzeala bitartio hamalaur [belaunaldi; eta, baitare, hamalaur belaunaldiak] Babiloniarako aldazioaz geroz Kristo bitartio.

18. Baia Kristoren sortzea manera kontan izan zinuen: bere ama Maria Joserekin [ezkondrik] zegolarik, bere (errai)etan Espiritu Sanduaren obraz konzebitu zuela erden zinuen, lehen xunto egon bagetarik.

19. Gehago Jose bere [senarrak, zena bezala xuxen] izanik eta ez nahiez fama gaxtoa eman, ixilki haren euztea deliberatu zizun.

20. Hura pentsamendu kontan zegolarik, huna nonziela nola Jaunaren aingru bat [agertu] zitzaion lotan, erranez: «Jose, seme Dabidena, etzazula [usmarik izan Maria zure emaztea zure etsean hartzean], zeren haren sabelean [sorrarazi] dena obra Espiritu Sanduarna duzu.

21. Kala, bada, sortren zu seme bat, zoini [izen]tako Jesus eserien baitakozu; bada, hura zu bere herria salbatu behar duena, edo bere bekatuetarik libratu behar duena».

22. Zoin guzia egin zinuen Jaunak profetaren medioz altzinetik anunziatu zuenaren kunplimentuan, zoinek erraten baitu:

23. *Xakin zazie birjen batek seme bat konzebitren duela eta sortren duela, zoini [izentako] Emmanuel eserien baitakoie*, zoinek itzulirik «Jangoikoa gurekin» erran nahi baitu.

24. Korrekin Josek, bellitzean, Jaunaren aingruak manatu zekona egin zizun, eta bere [emaztea errezibitu] zizun.

25. Eta, izaundu bagetakorik edo onkitu bage, bere lehenbiziko semea sortu zizun, eta [izena] Jesus eseri ziakozun.

BIGARREN KAPITULOA

[Ekialdeko xakintsu batzuk Jesus gurtu.
Ejiptora ihesi. Belengo haurren hiltzea.
Ejiptorik itzuli eta Nazareten bizi.]

1. Jesus Judako Belenen sortrik izan ondorean, Herodes errege zelarik, huna nonziela nola batzu xin zren [ekialdetik] Jerusalemera,

2. Galdinez:

–Non dago judioen erregea, zoin sor bukatu baita? Zeren [ekialdean] haren izarra ikusi zugu, eta haren [gurtzeko] (xede)arekin xin gitzu.

3. Errege Herodesek kau aitzen zuelarik, [ikaretu] zinuen eta harekin Jerusalem guzia.

4. [Orduan apezburu] guziak eta herriko eskribak deituz, Kristok edo Mesiasek non sortu behar zuen galdin ziabezun.

5. Haiek erspondatu zizien:

–Judeako Belenen, bada, kala diotzu eskribitrik [profetaren baitan]:

6. *Eta zu, Belen, Judeako lurra, ez zra egiazki txikinena Judeako ziudade [nausien] artean, zeren zureganik baita nondik behar baitu elki (burzegi) Israeleko ene herria gobernatren duena.*

7. Orduan Herodesek, magoak ixilkian edo bakarki deituz, haienganik [azolarekin xakin] zizun tenbrara, zointan izarra [agertu] baitzizaien.

8. Eta Beleneko bidean esertzen ztuelarik, erran ziabezun: «Fan ztie eta xearoki informa ztie muttilko korren gañan denaz, eta erden ondorean eman daztazie abisu ni ere fan nadien eta [gur] zatan».

9. Berehala, kau erregeri aitu zakoienekoz, partitu zintzan. Eta huna nonziela nola izar [ekialdean] ikusi ziena haien altzinean faten zen, haliketa leku karen gañan ellegatzen zelarik, zointan muttilkoa baitzagon, baratu zen bitartio.

10. Izarraren ikustean, zaitzken guzia boztu zintzan.

11. Eta etsean sartzen zrelarik, muttilkoa erden zizien bere ama Mariarekin, eta lurrean [makur]tuz [gur]tu zizien eta, beren errekaituak edekiz, goraintzi [eskindu] ziazkozien urrearna, intsentsuarna eta mirrarna.

12. Eta ametsetan zeruko abisu bat [hartzen] zielarik etziten itzul Herodesengana, beren lekuala berze bidetarik [itzuli] zintzan.

13. Hurak partitu ondorean, Joseri ametsetan Jaunaren aingru bat [agertu] zitziozun erranez: «Xaiki zte, har zazu muttilkoa, eta bere ama, eta ihesi egin zazu Ejiptora, eta egon zte kan haliketa nik abisa zitzadan bitartio, zeren Herodesek muttilkoa bilatu behar baitu hiltzeko».

14. Jose gauaz xaikitzen zelarik muttilkoa hartu zizun eta bere ama, eta Ejiptora [erretiratu] zinuen.

15. Non Herodesen hiltzeala bitartio egon baitzen; kalako maneran, ezik Jaunak profetaren agotik erran zuena [bete] baitzen: *Nik deitu nizun Ejiptotik nore semea.*

16. Arte kontan Herodes, [bere burua magoek] burlatrik ikusten zuelarik, lazki ere [akartu] zinuen, eta Belenen eta bere ingrugunean zren muttilko guziak, bi urtetarik apal, [hiltzeko manatu zizun, izarraren agertzearen tenbraren arauz, zoin magoenganik xakin] baitzuen.

17. Orduan [beterik] ikusi zinuen altzinetik profeta Jeremiasek [erran] zuena:

18. *Orañik Raman bozak aitu zintzan, near anitzak eta [oihuak]: Rakel zu, zoinek bere umengatik near egiten baitu, ez nahiez konsolatu, zeren [yadanik] ezpaitra bizi.*

19. Berehala, Herodesen hiltzearen ondorean, Ejipton Jaunaren aingru bat lotan [agertu] zitziozun Joseri:

20. Erraten zekolarik: «Xaiki zte eta har zkizu muttilkoa eta bere ama, eta fan zte Israeleko lurreala, zeren [yadanik] hil baitra muttilkoaren biziaren kontra zabiltzanak».

21. Jose xaikitzen zelarik, muttilkoa eta bere ama hartu ztizun, eta Israeleko lurreala xin zinuen.

22. Gehago, Arkelao Judean errege zela –bere aita Herodesen lekuan– aitzen zuelarik, kara fatra beldurtu zinuen; eta ametsen artean abisatrik, Galileako lurreala [erretiratu] zinuen.

23. Eta bizitzra xin zinuen ziudade bateala deitua Nazaret, gisa kontan [betetzen] zelarik Profeten errana: *Nazareno deitrik izanen zu.*

HIRURGARREN KAPITULOA

[Juan Bateazaleak Jesusen xitea oihukatu].
Jesus bateatrik.

1. Tenbrada kartan Juan [Bateazalea] Judeako desiertoan predikatuz [ziablazun], eta erranez:
2. «Egizazie penitenzia, zeren hurran baitago zeruko erreinua».
3. Kau zu kura, zointaz profeta Isaiasez erran baitzen:
Desiertoan [oihu egiten] duenaren bozara zu, erranez: [Presta] zazie Jaunaren bidea, egin zkizie xuxenak bere xendak.
4. Juanek beztidra bat eraugitzen zizun kamello bilozkoa, eta larruzko korrea bat [gerruntzean], eta bere xana txaiskurrak zintzan eta ezti mendikoa.
5. Haren erdetra faten zintzan, bada, Jerusalemeko eta Judea guziko jendeak, eta Jordaneko erribra guzikoak.
6. Eta Jordanen harenganik (batixua) errezibitzen zizien, beren bekatuak konfesatzen ztielarik.
7. Baia nola bere (batixu)ala anitz fariseoetarik eta saduzeoetarik xiten zrela ikusten baitzuen, erran ziabezun:
–O arraza (sugetzar)rena! Nork erakutsi dauzie axalkeriez bakarrik drokeziela egin ihesi [akar mehatxatzen] dauzienetik?
8. Egin zkitzie, bada, frutu digno penitenziarnak.
9. Eta eutz ztie erratetik barneki «Abraham aitatako ditzugu», zeren nik erraten dauziet Jaungoikoa (ahaldun) dela, harri kuetarik beretarik Abrahami semeak sor diten egiteko.
10. Mirin zazie aizkura [yadanik] arboleen erroari [eseririk] dago[l]a; eta arbole guzia, zoinek ezpaitu frutu ona [sortzen], ebakrik eta suala egotzrik izanen de[l]a.
11. Nik egiazki urez bateatzen ztiet penitenziala mogi ztien, baia ene gibletik xin behar duena ni beño (ahaldun)ago zu, eta ez nuzu ni digno orañik hari sandaliak ere ermateko; hura zu nork behar baiztie bateatu Espiritu Sandua[ren baitan] eta suan.
12. Harek diaukazu bere eskuetan sardea eta ongi xautreinzu bere larraña; eta bere garia (pikortegi)an sartreinzu, baia agotzak errein tzu su hil eztaiteken batean.
13. Tenbra kontan Jesus Galilearik Jordanera xin zinuen Juanen bila, hare[k] bateatrik izateko.
14. Baia [Juanek ez zinuen nahi], erranez:
–Nik behar dizut zu[k] bateatrik izan, eta zu xiten zra enegana?
15. Zointra Jesusek erspondatu zizun erranez:
–Euz nazazu orai egitra, zeren kala baita nola konbeni den guk justizia guzia [bete] zagun. Juanek orduan [etsi] zizun harekin.
16. Jesus bateatrik, bada, uretik elki zen berean zeruak edeki zitziaizkozun, eta Jangoikoaren Espiritua urzoaren figuran xaunsten ikusi zizun eta bere gañan baratzen.
17. Eta zeruko [mintzo] bat aitu zinuen, erraten zuena: «Kau zu ene Seme maitea, zoinen baitan eseririk baitaukat nore [atsegin] guzia».

LAURGARREN KAPITULOA

[Barur eta tentazio Jesukristorna. Jesus Galileara.
Jesusek bere predikazioa hasteinzu.
Jesusek lehenbiziko ikaszaleak deitzeintzu.
Eriak sendatzeintzu.]

1. Ordu kartan Jesus Espiritu Sandu[ak] desiertoala ermanik izan zizun, kan deabru[ak] tentatrik izan zadien.
2. Berrogei egunez berrogei gauekin barurtu ondorean, gose izan zinuen.
3. Orduan, tentazalea hurrantzen zitzaiolarik, erran ziakozun:
–Jangoikoaren Semea balimazra, erran zazu harri koiek [itzul] tela ogi.
4. Baia Jesusek erspondatu ziakozun:
–Eskribitrik diozu: *Ez ogiz bakarrik bizi zu gizona, baizik ere hitz guzi Jangoikoaren agotik elkitzen denetik.*
5. Konen ondorean, deabruak Jerusalemeko ziudade sanduala erman zizun, eta tenploaren gorenean eseri zizun.
6. Eta erran ziakozun:
–Jangoikoaren Semea balimazra, egotz zte kemendik apal; bada, eskribitrik diozu: *Bere aingruer [manatu ziabela], zoinek bere eskuetan hartren baiztie, zure oña eztadien estropeza zomait harriren kontra.*
7. Jesusek [erspondatu] ziakozun:
–Baitare diozu eskribitrik: *Etzu tentatren Jauna zure Jangoikoa.*
8. Orañik deabruak igan zizun oihan anitz gora bateala, eta munduko erreinu guziak eta haien gloriara erakutsi ziazkotzun.
9. Eta erran ziakozun:
–Gauza kuek guziok emanen dauzkitzut lurrean ene altzinean [makurtzen zrelarik, gurtzen] nuzularik.
10. Jesusek orduan erspondatu ziakozun:
–[Gen] zte kortik Satanas! Zeren eskribitrik baitago: *[Gur]treunzu Jauna zure Jangoikoa, eta hari bakarrik zerbitzatreunzu.*
11. Korrekin eutzi zizun deabruak, eta huna nunziela non aingruak hurrandu zitzaizkon eta zerbitzatzen zakoien.
12. Gero, Jesusek Juan kartzelean sartrik izan zela aitzen zuelarik, Galileara (erretiratu) zinuen.
13. Eta Nazaret euzten zuelarik, Kafarnaumen bizitzra fan zinuen, ziudade itxaso ondoan dagona Zabulon eta Neftaliko mugetan.
14. [Kala] profeta Isaiasek erran zuena [bete zinuen]:

15. *Zabuloneko [herria] eta Neftaliko [herria], zointarik Tiberiadeseko itxasoala faten baita, Jordanen berze aldeala, jentilen Galileara!*

16. *Herri konek, zoin iluntarzunetan baitzegon, argi handi bat ikusi zu, argi hiltzearen itzalen [aldean] sartrik zaudener [argitzra] xin dena.*

17. Ordutik hunat Jesus predikatzen hasi zinuen eta erraten: «Egin zazie penitenzia, zeren hurran baitago zeruko erreinua».

18. Jesus egun batez Galileako itxasoaren erribraz bidea gaindi faten zelarik, bi anae ikusi ztizun, Simon, gero Pedro deitua, eta Andres bere anea itxasoan sarea egozten, bada arrantzari zintzan.

19. Eta erran ziabezun: «Segi ztie niri, eta nik egineinzut arrantzari gizonenak izatra xin ztien».

20. Istantean biek, sareak eutzrik, segitu zizien.

21. Altzinago igartzen zelarik, berze bi anae ikusi ztizun, Santiago Zebedeoren seme eta Juan bere anea, barkan beren aita Zebedeorekin sareak erremendatzen, eta deitu ztizun.

22. Haiek baitare berehala, sareak eta beren aita eutzrik, segitu zizien.

23. Jesus Galilea guzia errudiatuz faten zinuen, bere sinagogetan Ebanjelioa edo berri ona zeruko erreinukoa erakutsiz eta predikatuz, eta min guziak eta eritarzun [guziak sendatuz] errikoetan.

24. [Korrekin] haren famak Siria guzitik laster egin zizun, eta eri zauden guziak presentatzen ziazkozien, eta gaitz anitzez eta [min biziez akaitriak, deabruak barnean zauzkaienak, eroak], perlisiatuak... eta sendatzen ztizun.

25. Eta [jendeketa] handi bat segituz faten zitziozun Galileako jendetarik, eta Dekapolitik, eta Jerusalemerik, eta Judeatik eta Jordaneko berze aldetik.

BORZGARREN KAPITULOA

[Sargoa. Zortzi (egoaltarzunak).
Lurreko gatza eta argia. Jesus eta legea.
Adulterioa eta berexgua. (Zin)a.
Mendekua. Etsaien amoria.]

1. Jesusek jendeketa kau guzia ikusten zuelarik, oihan bateala igan zinuen, non eseri zelarik bere [ikaszaleak] hurrandu zitziaizkozun.

2. Eta bere ago [jainkozkoa] edekitzen zuelarik, dotrinatzen ztizun erranez:

3. –(Egoal)ekoak espiritu pobrekoak, zeren haiena baita zeruko erreinua.

4. (Egoal)ekoak [uzterrak] eta umilak, zeren haiek edokien baitie berendako lurra.

5. (Egoal)ekoak near egiten dienak, zeren hurak konsolatrik izanen baitra.

6. (Egoal)ekoak gose eta egarri dienak justiziarna, edo [xuxen] eta sandu izateko, zeren hurak [ase]rik izanen baitra.

7. (Egoal)ekoak [berax]ak, zeren haiek erdietsien baitie [beraxtarzuna].

8. (Egoal)ekoak beren bihotza garbi daukaienak, zeren haiek ikusien baitie Jangoikoa.

9. (Egoal)ekoak (bakegile)ak, zeren hurak izanen baitra Jangoikoaren seme deitrik.

10. (Egoal)ekoak justiziarengatik persegimentu [xasaten] dienak, zeren haiena baita zeruko erreinua.

11. (Egoaltsu) izanen zradie gizonek ene kausaz [maradikatzen] ztienean, eta persegitzen ztienean, eta gaizki guzia gezurrekin erraten dienean zuen kontra.

12. [Boz] ztie orduan, eta [goza zazie], zeren errekonpensa zeruan [idurikitzen] dauziena handi baita. Mod[u] berean persegitu ztizien profeta zuen altzinetik izan drenak.

13. Zuek zradie lurreko gatza. Eta gatza gusto gaxtokoa egiten bada, zertaz itzulien zaio gustoa? Deustako etzu zerbitzatzen [yadanik], baizik egotzrik izateko eta jendek zapakatrik.

14. Zuek zradie munduko argia. Eztaikezu [estali] ziudade bat oihan baten gañan [eginik] dagona.

15. Etzu argia [almute] baten pean esertzeko etxekitzen ere, kandelero baten gañan baizik, etseko guzier argi zangatik.

16. [Dirdil egin] zala kala zuen argiak gizonen altzinean, zuen [lan] onak ikus drozkeien gisan, eta zuen Aita, zoin zeruan baitago, (gorazka) zaien.

17. Etzaziela pentsa ni legearen dotrinara desegitra xin nizala, eztare profeta: ez nuzu xin haren desegitra, baizik hari bere kunplimentua ematra.

18. Bada, egia guziarekin erraten dauziet lehen faltatren drela zerua eta lurra, ezik xauki [betetzeko] eutzien baita legeak [daukan] guzia, haliketa haren jota bat bakarrik edo puntua bitartio.

19. Kala, nork ere mandamentu kuetarik bat [hauts zan],txikinago iduri izanik ere, eta gizoner orbat egitea erakuts zan, txikinenarendako edokrik izanen zu, kau zu deustako, zeruko erreinuan; baia beiratzen tuena eta erakusten tuena, kori handitako edokrik izanen zu zeruko erreinuan.

20. Zeren nik erraten dauziet, zuen justiziara ezpada eskriben eta fariseoena beño [xuxen] eta kunplituagokoa, etzradiela sartren zeruko erreinuan.

21. Aitu zie zuen altzinakoer erran zitzaiela: *Etzu hilen*; eta nork hil ezan hiltzeala kondenatrik izanen dela juizioan.

22. Nik gehago erraten dauziet: nornahidenek bere anearekin borondate gaxto har zan, juezak kondena zan merexitren duela. Eta juizio bagekoa dei lokenak, konzilioak kondena zan merexitren duela. Gehago, nork deus balio eztuena dei lezan, (gatibu) izanen dela ifernuko suarna.

23. [Korrengatik, tenbra zure eskintzea] aldarean presentatzekoarnean, kan oritzen bazra zure aneak baduela zomait keja zure kontra.

24. Eutzazu kan berean zure [eskintzea] aldarearen altzinean, eta fan zte lehenbizikorik zure anearekin bakeen egitra, eta gero zure [eskintzea] presentatzra itzulien zra.

25. Konpon zte berehala zure [etsaiarekin], harekin orañik bidean zauden tenbran; eztaila izan juezaren eskuetan eser zitzan eta juezak [eman] zitzan alguazilarnetan eta kartzelean sar zitzaien.

26. Egiazki [segru erraten] dauzut kandik etzrela elkien azken marabedia paga zazun bitartio.

27. Aitu zie zuen altzinakoer erran zitzaiela: *Etzu adulteriorik [eginen]*.

28. Nik gehago erraten dauziet: nornahidenek emazte bati deseiu gaxtoarekin haren aldeala mira egin zan, [yadanik bere bihotzean adulterio egin] zuela.

29. Baitare zure eskuieko begia zuretako [bide] bat bada bekatu egiteko, elki zazu eta egotzazu zuhaurenganik kanpo; bada, zuretako hobe zu zure [zatietarik] bat galtzea, ezik ez zure korputz guzia ifernuala egotzrik izan dadien.

30. Zure eskuieko eskua eskandaloz zerbitzatzen ztuena edo bekatu egitra [bulkatzen] ztuena bada, ebaki zazu eta egotz zazu urrun zuhaurenganik; bada, hobeago zaizu predika dadien zure [zatietarik] bat, ezik ez zure korputz guzia ifernuala fan dadien.

31. Erranik diozu: *Nornahidenek bere emaztea [egotz lezan], eman zala eskritura berexguarna.*

32. Baia nik erraten dauziet, nornahidenek bere emaztea [egotz lezan], adulterio kausaz ez bada, adultera [izateko perilean esertzen duela, eta egotziarekin ezkon] laitekena, adultero dela gisa berean.

33. Baitare aitu zie zuen [altzinekoer] erran zitzaiela: *Etzu faltsuan [zin eginen, baizik ongi beteren tzu Jaunari zin] eginak*.

34. Nik gehago erraten dauziet: iolako mod[u]an etziela [zinik eginen, arrazio xuxenik] bage, *eztare zeruarengatik, bada Jangoikoaren tronoa* zu.

35. *Eztare lurrarengatik, bada, bere oñen sostenimentua* zu; eztare Jerusalemengatik, zeren *Errege handiaren ziudadea edo kortea* baita.

36. Eztare orañik etzie [zinik] eginen zehauren buruarengatik, bada eztiozu zuen eskuan bilobiru bakar bat xuri edo beltx egitea.

37. Izan daila, bada, zuen mintzatzeko mod[u]a: «bai», bai [delarik], edo «ez», ez [delarik]; bada, kontarik igartzen dena, printzipio Gaxtotik [xiten] zu.

38. Aitu zie erran zela: *Begia begiarendako eta hortza hortzarendako*.

39. Baia nik erraten dauziet, etzaziela egin [hobenaren kontra]; baizik ere norbaitek eritzen baztu eskuieko beitartemaxelan, itzul dazula baitare berzea.

40. Zuri tunikara gentzeko [hizka egin] nahi dauzunari, euz dazozu baitare kapara.

41. Eta mila urratsetan kargatrik fatra [behartu] zinozkenari, fan zte harekin berze bi milatan.

42. Galditen dauzunari eman [dazozu], eta etzazula beitartea makur zureganik zomait altzinamentu [nahi] duenari.

43. Aitu zie erranik izan zela: *Zure [lagun hurkoa] onetsien zu* eta zure etsaiari [higuin] edokien zu.

44. Nik gehago erraten dauziet: onets kitzie zehauren etsaiak, ongi egin zazie [malmetitzen] ztiener, eta otoi egin zazie persegitzen eta faltsuki [salatzen] ztienengatik.

45. Izan ztien seme zehauren Aita zerukoa imitatzen zienak, zoinek bere iguzkia onen eta gaxtoen gañan sor dadien egiten baitu, eta egin zan euri [xuxenen] eta bekatarien gañan.

46. Ezpaitzie onesten baizik zuek onesten ztienak, zer (sari) izan behar'zie? Eztia kala egiten orañik publikanoek?

47. Eta ezpauzie berzerik salutatzen zuen aneak baizik, zer balio du korrek? Benturazki, eztia kau egiten, bada, baitare paganoek?

48. Izan ztie, bada, zuek perfet, kala nola zuen Aita perfet [baita], drokezienean imitatzen zielarik.

SEIGARREN KAPITULOA

[Limosna. 'Gure Aita' orazioaz. Baruraz.
Ontarzunak zerualako. Barneko argia.
Jangoikoa ala dirua. Izan behar duguna.]

1. Guarda ztie ongi zehauren [lan] onak gizonen [altzinean] egitetik, munduak ikus zitzaiengatik; berze gisatan etzie errezibitren beren errekonpensa zuen Aitarna, zoin zeruan baitago.

2. Kala, limosna ematen zunean, etzazula tronpeta sonuan [zabaldu] nahi izan, [itxurazalek] sinagogetan eta karriketan edo plazetan egiten diena bezala, [gizonek] honratrik izateko. Egian erraten dauziet, errezibitu diela beren errekonpensara.

3. Kala zuk, limosna ematen zularik, egin zazu zure ezkerreko eskuak etzan xakin zure eskuiak egiten duena.

4. Zure limosnara [ixilkian] geldi dadien; eta zure Aitak, zoinek gauza [altxatuena] ikusten baitu, [jende altzinean] ongi pagatren dauzu.

5. Kalaxe, [otoi] egiten zienean, etzie [itxurazaleak] bezala izan behar, zoin [kala nahirik] txutrik esertzen baitra sinagogetan eta karriken eskinetan [otoi] egiten gizonek ikuskiengatik. Egian erraten dauziet [yadanik] errezibitu diela beren errekonpensara.

6. Zuk, berze gisatra, noiz ere nahi den otoi egin behar zinuken, sar zte zuhauren [egongoan], eta ataria hertsrik otoi egin zazu ixilkian zuhauren Aitari, eta zure Aitak, zoinek altxatuena ikusten baitu, [jende altzinean] (sari)tren ztu.

7. Orazioan etzaziela iduriaraz anitz erraten ziela, jentilek egiten diena bezala, zoinek hitzen pasionez aitrik izan behar diela pentsatzen baitie.

8. Etzaziela, bada, hurak imita nahi izan; zuen Aitak ongi badiakizu, bada, zuek behar'ziena, galdin dakiona beño lehen.

9. Ikus zazie, bada, nola egin behar'zien orazio: «Aita gurea zeruan zaudena, santifika bedi zure [izena].

10. Xin bedi zure erreinua, egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean ere.

11. Zuk eguzu egunoroko ogia egun.

12. Parka dazaizkutzu gure zorrak, kala nola guk parkatzen baitauztegu [guri zor daukuener].

13. Ez gitzazula eutz tentazi[o]an erortzra, baizik libra gitzazu gaitzetik. Amen».

14. Zeren gizoner parkatzen badautezie ofensa zuen kontra [egiten] tienak, baitare zuen Aita zerukoak parkatren dauzkitzie zuer zehauren bekatuak.

15. Baia zuek ezbaitzie parkatzen gizoner, eztare zuer eztauzkitzie parkatren bekatuak zehauren Aitak.

16. Barurtzen zielarik etziteiela eser beitarte tristearekin, [itxurazaleak] bezala, zoinek beren beitarteak iluntzen baitie gizoner barurtzen diela erakusteko. Egian erraten dauziet beren mereximentua errezibitu ziela.

17. Zuk, berze gisatan, barurtzen zularik, eman zkizu urrin onak zuhauren buruari eta garbi zazu ongi zure beitartea.

18. Etzaien gizonek izaun barurtzen zula, baizik zure Aitak bakarrik, zoin presente baitago gauza guzietan, orañik [altxatuen] drenetan; eta zure Aitak, zoinek [ixilkian] igartzen dena ikusten baitu, karengatik errekonpensara emanen dauzi.

19. Etzaziela montiola bil nahi izan ontarzunak lurrean zehaurendako, non herdollak eta [pipiek] xaten baititie, eta non [ebaszaleek erdeten] eta ebasten baititie.

20. Hobekiago xunta zkitzue zehaurendako ontarzunak zeruan, non ezpaita herdollarik eta [pipi] xanen tienik, eta eztare [ebaszale erdenen] eta ebatsien tienik.

21. Zeren non zure ontarzuna baitago, kan diuzu baitare zure bihotza.

22. [Argia] zure korputzarna zure begiak ditzu; zure begia [apal] balitz edo xahu balego, zure korputz guzia ongi argitrik egonen zu.

23. Baia zure begia gaxto balimauzu, zure korputz guzia ilundrik egonen zu. Bada zure baitan argi izan behar lokena iluntarzuna balimada, gautarzun berak zoin handi izanen dren!

24. Iork eztiokezu zerbitza bi nausiri: zeren batari oposizio eta berzeari amorio edokien diakozu, edo lehenbizikoari [xuntatzen bazaio, bigarnari malmetiziorekin] mira eginen diakozu. Eztrokezie zerbitza Jangoikoari [eta] ontarzuner.

25. Koni mira eginik erraten dauziet etzitiela [beldurtu zer xan erdeteko azolarekin zehauren bizia mantentzeko], edo nondik elkien tzien beztidrak zuen korputza estaltzeko. Zer, eztua gehago balio biziak edo arimak, ezik [xanak], eta korputzak ezik beztidrak?

26. Mirin [dazozie zeruko txorier] nola eztien eregiten, ez eitatzen, eztien algoriorik, eta zuen Aita zerukoak [xatra ematen daben]. Bada, etzia balio zuek anitz gehago konparaziorik bage ezik haiek?

27. Nork zuetarik [pentsamenduaren indarrez] (atxeki) droke besatxurro bat bere [luzegoari]?

28. Eta beztidraren gañan, zertako behar'zie (arrankuratu)? [Txozie] mendiko lirioak nola handitzen dren eta lorez [yazten]. Haiek etzie lantzen, eztare iruten.

29. Karekin guziarekin nik erraten dauziet eztare Salomon bere gloria guziaren erdian [yantzi] zela kainberze [edertarzunarekin] nola lirio kuetarik bat.

30. Bada, Jangoikoak kala [yazten badu egun lorez yanzrik eta bihar labeala egoztren] den mendiko belar bat, zomatenaz gehago zuek, fede gutiko gizonak?

31. Kala, bada, etzitiela fan [triste] erranez: «Non erdenen dugu zer xan eta edan? Non erdenen dugu zertaz [yanz] giten?».

32. Paganoek egiten diena bezala, zoin ebiltzen baitra [txirrintarekin] gauza kuen guzien atzean; bada, ongi badiakizu zuen Aitak [beharrordu] kuetaz ziena.

33. Azkenean, lehenik bila zazie Jangoikoaren erreinua eta bere justiziara, berze gauza guziak (atxeki)rik emanen zaizkitzie.

34. Etzitiela ebil, bada, biharko egunaz [tristetrik]; bada, biharko egunak aski [azola] eraugien'zu berekin. Aski ziozu [yadanik egun bakotxari bere lana].

ZAZPIGARREN KAPITULOA

[Ez gaitzetsi ior. Konfiantza otoitzetan.
Atari mearra. Beren frutuetarik izaundren tzie.
Egiazko ikaszaleak. Etse harri gañan,
edo harea gañan eginik dagonaz.]

1. Etzaziela nahi izan juzga, nahi bauzie ez izan juzgatrik.

2. Zeren juzga zinezaien juizio beraz juzgatrik izan behaurzie; eta negur zinezaien [negurri] beraz izanen zradie zuek negurtrik.

3. Zu zer beitarterekin esertzen zra bilatxari miritra zure anearen begian, eta etzu [ikusten] zur handi zuhaurnaren barnean dagona?

4. Edo nola erraten dakozu zuhauren aneari: «Eutzazu nik elki zadan agotz txikillin kori zure begitik», zuhaurek zur handi bat zuhaurnean daukazun tenbran?

5. [Itxurazalea]! Elki zazu lehenik zur handia zuhauren begitik, eta orduan ikusien zu nola behar'zun elki bilatxara zure anearen begitik.

6. Ezkitziela eman txakurrer gauza sanduak, ezkitziela zuen perlak ere txerrier egotz, ezteila izan zapaka zkien beren oñez, eta itzialten zuen kontra eta desegin zitzaien.

7. Galdin zazie, eta emanen zaizie; bila zazie, eta erdeneunzie; [atarian] dei zazie, eta edekien dauzie.

8. Zeren karek guziak zoinek galditen baitu, [hartzen dizu], eta bilatzen duenak erdeten, eta deitzen duenari edekien ziozu.

9. Badaia benturazki norbait, zuen artean, bere seme batek ogi galditen dakolarik harri bat emanen dakonik?

10. Edo arrai bat galditen badako, suge bat emanen dakonik?

11. Bada zuek gaxto zradielarik, edo kalidade gaxtokoak, zuen umer gauza onak ematen balimadakizie, zomat hobekiago zuen Aita zerukoak emanen dauzte gauza onak galditen dazkoiener!

12. Kala, egin zazie zuek berze gizonekin kura guzia, zoin haiek zuekin egin tzien deseatzen baitzie; zeren kau baita legearen bukazioa eta profetena.

13. Sar ztie atari meharretik, zeren atari zabala eta bide nasaia galtzeala ermaten tienak baitra, eta anitz ditzu hartarik sartzen drenak.

14. Zer hertsi den ataria eta zoin mehar xendara bizi eternoala ermaten duena, eta zoin guti dren [hura] kausitzen dienak!

15. Guarda ztie profeta faltsuetarik! Zuengana ardi larruz estalirik xiten [dra], eta barnetik otso [lamitiak dra].

16. Beren frutuetarik edo [lanetarik] izaundreintzie. Akaso biltzen daia mahatsik ellorrietarik, edo pikurik zearnarretarik?

17. Kala zu ezik arbole on guziak frutu onak [ematen] baitu, eta arbole gaxto guziak frutu gaxtoak ematen [tu].

18. Arbole on batek eztiokezu frutu gaxtorik eman, eztare arbole gaxto batek frutu onik eman baitroke.

19. Arbole guzia, zoinek ezpaitu frutu onik ematen, ebakrik izanen zu eta suala egotzrik.

20. Beren frutuetarik, bada, izaundu ahal izanen tzie.

21. Ez kura guzia, zoinek "Jauna, Jauna!" erraten baitada, korrengatik sartren zu zeruko erreinuan, baizik [ere] ene Aita zerukoaren borondatea egiten duena, kori zu zeruko erreinuan sartren dena.

22. Anitzek erranen diadazie juizioaren egun kartan: «Jauna, Jauna! Eztugua guk profetizatu zure [izenean, eta deabruak egotzi zure izenean, eta anitz mirakullu egin zure izenean]?

23. Baia orduan nik [argiki] erranen diabezut: «Behin ere etzitiet izaundu noretakoak; [fan ztie eneganik, gaixtakeriaren eginzaleak]!».

24. [Korrengatik], nornahidenek ene (irakaste) kuek ait zkien eta praktika zkien, gizon (burudun) bati iduri izanen zu, zoinek bere etsea harri gañan [egin] baitzuen.

25. Eta euriak erori zintzan, eta ugaldeak [bazterr]etarik elki zintzan, eta haizek eman zizien et[a] golperekin xo zizien etse kalakoaren kontra; karekin ere ez zinuen deseginik izan, zeren harri gañan [eginik] baitzegon.

26. Baia nornahidenek ere ai zkien emateintutan (irakaste) kuek eta eztu [kala egiten], gizon ero bati iduri izanen zu, zoinek bere etsea harearen gañan egin baitzuen.

27. Eta euria erori zinuen eta [urandiak] xin zintzan, eta haizek eman zizien eta golperekin xo zizien etse karen kontra, zoin [erori] baitzen, eta bere (desegingo)a handi izan zinuen.

28. Azkenean, Jesusek [xardokitze kau bukatu] zuelarik, herri aitzen zienak etziaizkezun [miretsiz] ase haren dotrinaz.

29. Zeren [haren kaier irakasteko modua autoridade handi] batekin zinuen, eta ez eskriben eta fariseoen gisa.

ZORTZIGARREN KAPITULOA

[Jesusek (legenduna) sendatu. Kapitan baten mutila eta
Pedroren amagiarbara sendatu. Eri anitz sendatu.
Guzia eutzi Jesus xarrekitzeko. Jesusek itxaso akartua nasaitu.
Jesusek barnean deabruak zauzkaienak sendatu].

1. Jesus oihanetik xauntsi zelarik, jendeketa handi bat segituz fan zitziozun.
2. Kontan, harengana (legen)ez beztitrik zegon bat xiten zelarik, [gurtzen] zizun erranez:
–Jauna, zuk nahi bazu, banokezu garbi.
3. Jesusek eskua luzatuz, onkitu zizun erranez:
–Nahi'zut; geldi zte garbi.
Eta istantean bere (legen)etik sendatrik gelditu zinuen.
4. Jesusek erran ziakozun:
–Iori etzazula erran enkargatzen ztut, baia [apezari presentatzra fan zte, eskin] zazu Moisesek manatu zuen don kura, zerbitzatzen den (borogu) bezala.
5. [Jesus] Kafarnaumen sartzean, [bideala] elki zitziozun kapitan bat, eta otoi egiten ziakozun erranez:
6. –Jauna, ene mutil bat luze-luzea diozu ene etsean, perlesiatrik, eta lazki anitz [sufritzeinzu].
7. Jesusek [erran ziakozun]:
–Ni fanen nuzu eta sendatreinzut.
8. Kapitanak [erspondatu] zizun:
–Jauna, ni ez nuzu [ior] zu sar zten ene etsean, baia mana zazu zure hitzaz eta ene mutila sendatrik gelditreunzu.
9. Bada, orañik nik, zoin ezpainiz gehago baizik gizon bat berze batzuri [lotrik] nagona, nola soldaduak nore manu[pean] baititut, batari erraten diakozut: «Ordezu», eta hura faten zu; eta berzeari: «Xin zte», eta xiteunzu; eta nore mutilari: «Egin zazu kau», eta egiteinzu.
10. Jesusek kau aitzen zuelarik, [mireste handia erakutsi] zizun, eta segitzen ziener erran ziabezun: «Egian erraten dauziet orañik Israelen erdian eztala erden fede kain handia.
11. Kala, nik erraten dauziet [ekialdetik eta oieskitik] anitz jentil xinen drela, eta Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin mahaian egonen drela, zeruko erreinuan,
12. Erreinuko semeak –judioak– kanpo iluntarzunetra egotzrik izanen dren tenbran. Kan izaneunzu [nearra] eta hortzez kirriska egitea».
13. [Eta] Jesusek kapitanari erran ziakozun:
–Fan zte eta agi dakizula jinetsi zun gisan.
Eta ordu kartan berean mutila [sendatrik] gelditu zinuen.
14. Gero Jesus Pedroren etseala fan zelarik, honen amagiarbara ogatzean kalenturarekin ikusi zizun.
15. Eta eskua onkitzen zekolarik, kalenturara kendu zitziozun. Korrekin, berehala ogatzetik xaiki zinuen eta haien zerbitzatzen eseri zinuen.
16. Artsaldea xinik, anitz [deabrudun] eraugi ziazkotzien, eta bere hitzaz egozten ztizun espiritu [gaxtoak, eta eri guziak sendatzen] ztizun.

17. Korrekin [betetzen] zelarik Isaias profetak altzinetik [aitzra eman] zuena erranez:
Bera gure [sufrimentuekin] kargatu zu, eta gure eritarzunak bere gañ hartu itzu.
18. Jesusek egun batez [bere burua jende anitzek errudiatrik ikusten zuelarik], Jenesareteko badinaren erribraren berze aldeala [igartzea pentsatu] zizun.
19. Eta kalako eskriba bat hurrantzen zitzaiolarik, erran ziakozun:
–Maestrua, nik segitren ztut noranahiden fan zten.
20. Jesusek erspondatu ziakozun:
–Axariek baitzie beren altxabiak eta zeruko [txoriek] habiak, baia Gizonaren Semeak etzu zeren gañan [eser] burua.
21. Bere [ikaszaleetarik] berze batek erran ziakozun:
–Jauna, [eutz nazazu] zu segitu beño lehen fan nadien nore aitaren orztra.
22. Baia Jesusek erspondatu ziakozun:
–Segi nazazu zuk eta eutzazu hilek, edo jende fedearen bizia eztienek orz zkiela beren hilak.
23. [Jesus] barka batean sartu zinuen, bere [ikaszalek] lagundrik.
24. Eta huna nonziela nola xaiki zen itxasoan (ekaitz) bat kain handia, ezik ur tzaplatzen zrenek barkara estaltzen baitzien. Arte kontan Jesus lo ziozun.
25. Hari bere [ikaszaleak] hurrantzen zitzaizkolarik, bellitu zizien erranez:
–Jauna, salba gitzazu! Bada, finitzen gitzu!
26. Jesusek [erran ziabezun]:
–Zertaz zie beldur, o fede gutiko gizonak?
Orduan, txutitrik, haizer eta itxasoari [baraxka] ztela manatu ziabezun, eta [ontson] handi bat segitu zinuen.
27. Zointaz kan zauden guziak [harritrik], beren artean errate zizien: «Nor da kau, zoini haizek eta itxasoak obeditzen baitie?».
28. Badinaren berze aldeko erribran [gadaratarren herrian barkatik xauntsirik, bi deabrudun] xuxen harengana fan zintzan, hobietarik –zointan bizi baitzren– elkitzen zrelarik. Kain [akartrik zauden], ezik ior ez baitzen [usartzen] bide kura gaindi igartzra.
29. Berehala oihuka hasi zintzan erranez:
–Zer ikusteko dugu guk zurekin, Jesus, Jangoikoaren Semea? Gure [mintzeko] xin zraia, tenbrarik bage?
30. Kandik ez urrun txerri [saldo] bat ziozun, alhan.
31. [Deabruek] gisa kontan oihu egiten ziakozien:
–Kemendik egozten bagitzu, egor gitzazu txerri [saldo] kortra.
32. Harek erran ziabezun:
–Fan ztie.
Hurak elki zrelarik, txerrietan sartu zintzan; eta huna nonziela nola [saldo] guziak laster egin zuen oildra handiarekin beren buruak aldapa gaxto batetarik itxasoala egoztra, eta uretan itorik gelditu zintzan.
33. Txerrizaiek ihesi eman zizien, eta ziudadeala ellegatrik guzia kontatu zien, eta [deabrudunena] partikularki.
34. Berehala ziudade guzia Jesusen bila elki zinuen, eta haren ikustean haien [herritik fan zaila otoitu] ziakozien.

BEDRATZIGARREN KAPITULOA

[Jesusek perlisiatua sendatu. Mateoren deitzea.
Jesus bekatariekin bazkaltzen. Emazte bat odol-fatetik libratu eta
Jairoren alabara biztu. Bi itsu eta deabrudun mutu bat sendatu.
Parabola (lantare)arna eta lanzalena.]

1. [Jesus] barkan igaten zelarik, badinaren berze aldeala igari zinuen, eta bere (bizitegi)aren ziudadeala edo Kafarnaumera xin zinuen.

2. Noiz huna nonziela perlisiatu bat presentatu [zakoiezun], ogatze batean etzinik. Jesusek haien fedea ikusten zuelarik, eri mogi etzaitekenari erran ziakozun:

–Izan zazu konfiantza, ene semea! Zure bekatuak zaizkitzu parkatrik.

3. Zeri zomait eskribak berehala erran zizien, berekiko: «Konek blasfematzeinzu».

4. Baia Jesusek, haien pentsamenduak ikusten ztuelarik, erran zizun:

–Zerengatik pentsatzen zie gaizki zehauren bihotzetan?

5. Zer gauza da [aisago], «Parkatzen zaizkizu zure bekatuak» erratea, edo «Xaiki zte eta ebil zte» erratea?

6. Bada, xakin zazie Gizonaren Semeak lurrean bekatuak parkatzeko [potre] duela.

[Eta] tenbra berean erran ziakozun perlisiatuari:

–Xaiki zte, har zazu zure ogatzea eta fan zte zure etseala.

7. [Hura] xaiki zinuen eta bere etseala fan zinuen.

8. Jendek gauza kau ikusten zielarik, beldur sandu batez beztitrik gelditu zintzan, eta Jangoikoari gloria eman zizien, gizoner kalako [potrea] emanaz.

9. Jesus kemendik elkrik, gizon bat ikusi zizun mahai petxak kobratzen [zrenekoan] eseririk, Mateo deitzen zena, eta erran ziakozun:

–Segi nazazu.

Hura berehala xaikitzen zelarik, segitu zizun.

10. Jesus Mateoren etsean zegolarik, [mahaian], anitz publikano eta bizi gaxtoko jende xin zintzan, zoin mahaian eseri baitzren harekin eta bere [ikaszalekin] xatra.

11. Fariseoek korren ikustean, haren [ikaszaler] erraten ziabezun:

–Nola da ezik zuen maestruak xaten baitu publikanoekin eta bekatariekin?

12. Jesusek aitzen zuelarik erran ziabezun:

–Etzu [kotor] daudenak, eriak baizik dotoreaz beharra dienak.

13. Fan ztie, [konek] zer erran nahi duen ikastra: *Gehago estimatzeinzut [kupidara] ezik sakrifizioa*. Zeren bekatariak baitra, eta ez [xuxen]ak, zoinen penitenziala deitzra xin bainiz ni.

14. Orduan Juanen [ikaszaleak Jesusengana hurrandu] zintzan, eta erran ziakozien:

–Zoin da [arrazioa], zerengatik guk eta fariseoek ardura barurtzen dugularik, zure [ikaszalek] ezpaitie barurtzen?

15. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Akaso [senarraren adiskideak triste] edo neartsu ebil daizkea, [senarra] haiekin dagon artean? Tenbrara xineunzu, zointan [senarra] kendrik izanen baitzaie, eta orduan barurtreinzie.

16. Iork etzu [esertzen] oihal lodizko petatxu bat beztidra zahar bati; berze gisatra porrokatzeinzu berri denak [alde] zahar denarnetik, eta porrokadrara handiago egiteunzu.

17. Ardo berria zahagi zaharretan etzie ere egozten; zeren kau egiten bada, zahagia lehertzeunzu eta ardoa ixurtzeunzu, eta larruak galtzeintzu. Baia ardo berria zahagi berrietan egozteinzie, eta kala kontserbatzeintzu bata eta berzea.

18. [Elasta] kontan ziozun, gizon [nausi] bat edo sinagogako manatzen zuena ellegatu zenean, eta [gurtzen] zuelarik erran ziakozun: «Jauna, ene alabara hil bukatu zu; baia xin zte, eser zazu zure eskua haren gañan eta biztreunzu».

19. Jesus xaikitzen zelarik, bere [ikaszalekin] segituz faten zitziozun.

20. Noiz huna nonziela nola emazte bat, zoinek hamabi urte egiten baitzuen odol-fate bat [sufri]tzen zuela, gibleko aldetik xin zen eta haren beztidraren errebetea onkitu zizun.

21. Zeren harek bere baitan erraten zizun: «Non eta ahal zadan solo onki bere beztidrara, sendatren nuzu».

22. Jesus itzultzen zelarik eta miriten zekolarik, erran zizun: «Alabara, izan zazu konfiantza! Zure fedeak sendatu ztu». Kala, puntu kartaz geroz, emaztea sendatrik gelditu zinuen.

23. Jesus gizon [nausi] karen etseala xinik, eta plauta sonazaleak ikusten ztuelarik, edo musika hil señalearna, eta [arroitu] jendearna, erra[n] zizun:

24. «[Fan] ztie! Bada eztiozu hilik nexkatoa, loo baizik». Eta hartaz burla egiten zizien.

25. Jendea kanpo elkiarazrik, sartu zinuen [Jesus], eskutik hartu zizun eta nexkatoa xaiki zinuen.

26. Agitua [herri] kartarik guzitik barreatu zinuen.

27. Jesus herri kartarik partitzen zelarik, bi itsu segitu zitziaizkotzun oihu eginez: «Dabiden Semea, edoki zazu [kupida] gutaz!».

28. Etsera ellegatu zenekoz, itsuak [xin] zitziaizkotzun, eta Jesusek erran ziabezun:

–Jinesten zia nik drokedala egin galditen dadazien kori?

–Baxona –[erran ziakozien].

29. Orduan begiak onkitu ziauztezun erranez:

–Zuen [fedearen arauz], kala gerta daila zuekin.

30. Eta begiak edeki zitziaiztezun. Jesusek [mehatxatu] ziabezun erranez:

–(Kasu), gero! Etzala iork xakin.

31. Haiek, [kalarik] ere, kandik elkitzean ingrugune guzian [zabaldu zien].

32. Kuek elkrik, mutu [deabrudun] bat presentatu ziakozien.

33. Eta [deabrua] egotzrik, mutua mintzatu zinuen, eta jendeak [harritrik] gelditu zintzan eta erraten zizien: «Behin ere etzu ikusi kalako gauzarik Israelen».

34. Fariseoek, berze aldeala, erraten zizien: «Satanasen arte gaxtoz egozteintzu [deabruak]».

35. Jesus zibidade guziak eta herriak lasterkatuz faten zinuen, beren sinagogetan erakutsiz. Jangoikoaren erreinuko Ebanjelioa predikatuz, eta [min] guzia eta eritarzun guziak sendatuz.

36. Jende kurak ikustean, haitaz [urrikaltzen] zinuen, zeren gaizki paratrik baitzauden eta kona eta kara bareatrik, artzai bagekoak bezala.

37. Zoineren gañan bere [ikaszaler] erran ziabezun: «(Lantare)ak egiazki [anitz tzu, baia lanzaleak] guti.

38. Otoi egizazie, bada, (uzta)ren xabeari, egor zkiela (uzta)la [lanzaleak].

HAMARGARREN KAPITULOA

[Misione hamabi apostoloena. Ardiak otsoen erdian.
Nori izan beldur. Jesus bereixtra xinik.
Jesusek eman zauzten instruizioak.]

1. Konen buruan, Jesusek bere hamabi [ikaszaleak deitu ztuelarik, potre] eman ziabezun espiritu zikinak egozteko, eta [min] eta eritarzun guziak sendatzeko.

2. [Izen] hamabienak kuek ditzu: lehenbizikoa Simon, (izengatx)ez Pedro, eta Andres bere anea; Santiago Zebedeoren seme eta Juan bere anea.

3. Felipe eta Bartolome. Tomas eta Mateo publikanoa. Santiago Alfeoren seme eta Tadeo.

4. Simon Kanaanekoa eta Judas Iskariote, kura bera zoinek saldu baitzuen.

5. Hamabi kuek egorri ztizun Jesusek, instruizio [kuek] ematen zauztelarik:

–Etzitiela fan orai jentilak bizi dren lekuala, eztare etzitiela sar samaritanoen herrietan.

6. Baia fan ztie lehenik Israeleko etseko ardi galduen bila.

7. Fan ztie eta predika zazie erranez zeruko erreinua hurrantzen dela.

8. Eta, zuen dotrinaren (borogu)tan, senda zkitzie eriak, [biz] zkitzie hilak, garbi zkitzie (legendun)ak, egoz zkitzie [deabruak]. Eman zazie pagurik bage, pagurik bage [hartu] ziena.

9. Etzaziela erman urrerik, eztare zilarrik, eztare dirurik batre zuen boltsetan.

10. Eztare alforsarik biajealako, eztare beztidra bat beño gehago eta uñtako bat beño gehago, eta eztare bastonik edo berze armarik zehauren defendatzeko, zeren [lan egiten duenak mantena] zaien merexi zu.

11. Zoinahiden zibidade edo [herrixkotan], zointan sartzen ere baitzradie, informa ztie nor izan daiken kan gizon ona edo digno dena [zuer ostatu emateko], eta egon ztie beraren etsean haliketa zehauren elkitzea bitartio.

12. Etsean sartzean, salutazioak izan behar'zu: «Bakea izan daila etse kontan».

13. Etseak merexitzen badu, zuen bakea hartra xinen zu; baia ezpadu merexitzen, zuen bakea zuekin itzulieunzu.

14. Ezpazinozkeie [hartu nahi, eztare aitu] zuen hitzak, kalako etse edo zibidadetik elkitzen zradielarik, idarrots zazie zuen oñetako errautsa.

15. Egian erraten dauziet: Sodoma eta Gomorra azken juizioko egunean [gogortarzun] gutiagorekin tratatrik izanen [dra], ezik ez kalako zibidadea.

16. Mirin zazie nik ardiak otsoen erdian bezala [egortzen ztietala; korrengatik xurkin izan behar'zie sugeak] bezala, eta (apal) urzoak bezala.

17. [Azolaz ebil] ztie kalako gizon[ekin]! Bada zuen kontra [egineinzie tribunaletan eta xotren] ztie bere sinagogetan.

18. [Enegatik] gobernadoren eta erregeen altzineala ermanik [izanen zradie], nitaz testimonio emateko haier eta nazioner.

19. Baia presentarazten ztienean, etzaziela izan arrangruarik nola edo zer behar'zien erran, zeren ordu kartan berean erran behar'ziena [Jainkoak] emanik izanen zaizie.

20. Zuek ez baitzradie [kura], nork orduan xardokitzen baitu, zuen Aitaren Espiritua baizik, zoinek zuen medioz xardokitzen baitu.

21. Orduan anae batek bere anea hiltzeala [emaneinzu, eta aitak semea; eta seme-alabak aitatamen] kontra xaikieintzu eta hilarazieintzie.

22. Zuek [guziek higuindrik izanen zradie ene izenagatik]; baia nork (xarreki) zan [azkenealaño], kau zu salbatren dena.

23. Arte kontan zibidade batean persegitzen ztienean, egin zazie ihesi berze bateala. Egian erraten dauziet: [etzie konbertituz bukatren] Israeleko zibidadeak lehen ezik Gizonaren Semea xin dadien.

24. Etzu [ikaszalea] gehago ezik bere maestrua, eztare esklaboa ezik bere nausia.

25. [Ikaszaleari] aski dakiola bere maestrua bezala tratatrik izatea, eta mutilari bere nausia bezala. Familiako aitara deitu badie Beeltzebul, zomat gehago haren etsekoak?

26. Baia korrengatik eztazeziela beldurrik izan! Zeren deus'e eztiozu [estalirik] ezpaita izanen agertrik, eztare [altxatua] zoin ezpaita xakinen.

27. Gabaz erraten dauzietana, erran zazie egunaren argian; eta bearriala erraten dauzietana, predika zazie etse gañetarik hasita.

28. Etzaziela batre beldurrik izan korputza hiltzen diener eta arimara hil eztrokeiener; izan zazie beldur lehen arimara eta korputza ifernuan egotz drokenari.

29. Eztaia kala ezik bi txori saltzen drela otxabo batendako? [Kalarik ere], haitarik batere ez da lurrean erorien, zuen Aitak [kala nahi izan] bage.

30. Zuen buruko bilobiruak ere kontatrik diaudezu.

31. Etzie, bada, zer beldur izan; zuek gehago balio zie ezik anitz txorik.

32. Azkenean, kura guzia zoinek gizonen altzinean [izaun] nazan eta (aitor) nazan Mesiastako, nik baitare [izauntreinzut], eta haren alde deklaratren nuzu nore Aitaren altzinean, zoin zeruan baitago.

33. Baia nornahidenek gizonen altzinean uka nazan, nik baitare ukatreinzut nore Aitaren altzinean, zoin zeruan baitago.

34. Etzie zer pentsatu ni lurreala bakea eraugitzra xin nizala; ez nuzu xin bakea eraugitzra, gerlara baizik.

35. Bada *semea aitaganik, eta alabara amaganik, eta errena bere amagiarbaganik* [berextra xin nuzu].

36. Eta *gizonaren etsaiak bere etse bereko pertsonak izaneintzu*.

37. Aita edo ama ni beño gehago onesten [duenak], etzu enea izatea merexi; eta semea edo alabara ni beño gehago onesten [duenak], eztare etzu merexi enea izatea.

38. Bere kurutzearekin kargatzen eztena, eta segitzen ni, etzu [enetako on].

39. Bere arimaren kostuz bere bizia kontserbatzen [duenak] kau galdreinzu; eta ene amorioagatik bere bizia [galezanak, erdenen dizu].

40. Zuek [hartzen ztienak ni hartzen nizu, eta ni hartzen nuenak ni egorri nuena hartzeinzu].

41. Profeta bat profeta delako bere etsean [hartzen duenak, profetaren (saria) hartreinzu]. Eta bere etsean [gizon] xuxen bat xuxen delako atentzioz [hartzen duenak, xuxenen] (saria) izaneinzu.

42. Eta nornahidenek txikillintto koitarik bati baso bat ur hotz solo edatra eman lezan, zeren eta ene [ikaszale] baita, nore hitza ematen dauziet eztuela galdren bere (saria).

HAMEKAGARREN KAPITULOA

[Juan Bateazalearen galdegitea. Jesusek Galileako herriak maradikatu. Ebanjelioa jendeari agertua. Aita eta Semea. Xin ztie enegana].

1. Nola Jesusek instruizio kuek bere hamabi [ikaszaler eman bukatu baitzuen, kandik fan] zinuen haien zibidadetan erakusteko eta predikatzeko.

2. Baia Juanek kartzelean Kristoren [lan xoragarriak aitu ztuelarik, bere ikaszaleetarik] bida egorri ztizun galdin zazoien:

3. –Zu zraia xin behar duen Mesiasa, edo berze bat [iduriki] behar dugua?

4. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Fan ztie eta konta dazozie Juani aitu ziena eta ikusi ziena.

5. Itsuek ikusteinzie, malguak ebiltzeintzu, (legendun)ak garbi gelditzeintzu, sorrek aitzeinzie, hilak [bizteintzu, kaukalierrer Ebanjelioaren berri ematen dabe].

6. Eta (egoaleko) kura, zoinek ezpaitu eneganik hartren eskandalizatzeko okasiorik.

7. Kuek fan zrena bezain fite, Jesus Juanez xardokiz hasi zinuen, eta herriari erran ziakozun:

–Zer da desiertoan ikustra elki zintzaiena? Zomait kaña haize guzietra mogitzen dena?

8. Erran daztazie, berzañez, zer elki zintzaien ikustra? Gizon bat arropa delikatuez beztitrik? Badakizie kala beztitzen drenak erregeen [xauregietan] daudela.

9. Azkenik, zer ikustra elki zintzaien? Zomait profeta? Kori bai, nik [segrutatzen] dauziet: orañik anitz gehago profeta beño.

10. Bada, hura zu zointaz eskribitrik baitago: *Mirin zazu nik egortzen tala nore aingrua zure altzinean, zoin zure altzinetik bidea [prestatzen] dauzularik fanen baita.*

11. Egian erraten dauziet eztela sortu emazten semeen artean ior ere Juan [Bateazalea] beño handiago; [kalarik] ere, zeruko erreinuan txikinen dena, hura beño gehago zu.

12. Eta Juan [Bateazalearen] tenbraz geroz presenteala bitartio, zeruko erreinua indarraren potrez erdiesten zu, eta kau bereri egiten dienek harpatzen dienak ditzu.

13. Zeren profeta guziek eta legeak haliketa Juan bitartio, altzinetik xiteko [zagonaren berri] eman zizien.

14. Eta entendatu nahi bauzie, hura bera zu Elias, xin behar zuen kura.

15. Entendatzeko bearriak dituenak entenda zala.

16. Baia nori konparatren dut nik gizon arraza kau? Mutilko plazan eseririk daudener zu iduri, zoinek beren lagunetarik berze zomaiti oihu eginez, erraten baitabe:

17. «Kantu [boztariozkoak] kantatu dauzkitziegu, eta etzradie dantzatu; kantu tristeak, eta etzie near egin».

18. Kala Juan xin zinuen, zoinek ezpaitu kasik xaten, eztare edaten, eta [deabruak hartrik dagola errateintzie].

19. Gizonaren Semea xin zu, zoinek xaten eta edaten baitu, eta errateintzie: «Huna nonziela [goxozale] handi bat xatean eta ardo edatean, publikanoekin eta bizi gaxtoko jendekin adiskide dena!». Baia bere semekiko [jainkozko xakitea] justifikatrik gelditzeunzu.

20. Orduan [Jesus zibidadeak maradikatzen] hasi zinuen, zointan haren [mirakulluetarik] lazki anitz egin baitzren, zeren ez baitzien penitenzia egin.

21. –Ai zutaz, Korozain! Ai zutaz, Betsaida! Zeren Tiron eta Sidonen egin balidra [zuen baitan egin dren mirakulluak], aniz tenpra duela penitenzia eginen zizien hautsez estalirik eta beztidra latzez.

22. Kainberzegatik erraten dauziet Tiro eta Sidon juizioko egunean [gogortarzun] gutiagorekin tratatrik izanen drela ezik zuek.

23. Eta zu, Kafarnaum,

zerualaño goratren zrela pentsatzen zua? Izanen zra, bai, ifernualaño [egozrik].

Zeren Sodoman egin balidra zure baitan egin dren [mirakulluak], Sodoma akaso orañik txutrik egonen zinuen egungo egunean.

24. Korrengatik erraten dauzut, Sodomako [herria juizioko egunean gogortarzun] gutiagorekin gaztigatrik izanen dela ezik zu.

25. Tenbra [kartan Jesusek oxin xardoki] zizun erranez:

–Nik [goratzen] ztut, Aita norea, Jaun zeruko eta lurrekoa, zeren estalirik edoki baitzu gauza kuek (mende)ko eta [xakintsuer eta xurkiner, eta erran] baitauztezu txikilliner.

26. Bai, Aita enea, [goratrik zrela zure atseginalako izan delakoz] kala gerta zadien.

27. Ene Aitak gauza guziak ene eskuetan eseri tzu. Baia iork etzu Semea izauten Aitak baizik, eztare iork etzu Aita izauten Semeak baizik, eta karek zoini Semeak nahi izan ere baitu [erran].

28. Xin ztie enegana [lanekin eta zamekin akaitrik] zaudien guziak, bada, nik [arindren] ztiet.

29. Har zazie ene buztarria zehauren gañan, eta ikas zazie eneganik zoin [eskukoi] nizan eta zoin bihotz umilekoa, eta zehauren arimendako [bakea] erdeneunzie.

30. Zeren ene buztarria suabe baita, eta arin ene pizua.

HAMABIGARREN KAPITULOA

[Laronbataren begiratzearen motigoz.
Eskua ehartrik zaukan bat laronbatean sendatrik.
Jesus Jangoikoaren zerbitzazalea. Jesus eta itzultzea.
Jesusen egiazko familia.]

1. Tenbra kontan berean, Jesus laronbateko egunean eregin batzuren ondotik igartzen zelarik, bere [ikaszaleak], gose zrelarik, buruka biltzen hasi zintzan eta bikorrak xaten.

2. Fariseoek kori ikusten zielarik, erran ziakozien:

–Egin zte kargu nola zure [ikaszalek] egiten dien laronbatean egitea [legezko] ez dena.

3. Baia harek erspondatu ziabezun:

–Etzia leitu Dabidek egin zuena, hura eta lagun egiten zakoienak goseaz [hertsrik] ikusi zrenean?

4. Nola Jangoikoaren etsean sartu zen eta proposizioko ogiak xan ztuen, zoin ez hari eta ez harner ezpaizitzaion [legezko xatea, baizik apezer] bakarrik?

5. Edo etzia leitu Legean nola [apezak] laronbatean elizan trabajatzen dren, eta korrekin guziarekin eztiela bekatu egiten?

6. Bada, nik erraten dauziet kemen bat dagola, zoin handiago baita elizara [beño].

7. Bada, zuek ongi bazinakie [erran nahi] duena: *Nahiago [dizut kupidara] ezik ez sakrifizioa*, [hobenbageak] etzintzaien behin ere kondenatren.

8. Zeren Gizonaren Semea orañik xabe baita laronbatarna.

9. [Jesus kandik fan] zelarik, haien Sinagogan sartu zen.

10. Non gizon bat bait[zegon], zoinek esku bat ehartrik baitzaukan. Jesusi galdin ziakozien, [arrazio] bat erdeteko haren [salatzeko]:

–[Legezko daia] laronbateko egunean sendatzea?

11. Baia hark erran ziabezun:

–Zer gizon izanen da zuen artean ardi bat duena, eta kau laronbateko egunean zilo batean erortzen bada, ezpaitu xaikien eta elkien kanpo?

12. Bada, zomat gehago eztu balio gizon batek ezik ez ardi batek? [Kola, bada, legezko] zu ongi egitea laronbateko egunean.

13. Orduan gizonari erran ziakozun:

–Luza zazu esku kori.

[Luzatu zizun eta kain ongi] gelditu zinuen nola berzea.

14. Fariseoak elki zrelarik, haren kontra eta haren galtzeko makinatzeko xuntatu zintzan.

15. Baia Jesus, kau entendatzen zuelarik, erretiratu zinuen. Anitz erik segitu ziakozien, eta hurak guziak sendatu ztizun.

16. Finki [manatzen ztuelarik etzezaiela erran bera nor zen].

17. Konekin Isaiasen profeziara [bete] zinuen, zoinek erraten baitu:

18. *Ikus zazie kor ene [zerbitzazalea], zoin nik [hautatrik] baitaukat; ene maitatua, zoinen baitan ene arimara plazerez bete baita xauki. Haren gañan nore Espiritua eserieinzut, eta nazioner justiziara anunziatreinzu.*

19. *Etzu iorekin [akartren], etzu oihurik eginen, etzu iork haren bozara edo oihu egitea aitren plazetan.*

20. *Etzu hautsien kaña [zanpatrik] dagona, eztare hil bukatren metxa orañik ke egozten duena, haliketa bere kausaren justiziak [garaiaraz] zan bitartio.*

21. *Eta nazionek haren [izenean] eserienzie beren esperantzara.*

22. Orduan berean Jesusi gizon [deabrudun] bat eraugrik izan zitziozun, itsu eta mutu. Eta kalako mod[u]an sendatu zizun, ezik berehaladanik mintzatzen eta ikusten hasi baitzen.

23. Zoinekin herri guzia [harritrik] gelditu zinuen, eta erraten zizun: «Kau akaso Dabiden Semea daia, Mesias?».

24. Baia fariseoek kau aitzen zielarik, erraten zizien: Konek etzu egozten [deabruak] baizik Beeltzebulen [egitez, prinzipe deabruena].

25. Orduan Jesusek, haien pentsamenduak [izauten] ztuelarik, erran ziabezun:

–Erreino guzi [zatitan] berexrik dagona [abarrikatrik] izaneunzu. Zoinahiden zibidadek edo etsek, bakotxa beren alde berexrik daudenetan, eztiokezu iraun.

26. [Beraz], Satanasek Satanas kanpo egozten badu, berarendako [bere kontra berexrik dago]; nola, bada, iraun behar du bere erreinuak?

27. [Eta nik deabruak Beeltzebulen izenean] egozten ba[d]itut, zuen umek zer [izenetan] egozteintie? [Korrengatik] hoiek berok zuen [juzgazaleak] izaneintzu.

28. Baia nik [deabru]ak Jangoikoaren Espirituaren birtutean egozten ba[d]itut, egiazki Jangoikoaren erreinua edo Mesiasa zuengana ellegatu [da].

29. Edo berzañez, erran daztazie: Nola da posible bat sar dadien zomait gizon [ausarta]ren etsean eta bere ontarzunak ebats dazaizkon, ezpadu lehenbizikorik [ausarta] ongi lotzen? Orduan [etsean ebatsi] ahal izanen diakozu.

30. Ene alde eztagona, ene kontra diozu; eta enekin biltzen eztuenak, [barriatzeinzu].

31. Zoinengatik [erraten] dauziet zoinahiden bekatu eta zoinahiden [maradikazio] parkatren zaiela gizoner, baia Jangoikoaren Espirituaren kontrako [maradikazioa] eztela kain [aise] parkatrik izanen.

32. Gisa berean, norinahiden Gizonaren Semearen kontra mintza ladienari parkatren ziozu; baia Espiritu Sanduaren kontra mintza ladienari, bere graziara [despei]tuz, etziozu parkatren ez bizi kontan eta ez berzean.

33. Edo erran zaie arbolea on dela, eta on bere frutua. Edo arbolea gaxtotako balimadaukazie, edoki zazie baitare gaxtotako bere frutua, frututik izauten baita arbolearen kalidadea.

34. Arraza [sugeena]! Nola da posible zuek gauza onik xardoki zazien, gaxto izanez, zradiena bezala? [Zeren agoak bihotzeko aniztarzunetik] xardokitzen baitu.

35. Gizon onak bere bihotzeko [barne] onetik gauza onak elkitzeintzu, eta gizon gaxtoak bere [barne] gaxtotik gauza gaxtoak elkitzeintzu.

36. Nik erraten dauziet, orañik gizonek zoinahiden hitz aguer erran dezaienez, juizioko egunean behar diela eman kontu.

37. Zeren zuhauren hitzetarik beharko zu izan justifikatrik, eta zure [egitetarik] kondenatrik.

38. Orduan eskriba eta fariseoetarik zomait mintzatu zitziazkozun erranez:

–Maestrua, zomait [mirakullu] egiten ikusi nahi zinuzkegu.

39. Harek erspondatu ziabezun:

–Arraza gaxto eta adultero konek [mirakullu] bat eskatzeinzu! Baia etziozu emanen [eskatzen duena, baizik] Jonas profetaren [mirakullua].

40. Zeren kala nola *Jonas ballenaren [erraietan] hirur egunez eta hirur gauez egon* baitzen, kala Gizonaren Semea hirur egunez eta hirur gauez egonen zu lurraren [barnean].

41. Ninibeko [herrikoak] juizioko egunean, gizon arraza konen kontra xaikieintzu eta kondenatreinzie, zeren haiek penitenzia egin baitzien Jonasen predikazioari. Eta guziarekin, kemen dagona Jonas beño gehago zu.

42. Erreina Eguerdiarikoa juizioko egunean akusazale izaneunzu gizon arraza konen kontra, eta kondenatreinzu, zeren lurreko bazter urrunenetarik xin baitzen Salomonen [xakitea] aitzra. Eta guziarekin, kemen daukazie Salomon beño gehago dena.

43. Espiritu zikina zomait gizonenganik elki denean, leku idorrak gaindi [aguertarzunean] ebiltzeunzu non [hatsartu bilatuz, xerdietsi] bage.

44. Orduan errateinzu: «Nore etseala itzulien nuzu, nondik elki bainiz». Eta berehala itzultzen delarik, desokupatrik erdeteinzu, xahutrik eta [apaindrik].

45. Korrekin fateunzu eta berekin berze zazpi espiritu hartzeintzu, bera beño gaxtoagokoak, eta sartzen drelarik kan bizitzeintzu. [Eta] gizon karen gibleko (izan moldea) [gaixtoago zu, lehenbizikoa beño]. Kala gertatu behar ziozu arraza arras gaxto koni.

46. [Jesus] oraño herriari platika egozten ziozun, eta huna nonziela bere ama eta aneak kanpo ziaudezun, hari mintzatu nahi'ziela.

47. Zoinengatik batek erran ziakozun:

–Mirin zazu zure ama eta zure aneak kan kanpo daudela zutaz galdinez.

48. Harek, erraten zekonari erspondatzen zekolarik, [erran] zizun:

–Nor da ene ama, eta nor dra ene aneak?

49. Eta eskuaz bere [ikaszaleak] erakutsiz, erran zizun:

–Kuek tzu ene ama eta ene aneak.

50. Zeren nork ere nahiden ene Aitaren borondatea egin lezan, zoin zeruan baitago, kori zu ene anea, eta ene arreba, eta ene ama.

HAMAHIRURGARREN KAPITULOA

[Jesus parabolen bidez mintzo. Parabola ereginzalearna.
Gariaren erdian eregin olabeorraren parabola.
Parabola mostazaren alearna eta orantzarna.
Parabolak tesoro altxatuarna, perlarna
eta sare arraiez betearna.
Jesus bere sortulekuan gaitzesrik.]

1. Egun kartan, Jesus etserik elkitzen zelarik, itxaso bazterrean eseririk ziozun.

2. Eta haren ingruan [jende-saldo] kain handia xuntatu zinuen, ezik barka batean sartzea eta berean [xasertzea] beharrezko izan baitzitzaion; eta herri guzia erribran ziozun.

3. Zoini parabolen medioz anitz gauzaz xardoki ziakozun, erranez: «Behin kalako ereginzale bat eregitra elki zinuen.

4. [Aleak] barreatzean, zomait bideala hurran erori zitzan; eta zeruko [txoriak] xin zitzan eta xan ztizien.

5. Berze batzu harridoietan erori zintzan, non lur guti baitzen, eta berehala [sortu zintzan] lurra arras mehe egonaz.

6. Baia iguzkia elki zenekoz erre zintzan eta ehartrik gelditu, zeren kasik ezpaitzien errorik.

7. Berze [ale] batzu laharren artean erori zintzan, eta laharrak handitu zintzan eta [ito] ztizien.

8. Berze batzu, azkenik, lur onean erori zintzan, eta frutu eman zizien, non egun batendako, non hirurogei, eta non hogeita hamar.

9. Bearri izan zanak entendatzeko, entenda zala».

10. Bere [ikaszaleak] hurranduz gero, galditen ziakozien:

–[Zerengatik] xardokitzen diabezu parabolak drela medio?

11. Zoinek erspondatu ziabezun:

–Zeren zuer zeruko erreinuko misterioak [izautea] eman baitzaizie; baia haier etziaiezu eman.

12. Egia izanik duenari izan behar duen guzia [eta] orañik gehago eman behar zaiola; kala nola izan behar duen guzia eztuenari orañik duena ere gendren baitzaio.

13. Korrengatik xardokitzen diabezut parabolez: zeren haiek ikusten dielarik etzie miriten, eta aitzen dielarik etzie nahi behatu, etzie ere entendatzen.

14. Zoinekin haien baitan Isaiasen profeziara [betetzen] zu, zoinek erraten baitu:

Zehauren bearriez aitreunzie eta etzie entendatren; zehauren begiez [gehago] ikusrik ere, etzie beiratren.

15. *Zeren herri konek bere bihotza gogortu baitu, eta bere bearriak hertsi baitu, eta bere begiak [estali] berez ez ikusteagatik, bearriez ez aitzeagatik, bihotzaz ez [entendatzeagatik]; beldurrez ezik, konbertitzen bada, nik osasuna emanen dakotala.*

16. (Egoaltsuak) zuen begiak zeren ikusten baitie, eta (egoaltsuak) zuen bearriak, zeren aitzen baitie!

17. Bada egian erraten dauziet anitz profetak eta [xuxenek] anitz deseatu ziela zuek ikusten zaudiena ikustea, eta etzizien ikusi; eta zuek aitzenziena aitzea, eta etzizien aitu.

18. Ai zazie orai ereginzalearen [parabolak zer erran nahi duen].

19. Nork ere nahiden Jangoikoaren erreinuko edo Ebanjelioko hitza ai zan, eta ezpaitu berean paratzen atenzioa, Espiritu Gaxtoa xiteunzu eta haren bihotzean eregin zena gentzen diakozu. Kau zu «bide [bazterrean]» eregina.

20. «Harridoieko lurrean» eregina zu kura, zoinek Jangoikoaren hitza aitzen baitu , eta momento kartan [atseginez hartzeinzu].

21. Baia barnetik etzu errorik [eta] guti irauteinzu; eta gibletik xiten delarik [bihozmina], eta hitzaren edo Ebanjelioaren kasoz persegitrik izatea, konek berehala zerbitzatzen diakozu eskandalotako.

22. «Laharren artean» eregina Jangoikoaren hitza aitzen duena zu; baia mundu kontako [azolak] eta ontarzunen engañuak [itotzeinzie eta frutubage] gelditzeunzu.

23. «Lur onean» eregina Jangoikoaren hitza aitzen duena zu, eta ongi pizatzen duena, eta frutu [ematen, batek egun batendako, batek hirurogei, batek] hogeita hamar.

24. Berze parabola bat [eseri] ziabezun erranez: «Zeruko erreinua gizon bati iduri zu, zoinek bere alorrean hazi ona eregin baitzuen.

25. Baia gizonek lo egiteko tenbran, kalako bere etsai bat xin zinuen eta olabeor eregin zizun gariaren erdian, eta fan zinuen.

26. Garia ya zorroan zegolarik eta burua elkitzra, kalaxe olabeorra [ikusi] zinuen.

27. Orduan familiako aitaren [mutilak harengana fan zintzan] eta erran ziakozien: "Xauna, etzinuena hazi ona eregin zure alorrean? Bada, nola du olabeor?".

28. Erspondatu ziabezun: "Zomait ene etsaiek eregin bide izie kura". Mutilek [erran] ziakozien: "Nahi'zua haren biltzra fan giten?".

29. Zointra erspondatu zizun: "Ez, zeren eztaila agi ezik olabeorra [gentzean], harekin batean garia [gen] zazien.

30. Eutzazie bata eta berzea handitzra egitala bitartio, eta egitaren tenbran nik egitarler erranen diabezut: Bil zazie lehenbizikorik olabeorra, eta egin zkitzie espalak beraz suarendako, eta sar zazie gero garia ene algorioan".

31. Berze parabola bat [eseri] ziabezun erranez: «Zeruko erreinua mostazaren [ale] bati iduri zu, zoin gizon batek bere eskuan hartu baitzuen, eta bere alorrean eregin baitzuen.

32. Zoin hazi guzien artean xehena baita; baia handitzen delarik, eltzari guziak beño handiago zu, eta arbole egiten zu [kalako moduan, ezik zeruko txoriak] xaunsten baitra eta habiak egiten haren adarretan».

33. Berze parabola kau ere [erran] zizun: «Zeruko erreinua orantzari iduri zu, zoin emazte batek hartu baitzuen eta hirur negurri irinenekin nahasi baitzuen, haliketa ore guzia mindrik gelditu zen artio».

34. Gauza kuek guziok erran ziazkotzun Jesusek herriari parabola medioz, zoin bage etzizun predikatzen.

35. Profetak erran zuena [bete]tzen zelarik:

Nore agoa edekieintzut parabolez xardokitzeko; gauza misteriosoak publikatreinzut, zoin [altxatrik] egon baitra munduaren kreazioaz geroz.

36. Orduan [aizaleak euzrik, Jesus] etsera itzuli zinuen, eta bere [ikaszalek] errudiatzen zielarik, erran ziakozien:

–Esplika dazaikuzu parabola olabeor alorrean eregiarna.

37. [Jesusek] erspondatu ziabezun:

–Hazi ona eregiten duena Gizonaren Semea zu.

38. Alorra mundua zu; hazi ona erreinuko semeak tzu; olabeorra espiritu gaxtoaren semeak tzu.

39. Etsai eregin zuena Deabrua zu; egitara munduaren akabazioa zu; egitarleak aingruak ditzu.

40. Eta kala nola olabeorra biltzen baita eta suan erretzen baita, gisa berean agitreunzu munduaren akabazioan.

41. Gizonaren Semeak bere aingruak egorrieintzu eta beren erreinutik gendreintzie eskandalo eman dien guziak, eta gaxtotarzuna [egin] dien guziak.

42. Eta bulkaka suzko labean egotzieintzie; kan izanen zu [oihua] eta hortzez kirriska egitea.

43. Tenbra berean [xuxenek dirdilka egineinzie] iguzkiak bezala, beren Aitaren erreinuan. Entendatzeko bearri duenak, entenda zala.

44. Zeruko erreinua, baitare, kaudale alorrean altxatu bati iduri zu, zoin gizon batek erdeten badu, berritan [estaltzeinzu eta bere (egoal)az atseginez] beterik, fateunzu eta duen guzia saltzeinzu eta alor kura erosteinzu.

45. Gisa berean, zeruko erreinua merkatari bati iduri zu, zoinek perla finetan tratatzen baitu.

46. Eta eskuetra bat balio handikoa xiten zaiolarik, fateunzu eta duen guzia saltzeinzu, eta kura erosteinzu.

47. Zeruko erreinua, baitare, sare bati iduri zu, zoin itxasoan egotziz geroz [arrai] guzietarik harpatzen baitu.

48. Zoin beterik egonez geroz, arrantzariek elkitzeinzie, eta baxterrean eseririk onak [hautatuz] fateintzu, eta beren ontzietan sartzeintzie, eta kalidade gaxtokoak egozteintzie.

49. Kala agitreunzu munduaren akabazioan: Aingruak elkieintzu eta gaxtoak [xuxenen] artetik berexieintzie.

50. Eta suzko labean egotzieintzie. Kan izaneunzu [saminarekin] near egitea eta hortzen marraskara.

51. Entendatu itzea ongi gauza kuek guziok?

–Bai, Xauna –erspondatu ziakozien.

52. Harek [erran] zizun:

–Korrengatik eskriba edo doktore guzia zeruko erreinuko gauza dakiena, familiako aita bati iduri zu, zoin bere [altxalekutik] gauza berriak edo gauza antiguazkoak elkiz faten baita, konbeni den gisan.

53. Jesusek parabola kuek bukatu ztuenekoz, kandik elki zinuen.

54. Bere [herriala] igartzen zelarik, bere [sortuerriko] sinagogetan erakusten eseri zinuen. [Harritrik, jendek] beren artean erraten zizien: «Nondik xin zaio koni kalako xakitea eta kalako [mirakulluak]?

55. Eztaia [kau] zurginaren semea? Bere ama eztea Maria deitzen dena? Eztradea bere kosinak Santiago, Jose, Simon eta Judas?

56. Eta bere guzialehenak eztradea bizi guziak gure artean? Bada, nondik xinen zaizko koni gauza guziok?».

57. Eta hartaz eskandalizatrik bezala ziaudezun.

Jesusek erran ziabezun: «Etzu profetarik (ohore)rik bage, baizik bere [herrian] eta bere etsean.

58. [Korrengatik, kemen lazki mirakullu] guti egin zizun, beren jineste gutiaren kasoz.

HAMALAURGARREN KAPITULOA

[Juan Bateazalearen hiltzea. Borz ogien mirakullua.
Jesus itxasoko ur goratzen drenen gañan ebiltzen zu.
Sendatzeak Genesaret aldean.]

1. Tenbra kartan Herodesek, Galileako gobernadore zenak, Jesusen [famaren berri] aitu zizun.

2. Eta bere [zerbitzazaler] erran ziabezun: «Kau Juan [Bateazalea] zu! Hilen artetik erresuzitatu [zu, eta korrengatik dirdilkatzeinzu] kainberze haren baitan birtute [mirakullu] egitekoarnak.

3. Xakiteko zu Herodesek Juan harrepatu zuela eta [katez] lotrik kartzelean sartu zuela Herodiasen[gatik], zoin emazte baitzen haren anearna.

4. Zeren Juanek erraten ziakozun: «Etzaizu [legezko] haren edokitzea emaztetako».

5. Herodesek ongi nahi zizun hura hilarazi, baia etzinuen [ausartzen] herriaren beldurrez, zeren guziek Juan profetatako baitzaukaien.

6. [Baia Herodesen urtebetetzearen xeian], Herodiasen alabara [jendearen] erdian dantzara elki zinuen.

7. Eta Herodesi kainberze gustatu zitziozun, ezik zernahiden gauza galdin zazon ematea [eskindu] baitzekon, juramenturekin.

8. [Orduan nexkatoak bere] amak altzinetik [aitzra emanik], erran zizun: «Erauzu kemen, platerean, Juan [Bateazalearen] burua».

9. Erregea tristatu zinuen. [Kalarik] ere, juramentuaren atenzioz eta komidatuenenaz, eman zakiola manatu zizun.

10. Eta kala [Juanengana] egorri ztizun, kartzelean [lepoa moztra].

11. [Berehala bere burua plater] batean eraugrik izan zinuen eta [nexkato]ari emanik, zoinek bere amari [erakutsi] baitzekon.

12. Gero [Juanen ikaszaleak korputza biltzra fan zintzan], eta ortzi zizien eta Jesusi [berria] ematra fan zintzan.

13. Jesus, Herodesek hartaz erraten zuen kura aitu zuelarik, kandik itxasoz leku ior etzegon bateala [fan] zinuen, herritik kanpo. Eta jendek kori [xakin] zielarik, beren zibidadetarik elki zintzan, oñez lurra gaindi segitzen zielarik.

14. Jesus barkotik elkitzean, kain jendakia handia ikusten zuelarik, [kupidatu] zinuen eta beren eriak sendatu ztizun.

15. Artsaldearen [bukatzean, bere ikaszaleak] harengana ellegatu zintzan erranez:

–Lekua [bazterra] zu eta ordua igaririk diozu.[Igor] zkitzu jende koiek herrietra fainten xateko erostra.

16. Jesusek erran ziabezun:

–Etzie fateko [beharrik], eman dazezie zuek xatra.

17. [Kaiek] erspondatu zizien:

–Eztugu kemen baizik borz ogi eta bi arrai.

18. Harek erran ziabezun:

–Eraugi daztazie kona.

19. Guziak belarraren gañan eser ztela manatu zuelarik, borz ogiak eta bi arraiak hartu ztizun, eta begiak zeruala goratzen ztuelarik, benedikatu ztizun eta partitu; eta ogiak [ikaszaler] eman ziauztezun eta [ikaszalek] jendeari.

20. Guziek xan zizien eta [ase] zintzan, eta sobratu zenaz hamabi saski bildu ztizien puskez beterik.

21. Xan zienak borz mila gizon [izan zintzan], emazteak eta haurrak kontatu bage.

22. Konen ondoren, Jesusek berehala bere [ikaszaleak barkala igatra behartu] ztizun eta fatra, badinaren berze aldean [iduriki] zazoien, herriak despeditzen ztuen tenbran.

23. Eta kuek despeditrik, oihan batean bakarrik [otoi] egitra igan zinuen. Eta gaua sartrik, kan bakarrik egon zinuen.

24. Arte kontan barkara itxasoaren erdian ziozun, ur tzaplatzen zrenez [indartsu xorik, haizea kontrako] izanaz.

25. Gauaren laugarren [zatia] zelarik, edo kasik eguargia, Jesus itxaso gañan haien aldeala xin zinuen.

26. Eta [ikaszalek] itxaso gañan zablela ikusten zielarik, lotsatu zintzan eta erran zizien: «(Mamuka) bat zu». Eta, beldurrez beterik, oihuz hasi zintzan.

27. [Baia] Jesus mintzatu zitziaiezun erranez:

–Anima ztie! Ni [nuzie], etzaziela beldurrik izan!

28. [Orduan] Pedrok erspondatu zizun:

–Jauna, zu bazra, mana zazu fan naila zure aldeala ur gañan.

29. Harek erran ziakozun:

–Xin zte.

Pedro barkatik xaunsten zelarik, ur gañan ebliz faten zinuen Jesusengana ellegatzeko.

30. Baia haizearen indarra ikusten zuelarik, anitz beldurtu zinuen; eta berehala [urpeala faten hasten zelarik, oihu egin zizun] erranez:

–Jauna, salba nazazu.

31. Orduan berean Jesusek, eskua luzatzen zuelarik, besotik hartu zizun eta erran ziakozun:

–Gizon fede gutikoa! Zerengatik dudatu zu?

32. Eta barkala igan zrenekoz, haizea [baketu] zinuen.

33. Eta barnean zaudenak harengana hurrandu zintzan eta [gurtu] zizien erranez:

–Egiazki zra zu Jangoikoaren Semea!

34. Badinara alde batetik berzeala igaririk, Genesareteko lurreala ellegatu zintzan.

35. Kan bizi zrenek [Jesus] izaundu zielarik, berehala abisu igorri zizien [herri] kura gaindi, eta eri guziak eraugi ziazkotzien.

36. Faboretako, karen beztidraren errebetea onkitzea bakarrik galditen ziakozien. Eta onkitu zakoien guziak sendatu zintzan.

HAMABORZGARREN KAPITULOA

[Judioen azturak eta Jangoikoaren nahia.
Zerk zikintzen duen jendea.
Jesusek kananearen alabara sendatu. Eri anitz sendatu.
Bigarrenez jendeketa handi bati xatra eman.]

1. [Tenbra] kontan kalako eskriba eta fariseo batzuk, zoin Jerusalemerik ellegatu baitzren, erran ziakozien:

2. –Zure [ikaszalek zer arraziorengatik hausten die zaharrenganik hartu den azturara], ez garbituz eskuak xaten dienean?

3. Hark erspondatu ziabezun:

–Eta zerengatik zuek zehaurek hausteunzie Jangoikoaren [manatua, zehauren azturara] segitzeagatik?

4. Bada, Jangoikoak erranik diaukazu: *(Ohora) [zkitzu] aita eta ama*, eta baitare: *Nork [maradika] zan aita edo ama, izan daila kondenatrik hiltzeala.*

5. Baia zuek errateunzie: nornahidenek erran lazon aitari edo amari «(Oberta) nik nore partetik [eskin] nokena, zure onetan izaneunzu»,

6. [Yadanik] etzu obligaziorik bere aita edo bere ama (ohora)tzeko. Zointaz lurra gaindi egotzizie Jangoikoaren [manatua zehauren azturagatik].

7. [Itxurazaleak]! Isaiasek arraziorekin [xakinarazi] zizun altzinetik zuetaz erranez:

8. *Herri konek ezpañez (ohora)tzenizu; baia bere bihotza urrun diozu eneganik.*

9. *[Augerrik (ohora)tzenizie dotrina eta manatu] gizonenak erakutsiz.*

10. Herria beregana deitu zuelarik, [Jesusek] erran ziabezun: «Ai nazazie eta [entenda] zazie ongi [kau]:

11. Ez agotik sartzen dena zu gizona zikintzen duena; baizik agotik elkitzen dena, kori zu zikintzen duena».

12. Orduan, bere [ikaszaleak] gehago hurranduz, erran ziakozien:

–Eztakizua fariseoak eskandalizatu drela [zuk erran kori aitzean]?

13. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Ene Aita zerukoak [landatu eztuen (lan[d]are) guzia erroetarik txurrustatrik] izanen zu.

14. Euz zkitzie! Hurak itsu batzuk tzu, berze itsu batzu giatzen tienak. Eta itsu bat berze itsu batendako giatzra [hasten] bada, biak erortzeinzu ziloan.

15. Pedrok hitza hartuz erran ziakozun:

–Esplika dazaikuzu parabola kori.

16. Jesusek erspondatu zizun:

–Nola? Baitare zuek zaudea orañik kain [xakite] gutirekin?

17. Etzia izauten aguan sartzen den guzia kandik tripala igartzen dela, eta [altxagunetan] egozten dela?

18. Baia agotik elkitzen dena bihotzetik elkitzen zu; eta kori zu gizona zikintzen duena!

19. Zeren bihotzetik zu, nondik elkitzen baitra pentsamendu gaxtoak, gizon hiltzeak, adulterioak, [haragikeriak, ebasteak, (aumenta) faltsuak, maradikazioak].

20. Gauza kuek bai zikintzen baitie gizona; baia eskuak ikuzi bage xateak, korrek etzu zikintzen.

21. Jesus kemendik elkrik, Tiro eta Sidon alderdiala [fan] zinuen.

22. Noiz, huna nonziela, ezik kananea emazte bat, leku kartarik xinik, [oihuz] hasi zinuen erranez:

–Jauna, Seme Dabidena, edoki zazu [kupida] nitaz! Ene alabara [deabruek kupidabageki mindrik] zu.

23. Jesusek etziakozun hitzik erspondatu. Bere [ikaszaleak hurrantzen] zrelarik, otoi egiten zizien harengatik, erranez:

–[Eman] dazozu eskatzen duena fan dadiengatik, zeren gure atzean xiten zu oihu eginez.

24. Jesusek, erspondatzen zuelarik, erran zizun:

–Ni ez nuzu egorririk baizik Israeleko etseko ardi galduetra.

25. [Kalarik ere] hura ellegatu zinuen, eta [gurtu] zizun erranez:

–Jauna, [lagun] nazazu.

26. Zoinek eman ziakozun errespuestatan:

–Etzu [xuxen] umen ogia hartzea eta txakurrer egoztea.

27. [Emazteak] erran zizun:

–Egia'uzu, Jauna; baia txakurkuek gutienaz xateintzie otapur beren nausien mahaietik erortzen drenak.

28. Orduan Jesusek erspondatuz erran [ziakozun]:

–Emaztea, handi zu zure fedea! Egin daila zuk [nahi] zun gisan.

Eta ordu berean haren alabara sendatrik gelditu zinuen.

29. Jesus kandik Galileako itxasoaren erribrala igari zinuen. Oihan bateala igaten zelarik, berean eseri zinuen.

30. Harengana anitz jende ellegatu zintzan, berekin eragutzen ztielarik sorrak, itsuak, mainguak eta berze anitz. Haren oñetra eseri ztizien, eta sendatu ztizun.

31. Kalako mod[u]an, ezik jendeak [harritrik] baitzeuden mutuak mintzatzen zrela ikusiz, mainguak ebiltzen zrela eta itsuek ikusten ziela. Eta Israeleko Jangoikoa [goratzen] zizien.

32. Jesusek, bere [ikaszaleak] deitrik, erran zizun:

–Herri kuek [urriki] ematen didazie, zeren hirur egun egiten baitu ya [enekin] segitzen diela, eta etzie xatekorik. Etzut barurik [egorri] nahi, eztaila izan ezik desmaiaiten bidean.

33. Baia bere [ikaszalek] erspondatu ziakozien:

–Nola ahal izanen dugu erden leku [bazter] kontan ogirik aski, kainberze jende [asetzeko]?

34. Jesusek erran ziabezun:

–Zomat ogi tzie?

–Zazpi –[erspondatu zizien]– zomait txertorekin.

35. Orduan jendeari lurrean eser zaila manatu [ziakozun].

36. Hark, zazpi ogiak eta arraiak hartzen ztuelarik, [eskerrak] emanik, ebaki ztizun eta bere [ikaszaler] eman ziauztezun, eta [ikaszalek] herriari errepartitu ziazkotzien.

37. Guziek xan zizien, eta [asetrik] gelditu zintzan. Eta puska sobratu zrenez, zazpi esporta bete ztizien.

38. Xan zienak laur mila gizon zintzan, haurrak eta emazteak kontatu bage.

39. [Gero, jendea kan euzrik], barkan sartu zinuen eta Magadaneko [herriala] igari zinuen.

HAMASEIGARREN KAPITULOA

[Fariseoek eta saduzeoek mirakulluak galdin.
Kaien orantza. San Pedrok Jesus Mesiastako (aitortu).
Jesusek bere hiltze-biztea lehenbizikoz altzinetik erran.
Jesus xarrekitzea.]

1. Fariseoak eta saduzeoak [Jesusengana hurrandu] eta, haren tentatzeko, zeruko zomait [mirakullu erakuts] zazela galdin ziakozien.

2. Baia harek erspondatu ziabezun:

–Gaua ellegatuz faten denean erratenzie zomait aldiz: «Tenbra on egineinzu, zeren zerua gorri kolorean baitago».

3. Eta goizetik: «Egun tenpestade izaneinzu, zeren zerua [estalirik] eta etxekrik baitago». Bada, zeruaren [itxuratik badakizie kausitzen], eta eztrozketzia izaun tenbra kuetako señale [argiak] Mesiasen xitearnak?

4. Arraza konek edo [belaunaldi] gaxto eta adultero konek [mirakullu] bat galditeinzu! Baia etziozu emanen galditen duen kori, baizik profeta Jonasen [mirakullua].

Eta, euzten ztuelarik, fan zinuen.

5. Badinaren berze aldetik xiten zrelarik, [bere ikaszaler] ogi hartzea atze zitzaiezun.

6. Jesusek erran ziabezun: «Egon ztie [azola]rekin! Guarda ztie fariseoen eta saduzeoen orantzetik!».

7. Baia hurak beren baitako erraten zizien: «Kau errateinzu zeren eztugun eraugi ogi».

8. Zoin Jesusek izauten zuelarik, erran zizun: «Fede gutiko gizonak, zer zabiltzaie zehauren barnetan [pentsatuz], etzielakoz ogirik?

9. Orañik [izagumenturik] bage zaudia, eta ezradia oritzen borz ogi errepartituez borz mila gizonen artean, eta zomat saski puska gelditu zitzaizien?

10. Eztare zazpi ogiez laur mila gizonendako, eta zomat esporta bildu zintzaien sobratu zenetik?

11. Nola etzie izauten eztauzietala ogiarengatik erran, «Guarda ztie [fariseoen eta saduzeoen orantzetik]?».

12. Orduan konprenditu zizien etzuela erran nahi izan guarda ztela orantz ogian esertzen denetik, baizik fariseoen eta saduzeoen dotrinatik.

13. Jesus gero Filiporen [Zesareako herriala] xiten zelarik, bere [ikaszaler] galdin ziabezun:

–Nor erraten die gizonek Gizonaren Semea dela?

14. Haiek erspondatu zizien:

–Batzuk Juan [Bateazalea dela] errateinzie, berze batzuk Elias, berze batzuk, azkenik, Jeremias edo zomait profetarik.

15. Jesusek [galdegin ziabezun]:

–Eta zuek nor errateunzie nizala ni?

16. Simon Pedrok hitza hartuz, erran zizun:

–Zu Kristo zra edo Mesias, Jangoiko biziaren Semea.

17. Jesusek erspondatuz erran ziakozun:

–(Egoaltsu) zra, Simon seme Juanena, zeren ezpaitauzu kori haragiak eta odolak [erran], baizik [ere] ene Aita zeruan dagonak.

18. Eta nik erraten dauzut zu Pedro (Harri) zrela, eta harri konen gañan fundatrentala nore Elizara; eta ifernuko [atariak eztrela nausitren] konen kontra.

19. Eta zuri emanen dauzkitzut zeruko erreinuko giltzak; eta zuk lurraren gañan lotzen zun guzia, zeruan [ere] izaneunzu lotrik; eta zuk lurraren gañan [lazatzen zun guzia, zeruan ere izaneunzu lazatrik].

20. Orduan bere [ikaszaleak] manatu ztizun etzezaiela erran iori hura Jesus zela, Kristo edo Mesias.

21. Yadanik bere [ikaszaler erraten] hasi zinuen hura Jerusalemera fan zadien konbeni zela, eta kan anitz [sufri zezan zaharren] partetik, eta eskribenetik, eta [apezburuenetik], eta hilik izan zadien eta hirurgarren egunean [bitz] zadien.

22. Pedrok [Jesus berexrik] hartzen zuelarik, intentuz aldarazi [nahi zizun kura], erranez:

–Jauna, iolako [moduan ez]! Etzu kala izan behar korrek zure baitan.

23. Baia Jesus harengana itzulirik, erran ziakozun:

–Ken zakizta altzinetik, Satanas! Eskandalizatzen bainuzu; zeren ezbaitzu [izagumentu] eztare gustorik Jangoikoaren gauza drenez, gizonenez baizik.

24. Orduan Jesusek bere [ikaszaler] erran ziabezun: «Norbaitek ene atzean xin nahi badu, [uka tzala bere deseiuak], karga daila bere kurutzearekin eta segi nazala.

25. Bada, nork nahi luken ene kontra [eginez] bere bizia salbatu, galdreinzu; baia nork gal lezan bere bizia enekiko amorioz, erdeneinzu.

26. Zeren, zer baliatzen zaio gizonari mundu guzia irabaztea, bere arimara galtzen badu? Edo [zeren truk] ahal izanen du gizonak bere arimara [salbatu], behin galduz geroz?

27. Egia zu, bada, Gizonaren Semeak bere Aitaren gloriaz errebeztitrik xin behar duela, bere [aingruek lagundrik], gizonak juzgatzra; eta orduan bakotxari pagua emaneinzu, bere [egiteen arauz].

28. Egian erraten dauziet badrela kemen zomait hilen eztrenik, Gizonaren Semea bere erreinuko argitarzunean [agertu] dela ikus zaiena beño lehen».

HAMAZAZPIGARREN KAPITULOA

[Itxuraldatze Jesusena: nekaldi ondoreko gloria altzinetik erran.
Fedearen indarra: sendatze ero deabrudun batena.
Jesusek bere hiltzea eta biztea bigarrenez altzinetik erran.
Jesusek treutua pagatzeinzu bere eta Pedrorendako.]

1. Sei egunen buruan, Jesusek Pedro, Santiago eta bere anea Juan berekin hartu ztizun, eta haiekin [bakarrik] oihan gora bateala igaten zelarik,

2. Haien [altzinean itxuraldatu zinuen; kalako moduan], ezik haren aurpegia argi eseri baitzen iguzkia bezala, eta haren beztidrak xuri elurra bezala.

3. Eta tenbra berean Moises eta Elias [agertu] zitziaiztezun,[Jesusekin xardokituz Jerusalemen sufritu] behar zuenaz.

4. Orduan Pedrok hitza hartuz, Jesusi erran ziakozun: «Jauna, on zu kemen egon giten. Iduritzen bazaizu, [eser] zkigun kemen hirur (ola); bat zuretako, berze bat Moisesendako eta berzea Eliasendako».

5. Orañik Pedro xardokitzen ziozun, noiz hodoi argi bat haien estaltzra xin baitzen; eta istante berean hodoi beretik [mintzo bat entzun zinuen], erraten zuena: «Kau ene Seme maitea zu, [zoinen baitan] baititut nore gusto eta [atsegin] guziak. Horri behar'zie obeditu».

6. [Mintzo kura aitzean, ikaszaleak] beren aurpegien gañan erori zintzan lurrean, eta lotseria handi batez beztitrik gelditu zintzan.

7. Jesus haiengana ellegatu zinuen, onkitu ztizun eta erran ziabezun: «Xaiki ztie eta etzaziela beldurrik izan!».

8. Begiak goratzen ztielarik etzizien ior ere ikusi, baizik Jesus bakarrik.

9. Oihanetik xaunstean Jesusek [manatua] eseri ziabezun, erranez: «Etzaziela iori erran ikusi ziena, haliketa Gizonaren Semea hilen artetik [bitz] dadien bitartio».

10. Zoinen gañan [ikaszalek] galdin ziakozien:

–Bada, Nola erraten die eskribek lehenbizikorik Eliasek xin behar duela?

11. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Egiazki, Eliasek [lehenago] xin behar'zu, ene bigarren xitea [beño], eta orduan itzulieintzu beren lekuetra gauza guziak.

12. Baia nik [erraten] dauziet Elias ya xin zela, eta etzizien izaundu, baizik ere harekin nahi izan zien guzia egin zizien. Kala haiek Gizonaren Semeari [ere sufriarazieinzie].

13. Orduan [ikaszalek] entendatu zizien Juan [Bateazaleaz] xardoki zabela.

14. Jendek [idurikitzen] zakoien lekuala ellegatrik, gizon bat xin zinuen, eta haren altzinean belauriko eseririk, erran ziakozun:

15. –Jauna, izan zazu [kupida] ene semeaz, zeren [ero baita eta anitz sufritzen] baitu: lazki naro erortzeunzu suan, eta ardura baitare urean.

16. Bera zure [ikaszaler presentatu diabezut] eta etzie sendatu ahal izan.

17. Jesusek errespuestatan erran zizun:

–Arraza jinetsgaitza eta [gaixtoa]! Noiz artio bizi izan behar dut zuekin! Noiz artio behar ote ztiet sufritu! Eraugi daztazie kona.

18. Jesusek [deabruari akar egin] ziakozun, eta mutilkoaganik elki zinuen, zoin momento kartarik altzina sendatrik gelditu baitzen.

19. Orduan [ikaszalek Jesusekin berexrik] xardoki zizien eta erran ziakozien:

–Zer [arraziorengatik] eztugu guk hura egotzi ahal izan?

20. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Zeren fede guti baitzie. Bada, egiazki aseguratzen daziet ezik fede kain handia bazinie nola [alexko bat mostazarna], bazinokeiela erran oihan korri: «Alda zte kemendik kara», eta aldatreunzu. Eta deus'e etzaizie izanen [ezinezko].

21. [Deabru arraza] kau etzu egozten, baizik orazioaren eta baruraren medioz.

22. Hurak Galilean zauden tenbran, Jesusek berritan erran ziabezun: «Gizonaren Semeak gizonen eskuetan [emanik] izan behar'zu.

23. Hileinzie eta hirurgarren egunean [biztreunzu]».

Zoinekin [ikaszaleak arras anitz bihozmindu] zintzan.

24. Kafarnaumera ellegatuz geroz, Pedrogana bi drakmen kontribuzioaren kobrazaleak hurrandu zintzan, eta erran ziakozien:

–Zer, eztua pagatzen zuen Maestruak bi drakmak?

25. «Bai [korixe]», erspondatu zizun.

[Pedro] etsen sartu zelarik, Jesus altzinatu zitziozun erranez:

–Zer iduritzen zaizu, Simon? Lurreko erregek norenganik kobratzen die kontribuzioa edo senxa? Bere [semenganik, edo arrotzenganik]?

26. [Pedrok] erran zizun:

–[Arrotzenganik].

Jesusek [erspondatu] zizun:

–[Korren arauz], semeak libre diaudezu.

27. [Kalarik ere], eztiten eskandaliza, fan zte itxasoala eta egotzazu (amua), eta harpa zazu lehenbiziko arrai elki dadiena; eta agoa edekitzen dakozularik, zilar pieza bat erdenen dakozu bi drakmakoa. Har zazu eta eman dazezu entako eta [zuhaurendako].

HEMEZORTZIGARREN KAPITULOA

[Nor da Jangoikoaren erreinuan handiena?
Estеariak fedea galbidean esertzen dienak.
Parabola artzai onarna. Haurride artean:
bekatua, parkamendua, otoitzea.
Parabola parkatu etzuen zerbitzariarna.]

1. [Orduan ikaszaleak] Jesusengana hurrandu zintzan, eta (gal[d]egingu) kau egin ziakozien:
–Nor izanen da handiena zeruko erreinuan?
2. Jesusek, beregana muttilko bat deitzen zuelarik, haien erdian [eseri] zizun.
3. Eta erran zizun:
–Egian erraten dauziet, [umiltarzunean eta errubagetarzunean] ez bazradie egiten muttilkoer iduri, etzradiela sartren zeruko erreinuan.
4. Nornahiden, bada, [apal] dadien muttilko kau bezala, kori izaneunzu handiena zeruko erreinuan.
5. Eta ene [izenean muttilko bat erran bukatu dudan gisan har lokenak, ni hartzen] nizu.
6. Baia txikillintto ene baitan jinesten dien kuetarik bat eskandaliza lokenak, hobe izan liakiozu lepotik tilintan eser lazoien axto batek mogitzen duen errota-harri koitarik bat, eta kala fan ladien (hondu)ala itxasoaren barnenean.
7. Ai munduaz, dren [eskandaloengatik]! Zeren [sahes] eztaikena izanik ere, gizonen [gaixtotarzunaren agerian] eskandaloak izainten; [kalarik ere], ai gizon kartaz, zoinek eskandaloa ematen baitu!
8. Bada, zure eskua edo zure oña eskandalotako edo bekatuarendako [bide] bazaizu, motzkitzu eta egotzkitzu zuhaurenganik urrun; bada, bizitze eternoan eskumotz edo maingu sartzea hobeago izanen zaizu, ezik bi eskurekin edo bi oñekin su eternoala egotzrik izan.
9. Eta zure begia zuretako bada [bide] eskandaloarna, elki zazu eta egotzazu zuhaurenganik urrun; bizitze eternoan begi bakar batekin sartzea hobeago zaizu, ezik bi begi edoki eta ifernuko suala [egotzrik] izan.
10. Beira zazie txikillin kuetarik ior ez (malmeti)tzea! Zeren [xakitra ematen] dauziet beren aingru guardiazkoak zeruan daudela ene Aita zerukoaren beitartea beti ikusten.
11. Gizonaren Semea galdu zenaren salbatzra xin zu.
12. Gizon batek egun ardi balimaitu, eta kaitarik bat [gal] baledi, zer iduritzen zaizie eginen duela orduan? Eztua eutzien lauretan hogei eta hemeretziak oihanetan, eta fanen [galdu] zaionaren bila?
13. Eta erdeten badu, egian erraten dauziet, karek berak gusto handiagokoa emanen dakola, ezik lauretan hogei eta hemeretzi galdu etzaitzkonek.
14. Kala, etzu zuen Aita zeruan dagonaren borondatea, [gal] dadien bat bakarrik txikillintto kuetarik.
15. Bada, zure aneak zure kontra bekatu egin baleza, edo zomait kulpatan eror baledi, fan zte eta [xuxen] zazu, zuhauren eta haren artean bakarrik egonez. Aitzen baztu, zure anea irabazi bide [d]uzu.

16. Zutaz kasorik egin ezpaleza, orañik balia zte pertsona batez edo bidaz, *guzia konfirmatrik izan dadien bida edo hirur [lekukoren] autoridadeaz.*
17. Eta ai ezpazintza, guzia Elizari erraten dakozu. Baia orañik Eliza berari ai ezpaleza, edoki zazu jentiltako edo publikanotako.
18. [Egiazki erraten] dauziet nore hitza, ezik zuek lurraren gañan lotzen zien guzia, kori berori zeruan lotrik izanen dela; eta lurraren gañan [euzten] zien guzia, kori berori zeruan [eutzrik] izanen dela.
19. Gehago erraten dauziet, ezik zuetarik bida lurraren gañan beren artean [xunta] balite zerbait galditeko, zer nahiden izan ladien izan daila, ene Aita zeruan [dagonak emanen diabezu].
20. Zeren non bida edo hirur ene [izenean] xuntoan erdeten baitra, kan erdeten nuzu ni haien erdian.
21. [Aldi] kontan, Pedro hurrantzen zitzaiolarik, erran ziakozun:
–Jauna, zomat aldiz behar dakot parkatu nore aneari bekatu egiten duen guzia ene kontra? Zazpi aldiz artio?
22. Jesusek erspondatu ziakozun:
–Eztauzut erraten nik zazpi aldiz artio, baizik [ere] haliketa hiruretan hogei eta hamazazpi bitartio, edo zomat nahi den aldiz [gaizkibela] zitzan.
23. Konengatik zeruko erreinua iduri da errege bere mutilen kontuak hartu nahi izan ztuen bati.
24. Haien [kontu] hartzen hasi zelarik, bat presentatrik izan zitziozun, zoinek hamar mila talentu zor baitzezkon.
25. Nola konek ezpaitzuen zertaz paga, bere nausiak manatu zizun saldrik izan ztela hura eta bere emaztea eta bere umeak bere azienda guziarekin, eta kala paga zaila zorra.
26. Orduan mutila, haren oñetra egozten zelarik, otoi egiten ziakozun erranez: «Edoki zazu pazientzia mittika bat, eta nik guzia pagatren dauzut».
27. Nausia mutil kartaz konpasioala mogitrik, libre [eutzi zizun eta zorra ere] parkatu ziakozun.
28. [Baia] mutil kau bere altzinetik elki zenekoz, bere lagunetarik bat [erden] zizun, zoinek egun denario zor baitzaizkon, eta lepotik harrepatzen zuelarik, itotzen zizun erraten zekolarik: «Paga zazu zor dadazuna».
29. [Mutil] lagunak, haren oñetra egozten zelarik, otoi egiten ziakozun erranez: «Edoki zazu pazientzia zerbait enekin, bada guzia pagatren dauzut».
30. Harek, [kalarik] ere, etzizun [aitu] nahi izan, baizik ere fan zinuen eta kartzelean sarrarazi zizun, zor zakona paga zazon bitartio.
31. Berze mutil [haren] lagunek igartzen zena ikustean, arras tristatu zintzan eta bere nausiari agitu zen guzia kontatzra fan zintzan.
32. Orduan bere nausiak deitu zizun eta erran ziakozun: «O mutil gaxtoa, nik zor guzia parkatu nauzun, zeren kala [otoitu] baitzinadan.
33. Etzena, bada, [xuxen, zuk ere zuhauren lagunaz kupida] izan zinezan, nik zutaz izan nuena bezala?».
34. Eta nausia [akartrik, berdugoen eskuetan eman zizun, gaztigatrik] izateko haliketa zor guzia paga zezan bitartio.
35. Kala, mod[u] kontan portatreunzu zuekin ene Aita zerukoa, bakotxak ezpadu bihotzez parkatzen bere anea.

HEMERETZIGARREN KAPITULOA

[Ezkon(gu)a eta dibortzioa. Ezkon(gu)a eta ezkonbagetarzuna.
Jesus eta haurrak. Jesusek gazte abratsari dei.
Abrastarzuna salbatzeko baragarri. Jesusen amorioz
gauza guziak euzten tienen errekonpesara.]

1. Jesusek [elesta kuek bukatu] ztuelarik, Galilearik elki zinuen eta Judeako [herrietra xin zinuen], Jordanen berze aldeala.

2. Nora [jendeketa] handiak segitu baitzekon, eta beren eriak sendatu ztizun.

3. Fariseoak harengana ellegatu zintzan haren tentatzra, eta erran ziakozien:

–Gizon bati [legezko] zaioa bereganik bere emaztea [berextea, zoinahiden arraziorengatik]?

4. Jesusek errespuestatan erran ziabezun:

–Etzia leitu ezik [hastean gizakijendea sortu] zuen karek, *gizon bat bakarrik eta emazte bat bakarra [sortu zuela*,

5. Eta erran zabela: *[Korrengatik] gizonak bere aita eta bere ama eutzien[t]zu, eta bere emaztearekin xuntatreunzu, eta bida haragi bakar batean izaneintzu*?

6. Kala, bada, [yadanik] etzu bida, baizik [ere] haragi bat bakarra. Jangoikoak, bada, xuntatu duena, etzala [berex] gizonak.

7. Haiek [galdegin] zizien:

–Baia zerengatik manatu zuen Moisesek eskritura [*berextearna ematea, eta igortzea emaztearen*]?

8. Jesusek erran ziabezun:

–Zuen bihotzaren gogortarzunaren kausaz [eutzi] zauzien Moisesek zuen emazteak [berextea, baia hastetik] etzinuen kala izan.

9. Kala, bada, [erraten] dauziet ezik nork ere nahi den bere emaztea [igor] lezan, non ez kaso adulterioarnean, eta orañik kaso kontan [ezkon] ladien berze batekin, kalako konek adulterio [egiteinzu]; eta nor ere [ezkon ladien ezkon(gu)tik berexiarekin, baitare egiteinzu] adulterioa.

10. Bere [ikaszalek erran ziakozien]:

–Kalakoa bada gizonaren kondizioa bere emaztearekiko, etzu [merezi ezkontzeak].

11. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Etzu guziak kapaz (erabaki) konendako, baizik kurak zoini goitirik eman izan baitzaie.

12. Zeren osatuak baitzu, beren amen sabeletarik kala sortu [zrenak]; eta osatuak baitzu, [gizonek osatrik izan zrenak]; eta osatuak baitzu, mod[u] batean berak osatu [zrenak], zeruko erreinuaren amorioz, boto kastidadearnarekin. Konendako kapaz izan daiken kura, izan daila.

13. [Aldi kontan altzinean eseri] ziazkotzien muttilko batzu, haien gañan eskuak eser zitzan eta otoi egin zezan. Baia [ikaszalek], molestatzen ziela jinetsiz, [akar egiten ziabezun].

14. Jesusek, [ordea], erran ziabezun: «Euzkitzie bakean muttilkoak, eta ezkitziela (gaitxitu) enegana xiteko, zeren hoiek bezala drenendako zu zeruko erreinua».

15. Eta eskuak gañan eseri zauztelarik, edo bendizioa eman zabelarik, kandik fan zinuen.

16. Orduan gizon gazte bat hurrandu zitziozun, zoinek erran baitzekon:

–Maestru ona, zer obra on behar dut egin, bizitze eternoa [xerdiesteko]?

17. [Jesusek] erspondatu ziakozun:

–Zerengatik deitzen nuzu «ona»? Jangoikoa bakarrik zu on dena. Berze gisatan, bizitze eternoan sartu nahi bauzu, beirazkitzu ongi mandamentuak.

18. Harek erran ziakozun:

–Zer mandamentu?

Jesusek erspondatu zizun:

–*Etzu hilen; etzu adulteriorik [eginen]; etzu ebatsien; etzu (aitorgo) faltsurik goratren.*

19. *(Ohora) [zkitzu] zuhauren aita eta zuhauren ama; eta onets zazu zure [lagun hurkoa] zuhaur bezala.*

20. Gazteak [erran ziakozun]:

–Koiek guziok goardatuitzut nore gaztetarzuneti hunat. Zer gehago falta zaida?

21. Jesusek erspondatu ziakozun:

–Perfet izan nahi bauzu, fan zte eta sal zazu zun guzia, eta eman dazezu [kaukalierrer] eta zeruan ontarzun handi bat izaneunzu; xin zte gero eta segi nazazu.

22. Gazteak hitz kuek aitu ztuelarik, tristezaz beztitrik erretiratu zinuen, eta [kori] zinuen, zeren ontarzun handiak baiztuen.

23. Jesusek orduan bere [ikaszaler] erran ziabezun:

–Egian erraten dauziet abrats bat [nekez] sartren dela zeruko erreinuan.

24. Eta orañik gehago erraten dauziet: [aisago] dela kamello bat orratz baten begitik igartzea, ezik abrats bat zeruko erreinuan sar dadien.

25. Proposizio kuek aitrik, [ikaszaleak harritrik] ziaudezun, beren artean erranez:

–Nor, bada, ahal izanen da salba?

26. Baia Jesusek [ontarzunarekin] miriten zabelarik, erran ziabezun:

–Gizonendako kau [ezinezko] gauzara zu; baia Jangoikoarendako gauza guziak tzu posible.

27. Orduan Pedrok erran ziakozun:

–Ongi ikusteinzu guk gauza guziak eutzi tugula eta segitu ztugula. Zoin izanen da, bada, gure errekonpensara?

28. Jesusek erspondatu ziakozun:

–Egian erraten dauziet, zuek zoinek segitu bainuzie, erresurrekzio jeneralaren egunean, noiz Gizonaren Semea bere Majestadearen [tronuan] eserien baita, zuek baitare eserien zradiela hamabi katedraren gañan, eta Israeleko hamabi tribuak juzgatreintziela.

29. Eta nornahidenek ene [izenarengatik] etse eutzi bailuken, edo anae, edo arreba, edo aita, edo [emazte, edo seme edo alorrik], egun aldiz gehago [hartreinzu ontarzun handiagokoetan]; eta gero bizitze eternoa gozatreinzu.

30. Eta mundu kontan lehenbizikoak zren anitz azkenak izaneintzu, eta azkenak zren anitz lehenbizikoak izaneintzu.

HOGEIGARREN KAPITULOA

[Parabola ardantzeko lanzaleena. Jesusek bere hiltzea eta biztea hirugarrenez altzinetik erran. Zebedeoren semeen handinahia. Jesusek bi itsu sendatu Jerikon.]

1. Zeren zeruko erreinua familiako aita bati iduritzeunzu, zoin argiastean bere ardantzealako [lanzale bila] elki baitzen.

2. Haiekin eguneko denario batean konformatzen zelarik, bere ardantzeala egorri ztizun.

3. Gero [bedratzigarren] orduala hurran elkitzen zelarik, plazan berze batzu [ikusi] ztizun, zoin eskua eskuaren gañan baitzauden.

4. Eta erran ziabezun: «Ordezie zuek [ere] ene ardantzeala, eta [xuxen] izanen dena emanen dauziet».

5. Eta hurak fan zintzan.

Berze bi aldiz elki zinuen [eguerdiko hamabietan eta artsaldeko hiruretan], eta gisa berean egin zizun.

6. Azkenik [borzgarren] orduala hurran elki zinuen, eta berze batzu ikusi ztizun, orañik deus'e egin bage zaudela, eta erran ziabezun: «Nola zaudie kemen aguer egun guzian?».

7. Erspondatu ziakozien: «Zeren iork ezpaigitu [hartu] zu». Erran ziabezun: «Bada, fan ztie baitere zuek ene ardantzeala».

8. Iguzkia sartrik, ardantzearen xabeak bere hazedorari erran ziakozun: «Dei zkitzu [lanzaleak eta paga dazezu soldatara, azkenekin hasten zrelarik eta lehenbizikoekin bukatuz].

9. Azken orduan fan zrenak xinik, bada, bakotxak denario bat [hartu] zizien.

10. Azkenik, lehenbizikoak ellegatu zrelarik, gehago emanen zabela [botzik] ziaudezun. Baia [kalarik ere kuek berdinki hartu] zizien bakotxak bere denarioa.

11. Eta [hartzean, marmarra egiten] zizien familiako aitaren kontra.

12. Erranez: «Azken kuek etzu [lan egin] oron batez beño gehago, eta gurekin [berdin egin tzu, zoinek xasan] baitugu egunaren eta beroaren pizua!».

13. Baia harek errespuestatan erran ziakozun haitarik bati: «Adiskidea, nik eztauzuk [xuxenbagekeriarik] egiten. Etzraia ajustatu enekin denario batean?

14. Har zazu, bada, zurea dena eta fan zte. Nik nahi zut koni eman, azkena bada ere, kainberze nola zuri:

15. Akaso eztroketa nik egin noretik nahi'tana? Edo behar dua izan zure begiak gaxto edo [bekaizti], zeren ni bainiz onik?».

16. [Gisa] kontan, mundu kontan azkenak [drenak] zeruko erreinuan lehenbizikoak izaneintzu, eta lehenbizikoak azkenak. Egiazki anitz ditzu deituak, baia guti [hautatuak].

17. Jesus Jerusalemerako bidean esertzen zelarik, bere hamabi [ikaszaleak] aparte hartu ztizun eta erran ziabezun:

18. «Mirin zazie Jerusalemera faten grela, non Gizonaren Semeak [apezburuer eta eskriber emanik] izan behar baitu, eta hiltzeala [kondenatreinzie].

19. Eta jentiler [emaneinzie, gaizkibelatrik eta zehatrik] eta kuruzifikatrik izan dadien; baia hura hirurgarren egunean [biztreunzu], bere glorian sartzeko».

20. Orduan Zebedeoren semeen amara bere bi semekin [hurrandu zitziozun eta gurtu zizun erranez] zomait grazia galdin nahi [z]akola.

21. Jesusek erran ziakozun:

–Zer nahi'zu?

Eta harek erspondatu ziakozun:

–[Mana] zazu ene bi seme kuek izan zaien beren [katedrara] zure erreinuan, batek zure [eskuiean eta berzeak zure ezkerrean].

22. Baia Jesusek errespuestatako eman ziakozun:

–Eztakizu zer galditen zun. Ahal izanen zia edan nik edan behar'tan Kaliza [saminarna]?

–Bai, ongi diokezugu –[erran ziakozien].

23. [Jesusek erran ziabezun]:

–Ene kaliza bai edaneunzie, baia katedrara ene eskuiala edo ezkerreala etziaidazu tokatzen [ematea] zuer, baizik ere izaneunzu kaiendako, zoinendako ene Aitak [prestatu] baitu.

24. Berze hamar apostoloek kau entendatzen zielarik, bi anaen kontra [akartu] zintzan.

25. Baia Jesusek beregana deitu ztizun eta erran ziabezun: «[Badakizie] nazionetako prinzipek beren erriak [pean idokitzeintiela], eta haier hurran dren [handienek manatzen diela kaietan] ausardiarekin.

26. Zuen artean etzu kala behar izan; baizik nork ere nahi baitu handiago izan zuen artean, zuen zerbitzuko mutila izan behar'zu.

27. Eta zuen artean lehenbizikoa izan nahi duenak, zuen [mutil] izan behar'zu.

28. Kalako gisan, nola Gizonaren Semea ezpaita zerbitzatrik izatra xin, zerbitzatzra baizik, eta bere bizia ematra anitzan erredenziotako».

29. Jerikorik elkitzean, jendeketa handia segituz fan zitziozun.

30. Eta huna nonziela, nola bi itsu bide baxterrean eseririk, Jesus igartzen zela erraten aitu zielarik, oihu egiten hasi zren erranez:

–Jauna, Dabiden Semea, edoki zazu [kupida] gutaz!

31. Jendek [akar egiten ziabezun] ixil ztela. Haiek, karekin ere, oihua gehago goratzen zizien, erranez:

–Jauna, Dabiden Semea, izan zazu [kupida] gutaz!

32. Jesus gelditu zinuen eta, deitzen ztuelarik, erran ziabezun:

–Zer nahi'zie egin dazaizietan?

33. Haiek erspondatu ziakoizen:

–Jauna, edekitela gure begiak!

34. Jesus konpasioala mogitrik, beren begiak onkitu ztizun, eta istante berean ikusi zizien. Eta haren atzean fan zintzan.

HOGEITABATGARREN KAPITULOA

[Jesus Jerusalemen Mesiastako hartrik sartu.
Tenploa herri guziendako otoitze etse.
Pikuarbolearen maradikazioa: fedea eta otoitzea.
Nondik Jesusen potrea? Parabola bi semena.
Parabola labrari hilzalena.]

1. Jerusalemera hurrantzen zelarik, Betfageren bistala ellegatu zrenekoz, Oliboen oihanaren barreneala, Jesusek bi [ikaszale] egorri ztizun.

2. Erraten zabelarik:

–Fan ztie zuen altzinean ageri den [herrixko kortra, eta berehala] astaña bat lotrik erdeneunzie eta bere [putxikoa harekin. Laza] zkitzie eta eraugi daztazie.

3. Eta norbaitek zerbait erran balazaizie, ersponda dazozie: «Jaunak behar [tu], eta berehala ermatra eutzien dauzkitzie».

4. Kau guzia agitu zinuen profetak erran zuenaren kunplimentutan:

5. *Erran dazozie Sioneko alabari: Hara, zure Erregea [eskukoitarzunez] beterik xiteunzu zuregana, astaña baten gañan eseririk; eta bere [putxikoa ume zu buztarriala zebatrik] dagon karna.*

6. [Ikaszaleak] fanik, Jesusek manatu ztuena egin zizien.

7. Astañara eta [putxikoa] eraugi zizien, eta beren beztidrez [xuntatu] ztizien, eta [Jesus] gañan eserarazi zizien.

8. Jendeketa handi batek beren beztidrak hedatzen ztizien bidea gaindi; berze batzuk erramuak edo arbolen hostoak ebakitzen ztizien, eta igari behar zuen lekutik esertzen ztizien.

9. Kainberze jende [Jesusen] altzinean faten zrenek, nola gibletik xiten zrenek, [oihu egiten] zizien erranez:

Hosana, osasuna eta gloria Dabiden Semeari! Benedikatrik izan daila Jaunaren [izenean] xiten dena! Hosana zeruen gorenean!

10. Jerusalemen kala sartu zen [baikoz, ziudade guzia ikaretu] zinuen, anitzek erraten zielarik:

–Nor da kau?

11. Jendek erspondatzen zizien:

–Kau Jesus zu, profetara, Galileako Nazaretekoa.

12. Jesus Jangoikoaren tenploan sartu zelarik, kandik kanpoala egotzi ztizun kan saltzen zien eta erosten zien guziak, eta bankeroen edo kanbiazalen mahaiak lurreala egotzi ztizun, eta katedrak urzoak sakrifizioetako saltzen ztienenak.

13. Eta erran ziabezun: «Eskribitrik diozu: *Ene etsea 'etse orazioarna' deitrik izaunzu*, baia zuek (harpe) bat [ebaszaleena] eginik daukazie».

14. Tenbra berean, tenploan harengana [anitz] itsu eta maingu ellegatu zintzan, eta sendatu ztizun.

15. Baia [apezburuak eta eskribak mirakullu] egiten ztuenak ikustean, eta muttilkoak, zoinek tenploan [oihu egiten] baitzien erranez: «Hosana Dabiden Semeari!» [ikustean, akartu] zintzan.

16. Eta erran ziakozien:

–Zuk aitzen zua kuek erraten diena?

Jesusek erspondatu ziabezun:

–Bai. [Eta zuek] etzia behin ere leitu profeziara *Muttilkoen eta bularreko haurren agoetarik zu nondik elki baitzinuen alabanzarik [xuxenena]*?

17. Eta euzten ztuelarik, zibidadetik kanpo elki zinuen Betaniara, eta kan gauaren igartzra gelditu zinuen.

18. Biramun goizean, zibidadeala itzultzen zelarik, gosetu zinuen.

19. Eta bide ondoan pikuarbole bat ikusi zuelarik, haren sahetseala hurrandu zinuen, [baia kartan] etzuelarik erdeten baizik hosto bakarrik, erran ziakozun: «Behin ere eztaila sor zureganik fruturik!».

Eta pikuarbolea berehala ehartrik gelditu zinuen.

20. [Ikaszalek] kau ikusten zielarik, [miretsi] zintzan eta erraten zizien:

–Nola ehartu da istante batean?

21. Jesusek erspondatuz erran ziabezun:

–Egian erraten dauziet ezik fede balimauzie eta ezpazradie dudatuz ebiltzen, ez solo egineunzie kau pikuarbolearna, baizik ere orañik erraten dakozienean oihan koni: «[Txurrusta] zte eta egoz zte itxasoala», kala egineinzu.

22. Orazioan eskatzeunzien guzia, nonta izan zazien fede, [xerdietsiunzie].

23. [Jesus] tenploala ellegatrik, erakusten zegonean, [apezburuak eta herriko zaharrak] edo senadoreak harengana hurrandu zintzan, eta galdin ziakozien:

–Zer autoridaderekin egiteintzu gauza kuek? Nork eman dauzu kalako [potrea]?

24. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Nik [ere galde] bat nahi dauziet egin, eta kartra erspondatzen badazie, berehala erranen dauziet zer autoridaderekin egiteintutan gauza kuek.

25. Joanen bautismoa nongoa zen, zerukoa ala gizonena?

Haiek beren baitan [pentsatzen] zizien erranez: «'Zerukoa' erspondatzen badugu, erranen diaukuzu: Bada, zertako etzie jinetsi haren baitan?

26. 'Gizonena' erspondatzen badugu, herriari beldur izan behar'zugu. Zeren guziek ziaukazien Joan profeta bat bezala».

27. [Korrengatik, Jesusi erspondatu] ziakozien erranez:

–Eztiakizugu.

Harek [berehala erran] ziabezun:

–Bada, nik ere eztauziet zuer erranen, zer autoridaderekin egiteintutan gauza kuek.

28. Zer iduritzen zaizie erratra faten nizanaz? Gizon batek bi seme zitzun, eta lehenbizikoa deitzen zuelarik, erran ziakozun: «Semea, ordezu egun [lan egitra] ene ardantzeala».

29. Harek erspondatu zizun: «Etzut nahi». Baia gero, [damutrik], fan zinuen.

30. Bigarna deituz, gisa berean erran ziakozun. Eta harek «Faten nuzu, Xauna» erspondatu bazuen ere, etzinuen fan.

31. Bietarik zoinek egin zuen aitaren borondatea?

[Haiek erran zizien]:

–Lehenbizikoak.

Jesusek altzina segitu zizun:

–Egian erraten dauziet publikanoak eta emazteki [galduak] zuen altzinean fanen drela eta Jangoikoaren erreinuan sartren drela.

32. Joan zuengana justiziaren sendak gaindi xin zenaz gañetik, eta ezpaitzinien jinetsi, publikanoek eta emazteki [galduek] jinetsi zien tenbra berean. Baia zuek, kau ikusrik ere, etzintzaien mogitu gero penitenziala, haren baitan jinesteko.

33. Ai zazie berze parabola bat. Familiako aita bat zinuen, zoinek ardantze bat [landatu] baitzuen, eta hesiz hertsi zizun; eta aitzurtuz, berean lako bat egin zizun, eta torre bat egin zizun. Gero arrendoan eman ziabezun kalako labrari batzuri, eta [herrialde] urrun bateala fan zinuen.

34. Frutuen tenbrara xinik, bere mutilak errenteroetra egorri ztizun, karen frutua kobra zezaien.

35. Baia errenteroek mutiler [atakatzen] zabelarik, bata maklukaldistatu zizien, berzea hil zizien eta berzea harrikaldistatu zizien.

36. Bigarren aldian mutil berriak egorri ztizun numero gehagokoan ezik lehenbizikoak, eta gisa berean tratatu ztizien.

37. Azkenik bere semea egorri ziabezun, bere baitan erraten zuelarik: «Ene semea gutienaz errespetatreinzie».

38. Baia errenteroek semea ikustean, beren artean erran zizien: «Kau herederoa zu, xin ztie! Hil zagun eta egin [giten ardantzearen xabe]».

39. Eta harrepatzen zielarik, ardantzetik kanpo egotzi zizien eta hil zizien.

40. Ardantzearen xabea itzuli ondorean, zer eginen dabe labrari kaier?

41. Haiek erran zizien:

–Egineinzu jende kau kain gaxtoa [gaizki] fini daila, eta bere ardantzea arriendoan berze labrari batzuri emanen diabezu, frutuak beren tenbretan pagatreintiener.

42. Jesusek [erran] ziabezun:

–Bada, etzia behin ere Eskrituretan leitu:

Harri [etse-eginzalek baztertu] ziena, kori bera xin zela giltzarria izatra. Jauna zu kau gure egunetan egin duena, eta gure begietan gauza [miresgarria] zu?

43. Korren berorrengatik erraten dauziet, zuer gendrik izanen zauziela Jangoikoaren erreinua eta jende obra onen frutuak egin zkiener emanik.

44. Kala zu, ezik nornahiden harri konen gañan eror ladien, puskakatreunzu, eta harek sijetatreinzu kura, zoinen gañan eror ladien juizioko egunean.

45. Jesusen parabola kuek aitrik, [apezburuek] eta fariseoek haitaz mintzo zela entendatu zizien.

46. Eta preso egin nahi zielarik, herriari beldur izan zizien; zeren profeta bat bezala miriten baitzakoien.

HOGEITA BIGARREN KAPITULOA

[Ezteien parabola.

Zesararna Zesarari eta Jangoikoarna Jangoikoari.

Hilen bizteaz. Manurik nausiena.

Kristo Seme eta Xaun Dabidena.]

1. Arte kontan Jesusek, platikara segitzen zuelarik, berriro parabolen medioz xardoki ziabezun, erranez:

2. –Zeruko erreinuan agitzeunzu kalako errege bati gertatu zitzaiona [bezala], zoinek bere semearen ezteiak zelebratu baiztuen.

3. Bere mutilak konbidatuak deitzra egorri ztizun, baia kuek etzizien xin nahi izan.

4. Bigarren aldian [berze mutil batzu egorri ztizun], bere partetik komidatuer errateko [manuarekin]: «Bazkari handia [prestatrik] diaukazut. Nore xahalak eta berze animale gizenduak hil tzaien egin zut, eta guzia [prestatrik] diozu. Xin ztie, bada, ezteietra».

5. Baia haiek etzizien kasorik egin. Nor bere [bordala] fan zintzan, eta nor bere negozio egunorozkoetra.

6. Berzek mutilak harpatu ztizien eta, [bidebagekeriaz] bete ondorean, hil ztizien.

7. Erregeak kau aitrik, [akarrean] etxeki zinuen, eta bere tropak egortzen ztuelarik gizon hilzale [kurak hil ztizun eta beren zibidadea erre] zizun.

8. Orduan bere mutiler erran ziabezun: «Ezteietako [prestatzeak] eginik diaudezu, baia komidatuak etzu [merexizale haitra fateko].

9. Fan ztie, bada, biden [elkiguetra, eta erdeteintzien] kurak guziak komida zkitzie ezteietra».

10. Istantean mutilek, bidetra elkitzen zrelarik, erden ztien guziak bildu ztizien, onak eta gaxtoak; kalako mod[u]an, ezik ezteietako salara bete baitzen jende [mahaian] eseri zrenez.

11. Gero erregea komidatuak ikustra sartzen zelarik, erreparatu zizun kan gizon bat etzela faten ezteietako beztidrekin.

12. Eta erran ziakozun: «Adiskidea, nola sartu zra zu kemen ezteietako beztidrara bage?». Baia hura mututu zinuen.

13. Orduan erregeak bere [mahai-zerbitzazaler] erran ziabezun: «Oñeskuetan lotrik, bulkaka egotzazie kanpo iluntarzunetra, non ez baita izanen baizik ikare eta horz-marraska».

14. [Zeren deituak anitz baitra eta guti hautatuak].

15. Orduan fariseoak erretiratu zintzan beren artean tratatzeko [Jesus] nola harpatu ahal izanen zien [ustebageki] erran zezanean.

16. Eta kontako bere [ikaszaleak] egorri ziazkotzien zomait herodianorekin, zoinek erran baitzekoien:

–Maestrua, badiakizugu egiati zrela eta Jangoikoaren bidea erakusten zula, edo legearna, egiari konforme, ioren errespetorik bage, zeren ezpaizu miriten personen kalidadeari.

17. Kau xakinik, erran dazaikuzu zer iduritzen zaizun kontaz: (Legezko) daia Zesarari treutu pagatzea, ala ez?

18. Jesusek, haien [gaixtakeria] izauten zuelarik, erspondatu zizun:

–Zerengatik tentatzen nuzie, [itxurazaleak]?

19. Erakuts daztazie monedara, zointaz treutua pagatzen baita.

Haiek denario bat [erakutsi] ziakozien.

20. Jesusek erran ziabezun:

–Norna da imajen kau, eta inskrizio kau?

21. [Erspondatu ziakoizien]:

–Zesararna.

Orduan [erran] ziabezun:

–Bada, eman zazie Zesarari Zesararna dena, eta Jangoikoari Jangoikoarna dena.

22. Errespuestarekin [miresrik] gelditu zintzan, eta [Jesus] euzten zielarik, fan zintzan.

23. Egun kartan berean, saduzeoak xin zintzan, zoinek erresurrekzioa ukatzen baitie, kau [galditra]:

24. –Maestrua, Moisesek manatu zizun: *Norbait umerik bage hiltzen bada, anea [ezkon] daila haren emaztearekin, bere anaeari (ondokoak) emateko.*

25. Kasoa zu ezik gure artean zazpi anae baitzren. Lehenbizikoa [ezkondrik], hil zinuen. Eta umerik etzuelarik izan, bere emaztea bere aneari eutzi ziakozun.

26. Orbat agitu zitziozun bigarnari, eta hirurgarnari, haliketa zazpigarneala bitartio.

27. Eta haien guzien atzean emaztea hil zinuen.

28. Orai, bada, erresurrekzioa kala ellega dadienean, zazpietarik zoinena izan behar du emazte, guziena izan zela xakina delarik?

29. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Anitz huts eginik zabiltzaie, Eskriturak ez entendatuaz, eztare Jangoikoaren [potrea].

30. Zeren [biztearen] ondorean, ez gizonek etzie hartren emazterik, eztare emaztek etzie hartren gizonik, baizik ere Jangoikoaren aingruak bezala izaneintzu zeruan.

31. Eta hilen [biztearen gañan] etzia leitu hitz Jangoikoak erranik dauzkatzienak?

32. *Ni nuzu Abrahamen Jangoikoa, Isaaken Jangoikoa eta Jakoben Jangoikoa*. Orai, bada, Jangoikoa etzu Jangoiko hilena, biziena baizik.

33. Herriak [kori] aitu zuelarik, bere dotrinaz [harritrik] ziozun.

34. Baia fariseoak, [Jesusek saduzeoer agoak estali zauztela xakitean, bilguala] bildu zintzan.

35. Eta haitarik batek, doktor legearna[k], haren tentatzeko galdin ziakozun:

36. –Maestrua, zoin da [manu nausia] legearna?

37. Jesusek erspondatu ziakozun:

–*Onetsienzu Jaun Jangoikoa zure zuhauren bihotz guziaz eta zuhauren arima guziaz* eta zuhauren entendamentu guziaz.

38. Kau zu [manu] handiena eta lehenbizikoa.

39. Bigarna iduri koni zu, eta kau zu: *Onetsienzu zuhauren [lagun hurkoa] zuhauren burua bezala.*

40. Bi [manamentu kuetan biltzeintzu] lege guzia eta profetak.

41. Fariseoak kemen xunto zaudelarik, Jesusek kau [galdin] ziabezun:

42. –Zer iduritzen zaizie zuer Kristoz edo Mesiasez? Noren Seme da?

[Erran ziakozien]:

–Dabiden.

43. [Jesusek, orduan]:

–Bada, nola Dabidek espiritu profetarnean bere «Jauna» deitzen du, erraten duenean:

44. *Jaunak ene Jaunari erran zizun: Eser zte ene eskuiala, nik zure etsaiak zure oñen peko esertzeintutan artean*?

45. Bada, Dabidek bere Jauna deitzen badu, nola daike agi bere seme izan dadien?

46. Zointra iork etziakozun erspondatu ahal izan hitz bat ere, [eta] egun kartaz geroz, etzinuen izan nor [ausar zedien egitra hari galde] gehagorik.

HOGEITA HIRURGARREN KAPITULOA

[Jesusek lege-maestruak eta fariseoak (gaitzesi).
Jesus Jerusalemengatik aieika.]

1. Orduan Jesusek bere hitza herriari eta bere [ikaszaler xuxenduz], erran ziabezun:
2. –[Lege-maestruak] eta fariseoak Moisesen katedran eseririk diaudezu.
3. [Egin] zazie, bada, erran dazaizien guzia; baia etzaziela [konpon] zuen (egikera)ra berenarnaz, zeren haiek egin behar dena errateinzie, eta etzie egiten.
4. [Agitzen] dena zu ezpartatuz faten drela karga pizu eta [xasan] eztaiztekenak, eta berzen soñegietan esertzeintzie, berek eripuntara eztielarik arrimatu nahi mogitzeko.
5. Bere [egite] guziak gizonek ikuskiengatik egiteintzie; korrengatik ermateintzie legearen hitzak larru puska zabalagokoetan, eta luzeago egubaxter beren beztidrarna.
6. Baitare onetsteintzie abarietan lehenbiziko [xaserlekuak], eta lehenbiziko katedrak sinagogetan.
7. Eta plazetan salutatrik izatea [onesten die, eta gizonek «Maestru» erratea].
8. Zuek, korren kontra, etzie «Maestru» salutatrik nahi izan behar, zeren bat bakarrik baita zuen Maestrua, eta zuek guziok zradie anae.
9. Eztare behar'zie [deitu] ior lurraren gañan «aita» zuena; bada, bat bakarrik zu zuen egiazko aita, zoin [zeruan baitago].
10. Etzie ere preziatu behar [«Giazale»] deitrik izateaz, zeren Kristo baita zuen [giazale] bakotxa.
11. Azkenik, zuen artean handienak zuen auzamutil edo zerbitzazalea izan behar'zu.
12. Eta nor ere nahiden gora dadien, bera umillatrik izaneunzu; eta nor ere nahiden umilla dadien, goratrik izaneunzu.
13. Baia, ai zuetaz, eskribak eta fariseo [itxurazaleak], zoinek gizoner hersten baitzie zeruko erreinua! Zeren ez zehaurok sartzen zradie eta eztare etzie euzten sartzra sartzen zrenak, ene baitan jinets zaien (galarazten) dabezielarik.
14. Ai zuetaz, eskribak eta fariseo [itxurazaleak]! Emazte alargunen gauzak [iresten tzie], orazio luzeak egiteko [estakuruarekin; korrengatik (erabagi) anitz gogorragokoa hartreunzie]!
15. Ai zuetaz, eskribak eta fariseo [itxurazaleak]! Zeren itxasoa eta lurra gaindi baitzabiltzaie, jentil baten konbersioa [xerdiesteagatik], eta konbertitu ondorean, zehauren ejenploaz eta dotrinaz egiteunzie merexi zan ifernua bi aldiz gehago ezik zehaurek!
16. Ai zuetaz, itsu giazaleak, zoinek erraten baitzie: «Batek tenploagatik juramentu egitea etzu deus'e, etzu [behartzen]; baia tenploko urrearengatik juramentu egiten duena [behartrik] diozu».
17. [Mensak] eta itsuak! Zerk du gehago balio, ala urreak edo ala tenploak, zoinek urrea [sandutzen] baitu?
18. Eta errateuntzie: «Norbaitek aldareaz juramentu egiten badu, etzu [baliorik]; baia nork [haren] gañan eseri (oberta)z juramentu egin zan, karek zor zu».
19. Itsuak! Zerk du balio gehago, ala (obertak) edo ala aldareak, zoinek [sandutzen] baitu (oberta)ra?

20. Nornahidenek, bada, aldareaz juramentu egin zan, juramentu egiteintu hartaz eta haren gañan esertzen dren gauza guziez;
21. Eta nork tenploaz juramentu egiten baitu, hartaz egiteinzu juramentu, eta Jaun kartaz zoin kan [eseririk] baitago;
22. Eta zeruaz [juramentu egiten duenak], juramentu egiteinzu Jangoikoaren tronoaz eta kartaz, zoin kan eseririk baitago.
23. Ai zuetaz, eskribak eta fariseo [itxurazaleak! Mendaren, eneldoren eta kominoaren] tekuma pagatzen baitzie, eta legearen gauza [hoberenak baxtertuitzie, nola xuxentarzuna, kupida] eta fede ona baitra! Kuek [egin] behar zinuzkeie, kurak eutzi bage.
24. Giazale itsuak! Edateunzien guzia [irazten] tzie beldurrak muxkito bat dagonez ote, eta kamello bat [iresteuntzie].
25. Ai zuetaz, eskribak eta fariseo [itxurazaleak]! Kopara eta platera kanpoko aldetik xautzen [tzie], eta barnetik, bihotzean, bizio ebatstekoarnaz eta zikinkeriaz beterik zaudie!
26. Fariseo itsua! Garbi zazu lehenbizikorik barneko aldetik kopara eta platera, kanpoko aldea garbi izan dadien nahi bauzu.
27. Ai zuetaz, eskribak eta fariseo [itxurazaleak]! Zeren iduri baizradie hobi xurituer, zoin gizoner kanpoko aldetik eder iduritzen baitzaite, eta barnetik hilen hezurrez eta usteltarzun guziaz beterik baitaude.
28. Kala, baitare, kanpotik [xuxen zradiela] erakusteunzie gizoner; baia barnean [itxurazalekeriaz] eta gaxtotarzunez beterik zaudie.
29. Ai zuetaz, eskribak eta fariseo [itxurazaleak]! Profeten hobiak [egiten tzie eta xuxenen monumentuak apaintzen].
30. Eta errateuntzie: «Gure aita eta amen tenbran bizi izan bagintza, profeten hiltzean ez gintzazun [hobendun] izanen».
31. [Kala] zehauren kontra (aitorgo) emateunzie, profetak hil ztien kaien seme zradiela.
32. [Buka] zazie, bada, zuen aiten negurria betez, Mesias hilarazik.
33. [Sugeak, arraza sugeena]! Nola izanen da posible [sahes] zazien ifernuko suala kondenatrik izan zteien?
34. Zeren horra nonziela ezik ni zuer profetak eta [xakintsuak] egortzra bainua, eta eskribak, eta kaitarik batzu[ri lepoa ebaki]eintzie, berze batzu kuruzifikatreintzie, berze batzu [zehatreintzie], eta zibidade batetik berzeala segituz ebilieintzie.
35. Zuen gañan [eror] dadien lurraren gañan ixuri odol [hobenbage] guzia, Abel [xuxenarenganik] hasi eta haliketa Zakarias, Barakiasen semearen odola bitartio, zoin tenploaren eta aldarearen artean hil baitzinien.
36. Egian erraten dauziet gauza kuek guziok [erorien drela egungo belaunaldiaren] gañan.
37. Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen [tzuna] eta zuregana egorririk drenak harrikaldistatzen! Zomat aldiz bildu nahi izan nituen zure semeak, olloak bere txitak magalen pean biltzeintuena bezala, eta zuk etzu nahi izan?
38. Huna nonziela, ezik zuen etsea [husrik] gelditren dela.
39. Eta kala erraten dauziet, tenbra gutiren buruan ez nuziela [berriz] ikusiren, haliketa, Mesiastako (aitor)tzen nuzielarik, [kau] erran zazien bitartio: *Benedikatrik izan deila Jaunaren [izenean] xiten dena.*

HOGEITA LAURGARREN KAPITULOA

[Tenploa deseginik izanen. Azkentzearen altzineko señaleak.
Aurkintze izigarria. Gizonaren Semearen xitea.
Eztakizie kau guzia noiz izanen den: egon prest!
Zerbitzuan iraun (leial)].

1. Jesus tenplotik elkrik, baziazun ebliz, bere [ikaszaleak ellegatu zitzaizkonean tenploko etseak erakusteko].

2. Baia harek erran ziabezun: «Ikusteunzie kori guziori? Bada, nik [egiazki] erraten dauziet, kortarik eztela gelditren harria harriaren gañan».

3. Gero, Olibareko oihanean eseririk zegolarik, [ikaszaletarik] zomait ellegatu zintzan eta sekretuan galdin ziakozien:

–Erran dazaikuzu, noiz agitren da kori? Eta zoin izanen da zure xitearen señalea eta munduaren [azkentzearna]?

4. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Beira zazie etzitzaiela iork engaña!

5. [Zeren] anitzek xin behar baitie ene [izenean], erranez: «Ni nuzu Kristo edo Mesias», eta jende anitz engañatreinzie.

6. Gisa berean aitreinzie atakeen eta gerlen berriak. Etzitiela lotsa korrengatik; bada, gauza kuek altzinetik agitu behar badie ere, kori etzu orañik azkentzea.

7. Egia'uzu nazionea nazionearen kontra armatren dela, eta erreinu bat berze erreinu baten kontra; eta [izurriteak] izanen drela, eta goseak, eta [lurrikareak] franko lekutan.

8. Baia kori guziori orañik etzu baizik [hastea] gaitzena.

9. Tenbra kartan juezer [emanik] izanen zradie tormentuetan eseririk izateko, eta hiltzea emanen dauzie, eta jende [guziek baztertrik] izanen zradie ene [izena den kasoz, ene ikaszaleak] izanaz.

10. Zoinekin anitzek orduan eskandalo [sufritreinzie], eta traizio egineinzie batzuk berze batzuri, eta alkarren artean [higuin] izaneinzie.

11. Profeta faltsu [anitz agertreunzu], zoinek gaxtarazien baitie anitz jende.

12. Bizioen [sobraren] kasoz, anitzen karitatea hoztreunzu.

13. [Baia azkenalaño irauten] duena, kori zu salbatren dena.

14. [Bitartio] Jangoikoaren erreinuko Ebanjelio kau mundu guzian predikatreunzu, testimoniotan nazione guziendako. Orduan xineunzu [azkentzea].

15. Daniel profetak altzinetik erran [profanazale higuingarria] leku sanduan dagola ikusteunzienean, nork lei zan kau [entenda] zala ongi,

16. [Orduan] Judean bizi drenek ihesi egizaiela oihanetra;

17. Etsagañan dagona eztaila xauns edo sar, bere etsetik gauza elkitzra;

18. Eta kanpoan [dagona] eztaila itzul bere arropara hartzra.

19. Baia ai [haurdun edo haurrak] hazten dauden kaitaz, eta egun kaitan eztrokeien prisaka ihesi egin!

20. Otoi egin zazie Jangoikoari, bada, zuen ihesia eztadien neguan edo laronbatean izan, zointan guti ebil baitaiteke.

21. Zeren orduan [bihozmina kain ikaregarri izanen baita, munduaren hastetik] hasita orai artio kari iduririk izan ez den gisan, [eta] etzu ere izanen behin ere.

22. Eta egun kurak ez llaburzra, ior ere ez liaikezu salba; baia [egun kurak gutitrik izan behar'zie hautatuen] amorioz.

23. Kalako tenbran, norbaitek erraten badauzie «Kristo edo Mesias kemen diozu» edo «Kan», etzaziela jinets.

24. Zeren Kristo faltsuak eta profeta faltsuak [agertreintzu eta mirakullu handiak eta egite harrigarriak egineintzie]; kalako mod[u]an, ezik [baita hautatuak ere, posible balitz, gezurrean] eror bailaizke.

25. Eta ikusteunzie altzinetik erran dauzietala.

26. Kala erran balazaizie ere: «Huna nonziela kemen Mesias, zoin desiertoan baitago», etzitiela kara fan; edo berzañez: «Mirin zazie etsearen barnenean dagola», etzaziela jinets.

27. Zeren kala nola txilimistara [ekialde]tik elkitzen baita eta istante batez ikustra euzten baita [oieskialaño], gisa berean izaneunzu Gizonaren Semearen xitea.

28. Korputza nonahiden erden ladien, kan xuntatreinzu (arranoak).

29. Baia berehala, egun kaitako [bihozminaren] ondorean, iguzkia ilundreunzu, ilargiak etzu argitren, eta izarrak zerutik eroriein[t]zu, eta zeruko birtuteak edo aingruak ikaretreintzu.

30. Orduan zeruan Gizonaren Semearen señalea [agertreunzu], zoinen bistan lurreko herri guziek [near eginen baitie], eta *Gizonaren Semea xiten ikusieinzie zeruko hodoi [dir-dil egiten dienen gañan*, potre] eta majestade handiarekin.

31. [Eta] bere aingruak egorrieintzu, [eta tronpeta sonu oxinarekin munduko laur aldetarik beren hautatuak] bildren tie zeruko [muga batetik berzealaño].

32. Har zazie konparazio kau, pikuarboletik elkrik: bere adarrak [beratx] daudenean eta hostoa elkitzen dienean, udara hurran dagola izauteunzie.

33. Bada, kala baitare, zuek gauza kuek guziok ikusteintzienean, edokizazie [egiatako] Gizonaren Semea [ellegatzeko abantzu dagola, yadanik] atarian dagola.

34. [Egiaz erraten] dauzietana zu [belaunaldi kau eztela bukatren, kori guziori bete] dadien bitartio.

35. Zerua eta lurra igarieintzu, baia ene hitzek etzie [huts eginen].

36. Baia zer eguntan eta zer orduz iork eztiakizu, ezta zeruko aingruek ere, baizik ene Aitak bakarrik.

37. Noeren egunetan agitu zena, kori berori agitreunzu Gizonaren Semearen xitean.

38. Zeren kala nola [ualdia beño] altzinagoko egunetan gizonek xaten eta edaten segitzen baitzien, berak [ezkonduz eta beren semeak ezkonduz], haliketa Noeren arkan sartzea izan zen eguna [artio].

39. Eta behin ere etzizien pentsatu [ualdia] hasrik ikusi zien bitartio, eta berekin erman ztizun guziak. Kala agitreunzu Gizonaren Semearen xitean.

40. Orduan, bi gizon [alorrean] xunto erden drenetarik, bat hartrik izaneunzu, eta berzea eutzrik.

41. Bi emazte errota batean ihotzen egoneintzu, eta bata hartrik izaneunzu, eta berzea eutzrik.

42. Zuek egon ztie bada [beira], ezpaitakizie zer orduz xin behar duen zuen Jaunak.

43. Egon ztie [segru] ezik familiako aita batek balaki [gabazko zer orduz nahi lazon ebaszaleak ebatsi, segruki beira egon laikela, eta ez lokela eutz zilatzra] bere etsea.

44. Bada, gisa berean egon ztie zuek [berdinki prestatrik], zeren gutien pentsatzeunzien orduan xin behar baitu Gizonaren Semeak.

45. Nor pentsatzeunzie dela [zerbitzazale fiela eta zentzuduna, bere nausiak] bere familiaren gañetik eseririk dagona, bakotxari [xanaria eman] dazon bere tenorean?

46. (Egoal)ekoa kalako [zerbitzazalea], zoin, bere nausia xiten danean, kala bere [eginbeharra egiten] erden lezan!

47. Egian erraten dauziet bere azienda guziaren gobernua [emanen] dakola.

48. Baia [zerbitzazale] kau gaxto baliz eta bere bihotzean erran baleza: «Ene nausia etzu kain fite xiten».

49. Eta bere [zerbitzari] lagunak gaizki tratatzen has baledi, eta hordiekin xaten eta edaten,

50. Kalako [zerbitzazalearen nausia idurikitzen] eztuen egunean xinen zu, eta gutien pentsatzen duen orduan.

51. Eta [ordu gaxtoan] egotzieinzu, eta gaztigu emanen diakozu [itxurazaler edo zerbitzari gaxtoer] ez bezalakoa. Kan izaneunzu near egitea eta hortzen kirriskara.

HOGEITA BORZGARREN KAPITULOA

[Parabola hamar neskatillena.
Talentuen parabola. Azken auzia.]

1. Orduan zeruko erreinua hamar birjeni iduri izaneunzu, zoin beren lanpadrak hartzen ztielarik [senarra eta emaztea hartzra] elki baitzren.

2. Zointarik borz [burubage] zintzan eta borz [xurkin].

3. Baia borz [burubagek], beren lanpadrak hartzean, etzizien olio [hartu].

4. [Xurkinek, aldiz], lanpadrekin batean olio erman zizien beren ontzietan.

5. Nola [senarrak] xiteko berandu baitzuen, guziak lokumatu zintzan eta azkeneko lo gelditu zintzan.

6. Eta [gauerdia ellegatu zenean, oihu] bat sentitu izan zinuen: «Mirin zazie [senarra] xiten dela! Elki ztie [hartzra]!

7. [Orduan] birjen kurak guziak xaiki zintzan eta beren lanpadrak konpondu ztizien.

8. [Burubagek xurkiner] erran ziabezun: «Eman dazaikuzie zehauren oliotik, zeren gure lanpadrak hiltzen baitra».

9. [Xurkinek] erspondatu zizien erranez: «Eztaila izan ezik dugun kau eztadien aski gur[e]tako eta zuendako; hobe zu salzaletra fan ztien eta falta zaiziena eros zazien».

10. Kuek erostra faten zren tenbran, [senarra] xin zinuen, eta [prestatrik] zaudenak harekin sartu zintzan ezteietra. Eta ataria hertsi zinuen.

11. [Geroago] berze birjenak [ere] xin zintzan, erranez: «Jauna, Jauna! Edeki dazaikuzu!».

12. Baia harek erspondatu zizun eta erran: «Egian erraten dauziet nik etzitietala izauten».

13. Kala, bada, egon ztie [beira] zuek, ezpaitakizie ez eguna eta eztare orona.

14. [Zeren] Jaunak gizon batek bezala [egiteinzu], zoinek leku urrunetra faten zelarik, bere mutilak deitu baitzituen eta beren ontarzunak [eman] baitzauzten.

15. Batari borz talentu emanez, berze bati bida, eta berze bati bat bakarrik, bakotxari bere [induriaren arauz], eta bereberehala fan zinuen.

16. Borz talentu [hartu] ztuena fan zinuen eta, kaiekin komerziatzen zuelarik, [irabazitan] berze borz elki ztizun.

17. [Modu berean, bida hartu] ztuen karek berze bida irabazi ztizun.

18. Baia bat [hartu] zuen karek, fan zinuen eta lurrean zilo bat egin zizun eta bere nausiaren dirua altxatu zizun.

19. Tenbra anitzen buruan, mutil kaien nausia itzuli zinuen eta kontuetra deitu ztizun.

20. Borz talentu [hartu] ztuena ellegatzen zelarik, berze borz [erakutsi] ziazkotzun, erranez: «Jauna, borz talentu [eman zinaztan], huna kemen berze borz geho, zoin kaitaz irabazi baitut».

21. Bere nausiak erspondatu ziakozun: «Arras ongi, [zerbitzari ona, zerbitzari axolati] eta leala! Gutian fiel izan baitzra, nik [anitzen buru eserien ztut]; tzauri parte hartzra zure nausiaren gozoan».

22. Gero bi talentu [hartu] ztuena ellegatu zinuen eta erran zizun: «Jauna, bi talentu eman zinaztan, kemen berze bida eraugitzen dauzkitzut, zoin kaitaz irabazi baitut».

23. Bere nausiak erran ziakozun: «Arras ongi [zerbitzari] ona eta fiela! Gauza gutitan fiel izan zra, bada, nik anitz gehagokoak [emanen] dauzkitzut; tzauri [parte hartzra zuhauren nausiaren gozoan]».

24. Azkenik, talentu bat [hartu] zuena ellegatzen zelarik, erran zizun: «Jauna, nik badiakizut zu jenio gaxtoko gizon bat zrela, eregin etzun lekuan eitatzen zula eta barreatu etzun lekuan biltzen zula.

25. Eta kala, galdren nuela beldurrez, fan nintzazun eta talentua lurrean altxatu nizun. Kemen daukazu zurea dena».

26. Baia bere nausiak, hitza hartzen zekolarik, [erspondatu] ziakozun eta erran: «[Zerbitzari] gaxto eta [eskuxuria]! Zuk bazinakiennik eitatzen tala eregiten eztan lekuan, eta biltzen tala deus'e barreatu eztan lekuan!

27. Bada, korren berorrengatik, hobekiago behar zinaben ene dirua bankeroer eman, gero nik bueltan nore kaudalea interesekin kobra nezan.

28. Ea bada, gen dazozie talentu kura eta eman dazozie hamar talentu dituenari.

29. [Zeren] duenari eman behar ziozu eta sobratrik egoneinzu; eta eztuenari gendren diozu kura, zoin baduela iduri baitu.

30. Orai, bada, [zerbitzari] (ezdeus) kori egotz zazie kanpoko iluntarzunetra. Kan izaneunzu near egitea eta hortzen marraskara».

31. Gizonaren Semea xiten denean, bada, majestade guziarekin eta bere aingru [guziek lagundrik], orduan bere gloriaren tronoan eserien zu.

32. Eta haren altzinean nazione guziak [ager diten] egineinzu; eta batzu berze batzuganik berexieintzu, artzaiak ardiak antxumetarik berexteintuena bezala.

33. Ardiak bere eskuieko aldean eseriz eta antxumeak ezkerrekoan.

34. Orduan erregeak erranen diabezu haren eskuien egonen drener: «Xin ztie, ene [Aitaren] benedikatuak, zeruko erreinuaz [xabetzra, zoin zuendako prestatrik baitago munduaren hasteaz] geroz.

35. [Zeren] nik gose izan nizun eta xatra eman zinadaien; egarri izan nizun eta edatra eman zinadaien; (bidari) nintzazun eta [ostatu eman zinadaien].

36. Buluxrik nengolarik [xantzi] nintzazien; eri nengolarik bixtatu nintzazien; karzelean preso nengolarik ene ikustra xin zintzaien eta ene konsolatzra».

37. [Orduan xuxenek] erspondatren diakozie, erranez: «Jauna, noiz ikusi zintzagun guk goseak eta xatra eman ginauzun, egarriak eta edatra eman ginauzun?

38. Noiz erden zintzagun (bidari) eta [ostatu eman ginauzun], buluxrik eta [xantzi] zintzagun?

39. Edo noiz ikusi zintzagun eri edo karzelean eta zure bixtatzra fan gintzan?».

40. Eta erregeak errespuestatan erranen diabezu: «Egian erraten dauziet, ene anae txikinen kuetarik zomaitekin egiten zinien aldioro, enekin egin zinien».

41. Tenbra berean, ezkerrean egonen drener erranen diabezu: «[Gen] ztie eneganik, maradikatuak; fan ztie su eternoala, zoin deabruarendako izan baitzen, eta bere aingruen edo auzamutilendako.

42. [Zeren] gose izan nizun eta etzinadaien xatra eman; egarri eta etzinadaien edatra eman.

43. (Bidari) nintzazun eta ez nintzazien bildu; buluxrik eta ez nintzazien [xantzi]; eri eta [karzelean sartrik] eta ez nintzazien bixtatu».

44. [Orduan kaiek ere erspondatreinzie]: Jauna, noiz ikusi zintzagun goseak edo egarriak, edo (bidari), edo buluxrik, edo eri, edo [karzelean sartrik eta lagundu] bage eutzi zintzagun?».

45. [Karek] erspondatren diabezu: «Egian erraten dauziet, ene anae txikinen kuetarik zomaitekin [egiten ez zinien aldioro, ez] zinien egin enekin.

46. Eta korren berorrengatik, kuek gaztigu eternoala [faneintzu, eta xuxenak] bizi eternoala.

HOGEITA SEIGARREN KAPITULOA

[Jesus nola harpatren. Emazte batek haren gañan balsamu ixuri.
Jesus Judasek saldrik. Azken abariaren prestatzen.
Abarian Judasen traizioneaz xardoki. Azken abaria:
huna nuntziela ene korputz-odolak! Abari atzekoan:
Pedroren ukazioak altzinetik erran. Getsemaniko otoitzea.
Jesus lotrik erman. Jesus judio-bilguaren altzinean.
Pedrok Jesus ukatu.]

1. Jesusek, [xardokitze] kuek bukatu ondorean, bere [ikaszaler erran ziabezun]:

2. «Ongi [dakizie] ezik kemendik bi egunen buruan Bazkoa zelebratu behar [dela], eta Gizonaren Semea kurutzean hiltzra kondenatrik izanen dela».

3. Tenbra berean [apezburuak] eta herriko juezak Kaifas Pontifize (Handienaren) [xauregian] xuntatu zintzan.

4. Eta konseju izan zizien, Jesus [gaixtakeriaz nola harrepatu erdeteko, eta hilarazteko].

5. [Baia, beldurrez herria zalapartaka hasien] zela, erraten zizien: «Etzu konbeni kau [xei] egunean egin dadien».

6. Jesus Betanian zegolarik, Simon (legendun)aren etsean,

7. Harengana emazte bat ellegatu zinuen, alabastrozko baso batekin, [bafa onez] edo (gantzu) prezio handikoaz beterik, eta Jesusen buru gañan ixuri zizun, [kura] mahaian zegolarik.

8. [Ikaszaleetarik] zomaitek kau ikustean, arras gaizki erman zizien, erranez:

–[Zerengatik] (galtakeria) kori?

9. Kau prezio anitzekoan sal [zaiteken, eta kaukalierrer eman zaiteken].

10. Jesusek, entendatzen zuelarik, erran ziabezun:

–Zerengatik molestatzeunzie emazte kau, eta egiten duena [gaixtotako hartzeunzie], ona delarik, dena bezala, enekin egin duen[a]?

11. Bada [kaukalierrak] beti eskuala dauzkatzie, baia ni ez naukazie beti.

12. Harek ene korputz gañan (gantzu) kau ixuriz, altzinetik ene hobia [prestatzeko] bezala egin zu.

13. Egian erraten dauziet, ezik nonnahiden Ebanjelio kau predika dadien, eta mundu guzian izanen baita, egin [bukatu duena ere zelebratren dela haren origarri].

14. Orduan Judas Iskariote, hamabietarik bat, [apezburu]ekin egotra fan zinuen eta erran ziabezun:

15. «Zer nahi dadazie eman, eta nik [Jesus] eserieinzut zuen eskuetan?».

Eta harekin hogeita hamar moneda zilarrekotan konbenitu zintzan.

16. Ordu kartarik hunat [Judas okasio on] bila ziablazun, traizio egiteko.

17. Orantz bageko ogien [xeiko] lehenbiziko eguna hurran zegolarik, [ikaszaleak Jesusengana fan zintzan] eta galdin ziakozien:

–Non nahi'zu [presta] dazaizugun Bazkoako abaria?

18. Jesusek erspondatu ziabezun:

–Fan ztie zibidadeala kalako personaren [etseala], eta egin dazozie mandatu kau: «Maestruak errateinzu: Ene trenbrara hurrantzeunzu [eta] zure etsean Bazkoara zelebratzra niazu, nore [ikaszalekin]».

19. [Ikaszalek] egin zizien, bada, Jesusek manatu ztuena, eta Bazkoarendako [beharrezkoena prestatu] zizien.
20. Iguzkia [yadanik] sartrik, mahaian eseri zinuen bere hamabi [ikaszalekin].
21. Eta xaten zaudelarik, erran zizun:
–Egian erraten dauziet ezik zuetarik batek traizione eginen dadala.
22. Hurak, ezin gehaoz [bihozmindrik], bakotxa bereganik galdez hasi zintzan:
–Jauna, akaso ni niza?
23. Harek errespuestatan erran zizun:
–Ogia bustitzeko bere eskua platerean enekin sartzen duena, kori zu traidorea.
24. Gizonaren Semeari tokatzen denaz, hura fateunzu hartaz eskribitrik dagon gisan; baia, ai gizon kartaz, [zoinek Gizonaren Semea saldren baitu]! Kalakoari hobeago lakiozu ezpaliz behinere sortu!
25. Judasek hitza hartzen zuelarik, zoin [salduen] zuena baitzen, erran [ziakozun]:
–Akaso ni niza, Maestrua?
Jesusek erspondatu ziakozun:
–Zuhaurek erran zu, zu zra.
26. Abaltzen zauden tenbran, Jesusek ogia hartu zizun, eta benedikatu zizun eta [zatikatu, eta bere ikaszaler] eman ziabezun, erranez: «Har zazie eta xan zazie; kau ene korputza zu».
27. [Gero] Kaliza hartzen zuelarik, [eskerrak] eman ztizun, benedikatu zizun eta eman ziabezun, erranez: «Edan zazie guziek beretik;
28. Zeren kau ene odola zu, zoin testamentu berriaren selloa izanen baita, zoin anitzengatik ixuririk izanen baita bekatuen parkamendutako.
29. Nik [erraten] dauziet oraidanik eztala gehago edanen [mahats] frutu kontarik, egun kartraño, zointan zuekin edan zkidan Kaliz berriaren deliziak nore Aitaren erreinuan».
30. Eta [eskerren] ematekoaren himnoa erranik, Oliboen oihan aldeala elki zintzan.
31. Orduan Jesusek [erran ziabezun]: «Zuek guziek gaur enegatik eskandalo [sufritreunzie, eta eutzien nuzie. Zeren] eskribitrik diozu: *Artzaia [zauritreinzut] eta saldoko ardiak bakotxa bere alde faneintzu*.
32. Baia [biztu] ondorean, ni zuen altzinean fanen nuzu Galilean, non zuen [xuntatzra] itzulien bainiz».
33. Pedrok erspondatuz, erran ziozun:
–Guziak [zuregatik] eskandaliza balite ere, behin ere sekula ez nuzu eskandalizatren ni, eztare etzitut [eutzien].
34. Jesusek [erran] ziozun:
–Bada nik [egiaz erraten] dauzut, ezik gau kontan berean, ollarrak kanta zana beño lehen, hirur aldiz ukatren nuzula.
35. Pedrok erran zizun:
–Zurekin hil nadien [beharrezko] balimazaida ere, nik etzitut ukatren.
Kori berori erran zizien [ikaszale] guziek.
36. Arte [kartan Jesus bere ikaszalekin baratze] bateala ellegatu zinuen, Getsemani deitzen zena, eta erran ziabezun: «Eser ztie kemen, ni haratago faten nizan artean, eta egiten [otoi]».
37. Berekin Pedro eta Zebedeoren bi semeak, Santiago eta Juan, ermaten ztuelarik, tristatzen eta [hasbagetzen] hasi zinuen.

38. Orduan erran ziabezun: «Ene arimak hiltzearen [bihozminak] sentitzeintzu. [Iduriki] zazie kemen eta [begira] zazie enekin.
39. Eta zomait urratsez altzinatzen zelarik, lurrean belaurikatu zinuen bere aurpegiaren gañan [makurtrik, otoi] eginez eta erranez: «Aita enea, posible bada, eztaztazula kaliz kau edanaraz. [Kalarik] ere, eztaila egin nik nahi'tana, zuk nahi'zuna baizik».
40. Gero bere [ikaszaleengana] itzuli zinuen eta lo erden ztizun; eta Pedrori erran ziakozun: «Posible daia etzinezan [begiratu] ahal izan oron bat[ez] enekin?
41. [Begira zazie eta otoi] egin, tentazioan ez erortzeko. Ezik espiritua [prest] egonik ere, haragia [fali] diozu».
42. Berriro bigarren aldian itzuli zinuen eta otoi egin zizun, erranez: «Aita enea, kaliz kau nik edan zatan bagetarik ezpadaiteke igar, egin daila zure borondatea».
43. Gero berze buelta bat [egin] zizun, eta lotan erden ztizun, [zeren] beren begiak loz kargatrik baitzauden.
44. [Haiek] euzten ztuelarik, hirurgarren aldian orazio egitra erretiratu zinuen, hitz berak errepetitzen ztuelarik.
45. [Ondorean, bere ikaszaleengana] itzuli zinuen eta erran ziabezun: «Egin zazie lo orai eta [hatsartu]. Huna nonziela ezik [yadanik] ordua ellegatu bait[a] eta Gizonaren Semea badiazu berehala entregatrik izatra bekatarien eskuetan.
46. Ea, xaiki ztie, goazen kemendik; [yadanik] ellegatzeunzu entregatu behar nuen kura!».
47. Orañik etzizun [kura erraten bukatu], noiz Judas ellegatu baitzen, hamabietarik bat, jendeketa handia[k] segitrik, ezpatekin eta makilekin armatrik, zoin [apezburuek eta herriko zaharrek] egorririk xiten baitzren.
48. Traidoreak señale kau eman ziabezun: «Kura, zoini nik besarka eman zadan, kori zu; [harrepa] zazie».
49. Berehala Jesusengana [hurrantzen] zelarik, bada, erran zizun: «Jangoikoak [beira] zitzala, Maestrua!».
Eta besarka eman ziakozun.
50. Jesusek erran ziakozun: «Adiskidea, zertra xin zra kona?».
Orduan berzeak ellegatu zintzan, Jesusi eskua [eser] ziakozien eta preso harpatu zizien.
51. Jesusekin zaudenetarik batek, ezpatatik tiratuz, [apezburuaren mutil bat zauritu] zuen bearri bat ebakitzen zakolarik.
52. Orduan Jesusek erran ziakozun: «Itzul zazu zure ezpatara ontziala, [zeren] beren autoridade[z] ezpataz zerbitzatzen dren guziak, ezpataz hileintzu.
53. Pentsatzen zua eztrokedala [xo] nore Aitagana, eta [ez tuela istantean ene eskuetan] eserien hamabi legione aingruenik [beño] gehago?
54. Baia nola beteren dra [orduan] Eskriturak, zoinek kala agi dadien konbeni [dela erraten baitie]?».
55. Ordu kartan Jesusek [jendeketa] kari erran zekozun: «[Ebaszale] edo jende-hilzale baten kontra bezala elki zradie ezpatekin eta makilekin ene preso egitra! Egunoro niangozun tenploan zuen artean eseririk erakusten, eta behin ere ez nintzien preso egin.
56. Egia [d]uzu kau guziau profeten eskriturak [betez] agitu dela».
Orduan [ikaszale guziek euzten] zielarik, ihesi egin zizien.
57. Jesus preso egin zienek Kaifasen etseala erman zizien, zoin urte kartan [apez nausia] baitzen, non eskribak eta [herriko zaharrak] xuntatrik baitzauden.

58. Eta Pedro urrunik segituz faten zitziozun, haliketa [apez nausiaren xauregiala] ellegatu artio. Eta ellegatu zelarik, zerbitz[ari]ekin eseririk ziozun, [kura guziura zertan bukatzen zen] ikusteko.

59. Bada, [apezburuak eta bilgu] guzia Jesusen kontra zomait testimoniu faltsu bilatuz ziablazun, hiltzeala kondenatzeko.

60. [Baia] konendako etzizien aski erdeten, testigu faltsu [xin] zrenak anitz balimazren ere. Azkenik bi testigu faltsu [agertu] zintzan.

61. Eta erran zizien: «Konek erran zizun: Nik Jangoikoaren tenploa desegin diokezut, eta hirur egunez [berriz eg[n]».

62. Orduan [apezburua] txutitzen zelarik, erran ziakozun:

–[Eztakozua] deus'e erspondatzen kuek zure kontra deklaratzen [dienari]?

63. Baia Jesus ixilik ziozun. Eta [apezburuak] erran ziakozun:

–Nik Jangoiko biziaren [izenean galditen dauzut] erran dazaikuzula zu zrenez Kristo edo Mesias, Jangoikoaren Semea.

64. Jesusek erspondatu ziakozun:

–Zuhaurek erran'zu, ni nuzu. Eta [gehago erraten] dauziet, ezik gero *Gizonaren Seme kau, zoin altzinean baitaukazie, Jangoikoaren majestadearen eskuian ikusien ziela, zeruko hodoien gañan xiten.*

65. Kalako errespuesta [aitzean, apezburuak] bere beztidrak porrokatu ztizun, erranez:

–Blasfematuizu. Zer nezesidade dugu testiguz? Zehaurek berek blasfemiara [aitu bukatu] zie, zointaz Jangoikoaren Seme egiten baita.

66. Zer iduritzen zaizie?

Haiek erspondatu zizien, erranez:

–Hilik [izatea merezi du].

67. Berehala hasi zintzan beitarteala txut egozten zakoiela eta buxkonka [gaizki] tratatuz; eta berze batzuk, begiak oihalez [estali zazkoielarik, zartakoak] ematen ziazkotzien.

68. Erranez: «Kristo, [erran dazaikuzu, kausi zazu, nor da zauritu] ztuena?».

69. Arte kontan Pedro kanpo atrioan eseririk ziozun; eta harengana neskato zerbitzuko bat [hurrantzen] zelarik, erran ziakozun:

–Zu [ere] Jesus galileoarekin zinabiltzan.

70. Baia hark guzien [altzinean] ukatu zizun, erranez:

–Nik eztiakizut zertaz mintzo zren.

71. [Atariala] elkitzen zelarik, berze neskato zerbitzuko batek mirin ziakozun, eta kan zaudener erran ziabezun:

–Kau Jesus Nazarenorekin [zegon].

72. [Pedrok] bigarren aldian ukatu zizun, (zin eginez):

–Etzut izauten kalako gizona.

73. Istante gutiren buruan, ingrugunekoak hurrandu zintzan eta Pedrori erran ziakozien:

–Segruki zu [ere kaitarik zra, zeren] zuhauren mintzatze berak galileo gisa [agertzen] ztu.

74. Orduan [Pedro] bere gañan deseiu gaxtoak egotziz hasi zinuen:

–[Etzut izauten kalako gizona].

Eta istantean ollarrak kantatu zizun.

75. [Eta] Pedro Jesusek erran zekon hitzaz oritu zinuen: «Ollarrak kanta zana beño lehen, hirur aldiz ukatren nuzu». Eta kanpo elkitzen zelarik, [saminki] near egin zizun.

HOGEITA ZAZPIGARREN KAPITULOA

[Jesus Pilatogana ermanik. Judas urkatrik. Jesus heriotzeala kondenatrik, zehatrik, gaizkibelatrik, kuruzifikatrik eta maradikatrik. Jesusen heriotzea. Jesus hilobian orzrik, eta here hobia hertsirik eta beiratrik.]

1. Goiza xinik, [apezburu guziek eta herriko zaharrek bilgua] izan zizien Jesusen kontra, hilarazteko.

2. Eta hilik izateko [hobendun zela erraten] zielarik, lotrik erman zizien eta Ponzio Pilato gobernadoreari [eman] ziakozien.

3. Orduan Judasek, zoinek [saldu baitzuen, Jesus heriotzeala kondenatrik] ikusten zuelarik, egin zuenaz [damutrik, hogeita hamar moneda zilarrezkoak apezburuer eta zaharrer] itzuli ztizun,

4. Erranez:

–Nik bekatu egin zut, bada odol [hobenbagea] saldu izut.

Eta haiek erran zizien:

–Guri zer [axola] zaiku? Kan zuhaur konpondren zra!

5. Baia hura, dirua tenploan egozten zuelarik, fan zinuen; eta lepoala (soka) bat esertzen zuelarik, urkatu zinuen.

6. Baia [apezburuek], monedak bildrik, erran zizien: «Etzu (lege) tenploko tesoroan kuen sartzea, prezio odolarna izanik drena bezala».

7. Eta [bilguan] tratatu zielarik, kaitaz ontzieginzale baten alorra erosi zizien, estranjeroen hobitako.

8. Korrengatik alor kura *Hazeldama* deitu zinuen; «Alor odolarna» nahi'zu erran, eta kala deitzen zu egungo egunean.

9. [Kala bete] zinuen Jeremias profetak altzinetik [errana]: *Eta hartu [ztien] hogeita hamar moneda zilarrezkoak; [kori] izan baitzen Israeleko [semeek saltzean eseri zakoen] prezioa.*

10. *Eta ontzieginzale baten alorraren [erosteko erabili] ztizien, Jaunak manatu [zadana] bezala.*

11. Jesus, bada, [gobernadorearen altzineala ermanik izan zen, eta karek] galdin ziakozun:

–Zu judioen erregea zraia?

Jesusek erspondatu ziakozun:

–Zuhaurek errateunzu, [ni] nuzu.

12. [Apezburuek eta zaharrek anitz salatzen] bazien ere, batre etzizun erspondatu.

13. Pilatok erran ziakozun:

–Etzua aitzen zomat gauzatarik [salatzen] ztien?

14. Baia harek deustra etzizun [erspondatu] erran zekon guzitik; kalako gisan, ezik [gobernadorea arras harritrik] gelditu baitzen.

15. [Gobernadoreak, Bazkoaren xeiaren motigoarekin, preso bati libertadea emateko aztura zizun, herriak hautatrik].

16. Eta tenbra berean karzelean bat zaukalarik fama handikoa, Barrabas deitzen zena,

17. Pilatok xuntatu zrener galdin ziabezun:

–Zoin nahi'zie eman dazaizietan libre, Barrabas edo Jesus, zoin Kristo edo Mesias deitrik baita?

18. [Zeren] ongi ziakizun [apezburuek inbidiagatik eman zakoiela Jesus].

19. Hura bere tribunalean eseririk zegolarik, bere emazteak mezutu ziakozun: «Etzitela nahas [xuxen] korren gauzetan, [zeren anitz hasbage baitra ametsetan sufrituitanak, korrengatik]».

20. [Bitartio apezburuek eta zaharrek] herria galdin zezala [behartu] zizien, Barrabasen libertadea edo Jesusen hiltzea.

21. Kala zu ezik [gobernadoreak] berriz galditen zabelarik:

–Nor bietarik nahi'zie [eman] dazaizietan libre?

–Barrabas –[erspondatu zizien haiek].

22. Pilatok [erran] ziabezun:

–Bada, zer egin behar dut Jesusez, Kristo deitua?

Guziek [erran] zizien:

–Izan daila kuruzifikatrik!

23. Eta [gobernadoreak]:

–Baia, zer gaizki egin du?

Hurak oihu gehagokoekin hasi zintzan, erranez:

–Izan daila kuruzifikatrik!

24. Pilatok deus'e etzuela altzinatzen ikusten zuelarik, baizik ere istante batetik berzeala [zalapartara] gehago handitzen zela, ur eraugi zezaiela manatzen zuelarik, herriaren bista[n] eskuak ikuzi ztizun, erranez:

–[Hobenbage nuzu xuxen] konen odoletik! Kan [konpondren zradie] zehaurok!

25. Herri guziak erspondatzen zuelarik, erran zizun:

–[Eror] dadiela bere odola gure gañan eta gure semen gañan!

26. Orduan Barrabas libre [eman ziabezun; eta Jesus, zehatrik] izan zadien egin ondorean, beren eskuetan [eman] ziabezun kuruzifikatrik izan zadien.

27. [Ondorean, gobernadorearen] soldadoek, Jesus hartzen zielarik eta Pilatoren [xauregiko atarian] esertzen zielarik, haren ingruan [soldado talde] oso-osoa xuntatu zizien.

28. Eta bulluxten zielarik, granazko manto batez estali zizien.

29. Laharrezko korona bat buruaren gañan eseri ziakozien, eta kaña bat zetrotako bere eskuieko eskuan. Eta belauna lurrean [eseririk, alkeizun] egiten ziakozien, erranez: «Jangoikoak salba zitzala, judioen erregea!».

30. Txut [egozten zekoielarik, kañara hartzen zizien eta buruan xotzen zizien].

31. Gero, hartaz kala burlatu ondorean, mantoa gendu ziakozien eta berritan bere beztidrak eseri zazkoielarik, kuruzifikatzra elki zizien.

32. Zibidadetik elkitzean, Zireneko gizon bat erden zizien, Simon deitua, zoin Jesusen kurutzearekin karga zadiela [behartu] baitzien.

33. Golgota deitzen den lekuala ellegatrik, «Kalaberen lekua» nahi'zu erran,

34. Kan edatra eman ziakozien ardo gedarrarekin nahasrik. Baia hark progatu zuelarik, etzizun edan nahi izan.

35. Kuruzifikatu zien ondorean, alkarren artean bere beztidrak [partitu] ztizien, (zozka)trik. Konekin [bete zinuen profezia erraten zuena]: *Alkarren artean [partitu ztizien ene beztidrak eta ene] tunikara (zozkatu) zizien*.

36. Eta haren sahetsean eseririk zaudelarik, [azola] egiten ziakozien.

37. Buru gañan hitz kuek eseri ziazkotzien, zoinek kondenazioaren [arrazioa erran nahi] baitzien: «Kau Jesus zu, judioen erregea».

38. Tenbra berean, harekin bi [ebaszale] kuruzifikatrik izan zintzan, bata [eskuiean eta bertzea ezkerrean].

39. Eta kaitarik igartzen zrenek hartaz blasfematzen zizien eta eskarño egiten ziakozien, burua [mogituz] eta erranez:

40. «O zu!, Jangoikoaren tenploa lurreala egozten baitzu, eta hirur egunez [berriz egiten] baitzu, salba [zazu zuharen burua]; Jangoikoaren Semea balimazra, xauns zte kurutzetik!».

41. Gisa berean, [apezuburuek], eskribekin eta [zaharrekin batean, gaizkibelatuz] erraten zizien:

42. «Berzeak salbatu itzu eta eztiokezu salba bere burua! Israeleko Erregea balimada, xaunts daila orai kurutzetik, eta jinetsieinzugu horren baitan.

43. Horrek bere konfianzara Jangoikoa baitan esertzeinzu; bada, Jangoikoak kainberze maitatzen badu, libra zala orai, berorrek erraten baitzuen: Ni Jangoikoaren Semea nuzu».

44. Kori berori ematen zizien beitarteala, [baitere] bere konpañian kuruzifikatrik zauden [ebaszaleek].

45. Sestako oronetik hasita haliketa nonalako orona bitartio, lur guzia xauki ilundrik gelditu zinuen.

46. Nonako oroneala hurran, Jesusek [oihu egin] zizun boza handi batekin: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»*. Erran nahi'zu: *«Ene Jangoikoa, ene Jangoikoa, zerengatik [eutzi] nuzu?»*.

47. Ingrugunean zauden zomaitek kau aitzen zielarik, erraten zizien: «Elias deitzeinzu konek».

48. Eta berehala haitarik batek laster egiten zuelarik, esponja bat hartu zizun, ozpinean [busti] zizun eta, kaña baten puntan eseririk, [edatra eman] ziakozun.

49. Berzek erraten zizien: «Eutz zazie, ikus zagun ia Elias xiten den, horren libratzra».

50. Orduan Jesusek, berriro boza handi eta [argi batekin oihu egiten] zuelarik, bere espiritua [eman] zizun.

51. [Berehala, tenploko oihala] bi partetan zatikatu zinuen goienetik barrenealaño, eta lurra ikaretu zinuen eta harriak arrallatu zintzan.

52. Hobiak edeki zintzan, eta anitz sanduren korputzak, zoin hil baitzren, [biztu] zintzan.

53. Hobietarik elkitzen zrelarik, Jesukristoren erresurrekzio ondorean, zibidade sanduala xin zintzan eta anitzi [agertu] zintzan.

54. Arte kontan zenturiona eta harekin zaudenak Jesusendako [beiratzen, lurrikarea] eta gauza agitzen zrenak ikusirik, beldur handiaz beztitu zintzan, eta erraten zizien: «Egiazki gizon kau Jangoikoaren Semea zen]».

55. Kan urrune[an] baitare anitz emazte [ziaudezun], zoinek Galilearik hasita Jesusi segitu [baitziekoen, karen zerbitzatzeko].

56. [Haien artean] zintzan Maria Madalena, eta Maria Santiagoren eta Joseren ama, eta Zebedeoren semen ama.

57. Berant zelarik, Arimateako gizon abrats bat [xin] zinuen, Jose deitzen zena, zoin [ikaszale] Jesusena baitzen baitare.

58. Kau Pilatorengana [fan] zinuen eta Jesusen korputza galdin ziazun, zoin [eman zakiola manatu baitzizun] Pilatok.

59. Josek, bada, Jesusen korputza hartzen zuelarik, mandre xahu batean inguratu zizun.

60. Eta bere hobi batean [eseri zizun, zoin erroka] batean edeki zadien egin baitzuen, eta orañik ezpaitzuen zerbitzatu. Eta harri handi bat [hurrantzen] zuelarik, hobiaren agoa hertsi zinuen eta fan zinuen.

61. Kan Maria Madalena eta berze Mariara ziaudezun, [hobiaren altzinean] eseririk.

62. Biramunean, zoin laronbataren [prestatzearen] biramuna edo laronbat bera baitzen, Pilatorengana xunto [fan zintzan apezburuak eta fariseoak].

63. Erranez:

–Xauna, oritu gitzu ezik engañazale karek, orañik bizirik zagolarik, erran zuela: «Hirur egunen buruan [biztren] nuzu».

64. Mana zazu, bada, hobia [beira] daila hirurgarren eguneala [artio]; gabaz eztiten fan, akaso, bere [ikaszaleak eta korputz hila] ebats'aien, eta erran dazoien jende [xakinbageari]: «Hilen artetik [biztu] zu». Azken engañua gaxtoago izan dadien lehenbizikoa beño.

65. Pilatok erspondatu ziabezun:

–Kor daukazie [soldado taldea]. Fan ztie eta eser zazie iduritzen zaizien mod[u]an.

66. Kara [fan zrelarik, bada, hobia ongi behatu zizien, harriari selloa esertzen] zekoielarik, eta [behazaleak] kantxe berean esertzen ztielarik.

HOGEITA ZORTZIGARREN KAPITULOA

[Erresurrekzio Jesusena. Bere agertzea emazte sanduengana. Soldadoak erosi. Ikaszaleak mundu guziala igorririk].

1. Laronbateko gaba abantzu zelarik, asteko lehenbiziko eguna edo igandea argitzen zegolarik, Maria Madalena berze Mariarekin hobia bisitatzra xin zinuen.

2. Tenbra [kortan lurrikare] handi bat senti izan zinuen, [zeren] zerutik Jaunaren aingru bat xauntsi baitzen, eta hobiala ellegatzen zelarik, harria [baztertu], eta gañan eseri zinuen.

3. Bere [beitarteak dirdilka egiten] zizun txilimixtak bezala, eta bere beztidrara xuri [zinuen], elurra bezala.

4. Korren [ikustean behazaleak] kain ikaratrik gelditu zintzan, ezik hilik bezala baitzauden.

5. Kontan, aingruak, emazten aldeala itzultzen zelarik, erran ziabezun:

–Zuek etzie zeri beldur izan. Bada, badiakizut ongi Jesusen bila [xiten zradiela], zoin kuruzifikatrik [izan baitzen].

6. Baia eztiozu kemen, zeren [biztu baita, altzinetik erran zuena bezala]. Xin ztie, eta mira zazie lekua, non Jauna orzrik baitzegon.

7. Eta orai fan ztie, [geldi ztien bage, bere ikaszaler] erratra: «[Biztu da], eta zuen [altzinetik fanen da Galileara]; kan ikusieunzie». Altzinetik erraten dauziet.

8. Hurak [berehala] elki zintzan hobitik beldurrekin eta gozo handiarekin, eta lasterka [fan zintzan ikaszaleer] notiziaren ematra.

9. Noiz huna nonziela non Jesus [bideala elki zitzaiezun], erranez: «Jangoikoak goarda zitzaiela!».

Eta emazteak hurrantzen zrelarik lurrean umillatrik, bere oñak [besarkatu ztizien eta gurtu zizien].

10. Orduan, Jesusek [erran ziabezun]: «Etzaziela beldurrik izan! Fan ztie, abisa zkitzie ene aneak Galileara fainten; kan ikusien nie».

11. Hurak faten zren tenbran, [behazaleetarik] zomait zibidadeala xin zintzan, eta [apezburuer] igare zen guzia kontatu ziabezun.

12. Kuek [zaharrekin xuntatrik, bilgu egiten] zielarik, soldadoer diru kantidade handi bat eman ziabezun.

13. [Manatu] konekin: «Erran behar'zie: Gu lo ginaundelarik, bere [ikaszaleak] gabaz xin zintzan eta ebatsi zizien.

14. Kori [gobernadorearen] bearrietra ellegatzen bada, guk [baraxtaarazieintzugu], eta gisa guzietra elkien ztiegu libre eta ongi».

15. Haiek, dirua [hartu ondorean, manatrik zaudena bezala] egin zizien. Eta boza [kori judioen artean zabaldu zinuen] haliketa egungo eguna bitartio.

16. Arte kartan hameka [ikaszaleak] Galilearako partitu zintzan, oihan Jesusek [erran] zabeneala.

17. Eta kan [ikustean gurtu] zizien; baia zomaitek orañik beren dudak izan zitizien korputzaren gañan.

18. Orduan Jesus, hurrantzen zelarik, [kola] mintzatu zitzaiezun: «Niri [potre] guzia eman ziaidazu zeruan eta lurrean.

19. Fan ztie, bada, eta instrui zkitzie nazione guziak osasunaren bidean, bateatzen tzielarik Aitaren [izenean] eta Semearnean eta Espiritu Sanduarnean;

20. Erakusten dabezielarik nik manatu dauzkitzietan gauza guziak beiratzen. Eta egon ztie [segru], nihaur berau egonen nizala beti zuekin [munduaren bukatzea bitartio]».

ZUBERERA

MATEOREN EBANJELIOA

ZUBERERAZ

JESUS-KRISTEN EBANJELIO SAINTIA

SEN MATIUREN ARAUERA

EMMANUEL INTXAUSPE

1856

LEHEN KAPITULIA

(Jesüs birjinaganik sortürik.
Jesüsen sorterroa. Jesüsen sortzea.)

1. Jesu-Kríst Dabíden Semíaren, Abrahámen Semíaren undorióko gutúna.

2. Abrahámek Isaák [úken zian]. Isaákek áldiz Jakob [úken zian]. Jakóbek áldiz Judá eta háren anaíak [úken zutían].

3. Judák áldiz Farés eta Zará [úken zutían] Tamareganik. Farések Esrón [úken zian]. Esrónek Arám.

4. Arámek áldiz Aminadáb, Aminadábek Naasón. Naasónek Salmón.

5. Salmónek Boóz, Rahabeganik. Boózek áldiz Obéd, Ruteganik. Obédek Jesé.

6. Jesék áldiz Dabíd erregía.

Dabíd erregíak Salomón [úken zian], Uríaren emázte ízan zenagánik.

7. Salomónek Roboám. Roboámek Abiás. Abiásek Asá.

8. Asák Josafát, Josafátek Jorám. Jorámek Oziás.

9. Oziásek Joatám. Joatámek Akáz. Akázek Ezekiás.

10. Ezekiásek Manasé. Manasék Amón. Amónek Josiás.

11. Josiásek Jekoniás eta háren anaíak [úken zutían], judiuén Babilónerat eramaíteko denborán.

12. Babilónerat eramánik ízan undúan, Jekoniásek Salatiél [úken zian]. Salatiélek Zorobabél.

13. Zorobabélek Abiúd. Abiúdek Eliazím. Eliazímek Azór.

14. Azórek Sadók. Sadókek Akím. Akímek Eliúd.

15. Eliúdek Eleazár. Eleazárrek Matán. Matánek Jakób.

16. [Eta] Jakóbek Joséf, Maríaren senarra; eta Mariagánik Jésus [sórtu zen], Krist déitzen déna.

17. Badira árren órotan, Abraham[egánik] Dabid[engánat] hamaláu gízun araldia; eta Dabid[egánik] Babilonerát júan ordártio hamaláu gízun araldia, eta Babilonerát júan ordútik Jesu-Krist[engánat] hamaláu gízun araldia.

18. Húla ordían Jésu-Krísten sórtzia [héltu zen]: María, háren amá, [Joseféki] ezkúntu zénian, alkarganátu gábe, izórra [gertátu zen] Espirítu Sáintiaren bertútez.

19. Joséf háren senárra, gízun xuxéna beitzén, eta ezpeitzían laidostátu náhi, ixílik háren igórtera ekárri zen.

20. Hórik gogúan zarabiltzalárik, lótarik Jáunaren aingurú bat [agértu zéion], eta érran zéion: «Joséf, Dabíden semía, eztezazúla úken beldúrrik María zúre emaztíaren etxekítez, ézi har[engan] sórtu déna Espirítu Sáintiaganik dúzu.

21. Semé bat [sórturen dízu eta Jésus izéna emánen déiozu], ézi hárek dízu bére populía salbatúko bére bekatiétarik».

22. Hóri óro égin izán da, Jínkuak profetáz érran zían hítza [béta lédin]:

23. *Birjiná izórra gertatúko da, eta semé bat ukénen du, zúñen izéna [Emmanuél] beitáte*; érran náhi béita «Jínkua guréki».

24. [Joséf] iratzárri zénian, ainguríak manátu zéiona [égin zían, eta bére emaztía etxéki zían].

25. Eta haréki ezagutzérik úken gábe, bére léhen semíaz [érdi zen eta Jésus izéna éman zéion].

[BIGERREN] KAPITULIA

(Ekijaikigiko jakintsü zonbaitek Jesüs gürtü.
Egiptoalat ihesi. Betlehemeko haurren eraitea.
Egiptorik ützüli eta Nazareten bizi.)

1. Jésus Betleém Judáko hirían [sórtu zénian], Heródes erregíaren egunétan, Májiak éki-jaikigiátik jin zirén Jerusalémera.

2. Eta galtátu zién:

–Nun da judiuén errége sórtu berría? Ézi háren izárra [ikúsi dúgu] éki-jaikigián eta háren adoratzéra jin gíra.

3. Hóri éntzun ziánian, Heródes erregía [izítu zen], eta Jerusalém óro haréki.

4. [Ordían] apézen gehién guzíak eta populíari lége-erakasliak [bíldurik, Krístek nun béhar zían sórtu galtátu zéien].

5. Hek érran zéiuen:

–Betleém Judákuan, ézi húla da profeták izkiribatúrik:

6. *Eta hi Betleém, Judáko lúrra, é[z] hiz ez Judáko híri gehiénetan txipiéna, ézi hi[gánik] elkikó duk Israél éne populía gobernatúren dían buruzagía.*

7. Ordían Heródesek, Májiak beréz déiturik, arrankuraréki [galtátu zéien] núiz agértu zéien izárra.

8. Eta Betleemerát [igórri zutían], erráiten zéielarik: «Zuazté, argudía ziteié xehéki háur hártzaz eta edíren dukeziénian, jákineráz ezadazíe, ni ére júan nádin háren adoratzéra».

9. Húrak errége éntzun undúan abiátu zirén. Eta huná nun aitzinían baduakén éki-jaikigián ikúsi zién izárra, háurra zen lekíala [hel ártio], nun ukurátu beitzén.

10. Izárraren [ikustian] boztarío handítan járri zirén.

11. Etxían [sártu zirénian, háurra edíren zién], María bére amáreki, eta ahózpez emánik adorátu zién; géro bére tresór-untzíak zabaltúrik, bére emáitziak [esténtu zeitzuén]: úrre, intséntsu eta mírra.

12. [Géro lótarik mezutúrik] ez litian útzul Herodesenganát, béste bidé batetárik utzúli zirén bére herrialát.

13. Húrak júan zirénian, Jáunaren ainguría agértu zéion Joséfi lótarik eta érran zéion: «Jáiki zíte, har etzátzu háurra eta háren amá eta ihési egízu Ejiptorát. Han égon zíte nik érran ártio, ézi Heródes háurraren undúan [ebilíko dúzu], háren gálerázteko».

14. Joséf jáiki zen, háurra eta háren amá gaihalára [hártu zutían, eta Ejiptorát júan zen].

15. Han égon zen Heródes hil ártio. Jínkuak profetáz érran zían hítza [béta lédin]: *Ejíptotik erakárri dut éne Semía.*

16. Ordían Heródes, Májek inganátu zíela [ikusírik], gáizturik járri zen, eta igórri zían, Betleémen eta ungurúne guziétan, bi úrte eta gutiágo zién haurrén óroren ehoítera.

17. Ordían Jeremía profetáren errána [béte zen]:

18. *Oihu erántzun da Arráman, nígar eta heiagóra hánitx: Raxél nigárrez da bére háurrer dóluz, eta ézta náhi kunsolátu eztirélakoz.*

19. Heródes hil zénian, Jínkuaren ainguría agértu zéion Joséfi lótarik Ejípton.

20. Eta érran zéion: «Jáiki zíte, har etzátzu háurra eta háren amá eta zuáza Israeléko lurretarát; ézi hil dutúzu háurraren hilerázi náhiz zabilzának».

21. Joséf jáiki zen, háurra eta háren amá [hártu zutían eta Israeléko lurretarát jin zen].

22. Béna Judéan Arkelaús errége zéla [éntzunik], Herodes bére aitáren ordári, lótsa ízan zen harát juáitera. Eta lótarik ahólku ukénik, Galiléako gaintietarát [baztértu zen].

23. Eta Nazarét déitzen den hirialát egóitera [jin zen]; profetén érran háu [béta lédin]: *Nazaretárra déiturik izánen da.*

(HIRURGERREN) KAPITULIA

(Johane Bateiazaleak Jesüsen jitea oihüstatzen.
Jesüs bateiatürik.)

1. Orduko egunétan, Juáne [Bateiazalea] Judeáko bortiétan peredikatzéra [jin zen]:
2. «Peniténtzia egizíe, húllan da ézi [[zelúko]] erresumá».
3. Hártzaz zen míntzo Isaías profetá ziuánian:
Bótz bat óihuz arí da bortían: Apáñ ezazíe Jáunaren bidía, xúxent etzátzie háren xendák.
4. Juáneren suñekúa kamélu bíloz egínik zen eta lárruzko gerrikó bat ekárten zian; háren janaría, áldiz, igélak eta básа eztía zirén.
5. Ordían harengána jálkiten zen Jerusalém eta Judéa óro, eta Jordáneko ungurúne guzía.
6. Eta bateía harengánik hártzen zién, bére bekatíak kofesátzen zutiélarik.
7. Ikusírik farisienetárik eta saduzenetárik hanitx jíten ziréla háren bateíala, érran zéien:
–Súge kastá! Nurk erakátsi deizié gáña héltu zaizién kolerári ihési egíten?
8. Egitzié, árren, doluménari duazkón egitatíak.
9. Eta eztezaziéla érran: «Abrahám áita dúgu». Ézi nik erráiten deiziét Jínkuak hárri hoiétarik Abrahámen háur sórreráz diokiála.
10. Oraidánik aizkorá zuhañén erruétara da; eta frútu unik ekárten eztién zuháñak óro múzturik izánen díra eta suialát urtikírik.
11. Nik bateiátzen zutiét urian, dolumenétan sar ziteién; béna éne undótik jíten déna ni benuaguá da, ezpéiniz háren uñetakuén ére ekárteko háizu. Hárek bateiatúko zutié Espirítu Saintia[gan] eta súian.
12. Eskían du bére bahía eta bére ezkarátza [xahatúko du]; ógi bihía bére bihitegietarat [bílduren du], eta lastúa erreeráziko du jagóiti hilen eztén súian.
13. Ordían Jésus Galiléatik Jordanéra [jin zen Juanegána, hárek] bateiatúrik izáteko.
14. Béna Juánek gibéltzen zían, erráiten zeiolárik:
–Nik dízut béhar [zuk] bateiatúrik ízan, eta zu enegána jíten zíra?
15. Ihardétsi zéion Jésusek:
–Utz nezázu béhin, ézi hóla béhar ditizúgu guk úntsa dirénak óro égin.
Ordían Juánek útzi zían.
16. Bateiátu eta berhála Jésus úretik [élki zen. Ordían zelía idéki zen], eta Espirítu Sáintia urzó báten udurían [jáisten ikusi zian], eta háren gáña páusatzen.
17. Eta ordu bérian, botz bat erántzun zen zelútik: «Haú da éne séme maitía, zuñ[engan] ezári béitut gogúa».

[LAURGERREN] KAPITULIA

(Jesüs basabortüan tentatürik. Jesüs Galileala.
Jesüs berrihonaren oihüstatzen hasi.
Jesüsek lehen dizipülüak deitzen. Jesüs eta jentaldea.)

1. Ordían Jésus Izpiríti[ak] bortú batetarát eramánik [ízan zen, débriak] tentatúrik izáteko.
2. [Berrógei egúnez eta berrógei gáiez] bárur égon undúan, gerókoz gosétu zen.
3. Tentazalía hullantúrik, érran zéion:
–Jínkuaren semía bazira, errázu hárri hórik ógit ditian.
4. Jésusek [ihardétsi zéion]:
–[Izkiribatúrik duk]: *Ézta ogía gizúnaren bizigárri bakótxa, béna Jínkuaren ahótik élkitzen dirén elíak óro.*
5. Ordían débriak híri sáintiala [eráman zían] eta tenploáren goienían [ezári zían].
6. Eta érran zéion:
–Jínkuaren semía bazíra, urtíki zíte behéra, ézi izkiriatúrik dúzu: *Bére ainguriér mánu éman dízu zúre begirátzez, eta bére eskiétan eramánen zutíe, zúre úña behaztópa eztádin hárri zunbáitetan.*
7. [Jésusek] ihardétsi zéion:
–Halabér izkiribatúrik duk: *Eztúzu tentatúko zúre Jínko Jáuna.*
8. Débriak [bérriz] hártu zían eta méndi góra-gorá batetára [eráman]; eta mundúko erresúma guzíak [erakútsi zéitzon], eta haién edertarzúna;
9. Eta érran zéion:
–Hórik óro emánen déitzut, luherrásturik adorátzen banáizu.
10. Ordían Jésusek érran zéion:
–Hábil húa, Satán! Ézi izkiribatúrik duk: *Zúre Jínko Jáuna adoratúren dúzu eta húra béra dúzu zerbutxatúren.*
11. Ordían débriak [útzi zían], eta hainsárri hullántu zeitzón ainguríak eta zerbutxátu zién.
12. Jésusek [Juáne] préso hárturik ízan zéla [entzun ziánian, Galilearát júan zen].
13. Eta Nazarét híria [útzirik], Kafarnaúme itxáso undokúan [egóitera jin zen], Zabulóneko eta Neftalíko mugétan.
14. Isaías profeták errána [béta lédin]:
15. *Zabulóneko lúrrak eta Neftalíko lúrrak, Jordánez béste áldian itxas bazterrían diren[á]k, arrotzén Galileá!*
16. *Ulunpétan záguan populíak árgi handí bat [ikúsi du]; eta heriúaren itzalpéko herrían járririk zaudenér argía [agértu záie].*
17. Ordútik Jésus peredikátzen eta erráiten [hási zen]: «Peniténtzia egizíe, ézi húllan da [[zelúko]] erresumá».

18. Bazualárik, báda, Jésus Galiléako itxas baztérra gáinti, bi anáie [ikúsi zutían]: Simón, Petíri déitia, eta Andréu háren anaía, saríaren itxasualát urtikítzen, ézi arrantzále zirén.

19. Eta érran zéien: «Jarráiki zakiztaié eta gízun-arrantzále egínen zutiét».

20. Húrak berhála, saríak [útzirik], jarráiki zéitzon.

21. Hántik aitzinágo juánik, béste bi anáie [ikúsi zutían], Jakóbe Zebedeoren semía eta Juáne háren anaía, untzi batétan Zebedeo bére aitáreki, bére sarén apáintzen ári. Eta déitu zutían.

22. Húrak berhála, saríak eta aíta útzirik, jarráiki zeitzon.

23. Bazabílan Jésus Galiléa guzían, judiuén bilkurétan erakástez, zelúko erresumáren ebanjeliúaren peredikátzez, zóñu eta eritárzun guzién populíaren ártian sendótzez.

24. Háren oména Siría órotan [barreiátu zen, eta éri zirénak óro ekárri zéitzuén], zernáhi mínez édo gáitzez hárturik ízan zitían; débrieki zirénak, lunatíkuak, paraklitikuak, eta óro sendótu zutían.

25. Jénte ózte hándi elí bat jarráiki zéitzon Galiléatik, Dekapolítik, Jerusalémerik, Judéatik eta Jordánez haráintitik.

(BOSGERREN) KAPITULIA

(Sar hitza. Zorihontarzünak.
Mündüarentako gatz eta argi. Jesüs eta legea.
Haurrideen arteko harremanak. Adulterioa eta dibortzioa.
Zinak. Mendekioa. Etsaiak mÁita.)

1. Saldo hándi húrak ikúsi zutiánian, Jésus mendí batetára [igañ zen], eta járri zénian, bére dizipulíak [hullántu zéitzon].

2. [Ordían] elía hárturik, erakásten [hási zéien], ziualárik:

3. –Dohátsu díra gógoz práube dirénak, haiéna béita [zelúko] erresumá.

4. Dohátsu ézti dirénak, lúrraren jábe izánen beitíra.

5. Dohátsu nigárrez dáudenak, húrak izánen beitíra kunsolatúrik.

6. Dohátsu untsáren góse eta egárri dirénak, húrak asérik izánen beitíra.

7. Dohátsu miserikordiúsak, miserikórdia haiék ardiétsiren beitíe.

8. Dohátsu bíhotz xahíak, Jínkua ikusíren beitíe.

9. Dohátsu baketiárrak, Jínkuaren háurrak izánen beitíra déiturik.

10. Dohátsu untságatik goitzárren igúrzten diénak, haiéna béita [zelúko] erresumá.

11. Dohátsu ziratekeié, enegátik laidostátzen eta eskerniátzen zutukeiénian, eta zérnahi gáizki erráiten dukeyénian gezúrrez zíen kúntre.

12. Botz ziteié, zéren hándi béita zíen pákia zelían; ézi ber gisán eskerniátu dutíe zíen aitzinéko profeták.

13. Zíek ziraié lúrreko gátza; [gátza] gatzózten báda, zérez gazitúko da? Ézta habóro déusentako un, kanporát urtikitzéko eta igaráilen uñpétan zapatzéko báizik.

14. Zíek ziraié mundíaren argía. Eztáite górda méndin gáñen egína den hiría.

15. Eztíe pízten argí bat gaitzúrupían ezárteko, béna kandeléraren gáñen [ezárten díe], etxénko guzién argitzéko.

16. Halabér árgi béza zíen argíak gizunén aitzinían, zíen óbra hunén ikústez goréts dezén zíen Áita [zelían] déna.

17. Ez úste úken jin nizála legíaren édo profetén háustera; éniz jin háustera, béna bái betátzera.

18. Egiáz erráiten deiziét: zelía eta lúrra léhen igaránen díra, ézi ez legían dirénak óro egónen beitíra égin gábe, i batetára eta tiletá batetaráno.

19. Nurk ere mánu hétan den txipiénetarik bat háutseko béitu, eta hála egíten erakatsíko, gutiétsia izánen da [zelúko] erresumán; nurk ere begiratúren beitútu eta begirátzen erakatsíko béitu, húra hándi izánen da [zelúko] erresumán.

20. [Ézi nik] dióziet: zíen [xuxentarzúna ezpáda] lege-erakasléna eta farisiénena béno hóbe, etziraié sárturen [zelúko] erresumán.

21. Entzun duzíe lehenagokuér erránik ízan déla: *Éztuk ehóren*, eta gízun ehóilia kundenatúrik izánen da jujamentíaz.

22. Nik, áldiz, erráiten deiziét bére anaíaren kúntre gáizten dénari, jujaméntuz kundenatúrik izátia [zor záiola]; bére anaíari [«eroa»] errailiári, kunsellíaz kundenatzía [zor záiola]; eta «eró bat hiz» errailiári, ifernúko súia [zor zaiola].

23. [Zúre emáitzia ekárten badúzu, árren], altaríala, eta han orítzen bazíra zúre anaíak badiála zerbáit zúre kúntre,

24. Utz ezázu han zúre emáitzia eta zuáza lehénik zúre anaíareki báketzera, eta géro jínen zíra zúre oberendáren eskentzéra.

25. Jar zíte léhenbénoléhen bákian zúre etsáiareki, haréki bidían zuazáno; [etsáiak jujíaren eskiétan ézar zítzan beldúrrez], eta jujíak bére manuzpékuari éman zítzan, eta presuntegialát igorrírik [ízan zítian].

26. Egiáz erráiten déizut: etzíra hántik élkiren ázken ardíta paka ártio.

27. Entzun duzíe erránik ízan déla lehenagokuér: *É[z] hiz nahasíko bestéren emaztéki*.

28. Nik, áldiz, erráiten deiziét nurk ere [emazté báti so egínen beitéio] harenganátu nahíareki, ordútik bére bihotzían haréki nahási déla.

29. Híre bégi eskúña [hiretáko] gálgarri báda, idók ézak eta urtíki hi[gánik] úrrun, ézi hobé duk hiretáko híre ménbrietarik bat gal dezaián, ézi ez híre korpítza óro ifernialát egotxírik [ízan dádin].

30. Eta híre ésku eskíña [hiretáko] gálgarri báda, mutz ézak eta urtíki hi[gánik] úrrun, ézi hobé duk híre ménbrietarik bat [gal dádin], ézi ez híre korpítza óro ifernialát júan dádin.

31. [Legian] errána da oráno: *Nurk ere bére emaztía [igorríko béitu], útzi diálako jakileguá [éman dizóla]*.

32. Nik, áldiz, erráiten deiziét nurk ere bére emaztía [igórten béitu], bestéki nahási eztén ber, bérak teiuerázten diála; eta hóla igórri emaztíaren harzalía teiútzen déla.

33. Entzun duzíe oráno nuzpaitekuér, erránik ízan déla: *Éztuk zína háutseko, béna Jínkuari égin dutuián zínak etxekíko dútuk*.

34. Nik, áldiz, erráiten deiziét: eztezazién égin zínik bátere, *ez zelíaz, Jínkuaren jargiá* délakoz;

35. *Ez lúrraz, háren uñpétakua* délakoz; ez Jerusalémez, Errége handíaren hiría délakoz.

36. Ez eta zúre buríaz eztezazúla zínik égin, ezpeitezakézu xúrieráz édo béltzeráz bílo bakótx bat ére.

37. Béna zíen elía [ízan bédi]: «bái», bái [denían]; «ez», ez [denían]; habóro erráiten dirén elíak, undorío gaistótik jíten díra.

38. Entzun duzíe errána déla: *Begía begíaren, hórtza hórtzaren*.

39. Nik, áldiz, erráiten deiziét gaistúari [etziteién búhurt]; béna nurbáitek eskúñeko maxelán [jóiten bazútu], pára ezózu bestía.

40. [Nurbáit zuréki debádiotan sártu náhi báda, eta saiúa] hártu náhi badéizu, útz ezózu oráno kapá.

41. Nurbáitek beréki míla úrrats eginerázi [náhi badéizu], egiózu eta bestérik bi míla.

42. Galtátzen déizunari emúzu, eta etzitiála gibélaz útzul jésan náhi déizunari.

43. Entzun duzíe errána ízan déla: *Zúre kíde lagúna [mÁitatúren dúzu]*, eta hástio ukénen dúzu zúre etsáia.

44. Nik, áldiz, erráiten daiziét: máita etzatzíe zíen etsáiak, únki egizíe húgu zutienér eta ótoi egizíe zíen eskerniazalén eta gaizki-saltzalén.

45. Izan ziteién zíen Áita [zelían] dénaren háur, zúñek jáikierazten béitu bére ekía [unendako eta gaistuendako], eta euría ixúrtzen [xuxen direnendako eta eztirenendako].

46. Ézi ezpadutuzié máite zutiénak báizik maitátzen, zer páku zor zaikezíe? Eztiéia hóri publikánuek ére egíten?

47. Eta zíen haurridér báizik ezpaduzíe bátze-un egíten, besték egíten eztiénik zer egíten duzíe? Pagánuek ére eztiéia hainbéste egíten?

48. Izan ziteié, árren, zíek óro-un, zíen Áita zelukúa óro-un den bezála.

[SEIGERREN] KAPITULIA

(Amoina. 'Gure Áita' otoitzea. Barurra.
Zelüan aberats. Barneko argia.
Jinkoa ala diharüa. Zertzaz ardüra.)

1. Gogo emazíe zíen óbra unén ez egítez gizunén aitzinían, hetzaz ikusírik izatiagátik, bestéla eztuzíe pákurik ukénen zíen Áita [zelían] denagánik.

2. Amuiná [emáiten duzunían, árren], etzitiála ári trunpetótsez ziháuren aitzinían, únetako igáran nahiék egíten dién bezála, bilkurétan eta karrikétan, gizuné[k] gorétsirik izáteko. Egiáz dioziét: úken díe bére pákia.

3. Béna zuk amuiná [egíten duzunían], eztezála jákin zúre ésku eiskérrak zer egíten dían eskúñak.

4. Zúre amuiná gordérik [ízan dádin]; eta zúre Áitak gordérik dirénak [ikústen beitútu], emánen déizu pákia.

5. Otoitzétan ári ziraiénian, ez égin Jinkotiár faltsiék bezála, zúñek bilkurétan eta karríka buriétan txúti otóitzen aritzía [máite beitíe, jenték] ikusírik izáteko. Egiáz dioziét: úken díe bére pákia.

6. Zuk otóitze égin géi duzunían, sar zíte zúre kanberán, eta bortá zerratúrik, zúre Áita gordérik ótoi ezázu, eta zúre Áitak gordían ikústen béitu, emánen déizu pákia.

7. Otoítze egitían, áldiz, etzitiála hánitx míntza, pagánuen gísa, zúñek úste beitíe hánitx éle erráitez éntzunik izánen diréla.

8. Ez ízan húrak udúri, ézi badáki zíen Áitak zéren behárra duzién, zíek galtátu béno léhen.

9. Húnla, árren, zíek otoitúren duzíe: «Gúre Áita [zelían] ziréna, erábil bédi sáintuki zúre izéna.

10. Zúre erresumá jin bekígu; zúre borontatía égin bédi zelían bezála lúrrian ére.

11. Igúzu égun bizitzéko béhar dúgun ogía.

12. Párka etzagútzu gúre zórrak, guk gúr[e] zordunér parkátzen dutúgun bezála.

13. Ezkitzatzúla útzi tentaziónian erórtera, béna begíra gitzátzu gáitzetik. Hálabiz».

14. Ézi zíek parkátzen badéitzezie gizunér haién hogénak, zíer ére zíen Áita zelukúak zíen gaizkigínak [parkatúren déitzie].

15. Béna zíek ezpadeiézie parkátzen gizunér, zíen Áitak eztéitzie zíer ére parkatúren zíen bekatíak.

16. Bárur egíten duziénian etziteiéla jar tristetúrik Jinkotiár faltsien gísa: ézi haiék bére begitártiak [tzártzen dutié, jentér] bárur diréla eraskutéko. Egiáz dioziét bére pákia [úken diéla].

17. Béna zuk barúrtzen duzunían, beréka ezázu zúre buría, eta zúre begitártia gárbi ezázu;

18. Eztezázun [gizunér] ikústera éman bárur ziréla, béna zúre Áita gordían dénari, eta zúre Áita gordían ikústen diának pákia [emánen déizu].

19. Etziteiéla ári lúrrian huntárzun atétzen, han herdollák eta zerrénak játen dútu; han uhuñék zilátzen eta ebásten dutíe.

20. Béna bil ezazíe ontárzun zelían; han ezpéitu ez herdollák ez zerrénak játen, han ezpeitíe uhuñék zilátzen ez ebásten.

21. Ézi nun ere béita zúre tresóra, han ere zúre bihótza [dúzu].

22. Zúre korpítzaren argía zúre begía dúzu. Zúre begía xáhu báda, zúre korpítza óro árgi dukézu.

23. Béna zúre begía [gáisto báda], úlun dukézu zúre korpítza óro. Báita zú[gan] den argía úlun báda, zer diráte ulunpíak bérak?

24. Íhurk eztezáke bi náusi zerbútxa; ézi, édo batá hástio ukénen du eta bestía mÁitatúko du, édo batári etxekíko da eta bestía gaitzétsiren du. Eztezakezíe zerbútxa Jínkua eta diharía.

25. Hartákoz dioziét, eztuziéla [arrankurarik] bizitzéko zer jánen duzién, ez korpítza zértzaz estalíko duzién. Eztá bizía janaría béno habóro, eta estalgía béno habóro korpítza?

26. Sogizié airéko txoriér; eztie eréiten, ez bíltzen, ez bihitegiétan atétzen, eta zíen Áita zelukúak házten dútu. Etziréia zíek húrak béno hanítxez habóro?

27. Nurk dezáke, zunbát-náhi gogozkatúrik, besó bátez góra bére handitarzúna?

28. Eta suñekuéz zértako arrankurátzen ziraié? Sogizié alorrétako liliér, núla handítzen dirén; eztíe lánik egíten, eztíe urúten.

29. (Hargatik) diozíet, Salomón bére lória handiénian etzéla hoiétarik bat bezañ edérki beztitúrik.

30. Otian, alorréko belár bat égun xúti déna eta bíhar labialát urtikírik izánen déna, Jínkuak [hóla] beztítzen bádu, zunbát hobéki zíek etzutíe beztitúren?

31. Etziteiéla, árren, [kexu ízan] «Zer jánen dúgu?», otsez, édo «Zer edánen dúgu?», édo «Zértzaz beztitúren gíra?».

32. Hoién guzién undúan pagánuek lankéi hártzen díe. Badáki zíen Áitak hoién óroren behárra baduziéla.

33. Txérka ezazie, árren, lehénik Jínkuaren erresumá eta háren justiziá, eta hórik óro gañerátik emánen zaitzié.

34. Etziteiéla árren ízan biharaménaz lankéitsu; badúke biharaménak bére lankéia. Egúnak askí du bére gáitza.

[ZAZPIGERREN] KAPITULIA

(Ez ihor gaitzets. Eska, bila, jo borta.
Sar zitee borta hersitik. Beren frütüetarik ezagütüko dütüzüe.
Egiázko dizipülüak. Jesüsen irakaspearen sorterroa.)

1. Eztezaziéla júja, etziteién ízan jujatúrik.

2. Ézi nul'ere [bestíak] jujátu beitutukezíe, hála izánen ziraié jujatúrik; eta bestíak izártu dutukezién izarían izánen ziraié izárturik.

3. Zértako sógiten dúzu zúre anaíaren begían buruská báti, eta sumér bat eztúzu ziháuren begían ikústen?

4. Édo núlaz diózu zúre anaíari: «Záude, ken dizazúdan begían dúzun buruská», ziháurek sumér bat [duzulárik] zúre begían?

5. Faltsía! Ken ezázu lehénik suméra zúre begítik, eta géro ikusíko dúzu núla idóki buruská zúre anaíaren begítik.

6. Ez éman gáiza sáintia txakurrér, eta ez urtíki urdén aitziníala zíen perlák, zánkopétan har eztitzén eta zihaurér oldárturik úrra etzitzén.

7. Gálta ezazíe eta emánen zaizié, txérka ezazíe eta edirenen duzié, jo ezazíe eta idékiren zaizié.

8. Ézi galtátzen diának ukéiten du, txerkátzen diának ediréiten du, jóiten diánari zabáltzen záio.

9. Nur da zíen ártian gizúna, bére semíak ógi [gálta balizó], harrí bat éman lizakióna?

10. Édo arráñ bat [gálta baléza, sugé bat éman lizakiúa]?

11. Eta zíek holatán gáisto ziraiélarik, [zíen haurrér gaiza únen emáiten bálin badakizíe], zunbát hobéki zíen Áita zelukúak eztútu emánen gáiza únak galtátzen deitzoiéner?

12. Zer ere náhi beituzíe gizunék [egin dizazién], zíek haiér egiézie, ézi hórtan zerrátzen díra legía éta profeták.

13. Sar ziteié borta hérsitik, ézi bórta largúak eta bíde handíak galgiála [eramáiten du], eta hánitx díra han sártzen dirénak.

14. Ala txípi [béita] bortá eta hérsi bidía betíko bizitzialát eramáiten diána. Eta gúti díra húra ediréiten diénak.

15. Begiréizie proféta [faltsiénganik]! Árdi lárruz estalírik jíten [zaitzie]; barnétik, áldiz, ótso ehelegátu bátzu díra.

16. Bére frutietárik ezagutúren dutuzíe. Bil óte dáite elorriétan mahátsik édo pikórik naharrétan?

17. Halahála zuháñ unak frutu hun ekárten du eta zuháñ gaistúak frútu gáisto ekárten du.

18. Eztezáke zuháñ unak frútu gaistórik ékar, ez eta zuhañ gaistúak frútu únik.

19. Frútu hun ekárten eztían zuháña múzturik izánen da eta suialát urtikírik.

20. Holatán bére frutietárik ezagutúko dutuzíe.

21. Eni «Jáuna, Jáuna!» erráiliak óro eztíra sárturen zelúko erresumán, béna éne Áita [zelían] dénaren nahía egíten diána, húra sárturen da [zelúko] erresumán.

22. [Jujamentu egunian] hanítxek erránen deitaié: «Jáuna, Jáuna, ezkirá zúre izenían mintzátu, eztutugía zúre izenian débriak ohíltu, eztugía zúre izenían mirakúllu hánitx égin?».

23. [Béna] nik ordían gorátik erránen déiet: «Egundáno etzutiét ezagútu; zuazté enegánik gaizkíaren egilíak!».

24. Nurk ere éne érran hórik éntzuten beitútu eta egíten, hárek udúri du gízun zuhúr bat, zúñek [bére etxía] hárrin gáñen égin béitu.

25. Éuri eráuntsiak jin díra, eta uharríak abiátu díra, eta haizék buhátu dée eta étxe hartára erórí díra, eta ézta ízan egotxírik, hárrin gáñen járria zélakoz.

26. Béna nurk ere éne érran hórik [éntzuten beitútu], eta ez egíten, hárek udúri du gízun ertzó bat, zúñek bére etxía hariñán gáñen [égin béitu].

27. Éuri eráuntsiak jin díra, eta uharríak abiátu díra, eta haizék buhátu díe eta étxe húra jo díe, eta erórí da, eta hándi ízan da háren eroría.

28. Jésusek éle hórik [urréntu zutiánian, ózte húrak harritúrik] zaudén háren erakaspénaz.

29. Buruzági bezála [míntzo zen], eta ez haién lége-erakaslén eta farisiénen gísa.

(ZORTZIGERREN) KAPITULIA

(Jesüsek legenbelzdüna sendotü. Erromatar ehüntariaren sinestea.
Jesüsek Simonen amagiharreba sendotü. Eri hanitx sendotü.
Jesüsi jarraikitzeko balintzak. Ekaitza ematü.
Gadarako debrüdünak sendotü.)

1. Jésus mendítik [jáitsi zénian], jénte-ózte handíak [jarráiki zeitzón].
2. Ordían lepradúnn bátek, hullánturik, adorátu zían eta érran zéion:
–Jáuna, náhi badúzu, sendótzen áhal náizu.
3. Jésusek eskía hedatúrik, húnki zían erráiten zéiolarik:
–Náhi dízut, séndo zíte.
Eta órdu bérian háren leprá [sendótu zen].
4. Jésusek [érran zéion]:
–Begiréizu ihúri erráitetik; béna zuáza, erákuts zíte apézari, eta éskent ezázu Moís[ese]k manátu emáitzia, jakileguatáko úken dezén.
5. Kafarnaúmen [sártu zénian, ehuntarí bat hullántu zéion], eta ótoi háu égin zéion:
6. –Jáuna, badít étxen mitíl bat paralisiatúrik, éta hánitx sofrítzen dízu.
7. Jésusek érran zéion:
–Jínen núzu eta sendotúren dit.
8. Ehuntaríak ihardétsi zéion:
–Jáuna, enúzu díño zu éne étxen [sar zitían], béna errázu hitz bat béra eta sendotúren dúzu éne mitíla.
9. Ézi ni bestéren manupéko nizalárik, baditít éne pían soldáduak, eta erráiten diót húni: «Hábil», eta baduázu; eta besté báti: «Áigu», eta jíten dúzu; eta éne zerbutxaríari: «Égik hóri», eta egíten dízu.
10. Háren [entzutian, Jésus] amiraturik járri zen eta bére undokuér [érran zéien]: «Egiáz dioziét: éztut edíren haiñbéste féde Israélen.
11. Hartákoz ére dioziét hánitx jínen diréla éki-jaikigiátik eta itzalgiátik, eta [zelúko erresumán járriko diréla], Abrahám, Isaák eta Jakóbeki;
12. Erresumáko háurrak, áldiz, kanpóko ulunpétarat urtikírik izánen diréla; han beitáte nígar eta hortz karráska».
13. Ordían Jésusek érran zéion ehuntaríari:
–Zuáza, eta sinétsi dúzun bezála égin dakizúla.
Eta óren bérian sendótu zéion mitíla.
14. Jésus Petíriren etxéra jin zen aldí bátez, háren ámagiarrebá elgáitzeki ohían [edíren zían].
15. Eskía [húnki zéion] eta elgáitzak útzi zían. Eta, berhála jáikirik, haién zerbutxátzen [hási zen].
16. Arrátsa jin zénian, débriek hárturik zirén hánitx [ekárri zeitzuén], eta hitz bátez ohíltzen zutían débriak, eta éri zirénak óro sendótu zutían.

17. Isaías profeták errána [béta lédin]:
Berak gure zoñhiak hartu dutu, eta gure eritarzunak egari dutu.
18. Ungurían zutían jénte-ózte handíak [ikusírik], Jésusek úraren best[e] áldialat igáran lezén [manátu zían].
19. Ordían lége-erakaslé bat [hullántu zéion] eta érran zéion:
–Jáuna, jarráikiren nitzáizu, nurát-náhi júan zitian.
20. Jésusek [érran zéion]:
–Axeriék badutíe bére zilúak, airétako txoriék bére habiák, béna Gizúnaren Semiak éztu nun étzan buría.
21. Bére dizipuluétarik besté bátek érran zéion:
–Utz nezázu lehénik juáitera, éhortz dezádan éne áita.
22. Jésusek érran zéion:
–Jarráiki zakítzat eta béde hílak hílen ehórztera.
23. Géro untzíala [ígañ zen eta bére dizipulíak jarráiki zéitzon].
24. Bat-batían, itxasúan irazárri hañ handí bat [jáiki zen], nun uháñek untzía [estáltzen beitzién. Béra, áldiz, lo záguan.
25. Dizipulíak hullántu zéitzon eta irátzarrerázi zién, zioiélarik:
–Jáuna, begíra gitzátzu! Gáltzera guátzu!
26. Jésusek [érran zéien]:
–Zéren izítzen ziraié, [gízun] féde gutitakúak?
Ordían jáikirik, mánu éman zían haizér eta itxasúari eta éme hándi bat égin zen.
27. [Gízunak] harritúrik zaudén: «Zer da háu, ótsez, núren maníak haizék eta itxasúak egíten beitutíe?».
28. Úraren best[e] áldialat [igáran zénian, Gadaratárren] lurretarát, aitziníala [agértu zéitzon], hobiétarik élkirik, bi behargabédun, hañ gáitzak, nun ezpeitzén íhur ausárt bíde hartárik igaráitera.
29. Eta óihuz hási zéitzon:
Zer da, ótsez, zúre eta gúre árteko, Jésus Jínkuaren semía? Órdu gábe [jin zíra] gúre eskerniátzera?
30. [Heienganik ez úrrun], bazén úrde sáldo handí bat álha.
31. Débriek Jésus [otoítu zién], zioiélarik:
–Hebéntik élkierázten bagutúzu, ígor gitzátzu úrde sáldo hartára.
32. Érran zéien:
–Zuazté.
Húrak gizuné[nganik] élkirik, urdétan sártu zirén, eta hañ sárri saldúa óro lauházka [abiátu zen] garáin-behéra itxasúalát, eta urían íto zirén.
33. Urdáñak, áldiz, ihési [júan zirén eta hiríala héltu zirénian, hórik óro érran zutien], behargabedunér ére zer égin ízan zen.
34. Berhála híri guzía Jésusen aitziníala [élki zen], eta bátu ziénian, otóitu zien haién lurretárik úrrunt lédin.

[BEDERATZUGERREN] KAPITULIA

(Jesüsek baldatüa sendotü. Matiesi deia.
Jesüs bekatoreeki bazkaltzen.
Odolgaltzea züan emaztea eta bürüzagiaren alaba.
Jesüsek bi ütsü sendotü. Debrüdün mütüa sendotü.
Üzta ügari da, béna langileak güti.)

1. [Jesus] untzíala igáñik, bérriz igáran zían eta bére herrialát [utzúli zen].

2. (Perlesiatu) bat ohían etzánik [ekárri zeiuén]. Jésusek, haién fedía ikusírik, (perlesiatu)ari érran zían:

–Eráikazu bihótza, éne semía! Zúre bekatíak parkátu záitzu.

3. Hórtan gáñen lége-erakásle bátzuk bére béitan zioién: «Buráu egitén du gízun húrrek».

4. Jésusek haién gogozkák ikusírik, érran zéien:

–Zértako darabiltzazíe gogokúnde gaistúak zíen bihotzétan?

5. Zer da érran éhiago, «Zúre bekatíak parkátu záitzu», ala «Jáiki zíte eta ébil zíte»?

6. Jákin dezazién, árren, Gizúnaren Semíak badiála lúrrian bekatién parkatzéko potería. (Perlesiatu)ári [érran zéion]:

–Jáiki zíte, har ezázu zúre ohía eta zuáza etxerát.

7. [Húra] jáiki zen eta etxerát [júan zen].

8. Hórren ikústiak jentiak harrítu zutían, eta Jínkua gorésten zién gizunér holáko potéria [éman ziálakoz].

9. Hántik aitzína zuálarik, legartegían járririk [gizún bat ikúsi zían], Matiú déitzen zéna, eta érran zéion:

–Jarráiki zakítzat.

Berhála jáikirik, jarráiki zéion.

10. Gertátu zen, [árren], Jésus háren étxen barazkáitan [zélarik], hára legarkári eta gizatzár hánitx [jin zitían] Jesuséki eta háren dizipuliéki barazkáitara.

11. Hóri ikusírik farisienék dizipuliér [érran zéien]:

–Zértako zíen buruzagíak játen du legarkariéki eta gizatzarréki?

12. Jésusek éntzun beitzutían, érran zéien:

–Eztíe úntsa direnék atxetér behárrik, béna bái éri direnék.

13. Zuazté eta ikas ezazíe zer érran náhi den: *Miserikordiá maitiágo dut ezí ez sakrifiziúa*.

14. Ordían Juáneren dizipuliák [hullántu zéitzon] eta érran zéiuen:

–Zértako guk eta farisienék ardúra bárur egíten dúgu, eta zúre dizipuliék, áldiz, eztíe barúrtzen?

15. Jésusek ihardetsi zéien:

–Ezkuntzalíaren lagunék béhar diéia nígar égin, [ezkuntzalía] haiéki dágueno? [Egúnak jínen díra, ezkontzalía élkiren beitéie], éta ordían bárur egínen díe.

16. Íhurk éztu ezárten súñeko zahár bati betatxú bat óihal bérriz, bestéla berríak zahárra urratúren du eta zílo handiágua egínen da.

17. Eztíe ezárten ardú berría zahági zaharrétan; bestéla [zahagíak] lehértzen díra eta ardúa ixúrten, eta zahagíak gáltzen. Béna ardú berría zahági berriétan [ezárten díe] eta bíak begirátzen díra.

18. Hoién erráiten zélarik, aitzindarí bat hullántu zéion, (gurtu) zían eta érran zéion: «Jáuna, alabá oraí bérian hil zítazut; béna tziáuri, zúre eskía gáñen páusa ezózu, eta bíziko dúzu».

19. [Jésus] jáiki zen eta bére dizipuluéki [jarráiki zéion].

20. [Ordían] emazté bat, hamabí úrte hártan odol-gáltze batéki zéna, gibelétik [hullántu zéion], eta háren suñekúaren baztérra húnki zían.

21. Ézi gogúan igaráiten zían: «[Ezpére suñekúa] húnkiten badéiot, sendotúrik niz».

22. Jésus utzúli zen, eta húra ikusírik érran zéion: «Bihótza eráikazu, éne alabá! Zúre fedíak séndoerázi zútu». Eta órdu béretik sendóturik ízan zen emaztía.

23. Jésus aitzindaríaren etxéra [héltu zénian], eta han txurularíak eta jentétze herósti hándi bat [ikúsi zutiánian], érran zéien:

24. «Zuazté hebéntik! Ézi háur hóri ézta hílik, béna lo dágo». Eta érriz ári zéitzon.

25. Jénte-ózte húra [élkierázi ziénian, Jésus sártu zen, eskía hártu zéion eta neskatilá jáiki zen].

26. Eta bérri hóri ungurunéko hérri guziétan [barreiátu zen].

27. [Jésus] hántik zuálarik, bi útsu [jarráiki zéitzon], óihuz ári zéitzolarik: «Ukazu pietate gutzaz, Dabiden semia!».

28. Etxéra [héltu zénian, utsíak hullántu zéitzon]. Eta Jésusek érran zéien:

–Úste duzíe zíek náhi duziéna égin dizakeziédala?.

–Bái, Jáuna –[érran zéiuen].

29. Ordían begíak [húnki zéitzen], ziualárik:

–Zíen sinestíaren aráu égin bekizíe.

30. Eta haién begíak idéki zirén. Jésusek mehatxuéki érran zéien:

–Begiréizie íhurk jákin eztézan!

31. Béna haiék júan eta hánko hérri órotan [salátu zíen].

32. Húrak élki zirénian, gízun mutú bat [ekárri zéiuen], behargabéki.

33. Débria [ohíltu ziánian], mutía mintzátu zen, eta jentíak harritúrik zaudén: «Egundáno, ótsez, ézta holakórik Israélen agértu».

34. Farisienék, áldiz, zioién: «Debrién gehiénaz élkerázten dútu débriak».

35. Jésus bazabílan hiríak eta herríak gáinti, bilkurétan erakásten ári zélarik, zelúko erresumáren ebanjeliúa [ezáguterázten ziálarik], eta eritárzun eta zóñhu guzíak [sendótzen zutiálarik].

36. Jénte-ózte haién ikústiak bihótza [húnki zéion], ezintúrik eta etzánik [ziélakoz], artzáin gábe dirén ardíak bezála.

37. Ordían bére dizipuliér [érran zéien]: «Uzták hánitx dira eta lángiliak, áldiz, gúti.

38. Otoi ezazíe uztén naúsia, bére uztetarát [lángile ígor dézan]».

(HAMARGERREN) KAPITULIA

(Jesüsek hamabi apostolüak izentatü. Hamabiak igorri.
Ardiak otsoen arteala. Noren beldür izan. Jesüsek berezgoa sortü.
Züek honartzen zütüenak ni honartzen naü.)

1. Jésusek bére hamabí dizipulíak déitu zutían, eta potería [éman zéien] izpirítu gaistuén ohiltzéko, eta zérnahi eritarzúnen eta zoñhúren sendotzéko.

2. Hamabí dizipulién izénak hórik díra: lehéna Simón, Petíri déitzen déna, eta Andréu háren anaía; Jakóbe Zebedéoren semía eta Juáne háren anaía;

3. Filípe eta Bartolóme; Tomás eta Matiú legarkaría; Jakóbe Alféoren semía, eta Tadéo.

4. Simón Kanákua, eta Judás Iskariót, Jésus sáldu ziána.

5. Hórik hamabíak igórri zutían Jésusek, mánu hoiéki:

–Etziteiéla júan paganuén lurretarát, ez eta sar Samaritanuén herriétan.

6. Béna lehénik zuazté Israeléko árdi galdietára.

7. Juáiten ziraién álde órotan peredíka ezazíe, [zelúko erresumá hullántu déla diózielarik].

8. Ériak séndo etzazíe, hílak pitzeráz etzatzíe, lepradúnak xáha, eta óhilt débriak. Doháñ úken duzíe, doháñ emazíe.

9. Ez úken urrérik ez zilárrik, ez béste diarúrik zíen gerrikuétan.

10. Ez alforjárik bidéko, ez bi suñekórik, ez oskírik, ez makilárik; langilíak merézi du bére janaría.

11. Zuñnáhi hirítan édo etxétan sar ziteién, argudía ziteié nur den han béhar bezaláko dénik, eta háren étxen égon ziteié hántik elk[i] ártio.

12. Etxían sartzia[n], húnki-bat egiózie, erráiten duziélarik: «Bákia étxe húni».

13. [Étxe húra] béhar bezaláko báda, zíek éman bákia jínen záio, eta merézi ezpádu, zíen bákia zihaur[engana] utzulíko záizie.

14. Eta nurbáitek etzutukeiénian náhi hártu, eta zíen elér behátu náhi eztatekiénian, zuazté étxe édo híri hartárik kánpo eta iharráus ezazíe zíen úñetako erráutsa.

15. Egiáz dioziét: Eztiágo izánen da judizióneko egúna sodomatárren eta gomorratárren, ézi ez híri háren.

16. Ardíak otsuén ártiala bezála [igórten zutiét]. Ízan ziteié, árren, zúhur sugíak bezála eta gógo-xáhu urzúak bezála.

17. Begiréizie gizunér! Tribunaletára [igorríren zutié] eta bére bilkurétan azotatúko zutié.

18. [Aitzindariéngana eta erregéngana] enegátik eramánen zutié, jakilegúa éman dizadazién haién eta pagánuen aitzinían.

19. Haién eskiétan ziratekeiénian, eztuziéla antsiárik núla édo zer erránen duzién, ézi zer ere érran béhar beitukezíe, órdu bérian gogúala emánik izánen záizie.

20. Etziraié ézi zíek izánen mintzazalíak, béna zíen Aitáren Espirítia da zie[ngan] mintzatúren.

21. Ordían anaíak anaía hilerázteko saldurén du, éta aiták semía; eta haúrrak bére burasuén kúntre [jáikiko díra], eta hileráziko dutíe.

22. Enegátik [guziék huguntúrik izánen ziraié]; béna urrentzíala ártio iráñen diána, húra dáte salbatía.

23. [Hirí batétan] eskernío egíten badeizié, íhes egizíe besté batetára. Egiáz dioziét: eztutukezíe ungurátu urréntu Israeléko hiríak, Gizúnaren Semía jin dátekieneko.

24. Ezta dizipulía buruzagía béno habóro, ez miskandía náusia benuágo.

25. [Dizipuliák askí du buruzagía bezála ízan dádin], eta miskandíak náusia bezála [ízan dádin]. Etxéko jáuna Beelzebúl déitu badíe, zunbát ehikiágo háren manuzpékuak?

26. Ez árren úken lotsárik! Ézta déus estalírik agertúko ezténik, ez déus gordérik jakínen ezténik.

27. Ulunpían erráiten deiziedána, errazíe argían, eta beárriala éntzuten duziéna, hegátzen gañétik erántzun ezazíe.

28. Ez izan béldur korpítza hile[r]ázten dienén, zúñek ezpeitiokeié hileráz arimá; béna béldur ízan ziteié korpítza eta arimá ifernialát ígor diókienaren.

29. Eztiréia bi txóri sos báten sáltzen? Haregátik ézta hétarik bat lúrrialat erórten, zíen Aitáren nahía gábe.

30. Zíen burúko bilúak óro kuntatúrik díra.

31. Ez árren úken beldúrrik: zunbátnahi txórik béno habóro balío duzíe.

32. Nurk ere gízunén aitzinían [aitortúko beinái], nik ére aitortúko dut húra éne Áita [zelían] dénaren aitzinían.

33. Nurk ere gizunén aitzinían [ukatúren beinái], nik ére ukatúren dut húra éne Áita [zelían] dénaren aitzinían.

34. Ez úste úken jin nizála bákiaren lúrriala ekártera; éniz jin bákiaren ekártera, béna bái ezpatáren.

35. Ézi *semíaren bére aitagánik, alabáren amagánik, errénaren amagiarrebáganik* [beréztera jin niz].

36. Eta *gizúnaren etsáiak bére etxekúak izánen díra*.

37. Nurk ere áita édo áma ni béno maitíago béitu, húra ézta enetáko ún; eta nurk ere semía édo alabá ni béno maitiágo béitu, ézta húra un enetáko.

38. Eta, bére kurutxía hárturik, éni jarráikiten ezténa, ézta un enetáko.

39. Bére bizía begirátzen diának, húra gálduko du; eta bére bizía enegátik gáltzen diának, húra edirénen du.

40. Zíek hártzen zutiénak ni hártzen nái, eta ni hártzen náianak ni igórri náiana hártzen du.

41. Profetári batzárre un egíten déionak, proféta délakoz, profetáren pákia [ukénen du]; eta [xuxenari] batzárre un egíten déionak [xuxen] délakoz, [xuxenaren] pákia ukénen du.

42. Eta nurk ere txipién hoiétarik báti kopór bat ur [emánen béitu] éne dizipúlu délakoz, egiáz dioziét eztiála gálduren bére pákia.

[HAMEKAGERREN] KAPITULIA

(Johane Bateiazalearen galtoa eta Jesüsen aitorpena.
Jesüsek Galileako herriak maradikatü.
Ebanjelioa jente arruntari agertürik.
Aita eta Semea. Tziauzte enegana.)

1. Jésusek bére hamabí dizipuliér éman erakaspénak [urréntu zutiánian, hántik júan zen] ungurunétako hiriétan erakastéra eta peredikatzéra.

2. Ordían Juánek, presuntegían Jesu-Krísten egitatiéz mintzátzen [éntzunik], bére dizipuliétarik bíga [igórri zéitzon],

3. Galtatzera:

–Zu zirá jin behárra, ála besté bat béhar dúgu egurúki?

4. Jésusek ihardétsi zéien:

–Zuazté eta errózie Juáneri zer éntzun eta ikúsi duzién.

5. Utsiék ikústen die, txáñkiak xúxen dabíltza, lepradúnak sendótzen díra, gorrék éntzuten díe, hílak pízten díra, eta ebanjeliúa praubér [erakásten da].

6. Eta dohátsu da [nígan] gálbide hárturen eztiána!

7. Húrak zuatzalárik, Jésus populíari Juánez mintzátzen [hási zen], ziualárik:

–Zéren ikústen ebíli ziraié bortían? Haizíak darabílan kanaberá báten?

8. Zéren ikústen, árren, ebíli ziraié? Mardóki beztitúrik den gizún báten? Béna mardóki beztitúrik dirénak erregén etxétan díra.

9. Zéren, árren, ikústen ebíli ziraié? Profetá báten? Bái, dioziét, eta profféta béno habóro dénaren.

10. Ézi hárez izkiribatúrik [ízan da]: *Huná nun igórten déizudan aitzinían éne ainguría, zúñek aitzinétik bidía apáintuko beitéizu*.

11. Egiáz dioziét: ézta agértu [emaztéganik] sortién ártian Juáne béno handiágorik; haregátik [zelúko] erresumán txipiénik déna, húra béno handiágo da.

12. Juáne [Bateizalearen] egunétarik hunát, [zelúko erresumári bórtxa égin béhar záio], eta bórtxaegilék díe eramáiten.

13. Ézi profeták óro eta legía [Juanenganaino] díra mintzátu.

14. [Jákin] náhi baduzíe, hóri da Elías jin béhar diána.

15. Behárri diának entzutéko, éntzun béza.

16. Béna zéri uduritúko dútut sortzápen huntáko gizúnak? Plazán járririk daudén háur elí bat [udúri díe], zúñek óihuz lagunér erraíten beitíe:

17. «Kantátu diziégu eta etziraié dántzatu; nigarrézko aháire éman dúgu eta eztuzíe égin nigárrik».

18. Ézi Juáne [agértu da], ezpeitzían ez játen ez edáten, eta erráiten díe: Débria[k] hárturik da.

19. Gizúnaren Semía [jin da], játen eta edáten zían, eta erráiten díe: «Huná gízun jále handí bat eta ardú edále bat, legarkarién eta bekatóren adiskidía!». Béna zuhurtarzúna dénarentako bére [haurrék ezagutúrik da].

20. Ordían hási zen ondikátzen hirién, zúñtan hánitx mirakúllu égin beitzían, etziélakoz peniténtzia égin.

21. Gáitz híre Korazín! Gáitz híre Betsaída! Zéren [ziéngan égin ízan dirén mirakullíak] Tíren eta Sidónen égin ízan bazirén, best[e] órduz zakíaz eta háutsaz estalírik peniténtzia égin beitzukeién!

22. Hartákoz dioziét: Tíren eta Sidónentako eztiágo dáte judizióniaren egunéko arrésta, ezí ez zientáko.

23. Eta hi Kafarnaúm,

altxatúren híza [zelurano]? Ifírnu zolála jáitsiko hiz!

Zéren [hígan égin dirén mirakullíak Sodómetan] égin ízan bazirén, ehiñére égun ártio iráñen beitzién.

24. Hartákoz dioiát: [Judizióneko egunían] sodomatárren arrésta eztiágo izánen duk, ezí ez hiría.

25. Ordían Jésusek, hitz hórik érran zutían:

–Esker déizut, Áita, zelúko eta lúrreko Jáuna, zuhurrér eta jakintsiér [hórik górde dutuzulárik, txipiér agértu beitutúzu].

26. Hóla dúzu, Áita, [zúre nahía] hóla beitzén.

27. Óro éne eskiétan ezári dútu éne Áitak. Eta íhurk éztu [Semía] ezagútzen Áitak báizik, ez eta Áita íhurk éztu ezagútzen Semíak báizik, eta núri ere Semíak ezáguterázi náhi úken béitu.

28. Tziáuste eneganát zíek óro nekatúrik eta ezintúrik ziraiénak, eta nik urgáitziren zutiét.

29. Har ezazíe éne uztarría zíen súñian eta ikas ezazíe enegánik ézti nizála eta umíl bihótzez, eta edirénen duzíe zíen arimén páusia.

30. Ézi éne uztarría ézti da eta árin da éne kargá.

(HAMABIGERREN) KAPITULIA

(Jeiegünari buruzko eztabada.
Baldatüa neskanegünaz sendotürik.
Jesüs, Jinkoaren zerbütxaria. Jesüs eta Beeltzebul.
Zühaitza eta frütüa: bihotza erranetan nabari.
Lege irakasle eta farisauak ikusgarri eske.
Ezpiritü gaixtoaren arrajitea. Jesüsen egiázko familia.)

1. Órdu hétan, [neskanegún bátez Jésus ógi elgé bat gáinti igáran zen], eta háren dizipulíak, góse beitzirén, ogibúru múzten eta játen [hási zirén].

2. Farisienék hóri ikusírik [Jesusei] érran zéiuen:

–Sóizu, zúre dizipuliék neskanegunéz háizu ezténa [egíten dizíe].

3. Jésusek érran zéien:

–Eztuziéia irakúrri zer égin zían Dabídek, húra eta háren lagúnak góse [zirén] bátez?

4. Núla sártu zen Jínkuaren etxían, eta [oberendáko ogiétarik] jan zían, zúñen játia ezpeitzén háizu, ez hári, ez háren lagunér, apézer berér báizik?

5. Édo eztuziéia legían irakúrri, neskanegunétan apezék háusten diéla ténpluan neskanegúna, eta eztiéla gáizki egíten?

6. Báita dioziét, ténplua béno gehiágokua déla hében.

7. Béna [*Miserikordiá maitiágo dut ezí ez sakrifiziúa* [erratian] zer érran náhi den bazenakié], egundáno etzuntukeién hogengabíak kundenátu.

8. Ézi Gizúnaren Semía neskanegúnaren ére náusi da.

9. Hántik igáran undúan, haién bilkurála [jin zen].

10. Han kaúsitu zen eskía eihartúrik zían gizún bat, eta galtátzen [hási zéitzon] neskanegunétan sendotzía [háizu denez], hútsetan háren atzáman náhiz.

11. Béna Jésusek érran zéien:

–Nur da ziétarik, ardi bat lukiána, eta [neskanegunían ziló batetára erórten bazáio], hántik har eta élki elezakiéna?

12. Zonbátez otían ézta gizúna ardía benuágo? Háizu da, árren, neskanegunéz únki egitía.

13. Ordían érran zéion gizúnari:

–Héda ezázu zúre eskía.

Hedátu zían, eta séndo egín zéion bestía bezála.

14. Farisiénak élkirik, alkarréki hitzártzen hási zirén núla galeráziren zién [Jésus].

15. Hoién jakíntsu beitzén, [Jésus hántik júan zen, eta hánitx jarráiki zéitzon], eta guzíak sendótu zutían.

16. Eta mánu éman zéien elezén ezáguteráz.

17. Isaías profeták errána béta lédin:

18. *Huná éne zerbutxaría, haitátu dudána, éne maitía, [zuñengan éne bihótza gozátzen béita]. Éne Espirítia [harengan] ezaríko dut, eta xúxenbidía popúlu arrotzér erakutsíko du.*

19. *Ezta ahárran aríko, éztu oihúrik egínen, eztíe éntzunen háren mintzúa karrikétan.*

20. *Kanabéra zartatía éztu háutseren, éztu hil urrentúren ke emáiten dían mukía.*

21. *Eta popúlu arrotzék [harengan] esperántza hárturen díe.*

22. Ordían, débria[k] hárturik zen útsu eta mútu bat [ekárri zeiuén], eta sendótu zían, hañ úntsa, nun mintzátzen beitzén eta ikústen beitzían.

23. [Jente-óztiak] izitúrik zaudén eta zioién: «Ez oté da háu Dabíden semía?».

24. Farisienék hóri éntzun beitzién, érran zién:

–Hórrek eztútu débriak ohíltzen Beeltzebúl debrién gehiénaz báizik.

25. Jésusek, haién gogozkák [ezagútzen beitzutían], érran zéien:

–Bére ártian berezírik den erresumá eráuzirik izánen da; eta bére béitan berezírik den hiríak édo etxíak éztu iráñen.

26. Eta Satánek Satán ohíltzen bádu, bére kúntre berezírik da. Núla ordían iráñen du háren erresumák?

27. Eta nik Beeltzebúlez ohíltzen badútut débriak, zíen haurrék núrtzaz ohíltzen dutíe? Bérak, árren, izánen díra zíen jujíak.

28. Béna Jínkuaren Espirítiaz badútut nik débriak ohíltzen, ordían ziengána [héltu da] Jínkuaren erresumá.

29. Nur dáite sar azkarráren etxían, háren hatíak nurk ditzáke eráman, ezpádu aitzinétik estéki azkárra? Ordían déio biláiziko etxía.

30. Enéki ezténa éne etsái da, eta enéki bíltzen eztiának barreiátzen du.

31. Hortákoz dioziét: Zernáhi bekátu eta buráu izánen da [gizunér] parkatúrik, béna Espirítu Sáintiaz égin buráua ézta izánen parkatúrik.

32. Gizúnaren Semíaren kúntre mintzazalíari parkatúrik [izánen záio], béna Espirítu Sáintiaren kúntre mintzazalíari etzáio izánen parkatúrik, ez ménte húntan, ez eta gerokúan.

33. Errazíe zuháña un déla, háren frútia un ezagútzen duziénian. Édo errazíe zuháña gáisto déla eta háren frútia ére gáisto. Ézi frútutik zuháña ezagútzen da.

34. Súge kastá! Núla zitakeié úntsa míntza, gáisto ziraiénian? Ézi bihótzaren betadurátik da ahúa mintzátzen.

35. Gízun únak barné únetik idókitzen dútu gáiza únak. Eta gízun gaistúak barné gaistótik idókitzen dútu gáiza gaistúak.

36. [Nik] erráiten deiziét, érran dutukeién éle áuher guziéz kúntu emánen diéla [gizunék] judizióneko egunían.

37. Ézi zúre hitzetárik zíra izánen júsko ezagutúrik, eta zúre hitzetárik zíra izánen kundenatúrik.

38. Ordían lége-erakaslétarik eta farisienetárik zunbáit [mintzátu zéitzon] eta érran zéiuen:

–Jáuna, náhi dizúgu zuregánik mirakullú bat ikúsi.

39. Jésusek ihardétsi zéien:

–Kásta gáisto eta nahási húnek mirakullú bat galtátzen du! [Bena] mirakullúrik etzáio emánen, Jonás profetáren mirakullía báizik.

40. Hala núla ézi *[Jonás hírur egúnez eta hírur gáiez arráñ handí báten sabelían égon beitzén]*, hala-hála egónen da Gizúnaren Semía lúrraren bihotzían hírur egúnez eta hírur gáiez.

41. Ninibatárrak [judiziónian popúlu húnen kúntre jáikiko dira] eta kundenatúren díe, zéren peniténtzia égin beitzíen Jonásen erraníala. Eta huná Jonás béno habóro déna hében.

42. Heguá-aldéko erregiñá jáikiren da, judiziónian, popúlu húnen kúntre eta kundenatúko du, lúrraren bazterrétik Salomónen zuhurtarzúnaren éntzutera [jin beitzén]. Eta huná Salomón béno habóro déna hében.

43. Izpirítu gaistúa [gizunaganik] élki dénian, badúa bázter idórrak gáinti, páusiaren undúan, eta éztu ediréiten.

44. Ordían erráiten du: «Utzulíko niz élki nízan etxíalat». Eta jin dénian, hútsik, xahatúrik eta apáinturik [ediréiten du].

45. Badúa ordían, eta beréki béste zázpi izpirítu [hártzen dútu], béra béno gaistuáguak, eta han sárturik egóiten díra; eta gízun háren azkentzíak hatsárrien sordéi bilátzen díra. Hála agitúko záio kásta ezinágo gáisto húni.

46. Oráno jente-oztér [míntzo zélarik], háren áma eta anaíak kanpúan zaudén hári mintzátu náhiz.

47. Nurbáitek érran zéion:

–Zúre áma eta zúre anaíak kanpúan dutúzu, eta galtátzen zutíe.

48. Jésusek míntzo zéionari ihardétsi zéion:

–Nur da éne áma eta zuñ díra éne anaíak?

49. Eta [bére dizipulienganat] eskía hedatúrik, érran zían:

–Huná éne áma eta anaíak.

50. Ézi nurk ere egíten béitu éne Áita [zelían] dénaren nahía, húra éne anáie da, eta arréba eta áma.

(HAMAHIRUGERREN) KAPITULIA

(Ereilearen parabola. Zertako mintzo den Jesüs parabolaka.
Jesüsek ereilearen parabola argitü. Ogiaren arteko zalgiaren parabola.
Zerba aziaren eta altxatüraziaren parabolak.
Jesüsek zalgiaren parabola argitü. Diharüatearen eta
perlaren parabolak. Sarearen parabola. Parabolen bürürapena.)

1. Egun hártan, Jésus etxérik élkirik, ítxas bazterrían [járri zen].

2. Eta harengána jente-ózte hañ handíak [bíldu zirén], nun untzí batetára ígañ beitzén eta han járri. Jente-ózte guzía, áldiz, ur bazterrían záguan.

3. Eta hánitx gáiza érran zéien alegíaz: «Eréilia –ziúan– eréitera [élki zen].

4. Eréiten ári [z]élarik, házi zunbáit bíde bazterríala [erórí zirén], eta zelúko txoríak jin zirén eta jan zutién.

5. Béste zunbáit hartokiétara [erórí zirén], nun ezpeitzíen hanbát lúrrik. Eta berhála sórtu [ziren], lúrrak loditarzúnik ezpeitzían.

6. [Béna] ekía jáiki zénian érre zirén, eta zaáñik etziélakoz eihártu zirén.

7. Béste zunbáit elorriétara [erórí zirén], eta elorríak handítu zirén eta íto zutién.

8. Bestíak lur úniala [erórí zirén], eta bíhi éman zién: bátak éhun, bestíak hirurétan hógei, bestíak hógei eta hámar.

9. Entzutéko [beárri diának] éntzun béza.

10. Dizipuliék, hullantúrik, érran zéiuen:

–Zértako mintzátzen zitzaié alegíaz?

11. Jésusek ihardétsi zéien:

–Zíer éman délakoz [zelúko] erresumáren gáiza gordén ezagutzía, eta haiér eztélakoz éman.

12. Ézi diánari emánen záio eta gaíntika ukénen du, eztiánari, áldiz, diána ére idókirik izánen záio.

13. Hartákoz alegíaz míntzo nitzáie, ikusírik ére ezpeitíe ikústen, eta éntzunik ére ezpeitíe éntzuten, ez entelegátzen.

14. Eta hoiétan betátzen da Isaías profetáren errána:

Zíen bearriéz éntzunen duzíe eta eztuzíe gogúan hárturen, eta begiéz ikusíren duzíe eta etziraié ohartúren.

15. *Ézi popúlu hórren bihótza [gogórtu da] eta beárriak tapátu dutíe, eta zerrátu begíak, lótsaz íkus dezén begiéz eta bearriéz éntzun dezén, eta gogúan har dezén eta húnerat útzul ditían, eta séndo ditzádan.*

16. Béna zíen begíak doháñ únekuak díra, ikústen beitíe. Eta zíen beárriak, éntzuten beitíe.

17. Egiáz dioziét, hánitx profféta eta [xuxenek ikúsi] náhi úken diéla zíek ikústen duziéna, eta eztíe ikúsi; eta éntzun zíek éntzuten duziéna, eta eztíe éntzun.

18. Zíek, árren, éntzun ezazíe eréiliaren [alegiák zer érran náhi dun].

19. Nurk ere Erresumáko hítza [éntzuten béitu] eta gogúan ez hártzen, Gaistúa [jíten záio] eta bihotzían eréñ zeiuéna [idókitzen déio]. Hóri da «bíde bazterrían» eréña.

20. «Hartokían eréña» [háu] da: núizetare nurbáitek hítza [éntzuten béitu], eta berhála húra boztaríoeki hártzen.

21. Béna éztu bére béitan errórik, eta igarankór da; hortákoz, [Jínkuaren legíagátik goitzarrénak eta eskerniúak jíten dirénian], berhála kordokátzen da.

22. «Elorriétan eréña» [háu] da: nurk ere hítza [éntzuten béitu], béna ménte huntáko arrankurék eta aberastarzunén inganiúak hítza [itótzen díe] eta frútu gábe barátzen da.

23. «Lur unian» eréña [háu] da: hítza éntzuten diána eta gogúan hártzen, eta frútu ekárten, nurk éhun, nurk hirurétan hógei, nurk hógei eta hámar.

24. Béste alegiá bat ekárri zéien, ziualárik: «[zelúko] erresumák gizún bat [udúri du], zúñek [bére alorrían házi úna eréñ beitzían].

25. Béna gizúnak [lo zaudelárik, háren etsáia jin zen eta ogíaren ártian zálge eréñ zían], eta júan zen.

26. Belárra [handítu zénian eta burutu, ordían zalgíak ére agértu zirén].

27. Etxéko-jáunaren mitílak [júan zéitzon] eta érran zéiuen: "Jáuna, eztuzía házi úna eréñ zúre alorrían? Núlaz du, árren, zálge ekárten?".

28. [Hárek] ihardétsi zéien: "Etsáiak hóri egín du". Mitilék érran zéiuen: "Náhi duzía júan gitían eta bil dezágun?".

29. [Eta] érran zéien: "Ez, zalgíaren biltziaréki élki eztezazíen haréki batían ogía ére.

30. Utz etzatzíe bíak handitzéra uztétarano, eta uztén ordían ogi-epailér [erránen dut]: Bil etzatzíe lehénik zalgíak eta herts etzatzíe eskutáka erraerázteko. Ogía, áldiz, bil ezazíe éne bihitegíalat"».

31. Béste alegiá bat ekárri zéien, ziualárik: «[Zelúko] erresumák mustárda bihí bat [udúri du], zuñ gizún bátek har eta bére alorrían [eréiten béitu].

32. Bíhi hóri haziétako txipiéna da, béna handítu dénian, bélar guzíak béno handiágo da, eta zuháñ bat bilátzen da, hála nun txoríak háren adarrétan [páusatzen beitíra]».

33. Béste alegía háu oráno ekárri zéien: «[Zelúko erresumák altxaturázi bat udúri du], zuñ emazté bátek har eta hírur gaitzúru iríni [ezárten béitu], oría óro áltxa ártio».

34. Gáiza hórik óro Jésusek alegíaz érran zutían populíari, eta alegéaz báizik etzéien haiér mintzátzen.

35. Profeták érran ziána [béta lédin]:

Alegíaz mintzatúren niz, mundíaren hástetik gordérik dirénak [agertúren dútut].

36. Ordían, populía igorrírik, etxerát [jin zen. Dizipuliák hullántu zéitzon, erránez]:

–Típil ezagúzu, ótsez, alorréko zalgíaren alegiá.

37. Jésus húla mintzátu zéien:

–Házi únaren eréilia Gizúnaren Semía da.

38. Alórra, áldiz, mundía da. Házi úna erresumáko háurrak díra. Zalgía, áldiz, izpirítu Gaistúaren háurrak díra.

39. Etsái, zalgíaren eréilia, débria da. Úzta denborá mentén urrentzía da. Ogi-epáiliak, áldiz, ainguríak díra.

40. Hala núla zalgíak [bíltzen beitíra] eta súian errátzen, hála izánen da mentén urrentzían.

41. Gizúnaren Semíak bére ainguríak [igorríren dútu], eta háren erresumátik gálbide emáiliak óro eta gáizki egilíak [bílduko dutíe].

42. Eta súzko labialát [egotxíren dutíe]. Han izánen da nígar eta hortz karráska.

43. Ordían [xuxenek ekíak bezála argitúren díe], bére Aitáren erresumán. Entzutéko beárri [diának] éntzun béza.

44. [Zelúko] erresumák alorrían gordérik den tresór bat [udúri du], zuñ gízun bátek ediréiten béitu eta gordátzen. Eta bére ediréitziaz bózturik badúa, eta dutían guzíak [sáltzen dútu, eta álor húra erósten du].

45. [Zelúko erresumák oráno gízun sál-eroslé bat udúri du], pérla ederrén undúan dabilána.

46. Pérla prezío handitakó bat [aurkitúrik, badúa eta dutían guzíak sáltzen dútu eta húra erósten du].

47. [Zelúko erresumák oráno itxasúalat urtikírik den saré bat udúri du], zúñek arráñ suérte órotarik [bíltzen béitu].

48. Béte dénian élkiten díe eta, ur bazterrían járririk, únak [haitátzen dutíe] eta zarétan ezárten; gaistúak, áldiz, kanporát urtikítzen.

49. Hóla gertatúren da mundíaren urrentzían: ainguríak [agertúren díra eta gaistúak únen ártetik berezíren dutíe].

50. Eta súzko labialát [egotxíren dutíe]. Han izánen da nígar eta hortz karráska.

51. Hórik óro gogúan hártu dutuziéia?

–Bái –[ihardetsi zéiuen].

52. Jésusek [érran zéien]:

–Holatán [zelúko] erresumáren gaizéz jakíntsu dénak, etxéko-jáun bat [udúri du], zúñek bére giltzpétik gáiza berríak eta zahárrak [élkitzen beitútu].

53. Jésusek [alegía hórik] érran urréntu zutiánian, hántik [júan zen].

54. Bére herrialát utzulírik, hánko bilkurétan erakásten [ári zen. Eta entzulék, harritúrik], zioién: «Núntik dútu hórrek holáko jakitatía eta potería?».

55. Eztá háu maiér báten semía? Hórren amá eztá María déitzen, eta hórren anaíak eztirá Jakóbe, eta Joséf eta Simón eta Júde?

56. Eta hórren arrebák eztirá guzíak guréki? Núntik dútu, árren, hórrek hórik óro?».

57. Eta gálbide hártan hártzen zíen.

Jésusek érran zéien ordían: «Ézta proféta uhúre gabérik bére herrían eta bére étxen báizik».

58. Eta etzían han égin mirakúllu hánitx, haién sinéste-gabiagátik.

(HAMALAUGERREN) KAPITULIA

(Herodesek Johane Bateiazalea eroarazi.
Jesüsek jentetzeari lehen aldikoz jatera eman.
Jesüs huran gainen hoinez. Genesaret aldean sendotzeak.)

1. Órdu hétan Heródes erregíak Jésusen oména [éntzun zían].

2. Eta bére manuzpekuér [érran zéien: «Hóri Juáne Bateiazalea da. Hílen ártetik] píztu dáte, eta hartákoz du hainbéste mirakúllu egíten».

3. Heródesek ézi Juáne [harrerázi zían], eta estekatúrik presuntegían ezári, bére anaíaren [Herodiás] emaztiagátik.

4. Juánek [erráiten zéiolakoz: «Etzáizu háizu Herodiasen] etxekitzía».

5. Eta hílerázi nahírik, populíaren beldúrrak barátu zían, profétatako etxekítzen ziélakoz.

6. Béna Heródesen sór-egunían, Herodiásen alabá korteliárren erdían [dántzatu zen], eta láket ízan zéion Heródesi.

7. Hainbéstetara, nun zin eginik [hitzéman beitzéion zernáhi gálta lizón emánen zéiola].

8. Neskatilák, bére [amák] aholkatúrik, érran zéion: «Indázut órai berían úntzi húntan Juáne [Bateiazalearen] buría».

9. [Errégek] péna hártu zían, béna bére zínagatik eta barazkaltzále lagunéngatik, éman lekión [manátu zían].

10. Igórri zían, árren, eta Juáneri buría mútzerázi zían presuntegían.

11. Eta háren buría untzían [ekárri zién, eta neskatilári éman zéiuen, eta hárek amári eráman zéion].

12. Háren dizipuliák júan eta háren korpítza [hártu zién] eta ehórtzi zién. Géro Jésusi berríaren emáitera [jin zirén].

13. [Jésusek] hóri éntzun ziánian, [ontziská batétan] abiátu zen hántik basa-baztér batetarát béra. Béna populiék jakíntu ziénian, úñka [jarráiki zéitzon] ungurunétako hiriétarik.

14. Untzítik elkitzían, jente-ózte hándi húra [ikúsi zían, eta haiéntako bihotzberátu zen, eta heien artian] zirén ériak sendótu zutían.

15. Arrátsaren [jítian, bére dizipulíak hullántu zéitzon] eta érran zéiuen:

–Gúne háu bása dúzu, eta jádanik beránta. Ígor etzátzu jénte hórik, herriétarat [júan ditían], eta játeko éros dezén.

16. Jésusek érran zéien:

–Eztíe júan behárrik, emézie zíek játera.

17. Ihardétsi zéiuen:

–Eztizúgu hében bost ógi eta bi arráñ báizik.

18. Jésusek érran zéien:

–Ékar etzadatzíe húna.

19. Jente-ózte húra belárren gáñen [járrerázi undúan], bost ogíak eta bi arráñak [hártu zutían] eta, begíak zelialát altxatúrik, benedikátu zutían eta háutse eta éman ogíak dizipuliér; dizipuliék, áldiz, salduér.

20. Guziék [jan zién] eta áse zirén. Etabíldu zutién hundárrak , hamabí zaréta ógi záti.

21. Jáliak bazirén bost míla gízun, emaztíak eta háurrak bestálde.

22. Ordían berhála Jésusek dizipulíak [manátu zutían, untzíala ígañ litían], eta léhent lekitzón úraren best[e] áldiala, hárek jente-ózte húrak igórten zutían ártian.

23. Populía [igórri zíanian, mendíala ígañ zen] béra otoitzéra. Eta arrátsa jin zénian han zen ber-béra.

24. Untziská, áldiz, uháñek bazarabilén itxasúaren erdían, kúntre beitzían haizía.

25. Gáiazko laúrgerren belláldian, Jésus itxáson gáñen ebíltez [jin zéien].

26. Itxáson gáñen háren úñez ebílten ikústiak izítu zutían. «Kusó bat da» ziuén. Eta lotsatúrik óihuz hási zirén.

27. Béna berhála Jésus mintzátu zéien:

–Éma ziteié! Ni niz, ez úken lotsárik!

28. Petírik ihardétsi zéion:

–Jáuna, zu bazíra, jíneráz nezázu zuregána úren gáñen.

29. Jésusek érran zéion:

–Tziáuri.

Petíri, untzítik jáitsirik, bazúan úñez úren gáñen, [Jésusenganat] héltzeko.

30. Béna haizía bórtitz zéla [ikusírik], lotsátu zen. Eta, bárna juáiten hási beitzén, óihu égin zían:

–Jáuna, begíra nezázu.

31. Jésusek, berhála eskía hedatúrik, etxéki zían eta érran zéion:

–Féde gútitakua! Zértako dudátu zíra?

32. Untzíala [ígañ zirénian, haizía] emátu zen.

33. Ordían untzían zirénak hullántu zeitzén eta (gurtu) zién, ziuélarik:

–Egiázki Jínkuaren semía zíra zu.

34. Úretik élki zirénian, Genesaréko lurretarát [jin zirén].

35. Hánko jenték ezagútu ziénian, ungurúne órotan [jakinerázi zién, eta éri zirénak óro ekárri zeitzuén].

36. Háren súñekuaren baztérraren berére húnkitera [utz lítzan otóitzen zién]. Eta húnki ziénak óro sendótu zirén.

(HAMABOSGERREN) KAPITULIA

(Judioen ohidürak eta Jinkoaren nahia. Zerk hirotzen dü gizakia?
Jesüsek kanaandarsa baten alaba sendotü. Eri hanitx sendotü.
Jesüsek jenteari bigerren aldikoz jatera eman.)

1. Ordían, Jerusalemérik jínik, lege-erakásle eta farisién bátzu [hullántu zéitzon], eta érran zéiuen:

2. –Zértako zúre dizipuliék háusten díe zahárren erakaspéna? Ézi eztitizíe eskíak xahátzen ogíaren jaterako.

3. Jésusek ihardétsi zéien:

–Zértako zíek háusten duzíe Jínkuaren manía, zihaurén erakaspénari jarráikiteko?

4. Ézi Jínkuak érran du: *Uhúra etzátzu áita eta áma. Eta aitári edo amári gáizki mintzátzen déna hil dadíla.*

5. Zíek, áldiz, erráiten duzíe: nurk ere aitári edo amári [erránen béitu]: *Nik Jínkuari eskentúren dutudának óro, zuretáko ekoízpen izánen díra*,

6. Eztu béste eginbidérik zor aitári edo amári. Eta hóla ezdéustu duzíe Jínkuaren manía zíen erakaspénaz.

7. Faltsíak! Ziétzaz da egiázki Isaías profetá mintzátu, érran diánian:

8. *Popúlu hórrek ezpañéz uhurátzen nái, béna hórren bihótza úrrun da enegánik.*

9. *Hoiék emáiten deitadén uhuría fúntsik gábe da, gizunén errának eta maníak erakásten dutiélakoz.*

10. Jente-óztiak bereganát déiturik, érran zéien: «Behá ziteié eta gogúan har ezazíe!

11. Eztu ahúan sártzen dénak teiútzen gizúna; béna ahótik élkitzen dénak, hárek teiútzen du gizúna».

12. Ordían dizipulíak hullántu zéitzon eta érran zeiouén:

–Badakizía farisienér zúre hitz hóri gaitzítu záiela?

13. Jésusek ihardétsi zéien:

–Éne Áita zelukúak lantátu eztutían lantaríak óro, erruétarik élkirik izánen díra.

14. Béde! Útsu díra eta utsién laguntzále, béna utsíak utsía lagúntzen bádu, bíak zilualát eroríko díra.

15. Petírik elía hárturik érran zéion:

–Alegía hóri típil ezagúzu.

16. Jésusek ihardétsi zéion:

–Zíek ére oráno entelégu gábe ziréia?

17. Eztuzíe ikústen ahúan sártzen dirénak óro sabelialát duatzála, eta géro baztér batetarát igórten diréla?

18. Ahótik élkitzen dirénak, áldiz, bihotzétik jíten díra, eta haiék gizúna teiútzen díe.

19. Ézi bihotzétik élkitzen díra gogózka gaistúak, gízun ehóitiak, bésten emaztéki nahastíak, likizkeriák, uhuinkeriák, gezurrézko jakileguák, buráuak.

20. Hoiék díe gizúna teiútzen. Béna eskíak xahátu gábe játiak éztu teiútzen gizúna.

21. Jésus hántik élki zen eta júan Tíreko eta Sidóneko aldétarat.

22. Eta emázte kanaantár bat, gáinti hétarik jínik, óihuz hási zéion:

–Ukázu pietáte nítzaz, Jáuna, Dabíden semía! Éne alabá débria[k] esteiaríki eskerniatúrik dúzu.

23. Jésusek hítzik etzéion ihardétsi. Bére dizipulíak hullántu zéitzon eta érran zéiuen:

–Duála ígor ezázu, óihuz beitúgu undótik.

24. Jésusek ihardétsi zían:

–Éniz igorrírik Israélen etxénko árdi gáldietara báizik.

25. Béna emaztía hullántu zen eta (gurtu) zían, erráiten zéiolarik:

–Jáuna, hel zakítzat.

26. Jésusek ihardétsi zéion:

–Ézta sóri háurren ogía [har dádin, eta txakurrér urtíki dádin].

27. Emaztíak [érran zéion]:

–Hála dúzu, Jáuna; béna txakurrék ére játen dizíe bére nausién maháñetik erórten dirén porrokiñétarik.

28. Jésusek ordían érran zéion:

–Emaztía, zúre fedía hándi dúzu! Égin dakizúla náhi dúzun bezála.

Eta háren alabá óren bérian [sendótu zen].

29. Hántik igaránik, Jésus Galiléako itxas-bazterríala [jin zen]. Eta, mendí batetára igáñik, han járri zen.

30. Jénte-ózte hándi elí bat [jin zéitzon], beréki mútu, útsu, txáñku, hérbal eta béste éri hánitx [ekárten ziélarik]. Eta háren úñetara ezári zutién, eta sendótu zutían.

31. Jentíak áldiz harritúrik zaudén mutíak mintzátzen ikústez, txáñkiak xúxen ebílten, utsíak ikústen. Eta gorésten zíen Israélen Jínkua.

32. Jésusek ordían bére dizipulíak [déitu zutían] eta érran zéien:

–[Jénte hoiék] bihotzberátzen náie, zéren hírur égun béitu enéki dáudela, eta eztíe zer jan. Eta eztútut bárur igórri [náhi], bidían ingótxa eztitían.

33. Dizipuliék [érran zéiuen]:

–Núntik úken dezakégu bórtu húntan áski ógi, sáldo hándi hoién aseerázteko?

34. Jésusek galtátu zéien:

–Zunbát ógi duzíe?

–Zázpi eta arráinko zunbáit –[érran zéiuen].

35. Jentíak [lúrrian jar litían manátu zutían].

36. Zázpi ogíak eta arráñak [hártu zutían] eta, eskérrak éman undúan, háutse zutían eta dizipuliér éman, eta dizipuliék populíari.

37. Guziék [jan zién] eta áse zirén. Eta barátu porrokiñétarik zázpi zaréta [bíldu zién].

38. Bazirén otían jále, láur milá gízun, háurrak eta emaztíak bestálde.

39. Jente-ózte húra [igórri ziánian, untziská batetára ígañ zen eta Magadáneko mugétara jin zen.

(HAMASEIGERREN) KAPITULIA

(Farisau eta saduzearrak ikusgarrizko ezagügarri eske.
Farisauen eta saduzearren altxatürazia.
Petírik Jesüs Mesiastako aitortü.
Jesüsek bére pasione-pizteak lehen aldikoz aipatü.
Jesüsi jarraikitzea.)

1. Ordían farisién eta saduzeén bátzu jin zéitzon, háren ikertzekótan. Eta [zelútik zerbáit mirakúllu erákuts lizén otóitu zién].

2. Jésusek ihardétsi zéien eta érran:

–Arrátsa héltu dénian erráiten duzíe: «Atéri egínen du, ézi górri da zelía».

3. Eta góizan: «Égun irazárri ukénen dúgu, ézi gor-béltz da zelía». Badakizíe, árren, zelíaren utxurák zer dían señalátzen, eta denborén señalíak eztitzakezíe ezágut.

4. Kásta gáisto eta nahási húnek mirakullú bat [galtátzen du]! Eta mirakullúrik etzáio emánen, Jonás profetáren mirakullía báizik.

Eta húrak útzirik júan zen.

5. Dizipulíak úraren [beste áldialat igáran zirén], eta janaría ahátze zéien hártzeko.

6. Jésusek érran zéien: «Begiréizie, eta gogo-emazíe farisiénen eta saduzeénen altxaturáziari!».

7. Eta [bere ártian gogozkétan zaudén], ziuelarik: «Aráuz eztugulákoz hártu ogírik, erráiten du».

8. Jésusek, gogúan zer igaráiten zíen [beitzakían], érran zéien: «Zértako zíen ártian míntzo ziraié, ogírik eztuziéla?

9. Etzáizie gogúatzen, eta etziraié órit, bost míla gizúni éman bost ogiétarik, zunbát zaréta bíldu duzién?

10. Eta láur míla gizúni éman zázpi ogiétarik, zunbát zaréta bíldu duzién?

11. Núlaz eztuzíe entelegátzen enizála ógiz mintzátu, erraitián: Begiréizie farisiénen eta saduzeénen altxaturázitik?».

12. [Ordían] goguátu zirén etzéiela érran begíra litían ógi altxaturázitik, béna farisiénen eta saduzeénen erakaspenétarik.

13. Géro Jésus [Filiperen Zesareako gaintietarát jin zen, eta dizipuliér galtátu zéien]:

–Nur déla dioié jenték Gizúnaren Semía?

14. Ihardétsi zéiuen:

–Baték Juáne [Bateiazalea], besték Elías, besték Jeremía, édo profetétarik zunbáit.

15. Jésusek érran zéien:

–Zíek, áldiz, nur nizála diózie?

16. Simón Petírik elía hárturik érran zéion:

–Zu Krist [zíra], Jínko bizíaren Semía.

17. Jésusek ihardétsi zéion eta érran:

–Dohátsu zíra Simón, Jonáen semía, ezpeitéizu hóri haragíak erakátsi, béna bái éne Áita [zelían] dénak.

18. Eta nik erráiten déizut, zu Petíri (Harri) [ziréla], eta hárri hórtan gáñen eráikiko dudála éne Elizá, eta ifernúko borték eztiéla húra góituko.

19. Zúri [zelúko erresumáko] gíltzak emánen déitzut, eta zer ere hértsiren beitúzu lúrrian, [zelían] hértsirik izánen da, eta zer ere sóltaturen beitúzu lúrrian, [zelían ére sóltaturik izánen da].

20. Ordían dizipuliér [mánu éman zéien], elezén ihúri érran húra Jésu-Krist zéla.

21. Ordútik Jésus dizipuliér agértzen [hási zen] Jerusalemerát júan eta hánitx igúrtzi [béhar ziála zahar eta lege-erakaslénganik eta apézen gehiénenganik]; hileráziko ziéla eta hírurgérren egunían pízturen zela.

22. Petírik beréz hártu zían eta érran zéion:

–Eztuzúla zer, Jáuna, holakórik gérta dakízun.

23. Jésus utzuli zéion, eta érran:

–Úrrun zakítzat, Satán! Gáizki-bide zitzáit, ezpeitúzu Jínkuarenganikáko zuhurtarzúna, béna bái gizunénganikakúa.

24. Ordían Jésusek bére dizipuliér [érran zéien]: «Nur ere éne undótik [náhi béita jin], bére buríari úko égin béza, har béza bére kurutxía eta jarráiki békit.

25. Ézi nurk ere bére bizía begirátu [náhi beitúke], hárek gálduren du; áldiz, nurk ere bére bizía enegátik [gálduren béitu], hárek edirénen du.

26. Eta otían zer hobé du gizúnak, múndu guzía irabazírik, bére arimá gáltzen bádu? Édo zer emánen du gizúnak bére arimáren ordári?

27. Ézi Gizúnaren Semía bére Aitáren lorián bére ainguriéki [jínen da], eta ordían batbedéra sáristatúren du bére lanheginén aráu.

28. Egiáz dioziét: badíra hében dirénetan zunbáit, Gizúnaren Semía bére errégeguan agértzen ikúsi gábe [hílen eztirénak]».

(HAMAZAZPIGERREN) KAPITULIA

(Itxüraldatzea: pasione ondoko aintza aitzinetik agertü.
Fedearen ahala: erormindünaren sendotzea.
Jesüsek pasione pizteak bigerren aldikoz aipatzen.
Jesüsek eta Petirik tenplu legarra ordaitü.)

1. Hántik séi egúnen burían, Jésusek Petíri eta Jakóbe eta Juáne háren anaía [hártu zutían], eta berbérak méndi gorá batetára [eráman zutían].

2. Eta utxúraz kanbiátu zen haién aitzinían. Háren begitártia ekía bézañ árgi [járri zen], eta háren súñekuak elúrra bézañ xúri.

3. Hainbéstereki Moises eta Elías haréki mintzátzen [ikúsi zutién].

4. Petírik, elía hárturik, [Jésusi] érran zéion: «Jáuna, un dúzu hében egóitia. Náhi badúzu, dezágun égin hében hírur etxóla, bat zúre, besté bat Moisesen eta besté bat Elíasen».

5. Oráno míntzo zélarik, hodéi argí bátek estáli zutían. Eta hodéietik [botz bat erántzun zen]: «Háu da éne Séme maitía, zúñtan éne gogúa [ezári béitut], behá zakitzoié».

6. Hórren [entzutian, dizipulíak] ahózpez eróri zirén eta lótsaz ikarátu zirén.

7. [Jésus] hullántu zéien eta húnki zutían erráiten zéielarik: «Jáiki ziteié eta ez úken lotsárik».

8. Ordían begíak altxátu zutién eta íhur etzién ikúsi Jésus béra báizik.

9. Mendítik [jáisten zirélarik, Jésusek] mánu háu éman zéien: «Ihúri eztezaziéla érran zer ikúsi duzién, Gizúnaren Semía [hílen ártetik] pítz ártio.

10. Gálto háu égin zéiuen dizipuliék:

–Zértako dioié, árren, lege-erakaslék [lehénik] Elíasek jin béhar diála?

11. Jésusek ihardétsi zéien eta érran:

–Egiá da Elías jínen déla eta óro apáintuko dutiála.

12. Béna [Elías jádanik jin déla erráiten deiziét], eta eztiéla ezagútu, béna náhi zutién guzíak égin deitzoiéla. Halabér haiengánik sofritúren du Gizúnaren Semíak.

13. Ordían dizipulíak [goguátu zirén, Juáne Bateiazaleaz] míntzo zéiela.

14. Populiagána jin zénian, gizún bat [hullántu zéion] eta, háren úñetara erorírik, érran zéion:

15. –Jáuna, ukázu pietáte éne Semíaz, [ero] béita eta hánitx sofrítzen béitu, ézi ardúra erórten dúzu suialát eta úsu urialát.

16. Zúre [dizipuliéngana] ekárri dízut, eta eztizíe sendótu áhal úken.

17. Jésusek elía hárturik érran zían:

–Jénte sinéstegabia eta gaistúa! Núiz ártio nizáte ziéki? Núiz ártio egaríren zutiét? Ekar ezadazíe húna.

18. Jésusek mehatxátu zían, eta débria harengánik [élki zen], eta órdu béretik séndo ízan zen háurra.

19. Ordían dizipulíak Jésusi [hullántu zéitzon], eta beréz hárturik érran zéiuen:

–Zértako guk eztúgu ohíltu áhal úken?

20. Jésusek ihardétsi zéien:

–Zíen sinéstegabíagátik. Ézi egiáz dioziét: [Fedía] bálin bazuníe, mustárda bihí bat bézañ hándi lizatiána, méndi hórri [érran zenezakeié]: «Hábil hébentik hára», eta júan léite eta déus elizáte etzenezakeiénik.

21. Béna débru suérte hóri ézta iráisten otoítziaz eta barúraz báizik.

22. Galiléan zaudelárik, Jésusek érran zéien: «Gizúnaren Semía gizunén eskiétan [ezarírik izánen da].

23. Hileráziren die, eta hírurgerren egunían pízturen da.

Eta ezinágo [trístetu zirén].

24. Kafarnaúmera [jin beitzirén, legar-bíltzaliak Petírigána hullántu zirén], eta érran zéiuen:

–Zíen buruzagíak eztízu pakátzen legárra?

25. «Bái» [érran zéien].

[Petíri étxen sártu zénian, Jésus] aitzíntu zéion, eta érran:

–Zer záizu, Simón? Lúrreko erregék núrganik eráik[i] óhi díe legárra? Bére [háurrenganik, ála atzénganik]?

26. Petírik ihardétsi zéion:

–[Atzénganik].

Jésusek hári:

–Árren háurrak líbro dutúzu.

27. Béna eztezégun éman gáizteko bidérik, zuáza itxasúala eta urtikázu amía eta lehénik jínen záizun arráña har ezázu; ahúa zábalt ezózu, eta berrogeiekó bat [edirénen beitéiozu], har ezázu eta emézu éne eta zuretáko.

(HAMAZORTZIGERREN) KAPITULIA

(Nor da Jinkoaren erreinuan handiena?
Dohakabeak sinestea galbidean jarten düenak!
Ardi galdüaren parabola. Haurriden artean: bekatüa,
parkamentüa, otoitzea. Parkatü ez züan
zerbutxariaren parabola.)

1. Ordían dizipulíak Jésusi [hullántu zéitzon], eta galtátu zéiuen:

–Nur óte dáte handiéna [zelúko] erresumán?

2. Jésusek háurtto bat déiturik, haién erdían [ezári zían].

3. Eta érran zéien:

–Egiáz dioziét: ezpaziraié kanbiátzen eta háurrak bezalakátzen, etziraié sárturen [zelúko] erresumán.

4. Nur ere, árren, háurtto háu bezála [txipitúren béita], húra izánen da handiéna [zelúko] erresumán.

5. Eta nurk ere éne izenían hólako háurtto bat [hártzen béitu], ni hártzen nái.

6. Nurbáitek gálbide emáiten bádu, [nigan] sinéste dién txípi hoiétarik báti, hóbe lizáte harentáko, eiher-hárri bat lepúan ezarírik, itxáson bárna [urtíki lezen].

7. Gáitz mundíari, galbidíak dirélakoz. Galbidén izátia ezinbéste da; haregátik gáitz gizúnari zúñengánik jíten béita galbidía.

8. Zúre eskía édo zúre zankúa gálgarri báda zuretáko, mútz ezázu eta urtíki [zuganik] úrrun; hóbe dúzu betiéreko bizitzían esku-bákoitx édo zanko-bákoitx [izánik sártzia], ezí ez bi eskíak édo bi zankúak ukénik, betiéreko súialat igorrírik izátia.

9. Eta zúre begía gálgarri báda zuretáko, idók ezázu eta urtíki [zuganik] úrrun; hóbe dúzu betiéreko bizitzían [begi-bákoitx izánik sártzia], ezí ez bi begíak ukénik ifernúko súialat [igorrírik izátia].

10. Gogo emazíe eztezazién txípi hoiétarik bátere gutiétsi. Ézi hoién ainguriék [éne Áita zelían dénaren begitártia béti ikústen diéla dióziet].

11. Gizúnaren Semía [jin da otían] gáldurik zénaren salbatzéra.

12. Zer záizie? Nurbáitek éhun árdi [bálin bádu] eta hétarik bat baztértzen bazáio, eztutía úzten lauretan hógei eta hemerétziak mendiétan, eta eztá juáiten gáldu dénaren undúan?

13. Eta háren ediréitia agítzen bazáio, egiáz dioziét boztarío gehiágo ukénen diála harengátik, ezí ez laurétan hógei eta hemerétzu baztértu eztirenengátik.

14. Holatán ézta zíen Áita [zelían] denáren nahía, txípi hoiétarik bátere [gal dádin].

15. Zúre anaíak hógen égin badéizu, zuáza eta ezagutzéra emúzu zúre eta háren beráren ártian. Behátzen bazáizu, zúre anaía [irabázi dúzu].

16. Béna ezpazáizu behátzen, har ezázu zuréki lagún bat édo bíga, *bíga édo hírur jakíleren ártian égon dádin egitekúa óro.*

17. Haiér ezpáda behátzen, errázu Elizári, eta Elizári ezpáda behátzen, ízan bédi zuretáko pagáno bat eta publikáno bat bezála.

18. Egiáz dioziét: zer ere hértsiko beituzíe lúrrian, [zelían ere] hértsirik izánen da, eta zer ére sóltatuko beituzíe lúrrian, [zelían ere] sóltaturik izánen da.

19. Oráno [dioziét], zietárik bíga alkárri júntatzen badíra, zernáhi gálta dezén, éne Áita [zelían denagánik ukénen díe].

20. Ézi nun ére beitíra bíga édo hírur alkargána bíldurik éne izenían, han niz haién erdían.

21. Ordían Petíri hullántu zéion, eta érran:

–Jáuna, éne anaíak hógen égin deikedanían, [zunbát áldiz] parkátu béhar deikót? Zázpitaráno?

22. Jésusek ihardétsi zéion:

–Eztéizut erráiten zazpitaráno, béna hirurétan hógei eta hamarrétan zazpitaráno.

23. Hartákoz [zelúko erresumák erregé bat udúri du, zuñek bére manuzpékueki kuntíak bardíntu náhi úken beitzutían].

24. Kuntién bardíntzen [hási zénian], bat aitzinátu zéion, hámar míla taléntu zor zéiona.

25. Eta ezpeitzían núntik útzul, mánu éman zían náusiak sal lítzen béra eta háren emaztía eta háurrak eta zutían guzíak, eta zórra [páka lédin].

26. Zerbutxári hárek, luherrásturik, otóitzen zían: «Tái emadázut, ótsez, eta óro utzulíko déizut».

27. Náusiak, bihotzberatúrik, zerbut[x]ári háren eretzían útzi zian eta zórra kitátu zéion.

28. [Béna] élki zénian, mítil hárek bére mítil lagunétarik bat bátu zían, zúñek éhun dinér [zor beitzéio]n, eta lepótik lóturik itótzen zían: «Indak, ótsez, zór duiána».

29. Mítil lagúnak, luherrásturik, otóitzen zían: «Indázut tái, ótsez, eta óro utzulíko déizut».

30. Etzían náhi úken eta, juánik, presuntegían ezarerázi zían, zórra páka ártio.

31. Hoién ikústiak zínez penátu zutían mítil lagúnak, eta [zer igáran zen náusiari erráitera júan zirén].

32. Ordían náusiak [húra] déitu zían eta érran zéion: «Mítil gaistúa! Zórra óro kitátu déiat, otóitu beináik.

33. E[z] hiána, árren, hik béhar híre mítil lagúnaz pietáte úken, nik hítzaz úken dúdan bezála?».

34. Eta náusiak, gáizturik, azotazalén [eskiétan ezári zían], zor zéion guzía páka ártio.

35. Hóla egínen déizie éne Áita zelukúak, baték bestér ezpadutuzíe hogénak bihotzétik parkátzen.

(HEMERETZUGERREN) KAPITULIA

(Ezkontzea eta dibortsioa. Ezkontzea eta
ezkongabetarzüna. Jesüs eta haurrak.
Jesüsek gazte aberatsari dei. Aberastarzüna
salbamentüalako behaztopü.
Dena ützi düen dizipülüen saria.)

1. Jésusek éle hórik [urréntu zutiánian, Galiléatik élki zen eta Judéako mugétara júan zen], Jordáneren haráintiala.

2. Jente-ózte hándi elí bat [jarráiki zéitzon, eta haién ártian zirén ériak sendótu zutían].

3. Ordían farisién elí bat [hullántu zéitzon], háren hútsetan atzáman náhiz, eta galtátu zéiuen:

–Háizu [deia] gizúnari bére emaztíaren igórtia, zernáhi estakúruz?

4. Jésusek ihardétsi zéien:

–Eztuziéia irakúrri, hástetik gizúna égin ziának *gizún bat eta emazté bat [égin zutiála]*? Eta érran zéiela:

5. *Hortákoz gizúnak Áita eta áma [útziko dútu], eta bére emaztíari hértsiko da, eta eztíra bíak haragí bat báizik izánen.*

6. Geróztik eztíra árren bíga, béna haragí bat béra. Hartákoz Jínkuak [batengan] ezári diána, gizúnak eztezála bérez.

7. Haiék bérriz [galtátu zéiuen]:

–Zértako, árren, manatu du [Moisesek], *éman dédin emaztíari, útzirik délako jakileguá*, eta géro ígor?

8. [Jésusek] ihardétsi zéien:

–[Moisesek] zíen bihótzaren gogortarzunagátik háizu égin déizie zíen emaztén igórtia, béna hatsárretik etzén hóla.

9. Hartákoz dioziét nik, nurk ere bére emaztía [igórten béitu], bestéki eztén ber nahási, eta besté bat [hártzen béitu], húra teiútzen déla; eta emázte igorría hártzen diána teiútzen déla.

10. Bére dizipuliék érran zéiuen:

–Gizúnaren izátia emaztíaren eretzían hóla báda, ézta hun ezkuntzía.

11. Jésusek ihardétsi zéien:

–Eztiókeie hóri guziék gogúan har, béna núri ére béita emánik.

12. Badíra ézi agórrak sorzároz hála dirénak, eta badíra agórrak gizunék halakatíak, eta badíra agórrak bérak agórtu dirénak zelúko erresumágatik. Entzun áhal dezakiának éntzun béza.

13. Ordían háurtto bátzu [ekárri zeitzúen, haiengana] eskíak héda eta lítzan eta benedíka náhiz. Dizipuliék, áldiz, mehatxátzen zutién.

14. Béna Jésusek érran zéien: «Béde háur hórik, eztitzaziéla eneganát jítetik bára, [ézi zelúko erresumá holakuén da]».

15. Eta eskíak páusatu zéitzenian, hántik [júan zen].

16. Ordían gízun gazté bat hullántu zéion eta érran:

–Jáun úna, úntsa dénik zer égin béhar dut bizítze betiérekuaren irabaztéko?

17. Jésusek ihardétsi zéion:

–Zértako déitzen náizu úna? Bat béra dúzu un déna, Jínkua. Béna egiázko bizitzían sártu [náhi bazíra], begíra etzátzu maníak.

18. [Gizunak] galtátu zéion:

–Zuñ?

Jésusek érran zéion:

–*Eztúzu íhur ehóren, etzíra bestéren emaztéki nahasíren, eztúzu ebatsíren, eztúzu jakile-faltsuguárik erránen.*

19. *Zúre Áita eta zúre áma uhúra etzátzu, eta máite ukázu zúre kidía ziháur bezála.*

20. Gízun gaztíak érran zéion:

–Hórik óro begirátu ditízut éne gaztezaroótik. Zer eskáz dut oráno?

21. Jésusek ihardétsi zéion:

–Osóki un [ízan náhi bazíra], zuáza, sal etzátzu dutuzúnak, eta éman beharrér, eta aberastarzúna zelían [ukénen dúzu]; géro tziáuri, eta jarráiki zakítzat.

22. [Gízun gaztíak] hitz hórik éntzun zutiánian, tristetúrik [júan zen], untárzun handíak beitzutían.

23. Ordían Jésusek bére dizipuliér érran zéien:

–Egiáz dioziét aberátsa nékez sárturen déla [zelúko] erresumán.

24. Oráno erráiten deiziét: ehiágo da [orrátz báten txilótik] soká báten igaraneráztia, ézí ez aberátsaren zelían sártzia.

25. Hitz hoién éntzutez harritúrik zirén dizipulíak eta zioién:

–Nur dáite, árren, sálba?

26. Jésusek so égin zéien eta érran:

–Hóri gizunék ézin diókeiena da, béna Jínkuarentako óro egin-éhi díra.

27. Ordían Petírik elía hárturik érran zéion:

–Eta guk óro útzi beitutúgu zúri jarráikitzeko, zer dukégu sáritako?

28. Jésusek érran zéien:

–Egiáz dioziét, zíek éni jarráiki ziraiénak, bizítze berrían, nuizetáre Gizúnaren Semía járriko béita bére handitárzunaren jargián, zíek ére járriko ziraiéla hamabí járgitan Israeléko hamabí kastén jujatzéko.

29. Eta nurk ere etxía [útziko béitu], édo anaíak, édo arrebák, édo áita, édo áma, édo emaztía, édo háurrak, édo alórrak enegátik, ehunetakúa ukénen du, eta betiéreko bizitzía ardiétsiko du.

30. Léhen dirén hánitx ázken [izánen díra], eta ázken dirén hánitx léhen.

(HOGEIGERREN) KAPITULIA

(Mahasti langileen parabola.
Jesüsek pasione pizteak hirugerren aldikoz aipatü.
Zebedeoren semeen handinahia.
Zerbütxüa dizipülüen lege.
Jesüsek bi ütsü sendotü Jerikon.)

1. [Zelúko] erresumák etxéko jáun bat [udúri du], zuñ góizian góizik élki beitzén lángile hitzártzera bére mahastíalako.

2. Langiléki [egunéko dinér bat emánen zéiela hitzartúrik, bére mahastíalat igórri zutían].

3. Hírurgerren orénaren ungurunían [bérriz élki zen, eta plazán béste bátzu ikúsi zutían], áuher záudenak.

4. Eta érran zéien: «Zuazté zíek ere éne mahastíalat, eta zúzen dukeziéna emánen deiziét».

5. Húrak ére júan zirén.

Oráno séi eta bederátzugerren orenén ungurunían [élki zen], eta halabér égin zían.

6. Hamékagerren orénaren ungurunían [bérriz élki zen], eta béste bátzu han txúti edíren zutían, eta érran zéien: «Zértako záuzte hében égun órotan áuher?».

7. Ihardétsi zéiuen: «Íhurk ezpeikútu hártu». Érran zéien: «Zuazté zíek ére éne mahastíalat».

8. Arrátsa jin zénian, mahastíaren náusiak érran zéion bére mítil buruzagíari: «Déi etzátzu langilíak, eta emézu sária, azkenétarik hásirik lehenétara».

9. Hamékagerren orenían jínak [hullántu zirénian, bakótxak dinér bat úken zién].

10. Lehenén unguría jin zénian, úste zién habóro ukénen ziéla; [bena haiér ére bakótxari dinér bat éman zéien].

11. Hártziareki, etxeko jáunaren kúntre murmuzikátzen ári zirén, zioiélarik:

12. «Ázken hórik eztíra orén bat báizik ári ízan, eta gúre bárdin égin dutúzu, guk egúnaren nekía eta berúa [egári dugulárik]».

13. Haiétarik báti ihardétsi zéion éta érran: «Adiskidía, eztéizut egíten hogénik. Etzirá enéki dinér bátez hitzártu?

14. Har ezázu jíten záizuna eta zuáza, béna ázken hórri zúri bezála [éman náhi dit].

15. Ez ote záit háizu náhi dudánaren egitía? Zúre begía gáisto datekía ni un nizalákoz?».

16. Hóla izánen díra azkénak léhen, eta lehénak ázken; ézi hánitx díra déitiak, béna gúti haitatíak.

17. Bazualárik Jésus Jerusalemerát, hamabí dizipulíak [beréz hártu zutían], eta érran zéien:

18. «Baguátza Jerusalemerát, eta Gizúnaren Semía, apéz-gehienén eta lége-erakaslén eskiétara ezarírik izánen da, eta híltzera kundenatúren díe.

19. Eta pagánuen eskiétan ezaríko díe, laidostatúrik, (zeha)túrik eta kruzifikatúrik izáteko. Eta hírurgerren egunían pízturen da».

20. Ordían Zebedeoren semén amá [hullántu zéion], bére seméki, eta úñetara eróri zéion zerbáiten galtatzéko.

21. Jésusek érran zéion:

–Zer náhi dúzu?

[Hárek] ihardétsi zéion:

–Errázu éne bi séme hórik jar ditían báta zúre eskúñian, bestía zúre eiskérrian, zúre erresumán.

22. Jésus mintzátu zéien eta érran:

–Eztakizíe zer galtátzen duzién. Édan dezakeziéia nik édan béhar dúdan edária?

–Édan dezakezúgu –[érran zéiuen haiek].

23. Jésusek bérriz:

–Egiá da éne edáritik edánen duziéla, béna éne eskúñian édo eiskérrian jartiáren, ézta éni zíer emáitia, béna núri ére éne Áitak éman géi béitu.

24. Hoién éntzutia gaitzítu zéien béste hamarrér bi anaién aldétik.

25. Jésusek beregána [déitu zutían] eta érran zéien: «Badakizíe pagánuen erregék gañía [haiengan] etxekítzen diéla, eta handiaguék apalaguér bére potería egarerázten diéla.

26. Ezta zíen ártian hóla izánen, béna nur ére zíen ártian gehién [ízan náhi beitáte], ízan bédi zíen zerbutxári.

27. Eta nur ére zíen ártian lehéna [ízan náhi beitáte, zíen mitíla izánen da].

28. Gizúnaren Semía jin den bezála, ez zerbutxatúrik izátera, béna zerbutxatzéra, eta bére bizíaren emáitera hanítxen arrerósteko».

29. [Jerikorik elkitzen zirélarik], jente-ózte handí bat jarráiki zéion.

30. Bíde bazterrían zaudén bi útsuk, Jésus igaráiten zéla [éntzun zién], eta óihuz hási zirén:

–Jáuna, ukázu pietáte gútzaz, Dabíden Semía!

31. Jentíak kexátzen zéitzen, íxil litían. Béna haiék zinezágo óihu egíten zién:

–Jáuna, ukázu pietáte gútzaz, Dabíden Semía!

32. [Jésus] ukúratu zen eta déitu zutían, eta galtátu zéien:

–Zer náhi duzíe égin dizaziédan?

33. [Ihardétsi zéiuen]:

–Jáuna, gúre begíak zábalt ditían!

34. Jésus [haiéntako] bihotzberátu zen eta begíak [únki zéitzen]. Eta órdu bérian ikúsi zién eta jarráiki zéitzon.

(HOGEITA BATGERREN) KAPITULIA

(Jesüs Jerusalemen Mesias bezala sartü.
Tenplua herri güzientako otoitz etxe.
Pikotzearen opogaixtotzea: fedea eta otoitzea.
Nontik Jesüsen esküinüa? Bi semeen parabola.
Mahastizain erozaleen parabola.)

1. Jerusalémerik hullántu zirénian eta Betfagéra Olibétako mendíaren undúala héltu, Jésusek bi dizipúlu igórri zutían,

2. Erránik:

–Zuazté aitzinían duzién hérri hortára, eta [héltzian astó bat bére humiaréki estekatúrik edirénen duzíe. Sólta ezazíe eta ékar ezadazíe.

3. Eta nurbáitek zerbáit erráiten badéizie, errazíe: «Jáunak béhar [dútu], eta berhála útziko déitzie».

4. Hóri óro égin zen, Profetáren érran háu [béta lédin]:

5. *Errózie Sióneko alabári: Háu [dúzu] zúre erregía, zuregána jíten eztitárzunez béterik, aston gáñen járririk, eta uztarrikúaren umen gáñen.*

6. Dizipulíak júan zirén eta Jésusek manátu zéien bezála [égin zién].

7. Astúa eta astokumía [ekárri zutién], bére súñekuak gáñen [ezári zeitzén], eta géro Jésus gáña jarrerázi zién.

8. Jente-ózte handí bátek bére suñarropák [bidían] hedátu zutían; besték, áldiz, zuhaiñetárik [adárrak múzten zutién] eta bidían ezárten.

9. [Jesusen] aitzinían eta undúan zuátzan jentíak óihuz ári zirén:

Hosána Dabíden Semíari! Benedikátu déla Jáunaren izenían jíten déna. Hosána zelu gañ-gáñetan!

10. Jerusalémen [sártu zénian], hiría óro zotukátu zen:

–Nur da hóri, ótsez?

11. Eta jenték zioién:

–Háu Jésus Profetá [da, Galiléako] Nazaretekúa.

12. Jésus Jínkuaren ténpluan [sártu zen], eta ténpluan sáltzen eta erósten ári zirénak óro [ohíltu zutían], eta diháru kanbiazalén maháñak [irálli zutían], eta úrzo saltzalén jargiák.

13. Eta érran zéien: «Izkiribatúrik da *Éne Etxía oraziónezko etxía [déiturik izánen da]*; zíek, áldiz, uhúñtegí bat [égin duzíe]».

14. [Ténpluan útsu eta txáñku bátzu hullántu zéitzon], eta sendótu zutían.

15. [Béna] apéz-gehienék eta lége-erakaslék Jésusek égin mirakullíak [ikúsi zutiénian], eta háurrak ténpluan óihuz «Hosána Dabíden Semíari!», gáiztu zirén.

16. Eta érran zéiuen:

–Éntzuten duzía zer dioién hoiék?

Jésusek ihardétsi zéien:

–Bái. [Eta zíek] eztuziéia egundáno érran háu irakúrri: *Háurren eta titikuén ahótik idóki dúzu laidoriórik hobéna*?

17. Eta húrak útzirik, hirítik kánpo [júan zen], Betaniarát, eta han igáran zían gáia.

18. Góizian, hirialát utzúltzen zélarik, gosétu zen.

19. Pikotzé bat bíde bazterrían [ikusírik, hartára hullántu zen], eta etzéion déus edíren ósto báizik. [Ordían] érran zéion: «Eztadíla jagóiti hitárik frúturik sor!».

Eta hain sárri eihártu zen pikotzía .

20. Hórren [ikústian dizipulíak] harrítu zirén, eta zioién:

–Nula eihártu da batatían?

21. Jésusek elía hárturik érran zéien:

–Egiáz dioziét: [fedía] bálin bazuníe, eta ezpazinteié kordóka, etzenezakeié bakóixki égin pikotzíari égin dudána; béna méndi hórri [érran bazenezé]: «Ken hadi, eta jáuz hadi itxasualát», égin léite.

22. Zer ere otoitzían sinéstereki [galtatúren beituzíe], ukénen duzíe.

23. Ténpluala [jin zénian, erakásten ári zélarik], apézen-gehiénak eta populúko zahárrak [hullántu zéitzon], eta érran zéiuen:

–Zer légez hórik egíten dutúzu? Eta nurk éman déizu zúzen hóri?

24. Jésusek ihardétsi zéien:

–Bádut nik ére galtó bat zíer egitéko, eta zíek hórtan ihardésten badeitazíe, nik ére [erránen déiziet] zer légez hórik egíten dutúdan.

25. Núntik zen Juáneren bateía? Zelútik ala [gizunénganik]?

Húrak bére ártian ári zirén: «'Zelútik' [erráiten badúgu], erránen déiku: Zértako, árren, eztuzíe sinétsi?.

26. Áldiz, '[Gizunénganik]' erráiten badúgu, populíaren béldur izáteko dúgu, zéren guzíék profetatáko etxekítzen beitzién».

27. [Holatán Jésusi] ihardétsi zéiuen eta érran:

–Eztakizúgu.

Jésusek haiér:

–Nik ére eztéiziet erránen zer zuzénez hórik egíten dutúdan.

28. Béna zer záizie húntzaz?: Gizún bátek bazutían bi séme, eta gehiénari juánik érran zéion: «Éne semía, zuáza égun éne mahastíalat lángitera».

29. Hárek ihardétsi zéion: «Enúzu náhi». Béna géro dolutúrik, júan zen.

30. Bestíagana júan zen eta ber gaizá érran zéion. Hárek, áldiz, ihardétsi zéion: «Banuázu, Jáuna». Eta etzén júan.

31. Zuñ da bíetarik aitáren nahía égin diána?

[Ihardétsi zéiuen]:

–Lehéna.

Jésusek [érran zéien]:

–Egiáz dioziét, publikánuak eta neska-tzárrak lehentúren záitziela Jínkuaren erresumála.

32. Ézi Juáne saintutárzuneko bidían [jin záizie], eta eztuzíe húra sinétsi. Publikanuék, áldiz, eta neska-tzarrék sinétsi díe. Eta zíek hóri ikúsi duzíe eta eztuzíe úken bihotzmínik, ez habóro sinestérik.

33. Behá ziteié béste alegía húni: Etxeko-jáun bátek mahastí bat [lantátu zían] eta zerrálluz ungurátu. Zugán bat ezári zían han, eta torré bat eráiki. Géro mahastizáñer éman zían, eta béra hérriz kánpo júan zen.

34. Mahatsén bíltzeko tenoría [hullántu zénian], bére mitílak [mahastizáñengana igórri zutían], mahatsén hártzeko.

35. Béna mahastizáñak mitilér [lótu zéitzen] eta báta zaflátu zién, bestía ého eta bestía harrikaldustátu.

36. Bérriz [igórri zían] lehénik igórri zían béno mítil habóro, eta haiér béste hainbéste égin zéien.

37. Azkenían bére semía [igórri zéien], ziualárik: «Éne semíaren axól ukénen díe».

38. Béna mahastizáñek semía [ikúsi ziénian], bére ártian érran zién: «Huná prímia. Tziáuste! Ého [dezágun], eta gúre dáte háren untarzúna».

39. Hártu zién, mahastítik kánpo erúan eta ého.

40. Mahastíaren náusia [jíten datekiénian], zer egínen du mahastizáñ haiér?

41. [Ihardétsi zéiuen]:

–Gaistúak gaistóki gálduren dútu, eta bére mahastía emánen du béste mahastizáñi, zúñek [bére tenorétan] frútiak ekarríko beiteitzué.

42. Jésusek érran zéien:

–Eztuziéia egundáno irakúrri Gútun Sáintietan:

Etxe-egilék bazterrialát ezári harría giltz-hárritako hárturik [ízan da]. Jáungóikuak du hóri égin, eta miragárri da gúre begiéntako!

43. Hartákoz erráiten déiziet, Jínkuaren erresumá zíer élkirik [izánen dela], eta háren frútiak ekarríko dutían populíari emánik [izánen déla].

44. Hárri háren gáña erórten déna porrokatúren da, eta núren ére gáña eroríko béita, húra lehertúren du.

45. Apézen-gehienék eta farisienék alegía hórik [éntzun zutiénian], haiétzaz míntzo zéla [ezagútu zién].

46. Eta hártu [náhi úken zukeién], béna populíaren lótsa zirén, profetetáko edukítzen ziélakoz.

(HOGEITA BIGERREN) KAPITULIA

(Ezteien parabola. Zesarrena Zesarri eta Jinkoarena Jinkoari. Hilen pizteaz. Manürik nausiena. Mesias, Dabiden Seme eta Jaun.)

1. Jésus, elía hárturik, oráno alegíaz [mintzátu zen] eta érran zian:

2. –[Zelúko erresumák erregé bat udúri du], zúñek [bére semíari] eztéiak égin beitzutían.

3. Bére mitílak ezteiliárren déitzera [igórri zutían], eta etzirén júan náhi ízan.

4. Bérriz igórri zían béste mitílik mézu hunéki: «Érran ezézie ezteiliárrer: Éne apáiria adelátu dut, éne zezénak eta abére gizentíak ehórik díra, eta óro adelatúrik. Tziausté ezteiétarat».

5. Béna húrak etzirén axolátu, eta batá bére bordáltialat, bestía bére salerostétarat [júan zirén].

6. Besték, áldiz, mitílak [hártu zutién] eta goitzarrénez béte undúan, ého zutién.

7. Errége, hóri éntzun ziánian, gáiztu zen eta, bére armadák igorrírik, gízun-ehóile húrak [erráustu zutían] eta haién hiría sútan ezári zian.

8. Ordían bére mitilér [érran zéien]: «Eztéiak adelatúrik díra, béna kumikatúrik zirénak etzirén díño.

9. Zuazté, árren, bíde buriétarat, eta ediréiten dutuzién guzíak eztéietarat déi etzatzíe».

10. Mitílak bidétarat [élki zirén], eta bátu guzíak, un eta gáisto, bíldu zutién eta eztéietako barazkalgiá [béte zen].

11. Errége barazkalzalén ikústera [sártu zen], eta han gizún bat [ikúsi zían], eztéi arropá etziána.

12. Eta érran zéion: «Adiskidía, núla hében sártu zíra eztéi arropá gábe?». Béna húra íxil égon zen.

13. Ordían errégek bére manuzpékuer érran [zéien]: «Estéka etzózie eskíak eta zankúak, eta urtíki ezazíe kanpóko ulunpétarat. Han izánen da nígar eta hortz karráska».

14. Ézi hánitx díra déitiak, béna gúti haitatíak.

15. Ordían farisiénak júan zirén, eta alkarréki hitzártu zién atzáman béhar ziéla bére elétan.

16. Eta bére dizipulíak Herodésen gizunéki [igórri zéitzuen], erráitera:

–Jáuna, badakizúgu egiáti ziréla eta Jínkuaren bidía egián erakásten duzúla; eta eztúzu zuk ihúren axólik, eta eztúzu gizunétan berezkeriárik egíten.

17. Erragúzu, árren, zer záizun: Sóri da Zesárri [legárraren] emáitia, ála ez?

18. Jésusek, haién gaistokeriá [ezagútzen beitzían], érran zéien:

–Zértako territátzen náizie, faltsíak?

19. Erákuts ezadazíe legárraren pakatzéko emáiten den pezetá bat.

Eta dinér bat [esképtu zéiuen].

20. Jésusek érran zéien:

Núrena da begitárte háu eta izkiribatúrik den ízen háu?

21. [Érran zéiuen]:

–Zesárrena.

Ordían érran zéien:

–Útzul etzatzíe, árren, Zesárrenak Zesárri, eta Jínkuarenak Jínkuari.

22. Hoién éntzutiak [harritúrik] ezári zutían, eta húra útzirik júan zirén.
23. Ber egunían, saduzeénak [hullántu zéitzon, zuñek hílen pízterik eztéla beitioié], eta galtátu zéiuen:
24. –Náusia, Moisesek érran dízu: *Nurbáit háurrik gábe [híltzen báda], háren emaztíareki ezkúnt dádin hílaren anaía, eta undóko éman dizón bére anaíari.*
25. Bazutuzún árren gúre ártian zázpi anáie: lehéna ezkúntu eta hil zúzun, eta ezpeitzían háurrik úken, [bére emaztía] anaíari útzi ziózun.
26. Ber gisán égin dízu bigerrénak, eta géro hírurgerrénak, zázpigerreníala ártio.
27. Guzién undótik hil ízan dúzu emaztía.
28. Hílen arrapíztian, árren, zázpietarik zúñen emázte izánen da? Ézi guziéna ízan dúzu.
29. [Jésusek] ihardétsi zéien:
–Herrapidían ziraié, Gútun Sáintiak eta Jínkuaren indárra [ez ezagútuz].
30. Hílen píztian, eztukeié gizunék emaztérik, ez emazték senárrik, béna Jínkuaren ainguríak bezála [izánen díra] zelían.
31. Eta hílen pízten gáñen, eztutuziéia irakúrri Jínkuak érran déitzien hitz hórik:
32. *Ni niz Abrahámen Jínkua eta Isaáken Jínkua, eta Jakóben Jínkua*? Ézta otían hílen Jínkua, béna bízi dirénena.
33. Behá zen populía mirétsirik záguan harén jakitatíaz.
34. Farisiénak ordían, [saduzeénak ixilerázi zutiála éntzunik, alkargána bíldu zirén].
35. Eta haiétarik bátek [galtátu zéion], legíaren erakásle zénak, hútsetan atzáman náhiz:
36. –Náusia, zuñ da legéko mánu handía?
37. Jésusek ihardétsi zéion:
–*Zúre Jínko Jáuna [maitatúren dúzu], zúre bíhotz guzia[z], zúre aríma guzíaz*, eta zúre gógo guzíaz.
38. Hóri da mánu handiéna eta lehéna.
39. Hóri bezaláko da bigerréna: *Zúre kíde lagúna [maitatúren dúzu], ziháur bezála.*
40. Bi mánu hoiétan dágo legía óro, bái eta profeták.
41. Ordían farisiénak [bíldurik beitzirén], Jésusek gálto háu [égin zéien]:
42. –Zer záizie Krístez? Núren Semía da?
[Ihardétsi zéiuen]:
–Dabídena.
43. Jésusek harzára:
–Núla árren Dabídek, Espirítu Sáintiak mintzerázten ziánian, húra «Jáuna» [déitzen du], diualárik:
44. *Jáunak errán [deio] éne Jáunari: Jar zíte éne eskúñian, zúre etsáiak zúre úñpetako [ézar ditzádan ártio].*
45. Dabídek húra «Jáuna» [déitzen diánian], núlaz da háren Semía?
46. Íhurk etzezakión hítzik ihárdets, eta égun hartárik aítzina íhur etzén ausártu galtórik hári habóro egitéra.

(HOGEITA HIRUGERREN) KAPITULIA

(Jesüsek bere irakasleak eta farisauak salatu.
Jesüs Jerusalemengatik intziriz.)

1. Ordían Jésus populíari [mintzátu zéitzon], eta bére dizipuliér, ziualárik:
2. –Lege-erakaslíak eta farisiénak [Moisesen] jargían járri díra.
3. Erráiten déitzienak óro, árren, begíra etzatzíe eta égin, béna haién egitatén aráu eztezaziéla égin, ézi erráiten díe eta ez egíten.
4. Háxe handíak eta ézin égar ditakiénak [hérsten dutíe], eta gizunen bizkarrétan ézarten dutíe; berék, áldiz, eríaz ére eztutíe náhi húnki.
5. Bére egitatíak óro gizuné[k] ikusírik izáteko egíten dutíe: pergámu hedíak ekárten dutíe zúñek zabalágo, eta franják zúñek luziágo.
6. [Apairiétan léhen etzangiák máite dutíe], eta léhen jargiák bilkurétan.
7. Gúrrak plazétan; eta [gizunék «Náusia» déiturik izátia].
8. Zíek etziteiéla «náusiak» déi, ézi eztuzíe náusi bat báizik; zíek, áldiz, óro anáie ziraié.
9. Eta eztezaziéla íhur «áita» déi lúrrian, ézi eztuzíe aitá bat báizik, [zelían] déna.
10. Eta [«Gidari»] izénik eztezaziéla har, zéren Krist béita zíen [gidari] bakótxa.
11. Zíen ártian handién déna, zíen zerbutxári [izánen da].
12. Ézi altxátzen dátekiena apaltúrik izánen da, eta apáltzen dátekiena altxatúrik izánen da.
13. Gáitz áldiz zíen, lege-erakásle eta farisién faltsíak! Zeren [zelúko] erresumá gizunén aitzinían [zerrátzen beituzíe]! Ézi etziraié zihaurék sártzen, eta sártu náhi liratekienak eztutuzíe úzten sártzera.
14. Gáitz zíen, lege-erakásle eta farisién faltsíak! Alarguntsén etxíak [irésten beitutuzíe], otóitze lúze egítez. Hortákoz ére garratzágo izánen da zíen judiziónia.
15. Gáitz zíen, lege-erakásle eta farisién faltsíak! [Zíen errelijionialát gizún báten bíltzeko itxasúa eta luidórra ungurátzen beituzíe], eta húra úken duziénian, ifernúko séme berritakúaz zíek béno habóro [egíten duzíe].
16. Gáitz zíen, aitzindári utsíak, zúñek beitiózie: «Nurbáitek [ténpluaz] zin egíten bádu, ézta déus; béna ténploko urríaz zin egíten bádu, zórdun da».
17. Ertzúak eta utsíak! Zer oté da handiágo, urría, ála urría sáintutzen dían ténplua?
18. Oráno diózie: «Nurbáitek altaríaz zin egíten bádu, déus ézta; béna nurk ere altaríaren gáñen den oberendáz [zin egíten béitu], hárek zor du».
19. Utsíak! Zer da óte handíago, oberendá, ála oberendá sáintutzen dían altaría?
20. Altaríaz, árren, zin egíten diának, hártzaz [zin egíten du] eta háren gáñen dirén guziéz.
21. Eta ténpluaz zin egíten diának, ténpluaz [zin egíten du] eta hártan dágonaz.
22. Eta zelíaz zin egíten diának, Jínkuaren trónuaz [zin egíten du] eta hártan járririk dágonaz.

23. Gáitz zíen, lege-erakásle eta farisién faltsíak! [Detximák hártzen dutuzíe azkenaz béste ahamentátik, anétatik eta txarpólletik, eta legéko mánu handiénak úzten dutuzíe], justiziá, urgaíztia eta leiáltarzuna. Hórik égin béhar zuntién eta bestíak ez útzi.

24. Aitzindári utsíak! Eltxó batengátik edária irátziko duziénak, eta kamelú bat áldiz irétsiko!

25. Gáitz zíen, lege-erakásle eta farisién faltsíak, zúñek edanuntzíaren eta januntzíaren kanpúa [xahátzen beituzíe]! Zihaurék, áldiz, barnétik uhúñkeriaz eta téiukeriaz betérik ziraié.

26. Farisién utsía! Xáha ezázu lehénik edanuntzíaren eta januntzíaren barnía, kanpúa ére xáhu ízan dádin.

27. Gáitz zíen, lege-erakásle eta farisién faltsíak! Zéren hóbi xuritíak [udúri beituzíe], zuñ kanpótik éder agéri beitíra, barnétik áldiz hil hezúrrez eta zernáhi zikinkeríaz betérik.

28. Halabér zíek ére gizunén aitzinían [xuxen udúri duzíe], barnétik áldiz faltsukeríaz eta gaistokeríaz betérik ziraié.

29. Gáitz zíen, lege-erakásle eta farisién faltsíak, zúñek profetén hobíak [eráikiten beitutuzíe, eta xuxenen] ehortz-lekíak edértzen.

30. Eta erráiten beituzíe: «Gúre aitén egunétan ízan bagína, ezkinén izánen haién lágun profetén odólaren ixúrteko».

31. Holatán zihauréntako jakíle ziraié, profeták ého dutiénen séme ziraiéla.

32. Béta úrrent ezazíe zíek, zíen aitén izaría!

33. Sugíak, [suge] umíak! Núla íhes egínen [deiozíe] iferníalat kundenatúrik izátiari?

34. Hartákoz nik profeták [igorríko déitziet], eta zuhúrrak eta lege-erakaslíak, eta haiétarik ehóren duzíe eta kruzifikatúren, eta hétarik (zeha)túren duzíe zíen bilkurétan, eta hérriz hérri undúan jarráikiren zitzáitze.

35. [Ziengana] eror dádin lurren gáña ixurírik ízan den ódol [xuxen] guzía, Abel [xuxenaren] odolétik Zakarías, Barakiásen semíaren [odolialano], zuñ ténpluaren eta altaríaren ártian [ého beituzíe].

36. Egiáz dioziét: hórik óro órai bízi dirén hoiétara [jínen díra].

37. Jerusalém, Jerusalém, profetén hilerázlia, eta hiregána igorrién (zeha)erázlia! Zunbát órduz náhi úken dútut bíldu híre háurrak, ollúak bére txitxák hegalpétara bíltzen dutían bezála, eta éztuk náhi úken.

38. Sárri zíen etxía [hútsik útzirik izánen záizie].

39. Ézi erráiten déiziet: Enáizie habóro ikusíko, [háu] érran dezazíen ord[u] ártio: *Benedikátu déla Jáunaren izenían jíten déna!*

(HOGEITA LAUGERREN) KAPITULIA

(Tenplua aurritürik date. Ürrentzearen aitzineko seinaleak.
Larrialdi izigarria. Gizonaren Semearen jitea.
Ez dakizüe hau óro noiz datean. Egon iratzarri!
Zerbütxüan leial iraün.)

1. Jésus ténplotik élkirik, bazúan. Eta bére dizipulíak [hullántu zéitzon], ténpluaren egindúra ederrén hári ikuserázteko.

2. Jésusek elía hárturik, érran zéien: «Ikústen dutuzíe hórik óro? Egiáz dioziét: ézta hor egónen harrírik hárrin gáñen, barreiatúren ezténik».

3. Géro, [Olibétako mendían] járririk zágualarik, dizipulíak berbérak [hullántu zéitzon], eta galtátu zéiuen:

–Erragúzu núiz hélturen dirén [hórik], eta zerk ezáguteráziren dían, zúre jítia eta mundíaren urrentzía.

4. Jésusek ihardétsi zéien:

–Begiréizie íhurk ingána etzitzén.

5. Ézi hánitx jínen díra éne izenían «Ni niz Krist» ótsez, eta saldúa inganatúren díe.

6. Éntzunen ére duzíe gérlaz [mintzátzen], gérla herótsez. Begiréizie izitzétik. Ézi hoiék héltu béhar díe, béna eztáte oráno urrentzía.

7. Ézi populía populíaren kúntre [jáikiko da], eta uzurríak izánen díra, eta gosetíak, eta luhikarák, hánitx lekútan.

8. Hórik óro gáitzen hatsárriak [izánen dira].

9. Ordían eskerniatúrik izatéko [emánen zutié] eta hileráziren zutié; eta popúlu guziék [hugu] zutukeié éne izenagátik.

10. Ordían hánitx kordokatúko eta eroríko díra; álkar sálduren díe eta álkar húgu dukeié.

11. Hánitx proféta fáltsu jáikiren díra, eta saldúa inganatúren díe.

12. Eta núla gáinti egínen béitu gaistokeriák, hóztuko da hanítxen karitatía.

13. Béna nurk ere urrentzialáno [iráñen béitu, húra salbatúrik izánen da].

14. [Zelúko] erresumáren ebanjelío háu múndu guzían [erántzunik izánen da, popúlu guzién jakiletáko ízan dádin], eta ordían héltuko da urrentzía.

15. Daniél profeták aipátu dutían itxuskería deitóragarriak, árren, léku sáintian [ezaririk] ikúsi dutukeziénian –irakúrten diának har béza gogúan–,

16. Ordían Judéan direnék íhes égin bezé mendiétarat.

17. [Etxe-]hegátzian déna, eztadíla jáits etxérik zerbáiten hártzera.

18. Eta alorrían déna eztadíla útzul saiúaren hártzera.

19. Gáitz [égun hétan] izórra direnén, eta unúde direnén!

20. Ótoi ezazíe eztádin gérta zíen ihési juáitia, negían édo neskanegunían.

21. Ézi ordían eskernío izigarríak [izánen díra], halakórik ezpéita ízan mundíaren hástetik oraidára, ez eta izánen jagóiti.

22. Eta égun húrak [Jínkuak llaburtúrik ezpazirén ízan], salbatúren zénik íhur etzén izánen; béna haitatiéngatik [égun húrak] llaburtúrik izánen díra.

23. Ordían nurbáitek erráiten badéizie «Huná Krist hében da» édo «Han da», eztezaziéla sínets.

24. Ézi Krist fáltsu eta profléta fáltsu [jáikiko da], eta gáiza háiñ handíak eta izigarríak egínen dutíe, nun haitatíak bérak, áhal balédi, bil beilitzakeié herrapidíalat.

25. Aitzinétik jakintsútu [náhi úken zutiét].

26. [Árren, nurbaitek «Bortían da» erráiten badeizié], etziteiéla júan; [édo] «Hében da barnían», eztezaziéla sínets.

27. Ézi núla iñhazía eki-jáikigiatik élki eta [itzalgialano agértzen béita], hála izánen da Gizúnaren Semíaren jítia.

28. Nun ere beitáte korpítza, hára bílduko díra arranúak.

29. Eskerniózko égun húrak igáran diratekían bézañ sárri, ekía uluntúren da, eta argizagíak éztu [eginen] bére argía; izárrak eroríko díra zelútik, eta [zelúko] armadák zotukatúko díra.

30. Eta ordían Gizúnaren Semíaren banderá [agertúko da zelían], eta lúrreko popúlu guzíak [heiagóraz hásiko díra], eta *Gizúnaren Semía [zelúko hodéietan jíten* ikusíko díe], potére eta óspe handiréki.

31. Bére ainguríak tronpetáren óihu ozénareki [igorríko dútu], eta Jínkuaren haitatíak láur haizén aldétarik [bílduren dutíe], mundíaren bazter batétik bestialáno.

32. Gogo emazíe pikotzétik hártu kunparazióniari: ádar berák élkiten záitzonian, eta ostúak sórtzen, badakizíe udá húllan déla.

33. Halabér zíek, hórik óro [ikústen dutukeziénian], jákin ezazíe húllan déla eta bortán.

34. Egiáz dioziét eztéla igaránen sortzápen háu, hórik óro héltu gábe.

35. Zelía eta lúrra igaránen díra, béna éne errának eztíra igaránen.

36. Béna égun húra eta oréna íhurk eztakítza, ez eta [zelúko] ainguriék, Áitak bérak báizik.

37. Noéren egunétan héltu zéna, Gizúnaren Semíaren jítian [gertatúko da].

38. Ézi núla uholdíaren aitzinéko egunétan játen eta edáten ári [beitzirén], ezkúntzen eta ezkunterázten, Noé arkán sártu zen eguniala [ártio];

39. Eta ezpeitzirén goguátu uholdía jin ártio eta hárek óro eráman ártio, hála izánen da Gizúnaren Semíaren jítia.

40. Ordían bi gízun badiráte alorrían, báta hárturik izánen da eta bestía útzirik.

41. Bi emázte [eiherán] eháiten ári diráte, báta hárturik izánen da eta bestía útzirik.

42. Ízan ziteié árren iratzárri, ezpeitakizíe zer orénez zíen Jáuna jínen den.

43. Húntzaz óhart ziteié: Etxeko-jáunak [uhúña zer tenórez jítekua den baléki, iratzarrírik] égon léite, eta elezáke bére etxía zilatzéra útzi.

44. Zíek ére, árren, prest égon ziteié, zéren eztakizién orenían jínen béita Gizúnaren Semía.

45. Nur úste duzíe déla mítil leiál eta zuhúrra, náusiak etxénko guzién gáñen ezári diána, haiér béhar ordían játekuaren emáiteko?

46. Dohátsu da mítil húra, náusiak, jíten dénian, hála [ediréiten bádu] bére eginbidían.

47. Egiáz dioziét bére [u]ntárzun guzién gañéko ezaríren diála.

48. Béna zerbutxári húra [gáisto bada, eta bére béitan erráiten bádu]: «Berántzen du éne náusiak jítia»,

49. Eta bére miskándi lagunén jóiten [hásten báda, eta ordizaléki] játen eta edáten,

50. Mítil háren náusia egurukiten eztían egunían [jínen da], eta hárek eztakían orenían,

51. Eta berezíko du, eta gaistuéki bére partía emánen déio. Han dáte nígar eta hortz karráska.

(HOGEITA BOSGERREN) KAPITULIA

(Hamar neskatilen parabola.
Talentüen parabola. Azken auzia.)

1. Ordían [zelúko erresumák hámar birjína udúri dúke], zuñ bére argi-untzíak hárturik, ezkuntzalén hártzera [élki beitzirén.

2. Haiétarik bost bazirén éro zirénak, eta bost zúhur zirénak.

3. Bost eruék argi-untzién hártzian, etzién hártu beréki oliórik.

4. Zuhurrék, áldiz, argi-untzéki oliúa bére pitxérretan [hártu zién].

5. Ezkuntzalíak [jítia berántzen beitzían, óro logalétu zirén] eta lúak hártu zutían.

6. Béna gaihérditan, oihú bat erántzun zen: «Ezkuntzalía jíten da! Élki ziteié háren hártzera!».

7. Berhála birjína húrak óro [jáiki zirén], eta bére argi-untzíak [adelátu zutién].

8. Eruék ordían zuhurrér [érran zéien]: «Emaguzíe zíen oliótik, híltzen beitíra gúre argíak».

9. Zuhurrék [ihardétsi zéien]: «Ez, lótsaz eztezágun áski úken zíen eta guretáko; zuazté lehenágo [saltzalengana] eta éros ezazíe».

10. Béna erostéra zuatzalárik, ezkuntzalía [jin zen], eta adelatúrik zirénak haréki sártu zirén [eztéietarat], eta bortá zerrátu zen.

11. Azkenían béste birjinák ére [jin zíren]: «Jáuna, Jáuna! Idéki ezagúzu!».

12. Béna hárek ihardétsi zéien: «Egiáz dioziét: etzutiét ezagútzen».

13. Hartákoz iratzárri égon ziteié, ezpeitakizíe egúna, ez oréna.

14. Gertatúko da, hala núla gízun herriz kánpo zúan bátek bére mitílak [déitu beitzutían], eta haién eskiétan bére untarzúnak ezári.

15. Báti bost taléntu [éman zían], béste báti bíga eta béste báti bat; bakótxari bére ahálaren aráu, eta berhála [júan zen].

16. Bost taléntu úken ziána [júan zen] eta balíaerázi zutían, eta bestérik bost irabázi zían.

17. Halabér égin zían bi taléntu úken ziának, eta béste bíga irabázi zían.

18. Bat úken ziána, áldiz, júan eta lúrrian ziló bat égin zían eta bére náusiaren diharía górde zían.

19. Denbóra luzéren burían, mítil haién náusia [utzúli zen eta kuntíak galtátu zéitzen].

20. Bost taléntu úken ziána [hullántu zen eta béste bost esképtu zéion], erráiten zéiolarik: «Jáuna, bost taléntu éman déitazu, huná béste bost irabázi dutudának».

21. Náusiak érran zéion: «Úntsa hóri, mítil un eta leiála! [Apurrétan fidél ízan béihiz], hanítxen gehién ezaríko háit; sar hádi híre náusiaren boztariúan».

22. Géro bi taléntu úken ziána [hullántu zen], eta érran zéion: «Jáuna, bi taléntu éman zenéitan, huná béste bi irabázi dutudának».

23. Náusiak [ihardétsi zéion]: «Úntsa hóri, mítil un eta leiála! Apurrétan [fidél ízan béihiz], hanítxen gehién ezaríko háit; sar hádi híre náusiaren boztariúan».

24. Azkénik, taléntu bat úken ziána [hullántu zen]: «Jáuna, badakít gízun gogórra ziréla; eréñ eztúzun lekían [eráikiten dúzu], eta iráurri eztúzun lekían bíltzen dúzu.

25. Hartákoz lótsa béinintzan, júan núzu eta zúre taléntia lúrrian górde dízut: huná nun dúzun zuría».

26. Náusiak ihardétsi zéion eta érran: «Mítil gáisto eta auhérra! Bahakían eréñ eztúdan lekían [eráikiten dudála], eta iráurri eztúdan lekían [bíltzen].

27. [Éne diharía, árren, bankiéren eskiétan ezári béhar hían], eta nik, jin ondúan, enía irabazíareki [eráikiko nián].

28. Élki ezózie [húni] taléntia, eta emúzie hámar taléntu diánari.

29. Ézi diánari emánen záio eta gáintika ukénen du; eztiánari, áldiz, diála udúri dían húra ére élkiko záio.

30. Eta mítil auhérra urtíki ezazíe kanpóko ulunpétarat. Han dáte nígar eta hortz karráska».

31. Gizúnaren Semía bére handitárzunian [jíten dátekienian], eta aingúru guzíak haréki, ordían járriren da bére erregeguáko jargián.

32. Eta [popúlu guzíak] háren aitziníala bílduren díra, eta alkargánik [berezíren dútu], artzañak [ardíak akerrétarik] berézten dutían bezála.

33. Eta ardíak bére eskúñian [ezaríko dútu]; akérrak, áldiz, eiskérrian.

34. Ordían errégek bére eskéñekuer [erránen déie]: «Tziáuste, éne Áitak benedíkatiak, góza ézazie zientáko mundíaren hástetik adelatúrik den erresumá.

35. Ézi góse izán niz eta játera [éman déitazie]; egárri izán niz, eta edátera [éman déitazie]; árrotz níntzan eta hártu náizie;

36. Biláizirik níntzan eta beztítu náizie; éri níntzan eta ikústera [jin zitzáiztaié]; presúntegian níntzan eta enegána [jin ziraié]».

37. Ordían [xuxenek] ihardétsiren déiue: «Jáuna, núiz ikúsi zutúgu gosetúrik eta játera [éman déizugu]? Egárriturik eta edátera [éman déizugu]?

38. Núiz árrotz ikúsi zutúgu eta hártu etxerát, édo biláizirik eta beztítu?

39. Edo núiz ikúsi zutúgu éri edo presúntegian eta jin gíra zuregána?».

40. Eta errégek ihardetsíren déie: Egiáz dioziét: hórik éne anáie txipién hoiétarik báti [égin deiozienian, éni égin deitazie].

41. Géro eiskérrekuer [erránen déie]: «Zuazté enegánik, maradikatíak, betiéreko súialat, zuñ pízturik izán béita débriaren eta háren lagunén.

42. Ézi góse izán niz eta eztéitazie éman játera; egárri izán niz eta eztéitazie éman edátera.

43. Arrotz níntzan eta enáizie bíldu; biláizirik eta enáizie beztítu; éri eta presúntegian eta etzitzáiztaie jin ikústera».

44. Ordían haiék ére ihardetsíren déiue: «Jáuna, núiz ikúsi zutúgu gosetúrik, edo egárriturik, edo árrotz, edo biláizirik, edo éri, edo presúntegian, eta eztéitzugu égin gúre eginbidíak?».

45. [Ordían] hárek erránen déie: Egiáz dioziét, txipién hoiétarik báti hórik égin ez tutuziénian, éni dutuzíe ez égin.

46. Eta hórik betiéreko (zehaldi)étarat [juánen díra; xuxenak], áldiz, betiéreko bizitzíalat.

(HOGEITA SEIGERREN) KAPITULIA

(Jesüs nola bahitüko. Emazte batek
Jesüs ünkütez gantzütü. Jesüs Judasek saldürik.
Azken aiharialako antolaketak. Aiharian: Judasen
saldükeriaren aipamena. Azken aiharia: hona
éne korpitz odolak! Aihal ondoan: Petiriren ükoen aipatzea.
Getsemaniko otoitz larria. Jesüs lotürik eraman.
Jesüs judio biltzarraren aitzinean. Petirik Jesüs ükatü.)

1. Jésusek éle hórik [urréntu zutiánian, bére dizipuliér érran zéien]:

2. «Badakizíe bi egúnen burían Bázkua egínen déla. Gizúnaren Semía emánik izánen da kruzifikatúrik izáteko».

3. Ordían apézen-gehiénak eta populúko zahárrak Kaífas déitzen zen Apéz handíaren etxehéipiala [bíldu zirén].

4. Eta Jésus [ixílka atzáman eta hilerázi béhar ziéla hitzártu zién].

5. Béna zioién: «Ez jéi egunían, albarót zunbáit populían eráik eztádin».

6. Ordían Jésus Betanían zélarik, Simón [legenbelz]dúnaren étxen,

7. Emazté bat [hullántu zéion], urrin-ún baliúsez betérik zen alabástrozko untzí bat eskían, eta burun gáña [ixúri zéion], maháñian zélarik.

8. Hórren ikústia gaitzétsi zién dizipuliék, eta érran zién:

–Zértako égin holáko gáltzia?

9. Ézi hóri úntsa [sáldu áhal zátekian], eta sária beharrér [éman].

10. Jésusek, zer zioién beitzakían, érran zéien:

–Zértako emáiten deiozié emázte húni hiráik? Egitáte úna egín du éne eretzían.

11. Ézi badutuzíe béti behárrak zieki, ni áldiz enáizie béti ukénen.

12. Urrin-ún hóri éne korpitzíala ixúri du éne ehortzetáko.

13. Egiáz dioziét: Nun-nahi ízan dádin ebanjelío háu múndu guzían [peredikatúrik], húnek zer égin dían [ére erránik izánen da], húnen oritzapenétan.

14. Ordían hamabíetarik bat [júan zen], Judás Iskariót déitzen zéna, apézen-[gehienengana];

15. Eta érran zéien: «Zer náhi déitazie éman, eta nik húra eskiétaturen déiziet?».

Haiék hógei eta hámar zílar [esképtu zéiuen].

16. Ordútik utsártiaren guáita zabílan, haién eskiétan háren ezárteko.

17. Ógi altxátu-gabén [jeieko] léhen egunían, Jésusi dizipulíak [hullántu zéitzon] eta érran zéiuen:

–Nun náhi dúzu adéla dizazúgun Bázkuaren játeko?

18. Jésusek ihardétsi zéien:

Zuazté hiríala, hulakuagána eta errózie: «Náusiak [érran háu] igórten déizu: Éne tenoría húllan da, [éne dizipuliéki] zúre etxéra jíten núzu, Bázkuaren egitéra».

19. Dizipuliék Jésusek manátu zéien bezála [égin zién, eta Bázkua adelátu zién].

20. Arrátsa héltu zénian, maháñian [járri zen] bére hamabí dizipuliéki.

21. Játen ári zirélarik érran zéien:

–Egiáz dioziét ziétarik bátek traditúren náiala.

22. Hitz hoiéz ezinágo bihotztérriturik, aldíka galtátzen [hási zéitzon]:

–Ni oté niz, Jáuna?

23. Jésusek ihardétsi zéien:

–Enéki eskía plátian ezárten diának, hárek traditúren nái.

24. Bái, Gizúnaren Semía badúa, hártzaz izkiribatúrik den bezála; béna gáitz gízun háren, [zúñek traditúrik izánen béita]! Hóbe zátekian harentáko, ezpazén egundáno sórtu.

25. Judás. háren tradizalíak, elía hártu zían eta érran zéion:

–Náusia, ni oté niz?

[Jésusek] ihardétsi zéion:

–[Zuk] érran dúzu.

26. Aiháitan zirélarik, Jésusek ogía [hártu zían], benedikátu eta háutse, eta dizipuliér éman [zeien] erráiten zéielarik: «Har ezazíe eta jan, háu éne korpítza [da]».

27. Géro, edanuntzía [hárturik], eskérrak utzúli zutían, eta éman zéien erráiten ziálarik: «Édan ezazíe huntárik guziék,

28. Ézi háu éne odóla [da], páto berrikúa, zuñ hanitxentzát ixurírik izánen béita bekatién parkamentútan.

29. Báita erráiten déiziet: Éztut habóro edánen aihénaren frútu hortárik, egúna [jin ártio], zúñtan bérri edánen béitut zieki éne Aitáren erresumán».

30. Eskerrézko psálmiak érran undúan, Olibétako mendialat [júan zirén].

31. Ordían Jésusek érran zéien: «Zíek guziék gáur gálbide hárturen duzíe [nígan]. Ézi izkiribatúrik da: *Artz´sña [jóko dut, eta artaldéko ardíak barreiatúren díra]*.

32. Béna píztu nizatekiénian, Galiléara lehentúren nitzáizie».

33. Petírik elía hárturik érran zéion:

–Béste guziék [zúgan] gálbide hárturik ére, nik eztít jagóiti hárturen.

34. Jésusek érran zéion:

–Egiáz erráiten déizut: gáur bérian, ollárrak kantátu gábe, hirurétan ukatúren náizu.

35. Petírik érran zéion:

–Zuréki hil [béhar bánu ére], etzútut ukatúren.

Halabér béste dizipúlu guziék ére érran zéiuen.

36. Ordían Jésus haiéki Getsemáni déitzen den guné batetára [héltu zen, eta dizipuliér érran zéien]: «Záuzte hében, ni haráxe núan ártian, otóitze egitéra».

37. Petíri eta Zebedeoren bi semíak [beréki hártu zutían, eta trístetzen hási zen] eta bihotztérritzen.

38. Ordían érran zéien: «Tríste da éne arimá híltzerano. Záuzte hében, eta iratzarrírik égon ziteié enéki».

39. Eta hurruntxiágo juánik, ahózpez [eróri zen] lúrren gáña, otóitze háu egíten ziálarik: «Éne Áita, áhal báda, úrrunt bédi enegánik kalitzía hóri. Haregátik, égin dadíla ez nik náhi dúdan bezála, béna zuk náhi dúzun bezála».

40. Géro [dizipuliéngana jin zen] eta lo edíren zutían, eta Petíriri érran zéion: «Zer, etziraié orén bat[ez] égon áhal ízan enéki iratzarrírik?

41. Záuzte iratzarrírik, eta otóitze egizíe, éror etziteién tentaziónian, ézi izpirítia bérhañ zále da, béna haragía flaku».

42. Harzára bígerren aldíko júan zen, eta otoítze égin zían, ziualárik: «Éne Áita ezpadáite kalitzía hóri igáran nik édan gábe, égin bédi zúre nahía».

43. Bérriz [utzúli zen] eta lo edíren zutían, ézi logalíak begíak [zerrátzen zéitzen].

44. Eta húrak útzirik, bérriz júan zen eta otóitze égin zían hírurgérren aldíko, ber hítzak erráiten zutiálarik.

45. Géro bére [dizipuliéngana jin zen] eta érran zéien: «Lo egizíe órai eta páusa ziteié! Huná nun den húllan oréna, eta Gizúnaren Semía gaistuén eskiétan ezarírik izánen da.

46. Jáiki ziteié, guátzan, háu duziéla éne tradizalía, [hullántzen]!».

47. Oráno míntzo zélarik, Judás [agértu zen], hamabíetarik báta, eta haréki jénte-ózte handí bat ezpatéki eta makiléki, apézen-gehienék eta populúko zaharrék igorrírik.

48. Háren tradizalíak señále háu éman zéien: «Núri ére pot bat [emánen béiteiot], húra da, lot zakitzoié».

49. Eta hainbéstereki, Jésusengána hullantúrik érran zéion: «Águr, náusia», eta pot éman zéion.

50. Jésusek érran zéion: «Éne adiskidía, zértara jin zíra?».

Ordían bestíak hullántu zirén eta eskíak Jésusen gáña [ezári zutién] eta hártu zién.

51. Arte hórtan, Jésuseki ziénetarik bátek ezpatá [hártu zían, biláizi, eta jo Apéz handíaren mitíl bat, eta beárria [múztu zéion].

52. Béna Jésusek érran zéion: «Útzul ezázu ezpatá bére lekíalat, ézi ezpatá erabilíko diána ezpatáz hílen da.

53. Úste duzía eztezakedála ótoi éne Áita, eta elizakedála berhála ígor hamabí aingúru lejióne béno habóro?

54. Béna núla béta litáke, hóla ízan béhar déla erráiten dién Izkiribíak?».

55. Ordían Jésus jénte sáldo hári [mintzátu zen], eta érran zéion: «Uhúñ [baténgana] bezála élki ziraié ezpatéki eta makiléki éne hártzera! Égun óroz zíen ártian nindágon, ténpluan erakásten, eta enáizie hártu.

56. Béna hórik óro égin díra profeték erranén betatziagátik».

Ordían dizipúlu guziék, húra útzirik, íhes égin zién.

57. Jésus hártu zienék Kaífas Apéz handíaren etxéra [erúan zién], nun lege-erakaslíak eta populúko zahárrak [bíldurik beitzáuden].

58. Petíri [Jésusi urrúntik jarráiki zéion], Apéz handíaren etxe-héipialano eta, bárna sárturik, miskandiéki [járri zen], urrentburía ikúsi náhiz.

59. Apézen-gehiénak eta bilkúra guzía jakile-faltsugúa báten undúan zirén Jésusen kúntre, háren hilerázteko.

60. Eta etzién ediréiten, hánitx jakíle-fáltsu [erantzunik ere]. Azkenían bi jakíle-fáltsu agértu zirén,

61. Eta érran zién: «Húnek érran du: Jínkuaren ténplua [egótxi dezáket], eta hirur egúnez arreráiki».

62. Ordían Apéz handía [txutitu zen eta érran zéion]:

–Eztúzu déus ihardésten, hoiék zúre kúntre ekárten dutién jakileguér?

63. Jésus, áldiz, ixílik záguan. Apéz handíak érran zéion:

–Jínko bizíaren izenían [manátzen zútut], érran dizagúzun zu zirénez Krist Jínkuaren Semía.

64. Jésusek ihardétsi zéion:

–[Zuk] érran dúzu. Báita dioziét: Egún bátez *Gizúnaren Semía [Jínko poteretsíaren eskuñían járririk eta zelúko hodéietan gáñen jíten* [ikusíren duzíe].

65. Ordían Apéz handíak bére súñekuak [urrátu zutían]:

–Buráu egín du. Zértako dúgu habóro jakíle behárrik? Zihaurék órai éntzun duzíe buráua.

66. Zer záizie?

Haiék ihardétsi zién:

–Híltzia zor záio.

67. Ordían tu égin zéiuen begitártiala, ukubillakálduz jo zién, bestíak áldiz mateláko emáiten ári ízan zéitzon,

68. Ziuélarik: «Káusi ézak, Krist: nur da jo háiana?».

69. Petíri árte hórtan kanpóko héipian [járririk záguan, eta neskató bat hullántu zéion], eta érran:

–Zu ére Jésus Galiléakoareki zinén.

70. Béna hárek guzién aitzinían ukátu zían, ziualárik:

–Eztakít zer diózun.

71. Bortátik élkiten zélarik, béste neskató bátek ikúsi zían eta han zirenér érran [zéien]:

–Hóri ére Jésus Nazarétekuareki zen.

72. [Petírik] bérriz ukátu zían zíneki, erráiten ziálarik:

–Éztut ezagútzen gízun hóri.

73. Hántik apúr báten burían, han záudenak [hullántu zirén, eta Petíriri [érran zéioen]:

–Bái, haiétarik zíra zu ére, ézi zúre elesták bérak salátzen zútu.

74. Ordían arnégu eta zin egíten [hási zen]:

–[Éztut ezagútzen gízun hóri].

Eta hainsárri, ollárrak kantátu zían.

75. Eta Petíri orítu zen zer érran zéion Jésusek: «Ollárrak kantátu béno léhen, hirurétan ukatúren náizu». Kanporát élkirik, nigár égin zían mingárki.

(HOGEITA ZAZPIGERREN) KAPITULIA

(Jesüs Pilatogana eramanik. Judasen heriotzea.
Jesüs Pilatoren aitzinean. Jesüs heriotzeala kondenatürik.
Soldadoen ihakinak. Jesüs kürütxitzatürik.
Jesüs kürütxean iraintürik. Jesüsen heriotzea.
Jesüs hilobian ezarririk. Hilobia zigilatürik.)

1. Goíza héltu zénian, apézen-gehienék eta populúko zaharrék alkarréki hitzártu zién Jésusen hileráztia.

2. Estekatúrik erakárri zién, eta Púntzio-Pilátoren eskiétan [ezári].

3. Ordían Judás, háren tradizalíak, [Jésus] kundenatúrik zéla ikúsi ziánian, dolutúrik, apézen gehienér eta zaharrér hógei eta hámar zilárrak [ekárri zéitzen],

4. Erráiten zéielarik:

–Gáizki egín dut [xuxenaren] odóla sálduz.

Ihardétsi zéiuen:

–Gúri zer záiku? Zuk ikusázu!

5. Diharía ténplualat urtíki zían, eta júan zen eta bére buría urkátu zían.

6. Apézen-gehienék diharía [eráiki zién], béna érran zién: «Ézta sóri hoién tresórialat ezártia, odólaren sária délakoz.

7. Eta alkarréki hitzárturik, hártzaz lúrrezko untziegilé báten alórra [erósi zién], arrotzén hilérritako.

8. Hartákoz da, égun oráno, álor húra *Hazeldáma* déiturik, «Ódol alórra» [érran náhi béita].

9. Ordían, Jeremía profeták érran ziána [béte zen]: *Hógei eta hámar zílar pezák [hártu dutíe], zuñ saltzapenétan ezarírik ízan dénaren sária [beitíra], eta zúñen kóstuz Israeléko háurrer [erósi beitíe],*

10. *Eta lúrrezko úntziegilíaren alorrían [ezári dutíe], Jínkuak erakútsi déitan bezála.*

11. Jésus, árren, gobernadoríaren aitziníala [ekárri zién]. Gobernadoríak galtátu zéion:

–Zu zirá judiuén erregía?

Jésusek érran zéion:

–Badiózu.

12. Apézen-gehienék eta zaharrék [hogendúntzen beitzién], etzéien déus ihardétsi.

13. Ordían Pilátok érran zéion:

–Eztúzu éntzuten zunbát jakilegúa zúre gañ ekárten dién?

14. Béna etzéion déusetan ihardétsi, hórtzaz ezinágo beitzén gobernadória mirétsirik.

15. Bázkoko égun handían, populíari presunér bat [éman óhi zían], bérek náhi ziéna.

16. Bazían ordían katiétan gizagáisto famatú bat, Barrabás déitzen zéna.

17. Han bíldurik [zen jendei, Pilatok] érran zéien:

–Zuñ náhi duzíe éman dizaziédan, Barrabás ála Jésus, Krist déitzen déna?

18. Bazakían ézi háren eskiétan [bekaisteríaz ezári ziéla].

19. Tribunálian járririk zélarik, [emaztíak mezu háu] igórri zéion: «Eztadíla déus ízan zúre eta [xuxen] hórren ártian, ézi hánitx eskarniátu núzu gáur ametsetárik horrengátik».

20. Árte hórtan apézen-gehienék eta zaharrék populíari burían ezári zéiuen Barrabás [galtátu béhar ziela], Jésus áldiz gálerázi.

21. Gobernadoríak árren elía hárturik, érran zéien:

–Zuñ náhi duzíe bíetarik éman dizaziédan?

–Barrabás –[ihardétsi zéiuen].

22. Pilátok érran zéien:

–Zer ordían egínen dut Jésus, Krist déitzen dénaz?

23. Guziék [ihardétsi zién]:

–Kruzifíka dadíla.

Gobernadoríak [érran zéien]:

–Béna zer gáizki egín du?

Haiék zinezágo óihu [égin zién, zioiélarik]:

–Kruzifíka dadíla.

24. Pilátok, déus [etziála irabázten ikusírik], eta jentía habóro gáiztez zuála, ur ekárri zían eta eskíak xahátu zutían populíaren aitzinían ziualárik:

–Xáhu niz ni [xuxen] húnen odolétik! Zíek ikusazíe!

25. Popúlu guzíak ihardétsi zían:

–Hórren odóla gúre gañ déla eta gúre háurren gañ!

26. Ordían Barrabás [emanerázi zéien]; Jésus, áldiz, (zeha)túrik eskiétan ezári zéien kruzifikatúrik izáteko.

27. Ordían gobernadoríaren soldáduek Jésus jauregíala [eráman zién], eta bére lagúnak óro háren unguríala bíldu zutíen.

28. Biláizi zién eta kápa gorrí bátez ungurátu.

29. Eta koruá bat elorríz egínik, burun gáñen ezári zéiuen, eta kanaberá bat eskían, eta háren aitzinían [belaikátzen zirélarik], náusaz ári zéitzon, ziuélarik: «Águr déizugu, judiúen erregía!».

30. Géro tu egíten zéiuen eta kanaberá hárturik buría [jóiten zéiuen].

31. Aski laidostátu ziénian, kapá [kéntu zéiuen] eta bére súñekuak jáuntsi zéitzuen, eta kruzifikatzéra [eráman zién].

32. [Elkitzian], Zirénako gizún bat [bátu zién], Simón déitzen zéna, eta húra Jésusen kurutxíaren eramáitera [bortxátu zién].

33. Golgotá déitzen den lekíala [héltu zirénian, zuñ «Burezur» béita],

34. Ardú [éman zéiuen edatera] urdalmínareki nahasírik. Txéste ziánian etzían édan náhi úken.

35. [Kurutxían] itzátu ziénian, háren súñekuak [partítu zutién], zortíala élkirik, profeták érran ziána [béta lédin]: *Éne súñekuak [bére ártian partítu dutíe], eta éne saiúa zortían ezári díe*.

36. Géro, járririk, háren begíra zaudén.

37. Buríaren álde gañían izkiribatúrik [ezári zéiuen] zértako kondenatúrik ízan zen: «Háu Jésus da, judiuén erregía».

38. Haréki bi uhúñ [ére kruzifikatúrik ízan zirén], báta háren eskúñian eta bestía eiskérrian.

39. Igaráiliak, áldiz, nausátzen ári zéitzon, buría iharráusten ziélarik,

40. Eta erráiten: «Eiá, báda, hi Jínkuaren ténpluaren egotxlía, eta hírur egúnez háren arreraikizalía, begíra ézak hóre buría. Jínkuaren Semía bahíz, jáits hádi kurutxétik!».

41. Halabér apézen-gehiénak ére náusaz ári zéitzon, lege erakasléki eta zaharréki, ziuélarik:

42. «Bestíak líbratu dútu eta bére buría eztezáke líbra! Israeléko erregía báda, jáits dadíla órai kurutxétik eta [horrengan sinetsiko] dúgu.

43. Jínkoa[gan] bermátzen da, líbra dezála órai háren gogóko báda, ézi érran du: Jínkuaren Semía niz».

44. Ber gisán haréki kruzifikatúrik zirén uhuñék undikátzen zién.

45. Séigerren orenétik bederátzugarreníala, ulunpék múndu guzía [hártu zién].

46. Bederátzugérren orénaren ungurunían Jésusek óihuz érran zían azkárki: *«Eli, Eli, lema sabaktáni?»*. Érran náhi da: *«Éne Jínkua, éne Jínkua, zértako útzi náizu?»*.

47. Han zaudenétarik zunbáitek, hóri éntzunik, érran zién: «Elías déitzen du húnek».

48. Eta berhála haiétarik bátek, lastérka juánik, (mustika) bat ardú mingártuz béte zían eta, hagá báten puntán ezarírik, edátera [emáiten zéion].

49. Besték, áldiz, erráiten zién: Eiá, dezágun íkus Elías jínen záionez libratzéra.

50. Jésusek, ordían, óihu handí bat egíten ziálarik, ázken hátsa igórri zían.

51. Órdu bérian ténploko mihisía bi zatítan urrátu zen, gañétik zolála; lúrra [ikarátu zen], eta arrokák erdirátu zirén.

52. Hil-hobíak zabáltu zirén, eta hílik zirén hanítxen korpítzak píztu zirén.

53. Eta hobiétarik [élkirik, Jésus] arrapíztu zénian, híri sáintiala [jin zirén], eta hanítxi agértu zirén.

54. Holatán ehuntaría eta haréki Jésusen begirátzen záudenak, luhikará eta béste igaráiten zirén gaizák [ikúsi zutiénian, ezinágo] izítu zirén eta ziuén: «Egiázki háu Jínkuaren Semía zen!».

55. Bazirén han hurrunttúan [zunbáit emázte ére], Jésusi Galiléatik jarráiki [zéitzonak] eta hári lagungúa egíten zéienak.

56. [Haién ártian] María Madaléna zen, eta María Jakóben eta Joséfen amá, eta Zebedéoren semén amá.

57. Arrátsa héltu zénian, Arimatéako gízun aberáts bat jin zen, Joséf déitzen zéna, zuñ Jésusen dizipúlu [béitzen].

58. [Pilatogána] júan zen, eta Jésusen korpítza [galtátu zéion]. Eta Pilátok berhála manátu zían éman lekión.

59. Joséfek korpítza [hártu zían] eta mihíse xurí batétan ungurátu.

60. Eta bére hóbi berrían [ezári zían, zuñ] harrían zilerázi beitzían, eta hárri handí bat hobi-ahúala [utzulikátu zían] eta júan zen.

61. Han zaudén María Madaléna eta béste María, hobíaren kantían [járririk].

62. Biharamenían, zuñ neskanegúna beitzén, apézen-gehiénak eta farisiénak alkarréki júan zirén Pilátogána.

63. Eta érran zéiuen:

–Jáuna, orítu gutúzu inganazále hórrek, bízi zélarik, érran [z]iála: «Hírur egúnen burían pízturen niz».

64. Mánu emázu, árren, hobía [begíra dádin, hírurgérren eguniala ártio]; háren dizipulíak [júan eztitían] korpítzaren ebastéra eta érran eztezén populíari: «[Hílen ártetik] píztu da», ázken inganiúa lehénaren sordéi belizáte.

65. Pilátok érran zéien:

–Badutuzíe begiraríak, zuazté eta zíen jakínaren aráu begireráz ezazíe.

66. Hórtan júan zirén, hobía [zerrátu zién], harría kaxetátu eta begiraríak ezári.

(HOGEITA ZORTZIGERREN) KAPITULIA

(Jesüsen piztearen berria.
Soldadoak erosi.)

1. Neskanégun gáian, astéko léhen egúnaren argitziaréki, Mariá Madaléna eta béste Mariá hobíaren ikústera [júan zirén].

2. Batbatían luhikára handi bat ízan zen. Ézi Jínkuaren ainguría zelútik [jáitsi zen], eta hobíala hullantúrik, harría [egótxi zían] eta háren gáñen járri zen.

3. Háren begitártiak inazía [udúri zían], eta háren saiúa elúrra bezála zen.

4. [Hobíaren begiraríak] lótsaz harrítu zirén eta hílik bezála járri zirén.

5. Ainguría emaztér mintzátu, eta érran zéien:

–Eztezaziéla zíek lotsárik úken! Badákit Jésus kruzifikatúrik ízan dénaren ikúsi náhiz ziraiéla.

6. Ezta hében, píztu [béita], érran zían bezála. Tziáuste eta ikús ezazíe Jáuna ezári zién lekía.

7. Eta zuazté berhála háren dizipuliér erráitera: «Píztu da eta Galiléara lehentúren záizie; han ikusíko duzíe». Aitzinétik jakintsútzen zutiét.

8. Bértan hobítik [élki zirén], ikára eta boztarío handiréki, eta lastérka bazuátzan dizipuliér berríaren emáitera.

9. Eta huná nun Jésus aintziníala agértzen záien, diualárik: «Águr déiziet!».

Húrak hullántu zéitzon, háren zankúak [besárkatu zutién] eta (gurtu) zién.

10. Ordían Jésusek érran zéien: «Ez úken lotsárik! Zuazté, errézie éne anaiér Galiléara [júan ditían], han ikusíren náiela».

11. Húrak júan zirénian, hobíaren begirariétarik zunbáit jin zirén hiríala, eta apézen-gehienér igáran zirénak óro [érran zéitzen].

12. Haiék bilzárren égin zién populúko zaharréki, eta alkarréki hitzárturik, soldáduer diharútze handí bat [éman zién].

13. Erráiten zéielarik: «Errazíe háren dizipuliék, gáiaz jínik, eráman diéla, zíek lo ziniélarik.

14. Gobernadoríak [hóri] jakíten bádu, guk mintzatúren dúgu, eta gáitzik ukéitetik begiratúren zutiégu».

15. Haiék diharía hártu zién eta égin erakátsi zéien bezála. Eta gézur hóri judiuén ártian [barreiatúrik da] oráno égunko egunían.

16. Haméka dizipulíak, áldiz, Galiléara [júan zirén], Jésusek érran zéien mendíala.

17. Han ikúsi eta (gurtu) zién. Zunbáit, haregátik, dudán ízan zirén.

18. Jésus hullantúrik mintzátu zéien eta érran: «Potére osúa emánik ízan záit zelían eta lúrrian.

19. Zuazté, árren, popúlu guzíak árgi etzatzíe, Aitáren eta Semíaren eta Espirítu Sáintiaren izenían [bateiátzen dutuziélarik].

20. Nik manátu déitziedan guzién begirátzen [erakásten deieziélarik. Eta ni zéki izánen niz béti mentén urrentzíala ártio]».

EUSKARA BATUA

MATEOREN EBANJELIOA

EUSKARA BATUAN

JESUKRISTOREN EBANJELIOA

MATEOREN ARABERA

(TESTU EGUNERATUA)

LEHEN KAPITULUA

Jesusen genealogia.
Jesusen sortzea.

1. Abrahanen eta Dabiden ondorengo den Jesus Mesiasen arbasoen zerrenda:
2. Abrahanek Isaak sortu zuen; Isaakek Jakob; Jakobek Juda eta honen anaiak;
3. Judak Fares eta Zara, Tamarrengandik; Faresek Esrom; Esromek Aram;
4. Aramek Aminadab; Aminadabek Naason; Naasonek Salmon;
5. Salmonek Booz, Rahabengandik; Boozek Obed, Rutengandik; Obedek Jese.
6. Eta Jesek Dabid erregea. Dabidek Salomon sortu zuen, Uriasen emazte izanarengandik;
7. Salomonek Roboan; Roboanek Abias; Abiasek Asaf;
8. Asafek Josafat; Josafatek Joram; Joramek Ozias;
9. Oziasek Joatam; Joatamek Akaz; Akazek Ezekias;
10. Ezekiasek Manases; Manasesek Amos; Amosek Josias.
11. Eta Josiasek Jekonias eta honen anaiak, israeldarrak Babiloniara erbesteratu zituzten garaian.
12. Babiloniako erbestaldiaren ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen; Salatielek Zorobabel;
13. Zorobabelek Abiud; Abiudek Eliakim; Eliakimek Azor;
14. Azorrek Sadok; Sadokek Akim; Akimek Eliud;
15. Eliudek Eleazar; Eleazarrek Matan; Matanek Jakob.
16. Eta Jakobek Jose, Mariaren senarra; eta Mariagandik jaio zen Jesus, Mesias deritzana.
17. Hona, beraz, zenbat gizaldi guztira: Abrahanengandik Dabidengana hamalau; Dabidengandik Babiloniako erbestaldira beste hamalau, eta Babiloniako erbestalditik Mesiasengana beste hamalau.
18. Jesus Mesiasen sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen; eta, elkarrekin bizitzen hasi aurretik, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez.
19. Jose, Mariaren senarra, gizon zuzena zen; ez zuen hura salatu nahi, eta isilean uztea erabaki zuen.
20. Asmo horrekin zebilela, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Dabiden ondorengoa, ez izan beldurrik Maria zeure emaztetzat hartzeko, harengan sortua Espiritu Santuarengandik baitator.
21. Semea izango du, eta zuk Jesus ezarriko diozu izena, berak askatuko baitu bere herria bekatuetatik».
22. Hau guztia, Jaunak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen:
23. *Hara, birjinak haurdun gertatu eta semea izango du, eta Emmanuel jarriko dio izena* (Emmanuel izenak «Jainkoa gurekin» esan nahi du).
24. Esnatzean, Jaunaren aingeruak agindua egin zuen Josek, eta Maria emaztetzat hartu zuen.
25. Eta ez zuten ezkontza-harremanik izan, Mariak semea izan zuen arte, eta Josek Jesus izena ipini zion.

BIGARREN KAPITULUA

Ekialdeko jakintsu batzuek Jesus gurtu.
Egiptora ihesi. Belengo haurren hilketa.
Egiptotik itzuli eta Nazareten bizi.

1. Jesus Judeako Belen herrian jaio zen, Herodes erregearen garaian. Jesus jaio ondoren, sortaldeko jakintsu batzuk azaldu ziren Jerusalenen, galdezka:
2. –Non da juduen errege jaio berria? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta gurtzera gatoz.
3. Berri honekin larritu egin zen Herodes erregea, baita Jerusalen hiri osoa ere.
4. Orduan, herriko apaizburu eta lege-maisu guztiak bildu eta Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien.
5. Haiek erantzun zioten:
–Judeako Belenen, honela idatzi baitzuen profetak:
6. *Eta zu, Judeako Belen, ez zara, ez, Judeako hirietan txikiena; zuregandik aterako baita buruzagia, Israel nire herria gobernatuko duena.*
7. Orduan, Herodesek, jakintsuak isilean deiturik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz.
8. Gero, Belenera bidali zituen, esanez: «Zoazte eta jakin xuxen haurraren berri eta, aurkitu ondoren, adierazi niri, neu ere gurtzera joan nadin».
9. Erregearen hitz haiek entzunik, abiatu agin ziren. Bidean, sortaldean ikusitako izarra agertu [eta] aurretik joan zitzaien, haurra zegoen toki gainean gelditu arte.
10. Izarra ikustean biziki poztu ziren.
11. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten Maria bere amarekin eta, ahuspezturik, gurtu; ondoren, euren kutxatilak zabalduz, eskuerakutsiak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra.
12. Gero, Herodesengana ez itzultzeko oharra ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren euren herrialdera.
13. Jakintsuek alde egin ondoren, Joseri Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora. Egon han nik esan arte, Herodes haurraren bila ibiliko baita, hilarazteko».
14. Hartu zituen, beraz, Josek haurra eta ama gauez, eta Egiptora alde egin zuen.
15. Han bizi izan zen, Herodes hil arte. Horrela, Jaunak profetaren bidez esana bete zen: *Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari.*
16. Herodes erregea, jakintsuek engainatu egin zutela oharturik, biziki haserretu zen, eta Belenen eta inguruetan bi urtez azpiko haur guztiak hiltzeko agindu zuen, jakintsuek adierazitako denbora kontuan harturik.
17. Honela bete zen Jeremias profetak esana:

18. *Entzun! Aieneak eta negar samina Raman! Rakel ari da bere haurrengatik negarrez: ez du kontsolatu nahi, ez baitira bizi.*

19. Herodes hil ondoren, Joseri Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Egipton.

20. Eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz Israelera, hilak baitira haurra hil nahian zebiltzanak».

21. Josek haurra eta ama hartu zituen, eta Israelera joan zen.

22. Baina jakin zuen, Herodesen ordez haren seme Arkelao zegoela Judean errege, eta beldurra sartu zitzaion hara joateko. Eta, ametsetan adierazi zitzaiolarik, Galileara jo zuen.

23. Eta Nazaret izeneko herrian jarri zen bizitzen. Horrela bete zen Jainkoak profeten bidez esana: *Nazaretarra esango diote*.

HIRUGARREN KAPITULUA

Joan Bataiatzaileak Jesusen etorrera hots egin.

Jesus bataiatua.

1. Garai hartan Joan Bataiatzailea agertu zen, Judeako basamortuan honela hots eginez:

2. «Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza».

3. Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak: *Ahots bat oihuka ari da basamortuan: Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari.*

4. Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta baseztia zituen janari.

5. Jerusalen hiriko, Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen.

6. Eta bere bekatuak aitortzen zituztela, Joanek bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

7. Fariseu eta saduzear askori, bataiatzera zetozela ikustean, honela esan zien Joanek:

–Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela?

8. Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela.

9. Eta ez pentsa nahikoa duzuela «Abrahanen ondorengo gara» esatea. Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahanen ondorengoak.

10. Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko: fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da.

11. Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitezten; baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuagoa da, eta ni ez naiz inor hari oinetakoak eranzteko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte.

12. Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa: alea mandioan jasoko du; lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko.

13. Jesus Galileatik Jordanera etorri zen, Joanengana, honek bataia zezan.

14. Joanek ez zion utzi nahi eta esan zion:

–Neu naiz zuk bataiatu beharrekoa, eta zu zatoz niregana?

15. Baina Jesusek erantzun zion:

–Uztazu orain, honela bete behar baitugu osoki Jainkoaren nahia.

Orduan, amore eman zuen Joanek.

16. Bataiatu eta berehala, Jesus uretatik irten zen. Hortan, zerua zabaldu zen, eta Jainkoaren espiritua ikusi zuen Jesusek uso tankeran jaisten eta beregana etortzen.

17. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Hau da nire Semea, nire maitea; berau dut atsegin».

LAUGARREN KAPITULUA

Jesus basamortuan tentatua. Jesus Galileara.
Jesus berri ona zabaltzen hasi.
Jesusek lehen ikasleei dei. Jendetaldea.

1. Orduan, Espirituak basamortura eraman zuen Jesus, deabruak tenta zezan.

2. Berrogei gau eta berrogei egunez egon zen han, barau eginez, eta azkenik gosetu egin zen.

3. Tentatzailea hurbildu zitzaion orduan, eta esan zion:

–Jainkoaren Semea zarenez, agindu harri hauek ogi bihurtzeko.

4. Jesusek erantzun zion:

–Liburu Santuetan idatzia dago: *Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, baizik Jainkoak esaten duenetik bizi da.*

5. Ondoren, deabruak hiri santura, Jerusalenera, eraman zuen eta, tenpluaren goreneko ertzera jasorik, esan zion:

6. –Jainkoaren Semea zarenez, bota zeure burua behera, idatzia baitago: *Bere aingeruei aginduko die zu zaintzeko. Eta besoetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun.*

7. Baina Jesusek erantzun zion:

–Hau ere idatzia dago: *Ez tentatu Jauna, zeure Jainkoa.*

8. Berriro, deabruak hartu eta mendi garai batera eraman zuen; munduko erreinu guztiak euren handi-ederrean erakutsi,

9. Eta esan zion:

–Hori guztia emango dizut, ahuspezturik gurtzen banauzu.

10. Jesusek, orduan:

–Alda hemendik, Satanas! Idatzia baitago: *Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu.*

11. Orduan, deabruak utzi egin zuen, eta aingeruak etorri zitzaizkion zerbitzatzera.

12. Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakitean, Jesus Galileara joan zen.

13. Baina Nazaret utzirik, Zabulon eta Neftaliren lurraldean jarri zen bizitzen, laku bazterrean dagoen Kafarnaun herrian.

14. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen:

15. *Zabulonen lurraldea eta Neftaliren lurraldea, itsas ondoko bidea, Jordanez haranzko lurraldea, jentilen Galilea!*

16. *Ilunbetan zegoen herriak argi handia ikusi du. Itzalpean bizi zirenei argiak distira egin die.*

17. Une hartatik hasi zen Jesus honela hots egiten: «Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza».

18. Jesusek, Galileako laku bazterrean zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta Andres, sarea uretara botatzen, arrantzaleak baitziren.

19. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet».

20. Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

21. Aurrerago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen. Eta dei egin zien.

22. Haiek, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

23. Jesus Galilea osoan barrena ibili zen, hango sinagogetan irakasten. Jainkoaren erregetzaren berri ona hots egiten zuen, eta herriko gaitz eta eritasun guztiak sendatzen.

24. Siria osoan Jesusen entzutea zabaldu zen. Edozein gaitz edo oinazek jotakoak –deabrudun, epileptiko nahiz elbarriak– eramaten zizkioten, eta hark sendatu egiten zituen.

25. Jendetalde handiak jarraitu zioten alde guztietatik: Galilea, Dekapolis, Jerusalen eta Judeatik eta Jordanez bestaldetik.

BOSGARREN KAPITULUA

Jesusen irakaspena mendian. Zoriontasunak.
Munduarentzat gatz eta argi. Jesus eta legea.
Senideen arteko harremanak. Adulterioa eta dibortzioa.
Zinak. Mendekua. Maitatu etsaiak.

1. Jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri, eta ikasleak hurbildu zitzaizkion.
2. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:
3. –Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege.
4. Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko.
5. Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitzemandako lurraz.
6. Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko.
7. Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango.
8. Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa.
9. Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko.
10. Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege.
11. Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztenean, erasoka eta gezurrez gaizkiesaka erabiliko zaituztenean.
12. Poz zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten.
13. Zuek zarete munduarentzat gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, botatzeko baizik eta jendeak zapaltzeko.
14. Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria.
15. Kriseilua ere ez da pizten ontzipean ipintzeko, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egiteko.
16. Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten.
17. Ez uste izan Moisesen legea edo profeten esanak huts bihurtzera etorri naizenik; ez naiz huts bihurtzera etorri, euren betera eramatera baizik.
18. Zeren eta benetan diotsuet: Zeru-lurrek dirauten bitartean legearen hitz batek edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.
19. Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena edota hausten irakasten, txikien bezala hartuko du Jainkoak bere erreinuan; betetzen duena edota betetzen irakasten duena, ordea, handitzat hartuko du Jainkoak bere erreinuan.
20. Hara zer diotsuedan: Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko Jainkoaren erreinuan.

21. Badakizue legean aurrekoei agindu zitzaiena: *Ez hil inor*; eta hiltzailea kondenatua izango da.
22. Nik, berriz, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena, kondenatua izango da; bere anaiari «zoroa» esaten diona, biltzarre nagusian kondenatua izango da, eta «eroa» esaten diona, infernuko sutara kondenatua izango da.
23. Beraz, aldarean zeure oparia eskaintzerakoan, zure senideak zure kontra zerbait baduela gogoratzen bazaizu,
24. Utzi oparia han, aldare aurrean, eta zoaz lehenbizi senidearekin bakeak egitera; itzuli gero zeure oparia eskaintzera.
25. Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, berarekin auzitegira zoazen bitartean; bestela, epailearen eskuetan jarriko zaitu eta epaileak ertzainaren eskuetan, eta kartzelara botako zaituzte.
26. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte.
27. Badakizue legean agindua: *Ez egin adulteriorik*.
28. Nik, berriz, hau diotsuet: Emakume ezkondu bati irrikaz begiratzen dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.
29. Eskuineko begia galbidea bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtikia izan baino.
30. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino.
31. Legeak beste hau ere agindua du: *Bere emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria*.
32. Nik, berriz, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legearen kontra elkartuak ez badira behintzat– adulteriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakume horrekin ezkontzen denak adulterioa egiten du.
33. Badakizue legean aurrekoei agindu zitzaien beste hau ere: *Ez egin gezurrezko zinik*, eta *Bete Jaunari egindako zinak*.
34. Nik, berriz, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, *ez zeruarengatik, Jainkoaren tronua* baita;
35. *Ez lurrarengatik, haren oinaulkia* baita; ezta Jerusalenengatik ere, *Errege handiaren hiria* baita.
36. Ez egin zinik zeure buruarengatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihur.
37. Esan ezazue «bai», bai denean, eta «ez», ez denean; gainerakoa gaiztoarengandik dator.
38. Badakizue legean agindua: *Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain*.
39. Nik, berriz, hau diotsuet: Gaizkileari ez gaizki erantzun; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere;
40. Soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere;
41. Norbaitek kilometro bat egitera behartzen bazaitu, egin bi berarekin.
42. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu.
43. Badakizue legean agindua: *Maitatu lagunurkoa* eta Gorrotatu etsaia.

44. Nik, berriz, hau diotsuet: Maitatu etsaiak eta egin otoitz jazartzen zaituztenen alde;

45. Horrela, zeruko zeuen Aitaren egiazko seme-alaba izango zarete, hark zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat isurtzen euria.

46. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute horrenbeste egiten?

47. Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten?

48. Izan zaitezte, bada, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala.

SEIGARREN KAPITULUA

Limosna.

Aita Gurea otoitza. Barau. Zeruan aberats.

Barneko argia. Jainkoa ala dirua. Zertaz arduratu.

1. Ez egin gero zeuen erlijio-betebeharrak jendaurrean, jendeak ikus zaitzaten; horrela, ez duzue saririk jasoko zeruko zeuen Aitarengandik.

2. Beraz, limosna egitean, ez ibili turuta joka, itxurazaleek sinagogetan eta kaleetan egin ohi duten bezala, jendearen txaloak irabazteko. Benetan diotsuet: Hartua dute euren ordaina.

3. Zuk limosna egitean, ez beza jakin zure ezkerrak zer egiten duen eskuinak;

4. Horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da, eta ezkutukoa ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

5. Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala: gogoko dute sinagoga eta plazetan zutik otoitz egitea, jendearen agerian. Benetan diotsuet: Hartua dute euren ordaina.

6. Zu, ordea, otoitz egiteko, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egin otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari, eta ezkutukoa ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

7. Otoitz egitean, ez ari esan eta esan, jentilek ohi duten bezala, uste baitute euren hizjarioari esker entzungo diela Jainkoak.

8. Ez izan horien antzeko, bai baitaki zuen Aitak zeren beharra duzuen, zuek eskatu baino lehen.

9. Zuek egizue otoitz honela: «Gure Aita zerukoa, agertu santu zeure izena,

10. Etorrarazi zeure erregetza; betearazi lurrean zeure nahia, zeruan betetzen den bezala.

11. Emaguzu gaur egun honetako ogia.

12. Eta barkatu gure erruen zorra, guk ere geure zordunei barkatu diegunez gero;

13. Ez utzi gu tentaldian erortzen, eta gorde gaitzazu gaiztoarengandik».

14. Izan ere, besteei euren huts egiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko Aitak;

15. Baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeuen huts egiteak zeruko Aitak.

16. Barau egitean, ez zaitezte ager kopetilun, itxurazaleek ohi duten bezala: aurpegia itsusten dute, jendeari barau egiten dutela azaltzeko. Benetan diotsuet: Hartua dute euren ordaina.

17. Zuk, ordea, barau egitean, igurtzi usain gozoz burua eta garbitu aurpegia,

18. Zure barauaz jendea ohar ez dadin, ezkutuan dagoen Aita baizik. Eta ezkutukoa ere ikusten duen zure Aitak emango dizu ordaina.

19. Ez pilatu mundu honetan zeuen aberastasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrak etortzen harrapatzera.

20. Pilatu zeruan zeuen aberastasunak, han ez baititu ez sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrak harrapatzera joaten re.

21. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han.

22. Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argitan ibiliko da.

23. Begia gaixo baduzu, ordea, zure gorputz osoa ilunbetan ibiliko da. Beraz, zeure barruan argi behar lukeena iluna bada, a zer ilunbea zurea!

24. Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maite, edota batari men egingo dio eta bestea begitan hartuko. Ezin zaitezkete Jainkoaren eta diruaren morroi izan.

25. Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edo edango, edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago?

26. Begira aireko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak elikatzen ditu. Ez ote duzue horiek baino askoz gehiago balio zuek?

27. Asko arduratu arren, zuetako nork luza lezake bizitza apurtxo bat ere?

28. Eta jantziaz, zertan kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean penatzen, ez dute iruten;

29. Baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen janzten horietako baten pare.

30. Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar sutan erreko den belarra Jainkoak horrela janzten badu, ez ote askoz gehiago zuek, sinesmen gutxikook?

31. Ez kezkatu, bada, pentsatuz: «Zer jango dugu, zer edango, zer jantziko?».

32. Fedegabeak arduratu ohi dira horretaz guztiaz; baina zeruko zuen Aitak badaki horren guztiaren beharra duzuena.

33. Ardura zaitezte, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak.

34. Ez arduratu, bada, biharko egunaz, biharkoak ere ekarriko baitu bere ardura. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhausteak.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

Ez gaitzetsi inor. Konfiantza otoitzetan.
Ate estua. Euren fruitutatik antzemango diezue.
Harkaitzaren gaineko etxea.

1. Ez gaitzetsi inor, Jainkoak ere ez zaitzaten gaitzets.

2. Izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak, eta zuek zein neurriz neurtu, neurri beraz neurtuko zaituzte Jainkoak.

3. Nola ikusten duzu senidearen begiko lasto izpia, eta zeure begiko hagaz ohartzen ez?

4. Eta nola esan diezaiokezu senideari: «Utzi begian daukazun lasto izpia ateratzen», zuk zeurean haga daukazula?

5. Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik haga, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto izpia ateratzeko.

6. Ez eman txakurrei gauza sakratuak, zeuen kontra itzuli eta zatika ez zaitzaten; ez bota txerriei zuen harribitxiak, hankapean erabil ez ditzaten.

7. Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue.

8. Zeren eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

9. Zuetako norbaitek, semeak ogia eskaturik, harria emango ote dio?

10. Edo, arraina eskaturik, sugea emango ote dio?

11. Beraz, zuek, gaiztoak izanik, seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez areago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei?

12. Honela, bada, besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia, egin zuek ere besteei: horretan datza Liburu Santuek irakatsia.

13. Sar zaitezte ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta askok dira hortik doazenak.

14. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak.

15. Kontuz sasiprofetekin! Ardi-larruz jantzirik badatozkizue ere, otso harrapari dira barrutik.

16. Euren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik edo gardutik pikurik?

17. Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra.

18. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik.

19. Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sutara botatzen da.

20. Beraz, euren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei.

21. Ez da aski niri «Jauna, Jauna!». esatea, Jainkoaren erreinuan sartzeko; zeruko nire Aitaren nahia egin behar da.

22. Epai-egunean askok esango didate: «Jauna, Jauna! Ez ote genuen zure izenean hitz egin eta zure izenean deabruak bota eta zure izenean mirari asko egin?».

23. Baina nik erantzungo diet: «Ez zaituztet inoiz ezagutu; alde niregandik, gaizkileok!».

24. Beraz, nire hitz hauek entzun eta betetzen dituena, etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zuhurraren antzekoa da.

25. Eurijasak izan ziren, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari eraso zioten; baina ez zen erori, oinarriak harkaitzean zituelako.

26. Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituena, ordea, etxea hondar gainean eraiki zuen gizon zentzugabearen antzekoa da.

27. Eurijasak izan ziren, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari eraso zioten; eta erori egin zen eta dena hondatua gelditu.

28. Jesusek hitzaldi hau amaitu zuenean, haren irakaspenez txunditurik gelditu zen jende guztia;

29. Nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez euren arteko lege-maisuek bezala.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

Jesusek legenduna sendatu.
Erromatar ehuntariaren sinesmena.
Jesusek Pedroren amaginarreba sendatu.
Gaixo asko sendatu. Jesusek ekaitza baretu.
Gadarako deabrudunak sendatu.

1. Jesus menditik jaitsi zenean, jende askok jarraitu zion.
2. Legendun bat hurbildu zitzaion eta, aurrean ahuspezturik, esan zion:
–Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu.
3. Orduan, Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez:
–Nahi dut, izan zaitez garbi.
Berehala, legena garbitu egin zitzaion.
4. Jesusek agindu zion:
–Kontuz gero! Ez esan inori. Zoaz, hala ere, azaldu apaizarengana eta eskaini Moisesek agindutako oparia zeure garbitasunaren ezaugarri.
5. Jesus Kafarnaun herrian sartu zenean, erromatar ehuntari bat hurbildu zitzaion, erreguka:
6. –Jauna, elbarri eta oinaze gorritan dut morroia etxean.
7. Jesusek esan zion:
–Neu joango naiz sendatzera.
8. Ehuntariak erantzun zion:
–Jauna, ni ez naiz inor zu nire etxean sartzeko; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko.
9. Neuk ere, menpekoa izanagatik, soldaduak ditut menpean, eta batari «Hoa» agintzen badiot joan egiten da, besteari «Hator» agindu eta etortzen da, eta morroiari «Egizak hori» esan eta hala egiten du.
10. Hura entzutean, Jesus harritu egin zen eta ondoren zetozkionei esan zien: «Benetan diotsuet: Israel osoan ez dut aurkitu horrelako sinestedunik.
11. Egia esan, asko etorriko dira sortalde eta sartaldetik, Abrahan, Isaak eta Jakobekin Jainkoaren erreinuko mahaikide izateko;
12. Erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpora, ilunbetara, botako ditu Jainkoak. Han izango dira negarra eta hortz karraska».
13. Ondoren, ehuntariari esan zion:
–Zoaz etxera, eta gerta bekizu sinetsi duzun bezala.
Eta ordu hartan bertan sendatua gertatu zen morroia.
14. Ondoren, Jesus Pedroren etxera joan zen, eta haren amaginarreba oheratua aurkitu zuen sukarrarekin.
15. Jesusek eskua hartu zion eta sukarrak alde egin; orduan, emakumea jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaion.

16. Arratsean, deabrudun asko eraman zizkioten Jesusi. Honek deabrudunak bere hitzez bota eta gaixo guztiak sendatu zituen.

17. Horrela bete zen Jainkoak Isaias profetaren bidez esana:

Hark gure ahuleriak hartu zituen bere gain, gure gaitzen zama jasan.

18. Bere inguruan jendetza handia ikusirik, bestaldeko laku ertzera igarotzeko agindu zuen Jesusek.

19. Orduan, lege-maisu bat hurreratu zitzaion, esanez:

–Maisu, noranahi jarraituko dizut.

20. Jesusek esan zion:

–Azeriek badituzte zuloak eta aireko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri.

21. Beste batek, ikasleetakoa zenak, esan zion:

–Jauna, uztazu lehenbizi aitaren hiletak egitera joaten.

22. Baina Jesusek erantzun:

–Jarraitu niri, eta utzi hilei beren hildakoen hiletak egiten.

23. Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu egin zioten.

24. Bat-batean, ekaitz gogorra sortu zen lakuan, eta uhinek txalupa ia azpian hartua zuten. Jesus, berriz, lo zegoen.

25. Ikasleek hurbildu eta esnatu egin zuten, esanez:

–Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!

26. Hark esan zien:

–Zergatik zarete hain beldur, sinesmen gutxikook?

Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta lakuari, eta dena bare-bare gelditu zen.

27. Ikasleek, harriturik, honela zioten: «Nor ote dugu gizon hau, esana egiten baitiote haizeak eta lakuak ere?»

28. Jesus lakuaz bestaldera, gadaratarren lurraldera iritsi zenean, bi deabrudun atera zitzaizkion hilobi artetik bidera. Hain ziren gaiztoak, inor ez zen ausartzen bide hartatik ibiltzen.

29. Eta deiadarka hasi zitzaizkion:

–Zer duzu gurekin, Jainkoaren Seme horrek? Garaia baino lehen guri oinaze ematera etorri al zara hona?

30. Handik urrutira gabe, txerritalde handi bat zebilen uxarrean.

31. Deabruek Jesusi eskatu zioten:

–Botatzekotan, bidal gaitzazu txerritaldera.

32. Jesusek esan zien:

–Zoazte.

Haiek irten eta txerrietan sartu ziren, eta txerritalde osoa ezpondan behera lakura amildu zen, eta denak uretan galdu.

33. Txerrizainek ihes egin zuten eta, herrira joanik, dena kontatu zuten, baita deabrudunena ere.

34. Orduan, herri guztia Jesusengana atera zen eta, ikusi zutenean, euren lur mugetatik alde egiteko eskatu zioten.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Jesusek elbarria sendatu. Mateori deia.
Odoljarioa zuen emakumea eta buruzagiaren alaba.
Jesusek bi itsu eta mutu debruduna sendatu.
Uzta ugaria da, baina langileak gutxi.

1. Jesus txalupara igo, lakuaz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen.

2. Elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, elbarriari esan zion:

–Izan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak.

3. Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten berekiko: «Biraoka ari duk hau».

4. Haien gogoetak igarririk, Jesusek esan zien:

–Zergatik dituzue gogoeta gaizto horiek zeuen baitan?

5. Zer da errazago, «Barkatuak dituzu bekatuak» esatea ala «Jaiki eta zabiltza» esatea?

6. Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta elbarriari esan zion:

–Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera.

7. Hura jaiki eta etxera joan zen.

8. Hau ikustean, beldurrak jota gelditu zen jendea eta Jainkoa goresten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

9. Jesusek, handik atera eta bidez zihoala, Mateo zeritzon gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseria, eta esan zion:

–Jarraitu niri.

Mateok, zutiturik, jarraitu egin zion.

10. Geroago, Mateoren etxean zegoen Jesus mahaian; bazen beste zergalari eta bekatari asko ere Jesusekin eta haren ikasleekin batera mahaian.

11. Fariseuek, hori ikustean, ikasleei esan zieten:

–Nolatan jaten du zuen maisuak zergalari eta bekatariekin?

12. Jesusek entzun eta esan zien:

–Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik.

13. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: *Nahiago dut errukia sakrifizioak baino.* Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik.

14. Orduan, Joan Bataiatzailearen ikasleek Jesusengana joan eta esan zioten:

–Nolaz egiten dugu fariseuek eta guk hainbeste barau, eta zure ikasleek ez?

15. Jesusek erantzun zien:

–Ezteietara deituak egon ote daitezke goibel, senarberria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senarberria kenduko dieten eguna; orduan egingo dute barau.

16. Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta zarratada handiagoa egingo bailuke.

17. Zahagi zaharretan ere ez da ardo berririk sartzen; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak galdu. Ez! Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta batak eta besteak irauten dute.

18. Jesus hala ari zitzaiela, buruzagietako bat etorri zitzaien eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da».

19. Jesus jaiki zen eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin.

20. Orduan, hamabi urte hartan odoljarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko ertza ukitu zion;

21. Honela baitzioen berekiko: «Jantzia ukitzen badiot, besterik gabe sendatuko naiz».

22. Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, ene alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta une hartatik sendatua gelditu zen.

23. Buruzagiaren etxera heldu eta hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, Jesusek esan zien:

24. «Alde hemendik! Neskatxa ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egin zioten.

25. Jendea kanpora bidali zutenean, Jesus sartu, eta neskatxari eskutik heldu zion, eta neskatxa altxatu egin zen.

26. Eskualde osoan zabaldu zen gertatuaren berri.

27. Jesus handik atera zenean, bi itsuk deiadarka jarraitu zioten: «Dabiden Semea, erruki zakizkigu!».

28. Etxeratu zenean, itsuak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien:

–Sinesten al duzue hori egin dezakedana?

–Bai, Jauna –erantzun zioten.

29. Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez:

–Gerta bekizue sinetsi duzuen bezala.

30. Eta begiak zabaldu zitzaizkien. Jesusek zorrotz agindu zien:

–Kontuz gero! Ez dezala inork ere jakin!

31. Haiek, ordea, atera orduko, eskualde osoan zabaldu zuten Jesusen berri.

32. Itsuak atera orduko, deabruaren menpe zegoen mutu bat ekarri zioten Jesusi.

33. Jesusek deabrua bota egin zuen, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak harriturik zioen: «Ez da Israelen egundaino horrelakorik ikusi!».

34. Fariseuek, berriz, zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

35. Jesus herri eta auzo guztietan barrena ibili zen, sinagogetan irakasten. Jainkoaren erregetzaren berri ona hots egiten zuen eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen.

36. Jendetza ikustean, Jesus errukitu egin zitzaien, nekatuak eta lur jota baitzeuden, artzain gabeko ardiak bezala.

37. Orduan, bere ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi.

38. Erregutu, bada, uztajabeari bidal ditzala langileak bere uztara».

HAMARGARREN KAPITULUA

Hamabi apostoluak izendatu eta hamabiak bidali.
Erasoaldiak izango. Nori izan beldur.
Jesusek banaketa sortu. Ongi etorri egin.

1. Jesusek, bere hamabi ikasleei dei eginik, ahalmen eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko.

2. Hona hemen hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon –Pedro deitua– eta haren anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta haren anaia Joan;

3. Felipe eta Bartolome; Tomas eta Mateo, zergalaria; Santiago Alfeorena eta Tadeo;

4. Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

5. Hamabiok bidali zituen Jesusek, oharpen hauek eginez:

–Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samaria herrialdean ere,

6. Baizik eta joan Israel herriko ardi galduengana.

7. Bidez zoaztela, hots egin Jainkoaren erregetza gainean dela.

8. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legendunak, bota deabruak. Doan hartu duzue, eman doan.

9. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan.

10. Ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen janaria.

11. Edozein herri edo auzotara iristen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzako inor zuek etxean hartzeko, eta geldi zaitezte harenean herri hartatik atera arte.

12. Etxe batean sartzean, esan: «Bakea zuekin».

13. Etxekoak duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, gal bedi hutsean zuen agurra.

14. Onartzen ez bazaituztete eta zuen mezua entzun nahi ez, etxe edo herri hartatik ateratzean, astindu zuen oinetako hautsa.

15. Benetan diotsuet: Auzi-egunean, Sodomak eta Gomorrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino.

16. Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo.

17. Kontuz jendearekin! Auzitegi eta sinagogetara eramango zaituztete eta zigortu egingo.

18. Agintari eta erregeen aurrera eramango zituztete niregatik, eta aitorpen egingo duzue, haien eta jentilen aurrean.

19. Eramango zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan.

20. Ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren espiritua mintzatuko da zuen bidez.

21. Anaiak anaia eramango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte.

22. Mundu osoak gorroto izango dizue niregatik; baina azkeneraino sendo irauten duena, horixe izango da salbatua.

23. Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko.

24. Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehiago.

25. Aski du ikasleak irakaslea adina izatea, eta morroiak nagusia adina. Etxejaunari Beeltzebul esan badiote, zer ez ote esango haren etxekoei?

26. Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ezta ere ezer ezkutuan jakingo ez denik.

27. Gau-ilunez esaten dizuedana, esan zuek egunargiz; eta belarrira entzuten duzuena, hots egin etxe-gainetatik.

28. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia hondatu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ezezik, pertsona osoa infernuan honda dezakeenari.

29. Ez ote dira bi txori sos batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe.

30. Zuen buruko ileak ere denak zenbautak dauzka Jainkoak.

31. Ez izan, bada, beldur: zuek txori guztiek baino gehiago balio duzue.

32. Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut nik ere Aita zerukoaren aurrean.

33. Baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut nik ere zeruko Aitaren aurrean.

34. Ez pentsa munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baina banaketa ekartzera etorria naiz.

35. Bai, *semea aitarengandik, alaba amarengandik eta erraina amaginarrebagandik* banatzera etorri naiz.

36. Eta *nork bere etxekoak izango ditu etsai*.

37. Aita nahiz ama ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba ni baino maiteago duena ez da niretzat gai.

38. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai.

39. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia niregatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

40. Zuek onartzen zaituztenak neu onartzen nau, eta ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du.

41. Profeta bat profeta delako onartzen duenak profetari zor zaion saria jasoko du; eta gizon zuzen bat zuzena delako onartzen duenak gizon zuzenari zor zaion saria jasoko du.

42. Eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, ontzixka bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko.

HAMAIKAGARREN KAPITULUA

Joan Bataiatzailearen galdera.
Jesusek Galileako herriak madarikatu.
Ebanjelioa jende xumeari agertua.
Aita eta Semea. Zatozte niregana.

1. Jesus, bere hamabi ikasleei argibide hauek ematen aimaitu zuenean, joan egin zen handik, herriz herri irakastera eta mezua hots egitera.

2. Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzera:

3. –Zu al zara «Etortzekoa», ala besteren baten zain egon behar dugu?

4. Jesusek erantzun zien:

–Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuena:

5. Itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira, eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berri ona ematen zaie.

6. Eta zoriontsua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!

7. Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari:

–Zer ikustera irten zineten basamortura? Haizeak kulunka dabilen kanabera?

8. Zer ikustera irten zineten bestela? Soineko apainez jantzitako gizona? Jantzi apainekoak errege-jauregietan bizi ohi dira.

9. Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa.

10. Hartaz dago idatzia Liburu Santuan: *Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik; hark prestatuko dizu aurretik bidea.*

11. Benetan diotsuet: Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik; hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da.

12. Joan Bataiatzailea agertu zenetik gaurdaino Jainkoaren erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute.

13. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien epea Joan Bataiatzailearekin bukatzen da.

14. Joan hau duzue, nahi baduzue onartu, etortzekoa zen Elias.

15. Ulertzeko gauza denak uler beza!

16. Norekin konparatuko dut oraingo gizaldi hau? Plazan eserita dauden mutikoen antzekoa da, honela ari baitzaizkio elkarri:

17. «Txistua jo dizuegu eta zuek dantzarik ez; hiletak jo eta zuek aienerik ez».

18. Etorri zen Joan, ez jan eta ez edan egiten ez zuela, eta burutik egina dagoela diote.

19. Etorri da Gizonaren Semea, jan-edan egiten duela, eta honela diote: «A zer tripazain eta mozkorra, zergalari eta bekatarien laguna!». Baina egiteek aitortzen dute Jainkoaren jakinduria zuzena dela.

20. Gero, miraririk gehienak egin zitueneko herriak madarikatzen hasi zen Jesus, ez zirelako bihozberritu.

21. Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan adina mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihozberrituak ziratekeen, dolujantziz eta hautsez estalirik.

22. Horregatik, hona nik esan: Auzi-egunean, Tirok eta Sidonek zigor bigunagoa izango dute zuek baino.

23. Eta zu, Kafarnaun,

zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barreneraino eroriko zara!

Izan ere, zuregan adina mirari gertatu izan balitz Sodoman, oraindik gaur zutik iraungo zukeen.

24. Horregatik, hona nik esan: Auzi-egunean, Sodomak zigor bigunagoa izango du zuk baino.

25. Behin batean, Jesus honela mintzatu zen:

–Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu.

26. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko.

27. Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere inork ezagutzen, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak.

28. Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atseden.

29. Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena.

30. Eraman erraza baita nire uztarria eta arina nire zama.

HAMABIGARREN KAPITULUA

Jaiegunari buruzko eztabaida.
Elbarria larunbatez sendatua.
Jesus eta Beeltzebul. Zuhaitza eta fruitua.
Espiritu gaiztoaren itzulera.
Jesusen egiazko familia.

1. Behin batean, larunbatez, Jesus galsoro batean zehar zihoan. Ikasleak goseak zeuden, eta galburuak hartu eta jaten hasi ziren.

2. Hori ikustean, fariseuek Jesusi esan zioten:

–Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak.

3. Hark erantzun zien:

–Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Dabidek, bera eta bere lagunak goseak zeudenean?

4. Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, legez ez berak eta ez bere lagunek, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaketenak?

5. Eta ez al duzue Liburu Santuetan irakurri apaizek tenpluan larunbatero atseden-legea hausten dutela, horregatik errudun izan gabe?

6. Bada, nik diotsuet: Bada hemen tenplua baino gehiago den bat.

7. Ulertu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: *Nahiago dut errukia sakrifizioak baino*, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko.

8. Zeren larunbataren nagusi baita Gizonaren Semea.

9. Handik alde egin eta sinagogara joan zen Jesus.

10. Bazen han besoa elbarri zeukan gizon bat. Fariseuek, zertan salatuko, galdetu zioten:

–Zilegi al da larunbatez inor sendatzea?

11. Jesusek erantzun zie:

–Zuetako zeinek, ardi bakarra eduki eta larunbatez zulora erortzen bazaio, ez du hartuko eta aterako?

12. Eta zenbatez ez da gehiago gizakia ardia baino! Legezko da, beraz, larunbatez on egitea.

13. Orduan, gizonari esan zion:

–Luzatu beso hori.

Hark luzatu, eta sendaturik gelditu zitzaion, bestea bezain ongi.

14. Handik atera zirenean, fariseuek elkar hartu zuten Jesusen aurka, nola hilko.

15. Horretaz jabeturik, Jesus handik joan zen. Jende askok jarraitu zion, eta hark denak sendatu zituen,

16. Bera nor ze inori ez esateko aginduz.

17. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen:

18. *Hona hemen nire zerbitzaria, nik hautatua, nire maitea, atsegin dudana. Beronen gain ezarriko dut neure espiritua: nazioei justizia iragarriko die.*

19. *Ez du haserrerik sortuko, ez du oihu egingo, ez da kaleetan haren mintzoa entzungo.*

20. *Kanabera printzatua ez du hautsiko, ahulduriko argi-metxa ez du itzaliko, justizia nagusi ezar dezan arte.*

21. *Bera izango dute itxaropen nazioek.*

22. Orduan deabruaren menpe zegoen gizon bat eraman zioten Jesusi, itsua eta mutua. Hark sendatu egin zuen eta gizona hitz egiten eta ikusten hasi zen.

23. Jende guztiak, harriturik, zioen: «Ea Dabiden Semea dugun hau!».

24. Fariseuek, ordea, hori entzutean, esan zuten:

–Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak.

25. Jesusek euren gogoetak igarri zizkien eta esan zien:

–Bere baitan zatiturik dagoen erreinua errauts bihurtuko da. Bere baitan zatiturik dagoen herri edo familiak ez du iraungo.

26. Beraz, Satanasek Satanas botatzen badu, zatiturik dago eta bere buruaren aurka ari da; nola iraun dezake haren erreinuak?

27. Eta nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile.

28. Deabruak Jainkoaren espirituaren indarrez botatzen baditut, ordea, argi dago Jainkoa zuen artean errege izaten hasia dela.

29. Izan ere, nola sar daiteke inor indartsu baten etxera lapurretara, aldez aurretik hura lotzen ez badu? Orduan bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak.

30. Nire alde ez dagoena nire aurka dago, eta nirekin biltzen ez duena sakabanatzen ari da.

31. Horregatik diotsuet: Bekatu eta birao oro barkatuko dio Jainkoak gizakiari, baina Espiritu Santuaren kontrako biraorik ez dio barkatuko.

32. Norbaitek Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten badu, barkatuko dio Jainkoak; baina Espiritu Santuaren aurka hitz egiten duenak ez du barkamenik izango, ez mundu honetan eta ez datorrenean.

33. Emazue zuhaitza ona dela: fruitua ere ona izango da. Edota zuhaitza txarra dela: fruitua ere txarra izango da. Zuhaitza fruitutik ezagutzen da.

34. Sugekumeok! Nola esan zenezakete gauza onik, zeuek gaiztoak izanik? Ahoak esan, bihotzari gainezka dariona esaten baitu.

35. Ona denak, bere ontasun-altxorretik, ona ateratzen du; eta gaiztoak, bere gaiztakeri altxorretik, gaitza.

36. Hona nik esan: Bakoitzak esan dituen alferreko hitz guztien kontu eman beharko du auzi-egunean.

37. Zeren zeuen hitzen arabera zuzenetsiko baitzaituzte Jainkoak, eta zeuen hitzen arabera gaitzetsiko.

38. Lege-maisu eta fariseu batzuk honela hasi zitzaizkion Jesusi:

–Maisu, zuk egindako mirarizko seinaleren bat ikusi nahi genuke.

39. Jesusek erantzun zien:

–Seinale eske ari da gizaldi gaizto eta desleial hau, baina ez zaio seinalerik emango, Jonas profetarena besterik.

40. Zeren, *Jonasek arrainaren sabelean hiru egun eta hiru gau egin zituen* bezala, hala egingo ditu Gizonaren Semeak ere hiru egun eta hiru gau lurraren barruan.

41. Ninibetarrek auzi-egunean gizaldi honen kontra altxatu eta kondenatu egingo dute, eurak bihozberritu egin baitziren Jonasen predikuz, eta baduzue hemen Jonas baino handiago den bat.

42. Hegoaldeko erreginak ere auzi-egunean gizaldi honen kontra altxatu eta kondenatu egingo du, munduaren bazterretik etorri baitzen Salomonen jakinduriazko hitzak entzutera, eta baduzue hemen Salomon baino handiago den bat.

43. Espiritu gaiztoa, norbaitengandik irten ondoren, leku idorretan barrena ibili ohi da atseden bila; baina, aurkitzen ez duelarik,

44. Bere buruari esaten dio: «Noan berriro, atera nintzeneko neure etxera». Iristean, etxea hutsik, garbitua eta apaindua aurkitzen du.

45. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu berekin, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen; horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da. Gauza bera gertatuko zaio gizaldi gaizto honi ere».

46. Oraindik Jesus jendeari hitz egiten ari zela, haren ama eta anai-arrebak azaldu ziren kanpoan, berarekin hitz egin nahian.

47. Batek esan zion:

–Adizu, ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zurekin hitz egin nahian.

48. Jesusek, berriz, erantzun zion:

–Nor da nire ama eta nortzuk nire anai-arrebak?

49. Eta, bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen:

–Hauek ditut nik ama eta anai-arreba.

50. Izan ere, zeruko nire Aitaren nahia egiten duena, horixe dut nik anaia, arreba eta ama.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

Jesusek parabolaz predikatu. Ereilearen parabola.
Gari arteko ologaiztoaren parabola.
Mostaza haziaren eta legamiaren parabolak.
Altxorraren eta harribitxiaren parabolak.
Sarearen parabola. Jesus bere jaioterrian gaitzetsia.

1. Egun batez, Jesus etxetik atera eta laku ertzean eseri zen.

2. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, txalupa batera igo eta eseri egin zen. Jendetaldea, berriz, hondartzan zegoen.

3. Eta luze hitz egin zien parabola bidez: «Ereilea behin hazia ereitera atera zen.

4. Ereitean, zenbait ale bide bazterrean erori zen, eta txoriak etorri, eta jan egin zuten.

5. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian, eta axaleko lurra izanik, berehala erne zen;

6. Baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

7. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiek, haztean, ito egin zuten hazia.

8. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun edo hirurogei edo hogeita hamar.

9. Ulertzeko gauza denak uler beza».

10. Ikasleak Jesusi ondoratu zitzaizkion eta galdegin zioten:

–Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez?

11. Jesusek erantzun zien:

–Zuei eman zaizue Jainkoaren erregetzaren misterioak ezagutzea; horiei, ordea, ez.

12. Izan ere, daukanari eman egingo zaio, eta gainezka edukiko du; ez daukanari, ordea, daukan apurra ere kendu egingo zaio.

13. Hona zergatik hitz egiten diedan parabola bidez: begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina ez aditzen, ez ulertzen ez dutelako.

14. Horrela, Isaias profetak esana betetzen da horiengan:

Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, bai, baina ohartu ez.

15. *Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu belarriak, itsutu begiak. Ez bezate euren begiez ikus, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere, horrela niregana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan.*

16. Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako!

17. Benetan diotsuet: Profeta eta gizon santu askok ikusi nahi izan zuten zuek ikusten duzuena, baina ez zuten ikusi, eta entzun nahi zuek entzuten duzuena, baina ez zuten entzun.

18. Entzun ezazue, beraz, ereilearen parabolaren esanahia.

19. Erregetzaren mezua entzun bai, baina ulertzen ez duenari, gaiztoa etortzen zaio eta bihotzean erein zaiona kendu egiten dio. Hori da, mezua «bide bazterrak» hazia bezala hartzen duena.

20. «Harri arteak» bezala hartzen duena hauxe da: mezua entzutean, berehala pozik onartzen duena;

21. Baina sustrairik gabea eta iraupen gutxikoa izanik, mezua dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, erori egiten da.

22. «Sasi-arteak» bezala hartzen duena hauxe da: mezua entzun bai, baina bizitza honetako ardurak eta diru goseak mezua ito egiten diotena, fruiturik gabe utziz.

23. «Lur onak» bezala hartzen duena hauxe da: mezua entzun eta ulertzen duena; honek fruitua ematen du: bateko ehun edo hirurogei edo hogeita hamar.

24. Jesusek beste parabola bat proposatu zien: «Jainkoaren erregetzarekin, gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da.

25. Etxeko denak lo zeudela, etsaiak soroan sartu, eta gari artean ologaiztoa erein zuen eta alde egin.

26. Garia hazi eta burutu zenean, ologaiztoa ere agertu zen.

27. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiari esatera: "Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik du, bada, ologaiztoa?"

28. Hark erantzun zien: "Etsaiaren lana da hori". Eta morroiek: "Joango al gara ologaiztoa biltzera?"

29. Baina nagusiak: "Ez, ez dadila gerta ologaiztoa biltzean garia ere ateratzea.

30. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi bitartean; orduan, igitariei esango diet: "Bildu lehenik ologaiztoa, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora"».

31. Jesusek beste parabola hau kontatu zien: «Jainkoaren erregetza gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da.

32. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriak etorri, eta adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza».

33. Beste parabola bat ere esan zien: «Jainkoaren erregetza legamiaren antzekoa da: emakume batek anega bat irinetan nahasten du, eta oraldi guzia harrotzen da».

34. Irakaspen hauek guztiak parabola bidez eman zizkion Jesusek jendeari, eta ez zien ezer irakasten parabolaz izan ezik.

35. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana:

Parabola bidez mintzatuko naiz, munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko.

36. Jesusek jendetza agurtu zuen eta etxeratu egin zen. Orduan ikasleak hurbildu zitzaizkion eta eskatu zioten:

–Argi iezaguzu soroko ologaiztoaren parabola.

37. Jesusek esan zien:

–Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da.

38. Soroa, mundua; hazi ona Jainkoaren erreinuko seme-alabak dira; ologaiztoa, berriz, gaiztoarenak.

39. Ologaiztoa ereiten duen etsaia deabrua da; uzta, munduaren azkena; eta uztabiltzaileak, aingeruak.

40. Ologaiztoa bildu eta sutan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere:

41. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereiziko dituzte gaizkileak eta besteentzat gaizpide gertatzen direnak.

42. Eta su labera botako. Han izango da negarra eta hortz karraska!

43. Orduan, zintzoek eguzkiak bezala distira egingo dute beren Aitaren erreinuan. Ulertzeko gauza denak uler beza.

44. Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutaturik dagoen altxorrarekin bezala gertatzen da. Norbaitek aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta pozaren pozez joan, dauzkan guztiak saldu eta landa hura erosten du.

45. Era berean, Jainkoaren erregetzarekin, harribitxi bila dabilen tratulariarekin bezala gertatzen da.

46. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta hura erosten du.

47. Jainkoaren erregetzarekin, uretara botatzen den eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da.

48. Betea denean, bazterrera ateratzen dute; gero, eseri eta onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen.

49. Berdin izango da munduaren azkenean: aingeruak etorri, eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte.

50. Eta su labera botako. Han izango da negarra eta hortz karraska!

51. Jesusek ikasleei galdetu zien:

–Ulertu al duzue hau guztia?

–Bai –erantzun zioten.

52. Hark esan zien:

–Beraz, Jainkoaren erregetzaren jakinduriaz jantzia dagoen lege-maisua, bere altxorretik zahar eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da.

53. Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

54. Bere herrira heldurik, sinagogan irakasten hasi zitzaien. Jendeak, harriturik, honela zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek?

55. Ez al da, bada, arotzaren semea? Honen amak ez ote du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas?

56. Eta honen arrebak ez ote dira denak gure artean bizi? Nondik du, beraz, hori guztia?».

57. Eta honengatik, ezin zuten harengan sinetsi. Jesusek esan zien: «Profeta bati edonon ematen zaio ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

58. Eta ez zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

HAMALAUGARREN KAPITULUA

Herodesek Joan Bataiatzailea hilarazi.
Bost ogien miraria. Jesus ur gainean oinez.
Sendaketak Genesaret aldean.

1. Garai hartan, Herodes Galileako gobernariak Jesusen berri jakin zuen.

2. Eta bere zerbitzariei esan zien: «Joan Bataiatzailea da! Hilen artetik piztu da, eta horregatik dauka mirariak egiteko ahalmen hori».

3. Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta loturik kartzelan sartua zeukan, Herodias zela eta. Herodias Herodesen anaia Feliperen emaztea zen.

4. Honela esaten baitzion Joanek Herodesi: «Ez zaizu zilegi Herodias emaztetzat edukitzea».

5. Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, Joan profetatzat baitzeukaten denek.

6. Baina Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen mahaikideen aurrean, eta Herodesi atsegin izan zitzaion.

7. Hargatik, zin eginez agindu zion neskatxari eskatu ahala guztia emango ziola.

8. Neskatxak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpil batean».

9. Erregea goibel jarri zen, baina, mahaikideen aurrean egindako zinarengatik, eskatua emateko agindu zuen.

10. Eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan.

11. Burua azpilean ekarri, eta neskatxari eman zioten, eta hark amari.

12. Joanen ikasleak haren gorpua jasotzera etorri ziren eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

13. Horren berri jakitean, Jesus bazter batera joan zen bakarrik txalupaz. Baina jendea ohartu egin zen eta, herrietatik irtenik, oinez jarraitu zioten.

14. Txalupatik jaitsi zenean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen eta, errukiturik, gaixoak sendatu zizkien.

15. Ilunabarrean, ikasleak hurbildu, eta esan zioten:

–Toki hau oso urruti dago eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu, bada, jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan.

16. Baina Jesusek erantzun zien:

–Ez dute zertan joanik; eman zeuek jaten.

17. Haiek, orduan:

–Ez daukagu hemen bost ogi eta bi arrain besterik.

18. Eta Jesusek:

–Ekarri hona.

19. Jendeari zelaian esertzeko agindu ondoren, bost ogiak eta bi arrainak hartu zituen eta, begiak zerura jasorik, bedeinkazioa esan, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari.

20. Denek asetzeraino jan zuten, eta gelditutako hondarrekin hamabi saski bete zituzten.

21. Bost mila gizon inguru izan ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

22. Berehala, Jesusek ikasleak txalupan sarrarazi zituen eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean.

23. Jendeari agur egin ondoren, mendira igo zen, bakardadean otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik.

24. Txalupa ordurako lehorretik urruti zihoan, uhinek astindurik, haizea kontra baitzuen.

25. Goizaldean, Jesus ikasleengana joan zen ur gainean oinez.

26. Lakuan ibiltzen ikusi zutenean, ikasleak izutu egin ziren, mamuren bat zelakoan; eta beldurraren beldurrez oihuka hasi ziren.

27. Baina Jesusek berehala hitz egin zien eta esan:

–Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu!

28. Orduan, Pedrok esan zion:

–Jauna, benetan zeu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko.

29. Jesusek erantzun zion:

–Zatoz.

Pedro txalupatik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez.

30. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, hondoratzen hasita, deiadar egin zuen:

–Jauna, salba nazazu!

31. Jesusek eskua luzatu eta heldu egin zion, esanez:

–Sinesmen gutxiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?

32. Txalupara igo zirenean, haizea baretu egin zen.

33. Eta txalupan zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez:

–Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!

34. Lakua igaro ondoren, Genesaret lurraldera iritsi ziren.

35. Bertakoek, Jesus ezagutu zutelarik, inguruko lurralde guztian zabaldu zuten berria, eta gaixo guztiak ekarri zizkioten.

36. Soineko ertza behintzat ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendatzen ziren.

HAMABOSGARREN KAPITULUA

Juduen usadioak eta Jainkoaren nahia.

Zerk kutsatzen duen gizakia.

Jesusek emakume kanaandarraren alaba sendatu.

Gaixo asko sendatu. Jesusek jendetzari bigarrenez jaten eman.

1. Jerusalendik etorritako zenbait fariseu eta lege-maisu Jesusi hurbildu zitzaizkion eta galdetu zioten:

2. –Zergatik hausten dute zure ikasleek zaharren ohitura? Ez dute otordu aurretik eskuen garbikuntza egiten.

3. Jesusek erantzun zien:

–Eta zuek zergatik hausten duzue Jainkoaren agindua zeuen usadioengatik?

4. Esate baterako, Jainkoak esan zizuen: *Oboratu aitamak*, eta: *Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du.*

5. Zuek, ordea, beste hau diozue: Norbaitek aitari edo amari esaten badio «Zuri eman behar nizukeena Jainkoari eskainia diot»,

6. Halakoak ez duela aitarekiko agindu hori bete beharrik; horrela, Jainkoaren hitza baliogabe uzten duzue, zeuen usadioengatik.

7. Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen Isaias profetak zuetaz:

8. *Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina niregandik urrun du bihotza;*

9. *Alferrik naute gurtzen; hauen irakaspena giza agindu hutsa.*

10. Jesusek jendeari dei egin eta esan zion: «Entzun eta ulertu ongi!

11. Gizakia ez du ahotik sartzen zaionak kutsatzen; ahotik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

12. Orduan ikasleak ondoratu zitzaizkion eta esan zioten:

–Ba al dakizu hitz horiekin fariseuak sumindurik utzi dituzuna?

13. Jesusek erantzun zien:

–Zeruko nire Aitak landatu ez duen landare oro sustraitik aterako dute.

14. Utz itzazue! Itsu dira, eta itsu-gidari. Eta itsuaren gidaria itsua bada, biak zulora eroriko dira.

15. Pedrok eskatu zion:

–Adieraziguzu esanahia.

16. Jesusek erantzun:

–Zuek ere ez duzue oraindik ulertzen?

17. Ez al duzue ikusten ahotik sartzen den guztia sabelera joaten dela eta handik komunzulora?

18. Ahotik ateratzen dena, berriz, bihotz barrutik dator, eta horrek bai egiten duela gizakia zikin!

19. Izan ere, bihotzetik ateratzen dira asmo txarrak, hilketak, adulterioa, lizunkeria, lapurretak, gezurrezko testigantzak, irainak.

20. Horiek dira gizakia kutsatzen dutenak; baina eskuak garbitu gabe otordua egiteak ez du gizakia kutsatzen.

21. Handik irtenik, Tiro eta Sidon aldera aldendu zen Jesus.

22. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion:

–Erruki zakizkit, Jauna, Dabiden Semea! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba.

23. Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Bere ikasleek, ondoraturik, eskatu zioten:

–Kasu egiozu, deiadarka baitatorkigu atzetik.

24. Jesusek, ordea:

–Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak.

25. Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez:

–Lagun nazazu, Jauna.

26. Jesusek orduan:

–Ez dago ongi seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea.

27. Emakumeak erantzun zion:

–Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak.

28. Orduan, Jesusek esan zion:

–Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzuna!

Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

29. Jesus handik atera eta Galileako laku bazterrera joan zen. Mendira igo eta eseri egin zen.

30. Jendetza handia bildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko berekin zituztela. Ondoan ipintzen zizkioten eta Jesusek sendatu egiten zituen.

31. Denak harriturik geratu ziren ikusten zutenaz: mutuak hizketan, elbarriak sendaturik, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goresten hasi ziren.

32. Jesusek bere ikasleei dei egin eta esan zien:

–Errukia ematen dit jende honek: badaramatzate hiru egun nirekin eta ez daukate deus ere jateko. Eta ez ditut etxera baraurik bidali nahi, ahuleziak joko bailituzke bidean.

33. Ikasleek esan zioten:

–Baina nondik atera guk bakardade honetan, hainbat jende asetzeko adina ogi?

34. Jesusek galdetu zien:

–Zenbat ogi dauzkazue?

–Zazpi eta arraintxo banaka batzuk –erantzun zioten.

35. Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion.

36. Gero, zazpi ogiak eta arrainak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari.

37. Denek asetu arte jan zuten, eta zazpi otarre bete zituzten hondarrekin.

38. Lau mila gizon izan ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

39. Gero, jendeari agur egin ondoren, Jesus txalupara igo eta Magadan lurraldera joan zen.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

Fariseu eta saduzearrak nahasirik.

Fariseuen eta saduzearren legamia.

Pedrok Jesus Mesiastzat aitortu.

Jesusek bere nekaldi-piztuerak lehenengoz iragarri.

1. Fariseuak eta saduzearrak Jesusengana etorri ziren eta Jainkoagandiko seinale bat erakusteko eskatu zioten azpikeriaz, bera nola harrapatuko.

2. Baina Jesusek erantzun zien:

–Ilunabarrean, esan ohi duzue: «Arrats gorri, bihar eguzki».

3. Eta goizean: «Goiz gorri, arrats euri». Badakizue zeruaren itxurari igartzen, eta ez zarete gauza garai hauen seinaleei igartzeko.

4. Seinale eske ari da gizaldi gaizto eta desleial hau! Baina ez zaio emango seinalerik, Jonas profetarena besterik.

Eta, haiek bertan utzirik, alde egin zuen.

5. Itsasoaz bestaldera igarotzean, ikasleak ogia hartzea ahaztu zitzaiela konturatu ziren.

6. Jesusek esan zien: «Begira gero! Ibili kontuz fariseuen eta saduzearren legamiarekin!».

7. Haiek, berriz, honela zioten euren artean: «Ogirik hartu ez dugulako ari zaiguk».

8. Jesus konturatu zen eta esan zien: «Zer ari zarete zeuen artean ogirik ez daukazuela eta, sinesmen gutxikook?

9. Ez al duzue oraindik ulertzen? Ez al duzue gogoan bost mila gizonen artean banatutako bost ogiena, eta zenbat saski bete zenituzten?

10. Eta lau mila gizonen artean banatutako zazpi ogiena, eta zenbat otarre bete zenituzten?

11. Nola ez duzue ulertzen ez natzaizuela ogiei buruz ari? Kontuz fariseuen eta saduzearren legamiarekin!».

12. Orduan jabetu ziren ez ziela esan ogi-legamiarekin kontuz ibiltzeko, fariseu eta saduzearren irakaspenekin baizik.

13. Feliperen Zesareara iritsi zenean, Jesusek galdera hau egin zien bere ikasleei:

–Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?

14. Haiek erantzun zioten:

–Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat.

15. Jesusek galdetu zien:

–Eta zuek, nor naizela diozue?

16. Simon Pedrok erantzun zion:

–Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea.

17. Orduan, Jesusek esan zion:

–Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik.

18. Eta nik hau diotsut: Pedro (Harri) zara zu, eta harri horren gainean eraikiko dut nik neure eliza; eta herioaren indarrak ere ez du menperatuko.

19. Jainkoaren erreinuko giltzak emango dizkizut; zuk mundu honetan lotua zeruan ere loturik geratuko da, eta zuk mundu honetan askatua zeruan ere askaturik geratuko da.

20. Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.

21. Jesus une hartatik hasi zen bere ikasleei azaltzen, berak Jerusalenera igo eta zahar, apaizburu eta lege-maisuen aldetik asko sufritu behar zuela; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztu egingo zela.

22. Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion:

–Ez dezala Jainkoak nahi, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko.

23. Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori:

–Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo haiz niretzat, hire asmoak ez baitituk Jainkoarenak, gizakiarenak baizik.

24. Orduan Jesusek bere ikasleei esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzea hartu, eta jarrai biezat.

25. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

26. Zertarako du gizakiak mundu osoa irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia bereganatzeko?

27. Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin; eta, orduan, bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio.

28. Benetan diotsuet: Hemen daudenetako batzuk ez dira hilko, harik eta Gizonaren Semea errege bezala etortzen ikusi arte».

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Jesusen antzaldaketa. Epileptikoaren sendaketa.
Jesusek nekaldi-piztuerak bigarrenez iragarri.
Jesusek eta Pedrok tenplurako zerga ordaindu.

1. Handik sei egunera, Jesusek Pedro, Santiago eta honen anaia Joan hartu eta mendi garai batera eraman zituen aparte.

2. Eta haien aurrean antzaldatu egin zen: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri.

3. Hartan, Elias eta Moises agertu zitzaizkien Jesusekin hizketan.

4. Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, zein ederki gauden hemen! Nahi baduzu, hiru etxola egingo ditut bertan: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat».

5. Artean hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta mintzo batek hodeitik esan zuen: «Hauxe dut neure Seme maitea, hauxe dut atsegin. Entzun berari!».

6. Hura entzutean, ikasleak ahuspez jarri ziren beldur-ikaraz.

7. Jesus hurbildu zitzaien, ukitu zituen eta esan zien: «Zuti zaitezte. Ez beldurtu!».

8. Begiak altxaturik, Jesus bakarrik ikusi zuten, eta besterik inor ez.

9. Menditik beherakoan, Jesusek agindu hau eman zien: «Ez esan inori ikusi duzuena, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

10. Orduan, ikasleek galdetu zioten:

–Zergatik diote, bada, lege-maisuek lehenbizi Eliasek etorri behar duela?

11. Jesusek erantzun zien:

–Bai, Eliasek etorri behar zuen eta dena Jaunak nahi bezala eraberritu.

12. Baina, egia esan, etorri da Elias eta, onartu beharrean, nahi izan duten guztia egin diote. Era berean sufriaraziko diote Gizonaren Semeari ere.

13. Orduan, Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiela jabetu ziren ikasleak.

14. Jendearengana itzuli zirenean, gizon bat Jesusi ondoratu zitzaion eta, aurrean belaunikaturik, esan zion:

15. –Jauna, erruki zaitez nire semeaz; epileptikoa da eta gorriak ikusten ari da: maiz erortzen da sutara eta uretara.

16. Zure ikasleei ekarri diet, baina ezin izan dute sendatu.

17. Jesusek esan zien:

–Hau gizaldi sinesgogor eta makurra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutila.

18. Jesusek gogor egin zion deabruari, eta hura mutilarengandik atera zen; une hartatik sendatuta geratu zen.

19. Orduan, ikasleek, Jesusengana hurbildurik, bakarrean galdetu zioten:

–Eta guk, zergatik ezin izan dugu bota deabrua?

20. Erantzun zien:

–Zuen sinesmena eskasa delako. Benetan diotsuet: Sinesmena bazenute, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, mendi honi «Aldatu hemendik hara» esanez gero, aldatu egingo litzateke. Ez litzateke zuentzat ezinezkorik izango.

21. Gisa honetako deabruak botatzeko bide bakarra otoitza eta baraua dira.

22. Galilean zehar elkarrekin zebiltzala, Jesusek ikasleei esan zien: «Gizonaren Semea gizakien eskuetara emango dute.

23. Hil egingo dute, baina hirugarren egunean piztu egingo da».

Ikasleak oso nahigabeturik geratu ziren.

24. Jesus eta ikasleak Kafarnaunera iritsi zirenean, tenplurako zerga biltzen zutenak Pedrorengana joan ziren eta esan zioten:

–Zuen maisuak ez al du tenplurako zerga ordaintzen?

25. Hark erantzun zien:

–Bai.

Pedro etxeratu zenean, Jesusek aurrea hartu zion esanez:

–Zer deritzozu, Simon? Lurreko erregeek zeinengandik jasotzen dituzte zergak edo kontribuzioak, etxekoengandik ala arrotzengandik?

26. Pedrok erantzun zion:

–Arrotzengandik.

Jesusek orduan:

–Etxekoak libre daude, beraz.

27. Hala eta guztiz ere, inori zeresanik ez emateko, zoaz lakura, bota amua eta hartu lehenengo aterako duzun arraina; irekiozu ahoa, eta biren zerga ordaintzeko dirua aurkituko duzu. Hartu eta ordaindu, zeure eta bion partea.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Nor da Jainkoaren erreinuan handiena?
Dohakabeak sinesmena galbidean jartzen dutenak!
Ardi galduaren parabola.
Senide artean: bekatua, barkamena, otoitza.
Barkatu etzuen zerbitzariaren parabola.

1. Ikasleak Jesusengana hurbildu ziren eta galdetu zioten:

–Nor da Jainkoaren erreinuan handiena?

2. Jesusek, haur bati dei egin zion eta, haien aurrera ekarririk, esan zien:

3. –Benetan diotsuet: Berriro haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko Jainkoaren erreinuan.

4. Beraz, haur hau bezain txiki bihurtzen dena, hori da Jainkoaren erreinuan handiena.

5. Eta honelako haurra nire izenean onartzen duenak neu onartzen nau.

6. Niregan sinesten duten txiki hauetakoren bat galbidean jartzen duenak, hobe luke errotarri bat lepotik erantsi eta itsas hondora amilduko balitz.

7. Dohakabeak munduan sinesmena galbidean jartzen dutenak! Bai, nahitaez gertatu beharrekoa da hori; baina dohakabeak inoren sinesmena galbidean jartzen dutenak!

8. Zeure eskuak nahiz oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu eta bota; hobe duzu eskumotz edo hankamotz betiko bizitzan sartzea, bi esku nahiz bi oinekin betiko sutara jaurtikia izatea baino.

9. Eta zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera eta bota; hobe duzu betiko bizitzan begibakar sartzea, bi begiekin infernuko sutara jaurtikia izatea baino.

10. Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxiets. Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe.

11. Gizonaren Semea galdurik zegoena salbatzera etorri zen.

12. Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin badauzka eta bat galtzen bazaio, ez ote da, beste laurogeita hemeretziak mendiak utzirik, galduaren bila joango?

13. Eta aurkitzen badu, benetan esaten dizuet, poz handiagoa hartzen du harekin, galdu ez diren beste laurogeita hemeretziekin baino.

14. Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako inor galtzerik.

15. Zure senide batek bekatu egiten badu, zoaz berarengana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea.

16. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, hartu zeurekin lagun bat edo bi, *auzi oro bi edo hiru lekukoren aitorpenaz erabaki dadin*.

17. Haiei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

18. Benetan diotsuet: Zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geratuko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua geratuko da.

19. Beste hau ere esaten dizuet: Zuetako bik mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko elkar hartzen badute, eman egingo die zeruko nire Aitak.

20. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni euren artean».

21. Orduan, Pedro Jesusi hurbildu zitzaion eta galdetu zion:

–Jauna, senide batek bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?

22. Jesusek erantzun zion:

–Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz.

23. Hain zuzen, zerbitzariekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da Jainkoaren erregetzarekin.

24. Kontuak garbitzen hasi orduko, milioi asko zor zizkion zerbitzari bat eraman zioten.

25. Honek ez zuen zerekin ordaindu, eta nagusiak, bera, emaztea, seme-alabak eta ondasun guztiak saltzeko agindu zuen, zorra ordainarazteko.

26. Zerbitzariak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, eskatu zion: «Emadazu astia, eta dena ordainduko dizut».

27. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen zerbitzaria.

28. Baina zerbitzari hark, irten orduko, diru pixka bat zor zion zerbitzulagun batekin egin zuen topo eta, lepotik heldurik eta ito beharrean, esaten zion: «Emadak zor duana».

29. Laguna oinetara erori zitzaion, erreguka: «Emadak astia, eta dena ordainduko diat».

30. Baina hark ezetz. Eta joan, eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

31. Gertatua ikusirik, beste zerbitzariak biziki nahigabetu ziren, eta nagusiari guztiaren berri ematera joan ziren.

32. Orduan, nagusiak zerbitzari hari berriro dei egin eta esan zion: «Zerbitzari gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, erregutu didaalako.

33. Ez al huen hik ere heure lagunaz errukitu behar, ni hitaz errukitu nintzen bezala?».

34. Eta, haserre bizian, nagusiak zigorpean utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

35. Berdin-berdin egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

Ezkontza eta dibortzioa. Birjintasuna.
Jesus eta haurrak. Jesusek gazte aberatsari dei.
Aberastasuna salbamenerako oztopo.
Dena utzi duten ikasleen saria.

1. Jesusek hitzaldi hau amaitu zuenean, Galileatik alde egin eta Judeako mugetan sartu zen, Jordan ibaiaz bestaldera igaroz.

2. Jende multzo handiek jarraitu zioten, eta Jesusek gaixoak sendatu zizkien.

3. Fariseu batzuk hurbildu, eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten:

–Zilegi al zaio gizonari emaztea edozein arrazoigatik uztea?

4. Hark erantzun zien:

–Ez al duzue irakurri Liburu Santuek diotena? Egileak hasieran *gizaseme eta emakume* egin zituela, alegia.

5. Eta esan ziela: *Horregatik, gizasemeak bete aitamak utziko ditu eta emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izango dira.*

6. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baino. Horrela, bada, Jainkoak uztartu duena ez beza gizonak aska.

7. Haiek galdetu zioten:

–Zergatik eman zuen, bada, Moisesek *dibortzio-agiriarekin emaztea uzteko* baimena?

8. Jesusek erantzun zien:

–Jainkoaren gauzetan itsu zaretelako eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena, baina hasieran ez zen horrela.

9. Nik diotsuet: Inork bere emaztea utzi eta beste bat hartzen badu –legearen kontra elkartuak ez badira behintzat–, adulterio egiten du.

10. Orduan, ikasleek esan zioten:

–Senar-emazteen arteko lotura horrelakoa bada, ez du merezi ezkontzeak.

11. Jesusek erantzun zien:

–Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gai egiten dituenak baizik.

12. Badira irenak amaren sabeletik horrelaxe jaioak, badira irenak gizonek eginak, eta badira irenak zeruko erreinuagatik euren burua irendu dutenak. Onar dezakeenak onar beza.

13. Orduan, Jesusi haurrak eraman zizkioten, haien gain eskuak ezarriz otoitz egin zezan; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten.

14. Jesusek esan zien: «Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege».

15. Eta haurrei eskuak ezarri ondoren, joan egin zen handik.

16. Behin batez, gazte bat Jesusengana hurbildu zen eta esan zion:

–Zer onik egin behar dut, betiko bizia eskuratzeko?

17. Jesusek erantzun zion:

–Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, gorde aginduak.

18. Hark galdetu zion:

–Zein agindu?

Eta Jesusek:

–*Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik.*

19. *Ohoratu aitamak, eta maitatu lagunurkoa zeure burua bezala.*

20. Gazteak, orduan:

–Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?

21. Jesusek erantzun zion:

–Guztiz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri.

22. Hitz haiek entzutean, gazteak atsekabez alde egin zuen, ondasun handien jabe baitzen.

23. Jesusek bere ikasleei esan zien:

–Benetan diotsuet: Nekez sartuko dira aberatsak Jainkoaren erreinuan.

24. Berriro diotsuet: Orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino.

25. Hitzok entzutean, ikasleek, erabat nahasirik, honela zioten:

–Nor salba daiteke, orduan?

26. Jesusek, haiei begira jarrita, esan zien:

–Gizakientzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake.

27. Orduan, Pedrok esan zion Jesusi:

–Hara, guk dena utzi dugu zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?

28. Jesusek erantzun zion:

–Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau berregitean, Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan eseriko denean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko.

29. Eta niregatik, etxeak, senideak, aita, ama, seme-alabak eta lurrak uzten dituenak, ehun halako jasoko du eta betiko bizia izango ondare.

30. Orain lehenengo diren asko azkenengo izango dira orduan, eta orain azkenengo direnak lehenengo.

HOGEIGARREN KAPITULUA

Mahastiko langileen parabola.

Jesusek bere nekaldi-piztuerak hirugarrenez iragarri.

Zebedeoren semeen handinahia. Zerbitzua ikasleen lege.

Jesusek bi itsu sendatu Jerikon.

1. Izan ere, Jainkoaren erregetzarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen.

2. Eguneko lanaren ordainetan zilarrezko txanpon bana emateko tratua egin ondoren, langileak mahastira bidali zituen.

3. Goizeko bederatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lan zain ikusirik, esan zien:

4. «Zoazte zuek ere nire mahastira, eta ordainduko dizuet bidezko dena».

5. Eta haiek ere joan ziren.

Berriro atera zen hamabiak aldean eta hirurak aldean, eta gauza bera egin zuen.

6. Arratsaldeko bostak aldean ere atera zen eta, bertan batzuk geldi aurkiturik, esan zien: «Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?».

7. Erantzun zioten: «Ez gaitu inork lanerako hartu». Hark orduan: «Zoazte zuek ere nire mahastira».

8. Iluntzean, nagusiak mahastiko arduradunari esan zion: «Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenengotik hasi eta lehenengora».

9. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana jaso zuten.

10. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaienean, besteek baino gehiago jasoko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana jaso zuten.

11. Orduan, nagusiagatik gaizki esaka hasi ziren; eta berari esan zioten:

12. «Azkenengo hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta guri adina ordaindu diezu, egun osoko nekea eta beroa jasan dugunoi adina!».

13. Baina nagusiak haietako bati erantzun zion: «Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten; ez al dugu tratua zilarrezko txanpon batean egin?

14. Tori dagokizuna eta zoaz; zuri adina eman nahi diot azkenengo honi ere.

15. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala ni ona naizelako ezinikusia didazu?».

16. Horrela, azkenengoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkenengo.

17. Jerusalenera igotzen ari zela, Jesusek hamabi ikasleak aparte hartu eta bidean esan zien:

18. «Hara, Jerusalenera igotzen ari gara, eta Gizonaren Semea apaizburuen eta legemaisuen eskuetara emango dute; heriotzara kondenatuko dute

19. Eta atzerritarren eskuetara emango, hartaz iseka daitezen, zigortu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztu egingo da».

20. Zebedeoren emaztea bere semeekin Jesusi hurbildu eta aurrean ahuspeztu zitzaion eskabide bat egiteko.

21. Jesusek galdetu zion:

–Zer nahi duzu?

Eta hark:

–Agindu ezazu nire bi seme hauek, zu errege izatean, bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean jar daitezela.

22. Jesusek erantzun:

–Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete nik edan behar dudan edari saminetik edateko?

–Bai, gauza gara –esan zioten haiek.

23. Jesusek orduan:

–Nire edari saminetik edan, bai, edango duzue; baina nire eskuin-ezkerretan eseri ahal izate hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio.

24. Beste hamarrak, hori entzutean, bi anaien aurka haserre jarri ziren.

25. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Dakizuenez, herrietako buruzagiek menpean hartzen dituzte herriok, eta handi-mandiek euren agintea ezartzen diete.

26. Zuen artean, ordea, ez du horrela izan behar. Zuen artean handien izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari.

27. Eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi guztion morroi.

28. Gizonaren Semea bezala: hura ez da etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, bere bizia guztien alde ordainsaritzat ematera».

29. Haiek Jerikotik irteten ari zirela, Jendetza handia zihoan Jesusen ondoren.

30. Bide ertzean eserita zeuden bi itsu, Jesus igarotzen ari zela entzunik, oihuka hasi ziren:

–Erruki zakizkigu, Jauna, Dabiden Semea!

31. Jendeak gogor egiten zien, isilarazteko, baina haiek areago oihu:

–Erruki zakizkigu, Jauna, Dabiden Semea!

32. Gelditu zen Jesus, dei egin eta esan zien:

–Zer nahi duzue niregandik?

33. Haiek erantzun zioten:

–Begiak zabaltzea, Jauna!

34. Jesusek, gupiturik, begiak ukitu zizkien, eta une berean ikusmena etorri zitzaien berriro. Eta Jesusen ondoren joan ziren.

HOGEITABATGARREN KAPITULUA

Jesus Jerusalenen Mesias bezala sartu.
Tenplua herri guztientzat otoitz etxe.
Pikondoaren madarikazioa: fedea eta otoitza.
Bi semeen parabola. Nekazari hiltzaileen parabola.

1. Jerusalenera hurbildu zirenean, Oliamendi inguruko Betfage herrixkara iritsirik, Jesusek bi ikasle bidali zituen, esanez:

2. –Zoazte aurreko herrixka horretara; berehala, asteme bat aurkituko duzue lotuta, eta astakume bat harekin; askatu eta ekarri niri.

3. Eta inork ezer esaten badizue, erantzun: «Jaunak behar ditu, baina berehala itzuliko ditu».

4. Hori Jainkoak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen:

5. *Esan Sion hiri ederrari: Hara, badatorkizu zeure erregea, apal eta astotxo baten gainean, astakume baten gainean.*

6. Ikasleak joan ziren, bada, eta Jesusek agindu bezala egin zuten.

7. Astemea eta astakumea ekarri eta euren jantziak bizkarrean ezarri zizkieten, eta Jesus gainean eseri zen.

8. Askok eta askok jantziak zabaldu zituzten bidean; beste batzuek, berriz, zuhaitzei adaxkak moztu, eta bidean hedatu zituzten.

9. Aurretik eta atzetik zihoan jendeak honela zioen oihuka:

Hosanna Dabiden Semeari! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Gora Jainko gorena!

10. Jesus Jerusalenen sartu zenean, hiri osoak, asaldaturik, galdetzen zuen:

–Nor dugu hau?

11. Jendeak erantzuten zuen:

–Jesus profeta da, Galileako Nazaretekoa.

12. Jesus tenpluan sartu zen, eta bertan salerosketan ari ziren guztiak kanpora bota zituen eta diru-trukalarien eta uso-saltzaileen mahaiak irauli.

13. Eta esan zien: «Liburu Santuak dio: *Nire etxea otoitz-etxe izango da; zuek, berriz, lapurzulo egina duzue*».

14. Tenpluan itsuak eta herrenak hurbildu zitzaizkion, eta sendatu egin zituen.

15. Baina apaizburuak eta lege-maisuak haserre bizian zeuden, Jesusek egiten zituen gauza harrigarriengatik eta haurrak tenpluan «Gora Dabiden Semea!». oihuka ari zirelako.

16. Eta esan zioten:

–Ez al duzu entzuten zer dioten horiek?

Jesusek erantzun zien:

–Bai. Eta zuek ez al duzue inoiz Liburu Santuko pasarte hau irakurri: *Umetxoen eta bularreko haurtxoen ahotik atera duzu gorespena*?

17. Eta haiek bertan utzita, hiritik kanpora atera zen, Betaniara, eta han eman zuen gaua.

18. Biharamun goizean, berriro hirira zetorrela, Jesus gosetu egin zen.

19. Pikondo bat bide bazterrean ikusirik, bertara hurbildu zen, baina ez zuen aurkitu han hostoa besterik. Orduan pikondoari esan zion: «Ez bedi hiregandik gehiago fruiturik sor!».

Eta bat-batean pikondoa ihartu egin zen.

20. Hori ikusirik, ikasleak harritu egin ziren eta Jesusi galdetu zioten:

–Nolatan ihartu da bat-batean bikondoa?

21. Jesusek erantzun zien:

–Benetan diotsuet: Zalantza gabeko sinesmena baldin baduzue, ez duzue pikondoarena bakarrik egingo; eta mendi honi «Ken handi hortik eta amildu itsasora» esaten badiozue, halaxe gertatuko da.

22. Otoitzean sinesmenez eskatzen duzuen edozer gauza lortuko duzue.

23. Jesus tenplura joan zen eta, irakasten ari zela, apaizburuak eta herriko zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka:

–Zein aginpidez jokatzen duzu horrela? Nork eman dizu aginpide hori?

24. Jesusek erantzun zien:

–Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuten badidazue, esango dizuet nik ere zein aginpidez jokatzen dudan horrela.

25. Joanek noren aginduz bataiatzen zuen, Jainkoaren aginduz ala giza aginduz?

Haiek honela zioten beren artean: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badiogu, zergatik ez genion sinetsi erantzungo digu.

26. Giza aginduz ari zela esaten badiogu, berriz, jendearen beldur izan behar, guztiek profetatzat baitaukate Joan».

27. Beraz, erantzun zioten:

–Ez dakigu.

Jesusek, orduan:

–Ba, nik ere ez dizuet esango zein aginpidez jokatzen dudan horrela.

28. Zer iruditzen zaizue? Gizon batek bi seme zituen. Batarengana joan eta esan zion: «Seme, hoa gaur mahastira lanera».

29. Hark erantzun zion: «Ez dut nahi»; baina berehala damutu eta joan egin zen.

30. Aita bestearengana ere joan zen eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: «Banoa, jauna»; baina ez zen joan.

31. Zuen ustez, bietatik zeinek egin zuen aitaren nahia?

Haiek erantzun zioten:

–Lehenengoak.

Jesusek esan zien:

–Benetan diotsuet: Zergalariak eta emagalduak zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan.

32. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea azalduz, eta ez zenioten sinetsi; zergalariek eta emagalduek, ordea, sinetsi zioten. Eta zuek, hori ikusita ere, ez zarete aldatu: oraindik ez diozue sinetsi.

33. Entzun beste parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta harresiz inguratu; lurrean dolarea egin eta mahastizainaren dorrea eraiki zuen. Gero, nekarazi batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

34. Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zizkien nekazariei, fruitutik zegokion partea jasotzera.

35. Baina nekazariek morroiak hartu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten.

36. Berriro beste morroi batzuk bidali zizkien, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten.

37. Azkenik, bere semea bidali zien, honela pentsatuz: «Neure semeari bederen izango diote begirune».

38. Nekazariek, ordea, semea ikustean, euren artean esan zuten: «Oinordekoa duk! Hil dezagun eta egin gaitezen mahastiaren jabe».

39. Hartu, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten.

40. Jesusek galdetu zien:

–Zer egingo ote die nekazari horiei mahasti jabeak, itzultzean?

41. Haiek erantzun zioten:

–Gupidarik gabe hilko ditu eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuen esku utziko du mahastia.

42. Jesusek esan zien:

–Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena?

Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri!

43. Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio.

44. Eta harri honen gainera erortzen dena lehertu egingo da, eta harri hau inoren gainera erortzen bada, txikitu egingo du.

45. Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburuak eta fariseuak.

46. Hargatik, hura atxilotu nahian zebiltzan, baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat zeukaten eta.

HOGEITA BIGARREN KAPITULUA

Ezteien parabola.
Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari.
Hildakoen piztueraz. Agindurik nagusiena.
Mesias, Dabiden Seme eta Jaun.

1. Jesus berriro parabola bidez hitz egiten hasi zitzaien:
2. –Jainkoaren erregetzarekin, bere semearen ezteiak ospatzen zituen erregearekin bezala gertatzen da.
3. Gonbidatuei dei egitera bidali zituen morroiak. Baina haiek ez zuten etorri nahi izan.
4. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, mandatu honekin: «Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, dena dago prest. Zatozte ezteietara».
5. Baina gonbidatuek ez zuten jaramonik egin: bata bere sorora joan zen, bestea bere negozioetara.
6. Eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten.
7. Erregea sumindu egin zen eta, soldaduak bidaliz, giza hiltzaile haiek hil zituen eta herriari su eman zion.
8. Gero, bere morroiei esan zien: «Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai.
9. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak».
10. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkituriko guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Ezteigela bazkaltiarrez bete zen.
11. Erregeak, bazkaltiarrak ikustera sartu zenean, eztei jantzirik gabe zegoen bat ikusi zuen.
12. Eta esan zion: «Adiskidea, nola sartu zara hemen eztei jantzirik gabe?».

Hark hitzik ez.

13. Erregeak orduan mahai zerbitzariei esan zien: «Lot ezazue hanka eta esku, eta bota kanpora, ilunbetara. Han izango da negarra eta hortz karraska».
14. Zeren gehiago baitira deituak aukeratuak baino.
15. Orduan, fariseuek elkar hartu zuten, Jesusi galdera bat eginez tranpa jartzeko.
16. Beraz, ikasle batzuk bidali zizkioten, Herodesen alderdikoekin, galdetzera:

–Maisu, badakigu egiazale zarena eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzuna; inoren zeresanak ez dizu axolarik, ez baitiozu begiratzen gizakiaren itxurari.

17. Emaguzu, bada, zeure iritzia: zilegi al da Zesarri zerga ordaintzea, bai ala ez?
18. Haien maltzurkeria igarriz, Jesusek esan zien:

–Zergatik zatozkidate zirika, itxurazaleok?

19. Ea, erakutsi zerga-txanpona.

Haiek denario bat aurkeztu zioten.

20. Jesusek galdetu zien:

–Norenak dira irudi eta izen hauek?

21. Haiek erantzun zioten:

–Zesarrenak.

Jesusek orduan:

–Eman, bada, Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari.

22. Harriturik gelditu ziren erantzun harekin, eta Jesus bertan utzi eta alde egin zuten.
23. Egun berean, Jesusi saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion –hauek ez dute sinesten hildakoak pizten direnik– eta honela galdegin zioten:
24. –Maisu, Moisesek esan zigun: *Gizon bat seme-alabarik gabe hiltzen bada, haren anaia alarguntsarekin ezkonduko da, anaiari ondorengoa emateko.*
25. Behin batean, baziren gure artean zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen, eta anaiari utzi zion emaztea.
26. Beste horrenbeste gertatu zitzaien bigarrenari eta hirugarrenari, eta zazpiei gauza bera.
27. Azkenik, emakumea ere hil zen.
28. Piztuerakoan, zazpietako zeinen emazte izango da, denena izan baitzen?
29. Jesusek erantzun zien:

–Oker zabiltzate. Liburu Santuetan esana eta Jainkoaren ahalmena ez dituzue ezagutzen.

30. Izane ere, piztuerakoan ez da inor ezkonduko: zeruko aingeruak bezalakoak izango dira denak.
31. Gainera, hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Jainkoak berak esan zizuena?:
32. *Ni Abrahanen, Isaaken eta Jakoben Jainkoa naiz.* Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik.
33. Entzuten zegoen jendea haren irakaspenaz txunditurik zegoen.
34. Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, fariseuak elkarrekin bildu ziren.
35. Eta beraietako legegizon batek Jesusi azpikeriaz galdetu zion:
36. –Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?
37. Jesusek erantzun zion:

–*Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiaz.*

38. Hori da agindurik nagusiena eta lehena.
39. Eta bigarrena, horren antzekoa, hauxe da: *Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala.*
40. Bi agindu horietan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak.
41. Oraindik fariseuak bildurik zeudela, Jesusek galdera hau egin zien:
42. –Zer diozue Mesiasi buruz? Noren ondorengoa da, zuen ustez?

Haiek erantzun zioten:

–Dabidena.

43. Jesusek, orduan:

–Eta Dabidek nola esaten dio, bada, «Jauna», Jainkoaren espirituaren argiz? Hau baitio Dabidek:

44. *Hona Jaunak ene Jaunari esana: Eseri nire eskuinean, zeure etsaiak oinazpian jartzen dizkizudan bitartean.*
45. Beraz, Dabidek Jauna deitzen badio, nola izan dezake ondorengo?
46. Ezin izan zion inork erantzun, eta egun hartatik aurrera ez zen inor ausartu galderarik egiten.

HOGEITA HIRUGARREN KAPITULUA

Jesusek lege-maisuak eta fariseuak salatu.
Jesus Jerusalenengatik aieneka.

1. Orduan, Jesus honela mintzatu zitzaien ikasleei eta jendetzari:

2. –Lege-maisuek eta fariseuek Moisesen irakatsiak adierazteko eginkizuna.

3. Saia zaitezte, beraz, haiek esaten dizueten guztia betetzen; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez.

4. Zama astunak lotu eta besteei leporatzen dizkiete, baina beraiek ez dute atzamar bat ere mugitu nahi.

5. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak eraman ohi dituzte bekokian eta borlatxo luzeak jantzietan;

6. Gogoko dituzte jai-otorduetan mahaiburuak, eta sinagogetan lehen aulkiak;

7. Gogoko dute plazetan jendeak agur egitea eta guztiek «Maisu» deitzea.

8. Zuek, ordea, ez utzi inori zuei «Maisu» deitzen, bat bakarra baita zuen maisua, eta zuek denak senideak baitzarate.

9. Eta ez deitu lurrean inori «aita», bat bakarra baita zuen aita, zerukoa.

10. Eta ez utzi «gidari» deitzen ere, bat bakarra baita zuen gidaria, Mesias.

11. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari.

12. Bere burua goratzen duena, beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu.

13. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok, jendeari Jainkoaren erreinuko sarrera ixten diozuenok! Zeuek ez zarete sartzen, eta sartu nahi luketenei ez diezue uzten.

14. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Azken gabeko otoitzen aitzakiaz alargunen ondasunak irensten dituzue. Horregatik, epairik zorrotzena izango duzue.

15. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Norbait juduberri egiteagatik itsaso eta lehor zabiltzate, eta egin duzuenean, zeuek baino gaiago bihurtzen duzue infernurako!

16. Ai zuek, gidari itsuok! Honela irakasten duzue: «Tenpluarengatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko urrearengatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du».

17. Zoro itsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaratzen duen tenplua?

18. Hau ere irakasten duzue: «Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du».

19. Itsuok halakook! Zer da handiago: oparia ala oparia sagaratzen duen aldarea?

20. Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiarengatik egiten du zin;

21. Tenpluarengatik zin egiten duenak, tenpluarengatik eta bertan bizi den Jainkoarengatik egiten du zin;

22. Zeruarengatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuarengatik eta bertan esertzen denarengatik egiten du zin.

23. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Barazkirik kaskarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta legeko gauzarik garrantzizkoenak, berriz, zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, bazterrera uzten. Hauek bete behar zenituzketen, haiek baztertu gabe!

24. Gidari itsuok! Eltxoa iragazten duzue eta gamelua irensten!

25. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta gutiziaz gainezka beterik dauden bitartean!

26. Fariseu itsu hori! Garbi ezazu lehenik edalontzia barrutik, kanpotik ere garbi geldi dadin.

27. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituaren antzekoak zarete: kanpotik itxura ederrekoak dira, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak.

28. Berdin zuek: azaletik zintzoak jendaurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak.

29. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez:

30. «Gure arbasoen garaian bizi izan bagina, ez genukeen profeten hilketan haiekin parterik izango».

31. Horrela, zeuek aitortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengo zaretela.

32. Bete ezazue, bada, zeuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!

33. Sugeok, sugegorrikumeok! Nola egingo diozue ihes infernuko zigorrari?

34. Hor bidaliko dizkizuet nik profetak, jakintsuak eta lege-maisuak, eta zuek batzuk hil eta gurutziltzatu, besteak sinagogetan zigortu eta herririk herri erasoka erabiliko dituzue.

35. Horrela, zuen kontu ezarriko da lurrean isuri izan den errugabe guztien odolaren errua: hasi Abel zintzoaren odoletik, eta santutegitik aldarera bitartean hil zenuten Barakiasen seme Zakariasen odoleraino.

36. Benetan diotsuet: Gizaldi honi emango zaio horren guztiaren zigorra.

37. Jerusalen, Jerusalen, profetak hiltzen eta Jainkoak zuri bidaliak harrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz ez ditut bildu nahi izan zure seme-alabak, oiloak txitak hegalpean bildu ohi dituen bezala, eta zuek ez duzue nahi izan.

38. Horra bada, hutsik geldituko zaizue etxea.

39. Eta esaten dizuet ez nauzuela ikusiko, harik eta hau esango duzuen arte: *Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!*

HOGEITA LAUGARREN KAPITULUA

Tenplua suntsitua izango da. Azkenaren aurreko seinaleak.
Larrialdi izugarria. Gizonaren Semearen etorrera.
Ez dakizue hau guztia noiz izango den. Egon erne!

1. Jesus tenplutik atera zen eta bazihoan. Orduan, ikasleak hurbildu, eta tenpluko eraikinak erakutsi zizkioten.

2. Baina Jesusek esan zien: «Ikusten duzue hori guztia, ezta? Bada, benetan diotsuet: Ez da hemen harririk harri gainean geratuko: dena suntsituko dute».

3. Gero, Oliamendin eserita zegoela, ikasleak bakarrean hurbildu, eta galdetu zioten:

–Esaguzu noiz gertatuko den hori, eta zein izango den zure etorreraren eta munduaren azkenaren ezaugarria.

4. Jesusek erantzun zien:

–Kontuz! Ez zaitzatela inork engaina!

5. Asko etorriko dira, nire izena bereganatuz eta esanez: «Ni naiz Mesias»; eta jendea franko engainatuko dute.

6. Gerra hotsak eta zurrumurruak entzungo dituzue. Begira, ez izutu, gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina oraindik ez da azkena.

7. Izan ere, nazioa nazioaren kontra eta erreinua erreinuaren kontra altxatuko dira; goseteak eta lurrikarak izango dira han eta hemen.

8. Baina hori guztia erdiminen hasiera da.

9. Zori larrian jarriko zaituztete eta hil egingo; herri guztiek gorroto izango dizuete niregatik.

10. Orduan, askok fedeari uko egingo diote, eta elkar saldu eta gorrotatuko dute.

11. Anitz sasiprofeta altxatuko dira eta asko engainatuko dituzte.

12. Eta gaiztakeria ugaltzean, gehienen maitasuna hoztu egingo da;

13. Baina azkeneraino sendo irauten duena, horixe izango da salbatua.

14. Mundu osoan hots egingo da Jainkoaren erregetzaren berri on hau, herri guztiek haren berri izan dezaten. Orduan etorriko da azkena.

15. Daniel profetak aipatzen duen profanatzaile higuingarria toki santuan ezarria ikusiko duzuenean –irakurleak uler beza–,

16. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara;

17. Etxegainean dagoena ez bedi jaits etxeko gauzak hartzera.

18. Eta soroan dagoena ez bedi itzul soingaineko bila.

19. Dohakabeak egun horietan haurdun daudenak eta bularreko haurrak dituztenak!

20. Eskatu Jainkoari, ihes egin beharra neguan edo larunbatez gerta ez dakizuen.

21. Zeren munduaren hasieratik orain arte izan ez den eta izango ez den bezalako larrialdi handia izango baita orduan.

22. Eta Jainkoak aldi hori laburtuko ez balu, ez litzateke inortxo ere bizirik aterako; baina, aukeratuak direla eta, laburtu egingo ditu egun horiek.

23. Orduan, norbaitek «Hona hemen Mesias» edo «Hara han» esango balizue, ez sinetsi.

24. Izan ere, gezurrezko mesiasak eta sasiprofetak agertuko dira eta aukeratuak berak ere, ahal balitz, engainatzeko moduko mirari handiak eta egintza harrigarriak egingo dituzte.

25. Horra, jakinaren gainean jarri zaituztet aldez aurretik.

26. Beraz, norbaitek «Hara, basamortuan dago» esaten badizue, zuek ez irten, edo «Hara, etxe barruan dago» esaten badizue, ez sinetsi.

27. Izan ere, tximistak une batean sortaldetik sartalderaino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semearen etorrera.

28. Sarraskia non, han biltzen dira putreak.

29. Egun haietako larrialdiaren ondoren, berehala, eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argirik egingo, izarrak zeru goitik amilduko dira, eta ortzea dardaraka ariko.

30. Orduan, Gizonaren Semearen seinalea azalduko da zeruan, eta lurreko leinu guztiak bularjoka ariko dira, *Gizonaren Semea zeruko hodei artean ahalmen eta aintzaz beterik etortzen* ikustean.

31. Orduan bere aingeruak bidaliko ditu turutots ozenez, eta haren aukeratuak bilduko dituzte lau haizeetatik, lurmuga batetik besteraino.

32. Ikasi pikondoaren irudi honetatik: kimua berritzen eta hostoa zabaltzen zaioneko, badakizue uda hurbil dela.

33. Era berean, gauza horiek ikustean, jakizue hurbil dela, Gizonaren Semea ate ondoan duzuela.

34. Benetan diotsuet: Gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok.

35. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko.

36. Baina zein egunetan edo ordutan gertatuko den ez daki inork, ez zeruko aingeruek, ez Semeak, Aitak bakarrik baizik.

37. Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan.

38. Uholdearen aurretik, jan-edanean zihardueen eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte.

39. Eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere.

40. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute.

41. Errotan ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute.

42. Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jainkoa.

43. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko.

44. Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.

45. Izan zaitezte morroi leial eta zentzuduna bezala, nagusiak etxeko morroiei bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman diona bezala.

46. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu.

47. Benetan diotsuet: Bere ondasun guztien buru ipiniko du.

48. Baina morroia, gaiztoa bada eta, nagusiak luzatu egingo duelakoan,

49. Bere morroikideak jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada,

50. Gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia.

51. Eta zigorrik gogorrena ezarriko dio eta itxurazaleek merezi duten zoria emango. Han izango da negarra eta hortz karraska!

HOGEITA BOSGARREN KAPITULUA

Hamar neskatxen parabola.

Talentuen parabola. Azken auzia.

1. Jainkoaren erregetzarekin, kriseiluak hartu eta senar ezkonberriari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da.

2. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak.

3. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu.

4. Zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioa ere hartu zuten ontzietan.

5. Senarrak luzatzen zuenez, denak logaletu egin ziren eta loak hartu zituen.

6. Gauerdian oihu bat izan zen: «Hemen da senarra! Irten bidera!».

7. Jaiki ziren denak eta euren kriseiluak prestatu zituzten.

8. Orduan zentzugabeek zentzudunei esan zieten: «Emaguzue olio pixka bat, kriseiluak itzaliko zaizkigu eta».

9. Zentzudunek erantzun zieten: «Ea ez dugun nahikoa denontzat; hobe duzue badaezpara dendara joan eta erosi».

10. Baina, erostera joanak zirelarik, senarra iritsi zen, eta prest zeudenak ezteietara sartu ziren berarekin. Eta atea itxi egin zen.

11. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: «Jauna, jauna! Zabaldu!».

12. Baina jaunak erantzun zien: «Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten».

13. Zain egon, beraz, ez baitakizue ez egunik, ez ordurik.

14. Jainkoaren erregetzarekin, atzerrira irten behar zuen gizonarekin bezala gertatzen da. Bere morroiei dei egin eta ondasunak utzi zizkien:

15. Bati bost talentu, beste bati bi eta besteari bat, bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Gero alde egin zuen.

16. Bost talentu hartu zituenak, berehala inbertitu zituen eta beste bost irabazi.

17. Orobat bi talentu hartu zituenak: inbertitu eta beste bi irabazi zituen.

18. Bat bakarra hartu zuenak, aldiz, lurrean zuloa egin eta bertan gorde zuen nagusiaren dirua.

19. Handik denbora askora, nagusia etorri zen eta morroiei kontuak hartzen hasi zitzaien.

20. Bost talentu hartu zituena aurreratu zen eta beste bost aurkeztu zizkion, esanez: «Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; hona beste bost nik irabaziak».

21. Nagusiak esan zion: «Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut; sartu zeure jaunaren festa ospatzera».

22. Gero, bi talentuduna aurreratu zen eta esan zion: «Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; hona beste bi nik irabaziak».

23. Nagusiak esan zion: «Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut; sartu zeure jaunaren festa ospatzera».

24. Talentu bakarra hartu zuena aurreratu zen eta esan zion: «Banekien gizon zorrotza zarena, erein ez duzun hartzen eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna.

25. Beldur nintzen, eta zure talentua lurrean ezkutatu nuen. Hona zeure dirua!».

26. Nagusiak erantzun zion: «Ai morroi gaizto eta alferra! Bazenekien erein ez dudan tokian hartzen dudana eta zabaldu ez dudan tokian biltzen.

27. Beraz, bankuan jarri behar zenuen nire dirua, itzultzean bere korrituekin jaso nezan.

28. Ken iezaziozue, bada, talentua eta emaiozue hamar dituenari.

29. Izan ere, fruitua dakarrenari eman egingo zaio, eta gainezka izango du; fruiturik ez dakarrenari, ordea, daukan apurra ere kendu egingo zaio.

30. Eta ezertarako gauza ez den morroi hau jaurtiki kanpora, ilunbetara. Han izango da negarra eta hortz karraska!».

31. Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dituela aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulkian eseriko da.

32. Herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak akerretatik bereizten dituen bezala.

33. Eta ardiak bere eskuinean eta akerrak ezkerrean ezarriko ditu.

34. Orduan, erregeak eskuinekoei esango die: «Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartzazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua den erreinua.

35. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen.

36. Biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri zineten».

37. Orduan zintzoek esango diote: «Jauna, baina noiz aurkitu zintugun goseak eta jaten eman genizun, eta egarriak eta edaten eman?

38. Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi?

39. Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan eta ikustera joan ginen?».

40. Eta erregeak erantzungo die: «Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten».

41. Gero, ezkerrekoei esango die: «Alde niregandik urruti, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sutara.

42. Gose bainintzen eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta edaten eman ez.

43. Arrotz nintzen, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik nengoen, eta ez ninduzuen jantzi; gaixo eta kartzelan, eta ez zineten ni ikustera etorri».

44. Orduan, haiek ere esango diote: «Jauna, baina noiz aurkitu zintugun gose edo egarri, arrotz edo larrugorri, gaixo edo kartzelan, eta guk lagundu ez?».

45. Hark erantzungo die: «Benetan diotsuet: Txikien hauetako edozeini egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin».

46. Eta hauek betiko zigorretara joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizitzara.

HOGEITA SEIGARREN KAPITULUA

Jesus nola atxilotuko. Emakume batek Jesus ukenduz igurtzi.
Afaritan: Judasen saldukeriaren iragarpena.
Azken afaria: hona nire gorputz-odolak!
Pedroren ukoen iragarpena. Getsemaniko otoitz larria.
Jesus judu-biltzarraren aurrean. Pedrok Jesus ukatu.

1. Jesusek, hitzaldi haiek oro amaitzean, bere ikasleei esan zien:

2. «Dakizuenez, etzi Pazko Jaia da, eta Gizonaren Semea etsaien eskuetara eman eta gurutziltzatu egingo dute».

3. Orduan, apaizburu eta herriko zaharrak Kaifas zeritzon apaiz nagusiaren jauregian bildu ziren.

4. Eta Jesus maltzurkeriaz atxilotzea eta hiltzea erabaki zuten.

5. Baina hau zioten: «Ez gero jai egunean, herrian iskanbilarik gerta ez dadin».

6. Jesus Betanian Simon legendunaren etxean zegoela,

7. Emakume bat etorri zitzaion, hartzurizko ontzian ukendo baliotsua zekarrela. Eta Jesus mahaian zegoelarik, burura isuri zion.

8. Hori ikustean, ikasleek, haserre, honela zioten:

–Zergatik alferrik galdu horrela?

9. Garesti asko sal zitekeen, eta dirua behartsuei eman.

10. Ohartu zen Jesus eta esan zien:

–Zergatik gogaitarazten duzue emakumea? Egintza ona egin du nirekin.

11. Izan ere, behartsuak beti dituzue zuen artean, baina ni ez nauzue betiko zuekin.

12. Ukendu hau nire gorputzean isuriz, hilobiratua izateko prestatu nau aurrez.

13. Benetan diotsuet: Mundu osoan barrena, berri on hau hots egingo den edonon aipatuko da emakume hau, eta beronek egina.

14. Orduan, Hamabietako bat, Judas Iskariote deitua, apaizburuengana joan zen.

15. Eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue Jesus zuen eskuetara emateagatik?». Zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zizkioten.

16. Ordutik, Jesus haien eskuetara emateko egokiera bila hasi zen Judas.

17. Legamigabeko Ogien Jaiko lehen egunean, ikasleak Jesusengana hurbildu ziren, galdetuz:

–Non egin behar ditugu Pazko afarirako prestaketak?

18. Hark esan zien:

–Zoazte hirira, halakoren etxera, eta esaiozue: «Maisuak dio hurbil dela bere ordua, eta zuenean ospatu nahi duela Pazkoa bere ikasleekin».

19. Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta Pazko afaria prestatu zuten.

20. Ilunabarrean, Jesus mahaian zegoen hamabi ikasleekin.

21. Afaltzen ari zirela, Jesusek esan zuen:

–Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau.

22. Haiek, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka:

–Nik ote, Jauna?

23. Hark erantzun zuen:

–Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau.

24. Gizonaren Semea badoa, bai, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz!

25. Judasek, salduko zuenak, galdetu zion:

–Ni ote naiz hori, Maisu?

Jesusek erantzun zion:

–Zeuk esan duzu.

26. Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkazioa esan ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez: «Hartzazue eta jan, hau nire gorputza da».

27. Gero, kopa hartu eta, esker onezko otoitza egin ondoren, eman egin zien, esanez: «Edan guztiok honetatik.

28. Hau nire odola baita, Jainkoarekiko ituna berrituko duena, bekatuak barkatzeko guztien alde isuria.

29. Egia esan, hemendik aurrera ez dut gehiago ardorik edango, neure Aitaren erreinuan zuekin ardo berria edan arte».

30. Gorazarreak kantatu ondoren, Oliamendira abiatu ziren.

31. Jesusek esan zien: «Zuek guztiok utziko nauzue gaur gauean, honela baitago idatzirik Liburu Santuetan: *Joko dut artzaina, eta ardiak sakabanatu egingo dira.*

32. Baina piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

33. Pedrok esan zion:

–Denek uzten bazaituzte ere, nik ez zaitut sekula utziko.

34. Jesusek erantzun:

–Benetan diotsut: Gaur gauean, oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu.

35. Pedrok esan zion:

–Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko.

Eta gauza bera zioten ikasle guztiek.

36. Jesus bere ikasleekin Getsemani zeritzon landa batera iritsi zen, eta esan zien: «Zaudete hemen, ni hara otoitz egitera noan bitartean».

37. Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen.

38. Eta esan zien: «Hiltzeko zorian nago tristuraz. Gelditu hemen eta zaudete erne nirekin batera».

39. Eta aurreraxeago joanik, ahuspez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez: «Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala».

40. Ikasleengana joan eta lotan aurkitu zituen. Pedrori esan zion: «Beraz, ordubetez ere ezin izan zarete nirekin erne egon?

41. Zaudete erne eta egizue otoitz, tentaldian ez erortzeko: gogoz gartsu izan arren, ahula baita gizakia».

42. Bigarren aldiz aldendu, eta otoitz egin zuen, esaenz: «Ene Aita, edari samin hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia».

43. Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten.

44. Haiek utzirik, berriz ere aldendu, eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitzak berriro esanez.

45. Ondoren, ikasleengana joan zen eta esan zien: «Egin lo eta hartu atseden! Hara, gainean da ordua, Gizonaren Semea bekatarien eskuetara emana izateko.

46. Jaiki, goazen, hemen da salduko nauena!».

47. Jesus hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat; gizon multzo handi bat zetorren harekin, ezpata eta makilak eskuetan, apaizburuek eta herriko zaharrek bidalirik.

48. Saltzaileak seinale hau jarri zien: «Nik musu emango diodana, horixe da, atxilotu ezazue».

49. Berehala, Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Agur, Maisu!».

Eta musu eman zion.

50. Jesusek esan zion: «Adiskide, egizu egitekoa!».

Orduan, besteek, Jesusengana hurbildurik, heldu eta atxilotu egin zuten.

51. Jesusekin zeudenetako batek ezpata atera, apaiz nagusiaren morroi jo, eta belarria moztu zion.

52. Jesusek esan zion: «Itzuli ezpata hori bere tokira, zeren ezpataz ari dena ezpataz hilko baita.

53. Edo uste al duzu ezin diodala Aitari dei egin? Hamabi aingeru talde eta gehiago jarriko lizkidake berehala ondoan.

54. Baina nola beteko lirateke orduan Liburu Santuak, honela gertatu behar duela baitiote?»

55. Une hartan, Jesusek jendeari esan zion: «Ezpataz eta makilaz etorri zarete, lapur baten bila bezala, ni harrapatzera! Egunero esertzen nintzen tenpluan irakasten, eta ez ninduzuen atxilotu.

56. Baina hau guztia profetek idatzia bete dadin gertatu da».

Orduan, ikasle guztiek Jesus utzi eta ihes egin zuten.

57. Jesus atxilotu zutenek Kaifas apaiz nagusiaren etxera eraman zuten, han bilduak baitziren lege-maisu eta herriko zaharrak.

58. Pedro, Jesusi urrutitik jarraituz, apaiz nagusiaren jauregiraino joan eta, barrura sarturik, morroiekin eseri zen, hura guztia zertan amaitzen zen ikusteko.

59. Apaizburuak eta Biltzar Nagusi osoa Jesusen aurka gezurrezko lekukotasun bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko.

60. Baina ez zuten aurkitu, gezurrezko lekuko asko azaldu arren. Azkenean, bi azaldu ziren.

61. Eta esan zuten: «Honek esana du: Jainkoaren santutegia desegin dezaket eta hiru egunean berreraiki».

62. Orduan apaiz nagusia zutitu egin zen eta galdetu zion:

–Ez diezu deus erantzun behar zure aurka ateratzen dituztenei?

63. Baina Jesus isilik zegoen. Apaiz nagusiak esan zion:

–Jainko biziarengatik eskatzen dizut: Esaguzu zinez zu al zaren Mesias, Jainkoaren Semea.

64. Jesusek erantzun zion:

–Zeuk esan duzu. Eta gehiago diotsuet: Oraindanik *Gizonaren Semea Ahalguztidunaren eskuinean eserita eta zeruko hodei gainean etortzen* ikusiko duzue.

65. Orduan, apaiz nagusiak bere jantziak urratu zituen eta esan zuen:

–Biraoa esan du. Ba ote dugu lekuko beharrik? Zeuek entzun duzue biraoa.

66. Zer deritzozue?

Haiek erantzun zuten:

–Heriotza merezi du.

67. Orduan, aurpegira listua bota, eta ukabilkadak eman zizkioten; beste batzuek masailekoak ematen zizkioten.

68. Eta esaten zioten: «Asma ezak, Mesias, nork jo hau?»

69. Pedro kanpoan eserita zegoen, patioan; neskame bat ondoratu zitzaion eta esan zion:

–Hi ere Jesus galilearrarekin bizi hintzen.

70. Baina hark guztien aurrean ukatu zuen:

–Ez zekinat zertaz ari haizen.

71. Ate ondora irten zen, eta beste neskame batek ikusi zuen eta han zeudenei esan zien:

–Jesus nazaretarrarekin ibilia da hau.

72. Pedrok berriro ukatu zuen, zin eginez:

–Ez dut ezagutzen gizon hori.

73. Geroxeago, han zeudenek, hurbildurik, Pedrori esan zioten:

–Bai, hi ere horietakoa haiz, noski; hizkeran ezagun duk.

74. Orduan, Pedro biraoka eta madarikazioka hasi zen:

–Ez dut ezagutzen gizon hori.

Une hartan oilarrak jo zuen.

75. Pedrori Jesusek esana gogoratu zitzaion: «Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu». Eta, kanpora irtenik, negarrari eman zion saminki.

HOGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

Judasen heriotza. Jesus Pilatoren aurrean.
Jesus heriotzara kondenatua. Soldaduen isekak.
Jesusen heriotza. Jesus hilobian ezarria.
Hilobia itxia eta zaindua.

1. Eguna argitu zuenean, apaizburu eta herriko zahar guztiak bildu ziren eta Jesusen aurkako erabakia hartu zuten, heriotzara kondenatzeko.

2. Gero, lotuta eraman zuten eta Pilato gobernariaren eskuetara eraman.

3. Judas saltzaileak, Jesus kondenatua zutela ikustean, damu izan zuen eta zilarrezko hogeita hamar txanponak apaizburu eta herriko zaharrei itzuli zizkien,

4. Esanez:

–Oker egin dut, errugabea heriotzara emanez.

Baina haiek erantzun zioten:

–Eta guri zer? Hor konpon!

5. Orduan, dirua tenpluan jaurtikirik, alde egin eta bere burua urkatu zuen.

6. Apaizburuek dirua jaso eta esan zuten: «Ez da zilegi diru hau tenpluko dirutegira botatzea, odoletan zikindua baita».

7. Eta elkarren artean erabaki ondoren, diru harekin «Eltzegilearen soroa» erosi zuten, kanpotarren hilerri izan zedin.

8. Horregatik, gaur egun ere «Odol soro» deitzen zaio toki hari.

9. Horrela bete zen Jeremias profetak esana: *Eta hartu zituzten zilarrezko hogeita hamar txanponak; hori izan zen israeldarrek ezarri zioten salneurria.*

10. *Eta eltzegilearen soroa erosteko erabili zituzten, Jaunak agindu zidan bezala.*

11. Jesus gobernariaren aurrean aurkeztu zuten. Gobernariak galdetu zion:

–Zu al zara juduen erregea?

Jesusek erantzun zion:

–Zeuk diozu.

12. Apaizburuek eta zaharrek salaketa asko egin zuten haren aurka, baina hark ez zuen ezer erantzuten.

13. Pilatok esan zion:

–Ez al duzu entzuten zenbat gauza ateratzen duten zure aurka?

14. Eta ez baitzion salakuntza bati ere erantzunik eman, gobernaria erabat harriturik geratu zen.

15. Gobernariak Pazko Jaiero preso bat askatu ohi zuen, herriak nahi zuena.

16. Bazen orduan preso sonatu bat, Barrabas zeritzona.

17. Beraz, jendea bildu zenean, Pilatok galdetu zien:

–Zein nahi duzue askatzea, Barrabas ala Jesus, Mesias delakoa?

18. Ongi baitzekien bekaizkeriaz emana ziotela Jesus.

19. Epaimahaian eserita zegoela, emazteak mandatu hau bidali zion: «Ez zaitezela errugabe horrekin sar! Asko sufritu dut bart ametsetan hori dela eta».

20. Baina apaizburuek eta zaharrek jendea berotu zuten Barrabasen askatasuna eta Jesusen heriotza eska zitzan.

21. Gobernariak berriro galdetu zien:

–Bietako zein nahi duzue askatzea?

–Barrabas! –erantzun zuten.

22. Pilatok esan zien:

–Eta zer egin behar dut Jesusekin, Mesias delakoarekin?

Denek erantzun zuten:

–Gurutzean josi!

23. Eta hark:

–Zer oker egin du, bada?

Haiek, are eta oihu handiagoz:

–Gurutzean josi!

24. Guztia alferrik zela eta, gainera, iskanbila sortuko zela ikusirik, Pilatok hura hartu, eta jendearen aurrean eskuak garbitu zituen, esanez:

–Ez naiz gizon honen heriotzaren erantzule! Zeuek ikusi!

25. Herri osoak erantzun zuen:

–Gure gain eta geure haurren gain horren heriotza!

26. Orduan, Barrabas askatu zien eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haien eskuetara eman zuen, gurutziltza zezaten.

27. Gobernariaren soldaduek Jesus jauregira eraman zuten eta gudutaldeko denak bildu zituzten haren inguruan.

28. Soinekoak erantzi zizkioten eta purpurazko kapa batez jantzi zuten.

29. Arantzaz egindako koroa ezarri zioten buruan eta kanabera eskuan, eta, aurrean belaunikaturik, iseka egin zioten esanez: «Agur, juduen erregea!».

30. Listua botatzen zioten eta, kanabera kendurik, buruan jotzen zuten.

31. Nahikoa iseka egin ondoren, kapa erantzi eta bere soinekoak jantzi zizkioten. Gero, gurutzean josteko eraman zuten.

32. Ateratzean, Zireneko gizon bat aurkitu zuten, Simon zeritzana, eta Jesusen gurutzea eramatera behartu zuten.

33. Golgota izeneko tokira iritsi zirenean (Golgotak «Buruhezur» esan nahi du),

34. Behazunez nahasiriko ardoa eman zioten edatera. Jesusek dastatu, baina ez zuen edan nahi izan.

35. Gurutzean josi ondoren, soldaduek Jesusen jantziak banatu zituzten zotz eginez.

36. Eta han gelditu ziren, eserita, zaintzen.

37. Buruaren gainaldean kondenaren arrazoia ipini zuten idatzita: «Hau Jesus da, juduen erregea».

38. Jesusekin batera bi lapur gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean eta bestea ezkerrean.

39. Handik igarotzen zirenek irain egiten zioten Jesusi, buruari eragin,

40. Eta esanez: «Santutegia desegin eta hiru egunean eraikitzen omen duen horrek, Jainkoaren Semea baldin bahaiz, salba ezak heure burua! Jaits hadi gurutzetik!».

41. Era berean, apaizburu, lege-maisu eta zaharrek ere irribarre egiten zioten, esanez:

42. «Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin. Israelgo errege omen duk hori; jaits dadila orain gurutzetik, eta sinetsiko diagu berarengan.

43. Jainkoarengan jarria dik uste ona; libra dezala orain, maite baldin badu; ez zian, bada, esaten Jainkoaren Semea zela?»

44. Orobat, berarekin gurutzean josiak zeuden lapurrek ere irain egiten zioten.

45. Eguerditik hirurak arte ilundu egin zuen lurbira osoan.

46. Hirurak inguruan, Jesusek oihu handiz esan zuen: *«Eli, Eli, lema sabaktani?»* (Hau da: *«Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu?»*)

47. Hura entzutean, bertan zeuden batzuek esan zuten: «Eliasi deika ari da».

48. Eta berehala, haietako bat lasterka belaki bat hartzera joan, ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsita, edatera eman zion.

49. Besteek, ordea, zioten: «Egon, ea datorkion Elias salbatzera!».

50. Baina Jesusek, berriro deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

51. Eta horra, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino; lurrikara izan zen eta harkaitzak zartatu egin ziren.

52. Hilobiak zabaldu eta hilik zeuden santu asko piztu egin ziren.

53. Hilobietatik irten eta, Jesus piztu ondoren, hiri santuan sartu ziren eta jende askori agertu zitzaizkion.

54. Lurrikara eta gertakari guztiok ikustean, erromatar ehuntariak eta harekin Jesus zaintzen zeuden besteek, beldurrak jota, esan zuten: «Zinez, Jainkoaren Semea zen hau!».

55. Baziren han emakume asko ere, urrutitik begira; Jesusi jarraituz Galileatik etorriak ziren, beraren zerbitzari.

56. Haien artean, Magdalako Maria, Santiago eta Joseren ama Maria, eta Zebedeoren semeen ama.

57. Ilunabarrean, Jose zeritzon Arimateako gizon aberats bat etorri zen, Jesusen ikaslea.

58. Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu zion. Pilatok emateko agindu zuen.

59. Josek, gorpua harturik, izara garbi batean bildu zuen.

60. Eta haitzean zulaturiko hilobi berri batean ezarri zuen. Gero, harri handi bat irauliz, hilobiko sarrera itxi eta joan egin zen.

61. Magdalako Maria eta beste Maria hilobi aurrean eserita zeuden.

62. Biharamuna larunbata zen. Azpaizburuak eta fariseuak Pilatogana bildu ziren elkarrekin.

63. Eta esan zioten:

–Jauna, gogoratu dugu engainatzaile horrek, artean bizi zenean, esan zuela: «Hiru egunen buruan piztu egingo naiz».

64. Agindu ezazu, bada, hirugarren eguna arte hilobia zaintzeko; ez dadila gerta, haren ikasleek gorpua eraman eta gero, «Hilen artetik piztu da» herriari esanez etortzea. Azken engainu hau lehenengoa baino okerragoa izango litzateke.

65. Pilatok erantzun zien:

–Badituzue zeuen zaindariak. Zoazte, eta zaindu dakizuen moduan.

66. Joan ziren, bada, eta hilobia segurtatu zuten, harria zigilatuz eta zaindariak ipiniz.

HOGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

Jesusen piztueraren berria. Soldaduak erosi.
Ikasleak mundu osora bidaliak.

1. Larunbata igaro eta asteko lehen eguna argitzean, Magdalako Maria eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren.

2. Bat-batean, lurrikara gogorra gertatu zen: Jaunaren aingerua zerutik jaitsi zen eta, hurbildurik, harria biratu zuen eta gainean eseri zen.

3. Tximista zirudien eta haren jantzia elurra bezain zuria zen.

4. Hura ikustean, beldurrez dardaraka eta hilda bezala geratu ziren zaindariak.

5. Baina aingerua emakumeei mintzatu zitzaien esanez:

–Zuek ez beldurtu. Badakit Jesus gurutziltzatuaren bila zabiltzatela.

6. Ez dago hemen, piztua baita, esan zuen bezala. Zatozte eta ikusi ezarria egon zeneko tokia.

7. Gero, zoazte bizkor ikasleei esatera: «Hilen artetik piztua da eta zuen aurretik joango da Galileara; han ikusiko duzue». Hau da esan behar nizuena.

8. Hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz eta poz-pozik, lasterka ikasleei berri ematera joan ziren.

9. Hartan, Jesus atera zitzaien bidera, esanez: «Agur zuei!».

Emakumeek, ondoraturik, oinak besarkatu zizkioten eta gurtu egin zuten.

10. Jesusek esan zien: «Ez beldurtu! Zoazte eta esan nire senideei Galileara jaoteko; han ikusiko naute».

11. Emakumeak joan ondoren, zaindari batzuk hirira etorri ziren gertaturiko guztiaren berri apaizburuei ematera.

12. Apaizburuek, zaharrekin bildu eta soldaduei dirutza on bat emateko erabakia hartu zuten.

13. Honela aginduz: «Esan ezazue haren ikasleak gauez etorri zirela eta, zuek lo zeundetelarik, gorpua eraman dutela.

14. Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geu konponduko gara harekin, eta arriskutik aterako zaituztegu».

15. Soldaduek dirua hartu eta esan bezala egin zuten. Eta halaxe zabaldu da juduen artean kontu hori gaur arte.

16. Hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek esandako mendira.

17. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden.

18. Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: «Ahalmen osoa eman dit Jainkoak zerulurretan.

19. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz.

20. Eta nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta ni zuekin izango nauzue egunero, munduaren azkena arte».

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, R., ELORTZA, K. & ZUMALDE, K.
–2014, *Oñatiko euskeria*, Oñati, Oñatiko Udala

ARANA LUZURIAGA, Aitor
–2025, *Arabako euskara. Zigoitiko aldaera*, Zigoitia, Erroteta argitaletxea. Zigoitiko Udala

AREJITA, Adolfo (eta beste)
–2003, *Labayru Hiztegia Bizkaiera eta Batua (b)uztarturik*, Bilbo, Labayru Ikastegia, BBK Fundazioa, Ibaizabal argitaletxea

CABODEVILLA LUSARRETA, Josu
–1991, *Aetzen uskara*, Iruñea, Nafarroako Gobernua

CASENAVE-HARIGILE, Junes
–2001, *Xiberoan eüskaraz*, Maule, Sü Azia Ondarearen Etxea
–2002, *Batarzün Berria*, Ahurti, Biblia Elkartea

DUVOISIN, Joan Piarres
–1860 [1972], *Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea

ELIZEN ARTEKO BIBLIA ELKARTEA
–1994, *Elizen arteko Biblia*, Bibli elkarte batuak, Euskal elizbarrutiak

ESTORNES LASA, Bernardo
–1997, *Diccionario español-uskara roncalés / Erronkariko uskararen hiztegia*, Iruñea, Nafarroako Gobernua

IZAGIRRE, Kandido
–1994, *Vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate*, Oñati, Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala

KEREXETA, Jaime
–1993, *Euskal Biblia* [bizkaieraz], Bilbo, Bilboko Elizbarrutiko Gotzaintza

PAGOLA, R. M., IRIBAR, I. & IRIBAR, J. J.
–1992-1999, *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak*, [25 liburuki], Deustuko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza

ZAMENHOF, Lazaro Ludoviko (eta beste)
–1927, *La Sankta Biblio*, London, Edinburgo, Glasgov, Brita kaj alilanda Biblia Societo

L. L. Bonaparte printze hizkuntzalariak, XIX. mendean jasotako eskuizkribuetan, Mateoren ebanjelioaren bederatzi bertsio hauek biltzea lortu zuen: behe-nafarrera, bizkaiera, erronkariera, gipuzkera, hego goi-nafarrera, ipar goi-nafarrera, lapurtera, zaraitzuera eta zuberera.

XX. mendean, 1991. urtean, J. Cabodevillak aezkerazko bertsioa argitaratu zuen. Eta XXI. mendean, 2025. urtean, A. Aranak arabaerazkoa egin zuen.

Euskaldun guztiona den hizkuntz altxor erraldoi hori liburu honetan eguneraturik eskaintzen zaio gaur egungo irakurleari.

MATEOREN EBANJELIOA HAMABI EUSKALKITAN

AEZKERA	*Bilatu zazie ta harpatuko duzie.*
ARABAERA	*Billatu eisue ta arkituko dusue.*
BEHE-NAFARRERA	*Bila zazii eta atzemain duzii.*
BIZKAIERA	*Billatu egizubo ta aurkituko dozubo.*
ERRONKARIERA	*Txerka zazei eta erdesen izei.*
GIPUZKERA	*Billa zazue eta arkituko dezue.*
HEGO GOI-NAFARRERA	*Bila zazie eta aurkituko'uzie.*
IPAR GOI-NAFARRERA	*Bila zazue eta harpatuko'izue.*
LAPURTERA	*Bila zazue eta arkituren duzue.*
ZARAITZUERA	*Bila zazie eta erdesenzie.*
ZUBERERA	*Txerka ezazie eta edirenen duzie.*
EUSKARA BATUA	*Bila ezazue eta aurkituko duzue.*

Laguntzaileak:

¡Berba aholkularitza

Euskalkien lagunak

ERROTETA

9 788417 607999